



Universidad Euskal Herriko
Dpto. Didáctica y Organización Escolar Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila

DOKTORE TESIA

HAUR HEZKUNTZAKO GELEN ANTOLAKETA
ESPAZIALAREN ETA ERABILERAREN DESKRIBAPENA
ETA AZTERKETA

I. LIBURUKIA

Margarita Lorea Jauregi Elizondo

Donostia, 2009



Universidad Euskal Herriko
Dpto. Didáctica y Organización Escolar Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila

DOKTORE TESIA

HAUR HEZKUNTZAKO GELEN ANTOLAKETA
ESPAZIALAREN ETA ERABILERAREN DESKRIBAPENA
ETA AZTERKETA

I. LIBURUKIA

Margarita Lorea Jauregi Elizondo

Zuzendaria: Pedro Ayerbe Echeberria

Donostia, 2009

AURKIBIDEA

I. LIBURUKIA

SARRERA.....	1
I MARKO TEORIKOA.....	15
1 ESPAZIOARI BURUZKO HURBILKETA KONTZEPTUALA.....	15
1.1 Ezagutza Espazialaren Eraikuntza Prozesua.....	20
1.2 Espazioa/Ingurunea eta Gizakiaren arteko Erlazioa	24
2 ESKOLAKO ESPAZIOEI BURUZKO IKERLANAK.....	29
2.1 Ikuspegi Historikoa.....	29
2.2 Haur Hezkuntzako Espazioak.....	32
2.2.1 Fröbel-en ‘espazio-eskola’ eredua	32
2.2.2 Ikasleen beharrei egokitutako eskola-espazioak	33
2.2.3 Gaur egungo eraikuntzei buruzko arautegi ofiziala	36
3 ESKOLETAKO ERAIKUNTZEN INGURUKO IKERLANAK.....	43
3.1 Eraikuntzen Diseinua.....	43
3.1.1 Diseinuaren eragina jokabidean	48
3.1.2 Altzari eta ekipamenduak.....	50
3.1.3 Eskolako ergonomia.....	51
3.1.4 Ingurune-baldintzak	52
3.2 Eskoletako Espazio Arkitektonikoen Ebaluazioa	61
3.3 Haur Hezkuntzako Testuinguruen Ebaluazioa	62
3.4 Harms & Clifford-en Eredua	65
4 ESPAZIOAREN ANTOLAKETA: PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK.....	67
4.1 Gela eta Gelaz kanpoko Espazioetako Antolaketa Ereduek	68
4.2 Ikastetxean oinarritutako Antolaketa Ereduek	70
4.3 Komunitate osoa barne hartzen duen Eredua.....	71
4.3.1 Italiako Pistoia Haur Eskoletako proposamena.....	81
4.3.2 Catalunyako “El Martinet” Haur Eskolako proposamena	84
5 ALDAGAI GARRANTZITSUAK.....	87
5.1 Espazioa	87
5.2 Denbora.....	95
5.3 Egokitzapen-Aldia.....	107
5.4 Autonomia.....	116
5.5 Elkarrekintza	124
6 ERREFERENTZIAK.....	135
6.1 Antzuolako Eskolaren Proposamena	135
6.2 Amara Berri Ikastetxearen Sistema	142

II	MARKO ENPIRIKOA.....	149
7	IKERKETAREN DISEINUA.....	149
7.1	Helburu Nagusia	149
7.2	Helburu Orokorrak	149
7.3	Helburu Espezifikoak	149
7.4	Metodologia	150
7.5	Aldagaiak.....	152
7.6	Erabilitako Instrumentu edo Tresnak.....	153
7.6.1	Bi ikastetxeetan eskainitako txosten eta dokumentuak.....	153
7.6.2	Elkarrizketak	154
7.6.3	Galdeketak.....	154
7.6.4	Behaketak	155
7.6.5	Beste hainbat tresna.....	155
7.7	Laginaren Hautaketa.....	156

III ERREALITATEAREN DESKRIBAPENA ETA ONDORIO PARTZIALAK..... 157

8	BI IKASTETXEAK	157
8.1	Ikerketaren Aurkezpen Orokorra	157
8.2	Auzoen Ezaugarriak.....	158
8.3	Ikastetxeen Ezaugarriak	160
8.4	Ikerketako Eraikinak.....	160
8.5	Ikerketa Geletako Irakasleak.....	162
8.6	Haur Hezkuntza Etapako Helburu Orokorrak	162
8.7	Metodologia Printzipioak eta Oinarriak	163
8.8	Gurasoekiko Harremanen Antolaketa eta Garrantzia	163
8.9	Egokitzapen-Aldirako Proposamena.....	164
8.9.1	Arantzazuko Ama Ikastola.....	164
8.9.2	Harri Berri Ikastetxea.....	169
8.9.3	Gurasoak eta andereñoak egokitzapen-aldiko prozesuan	170
8.9.3.1	Gurasoekiko harremanak.....	170
8.9.3.2	Andereñoen zeregina	171
8.9.3.3	Ondorio partzialak	173
8.10	Gelen eta Espazioen Aurkezpena.....	175
8.10.1	Alderdi fisikoak.....	175
8.10.2	Gelen egitura	180
8.10.3	Espazio/Txokoen antolaketa eta funtzionamendua	180
8.10.4	Ondorio partzialak.....	181
8.10.5	Gelaz kanpoko espazioak	182
8.10.6	Espazioen deskribapena eta laburpenatxoa.....	185
8.11	Material Esanguratsuenak Txokoka/Espazioka eta Analisia	186
8.12	Denboraren Antolaketa eta Analisia.....	188
8.13	Talde Jarduera Esanguratsuenak eta Ondorio Laburrak.....	188
8.14	Haurren Asistentziaren Taulak eta Analisia	200
9	BI IKASTURTEAK	207
9.1	Arantzazuko Ama Ikastola	207
9.1.1	Lehenengo ikasturtea	207
9.1.1.1	Banakako eta talde txikitako jarduerak	207
9.1.1.1.1	Bilakaera.....	211
9.1.1.1.2	Adibideak	212
9.1.1.1.3	Ondorio partzialak	214
9.1.1.2	Autonomia ohiturak.....	215
9.1.1.2.1	Bilakaera.....	221
9.1.1.2.2	Araua eta egoerak	223
9.1.1.2.3	Ondorio partzialak	225
9.1.1.3	Elkarrekintza-egoerak.....	225
9.1.1.3.1	Bilakaera.....	226
9.1.1.3.2	Ondorio partzialak	226
9.1.1.4	Geletako funtzionamenduan lagundu duten aspektuak	227
9.1.1.5	Ikuspegi orokorrak andereñoaren hitzetan	228

9.1.2	Bigarren ikasturtea	230
9.1.2.1	Banakako eta talde txikitako jarduerak	231
9.1.2.1.1	Bilakaera	235
9.1.2.1.2	Adibideak	236
9.1.2.1.3	Ondorio partzialak	238
9.1.2.2	Autonomia-Ohiturak	239
9.1.2.2.1	Bilakaera	244
9.1.2.2.2	Arauk	246
9.1.2.2.3	Ondorio partzialak	246
9.1.2.3	Elkarrekintza-egoerak eta bilakaera	246
9.1.2.4	Euskararen erabilera	250
9.1.2.5	Konfliktoen soluziorako estrategiak	252
9.1.2.6	Antzuolako egonaldiaz	253
9.1.2.7	Ikuspegi orokorrak, andereñoaren hitzetan	254
9.2	Harri Berri Ikastexea	259
9.2.1	Lehenengo ikasturtea	259
9.2.1.1	Banakako eta talde txikitako jarduerak	259
9.2.1.1.1	Bilakaera	263
9.2.1.1.2	Adibideak	265
9.2.1.1.3	Ondorio partzialak	266
9.2.1.2	Autonomia-ohiturak	267
9.2.1.2.1	Bilakaera	272
9.2.1.2.2	Arauk eta egoerak	273
9.2.1.2.3	Ondorio partzialak	274
9.2.1.3	Elkarrekintza-egoerak, bilakaera eta ondorio partzialak	275
9.2.1.4	Estrategiak – Jolasak	280
9.2.1.5	Ikuspegi orokorrak, andereñoaren hitzetan	282
9.2.2	Bigarren ikasturtea	285
9.2.2.1	Banakako eta talde txikitako jarduerak	285
9.2.2.1.1	Bilakaera	294
9.2.2.1.2	Adibideak	297
9.2.2.1.3	Ondorio partzialak	298
9.2.2.2	Autonomia-ohiturak	301
9.2.2.2.1	Bilakaera	307
9.2.2.2.2	Arauk eta egoerak	308
9.2.2.2.3	Ondorio partzialak	310
9.2.2.3	Elkarrekintza-egoerak eta bilakaera	310
9.2.2.4	Ikasturtean zehar jasotako oharrak	313
9.2.2.5	Ikuspegi orokorrak andereñoaren hitzetan	316

10	LABURPENA ETA KONPARAZIOAK: 2000-02 IKASTURTEAK	319
10.1	Arantzazuko Ama Ikastola	319
10.1.1	Eraikin eta geletako funtzionamendua	319
10.1.2	Asistentzia	319
10.1.3	Materialak espazioka.....	319
10.1.4	Denboraren antolaketa	320
10.1.5	Jarduerak espazioka edo txokoka.....	320
10.1.6	Autonomia-ohituren heziketaren garapena	323
10.1.7	Elkarrekintzarekin lotutako egoeren garapena.....	324
10.2	Harri Berri Ikastetxea	325
10.2.1	Eraikin eta geletako funtzionamendua	325
10.2.2	Asistentzia	325
10.2.3	Materialak espazioka.....	325
10.2.4	Denboraren antolaketa	326
10.2.5	Jarduerak espazioka eta txokoka.....	326
10.2.6	Autonomia-ohituren heziketaren garapena	328
10.2.7	Elkarrekintzarekin lotutako egoeren garapena.....	330
10.3	Bi Ikastetxeen arteko Konparazioa.....	331
10.3.1	Eraikina, gelak eta funtzionamendua	331
10.3.2	Ikasle kopuruak	331
10.3.3	Asistentzia	331
10.3.4	Txokoen – espazioen funtzionamendua.....	332
10.3.5	Txoko eta antolamenduari buruzko elementuak	333
10.3.6	Materialak / baliabideak	333
10.3.7	Espazio-txoko berdinetako jarduerak.....	333
10.3.8	Autonomia-ohituren heziketaren garapena	335
10.3.9	Elkarrekintza-egoerak	336
10.3.10	Andereñoek azpimarratutako premiak	336
11	DESKRIBAPENA ETA ALDERAKETA: 2007-08 IKASTURTEA	337
11.1	Ikastetxeen Kokapena, Nortasun Ezaugarriak, Zerbitzuak eta Antolaketa	337
11.1.1	Arantzazuko Ama Ikastola.....	337
11.1.2	Harri Berri – Oleta Ikastetxea	341
11.1.3	Aldaketak	345
11.2	Ingurune-Auzoaren Zerbitzu eta Ezaugarriak.....	346
11.2.1	Martutene auzoko azken urteotako aldaketak	348
11.2.2	Altza auzoko azken urteotako aldaketak.....	349
11.3	Ikastetxeen Identifikazio-Datuak	349
11.4	Eraikinak eta Ingurunea	351
11.5	Irakasleak.....	352
11.6	Haur Hezkuntza Etapako Helburu Orokorrak	353
11.7	Metodologia Printzipioak.....	354
11.8	Gurasoekiko Harremanak.....	354
11.9	Egokitzapen-Aldirako Proposamena.....	354
11.9.1	Arantzazuko Ama Ikastola.....	354
11.9.2	Harri Berri – Oleta Ikastetxea	356

11.10	Gela eta Espazioak.....	357
11.10.1	Alderdi fisikoak eta analisisa.....	357
11.10.2	Alderdi funtzionala eta analisisa.....	361
11.10.3	Gelaz kanpoko espazioak eta azken urteotako berrikuntzak.....	362
11.11	Material Esanguratsuenak Txokoka/Espazioka eta Analisisa	366
11.12	Denboraren Antolaketa eta Analisisa.....	367
11.13	Talde Jarduera Esanguratsuenak Espazio-Txokoka eta Aldaketak	368
11.14	Arantzazuko Ama Ikastola : Bi urteko Haurrak	374
11.14.1	Elkarrizketa eta behaketa saioaren deskribapena.....	374
11.14.2	Ikasleak eta Autonomia-ohiturak	377
11.14.3	Autonomiaren bilakaera eta ondorio partzialak	382
11.14.4	Elkarrekintza-egoerak	384
11.14.5	Ikuspegi orokorrak andereñoaren hitzetan	386
11.15	Arantzazuko Ama Ikastola : Hiru urteko Haurrak	389
11.15.1	Elkarrizketak eta behaketa saioaren deskribapena.....	389
11.15.2	Ikasleak eta Autonomia-ohiturak	396
11.15.3	Autonomiaren bilakaera eta ondorio partzialak	402
11.15.4	Ikuspegi orokorrak andereñoaren hitzetan	404
11.15.5	Aldaketa eta ondorioak	408
11.16	Harri Berri Oleta - Ikastetxea	409
11.16.1	Elkarrizketak eta behaketa saioen deskribapenak	409
11.16.2	Ikasleak eta autonomia-ohiturak	417
11.16.3	Autonomiaren bilakaera eta ondorio partzialak	422
11.16.4	Ikuspegi orokorrak andereñoaren hitzetan	424
11.16.5	Aldaketa eta ondorioak	428
11.17	Bi Ikastetxeetako Elkarrekintza-Egoeren Sintesia.....	429
12	ALDERAKETAREN SINTEZIA 2000-02 IKASTURTEEKIKO.....	433
12.1	Ikastetxearen Nortasun Ezaugarriak, Zerbitzuak eta Antolaketa	433
12.2	Ikastetxearen Identifikazio-Datuak.....	433
12.3	Auzoko Zerbitzuak	433
12.4	Helburu Orokorrak - Konpetentziak	434
12.5	Metodologia Printzipioak.....	434
12.6	Gurasoekiko Harremana	434
12.7	Gela/Gelak	434
12.7.1	Alderdi fisikoak.....	434
12.7.2	Espazioen antolaketa	434
12.7.3	Alderdi funtzionalak.....	434
12.8	Gelaz Kanpoko Espazioak.....	435
12.9	Material Esanguratsuenak Espazioka/Txokoka.....	435
12.10	Denboraren Antolaketa	435
12.11	Jarduera Esanguratsuenak Espazioka/Txokoka.....	435
12.12	Egokitzapen-Aldirako Proposamena.....	436
12.13	Ikasturtearen Prozesu edo Bilakaera	436
12.14	Autonomia-Ohituren Heziketa eta Bilakaera.....	441
12.15	Elkarrekintza-Egoeren Eboluzioa.....	443
12.16	Irakasleen arteko Koordinazioa.....	443
12.17	Udaletxeak Eraikinean eginda/egitear dauzkan Hobekuntzak.....	444
12.18	Bi Ikastetxeetan egin beharko liratekeen Hobekuntza-Lanak.....	444

IV ONDORIOAK.....	445
13 ALDERDI OROKORRAK.....	445
13.1 Eraikinak eta Mantentze-Zerbitzua	445
13.2 Administrazioa eta Udaletxearen Eginkizuna	449
13.3 Eraikuntzen Diseinua.....	449
13.4 Eskoletako Espazio Arkitektonikoen Ebaluazioa	455
13.5 Espazioaren Antolaketa: Proposamen Didaktikoak.....	457
14 ETAPAREN GARRANTZIA.....	461
14.1 Haur Hezkuntza Etapako Helburu Orokorrak	461
14.2 Metodologia Printzipioak.....	461
14.3 Gurasoekiko Harremanen Planteamendua	462
14.4 Egokitzapen-Aldirako Proposamena.....	462
14.5 Espazioak, Materialak, Denbora eta Talde Jarduerak	464
14.5.1 Gelen eta espazioen egitura.....	464
14.5.2 Espazio/txokoen antolaketa eta funtzionamendua	464
14.5.3 Material esanguratsuenak adinaren arabera	466
14.5.4 Denboraren antolaketa ikerketa geletan	467
14.5.5 Jarduera esanguratsuak espazioka.....	467
14.5.6 Asistentzia eta ikasle kopuruak	470
14.5.7 Haur bakoitzaren parte hartzea taldeko jardueretan.....	471
14.5.8 Autonomia eta elkarrekintza	476
14.5.8.1 Arantzazuko Ama Ikastola	476
14.5.8.2 Harri Berri Ikastetxea	478
15 KONTRASTAKETA: 2007-08 IKASTURTEA	481
15.1 Ikastetxearen Nortasun Ezaugarriak, Zerbitzuak eta Antolaketa	481
15.2 Ikastetxearen Identifikazio-Datuak.....	481
15.3 Auzoko Zerbitzuak	481
15.4 Helburu Orokorrak – Metodologia Printzipioak, Gurasoekiko Harremana... 482	
15.5 Gela/Gelak, Espazioen Antolaketa, Alderdi Funtzionalak.....	482
15.6 Gelaz Kanpoko Espazioak.....	483
15.7 Material Esanguratsuenak Espazioka/Txokoka.....	483
15.8 Ikertutako Geletako Ikasle Kopuruak, Asistentzia eta Denboraren Antolaketa... 483	
15.9 Jarduera Esanguratsuenak Espazioka/Txokoka.....	484
15.10 Egokitzapen-Aldirako Proposamena.....	485
15.11 Ikasturtearen Prozesu edo Bilakaera	485
15.12 Autonomiaren Heziketa eta Bilakaera.....	487
15.13 Elkarrekintza-Egoeren Eboluzioa bi Ikastetxeetan.....	489
15.14 Andereñoen Zeregina Prozesuan zehar	489
15.15 Irakasleen arteko Koordinazioa.....	489
15.16 Udaletxeak eginda/egitear dauzkan Hobekuntzak.....	490
15.17 Bi Ikastetxeetan egin beharko lirartekeen Hobekuntzak.....	491
15.18 Etorkizunerako Iradokizunak.....	491
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	493

SARRERA

SARRERA

1 TESIAREN KOKAPENA

Aurkezten dudana lanak Donostiako bi ikastetxetako Haur Hezkuntzako gela antolaketaren eta erabileraren deskribapena eta azterketa egitea du helburu.

Hiru eremu desberdinduko genituzke lan honen garrantzia justifikatzeko orduan: gaiaren interes zientifikoa, didaktikoa eta gure interes pertsonal eta profesionala.

1.1 Interes zientifikoa

Gai honen inguruan egin diren ikerketek argi uzten digute eskolaren espazioak diseinatu eta antolatzeak duen garrantzia irakaskuntza-ikaskuntza prozesua garatzerakoan. Espazioa, aukerak ematen dituen egitura moduan ikus daiteke, eta hezkuntza jardueren moldaera erraztu edo mugatu egin dezake. Hau da, erraztu, mugatu edo oztopatu egin dezake gelako eta eskolako gainontzeko espazioen giro eta dinamika orokorra. Espazioa, "bizi" dugunaren (sentitu, hunkitu, sentimenduak identifikatu eta adierazi) marko fisiko bezala ulertzen dugu.

1.2 Interes didaktikoa

LOGSE legea 1991n ezarri zenetik espazioaren antolaketaren gaia garrantzi handia hartzen joan dela esan dezakegu. Nahiz eta Haur Hezkuntzan, ordurako, gela antolaketari dagokionez ikastetxe askotan aurrerapauso handiak emanak ziren, legeak berrikuntza horiek jasotzeko eta gutxiengoak ezartzeko lagundu egin du antolaketaren garrantzia beste zentro askotara orokortzen.

Gaur egun, gure inguruko ia ikastola eta eskola guztietako Haur Hezkuntzako andereño eta maisuek, gelak txoko edo espazio bereiztuetan antolatuta lan egiten dute, gelako egitura hauek ematen dituzten aukera anitzak probatu, gogoeta egin eta beharren arabera moldaketak eginez; haurren jolas, lan eta deskantsurako giro egoki eta atsegina lortzeko ahaleginetan.

Pedagogia berrikuntzak derrigorrez espazio fisiko moldagarriak eta malguak behar ditu, hobeto diseinatutakoak, irakaskuntza prozesu aktibo, dinamiko eta parte-hartzaileari erantzungo dietenak.

1.3 Nire interes pertsonal eta profesionala

1980. ikasturtean Donostiako Amara Berriko Eskola Publikoan hasi nintzen lanean Eusko Jaurlaritzak pedagogo bezala kontratatu nindueanean eta eskola horretan martxan hasi berria zen esperientzia hurbiletik ezagutzeko aukera izan nuen.

1982-83 ikasturtean “B” eredu eskoletako koordinatzaile taldeko kide izatera pasa nintzen eta Gipuzkoako hainbat eskualdetako eskoletako andereñoekin –gelak txokoetan antolatzeke kezka eta gogoia agertzen zutenekin– aritu ginen gelako espazioak berrantolatzen laguntzen. Bileretan sortzen ziren zalantza eta galderak eztabaidatzen genituen eta gure ikuspuntua ematen genuen.

1985-88 ikasturteetan Donostiako ikastetxe publiko batean egin nuen lan, Haur Hezkuntzako gela batean, 3 eta 4 urteko umeekin, eta gelak txokoetan antolatzeak ematen dituen aukerak neronek frogatzeko aukera paregabea izan nuen. Autonomia eta elkarrekintza mailan umeek lortzen dituzten aurrerapenak egunez egun ikusi ahal izan nituen. Azpimarratuko nuke honelako antolaketak gelako giro, dinamika eta ongizate maila asko hobetzen dituela, umeari “protagonismo” handia ematen baitio, bera baita momentu askotan gelako martxaren “arduradun” .

1988ko urtarrilaz geroztik Donostiako Irakasle Eskolan ari naiz lanean Didaktika eta Eskola Antolaketa azpisailean. Haur Hezkuntzako Metodologia, Antolaketa eta Planifikazioa; Practicum-ak, Didaktika Orokorra eta beste hainbat irakasgai emateak, aukera proposa eskaini dit espazioen diseinu eta antolaketari buruzko proposamenak aztertu eta gaurkutzeko, nire ikasle taldeei azalduz, beraiekin eztabaidatu eta elkar gogoetak eginez.

2 TESIAREN BILAKAERA

Lanaren lehenengo aldia 1999-2000 ikasturtean burutu genuen, “Ikerkuntza Gaitasunerako” elaboratu behar genuen ikerketa lana egiteko asmoz. Orduan egin genituen lehenengo elkarrizketak Donostiako 3 ikastetxe hauetako zuzendari eta koordinatzaileekin: Arantzazuko Ama Ikastola, Harri Berri Ikastetxea eta Aita Larramendi Ikastetxea.

Ikastetxe hauen aukera egitea honako arrazoi hauengatik izan zen: Arantzazuko Ama Ikastola, Antzuolako Herri Eskolako proiektuan oinarrituta lan egiten duelako; Harri Berri Ikastetxea, Amara Berriko sistema osatzen duten sareko eskola bat delako eta Aita Larramendi Ikastetxea, pedagogia berrikuntza bidean pauso garrantzitsuak ematen ari zelako.

1999/2000 ikasturtean hiru eskola hauetan egin genituen behaketa saioak eta lan horren deskribapena eta ondorioak, aipatutako Ikerkuntza Gaitasun ikerkuntza lanerako aurkeztu genituen. Jarraian, doktore-tesia egiteko izena eman eta 2000/01 ikasturterako hiru ikastetxeetatik bi aukeratu genituen egokitzapen-aldiko umeen prozesua -- eskolako lehenengo egunak -- maiztasun gehiagorekin jaso eta aztertzeke helburuarekin. Bi ikastetxe hauek, Arantzazuko Ama Ikastola eta Harri Berri Ikastetxea izan ziren. Hurrengo bi ikasturteetako plana eta helburuak zuzendari eta andereñoek azaldu ondoren, bi urteko haurren bi gelak eta andereñoak zein izango ziren adostu genuen.

Gaiarekin lotutako bibliografia kontsultatu eta liburu eta aldizkariak irakurri ondoren, behaketa lanerako tresnak prestatzen hasi ginen.

Bigarren aldia, 2000/01 eta 2001/02 ikasturteetan burutu genuen, iraileko lehen egunetatik bi ikastetxeetan haurren "egokitzapen prozesua" behatu. Aurreko ikasturteetik zuzendari eta andereño, eraikinak, barru eta kanpoko espazioen antolaketa eta erabilera ezagutzen genituz, gela zehatzetako dinamika eta sortzen ziren egoeren datuak hartzen joan ginen hurrengo elementu hauek kontuan hartuz: ikasleei indibidualki egiten zaien harrera momentua, gurasoen presentzia eta papera, andereñoen zeregina, atxekimendu figurak duen garrantzia, haurrak espazio eta material berrietara hurbiltzeko duen modua, beraien arteko lehenengo elkarrekintzen hasiera, talde handi zein txiki eta banakako jarduerak, ... Laburtuz, haurraren egokitzapen-aldiko prozesua behatu eta aztertzen.

Bi ikasturte horietan zehar bi geletako haurren prozesua jasotzen joan ginen gela/geletako espazio edo txoko bakoitzean egiten dituzten jarduerak kontuan hartuz, andereñoekin behatutakoa komentatuz --elkarrizketa informalekin bidez--, psikomotrizitate gela eta patioa jarduerak eta egoerak jasoz. Saio egun bakoitzean egindako deskribapenen sintesia tauletan laburbiltzen joan ginen eta geletako dinamikan sortzen ziren elkarrekintza eta egoera gatazkatsuak jaso eta horietatik ateratzen genituen iritzi zein ideiak azaldu genituen.

Autonomiarekin eta elkarrekintzarekin zerikusia duten ohiturei buruzko informazioa: elikadura, higiena, norberaren txukuntasuna, ordena..., galdeketa moduan, euskaraz eta gaztelaniaz (euskaraz ez zekiten gurasoei) hiruhilabeteka pasa eta jaso genituen.

Ikastetxeetan eskaini zizkiguten txosten eta proiektu kurrikularrekin lotuta dauden elementuak eta informazioak aztertu genituen.

Ikasturteetako bilakaera hobeto ulertzeko asmoz, andereño eta zuzendariekin egin genituen ikasturte bakoitzaren amaierako elkarrizketek, espazioen antolaketa, haur taldearen prozesua, haur zehatzen bilakaera, administrazio eta udaletxearekiko harremanak jasotzen dituzte.

Gure lanerako Italiako Reggio Emilia-ko Udal Eskolen diseinua eta antolaketa ezagutzeak zuen garrantzia kontuan hartuta, 2001. urtean, eskola hauek hurbiletik behatzeko eskaera egin genuen.

Lanaren hirugarren aldia, 2002/04 ikasturteetan, aurretik jasotako deskribapen eta datuak garbira pasa eta datuen azterketa eta interpretazioa egiten joan ginen.

Bibliografia kontsultatzen jarraitu genuen aldizkari eta liburuetatik gaiari lotutako erreferentziak jaso.

Ikerketaren marko teorikoa idazten hasi ginen garai horretan.

Prozesuan zehar zuzendariarekin izandako elkarrizketen eta hark lanari eginiko jarraipenaren laguntzaz, deskribatutako atal guztien bilakaera, ondorio laburrak eta bi ikastetxeen arteko konparazioak egiten joan ginen.

2004/05 ikasturtean, Italiako Reggio Emilia-ko udal eskolak bisitatzeko aukera izan nuen eta egonaldi hura guztiz aberatsa izan zen eskoletako eraikuntzen diseinuak duen eragina eta “eskola hirira irekitzeak” duen garrantzia ikusi ahal izateko. Bai eta ildo horretan gure eskoletan eman beharko lirakekeen pausoez hausnarketa bat egiteko ere.

Bertatik ekarritako liburu eta dokumentuak aztertu eta lanaren marko teorikoa osatzen joan ginen.

Arazo pertsonal batzuen ondorioz, ezin izan genuen ikerketa honekin pentsatzen genuen bezala jarraitu eta urte eta erdiko etenaldia egin ondoren berriro ekin genion lanari.

Reggio Emilia-ko egonaldia hain esanguratsua izan zenez, planteamendu honetara iritsi ginen: berriro bi ikastetxetara hurbildu, 5 urteko epean bai eskola auzoetako nahiz barruan egindako hobekuntzak eta aldaketak jaso, kontrastatu eta Reggio-ko eskoletako errealitatea gure bi ikastetxeekin alderatzeko proposamena egitea.

2006/07 ikasturtean, tesi zuzendariari planteatu genion gure asmoa eta berak emandako aholku eta pautak kontuan hartuz, bi ikastetxeetako zuzendari eta andereñoekin kontaktuan jarri ginen gure proposamena azalduz. Gurekin kolaboratzeko erabat prest azaldu zirela azpimarratu nahi genuke.

2007/08 ikasturtean zehar joan gara elkarrizketa eta behaketa saioen bidez, bi ikastetxeetako datuak jasotzen aurreko ikasturteetako atalak eta eskema bera erabiliz.

2008ko ekainetik aurrera, datuak eta deskribapenak garbira pasa, hobekuntza eta aldaketen azterketa egin eta aurreko ikasturteetakoekin konparatzen joan gara.

Gaiarekin lotutako erreferentziak gaurkotzen jarraitu dugu eta horiek marko teorikoan islatzen.

Lanaren laugarren aldian, ondorio orokorrak idatzi ditugu eta etorkizunerako lan ildo posible batzuk proposatu.

Ikerketa lan honek iraun duen bitartean Magisteritza Eskolako dozentzia lanarekin jarraitu dugu.

3 TESIAREN EGITURA

Lau ataletan antolatu dugu:

- I. Marko Teorikoa
- II. Marko Enpirikoa
- III. Errealitatearen Deskribapena eta Ondorio Partzialak
- IV. Ondorioak

3.1 Marko Teorikoa

Atal honek 6 kapitulu hartzen ditu barne:

1. kapitulua: Espazioari buruzko hurbilketa kontzeptuala

Espazioaren kontzeptua egile desberdinek mendeetan zehar nola definitu izan duten jaso dugu kapituluaren hasieran.

Ezagutza espazialaren eraikuntza prozesua umearen garapen kognitiboarekin lotuta dagoenez, Piaget-en oinarritzko kontzeptu espazialak eta beste egile batzuen teoriak azaldu ditugu.

Espazioa/ingurunea eta gizakiaren arteko erlazioa aztertzeke interesa diziplina askotatik azaldu izan denez: Arkitektura, Soziologia, Psikologia, Antropologia, Geografia, Didaktika..., hurbilketa bat egin nahi izan dugu. Psikologia eta

Arkitekturaren ikuspegitik progresiboki egiten joan diren azterlanak, ingurune natural nahiz eraikitakoek jokabidean eragiten duten alderdietan gero eta gehiago zentratu direla ikusi dugu. Azken urteotan ikuspegi honetatik egindako lanek, batez ere espazioen kalitate fisikoarekin lotuta daudenean, espazioa, gizabanakoaren jokabide eta jabetze desberdinen eraginekin ebaluatu izan dute.

2. kapitulua: Eskolako espazioei buruzko ikerlanak

Aipatzen ditugun ikerketen artean, globalki eskolako eraikuntzekin lotuta daudenenak eta konkretuki Haur Hezkuntzako umeen beharrak kontuan hartuz egin direnen erreferentziak azaldu ditugu. Kapituluaren amaieran, gaur egungo eraikuntzei buruzko arautegi ofiziala agertu dugu.

Estatu Batuetan 50. hamarkadaren bukaeran sortu ziren Open Space Schools (gela irekiak zituzten eskolak, pareta eta barruko banaketa gabekoak) izan ziren aitzindariak.

Haur Hezkuntzako eskoletako eraikinen eraikuntzek behar zituzten baldintzak ezarri zituen Fröbel pedagogo alemaniarra izan zen. Bere "espazio-eskola" eredu guztiz garrantzitsua izan zen: espazio irekia, dinamikoa eta malgutasuna eskaintzen duena. Fröbel-ek sortutako zentroak, Kindergarten izenez ezagutzen dira.

3. kapitulua: Eskoletako eraikuntzen inguruko ikerlanak

Eskoletako arkitekturaren alorrean eraikuntzekin erlazionatuta dauden gaien artean, eraikinen diseinua gero eta garrantzi eta kezka handiagoa hartzen joan da eta sentsibilizazio maila honek talde multidiziplinarrak sortzeko beharra argi ikusi arazi du: arkitekto, maisu-maistra, pedagogo...

Ikastetxe bat eraikitzerakoan kontuan hartu behar liratekeen aldagaien artean, hainbat adituek beraien ikerlanen emaitzetatik ondorioztatzen dituzten hauek daude besteak beste: kokapena, orientazioa, egituraren tamaina, eraikinaren barruko eta kanpoko espazioen antolaketa moldagarri eta malgua, baldintza akustikoak, termikoak, argiztapena, aireztatze eta berogailu sistemak, koloreak, zentzumen bakoitzaren ezaugarriak...

Reggio Emilia-ko egileek espazioaren diseinua eta egituraren antolaketan zentzumen bakoitzaren ezaugarriek duten garrantzia azpimarratzen dute, espazio polisentsoriala osatuz.

Altzari eta ekipamendu aldetik egindako ikerketek argi uzten dute ergonomiak duen garrantzia, aulkiak, mahaiak eta gainontzeko elementuak diseinatzerakoan

kontuan hartu beharko liratekeen ezaugarriak, ondorio fisiko eta psikiko kaltegarriak ekidin nahi baditugu.

Eskolak ahalik eta familiarrena izan behar du, erabiltzaileari ongizate eta erosotasuna eskainiz; birproiektatzeko aukera eman behar du, epe luzeko eta motzeko aldaketak ahalbidetuz.

Eskoletako Espazio Arkitektonikoen Ebaluazioa egiterakoan Salmerón-en tresna aipatu dugu, berak erabiltzen dituen aldagaiak gure bi ikastetxeak ebaluatzeko erabili baititugu. Zazpi alor hauek kontuan hartzen ditu: estetika orokorra, funtzionalitatea, globaltasuna, etxekotasuna, egokitasuna, tekniko-eraikuntzazkoak eta ingurune fisikoaren erosotasuna.

4. kapitulua: Espazioaren antolaketari buruzko proposamen didaktikoak

a) Gela eta/edo kanpoko espazioan zentratuta dauden antolaketa ereduak

Proposamen honetan, batzuetan, gela bakarrik sartzen da eta besteetan, aldiz, kanpoko espazioak ere bai. Izendapen anitzen artean honako hauek aipa ditzakegu: irakaskuntzako edo jardueretako zonaldeak; jarduera-aldeak; txokoak; tailerrak; jarduera-guneak, etab. Kasu guztietan, gela barrua zonalde edo irakaskuntza eremu desberdinetan antolatuta egoten da.

b) Ikastetxean oinarritutako antolaketa ereduak

Proposamen anitzak daude multzo honen barruan ere, baina, tailer integralak izendapena hartzen duten hauen ezaugarrietako bat, ikastetxeko gela bakoitza "plastika", "matematika", "ipuinak" eta abarretako tailer bihurtzea da, eta talde edo ume desberdinak gela horietatik pasatzen joatea, irizpide edo baldintza batzuen arabera.

c) Ikastetxeko mugak gainditu eta komunitate osoa barne hartzen duten ereduak

Eskola planteamendu hau inguruneari uztartua eta irekia dago, hezkuntza eta giza alderdiak lotzen ditu eta hezkuntza prozesu formalak, ez formalak eta informalak besarkatu eta erlazionatzen ditu erakunde eta hezkuntza espazio desberdinen sarea osatuz.

Proposamen hau, Frabboni-ren pentsamendu lerroan kokatuko genuke, sistema hezigarri integratu bat proposatuz, eskolako eta lurraldeko baliabide hezigarri guztiak kontuan hartuz.

Sailkapen honetako ereduaren erreferentzia esanguratsua, Italiako Reggio Emilia-ko udal eskolak dira. Hauetan, ikastetxea osotasun moduan ikusten da, espazioak trukagarriak dira eta jarduerak espazio batean nahiz bestean egin daitezke, eskola barruan ala kanpoan, momentuko interes eta beharren arabera.

5. kapitulua: Hainbat aldagai garrantzitsu

Gure lanean azertu ditugun aldagaien artean, honako hauek daude: espazioa, denbora, egokitzapen-aldia, autonomia eta elkarrekintza.

a) Gure bi eskoletako espazioak Reggio Emilia-ko eskoletako proposamenarekin kontrastatu ditugunez, elementu hauek azpimarratu ditugu espazioaren aldagaia deskribatzerakoan: dimentsio erlazionala, eskolan egiten dena dokumentatzeak duen garrantzia eta haurtzaindegi eta eskolak proiektatzeak, pedagogikoki eta arkitektonikoki duen proiektioaz gain, sozialki, kulturalki nahiz politikoki hartzen duen dimentsioa.

b) Denbora

Espazioa eta denbora baliabide moduan har ditzakegu. Ikuspuntu honek, kontzeptualki, aurreko ikuspegi zurrunean hausteko aukera ematen digu eta gaurko hezkuntza sistemaren behar konplexuei erantzuna ahalbidetzeko modua.

Montagner-ek egindako ikerketek, haur eta nerabeen oinarri biopsikologikoek ingurunean, eskolan eta familian duten eraginari buruz hitz egiten dute eta erritmo biopsikologikoen "abentura" umea jaio aurretik hasten dela ondorioztatzen du.

Ama eta haurraren arteko erritmoen egokitzapenak erreferentzia egonkor batzuk behar dituen bezalaxe, haur eskolak, ume bakoitzaren erritmoa hartu beharko luke kontuan, horrek ongizate fisiko eta psikikoa sortuko duelako haurraren: lo eta esnatzeko erritmoak, aktibitatea egiteko eta atsedean hartzeko erritmoak, jateko erritmoak...

c) Egokitzapen-aldia

Egokitzapena, edozein umerentzako momentu zaila dela kontsideratuz, oso garrantzitsua da eskolara joaten den lehenbiziko egun horietan haurra eroso sentitzea. Sarrera on bat izan ez duen haurra, amarekiko urruntze prozesu on bat egin ez duena, beste helduekin eta umeekin erlazio sendoak ezarri ez dituen, blokeatutako umea izan daiteke, ziurtasun ezak ez dio utziko esplorazioa eta aurkikuntzak behar duen autonomiarekin burutzen.

Egokitzapen-aldia prestatzeko eman beharreko hainbat pauso hauek izan daitezke: ikasturtean zehar, haurtzaindegia utzi behar duten familiak haur eskoletako irakasleekin bildu; haur eskola umeekin maiz bisitatu giroa ezagutzen joan ahal izateko; bi erakundeetako irakasleak beraien artean bildu eta informazioa trukatu; eskolak ikasturte bukaerako festara gonbidatu guraso berriak; haurtzaindegia eskolari umeek egindako hainbat objektu pasa, irailean, oraindik berea ez duten ingurunean zerbait ezaguna izan dezaten.

Garrantzi handia duen elementuetako bat, bi erakundeen arteko antolaketa bateratua sustatzea izango litzateke, proiektuaren eta hezkuntza lanaren jarraipena bermatzeko helburuarekin.

d) Autonomia

Egunerokoa denaren pedagogia: azturen/ohituren heziketa eguneroko bizitzaren esparruetan

Gizakia, eguneroko espazioan, erritmoan eta egun bakoitzean zehar gertatzen den guztiarekin garatzen da; bere premi eta beharrekin, sentimendu eta emozioekin... eta baita inguruan gertatzen den guztiarekin eta bizitzen dituen aurkikuntza eta esperientziekin ere. Egunerokoa denaren ezaugarrietako bat, neurri handi batean, ohikoak diren aldi baterako hainbat erreferentzia-esparru dituen espazio bat izatea da: hau da, esparru horietan, beharraren edo gizarte-ohituraren ondorioz, beti erritmo berberak errepikatzen dira eta, gainera, bertan irauten dute ondoren aztertuko ditugun azturetako askok. Ohiko esparru horiek dira, gure bizitza moldatzen den gizarte-taldearekin ezartzen ditugun harremanetan ziur sentiarazten gaituztenak.

Fernández-ek proposatzen dituen bizitzako lehen 6 urteetan landu beharreko ohituren artean honako hauek jaso ditugu:

- Autonomia pertsonala indartzen duten azturak
- Norberaren irudi positiboa indartzen duten azturak
- Norberaren defentsari dagozkion azturak
- Lanari eta jarduerari dagozkien azturak
- Komunikazioari eta bizikidetzari dagozkien azturak

e) Elkarrekintza

Haurrak jaiotzen direnean ez dira izaki sozialak, baina guztiak, beren bizitzako une jakin batean, gizarte-harremanak ezartzen eta talde batean integratzen saiatzen

dira. Hori lortzen duten neurrian, besteekin bizitzen ikasteaz gain, beren ahalmenak nola garatzen eta aberasten diren ikusteko sentsazioa esperimentatzen dute. Ikaskuntza horrek, ordea, ahalegin handiak egitea eskatzen du.

Haurraren sozializazioan familiak du paper garrantzitsua. Helduek umearekin izaten dituzten komunikazio-keinu eta gizarte-harremanen lehen irudikapenak landuko ditu. Portaeren bitartez eta beren ideiei emandako erantzunetatik, bere buruarekin komunikatzeko ematen zaizkion estimuluetatik eta eskaintzen zaizkion imitazio-iradokizunetatik abiatuz, haurrak bizikidetzara landuko du.

Haur eskolan sozializazio-une horiek indarrez biziko dira funtsezkoak diren bi alderditan:

- 1.- "NIIa" finkatzean eta Autonomia lortzean.
- 2.- Gizarte-harremanak bilakatzen eta taldean integratzen saiatzean.

Komunikazioari eta bizikidetzari dagokienez, lehen sei urte hauetan hezi behar diren ohiturak oinarritzkoak diren hiru alderdirantz orientatu behar dira:

- Haurraren autonomia indartzera.
- Pertsonarteko harremanak erraztera.
- Lehen talde-harremanak esperimentatzera.

Malaguzzi-ren hitzak kontuan hartuz: "umeak elkarrekintzan aritzeko prest daude; elkarren artean lagunak edo maisuak izatera, helduen eta irakasleen ereduak interpretatuz iristen dira, heldu horiek egoten, lan egiten, eztabaidatzen, pentsatzen eta elkarrekin ikertzen dakiten neurrian".

6. kapituluak: Erreferentziak

Kapitulu honek, gure bi ikastetxeak oinarrituta dauden bi eskolen proposamenen ezaugarriak deskribatzen ditu: Antzuolako Herri Ikastetxearen proiektua eta Amara Berriko sistema.

Antzuolako eskolaren proposamenak konstruktibismoaren ikuspegian du oinarria eta urte asko daramatzate beraien hezkuntza teoria propioa eraikitzen.

Ikaslea era globalean ulertzen dute, dimentsio afektibo-emozionala, sentsorial-motorra, harremanezkoa eta kognitiboa batera azaldu eta landuz. Ikaslea jardueraren abiapuntuan jartzen dute: ikasle bakoitzak sentitzen duena, pentsatzen duena, munduan egoteko eta berau interpretatzeko duen modua, bizitzeko eta elkarbizitzeko duen era... Beraz, jardueraren abiapuntuan sentsibilitateak egongo dira, gauza bera

egiteko era asko, alderdi baten aurrean kokatzeko modu bat baino gehiago, kontzeptu bera interpretatzeko bestelako moduak...

Antzuolako Ikastetxeko taldeak eraiki duen hezkuntza teoriak ikasleen eta irakasleen zereginak birdefinitzen ditu. Irakaslea erdigunetik kendu eta ikaslea kokatzen du bertan. Elkarrekintza horretan denok ikasten dute.

Amara Berri Ikastetxearen Sistemaren ezaugarrien artean, Globalizazioa dugu: bizi-prozesu gisa ulertzen dute eta eskola publiko bateko sistema irekiari egiten diote erreferentzia.

Izate globalak, sistema globalizatu baten barruan esan nahi du, etengabea dela tratamendu isolatuak, partzelatuak edota alde bakarrekoak gainditzeko irrika. Haur bakoitzak garatzen dituen bizi-prozesuak bultzatzen dituzte, beti-beti integralak, zatiezinak eta transferiezinak baitira.

Bizi-prozesua. Beraien hitzetan: bizitza da gure Sistema eraikitzeke dugun abiapuntua eta oinarritzko lehengaia. Gure geletan ari diren haurren bizitza, hain justu ere.

Printzipio Metodologiko hauek nabarmentzen dituzte: indibidualtasuna, sozializazioa, aktibitatea, sormena, askatasuna, globalizazioa, normalizazioa.

3.2 Marko Enpirikoa

7. kapitulu: Ikerketaren Diseinua

Kapitulu honek, ikerketaren helburuak, metodologiaren norabideak, aztertu ditugun aldagaiak, datuak jasotzeko, deskribatzeko eta aztertzeke erabili ditugun instrumentu edo tresnak, eta lagina osatu duten ikastetxeei buruzko datuak jasotzen ditu.

3.3 Errealitatearen Deskribapena eta Ondorio Partzialak

Lan hau bi liburukitan antolatu dugu. II. Liburukiko Eranskinetan, Arantzazuko Ama Ikastolaren eta Harri Berri Ikastetxearen auzoetako eta eskola barruko nahiz kanpoko espazioen ezaugarri eta identifikazio-datuak, 2 ikasturteetan zehar behaketa saio bakoitzetik jasotako espazio eta materialen antolaketa eta erabilera, denboraren antolaketa, egokitzapen-aldiko prozesua, andereñoen zeregina, haurren asistentzia, eraikin, gela eta beste espazioen deskribapena, talde jarduera esanguratsuenak espazioka, behaketa saio bakoitzean kronologikoki jasotzen joan garen talde txikian eta banaka egindako haurren jarduerak, autonomia eta elkarrekintzarekin zerikusia duten

egoerak, euskara arloan egiten joan diren aurrerapausoak, andereño eta zuzendariekin izandako elkarrizketak eta beste hainbat elementu azaldu ditugu.

I. liburuki honetan, sintesi moduan, aipatutako eranskinetan agertzen genituen elementu garrantzitsuenak bi kapitulutan antolatu ditugu, 8. eta 9. kapitulutan, hain zuzen ere.

8. kapituluan, bi ikastetxeetako ezaugarriak, eraikinen, gelen eta gelaz kanpoko espazioen antolaketa eta erabilera, metodologia, material, denbora, talde jarduera esanguratsuenak, haurren asistentziaren taulak eta atal bakoitzaren analisia eta ondorio partzialak azaltzen ditugu.

9. kapituluan, bi ikasturtetan banatuta azaldu dugu eskola bakoitza: Arantzazuko Ama Ikastola (lehenengo eta bigarren ikasturtea) eta Harri Berri Ikastetxea (lehenengo eta bigarren ikasturtea).

Kapitulu honetan, haurrak banaka edo talde txikitan egindako jarduerak, hiruhilabetero haur bakoitzaren autonomia ohiturekin zerikusia duten elementuen taulak, elkarrekintza egoerak, euskararen erabilera, konfliktoen soluzioan lagundu duten estrategiak eta andereñoekin ikasturte amaieretan egindako elkarrizketak agertu ditugu. Atal bakoitzean, ikasturtean zehar eman den bilakaera eta ondorio partzialak islatu ditugu.

10. kapitulua: Laburpena eta Konparazioak

Aurreko bi kapituluetan aztertutako elementuak kontuan hartuta egin dugu laburpena eta ikastetxeen arteko konparazioa.

11. kapitulua: Deskribapena eta Alderaketa: 2007-08 ikasturtea

Arantzazuko Ama Ikastolan, bi gela izan ditugu aztergai: bi urtekoen gela bat eta 3 urtekoen gela bat. Harri Berri - Oleta Ikastetxean, bi urteko gela bat.

Aurreko ikasturteetan bezalaxe, bi ikastetxeetan aurretik kontuan izan genituen elementuak hartu ditugu erreferentziatzat eta atal bakoitzaren deskribapena eta analisia egin ondoren, aldaketen eta berrikuntzen berri eman dugu.

Ikasleek egindako jarduerak, autonomia eta elkarrekintzarekin lotura duten elementu zein egoeren taulak, eta ikasturtean zehar izan den bilakaera zein ondorio partzialak azaldu ditugu.

Ikasturtean zehar egindako geletako behaketa saioen deskribapenak eta andereñoekin izandako elkarrizketak agertu ditugu.

12. kapitulua: Alderaketaren Sintesia 2000-01, 2001-02 ikasturteekiko

Aurreko kapituluan alderaketarako hartu ditugun elementuen sintesia egin dugu kapitulu honetan, 2000/01, 2001-02 ikasturteekin konparatuz.

Udaletxeak egindako edo egitear dauden hobekuntzak eta etorkizunerako premiazko direnak azaldu ditugu atal honen bukaeran.

3.4 Ondorioak

13. Kapitulua: Alderdi Orokorrak

14. Kapitulua: Etaparen Garrantzia

15. Kapitulua: Kontrastaketa: 2007-08 ikasturtea

Hiru zatitan antolatu dugu ondorioen atala, ikerketa lanaren bi epeak kontuan hartuz: Lehenengoan, ikerketaren alderdi orokorren barruan, eraikinen egoera eta mantentze zerbitzuak, Administrazioa eta Udaletxearen eginkizuna, eraikuntzen diseinua eta espazioaren antolaketari buruzko proposamen didaktikoak aztertu ditugu. Bigarrenean, Haur Hezkuntzako etaparen garrantziaren barruan, etapako helburuak, espazioak, materialak, denbora, haurrek taldean egiten dituzten jarduerak, asistentzia eta ikasle kopuruak, haur bakoitzaren parte hartzea taldeko jardueretan eta autonomia nahiz elkarrekintza azaldu ditugu. Hirugarrenean, 2007/08 ikasturtean egindako kontrastaketa lana kontuan hartuz, ikastetxeetako nortasun ezaugarriak, zerbitzuak, auzoko zerbitzuak, espazio desberdinak, materialak, denborak, jarduerak, autonomia, elkarrekintza eta beste hainbat elementu, aurreko epekoekin alderatu ditugu.

Ondorioen atal honetan, irakurleari lanaren nondik norakoak errazteko asmoz jarraitu dugun eskema hauxe izan da: arautegia kontuan hartu behar denetan, adibidez, eskolako eraikin eta inguruko elementuek bete behar dituzten gutxiengoetan, horien deskribapena, gure ikastetxeetan betetzen diren gutxiengoak, betetzen ez direnak eta aholku edo gomendio batzuk azaldu ditugu. Gainontzeko ataletan, ikastetxeetan behatutakoaren arabera, elementuen deskribapen labur bat egin dugu, beste eredu batzuekiko konparaketa eta gomendioak azalduz.

Ondorioekin bukatzeko, etorkizunerako hobekuntza edo berrikuntzarako iradokizun edo lan ildo batzuk proposatu ditugu.

Lanari bukaera emanez erreferentzia bibliografikoak azaldu ditugu.

ESKERRAK EMATEA

Bihotz-bihotzez eskertu nahi ditut lan honen hasieratik Arantzazuko Ama Ikastolako, Harri Berri eta Aita Larramendi Ikastetxeko pertsonala osatu duten zuzendari, koordinatzaile, andereño, jangelako arduradun, atezain, guraso... eskaini didaten laguntzagatik.

Ikerketa garaian zuzendaritzako partaide izan dira: Arantzazuko Ama Ikastolako Felizi Etxeberria eta Itsaso Alkorta zuzendariak, Malen Alvarez-Elizegi eta Miren Santamaria koordinatzaileak, Harri Berri Ikastetxeko Lurdes Dorronsoro zuzendaria eta Yolanda Gonzalez ikasketa burua, Aita Larramendi Ikastetxeko Ignazio Altuna zuzendaria eta Nekane Martiarena andereñoa.

Bereziki eskerrak, ikerketa geletako lagina osatu duten haurren andereñoei: Arantzazuko Ama Ikastolako Belen Otaño, Arantxa Gerendain eta Itziar Monsalbo; Harri Berri Ikastetxeko Margari Aranberri eta Yolanda Gonzalez. Eskerrak ere, Axun Odriozola Arantzazuko Ama Ikastolako andereñoari.

Nire eskerrona erakutsi nahi diet lan hau aurrera eramaten lagundu didaten guztiei. Lanaren zuzendari izan den Pello Ayerberi; zuzenketa lanetan aritu diren Lurdes Larraz, Miren Koro Jauregi eta Iñaki Aizpuruari; argazkiak eskaneatu eta eranskinak enmaketatu dituen Eluska Aizpuruari; lanaren azken errebisioa egin didan Joxemi Correari; euskara gainbegiratu eta lana enmaketatu duen Garbiñe Etxezarretari eta inprimaketa lanak egin dizkidaten Zeles Illarramendi eta Mila Ozabali.

I. MARKO TEORIKOA

1

**ESPAZIOARI BURUZKO
HURBILKETA KONTZEPTUALA**

I MARKO TEORIKOA

1 ESPAZIOARI BURUZKO HURBILKETA KONTZEPTUALA

“Espazioa” eremu askotatik aztertu daitekeen elementua da eta horregatik adiera desberdinak hartzen ditu beregan. Baina, behar bada ohizkoena, Euskal Hiztegi Entziklopedikoak (1995) jasotzen duen hau izan daiteke: “Gorputzak kokatuta daudeneko eta fenomenoak gertatzen direnoko hedadura mugagabea”.

Filosofo, psikologo, soziologo, pedagogo, arkitekto, astrologo, eta abarrek ikuspegi eta interes desberdinetatik definitu izan dute espazioa eta filosofoen kasuan, espazioa eta espazioaren nolakotasuna argitzea kezka handienetakoa izan da aspaldidanik. Arazo horiei eman dizkieten erantzunen arabera bi talde nagusitan bana daitezke filosofoak: espazioaren errealitatea, materiaz osatutako edozein gorputzen izatetik kanpo, “berez” badela baieztatzen dutenak, eta hori ukatzen dutenak. Horrela Greziako filosofo atomisten eta Platon-en iritziz “espazio hutsaz” hitz egiteak bazuen zentzua. Hau ez zuten onartzen Eleako filosofoek, haiek espazioa fikziotzat hartzen baitzuten. Eztabaida horri irtenbidea eman nahian Aristotele-k ez zuen hitz egin espazioaz orokorrean; haren iritziz espazioa “leku” bat da, gauzak inguratzen dituen lekua. Aristotele-ren teoria hori onartu zuten Erdi Aroan.

Filosofia modernoan espazioari buruzko ideiak zalantzan jarri ziren. Deskartes-ek ardatz koordinatuak ezarri zituen geometrian, eta horrekin erlatibizatu egin zuen espazioaren kontzeptua, aritmetikaren eremura eraman baitzuen. Deskartes-en iritziz espazioa eta materia berezietan dira; espazioa berez den zerbait da, eta ez du zerikusirik materiak hartzen dituen formekin, ezta behatzailearekin ere. Lock-en iritziz espazioaren ideia ikusmenaren eta ukimenaren bitartez lortzen da; Leibniz-en iritziz aldiz, espazioa ezin daiteke gorputzekin nahas; espazioaren erlazio teoria defendatzen zuen: haren ustez gorputzek beren artean antolamendu bat dutelako koka baitaitezke espazioan. Azken teoria horri aurre eginez espazioa absolutua dela eta bere edukiarekiko independente dela defendatu zuten Clark eta Newton-ek.

Kant-en iritziz, espazioa intuizio moduko bat da, sentiberatasunaren a priorizko era. Hau da, espazioa ez da bizi daitekeen zerbait, aldiz, bizikizunak izateko baldintza. Kant-en jarraitzaileek areagotu egin zuten espazioaren teoria idealista hau.

Espazioaren errealitatea aztertzerakoan egiten ziren oker asko espazio euklidearra (egitura geometrikoa alegia) eta espazio fisikoa nahastetik zetozen. XIX.

mendean Euklide-renaz bestelako geometriak garatu ziren; horien arabera enuntziatu geometrikoen egia ez du espazio fisikoaren izaerak mugatzen. Hala ere, espazio fisikoaren egitura eta geometria ez dira elkarrengandik erabat askeak; hori dela eta, geometria batzuek beste batzuek baino hobeto deskribatzen dute espazio fisikoaren egitura. Dena den, espazioaren kontzeptua zalantzan jarri duen pertsonarik garrantzitsuenetakoa Einstein izan zen. Honek, (Euklide-rena ez zen geometria bat) Riemann-ena hautatu zuen bere erlatibitatearen teorian, harekin ekuazio fisikoak askoz soilagoak zirelako. Teoria horren arabera espazioa mugatua da, eta hori ez dute onartzen fisiko guztiek. Nolanahi ere, Einstein-en teoriaz geroztik espazioaren arazoa beste era batera definitu beharra dago: ez du zentzurik espazioaz bakarrik hitz egiteak; espazio-denboraz hitz egin behar da. Gaur egungo filosofiak zientziak ematen dituen datuen arabera aztertzen du espazioaren arazoa, eta espazio-denbora kontzeptuan oinarrituz bereziki (Lur Hiztegi Entziklopedikoa, 1991).

Lázaro Ruiz-en eskutik (2000, 28-31) jasoko ditugu espazioaren kontzeptuaren marko teorikoa eratzeko laguntzen diguten ekarpen batzuk.

Psikologiak espazioari buruzko kezka azaltzerakoan, espazio estatiko bezala eta espazio dinamiko bezala kontsideratu du, espazioa "berez den horretan" eta espazio erlazionatzaile bezala.

Liben psikologoak (1981), espazioa zer den galdetzen duenean, espazioaren kontzeptuari buruz historikoki eman diren bi kategorizazio alternatibo handietatik abiatu gabe ezinezkoa dela erantzunik ematea dio.

Lehenengo alternatiba, "erabateko espazioa", absolutua, eta espazio erlatiboaren artean gertatzen da. Erabateko espazioa armazoi baten moduan uler daiteke. Espazio honen barruan dagoen edukitik independenteki existitzen delarik. Objektu materialak leku konkretutan daude kokatuta armazoiaren barruan, baina objektu guztiak lekualdatzen badira ere, espazioa aldatu gabe geratzen da. Espazioaren kontzeptu honetan behatzailearen ikuspegiak ez dauka inolako garrantzirik. Alternatiba hau filosofian Platon eta Clark-ek defendatu zuten eta fisikan Newton izan zen honen defendatzailea.

Aldiz, espazioa hitz edo termino erlatibotan azaltzeak, espazioa objektuen arteko erlazio multzo bat bezala ulertzea inplikutzen du. Ikuspegi honetatik, espazioa aldatu egiten da behatzailearen eta objektuen posizioa aldatzerakoan. "Espazio hutsa"

terminoak ez dauka zentzurik. Postura honen defendatzaileak, filosofian Leibnitz eta Kant izan ziren eta fisikan, berriz, Einstein izan zen honen defendatzaile.

Espazioaren bigarren alternatibaren, Liben-ek bereizten ditu "espazio euklidearra" eta "ez-euklidearra". Lehenengoa, hiru dimentsiotako espazioa da eta bigarrenak, berriz, hiru dimentsio baino gehiago dituen espazioaren aukera eskeiniko luke. Espazioaren ikuskera erabat euklidearra izan zen fisikan, espazioaren kontzeptu absolutuetatik erlatiboetarako "trukea" egin zen arte.

Espazioaren kontzeptu diferentziatzaileei buruzko beste hirugarren aukera bat ere bada, aurrekoak bezain onartua ez badago ere eta halako nahasmena sortu badu ere. Liben-ek (1981) "tokia" eta "espazioa"-ren arteko bereizketa egiten du, toki edo leku zehatzen eta kontzeptu espazial edo abstrakzio orokorren artean egiten dena. Leibnitz eta Einstein mintzatu dira bereizketa honi buruz, nolabait ere, bera izango bailitzateke "ingurunearen irudikapena" eta psikologoaren "abstrakzio espaziala"-ren (oinarriko adierazpen espaziala) azpian dagoena.

Beste jakintza arlo batzuetan espazio ekonomiko, sozial, eta abarrez hitz egiten den bezalaxe, espazio psikologikoari buruzko kontzeptuaren garrantzia definitu nahi izan da. O'Keefe eta Nadel-ek (1978), adibidez, espazio psikologikoa eta espazio fisikoaren ereduari buruz maiz egiten den bereizketa definitu zuten:

"Espazio psikologikoa izango litzateke buruari esleitzen zaion edozein espazio...eta burua existituko ez balitz existituko ez litzatekeena... Aldiz, espazio fisikoa, kanpoko munduari esleitzen zaion edozein espazio da, buruen existentziatik independentea dena".

Egile hauen iradokizunen arabera, lehenengoaren azterlanaz psikologo eta fisiologoak arduratu behar dute eta bigarrenaz berriz, fisikoak.

Dena den, ikuspegi eraikitzailearen (konstruktibismoaren) berezko oinarrietatik, aurreko definizioak kritikagarriak izango liriateke, espazio fisikoa psikologoentzat ere oso esanguratsua baita. Espazio psikologikoa espazio fisikotik atzematen da zuzenean, burutik at ez baitago sekula neurtzerik independenteki. Honekin esan daiteke, espazio fisiko eta psikologikoei buruzko definizioak nahasi edo lausotu egiten direla, neurri batean behintzat.

Beharbada, nahasmena, espazio abstraktua aztertzeke garaian sortzen da, ez baitago espazio abstraktua espazio zehatz batean egiten den jarduera edo izaten den

jokabidea gabe aztertzerik; eta honez gain, espazio zehatz baten edozein adierak espazio abstraktoaren adiera bat ere inplikatzeko duelako.

Ikuspegi eraikitzaile edo konstruktibista aipatu dugu espazio psikologikoa eta fisikoaren artean egiten den bereizketa kritikatzeko. Jarrera epistemologiko honek galdera honetara garamatza; zein jatorri dute buruak-adimenak elaboratzen dituen ereduak? Espazio psikologikoaren jatorriarekin zerikusia duten hiru jarrera desberdin identifikatu dira: enpirista, innatista eta konstruktibista.

Posizio enpiristak espazio fisikotik zuzenean ondorioztatzen den espazio psikologikoa aurreuposatzen du. Espazio psikologikoa zuzenean ondorioztatuko litzateke mundu errealaaren esperientziatik. Jarrera hau aurreko lerroetan azaldu dugun O'Keefe eta Nadel-erenarekin (1978) nahikoa berdina izango litzateke.

Jarrera innatistan, espazio psikologikoaren garapena organismoak oinordetzen duen barruko ezaugarriren batek mugatuta dago. Espazio psikologikoaren erakuntzan parte hartzen duten barruko mekanismo zehatzen azalpenak askotarikoak dira. Batzuen iritziz, dotazio genetikoak hautamate sentsozialaren mekanismo izugarri espezializatutako sail bat eskaintzen digu eta hauek zedarrituko lituzkete hautamate espazialak.

Lázaro Ruiz-ek (2000) zera dio: Zusne eta Allen-ek berezko "seigarren zentzu" espazial baten nolabaiteko aukera egotea ez dutela baztertzen. Beste batzuen iritziz, gizakiak espazio psikologikorako egituraren bat edukiko luke; adibidez, O'Keefe eta Nadel-en iritziz (1978), pertsonak, marko euklidearraren aldeko aurrejoera bat izango luke hipokanpoan.

Hirugarren jarrerak, konstruktibistak, subjektuak berak eraikitzen duela aktiboki bere espazio psikologikoa defendatzen du. Teoria honen arabera egitura espazialak gizabanakoak osatzen ditu, eta ez dira, egitura oro bezala, berezkoak. Egituren osaketa edo garapena ezin da heldutasun edo ingurunearen alderdietatik soilik ulertu, subjektuak ingurunearekin daukan elkarrekintzaren papera kontuan hartuz baizik. Elkarrekintza honi esker erregulatzen da espazioaren formakuntzaren prozesua subjektuarengan. Gaur egungo garapen ontogenetikoaren psikologiaren datu gehienak ikuspegi epistemologiko honen babesean daude.

Lázaro Ruiz-ek (2000, 30), Hart, Moore eta Golledge-n lanak aipatzen dizkigu ikuspegi konstruktibista-elkarrekintzazkoaren errebisio bat egiteko helburuarekin. Golledge-k (1987) ingurumenaren ezagutzaren ikerkuntzari buruzko oinarri

epistemologikoen errebisio orokor bat egiten du; egile honen ustez, ingurumenaren kognizioa hiru oinarri epistemologiko desberdinetan eusten da: positibismoa, interakzionismoa, eta hurbilketa humanista eta analitikoa.

Corraliza-k (1987), Canter, Gärling eta Evans-i jarraituz, konstruktibismoak aipatutako ideiei buruz zera dio: ezin daitekeela hitz egin espazioaren kontzeptualizazio psikologiko bakar bati buruz, batzuei buruz baizik. Egile honen iritziz, toki jakin bateko esperientzia psikologikoa zirkuitu baten zatia da eta hor jokoan sartzen dira, subjektuaren toki horretako ekintza-eremu posibleak, eta alderdi posibleen karakterizazio diferentziatu bat; horien bitartez inguruneak subjektuaren portaeran eragina du (errepresentazio, emozio eta ekintza). Horrela ikusten du subjektuaren elkarrekintzak ingurunearekin betetzen duen papera.

Corraliza-k, hiru adiera posible iradokitzen dizkigu (espazioari buruzko hiru kontzeptualizazio psikologiko) ingurune fisikoaren esperientziaren deskribapenean, non horien inguruan antolatzen den ingurunearen ezagutza psikologikoa. Lehenengo tokian, espazioa estimulazio iturri moduan har daiteke, gizabanakoari atentzio jarduera eskatzen dion mundu jakin modura. Bigarren tokian, informazio iturri gisa non egituratutzen den seinale multzoa subjektuak ordenatu, metatu eta errekupea dezakeen. Azken hau planek eta intentzioek exijitzen dioten mailaren arabera jarriko du martxan. Hirugarren tokian, ekintzarako egitura gisa, subjektua mugitzen den eszenatoki bezala ikusten da.

Lázaro Ruiz-en arabera, orain arte esandakoetatik atera dezakegun ondorioa hauxe da: eraikitzen dugun espazioari buruzko gogoetak espazioaren irudikapenaren gaia kontzeptualki zedarrikatzen laguntzen duela, baina momentuz, ez dela lortu argi eta zehatza duen espazioaren ikuskera psikologikorik. Dena den, ikuspegi eraikitzaletik aurrerapauso batzuk etorri dira azken urteotan espazioaren irudikapen mentalei buruz.

Arkitekturaren helburua, espazioak funtzio jakin batzuetara egokitzeko antolatzea da.

Ikuspegi honetatik, Torinoko Arkitektura Unibertsitateko Enrico Battini irakasleari jarraituz, M.L. Iglesias-ek bere tesi lanean esaten digu, espazioa bolumen moduan ikusten ohituta gaudela, kaxa bat balitz bezala baina, ... bizitzeko espazio gisa ulertu beharko genukeela espazioa, non bizitza garatu eta pasatzen den: multzo oso bat da. Ume txikientzat espazioa guk espazio ekipatua deitzen duguna da, hau da,

altzariz, objektuz, gauza biguin eta gogor, luze eta motz, hotz eta beroz osatua dagoena. Espazioa batez ere argia da...

Espazioa "bizia" duen zerbait da, ez materiala bakarrik baizik eta ekintzak eta emozioak garatzen diren toki bezala ulertua.

Psikologia, kontzeptu espazialen eraikuntza eta irudikapena aztertzeaz gain gizabanakoen moldaeran eta jokabideetan espazioak duen eraginez ere arduratzen da.

Marchesi-k (1983) esaten digu, psikologiaren barruan honen bi adarrek zabal aztertzen dutela espazioa. Alde batetik ingurugiroaren psikologiak, jokabidea eta ingurune fisiko eta sozialaren arteko ezaugarrien erlazioak aztertzen ditu. Hala nola, leku pribatuen tamainak duen eragina, esatebaterako, bakoitzaren etxearen tamainak, eskolan lorategi bat edukitzeak edo ez edukitzeak umeengan sortzen dituen elkarrekintza eta jolas mota desberdinetan duen papera, etab. Bestetik, garapenaren psikologiak ingurune desberdinei erantzunez umearen jokabidea aztertzen du. Erantzun hauek, umearen pertzepzio eta kognizioaren moldaeraren adierazle bezala interpretatzen dituzte psikologoek, umearen oinarrizko dimentsio eta prozesuak ulertzeko moduan: umeak paisaia berea ez den ikuspegi batetik behatzeko daukan gaitasuna edo bere etxeko plano egitekoa, azken orientazio honen barruan sartuko liratekeen ikerketak dira.

1.1 Ezagutza Espazialaren Eraikuntza Prozesua

Espazioaren irudikapenari buruzko azterketek historia bat daukaten arren, (Werner, 1948; Piaget eta kolaboratzaileak, 1947, 1948), oraindik ez da konpondu gizabanakoak ingurunean daukan jarduera eta espazioaren irudikapenaren artean dagoen harremanen arazoa. Hau da, nola umeek izugarri ondo orientatzeko gaitasuna daukaten txikitatik familiako testuinguru batean baina, aldiz, urteak pasatzen dituzten ingurune bera irudikatzeko ahalmena izan arte (Lázaro, 32).

Iglesias-ek (1996), Staccioli-ri jarraituz (1984) honela azaltzen digu: "ez dago zalantzan jartzerik erlazio espazialen eraikuntza estu lotuta dagoela umearen garapen kognitiboarekin. Piaget-ek esaten duenez, espazioaren egituraketa hautemate prozesu baten bitartez eraikitzen da, gizabanako bakoitzaren sentsazioak konektatu eta antolatuz (bere eguneroko jardueran munduarekin daukan harremanean, sentsazioak konektatuz eta antolatuz).

Ezagutza espazialaren eraikuntza prozesuak bi dimentsio handi hartzen ditu barne eta nahiz eta espazioaren erlazioari buruzko bi alderdi desberdinei erantzun,

elkarri oso lotuta daude eta bata besteari elkarreragiten diote: oinarritzko kontzeptu espazialen bereganatzea eta ingurunearen kognizioa.

Oinarritzko kontzeptu espazialak espazio topologiko, proiektibo eta euklidearrari lotuta daude Piaget-en teoriaren arabera. Kontzeptu hauek izaera generikoa dute eta, beraz, toki konkretuen ezagutzari erreferentzia egin gabe, subjektuari laguntzen diote oinarritzko erlazio espazialak ezartzeko bere objektuekin eta inguratzen duen munduarekin daukan elkarrekintzan.

Ingurunearen kognizioak toki jakin bateko espazioaren ezagutzaren eraikuntzari (etxe, eskola, auzoa, etab.) erreferentzia egiten dio eta, ustez, haurrak espazioan orientatzeko garatzen dituen jokabideetan eragina du. Zalantzarik gabe, espazioaren ezagutza modu honek kontzeptu espazial abstraktuen eraikuntzan eragiten du eta alderantziz.

Esperientzia bidez haurrak eta helduak eraikitzen dituzten ingurune espeziфикoen eredu hauek izendapen desberdinak jaso dituzte: geografoek "buru irudi" eta "irudi espaziala" hitzak erabiltzen dituzte; psikologoek "mapa kognitiboa" nahiago dute. Termino honek gizabanakoak bere ingurunearen edo beraren zati baten eta orientatzen ahalbidetzen dion barruko irudikapena deskribatu nahi du.

Mapa kognitiboa gure espazioaren irudikapenaren eredu bat izango litzateke. Baina, batzuetan, espazioaren irudikapen mental horiek, desitxuratuak eta zatikatuak egoten dira, leku edo bide batzuk erlazio berezi eta esanguratsuak lortzen dituzten bitartean beste batzuk desagertuta edo posizio harrigarrietan azaltzen direlarik. Mapa kognitibo baten elaborazioa eraikitzailea da eta ez da gehituz joaten den zatien batuketan oinarritzen, progresiboki egituratzen den konfigurazio batean baizik, berau osatzen duten objektu eta erlazioei zentzua emanez.

Pertsona batek espazioari buruz dauzkan esperientzia eta ezagutzak eta jardutera bultzatzen duten asmo konkretuak erabakigarriak dira neurri handi batean eraikiko duenaren irudikapenaren izaeran; ondorioz, diferentzia nabarmenak ematen dira ingurune berdineko gizabanakoek egiten dituzten mapa kognitiboen artean (Marchesi, 1983).

Ochaita (1983) eta Staccioli (1984) egileen esanetan, ezagutza espazialaren eskuratzea garapen kognitiboaren prozesu eraikitzaileari lotuta dago. Hau da, espazioaren eraikuntza pixkanaka pixkanaka eraikitzen joaten da, errealitateetik eta errealitateari buruz subjektuaren ekintzatik abiatuz.

Idea bera horrela adierazten du Marchesi-k (1983):

“Espazioaren adierazpenaren elaborazio-prozesua, kontzeptu espazial abstraktuei nahiz mapa kognitiboei dagokienez, umeen eta helduengan garatzen den prozesu eraikitzailea da eta norbanakoaren aldagaien eta giro fisikoaren aldagaien interakzio konplexuek eragiten diote. Aldagai horiek neurri handian eragiten dute elkarren arteko harremanak espazioan egiten den irudikapen espaziala eta jarduera edo jokabideak ematen diren heinean eta, harreman hauek denboran zehar aldaketak izaten dituzte”.

Ochaitaren ustez (1983), Piaget-en teoriak eskaintzen digu, ezagutza espazialaren bilakaera garapen kognitibo orokorrarekin era onargarrian erlazionatzen duen eredu teoriko bakarra. Ondoren egin diren lanak Piaget eta bere kolaboratzaileen ikerkuntzetan oinarrituta daude.

Adierazpen espazialaren nozioa eraikuntza prozesuaren azken etapa izango litzateke; hau da, umeak adierazpena lortu arte egiten duen ibilbidea (objektuen ezagutzatik, zein beraiekin daukan zuzeneko kontaktuaren emaitza gisa uler daitekeen –espazio praktikoa edo aurre-adierazgarria– hasiz, adierazpena izango denera heltzeko); edota espazio konkretuen ezagutza (mapa kognitiboen elaborazioa, erreferentzia sistema egozentriko batekin hasiz eta sistema koordenatu eta abstraktu batean bukatuz).

“Irudikapenaren” terminoa Piaget-en teoriatik dator eta espazio “praktikoa” (espazioan aktuatzeke gaitasunarekin lotua) eta “adierazgarria” edo “kontzeptuala” (espazioa irudikatzeke gaitasuna) bereizten ditu. Aipatu dugun espazio praktikoa edo aurre-adierazgarria haurraren lehenengo urteei lotuta dago, hau da, etapa sensoriomotoreari dagokiona. Urte horietan umea elaboratzen doan espazioarekiko nozio edo ideia objektuenganako ekintzari lotuta dago. Geroago azaltzen da espazio adierazgarri edo kontzeptuala; honek inplikatzeko du umeak objektu gabe espazioaren buru irudikapen bat elaboratzeko gai dela.

Erlazio topologikoak figura edo objektu zehatz baten barruan dagoen espazioari lotuta daude. Hurbileko erlazioek, aldentzea, ordena, itxitura eta jarraipen hedadura hartzen dituzte barne (Ochaita, 1983). Oinarritzko kontzeptu batzuk hauek lirateke: jarraia - etena, irekia - itxia, barne - kanpo, lotua - banandua, puskatua - osoa, etab. (Rodríguez Lestegás, 1995).

Espazio topologikoa ulertzeko iaiotasuna, sensoriomotore eta aurreoperazionalaren trantsizio unean ematen da, eta zuzeneko ukitze eta esperientzia motoreei erabat lotuta dago (Evans, 1983).


Espazioaren ulermen proiektiboa, aurreoperazionalaren bukaeraldera ematen dena, espazioan elkarrekintzan dauden objektuen pertzepzioan oinarritzen da. Horrela, espazio proiektiboari zuzenean gehien lotuta dauden oinarritzko kontzeptuak lirateke: ezker - eskuin, aurrean - atzean, goian - behean... (Rodríguez Lestegás, 1995).

Espazio euklidearraren ulermenak, "metriko" bezala ere ezagutzen denak, espazio proiektiboan ezartzen diren erlazio berberak inplikatzeko dituzte, baina, koordenatu-ardatz batzuen arabera. Kasu honetan, oinarritzko kontzeptuak distantziekin, neurriekin, angeluekin, proportzioekin, antzekotasunekin, ikuspegiarekin... daukate erlazioa.

Lehen aipatu dugun bezala, nozio espazialen eraikuntza, Piaget-ek esaten duen bezala, garapen kognitibo orokorrari erabat lotuta dagoenez, honek jarraitzen dituen estadio ebolutibo berdinak inplikatzeko dituzte: sensoriomotorea, aurreoperazionala, operazio konkretuena eta operazio formalena.

Haur Hezkuntzako adineko neska-mutilek sensoriomotore fasean (jaiotzetik 2-3 urte bitartean) edo aurreoperazionalan (2-3 urtetik 6-7 urte arte) egongo lirateke.

Sensoriomotore estadioan zehar umea espazioaren ezagutza praktikoa elaboratzen joango da, aurrerago, aurreoperazional estadioan birreelaboratzen joango da aurreko esperientzia maila errepresentatiboan. Prozesu hau erlazio topologikoekin hasi eta pixkanaka erlazio proiektibo eta euklidearretara pasaz egingo du. (Ochaíta eta Rodríguez Lestegás).



(Iglesias, 1996-a, 28 orr.)

1.2 Espazioa/Ingurunea eta Gizakiaren arteko Erlazioa

Diziplina askotatik sortu da, gero eta indar handiagoarekin gainera, gizakiak bere ingurunearekin duen harremana aztertzeko interesa. Arkitektura, Soziologia, Psikologia, Antropologia, Geografia, Didaktika... 1974koa da Rapoport-ek gizakia-inguruneari buruzko erlazioarekin lotuta zeuden hainbat lanen errebisioa. Egile honen esanetan, Psikologia eta Arkitektura dira lan guztietan azaltzen diren bi diziplina.

Diziplina aniztasuna ikusten dugun bezalaxe, termino ugari dago gaiari buruz hitz egiterakoan ere; hala: inguru, ingurune, ingurumen, ingurugiro, giro, testuinguru. Guk, gure lanean erabiliko ditugun terminoei esanahi hau emango diegu: inguru-ingurune, eskola eta inguruko elementu (parke, zuhaitz, kale, trafiko...), zerbitzu (anbulategi, azoka, garraio...) eta instalazioei (frontoi, kiroldegi, ...) buruz hitz egiteko; testuinguru, hezkuntza gertaerak ematen diren kontestua seinaltatzeko; giro, eskolan eta ingurunean hautematen diren eta pertsonarengan eragina duten inguru-baldintzak aipatzeko: espazioen egitura eta banaketa (materialen kalitatea, argitasuna, koloreak, hotz-beroa...), altzari eta materialen antolaketa, jarduera, pertsonen arteko elkarrekintza eta jarrera...; ingurumen, ingurunearen aldaketa edo perturbazioek (bereziki giza jardueraren ondorioz gertatutakoek) honengan edo honen osagarrietako batengan duten eragina.

Esan beharra daukagu dena den, batzuetan, ingurune eta giroa terminoak nahiko pareko erabiltzen ditugula.

Giroa, ekintza formatzaile instituzionalizatuak gertatzen diren eszenatoki moduan ikusten dute egile batzuk; alde batetik dimentsio fisikoa (espazioa eta denbora) eta bestetik, eskolaren kultura propioa (giro inmateriala) eta kanpoko ingurunearen eragina. “Ez da beraz hezkuntza ekintzaren curriculumaren edukitzaile, formakuntzaren eduki bat baizik. Bitartekaria eta mezua ere bada.”

Iglesias-k dioen bezala, Arkitekturaren ikuspegitik denbora luzez egindako ikerketek aldagai isolatuak aztertu izan dituzte, adibidez, argitasuna, kolorea edo soinua, baina, ekarpen hauek ez dute lagundu gizakiarengan ingurune fisikoak duen eragina ulertzen (Rapoport, 1974).

Psikologia eta Arkitekturaren ikuspegi bikoitzetik progresiboki egiten joan diren azterlanak, gero eta gehiago zentratu dira ingurune natural nahiz eraikitakoek jokabidean eragiten duten eraginetan. Azken urteotan ikuspegi hontatik egindako lanek, espazioen kalitate fisikoarekin lotuta daudenek batez ere, gizabanakoaren jokabide eta jabetze desberdinen eragina ebaluatu nahi izan dute (Salmerón Pérez, 1992).

Salmerón-ek, berak egindako eskoletako espazio arkitektonikoei buruzko ebaluazioan, bi lan garrantzitsu aipatzen ditu:

Lehenengoa, Lausanne-ko Arkitektura Eskola Politekniko Federaleko Saileko Perrinjaquet Roger-ena da (PEB) eta lan honekin, eraikin baten egokitasuna ebaluatu nahi izan dute gizabanakoaren eta ingurunearen arteko elkarrekintza prozesuen dinamikaren ikuspegitik. Horretarako, 4 alderdi jasotzen dituzten galdeketetan oinarritzen dira: eraikinaren ezaugarri sozio kulturalak, ezaugarri espazialak, bere erabilpenaren irudikapena, praktika sozialak eta erabilpenerako helburuak. Lehenengo bi alderdiei buruz, espazio asmatu eta eraikiaren arteko erlazioa ezartzen dute, eta bi azkenekoekin, espazio horien erabileran gizabanakoek bizitutakoa azaltzen dute. Salmerón-en esanetan, lan honen emaitzek, eraikitako espazioen ebaluazio eredu bat martxan jartzen lagundu dute, hiru oinarritzko alderdi kontuan hartuz:

- Dimentsio funtzional edo fisikoa, hau da, mugimendua eta lanerako alaitasuna probokatuko duten baldintza fisiko egokiak eskainiz.

- Dimentsio sozio kulturala, gizabanakoari bere inguruko espazioa antolatzeko eta irudikatzeko gaitasuna erraztuko diona.

- Antolakuntzako dimentsioa, eraikinaren antolaketa arkitektonikoari lotua.

Bigarrena ere, PEB taldearen ekarpena da eta ebaluazio-interbentzio eredu bat proposatzen du, lau elementu lehenetsiz:

- Eskolako ingurugiro fisikoaren alderdien erlazioak eta azterketa.
- Ingurugiroaren estudioa eta garapena, ez produktu bezala baizik eta prozesu moduan.
- Gaur egun lehenetsia duten aspektuen ezarpena.
- Ingurugiro fisikoaren kalitatea hobetzeko prozesuaren antolaketa, heziketaren kalitate elementu gisa.

Salmerón-ek dioenez, ikertzaile talde honek hezkuntza prozesua lau zutabe hauetan oinarritzen du:

- Espazioaren antolaketa, ikaskuntza desberdinetarako programatzen diren jarduerentzako tokien antolaketa.
- Tokien alderdi sentikorra. Erabiltzaileen jabetzarekin lotua; gizabanakoaren, espazioaren eta erabilpenaren arteko oreka emozionala lortzera bideratua (afektibitate alorra).
- Komunitatearekiko erlazioak, alderdi kulturalak, sozialak eta etikoak barne hartuz (alor sozio-kulturala).
- Arkitekturaren sinbolismoa, eskolaren inguru fisikoak erabiltzaileei eta komunitateari egiten dion ekarpen estetiko eta kulturala (alor estetiko-kulturala).

Fernández-Ballesteros-ek (1987) dioenez, korrante eta ikuspegi teoriko desberdinetatik aztertu dira ingurune, testuinguru edo egoerak. Ikuspegi teoriko hauek ekologiaren psikologia, psikologia soziala, jokabidearena eta ikuspegi kognitibopertzepziozkoarenak dira.

Ebaluazio teknikei dagokionez, Ingurunearen Psikologian lan egiten duten egile batzuk, tekniken taldekatze desberdinak egin zituzten ikuspegi arabera: Craik, Argyle, Paradisey Cooney, Moos (Fernández Ballesteros-ek aipatuak).

Egile honek, sailkapen bat proposatzen du eta bertan, aldagai fisikoen ebaluazioa egiteko tresna garrantzitsu gisa Moos-en Ezaugrri Fisiko eta Arkitektonikoen Inbentarioa (Physical and Architectural Features Checklist, PAF izenez ezagutzen dena) nabarmentzen du.

Estatu mailan, Salmerón-ek, Moos-en PAF-a egokituz, eskolako espazio arkitektonikoen kalitatea ebaluatu ahal izateko, CAES deituriko (Calidad Arquitectónica Escolar) tresna proposatzen digu eta ondorengo atal batean deskribatuko dugu.

2

**ESKOLAKO ESPAZIOEI
BURUZKO IKERLANAK**

2 ESKOLAKO ESPAZIOEI BURUZKO IKERLANAK

“Komunitate bateko eskoletako eraikuntzak gizakiaren ikuskeraren, bere kulturaren eta, noski, hezkuntza ikuskeraren isla dira” (Molina Simó, 1982).

Labur-labur eskolako espazioei erreferentzia egiten dioten estudio eta ikerketa batzuk aipatuko ditugu. Hemen sartuko ditugu, globalki eskolako eraikuntzekin lotuta daudenak eta, altzari, ekipamendu eta inguruneko hainbat baldintza zehatzago aztertzen dituztenak.

2.1 Ikuspegi Historikoa

Iglesias-ek, Prada-ri (1979) erreferentzia eginez, zera esaten digu: Estatu Batuetan hasten dela 50eko hamarkadaren bukaera aldera eskoletako espazioei buruzko ikerketa egiteko kezka, Open Space Schools –gela irekiak, paretik eta barruko banaketa gabekoak– sortu zituztenetik hain zuzen ere. Europan ere, ordutik aurrera sortzen da eskolako arkitektura horri buruzko interesa eta lehenengo eraikuntzak, 60ko hamarkadaren hasieran egin ziren Ingalaterra eta Suedian.

Esperientzi berritzaile hauetatik at, Europako herrialdeetako eskolako arkitekturaren eta administratzaileen kezka nagusia ez zen kualitatiboa, kuantitatiboa baizik. Eraikuntza programen azken helburuak, kokapen egokia, epe motzean eraikitzea eta ahal zen merkeena izatea ziren (Ader 1975).

Santos Guerra-k (1993) ere horrelaxe dio, eskolako espazioak eraikitze garaian, tradizionalki, azalaren neurketa eta ikasle kopuruaren arabera eskaera minimoei erantzutea zela helburua aipatzen duenean. Eskola guztiak berdinak dira: bloke angeluzuzen luzea, alboko edo inguratzen duen patio bat eta hesiak kanpoaldearekiko banaketa ezartzeko.

Ader-en ustez, eskolako eraikina eredu pedagogiko bakar batetarako zegoen egituratua: ikasleen antolaketa, irakaslearen irakaskuntza magistrala hartzeko prestatutako talde homogeneoen bidez. Eskema honekin, administratzaileen, arkitektoen eta erabiltzaileen arteko erlazioak erabat mekanikoak izan dira.

Dena den, egoera hau nabarmen aldatuko da herrialde industrializatuetan Bigarren Mundu Gerraren ondoren. Irakaskuntza-ikaskuntza alorrean egindako ikerketen emaitzek zein lehentasunezko helburuak bete izanak, hau da, ia erabateko derrigorrezko eskolaldiaren tasak, kalitatearen arazoei atentzia ematen hastea ekarri zuen.

Eskoletako eraikuntzen planifikazioak eremu zabalagoaren partaidetza behar zuela izan ikusten hasi ziren: arkitektoen, hezitzaileen, hezkuntzako administrazioen, komunitateko ordezkarien eta ikasleen gurasoen ekarpenen parte hartzea beharrezkoa zela, alegia.

Estatu mailan, eskola eta arkitektura gaien inguruko kezka 1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorra martxan jarri zenetik sortu zen, taldeko lanaren eta ikaskuntza indibidualizatuaren beharra aldarrikatzen zuelako beste elementu batzuen artean, eta aldaketa metodologiko horrek eskoletako eraikuntzen diseinu aldaketa inplikatzeko zuten. Prada-ren (1979) hitzetan, legearen hainbat xedapenetan islatzen dira egitura erdi irekiak egitea, elementu mugikor eta erdi mugikorrek erabiliz, talde malguak egiteko aukera emanez.

Estatu mailan, eredu arkitektoniko berri hau islatzen duen adibide esanguratsu bat, Catalunyako "Escola Espiga" izan zen. Garai bereko beste eraikuntza aipagarrien artean daude, Madrilgo Villafranca del Castillo herriko San Estanislao de Kotska eskola eta Guadalajarako Mandayona herriko OHO-ko ikastetxea.

Prada-ren esanetan, 1970eko Hezkuntza Lege Orokorren eta 1971ean ateratako xedapenean ezartzen ziren arautegi berritzaile hauek ez zuten arrakasta handirik izan, behar bada, burokrazian oinarrituta zeudelako eta indarrean zegoen erregimenaren parte hartze gaitasun eskasarengatik.

Heras Montoya-ren (1997) esanez, 1970eko hamarkadatik gaur egunera arte eskoletako eraikuntzak izan dituzten aldaketak batik bat erabaki legislatiboek lotutakoak izan dira. Joerak era guztietakoak izan dira momentuko legearen arabera eta horrela, 1972 eta 1973an geletako espazioak irekiagoak izateko joera hartu bazuten ere, geroago, berriz, lehengora itzuli dira, gela itxietara alegia.

Pérez Collera-k (2003) dio, gure mugetatik kanpo eztabaida garrantzitsuak ematen ari direla hezkuntzako azpiegiturei buruz: Australian, Erresuma Batuan, Europako iparraldeko herrialdetan. Etorbizuneko eskolari buruzko gogoetak TIC-ek ezartzen dituzten aldaketak kontuan hartuz egiten ari dira.

Armengol-en (2003) esanetan, eskoletako espazioa, hezkuntzako egintzaren edukitzaile, ekintza dozenteen bilduki edo jarduera didaktikoen euskarria baino zerbait gehiago da. Espazioa tresna pedagogikoa da eta hiru ikuspuntu desberdinetatik aztertu beharko genukeela esaten digu; hirurak uztartuak daudela eta osagarriak direla: makroespazio hezigarria, makroespazio eskolarra eta mikroespazio eskolarra.

- Makroespazio hezigarria. Eskola ez dago isolatutako espazio batean, espazio zabalago baten parte da. Testuinguru geografiko honek ikaragarri baldintzatzen ditu eskola bateko erlazio moduak, jarduerak eta proposamenak.

Josep Benedito arkitektoaren hitzetan, arkitektura, toki zehatz bateko beharrari eman behar zaion erantzun formala eta konstruktiboa da. Ikasleen tipologiak, kokapen geografikoak, inguruneak, erantzun behar ditugun behar sozialak... egiten dute eskola bakoitza desberdina izatea.

- Makroespazio eskolarra. Eraikuntza bera, lau pareten artean kokatua dagoena. Informazio ugari ematen digu jarduera hezigarriari buruz, ez da neutroa.

Eskoletako eraikuntzek erabilerarekin zerikusia duten aspektua eskaintzen dute: argia, espazioa, sonoritatea, kapazitatea..., baina baita komunikatiboa edo sinbolikoa ere, egiten ari diren jardueraren kalitatea edo orientazioari buruz hitz egiten duena alegia. Irudi fisiko horrek, irudi publiko horrek, eramaten du eskola bere ingurunearekin dituen komunikazio-kanalak martxan jartzera.

- Mikroespazio eskolarra. Zona espresuki antolatua, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hartzen dituztenak. Espazio hauek ez dira gelekina bakarrik lotu behar.

Makro eta mikro espazioen artean bi oinarrizko gai agertzen dira erabilgarritasun funtzionalaren ikuspuntutik: ziurtasuna eta kalitate-adierazleak.

Armengol-ek berak galdeketa bat elaboratu du, zeinaren helburua, kokatzen garen eskoletako espazioak baloratzeko elementu objektiboak eskaintzea den; tresnak eskeintzen dizkigun kalitate-adierazle horiek lagunduko baitigute zer daukagun eta hobetzeko norantz joan behar dugun ezagutzen.

Royo-k (2003) eskoletako gaur egungo irudiaz hitz egin eta galdetzen digu: zer komunikatu nahi dute eta zer komunikatzen diguten benetan eskolek hezkuntzaren unibertsaltasunaz.

Orain eraikitzen diren eskolak, jarraitzen du Royo-k, zabalak eta argitsuak dira, komunikatzen dute, kiroleko zelaiez inguratuta daude, informatikako gelak eskaintzen dituzte, sonoritate ona daukatela diote... Modernoak eta praktikoak dira hitz batean. Berriak saldu egiten du, baina, gaur berria dena berehala zaharkituta gelditzen da. Azaleko mezuak dira, instrumentalak. Badirudi, kontzienteki edo

inkontzienteki, egiten ari diren jardunaren seriotasuna, garrantzia, ezkutatu egiten dutela.

2.2 Haur Hezkuntzako Espazioak

Haur Hezkuntzako eraikuntzek ere pedagogia zehatz bati, haurtzaroaren ikuskera/buruera bati eta umeen beharrei eman behar diote erantzuna eta zentzu horretan esan dezakegu aldaketa nabarmenak izan direla, 1770ean, Frantzian, ume jaio berrientzat lehenengo zentroa ireki zenetik.

2.2.1 Fröbel-en 'espazio-eskola' ereduak

Inolako zalantzarik gabe, Fröbel pedagogo alemaniarra izan zen, lehendabiziko aldiz, Haur Hezkuntzako eskoletako eraikinen eraikuntzek behar zituzten baldintzak ezarri zituen eta, bere ereduari esker, aurrerapauso handiak eman ziren (Lahoz Abad, 1994).

Egile honek esaten digun moduan, Fröbel-en espazio arkitektonikoaren ereduak guztiz garrantzitsua izan da bere konfigurazioari esker: espazio irekia, dinamikoa eta malgutasuna eskaintzen duena, non haurrek, libreago esploratzeko, erlazionatzeko eta ikasteko aukera izango duten; alderdi guztien garapena sustatuz: pertzepzioa, espresioa eta umearen erlazioak; guzti hauek, antolatutako ingurune hezigarri batean.

Fröbel-ek proposatutako ereduak eskolaren antolaketa formalizatua suposatzen du eta pedagogia berriaren eskakizunei aurre egiteko diseinu arkitektoniko egokia. Berak sortutako zentroak Kindergarten izenez ezagutzen dira eta honako ezaugarri hauek dituzte:

- Espazio irekiak (lorategi handi bat), espazio itxiak (eskolako eraikina) eta trantsiziokoak (patio estalia eta irekia).
- Eraikina neurri txikikoa izango da, familiarra, eta arkitektura aldetik ezaugarri soziokulturalei eta ingurumenari ahalik eta egokituena.
- Izaera naturalista, espazio irekiak nagusi izango direlarik.
- Inguruneari progresiboki egokitua. Trantsizio harmonikoa dago beti, eraikin itxiaren eta kanpoko espazioaren eta patio estali eta erdi-irekietatik pasatzerakoan.

Lahoz Abad-en lanarekin jarraituz, hona hemen Fröbel-ek proposaturiko gune-arkitektonikoaren elementuen ezaugarriak: lorategia, patioak eta eraikina.

Lorategia: Espazio handiena da eta funtzio desberdinak ditu. Lursail txikietan banatuta dago eta laborantza indibidualerako egokituta; lursail handiago bat laborantza kolektiborako. Lursailez gain espazio itxiak ditu erremintak gordetzeko, urmaelak arrainekin eta kaiolak txoriak edo beste animalia batzuk jartzeko, umeei behatu eta aztertu ditzaten.

Patioak: Bi patio edukiko dituzte. Bat itxia euria egiten duen egunetarako eta beste bat irekia arkupean inguratuta. Patio irekiak zuhaitzak eta landareak eduki beharko ditu eta espazio bat gimnasiarako, joko libre eta laneko jarduerak egiteko. Horrez gain, espazio itxi bat eduki beharko du erdian iturri batekin eta meriendatzeko mahaiekin.

Eskolako eraikina: Espazio desberdinak ditu: lanerako gelak: zabalak eta angeluzuzenekoak, oso argitsuak. Gela hau patio irekiarekin konektatuta egongo da mahaiak eta bankoak kanpora ateratzeko moduan, eguraldiak laguntzen duenean kanpoan lan egiteko. Eraikinak beste espazio balioanitzak izango ditu, besteak beste, atezaindegi eta arropategia, hauek sarreran egongo direlarik eta jolasgela, momentu desberdinetan biltzeko balioko duelarik.

Lan honetan, altzari eta paretan probetxurako argibideak ematen zaizkigu eta horien artean daude: arbela, material eta umeen lanentzako kristalezko ateak dituzten armairuak, horma-irudiak, mapak eta beste hainbat elementu hezigarri.

Fröbel-en ereduan, naturarekin kontaktuan egoteak eta espazioen antolaketa egituratuak duen garrantzia azpimarratu nahiko genuke.

2.2.2 Ikasleen beharrei egokitutako eskola-espazioak

Heras Montoya-k, (1997), Haur Hezkuntzako etapako espazioa diseinatu eta antolatzerakoan, egile desberdinek (Saussois, Pol eta Morales) ezartzen dituzten haurren beharrak jasotzen ditu, besteak beste:

- Behar fisiologikoak.
- Behar afektiboak.
- Mugimenduaren beharra.
- Jolasteko eta ondo pasatzeko beharra.
- Sozializazio beharra.
- Autonomiaren beharra.
- Komunikatzeko eta adierazteko beharra.

- Aurkikuntza beharra.
- Espazioan sentitzeko eta norbera ezagutzeko beharra.
- Manipulatzeko, sortzeko eta irudimenerako beharra.

Esan dugun honetatik atera dezakegun ondorioa eskoletako eraikuntzen diseinu zehatza behar dela da, altzari eta material anitz eta aberatsak dituen espazioaren antolaketa berezia.

Heras Montoya-rekin jarraituz, hainbat egilek, besteak beste Morales (1982), Molina Simó (1982), Larraz (1988), Cano eta Lledó (1988), Trueba Marcano (1989) eta Pujol (1993), Haur Hezkuntzarako proposatzen dituzten baldintza edo ezaugarri espazial eta materialak honako hauek izango lirateke:

a) Eskolako eraikinak:

- a. Orientazio egokia.
- b. Espazio irekiak, dinamikoak, malguak, barrera arkitektonikorik gabe.
- c. Espazio zabalak eta dependentzi desberdinetara erraz sartzeko aukera ematen dutenak.
- d. Baldintza estetikoaren tratamendua: argitasuna, hotz-beroa, aireztatzea, soinua...
- e. Ambientazio estetikoa.
- f. Talde txikian, ertainean eta handian lan egiteko moduko gelak; txokoetan edo tailerretan lan egiteko diseinua errazten duten gelak.
- g. Gela osagarriak talde handian egiteko jardueretarako (musika, mimoa, ikus-entzunezkoak, erritmoa, dantza, gimnasia...).
- h. Administrazioarako, dozentziarako eta zerbitzuetarako espazioak.
- i. Baliabide eremua.
- j. Materialak eta objektuak gordetzeko tokiak.
- k. Jangela, sukaldea, despentsa.
- l. Botikina.
- m. Jolasteko patioak: patio irekia eguzkia eta itzalarekin, eta patio estalia euria egiten duenerako. (esplorazioa, elkartzea, jolasa,

plazerra, ingurune hurbilenera inguratzea ahalbidetuko duten patioak)

- n. Patioetako lurzoru desberdinak; hondarra, porlana, lurra, tontorra, aldapa, eskailera, tamaina handiko harriak.
- o. Putzuak ekiditeko drenajea.
- p. Hondar naturala, zuhaitzak, zuhaixkak, landareak, loreak.
- q. Landaretza eremuak, granja txikia, baratze eta basoarekin.
- r. Altzari funtzioanitzta eta eraldagarria.
- s. Tokian tokiko multzo arkitektonikoarekin harmonizatuko duen ekipamendua.

b) Elementuak, tresna eta ekipo mugikorrak:

- a. Garraiorako: kotxeak, kamioiak, karretilak, karrotxoak.
- b. Jolaserako tresnak: trizikloak, patineteak, sokasaltorako sokak.
- c. Hondarra eta urarekin ibiltzekoak: palak, iragazkiak, ontziak, tutu malguak.
- d. Lorategirako tresneria: ureztailuak, eskuareak, palak, kuboak.
- e. Pilotak, birlak, uztaiak.
- f. Egitura finkoak: txirristak, kolunpioak, hamakak, tunelak, enborrak, bankuak.
- g. Tresnak: oreka-barrak, igotzeko sokak, eskailerak, zubiak.
- h. Etxetxoak, dendak, bordak, labirintoak.
- i. Hondar-edukiontzia eta ur jolasetarakoak.

c) Materialak:

- a. Ingurunearekin harmonizatuko duten materialak, sormena arriskuan jarriko ez dutenak, erabilgarritasun anitza izango dutenak, motibatzaileak.
- b. Material estimulagarriak beren forma, ehundura, kolore, presio eta sentazio termikoei esker.
- c. Material seguruak, higienikoak, toxikoak ez direnak, erakargarriak, luzaroan iraungo dutenak, ukimenerako atseginak.
- d. Ikasleen altuerara egokitutako pertxeroak.

- e. Arbelak, mapa, horma-irudiak, etab., distantzia, altura eta kokapen egokian jarriak ikasle guztiek ikus ditzaten.
- f. Modu ez-zentralizatuan banatutako materialak, denen eskura, ondo sailkatuak, behar den bezala etiketatuak.

Ikus dezakegu, Fröbel-en ereduan agertzen diren eremu, egitura eta hainbat elementu espazial eta objektuen kokapena, kontuan hartzen dituztela aipatu ditugun egileek ere.

2.2.3 Gaur egungo eraikuntzei buruzko arautegi ofiziala

Gaur egungo egoera, 1991eko ekainaren 14ko 1004/91 dekretuak jasotzen du eta 1994ko azaroaren 16ko ordenan agertzen dira lehendabiziko aldiz, Haur Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloko zentroek eduki behar dituzten ezaugarri eta baldintzak.

Haur Hezkuntzako eskolek bete beharreko gutxiengo baldintzak :

LEHEN ZIKLOA

- Gutxienez hiru unitate. 1700 biztanlera iristen ez diren herrietan, unitate gutxiagokoak izan daitezke.
- Instalazio eta material aldetik hauek bete behar dituzte:
 - a) Erabilera eskolarra baino izango ez dituzten lokalak eta kanpotik sarrera zuzenarekin.
 - b) Gutxienez 30 m²-ko azalera duen gela (2 m² ume bakoitzarentzat gutxienez). Bi urte baino gutxiagokoentzat, lotarako eta higienerako gune bereiztuak.
 - c) Janariak prestatzeko gune bat urtebete baino txikiagoak baldin badaude.
 - d) Erabilpen anitza izango duen eta jangela modura erabil daitekeen 30 m²-ko gela bat.
 - e) 75 m² baino gutxiago izango ez dituen jolasteko patio bat.
 - f) Gela bakoitzeko bainugela, 2-3 urteko umeentzat. Gelatik ikus daitekeela, ta eskuragarri dagoela eta 2 konketa eta bi komun dituela.
 - g) Ikastetxeko pertsonalarentzat bainugela bat, umeengandik bananduta eta konketa, komun eta dutxa izango dituen.

BIGARREN ZIKLOA

- Gutxienez 3 unitate.
- Aurreko a), d) eta g) ataletan aipaturiko baldintzez gain, hauek bete beharko dituzte:
 - a) Ume bakoitzeko 2 m²-ko gela bat, 30 m²-koa gutxienez.
 - b) Ikastetxearen erabilera baino izango ez duen patioa, 150 m² baino txikiagoa ez dena.
 - c) Gela bakoitzeko konketa eta komun bat dituen bainugela.
- Hauez gain, ikastetxe guztiek zuzendaritzarako bulego, idazkaritza eta irakasle-gela izango dituzte.

1991ko azaroaren 4ko Ordenak onartu zituen ikastetxeetako eraikuntzen proiektuen erredakziorako “beharren programak” eta hauen arabera eraikiko dira: malgutasunez, ingurune zehatzaren beharrei erantzunez eta ikasle taldeen errotazioa ahalbidetuko duten gela espezifikoak antolatuz.

1991ko azaroaren 13ko diseinurako Instrukzioek osatzen dituzte “Beharren Programak”. Guk, Heras Montoya-ren lana hartu dugu erreferentzia modura eta hona hemen Haur Hezkuntzako zentroein buruzko hainbat xehetasun:

- Argibide orokorren laburpena:
 - Haur Hezkuntzako Ikastetxeak oin bakarrekoak izango dira.
 - Soluzio arkitektonikoa ez da konplikatua izango. Etxeko giroa, alaia eta garbia eskaintzen saiatuko da.
 - Ingurunera ondo integratuak egotea lortu behar dute proiektuek
 - Sotorik ez da proiektatuko.
 - Forma angeluzuzenak eta espazio gardenak aholkatzen dira.
 - Etorkizuneko mantentze-ekonomia oso kontuan hartu beharko dituzte proiektuek.
 - Barrera arkitektoniko guztiak ekidin behar dira.
 - Zentroko kanpoaldeko bideak, semaforoak, oinezkoentzako pasaguneak eta eskola-garraioentzako geltokiaren puntuak, ondo seinalizatuta egon behar dute.

- Kanpoaldeko espazioei buruzko Argibideak:
 - Hesi perimetral batez inguratua.
 - Kanpoko espazioak material egokiekin tratatuak: drenatze, argiztapen-sistema, ur-hartune, seinalizazio, etab.
 - Elementu naturalen erabilpena aholkatzen da: landare, zuhaitz, ura, hondar, etab.
 - Hezetasuna duten inguruetakoko zentroek arkupe azalera handiagoa beharko dute.

- Barruko espazioei buruzko Argibideak:
 - Lokalek argi eta aireztapen natural zuzena eduki beharko dute.
 - Espazio guztien integrazio on bat, ibilbide luzeak ekidinez eta zentro guztiaren ikusi-komunikazio on bat sortuz.
 - Gela eta eskola-espazioen elkarketak eskolaren funtzionalitatea edukiko du kontuan, bai zikloka bai materiaka.
 - Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza duten zentroetan, Haur Hezkuntzak beheko solairuan egon behar du.
 - Jangela eta sukaldea beheko solairuan proiektatuko dira, eraikin independentean eta berari integratuta. Aireztapena eta akustika zainduko dira. Administrazio, gela-tailer, liburutegi eta zerbitzu orokorrak ere beheko solairuan egon behar dute.
 - Barruko espazioen altuera gutxienez 2,80 m-koa izango da.
 - Gelaren sakontasuna, 6 eta 7 m libreen artekoa izango da.
 - Haur Hezkuntzan ume txikiei egokitutako 2 komun eta 2 aska egongo dira. 1 x 0,60 m-ko bainera bat osasun-zerbitzu gune bakoitzeko. Gela bakoitzak harraska bat izango du estalki eta ur-hartunearekin, umeen altuerara egokitua. Ur hotza eta beroa. Gelatik hurbil edo zuzeneko sarrerarekin.
 - Zirkulazioko lekuak 1,20 m-ko altuera arte gutxienez material erresistenteekin joango dira (kolpe, harramazka, marruskadura, eta abarren kontra) eta erraz garbituko direnak. Gelak alde batean bakarrik dituzten pasilloek, gutxienez 1,80 m-ko zabalera izan behar dute.

-
- Komeni da, eskolako gela guztietan eta amankomunean erabiltzeko zona guztietako sabaiek tratamendu akustikoak edukitzea.
 - Barrualdeko bukaera guztiak umeen adinari egokituak, azalera gogor, zimurtsu, izkinetako hertz, desnibel, etab. ekidinez.
 - Haur Hezkuntzako lurzoruak leunak, beroak, ez-irristakorrak izango dira.
 - Eraikuntzari buruzko Argibideak:
 - Bakun eta sendoa. Barruko espazioen malgutasuna eta egokitasuna ahalbidetu behar du etorkizuneko aldaketak aurreikusiz.
 - Beheko solairua lurretik ondo isolatua.
 - Zurgintzari buruzko Argibideak:
 - Ate eta leihoen diseinuak iraupen, ziurtasun eta funtzionalitatearen irizpideei erantzun behar diete.
 - Leihoak:
 - Lurretik 1,10 m altuera arte babestuak.
 - Leihoen neurriak proiektatzen diren espazioen, orientazioaren eta baldintza klimatikoen arabera definituko dira. Ez dira aholkatzen neurri handiko leihoak.
 - Kristal bikoitza izango dute, tartean kamera estankoarekin.
 - Leihoak babestuak egongo dira pertsiana, burdinsare, eta abarrekin, eguzkiagandik babesteko eta inor sartu ez dadin.
 - Ateak:
 - Gutxienez 90 cm-koak izango dira. Kolpeentzako erresistentzia dutenak eta pasillo aldera irekiko dira.
 - Manilak kurbatuak izango dira istripu eta engantxeak ekidinez..
 - Haur Hezkuntzako eskoletan, gutxienez 1,20 m-ko altuera arte kautxu edo beste material batez babestuak.
 - Instalazioei buruzko Argibideak:
 - Iturgintza:
 - Haur Hezkuntzako bainu-gela/garbigela gune guztietan ur beroa izango da.
 - Komunak umeen adinera egokituak izango dira.
-

- Berogailu eta aireztapena:
 - Eskoletako eraikinek, airez edota urez zentralizatutako berogailu sistema eduki beharko dute.
 - Gutxienez 18°C-eko temperatura bermatuko da gela eta administrazioko bulegoetan. Haur Hezkuntzako eskoletan, berogailu aparailu guztiak behar den bezala babestuak egongo dira.
 - Eskolak emateko lokal guztietako aireztapen-sistema naturala, zuzena eta erregulagarria izango da. Zeharkako aireztapena aholkatzen da.
- Instalazio elektrikoa:
 - Geletako gutxieneko argitasuna 300 lux-ekoa izango da, homogeenoki banatuta. Jarduerak eskatzen duten arabera, argi osagarriak jartzeko aukera izango da.
 - Arbelaren gainean luzerako argitasuna proiektatuko da, itsualdiak eta erreflexuak ekidinez.
 - Haur Hezkuntzako eskoletako mekanismo elektriko guztiak babestuta egongo dira.
- Gas-instalazioa:
 - Erregai bezala gas-instalazioak behar dituzten zentroek, hornitze Konpainiei eta arautegi ofizialei kasu egin beharko diote.
- Tximistorratz-instalazioa:
 - Mota ionikoa aholkatzen da.
- Segurtasuna:
 - Suteen kontrako arautegia kontuan hartu behar dute eskoletako proiektuek.
 - Eraikin eta kanpoaldeko espazioen diseinuak istripuak ekiditeko soluzio eta elementuak hartu behar ditu kontuan.
 - Ikastetxeko eta inguruko zonaldeko espazioek egoki seinalizatuta eta argizatuta egon behar dute.

Heras-en esanetan, 1991eko azaroaren 13ko arau hau eta 1975eko abuztuaren 14koa alderatzen baditugu, konturatzen gara, 1991eko argibideak oraindik askatasun eta ekimen txikiagoa uzten dietela arkitekto eta promotereei ikastetxeak proiektatzeko

garian, hau da, homogeneizatzeko handiagoa dakar eskolak eraikitze orduan. Proiektu-mota tradizioanalean erortzen da: angeluzuzeneko zentroak, pasilloen nagusitasuna, gelak alde batera eta bestera, ekonomikoak, etab.

Heras-ek dio, "arkitektura" egitea eta "bizitzeko" egokiak, funtzionalak, eskola konkretuko beharretara egokituak, hezigarriak diren espazioak, eta komunitateko eragileen presentzia eta parte hartzea bermatu beharko lituzketela eskoletako arauak, baina, erregulatuta dagoen guztiarekin, oso zaila edo ezinezkoa dela guzti hori lortzea.

Beharrezkoa da eraikinen kanpoko nahiz barruko aspektuak garatzea, eskolako irudia proiektatzerakoan gizarte-kontzientzia duen erakunde bezala islatzeko. Eskoletako eraikinek ikaskuntza eta bizitzarako alor estetiko oinarrizkoen adibide bihurtu beharko genituzke. Salmerón-ek aipatzen duen bezala, eraikin eta espazio arkitektonikoek informazio kultural eta sozial ahozkoa ez dena eskaintzen die ikasleei. Irizpide pedagogikoen, psikologikoen, sozialen, arkitektonikoen eta ekonomikoen elkarrekintzak ematen digute zentro hezigarri baten ideia bat eta bere planteamenduen eta diseinuaren orientazioa zenbateraino den egokia.

3

**ESKOLETAKO ERAIKUNTZEN
INGURUKO IKERLANAK**

3 ESKOLETAKO ERAIKUNTZEN INGURUKO IKERLANAK

Hezkuntza Lege Orokorra indarrean jarri zenetik, gero eta gero kezka handiagoa dago eskoletako eraikuntzekin erlazionatuta dauden gaiez, sentsibilizazio maila handiagoa talde multidiziplinarrak sortzeko –arkitekto, maisu-maistra, pedagogo...– eta diseinuan parte hartzeko.

3.1 Eraikuntzen Diseinua

Eskoletako arkitekturaren alorrean kezkatzen direnen artean eta pedagogia eta psikologiarekin zerikusia daukaten lanen artean azpimarratu nahiko genituzke, besteak beste: Unzurrunzaga (1974), Lázaro Flores (1974), Muntañola (1975), Ader (1977), Rico Vercher (1978), Pol eta Morales (1980, 1982), Ventalló (1980), Mackay (1980), Molina Simó (1982), Gairín (1987), Salmerón Pérez (1992), Antúnez eta Gairin (1996), Heras Montoya (1997), Doménech eta Viñas (1997), Ceppi eta beste (1998), Cuito (Koord.) (2001), Sebastián (2003).

Aipatutako lan garrantzi horietatik, Iglesias-ek jasotzen dituen batzuk aukeratu ditugu eta 1996 geroztik egindako beste hainbat, kronologikoki aurkeztuz:

- Unzurrunzaga (1974). Arkitekturaren ikuspegitik, eskoletako eraikuntzen gaia pedagogiarekin lotu eta aztertzen du, legeak agintzen duenaren arabera, eraikuntzek gorde behar dituzten oinarritzko baldintzek honako hauek bermatu beharko dituztela:
 - Tamaina desberdinetako taldeak sortzeko aukera
 - Taldearen tamainan aldaketak ahalbidetzea
 - Elementu osagarrien erabilpenerako erraztasun osoa
 - Irakasleen lanerako espazioak eskaintzea
- Ventalló (1980). Eskolako inguruneak egin beharreko aldaketa eta transformazio pedagogikoari buruz hitz egiten du eta proiektu pedagogiko zehatz bati erantzun ahal izateko eskolako eraikuntzak bete behar dituen baldintzen azterketa burutzen du.

Egile honen ustez, eskola, “etxeko irudiarekin” egon beharko luke lotua ahalik eta gehien, eta pentsatzen du, proposamen pedagogikoari aurre egiteko, eskolako eraikuntzaren egituraketak umearen garapen osoa eduki behar duela kontuan.

Honek zera dakar ondorioz:

- a) Sormenaren garapena, eraikin estimulagarri eta malgua sortuz:
 - a. Bolumen anitz, kolore eta altzari egokituekin
 - b. Espresioaren pedagogia ahalbidetuko duten espazioak
 - c. Tailer eta txoko anitzak
- b) Autonomiaren garapena, ezagutzaren iturrietara jo eta espazioa bereganatzeko askatasuna emanez. Haur Hezkuntzako zentzoei buruz, hauek aipatzen ditu besteak beste:
 - a. Tamaina erosoak
 - b. Espazioen intsonorizazioa eta argi naturala
 - c. Umeen altuerara egokitutako objektuak
 - d. Lanerako txokoak gela barruan
 - e. Gelen banaketa espazio zentral baten inguruan: jokoaren eremua, sala balioanitz...
 - f. Eskola barruan (pareta mugikorrek eta erraz mugitzeko moduko altzariak) nahiz kanpoko inguruan (lorategia, baratze...) aktuatzeke aukera.
- c) Komunikazioaren garapena, kontuan hartuz:
 - a. Gelen arteko taldekatzeak, paretak kentzeko aukera, gelen arteko espazioak, etab.
 - b. Ume asko biltzeko aukera emango duten egiturak
 - c. Talde txikian biltzeko aukera emango duten espazioak
- d) Umearen bilakaeraren ikerketa:
 - a. Eskola eta etxearen arteko lotura bilatu, etxekeko habitataren antzeko espazioa eraikiz
 - b. Eskolako barrualde eta kanpoaldearen arteko jarraipena
- e) Naturarekin harreman zuzena izateko, kanpoko espazio bariatatuak sortzeko aukera

- Molina Simó (1982). Eskolako espazioak bete behar dituen funtzioei egiten die erreferentzia, haurrek bilakaera mailaren arabera dauzkaten ezaugarri eta beharrak kontuan hartuz. Egile honek 9 funtzio aipatzen ditu:
 - a. Behar fisiologikoak asetzea.
 - b. Ikasle bakoitzaren nortasun globalaren garapena ahalbidetzea.
 - c. Motrizitatearen garapenean, hizkuntzarenean, espazio-denborazko antolaketan, sinbolizazioan, prozesu logikoetan, laguntza ematea.
 - d. Ezagutza lorpen bibentziatua ahalbidetzea, alderatuz, erlazionatuz, ikertuz. Aholkatzen du gela txokoetan antolatuta egotea eta eskola auzora proiektatzea.
 - e. Haur eta helduei espresioa, ekimena, sormena eta fantasia erraztea.
 - f. Elkarbizitza eta komunikazioa erraztea.
 - g. Ikasteko eta antolatzeko ohiturak barneratzen erraztea. Espazioek soinuengandik eta bata besteengandik babestuta egon beharko dute.
 - h. Autonomiaren garapena erraztea. Espazioen arteko komunikazioa ahalbidetuz eta objektu eta altzariak eskuragarri edukiz.
 - i. Heziketa estetikoa eta sentiberatasunean laguntzea. Espazioen dekorazioak goxoak eta atseginak izan behar dute (koloreak, elementu naturalak, haurren horma-irudiak, etab.). Landare eta animaliak gelan eta kanpoan edukitzea komenigarritzat jotzen da, umeez zaindu ditzaten.
- Gairín (1987). Arkitektura eta altzariei buruz egindako lan batean, eskolako eraikinaren konfigurazio arkitektonikoei buruzko baldintzapenak aztertzen ditu. Kanpoko baldintzapenen artean, geografikoak, politikoak, soziokulturalak, demografikoak eta ekonomikoak aipatzen ditu. Barruko artean berriz, zerbitzu zentroa, irakaskuntza zentroa eta pertsonen arteko komunitatea.

Haur Hezkuntzari dagokionez, ikastetxeek bete behar dituzten baldintza pedagogikoen artean honako hauek aipatuko ditugu:

- Moldagarritasuna: egituren aldaketak egiteko aukera.
- Malgutasuna: malgutasunak, espazio bihurturri eta moldeagarriak lortzea du helburu.

Ikastetxe bat eraikitzerakoan, hauek dira Gairín-en ustez, kontuan hartu beharreko aldagai garrantzitsuenak:

- kokapena, orientazioa, egitura, eraikinaren barruko eta kanpoko espazioen antolaketa, baldintza akustikoak, argiztapena, aireztatze eta berogailu sistemak.
- Salmerón Pérez (1992). Eskoletako espazioen arkitekturari buruzko ebaluazioa egiten du bere lanean eta baieztatzen du, unitate baten moduan planteatu behar dela eskola, zentroko multzo osoa zerbitzatu behar duen komunitatearekin txertatuz. Horretarako, ezinbestekoa da, elkarrizketa adostua izatea hezitzaile, arkitekto eta gurasoen artean, diseinatuko diren espazioen irizpideak denen artean ezarri.

Arazoa, arkitektoak “beharren programa” sinplifikatu batekin eta aurrekontu finko batekin lan egin behar duela da. Honela bada, lanak burutzen ari diren bitartean zailtasunen bat sortzen bada, aurrekontu gehigarririk ez dagoenez, kalitatean izango du eragina.

Salmerón-ek, bere liburuan erreferentzia zabal bat egiten du eskolako eraikin bat proiektatzerakoan kontuan hartu beharreko elementuei buruz, eta hiru atal zabaletan banatzen ditu:

- Osasunarekiko harreman zuzena daukaten alderdiak
- Komunikazioa errazten duten alderdiak
- Lan hezigarri egoki bat ahalbidetzen dituzten alderdiak

Azpitarratzekoa iruditzen zaigu egile honek eskoletako eraikuntzaren aurrean azaltzen duen ideia: “Eskolako arkitekturaren inguruko elementu guztiak izan beharko lukete integratzaileak; sarbideetatik hasi eta komunikazioa, erlazioa eta dekorazioa osatzen duten elementuetaraino” (29 orr.). Eskolak ahalik eta familiarren izan behar du, erabiltzaileari ongizate eta erosotasuna eskainiz.

- Ceppi eta beste (1998) Reggio-ko eskolen esperientzia aberatsean oinarriturik, ezaugarri hauek aipatzen dituzte:

- Moldagarritasuna
- Malgutasuna

Eskolako giroak “manipulatzeko” aukera eskaini behar du, birproiektatu egin behar da etengabe, umeen eta irakasleen esperimentazioa oinarritzat hartuz. Eskola bateko proiektuak epe luzeko eta motzeko aldaketak ahalbidetu behar ditu.

Epe laburreko aldaketa, elementu hauen erabilerarekin lor daiteke:

- Diafragmak
- Dekoratuak
- Pareta higikorak (mobilak)
- Itzalen eta proiektzioen oihala
- Altzari mugikorak, biratzaileak, gurpildunak

Epe luzerako aldaketak:

- Giroen aldaketa fisikoa, etorkizunerako instalakuntzen (elektrizitatea, termikoak, hidriko-sanitarioak) eta egituren aldaketak aurreikusiz.
 - Hedagarritasuna, eskola handitzeko aukera, espazioak gehituz (tailerra, sekzioak, gelak) edota proiektu osoa aldi desberdinetan eraikitzea bada.
 - Espazioen erabilpen askotarikoa. Giro bakoitza adin zehatzen ezaugarrietara egituratuz.
- Sebastián (2003). Espazioei buruzko bere lan batean, lau eredutan sailkatzen du eskoletako inguruneen errealitatea, edo bere hitzetan, “egite hezigarria garatzen den eszenatoki soziokulturala”-ren errealitatea: a) eredu burokratiko, b) eredu funtzionala, c) kudeaketako eredu eta 4) eredu hezigarria. Lehen aipaturiko oinarritzko ezaugarriak azpimarratzeaz gain (moldagarritasuna eta malgutasuna), bere kudeaketako ereduan, oraindik orain egile batzuk eskoletako espazioen eraldagarritasuna aipatzen dutela ezinbesteko ezaugarritzat dio (cfr. Unzurrunzaga, Pol, Montserrat).

Sebastián-ek (2003), Heras-ek (1997) jaso zuen bezalaxe, ikastetxe baten diseinu eta planifikaziorako Gardner-ek egindako ekarpen esanguratsua aipatzen du. Ondoren datozen hamar ezaugarri hauek identifikatzen ditu:

1. **Moldaketa:** espazioa, tamaina, kokapena, espazio eraikia eta ikasle kopuruaren arteko erlazioa hartu behar da kontuan.
2. **Egokitzapena:** eraikinak izango dituen ezaugarriek, bere barnean aurrera eramango den programa hezigarri espezifikoki erantzun behar diote.
3. **Ziurtasuna:** Eraikinak estrukturalki multzo egoki bat osatu behar du eta bere erabiltzaileek istripu, sute eta trafikoko arazoetatik babestu behar ditu.
4. **Higienea:** Giro garbia, gehiegizko soinurik gabekoa. Instalakuntza ondo argizatua, berogailua, aireztatzea, saneamendua, ura.
5. **Hurbilerraza:** Ikasleak bizi diren tokitik hurbil, sarbide erosoekin, aparkalekuarekin.
6. **Malgutasuna:** egitura fisikoak programa berrien egokitzapenak suposatzen duen aldaketei erantzun behar die.
7. **Efikazia.** Egiturak, ikasleen desplazamendua ahalbidetu behar du, soinuen kontra isolatua agon behar du eta ahalik eta gehien erabiltzeko aukera eman.
8. **Ekonomia:** egiturak ahal den kostu txikienarekin funtzionatu behar du, argi naturala ahal den guztian erabiliz eta beroa, argi indarra eta ura kontserbatuz.
9. **Zabalgarría:** Beharren arabera eraikina handitzeko aukera.
10. **Itxura:** Diseinu artistikoa, koloreen harmonia, altzarien egokitasuna eta dekorazioaren erabilpena, erabiltzaileen behar estetikoaren zerbitzura jartzea.

3.1.1 Diseinuaren eragina jokabidean

Izenburu honekin zerikusia duten Iglesias-en hainbat lanen erreferentziak hartu ditugu kontuan:

- Cooper (1980). Eskoletako eraikuntzen ikuspegi funtzionalista eta determinista aztertzen ditu eta ikasleen eta irakasleen portaera aldaketen estudioa egiten du, Erresuma Batuan diseinatutako eskoletako eraikuntza berrietan, bereziki Open School deiturikoetan.

Cooper-ek baieztatzen duenez, eraikitako inguruneak jokabidean ondorioak sortzen dituenaren ebidentziarik egon, badagoen arren, jokabidea eta ingurunearen artean beti erlazio zuzena dagoenik ezin da esan.

- Ibáñez García eta Iñiguez Rueda (1984). Eraikitako inguruneek efektu psikosozial anitz sortzen dituztela baieztatzen dute, eta kontrol sozialeko zein gizabanakoen moldaketa sozialeko ondorioak azpimarratzen dituzte.
- Horowitz (1979). Gela irekien efektu psikologikoak aztertzen ditu.
- Sancho eta Hernández-ek (1985), Stebbins (1973) eta beste egile batzuen lanak aipatzen dituzte: haurren jokabidean ematen den nahasmenaren ondorioak ikertzeko helburuarekin, antolamendu arkitektoniko desberdina duten bi eskola alderatzen dituzte, eta haurren jokabidean eskola handiek sortzen dituzten ondorio alienatzaileak nabarmentzen dituzte.

Heras-ek (1997), ingurunearen ezaugarri fisikoak ikasleen jokabidean duen eragina aztertzen dituen ikerlan batzuk aipatzen dizkigu:

- Sancho Gil (1987). Gela itxura estetikoak aztertu zuen eta, modu erakargarrian dekoratuta zeuden geletan klasea izan zuten ikasleek, dekoratu gabeko gela monokromatikoetan klaseak izan zituzten ikasleek baino “emaitza akademiko hobeak izan zituztela” egiaztatzen du. Horrez gain, klaseak lehenengo motako geletan eman zituzten irakasleek aldeko balorazioa izan zuten eta gelarenganako jarrerak ere positiboagoak izan ziren.

Heras-en esanetan, egindako lan batzuen bidez, gelako diseinuak (altzariak, moketa, argiak...) ikasleen parte hartzearengan eragina duela baieztatu daiteke. Ondorioz, eskolen planifikazioa eta diseinua egiteko orduan, eraikinen garapen estetikoak, edertasuna eta atsegintasuna kontuan hartu beharko genituzke.

- Fernández eta Menéndez (1993). Asturias-ko hiru ikastetxeetan egin zuten landa-ikerketan batean geletako soinuaren eragina neurtu zuten eta egiaztatzen da, “eskolako soinua”-ren efektuak osasunean askotarikoak direla eta dimentsio hirukoitzean adierazten direla:

- a) Ondorio fisikoak: zefaleak, progresiboki entzumena galtzea, kolesterolaren gehitze progresiboa, bihotz-erritmoaren gehitzea eta liseri-aparatuko aldaketak.
- b) Ondorio psikikoak: neke goiztiarra, haserrea, agresibitatearen potentziazioa.
- c) Ondorioak eskolako errendimenduan: atentzio eza, interesa galtzea, estresa, irakaslearen ahozko azalpenen zein edozein ikus-entzunezko baliabideen

ulermenerako zailtasunak. Hau, ahozko komunikazioaren ulergarritasun maila jaitsi egiten delako gertatzen da.

Nahaste hauek ikasle zein irakasleak kaltetzen dituzte. Irakasleekin zuzenean lotzen direnen artean honako hauek daude: fonazio-organoen arazo larriak edo kronikoak, nekea eta estresa. Guzti honek, gero eta gaixoaldi-baja gehiago izatea du ondorioetako bat.

- Pérez Gómez eta Gimeno Sacristán (1992). Egile hauek, eskoletako eraikuntzen tamaina egokia zein izango litzatekeen eztabaidatzen dute. Ondorioen artean aipatzen dizkigute:
 - Irakasleen koordinazioa zaildu egiten da ikastetxeek tamaina handia daukatenean.
 - Portaera-pauta zurrunetan erortzeko arriskua daukate tamaina handiko ikastetxeek, antolaketa konplexua eskatzen dutelako.
 - Baliabide komunak erabilera asko zailtzen da: liburutegi, laborategi, hainbat material, eta abarrena.

3.1.2 Altzari eta ekipamenduak

Atal honetan ekipamendu eta altzarien gaiaren inguruko lan batzuk jasotzen ditugu:

- Medd (1989). OCDE-k publikaturiko lan batean, irakaskuntzaren bilakaerari erantzuteko asmoz, altzarietako bete behar dituzten ezaugarriak buruz esaten digute:
 - erabilpenaren barietatea eta malgutasuna izan behar dute helburu garrantzitsuenak
 - honek berekin mugitze gradu desberdinak dakartza (1. gradua: tiratze edo bultzatze erraza, 2. gradua: garraiatze erraza, 3. gradua: ahalegin handiagoa eskatzen duten noizean behingo desplazamenduak)
 - bateragarritasuna ere badakar:
 - altzari pieza bakoitzaren arteko bateragarritasuna ahalbidetzeko
 - eraikin eta altzarien arteko bateragarritasuna
- Gairín (1987). Bere laneko atal garrantzitsua haur eskolako altzarietako dedikatzen dio, altzarietako izan behar dituzten baldintza fisiko, estetiko eta pedagogikoei, hain zuzen ere, maila indibidualean erabiltzeko altzarien ezaugarri ergonomiko eta

estruturalei erreferentzia eginez (mahaiak eta aulkiak) eta maila kolektiboan erabiltzekoei (armairu, apal, eta abarri).

- Tyo (1992). Iragarki taulei buruz esaten digu, gelaren eta ikastetxearen komunikazioaren parte direnez, garrantzi handia duela beren erabilpen egokiak. Toki guztietan: sarreran, pasilloetan, bulegoetan, geletan... Asmamena eta originaltasuna behar dute ikastetxe eta geletako pertsonak iragarki taulei hitz egin arazteko. Jokabide espezifikoan eragiteko edota publiko espezifikorako direla kontuan hartuta diseinatu behar dira.

3.1.3 Eskolako ergonomia

Heras-ek (1997) ondorengo egile hauen lanak aipatzen dizkigu:

- Monjó Carrió (1987)

Eskoletako leihoari buruz egindako lan batean eta bere diseinurako arau teknikoen eza sentituz, honako aholku orokor hauek ematen ditu:

Leihoak ahalik eta altuen izan behar du, argi naturala gelako barrualdean aprobetxatzeko eta urrutiko bistak ziurtatzeko. Beheko zatiak 1,20 m-tik gora egon behar du, arreta galdu arazten duten hurbileko bistak ekiditeko, baita leihoak landa edo lorategi lasai batera ematen duenean ere. Beirak gelaren oinplanoaren %20a hartuko du, 2 eta 4 arteko Eguneko Argi faktorea lortu ahal izateko, kanpoko argiztapena 10.000 lux-ekoa dela suposatuz. Orokorrean, kokapen eta azalera exijentzi hauek, leiho altuak eta luzeak izatera eramango gaitu.

- Macvey (1989). Gaizki eserita egoteak sortzen duen kalteetako bat, hezur-egituraren deformazioa izan daiteke, batez ere, 11 eta 16 urte artean dauden ikasleei. Mahai eta aulkien diseinurako ezaugarri zehatzak planteatzen ditu.

Atal honen barruan, Iglesias-ek, bereziki garrantzitsuak diren Vayer, Duval eta Roncin-en (1993) ikuspegi ekopsikologikotik ergonomia eskolarrari buruz egindako lanak aipatzen ditu. Egile hauek, ergonomia eskolarra definitzen dute ingurugiroaren baldintzen estudioa bezala, bereziki materialak, hauek erraztu behar baitute eskolako jardueren garapena. Zentzu honetan diote, gaizki diseinatutako altzarien erabilpenak eta, batez ere, denbora askoan erabiltzeak, ondorio txarrak dakartzala:

Epe motzean, oreka txarrean eserita egoteko postura da haurren ezegonkortasuna eta aztoratze portaeren kausetako bat, atentzio arazoena alegia, eta

askotan garrantzitsuena. Arazo hauek eragina dute, egileen ustez, haurren lanetan eta helduak horiei buruz egiten duen ebaluazioan.

Epe luzera, atentzio arazo hauek, ezegonkortasunaren portaerekin asoziatuz, izaerarekin loturiko arazoa bihur daitezke.

Gai honen inguruan, psikologo-ikertzaile talde honek haur txikiekin hainbat ikerlan egin dute altzarien elementuen egokitasunari buruz eta zehaztasun handiz eskaintzen dizkigute umeentzako mahai eta aulkiek benetan ergonomikok izan daitezen izan behar dituzten ezaugarriak.



Atelier³: Arredi per l'infanzia - 2001

Heras-ek (1997), egile hauen eta beste hainbaten lanak aipatzen dizkigu: Sommer (1974), Heinemann (1980), Bonfenbrenner (1985), Río eta Álvarez (1985), Smith eta Connolly (1985), Sancho Gil (1987), Loughlin eta Suina (1987), Suárez Pazos (1987), Vayer, Duval eta Roncín (1993).

3.1.4 Ingurune-baldintzak

Heras-ek (1997) aipatzen dituen girotze estetikoari buruzko alderdi batzuk aztertzen dituzten hainbat egileen lanak azalduko ditugu ondoren.

Argiztapena

Espazio eskolarraren faktore garrantzitsuenetako bat argiztapena da. Argiztapenak giroa sortu behar du gauzak argitzeaz gain. Giro horrek ikaslea eroso eta gustura sentitu arazi behar du. Leihoak handiak behar dute izan argi naturala sar dadin. Garrantzizkoa da argiztapen artifiziala zaintzea. Ikus-entzunezko tresnak erabili behar diren tokietan, ezinbestekoa da argi-iturri guztien kontrola (pertsiana, xaflak, gortinak, argi murriztaileak, etengailu indibidualak).

Argiztapen mailak lux-etan neurtzen dira eta herrialde desberdinen arabera dexente oszilaten dute. Beynon-ek (1991) aipatzen duenez, Estatu Batuetan, Erresuma

Batuan eta Japonian: gelan (215 lux Estatu Batuetan, 300 lux Erresuma Batuan, eta 200 lux Japonian), hitzaldi aretoan (215 lux EB, 400 lux EB eta 500 lux J) eta horrela jarraitzen du ematen bai laborategi, bulego, irakasle gela, eskailera, bainugela eta beste dependentzietako erreferentziak.

- Mcvey (1989)

Argiztapenari buruz gomendio hauek egiten ditu:

- Argiztapen maila. Gelan orokorrean egiten diren jardueretarako 300-500 lux behar dira; ikusmen ahalegin handiagoa eskatzen duten eginkizunetarako (arte lanak, etab.) 1000 lux; ikus-entzunezko jardueretako 0tik 300era lux.
- Altzariak. Mahaien azalaren bukaera matea izango da eta %30-50eko gaitasun islatzailea izango du. Berdin lurrerako materialak, hau da, egur naturala, baldosa zein alfonbrak. Arbelen gaitasun islatzailea ez da %20tik pasako. Paretan bukaera, matea izango da eta %40tik 60 artekoa; sabaien bukaera ere matea izango da eta %70etik 90 arteko gaitasun islatzailea eduki beharko du.

Kolorea

Parte hartze aktiboa eskatzen duten jardueretarako, gelek kolore beroa duten materialekin egon behar dute dekoratuta (horia, laranja, etab.), eta jarduera lasaiagoetarako kolore hotzeko materialekin (urdina, berdea, etab.).

- Kolore fuertek, bereziki urdinek eta gorriek, urduritasuna sortzen dutenez, ekidin egin behar dira orokorrean paretetatik, batez ere, aurkezpen bisualetarako erabiltzen diren azalaren hondoetan.
- Kolore berde, gris edo beixa duten arbelek, bisualki neutroak direnez, aurkezpen bisualen hondo bezala edo proiektioetako pantailletarako erabiliko dira.
- Kolore ausartagoak, bereziki urdina eta gorria, lan artistikoetarako erreserbatuko ditugu, horma-irudi, erakusketa, eta abarretarako.
- Paretetako kolore konbinatuen zerrenden erabilpenak, (bost kolore desberdinetaraino) ikastetxe handi eta konplexuetan zona konkrituak lokalizatzeko lagun dezake.

Faktore termikoak

- a) Tenperatura, 20-23 gradu artean mantendu beharko litzateke, modu iraunkorrean.
- b) Hezetasuna 30etik 60ra geletan eta 50 ordenagailu geletan (aldaketarik gabe).
- c) Airearen zirkulazio-abiadura 4,5-7,5 m/min-koa mantendu behar da jarduera gutxiko geletan eta 7,6-15 m/min-koa jarduera handiagoa daukaten geletan.
- d) Ikasle bakoitzak 0,3-0,7 m³/min-ko aire freskoa eduki behar du.
- e) Aire egokitua instalatzea aholkatzen da, batez ere, urte osoan zehar funtzionatzen duten eskoletan.

Heras-ek aipatzen du, asmoa, gehiegizko energia eskatuko ez duen giro termikoa sortzea litzatekeela, kontrolatu gabeko beroaren transferentzia edo behar ez dena eraikinaren egituraren bitartez txikiagotuz. Badirudi emaitza onak lortu direla material termiko eraginkorren erabilerarekin eta ingurugiro naturalen baldintzei atentzio berezia eskaintzen dioten diseinu tekniken bitartez.

Baldintza akustikoak

Giro akustiko on batek bi beharrei erantzuten die: soinuaren kontrola espazio espezifiko baten barruan eta kanpoko soinuen prebentzioa. Kasu bakoitzak bere tratamendu akustikoa eskatzen du, kanpoko edo barruko soinuen transmisioa gutxituz. Orokorrean, material gogorak (porlana, adreilua, beira, metala) sabaian, paretetan eta lurrian jarritz gero, soinua islatu egiten du. Alderantziz, azalera biguneko materialek (kortxoak, egurra, gortinak, alfonbrak) soinuak absorbatzen dituzte.

- Beynon (1991). Tenperatura da gelako jardueran eragiten duen beste faktoreetako bat. Klima hotzetan egindako ikerketek (Estatu Batuak eta Frantzia) diotenez, tenperatura 27 gradutik gora igotzen denean, ikasleen errendimendua jaitsi egiten da.
- Ceppi-ren eta beste (1998) Reggio Emilia-ko eskolei buruz aipatutako lanean azaltzen den bezala, testuinguru baten kalitatea faktore askoren emaitza da: espazioaren formak, antolaketa funtzionalak, hautemate sentsozialen multzoa (argi, kolore, giro akustiko eta mikroklamatikoa, etab.)

Lehentasun kromatikoa, ukimenarena, usaimenarena eta argiena gizabanakotik gizabanakora aldatzen da. Horrexegatik, ingurugiroa espazio polisentsorial bezala planteatzen digute aipatu egileek, ez hainbeste zentzu estimulatzailean aberatsa izanez,

balore sensorial desberdinak eskaintzeko moduan baizik, norberak bere ezaugarriekin sintonizatzeko moduan. Ezin dira denentzako soluzio estandarrak proposatu.

Argia

Argia, hiru dimentsio pertzeptibo desberdinen erantzule da:

- ikuspena
- irudi estetikoak
- denbora pasatzen denaren sentsazioa ematen duena

Orain arte argiztapenaren (“iluminoteknika”) diziplinari eman zaio garrantzia beste bi dimentsioak bigarren tokian utziz.

Argia da gure hautemate estetikoaren emozio-osagarri handienetako bat. Berari lotuta daude, adibidez, euforiaren edo gogogabetasunaren, izuaren edo festaren dimentsioak, eta beraren modulazioan baitan dago giro argiztatuen plastizitatea eta aberastasuna.

Lehenengo bereizketa, argi naturala eta argi artifizialaren artekoa da. Argi naturalak baldintza meteorologikoez informatzeaz gain, denbora nola pasatzen den hautematea ahalbidetzen du, tresna artifizialen beharrik gabe. Argiztapen artifizialaren kasuan garrantzitsua da uniforme eta monokordea ez izatea.

Egile hauen iritziz, itzala faktore garrantzitsua da: izan daiteke gardenena edo oso itxia, erabat ordenatua edo kaotikoa, zatitua edo trinkoa.

Paisaia argidunaren ezaugarriak:

Eskola baterako proposatzen diguten lightscape edo argi-paisaiaren ezaugarri batzuk honako hauek dira:

- artikulatua, anitza eta konplexua
- polikromatikoa: argi hotzak eta argi beroak kontuan hartzen dira
- dinamikoa: argi-iturriak aldatzen dira
- erdizaleetan aberatsa
- argi ehunduratuetan aberatsa (testurizatua), naturala nahiz artifiziala (zursarez, adreiluz, filtroz, pantailaz, oihalez eta beste hainbat materialez lortua).
- produktu hibridoetan aberatsa: itzal koloredunak eta kolore gardenak.

Kolorea

Ikuspuntu espazialek begiratuta koloreak izugarrizko garrantzia dauka giroaren ikuspegia eta diseinua definitzerakoan: kolore batzuk hurbildu egiten dira (horia eta gorria, adibidez) eta lehenengo planoan jartzeko joera dute, beste batzuk, aldiz, (berdea eta urdina) hondora joateko tendentzia dute. Horrela, kolore batzuk nabarmentzeko funtzioa dute (orokorrean puruak eta oso asetuak –saturatuak–), beste batzuen gainetik nabarmentzen dira. Badaude kolore arinak (argiak) eta kolore astunak (ilunak), kolore etereoak (tinte pastelak eta argienak) eta kolore materialak (orokorrean kolore oso asetuak eta ilunak), kolore beroak (“erth color”: beixa, hondarra, horia, laranja, gorria bezalakoak) eta kolore hotzak (zeruaren edo itsasoko urarenak: urdinak, berdeak).

Egile hauek beste bereizketa bat ere egiten dute: “kolore propioak” eta “kolore lortuen” artekoa. Kolore propioa da, objektuaren naturari dagokiona, bere izate edo eraketarekin datorrena. Kolore lortua berriz, “barnizatze” operazioetatik lortzen dena izango litzateke.

Kolorearen presentzia

Kolorea, argia bezala, eszenatoki kulturalaren produktu bat da.

Umeari eta helduari, identitatearen eta ezagutzaren prozesuen formaziorako aniztasun eta konplexutasun kromatikoak, hautemate aberatsa eta estimulagarria eskaintzea da helburua. Oinarrizko koloreen presentzia (horia, urdina, gorria), oso asetuak edo kolore argien nagusitasuna (hori argia, arrosa, urdin pastela). Positiboa izan daitekeena da koloreen oreka bilatzea, “beroa” (gorria, arrosa, horia) eta “hotza” (urdina, berdea) erabiliz.

Chromascape edo paisaia kromatikoaren ezaugarriak

.Garaikidetasuna: sintonia kultural eta historikoa

Eskola bateko giroaren kolore-sortaren aukera eta dekorazioa, erreferente kulturalen multzoari hertsiki lotuta dago. Horrexegatik kontsideratzen da garrantzizkoa paisaia kromatikoaren ezaugarriaren bereizgarritasuna beste jakintza arloetan egiten diren ikerketa eta gogoeta kulturaletara (diseinua, zinema, artea, etab.) irekia egotea.

.Kolore-sorta zabala oreka harmonikoa lortuz

Eskolako giroan erabili daitezkeen koloreen aukera egiterakoan, konstante batzuk lehenetsi behar dira: harmonia, lasaitasuna, atsegintasuna, argitasuna, alaitasuna...

.Paisaia kromatikoaren aberastasun sensorial eta kulturala

Paisaia kromatikoaren aberastasunari esker garatzen dira sentikortasuna eta ezagutza, baina, txikitan ez badira aktibatzen, helduak garenean, oso zaila egiten da berreskuratzea. Koloreak, propioak eta lortuak, opakoak eta gardenak, hotzak eta beroak izateaz gain, ukimenaren alorra ere kontuan hartuko dute: zetazkoak, distiratsuak, latzak, pertzepziorako identitate konplexuago batez aurkeztuz eta sentsazio zein era askotako esplorazioak ahalbidetuz.

Kanpoaldeko paisaia kromatikoa

Bukatzeko, interesgarria da eskolako patioa edo kanpoaldeko eremua elementu naturalez osatzea (landare, lore, zuhaitz), urte-saso eta eguneko ordu edo momentu desberdinetan paisaia aldatzen joango baita.

Ukimena

Aristotelek berak planteatu zuen ukimenaren zentzua ez ote zen zentzu bat baino gehiago, zentzuen konstelazio moduko bat baizik. Hierarkia sensorialean lehentasuna egotzi zion ukimenari: ukimen-sentsibilitatea adimen zorrotzenarekin lotzen zuen. Gaur egun pentsatzen dugu, ukimena ez dela ikusi behar organo espezifiko baten moduan, zehaztugabeko zerbait bezala baizik eta subjektuaren esperientziari hertsiki lotua. Ukimena, etorkizunaren elkartzaile sensorial handia izan daiteke.

Kontaktu fisikoak umearen hazkuntzan duen papera, psikologian eta antropologian asko aztertu izan da: amak bere umeari bizitzako lehenengo urtean ematen dion gorputz-kontaktu hori adibidez, edota kontaktu horren gabeziak, inkubagailuko isolamenduak adibidez, ume jaio berriei sor dakizkieken ondorio negatiboak.

Konplexutasun harmonikoa

Estimulu sensorialen aniztasunak, haurraren irudi kultural konplexuaren sintonian, emaitza sinfonikoa lortu behar du, eta ez kakofonikoa: kategoria guztietako materialen presentziak, ukimenaren estimuluak estrategiaren zati izan behar du, erreferentziazko proiektu estetiko-kulturala, erabaki guztiak filtratu eta gidatuko

dituena. Laburtuz, horrela baieztatzen da proiektuaren eta proiektatzaileen (edo hobeto esanda, arkitekto-pedagogo-irakasle taldearen) nagusitasuna, eguneroko erabaki guztien (txikienak barne) eta ingurumenaren erreferentziatzko baloreen proiektuaren arteko lotura askaezinean.

Usaimena

Usaimena garuneko zati zaharrenarekin komunikatzen da, espeziearen bilakaera fisikoan garatu den lehenengo zentzumena eta, orain, berarekin asoziatzen dira emozio sakonenak eta zuzenenak. Esan daiteke, zentzumen guztietatik, usaimena izango dela baldintzatzaile kulturalen bidez gutxien eragin daitekeena.

Usain baten pertzepzioak gogorarazteko gaitasun handia du: berehala errekuperatu dezake ingurune baten irudia eta oroitzapena; ohikoa da "etxeko usaina" esatea, jaiotako tokiko dimentsio afektiboa aipatzeko. Gure gaur egungo higiene modernoaren lorpenarekin, murriztu egin da toki bakoitzak zeukan usaimen identitate zentzua.

Gaur egun garbitasunerako produktuei ematen zaie arreta berezia material eta objektuei baino gehiago eta, hauek dira ingurune bateko usaimen-irudia osatzen duten benetako euskarriak.

Proiekturako aholkuak

Usaimenaren kasuan, "paesaggio odoroso"-k (paisaia usaintsuak) ezaugarri tenporala duela kontuan hartu behar dugu: kolore edo argi batek egonkortasun gehiago edo gutxiago eduki dezakeen bitartean, usain konkretua oso denbora laburrekoa izan daiteke, eta etengabe aldatzen doana gainera; horrela, espazio batzuetan, aldaketa handiak ematen dira egunean zehar, adibidez, sukaldetan. Proiektuak kontuan hartu beharko luke usaimenaren dimentsioak duen garrantzia gure emozioen eta baloreen garapenean.

Reggio-ko eskoletan, umeekin usainen inguruan egin diren ikerketen emaitzek erakusten digute, usainek "memoria"-rekin duten erlazioan gehiago sakontzeko beharra dagoela, gaur egun, gure kulturak usaimenaren zentzua oso kontzientzi eskasarekin erabiltzen baitu.

Usain desberdinei buruzko kultura elaboratuko duen proiektua martxan jartzea dute helburu: "usaimen paisaia" anitza, estimulagarria eta beti "bizia".

Soinua (akustika)

“Entzutearen kontzientzia” galtzen ari dela diote egileek. Soinudun estimuluak bereizteko (hautatzeko) gaitasuna, soinua nondik datorren ezagutu eta antzemateko gaitasuna, galtzen ari gara. Begiaren nagusitasuna belarriarekiko orekatu beharko genukeen zerbait da, entzumena baita, daukagun ahalmen garrantzitsuenetako bat.

Horregatik, “erlaziorako espazioak” proiektatzen dituztenek, soinuak eta “soinudun paisaiak” paisaia bisualaren zati integratzaile modura kontuan hartzea litzateke garrantzitsua. Barruko eta kanpoko espazioak eraikitze eta antolatze, belarriaren laguntzarekin eraiki beharko genituzke “soinudun mapak”. Horrela, hobeto kontserbatu, gogoratu eta komunikatu ahal izango genuke entzundakoa.

Soinuaren geometria

Soinuaren mugimenduaren abiadura eta direkzioa, intentsitatea, erritmoa, maiztasuna eta tinbrea dira mezu espaziala egituratzen duten elementuak. Intentsitatearen aldaketa gradualak nabariarazten du soinuaren mugimendua.

Soinuaren dinamika

Soundscape edo paisaia akustikoa gorputzaren kokapenarekin aldatzen da. Posizio pasibo batek, soinuaren mugimendu espaziala hautemateko prestatzen du. Oinez ibiltzeak, soinu-mugimenduak erreakzionatzeko estimulatu egiten ditu, espazioarekin daukagun elkarrekintza gehituz.

Proiekturako aholkuak

Umeen haurtzaindegi eta eskolek –eskoletako giroak orokorrean– duten soinudun paisaiak, ezaugarri zehatz eta arazotsuak dituzte.

Soundscape edo paisaia akustikoaz giro-dimentsio bat ulertzen dugu, eta, paisaia kromatiko edo argidunetan bezalaxe, bere identitatea dauka, proiektatua izan daitekeena eta eskoletan, batez ere, kontuan hartzekoa dena.

Bi helburu eduki beharko genituzke, gutxienez, eskolako giro akustikoa proiektatzerakoan: soinu orokorraren maila jaistea, hondoko soinua mantentzea, soinu distortsionatzaileak ekiditea, eta gaur egungo aukerekin, soinudun potentzialitatea garatzea, proiektatzea. Gehiegietan hitz egiten dugu intsonorizazioaren aukeraz, baina ez dugu paisaia akustikoa proiektatzen.

Azpimarratu nahi duguna zera da: Reggio Emilia-ko egile hauen iritziz, espazioaren diseinua eta egituraren antolaketan zentzumen bakoitzaren ezaugarriek hartzen duten garrantzia, espazio polisensoriala osatuz.

Kanpoko sonoritatea: Soinuen ezaugarriak esperimentatzen



Entzutearen kontzientzia

Materialak: ukipen esperientziak



Materialak : koloreekin esperimentatzen



3.2 Eskoletako Espazio Arkitektonikoen Ebaluazioa

Eskoletako espazio arkitektonikoen kalitatea ebaluatzeko helburuarekin egindako lan baten erreferentzia emango dugu ondoren:

- **Salmerón (1992)**

Ikerketa hau, Fernández-Ballesteros-ek (1987) aipatzen duen aldagai fisikoen ebaluazioaren sailkapenaren barruan kokatuko genuke eta kapitulu honen hasieran aipatu dugu. Gure ustez, lan honen garrantzia, eskoletako espazio arkitektonikoen kalitatea neurtu eta ebaluatzeko tresna egoki bat izatea da. Salmerón-ek sortutako tresna hau, CAES izenarekin ezagutzen da (Calidad Arquitectónica Escolar).

Ikerketa honen deskribapen labur bat egingo dugu ondoren.

Ikerketaren helburuak

1. Tresna fidagarri eta erabilgarria eraikitzea, gure testuinguruko eskoletako espazio arkitektonikoen kalitatea ebaluatzeko.
2. Lagina osatzen duten eskoletako espazio arkitektonikoak ebaluatzea, azterketa deskriptibo baten bidez, entseguko Eskala CAES abiapuntutzat hartuz eta emaitza horiek alderatzea, testuinguru berean behaketa eta argazkiekin egindako azterketekin.
3. Eskolaren espazio arkitektonikoen kalitatea bermatuko luketen dimentsio eta irizpideak deskribatzea.
4. Kalitate arkitektonikoaren arloan, dimentsioetan oinarritutako eskola ereduak identifikatzea errazten duten estrategiak eskaintzea.

Lagina

Granadako O.H.O.-ko 44 ikastetxe publiko, 10 eskualde eta 31 udaletan banatuak.

Aldagaiak

Zazpi alorretan sailkatzen ditu aldagaiak:

- Estetika orokorra
- Funtzionalitatea
- Globaltasuna
- Etxekotasuna
- Egokitasuna

- Tekniko-eraikuntzari buruzkoak
- Ingurune fisikoaren erosotasuna

Aldagai bakoitzean azaltzen diren elementuak (59-64 orr.) benetan egokiak iruditu zaizkigu gure ikerketa osatuko duten bi ikastetxeen espazioen egokitasuna ebaluatu ahal izateko eta ondorioen atalean deskribatuko dugu.

Ikerketaren ondorio orokorrak

1. Espazio eta elementuak falta dira ikastetxeek aurrera eraman nahi dituzten programen funtzioak kontuan hartuz gero. Honen ondorioz, dependentzien eta taldeen erabilera desegokia egiten da eta disfuntzionaltasuna ematen da. Irakats funtzionalitatearen antolaketa mugatua geratzen da eta, momentu askotan gehiegizko elkarrekintza sortzen da.
2. Diseinatu eta eraiki diren espazio arkitektonikoak bereizketa/banaketa sortzen dute, bai adin txikikoentzat edota desplazatzeko behar fisiko bereziak dituztenentzat, (txikien kasuan, eskubanda baxuagoak eta ezindu fisikoen kasuan, malda txikia duten aldapak, ...)
3. Ekologia ez da kontsideratzen curriculumeko hezkuntza elementu gisa; barruko nahiz kanpoko espazioek ez dute ahalbidetzen natura eskura edukitzea. Ez dago landaretza eremu espezifikoki antolatutakorik eta daudenak, oso eskasak eta inongo antolamendurik gabekoak dira.

3.3 Haur Hezkuntzako Testuinguruen Ebaluazioa

Haur Hezkuntzako hezkuntza testuinguruen ebaluazioa oso gai konplexua da eszenatoki eta egoera desberdin asko hartzen dituelako barne: haurtzaindegi eta etxe partikularretatik hasita, Haur Hezkuntzako eskolak, Lehen Hezkuntzako ikastetxe barneetan dauden adin desberdinetako unitateak, ikastetxe publiko ala pribatuak, landa-eskola edo herri-hiri barruetan daudenak, etab.

Harms eta Clifford-ek (1993), lan eta instrumentu desberdinen errebisioa egin zuten, Haur Hezkuntzako testuinguruen ebaluazio lanak zein asmo edo xedekin eginak zeuden aztertuz eta, ondorengo lau helburu nagusietan sailkatu zituzten:

1. Arautegia betetzen den ala ez egiaztatzeak
2. Eskola horiek Haur Hezkuntzako ikastetxeak direla egiaztatzeak prozesuak.
3. Ebaluazio orokor bat egiteko, programetan egin nahi diren aldaketetarako datuak lortu eta arrazoitzeak.

4. Gai askotariko ikerketa helburuekin egindakoak: irakasleen parte hartzea, familia, egoera desberdinetan umeei izaten dituzten jarrera edo jokabideak (agresibitatea, elkarrekintza, etab.)

Egileek aipatzen diguten bezala, lan guztien helburua testuinguruen kalitatea ikertzea da.

Harms eta Clifford-ek egindako errebisio historikoak 60ko hamarkadaren erditik hasitako lanetan du abiapuntua. Bilakaera horretan ikusten dugunez, 70eko hamarkadaren bukaeratik aurrera azaldu zen hezkuntza testuinguru desberdinak ume txikiengan sortzen zituzten ondorioak konparatzen hasia. Zentzu honetan, testuinguru mota ez da kontuan hartzen den aldagai bakarra. Batez ere, prozesuarekin zerikusia duten aldagaiak, hau da, gela barruan egiten den lanaren garapenaren prozesua, hartzen du oinarritzat.

Beraien lanaren emaitzak laburtuz, kalitatearen balorazio on bat daukaten programak umeenganako hainbat emaitza onuragarriekin erlazioa daitezkeela esan dezakegu: konpetentzia sozial handiagoa, garapen linguistikoaren maila handiagoak, jolasaren maila handiagoa, auto-erregulatzeko trebetasun handiagoa, betebeharrarako gaitasun handiagoa eta arazo gutxiago Lehen Hezkuntzan.

Haur Hezkuntza testuinguruko ikerketa askok Harms eta Clifford beraien Testuingurua ebaluatzeko eskalak (Early Childhood Environment Rating Scale) laneko prozesu beraren kalitatea neurtzeko ikuspegiarekin planteatuta daude.

Azpimarratu nahiko genuke bere garrantziatik, Harms eta Clifford-en Early Childhood Environment Rating Scale aipatutakoa, 1980an sortu zutenetik gaur egundaino eginiko errebisioez osatzen eta egokitzen joan dela eta herrialde askotan aplikatzen jarraitzen dela. Tresna hau, hezkuntza kalitatearen hiru aldagai multzo neurtu eta ebaluatzeko erabiltzen da: elementu estrukturalak, hezkuntza prozesua eta umei buruz helduek dituzten sinesmen eta jarrerak.

Ebaluazio tresna batek ECERS-R izena du eta 3 eta 6 urte arteko umeei erabiltzen da; besteak, ITERS-R izena du eta hiru urte baino gutxiagoko umeei erabiltzen da. Bi eskala hauek 30etik 40ra item dituzte eta 7 azpi-eskalako gaika sailkatuta agertzen dira.

ITERS eskalak, (Jakingarriak, 52/53, 2004) maila estrukturalan, 0-3ko haur eskolen kalitatea ebaluatzen du. Haur eskolen ebaluazioari dagokionez ITERS da zehazki 0-3ko adin tarteari egokitutako lehenengo instrumentua. Agian horregatik,

herrialde askotan erabiltzen da: Herbeheretan, Ameriketako Estatu Batuetan, Alemanian, Suedian, Grezian, Ingalaterran, Portugalen, Italian, Kanadan... Instrumentuaren balioa eta fidagarritasuna azpimarratu dute denek eta Euskal Herrian aplikatzeko arrazoi nagusietako bat ere hori izan da. Hauek dira 7 azpi-eskalak:

1. Espazioa eta altzariak (5 item)
2. Zaintza ohiturak (9 item)
3. Hizkuntza eta arrazonamendua (2 item)
4. Ikaskuntzarako jarduerak (8 item)
5. Elkarrekintzak (3 item)
6. Programaren antolaketa (4 item)
7. Gurasoak eta pertsonala (4 item)

Gipuzkoako 5 haur eskoletan aplikatua izan da, 14 gelatan, hain zuzen ere. Puntuazioak 1 eta 7 zenbakien artean kokatzen dira instrumentu honetan eta, 1koa emaitza desagokoa, 3koa gutxienekoa, 5koa egokia eta 7koa bikaina kontsideratzen da. Hona hemen 5 eskoletan izandako emaitzak:

- 1. Haur Eskola = 5,28
- 2. Haur Eskola = 4,34
- 3. Haur Eskola = 4,13
- 4. Haur Eskola = 4,72
- 5. Haur Eskola = 4,38


Batezbestekoa = 4,61

Beste herrialde batzuen emaitzekin alderatuz, ikusten dugu, Herbehereetako batezbestekoa 4,8koa dela eta Ingalaterrakoa 3koa. Baina hor hainbat aldagai daude jokoan, adibidez, Herbeheretan 43 geletan pasa zen proba, Gipuzkoan 14 geletan, Ingalaterran 60tan, Ameriketako Estatu Batuetan 895etan, Italian 6 geletan... Emaitzak aztertuz ikusten da, Herbehereetako 4,8ri gehien hurbiltzen zaion emaitza Gipuzkoakoa dela. Emaitzen arabera, Gipuzkoako haur eskoletako zentro horiek nahiko kalitate ona erakusten duten arren, badaude item batzuk beherago gelditzen direnak, adibidez, zaintza ohituren itemak (3,44). Atal honetan, Herbeheretan ere emaitzek behera egin zuten.

Instrumentu honen garrantzia azpimarratu nahiko genuke, korrelazioen berri emateaz gain, azpi-eskaletan ematen diren gabeziak identifikatzen laguntzen duelako eta horrek lagundu beharko liguke hobekuntzak nondik norakoak izan behar duten planteatzen.

3.4 Harms & Clifford-en Eredua

Harms eta Clifford-ek, 1993an egokitutako eredua aukeratu dugu, nahiz eta orain dela 15 urtekoa den, gaurkotasun osoa duela pentsatzen dugulako. Aipatu ereduak Bronfenbrenner-en eredu ekologikoan du oinarria eta interesgarria iruditu zaigu gure laneko hainbat aldagai ereduaren egituraren mamian azaltzen direlako, hala nola: egiturak, prozesuak (eguneroko jarduera) eta elkarrekintza. Beste elementu garrantzitsuen artean Familia eta Komunitatea osatzen duten eragileen presentzia ikusten dugu.



Hezkuntza testuinguruen azterketarako Harms eta Clifford-ek 1993an egokitutako eredu ekologikoa (Iglesias, 1996-a, 100 orr.)

4

**ESPAZIOAREN ANTOLAKETA:
PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK**

4 ESPAZIOAREN ANTOLAKETA: PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK

Haur Hezkuntzari buruzko ia liburu guztietan espazioa eta bere antolaketari buruzko erreferentziak oso ugariak dira. Batzuk, orokorrean hitz egiten dute espazioak eskaintzen dituen aukerak adieraziz, beste batzuk, aldiz, espazioaren antolaketa curriculumeko garapen osagai moduan hartzen dute eta proposamen nahiko zehatzak egiten dituzte gelako lana nola antolatu daitekeen azalduz.

Antolaketa eredu horien artean eta eredu didaktiko batekin edo metodologia formulazio zehatzago batekin planteatzen direnen artean honako hauek daude adibidez: Hohmann, Banet eta Weikart-en High Scope eredu eta Frabboni-ren eredu.

Haur Hezkuntzako espazioaren antolaketari buruzko proposamen didaktikoak, hiru multzo handitan sailkatuta agertzen dira eta guk, Iglesias-ek jasotzen duen erreferentzia zabaletik, eredu bana azalduko dugu, erreferente gisa.

a) Gelan edota kanpoko espazioan zentratuta dauden antolaketa ereduak

Proposamen honetan, batzuetan, gela soilik sartzan da eta besteetan, aldiz, kanpoko espazioak ere bai. Egile desberdinek izendapen anitzak ematen dituzte: irakaskuntzako edo jardueretako zonaldeak; jarduera-aldeak; txokoak; tailerrak; jarduera-guneak, etab. Kasu guztietan, nahiz eta terminologia desberdina erabili, gela barrua zonalde edo irakaskuntza eremu desberdinetan antolatuta egoten da.

Guk behatu ditugun bi ikastetxeei dagokienez, Altzako Harri Berri-Oleta ikastetxea, proposamen multzo honen barruan egongo litzateke.

b) Ikastetxean oinarritutako antolaketa ereduak

Multzo honen barruan ere proposamen anitzak daude, baina, tailer integralak izendapena hartzen duten hauen ezaugarrietako bat, ikastetxeko gela bakoitza "plastika", "matematika", "ipuinak", eta abarretako tailerretan bihurtzea da eta talde edo ume desberdinak gela horietatik pasatzen joatea, irizpide edo baldintza batzuen arabera.

Proposamen multzo honen barruan egongo litzateke Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastola.

c) Ikastetxeko mugak gainditu eta komunitate osoa barne hartzen duten ereduak

Eskola planteamendu hau inguruneari uztartua eta irekia dago, hezkuntza eta giza alderdiak lotzen ditu, eta hezkuntza prozesu formalak, ez formalak eta informalak besarkatu eta erlazionatzen ditu erakunde eta hezkuntza espazio desberdinen sare bat osatuz.

Proposamen hau, Frabboni-ren pentsamendu lerroan kokatuko genuke, sistema hezigarri integratu bat proposatuz, eskolako eta lurraldeko baliabide hezigarri guztiak kontuan hartuz.

“Eskola barruko kultura eta eskolaz kanpoko kulturaren artean elkarrekintza dialektiko bat sortuz da zilegi aukera hau. Helburua honako hau da: lurraldea aukera hezigarri anitzetarako prest edukitzea; izaera instituzionala eta intenzionalki hezigarrietarako: liburutegia, museoa, mediateka, tailerrak, kiroldegia, kultur etxea eta, izaera ez instituzional eta intenzionalki ez hezigarrietarako: lurraldearen monumentu eta paisajistikoak alde batetik eta hedabide zein ekoizpen komertzialeko zentroak bestetik”.

Sailkapen honetako ereduaren erreferentzia esanguratsua, Italiako Reggio Emilia-ko udal eskolak dira. Hauetan, ikastetxea osotasun moduan ikusten da, espazioak trukagarriak dira eta jarduerak espazio batean nahiz bestean egin daitezke, eskola barruan ala kanpoan, momentuko interes eta beharren arabera.

4.1 Gela eta Gelaz kanpoko Espazioetako Antolaketa Ereduak

HIGH SCOPE EREDUA

Hohmann, M; Banet, B. eta Weikart, D. (1990) : <i>Niños pequeños en acción</i> .
--

México: Trillas

Hirurogeiko hamarkadaren hasieran D. Weikart-ek jarri zuen martxan Ameriketako Estatu Batuetako Michigan-en eredu hau. Hezkuntza premia bereziak zituzten umeei curriculum egoki bat planteatzea zen lehenengo helburua, eskolan sartu ahal izateko prestaketa emanez.

Aldi eta pauso desberdinak garatu eta eman ondoren, 1971n, Weikart, Rogers, Adcok eta McClelland-ek garapen hezigarriko eredu aurkeztu zuten, Piaget-en teoria jarduera didaktikoei aplikatuz (Zabalza, 1987).

Handik aurrera, eredu gelatan praktikara eramatearekin batera, aldaketa eta hobekuntza batzuk ezartzen joan ziren eta Haur Hezkuntzetako eredu kurrikular osatua izatera iritsi zen (Hohmann, Banet eta Weikart, 1990).

Egile hauek diotenez, umeei giro estimulatzailerik baina ordenatu batean hobeto ikasten dute. Espazioak mugimendua ahalbidetu behar du eta materialek, umeei ikusi eta eskuratzeko moduan egon behar dute. Gelako espazioak fisikoki ondo zedarrirituta egon behar du eta lan-zona desberdinetan banatuta; materialek modu logikoan antolatuta eta argi etiketatuta egon behar dute umeei autonomoki funtzionatu eta gelako toki guztien kontrol ahal eta handiena izateko.

Printzipioak

- a) Giro zurrak, eroso-goxoa mantendu
- b) Umeen ekintzak eta hizkuntza babestu
- c) Umeei aukeratzen eta erabakiak hartzen lagundu
- d) Umeei beren kabuz arazoak konpontzen eta gauzak beren gisa egiten lagundu.

Helduaren papera

High Scope ereduaren egileek "arazoen konponketara bideratuak dauden jardueren bultzatzaile" bezala ikusten dute helduaren rola.

Interesgarria da hemen umearen protagonismoa eta ekimenak duen garrantzia. "Ez" ez esatea adibidez, beti gauzak arrazoitu eta beraiek bila ditzatela zailtasunen aurrean beste modu berriak.

Jarduera eremu-zonak

- a) Blokeak
- b) Etxea
- c) Arteak
- d) Atsedena
- e) Eraikuntzak
- f) Musika eta mugimendua
- g) Ura eta hondarra
- h) Animalia eta landareak
- i) Kanpoko jarduerak

Ezaugarriak

- Gela eta kanpoko espazioak hartzen ditu
- Eremuak zedarrituta daude
- Curriculum osoa hartzen du barne
- Espazio guztia txoko espezifikoetan antolatuta dago

Lehenengo sailkapen honen barruan proposamen ugari dago, besteak beste: MEC-ko Garzón eta Martínez (1988): “La práctica de los rincones con niños de 2 a 6 años”. Ramsey eta Bayless (1989): “El jardín de infantes. Programas y prácticas”; Ibáñez Sandín (1993): “El proyecto de educación infantil y su práctica en el aula”; Amara Berriko Eskola, Anaut eta beste (1989): “La globalización en una Escuela Pública”; Laguía eta Vidal (2004): “Rincones de actividad en la escuela infantil”; Vayer, Duval, eta Roncín (1993): “Una ecología de la escuela”; Garaigordobil (1990): “Juego y desarrollo infantil”; Saussois (1989): “Actividades en talleres para guarderías y preescolar”; Urtxintxa Proiektua, “Haur Hezkuntza: 0-6 urte”, Jardunaldi Pedagogikoak, Ikastolen Elkarte/Partaide Ikastolak, 2000; Anaut (2004): “Amara Berri Sistemaren Inguruan”.

4.2 Ikastetxean oinarritutako Antolaketa Ereduak**FRABBONI-ren EREDUA**

Frabboni (1984): La programmazione nella scuola materna.

Firenze: La Nuova Italia

Frabbonik, eskola, ingurunean erabat sustraituta ikusten du. Bere espazioa antolatzeko ideia ez da zona bakoitzak funtzio zehatz bat izatearena, baizik eta, zona desberdinak proiektu kurrikular integratu batean biltzea. Zortzi jarduera-gune proposatzen ditu eta horietatik sei, gela desberdinetako umeei irekiak egongo lirateke eta beste biak, norberaren gelan garatzekoak.

Zabalza-k (1987) jasotzen dituen jarduera-zentroak hauexek dira:

Zentroak

- a) Grafiko piktoria
- b) Antzerki-musikakoa
- c) Plastika-manipulazioa eta ofizioena
- d) Familiakoa

- e) Erabat ludikoa
- f) Merkataritza-gunea
- g) Logiko matematikakoa
- h) Hizkuntzena

Ezaugarriak

- Dimentsio fisikoa ez dago argi zedarrituta
- Jardueren arabera izendapena hartzen dute espazioek
- Curriculum osoa kontenplatu du
- Ikastetxe osoa inplikatu du proposamenak

Proposamen-sailkapen honen barruan ere eremu edo zentro bakoitzaren egitura, materialak eta jardura posibleen adibideak azaltzen dira.

Antolaketa-eredu honen barruan azaltzen diren beste proposamen batzuk: Ortega (1990): "La escuela infantil de 3-6 años"; Trueba (1989): "Talleres integrales en educación infantil" ; Riera Jaume (1990): "Marco ambiental y distribución de los espacios"; Selmi eta Turrini (1988): "La escuela infantil a los 3, 4, 5 años"; Domenech, Viñas (1997): "La organización del espacio y del tiempo en el centro educativo" ; Lleixa Arribas eta beste (2000), (itzulpena): "Haur Hezkuntza 0-tik 6 urtera" , Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua; Antzuolako Herri Ikastetxearen proiektua, Hik Hasi, 10. monografikoa (2003).

4.3 Komunitate osoa barne hartzen duen Eredua

REGGIO EMILIA-ko HAUR HEZKUNTZAKO UDAL ESKOLAK

.Malaguzzi, 2001 : La educación infantil en Reggio Emilia,

.Ceppi, Zini, 1998: bambini, spazi, relazioni

.MEC, 1999: Escuelas Infantiles de Reggio Emilia: La inteligencia se construye usándola

Eskola hauen metodologia lege orokor batean oinarrituta dago: "gauza errealak egiten badira, ondorioak ere errealak izango dira", hau da, ideiak gertaera eta esperientzia errealeetatik sortzen dira, erantzun eta ondorio errealei bide emanez; horrela, eskolan txiki txikitatik ikertzen da. Proiektuetan oinarrituz lan egiten dute. Gu, 2004ean Reggioko Gianni Rodari eskolan izan ginenean, 4 urteko umeekin eskolako "eskailera"-ri buruzko proiektua egiten ari ziren (ingurua aldatzeko asmoarekin).

Lehenbizi, “pensiero provvisorio” edo behin-behineko pentsamendua deitzen dioten aldiarekin hasi aurretik, irakasleek eta umeek eskaileraren esplorazio indibiduala egiten dute. Beraien esanetan, eta guk ere horrelaxe pentsatzen dugu, interesgarria da umeek ikus dezatela ingurua nola aldatu daitekeen bizitzea.

Espazioari buruzko elementu orokorrak

. Espazioa hezkuntza proiektuaren elementu garrantzizkoa da.

- Espazioaren antolaketa zehatz batek kalitatearekin eta umeen zaintzarako egiten ditugun aukerekin du zerikusia.
- Espazioak, umeek ondo egoteko zer behar duten eta nola ikasten duten jakiteko informazioa ematen digu.
- Komunikazioa sustatuko duten moduko espazioek dute garrantzia: eskola eta gurasoen artekoa, umeen artekoa, ume eta helduen artekoa, ... Espazioek “elkarrizketa” sortu behar dute (Rinaldi, Reggio Emilia-ko Kongresua, 2004).
- Esplizituki esaten dute beren espazioaren antolaketak teoria sozio-erakitzaile bati erantzuten diola (“besterekin” aurkitzea). Zentzu honetan, egitura, materialen hautaketa eta hauen antolaketa erakargarriak umeen esploraziorako grina handitzen duela eta giroak berak sustatutakoa dela diote.

. Espazioa hirira eta lurraldera hedatua – Eskola hiriarekin osmosian

- Umeen hezkuntza eta zaintza komunitatearen ardura den printzipioarekin, umei eskainitako egitura guztiak hiri-proiektuan integratuta egon behar dute.
- Haurtzaroarekin zerikusia duten erakundeek hiriko erdigunea hartzen dute, umeen eta irakasleen bizitza, biztanleek ondo ikusteko moduan, komunitateko erreferentzia puntua izan dadin.
- Umea hiritarra da, orain, ez etorkizunean soilik.
- Pedagogo, irakasle eta familiak, arkitekto eta diseinatzaile taldeekin batera aritzen dira eskoletako eraikuntzetako diseinu lanetan eta esperientzia sentsorial aberatsak eskainiko dituzten espazioak eraikitzen dituzte.
- Irakasleek garrantzi handia ematen diote eskola inguruan dauden espazioei, hiri espazioaren ezaugarri kultural, historiko eta gizatiarrei; espazio naturalari, eta eskolako espazioaren hedadura gisa ulertzen dute.

. Espazioa, kultura orokor eta zehatz baten isla

- Espazioa, alor askotan, antolatzen duen kulturaren islatzaile izaten da.
- Eskualdeko eta herriko kulturaren elementuak presentzia handia dute.
- Eskolak bere kultura propioa sortzen du.

Ikastetxearen antolaketa

- Erdian espazio handi bat dago, plaza handi bat eta hiru eremu daude adin maila bakoitzerako (3, 4, 5 urteko umeentzat).
- Erdiko “piazza” honek garrantzi handia du ikastetxeko bizitzan, elkartzeko eta jarduerak egiteko (hitz egin, eztabaidatu, salerosketak egin, politika egin, antzeztu, manifestatu).
- Sekzio bakoitzak tailer txiki bat dauka eta zerbitzu zona propioa du.
- Sekzio bakoitzak kanpora zuzenean ateratzeko irteera dauka.
- Beste espazio garrantzitsu bat Tailerra da. Eremu handi bat hartzen du eta plastika eta arte adierazpenen jarduerak egiteko erabiltzen dute. Material oso bariatuak ditu, erremintak zein bestelako baliabide ugari, umeek eta maisuek esploratu, esperimentatu, adierazi eta pentsamenduak sor ditzaten. Arte Ederretan espezializatutako irakasle baten ardurapean dago.
- Lorategiak. Negukoa (estalia) eta kanpokoa.
- Sukaldea. Erdiguneko espazio handi bat hartzen du, oso eskura dago, bertan prestatzen da janaria eta umeek parte hartzen dute momentu askotan. Bazkaltzeko momentuetan lantzen diren balore eta harremanak garrantzi handia dute beraientzat.
- Sarrera: atsegina, umea goizean eskolara sartzen denean lehenbizi ikusten duen tokia baita.
- Bainugelak: Atseginak, ondo egokituak: ispiluak, landareak eta abarrekin dekoratuak.
- Deskantsurako eremua: baketsua, atsegina, handia.
- Pasilloan: denda txokoa: produktuak (barazkiak) pisatzeko pisuekin; beste material batzuk: enbor pusketak, harriak, pinu-buruak, material ezberdinekin egindako egiturak, zintzilikatutako material eta objektu ugari: bizikleta-gurpil baten radioetan, pieza metalikoak eta fruten azal lehorrak zintzilikatuta; “La Luna”


deitzen dioten egitura metaliko borobil batean zintzilikatuta: mota desberdinetako hariak, zintak, ...


- Patioa. Barruko giroaren jarraipena da. Denbora asko pasatzen dute bertan esperientziak egiten. Patioa bere ezaugarri naturalak kontuan hartuta antolatuta dago: eremu itzaltsuak, eguzkitsuak, lur eremu irregularrak, uniformeak, iturritik bertako zonak, jostatzeko tresnen eremua, txabola bat jostailu eta instrumentuak gordetzeko. Eremu berde handia eta oso ondo zaindua: landare, belarra, zuhaitzak, hondarra...

Alderdi komunak:

- Eskola hauetan objektu txiki eta handi ugari aurkitzen dugu, guraso eta hezitzaileek sortutakoak, eta orokorrean, merkatuan aurkitzen ez direnak.
- Paretak, umeen lanen erakusketak egiteko erabiltzen dira.
- Bakoitzak bere mezuak sartzeko buzoia dauka, argazkiarekin (“comunicazione e messaggi”).
- Gela bakoitzean 25 ume daude, eta 2 hezitzaile –bikoteka lan egiten dute–, adibidez, 2 gela = 50 ikasle, 4 irakasle.
- Irakasle eta familien artean egiten dituzte proiektuak.
- Pertsonal guztiak astero bilera bat egiten dute proiektua eztabaidatu eta sakontzeko.
- Familiak beren gisa edo hezitzaileekin elkartzen dira (hilean behin edo bitan).
- Hiria, kanpoa eta mendia elementu didaktikoak dira.
- Koordinatzaile pedagogikoak lagundu, aholkatu eta eztabaidatzen du.

Reggio Emilia-ko eskolen espazioak eta antolaketa





Piazza



Gela bat espazioka



Tailerra



Mozorrotzeko espazioa



Antzerkiaren espazioa



Dendaren espazioa



Etxea



Ispilu uhindua



Jangela



Sukaldea



Umeak aldatzeko espazioa



Panelez osatutako labirintoa





Jolas motorikorako kuboia



Kubo magikoa



Ingurune/hirian egiten dituzten jardueren hainbat adierazle



Iluminato, bono ordu, Aino akitso itai. Tallo.
Sungue ap. Jave. Auenent e. itari silmente fresco.
Luisa Adamez

e il cielo è fresco





Enpresa, biltegi eta dendetatik jasotzen dituzten material soberakinekin udara hasieran hirian egiten duten erakusketa



Gela barruko espazioak

- . Motrizitate eremua
- . Eraikuntza handien espazioa
- . Babestutako eremuak
- . Tailertxoak adierazpen grafiko eta manipulazioetarako

EREMUAK	EZAUGARRI OROKORRAK
MOTRIZITATE EREMUA	<p>Egokitzapena:</p> <ul style="list-style-type: none"> . Zabala eta irekia . Estalia azalera guztian, alfonbra goxo batez . Bi koltxoi handi eta horma-barra baxu bat <p>Materialak:</p> <ul style="list-style-type: none"> . Tamaina eta lodiera guztietako sokak . Diametro desberdinetako tutuak, garden eta opakatuak, malguak, ez hain malguak eta zurrunak . Tamaina guztietako kaxak . Pilotak, txapak, zintak, etab.
ERAIKUNTZA HANDIEN EREMUA	<p>Kokapen eta egokitzapena:</p> <ul style="list-style-type: none"> . Aurrekoarekiko hurbil . Altuera desberdinak dituzten bi tarima handi . Jolas materialarentzako altzari mugikorra . Mahai bat . Ispilu handi bat pareta osoa hartzen duena <p>Materialak:</p> <ul style="list-style-type: none"> . Garraiatzeko errazak diren kutxak . Funtzio eta ezaugarrien arabera antolatutako . Merkatukoak edo guraso eta irakasleek eraikitakoak
EREMU BABESTUAK	<p>Zentzu formatiboa:</p> <ul style="list-style-type: none"> . Eremu babestu eta ezkutuan daudenak, umea bakarrik edo talde txiki batekin egon daitekeenak. <p>Funtzio hau bete dezaketen espazioak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> Jolas sinbolikorako espazioak Irakurri eta musika entzuteko espazioak “Altxorren” espazioa (“beraien gauzak” jasotzeko eta erabilpen indibiduala duten kaxak, aurrean irekiak direnak)
TAILERTXOA	<p>Zentzu hezigarria eta kokapena:</p> <ul style="list-style-type: none"> . Gelatik bisualki nahiz akustikoki isolatua gelditzen den espazioa, erabateko kontzentrazioa ahalbidetu dezan . Adierazpen grafikorako eta manipulazio anitzen jarduerak errazteko diseinatutako espazioa <p>Egokitzapena:</p> <ul style="list-style-type: none"> . Kabailate handi bat eta ondoan karro bat margo eta isipuak eskura egon daitezen . Mahai handi bat talde txikiekin lan egiteko . Erretroproiektorea: umeen marrazkiak proiektatuz . Altzari metaliko handi bat, kaxoiekin, manipulatzeko eta esperimendatzeko erabiltzen dituzten material guztiak gordetzeko: buztin, alanbre, inprimatzeko tresnak, kolore guztietako hariak, maskor, karakola, puntzoi, guraize, tenpera, etab. . Material guztiak umeen altuerara egokituta daude

Ezaugarriak:

- Ikastetxea eta komunitatea hartzen ditu barne. Komunitate baten proiektua da. Egitasmo kulturala da
- Eremuak zedarrituta daude
- Jardueren arabera izendapena hartzen dute espazioek
- Curriculum osoa kontenplatu du

Antolaketa-eredu honen barruan azaltzen diren beste proposamen batzuk Reggioiko proiektuan inspiratuta daude; horien artean: Suediako Dahlberg eta beste (2005) "Más allá de la calidad en educación infantil", "Estokolmo proiektua" izenarekin ezagutzen dena; Catalunyako Rosa Sensat eskolen sare barruko "El Martinet" (Ripollet) Haur Eskola, (2004-05), Nafarroako Iruñako Haur Eskolen Udal Patronatua; Villabako Haur Eskola; Bergamoko eskolak, Fornasa-ren zuzendaritzapean, Pistoia, Italiako Udal Haur Eskolak: "Crescere al Nido", Roma: Carocci (2003); Cabanellas eta Eslava, (Koord.) (2005), "Los territorios vitales de la infancia".

4.3.1 Italiako Pistoia Haur Eskoletako proposamena

Giovannini (2003), Pistoia udaletxeko haur eskolen koordinatzaile pedagogikoa da eta hitz hauekin laburtzen du beren eskoletako jardura: "Haur Eskola, egiteko dauden gauzez betea dago. Giro egonkor eta ordenatua, umeen esperientzia lasaigarria eta aberatsa da. Umeek erregularitasuna eta koherentzia behar dute egiten zaizkien proposamen ugarietan. Denbora pertsonalari buruz ere, mugimendu askatasuna behar dute, beste umez eta helduez inguratuta dagoen eta ikerketarako bide emango duten materialak dituen espazio batean".

Giroak laguntzen du haurren jardura kognitibo eta eraikitzailea ikusten, materialen aberastasuna edo pobrezia esker, nola kokatzen dituzten objektuak eta nola mugitzen diren espazioan. Berehala ikusten da, ezagutza aukerak momentu motz eta puntualetarako uzten dituen eskola den, edo, alderantziz, aukera horiek erregulariki eta egonkortasunez eskaintzen dituen.

Goizeko lehenengo momentuan, talde txiki bat osatu denean, hezitzailearekin hasten dira haurrak animalia txikien zaintza lanetan, edo landareak ureztatzen. Arrainei ura aldatu, jaten eman, dortoka hondarrean jarri, akuarioa garbitu, edalontziak garbitu, hosto batzuk moztu... Horretarako materiala: ureztailuak, palak, landareetatik xomorro txikiak kentzeko sare txikiak... Iristen joan ahala beste umeak

ere aktibitate hauetan integratzen dira. Denak iritsi artean denbora gelditzen da mahaia prestatzeko, leiho ondotik zerua behatzeko, eraikitako errotatxoak nola mugitzen diren ikusteko...

Haur eskolako bizitza oso aktiboa da goizean goizetik, egiteko gauzez betea dago, lan giro honetan umeez egunari zentzua hartzen diote. Giroa materialki lasaigarria da prestatua dagoelako. Espazioa eta denbora ez daude kasualitatez antolatuta. Giro honetan ezagutzaren gogoeta eta motibazioa ziurtatuta daude eta horrelako giroa eskaintzen duen esperientzien erregulartasun batean bakarrik lortuko dute umeez bere ezagutzak finkatzea.

Hizkuntza asko erabili behar dira eta irudikapen mota desberdinak (grafikoa, ahozkoa, espresiboa); hizkuntza batetik bestera joanez, haurrak bere sare kontzeptualak eta bere teoriak aberastu ditzake (Rinaldi, 1998).

Ibilbide tematikoak

Umeez bere arduretara konstanteak izateko gaitasuna dute eta gai bat elkarrekin esploratu dezakete hilabete askotan zehar. Eskolan edo familian bizitutako gertakari-pasarte batetik abiatzen gara. Ondoren, bi adibide ematen dizkigu D. Giovanninik:

1.- Goizero haurrek leiho handietatik burua ateratzen dute edo gelatik ateratzen dira zerua behatzera. Horrela hasten da eguna. Batzuetan eskola alboan dagoen parke batera ateratzen dira beraien bota eta euritakoekin (euria ari badu), edo etzanda jartzen dira belar edo banku baten gainean eguzkitan. Zeruaren kolorea irudikatzeko urez betetako harraska batean tinta txinatarra erabiltzen dute edo, egutegia egunean jartzea goizero egiten duten jarduera erritual ludikoa bihurtzen da. Etxean, gurasoekin, hezitzaileek animatuta, argazki edo irudiak bilatzen dituzte pasatako aldizkarietan gero eskolara ekarri eta horma-irudi bat dekoratzen dute irudi guztiekin. Bitartean, guraso eta hezitzaileek zeruari buruzko ipuinak eta testu zientifikoak ekartzen dituzte, ondoren, gogoeta egingo dute zeruarekin erlazioa duten ezagutza elementuei buruz fenomeno meteorologikoak kontuan hartuz eta umeez horien inguruko hipotesiak planteatzen hasi ahal izateko.

Hasieran, haurrak zerua ikusten duten bezala marrazten dute, hezitzaileekin batera; ondoren, gelatina batzuk erabiliz, kolore askoko beirak eraikitzen dituzte argiarekin jolasteko, aurretik marraztu eta moztu dituzten ilargiak, izarrak, isatsdun izarrak eta planeta handi eta txikiak, denen artean itsatsiz. Emaitza ikusgarria da eta

esperientzia luze baten irudikapena jasotzen du. Bukatzeko, arratsaldean behatokira bisita egingo da gurasoekin batera.

2.- Pin-ball handi baten eraikuntza. Proiektu hau epe luzean egitekoa izango da. Hasieran umeak objektuekin trebatu dira eguneroko materialen esplorazioari buruzko programazioari esker: ontziak, neurri txikiak, dosifikatzaileak, inbutuak, iragazkiak, etab.

Gero, hezitzaileek material egokienei buruzko antolaketa planteatzen dute gogoeta artikulatuetara iritsi daitezen, adibidez, edukiontzi eta edukiaren arteko erlazioak edo materialen aldaketei buruz.

Aurrera pauso bat emanaz elkarrekin proiektu bat egiteko aukera eman zitzaien umei: joko handi baten eraikuntza materialaren ezaugarri fisikoen ikerkuntzan jarrai zezaten. Horrela, objektuak aukeratu, antolatzeko moduak planifikatu, taldeak egin eta erabili beharreko espazioak prestatu ziren.

Mahai handi bat jarri zen eta umeek estanpatuaren teknika erabiliz margotu egin zuten. Materialen artean: kaxak, falkak, tuboak, bolatxoak eta makinatxo txikiak erabili ahal izan zituzten behin eta berriro esperimentatzeko mahaian kokatu edo lotu aurretik. Eginkizun honetan aritu ziren bitartean, gogoeta egiteko eta objektuak mugimenduan eta osagai desberdinen artean dauden erlazio dinamiko-espazial zehatzak identifikatzeko aukera izan zuten; arazoei aurre egiteko, konbinazio aukera harrigarriak sortu zituzten.

Materialen konbinazioari esker umeek erlazio espazialak, ibilbideak, orekak, eroriak, agerpen eta desagertzen berriak ulertu zituzten.

Bukatu ondoren, sarreran jarri zen jokoak, hobeto ikusteko eta umeek nahi dutenean erabil ahal izateko.

Materialak

- Beharrezkoa da materiala ongi aukeratua izatea helburuaren arabera.
- Helduek probatua eta esperimentatua egon behar du.
- Aukeraketa egokia egiteaz gain, ondo ordenatuta, nabarmen ikusteko moduan eta eskura egon behar du.
- Materiala berritu egin behar da, erabiliko ez dena baztertuz, berritasunak haurren bizitzan sar daitezen.

- Mota guztietako paperak, artile eta koloretako hariak, burdin hariak, soka, kaxak, beirazko bolatxoak, botoiak, hostoak, harriak, loreen petaloak, belar perfumatuak, guraizeak, kola, arbel argitsuak eta beste hainbat ez-ohiko material.

4.3.2 Catalunyako Rosa Sensat sareko “El Martinet” Ripollet-eko Haur Eskolako proposamena

Guzman (2005) koordinatzaileak jasotzen dituen elementu nabarmenenak aipatuko ditugu bere garrantziagatik:

Hezkuntza taldearen ahaleginak, umeek egiten dutena dokumentatze-lanean zentratu dira. Zera dokumentatu dezakegu:

- Sekuentzia (umeen artean gertatzen den ekintza; prozesu motza eta begirada fina/zorrotza behar duena).
- Espazioak (espazioak ere berari buruz hitz egiten du).
- Eskolako egitateak.

Dokumentazioa, azpimarratzen du Guzman-ek, ez da irakaslearentzat bakarrik, familientzat, umeentzat eta zentroan lan egiten duten guztientzat baizik. Dokumentazioa eleberria bezala da; momentu-egoerak oparitzen dizkigu.

Zer egiten ari gara? Erantzunak, entzutearen pedagogiara garamatza, auto-kontzientziarantz. Eskolak ez du kultura kontsumitu behar; kultura sortzaile eta ekoizle izan behar du. Oinarrizkoa da prozesu guztian zehar talde finko, konprometitu eta izpiritu kritikoa duena izatea, ikaskuntza indibidual eta taldekoaren iturria baita. Dokumentazioa da eskolaren ondarea.

Adibide batzuk:

- Eskola ingurune desberdinetan antolatuta dago; 3-4-5 urteko umeak elkarrekin daude. Astelehenero, haurrak aukeratzen du zein gelatan egon nahi duen aste guztian.
- Egiten dituzten lan guztiek, testu zientifiko, antropologiko eta fisikoen aurkikuntza eskatzen diete hezkuntza taldeei. Haurrak eraikitzen duenari buruzko ikerketa eta azterketa sakon bat dago.
- Adibide guztietan, dokumentazioaren ildo lineala mozten duen elementuren bat aurkitzen dugu.
- Dokumentazio guztia eskolako edozein espaziotan aurki daiteke; familiek sarrera librea dute.

“Sukalde bateko lana”

Umeek ogi-irinarekin, haziekin eta tresnekin esperimentatzen dute (egurrezko ontzi eta lepokoekin). Dokumentazioa, “Como agua para chocolate” liburuan oinarrituta dago, argazkietan oinarritzen da (umeen jardueraren hainbat sekuentziatan), “mandalen” errepresentazio grafikoetan.

“Eguneroko eginkizuna”

Etxeko giroa (ekintzei buruz hitz egiten du). Ume guztiak arduratzen dira eginkizun garrantzitsuetaz eskolako antolaketa ona berma dadin; dokumentazioak, helburu hauek onartzeak suposatzen duena jasotzen du.

“Zer gertatzen da gorputza lantzen den gelan?”

Psikomotrizitate gela.

“Hondarrezko mendi baten istorioa”

Sormen jarduera. Sekuentzia motzean, hiru umeen arteko historiaz hitz egiten du.

Ume batek mendi bat marrazten du, pintura erabiliz; sortzen doan heinean, istorio bat eraikitzen doa ahoz. Neska bat abenturan sartzen da eta sortzailearen jarraibideak segitzen ditu. Geroago, hirugarren ume batek pentsatzen du marraztutako mendiak ez daukala inolako balorerik. Umeak hasiera batean sortutakoa “apurtu” egiten du.

Egoera honen aurrean, hezkuntza taldeak hipotesiak planteatzea erabakitzen du; zergatik puskatu da hainbeste ahaleginekin sortutako lana?

“Hiriak”

Eraikuntza giroa.

“Argi-paisaiak”

Umeen arteko elkarrekintza erretroproiektore baten laguntzaz.

“Zer gertatzen da alboko gelan?”

Panpinak, sukaldeko giroa.

2006ko urtarriletik aurrera, El Martinet eskolak hilean larunbat batean atea irekitzen ditu, eskola ezagutzeko jakin-mina daukan edozeini erantzun ahal izateko.

Reggio Emilia-ko udal eskoletan bezalaxe, Pistoia-ko eta Ripollet-eko eskola hauetan ere garrantzi handia ematen zaio entzutearen pedagogiari, hizkuntza mota desberdinei, dokumentatzeari, hau da, ageriko curriculumari; publiko egiteak

erabiltzaile guztien eskura jartzen baititu helburuak, igurikapenak, lorpenak, hobetzeko elementuak... eta denen arteko parte hartzea eta ekarpenak.

Atal honekin bukatzeko esango genuke hirugarren sailkapen honetako proposamena dela interesgarriena, eskola-familia-komunitatearen arteko kolaborazioa eta konplizitatea bultzatzen eta lantzen dituelako. Ildo honi jarraituz lan eginez honako hau lor daiteke: gizartea Haur Hezkuntzaz eta Hezkuntzak oro har duen garrantziaz jabetzea, irakasle eta familien arteko ulermen handiagoa lortzea. Horretarako, beharrezkoa litzateke gizarteko eragile guztien inplikazioa, erakunde desberdinetako arduradunen benetako parte hartzea eta, administrazioaren aldetik, helburu sozial eta politika publiko aurrerakoiak sustatuko dituzten hezkuntza proiektuak martxan jarri eta koordinatzea.

Merino eta Plana (Koord.-ek), (2007), "La ciudad educa" liburuan, Estatu mailako, ingurunea eta hiria eragile hezigarriaren ikuspegiarekin martxan dauden proiektu eta lan interesgarrien deskribapena egiten dute. Bertan, "ikastetxea ikaskuntza komunitatean eraldatuz" izendapenaren barruan, Ikaskuntza Komunitateak proiektuan lanean ari diren 40 ikastetxe baino gehiagoren erreferentzia egiten dute, besteak beste. Catalunya, Euskadi eta Aragoiko Hezkuntza Sailek sortu dituzten taldeak aipatzen dira proiektu horren arduradun bezala.

Zentzu berean, interesgarria iruditzen zaigun beste erreferentzia bat: Prats eta beste (2009) "La ciudad y el patrimonio histórico como recursos educativos", "Hiri hezitzaileak" atalean azaltzen dituen programak dira.

5

ALDAGAI GARRANTZITSUAK

5 ALDAGAI GARRANTZITSUAK

Espazioaren kontzeptua definituz eta lehenengo hurbilketa eginez hasi gara marko teorikoaren atala azaltzen; 2. kapitulu, Eskola eta Haur Hezkuntzako espazioei buruzko ikerlanen errebisioa egin dugu; 3. kapitulu, Ikastetxeen eta eskoletako eraikuntzen inguruko hainbat ikerlan azaldu ditugu; 4. kapitulu, Espazioaren antolaketari buruzko hainbat proposamen didaktiko jaso ditugu.

Oraingo kapitulu honetan, gure lanaren azterketarako erabili ditugun hainbat aldagai azalduko ditugu:


- Espazioa
- Denbora
- Egokitzapen-aldia
- Autonomia
- Elkarrekintza

5.1 Espazioa

Espazioaren kontzeptuari, eskoletako espazioei buruzko ikerlanei, eraikuntzen inguruko hainbat faktoreei eta antolaketa didaktiko zehatz batzuei marko teorikoaren zati handi samarra eskaini diegu, espazioa baita gure laneko aldagai nagusia eta beraren barruan egongo lirateke beste aldagai guztiak.


Proposamen didaktikoen atalaren barruan (67. orr) Reggio Emilia-ko eskolen eredua azaldu dugu. Ondoren, espazioaren aldagaia deskribatzerakoan eskola hauetako espazioen dimentsio erlazonala, komunikazioarena adierazi nahi dugu, gure ikerketa laneko bi ikastetxeetako proposamena eredu honen adierazleekin kontrastatu nahi dugulako.

Ume taldea indibidualtasunez eta asoziazioez egina dagoela, bere trebetasun eta kidesun desberdin eta guzti, hobekien adierazten duen metodoa, Erlazioaren metodoa (“Erlazioaren Pedagogia”) da. Horretarako, heldua behaketaren bidez joango da umeek parte hartzeko, egiteko eta aukeratzeko dauzkaten modu desberdinak aurkitzen eta jardueren proposamenak umeen motibazio eta interesei erantzungo die. Elkarrekin eraiki, eraikuntzaren ikerketa egin: errealitateak eta fantasiak berrelikatu egin behar dute elkar, ez da nahikoa beraien arteko elkarbizitze soilak.



Adierazpen teorikoen eta eguneroko praktikaren arteko lotura beharrezkoa da

Zirkulazioa Erlazioa



Espazioak “erraztatzaile” moduan ulertuz, umea “bizi” dadin, bere sentimenduak identifikatu eta adieraziz. “Espazioak” kontinenteak izango lirateke eta edukia, berriz, sentitzea eta emozionatzea (Masullo, Reggio Emilia-ko Kongresua, 2004). Espazioaren forma ez da inoiz behin-betikoa. Estetika praktikaren zati funtzionala da.

Antolaketa egokiena, talde txikietan egiten diren jarduerena da, komunikazioa eta nahia uztartuz. Helburuetako bat, talde txikietan lan eginez giro aberatsak zein garapen eta aldaketa prozesu aberatsak sortzea da. Helduek –hezitzaileek– ume bakoitzak taldean betetzen dituen rol desberdinak eta beren arteko erlazioak jaso behar dituzte.

Gurasoen parte hartzea elementu garrantzitsu bezala baloratzen da eta praktika esplizitua du. Adibidez, gu han ginela honako hau gertatu zen: ama bat, diarria idazten ari zen, umeen hitzak jasotzen ari zen, eta gero, bileran, komentatu eta aztertu egin zuten. Komunikaziozko harremanak bilatzen dituzte, eskolak umeekin egiten duena dokumentatuz. Esku-hartzeko eszenatoki honek, bere ingurunean zer gertatzen den jakiteko interesa eta jakin-mina sortzen die umei.

Eskola hauen helburua umea entzutea da, “umearen 100 hizkuntzak” kontuan hartzea. Eskola atsegin bat sortzea, hau da, aktiboa, asmamen handikoa, bizitzeko egokia, dokumentatua, komunikaziozkoa, ikerketarako, ikaskuntzarako eta gogoetarako tokia duena, non, hezitzaileak, umeak eta familiak gustura aurkituko diren. Erlazioaren pedagogia bat egituratzen saiatzen dira, kide guztien parte hartzearekin. Horrek eskatzen du, etengabeko aldaketak egiten egotea eta horretarako,

adibidez, familiekin alde zuzeneko topaguneak egiten dituzte, lan proiektuen eta antolaketaren xedeak definitu eta aztertzeke.

Dokumentatzea, egiten dutena esplizitatzea giltzarrietako bat da; eskola gardena, publikoa, agerikoa. Panel eta tresna asko daude umeen eta eskolako bizitzaren informazioa erraz ikusi ahal izateko.

Reggio Emilia-ko Rinaldi-k dioenez, (Ceppi eta Zini Koord.-en “bambini, spazi, relazioni” liburuan, 1998), eskola edo haurtzaindegiko espazioa proiektatzea sormen handiko gertaera izan daiteke, pedagogikoki eta arkitektonikoki, zein sozialki, kulturalki eta politikoki begiratuta.

Eskola-erakundeak paper oso garrantzitsua bete dezake kulturaren ekoizpenean eta benetako esperimentazio soziopolitikoan, proiektatzeko momentua eta tokia (eskola) ez direlako ikusi behar ezagutzaren transmisiorako eta erreproduktzioarako espazio eta denbora bezala, kreatibitatearen-sormenaren espazioak bezala baizik.

Aipatutako liburuan, Ceppi eta Zini-k, horrela jasotzen dute espazioaren eraikuntzak eta antolaketak ahalbidetu beharko lieketena eskolako bizitzan parte-hartzen dutenei:

Umeari

- Bere potentziala, konpetentzia, ikusmina adieraztea
- Esploratu eta ikertzea, bai bakarrik, bai besteekin, kide eta helduekin
- Eskolan egiten diren proiektuen edo proiektu zabalago baten “eraikile” sentitzea
- Bere identitatea, sexualitatea, autonomia eta konfiantza sendotzea besteekin egin, ekin eta komunikatzea
- Bere identitatea eta pribatutasuna errespetatzea

Irakasleari

- Umeen eta gurasoen harremanean lagundua eta integratua sentitzea
- Proiektuen antolaketa eta gauzatzean babestua sentitzea
- Helduekin: kide eta gurasoekin elkartzeko premiari erantzuneko dien espazio egoki eta ongi dekoratuak bermatzea
- Norbere pribatutasunaren eskaera aintzakotzat hartzea
- Etengabeko prestakuntzaren ekintzetan babestua izatea

Gurasoei

- Ongi etorria izatea
- Informatua egotea
- Beste gurasoekin eta irakasleekin ordu eta modu egokian elkartzeko aukera, benetako kolaborazioa egon dadin

Prozesuzko arkitektura aldarrikatzen dute, hau da, egokitzen eta aldatzen joan daitekeena, komunikazioari bide ematen diona. Haur Hezkuntzako eskolak eta haurtzaindegietako sistemen sistema osatzen duten proiektuaren elementu-sare guztia eutsiko duen proposamena.

Gozamena sentiarazten duen giroa, denekin eta bakarrik esploratua eta bistaratua izan daitekeena, ondorengo aldaketetarako inspirazio moduan. Bere konplexutasun enpatikoan, hau da, espazio horiek erabiltzen dituzten pertsonen ikusmenarentzat zentzu osoa izango duen giroa.

Egile hauek, asko azpimarratzen dute espazioen izaera “irekia”, bukatu gabea, prozesu bizi moduan ikusten duena, baloratzen eta ebaluatzen joatekoa eta erabiltzaileen desio eta premien arabera ikertzen, moldatzen-egokitzen, berreraikitzen joateko modukoa, giro atsegina, goxoa, gozatzekoa eskaintzen duena.

Cabanellas eta Eslava-k (2005), Jorge Oteizaren hitz batzuekin hasten dira haurtzaroko espazioen garrantzia adierazten:

“...Txiki-txikitan, Orion, nire jaioterrian, nire aitonak hondartzara eramaten ninduen. Nik, barru-barruko aldean zeuden zulo handi batzuekiko ikaragarrizko erakargarritasuna sentitzen nuen. Haietako batean ezkutatzen nintzen, etzanda, nire gainean gelditzen zen zeruko espazio handi bakar hura begiratzen, nire inguruan zegoen guztia desagertzen zen bitartean...”

Jorge Oteizak, bere haurtzarotik hasita eskaintzen digu espazioarekin zuen elkarrizketa indartsu baten bizipenaren oroimena. Oteizaren eta beste hainbat artisten oroimenek haurtzaroaren zatiak jakinarazten dizkigute eta horiek, seinale moduan, umeen arteko erlazioak eta bere espazioa behatzera eramaten gaituzte.

Beharrezkoa da egile hauen esanetan, haur kulturarekin lotura bat ezartzea, bere ingurunearekin neska eta mutilak eraikitzen dituzten elkarrekintza anitzak agerian jartzeko, jolasa giltzarri bezala hartuta, bere interpretaziora hurbilduz espazioaren esperientziaren potentziala eta aberastasuna behatzea ahalbidetuz.

Espazioaren oinarrizko zentzumenen ahaztea

Espazioaren oinarrizko dimentsioa, birsortze eta eraldatze etengabea dagoena, ez da azaltzen behar adina indarrekin hezkuntza munduan, nahiz eta esperientzia eta ikerkuntza ugari egin den eta horietatik ateratako emaitzek galdera eta erantzun dezente eskaintzen dizkiguten eremu horretan. Lurçat-en ekarpenak, Alemanian Montessori eta Fröbel-en eskolei buruz egin berri diren lanek, Lange-ren ikuspegi kritikoa, edo Malaguzzi-ren inspiraziopean Reggio Emilia-ko eskoletan egindako lanek, hauen jarraipena Catalunyan eta Nafarroan, edo Bergamo-ko Fornasa-k dauzkaten planteamenduak dira, beste batzuen artean, gure hurbilketari ikuspegi bat ematen, gure galderei erantzuna aurkitzen laguntzen diotenak.

Behar bada, parte hartzen duten eragile eta diziplinen arteko erlazio izaerari aurre egitearen zailtasuna gure gain hartu beharrean aurkitzen gara, balorazio “orokorretara” edo “behin-betiko” ondorioetara iristea ezinezkoa dela onartuz, eta elementu guzti horiek “espazioaren zentzu bizien” urruntze eta uztea ekarri digutela eskola ingurunean, programazioetan eta helburuetan. Hala eta guztiz ere, espazioarekin jolastea modu ustekabezkoan iragazten/infiltratzen da hezitzaile askoren proposamenetan beraien sentsibilitate eta sormenaren bitartez.

Eskolako espazioak manipulazio eta eraldatze objektuan bihurtzen direnean, eskolako edukietan adierazten ez diren ikaskuntzak sortzen dira: umea eta ingurunearen arteko harremanaren kontzientzia hartzearen prozesua, bere lurraldearen ezagutzaren bereganatzea, beraien espazioen eraikuntza eta hauekiko atxikimendu emozional berrien aurkikuntza, esperientziak ekintzatik barneratuz.

Umea eta espazioaren arteko elkartzea berraurkitu

Cabanellas-ek eta Eslava-k diotenez:

“Haur-kulturarekiko lotura ezartzea beharrezkoa da, haurrek eraikitzen dituzten ingurunearekiko elkarrekintza ugariak agerian jartzeko eta espazioarekiko esperiantziaren aberastasuna eta potentzialaren behaketa ahalbidetzeko, espazioaren interpretaziora jolasaren bidez hurbilduz. Jolasa, gu geu behatzaileon eta haurren arteko estrategia amankomuna izan daiteke, haurrak espazioaren ulermen sakonera bideratzen dituelarik.

Haurrari bere ekintzen isla itzultzen dion elkarrekintza sortzen denean, haurrak emozio handia bizi du: hondartzako hondarra hortxe dago, aztarnak jasotzeko baliagarri den plastizitatearen aukera ugariak eskainiz, eraldatzen ari den materia bailitzan.



Ekintzak, pertzepzioak eta emozioak etengabea osatzen dute. Haurra ingurunearekiko harreman zuzenean jartzen da eta bere espazioa bizi du. Bizipen hori gorputz barrutik dario, besoen mugimendutik, materia, argia zein hondarraren hotz-beroa hautematetik.”

Akustika, ukimena edo materiaren berezko usaina bezalako faktoreak erantsiz gero, umeak espazio amestuak, irudizkoak, metaforikoak, sozialak... birsortzen ditu eta bere eremuak esperientzi modura eraikitzen ditu, jarduera-eremu eta “bestea”-rekiko (“bera” ez den guztiarekin) elkartzea, orientazioaren garapenaren osagarriak diren espazioaren bizipenak eta espazioaren bereganatze motorea garatuz. Bizitzaren lehenengo urteetan hasten da norbere gorputzaren aurkikuntza eta ezagutza, lehenengo esperientzia motoreen behaketarekin. Lorpen sensoriomotore eta hautematekoak burutzen dira, kanpoko mundua deskubritu eta esperimentatzen da, alderdi afektiboa eta soziala garatuz. Afektibitatearen espazioa, Wallon-ek (1956) dioen moduan, “barneko sentiberatasuna espazio-girora isuraldatzea da” norberaren espazio-jarrerak ekintza eta sentimenduen mugak gaintitzen dituen; ekintza horrek ahalbidetzen dio gizakiari gorputzeko atal bat behar den norabidean harremanean jartzea: beso ezkerreko norabidean, beso eskuina eskuineko norabidean.

Egileen arabera, gelako espazio konkretua eraldatu egin daiteke erabiltzaileek sortzen dituzten harremanen bitartez, edota objektuekin ezartzen ditugun konexioen bitartez, espazio “birtual” bat aktibatuz. Espazio birtual hori, emozio eremu desberdinen sortzaile da, sortzen duen jokoarekin azaldu eta desagertzen delarik.

Eremuak gure postura propioa itzultzen digu, frontoiko jokoan, eman diogun indarra eta norabidearen arabera pilota itzultzen den bezalaxe. “Barneko sentiberatasuna espaziora isuraldatze” hau ez dugu ikusi behar norabide bakarrean, espazioaren egiturak erabiltzaileari ahalbidetzen dioten elkartze elkarrekikotasunetik baizik. Batak bestea aldatzen du, umearen ingurunearen eremuaren eraikuntza ahalbidetzen duen elkartze batean. Jatorrizko bizipenak izan daitezkeenak: ama-

espazioa, hutsune afektiboa, edo indar edo nagusitzea markatzen duten espazioak, honako sentimenduak adierazi ditzakete: babestua edo babesle, garaile edo galdua, zapalduta edo lotua... bilduta, itxita edo hedatua sentitzea.

Bizitutako sentimenduekin asimilatzea izango litzateke: argi aldaketekin espazioa nola aldatzen den sentitzea edo elementu berri bat jarrita, gure muga emozionalak, fisikoak, sozialak, afektibo eta intelektualak sentitu espazioaren izaera sentikorraren enpatian.

Eskolak, umeen ekintzen bitartez espazioak birsortzeko aukera eskaini behar du, espazioak aldatu ahal izateko esperientzia eremua proposatu. Prozesu hauek kontzientzia hartzea suposatzen dute, naturalki bizitutako ikaskuntzatik ezagutza kontzienterako pausoa erraztuz.

Nola deskubritu tarteko espazio horien aberastasun potentziala, objektuen arteko espazioak, pertsonen artekoak, afektiboak, posturalak, mentalak?

1956an Aldo Van Eyck arkitektoak idatziriko "When snow falls on cities" testuan, erakusten digu nola elurra egiten duenean hirietan, haurra hiriko jabe bihurtzen den. Denbora laburrean bada ere, "tartearen lurraldea" sortzen da, non elurraren materia plastikoak umei kale ingurunea jolas espazio bezala berrinterpretatzen uzten die aztarnak bertan utziz.

"Espazioa eta denbora" berraurkitzen dira "toki eta une" bezala, subjektuaren elkarrekintza beharrezkoa delarik, arkitekturaren barrualdean bihotza mugimenduan jarritz, Eyck-ek bere proiektuetan eta jolas eremuetan adieraziko duena, guzti hau argazkiekin dokumentatuz (Cabanellas eta Eslava, In-fan-cia, 91. alea, 2005).

Txokoak

Mende bat beteko da Dewey, Decroly, Freinet eta beste hainbat pedagogok izaera jakin batekin gelako ikaskuntza egoerak bloke tematiko jakin batzuen inguruan banatu zituztenetik, ordura arteko "gela bakarra" zonalde desberdinetan artikulatuz jardueren eta edukien arabera.

Dena den, egileen ustez, "espazio" terminoa bere jatorrizko eta zentzu zabalenean ahaztuta utzi da: izaera funtzionalaren hausnarketa eta antolaketarako potentzialak itzalean utzi ditu elkarrekin funtzionatu beharko luketen beste hainbat alderdi. Gelako espazio fisikoaren erabilera tresna didaktiko modura hartuz, esperientzia espazialaren esanahi garrantzitsuenak ahaztu egiten dira, eta horren ordez, maiz, espazio estereotipatuak eskaintzen dira, umearen ahokatzeko afektiboa eta

ezagutza funtzioak mugatuz, erlazio dinamikoak edo ustekabeko elkarrekintza ezartzeko aukerak gutxituz.

Haur taldea antolatzeko tresna gisa erabiltzen bada eta haurren arteko bizi harremanak eta eremua bera kontuan hartzen ez badira, "txokoen pedagogiak" bere zentzua gal dezake. Askotan, espazioak, irakaslearen eginkizuna errazteko asmoz antolatzen dira lan eremuetan: behaketa txokoa, idazketarena, matematikarena, plastikarena... Txokoek altzariak antolatzen laguntzen dute: etxetxoa, denda, sukaldea... eta materialaren erabilpen hobea egiten da: horma-irudi didaktikoak, egutegia, ahozko adierazpenerako laminak... "Girotze" elementuak jartzen dira: argazkiak, marrazkiak, telak, gortinak, landareak... Elementu guzti horiek estetikari leku egiten die baina umea inguratzen duen espazioaren benetako balio estrukturala, bere "giroaren" bizi eraikuntza kontuan hartu gabe.

Cabanellas eta Eslava-k Lange-ren hitzak ekartzen dizkigute gogora txokoen filosofia ondo ulertu behar dela erakutsiz. Lange-k 60ko hamarkadan eskola alemaniarrek kritikoki baloratzen ditu honako hau dioenean: "Pertsonalki baieztatzen dut metodo honek umeen autonomia asko mugatzen duela: itxurazko hurbilketa demokratikoa besterik ez da, gela zonalde eta azaleretan zatitu besterik ez baitu egiten, baina jolas espaziorik sortu gabe, umeek beraien sormenekin errealitateaz jabetu ezinik eta modu ludikoan mundua hautemateko aukerarik gabe, bere garapenaren protagonista izan gabe, eta modu sotilean "adeitasunaren" diktadura mota bat ezkutatuz".

Zergatik baztertzen dira espazioarekin esperimintatzeko neska-mutilek dituzten gaitasunak? Zergatik mugatzen ditugu ezagutzaren eta afektibitatearen garapena proposamen estereotipatuekin?

Ekintza espazioa, esperientzia espazioa, espazio sentikorra, espazio sinbolikoa

Cabanellas eta Eslava egileen esanetan, aukera anitzak dituen ingurune bat eskaini behar dugu, heldua ez dadila izan espazio bakar bat sortu eta proposatzen duena, umeak mugituko diren, proposatu dezaketen eta sormenez beraien egoera espazialak eraikitze iradokizun erregistro bat eskaintzeko aukerak ematea baizik. Tamalez, ohiki eskolek ahalbidetzen duten eremuen interpretazioa determinista eta adierabakarrekkoa da: sukaldea beti sukaldea izango da, proposamenaren egokitzapena formaren literalasuna kontuan hartuz neurtzen da, ez du eragiten jolas sinbolikoan sortu daitezkeen esangura anitzetan.

Proposa al dezakegu umeak eraldaketa anitzekin atxiki dezaken jolas euskarririk?

Herman Hertzbergerr-ek eraikitako Montessori haur eskolak, aniztasunari arreta jarriz erantzuten zien jada galdera hauetara, umeen maila onartuz, eskolaren zatiak eta osotasuna erlazionatuz, bere proposamen zehatza askotariko interpretazioekin bat eginez.

Villaba-ko Amalur ikastetxean egin diren ikerketetan, eremuen eraldaketari bide eman diezaiokeen joko bat planteatzen dute, esperientzia labur berriak onartzeko beti prest dagoena, non sekuentziak, ibilbideak, gardentasunak, opakutasunak, konpresioak, deskonpresioak, ahurtasunak (konkaboak), argiak, koloreak, ehundurak, erritmoak... ekintza aktibatuko duten.

Egindako esperientzietan behatu zutenaren arabera, eraikitako espazioarekiko sortzen ziren jarrerak, emozio handiko egoerak bizitu ahal izateko aukera eskaintzen zieten. Adibidez, toki bat bereganatzen zutenean, edota eremu bat deskubritzerakoan, zeharkatzerakoan, kanpo alde eta barru aldearen arteko loturak aurkitzean... Mikro-munduak eraikitzen utziz, joko hau umeen eta ingurunearen arteko bitartekari bihurtzen da, espazioarekiko erlazio keinuak kanalizatuz eta espazioa eraldatzeko eta errealitatera aurre egiteko beharrak asez.

Jakingo al dugu aurkitzen, umearen, espazioaren eta objektuen artean dauden azpi-erlazioak bere eremu propioaren eraikuntzan?

5.2 Denbora

Domènech eta Viñas-ek (1997), espazioa eta denbora baliabide moduan hartzen dituzte. Ikuspuntu honek, kontzeptualki, aurreko ikuspegi zurrunekin hausteko aukera ematen digu eta, gaur egungo hezkuntza sistemaren behar konplexuei erantzuna ematea erraztu.

Egile hauen esanetan, honako hauek izango lirateke baliabide orokorren tratamendu desberdin hau justifikatuko luketen elementuak:

.Curriculumaren konplexutasuna. Curriculum osatu baten garapenak eraman beharko ditu zentroak askoz ere diseinu dibertsifikatuagoak egitera, ezingo gara gelditu gela bakoitzeko ordutegi zurrunean – ordukako banaketan –.

.Aniztasunaren tratamendua. Gaur egungo hezkuntza erreforma ulerkor batek, ikasleen aniztasunari erantzuna eman behar dio eta horrek, krisi bat sortzen du ohiko espazioen eta denboraren antolaketan.

.Arrazionaltasun didaktikoa. Espazio eta denboraren zatiketak klase saioetako denboraren antolaketa zehatza eskatzen du eta horrek ikaskuntza momentuak oztopatzen ditu, ikasteko mekanismoak mozten ditu, ikasleei etengabeko egokitzapenak egitea behartuz, efikazia ez oso argien mesedetan.

.Baliabide didaktiko berriak. Nahiz eta hezkuntzak aurrekontu txikiak izan, gaur egun ekipamendu hobeak daude zentroetan: ikus-entzunezko baliabideak, informatikoak, telematikoak, etab. Klarionak beste bitarteko batzuekin konpartitu behar du bere protagonismoa, espazio eta denboren eskemak apurtuz.

.Ingurunearen erabilpena. Antolaketarako elementu gisa kontsideratzen da ingurunea. Ingurunea eta bereziki bere elementu mediatikoen garrantziaz oso kontziente dira irakasleak. Eskola askotako praktikaren barruan dago ingurunearen erabilera eta, etorkizunean, ziur gaude prozesu hau askoz ere gehiago garatuko dela.

.Pertsonen antolaketa zentroan. Aurreko elementuak martxan jartzen doazen heinean, kudeatu beharreko eginkizunen antolaketa egiten joan behar du eskolak. Espazio eta denboren eskema zurrunez ikaragarri oztopatzen diete zentroetako zuzendaritza taldeei baliabideen kudeaketa klaustroetan eskatzen diren irizpideetara egokitzea. Maiz ez dira kontuan hartzen irizpide pedagogikoak eta, aldiz, oinarrizko ordutegi laboralen irizpideak nagusitzen dira. Gogoeta sakona egin beharrean gaude muga handi hauen aurrean, gaurkotasuna galdu duten ohituren produktua baitira.

Aldaketa kulturala eta bere muga legalak, aldaketa ekonomikoak eta antolaketa kulturala

Espazio eta denboraren tratamenduaren malgutasunak, bere garrantzia eta komenientzia argi ikusita ere, mugak dauzka eskoletan. Irakasleek malgutasunari lehentasuna emateko ikuspegiarekin jokatu beharko lukete eta prozesu koherente bat diseinatu beharko lukete.

Aldaketa aukera baldintza zehatz baten garapenetik planteatu behar da:

- . Aurrera eramango duten pertsonen ulertu eta asumitu behar dute.
- . Irakasleen esku egon behar du aukera honek: denbora nahikoa, autonomia maila...
- . Argi eduki behar dira helburuak, eginkizunak behar adina motibazio eta igurikapen eduki dezan.
- . Aldaketen ezartzea progresiboki egingo da, eta prozesuaren jarraipen zehatza egin behar da.
- . Aldaketen ebaluazioa egin behar da onuragarritasun maila nabarmentzeko.

Aholkatzen diren aldaketak hezkuntza zentroetatik egin beharrekoak dira, norbere azterketa eta konprezioekin. Benetako aldaketa kulturala izan behar du, pentsamendu aldaketa bat, horregatik, presa edo inposaketek ondorio txarrak izaten dituzte.

Berrikuntzek, batez ere, irakasleen identitatea eraikitzen joateko balio behar dute, ez hezkuntza sistema aldatu eta hobetzeko, hau beste elementu batzuen baitan baitago, ez bakarrik irakasleenak, baizik eta faktore multzo sozial, politiko, ekonomiko eta ideologikoen arabera.

Aldaketa proposamenen hainbat muga

Zentroyen autonomia maila, eta, batez ere, zentro publikoena, oraindik oso murrizta da. Hona hemen egileek aipatzen dituzten hainbat:

Muga legalak:

Alde batetik, funtzio publikoaren lege sistema bateratzailea dela esan dezakegu. Bestetik, arloka denbora banatzeak ez du autonomia margerik uzten. Kreditu eta orduen asteko erreferentziak oso zaila egiten dute edozein aldaketa.

Administrazioak eskoletako mapen elaborazioan erabiltzen dituen irizpideak behatzen baditugu, ikusten dugu espazio eta lurraldeen gehiegizko uniformizazioarekin jokatzeko duela.

Zentro mailako mugak

- . Jarduera osagarri eta eskolaz kanpoko ikasleen ordutegiak ez dute laguntzen arazoei irtenbidea aurkitzen.
- . Zentroyen barne araudiek muga handiak ezartzen ditu autonomian, oso antolaketa zehatza dutelako.
- . Zentroek erabili ditzaketen baliabideak oso mugatuak dira. Mugapen hauek ondorioak dituzte ondoko alderdietan:
 - . Eginkizun desberdinak dituzten irakasleen arteko bateratze eta ordutegi batuketak. Hau gertatzen da, adibidez, Lehen Hezkuntzako tutore eta espezialisten artean. Espezialistak ez badira tratatzen gehitutako baliabide bezala, irakasle tutorearen orduak ordezkatzeko baizik, honek arazoak sortzen ditu.
 - . Kudeaketarako baliabideen urritasuna. Koordinazio eta kudeaketarako orduak ez badira nahikoak, zaila da denbora eta

espaziori buruzko aldaketak efikaziaz eta gogoeta baten ondorio bezala planteatzea.

- . Irakasleen dedikazio zuzenaren ordutegia. Zentzu honetan, Haur Hezkuntzako egoera, orokorrean, lotsagarria da.
- . Espazio oso konpartimentutako hezkuntza zentroak, espazioen dibertsifikatze aukera gutxirekin eta askotan altzari zurruneekin.

Mondragon Unibertsitateko (2004) Jakingarriak aldizkariaren 52/53 aleak, Montagner eta bestek (1987) denbora-erritmoen gaiari buruz egindako ikerketen inguruko datu eta proposamenak azaltzen dizkigu. Bertan, haur eta nerabeen erritmoen oinarri biopsikologikoei, ingurunean, eskolan eta familian duten eraginari buruz hitz egiten dute eta ondorioztatzen, erritmo biopsikologikoen “abentura” hori umea jaio aurretik hasten dela. Umekiak hasiera-hasieratik antzematen ditu amaren mugimenduak edo amak zer egiten duen, segituan hasten da antzematen amaren erritmo aldaketa hori, hau da, esna ote dagoen edo lo ote dagoen.

Honek esan nahi du, amak besoa luzatzen duenean edo beste edozer mugimendu egin edo geldirik dagoenean, umekiak ez duela informazio berbera jasotzen. Ama zutik jartzen baldin bada, etzan, eseri, altxa... umekia konturatu egingo da, umekia ere mugitu egiten delako. Bere giharrak mugitu egingo dira. Umekiak zehatz daki ama zer egiten ari den. Umekiak jakin egingo du amak goizean zer egiten duen eta gauean atsedean hartzen duela. Umekiak badaki dagoeneko zer den gaua eta zer den eguna. Ezagutzen du jada zein den amaren aktibitate erritmoa. Zortzigarren hilabetetik aurrera, umekiak askoz informazio gehiago eskuratzeko gaitasuna dauka. Umekiak badaki musika zer den, adibidez. Jaiotzen denean, musika entzuteko gai da eta horrek esan nahi du, jaio aurretik entzundako musika eta amaren ahotsa bereizteko gaitasuna daukala, dagoeneko ezagunak dituela.

Aita etxean baldin badago bere ahotsa entzungo du, eta ez badago ez du bere ahotsa entzungo. Ondorioz bi egoera horiek informazio ezberdina eskaintzen diote. Agian ez dago aitarik amaren inguruan, baina, beharbada, anai-arrebak daude edota beste pertsona batzuk: aiton-amonak, izeba-osabak... Gizarteko kide izateko prestatzen ari da umekia, izaki soziala ere bada neurri batean, gizarteak eta familiak, inguruneak orokorrean, harengan eragiten dutelako, dio Montagner irakasleak.

Ama eta haurraren arteko erritmoen egokitzapena

Jaio berriek berezko erritmoak dituzte. Erritmo horiek biologiarekin zerikusi handia daukate eta baita umetokian bizi izan duten guztiarekin ere. Haur batzuk egunean lo-esnatze erritmoan 8 edo 9 aldaketa izango dituzte: beste batzuk, aldiz, 4 edo 5 alternantzia besterik ez izatea gerta daiteke, edo 2 edo 3 alditan lo hartuko dute. Honek erakusten digu, alde handiak daudela ume batetik bestera.

Oso garrantzitsua litzateke, beraz, jaio ondorengo lehenengo egunetan ama ahalegintzea umea jaio aurretik zeukan lo-esnatze aldien erritmoa mantentzea, ez baita komeni aldaketa handiegirik sortzea. Haurrak horrela erreferentzia egonkor batzuk izango lituzke.

Ama eta haurraren arteko erreferentziak eta erritmoak bateratzeko prozedurak

Ama gehienek bularra ematen diote haurrari esnatu bezain laster eta horretarako alde aurretik prestatzen dute burua. Kontua da, jaten ematearekin batera afektibitatea eta harreman estua eta berezia dagoela ama eta umearen artean: umeari begietara begiratzuz, muxu bat emanez, irribarre eginez, umea aldatuz... Ekintza horiek sortzen duten harreman emozional berezi horrek, erreferentzia batzuk sorraraziko ditu ama eta umearen artean.

Bigarren multzo batean sartuko genituzke beste ama batzuen jokatzeko modua. Lehendabiziko ardura garbitasunarena izaten da eta haurra esnatzen denean, lehenengo ekintza haurra garbi eta eroso uztea izaten da. Ondoren bularra edo biberioa ematea, gero komunikazioaren urratsa etorriko da. Jakina, ume horiek ez dute informazio bera jasoko, ekintza antolaketa eta horren ondorioz araututako harremanak ez direlako berdinak. Lehenengo multzoko amen lehen helburua jaten ematea den bezala, eta bigarrena, gorputza zaintzea, multzo honetakoak, aldiz, alderantzizko pautak jarraitzen dituzte: lehenengoa garbitasuna eta bigarren jaten ematea.

Badago hirugarren ama eredua ere, beste ama mota bat. Hauen lehendabiziko ardura komunikazioa lantzea da. Haurra esnatzen denean ongi etorria eman, irribarre gozo batekin hartu, emozioak adierazi: nola lo egin duzu maitea?, zelako gogoak nituen zu esnatzeko... Ama horiek oso eroso egoten dira umeekin, normalean ez dira estutzen, ez dute antsietaterik sentitzen. Ongizate ingurune bat sortzen dute, beraiek ere bere haurtzaroan goxotasun hori bizi izan zutelako. Komunikazio horren ondoren prestatzen dira ama hauek biberioa edo bularra emateko. Ondoren pixa-oihalak garbituko dituzte. Batzuei, berdin zaie umea bustia edo lehorra dagoen bularra

emateko orduan. Haur horiek ere, beste erreferentzia batzuk izango dituzte, bai denborarekiko, bai beste hainbat gauzekiko.

Horregatik da garrantzitsua estrategia bat edo beste aukeratzeko bada, estrategia hori denboran zehar mantentzea, kontrako jarrerarik ez agertzeko. Ama batek komunikazioari lehentasuna ematen badio, horretan jarraitu behar du, besteek esaten diotena kontuan izan gabe. Bakoitzaren nortasuna eta jarduteko modua errespetatu egin behar dira.

Erreferentzien eta erritmoen egonkortasunaren beharra haur eskolan

Amei bere ohiturak ez aldatzeko esan behar diegu. Lehenengo bularra eman nahi badio, gero eroso jarri eta gero hitz egin, konforme; lehenengo garbitu egin nahi badu, gero jaten eman eta gero hitz egin, konforme; lehenengo hitz egin nahi badio, gero bularra eman eta gero garbitu, hori ere egokia izango litzateke. Eredu guztiak daude ondo. Horrek gero erreferentzia bat emango dio haurrari. Baina era batera edo bestera izan, haurrak beti sistema egonkor batera helduko dira.

Frantzia haur eskoletako irakasleek amari galdetzen dioten lehenengo gauza zera da: etxean edo familian zer gertatzen den, haurrak noiz hartzen duen lo, noiz esnatzen den egunean zehar, noiz jaiki, loaldiak zenbat irauten duen..., hau da, zer esna eta loaldi erregimen daukan haurrak. Garrantzizkoa litzateke amak azaltzea nola dagoen antolatuta umearekin jarraitzen duen ekintzen sekuentzia. Amaren erritmo berbera errespetatu beharko litzateke eskolan ere, etxeko erritmoa; loturak ez baitira bakarrik amarekikoak (aita ere hor dago). Lotura ezberdinak eratzeko gaitasuna dauka haurrak. Izugarritzko malgutasuna daukagu gizakiok.

Loaldi eta esna aldi arteko erritmo horrek erabakiko du gure organismoaren erritmoa zein den, gure zelulena, gure zuntzena...Oso garrantzitsua da goizean, haurra esnatzen denean, bere burua bakarrik ez ikustea, ez dezala arriskurik ikusi. Beraz, ama eta aitarengandik banatzeko momentu horiek oso ondo prestatu behar dira, bai umeak nahiz gurasoak onar ditzaten.

Bi-hiru urte dituen haurra eskolara doanean, oraindik, egunez bi loaldi izaten ditu. Lehenengoa, esnatu eta 3 ordutara agertzen da eta bigarrena, eguerdi aldera; beraz, 2 erritmo moduko dituzte. Egilearen ustez, nahiz eta zaila izan, biak errespetatu beharrekoak lirateke eskolan. Loaldi txiki horren ondoren (15-20 minutu) haurra orduan egongo baita hainbat gauza ikasten hasteko, adi-adi egongo da, oso ondo

ulertuko du zer esaten eta eskatzen zaion. Beraz, ez da denbora alferrik galduko, denbora irabazi egingo da.

Haurra oso txikia denetik bere erritmoa egokitzen hasiko da, baina hori pixkanaka pixkanaka egin behar da. Eguna antolatzeko, kontuan izan behar ditugu erritmo biologikoak. Pentsatu egin behar dugu, antolatu egin behar dugu lo eta esna egoteko denbora bereizketa hori.

Haur Eskoletako antolakuntza

Garrantzitsua da tarteko espazioak deitzen dieten horiek sortzea, hau da, kanpoko munduaren eta eskola barneko munduaren artean dauden gune batzuk sortzea. Gurasoen gunea da alde batetik, baina hezitzaileen gunea ere bada, tarteko zerbait da. Gune horretan interakziorako erreferentzia batzuk barneratuko ditu haurrak; gainontzeko haurrekin jolas egiten hasteko gunea izango da. Eskolan sartu aurretik erreferentziak zeintzuk diren ikusteko aukera izango du.

Haur guztiak eskolan sartzen joango dira, baina bakoitzak erritmo eta ekimen bat izango du. Pixkanaka gero eta haur gehiago datoz; 10 baino gehiago batera egotea gerta liteke. Normalean ez da erasorik edo borrokarik agertzen. Ama, aita eta eskolako pertsonala hortxe daude haurrei laguntzeko prest.

Segurtasun afektiboa islatzen da jolasteko eta esploratzeko orduan erakusten duten beldur faltan. Haur eskolan tiobiboak jar daitezke: bolaz betetako igerilekuak jar daitezke; arrapaladetan eskalatzen eta arrastaka ibiltzen dira; tunelek alde batetik bestera azpitik pasatzeko aukera emango diete; horma-barrak azpian moketa batekin eskala dezaten; akuarioak, arrainen mugimenduak umeak lasaitu egiten baititu. Tresna edo objektu guzti hauek segurtasun neurriak kontuan hartuz.

Haur eskolako planoak hau izan daitezke: sarrera gela edo halla, ingurune akuatikoa, gurasoentzako tokiak, umei jaten emateko tokiak... Jantoki horretan guraso eta umeek elkarrekin gosaltzeko aukera izango dute. Harrera gela, bitarteko toki moduko bat da, kanpoko munduaren eta eskola munduaren arteko mundu bat. Haurtzaindegia Frantzia 2-6 urteko umeentzat izaten da. Adin horretako umeek segurtasuna behar dute.

Harrera gela

Gurasoek nahi baldin badute haien seme-alabekin jolastera sar daitezke harrera gelan, baina beste umeeekin ere jolastu behar dute. Harrera gela, beraz, elkarreraginak edo interakzioak sortzen diren gunea da. Elkar eragin horiek aita, ama eta umearen artean, umeen artean, ume baten eta beste guraso batzuen artean, gurasoen artean, eta, jakina, guraso eta hezitzaileen artean ere izan daitezke. Elkar eragina oso handia da kide guztien artean, eta umea zentro horren erdigunean dago. Beraz, oreka garatuko du, gaitasunak garatuko ditu, emozioak garatuko ditu, hau da, ume modura garatu egingo da gero ikasle modura garatu ahal izateko.

Hautatu dugun haur eskola ereduak akuario bat dauka hormari itsatsita. Haurrak arrainei begira egoten dira eta haien irudiak gelako hormetan islatzen dira. Islen fenomeno horrek umeak lasaitu egiten ditu.

Jolastokian igerileku txiki bat dago, umeek urarekin jolas dezaten. Akuarioaren beste aldean dago jolastokia, beraz, jolastokian jarduten duten haurrak akuarioaren beste aldetik ikus daitezke.

Harrera gelaren beste aldean dagoenari bizi-espazioa deitzen diogu, umeak edozein momentutan sar daitezke hara jolasteko, lasai egoteko edo lo kuluxka bat egiteko.

Amak alde egiten duenean, umeak harrerako egitura zirkular horretan geldituko dira denen artean aldizkariak ikuskatzeko, bakoitzaren erritmorak. Ondoren, aldizkari horiek utziko dituzte eta akuariora begira jarriko dira. Eta garrantzizkoa da beste aldean dauden umeak ikusteko aukera izatea; igerilekuan dauden umeak, batez ere. Ume horiek oso ondo pasatzen ari direnez, oso garrantzitsua da guretzat hori ikusi ahal izatea.

Ondoren beste egitura batzuetara pasa daitezke haurrak: motrizitate eta elkar eraginaren esferara. Kontuan hartu behar dugu oinarrizko gaitasunak agertzen direla baldin eta espazioa umeen tamainarako ondo antolatuta baldin badago, hau da, espazioa antropometrikoa baldin bada.

Atsedeen hartzeko guneak

Garrantzitsua da lo edo atsedeen hartzeko aukera izatea. Bakarrik edo beste lagun bat alboan daukatela egin dezakete lo. Habi txiki batzuetan, lasai egoteko aukera izango dute. Habiak era askotakoak dira. Bakoitzak bere erritmoa dauka, bat beste bat baino lehenago esna daiteke. Hortik, inor molestatu gabe irteteko aukera daukate.

Ipuinen gela

Haurrak elkartu eta ipuin txikiren bat eskuratzeko aukera izango du. Liburuetan hizkuntza agertuko da, beraz, "irakurtzen" hasteko aukera izango dute, marrazkiak ikusiko dituztelako eta hizkiak ezagutzen hasiko direlako.

Espazio horretan hezitzaileak hartuko du erabateko eginkizuna. Haurren aldamenean jarri eta testua irakurriko diete, hatzarekin seinalatuz nondik nora doan ipuina. Zaintzailearen begiratua haurren begietara zuzenduko da, begien begiraden tentsio horri esker elkartruke edo interakzio bat sortuko da bien artean.

Bainu linguistiko hauek, laguntza handia ematen diete haurrei, irakurtzea zer den ikus dezaten, irakurtzeko joera edo ohitura barnera dezaten. Azken batean, haurrak ikusiko du ipuinetako irudiek mezuak dituztela.

Laburtuz, horrela ikusten dute eskolaren antolaketa:

- Sarrera edo halla
- Uretan jolasean ibiltzeko espazioa
- Gurasoentzako espazioa
- Jantokia
- Labeak (buztina lantzeko, adibidez)
- Garbitzeko lekua
- Ezagutzarako tokia:
 - Hautemate esfera (argiak pizteko aukera, argiak konbinatzekoa eta nahastekoa, hotsak sortzekoa, hotsak edo zaratak nahastekoa...)
 - Hizkuntza bainuen esfera
 - Irudimenaren esfera (altzari handi baten inguruan hainbat koltxoi eta erdian beste leku bat. Erdetik sortzen den argi izpi bat ere bai, horretarako proiektore bat jarri dugu. Argi horrek ontzi itxi bat zeharkatzen du, ontzi honen barruan dentsitate eta kolore ezberdinetako hainbat likido daude. Argiak ontzi hori zeharkatzen duenean, sabaian eta hormetan kolorezko globulu moduko batzuk proiektatuko ditu eta horiek batetik bestera mugituko dira. Magiazko giro moduko bat sortu nahi dugu hor...)
- Atsedean hartzeko gela
- Psikomotrizitatea lantzeko tokia
- Zuzendariaren bulegoa

Antolaketa eredu honek, beste eskola batzuen artean, Frantzia Estatuko Besançon-eko, Antenne Petit Enfance Elkarteko Haur Eskolan funtzionatzen du, eta bertako Pagot zuzendariak (Jakingarriak 52-53) horrela definitzen ditu zentroak dauzkan helburuak:

- Haurraren gaitasun osoak ezagutzen eta garatzen laguntzea eta horrekin batera oinarrizko premiak asetzea.
- Haurraren erritmoa errespetatzea.
- Umeak imajinazioa landu eta garatzea egiten dituen ekintzen bidez.
- Baldintza egokiak sortzea estuasun eta beldurra alde batera uzteko.
- Ume bakoitzari estrategiak garatzeko aukerak ematea modu autonomoan eta positiboan jardun dezan.

Petit Enfance izeneko haur eskolaren proiektu eta helburuak lortzeko, ezinbestekoa da antolaketa, gauzak aurreikusita egotea, nahiz eta honek ez duen esan nahi dena finkatuta egon behar duenik. Proiektu guztiak etengabe egokitu behar dituzte haurraren, gurasoen, hezitzaileen... arabera.

Espazioak edo denboraren erabilera

Gure eskolan, dio Pagot-ek, guneak haur bakoitzaren izaerari erantzuten dio, haur bakoitzak espazioa era batera ulertzen baitu. Gure helburua hainbat exijentziei erantzutea da:

- Batetik erritmo pertzeptibo eta zentzumen-mugimenduzko batzuk daude eta horiek garatu egin behar dira. Horretarako, umeei mugitzeko aukera, arrastaka ibiltzeko aukera, eskailerak gora igotzeko aukera... emango zaie. Esplorazioak egiteko aukera zabala izango dute. Hori guztia 3 dimentsioetan egingo dute: eskailerak igo, gero plataformak, txirristak, pilotak edo ura dituzten igerilekuak, eskalatzeko hormak.
- Aldi berean komunikatzeko gaitasuna landu behar da eta intimitatea errespetatzeko guneak eratu, adibidez, lo lekuek kabi txiki baten antza daukate, kuxinak dituzten guneak... Horrekin, eroso sentitzeaz gain arlo bakoitza modu sinboliko berezian erabiliko dute. Eratatuko espazio horietan sinbologia berezia sortuko da haurren inguruan.

Denboraren antolaketari dagokionez, kontuan hartu beharreko lehenengo gauza honako hau da: haur bakoitzak erritmo bat daukala eta hori errespetatu egin behar

dugula. Lo eta esnatzeko erritmoak, aktibitatea egiteko eta atsedean hartzeko erritmoak, jateko erritmoak... ezberdinak dira. Horregatik, pertsonalak erritmo horietara egokitu beharra dauka. Eman dezagun haur batek lo egin nahi duela: horretarako laguntzaile batek egon beharko du... Baina zaintzeaz gain, erritmo biologikoak ere errespetatu egin behar ditugu, horrek ongizate fisikoa eta psikikoa sortuko duelako haurren.

Ez hori bakarrik, bizitzan zehar ere badaude beste zenbait ekintza errepikatzen direnak, esate baterako, ipuin bat irakurtzea, lasai egoteko une bat izatea ohera joan aurretik, mahaia atontzea bertan bazkaltzeko... Egunean zehar ematen diren une txiki horiek laguntzen diete umeei erreferentzia egonkorrak aurkitzen. Arauekin, baina ume bakoitzak bere proiektu propioa izango du, bera da aktore nagusia eta helduek errespetatu egingo dute haurrek aukeratzen dutena. Adibidez, demagun haur batek egarria daukala: dena gertu izango du berak bere kabuz ura edan dezan, baina ur hori ezin izango du erabili lurra bustitzeko. Urarekin jolasteko dagoen tokira joan beharko du.

Horrekin batera, hainbat jarduera estimulatu egiten ditu gure lan taldeak. Jarrera artistikoak eta kulturalak kontuan hartzen dira gure proiektuan; horrela, hainbat artista etortzen da gure eskolara: musikariak, pintoreak, ... Alderdi praktikoak lekua uzten dio imajinarioari, eremu sinbolikoari, gozamenari... Espresio edo adierazpen artistikoa landu nahi da eta hezitzaileak haurrengandik gertu egongo dira agertzen dituzten emozio horiek bideratzeko.

Bukatzeko, sistema honen bidez haurra erdigunean dago, ez da haurra sistemaren egituretara egokitzen, alderantziz baizik. Haurrari baldintza egokiak eskaintzen zaizkio, gehiegizko estimulaziorik gabe, debekurik gabe... jarraipen modu bat eskaintzen zaio eta horrela kalitatea bermatzeko aukera daukagu.

Gure haur eskolako guneak

- Gurasoentzako gunea edo espazioa
- Haur eskolaren egitura: Mugitzeko toki oso zabala, haurrak batera eta bestera ibiltzen dira askatasun osoz. Umeei espazio honetan hainbat aukera daukate: hortzak garbitu, eskuak garbitu...
- Komunak: nahi dutenean joan daitezke
- Lo egiteko tokia
- Motrizitatea

- Arte grafikoak
- Musika gela
- Igerilekua
- Loretokia

Ikusten dugun bezala, Montagner irakasle eta ikertzaileak eta Besançon-eko Antenne Petit Enfance-ko Elkarteko haur eskola honetako irakasle taldeak, berebiziko garrantzia ematen dio haurren erritmo desberdinei (jaio aurretik hasten den erritmoen oinarri biopsikologikoei) eta hori errespetatuz antolatzen dituzte beren eskolako espazio eta denborak.

Norberaren denborak ezagutzarako duen garrantzia

Denboraren dimentsioa oso garrantzitsua da ezagutzarako (Musatti, 2001). Hau esaten dugunean ez gara haurren garapen etapei buruz bakarrik ari, batez ere, erritmo eta denbora pertsonalei buruz ari gara, horiei esker egingo baititu umeak ezagutzaren ibilbideak baina, baita, nahitaez izango dituen etenaldi eta geldialdiei esker ere.

Denbora luzaroko atentzioa izatea garrantzitsua da bere ezagutza antola dezan. Gauza asko hobeto ateratzen dira, ez bakarrik etenaldirik gabe egiten badira baizik eta denbora bat martxan eraman ondoren egiten badira. Prestatze lanetarako eskaintzen den denbora jarduera bera hasi aurretik, aktibitatea gauzatzera dedikatzen dena bezain garrantzitsua da.

Denboraz hizketan ari garelarik, kontuan hartu beharreko beste alderdi bat, jarduerari ume batek dedikatzen dion atentzioa da. Kontzentrazio handiko momentuen ondoren interesak behera egiten duen momentua iristen da.

Badakigu txandakatze fisiologiko bat egoten dela, hau da, dedikazio handiko eta gutxiko momentuak. Zer egin momentu horietan? Jardueraz aldatzea baino hobea litzateke prozesuarekin jarraitzea, presarik gabe, proposamena utzi gabe, umea aurreko egoerara itzultzen utziz.

Cabanellas eta Eslava-k (2005), horrela jasotzen dituzte Bochi eta Ceruti-ren hitzak: “kanpoko munduaren antolaketa gure barruko antolaketa bizidunean idatzita dago. Erritmo kosmikoak ez daude gure ingurunean bakarrik gure barruan baizik; gure barruko “paisaia”, inguratzen gaituen paisaiaren zati bat da. Unibertsoaren irudia

ehun baten modura aurkezten zaigu, ugaritasun handiko hariez osatua, prozesuez, indarrez, polaritatez, denborez,..."

Gizakiaren unibertso anitz baten irudia eskaintzen digute, bizi erritmo orok barne dituen elementuak definitzeko aukerak eskainiz, ekintzen joan-etorriak espazioan eta denboran modu berezian planteatuz bezala.

"Kultura orok dauka erritmoa gisa adierazten den bizitzarekiko oinarrizko jarrera bat. Testuinguruaren arabera sortzen diren beste erritmoak bere gorputz mugimenduetan, bokalizazioetan agertuko dira, norabide askotan doazen gertaera eta pasadizoen sare bat osatuz. Erritmoek, bizitzaren aurrean jarrera aldakorak adierazten dituzte, besteen aurrean, afektuekin eta gauzekin; kanpoko soinuekin, jokoen espazio eredua ezarriz edo lokatuz".

Aipatu egileen esanetan, kanpoko ekintzetan islatzen den erritmo bakoitzak barruko jarrera desberdina dauka, zentzu bat, eremu emozionalen gaurkotze aldakor bat, norabide bat. Erritmoa zerbaiterantz joatea da, zerbait hori zer den ez badakigu ere. Egoera berri bakoitzari zentzua ematen dion eragilea da, denbora eta espazioa elkartuz, hurrenez hurrengo errepikapen mugimenduetan, bete eta huste dinamiketan, soinuez eta isiltasunez, ekintza eta atsedenaldir, ordenaz, kokapenez, mugimenduaz...

5.3 Egokitzapen-Aldia

Haur eskolen antolaketa

Oso garrantzitsua da eskolara joaten den lehenbiziko egun horretan haurra eroso sentitzea. Sarrera on bat izan ez duen haurra, amarekiko urruntze prozesu on bat egin ez duena, beste helduekin eta umeekin erlazio sendoak ezarri ez dituen, blokeatutako haurra izan daiteke, ziurtasun ezak ez dio utziko esplorazioa zein aurkikuntzak beharrezko autonomiaz burutzen.

Hurtzaindegitik Haur Eskolara pasa behar duten umeen eta familien historia bat

Cipolla, Cristofori eta Tedeschi-k (1995), Regio Emiliako G. Rodari hurtzaindegiko esperientzia kontatzen digute. Hurtzaindegi hau hiri erdigunean kokatuta dago, eta erdigunean dagoen bakarra izanik, eskaera handia izaten du. Horrek zaildu egiten du umeen hautaketa egitea.

Maila sozial desberdinetatik datozen haurrak dira eta gurasoen lanbideetan denetatik dago, lanbide liberaletatik etorkinetara, atzerritarrak barne; familia nuklearrak dira eta kasu guztietan ama eta aita guztiek kanpoan lan egiten dute.

Familietak sailkapen honek ez du diferentziarik adierazten haurtzaindegian bere seme-alabekin bizitutako jokabidean. Aurten, 26 haur pasako dira haurtzaindegitik Haur Hezkuntzara: 2,6 urteko batezbestekoa dute txikienek eta 3,5 urte zaharrenek; ume horietatik 14k anai-arrebak dituzte.

Gehienek 2 edo 3 urte egin dituzte haurtzaindegian; denbora horretan zentroan egondako haurrek jarraipen didaktiko bat mantentzen dute, pertsona batek laguntzen baititu esperientzia guztian zehar.

Familien parte hartzeari buruz hauek dira datu batzuk: 7 haurren gurasoek, haurtzaindegian delegatu dituzte beren haurrak eta praktikoki desagertu egin dira; gainontzeko haurren gurasoek interesa adierazi dute eta maila desberdinetan parte hartu dute.

Egiaztatu dugu, gurekin erlazio on bat ezartzeko garaian, zailtasun handiagoa izan dutela arazoak gehien "intelektualizatzen" dituzten gurasoek: haurraren ikaskuntzaren bilakaera antzemateko gai dira, baina, aldiz, ezin dituzte beti integritate fisikoari buruzko beldurrak dominatu, edo janariarenak, loarenak, etab.

Haurtzaindegiko antolaketan, bere kudeaketa funtzional eta kulturalean gehien parte hartu duten familiak izan dira ziurrenak umearen eta erakundearen arteko erlazio on eta sendoak eskaintzeko garaian.

Egokitzapenaren eskakizunak

Egokitzapena, dramatizatu nahi izan gabe, edozein umerentzako momentu zaila da, ohitura, espazio eta denbora bereganatzeko prozesu mantso eta graduala.

Haur eskolara pasako den haur talde horretan zentratuz, esan dezakegu gehienek egokitzapen normala izan dutela haurtzaindegian, eta baikorki gainditu dutela, nahiz eta ume batzuk prozesu desberdinak izan dituzten.

Kasu batzuetan, familiak arazo ekonomiko eta sozialak zituztenetan, umeak egokitzapen zailtasun nabarmenagoak izan dituzte, adibidez, interes eta atentzio ezegonkortasuna, harremaneko eta jokabide "konbentzioak" bereganatzeko zailtasunak. Ziurrenik familian tentsioak bizi dituen haurrak, eskolara egokitzeko orduan ere tentsio horiek esperimintatzen ditu, zailtasunez aurkitzen ditu konfiantzazko espazioak eta ondorioz krisi gogorragoak izan ditzake.

Beste kasu batzuetan, aldiz, alderantzizko prozesua izan da: familiako arazo larriak dituzten umeek aurreikusitakoa baino egokitzapen hobea izan dute

haurtzaindegian, helduak onartuz, kideekin elkarrekintza egokiak eginez, objektuekin, etab.

Familia eta jokabide heterogeneotasuna

Familiak haurtzaindegiarekiko dauzkaten jarrerak oso desberdinak dira. Horren eragina komunikazio zailtasunetan nabarmendu da.

Haurtzaindegian, familientzako mezuak anitzak dira (ahozkoak, iragarki tauletan idatzitakoak, programaziokoak, ikonografikoak). Kontuan hartu behar dugu gure artean nola komunikatu, zein hizkuntza erabili, bati edo besteari garrantzi handiegirik eman gabe.

Familien ondare kulturalak oso desberdinak izatea gerta daiteke eta haurtzaindegiko planteamendu metodologiko-didaktikoekin ez identifikatzea (atzerritar etorkinen kasuan, adibidez). Kasu horietan beharrezkoa izango da epe luzerako erantzuna, bi errealitateak ahal den neurrian hurbilduko dituen. Aniztasun kultural hau derrigorrezko erreferentzia puntua da.

Ikasturte honetan bi errealitate zeharo desberdinak egiaztatu dira:

- Bularreko haurren sekzioan –jatorri sozial homogenea dute–, eskola eta gainontzeko familien arteko bitartekari talde garrantzizkoa sortu da, eta gelako bileretan eta bestetan parte hartze ezin hobe izan du.
- Txikien sekzioan, laneko arazoak, ordutegiak, txandak, etab. direla eta, zailtasunak izan dituzte biltzeko. Horregatik, zentroa eta familia arteko harremana, indibidualki ezarri da. Kasu honetan, familien parte hartzea eskasa izan da eta komunikazio trukaketa ez da erraza izan.

Dena den, nahiz eta kasu batzuetan erakundearen dinamikan sartzea mantso egiten den arren, erabiltzen ditugun mezu anitzak (batzuetan ezertarako balio ez dutela pentsatu arren), bere emaitza ematen hasten dira denbora pasa ahala eta ez beti erraz azaltzeko moduan.

Nola lagundu haurrari aldaketarako prest egoten

Badira hainbat urte ama eskoletan eta haur eskoletan tresna baliagarri batzuk sortu direla, haurraren eta familiaren erakunde berrirako pauso “prestatuago bat” emateko helburuarekin.

Ikasturtean zehar, haurtzaindegia utzi behar duten familiak irakasleekin biltzen dira. Elkarren artean ebazten dituzte zalantzak, jakin-minak eta mota desberdinetako

problematikak, lehenengo hurbiltze kognitiboari lagunduz. Eskolak ikasturte bukaerako festara gonbidatzen ditu guraso berriak, eta haurtzaindegiak gauza bera egiten du aurreko urtean eskolara pasa ziren umeen familiekin, harreman eta esperientziak bizirik irauteko helburuarekin.

Umeak, talde txikitan maiz etortzen dira eskolara harremanak ezartzen has daitezten. Horrela, ikasturtean zehar, ingurune berrian elkartuta, ikusten dituzte haurtzaindegiko eta haur eskolako irakasleak.

Bisita hauetan umeak askatasunez mugitu daitezke, eskola esploratuz, instalazioak, txokoak, objektuak, pertsonak, etab.; bazkaltzera gonbidatzen dira, eta oparitxo bat ekartzen diete gainontzeko umei.

Haurtzaindegiak haur eskolari umeek egindako hainbat objektu uzten dizkio eta irailan joan behar duten eskoletan ikusgai edukiko dituzte, oraindik berea ez duten ingurunean zerbait ezaguna izan dezaten.

Tresna benetan interesgarri eta hezitzaileak zehatz aztertuko duena, umearen txostena da. Dokumentu honek, ume bakoitzak beste kideekin izandako harremanari eta eskaini zaizkion proposamen metodologikoei buruzko ohar eta datuak biltzen ditu.

Txostenaren xedea bereganatutako konpetentzien informazio zaindua aurkeztea da. Ondoren haurtzaindegiko eta haur eskolako irakasleek irakurri eta eztabaidatzen dute, kontzeptuak, definizioak argituz eta hizkuntzak bateratuz.

Ez da erraza instrumentu honen formulazioa, umearen konpetentziak deskribatzea zaila delako, baina, hala ere, guk ezagutzen dugun informazioa ezagutza hori nahi dutenei transmititzeko modu egokia dela deritzogu.

Haur eskola haurtzaindegitik datozen umei ongi etorria egiteko prestatzen da

- Nola prestatu elkarrekin haurtzaindegitik haur eskolara doazen 3 urteko umeen aldaketa?
- Zein arazo sortzen zaizkie haurtzaindegitik edo etxetik datozen ume eta helduei?
- Zein ideia eta jarrera dauzkate haurtzaindegiko eta haur eskolako guraso eta irakasleek bi erakundeen arteko jarraitasun edo jarraitasun eza dela eta?

Informazioaren garrantzia

Gure hirian 32 udal erakunde daude: 12 haurtzaindegi eta 20 haur eskola. Hirutik familia batek haurtzaindegiko zerbitzuak jasotzen dituen bitartean, 3 urtetik 6rako umeen % 50a dago haur eskolan eskolatuta.

Baina guretzat garrantzi handiena duena bi erakundeen arteko antolaketa bateratua sustatzea da, proiektuaren eta hezkuntza lanaren jarraipena bermatuz. Abantaila hau oso garrantzitsua da. Izaera bateratuak esan nahi du: aholkularitza bera, arautegi bakarra, funtzionalitate bakarra, antolaketa bakarra, egutegi bakarra, ordutegi bakarra, pedagogia koordinatzaile talde bakarra, lan eta kolaborazio proiektu bakarra, umeen, familien eta pertsonalaren esperientzia balioetsiko duena. Are gehiago: irakasle eta laguntzaileek erakunde batetik bestera pasatzeko aukera izatea hala eskatuz gero.

Hala ere, haurtzaindegitik eskolara pasatzeko sortzen diren arazoak hor daude, beste zentro batzuetan bezalaxe. Gainditzeko egin behar dena kasu guztietan oso berdintsua da. Ekidin beharrekoa inprobisazioa da, bai umeen, bai familien eta bai irakasleen aldetik. Korrika eta presaka gaiei aurre egiteak, arrisku eta mugapenak dakartza. Familiak eta umeak, bereziki, aurreikusi gabe eta prestatu gabeko informazioarekin aurkitzeak desorientatzen ditu. Irakasleekin gauza berbera gertatzen da.

Hartu daitezkeen hainbat neurri

Haur eskola urtean zehar maiz bisitatzea, giroa ezagutzea, bertan lan egiten duten pertsonak ezagutzea, azken ikasturteko haur handienak ezagutzea. Derrigorrezkoa bi erakundeetako irakasleak beraien artean ezagutzea eta kontaktu hauek estimatu eta aztertzea, informazioaren trukaketarako elkarrizketak eginez...

Inportantea litzateke baita ere (eta iruditzen zaigu posiblea) haur eskolako irakasle eta familien artean, haurtzaindegian bilera bat antolatzea, eta, ondoren, gurasoak haur eskolara bisita zuzendu bat egitera laguntzea.

Guzti honekin lortzen dena, irudi kognitibo komunak osatzea eta jokabide zein igurikapenen doitzea da.

Honi buruzko gure esperientzia hauxe da: haurtzaindegietako irakasleek ume bakoitzaren idatzizko informazioa haur eskolako irakasleei eskaintzea, ez modu hotz eta burokratikoan, bileretan gabiltzan bitartean baizik, material hori informazio eta trukaketa zuzenduz aberastuta.

Aurkezpena, definitutako lerro batzuk jarraituz egiten da: sarreran zuen adina eta haurtzaindegian izan duen asistentziaren erregularitasuna edo erregularitasun eza, familiarekin haurtzaindegiak izan duen harremana, eta ondoren, psikomotritzitatean, autonomian, pertsonen arteko eta komunikaziozko erlazioetan, bereganatuak edo

bereganatzeaz dauzkan kompetentziak. Informazio hau familiaren eskuetan jartzen da haurra eskolara hasi aurretik.

Haur eta familiekin haurtzaindegian egiten dugun hainbat jarduera, lehenengo aldiz erakunde batetara etortzen diren haur eta gurasoekin ere egin daiteke.

Zilegi da (eta guk hala egiten dugu), ekainaren hasieran guraso, haur, aiton-amonak, izebak gonbidatzea. Erabateko prestutasuna azaltzen diegu –hau izaten da gure eginkizuna– eta gehienetan, gurasoak lasaiago eta informatuago joaten dira. Gero, ikasturtea hasi aurretik banakako elkarrizketak egiten ditugu eta bilera orokor bat, informazioa eta gomendioak eskainiz, umearen eskola egunari buruz hitz egiteko, hezkuntza helburuak, administrazioaren funtzioak, arauak eta antzeko gauzak azaltzen ditugu eta mila galderi erantzun. Maiz, gurasoak aiton-amonekin etorri ohi dira, beraien bilobarentzat zer prestatzen ari garen ikusteko jakin-mina baitute.

Interesgarri izan ohi da behin-behineko taula bat egitea, gerora gogoeta eta hipotesi taula izango denaren aurreikuspena. Maiatzaren bukaerarako prestatua eduki dezakegun, haur multzoaren berezitasunak bertan ditugularik. Badakigu zenbat izango diren, haurtzaindegitik datozenak eta ez datozenak, ume bakarrak diren, gurasoen titulazio akademikoa eta lanbidea, familiaren prestakuntza eta jatorria, premia bereziak dituzten haurrak diren, etab. Guzti honek aurre orientazio-programazio bat egiten laguntzen du.

Emaitza ona ematen duen ekimena, haur berri guztien gurasoei udarako jolas-koaderno bat ematea da. Umeari zuzendutakoa da, helduaren laguntzarekin honako jarduera hauek egin ditzan: haurra familiarekin dagoen argazki bat itsastea, posta txartelak, loreak, maskorrak, harritxoak jaso (oporretako ibilbideetakoak), gehien gustatzen zaion ipuin bat kopiatzea, etab.

Koadernoak (oroimenaren haria) ume, guraso eta gure arteko tarteari gutxitzen ditu. Eskolako liburutegi modukoa osatuko du, bere edukia aurkeztu egingo da eta aurreneko bi hilabeteetako lan elementuen ekarpena egingo du. Lehenengo eskola egunean beren koadernoak eskuetan estutuz zein gustura etortzen diren ikustea besterik ez dago, ekimena interesgarria dela jakiteko.

Orain arte familien jakin nahiaz, igurikapenaz eta gauzak ezagutzeko gogoaz hitz egin dugu eta guzti horri erantzunak emateaz.

Baina, guk, langileok, gure kezka eta igurikapenak ere baditugu.

Hiru urteko umeen irakasleak badakite, edozein aldaketak, ume txikien berregokitze prozesuak eskatzen dituela, arazo zahar eta berriak suspertuz.

Zeintzuk dira haurtzaindegitik datozen umei buruzko igurikapenak? Oinarrian, adin bereko beste umeekin alderatuz, honako hauek dituzte lortuak: kideekiko eta helduekiko egokitze gaitasun eta harremanak esperimintatu eta sendotu, espazioa eta denborari buruzko ziurtasuna, orientazioa eta hautematea, iaiotasun eta gaitasun motor eta eraikitzailea, autonomia konpetentziak, intentzio eta xede batera zuzendutako jokabideak, jakin-min eta interes egonkorragoak, etab.

Eta, zer espero dute familiekiko?

Erakundeekin harremanetan jartzeko erraztasun handiagoa, beste familiekin, langileekin, hazkunde eta hezkuntza prozesuen esperientziekin alegia: umei buruzko ezagutza handiagoa izan dezaten: bere jardueraz, hazte, ikaskuntza eta garapen erritmoei buruzko informazio gehiago.

Igurikapen batzuk egiaztatu egingo dira, beste batzuk, aldiz, nekez sortzen joango dira. Beste batzuk, guk irakasle bezala daukagun jokabidearekin zerikusia izango dute, haur eskola eta haurtzaindegiko giroaren arteko beharrezko diferentziari esker. Oso kontu konplexua da.

Giroa nola prestatu

Eskolako giroa hezkuntza egitatearen protagonista zuzena dela pentsatzen dugu eta alde zuzenetik kontu handiz pentsatu eta programatzen dugu; gure kasuan, familien parte hartzearekin antolatzen da.

Eraikinaren egiturarekin, espazioen desberdintasun eta erabilgarritasunarekin, altzari, material eta helduen lanaren antolaketarekin baldintzatuta gaude.

Gure ustez, espazioaren antolaketak hezkuntza behar eta hipotesiei erantzun behar die, eta umei eta helduei iradoki behar die egin daitezkeen jarduerak. Soluzio posible bat "zonalde" bereizietan antolatzea da. Zona hauek erraz hautematekoak izan behar dute, etenaldi eta nahasteak minimora murriztuz.

Zonaldeak

- Zona ezaugarritua.

Material aukeratua eta diseinu zehatz bati erantzuten dion tresnen distribuzioa du.

- Motrizitate zona.

Zabala eta irekia, azalera guztia alfonbra goxo batez estalia, bi koltxoneta handi eta

horma-barra baxu bat du. Beste material batzuk ere baditu: sokak, tubo desberdinak, kaxak, boloak, pilotak, txapak, zintak, etab.

- Eraikuntza handien zona.

Bi tarima daude altuera desberdinetakoak, gomazko materialez estaliak. Joko desberdinak ditu, altzari mugikor bat eta ondoan, mahai bat.

- Material ludikoen zona.

Materialak batetik bestera erraz erabili daitezke. Kaxatan, ezaugarri eta funtzioen arabera antolatuak daude (egurrezko eskailerak, periskopia, kaleidoskopio erraldoia, mozorrotzeko materialak, espazioan orientatzeko jokoak, material plastikoa, txotxongilo eta itzalen antzerkiak, etab...).

Beste material batzuk: horma osoa hartzen duen eta leihoaren azpian jarrita dagoen ispilu handia, norberaren, kideen eta espazio honen bizkarrean dagoen beste sekzioaren mugimendua kontrolatzen laguntzeko. Helduak proposatzen badio, eraikuntza simetrikoak edo simulatuak (isla) egiteko era baliagarri da. Gure eskolan ispilu asko dago, tamaina askotakoak, gutxien espero den tokietan, umeek esplorazio pertzeptiboa libreki aberas dezaten.

Eskolan hasi berriak direnean, gurasoak eta umeak gehien inguratzen diren zonaldeak, eraikuntzena eta mahai jokoena dira. Egoera ahalik eta egokiena eskaini behar zaie, umeari protagonismoa emanez, bereizketa, ahal den neurrian, traumarik gabekoa izan dadin.

- Zona babestuak.

Ezkutatutakoak, talde txiki batekin egoteko, bakarrik egoteko, joko sinbolikoak egin edo musika entzun, irakurri, edo bakoitzaren edukiontzia erabiltzeko. Hauek, aurrealdetik irekitzen diren kaxa handi batzuk dira. Espazio pribatu bezala kontsideratzen dira, eta norberaren objektuak, etxetik eskolara bidaltzen diren mezuak, "altxor" txikiak edo haurrak nahi duena eduki ahal izateko erabiltzen dira. Umeek kaxak nola zaintzen dituzten ikustea nahikoa da girotzearen prestaketak duen garrantzia ulertzeko.

Instrumentuak, neurri batean bisualki eta akustikoki isolatua dagoen espazioan jartzen ditugu guk, jardueren garaian kontzentrazio handia lortu ahal izateko. Gurasoek egindako paper zorro handi batean, kolore askotako eta tamaina zein loditasun desberdinetako orriak, mota askotako materialen ondoan kokatzen ditugu.

Plastikozko ontzi handietan, burdinezko apalategi batean kokatuta, buztina, alanbrea, inprimatzeko tresnak, puntzoia, kortxoak, tenperak, telarra, lekeda, guraizeak, margo desberdinak, klarionak, fitxak, hariztatzeko materiala, beiran margotzeko koloreak, etab...jartzen ditugu.

Eta guztia haurraren altuerara jarrita, hartu, erabili, gorde dezan, nahiz eta hasieran helduaren laguntza beharko duen.

Girotzeari buruzko hainbat ohar

Gelako girotzeari buruzko beste gogoetarik ez egitea ez litzateke egokia izango. Girotze garaiko “espazio garrantzitsua”, geletako sarreratik haratago doa, bainugela, jantzitegia, sarrera, Erdiko sala, patioa barne hartzen dituelarik.

Sarrera da umeak ikusten duen lehenengo espazioa. Egokia iruditzen zaigu dekoratzea: ispiluak, umeek egindako kristalezko kaxatxoak, eskolako aurkezpeneko panel moduko bat. Lehenengo egunetan mahai erakargarri bat jartzen dugu, fruta, gurasoek egindako gozoak eta gozokiekin.

Bainugelek ere prestatuta egon behar dute, ohiko hoztasuna ekidituz: koloretako jolasekin dekoratu daitezke, ispilu “magikoak”, zintzilikatutako figurak, landareak jarritz.

Erdiko saloi handia gelaren barrualdera doan luzapena da. Ume guztien eskuragarri dago, eta bertan, mozorroen altzaria, kaleidoskopio handi bat eta pertzepzio jokoetarako hainbat instrumentu daude.

Gelek patiorako zuzeneko atea dute, gela kanpoaldera luzatzea ahalbidetzen duelarik. Atea irekita, mahai bat edo jolas batzuk “erdi” kanpoan jarrita, gelako espazioa zona libreagoa bihurtzen da, tentsioak lasaitzen lagunduz. Mugitzeko, ekiteko, probatzeko eta aurkitzeko aukerak gehi ditzake.

Berebiziko garrantzia dute aukeratzen ditugun koloreek, argitasuna eta gardentasunarekin jokatuz kristalekin egin daitekeen erabilpenak (adibidez, zati batean plastikozko hosto gardenak koloreztatuz, kanpoko paisaiaren irudia eraldatuz), hormen erabilpenak, sabaia, zoladurak. Paneletan izenburu eta irudiak jartzen ditugu emango diegun erabilpena argi uzteko. Umeen lanak, etxetik ekartzen dituztenak zein eskolan egindakoak, hartzeko eta baloratzeko prestatuak daude. Horien ondoan joan daitezke gurasoei informazioa adierazteko erabiltzen diren panelak: bileretan egindako argazkiak, umeen bisitaldietan egindakoak, lehenengo egunetako komentarioak, asteko agenda, bazkariarekin, loarekin, meriendarekin, zerikusia duten datuak,

zerbitzuak, interes handia duten gelako arazoei buruzko artikuluen hautaketa eta hiruhilabeteko programazioaren aurkezpena.

Azkeneko urteotan garrantzi berezia hartu du sorpresen panel-zonak. Gurasoekin batera prestatzen da, umeak eskolan hasi aurretik. Sorpresa indibidualak eta taldekoak, atseginak eta misterioitsuak, txikiak eta handiak jartzen dira, denbora pasa ahala, umeek egindako lanez edo gurasoek libreki egindakoez aldatzen joango direlarik.

Sabai eta lurraren prestaketak, girotze irudi argiagoa edukitzen eta zonaldeak bereizten lagun dezake.

5.4 Autonomia

Aldagai honi buruz hitz egiterakoan zera esan behar dugu: Fernández Gutiérrez-en (cf Lleixa, 2000), "Haur Hezkuntza 0tik 6 urtera", I Liburukian agertzen den 4. kapitulua, "Azturak bizitzako lehen sei urteetako hezkuntzan" hartu dugula erreferentziatzat. Gure lanaren lehenengo momentutik erabili izan ditugu aipatutako kapituluan agertzen diren itemak, egokituta, ikastetxeetako irakasle eta gurasoek erantzun zitzaten, bere argitasun eta zehaztasunarengatik.

Egunerokoa denaren pedagogia: azturen/ohituren heziketa eguneroko bizitzaren esparruetan

Egunerokoa dena, gure egunean eguneko bizitzaren oinarri da. Eta egunean egunekoa, gure denborari, historiari eta etorkizun pertsonal nahiz kolektiboari zentzua ematen diona da. Eguneroko bizitza, egoera hurbilena eta egonkorrena da gizakientzat, bereziki haurrak badira. Izan ere, gizakia, eguneroko espazioan, erritmoan eta egun bakoitzean zehar gertatzen den guztiarekin garatzen da; bere premi eta beharrekin, sentimendu eta emozioekin... eta baita inguruan gertatzen den guztiarekin eta bizitzen dituen aurkikuntza eta esperientziekin ere.

Egunerokoa denaren ezaugarrietako bat neurri handi batean ohikoak diren aldi baterako hainbat erreferentzia-esparru dituen espazio bat izatea da: hau da, esparru horietan, beharraren edo gizarte-ohituraren ondorioz, beti errito berberak errepikatzen dira eta, gainera, bertan irauten dute ondoren aztertuko ditugun azturetako askok. Ohiko esparru horiek dira, gure bizitza moldatzen den gizarte-taldearekin ezartzen ditugun harremanetan ziur sentiarazten gaituztenak. Aldi berean, historiaren bilbea da eta baita gure izaera sozialaren eta gure kulturaren mamia ere.

Ohikoa denak, askotan, ohituta gaudenaren eta besteek eskatzen digutenaren arteko moldaketak eta egokitzen direnak egitea eskatzen digu, beraz, gure aztura eta ohituen berrantolaketa horiek dinamikoagoa eta sortzaileagoa izaten laguntzen diote gure nortasunari.

Egunerokoa dena Haur Hezkuntzan

Inork ez du zalantzan jartzen haurrarentzat eguneroko bizitzak eta bizitza horretan ohikoa denak, alegia nolabaiteko jarraipena duenak duen garrantzia. Hezitzaileei dagokienez, horrek, "ohiko esparruak" izendatuko ditugunen eta "erritualak" deituko ditugunen antolamenduari garrantzi handia ematea eskatzen du. Batzuek eta besteek hurrei une bakoitzean zer egin behar duten eta gizarte-taldearen ohiturak zein diren ezagutzea ziurtatzen diete.

Eguneroko praktikan maiz erabiltzen diren termino pare bat argitu nahi ditugu: ohikeria eta aztura. Ohikeria, komenientziaz mekanizatutako ohitura pertsonala da, adibidez, giltzak toki jakin batean uztea. Irmoa da, ez du aldaketarik onartzen eta ez du trebetasun espezifikorik sortzen; sortu dugun horretarako bakarrik balio du, kasu askotan, helburua memorizazioa da. Aztura, trebetasunak edo abileziak sorrarazten dituen mekanismo egonkorra da eta, gainera, malgua da, aldatu egin dezakegu, adibidez, arropa lotzeko aztura.

Ohiko esparruek eta erritualetan jarraipen eta erregulartasun osagai garrantzitsua eskaintzen dute eta, horregatik, funtsezkoak dira eskolako bizitzarako nahiz familiararteko bizitzarako. Esparru horiek dira haurrari mentalki funtsezko denbora-erlazioez jabetzea ahalbidetzen diotenak: lehena eta geroa, aldi berekoa dena, segidan gertatzen dena, etengabea dena, noizbehinkakoa dena, etab.

Ikastetxearen planak ohiko esparruak eta erritualak zehaztu behar ditu eta erregulartasunez eta etengabe mantendu behar ditu, eta ez dira aldatu behar arrazoirik gabe eta hurrei aldeztu aurretik jakinarazi gabe.

Ohiko esparruak Haur Hezkuntzan

a) Esparruak espazioei dagokienez:

Haurra bizi den eta mugitzen den espazioa da bere desioak eta bizi-premiak adierazteko erabiltzen duen ingurunea.

Espazioak antolatzean, hezitzaileek hausnarketa lasaia egin behar dute espazio hori erabiltzeko orduan haurrak orientatzeko baliagarria izan daitekeenari buruz.

Zentzu horretan, alde batetik, talde bakoitzak bereak izango dituen erreferentzia-espazioak proposatu behar dira eta, bestetik, haur guztientzat izango diren espazio komunak.

Espazio horiez gain, hezitzaileek pentsatu behar dute hurrek beste espazio batzuk ere behar dituztela beren askatasuna garatzeko eta beste hurrekin akordioetara iristeko.

Hiru espazio-mota horiek ohiko esparruak dira eta, haurrentzat bertan egin daitekeenari eta egin ezin denari buruzko etengabeko erreferentziak direnez, hauen kokapena eta erabilera gutxi aldatu behar dira.

b) Esparruak denborari dagokionez:

Ohiko denbora-esparruek "denboraren" kontzeptua nahiz iragar daitezkeen gertakarien koherentzia ulertzen laguntzen diote haurrari. Horregatik, gero datorrenaz kezkatu beharrak eragiten dien estuasunetik aske uzten ditu eta beren energia askoz ere sortzaileagoa den ekintzarantz orientatzea ahalbidetzen die.

Denborazko sekuentziak bi gertaera-motetan antolatzen dira: Eguneroko jarduna eta urteko egutegiko ospakizun erritualak.

Azturak zer diren eta nola hezten diren

Definizioak:

Azturak/ohiturak dira:

- Erabileraren bidez mekanizatu edo automatizatu diren jarduera-prozedurak.
- Hezitzaileak bere ikasleen hazkuntza pertsonal eta sozialean, afektibo eta intelektualean eragin positiboa izateko erabil ditzakeen baliabideak.
- Beraiekin portaerazko jarraibideak eta ikaskuntzak dakartzaten egoera jakin batzuen aurrean izaten diren ohiturak, jarrerak, portaera-moduak edo jokabideak.
- Lortutako egokitzapenen bidez gure gorputzaz erraz baliatzeko artea. Gure pentsamendua eta gure kontzientzia askatzen dituzten jokabide sinpleak... Egoeretara ohitzen gaituzte eta, horien bidez, identitatea eta jarraipen-zentzua lortzen ditugu.

Elkarri lotutako erreflexu baldintzatuen muntaia batek osatzen dituen mekanismo egonkorak dira. Aldi berean malguak dira eta gure ekintzak une oro berrantolatzea ahalbidetzen dute.

Ondo geureganatzen eta erabiltzen dugun azturak eguneroko gertakariari aurre egitea ahalbidetzen digu.

Azturen osagaiak

Izaera automatikoa

“A zer atarramendua, goizero bezperan ikasitako gauza bera ikasi beharko bagenu!”

Ariketen errepikapenaren bidez mekanizatu edo automatizatu egiten dira. Mekanizazio hori, funtsean, kontzientea da eta hurrak arreta eta kontzentrazio maila handia izatea eskatzen du.

Izaera egokitzaila: malgutasuna eta jarraipena

“Neureganatu ditudan azturakin defendatzen naiz munduaren aurrean.”

Bi ezaugarri horiei esker, azturak, hazten garen eta bizi behar dugun natura ingurunearekin eta gizarte ingurunearekin erlazionatzeko baliabide baliagarriak dira. Jarraipenak, segurtasuna ematen diguten eta pertsonalki landutako erreakzioak eta jarrerak izatea ahalbidetzen diguten erreferentzia esparru bat eta portaerazko jarraibide batzuk jorrazteko aukera ematen digu, horrela, erreakzio eta jarrera horiek edozein egoeratan behar bezala praktikan jarri ahal izango ditugu. Aldi berean, azturak sistema dinamikoak eta egoera desberdinetara egokitzen diren mekanismo malguak dira.

Horregatik, aztura zenbat eta kontzientzia handiagoz landu, orduan eta erraztasun handiagoz malgutu ahal izango da egoera desberdinetan.

Azturen identitate-izaera

“Nire azturak diren bezalakoa naiz, neurri handi batean.”

Pertsona guztiak, neurri handi batean, aztura pertsonal bilakatu ditugun eta gure originaltasun bereziarekin ñabartu ditugun keinu eta jarreraren bidez identifikatzen gara. Identitate ezaugarriak ditugu gauzak utzi eta hartzeko moduan; gure gorputzari dagokionez gure mugimendu erreakzioak nabaritu eta dinamizatzeko moduan; agurtzeko, irribarre egiteko edo haserretzeko moduan... eta baita pentsatzeko, sortzeko, lan egiteko, arreta jartzeko, iritziak emateko eta balioesteko moduan ere.

Gure azturak, besteentzat, gure bizitzan zehar arian arian geureganatu eta landu dugunaren argazkia dira.

Gure azturen zintzotasunak eta tonuak zehazten dute, beste ezerk baino gehiago, gure nortasun originala.

Azturen izaera historikoa

“Geureganatutako azturi esker ezagutzen dugu geure burua.”

Azturak egonkorak izateak eta guretzat erreferentzia-esparruak izateak egoeretara ohitzea eta talde baten barruan eroso eta ziur sentitzea ahalbidetzen digute.

Horixe bera da azturak historia pertsonalaren eta sozialaren jarraipen-zentzuari egindako ekarpenaren oinarria:

Neurri handi batean, beti izan garen bezalakoak gara, horrek egokitzapen berriak egitea, gure ekintzak eta jarrerak une oro berrantolatzea eta daukagunetik abiatuz aurrera egin ahal izatea ahalbidetzen digun arren.

Nortasunaren egituraren duten eragina eta Eskola Curriculumarekiko erlazioa

Identitate pertsonalean duten eragina

- Nor bere ezaugarri pertsonalak modu original batean lantzeko gaitasuna, aldi berean, jaio diren talde sozialarekin, honen baloreekin eta honen kulturarekin identifikatuz.
- Burua aske uzten dute, energia beste ikaskuntza batzuetarako erabili ahal izateko.
- Era askotako egoera desberdinetarako erreferentzia esparruak eta portaerazko jarraibideak eskaintzen dituzte.
- Haurraren buruko egiturari bilbe sendo bat eskaintzen diote eta, horretan oinarrituz, pentsamenduak aurrera egin dezake.
- Azturak haurren oreka psikikoari eusten diote eta beren garatzeko eta ikasteko ahalmenak handitzen dituzte. Horri esker, haurrak une oro gauza berriak ikasteko prest daude.

Azturak komunikazio eta gizarte harremanetan duten eragina

Azturak, haurrari, bere jarrera, bere talde sozialeko beste kideenarekin eta helduek egiten dutenarekin konparatzeko aukera ematen diote. Hau da, beren ikaskuntza eta portatzeko modua konparazio bidez ebaluatzeko baliabide bat eskaintzen diote.

- Pixkanaka, azturaren mekanismoa menperatu ondoren, haurrak beste haurren eta helduen iritziekiko kritikoa izaten eta besteek bere jarreraz egin duten balorazioa berak egin duen ahaleginarekin bat noiz datorren erabakitzen ikas dezake.

- Azturen ikaskuntzaren bitartez, haurrak kultura bateko baloreak eta jarrerak eta beti ere talde sozialarekin erlazionatuta dauden portaera jakin batzuk barneratzen eta prozesatzen ditu.

Natura ingurunearekiko harremanetan duten eragina

- Azturak haurrari natura ingurunearekin harremanetan jartzeko moduak eskaintzen dizkiote, ingurune horrek inposatzen dizkion baldintzetara egokitzeko eta moldatzeko moduak bilatzen lagunduz.
- Natura inguruneak haurrei eskaintzen dizkien objektu, elementu eta izakien bitartez, hauek gainerako izaki bizidunekiko dituzten antzekotasunez, desberdintasunez eta ahalmenez ohartzen dira eta naturak eskaintzen dien estetika, harmonia eta mirespen zentzua garatzen dute.
- Natura inguruneak haurrengan, gainera, defentsa, zuhurtasun eta bizitzarekiko errespetu azturak garatzen ditu.

Azturak nola hezten diren: hezkuntza praktikarako orientabideak

Azturen prestakuntzan kontuan hartu beharreko irizpideak

Azturak helburu bat dute beti

Haurrek keinu bat edo jarrera bat automatizatzen dutenean, beti ekintza bat eraldatzen eta perfektzionatzen dute. Ekintza honek lotura zuzena du beren beharrekin, hau da, ez da kasualitate hutsez gertatzen.

Ondorioz, aztura honek zein beharri erantzuten dion eta perfektzionatu edo eraldatu nahi den aztura zein ekintzek osatzen duten jakin behar da.

Azturak berrantolamendu-tresnak dira

Aztura bat bereganatu ondoren, haurrak horren exekuzioa berrantolatu eta perfektzionatzeko eta era askotakoak eta askoz ere konplexuagoak diren ikaskuntzetan aplikatzeko erabil dezakeen tresna bilakatzen da.

Pertsonen identitatea ematen dieten azturak bizitzako lehen urteetan finkatzen dira

Bizitzako lehen urteetan, haurrek azturak bereganatzen dituzte, ikasteko ahalmena eta gaitasuna edukitzeaz gain, bereziki ikasteari dagokionez bizitzako aldi kritikoena, dinamikoena eta indartsuena delako.

Haurraren inguruko helduek, nahita edo nahi gabe, arian arian baloreak eta portaerazko jarraibideak proposatzen dizkiote, hainbat aztura bereganatzera behartzen dutenean

Haur etapa honetako hezitzaileek beren hezkuntza programan haurrei bereganatzeko zein aztura proposatuko dizkioten planteatu behar dute. Aztura horiek haurrari proposatzen dizkioten baloreak eta portaerazko jarraibideak hausnartuz eta ebaluatuz, hezitzaileek beharrezkoak diren aldaketak egin beharko dituzte lortu nahi diren emaitzak erdiesteko.

Hezkuntza prozesu osoan zehar kontu handiz programatu, sekuentziatu eta ebaluatu behar dira azturen ikaskuntza-planteamenduak.

Hezkuntza praktikarako orientabideak

Azturak hezkuntza mailan lantzeko, beharrezkoa da:

- Aldi berean ikasi behar diren azturen kopurua zehaztea, gehiegi izan gabe. Gutxi eta ondo aukeratuak izan behar dute.
- Koherenteak izatea. Garrantzitsua da haurrari eskatzen zaiona beti logikoa izatea eta helduak, eskatzen diona, modu egonkor eta jarraian praktikan jartzea.
- Ariketen banaketan erritmo egokiari eustea. Keinuen automatizazioak geldotasuna eta errepikapen ugariak eskatzen ditu. Hasieran ez dira gehiegi landu behar eta egun askotan etengabe errepikatu behar dira. Nekearen ondorioz akatsak ugariagoak dira eta haurrak bereganatzeko interesa galtzen du.

Era berean, ez da tarte luzeegirik utzi behar lortu beharreko azturen sekuentzia osoa osatzen duten elementuen artean.

Egin ezazu beti proposatutako azturaren sekuentzia...

- Funtsezko ariketetan zatituz.
- Ariketa bakoitza haurra bere kabuz egiten saiatzen dela ikusi arte eginez, une horretan...
- Ariketa hori hurrengoarekin lotuz, ordura arte ikasitako sekuentzia egiteari utzi gabe.
- Lortutako ahalegina balioestea. Arrakasta eta ageriko balorazioa ahalegin positiboak dira beti. Helduak haurrak lortu duenari buruz egiten duen balorazioa, ahalegin handiagoa eta perfektuagoa garatzeko estimulu bilakatzen da haur horrentzako.
- Ahalegina funtsezko elementuetan oinarritzea. Aztura bat osatzen duen sekuentzian funtsezko elementuak eta bigarren mailako elementuak daude.

Funtsezkoa argi eta garbi antzematen jakin behar da eta lortzen denean bakarrik eskaini behar zaio arreta bigarren mailakoa denari.

Adibidez: haur bat elikadura mailan autonomia izaten hasten denean, funtsezkoa besoaren eta eskuaren mugimendua ahoa irekitzeko mugimenduarekin koordinatzea iristea da. Lehen une horretan helburua ez da koilara erabiltzen jakitea, hau geroago etorriko da. Beraz, une horretan eskuarekin jatea koilararekin jatea baino egokiagoa izan daiteke. Mugimendua eta sintonizazioa menperatzeak, geroago, tresnak behar bezala erabiltzea ahalbidetuko dio.

Bizitzako lehen sei urteetan hezi behar diren azturak

Funtsezko bizipenei dagozkien azturak

- a) Autonomia pertsonala indartzen duten azturak:
 - Elikadurari dagozkion azturak
 - Higienari dagozkion azturak
 - Atsedinari dagozkion azturak
- b) Norberaren irudi positiboa indartzen duten azturak:
 - Apainketa pertsonalari dagozkion azturak
 - Jokabideen bizitasunari dagozkion azturak
- c) Norberaren defentsari dagozkion azturak:
 - Suari eta keari dagozkion azturak
 - Urari dagozkion azturak
 - Tresnen eta produktuen erabilerari dagozkion azturak
 - Trafikoari eta kaleari dagozkien azturak

Lanari eta jarduerari dagozkien azturak

- a) Ordenari dagozkion azturak
- b) Lan intelektualari dagozkion azturak
- c) Ohiko jarduerari dagozkion azturak

Komunikazioari eta bizikidetzari dagozkien azturak

- a) Autonomia pertsonalaren garapenari dagozkion azturak
- b) Pertsonarteko harremanak errazteko azturak
- c) Talde-esperientziak errazteko azturak

Beste aztura batzuk

Bizitzako lehen sei urteetan hezi behar diren funtsezko azturen deskribapena egin du Fernández Gutiérrez-ek. Guk, gure lanerako egile honek deskribatutakoen hautaketa bat egin dugu eta liburuki honetako Autonomia ohiturak ataletako tauletan adierazi ditugu.

5.5 Elkarrekintza

Autonomiaren aldagaia deskribatzerakoan, aztura/ohituren definizioak eta 6 urte bitartean Fernández-ek haur eskolan eta familian lantzeko ohitura garrantzitsuenen sailkapenean agertzen dituen atalak azaldu ditugu. Orain, elkarrekintzaren aldagaia aztertzeke asmoz, egile honek komunikazioari eta bizikidetzari dagozkien azturei buruzko azterketan esaten duena kontuan hartuz hasiko dugu atal hau.

Komunikazioari eta bizikidetzari dagozkien azturak

Haurrak jaiotzen direnean ez dira izaki sozialak, baina guztiak, beren bizitzako une jakin batean, gizarte harremanak ezartzen eta talde batean integratzen saiatzen dira. Hori lortzen duten neurrian, besteekin bizitzen ikasteaz gain, beren ahalmenak nola garatzen eta aberasten diren ikusteko sentsazioa esperimendatzen dute. Ikaskuntza horrek, ordea, ahalegin handiak egitea eskatzen die eta hauek bere gain hartu behar dituzten arriskuen moduan agertzen zaizkie.

Besteekiko harremana bilatzen duen haurrak lehenbizi aurkituko duen erronka, bere autonomia ziurtatzeko modua da eta, egia esan, egoera berrian hori ez da mehatxurik gabeko erronka. Horregatik, bere independentziaren lorpen prozesuan zenbat eta ziurtasun handiagoa sentitu, orduan eta errazagoa izango zaio besteekin askatasunez komunikatu ahal izatea. Haurrak “elkarren menpekotasunera” iristea, hots, besteekiko menpekotasunaren eta independentziaren bitartekoa den berezko alternatiba askea beren kabuz aukeratzea iristea da, lagunartekotasuna eta bizikidetzaren lortzeari dagokionez, ikastetxeek duten helburu nagusia.

Baina haurren sozializazioak aliatu boteretsu bat du: familia. Jaiotzen denetik, haurra unibertso sozial baten barruan sartuta dago eta unibertso hori osatzen duten kideekin ezartzen dituen lehen harremanak, alde batetik, bere autonomiak izango duen zentzua eta, bestetik, besteekin ezarriko dituen trukeen zentzua markatuko ditu aldi berean.

Agian arrazoi honengatik da hain garrantzitsua haurrek adin hauetan gurasoekin duten harremana. Helduek umearekin izaten dituzten komunikazio keinu eta portaeren bitartez eta beren deiei emandako erantzunetatik, bere buruarekin komunikatzeko ematen zaizkion estimuluetatik eta eskaintzen zaizkion imitazio iradokizunetatik abiatuz, haurrak bizikidetzeta eta gizarte harremanen lehen irudikapenak landuko ditu.

Horrez gain, haurrak berarekin "atxikimendu" harremanak ezarri dituen heldu baten etengabeko erreferentzia badu, helduarekin elkartzen denean bere jarrera positiboa izango da. Bere NIa ziur eta babestuta sentituko da eta bere energia beste norbaitekin harremanak ezartzen saiatzeko erabil ahal izango ditu.

Haur eskolan, sozializazio une horiek indarrez biziko dira funtsezkoak diren bi alderditan:

1. "NIa" finkatzean eta Autonomia lortzean.
2. Gizarte harremanak bilakatzen eta talde batean integratzen saiatzean.

Komunikazioari eta bizikidetzari dagokienez, lehen sei urte hauetan hezi behar diren ohiturak oinarrizkoak diren hiru alderdirantz orientatu behar dira:

- a) Haurren autonomia indartzera.
- b) Pertsonarteko harremanak erraztera.
- c) Lehen talde-harremanak esperimentatzera.

Guk orain, elkarrekintzarekin lotura daukaten b eta c ataletan agertzen diren itemak azalduko ditugu:

0tik 3 urtera bitartean hasi eta finkatu behar diren ohiturak:

1.- Pertsonarteko harremanak errazteko

- Erantzuten eta deitzen ikastea.
- Beste haurren eta helduen izenak ikastea.
- Ikastetxeko helduek egiten duten lana zein den ikastea.
- Taldeko beste haurrei zer gustatzen zaien ikastea.
- Beste haurrekin jolastea.
- Besteen jolasa errespetatzen ikastea.
- Jolas-arauak, ikastetxeko arauak, etab. ikastea.
- Beste haurrei laguntzen ikastea.

- Helduei zeregin errazetan laguntzea: materialak eta jolasak, mahaia, etab. jasotzea, garbitzea...
- Beste haurrekin batera, gatazkei irtenbideak bilatzen ikastea, etab.

2.- Taldeko esperientziak ahalbidetzeko

- Elkarrekin zerbait egiten ikastea: dantza egin, antzerkia egin, horma-irudiak egin, collage-ak egin, etab.
- Ipuin bat, istorio bat, poema bat, etab. entzuten eta elkarrekin errepikatzen ikastea.
- Elkarrekin abesten ikastea.
- Elkarrekin festak egiten ikastea.
- Bisitei harrera egiten ikastea.

3tik 6 urtera bitartean hasi eta finkatu behar diren ohiturak:

1.- Pertsonarteko harremanak errazteko

- Agurtzen ikastea.
- Galdetzen digutenean erantzuten ikastea.
- Besteek behar duten horretan arreta jartzen ikastea.
- Besteen alderdi positiboa estimatzen eta balioesten ikastea.
- Besteen jolasa eta lana errespetatzen ikastea.
- Besteak atsedean hartzen edo lanean ari direnean isilik egoten ikastea.
- Beste haurrekin jolasten eta lan egiten ikastea.
- Gatazken aurrean zintzoak izaten ikastea.
- Besteekin izaten den tratuan adeitsua izaten ikastea.

2.- Taldeko harremanak errazteko

- Zeregin errazetan laguntzen ikastea.
- Taldeko bizikidetzara-erabakitzen ikastea.
- Jolasa, jostailuak eta materialak denen artean banatzen ikastea.
- Jolasean beste haur batzuk onartzen ikastea.
- Haur txikienei, gure laguntza behar dutenei, etab. laguntzen ikastea.
- Norberak ahal duen ekarpena eginez parte hartzen ikastea.
- Elkarrizketa batean garaiz esku hartzen ikastea.
- Zereginak taldean egiten eta amaitzen ikastea.

Arestian azaldu ditugun item gehienak tauletan jasota dauzkagu, gure lagina osatzen duten ume bakoitzaren informazioa jasoz eta liburuki honetako 304. eta 429. orrialdeetan agertzen ditugu.

Haurraren sozializazio prozesua

Vigotsky-k (1978) idatzitako hitz batzuek ekarriko ditugu gogora: “Besteen bitartekaritzari esker, helduaren mediazioari esker, haurra bere jardueretara buru-belarri entregatzen da. Haurraren portaeran dena dago elkartuta, sozializazioan sustraituta. Horrela, umeak errealitatearekin dauzkan harremanak hasieratik dira harreman sozialak. Zentzu honetan, bularreko umeari buruz esan daiteke izaki soziala dela maila gorenean”.

Umearen garapenerako, batik bat lehenengo haurtzaroan, berebiziko garrantzia daukate interakzio asimetrikoak, hau da, kulturaren mezu guztien “eramaile” diren helduekin dauzkan elkarrekintzak. Vigotsky-ren teoriak dio garapenaren prozesuan interakzio sozialak paper formatzaile eta eraikitzailea jokatzen duela. Honek esan nahi du goi mailako funtzio batzuk (nahitako atentzioa, oroimen logikoa, ahozko pentsamendua, emozio konplexuak, etab.) ez liratekela sortuko eta eraikiko interakzio sozialik gabe.

Berak garatutako tesiaren arabera “fenomeno interpsikikoak fenomeno intrapsikikotan eraldatzea” prozesu sozialari esker lortzen da.

Umeek gainontzeko umeekin loturak sortzeko daukaten gaitasuna

Montagner-en esanetan (Mondragon Unibertsitatea Jakingarriak aldizkaria 52/53, 2004), argi izan behar dugu, ume guztiak lotura berriak sortzeko gai direla, beti ere, amarekin eraikitako lotura hori oinarritzat hartuz. Baina, badira beste hainbat lotura modu ere. Bowlby-k 1973an idatzi zuen liburuan, haurrek elkarrekin dituzten interakzioei buruz hitz egin zuen, baina, Montagner-ek, elkarrekintzatik harantzago, uste du, haurren artean atxikimendua ere ematen dela.

Haurrek lotura askotariko edo pluralak landu ahal izateko antolaketa modu berezia lortu behar da haurtzaindegi eta haur eskoletan. Giro hori sortzea da daukagun bide bakarra, haurrak benetako ikasle izateko eta, aldi berean, haurrak ikastetxean gizaki modura egoteko gauza izateko. Guk sortutako giro honetan, ikasle onak, etorkizuneko herritar onak, gainontzeko gizakiak errespetatzen dituzten gizakiak... garatu daitezke.

Beste ume batzuen presentzia eta umeen eta helduen arteko erlazioen giroa

Haur eskola batek esan nahi du, umeak bere adineko umeen presentziari eta haurrek egiten dituzten jarduerak behatzen dakiten helduen interbentzioari esker egingo duela aurrera bere garapenak (Musatti, 2001).

Testuinguru ongi antolatuetan lor daiteke umeen arteko giza autonomiari bide ematen dion giro emozional lasaia eta beraien arteko joko soziala. Hezkuntza baldintza hauek errazten duten giro baikorrean kooperazio keinu, elkarrekintza dinamika eta negoziazio estrategiak sortzen dira eta gatazka elementu posibleak ebazten dira.

Beste haur batzuen presentziak ez du umea sozial eta afektiboki soilik hazten laguntzen. Kognitiboki ere, elkarrekintza bidean kokatzen baititu, eta kolaborazio edo iradokizun batek balio dezake ekintza bat gainditzeko, edo materiala beste modu batera erabiltzeko.

Umeen jakin-mina, adimena eta ezagutu nahiak manifestatu ahal izateko giro bare bat eskaini behar diegu, hezitzaileekin eta beste haurrekin lotura afektiboak mantentzeko giro egokia. Ongizate psikikoak martxan jartzen dituen jakin-mina, fantasia, esploratzeko gogoia eta jakitekoa, konfiantzazko toki batek bakarrik eman diezairoke umeari, errekonozitua sentitzea eta erreferentzia afektiboak aurkitzea beharrezkoak dituelarik.

Gauzak jakiteko gogoia adierazi ahal izateko, umea bere gaitasunengatik baloratua izan behar da, bere buruan eta bere gaitasunetan konfiantza eduki behar du, adimen eta giza hazkundearen lehenengo motorra autoestimua baita. Horrek esan nahi du, haur bakoitzari bere nortasunaren aitortpena egin behar zaiola: izendatzen zaitut, ez naiz zutaz ahazten, ez dut zure jokabidea besteekin alderatzen, egiten duzuna baloratzen dut eta esaten didazuna entzuten, zure ikuspuntua baloratzen dut. Baita ere: interes emozionala eta intelektuala daukat egiten duzunari buruz, interesgarria da, esanahiak eta helburuak ikusten ditudalako, okupatuta zaudela ikusteak pozten nau ni ere zurekin ari bainaiz, gustura sentitzen naiz zure gurasoei lortu duzuna esplikatzerakoan, baina baita, ikusi dut arazoren bat sortu dizula, zure ibilbideen mugimenduak grabatu eta argazkietan jaso ditut, besteekin izan dituzun elkarrizketak transkribatuz. Haur guztiei gauza hauek adierazten jakin behar du hezitzaile batek.

Umeen elkarrekintza talde txikitako lanean

Malaguzzi-k (2001), ondorengo puntu hauetan laburtu zuen umeen elkarrekintza talde txikitako lanean:

- Umeak bere ingurunearekin elkarrekintzan ikasten du, helduen munduarekin eta, bereziki, kideekin. Horrela bere NIaren eraikuntzan eta besteenean parte hartuz.
- Umeen arteko elkarrekintzak berebiziko garrantzia du beraien lehenengo urteetako esperientzian. Eskaera bat da, desio bat, ume guztiek daukaten beharra eta egoera egokiek aseko dutena.
- Umeen auto-ikaskuntza eta kide-ikaskuntzaren aitorpenak garrantzi handiko rola jokatzen du jokabideen eta ideien antolaketan, berauek izanik, haur hezkuntzaren estrategien eta prozesuen helburua.
- Umeen elkarrekintzak mahai gainean jartzen ditu jokabide sozialak, emozionalak, komunikaziozkoak eta kognitiboak. Edukien aldagaiak eta elkarrekintza moduak izango dira ikuspuntu desberdinen kalitatea eta kantitatea marraztuko dutenak. Aberastasun hau ez da azaleratzen umeak bakarrik dabilzanean.
- Elkarrekintza bakoitzak, beraz, aberaste handiago bat ekar dezake, pertsonen arteko harremanetan, entzute-erantzutearen gaitasunean, aldaketa mimiko eta linguistikoetan, kideen berraurkitzean, ezagutza eta jakin-min berrien lorpenean eta gaitasun sinbolikoaren garapenean.
- Elkarrekintzek kooperazio izaera errazago bat izan dezaten, beharrezkoa da adinak eta heldutasun mailak eta umeen garapena oso anitzak ez izatea. Aspektu hau kontuan hartzea komeni da proiektuak aukeratzerakoan eta umei proposamenak eskaintzerakoan.
- Gizarte-psikologiatik datozen teoriak baieztatzen dute, umeen elkarrekintzetan gatazka kognitiboak eta beste mota batzuetakoak ematen direla –nortasunaren garapenarekin zerikusia dutenak—. Modu honetan, autoritate edo menpekotasun handiko harremanak sortzen ez direnez, umeak gatazkaren esanahia ulertzeko prest agertzen dira.
- Gatazkek ez daukate maila kognitibo jakin batzuetan umeek dituztenak baino aurreratuagoak diren efekturik sortu beharrik. Hala eta guztiz ere, hau abantaila moduan ikusi beharko genuke, gatazkak oposizio, disonantzia,

diferentzia moduan hautematen ditugulako eta eragin eta aurrerapen kognitiboak ezin dira beti berehala ikusi: aurrerago azal daitezke. Arazo bakoitzak gatazka kognitiboak sor ditzakeenez, hauek kide-eraikuntza jar dezakete martxan akordio kooperatiboen bitartez.

- Ilya Prigogine-rekin bat gatoz esaten duenean ez dela gutxietsi behar ausazkoaren (aleatorioa) eta gorabeheren papera.
- Aitortu behar dugu, eraikuntza sinbolikoak neurri batean behintzat, trebetasun kognitiboetatik eta jokatzeko moduetatik eratortzen direnez, umeen elkarrekintzetan paper handia jokatzen dutela; hauek ahalbidetzen dutelarik errealitatetik aldentzeko gaitasuna eta abstrakzio konbinazio prozesuen hastapena.
- Aldi berean ezin dugu ahaztu simulazio jokoek duten rola (txikiengan horrenbeste azaltzen direnak), inteligentziaren garapen sozialean, desioaren garapenean eta elkarrekin egoteko eta jarduteko bermean. Guzti honek laguntzen du sinboloaren eraikuntza.

Umeen arteko kooperazioa

Zer esan nahi du ume txiki talde batentzat elkarrekin lan egiteak?

Oraindik ez dago umeen garapen kooperatiboari buruzko ikerketa gehiegirik. Oraindik ez da baloratzen neska-mutilen lana behar den bezala. Ikuspegi sozial eta kulturaletik, uste dut, umeekin egoten diren umeak salbazio taula handi bat direla, eredu errepikakorrei dagokionez aukerak eta erabilgarritasun berriak eskainiz. Talde txikian umeez ezartzen duten harreman bereziak ez du familiako erlazio ereduaren parte osatzen (erlazio hauek oso estuak dira). Beste zerbait da.

Ordu arte helduekin eta objektuekin etengabeko elkarrekintzan bizitu den haurra, lehenengo aldiz hasten da beste umeekin harremanetan jartzen eta, horregatik, bere posiziotik eta besteen posiziotik desplazamendu literario bat egiten du.

Kontuan hartzeko hirugarren elementua da talde txikiak ahalbidetzen diola umeari bere ideiak eta besteenak ez datozela bat konturatzea, beraz, ohartzen da, besteen ideietatik desberdinak diren ideia propioak dituela. Ordu arte bere ideiak erabili ditu bereak zirela jakin gabe. Beraz, momentu honetan, umea deskubritzen hasten da printzipio, teoria, ... propioak dituela. Printzipio eta teoria horiek, beste lekuetan, beste zibilizazioetan, beste kulturetan ere existitu daitezke.

Arrazoi honexegatik sozializazioaren zentzuak elementu guzti hauek eduki behar ditu kontuan, umeak behatuz eta errebisio bat eginez. Ume horiek, lehendabiziko aldiz, gai garrantzitsuak negoziatzen ari dira.

Negoiazioa helduarekin egitea zailagoa da. Hau, oro har, konturatzen da mundua anitza dela eta umeek gauzak berraurkitu ditzaketela ideien negoziazioaren bitartez eta, ez bakarrik, oraindaino arte pentsatzen zuen bezala sentsazioen bidez. Adiskidetasunaren sentimenduen balioa deskubritzen du. Eta, lehenengoz, ohartzen da umeak ideien sortzaile direla; eta, bitartean, mundua eraldatzeko zentzuak konturatzen da eta hainbat mundu posibleen koexistentziaz.

Ume guztiek, dakitena adierazteko behar handia daukate, egiten dakitena, eta helduari aditzera ematen diote, helduak jakingo duelakoan beraien beharrak egoki jasotzen, benetan hautemateko gai izango delakoan.

Bi umeren arteko negoziazioan ideien arteko talka sortzen dela konturatzen da heldua. Baina desadostasun hauek ideien xurgatzearen gaitasunari esker kitatuta (absorbituta) gera daitezke; umeek ez baitute dakitena hainbestearainoko arretarekin gordetzen. Eta oso ondo dakite ideiez aldatzen. Hau, elkarren arteko negoziazioan umeren batek presio motaren bat ezar dezakeelako da horrela; presio hori, hala eta guztiz ere, helduek egiten duguna baino jasangarriagoa da.

Beste elementu garrantzitsu bat da ohartzea umeen elkarren arteko kooperazioan aldizkako momentuak izaten direla: une batean harreman baten ikerketa nagusitzen da, harreman on batena; eta besteetan, aldiz, seduzitzeko edo besteen sedukzioa jasotzeko beharra gailentzen da. Umeek ere liluratzearen gozamina esperimentatzeko beharra dute.

Ume guztiek, besteen ideiekin ados ez daudenean ere (eta momentu horretan ez badute esplizitu egiteko aukerarik), beren buruari, lehen besteekin adieraztea lortu ez dutena, geroago adierazteko gaitasuna, aukera eta baliabideak dituzte. Beraz, umeek beraien ikuspuntuaren adierazpena atzeratzeko gaitasuna dute.

Umeen arteko kooperazioan argi ikusten dugun gauza bat da, (eta portaera etikoaren planoan aitorpena izan dezakeena) umeek elkarrekin lanean ari direnean egoera dagoen moduan mantendu egin nahi izaten dutela eta ahal duten guztia egiten dute ezadostasunen gainetik hori lortzeko.

Azken bolada honetan ikusi ditugun jokoetan, badaude ume batzuk susmoa, sena, adimena eta antolatze modu aberatsagoak dituztenak besteekiko. Baina, ume

“aurreratuago” horrek proposatzen duena besteek onartu egiten dute; ez lukete berdin onartuko proposamena helduarengandik etorriko balitz. Helduak, proposamena beste modu batera egingo zukeen, beste hitz batzuek erabiliz. Umeen arteko elkarlaneko negoziazioan badago beste elementu bat ere, bariazio linguistikoa: umeen arteko ideien komunikazioa dago elkarrekin lan egiten dutenean (eta, behar bada, lehen aldiz), eta erlatibitatea azaleratzen da. Ziurtasun handiarekin sartzen dira jokoan eta, momentu batean, esaten dute: ez dakit nire ideiak onak diren denentzat... Korrelazio moduko batean sartzen hasten dira, integrazioa, elkartzea, hipotesiak eta ideiak aurreikusteko aldiak; norberaren erlatibitatearen zentzuarekin eta besteen erlatibitatearekin. Existitzen da, nire ustez, kode linguistikoaren aldaketa bat haurraren irudi egozentrikoarekin bat ez datorrena, eta, nire ustez, umeengan existitzen ez dena.

Aztertu dugun proiektu baten eraikuntzan behatu dugun elementu garrantzitsu bat gatazka kognitiboena da.

Gatazka kognitiboak suposatzen duen printzipio, ideia, soluzio, eta abarren arteko bat ez etortzea oso emankorra da, nahiz eta ez den pentsatu behar, beti eta derrigorrez, aberastasuna gatazkaren bitartez etortzen denik.

Kontuan hartu behar da ere gatazka modu ezkutuan, esan gabeen edo geldiarazita existitu daitekeela. Bestelakotasun hau sentitzen denean, konfigurazio desberdin baten antzeko zerbait agertzen da, umeek gerora gertatuko denari buruz egiten dutena. Modu honetan hauteman ditzakegu, behar bada, umeen ehun hizkuntzak, baina, ez banakako ilaran lerrokatutako ehun hizkuntza bezala, horizontalki eta bertikalki ikusiz, eta honek biderkatu ditzake ehun hizkuntzen aukerak amaigabeak izan arte.

Beraz, elkarlanean, aukera guztiak eraldatzen dira, umeek daukaten ondare kontzeptual eta linguistikoa; ahozko ondarea, ez ahozkoa, eta, baita ere, emozionala. Garrantzizkoa litzateke, helduek sentsibilizatuko bagina umei egindako grabazioen eta testuen irakurketa eta interpretazioa egin ahal izateko. Irakurketa honek, marrazkien kasuan bezalaxe, laino gabeko ikusmena berrezartzen du, hitzen esanahia testuinguru bakoitzean grabatutakoaren arabera interpretatuz.

Momentu horretan ohartzen gara jarraipena eta anitza den ahokatze bat existitzen dela, forma desberdinak eskuratzen dituen, orokorrean aurrerapen bat sortzen duena eta toki desberdinetatik datorren ekarpenaren fruitua dela. Une honetan, behar bada, umeen intuizioa eta oroitzapena, lehendabiziko aldiz, gehitzen

dituen aukeren aurrean aurkitzen gara. Egoera abantailatu honek, umeak sukalde handi batean edo laborategi handi batean egotea ahalbidetzen du eta erabat transformatzen ditu.

Hemen, kontuan hartu behar dugu ere, sinboloek daukaten garrantzia; hauek laguntzen baitute umea bere garapen mailatik distantziatu ahal izatea. Neurria hartu behar zaio egoera honi, elkar gurutzaketak, trukaketa eta negoziazioa, baina, aldi berean, gehiegizko desorekak ekidinez. Beraz, onena da, umeek esperientziak leku guztietan egin ditzatela, beti ere kontuan hartuz, beraien arteko diferentziak handiegiak ez badira.

Gatazka kognitiboak konpontzeko modua ez da bakarrik borroka eginez, maitasunezko egintza edo lasaitasunezko eta baretasunezko egintza bidez egin daiteke.

Bukatzeko, har ditzagun Malaguzzi-ren hitz hauek: umeek elkarrekintzan aritzeko prest daude baina, elkarren artean lagunak edo maisuak izatera helduen eta irakasleen ereduak interpretatuz iristen dira; heldu horiek egoten, lan egiten, eztabaidatzen, pentsatzen eta elkarrekin ikertzen dakitenean.

6

ERREFERENTZIAK

6 ERREFERENTZIAK

Arantzazuko Ama Ikastolak Antzuolako Herri Ikastetxearen proiektuan oinarritzen du bere proposamena eta, bigarren ikastetxeak, Harri Berri Ikastetxeak, Amara Berriko sisteman du oinarria. Horregatik, ondorengo lerroetan azalduko ditugu bi proposamenen faktore nagusienak:

6.1 Antzuolako Eskolaren Proposamena

Hogei urte baino gehiago dira Ikastetxe hau konstruktibismoaren teoriarekin harremanetan jarri zenetik. Konstruktibismoaren teoriak irakasleon entzuteko gaitasuna garatzeko eta ikasleen aurrean kokatzeko modu berria eraikitzen lagundu die –beraien hitzetan– Hik Hasi, 10. monografikoa, 2003; hezkuntza teoria propioa eraikitzen.

Ikaslea era globalean ulertzen dute; dimentsio afektibo-emozionala, sentsorial-motorra, harremanezkoa eta kognitiboa batera azaldu eta garatzen dituzte.

Ikaslea jardueraren abiapuntuan ipintzen dute: ikasle bakoitzak sentitzen duena, pentsatzen duena, munduan egoteko eta berau interpretatzeko duen modua, bizitzeko eta elkarbizitzeko duen era... Beraz, jardueraren abiapuntuan sentsibilitateak egongo dira, gauza bera egiteko era asko, alderdi baten aurrean kokatzeko modu bat baino gehiago, kontzeptu bera interpretatzeko bestelako moduak...

Ikaslearen adierazpen globala eta bakoitzaren ezaugarri propioak azaltzeko, Ingurune Hezitzailea sortu beharra dago. Ingurune horrek ikasle bakoitzaren ongizatea berma dezan eta bere segurtasun afektibo-emozionala ziurta dezan, baldintzak jarri beharko dira: besteekiko lotura gozamenez bizitzea eta bere behar eta desioak ezagutu, antzeman eta zainduko direla ziur izatea. Irakasleak bideak jarriko ditu ikasleak bere behar eta desioak adieraz eta ase ditzan edo horiei eutsi diezaien, adierazpenaren ispiuarena eginez, emozio, sentimendu, bizipen eta desioez ohartzen lagunduz, emoziotatik urruntzeko. Segurtasun horretan finkaturik, ingurunearekin elkarrekintzan jartzeko prest azalduko dira ikasleak.

Ikasleek bizi duten errealitatea aztertu eta ulertzeko baliabideak eskuratzen lagundu behar du inguruneak, euskarri etiko eta moralak eskuratuz, errespetuan, elkartasunean eta ardurakidetasunean oinarritutako harremanak eraiki ahal izateko.

Inguruneak pentsaera bultzatu behar du eta bakoitzari bere kabuz pentsatzen lagundu. Pentsatzeko eta sentitzeko moduak errespetatuz, ideien trukea bultzatu behar

du. Irakaslea arrazoiketa prozesuetan eragiten saiatuko da, bere boterea modu konstruktiboan erabiliz, balioak eta portaera arauak ikasleak berak eraiki ditzan.

Antzuolako Ikastetxeko taldeak eraiki duen Hezkuntza Teoriak ikasleen eta irakasleen zereginak birdefinitzen ditu. Irakaslea erdigunetik kendu eta ikaslea jartzen du bere tokian. Elkarrekintza horretan denek ikasten dute.

Oso garrantzitsuak izan dituzte konstruktibismoak eragin dizkien gogoetak marko teorikoa erakitzeko. Oinarrian hiru ideia nagusi hauek azaltzen dituzte:

- a) “Ezaguera barne prozesu baten ondorioz eraikitzen da. Prozesu hori dinamikoa da eta ikasleak inguruarekin duen harremanean gauzatzen da”
- b) Bakoitzaren ezaguera elkarreraginaren bidez eraikitzen dela onartzen badugu, gauza bera pentsatzen dugu kolektiboek dagokien ezaguerari buruz ere. Kolektibo guztiek kulturak eraikitzen dituzte inguruarekin duten harremanean, galdera konplexuei ematen dizkieten azalpenetan...
- c) Bada ikasleengan pisu handia duen beste ezaugarri bat: kolektiboaren kulturak duen eragina. Jaiotzen direnetik kulturaren ezaugarriek eragina dute ikasleengan, eta ondorioz, ezaugarri horiei zentzu propioak ematen dizkiete: letrak, zenbakiak, fenomenoak, gertaerak... presente daude beraien buruetan, azalpen, justifikazio eta ikuspegi pertsonalekin.

Ondorioz, ezaguera eraiki nahi badugu, ikasleek dituzten ideiak ezinbestekoak izango dira. Une honetan gure helburua haurrek dituzten ideiak ezagutzea izango da, eta ideia horiekin zer egin behar dugun jakitea.

Nola ezagutu ikasleen iritziak

Normalean “zer dakizu...” galdera egoten da irakasleen aldetik. Beraiek ez dute galdera hori hainbat testuingurutan egokia ikusten, batez ere ikasleak ez dituelako hausnarketa erregistroan kokatzen, baizik eta gogoratze erregistroan. Ikasleak pentsatzen duena horrelako zerbait izan daiteke: “Hartu al dut inoiz horri buruzko informaziorik, gogoratzen dut? Bai? Ez?”

Horregatik, beraien aburuz, edozein gairen inguruan askoz interesgarriagoa da “dakiena” azaltzeko eskatu beharrean “iritzia” edo “uste duena” eskatzea.

Kontuan hartzeko beste alderdi bat ikasle batek ezaguerarekiko duen auto-estimua da.

Ez ditugu ikasleak ondo/gaizki egoeretan kokatuko. Egoera konplexuak erabiliko ditugu, non bere iritzia emateko askatasuna egongo den, eta gaizki erantzuteko eta ez jakiteko beldurra saihestua geldituko den.

Halaber, “ideiarekin ondo sentiaraztea” oso garrantzitsua izango da, baina zelan lortu hori?

Ideiarekin ongi sentiaraztea

Hauxe lortu beharko genuke:

- “Pentsatzeko gai naiz”
- Ulertua sentitzea
- Besteentzat garrantzitsua izatea

Ezinbestekoa da gelan giro berezia sortzea. Ideien artean ez dugu kompetentziarik bultzatuko, hain justu ere, gure intentzioa, alderantzizkoa lortzea baita: ideien arteko harmonia.

Behin ideiak ditugunean, zer egin areagotu daitezen?

Geletan gertatzen dena aztertu ondoren, hiru harreman mota bereizten dituzte:

- Errealitateko fenomenoekikoa:

“Nik esaten dudana/ikusten dudanak esaten didana”

Hemen probatu-aldatu erako jokabidea gauzatuko litzateke. Adibidez: haur batek ilargia gauaren ezaugarri bat dela pentsatzen duenean eta egunez ere ageri dela ikusten duenean, ...

- Besteekikoa: ikasleekikoa, adituekikoa...

“Nik esaten dudana/besteek esaten dutena”

Pentsaera batetik maila altuago batera saltoa emateko, badirudi oso garrantzitsua dela “gatazka kognitiboa” lortzea (“Hara, ez da horrela eta...!”). Egoera horretan haur batek saltoa porrotean erori gabe eman dezan, pentsatzen dute hitza harmonia dela; ideien arteko harmonia bilatu bakoitzaren argudioak eta arrazoiak ulertzeko.

- Irakaslearekikoa:

Bere esku-hartzeen bidez: giro bat sortuz, egoerak eskainiz, bakoitzarekin daukan harremanean hauraren ongizatea bermatuz. Ideien ispilu izango da, ideia ematen duenak ideiatik distantzia bat har dezan: – Aa!! orduan zuk

esaten duzu... – A! uste dut badakidala zer esan nahi didazun...Edo arbelean idatziz.

Antzuolako eskolaren helburu nagusia ikasleen ongizatea lortzea izango da, norberak bere pentsamendua eta taldearena areagotuz, argudioak, azalpenak eta komunikazioa baliabidetzat erabilia.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

Eta honetan haur taldeen antolaketarako hiru egitura dauzkate: 2 urtekoena, 3 eta 4 urtekoena eta, 5, 6 eta 7 urtekoena.

Gela zabaleko egitura bakoitzean espazio komunak dituzte: mahaiko eta lurreko eraikuntzak, ipuintegia, modelatua, marrazki eta irudikapen grafikoa, sormena eta mahai jolasak.

Gela bakoitzean eta talde bakoitzeko, topagune bat dago, etxetik ekarritako gauzak uzteko toki bat eta eskolan egindako lan grafikoak gordetzeko leku bat.

Egiturretan funtzionatzeko printzipioak ondorengoak dira:

- Pentsaera libreki zirkulatzeko aukera.
- Espazio, denbora, material, ekintza eta kideen hautaketarako askatasuna.
- Arazoei eta gatazkei aurre egiteko aukera.
- Mota askotariko harreman aukerak izateko aukera.
- Eraikitzeo aukera, hazkuntza prozesu pertsonala dela ulertuta.
- Helduarekiko autonomia izateko aukera.
- Iniziatiba hartzeko aukera.
- Ingurunea esploratzeko, ingurunean esperimintatzeko eta elkarreragiteko aukera.
- Entzuna sentitzeko aukera.

Printzipio Metodologikoak

Aipatu dugun bezala konstruktibismoan oinarritzen dute beraien metodologia eta proiektuen metodoa erabiltzen dute. Hona hemen kontuan hartzen dituzten hainbat printzipio:

.Ekintzaren garrantzia, garapena eta apendizaiaren prozesua aurrera eramateko.

.Globalizazioa, hauda, umeak globaltasun batean jasotzen du errealitatea. Globalizazioari esker, ikaskuntza esanguratsua erraztu egingo da.

.Gaien eta ekintzen aukeraketa, ahal den neurrian umeak aukeratuak. Aldez aurretiko ezagutzak hartuko dituzte kontuan.

.Aniztasunaren tratamendua. Ume bakoitzaren erritmoa eta garapena desberdinak direnez, intelektualki zein afektiboki, bakoitzaren trataera eta jarraipen indibiduala ahalbidetu nahi dute.

Egiturak eraikitzen joanez lortuko du haurrak ikaskuntza eta adimenaren garapena, umea 'konfliktoan' jarriz, bere erritmo eta interesak errespetatuz, dakienetik abiatuz, zalantzak eta elkarrekintza egoerak sortuz, bere erantzunak lor ditzan.

Adimenaren lorpenak zerikusi handia du autonomiaren lorpenekin. Irakaslearen papera funtsezkoa izango da adimen garapenari dagokion garrantzia emateko, ume bakoitzari trataera egoki bat eskaintzeko.

Sozializazioaren garapena. Prozesu honetan garrantzi berezia duten hainbat gai:

- Haurraren etapa bakoitzeko berezitasunak: atxikimendu irudi/ak
- Eskolatzeko prozesua bera: egokitzapen-aldia

Elkarrekintza. Aprestua eraikitzeko, behar beharrezkotzat jotzen dute pertsonen arteko eta pertsona-objektuen arteko erlazioa.

Printzipio hauek kontuan hartuz, denbora eta espazioaren antolaketa egokia sortuko dute, eta antolaketa zehatz hori behar den bezala aurrera eramateko, irakaslearen lan indibidualetik elkarlan koordinatu batera iritsi dira.

Metodologiari buruzko hainbat gogoeta

Ekintza:

Ekintza ikusten dute dela prestua prozesuaren iturri. Ekintza ezin da manipulazio hutsarekin nahastu. Manipulazioak, ikaskuntza-prozesuaren abiapuntu izan behar du, ondoren etorriko da barneratzea (barne-errepresentazioa eginez) eta azkenik gauzen errepresentazio mentalera iritsiko da haurra.

Hala eta guztiz ere prestuaren prozesua ez da beti "lineala" izaten, hau da, ez da nahitaez manipulaziotik hasi eta pixkanaka errepresentazio mentalera iristen. Manipulaziotik pasa gabe haurrak errealitatea ahoz edo grafikoki aztertzen dute, hau da, egoera barneratzeko ekintzatik pasatu beharrik izan gabe.

Hala ere, garbi dagoena zera da: dagokigun etapan kokatuz eta bertako haurren ezaugarriak ezagutzuz, EKINTZAK berak hartzen duela pisu gehien prestua prozesuan eta, gure lana errealitatea ekintza bidez ezagutu dezaten bidean jartzea dela.

Nola? Haurrak bere ekintza-egoeretan behatuz eta ondoren, prozesu horretan aurrera egin dezan bideak ugarituz, ekintza edo manipulazioa ahoz adieraz dezan ahalbideratuz behar den kasutan edota grafikoki adieraz dezan beste batzutan.

Globalizazioa: Gatazka kognositiboa:

Globalizatzeak esan nahi du, ezagupen sozialez jabetzeko egitura intelektualak martxan jartzea. Hau da, egoera berri baten aurrean, aurretik ikasitakoaz baliatzea, egoera horretatik atera ahal izateko edo egoera hori gainditu ahal izateko.

Globaltasuna aprendizaia esanguratsurekin zeharo lotuta dago. Haurrak aurretik barneratuak dituen ezagupenak eta ezagupen berrien artean konexio/lotura esanguratsuak ezartzen ditu. Konexio horiek benetan esanguratsuak gerta daitezten, irakasleok haurra konflikto edo gatazka kognitiboan jartzen saiatuko gara. Hau da, material, ekintza edo aipamen espezifikoaren bidez, haurraren estruktura mentala zalantzan jartzen.

Gatazka kognitiboa eman dadin irakaslearen paperak honako hau izan behar du: ikuspegi desberdinak entzuteko desioa, haurrak hartzen dituzten erabakiak onartzeko prest egotea, nahiz eta jakin erabaki hori desegokia dela, iritzi desberdinak jasotzerakoan eta sailkapenak egiterakoan oker daudenak gaitzetsi gabe, haurraren momentuko gaitasunak ezagutzea, haurren aurkikuntza intelektualetan gogoz parte hartzea, seriazio eta sailkapen desberdinen aurrean ez ohiko irizpideekiko interesa azaltzea, haurraren iradokizunak aurrera eramateko borondatea.

Globaltasuna Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleen ezaugarri bat denez, hau da, haurrak errealitatea modu global batean jasotzen duenez, eskolako denbora eta espazioaren antolaketa egiterakoan kontuan hartu dugu. Irakasleak sortzen diren esperientzi guztiak modu globalizatu batean eskainiko dizkio haurrari. Bertan, ezagutze edo garapenerako arlo edo diziplina desberdinei dagozkien ezaguera eta teknika diferenteak elkartzen direlarik.

Honek suposatzen du haurrak bere errekurtsio pertsonal guztiak praktikan jartzeko aukera izango duela.

Globaltasun egokia lortzeko aprendizaiaren egoerari eman behar zaio garrantzia. Aprendizaia egoera hauek haurraren ingurunearekiko interesetik sortzen dira. Egoera hauek irakasleak proposatuak edo probokatuak edo ikasleek aurkeztutakoak izan daitezke.

Irakaskuntzaren globalizazioak taldean lana egitera bultzatzen gaitu eta beharrezkoa da, talde osoak proposatzen dituen helburuak, landuko diren edukiak, emango diren pausoak eta kontuan hartuko diren irizpideak ezagutzea, lortutako apendizaiak nahikoa den ala ez kontsideratzeko.

Aniztasunaren tratamendua.

Heterogeneotasunaren tratamendu integratzaile batek zera suposatzen du:

- Alde batetik, aniztasuna onartzea eta bultzatzea, aberastasun kolektiboa suposatzen duen heinean.
- Bestalde, ikasleen egoera pertsonal, erreferentzia sozio-kultural, prozesuen aniztasun eta apendizaien erritmo aniztasunetik abiatuz, garapenerako diferentzia onartzea, emaitzen desberdintasunak asumituz eta behar denean konpentsatuz.
- Ikastolan, haurrak espaziotan ibiltzen direnean, material desberdina erabiltzeko aukera dute eta material berdina izanda ere, modu desberdin batean erabiltzen dute garapenaren arabera.

Espaziotan aniztasuna ematen denez, haurren arteko elkarrekintza bultzatzen da.

Lehen Hezkuntzako lehen zikloan, teknika instrumentaletan, garapenaren arabera talde homogeenok egiten dira, haur bakoitzaren erritmoa errespetatuz.

Hau horrela izan arren, eguneroko bizitzan ematen diren beste momentu guztietan, talde heterogeneotan lan egiten da, aniztasuna errespetatuz eta elkarrekintza bultzatuz. Honela, haurraren garapen orokorra orekatuagoa delarik.

Curriculumaren planteamendu orokorraren aukerak agortu direnean, eta haur baten hezkuntzak behar bereziak eskatzen duenean, egokitze kurrikular indibidualizatuak gomendagarriak dira.

Hezkuntza behar berezi guzti hauek, beti ere, erlatibo, tenporalak eta testuinguru jakin bati lotuak daudela ulertu beharko da, ez direla haurraren berezko ezaugarri tinko, alegia.

Sozializazioaren garapena.

Haurra, sozializazio prozesuaren bidean jartzen dugu ikastolan hasterakoan. Gure ikastetxean 2 urterekin ikastolatzen ditugu haurrak. Momentu hau gatazkatsua edo zaila izaten da eta honen zergatia jakin nahi badugu, haurra adin honetan zein

garapen unetan aurkitzen den jakin beharko dugu, hau da, haien berezitasunak zeintzuk diren.

Berezitasunak ezagutu ondoren, profesional bezala, bide hori erraztea izango dugu helburu.

6.2 Amara Berri Ikastetxearen Sistema

Ezaugarriak

Globalizazioa bizi-prozesu gisa eskola publiko bateko sistema ireki batean

Izate globala

SISTEMA GLOBALIZATU batek zera esan nahi du, sistema horretan etengabea dela tratamendu isolatuak, partzelatuak edota alde bakarrekoak gainditzeko irrika. Haur bakoitzak garatzen dituen bizi-prozesuak bultzatu nahi ditugu, beti-beti integralak, zatiezinak eta transferiezinak baitira.

Bizi-prozesua

Bizitza da gure Sistema eraikitzeke dugun abiapuntua eta oinarritzko lehengai. Gure geletan ari diren haurren bizitza, hain justu ere.

Ikasleen interesetatik abiatzen gara, betiere duten adinaren arabera jokatzuz eta, horregatik, jolasa eta helduen munduaren imitazioa dira gelen egituraren oinarria. Hauxe da, era berean, ikasle bakoitzaren berezko erritmoa errespetatzeko dugun arrazoi. Gainera, elkarren arteko alde eta ezberdintasunak nolakotasunak dira guretzat, ez bazterketarako arrazoiak.

Eta arrazoi berberetatik ez dugu arloka edo gaikako programaziorik egiten, baizik eta bizitzako jarduera nagusien arabera, horrelakoetan gai guztiak elkarri loturik ageri baitira, ikasleentzat aldi berean erakargarri, hurbileko eta jolasgarria den jarduera-multzo baten inguruan.

Sistema irekia

SISTEMA IREKIA esaten dugu, eta ez soilik metodoa, hain zuzen gure ustez "metodo" eta "sistema" hitzen artean dagoen aldea azpimarratzeko. Izan ere, lehenak kontzeptu-errealitate amaitu bat deskribatzera jotzen du, errealitate itxi bat alegia: "metodoa" jarraitu behar da "metodoak" berak dagoeneko aurreikusi dituen emaitzak lortzeko. "Sistema" hitzak, aitzitik, ideia irekiago bat eskaintzen digu, ez bestea bezain definitu eta itxia aurrez, eta askeagoa eta aberasgarriagoa ere bai. Bizitza bera ere,

azken batean, horrelakoa da, eta gure lanaren oinarritzko materiala ere horixe dugu: gure haurren bizitza.

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

Ikastetxe Publiko bat izanik, Euskal Eskola Publikoaren Legeak definitzen dituen ezaugarriak onartzen ditu.

Gure ikasleriaren familien eta auzoaren baldintza gaztelaniaduna kontuan harturik, eskolak euskararen ikasketa eta erabilera bultzatu nahi ditu, baita gure herriaren ohitura eta kultura hedatu ere.

Halaber, aniztasunaren trataera konpentsatzaile eta integratzaile bat defendatzen du, ezberdintasunaren arrazoia edozein delarik: fisikoa, psikikoa, sozio kulturala (ekonomikoa, linguistikoa, arraza, sexua, pentsamendua, ...).

Eskola pluralista bat defendatzen dugu, baldintza politiko edo erlijiozkoetatik libre.

Etapako Helburu Orokorrak

Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomi Erkidegorako egokituta ikastetxe guztietara bidaltzen dituen helburu orokorrak lantzen dituzte. Helburu orokor horiek Haur Hezkuntzako 3 esperientzia eremutan sailkatuta dauzkate: Nortasuna eta Autonomia Pertsonala, Ingurune Fisiko eta Soziala eta Komunikazioa eta Errepresentazioa. Ondoko hauek dira Helburu Orokorrak:

1.- Norbere gorputza gero eta gehiago ezagutu eta kontrolatu, bere buruaren irudi positiboa eta identitate sexuala garatzeko, bere gaitasuna eta ekintza edo adierazpen mugapenak baloratuz eta osasun eta ongitasunen oinarritzko ohiturak lortuz.

2.- Ohizko jardueretan gero eta autonomia gehiagoz aritu, segurtasun afektiboa lortzen joanez eta bere buruarekiko ekimen eta konfiantza ahalmenak garatuz.

3.- Giza harremanak gero eta esparru zabalagoan ezarri, norbere interesak, ikuspuntuak eta ekarpenak gainerakoenekin progresiboki erlazionatuz.

4.- Nagusiekin eta bere adinekoekin harremanetan aritu, sentiberatasuna erakutsiz, ezberdintasunak errespetatuz eta lankidetzaz jarrerak garatuz.

5.- Hurbilen dagoen ingurunea jakin nahiaz eta arretaz behatu eta aztertu.

6.- Inguruneko kultura ezagutu eta berarenganako begirunea, interesa eta parte hartzea garatu.

7.- Bizi, ezagutu edo asmatutako zenbait alde erreal gogoratu eta antzeztu eta jokoaren bidez adierazi.

8.- Ahozko lengoia erabili eguneroko komunikazio egoera ezberdinetan ulertzeko eta besteek uler gaitzaten: norbere ideiak, sentimenduak, esperientziak eta nahiak adierazi, esanahiak egin, norbere portaera arautu eta besteengan eragin.

9.- Guztion eskuetan dauden baliabideen bidez adierazpena aberastu, arlo ezberdinen bitartez: plastika, musika, gorputz-espresioa...

10.- Errealitatearen zenbait aspektu, joko edo beste arloen bidez adierazteko gai izan: hizkuntza, matematika...

Ikastetxeko Helburu Orokorrak

Nortasunari, Garapen Sozialari eta Ikasketei dagozkien Ikastetxeko Helburu Globalak

Nortasunaren Eskakizunak

- Gorputzak eskaintzen dizkion sentimendu eta beharrak aurkitu eta ezagutu.
- Hizkuntzaren bidez bere mundu afektiboa adieraz dezala: plastikoa, korporala, ahozkoa, joko sinbolikoa.
- Bere ekintzak burutzerakoan hasieratik amaiera arte kontzentratzeko gai izan dadila.
- Giro lasaia aurkitu eta gozatu: ahots tonu moderatu batez kooperatuz; desplazamenduetan bere gorputza kontrolatuz bai gelan eta bai pasilloetan.
- Jokaera eta pentsamenduzko autonomia lor dezala.
- Baloratua izan dadila bere burua autobaloratu ahal izateko eta besteak baloratzeko, ezberdintasun indibidualetaz kontziente izanik.

Eskakizun Sozialak

- Bestearen presentzia aurki dezala eta errespetu eta laguntzazko ohiturak gara ditzala: elkarriketan parte hartzerakoan, hitz txanda; besteen interbentzioak entzuterakoan; denon materialaren erabileran; funtzioen banaketan; agurtzeko erabiltzen diren giza formulen erabileran.
- Beharrezkoa denean laguntza eskaini, eskatu eta jasotzen jakinaz.
- Euskal kultura, ohitura eta erabileretan ezagutu eta parte har dezala: betiko jaiak; folklorea: abestiak, dantzak...

Ikasketazkoak

- Euskara eta gaztelania harremanetarako (komunikaziorako) eta ikasketetarako tresna bezala ezagutu eta erabil ditzala.
- Lan teknika eta trebetasunak gara ditzala: posturazkoak; arkatx, isipu, margo, prentsioa; mozketa, zulaketa, tolestaketa, ...

Metodologia

Printzipio Metodologikoak

Umea bere kontzepzio osoan, hau da, berezko interesekin, bere abiapuntuko eskema kontzeptual jakin batekin eta oraindik garatzeke dituen zenbait ahalmen eta gaitasunekin osatutako gizakitzat hartuz gero, honela berdefinituko genituzke eskola eraginkorraren berezko printzipio metodologiko batzuk: eskola, besteak beste, ikasleen garapen osorako eta gure heziketa pertsonalerako “jokaera gunea da”.

Printzipio hauek nabarmentzen dituzte:

- Indibidualtasun printzipioa
- Sozalkuntza printzipioa
- Aktibitate printzipioa
- Sormen printzipioa
- Askatasun printzipioa
- Globalizazio printzipioa
- Normalizazio printzipioa

Geletako Espazioen Antolaketa

2 URTEKOEN GELAK

-


HAUR HEZKUNTZA



3, 4, 5 URTEKOEN GELAK

-

HAUR HEZKUNTZA

Taldekatzeko irizpideak

-

2 URTEKO HAURRAK

- Hizkuntza eredu.
- Ordutegi bera:
 - 9 - 12 (9 -15)
 - 9 - 17 (9 - 15 eta 9 - 12)
- Batera ailegatu daitezela.
- Neska eta mutilen kopurua.
- Adina (azken hiruhilabetekoan izan direnen kopurua eta talde osoaren hilabeteen batuketa).

Kontuan izan, ahal bada:

- Hezkuntza behar bereziak eta kasu bereziak. Aniztasuna.
- Jarraipena izan duen egoitza (banakako kasuak ez hartu, ahal dela).
- Gurasoen euskara (aita eta ama/aita edo ama).

- Ikastetxean diren senideak eta datozen berriak.
- Izena (izen berdina dutenak ez bateratu, ahal dela).
- Haurtzaindegia.

Taldekatzeko irizpideak - 3 URTEKO HAURRAK

Helburua: taldeak orekatu ikasle bakoitzak behar duenari erantzuna emateko.

- Neska eta mutilen kopurua orekatu.
- Adin desberdinetako haurrak nahastu.
- Taldeak orekatu haurren izaera eta agertzeko era kontuan izanik.
- Haien artean dituzten harremanak kontuan izan, elkartzeko edo banatzeko.
- Kontuan izan hezkuntza behar bereziak. Norbanakoak / baliabideak.
- Taldeak orekatu ondoko hau kontuan hartuz: ikastetxean senideak dituztenak, jangela edo garraioaren erabiltzaileak, ...
- Familien aniztasunetik etor daitezkeen egoerak baloratu: erlijio-sinesmenak, jarrera ideologiko adieraziak, gutxiengo sozialak, atzerritarrak, ohikoak ez diren familia egoerak, ...

II. MARKO ENPIRIKOA

7

IKERKETAREN DISEINUA

II MARKO ENPIRIKOA

7 IKERKETAREN DISEINUA

7.1 Helburu Nagusia

Bi ikastetxeetako espazioen egitura, antolaketa eta erabilera behatu, aztertu, eta ondorioak azaltzea.

7.2 Helburu Orokorrak

- Geletako espazio egituraketa desberdinak eta erabilera deskribatu eta aztertzea.
- Eskolako espazioen diseinuak eta antolaketak duen eragina aztertzea.
- Ikerketa egin den eskola-espazioetako beharrak jaso eta adieraztea.
- Irakasleen zereginaren garrantzia behatu, aztertu eta transmititzea.
- Ikasleen egokitzapen-aldiko prozesua jasotzea.
- Ikasleen eguneroko jarduera behatu eta ondorioak azaltzea.
- Gurasoekiko harremana eta inplikazioa ezagutu eta aztertzea.
- Etorkizunerako hobekuntza ildo posibleak proposatzea.

7.3 Helburu Espezifikoak

- Ikastetxearen ingurunea aztertzea.
- Ikastetxeko eraikinen egitura eta diseinua aztertzea.
- Bi urteko haurren egokitzapen-aldiko prozesua behatzea.
- Gurasoen presentzia eta inplikazioa ezagutzea.
- Andereñoaren zeregina eta erabiltzen dituen estrategiak aztertzea.
- Irakasle eta gurasoen arteko komunikazioa ezagutu eta aztertzea.
- Materiala eta bere antolaketa aztertzea.
- Denboraren antolaketa ezagutzea.
- Autonomia mailan haurrek egiten duten garapena jasotzea, aztertzea eta ondorio partzialak adieraztea.
- Saio eta espazio desberdinetan agertzen diren elkarrekintza egoeren bilakaera jaso eta ondorio partzialak azaltzea.

7.4 Metodologia

Gure ikerketa-lana marko kualitatibo etnografikoan kokatuko genuke. Egoerak eta gertakizunak ematen diren espazioetara hurbildu eta murgiltzeak eskaintzen duen garrantziaz jabetuta, 4 ikasturtetan zehar konpartitu ditugu bertako protagonistekin hainbat momentu eta gertakizun esanguratsu.

Behaketa, hezkuntza ikerkuntzan gero eta gehiago erabiltzen den teknika da, informazio iturri zabala eskaintzeaz gain umearen ezagutza aberats eta osatuagoa edukitzen laguntzen digularik.

Umearen behaketa bere ingurune naturalean egiteak helburu hauek lortzen laguntzen digu, besteak beste:

- Gela barruan ezartzen den dinamika ezagutzea.
- Kideen arteko eta helduekiko elkarrekintza eta harremana nola sortzen den behatzea.
- Espazio eta materialetara egokitzeko prozesua nola ematen den ezagutzea.
- Autonomian egiten dituzten aurrerapenen bilakaera egiten joatea.
- Zailtasun eta arazoan aurrean umeek erabiltzen dituzten estrategia eta jokabideak aztertzea.

Aurreko helburuetatik jasotzen dugun informazioa ezinbestekoa izango da eguneroko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan sortzen diren umeen behar, interes eta gaitasunei erantzuteko.

Esan bezala, gure deskribapen eta azterketa lan hau aurrera eramateko, geletako informazioa jasotzeko erabili dugun teknika, besteen artean, eta batez ere, behaketa zuzena izan da. Erregistro-teknika deskriptiboa izan da, behaketa saio bakoitzean umeek talde handian, txikian, nahiz bakarka egiten dituzten jarduerak eta denborak adieraziz, edozein momentutan sortzen diren egoerak (kontaktu fisikoak, elkarrizketak, gatazkak...) azalduz. Behaketa egun bakoitzaren bukaeran, hurrek egindako jarduerak laburbildu ditugu tauletan. Saiotan hautemandako egoera, gertakizun etab., maiz, momentu berean edo saioaren bukaeran komentatu eta kontrastatu ditugu andereñoekin elkarrizketa ez-formaletan, eta horietatik ateratako ideia, iritzi eta elementu esanguratsuak azaltzen joan gara saio bakoitzean. Hiru hilabetetik behin andereño eta gurasoengandik haur bakoitzaren autonomia-ohiturei buruzko datuak galdeketa bidez jaso ditugu eta aurkeztu, ondoren, datu horien bilakaera eta ondorio partzialak islatu ditugularik. Ikasturte bakoitzaren ikuspegi

orokorra eta prozesua ulertu eta osatzeko asmoarekin, andereñoei egindako ikasturte bukaerako elkarrizketa erdi egituratuaren galdera-erantzunak agertu ditugu.

Bi ikastetxeetako prozesuaren jarraipenean gertutik bizitako esperientziari esker azaleratzen joan diren hainbat dimentsio garrantzitsuen artean, ondoko hauek azpimarratu nahi genituzke:

- Andereñoekin sortutako harremana eta elkarrizketa.
- Beraien inplikazioa eta lanari buruz gogoeta egiteko etengabeko jarrera.
- Eskola osoaren eguneroko bizitzaz jabetzeko aukera: aurrerapausoak, zailtasunak, gabeziak.
- Eskolako ospakizunetan eta eguneroko martxan parte hartzeko aukera: hamaiketakoak, haurren urtebetetzeak, Santo Tomas eguna, Danborrada, Azoka....
- Informazio trukaketak gogoetarako eskaini digun aukera.
- Gelaz kanpoko jardueren eta espazioen arteko loturak lortzeak duen garrantzia.
- Andereñoen zereginaren barruan ikuspegi eraikitzaile edo konstruktibistaren faktoreak eguneroko jardunean nola ematen diren behatzeko eta aztertzeke aukera.
- Eskolan egiten eta gertatzen dena gehiago dokumentatzea eta gizarteari publiko egiteak daukan garrantzia.
- Hezkuntza eragile guztien inplikazioa gehitzeko beharra, hau da, eskolaren zentzu komunitarioa lantzeko premia.
- Gure lanaren ondorioak eta gomendioak andereñoei transmititu eta etorkizunerako berrikuntza proposamenen aurrean elkarrekin lan egiteko konpromisoa.

Lanaren lehenengo aldian elkarrizketak egin ditugu, ikastetxeetako zuzendari, ikasketa-buru eta andereñoei, proposamena azalduz eta ikerketa gelak eta egutegia adostuz. Bigarren aldian, informazio bilketa egin dugu bisitak eta geletako behaketa eginez; aldi honetan, elkarrizketa formalak eta ez formalak ere tartekatu ditugu. Lanaren hirugarren aldian, informazioaren azterketa eta interpretazioa egin dugu, jasotako datu eta egoerekin ikasturteko bilakaera espazio edo txokoka azalduz eta ondorio partzialak atereaz. Laugarren aldian, aurreko elementu eta datuak kontuan hartuz ondorio orokorrak azaldu ditugu.

Metodologiari buruzko estrategiekin bukatzeko esan, momentu desberdinetan ateratako gelen eta espazio ezberdinen argazkiak tartekatzen joan garela deskribatutakoaren euskarri gisa.

7.5 Aldagaiak

Gure lanean deskribatu eta aztertu ditugun aldagaiak hauek izan dira:

7.5.1 Espazioa/en diseinua

Eraikina, gelak eta kanpoko espazioen diseinua hartu ditugu kontuan gure ikerketan, egokitasun mailaren azterketa egin ahal izateko. Horretarako, eraikinek neurri eta kalitate aldetik bete behar dituzten gutxiengo baldintzak zenbateraino betetzen diren aztertu dugu.

7.5.2 Espazioen alderdi fisikoen antolaketa

Gela/gelak, bainugelak, psikomotrizitate gela, jangela, piztina-halla eta patioaren antolaketa fisikoa azaldu dugu, txokoen edo espazio desberdinen zehaztasunak adieraziz.

7.5.3 Espazioen alderdi funtzionalak

Aipatutako espazioetan umeez lehenengo egunetik eta ikasturteetan zehar nola funtzionatzen duten adierazi dugu, bai beraiek aukeratzen dituzten txoko edo espazioetara hurbilduz, bai ume talde finkoetan lan eginez.

7.5.4 Materialak

Txoko edo espazio bakoitzean dauden material esanguratsuenak –haurren urteen arabera– eta horien erabilera, erakargarritasuna eta egokitasuna azaltzen joan gara.

7.5.5 Denboraren antolaketa

Egokitzapen-aldiaren hasieratik hasiz eta ikasturteetan zehar jarraitu duten saioen sekuentziazioa tauletan azaldu dugu eta behaketa saioetako deskribapenean azaltzen eta analizatzen joan gara.

7.5.6 Bi urteko haurren egokitzapen-aldia

Haurren lehenengo egunak eskolan duen garrantzia azpimarratu izan nahi dugu eta horretarako, bi ikastetxeen proposamenen zehaztasunak jaso ditugu, prozesu horretan inplikaturik dauden protagonisten (haur, andereño eta familia) zeregina, helburuak, eskakizunak eta abantailak adieraziz.

7.5.7 Jarduerak txoko edo espazioka

Ikasturteen zehar hurrek talde handian, txikian edo banaka egindako jarduerak, txoko edo espazioka jaso eta deskribatu ditugu, ikasturtean zehar emandako bilakaera aztertuz eta ondorio partzialak azalduz.

7.5.8 Gurasoen presentzia, harremana eta inplikazioa

Bi ikastetxeetan egokitzapen-aldiko garaian familiakoek duten presentzia eta inplikazioa aztertzeaz gain, ikasturteetan zehar gurasoek andereñoekin duten eguneroko harremana deskribatu eta aztertu dugu gure lanean.

7.5.9 Irakaslearen zeregina

Maiatzean, hurrengo ikasturtean eskolan hasiko diren umeak eskolara lehenengo aldiz etortzen direnetik, andereñoen zeregin konplexu eta erantzukizunez betetakoa deskribatzen eta aztertzen saiatu gara gure behaketa saio eta elkarriketetan.

7.5.10 Autonomiaren garapena

Haur bakoitzaren autonomia-ohiturekin zerikusia duten elementu hauek: elikadura, deskantsua, higiena, norberaren txukuntasuna eta autonomia, andereñoen, jangelako arduradunen eta gurasoen laguntzarekin, hiruhilabeteka jaso ditugu tauletan eta aztertu ondoren bilakaera eta ondorio partzialak azaldu ditugu.

7.5.11 Elkarrekintzaren garapena

Eskolatze lehenengo egunetik joan gara jasotzen eta deskribatzen elkarrekintzarekin lotutako hainbat egoera eta jardura: beraien arteko lehenengo kontaktu fisikoak, esaldiak, jolas sinbolikoak, elkarrekin egindako eraikuntza, antzerkiaren prestakuntza, etab. Ondoren, elkarrekintzari buruzko bilakaera eta ondorio partzialak azaldu ditugu.

7.6 Erabilitako Instrumentu edo Tresnak

7.6.1 Bi ikastetxeetan eskainitako txosten eta dokumentuak

Ikerketak iraun duen bitartean, bi ikastetxeetako zuzendari eta andereñoek eskaini dizkiguten ikastola-ikastetxeko txosten eta dokumentuek lagundu digute helburu, eduki, metodologia printzipio, egokitzapen-aldiko proposamena, gurasoekiko harremanak, etab. ezagutzen eta horiek islatu ditugu gure lanean.

7.6.2 Elkarrizketak

7.6.2.1 Lehenengo elkarrizketak zuzendari eta andereñoi

Helburuak:

- Gure lanaren plana azaltzea.
- Gelak eta datak adostea.

7.6.2.2 Elkarrizketa informalak andereñoi

Helburua:

- Behaketa saio bakoitzean sortzen diren egoerak planteatu eta ulertzea.

7.6.2.3 Elkarrizketa erdi egituratuak andereñoi

Helburua:

- Ikasturte prozesuaren bilakaeraren ikuspegi orokor bat edukitzea.

Galderak:

- Txoko edo espazio bakoitzaren antolaketa eta funtzionamendua, gelako txokoen erabilera, material eta ekipamenduaren balorazioa, ikasleen prozesua, irakasleen arteko koordinazioa, gurasoen harreman eta inplikazioa ikasturtean zehar, eta abarri buruzko galderak.

7.6.2.4 Elkarrizketa erdi egituratuak zuzendariei

Helburua:

- Ikasturtean zehar izan diren aldaketa, hobekuntza, familiekiko harremani buruzko informazioa ezagutzea.

Galderak:

- Ikasturtearen antolaketa, ikasturteko irakasle-taldea, gurasoekiko harremanak, administrazio eta udaletxeekiko harreman eta kudeaketari buruzko galderak.

7.6.3 Galdeketak

Helburua:

- Haur bakoitzak autonomia eta elkarrekintza mailan egiten duen garapena jasotzen joatea.

Informatzaileak:

- Andereñoak, gurasoak, jangelako arduradunak.

Ohitura hauei buruzkoak:

- Elikadura
- Deskantsua
- Higienea
- Autonomia
- Pertsonen arteko erlazioak
- Taldeko esperientziak
- Ordena
- Norbere txukuntasuna

Taula bakoitzeko, bataz beste 8-10 itemez osatua

Maiztasuna: 3 hiruhilabeteka

7.6.4 Behaketak

7.6.4.1 Behaketa saioetako asistentziaren taulak

Hilero egin ditugun behaketa saio egunetako haur bakoitzaren asistentzia tauletan azaldu dugu.

7.6.4.2 Egoeren eta jardueren behaketa

Egun bakoitzeko saioetan egindako jardueren eta egoeren behaketa eta deskribapenak, txokoka/espazioka deskribatzen joan gara.

Saioetako momentu esanguratsuetatik atera ditugun ideia, iritzi eta hainbat ohar azaldu ditugu.

7.6.4.3 Behaketa egunetako jardueren sintesi-taulak

Behaketa egun bakoitzeko ikasleek gelan edo beste espazioetan egindako jarduerak tauletan azaldu ditugu.

7.6.4.4 Autonomia eta elkarrekintza garapenaren taulak

Hiruhilabetetik behin jaso ditugu haur bakoitzak autonomiari buruzko ohituren garapena eta elkarrekintzarekin lotura daukaten egoerak.

7.6.5 Beste hainbat tresna

Ikasturteetako hainbat momentutan ateratako argazkiak tartekatu ditugu lan honetan; baita ere geletako eta eraikinaren solairuetako plano edo krokisak.

7.7 Laginaren Hautaketa

1999-2000 Ikasturtean jarri ginen harremanetan aukeratu genituen hiru ikastetxeekin, "Haur Hezkuntzako Geletako Espazioaren Antolaketa eta Erabilera" tesi-aurreko lana aurrera eraman ahal izateko. Ikastetxe hauek osatu zuten gure lagina: Altzako Harri Berri Ikastetxea, Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastola eta Antiguako Aita Larramendi Ikastetxea. Hiru ikastetxeotan egindako behaketa eta deskribapenen lana, 2000. urteko azaroan aurkeztu nuen "Ikerkuntza Gaitasun" probarako.

2000-01, 2001-02 ikasturteetan jarraitu genuen behaketa lanarekin eta gure helburuetako bat egokitzapen-aldia (eskolako lehenengo egunak) maiztasun gehiagorekin behatzea zenez, aipatutako hiru ikastetxeetatik bi ikastetxe hautatu genituen gure tesi lanerako: Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastola eta Altzako Harri Berri Ikastetxea.

Ikastetxe bakoitzetik bi urteko haurren gela bana aukeratu genuen, beraz, gela horietako haurrak izan dira gure lagina osatu dutenak.

Gure ikerketa ikastetxe hauetan egiteak interes handia zuen guretzako arrazoi desberdinengatik; batetik, Arantzazuko Ama Ikastola, Antzuola Eskolako esperientzian oinarrituta dagoelako eta, bertan, egokitzapen-aldiko prozesuari garrantzi handia ematen diotelako, eta bestetik, hiru urtetik aurrerako umeak espazio (gela) desberdinetan, "zirkulazio librean" funtzionatzen hasten direlako. Harri Berri ikastetxea, berriz, Amara Berriko esperientzian oinarrituta dagoenez, sistema horren bilakaera behatu nahi genuelako Amara Berriko sarea osatzen duten ikastetxe batean (Amara Berri ikastetxean lan egin bainuen nik neuk 1980-82 ikasturteetan). Gure behaketa eta deskribapen lana, 2 urteko umeen gelan izan zen 2000-01 ikasturtean zehar eta ume horien jarraipena egin genuen 2001-02 ikasturtean.

2007/08 Ikasturtean, berriro kontaktatu genuen ikastetxe horiekin, kontrastaketa lana egiteko helburuarekin, hau da, azken bost urteotan ikastetxean eta bere inguruan izan ziren aldaketak jaso, aztertu eta ondorioak ateratzeko asmoarekin. Horretarako, aurreko ikasturteetan azaldu eta aztertutako atal eta elementu nagusi berberak hartu genituen kontuan elkarriketa, galdeketa eta behaketa saioak eginez.

III. ERREALITATEAREN DESKRIBAPENA ETA ONDORIO PARTZIALAK

8

BI IKASTETXEAK

III ERREALITATEAREN DESKRIBAPENA ETA ONDORIO PARTZIALAK

8 BI IKASTETXEAK

8.1 Ikerketaren Aurkezpen Orokorra

Arantzazuko Ama Ikastola, Astigarragan eta Martuteneko Donostiako auzoan kokatuta dago. Astigarragan, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako etapak eskaintzen dituzte eta Martutenen, bi etapa horiez gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa; beraz, 2 urtetik 16 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu. Martutenen, 2 eraikinetan daude banaturik etapa horiek; batean, Haur Hezkuntzako 2, 3, eta 4 urteko gelak eta 2. eraikinean, 5 urteko Haur Hezkuntzako ikasleak, Lehen Hezkuntzako 3 zikloak eta D.B.H.-ko 2 zikloak. 100 m-ko distantzia dago eraikin batetik bestera ("El Pilar" etxe multzoa dago bien artean).

Harri Berri Ikastetxea, Altza auzoan kokatuta dago eta Haur Hezkuntzako etapako ikastetxea da, lehen zikloko 3. ikasturteko ikasleekin hasten direlarik (2-3 urte).

Guk, bi ikastetxeetan, Haur Hezkuntzako, lehen zikloko, 3. ikasturtea, eta bigarren zikloko, 1. ikasturtea hartu ditugu gure ikerketa lanerako; hau da, 2 urteko haurrekin hasi eta horien jarraipena egin dugu 2 ikasturteetan zehar.

Datak eta datuak

Bi ikastetxeetan egindako datu-bilketak, saioen deskribapenak, saio bakoitzean umeez egindako jardueren sintesi-taulak, irakasleekin izandako elkarrizketa, informazio, ohiturei buruzko taulak, etab., eranskinetako II. Liburukian agertzen ditugu. Arantzazuko Ama Ikastolan egindako lana, 1. orrialdetik 186.era azaltzen dugu eta Harri Berri Ikastetxekoa, berriz, 188.etik 332.era. Orrialde horietan esango genuke ikus daitekeela 2 urteko haurrak lehenengo eskola egunetik eta bi ikasturteetan zehar izandako prozesuaren bilakaera.

1999-00 ikasturtean, 3 urteko ikasleak izan ziren gure lagina osatu zuten haurrak, "Nahikotasun-proba" lanerako eta, 2000/01 ikasturtean, umeen egokitzapen-aldiaren prozesua jasotzea garrantzi handikoa ikusten genuenez, 2 urteko ikasleak hartu genituen gure tesi lana jarraitzeko eta, ume horien bilakaera jaso eta deskribatu genuen 2 ikasturtetan zehar (2000/01 eta 2001/02 ikasturtetan).

Lanaren datuak azaltzerakoan, aipatutako bi ikastetxe hauek horrela izendatuko ditugu: Arantzazuko Ama Ikastola (“A” Ikastetxea) eta Harri Berri Ikastetxea (“B” Ikastetxea).

Bi ikastetxeen azterketa egin ondoren, datuak azaltzen joango gara eta atalka, bilakaera eta ondorio partzialak adierazten.

Arantzazuko Ama Ikastolako eta Harri Berri Ikastetxeko zuzendariak eta andereñoek zuzenean eskainitako informazioa eta dokumentuetatik jasotako hainbat datu eta ezaugarriekin hasiko gara:

8.2 Auzoen Ezaugarriak

	A	B
Bilakaera: Biztanle kopurua	Demografi handitze nabarmen xamarra: 2100 biztanle 2001eko erroldan	Demografi handitze nabarmena 60-70 hamarkadetan
Auzo mota	Langile-auzoa	Langile-auzoa
Zerbitzu eta instalazioak:		
Garraioa	2 Autobus linea: .26 = Donostia - Martutene .A1 = Hernani - Donostia Renfe-ko Tren Geltokia	3 Autobus linea: .3 = Altza-Donostia .24 = Altza-Gros-Antiguo .H6 = Errrenteria-Hospitaleak
Anbulategia	Ez	Bai
Botika/k	Bai	Bai
Aurrezki Kutxak/Bankuak	Bai	Bai
Komertzio txikiak:		
- janari dendak	Bai	Bai
- jantzi dendak	Ez	Bai
Azoka	Ez	Ez
Komertzio handiak	Ez	Ez
Giza Zerbitzuak:		
-Haur eta gazteentzako espazioak:	Gazte Lekua (2000. urtean irekia)	Ez
-Plaza, parke, lokalak	Parke txiki bat (zaharkitua)	Bai
-Kultur Etxea	Ez	Casares Kultur Etxea
-Zentroak	Ez	Larratxo Hiritar Zentroa
-Elkartek	Gastronomikoak	Auzo Elkartek
-Polikiroldegia	Ez	Bai

	A	B
-Plaza, parkeak	Ez	Bai
-Frontoia	Ez	Bai
-Liburutegia	Ez	Bai
-Musika-eskola	Ez	Bai
-Eliza	Bai	Bai
-Postetxea	Ez	Bai
-Jatetxe, taberna...	Bai	Bai
Inguruko Hezkuntza Erakundeak:		
Publikoak	Amara Berri Ikastetxeko 2 urteko haurren gelak (Loiola auzoan)	Harri Berri / Altza Ikastetxea / Oleta Ikastetxea
Kontzertatuak	Ez	Ez
Pribatuak	La Salle-Loiola	Ez
Haurtzaindegiak	Ez	Roteta
Haur Hezkuntza	La Salle-Loiola	Altza Ikastetxea – Harri Berri
Lehen Hezkuntza	La Salle-Loiola	Altza Ikastetxea – Oleta Ikastetxea
D.B.H.	La Salle-Loiola	Ez

Auzoen instalazio eta zerbitzuei buruzko iritziak

.Martuteneko auzoan hainbat instalazio eta zerbitzu faltan botatzen dira, besteak beste, anbulategia, polikiroldegia, frontoia, ume eta gazteentzako espazio eta lokalak. Hernanitik Donostiara doan errepide nagusia erditik igarotzeak, kamioi eta ibilgailuen trafiko handia sortzen du eta arrisku eremua da. Haur Hezkuntzako eraikinetik oso hurbil pasatzen denez, ez du laguntzen ikastolaren ingurunean umeekin lasai ibiltzen eta jarduerak kanpoan egiteko aukerak gutxitu egiten dituela esan dezakegu.

.Altzako auzoak “herri” baten egitura duela esango genuke eta ikastetxearen hurbil instalazio eta zerbitzu gehiago daude, hala nola, anbulategia, polikiroldegia, frontoia, Harria Parkea. Hala ere, demografia handiko auzoa denez, etxez eta kotxez nahikoa beteta ikusten da eta ikastetxearen aurretik pasatzen diren kaleetan, trafiko dezentea egoten da. Eskolako inguruan jarduerak egiteko aukera handixeagoa dagoela esan genezake, baina, hemen ere, umeentzako eta gazteentzako espazioak falta dira.

8.3 Ikastetxeen Ezaugarriak

Identifikazio-datuak:	A	B
Izena	Arantzazuko Ama	Harri Berri
Kokagunea	Martutene	Altza
Ingurunea	Urbanoa	Urbanoa
Ikastetxe mota	Publikoa	Publikoa
Tipologia	Haur Hezkuntza	Haur Hezkuntza (2 eraikin)
Unitate kopurua	4	10
Ikasle kopurua	45	160
Ordutegia	09:00 - 12:00 14:30 - 16:30	07:30 - 09:00 (Goizeko Zaintza-Gela) 09:00 - 12:30 15:00 - 16:30
Jangela - Arduraduna	Bai Begoña Olaiz	Bai
Hizkuntza-Ereduak	D	B - D
Gelako Eredua	D	D
Gurasoen hizkuntza	Gaztelera oro har	Gaztelera oro har
Eskolaz kanpoko jarduerak	5 urteko ikasleentzat: - Judo - Soin erritmikoa	Musika Euskal dantzak Judoa Ballet-a
Gurasoen lanbidea	Zerbitzuak, enplegatuak,...	Eraikuntza, portua, zerbitzuak

8.4 Ikerketako Eraikinak

"A" Ikastetxea (Arantzazuko Ama)





"B" Ikastetxea (Harri Berri)





8.5 Ikerketa Geletako Irakasleak

IKASTURTEA	A	B	IKASLEEN URTEAK
1999-2000	BELEN OTAÑO	YOLANDA GONZALEZ	HIRU
2000-2001	ARANTXA GERENDAIN	MARGARI ARANBERRI	BI
2001-2002	ARANTXA GERENDAIN	MARGARI ARANBERRI	HIRU
ESPEZIALITATEA	HAUR HEZKUNTZA	HAUR HEZKUNTZA	
ESPERIENTZIA ZENTROAN	17 URTE 14 URTE	18 URTE 4 URTE	

Ikus daitekeen bezala, irakasle guztiak esperientzia handikoak dira eta ikastetxea ondo ezagutzen dutenez, faktore garrantzitsua izan da zentroaren historia eta bilakaerari buruzko galderei erantzun ahal izateko.

8.6 Haur Hezkuntza Etapako Helburu Orokorrak

	A	B
Helburu Orokorrak	Egokituak	Egokituak
Esperientzia Eremuka: . Nortasuna eta Autonomia Pertsonala . Ingurune Fisiko eta Soziala . Komunikazioa eta Errepresentazioa	+	+

Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomi Erkidegorako egokituta bidaltzen dituen Helburu Orokorrak dira abiapuntua bi ikastetxeek beren helburuak ezartzeko, beraien premia eta ezaugarriak kontuan hartuz. Helburu Orokor horiek Eranskinetako 2. eta 190. orrialdeetan azaltzen ditugu.

8.7 Metodologia Printzipioak eta Oinarriak

Metodologia printzipioak	A	B
	Ekintza	Indibidualtasuna
	Globalizazioa	Sozializazioa
	Gaien eta ekintzen aukera	Aktibitatea
	Aniztasuna	Sormena
	Egituren eraikuntza	Askatasuna
	Autonomia	Globalizazioa
	Elkarrekintza	Normalizazioa

Arantzazuko Ama Ikastola (A Ikastetxea), Antzuolako Eskolako ikuspegi konstruktibistan oinarritzen da eta aipatutako printzipioak hartzen dituzte kontuan beraien metodologia garatzerakoan; printzipio horien ezaugarrien zehaztapen eta gogoetak marko teorikoaren 6.1 atalean azaldu ditugu.

Printzipio metodologiko orokorreari erreparatuz gero, ikusten dugu, Proiektuetan oinarritzen dutela beraien globalizazio metodoa.

Harri Berri Ikastetxeak (B Ikastetxea), Amara Berriko sistema du erreferente gisa eta hauen metodologia-printzipioen garapena eranskineko marko teorikoaren 6.2 atalean azaldu dugu.

Beren globalizazio metodoaren ardatza Ipuinak dira.

Bi ikastetxeek, aipatutako printzipioak kontuan hartuz diseinatzen dituzte beraien geletako espazio/txokoak eta denboraren antolaketa.

8.8 Gurasoekiko Harremanen Antolaketa eta Garrantzia

	A	B
Egunerokoa	+	+
Elkarrizketak	+	+
Bisitak	+	+
Bilera orokorrak	+	+
Gelan presentziarik	Egokitzapen-aldian	Egokitzapen-aldian

Haur Hezkuntzako umeen gurasoekin etengabeko harremana daukate, eguneroko elkarrizketa eta informazio trukaketa presentziala, telefonoz edozein ohar edo galderei erantzunez eta, komunikazio "informal" horietatik aparte, ikasturte guztian zehar egiten dituzte bilera eta elkarrizketa indibidualak eta taldekoak.

8.9 Egokitzapen-Aldirako Proposamena

8.9.1 Arantzazuko Ama Ikastola

1. Haurrak taldekatu egiten dituzte: 2 talde 4 ume bakoitzean (gutxi gorabehera)
2. Ordu-tegiak: ordubeteko 2 txanda:
9:30 - 10:30
11:00 - 12:00
3. Haurrak ordubete osoan atxikimendu-pertsona berarekin egoten dira (ama, aita, amona, zaintzailea...)
4. Haurrak prest dauden heinean ordutegia luzatzen joaten da (haur bakoitzak bere erritmoa).
5. Espazioa: Egokitzapen-aldian gela bera.
6. Materiala: Ahalik eta ugarien eta erakargarrien.

Gurasoen papera

1. Umeari prozesua nolakoa izango den aldeaz aurretik azaldu.
2. Lasai egotea.
3. Aurreneko hiru egunetan gela barruan egotea, leku finko batean eserita. Ondorengo egunetan, gurasoentzako egokitzen duten espazio zehatzean, gelatik kanpo (hallean, gelatik gertu).
4. Umea ez behartu espaziora joatea, bere iniziatiba izan dadila.
5. Umeak jolasean hasi ondoren helduarengana jotzen badu, ONARTU (umea entzun, kontsolatu... baina, berarekin jolasean hasi gabe)
6. Umeen arteko AGRESIOen aurrean, LASAITASUNA erakutsi, adin honetan normala da eta.
7. Banaketa prozesua pixkanaka egiten da: Haurra prest dagoela ikusten dutenean, gurasoei egun bat lehenago jakinarazten diete, eta gurasoek umeari esango diote. Banaketa, hasierako egunetan laburra izango da,

10 minutukoa, ondorengo egunetan progresiboki luzatzen joango delarik.

8. Banatzerakoan AGURRAK ez luzatu.

Prozesu honetan beraien zalantzak argitzeko AHOLKULARI bat egoten da.

Bi urteko haurren hainbat ezaugarri jasotzen dituen taula

BI URTE DITUT ETA HORRELAKOA NAIZ

ONDOKOAK EGIN DITZAKET:

- . Nire buruarengan pentsatu
- . Nire premiak adierazi
- . Imitatu
- . Bakarrik jolastu
- . Laguntzarik gabe jan
- . Korrika egin, salto egin
- . Eskailerak igo eta jaitsi
- . Jostailu bategatik borrokatu
- . Komunikatu
- . Azturak hartu
- . Objektuak aztertu

ONDOKOAK EZIN DITUT EGIN:

- . Afekturik gabe hazi
- . Besteengan pentsatu
- . Egoera berrietara berehala moldatu
- . Denbora luzean arreta eutsi
- . Denbora luzean geldirik egon
- . Ahoz behar bezala espresatu
- . Beti esfinterrak kontrolatu

ONDOKOAK EZIN DUT EGIN BAINA IKAS DEZAKET

- . Nire gurasoengandik banandu eta beste pertsona helduekiko lotura afektiboak sortu
- . Beste batzuekin eta beste batzuen ondoan jolastu
- . Jostailuak besteekin konpartitu
- . Nire erritmo biologikoak egokitu
- . Autonomia neureganatu
- . Denbora batez eserita egon
- . Arreta eutsi
- . Aukeratu
- . Modu askotan komunikatu
- . Pixkanaka hitz egiten ikasi
- . Esfinterrak kontrolatu

Gurasoei eginiko inkesta

Ondoren azaltzen dugu, ekainean, 2 urteko haurren gurasoei egiten zaien inkestaren eredua:

Martutenen, 2000ko ekaina

2 URTEKO GURASOENTZAKO INKESTA

Haurraren izen abizenak.....

Zehaztu zein hilabetetan ikastolaratu nahiko zenuketen zuen seme edo alaba
.....

45 minutuko bi txanda egingo dira lehenengo egunetan. Aukera ezazue gurutze baten bidez egokien datorkizuen:

1. Txanda
2. Txanda

Jangela zerbitzua erabiltzeko asmorik baduzue.....

Umea arratsaldean ikastolaratzeko asmorik baduzue.....

Zuen seme/alabarekin beste lagunen batek ikastolaratu behar badu, bere izena jar ezazue:

.....
.....
.....

Besterik gabe, har ezazue gure agurra eta Iraila arte!

Gurasoekiko bilera

Arantzazuko Ama Ikastolan bi urteko haurren gurasoekin egiten duten bilera batean tratatzen dituzten gaiak azaltzen ditugu ondoren:

Bilera honetan 2 urteko haurren ezaugarriei buruz hitz egingo dugu

Jolasa:

- Materiala esploratzeko beharra
- “Denbora bereziaren” garrantzia (jolasean dabilen bitartean berarekin egotea, ez bakarrik bere ondoan egotea)
- Umea bata bestearen ondoan ibiltzen da jolasean

Atzerapausoak:

- Defentsa mekanismoa, batez ere jateko eta lo egiteko garaian agertzen dira (ziurtasun falta, zeloak, abandonatua sentitzeak... izan daitezke arrazoia)
- Hitzak jarri egoera guzti hauen aurrean

Kasketak:

- Ez berarekin tira-biran hasi, lasaitu arte itxaron eta berarekin hitz egin
- Garrantzizkoa ama-aitaren arteko adostasuna

Zigorak eta debekuak:

- Ez dira onak ume ziur bat eduki nahi badugu baina muga argiak jartzea beharrezkoa da

Errespetua:

- Elkarrenganako errespetua. Guk umeari ere adierazi behar diogu errespetua. Medikuarengana eraman behar badugu adibidez, aldez aurretik esan, zer egin behar dion ere, aldaketak denboraz jakinarazi. Abisatu gabe desagertzen bagara, mesfidantza sortzen diogu.

Plazerra- Errealitatearen printzipioa:

- Lagundu egin behar diogu plazerraren printzipiotik errealitatearen printzipiora egin behar duen bide horretan. Berehalako “beharrak” asetsetik (jostailu bat, arreta...) itxaroten ikastea (entzuten ikastea,...)
- Berehalako sari bat geroagorako ordezkatzeko gaitasuna

Hitzak-Sentimenduak:

- Ahoz adierazi
- Sentimenduei hitzak jartzen lagundu, beraiek ez dakite hori egiten
- Ez erabili benetakoak ez diren ereduak: “Ume handiak ez dute negarrik egiten”, “zein indartsua zaren”. Helduok ere beldurrak ditugu...

Aitaren papera:

- Pixkanaka bere tokia hartzen joan behar du eta amak onartzen jakin behar du

Agresibitatea:

- Ez da erreprimitu behar, kanalizatu baizik (koska egiten badu, koska egin ahal izateko tresnak eskaini)

Sexualitatea:

- Bere gorputza ezagutzea gustatzen zaio, baita besteena ere, jolasen bidez (“medikuen” jokoak hasiko dira)

Esfinterren kontrola eta txupetea:

- Heldutasun afektiboari lotua dago eta lasaitasun handiz hartu behar da
- Txupetea, pixkanaka, lotarako edo kontsolatzeko beharko du (gaizki ikusten dugunean eskaini eta behar ez duenean eskatu)

Hizkuntza:

- Aurrerapen handiak adin honetan. Komunikatzeko beharra sentitu behar dute
- Ez hitz egin 3. pertsonan eta txikigarriak erabiliz
- Asko hitz egin eta ipuinak kontatu

Oharrak:

- Egunaren antolaketa eta ordutegia.
- Gelako espazio desberdinetan egiten ditugun ekintzak: puzzleak, gometxak, ipuinak...
- Beste espazioetan egiten ditugun ekintzak: diapositibak, bideo saioak
- Astearen banaketa. Astearte eta ostegunetan “koltxoneta” gela (oinetako eta arropa erosoak)
- Karpetak. Garrantzia eman eta denbora eskaini
- Inauteriak eta beste festen antolaketa
- Irteerak: egun pasa, Txiki parkera...
- Hurrengo bilera

8.9.2 Harri Berri Ikastetxea

Eskolara lehenengo aldiz etorriko diren umeen gurasoekin, maiatzean egiten dute bilera. Bilera horren lehenengo helburua umea “eskolatzeak” zer suposatzen duen azaltzea da eta hortik aurrera ematen dituzten pausoak adieraztea. Garrantzi handia dauka “egokitze-aldiak” eta horretarako gurasoen presentzia negoziatzen dute eta ikasturtea bukatu aurretik umeak ekainean eskolara ekartzeko gonbidapena egiten diete (familiako norbaitekin). Hurrengo bilera irailean egiten dute maiatzeko bileraren ondoren, kezkak eta zalantzak argituz eta ikasturteko plan zehatzagoa azalduz.

Matrikulazio garaian familia bakoitzarekin egiten dute elkarrizketa, ikastetxeko eta gelaren funtzionamendua hurbiletik azalduz: ordutegia, ikasturte hasiera, eredu linguistikoak, metodologia, eskolak eskaintzen dituen zerbitzuak eta geletako bisita eginez.

Bi urteko haurren ikasturte hasiera

. Irailaren 12an hasi: 12, 13, 14ean ordubeteko saioa.

. Irailaren 17tik aurrera: 9:00etatik – 12:00etara, bakoitzak nahi duenean eta kasu batzuetan andereñoak beharra ikusten duenean.

. Familiakoak eskolan: irailaren 12an, hurrengo egunetik, beharrezkoa ikusten denean (andereñoaren esku). Bertan egotea behar ez den kasuetan, etxera edo erosketak egitera joango dira familiakoak.

. Irailaren 13tik aurrera, haurrak beraien andereñoarekin egongo dira gelan. Familiakoak haurrak agurtu ondoren joan egingo dira.

. Andereñoak emango dizkie mezuak gurasoei lasaitasuna adieraziz: ordutegiak, agurrak nola egin, jantziak, ...

. Eskolak ematen du behar adina laguntza gela guztietan diren hasierako premietan: negar momentuetan, fardel aldaketak, komunera lagundu, ... eta laguntzen duen pertsona hori, kanpoan egongo da etortzen direnei harrera egiteko eta behar duenari laguntza eskaintzeko.

. Irailean gurasoekin egiten den bileran azaltzen zaizkie aipatutako gai guzti hauek.

8.9.3 Gurasoak eta andereñoak egokitzapen-aldiko prozesuan

8.9.3.1 Gurasoekiko harremanak

Goian aipatutako etengabeko harremana oraindik presentzia sistematizatuagoan eta 'formalagoan' lantzen dute 1-2 urteko umeen guraso eta familiakoekin egokitzapen-aldiko prozesuan: gela barruko presentzian, gela ondoko espazioetan...

Ikastolarako hurbiltze prozesua maiatzean hasten da, umea ikastola, gela, andereñoa eta beste umeak ezagutzera gonbidatzen dutenean. Ekainean hasten dira gurasoekin lehenengo bilerak egiten, egokitze-bereizketa garaiko prozesuko aldi, helburu eta prozesu horretan parte hartzen dutenen arteko funtzioak lantzen eta irailean izaten dute jarraipena bilera horiek, lehenengo egunetako beraien presentzia eta eginkizunak zehazteko helburuarekin: zer egin umea hurbiltzen zaienean, nola jokatu gatazken aurrean, zer esan agurtzerakoan... Kontziente dira 'xeheetasun' txikiak hartzen duen garrantziaz eta egoera konplexu horri aurre egiten esfortzu handia egiten dute.

Benetan kontuan hartzen dute 'bereizketa' denentzako dela gogorra, bai umearentzat bai gurasoentzat, horrexegatik, apego edo atxikimendu irudiak zer diren, nola ematen diren, nola joaten den pixkanaka umea beste atxikimendu irudiekin konfiantza eta ziurtasuna hartzen, guraso edo umearekin eskolara etorriko den pertsonaren presentzia eta eginkizuna aztertzen dute eta seme-alaben eskolatze positibo baterako aipatutako elementu guztiek duten garrantzia transmititzen ahalegintzen dira.

Espazioa, ordutegia eta materialak, egokitzapen-aldirako bereziki antolatzen dituzte.

Ondoko helburu hauek azpimarratuko genituzke, besteak beste:

- Haur bakoitzaren berezitasunak kontuan hartzea.
- Haurraren interes eta beharretatik abiatzea eta lehenengo momentutik umea "entzunda" sentitzea.
- Atxekimendu irudiei duten garrantzia eskaintzea, babesa eta ziurtasuna eskainiz eta lotura afektiboak garatzen laguntzea.
- Konfliktuak ebazten laguntzea.
- Umeari prozesua nolakoa izango den alde aurretik azaltzen joatea.
- ...

8.9.3.2 Andereñoen zeregina

Espazio eta baliabideen antolaketa

- Gelako espazio eta materialen lekuak ondo zedarrituta/delimitatuta eduki.
- Baliabideak sortu, prestatu.
- Eguneroko jardueren sekuentzia mantendu.
- Material berriak egoeraren arabera sartzen joan.
- Espazio eta materialen antolaketari buruzko gogoeta egin.
- Moldaketak egin.

Hurrekin

- Ume bakoitzari harrera egiteko denbora hartu: 5-10 min urduri daudenean (haurra berarekin hartu: magalean, besoetan, ...).
- Ezaugarri, premia, interesak ezagutzen joan eta ulertzen saiatu.
- Atxekimendu figuretatik 'separatzeko' momentuetan lagundu.
- Hainbat momentutan umea goxatu, kontsolatu, entretenitu, ziurtasuna eta konfiantza eskaini.
- Haur bakoitzak dituen ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak kontuan hartu eta ideia eta egoera berriak eraiki ditzan lagundu.
- Sozializazioaren hastapenean lagundu.
- Espazio desberdinetako materialak probatzera gonbidatu.
- Egingo dituzten jardueren sekuentzia aldeztatik jakinarazi.
- Eguneroko errutinen momentu eta erritmoak errespetatu.
- Beraien arteko gatazken aurrean negoziaketetan lagundu, kontenitu/eutsi.
- Ohitura eta mugak ikasten joan dadin umeari lagundu.
- Aldatu, ura eskaini, bainugelara lagundu.
- Jarduera egokiak planteatu: abestu, ipuinak kontatu, dantza egin, joko desberdinak egin.
- Gelako dinamika eta egoeren aurrean erne egon.
- Umearen kontakizunak, gertakariak, sentimenduak entzun eta erantzuna eman.
- Gauzen zergatiak esplikatuz.
- Erabakiak hartzen lagundu.

- Autonomia eta pentsamendua estimulatuko duen giroa lortzen lagundu.
- Espazioak, materialak eta etxetik ekartzen dutena konpartitzen ikasten lagundu.
- Ume bakoitza behatu eta aurrerapausoak eman ditzan lagundu.
- Aldez aurretik umeari ondoren zer egin behar duen jakinarazi.
- Arauak gogorarazi.
- Zailtasunen aurrean animatu, gauzak probatzera gonbidatu, lagundu.
- Umeak berak egin dezakeena berak egitera bultzatu.
- Gatazken konponketan lagundu.
- Ekintza edo jokabide desegokia eta umea bera dena bereiztu: zu jatorra zara baina mina egin diozu.
- Egia esan: orain ama joan egingo da ogia eroatera eta segituan etorriko da.
- Erritmo lasaia erabili.
- Fisikoki eskutik heldu eta umeak egin behar duena egiten lagundu (nahi ez duenean).

Gurasoekin

- Harrera ona egin.
- Haurrak eguna nola pasa duen adierazi.
- Haurra ikastolan utzi behar duten momentuan banatzen lagundu.
- Ikastolara haurrak bateratsu iritsi daitezen gurasoei aholkuak eman (lehenengo saioa galduz gero kosta egiten zaie dinamikan sartzea).
- Entzun eta enpatia agertu: gaur egungo eguneroko bizitzan sortzen zaizkien zailtasunetan, ama gaixorik dagoenean, umeen eta familiakoen ebakuntza, ...
- Etengabeko kontaktuan egon: telefonoz, eguneroko harremanean, bileretan.
- Arauen, ohituren eta eskolan egiten dutenaren zergatia adierazi.
- Bileretan landuko diren gaien garrantzia transmititu.

8.9.3.3 Ondorio partzialak

Egokitzapen-aldiko prozesua era honetan sistematizatu eta antolatuta egiteak umeari eskaintzen dio:

- Aldez aurretik ikastola, gela eta andereñoak ezagutzea.
- Lehenengo eskolako momentuetan familiako norbaiten presentzia edukitzea.
- Espazio, ikaskide eta materialetara pixkanaka hurbiltzea.
- Andereño eta gurasoen arteko harremanaz jabetzen hastea.
- Bere sentimendu, behar, beldur eta kezken aurrean andereñoa “berarekin” dagoela ziurtatzen joatea.
- Bereizketa bilakaerako pausoak nola emango diren aldez aurretik jakitea: hasierako egunetan familiakoak gela barruan, gero gela ondoko espazioan, egun batzuetara minutu batzuetako joan eta itzultzen direla egiaztatzea.
- Konfiantzazko harremanak garatzen joatea.
- ...

Prozesu honek gurasoei eskaintzen die:

- Aldez aurretik ikastola, gela eta andereñoak ezagutzea.
- Haurrari lehenengo eskola egunetan laguntzea.
- Umearekiko bereizketa pixkanaka egitea.
- Bere seme-alabaren sentimendu, behar, beldur eta kezken aurrean andereñoa ‘berarekin’ dagoela ikusten joatea.
- Gurasoen beldur eta kezken aurrean andereñoaren laguntza jasotzea.
- Eskolatze hasieran umeak izaten dituen erreakzioak, portaerak, erantzunak, ... ikustea.
- Hasierako hainbat ohitura, muga, jarduera eta harremanak nola lantzen dituzten behatzea.
- Andereñoaren eginkizunak ezagutzen joatea.
- Irakasleekiko eguneroko harremanaren garrantziaz jabetzen joatea.
- Bereizketa prozesuko pausoak nola emango diren aldez aurretik jakitea eta prestatzen joatea.
- Elkarren arteko konfiantzazko harremanak garatzen joatea.
- ...

Prozesu honek irakasleei eskaintzen die:

- Haurra eta gurasoen arteko erlazioa behatzea eta hobeto ezagutzen joatea: interesak, ohiturak, estrategiak, beharrak, ...
- Gurasoekiko konfiantzazko harremanak garatzen joatea.
- Familiakoak irakasleen zereginak ezagutzen joatea.
- Familia bakoitzaren egoera, zailtasun eta interesak hurbilagotik ezagutzea.

Prozesu honek gurasoei eskatzen die:

- Egokitzapen-aldiak duen garrantziaz jabetzea.
- Prozesuak irauten duen bitartean ikastetxean egon ahal izateko modua aurkitzea: amak, aitak, amonak, aitonak edo etxeko norbaitek.
- Irakasleen aholku eta iradokizunak kontuan hartzea.
- ...

Prozesu honek andereñoiei eskatzen die:

- Egokitzapen-aldirako elementu guztiak prest edukitzea: gelako espazioak, materialak, umeak aldatzeko elementuak, gurasoentzako espazioa eta materialak (liburuxkak,...).
- Gurasoen presentzia eta inplikazioak suposatzen duen konplexutasuna onartzea.
- Gurasoei aholkuak ematea: umearen eskaeren aurrean, egiten duenaren aurrean, ...
- Ume bakoitzaren egokitzapen erritmoa errespetatzea.

Prozesua luzatzen duten hainbat faktore

Umearen asistentzia erregularra ez izatea. Ikasturte honetan haur dezente falta izan dira "B" Ikastetxean lehenengo hiruhilabetean eta etortzen direnean, asko kostatzen zaie eguneroko jardueretan sartzea eta ohiturak hartzen joatea.

Haurrari egia ez esatea: gurasoak eskolatik joan behar dutenean, konturatu gabe alde egitea; itzultzen, esanda baino denbora gehiago pasatzea,...

8.10 Gelen eta Espazioen Aurkezpena

8.10.1 Alderdi fisikoak

	A	B
Argitasuna	Argitsua	Argitsua
Berogailua	+	+
Eraikina	Sinplea	Sinplea
Azalera	60 m ²	60 m ²
Bainugelak	Gelaren parean (2 urtekoenak) Gela alboan (3 eta 4 urtekoenak)	Alboan
Solairua	Behekoan 2 urtekoak 1. solairuan 3 eta 4 urtekoak	Behekoan
Isolamendua	Isolamendu eskasa du	Isolamendu eskasa du

ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA

2 Urtekoen gela





3 Urtekoen gelak

Plastika gela



Eraiketa gela





HARRI BERRI IKASTETXEA

2 Urtekoen Gela



3 Urtekoen gela



8.10.2 Gelen egitura

Bi ikastetxeen kasuan, Haur Hezkuntzako eraikin hauek estrukturalki oso xumeak dira eta isolamendu aldetik ez dute gaur egungo arautegia betetzen. Gelak, oso argitsuak dira bien kasuan, leiho asko dituztelarik. Eraikin osoa argitsua da, erdi-erdian duen sabaileihoari esker, hortik sartzen baitzaie argitasun naturala, bai eta eguzkia ere. Berogailu-erradiadoreak babestuta egotea komeniko litzateke, haur txikiekin arrisku elementu bat ekiditeko.

Gelen antolaketa espazio edo txokoka

	A (2 urtekoak)	A (3 urtekoak)	B (2 urtekoak)	B (3 urtekoak)
Espazioak/Txokoak:	Espazioak	Espazioak	Txokoak	Txokoak
Gela batean espazio/txoko guztiak	Bai	Bi geletan	Bai	Bai
Txoko/Espazioak	Etxea Plastika Alfonbra Ipuindegia Puzzleak Eraikuntzak	Plastika gela Eraikuntzen gela	Etxea Margotegia Jolastokia Piszina	Etxea Margotegia Jolastokia Antzerkia
Taldekatze- irizpideak	Haurren aukera	Haurren aukera	Haurren aukera	Andereñoak
Espazio/txokoaren irekitze-prozesua	Progresiboki	Progresiboki	Progresiboki	Progresiboki
Txokoak/Espazioak zedarrituta/delimitatuta	Bai	Bai	Bai	Bai

Alderdi funtzionalak

	A (2 urtekoak)	A (3-4 urtekoak)	B (2 eta 3 urtekoak)
Espazio/txokoetako funtzionamendua	Umeen aukera	Zirkulazio librea	Umeen aukera (2 urtekoak) Errotazioa (3 urtekoak)

8.10.3 Espazio/Txokoaren antolaketa eta funtzionamendua

Bi ikastetxeetan, 2 urteko haurren gelak txoko/espazioen bidez antolatuta daude. Espazioak, pixkanaka joaten dira martxan jartzen, txoko bakoitzeko materiala eta arauak ezagutzen joan heinean. Bi urtekoekin, ez dute talde finkorik ezartzen, honela, txokoetako saioretan, haurrak berak aukeratzen du non ibiliko den. Espazioak

zedarrituta/delimitatuta dauzkate, bai banku edo altzari baxuak aprobetxatuz, nahiz lurrean itsatsita dauzkaten kolore desberdinetako zintekin.

“A” Ikastetxean, hiru urteko haurrak, “Plastika” gelan eta “Eraikuntza” gelako espazioetan hasten dira funtzionatzen. Hiru eta lau urteko haurrak nahasten dira jarduera desberdinetan. Goizeko harrera andereñoak beren gelan egin ondoren, gelak “irekitzen” dituzte eta “zirkulazio libreko” saioa hasten da. Haur bakoitzak aukeratzen du zein espaziotan arituko den lanean. Bi andereñoak, gela banatan egoten dira eta hamabostetik behin gelaz aldatzen dira zirkulazio libreko saioetarako. Gutxi gorabehera ordubeteko saioaren ondoren itzultzen dira haurrak beraien erreferentzia gelara.

“B” Ikastetxean, hiru urteko haurrak “errotazio-sistema” erabiltzen hasten dira eta horretarako, andereñoak talde txikiak ezartzen ditu irizpide batzuen arabera, hala nola: erritmoak, neska-mutilak, interesak, trebetasunak, nortasuna, ... kontuan hartuz. Talde txiki horiek finkoak izango dira beraien artean dinamika egokia lortzen bada.

Lau txokotan aldi berean funtzionatu ahal izateko, adibidez: “Tximeletak”, “Untxiak”, “Elefanteak” eta “Txindurriak”, talde bakoitza txoko batera joango da: etxera, antzerkira, margotegira, jolastokira. Horrela, errotazio-sistema honi jarraituz, txoko guztietatik pasatzen joango dira umeak.

8.10.4 Antolaketa eta funtzionamenduari buruzko ondorio partzialak

Zirkulazio libreko saioetan adin desberdineko umeak elkarrekin aritzea, hainbat helburu lortzeko estrategia-modu aberatsa dela esango genuke, besteak beste:

- Zein espaziotan lan egingo duten aukeratzea.
- Elkarrekintza sustatzea.
- Handiagoek zer egiten duten behatzea.
- Adin desberdinetakoekin lan egiten, jolasten, komunikatzen eta partekatzen ikastea.
- Beren irakaslearekiko autonomia lortzea.
- Jarduera aberatsagoak sortzea.
- Espazio eta irakasle desberdinak ezagutzea.
- Jokoen arauak errespetatzen ikastea.
- Txikiagoei ´irakatsiz´, handiek, beren ekintzez hausnarketa egitea eta gaitasun metakognitiboak garatzea.
- Bi irakasleen artean etengabeko koordinazioan lan egitea.

Errotazio-sistema erabiltzeak ondoko helburu hauek lortzen laguntzen du:

- Heterogeneotasunaren printzipioa mantentzea.
- Elkarrekintza sustatzea.
- Elkarrekin lan egiten, jolasten, komunikatzen eta partekatzen ikastea.
- Jokoen arauak errespetatzen ikastea.
- Txoko bakoitzeko espazio eta materialak gertutik ezagutzea eta denak erabiltzea.
- Ikaskideen jarduerak behatu eta ikasten joatea .
- Andereñoak bere “ikasle taldearen” lana zuzenean behatzea.

8.10.5 Gelaz kanpoko espazioak

	A	B
Bainugelak	Egokituak baina zahar xamarrek ikusten dira	Egokituak baina zahar xamarrek ikusten dira
Halla/piszina	Estalia (eraikin barruan)	Estalia (eraikin barruan)
Patioa:		
Gelatik patiorako irteera	Eskailerarik gabe, zuzenean	Eskailerak
Azalera	600 m ² .	600 m ²
Landare, zuhaitzak	Eraikinaren bueltan, 2m-ko zabaleran	Eraikinaren bueltan, zuhaitz bakarra
Zonalde estalirik	Zati batean	Ez
Materiala	Porlaneanekoa	Porlaneanekoa
Psikomotrizitate gela:	1. solairuan	1. solairuan
Azalera	60 m ²	60 m ²
Argitasun maila	Argitsua Haur Hezkuntzako eraikinekoa; Itsua, itxia Lehen Hezkuntzako eraikinekoa (3 urtetik aurrerakoak bertara joaten dira)	Argitsua

Bainugelak, halla, psikomotrizitate gela, patioa

ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA

Bainugela



Patioa



Psikomotrizitate Gela



HARRI BERRI IKASTETXEA

Psikomotrizitate Gela



Piszina



Patioa



8.10.6 Gelaz kanpoko espazioen deskribapena eta laburpentxoak

Bainugelak

Umeen adinari egokituak daude, nahiz eta aspaldi xamarrekoak diren.

Halla/piszina

Eraikinean sartu eta erdian gelditzen den hexagono forma duen espazioa da. Erabilgarritasun handia ematen diote: gela desberdinetako umeak elkartzeko, euria egiten duenean bertan jolasteko, psikomotrizitatea egin ondoren, eseri eta ogia eta gailetak jateko, abesteko, etxera joan aurretik agurtzeko...

Patioa

Arantzazuko Ama Ikastolan zati batean nahiz eta goiko partea estalia egon, hotz egiten duenerako edo euria ari duenerako ez da nahikoa, umeak hoztu eta busti egiten baitira eta eraikinaren barruan egon behar izaten dute. Gainera, nahiz eta atertu (euria egin ondoren) putzuak eratzen dira. Patioaren buelta osoan eskailera eta koskak daudenez, oso erne ibili behar izaten dute andereñoek txikienekin.

Harri Berri Ikastetxean, estalitako zatirik ez dagoenez, arazoa are gehiago sumatzen da. Andereñoek kontu handiz ibili behar dute dauden koska eta eskaileretan umeak 'zaintzen', arriskutsua ikusten baitute patioa.

Faltan botatzen da zonalde berdea, lorategi moduko eremua: landare, lore, zuhaitz, eta abarrekin.

Psikomotrizitate gela

Arantzazuko Ama Ikastolan bi urteko haurren psikomotrizitate gela ez da erabat ziurra; alderdi bateko paretan dauden leihoak baxuak direnez, andereñoak, espumazko materialarekin egiten du pareta altu bat, umeek pilotak edo egurrezko objektuak erabiltzen dituztenean leihoetako zona hori babestu ahal izateko. Horrekin, gelak duen argitasun naturala ere galtzen da eta tamaina aldetik ere txikiegia da.

Arazo hau dela eta, Lehen Hezkuntzako eraikinera joaten dira 3-4 urteko umeak psikomotrizitate gelara.

8.11 Material Esanguratsuenak Txokoka/Espazioka eta Analisia

Ondoren azaltzen ditugu ikastetxeka, 2 eta 3 urteko haurren geletan dauden material garrantzitsuenak, txoko edo espazioka sailkatuta.

A. Ikastetxea - Bi urteko haurrak	A. Ikastetxea - Hiru urteko haurrak
<p>Etxean: Seaska, telefonoak, bainu txiki bat panpinentzat, erosketak egiteko karroa, panpinak</p> <p>Alfonbran: Argazki-albumak, animaliak, kotxeak, pilotak, kamioak, ipuinak, Lego</p> <p>Mahaietan: Paper handiak (DIN A3), margoak, errotulagailuak, puzzleak, bolak-kordioak</p> <p>Arbela</p> <p>Umeak aldatzeko espazioa: Mahai bat, umeak garbitzeko eta lehortzeko 'toallatxoak', fardelak, aldatzeko arropak, apalategi bat</p> <p>Pertxeroak: Ume bakoitzaren izenak</p> <p>Beste material batzuk: Uztaiak, kojina, biberoiak, trizikloa, ...</p>	<p>Plastika gelan: Paper desberdinak, guraizeak, kotoia, arkatzak, rotuladoreak, animalien liburuak, tenperak eta akuarelak, pintzelak, argizariak, hondakin-materialak, kartoiak, arbela, mahaiak eta aulkiak, apalak, kortxoak, plastilina, ipuinak eta abestiak.</p> <p>Eraikuntza gelan: Tamaina eta forma desberdinetako egurrak, Lego-ak, pintxoak, animalia desberdinak, kubetak, K[^]nex materiala eta bere gida liburua, arbela, kortxoak, mahaiak eta aulkiak, apalak.</p> <p>Ipuindegia - Mahai jolasen espazioan: Ipuin eta liburuak Oka, xakea, domino, partxisa, damak, puzzleak, Memory (animalien jokoak), mahaiak eta aulkiak, apalak, kortxoak</p>
B Ikastetxea - Bi urteko haurrak	B Ikastetxea - Hiru urteko haurrak
<p>Etxean: Telefonoa; Koltxoia, manta, 2 kojina; Panpina, kotxe-kapota</p> <p>Alfonbra espazioan: Argazki-albumak; Ipuinak; Abestien irudiak; Esketak</p> <p>Jolas txokoa: Enkajeak; Puzzleak; Eraikuntzak; Kotxe txikiak; Animaliatxoak</p> <p>Margotegi txokoa: Mahai bat eta 4 aulki</p> <p>Arbela Apalegi txiki batean: margoak; gometak; orriak Plastilina</p> <p>Umeak aldatzeko espazioan: Mahai bat, umeak garbitzeko eta lehortzeko 'toallatxoak', fardelak, aldatzeko arropak, apalategi bat</p> <p>Jolas motorikoaren txokoa: Piszina, kolore askotako pilotekin, Txirrista</p>	<p>Etxean: Panpina, telefonoa, koltxoia, maindiera, oihalak</p> <p>Margotegian: Tenperak, margoak, pintzelak, 2 kabailete, folioak, guraizeak, gometak, orri handiak...</p> <p>Jolastokian: Plastilina, eraikuntzak, puzzleak, enkajeak...</p> <p>Antzerkian: Kontrol-fitxak, hormirudia, ipuinak, jantziak, kareta, ispilua, kortinak...</p> <p>Beste material batzuk: Karpeta (haur bakoitzaren lanekin) Arbela, mahaiak eta aulkiak, apalak, kortxoak, eguraldiaren lamina, komuneko papera, zakarrontzia.</p>

Material erakargarri edota esanguratsuak adinaren arabera

Materialak, ez dituzte batera ateratzen, pixkanaka baizik, txoko edo espazio desberdinak ireki ahala. Abesti, ipuin, argazki-album eta horrelako materiala, beraiek gogortua eta plastifikatua daukate, umeez erraz erabil dezaten eta berria kontserbatu dadin. Txoko edo espazio bakoitzak bere materiala dauka eta apaletan erreferentziak dauzkate, erabili ondoren, bere lekuan jaso dezaten.

Bi urtekoen materialen kasuan, erakargarritasun handia daukate. Adibidez, asko gustatzen zaie 'tenpera'ekin margotzea. Binaka jartzen dituzte, hobeto moldatu daitezten eta andereñoek ere jarduera hori kontrolatu dezaten. "B" Ikastetxeko "motrizitate" espazioko pilotez betetako pizina oso atsegina egiten zaie eta momentu askotan erabiltzen dute: babes moduko espazio bezala erabiltzen dute eta lehenengo elkarrekintza momentuak errazten ditu. Beste elementu garrantzitsua argazki-albumak dira eta erabilgarritasun handia dauka 'bakarrik' sentitzen diren momentuetarako. Telefonoa da paper ona betetzen duen beste material bat, edozein momentutan 'deitu' bai diezaiokete amari, aitari...

Hiru urtekoen materialetan eta beste batzuk gutxietsi gabe, "A" ikastetxeko "Eraikuntzen" gelako materiala oso esanguratsua da; egurrezko pieza desberdinez osatuta dago eta eraikuntza interesgarriak egiten dituzte; arrakasta daukan espazioa da. Ikastetxe horretan bertan mahai-jolasak ere erakargarritasuna daukate: domino, oka, xakea, ..."B" ikastetxeko "Antzerki" txokoak garrantzia du, bertan prestatzen baitute eszenatokiko dekorazioa, entseguak egin, antzeztu eta ondoren, kritika lantzen dute. Bietan, "plastika" gela edota txokoan aktibitate handia egoten da eta oso gustukoa dute haurrek. Materialen atalarekin bukatzeko, "A" ikastetxean hondakin materialekin egiten dituzten lanak interesgarriak iruditzen zaizkigu.

8.12 Goizeko Denboraren Antolaketa eta Analisia

	A	B
Sarrera	9:00	9:00
Talde ekintza/Elkarrizketa	9:00-9:10	9:00-9:40
Psikomotrizitate saioa	Astean bi saio	Egunero, 2 urtekoekin Astean bi saio 3 urtekoekin
Txokoetako saioa/espazioetako saioa	9:10-10:30	9:40-10:15
Gosaria	10:30-10:45	10:15-10:30
Komunera	10:45	10:30
Patiora	10:50	10:40
Talde ekintza/elkarrizketa	11:30-12:00	11:30
Txokoetako saioa		11:40-12:10
Agurrak	12:00	12:30

Bi urteko haurren geletan, "libre" ibiltzen dira bi ikastetxeetako txoko edo espazioen saio denboran. Hiru urtekoenean, aldiz, "A" Ikastetxeko haurrak, zirkulazio libreko saioan bi gelatan ibiltzen dira, Plastika eta Eraikuntzen gelan, eta "B" Ikastetxeoak, talde txikitik, errotazio-sistema erabiliz.

8.13 Talde Jarduera Esanguratsuenak Espazioka edo Txokoka eta Ondorio Laburrak

	A - B Aktibitate zuzendua Talde Handian
Elkarrizketa/talde ekintzan, borobilean:	<ul style="list-style-type: none"> . Harrera . Sentimendu, gertaeren adierazpena . Haur bakoitzaren argazki-albuma ikusi, deskribatu, aztertu . Euskara landu . Ipuinak kontatu, "irakurri", buruz ikasi, errepikatu, galderei erantzun . Abestiak ikasi eta abestu . Olerkiak ikasi, asmakizunak ulertu eta asmatu, "gure istorioak" argazki bidez deskribatu . Jokoak . Asistentzia: haur bakoitza etorri den edo ez den behatu eta kontaketa egin . Eguraldia landu . Egutegia: asteko egunak landu . Gosaria . Hitzen ahoskapena landu . Lanaren antolaketa, jarraibideak eman . Gatazken konponketan lagundu . Ohituren, arauen zergatiak adierazi

Talde ekintza/Borobileko Jardueren Garrantzia

Egunero egiten diren saio hauek, helburu/konpetentzia ugari lortzeko balio digute, besteak beste:

- Umeari harrera egiteko eta babestua sentitzeko.
- Sentimendu, kezka, premiak eta interesak adierazteko.
- Ipuin, abesti, olerki, joko, dantza, jolasetan parte hartzeko.
- Espazioan eta denboran kokatzen joateko.
- Hiztegia aberasten joateko.
- Prozeduretan trebetasuna hartzen joateko.
- Kontzeptuak ikasteko.
- Jarrera, balio eta arauak garatzeko.
- Besteekin komunikatzen, konpartitzen, bizitzen ikasten joateko.
- Taldearen sendotze-kontsolidazioan laguntzeko.

Etxea: 2 Urteko haurrak

Etxean	A - B Aktibitate librea Talde txikian - Bi urteko haurrak
Txokoetan (Jolas simbolikoa)	. Objektuak etxe barruan sartu . Telefonoz hitz egin . Mozorroto . Familiako rolen imitazioaren hastapena . Hitz egin . Seaska barruan sartu . Panpinak zaindu, bota . Koltxoian etzanda egon . Kotxearekin atzera eta aurrera ibili . Materialak jasotzen lagundu

Etxeko Txokoaren Jardueren Eboluzioa

Hasiera batean, maiz egiten duten jarduera bat, elementuak, objektuak etxean sartzea da. Telefonoak ere erabilera handia dauka etxekoei “deitzeko”. Ikasturtea aurrera joan ahala joaten dira agertzen elkarrekintza momentuak: batak bestea tapatu, bata bestearen gainean jarri, gauzak eskatu, familiakoen rolen imitazioen bat hartu...

Etxea: 3 Urteko haurrak

Etxean	B Aktibitate librea Talde txikian - Hiru urteko haurrak
Txokoetan (Jolas sinbolikoa)	<ul style="list-style-type: none"> . Telefonoz hitz egin . Mozorrotu . Familiako rolak imitatu: amaren, aitaren, medikuaren, ... papera egin= mahaia jarri, bazkaltzera gonbidatu, bazkaldu, plantxan egin, erratza pasa, hautsak kendu... . Gelako etxearen eskaileratan gora eta behera ibili . Etxeko goiko solairutik jostailu eta objektuak bota . Hitz egin . Ohe barruan sartu . Panpinak zaindu, bota . Batak bestea ohean tapatu eta zaindu . Haserreak . Koltxoian etzanda egon . Kotxearekin atzera eta aurrera ibili . Materiala jaso

Etxeko Txokoaren Jardueren Eboluzioa eta Ondorio Batzuk

Hiru urteko haurren kasuan, asko aldatzen da etxeko jarduera; oso "bizia" da etxeko giroa. Rolan imitazioak presentzia handia dauka eta bakoitzak hartu duen papera mantentzenko joera ere pixkanaka ikusten hasten gara: amarena, aitarena, medikuarena, Horrela, rolekin lotuta doazen jarduerak betetzen hasten dira: mahaia jarri, kendu, irakasleak bazkaltzera gonbidatu...

Etxeko aktibitate librean adierazten dituzten beldur, sentimendu, interes eta imitazio-jokoek, asko laguntzen digute umea eta bere etxeko giroa ezagutzen.

Bi pisuko etxeak direnez, asko ibiltzen dira gora eta behera eta eskailerak igo eta jaitsi jarduera horretan, ziurtasuna eta mugimenduen kontrola lortzen joaten dira.

Egiten dituzten jarduerak autonomia lantzen laguntzen dute eta elkarrekintza egoerak etengabe ematen direnez, oso txoko egokia dela esango genuke.

Margotegia/Plastika A Ikastetxean

A Ikastetxea Margotegian/ Plastikan	Aktibitate libre/zuzendua Talde txikian Bi urteko haurrak	Aktibitate libre/zuzendua Talde txikian Hiru urteko haurrak
Espazioetan	<ul style="list-style-type: none"> . Marrazkiak egin . Margoketa: tenpera, argizariak, Acualux . Paperak erabiliz, eskuekin tirak egin . Gometxak itsatsi . Bolatxoak egin . Collage-ak egin . Plastilina erabiliz forma desberdinetako elementuak egin . Puzzleak egin . Piezak ahokatu . Guraizeen erabileraren hastapena 	<ul style="list-style-type: none"> . Marrazkiak egin . Margoketa: tenpera, argizariak, Acualux . Puntzoiez elementu desberdinak atera . Bolatxoak egin . Itsatsi:Gometxak, bolatxoak . Collage-ak egin . Hondakin materialekin lanak egin . Plastilinarekin irudi, objektu desberdinak egin . Puzzleak egin . Piezak ahokatu . Guraizeak erabili . Izena jarri

Margotegia Eta Plastika Gelako Jarduerak

Umeentzat oso erakargarria da eta 2 urterekin hasten dira tenperarekin margotzen, plastilina erabiltzen edo objektu eta irudi desberdinak egiten; ikasturte bukaera aldera jartzen dute martxan guraizeen erabilera.

Hiru eta 4 urteko haurrentzako, Arantzazuko Ama Ikastolan gela guztia plastikaren inguruan antolatuta daukatenez, margolan, horma-irudi, collage eta hondakin materialekin egindako lanak aberatsak direla esan genezake.

Plastika gelan beraiek planteatzen dituzten helburu nagusiak hauexek dira:

- . Plastika adierazpena eta sormena garatzea.
- . Material ezberdinak manipulatzeko eta ezagutzeko.

Gela hau lan-ekintza desberdinetan banatzen dute: marrazkigintza, modelaketa, tenpera/akuarela eta kolaketa edo hondakin txokoa.

Umeen marrazkiek, informazio iturri handia eskaintzen digute bai afektibitate, sormen, eta haurraren mundua ezagutzeko joan ahal izateko.

Plastika B Ikastetxean

B. Ikastetxea Plastikan	Aktibitate libre/ zuzendua Talde txikian Bi urteko haurrak	Aktibitate libre/zuzendua Talde txikian Hiru urteko haurrak
Txokoetan	.Marrazkiak egin .Margoketa: tenpera, argizariekin margotu .Gometxak itsatsi .Plastilinarekin objektu desberdinak egin	.Marrazkiak egin .Margoketa: tenpera, argizariekin margotu .Gometxak itsatsi .Collage-ak egin .Plastilinarekin irudi eta objektu desberdinak egin .Guraizeak erabili

Margotegia eta Plastika Gelako Jarduerak adinaren arabera

Harri Berri Ikastetxean ere 2 urterekin hasten dira tenperarekin margotzen eta jarduera atsegina egiten zaie. Plastilinarekin erabilera ere nabarmena da eta garapen interesgarria ematen da hasierako marrazki eta egiten dituzten elementuetatik (txorizoak, bolatxoak...) ikasturte bukaerarako lortzen dituzten figura, hormirudi, etabarretara. Hiru urtekoen kasuan, margolan, horma-irudi eta collage aberatsak egiten dituzte eta kontrol handia lortzen dute materialen erabileran: margoak, pintzelak, guraizeak...

Umeen marrazkiek, informazio iturri handia eskaintzen digute bai afektibitate, sormen, eta haurraren mundua ezagutzen joateko.

Liburutegia/Ipuindegia

Liburutegia/Ipuindegia:	A - B Aktibitate librea Talde txikian
Txokoetan/Espazioetan	. Ipuinak "irakurri" eta kontatu . Norbere izenak aurkitu eta itsatsi

Ipuinen espazio edo txokoaren garrantzia:

Ipuinen espazioa oso atsegina eta erakargarria egiten zaie eta hasieran bakarkako jarduera izatetik, progresiboki, elkarrekintzarako oso baliabide egokia izatera pasatzen da: bata besteari ipuina kontatu, elkarrekin komentarioak egin, galderak trukatu, plazer konpartitua izatera iristen dela esango genuke. Txoko bezala, bai bakarrik egon nahi dutenerako bai elkarrekin egon nahi dutenerako zaie baliagarri, ongi betetzen du helburua.

Mahai jolasak A Ikastetxean

Mahai-jolasetan:	A - 3 Urteko haurrak Aktibitate libre/zuzendua Talde txikia/ertaina
Espazioetan	. Oka-ra jolastu . Domino-ra jolastu . "Memory" animaliekin jolastu . Puzzleak egin . Kartetara jolastu . Bi berdinen jokora jolastu . Partxisarekin jolastu . Zuhaitzen jokora ibili . Materialak jaso

Mahai jolasen espazioko jardueren garrantzia

Helburu orokorra: Aritmetika eta logika matematikaren garapena estimulatzea.

Espazio honen antolaketa: Puzzleen txokoa, mahai-jolasen txokoa eta joko matematikoen txokoa.

Hiru eta lau urteko umeen garapeneko hainbat alderdi ongi lantzen laguntzen du: kognitiboa, soziala, afektiboa, motorikoa. Hemen egiten dituzten jarduerak eta jokoak hainbat helburu edo konpetentzia espezifikoak lortzeko egokiak dira, besteak beste:

- . Jolasean hasi aurretik, partaideen artean arauak adostea.
- . Antolaketa espaziala lantzea.
- . Denborazko antolaketan aurrera pausoak ematea.
- . Harremanak egitea.
- . Besteen ikuspuntuak onartzen joatea.
- . Gatazkak bideratzen ikasten joatea.
- . Kontatzen ikastea.
- . Forma, tamaina, kolore desberdinetako objektuak manipulatzeko eta ezagutzea.
- . Distantziak lantzea.
- . Sekuentziak lantzea.
- . Sormena lantzea.
-

Espazio honetako hainbat joko eta jarduerak andereñoaren parte hartzea beharrezkoa egiten dute.

Eraikuntzak A Ikastetxean

Eraikuntzetan:	A - 3 Urteko haurrak Aktibitate librea Talde txikia
Espazioetan	Egurrezko piezekin: - Etxeak, gazteluak, harresiak, zubiak, errepideak, aldapak eraiki - Animaliak, loreak eta hainbat elementu osatu eta eraikuntzetan kokatu - Kotxeak aldapa behera bota eta igo Hainbat materialekin: . Piezak ahokatu (enkajatu) . Puzzleak egin . Pintxoekin irudiak osatu . Materiala jaso

Eraikuntza gelako espazioaren garrantzia

Helburu Orokorra: Ezagupen fisikoaren bidez, espazioaren egituraketa eta antolaketa garatzea.

Espazio honen antolaketa: Egurren txokoa, eraiketa txikien txokoa, neurri eta irudi geometrikoen txokoa.

Hiru eta lau urteko haurrentzat oso erakargarria da gela honetako materiala. Bakarkako jarduerak ikusten diren arren: etxeak, dorreak, garajeak egiten, taldeko lanak hartzen du hemen garrantzia: harresiak jartzen, errepideak egiten, zubiak jartzen, kotxeentzako aparkalekuak egin ondoren, bigarren solairutik beherainoko aldapak egin eta kotxeak goitik behera nola joaten diren behatzen; batzuetan, arazoak izaten dituzte kotxea beheraino joan dadin eta soluzioak aurkitzen pasatzen dute denbora dezente (andereñoaren laguntzarekin batzuetan). Solairu gehiago jartzea gonbidatzen ditu batzuetan andereñoak eta benetako esperimenduak egiten dituzte.

Eraikin konplexuak eta aberatsak egiten dituzte saio askotan, objektu eta elementuz osatuz: zuhaitzak, animaliak, pertsonak, kotxeak, ...

Helburu edo konpetentzien artean, batzuk aipatuko ditugu:

- Espazioa antolatzen eta egituratzen ikasten joatea.
- Forma eta tamaina desberdineko materialekin esperimentatzea.
- Elkarren artean gauzak egiten ikastea: adostu, errespetatu.
- Elementuen erregela fisikoez ohartzen hastea.
- Estetika lantzea.
- Sormena lantzea.
- Kontzeptu matematikoak ikastea: distantziak, neurriak, tamainak, formak...
- Egiten dutena errealitateko objektu eta elementuekin behatzen hastea.
- ...

Jolastokia B Ikastetxean

Jolastokia:	B Aktibitate librea Talde txikia
Txokoetan	<ul style="list-style-type: none"> . Eraikuntzak egin . Puzzleak egin . Lepokoak egin . Piezak ahokatu

Antzerkia B Ikastetxean

Antzerkian:	B Aktibitate libre/zuzendua Talde txikian
Txokoetan	<ul style="list-style-type: none"> . Ipuinak kontatu . Mozorrotu . Entseguak egin . Antzerkirako elementuak margotu, moztu, prestatu . Hormirudiak osatzen joan . Antzeztu . Antzezpena bukatu ondoren, kritika egin

Antzerkiaren Prozesua

Talde txikitik eta antzerkiko txokoa 'tokatzen' zaien saioetan hasten dira lehenengo pausoak: ipuina ikasten joan ahala kontatzen hasi, pertsonaia desberdinen rolak banatu, entseguak egiten hasi, 'trajeak' prestatzen joan, eszenatokia dekoratzen joan. Dena prest dagoenean antzeztu egiten dute eta bukatzeko ikaskideen kritika jasotzen dute. Talde protagonista berak ere autokritika egiten du.

Kritika momentuak poliki-poliki joaten dira aberasten; hasierako "gustatu zait" - "ez zait gustatu" horretatik, balorazio zehatzagoak eta pentsatuagoak emanez: "... ondo daki ipuina, "... parrez egon da ... antzeztzen ari zen bitartean", "... ez daki ondo ipuina".

Gosaria bi ikastetxeetan

Gosaria	A Talde handian	B Talde handian
	<ul style="list-style-type: none"> . Fruta desberdinak jaten ikasi: kiwia, sagarra, meloia, intxaurrak... . Elkarrizketak: gai bati buruz, zirkulazio libreko saioetan egindakoari buruz . Kontzeptuak landu frutak erabiliz: txikia/handia, luzea/motza, gogorra/biguna, zein koloretakoa den 	<ul style="list-style-type: none"> . Gailetak, bizkotxoak... denen artean banatu

Gosariko saioaren garrantzia

“A” Ikastetxean, gosariko momentua oso esanguratsua da eta denbora hartzen du andereñoak, umeek fruta eta elikagai desberdinak jaten ikas dezaten, elkarrizketetan azaltzen diren egoerak (sentimenduak, gatazkak, deskribapenak) tratatzeko, aurreko saioan egin duten lanaz hitz egiteko, matematikako kontzeptuak lantzeko...

Patioa bi ikastetxeetan

	A - B Talde txiki eta ertainetan
Patioan:	<ul style="list-style-type: none"> . Korrika ibili . Panpinak paseatu . Trizikloan, kotxean ibili . Sokasaltoan ibili . Txirristan gora eta behera ibili . Tuneletan zehar ibili . Hitz egin . Txirrista/ranpan gora eta behera ibili . Buruhandiekin ibili . Gatazka txikiak konpondu . Trena, iglua eta eraikuntza desberdinetan sartu-irtenean ibili . Materiala jaso

Patioko Jardueren Bilakaera

Hasierako egunetan patioko saioa ondo antolatu eta zaindu beharrekoa dela esan behar dugu. Bi urteko ume batzuk, nahiko galduak sentitzen dira, handiegia egiten zaie patioa. Gatazka gune bihurtzen da, patioko eskailera, koska eta tresnak “arriskua” dute, ondorioz, babesa bilatzen dute, eta derrigorrezkoa egiten zaie beren andereñoa hurbil dagoela ziurtatzea.

Bi ikastetxeetako patioko saioetan, andereño eta laguntzaileak oso kontziente izan dira behar hauetaz eta erne egoten dira eta egoeren aurrean ziurtasuna/lasaitasuna transmititzen dute: babestuz, tresnak probatzera gonbidatuz, gatazken soluzioan lagunduz...

Psikomotrizitatea bi ikastetxeetan

ASTEKO SAIOAK: -A Ikastetxean: Bi -B Ikastetxean: Egunero	A - B Talde handian
Psikomotrizitatea:	<ul style="list-style-type: none"> . Lehenengo solairura igo eta jaitsi . Zapatilak eta galtzerdiak erantzi eta jantzi . Koltxonetan: saltoka, txilinbuelak eman, etzanda egon . Espalderetara: igo eta jaitsi . Uztaiekin jokoak egin eta abestu . Txirristatik gora eta behera ibili . Pilotekin jolasean ibili . Egurrezko piezekin, arkitekturarekin, eraikuntzak egin . Denda-etxean sartu irtenean ibili, gorde . Kuboak bota, paretak egin . Mozorrotu . Jolas sinbolikoa: ama-aitaren, andereñoaren, ... paperak hartu . Korrika ibili . Garrasi egin . Abestu eta dantzan egin . Joko desberdinak: autobusera igo eta jaitsi, boloetara ibili, gorde-gordeka ibili... . Gatazka eta iskanbilak konpondu . Materiala jaso

Psikomotrizitate Saioen Garrantzia

“A” ikastetxean astean bi saio egiten dituzte 2 urteko haurrekin. “B” ikastetxeko 2 urtekoek, aldiz, egunero daukate saioa eta jarduera garrantzitsua dela kontsideratzen dugu. Umeek behar duten ‘mugimendu’ eskaerari oso ondo erantzuten dio saio honek baita jolas sinbolikoa lantzekoari ere.

Bi urteko umeen kasuan garrantzitsua iruditzen zaigu ere, saioaren ordua aldaketarik gabe mantentzea, eguneroko jardueren ‘sekuentziak’ lagundu egiten baitie umei espazio eta denboran kokatzen eta antolatzen eta ondorio bezala ziurtasuna lortzen.

Ondorio Laburrak:

Saio bakoitzeko jarduerak espazio edo txokotan banatuta daude, aktibitate zuzendu nahiz libretan. Jardueraren arabera, talde handian edo txikitan antolatzen dira umeak. Hona hemen tauletan espazioka jasotako jardueretatik atera ditzakegun hainbat ondorio:

Elkarrizketa, talde ekintza, borobila:

- Ume bakoitzaren behar eta premiei erantzuten dion irakaskuntza-ikaskuntza, prozesua pertsonalizatuz.
- Haurraren sozializazioan laguntzen duten jarduerak, komunikazioa eta elkarrekintza sustatuz.
- Jarrera, balio, arau; kontzeptuak eta trebetasunak lehenengo momentutik lantzea.

Etxea:

- Sentimenduen adierazpena ahalbidetzen duen espazioa.
- Autonomia eta elkarrekintza garatzen doaz.
- Rol enimitazioaren bidez umea eta bere etxeko giroa ezagutzen laguntzen digu.
- Espazio eta denboran kokatzen laguntzen dio umeari.

Margotegia eta Plastika gela:

- Material desberdinak manipulatu objektuen ezaugarriak ikasten doaz.
- Sormen eta estetika mundura hurbiltzen hasi dira.
- Trebetasunak lantzen dituzte.
- Umeen marrazkiek informazioa eskaintzen digute haurra ezagutzen joateko.

Ipuinen espazioa:

- Argazki-albumak eskura edukitzeak lasaitu egiten ditu.
- Ipuinak kontatu eta irakurtzeaz asko disfrutatzen dute.
- Elkarrekintzarako eta bakarrik egon nahi dutenerako baliabidea da.

Mahai jolasen espazioa:

- Jokoen arauen mundua ezagutu eta onartzen doaz.
- Espazio eta denboran kokatzen joateko aukera ematen du.
- Besteen ikuspuntuak, gatazkak bideratzeko balio du.
- Forma, kolore, tamaina desberdineko objektuak manipulatu eta ezagutzen doaz.

Eraikuntza gelako espazioa:

- Espazioa antolatzen eta egituratzen doaz pixkanaka.
- Elementu eta objektu desberdinen esperimentazioekin kontzeptu eta trebetasunak garatzen doaz.
- Elementuen erregela fisikoez ohartzen doaz.
- Elkarrekin gauzak adosten ikasten ari dira.
- Egiten dutenaren eta errealitateko objektuen arteko behaketak egiten ikasten ari dira.

Antzerkia:

- Prozesuaren elementu guztiak landuz, antzezpena, dekoratuetan eta kritikan aurrerapausoak ematen ari dira.

Gosaria:

- Elikagai desberdinak jaten aurrerapauso handiak egiten ari dira.
- Konpartitzeko, elkarrekin egoteko, gauzak kontatzeko, matematikako kontzeptuak lantzeko une egokia da.

Patia:

- Arrisku dezente dagoenez: koska, eskailerak, tresnak, ziurtasun eta konfidantza ematen ez duen espazioa bilakatzen da, ondorioz, andereñoen "zaintzak" etengabekoa izan behar du.

Psikomotrizitate gela:

- Mugimenduaren beharrari ongi erantzuten dion espazioa da: korrika, saltoka, gora eta behera, trizikloetan, ...
- Jolas sinbolikoaren presentzia asko gehitu da: bata bestearen zaintza, antzezpenak, mozorrotzeak...
- Elkarrekintzarako eta komunikaziorako espazioa da: abestiak, dantzak, jokoak...
- Gatazken sorleku bihurtzen den espazioa da uneoro eta soluzioan aurrerapausoak eman ditzaten, etengabeko lana egiten dute andereñoek.

8.14 Haurren Asistentziari buruzko Taulak eta Analisia

Bi ikasturteetan zehar, behaketa saio egunetan jasotako haurren asistentzia-
taulak eranskinetan aurki daitezke; atal honetan, adibide moduan azaltzen ditugu,
ikasturte bakoitzeko hasieran, erdi aldera eta bukaera aldera jasotakoak.

ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA

2000/01 Ikasturtea

Hilabetea : Iraila

IKASLEAK/EGUNAK	19	22	27	29
Danel	+	+	10:40 - 12:00	10:10 - 12:00
Gaizka	+	-	9:25 - 12:00	9:25 - 12:00
Haizea	+	+	9:45 - 12:00	9:30 - 12:00
Imanol	+	+	9:45 - 12:00	9:35 - 12:00
Sonia	+	+	10:00-12:00	9:25 - 12:00
Xabier	+	+	9:30-11:45	9:25 - 10:30
Ylenia	+	-	9:15-10:40	9:20 - 10:40

Hilabeteak: Urtarrila - Otsaila

IKASLEAK/EGUNAK	18	13
Danel	9:30 - 12:00	9:45- 12:00
Gaizka	9:55 - 12:00 14:45 - 16:30	-
Haizea	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Imanol	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Sonia	9:00 - 12:00	9:00 - 12:10
Xabier	-	9:00 - 16:30
Ylenia	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30

Hilabeteak: Maitza - Ekaina

IKASLEAK/EGUNAK	12	2	20
Danel	9:55 - 12:00	10:00 - 12:00	10:00 - 12:00
Gaizka	9:55 - 12:00 14:45 - 16:30	10:10 - 16:30	11:20 - 16:30
Haizea	9:00 - 12:00 14:45 - 16:30	9:00 - 11:50	9:00 - 12:00
Imanol	9:00 - 12:00 14:45 - 16:30	9:00 - 12:00	9:15 - 12:00
Sonia	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:30 -12:00
Xabier	9:40 - 12:00	9:40 - 12:00	9:15 - 12:00
Ylenia	9:00 -16:30	9:00 - 16:30	9:00 -16:30

2001-02 Ikasturtea

Hilabetea: Iraila

IKASLEAK/ EGUNAK	10	12	19	26
Danel	9:25 - 12:00	9:25 - 12:00	9:30 - 12:00	9:10 - 12:00
Gaizka	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	-	9:30 - 12:00
Haizea	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Imanol D.	9:00 - 12:00	-	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Imanol E.	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Ivan	9:00 - 12:00	9:00 - 13:00	9:00 - 13:00	9:00 - 13:00
Sonia	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Xabier	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Ylenia	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00

Hilabeteak: Urtarrila - Otsaila

IKASLEAK/ EGUNAK	16	30	28
Danel	9:25 - 12:00 14:30 - 16:30	9:30 - 12:00 14:30 - 16:30	9:30 - 12:00 14:30 - 16:30
Gaizka	9:00 - 16:30	9:10 - 16:30	9:35 - 16:30
Haizea	9:00 - 16:30	9:00 - 12:00 14:30 - 16:30	9:00 - 12:00 14:30 - 16:30
Imanol D.	-	9:00 -12:00 14:30 - 16:30	9:00 - 12:00 14:30 - 16:30
Imanol E.	9:15 - 12:00 14:30 - 16:30	9:10 - 12:00 14:30 - 16:30	9:15 - 12:00 14:30 - 16:30
Ivan	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30	-
Sonia	9:00 - 12:00 14:30 - 16:30	9:30 - 12:00 14:30 - 16:30	-
Xabier	9:00 - 12:00 14:30 - 16:30	9:00 - 12:00 14:30 - 16:30	-
Ylenia	-	9:00 - 16:30	9:00 -16:30

Hilabeteak: Maiatza - Ekaina

IKASLEAK/ EGUNAK	08	05
Danel	9:30 - 12:00 14:30 - 16:30	9:30 - 12:00 14:30 - 16:30
Gaizka	9:55 - 16:30	9:55 - 16:30
Haizea	Gaixorik	Oporretan
Imanol D.	9:00 - 12:00 14:30 - 16:30	9:00 -12:00 14:30 - 16:30
Imanol E.	9:00 - 12:00 14:30 - 16:30	9:00 - 12:00 14:30 - 16:30
Ivan	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30

IKASLEAK/ EGUNAK	08	05
Sonia	9:00 - 12:00 14:30 - 16:30	9:00 - 12:00 14:30 - 16:30
Xabier	9:00 - 12:00 14:30 - 16:30	9:00 - 12:00 14:30 - 16:30
Ylenia	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30

Asistentziari buruz

Esan dezakegu, erregularki etorri dela taldea bi ikasturteetan zehar, jaso ditugun saio egunak kontuan hartzen baditugu eta Arantxa andereñoak baieztatzen digunez.

HARRI BERRI IKASTETXEA

2000/01 Ikasturtea

Hilabetea: Iraila

IKASLEAK/ EGUNAK	13	15	20	26	28
Adrian G.	9:30 - 10:30	9:30 - 10:30	9:30 - 10:30	11:00 - 12:00	11:10 - 12:00
Ander	9:30 - 10:30	-	-	-	11:00 - 12:00
Adrian R.	-	-	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Angel	-	-	-	-	11:00 - 12:00
Daniel	9:30 - 10:30	9:30 - 10:30	9:30 - 11:00	9:00 - 11:00	9:00 - 11:00
Erik	-	-	-	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Ibon	11:00 - 12:00	11:00 - 12:00	11:00 - 12:00	-	-
Iñigo	11:00 - 12:00	11:00 - 12:00	10:00 - 12:00	9:15 - 12:00	9:00 - 12:00
Irati	9:30 - 10:30	9:30 - 10:30	9:00 - 12:00	9:40 - 12:00	9:00 - 12:00
Maidier	9:30 - 10:30	9:30 - 10:30	9:00 - 12:00	9:40 - 12:00	10:30 - 12:00
Miguel A.	11:00 - 12:00	11:00 - 12:00	10:30 - 12:00	9:20 - 12:00	9:20 - 12:00
Naiara	11:00 - 12:00	11:00 - 12:00	9:15 - 12:00	9:05 - 12:00	9:00 - 12:00
Pablo	11:00 - 12:00	11:00 - 12:00	10:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:07 - 12:00
Sara	9:30 - 10:30	9:30 - 10:30	-	9:50 - 12:00	9:40 - 12:00

Hilabeteak: Urtarrila - Otsaila

IKASLEAK/ EGUNAK	11	16
Adrian G.	-	9:35 - 12:00
Adrian R.	-	9:00 - 16:30
Ander	-	-
Angel	-	-
Daniel	9:15 - 11:25	9:00 - 12:00
Erik	-	9:00 - 12:00
Ibon	10:15 - 12:00	10:30 - 12:00
Iñigo	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00

IKASLEAK/ EGUNAK	11	16
Irati	9:30 - 12:00	9:20 - 12:00
Maidier	-	10:05 - 16:30
Miguel A.	9:25 - 12:00	9:30 - 12:00
Naiara	9:20 - 12:00	-
Pablo	9:15 - 12:00	9:10 - 12:00
Sara	-	11:00 - 16:30

Hilabetea : Maiatza

IKASLEAK/ EGUNAK	4	22
Adrian G.	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Adrian R.	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30
Ander	-	10:45 - 12:00
Angel	11:00 - 12:00	11:00 - 12:00
Daniel	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Eric	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Ibon	10:05 - 12:00	9:20 - 12:00
Iñigo	9:00 - 12:45 (bazkalduta)	9:00 - 12:00
Irati	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Maidier	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30
Miguel A.	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Naiara	9:00 - 16:30	9:00 - 12:00
Pablo	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Sara	10:15 - 16:30	10:00 - 16:30

Asistentziari buruz

Orokorrean, taldearen asistentzia erregularra izan da, Ander eta Angel ikasleena izan ezik. Haur hauek, ikasturteko 2 lehenengo hiruhilabetetan oso gutxi etorri direnez, beraien egokitzapen-aldiko prozesua ia ikasturte bukaeraraino luzatu da. Egoera honek, gainontzeko umeengan ere eragina izan du, atentzio gehiago eman behar izan baitie andereñoak etorri diren egunetan eta, denek "eskatu" eta behar baitute atentzioa.

2001/02 Ikasturtea

Hilabetea: Iraila

IKASLEAK/ EGUNAK	11	13	20	28
Adrian R.	oporretan	oporretan	oporretan	oporretan
Ander N.	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	oporretan	oporretan
Andoni	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Andrea	-	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Daniel	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Iñigo	9:00 - 12:00	9:15 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Ion Ander	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	gaixorik	9:00 - 12:00
Irati	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Maidar	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Maikol	-	-	9:00-12:00	9:00 - 11:15
Miguel A.	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:45 - 12:00
Nahia Li	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00

Hilabeteak: Urtarrila - Otsaila

IKASLEAK/EGUNAK	18	1
Adrian	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Ander N.	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Andoni	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Andrea	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Daniel	gaixorik	9:00 - 12:30
Iñigo	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Ion Ander	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Irati	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Maidar	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Maikol	gaixorik	9:00 - 12:30
Miguel A.	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Nahia Li	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30

Hilabetea: Maiatza - Ekaina

IKASLEAK/EGUNAK	16	7
Adrian	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Ander N.	9:00 - 12:30	9:15 - 12:30
Andoni	9:00 - 12:30	9:10 - 12:30
Andrea	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Daniel	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Iñigo	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30

IKASLEAK/ EGUNAK	16	7
Ion Ander	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Irati	10:15 - 12:30	9:00 - 12:30
Maidar	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Maikol	gaixorik	9:00 - 12:30
Miguel A.	9:00 - 12:30	9:10 - 12:30
Nahia Li	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30

Asistentziari buruz

Ikasturte guztian zehar asistentzia oso erregularra izan da.

9

BI IKASTURTEAK

9 BI IKASTURTEAK

9.1 Arantzazuko Ama Ikastolaren Azterketa

9.1.1 Lehenengo ikasturtea: 2000/01

Ikasle-Taldearen Jaiotze datak

IKASLEAK	JAIOTZE DATA
DANEL	1998/V/28
GAIZKA	1998/VI/03
HAIZEA	1998/V/11
IMANOL	1998/IV/08
SONIA	1998/II/11
XABIER	1998/XI/24
YLENIA	1998/X/05

9.1.1.1 Banakako eta talde txikitako jarduerak

Behaketa saio bakoitzean egindako deskribapena eta sintesiak eranskinetan jaso ditugu. Ondoren azalduko ditugunak horien adibide batzuk dira: ikasturte hasieran, erdi aldera eta bukaera aldera jasotakoak, bilakaera behatu eta aztertze helburuarekin.

2000/IX/19

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Etxeko telefonoa	+		+	+	+		
	(aitari)				(amari)		
Kamioak; Karroak	+	+	+	+	+	+	+
Ipuina		+			+	+	+
Eraikuntzak (1); Bolatxoak (2); Bola enkastratuak (3)	3	+	2 3		1 2	+	+
Marrazkiak		+	+			+	+
Arbela	+	+				+	
Puzzleak		+		+	+	+	
Uztaiak			+	+	+		
Albuma					+		
Trizikloa	+	+		+	+		
Zaldia	+	+	+	+	+		
Bolak/Kordoia					+		

2001/I/12

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
ETXEAN: Panpina (1); Telefonoa (2); Kotxea (3); Seaska (4)	2		1	4 2	1 4	2	
MARGOTEGIAN: Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometxak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6); Moztu-Esk. (7); Puzzleak (8); Irudiak (9); Enkajeak (10)	6 8	6 8	6	6 10	6 10	6 10	6 10
ALFONBRAN: Ipuinak (1); Eraikuntzak (2); Kamioiak (3); Kotxeak (4); Argazki-albumak (5)							
ARBELEAN: Marraztu (1); Borratu (2)	1 2						
HALLEAN: Trizikloak (1); Kotxeak (2); Kamioak (3)	1 2 3	1 2 3			1 2 3		
MATERIALA JASO	+	+	+		+	+	+

2001/III/13

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
ETXEAN: * Panpina (1); Telefonoa (2); Kotxea (3); Seaska (4)							
MAHAI-JOLASAK: Bolatxoak (1); Puzzleak (2); Irudiak (3); Memory (4)			4	4	4	4	4
MARGOTEGIAN: Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometxak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6); Moztu-Esk. (7); Puzzleak (8); Irudiak (9); Enkajeak (10)							
ALFONBRAN: Ipuinak (1); Eraikuntzak (2); Kamioiak (3); Kotxeak (4); Argazki-albumak (5)							
ARBELEAN: Marraztu (1); Borratu (2)							
HALLEAN: Trizikloak (1); Kotxeak (2); Kamioak (3)							
MATERIALA JASO							

* = Danel eta Gaizka beranduago etortzen direnez, ez dute lehenengo saioan parte hartzen

2001/IV/27

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
ETXEAN: Panpina (1); Telefonoa (2); Kotxea (3); Seaska (4)	1		1	-			2
MAHAI-JOLASAK: Bolatxoak (1); Puzzleak (2); Irudiak (3); Memory (4); Kartak (5); Soinuen identifikazio jokoak (6)				-			
MARGOTEGIAN: Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometxak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6); Moztu-Esk. (7); Puzzleak (8); Irudiak (9); Enkajeak (10)	7	7	6 7	-	6 7	6 7	6 7
ALFONBRAN: Ipuinak (1); Eraikuntzak (2); Kamioiak (3); Kotxeak (4); Argazki-albumak (5); Animaliak (6)	5	1 5 6	5	-	5 6	1 5 6	5
ARBELEAN: Marraztu (1); Borratu (2)				-			
HALLEAN: Trizikloak (1); Kotxeak (2); Kamioak (3)	1	1		-			
MATERIALA JASO				-			

2001/VI/13

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
ETXEAN: Panpina (1); Telefonoa (2); Kotxea (3); Seaska (4)			1	1	2	1	
MAHAI-JOLASAK: Bolatxoak (1); Puzzleak (2); Irudiak (3); Memory (4); Kartak (5); Soinuen identifikazio jokoak (6)							2
MARGOTEGIAN: Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometxak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6); Moztu-Esk. (7); Puzzleak (8); Irudiak (9); Enkajeak (10)	4		4	4	4	4	4
ALFONBRAN: Ipuinak (1); Eraikuntzak (2); Kamioak (3); Kotxeak (4); Argazki-albumak (5); Animaliak (6); Enkajableak (7)		3 7				3	
ARBELEAN: Marraztu (1); Borratu (2)							
HALLEAN: Trizikloak (1); Kotxeak (2); Kamioak (3)						-	
MATERIALA JASO	+	+	+	+	+	+	+

2001/II/20

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Saltoka (1); Txiribueletaka (2)	1 2	-	1 2	1 2	1 2	1 2	1 2
Uztaiak (1); Pelotak (2)	1	-	1	1	1 2	1 2	1
Txirrista; Ranpa	+	-	+	+		+	
Makilak	+	-		+	+	+	+
Abestiak		-	+		+		
Autobusa	+	-	+	+	+	+	+
Egurak	+	-	+	+	+	+	+
Materiala jaso	+	-	+		+	+	+

* = Binaka, ohial handi baten gainean jarri eta A.-k tiratzen du haurrak erori arte

** = Koltxoneta gainean 4 haur jartzen dira eta A.-k gelari buelta ematen dio.
Gero, 5 haur jartzen dira

2001/III/13

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Saltoka (1); Txiribueletaka (2)	1	-	1	1	1	1	
Uztaiak (1); Pelotak (2)	1 2	-	1		1	1	1 2
Txirrista; Ranpa	+	-	+	+	+	+	+
Boloak (1); Kuboak (2)	1 2	-	2	2	2	2	2
Abestiak	+	-	+	+	+	+	+
Autobusa	+	-	+	+	+		
Egurak (1); Palilloak (2); Arkitektura (3)	2	-	1 3	1	1 3	3	3
Materiala jaso	+	-	+	+	+	+	

2001/IV/03

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Saltoka (1); Txiribueltaka (2)	1	-		1	1 2	1	1
Uztaiak (1); Pelotak (2)		-			1	2	
Txirrista; Ranpa	+	-	+	+	+	+	+
Boloak (1); Kuboak (2)	1	-	2	2	2	2	2
Abestiak		-					+
Autobusa	+	-	+	+	+	Ez du nahi	+
Egurak (1); Palilloak (2); Arkitektura (3)		-					
Materiala jaso	+	-				+	+

9.1.1.1.1 Txokoka/espazioka eman den bilakaera**GELA****Etxea**

Irailaren hasierako egunetan etxean sartu eta gehienek erabili duten objektua telefonoa izan da, etxekoei "deitzeko". Azaroaren hasierarako, etxean sartu eta dezente egin duten jarduera, panpina eta kotxeak hartu eta etxetik kanpora ateratzea izan da. Errepikatu den beste jarduera bat objektuak etxean sartzea izan da.

Esango genuke "babes" bezala bizitu dutela etxea momentu askotan eta panpina, kotxe eta seaskaren erabileran ez dela egon diferentziarik neska eta mutilen artean.

Margotegia

Iraileko lehenengo egunetan marrazkia izan da une motz batzuetan denek egin duten jarduera. Azaroan hasi ziren tenperarekin margotzen eta jarduera hau denek egin dute, esan daiteke denek dutela gustuko. Ikasturte bukaera aldera, margolanei bukaera emateko "Acualux" erabili dute eta hau ere denek egin duten jarduera da. Margotegiko espazio honetan: plastilinarekin objektu eta irudiak, puzzleak, ahokatzeko piezak, paperezko bolatxo txikiak egin, kola eman eta collage-ak egin dituzte, makarroiak margotu eta lepokoak egin, Ikasturte bukaera aldera guraizeen erabilerarekin hasi dira.

Jarduera guzti hauek hasieran oso laburrak izanik, ikasturte bukaera aldera esanguratsuki luzatu dira. Adibidez, Haizearen kasuan, maiatzaren 18an 40 minutu aritu da margotzen, lasai, kontzentratuta.

Alfonbra

Argazki-albumak hasierako egunetarik momentu batean ez bada bestean ume guztiek erabili dituzte. Oso egokia den materiala da ikastolan hasi berritan, hor ikusten baitituzte etxeoak. Ipuinak ere erabilera dezentea izan dute eta Sonia, Xabier eta Gaizka bereziki, maiz aritu dira ipuinekin.

Mahai-jolasak

Puzzleak, eraikuntzak eta piezak ahokatzeko joko eta jolasek erabilera handi xamarra izan dute.

Psikomotrizitate gela

Oso gustura joaten dira oro har hasiera hasieratik. Soniari luze egiten zaizkio psikomotrizitateko saioak, nahiago du gelako aktibitatea eta batez ere mahaiko jolas eta eskulanak.

Saio honetan jarduera libre eta zuzenduak egiten dituzte. Oinetakoak kendu ondoren, andereñoak, arauak gogorarazi eta gomaespumazko piezekin 'pareta' eraiki ondoren, denak joaten dira korrika gora igotzera eta handik saltoak, txiribuelta eta txirrista igo eta jaitsi denek egiten dute. Uztaiekin jolastea ere denek dute gogoko eta txotx, egurrak eta arkitektura ere dezente erabili dituzte.

Itxiturak egin eta bertan gordetzea askotan egiten dute; andereñoak joko desberdinak egiten ditu (beraien atzetik joan, atea jo, ahots desberdinak erabili,...) eta izugarri disfrutatzen dute, alde batetik, 'beldurtu' egiten dira eta garrasika hasten dira, gero atera eta korrika buelta ematen diote gelari...

Jarduera zuzenduen artean, 'autobusarena' –oihal handi baten gainean binaka jartzen dira eta andereñoak tiraka eramaten ditu erortzen diren arte– eta 'koltxonetarena' –lau haur jartzen dira gainean eta andereñoak gelari buelta ematen dio– arrakasta handia daukate. Abestiak ere, denak elkarrekin egoteko jarduera egokia da.

Materiala jasotzen dute gehienek.

9.1.1.1.2 Jardueren hiru adibide

Jarduerak ondo ikusteko eta aztertzeko aukera emateko asmoarekin hiru adibide aukeratu ditugu. Adibide hauek jarduera pertsonalizatuak agertzen dituzte eta Xabier, Haizea eta Danelek egindakoak dira.

1. Jarduera - Xabier

Andereñoaren aholkuak: “Margo honekin kontu handia izan behar dugu, arropetan ez da kentzen. Acualux da eta tenpera baino hobeto gelditzen da ‘makarroiak’ margotzeko.”

Bakoitzak kolore desberdinarekin egingo du bere lepokoa (urdina, horia, gorria).

Xabier margotzen ari den bitartean, besteek, itxoin egiten dute pixka bat, lasai. Hamar bat minutu pasa ditu Xabierrek bere lepokoa margotzen.



2. Jarduera - Haizea


Kartulina batean, erdian argazki bat eta ingurua etiketekin apaintzen du; gero kordoi bat jartzen dio zintzilikatzeko. Lasai-lasai, kontzentratuta, etiketak non ipini kalkulitzen.



3. Jarduera - Danel

Bagoi bakoitzeko leihoetan 2 hurren argazkia dago “tapatxo” batekin; ireki eta itxi egiten dira eta asistentzia ‘kontrolatzeko’ erabiltzen dute.

Danelek “trenera” joan, Xabierren leihoa irekitzen du eta hau etorri ez denez, itxi egiten du leihoa berriro, esanez: “Xabier ez da etorri”. Momentu hori aprobetxatzen du Arantxak etorri diren haurrak eta ez direnak kontatzeko.



9.1.1.1.3 Ondorio partzialak

Ikasturtearen bi lehenengo hilabetetan esan genezake, material gehienak probatu dituztela baina oso denbora motzean (minutu gutxi batzuk). Batez ere, bigarren hiruhilabetetik aurrera hasi dira gustukoen dituzten jarduerak gehiago hautatzen eta denbora luzeagoa eskaintzen (Haizeak margotzen 40'; Soniak ipuinekin 20', margotzen 20', Xabierrek ipuinekin 18', puzzleekin 20'). Soniari mahaiko lanak asko gustatzen zaizkio: marraztu, margotu, collage-ak egin, puzzleak. Salbuespena, Danel eta Gaizka izan dira, bien kasuan, lehenengo orduko saiorako iritsi ez direnez, kosta egin zaie martxa hartzea.

Danelek bere etengabeko mugimendu beharrarekin jarraitu du ikasturte osoan eta ez da gehiegi kontzentratu jarduera bakoitzean. Ume honek, hiztegi oso aberatsa dauka eta bai umeeekin nahiz Arantxarekin asko komunikatu da. Badirudi eskolako espazioa txikia egiten zaiola (baserri batean bizi denez, besteei handiak egiten zaizkien espazioetan, bera primeran mugitzen da).

Gaizkaren kasuan, berez lasaiagoa denez, martxa hartu duenetik, jarduerak egiterakoan nahiko zentratua ikusi dugu.

Espazio bakoitzeko materialak jasotzea kosta egiten da, baina laguntzarekin, egiten bukatu dute ikasturte bukaerarako, oro har.

Psikomotrizitateko gelako saioak oso biziak izan dira eta material guztiak probatu dituzte, oro har, eta jokoetan denek hartu dute parte. Arauak gogoraraztea espazio honetan ezinbestekoa da, arrisku gehiago baitago egiten dituzten jardueren eta hainbat materialen ondorioz: korrika, saltoak, garrasiak, egurrak, txotxak... Oso erne egon behar du andereñoak, egoera ugari 'kontrolatu' behar baititu: iskanbilak, txanden errespetua, materialak botatzea... Gela berak ere, ez du gehiegi laguntzen, alde batetik, tamainaz nahiko txikia delako eta bestetik, leihoak beheraino dituelako. Alde honetatik, ikasle kopurua txikia izateak 'konpentsatzen' du arazoa neurri batean.

9.1.1.2 Autonomia ohiturak

Ondoren azaltzen ditugun tauletan Autonomiarekin zerikusia duten ohituren heziketa jaso dugu, bilakaera aztertzeko helburuarekin.

2000/2001 ikasturtea

1. hiruhilabetea: Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I	H	G	D
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe	B	B	B	B	B	B (gosarian)	B
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin	B					B	
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B
Mahai ingurua txukun uzten ikasi	I	I	I	I	I	I	I
Lurra txukun uzten ikasi	I	I	I	I	I	I	I
Mastekatzen eta irensten ikasi		B	B	I	B	B	B
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi		E (lerdea)					
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi							
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi	B	B	B	B	B	B	B
Jana banatu bitartean itxoiten ikasi	B	B	B	B	B	B	B *
Denetatik jaten ikasi	I	I	I	I	I	I	I
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi							begiekin
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi	B			E	E		E
Elikagaiak eskuekin mozten ikasi, koska egin gabe	E	E	E	E	E	E	
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi					E	E	E
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi							
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitu							E **
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi							

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da

* Denetatik, bera da gehien kostatzen zaiona ** Oro har, kosta egiten zaie

1. hiruhilabetea: Deskantsuarekin zerikusia duten ohituren heziketa

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I	H	G	D
Zapatak kentzen ikasi	B	I (lokarridunak)	B	B (kostata)	I	E (lokarridunak)	B
Galtzerdiak kentzen ikasi	B	I (kostata)	B	B kostata)	B (kostata)	B (kostata)	B
Berokia eta txaketa kentzen ikasi	e	e	e	e	e	e	e
Arropak kentzen lagundu (besoak, hankak, etab. altxatuz)	B	B	B	B	B	B	B
Berokia, txaketa, poltsa, mantala... zintzilikatzen ikasi	I	I	I	I	I	I	I
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak eranzten lagundu	B	B	B	B	B	B	B
Janzteko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi	E	E	E	E	E	E	E
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskuetakoak diren jakin	E	E		E	E	E	E
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi	B *	Ez du siestarik egiten				B (txupetea)	
Bakarrik lo egiten kasi	E					B	
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi	E					B	
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi							
Norberaren arropak tolestatzen lagundu							

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da (e) ez zaie eskatzen

* Behar du (etiketa bat eta txupetea)

1. hiruhilabetea: Higienearekin zerikusia duten ohituren heziketa

2-4 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I	H	G	D
Orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi	B	Laguntzarekin	B	B	B	E (zutik)	B
Eskuak garbitzen ikasi	S	S	B	S	S	S	S
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu	B (mukiak baditu)	Ez da kexatzen (txukuna da)	Txukuna da	Eskatzen du	Bereziki sudurraz	E	E
Eskuak lehortzen ikasi	S	S	S	S	S	S	I
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	B		B	B	B	B	B
Esfinterrak kontrolatzen ikasi	B (orok.)	Eskatzen du; batzuetan egiten du	B	B	B	B (baino atzo bi aldiz egin zuen)	B
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu	B		Bereziki baldin badago	B	B (nahiko txukuna da)	E	
Zikina edo garbia dagoela jakin	B	B (txukuna da)		B	B	E	
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi	E	E	E	E	E	E	E

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da

2. hiruhilabetea (jangelan bazkaltzen duten haurrak): Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	YLENIA	GAIZKA
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe	B	I
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin	B	B
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	B	B
Mahai ingurua txukun uzten ikasi	B	E
Lurra txukun uzten ikasi	B	E
Mastekatzen eta irensten ikasi	B	B
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi	B	B
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi	Yogurrarena bakarrik bai	Yogurrarena bakarrik bai

ITEMAK/IKASLEAK	YLENIA	GAIZKA
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi	I	I
Jana banatu bitartean itxuiten ikasi	Kosta egiten zaio geldirik egotea	B
Denetatik jaten ikasi	B	B
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi	Begoñak ematen die, gehiago eskatzen du	Begoñak ematen die, gehiago eskatzen du
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi	B	B
Elikagaiak eskuekin mozten ikasi, koska egin gabe	B	I
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi	E	E
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi	B	B
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitzen ikasi	I (ander. esanda)	I (ander. esanda)
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi	Ez zaie eskatzen	Ez zaie eskatzen

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da

2. hiruhilabetea: Deskantsuarekin zerikusia duten ohituren heziketa

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I	H	G	D
Zapatak kentzen ikasi	B	B (lokarridunak ekartzen dituenean ere saiatzten da)	B	B	B	S (lokarria dutenak; ez da ehiegi saiatzten)	B
Galtzerdiak kentzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S
Berokia eta txaketa kentzen ikasi	B						
Janzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B
Berokia, txaketa, poltsa, mantala... zintzilikatzen ikasi	B	I	B	I	I	I	I
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak eranzten lagundu	B	B	B	B	B	B	B
Janzteko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi	E	E	E	E	E	E	E
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskuetakoak diren jakin	E	E	E	E	E	E	E
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi	B*					B	

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I	H	G	D
Bakarrik lo egiten ikasi	B					B	
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi	E					B	
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi						B	
Norberaren arropak tolestatzeko lagundu	E	E	E	E	E	E	E

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da

* Behar du (etiketa bat eta txupetea)

2. hiruhilabetea: Higienearekin zerikusia duten ohituren heziketa

2-4 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I	H	G	D
Orinal/komunean esertzen eta altxatzen ikasi	B	B	B	B	B	B (beldurra dio kaka egiteari)	B
Eskuak garbitzen ikasi	B	I	B (ondo garbitu nahi izaten ditu)	B	I	I	I
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu	B	B	B	B	B	(molestatzen dio baina besoarekin kendu)	Ez da mukitsua
Eskuak lehortzen ikasi	I	I	I	I	I	I	I
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B
Esfinterrak kontrolatzen ikasi	B (egunez)	B (egunez)	B (egunez)	B (egunez)	B (egunez)	B (egunez)	B
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu	B	B	B	I	B	E	Ez gehiegi
Zikina edo garbia dagoela jakin	B	B				B	
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E (berdin zaio, ez du denborarik hartzen)

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (T) Tarteka egiten du

* Edalontziak bai; papera denek botatzen dute komunera

Gurasoengandik jasotako informazioa**3. hiruhilabetea: Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak**

1 urterekin hasi eta bereganatzen joatekoak

ITEMAK/IKASLEAK	S	I	G	X	I	H	D
Garbia dagoenean disfrutatzen ikasi	B	S	B				
Garbitzen edo orrazten eskatzen ikasi	E	B	B (kolonia)				
Gorputzaren usain ona baloratzen ikasi	E	B	B				
Beste haurren presentzia txukuna baloratzen ikasi	B		S				
Azkazalak mozten utzi	B	E	(gogoa duenean)				
Ilea mozten eta txukuntzen utzi	B	B	B				
Zapatak garbiak eramaten eta ondo jartzen ikasi	S	S (gutxi)	E				
Aurpegia, sudurra, eskuak garbitzen ikasi (bere gisa, Zikinak daudenean)	S	B	S				
Arropak txukun ordenatzen ikasi	S						
Zikina sentitzen denean azpiko arropak aldatzen ikasi	Bustita dagoenean	B	Bustita dagoenean				
Ilea txukun eramaten ikasi	E		E				
Azkazalak garbiak eta ondo moztuta eramaten ikasi	S	E					
Zapatak garbitzen ikasi							
Gaineko arropak orbanik gabe mantentzen ikasi	S		E				
Orban errazak garbitzen ikasi							
Arropa politak, kolore konbinaketa eta irudiak baloratzen ikasi	Eroso joatea gustatzen zaio		Arropa eta zapata motak baloratzen ditu				
Produktuak erabiltzen ikasi: hidratatzaileak, eguzki-babesleak...	B	B (gustatzen zaio)	B (kolonia)				

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da

3. hiruhilabetea: Norberaren autonomiarekin lotutako ohiturak

0-3 urte bitartean hasi eta kontsolidatzen joatekoak

ITEMAK/IKASLEAK	YLENIA	XABIER	SONIA	IMANOL	HAIZEA	GAIZKA	DANEL
Gauza txikiak bakarrik egiten ikasi: jostailuak hartu, gorputzeko atalak mugitu, bere burua entzun eta besteei entzun, entretenitu...	B	B	B	B	B	B	B
Trebetasun txikiak ikasi: txiribueltak eman, pinuarena egin, orekan mantendu, hanka baten gainean salto egin, narrasi, papera urratu, behatzekin pusketak egin, txalo jo, txistu egin,	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)
Hitzak esaten ikasi, erritmo bat jarraitu, objektuei soinua aterarazi	B	B	B	B	B	B	B
Tresna batzuen erabilera dominatu: koilara, edalontzia, platera, ...	B	B	B	B	B	B	B
Behar diren gauzak erabiltzen ikasi: baberoa, orrazia, etab.	B	B	B	B	B	B	B
Garbitzen ikasi, jantzi eta erantzi laguntza pixka batekin edo bakarrik	B	B	B	B	B	B	B
Kolaboratzen ikasi: mahaia kendu eta jarri, ...	G	G	G	G	G	G	G

(B) Egiten du; (G) Gutxi

9.1.1.2.1 Autonomiaren bilakaera

Lerro hauek idazteko aurreko tauletan jaso dugun informazioa kontuan hartu dugu.

.Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak

Kontrol handi xamarra eskatzen duten item dezente daude: elikagaia ahora eramán bidean erori gabe, koilara erabiltzen ikasi, mahai ingurua txukun uzten ikasi... Zailtasun dexentea duten ohiturak dira bi urteko umeak direla kontuan hartuz. Jangelan bazkaltzen gelditu diren bi umeen datuak ikusita, esan dezakegu lorpen esanguratsuak egin dituztela; Yleniaren kasuan, hiru item izan ezik beste denak egiten

ditu eta Gaizkak ere aurrerapenak egin ditu, 9 item egiten ditu eta beste 4 ikasteko prozesuan dago.

.Deskantsuarekin zerikusia duten ohiturak

Hainbat ohitura zailak dira 2 urteko umeentzat. Ikusten da, egunero landuz joan behar dela eta oso pixkanaka lortzen direla, horien artean aipatuko genituzke: janzteko orduan arropen alde ona edo alderantzizkoa bereizten ikastea, zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakitea, norberaren arropak tolestatzen laguntzea. Beste hainbat, berriz, oro har, lortu dituzte: janzten ikasi, galtzak, gonak, ... erazten lagundu, bakarrik lo egiten ikasi (Yleniak eta Gaizkak bazkaldu ondoren, siestako orduan egiten dute), zapatak kentzen ikasi.

.Higienearekin zerikusia duten ohiturak

Atal honetako ohiturak oso pixkanaka lortzen joatekoak direla esango genuke eta ondorengoak lortu dituzte oro har, hala nola: orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi, sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu, zakarontzia erabiltzen ikasi, esfinterrak kontrolatu (egunez), zikina sentitzen denean laguntza eskatu. Aldiz, eskuak garbitzen ikasi 7tik 3k egiten dute eta eskuak lehortzen ikasten ari dira. Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi, esan dezakegu, nahiko zaila dela adin honetan.

.Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak

Informazio hau gurasoengandik jasotakoa da eta 7tik 3k erantzun dute.

Hiru umeren kasuan, ilea mozten eta txukuntzen uzten dute, produktuak erabiltzen ikasi (kremak, kolonia,...), hirurei gustatzen zaie. Beste hainbat: garbia dagoenean disfrutatzen ikasi, garbitzen edo orrazten eskatzen ikasi, zikina sentitzen denean azpiko arropak aldatzen ikasi, biren kasuan bai, edo bustita sentitzen direnean bai. Beste hainbat ohitura, zailak dira: zapatak garbiak eramatea eta ondo jartzen ikastea, arropak txukun ordenatzen ikastea, zapatak garbitzen ikastea, orban errazak garbitzen ikastea, gaineko arropak orbanik gabe eramaten ikastea.

.Norberaren autonomiarekin lotutako ohiturak

Lehenengo 6 itemetan agertzen diren autonomia ohiturak denek lortu dituzte, hanka baten gainean salto egitea izan ezik. Azkeneko itema, kolaboratzen ikasi (mahaia kendu eta jarri...) gutxi eskatzen zaien jarduera da.

9.1.1.2.2 Arauak eta egoerak

Ikasturtean zehar egindako behaketa saioetan jasotako hainbat arauen - ohituren zerrenda azaltzen dugu ondoren:

Irailaren 22an

- Jertseak kendu, pertxeroan jarri.
- Baloia ezin da gelatik hallera atera.
- Errotulagailuarekin margotzean, gero tapoia jarri.
- Kotxeak ezin dira gelatik atera.
- Lagundu hau jasotzen.
- Arbelean ez errotulagailuarekin, klariona erabili behar dugu.
- Pixa egin nahi duzue?

Irailaren 27an

- Motoa, kanpoan ibiltzeko da, gelan ez.
- Poliki ibili.
- Trizikloa ezin da atera, zu zeu atera nahi baduzu.
- Ezin da iletatik tira egin.
- Labana hau plastilina mozteko da, ez da jotzeko.
- Ez bota klarionak, poltsa honetan sartuko ditugu.
- Gauzak jasoko ditugu sagarra eta gailetak jan aurretik.
- Txupeteak jaso, jan egin behar dugu eta.
- Kojina ez da etzanda egoteko, eserita egoteko da.
- Gailetak jan ondoren joango gara ura edatera. Itxoin pixka bat.
- Denentzat lekua badago, ez bultza egin.

Irailaren 29an

- Errotulagailuak paperean margotzeko dira, ez ipuinean.
- Gosaltzen ari garen bitartean jostailurik ez.
- Arriskutsua da mahai gainean eserita egotea.
- Ez bota paperak lurrera, bota zakarrontzira.
- Kojinak hartu eta eseri alfonbran.
- Hau denentzako da, plastilina ere denona da.
- Txandaka egiten ikasi behar dugu, banan banan. Zuk bota duzu, emaiozu.

Urriaren 11n

- Errotulagailuei tapa jarriko diegu: urdinari urdina, gorriari gorria, ...
- Mahai honetan gometxak, beste honetan marrazkiak.
- Pixa egitera joateko jostailuak gelan utzi behar ditugu.

Urriaren 19an

- Erratza ez da arbela jotzeko.
- Ez badakizu jolasten, kendu egin behar dizut (joka ari zelako).
- Armarioa nik irekitzen dut.
- Tapak jarri margoei, bestela lehortu egiten dira.

Azaroaren 3an

- Ez hitz egin horrela, ez dugu ulertzen (garraxika).
- Ez bota bolak zakarrontzira.
- Eraiketak alfonbra gainean, hemen ez (espazio bakoitzeko materiala bereizteko).
- Txokolatea gailetak jan ondoren.
- Ez bota horrela, miña ematen duzu, bestela, beste zerbaitekin jolastu beharko duzu.

Martxoaren 13an

Psikomotrizitate gelan arauak gogorazten:

Zertara etorri gara? Ondo pasatzera, orduan:

- Ezin da harramazka egin.
- Ezin da bultza.
- Ezin da koska egin.
- Ezin da jo.
- Salto egitean abisatu egin behar da.
- Hitz itsusiak ere ezin dira esan.
- Eztula egitean eskua jarri.
- Eskatu iezaiozu mesedez.

9.1.1.2.3 **Autonomia ohituren ondorio partzialak**

Tauletan eta zerrendan ikusten ditugun ohiturak etengabe lantzen joatekoak direla esan dezakegu. Bai kontrola eskatzen dutelako, bai egiteko jarrera baikorra behar dutelako, eguneroko egoera guztietan eginez lortzen joatekoak dira eta ezinbestekoa, etxean ere lantzea; batzuk, hain zuzen, etxean egiteko proposagoak dira: zapatak garbitu, arropak tolestatzen lagundu, denetatik jaten ikasi (gehienek etxean jaten dute).

Ohituren heziketak, ikastolako irakasle eta ez irakasleen (atezain, jangelako arduradun, garbitzaile) eta etxeko guraso, aitona-amonen eta familiaren parte hartzea eta kolaborazioa eskatzen du.

9.1.1.3 **Elkarrekintzarekin zerikusia duten egoerak**

Ikasturtean zehar jasotzen joandako hainbat momentu eta egoerak deskribatzen ditugu ondoren.

Irailaren 22an

- . Imanolek Haizeari: "Hola", sartzen ikusten duenean.
- . Arbelean ari dira Danel, Imanol eta Sonia, batera.
- . Argazki-albumak ikusten Danel eta Imanol andereñoarekin.

Urriaren 4an

- . Laguntzailea badoa eta agurtzen ditu: Agur Xabier, agur... Yleniak Rosiri, Imanol seinalatuz: "A Imanol también".
- . Xabierrek galdetzen du: Ylenia, Ylenia? (ez baitzuen ikusten).
- . Ipuinak ikusten alfonbran eserita: Sonia, Xabier, Ylenia, andereñoarekin.
- . Ylenia eta Imanol beren gisa beste ipuin batzuekin.

Urriaren 6an

- . Soniak Xabierri: "Kuku, kuku". (Parra eginarazi nahi dio eta behin eta berriro errepikatzen du).

Urriaren 11an

- . Danel eta Imanol zaldi gainean: "Siéntate Imanol, siéntate Ylenia, ponte Ylenia".

Urriaren 19an

- . Haizea, Gaizka eta Ylenia elkarrekin jolasean, konoak erabiliz.

Otsailaren 2an

- . Soniak Xabierri: ¿quieres jugar con una pelota?
- . Soniak Imanoli biberioa ematen dio eta esaten: “Está riquísimo”.
- . Soniak: “Ylenia, quieres biberón?” Esnea armariotik hartuko balu bezala egiten du, gero tapa jarri eta Yleniaren bila doa.

Martxoaren 13an

- . Memory jokoarekin dabilta Sonia eta Ylenia, andereñoarekin.
- . Korroan jarrita: “Sorgina Pirulina”.
- . Xabier eta Imanol egurrekin soinua ateratzen, segituan Haizea eta Soniak joko bera.

Maiatzaren 18an

- . Momentu askotan dabilta elkarrekin: bata besteari deituz, elkarrekin jolasean, mahai batean denak elkarrekin.

9.1.1.3.1 Bilakaera

Hasiera-hasieran helduaren laguntzarekin, adibidez, Arantxa andereñoarekin, argazki-albumak eta ipuinak ikusten. Egun batzuetara, beraien arteko lehenengo agurrak, kukuak eta pixka bat geroxeago ipuinak beren gisa, jolasen bat, zaldiaren gainean jartzeko gonbidapena, piezak trukitzea...

Asko laguntzen du elkarrekintza garatzen talde txikian eta handian gelan egiten diren jarduerak: elkarrekin margotu, etxeko koltxoiaren gainean elkarrekin etzanda egon, jokoek (Memory –martxoaren 13an–, egurrezko piezekin jokoak –ekainaren 13an–). Gosariko momentuak: fruta eta gailetak konpartitzean, asistentziaren ‘trenarena’ egiterakoan elkarrizketan gai bat ateratzen denean, eguraldia lantzerakoan, abesterakoan, dantza egiterakoan. Aipatu nahi ditugu ere psikomotrizitate gelako jarduerak, asko ahalbidetzen baitituzte elkarrekintza egoerak: itxituretan elkarrekin egotea, binaka egiten duten ‘autobusaren’ jokoak, uztaiena, bata bestearen atzetik korrika ibiltzeak, koltxoneta handiko saltoak, abestiak.

9.1.1.3.2 Ondorio partzialak

Elkarrekintza ematen den heinean, momentu batzuetan gatazka txikiak ere sortzen dira eta horietan, paper garrantzitsua jokatzen dute andereñoek, lasaitzen, zer pasa den deskribatzen laguntzen, pentsatu arazten, bakea egiten laguntzen, umeak kontenitzen (hainbat egoeratan, fisikoki hartu eta borroka espaziotik aldenduz). Kasu

batzuetan, jo egiten duten umeari gatazketatik ikasi eta indarra atera dezan lagunduz; momentu horietan argi ikusten da andereñoak zenbateraino ezagutzen duen ume bakoitzak noraino egin dezakeen arazoan aurrean. Adibide moduan, gatazka momentu batean, Arantxa andereñoak Imanoli laguntzen dio aurrera egiten; honek negarrez, inpotentziaz, beste umearen aurrean horrelaxe erreakzionatu zuen: “Voy a comer mucho para ganarle a Danel”.

9.1.1.4 Gela/Geletako funtzionamenduan lagundu duten aspektu batzuk

- Gelako espazio eta materialen lekuak ondo zedarrantuta/delimitatuta egotea.
- Ume bakoitzarekin kasu egiteko denbora hartzea, 5-10 min urduri daudenean (berarekin egotea: magalean, besoetan hartuz, ...).
- Aldez aurretik umeak jakitea zer egin behar duen ondoren.
- Arauak gogoraraztea.
- Zailtasunen aurrean animatzea, gauzak probatzera gonbidatzea, laguntzea.
- Umeak berak egin dezakeena berak egitea.
- Gatazken konponketan laguntzea.
- Ekintza edo jokabide desegokia eta umea bera dena bereiztea: zu jatorra zara baina miña egion diozu.
- Egia esatea: orain ama joan egingo da ogia erostera eta segituan etorriko da.
- Erritmo lasaia erabiltzea.
- Fisikoki eskutik heldu eta umeak egin behar duena egiten laguntzea (nahi ez duenean).
- Ikastolara denak bateratsu iristea, ez berandu etortzea (lehenengo saioa galduz gero kosta egiten zaie dinamikan sartzea).
- Gurasoei entzutea eta enpatia agertzea: ama gaixorik, umeak ingesatu beharra, ebakuntzak, ...
- Gurasoekin etengabeko kontaktuan egotea: telefonoz, eguneroko harremanean, bileretan.
- Ikasle kopuru txikia izatearen abantaila: denbora dedikatzeko, gehiago pertsonalizatzeko.
- Arauen, ohituren zergatia azaltzea.
- Eguneroko jardueren sekuentzia mantentzea.

9.1.1.5 Ikuspegi orokorrak andereñoaren hitzetan

Garrantzitsua iruditu zaigu ikasturte bukaeran andereñoari egindako elkarrizketa hemen azaltzea. Hau da, espazio bakoitzari buruzko iritziak, egokitzapen-aldiko prozesua eta ikasturtearen bilakaera nola baloratzen duen ikusi ahal izateko.

2001/VI/21

Espazioei buruzko iritziak

. Gela

Ondo sentitu da gelako egitura eta antolaketarekin.

Egingo lukeen aldaketa bat irakasleen komuna anulatu eta gelatik ate bat egitea izango litzateke; orain dagoen bezala, ume batek komunera joatea eskatzen duenean, besteak ere atzetik ateratzen direlako.

. Psikomotrizitate gela

Bi urteko umeentzako ez zaio egokia iruditzen; batetik leku gutxi dago koltxoneta jarrita eta bestetik, babestuagoa egon beharko lukeela dio. Horma-barrak ere faltan botatzen ditu.

. Piszina-halla

Negurako eta eguraldi txarra egiten duenerako egokia ikusten du 2 urteko umeek bakarrik daudenean, ikasle gehiagorekin ez hain goxo (soinu handia, triziklo eta tresna asko, ...)

. Komunak

Ondo daudela dio, beraien tamainakoak, harraska ere ondo dagoela dio.

. Jangela

Pribilegioa dela dio, oso ondo dagoela eta ume kopuru handirik gelditzen ez denez, oso atentzio pertsonalizatua eskaintzen zaiela.

. Logela

Oso ondo. Hemen ere haur gutxi direnez, lasaitasun handia egoten omen da eguerditan.

. Patioa

Aterpe falta handia ikusten du, euria egiten duenerako konpondu beharra dagoela. Belar gehiagoren beharra sumatzen du (eraikinaren bueltak horretarako tamaina badu). Beste arazo bat, patioan putzuak egiten direla da.

.Espazio desberdinetako egokitzapen prozesua

Gelarako egokitzapena gurasoekin batera egin zuten eta ondo joan dela dio. Oso gustura ikusten ditu umeak orokorrean. Esaten dit, mutilek gehiago hartzen dituztela eraikuntzak neskek baino; agian, neskek zerbait faltan botatzen dutelako.

Gela barruko etxea beraien burua babesteko, gauzak pilatzeko, sartu-irtenean ibiltzeko, jolas sinbolikorako, alderdi motorea lantzeko, erabiltzen dute.

Garbi omen zeukaten andereñoek alfonbraren espazioa toki lasai bezala erabiltzeko zela: elkarrizketak, ipuinak, abestiak... Mahaia lanerako: eskulanak, puzzleak... eta etxea, libre mugitzeko.

Psikomotrizitate gelara ere ondo egokitu omen dira oro har, hasiera-hasieratik.

Komunetan ere ondo moldatu omen dira; ez zaio gertatu umeren batek pixa egitea nahi ez izatea eta horrelakorik. Urak asko erakartzen ditu.

Jangelan bi ume gelditu dira bazkaltzen eta ondo joan dela dio.

Patioan Xabierri bere beldurrengatik kostatzen egin omen zitzaion, pixka bat galduta ibili omen zen ikasturte hasieran, batez ere ume handiagoak patiora ateratzen zirenean.

.Ikasturtearen bilakaera

Egokitzapena ondo joan dela dio, gurasoek ulertu omen dute aldi honen garrantzia, hala ere, maiz ari behar omen da horren beharra eta prozesuko pausoak gogorarazten. Guztiz alde dago eta beharrezkoa ikusten du egokitzapen prozesua. Ume guztiek egiten omen dute atzera pausoren bat uneren batean (nekatuta sentitzen direnean, egunero etorri behar dutela konturatzean, ...) baina, lagundu eta animatuz oso ondo egin omen dute aurrera. Eskolako sarrera horrela antolatuta egitearekin aldaketa handia sumatzen omen du; lehen askoz ere gehiago nekatzen omen zen umeen negarrekin, lehen eginda. Aurten, aldiz, oso lasai ibili dela dio.

Familiakoekin lan handia egin behar dela azpimarratzen du, ez gurasoekin bakarrik, baizik eta aitona-amonekin ere. Honi buruz komentatzen dit, hain barneratuta dauzkagun topiko batzuk erabil ez ditzagun, adibidez: "te voy a meter al cuarto de las ratas", "te voy a colgar", "gaiztoa da ume hau"... horrelakoen aurrean erantzuna eman behar dela.

Ikasturtea aurrera joan ahala gurasoak pozik eta konfiantza azaldu diotela esaten dit.

Hiru hiruhilabeteak kontuan hartuz, azkenekoa izan omen da gehien kostatu zaiona eta ez daki ondo zergatik, agian, Danelen dinamikaren ondorioz. Ez daki

datorren urterako nola planteatu, nola aurre egin ume horrek behar duen mugimendua nola bideratu.

Azvimarratzen du, Rosi (PT-a) beharrezkoa izan dela, 2 urteko umeekin bigarren pertsonaren presentzia behar beharrezkoa dela. Baina, eskatuko luke PT-en zereginak argiago egotea; bestela, dio, galdetzen dizunean etorriko al den, baietz esatea ausartu ezinik ikusten duela bere burua.

Eskatzen diot datorren ikasturterako dauzkan ideiak, kezak, premiak kontatzeko. Esaten dit, kezketako bat “zirkulazio librean” umeak nola hasiko diren dela eta horretarako gauzak nola planteatu behar dituen.

Printzipioz, ume berri bat hasiko omen da eta atzo izan omen zen gelan, espazioak eta lagunak izango direnak ezagutzeko. Egokitapena egingo dute berriro ume honentzat; bere amarekin etorriko omen da eta haurra ondo ikusten duten momentuan, ama joan egingo dela. Aurtengo haurrentzat ez dute planteatzen berriro gurasoak gelan egoteko premiarik.

Goizeko 9:00etan borobila ez egitea erabaki dute, ez duela merezi dio, umeak ez baitira batera etortzen; beraz, bi lehenengo egunetan bakoitza bere gela berrian egongo da bere andereñoarekin (espazioak eta materialak ezagutzen) eta hirugarren egunean “irekiko dituzte gelak” (Plastika eta Eraikuntza gelak) eta haur bakoitzak aukeratuko du zein geletara joan. Hortik aurrera, beraz, 3 urteko eta 4 urteko haurrak nahastuta ibiliko dira zirkulazio libreetako saioetan.

9.1.2 Bigarren ikasturtea

Ikasle-Taldearen Jaiotze datak

IKASLEAK	JAIOTZE DATA
DANEL	1998/V/28
GAIZKA	1998/VI/03
HAIZEA	1998/V/11
IMANOL D.	1998/IV/08
IMANOL E.	1998/IX/05
IVAN	1998/V/21
SONIA	1998//II/11
XABIER	1998/XI/24
YLENIA	1998/X/05

9.1.2.1 Banakako eta talde txikitako jarduerak

2001/IX/10 - Ikasturteko lehenengo eguna

Denak etorri dira eta harritu xamarrak daude beste gela batean daudelako; Danelek galdetzen dio Arantxari: “¿por qué estamos en esta gela?” “Handiak garelako” erantzuten dio. Etxera joaterakoan ere berriro esaten du: “Mañana, a la otra gela?” Andereñoak: “Ez, bihar ere hemen, gela honetan”.

IKASLEAK/ JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
MAHAI-JOLASAK: Bolatxoak (1); Puzzleak (2); Irudiak (3); Memory (4)									
MARGOTEGIA: Marraskia (1); Plastilina (2); Gometxak (3); Collage-ak (4);	2		2	1 2	2	2	2	2	1 2
ALFONBRA: Ipuinak (1); Eraikuntzak (2); Argazki-albumak(3)	3	1 3	1 3	1 3	3	1 3	1 3	1 3	1 3
ARBELA: Marrastu (1); Ezabatu (2)	1		1	1	1	1	1	1	1
HALLEAN: Trizikloak (1); Zaldiak (2); Rokodromoa (3)	1 2	1 2	1 2	1 2	1 2	1 2 3	1 2	1 2	1 2
MATERIALA JASO	1		1				1		1

2001/IX/12

OHARRA

‘A’ gela, “Margotegia” (Plastika gela) izango da eta espazio desberdinak bereizten dira bertan: : marrazkigintza, modelaketa, tenpera/akuarela eta kolaketa edo hondakin-txokoa; ipuinena; txotxongiloarena; legoen espazioa, ...

‘B’ gela, “Eraikuntzen” espazioa izango da eta espazio desberdinak bereizten dira: eraikuntzena, mahai-jolasena, puzzleena, ipuinena...

GOIZEKO SAIOEN SINTESIA

9:00	Harrera-agurrak
9:15 - 10:30	Zirkulazio librea: - plastika gelan - eraikuntzen gelan Materialak jaso
10:40 - 10:50	Ipuina Ikasleen asistentzia: etorri direnak eta ez direnak zenbatzen

10:50 - 11:00	Gosaria Kontzeptuak lantzen Abestiak
11:00	Komunera
11:10	Patiora
11:50	Patioan egin dutenaren errepassoa
11:55	Izenak errekonozitzen
12:00	Agurrak

2001/IX/19

"A" GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marrazkia (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Mozketa (5)	3 1 2 5	-	1 3 5	1	1	1 5	1 2 3 4 5	3 5	2 1 5
PUZZLEAK(1); LEGO-a (2)	2	-		2					2
ARGAZKI-ALBUMAK		-		+	+			+	
IPUINAK		-						+	
ABESTIAK	+	-	+	+	+	+	+	+	+
MATERIALAK JASO	+	-	+	+	+	+	+	+	+

* = Kantari, bere gisa

"B" GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
TRENAK						+			
ESTATUAK							+		
ETXEAK									+
MATERIALAK JASO						+	+		+

PATIOAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
UME KOTXEAREKIN PASEATZEN	+						+		+
SOKAREKIN SALTOKA			+	+					+
KORRIKA	+		+	+	+	+	+	+	+
MATERIALAK JASO	+		+	+	+	+	+	+	+

2001/IX/26

PATIOAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
TRIZIKLOAK	+	+	+	+	+	+	+	+	+
HOSTOAK JASOTZEN	+	+	+	+	+	+		+	+
KORRIKA	+	+	+	+	+	+	+	+	+
MATERIALAK JASO	+	+	+	+	+	+	+	+	+

2002/I/16

"A" GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marrazketa/Margoketa (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Moztu (5); Izena jarri (6)	3	2 4	2 6	-	2 4	2 4	3 4	2 4	-
PUZZLEAK(1); LEGO-a (2)									
ARGAZKI-ALBUMAK									
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)			3				3		
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2)									
MATERIALAK JASO	+	+	+		+	+	+	+	+

"B" GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
EGURREZKO PIEZAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3*); PUZZLEAK (3b); PINTXOAK (4)		1		-	1	1		1	-
MAHAI-JOKOAK: PUZZLEAK (1); PUZZLEAK (1b); KARTAK (2); BI BERDINEN JOKOA (3); EL LINCE (4); PARTXISA (5); ZUHAITZEN JOKOA (6); OKA JOKOA (7)			5	-					-
IPUINAK				-					-
MATERIALAK JASO		+	+	-	+	+	+	+	-

2002/IV/18

"A" GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marrazkia/Margoketa (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Moztu (5); Pegatu (6); Collage-ak (7); Izena jarri (8)							2		
PUZZLEAK(1); LEGOA (2)									
ARGAZKI-ALBUMAK									
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)									
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2); Ordenagailua (3)									
MATERIALAK JASO (1); MAHAIA GARBITU (2); IXIPUA GARBITU (3)							+		

"B" GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
EGURREZKO PIEZAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3); PUZZLEAK (3b); PINTXOAK (4)	1	1 3	3 1	1	3 2	1		1	3
MAHAI-JOKOAK: PUZZLEAK (1); PUZZLEAK (1b); KARTAK (2); BI BERDINEN JOKOA (3); EL LINCE (4); PARTXISA (5); ZUHAITZEN JOKOA (6); OKA JOKOA (7)	4	4 3	5 3	4	2 3 4	4	3 5	4	2 3 4
IPUINAK					+				+
MATERIALAK JASO	+						+		

2002/VI/05

"A" GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marraskia/Margoketa (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Moztu (5); Pegatu (6); Collage-ak (7); Izena jarri (8)			O				3		
PUZZLEAK(1); LEGOA (2)							1		1
ARGAZKI-ALBUMAK									
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)									
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2); Ordenagailua (3)							3		3
MATERIALAK JASO (1); MAHAIA GARBITU (2); IXIPUA GARBITU (3)							1		1

(O): oporretan

"B" GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
EGURREZKO PIEZAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3); PUZZLEAK (3b); PINTXOAK (4)	1	1 2	O	1 2	1	1 2	3b	1	3b
MAHAI-JOKOAK: PUZZLEAK (1); PUZZLEAK (1b); KARTAK (2); BI BERDINEN JOKOA (3); EL LINCE (4); PARTXISA (5); ZUHAITZEN JOKOA (6); OKA JOKOA (7)	7				7	7			7
IPUINAK									
MATERIALAK JASO	+	+		+	+	+	+	+	+

(O): oporretan

9.1.2.1.1 Espazioka eman den bilakaera ikasturtean zehar

Ikasturteko lehenengo 3 egunetan beraien erreferentzia gelan, “Plastika” gelan aritu dira, lehenengo solairuan eta, harridura azaldu dute; aurreko ikasturteko gela zuten gogoan eta behera joan nahi zuten. Egun hauetan, gelako espazio desberdinetako material berriak ezagutzen eta probatzen ibili dira eta 2 ikasle berri daudenez, Ivan eta Imanol E., hauen egokitzapen prozesua lantzeko ere izan dira egun hauek. Ivanen kasuan, beste eskola batetik datorrenez, erraz ohitzen ari dela dirudi eta ez du izan ama berarekin egunetan gelditzeko beharrik. Imanoli, aldiz, etxetik datorrenez, gehiago kostatzen ari zaio ikastolako ohituretan egokitzea.

Lehenengo egunean, marrazkia eta plastilina, ipuinak eta argazki-albumak, txotxongiloa, eraikuntzak eta arbelean margotzen/idazten pasa dute harrera ondorengo saioa. Gosaria, ume berriak aurkezteko eta udan bakoitzak zer egin duen kontatzeko aprobetxatu dute. Komuneko buelta egin eta gero, patioan ibili dira triziklo, zaldiak eta rokodromoan.

Laugarren egunetik hasi dira zirkulazio librean, hau da, harrera egin ondoren ume bakoitzak “A” gela edo “B” gela aukeratzen bere jardueretarako. Une honetan hasten dira 3 eta 4 urteko haurrak nahastuta lan egiten. Material erakargarriak daude bi geletan, egokiak, anitzak, eta espazioak ondo antolatuta umeen interesa pizteko.

“A” gelako plastikaren espazioak: marrazkigintza, modelaketa, tenpera/ aukarela txokoa eta kolaketa edo hondakin-txokoa: marraztu, margotu, itsatsi, collage-ak egin, puntzoia erabili, moztu, plastilinarekin objektuak eta irudiak egin, hondakin-materialak erabili, produkzio desberdinak egin; ipuinen espazioan, irakurri, ipuinak kontatu, argazki-albumak ikusi; txotxongiloaren espazioan, saioak prestatu eta errepresentatu; ordenagailuaren espazioan, idatzi, jokoak erabili; arbelean, margotu eta idatzi...; puzzle eta Legoen espazioan, puzzleak egin eta piezekin eraikuntzak egin...

“B” gelako eraiketa espazioak: eraikuntza txiki eta handiak: egurrezko forma eta tamaina desberdineko piezekin, errepide, hesi, zubi, etxe, itxitura, parking-ak... egiten dituzte; mahai-jolasen espazioan: kartak, dominoa, partxisa eta hainbat joko; puzzleak, Legoen espazioan: puzzleak egin, Legoak, pintxoak etab. eraikuntzak eta irudi desberdinak egin...

Ikasturte hasieran, 3 urteko haurrek gehiago aukeratu dituzte “A” gelako – Plastika gelako – espazioetako jarduerak, eta pixkanaka, “B” gelako – Eraiketa gelako – espazioetako jardueretan parte hartzen hasi dira. Ikasturtean zehar, oro har,

joera handiagoa izan dute mutilek eraikuntzetan aritzeko eta neskek, aldiz, plastika gelako jardueretan parte hartzekoa. Soniak adibidez, gehiagotan aukeratu du margoketa eta eskulanetako aktibitatea eta horretan 'zentratu' da gehien. Yleniak bi geletako aktibitate hartu du parte saio askotan. Danelek, Gaizkak, Imanolek eta Imanol D.-k sarriagotan aukeratu dute eraikuntzak egiteko jarduera.

"Plastika" gelako elaborazioak esanguratsuki aberastu dira ikasturte honetan, bai kontrola, sormena, nahiz indarra eskatzen duten jardueretan eta denbora aldetik ere, asko gehitu da dedikazioa; adibidez, hiru neskak, Soniak, Haizeak eta Yleniak, saio osoak pasa dituzte hasitako margolan edo eskulanak egiten.

"Eraiketa" gelako produkzioek aurten pisu handia hartu dute eta hemen ere, mutil gehienek saio osoak pasa dituzte. Mahai-jolasen espazioak ere garrantzi handia izan du eta espazio honetan andereñoen parte hartzea beharrezkoa izan da.

"Plastika" gelan egin dituzte (beraien erreferentzia gela) gosariak eta honen barruan: bi geletan egindako aktibitateen errepassoa, abestiak, ipuinak, elkarrizketak, asistentziaren 'kontrola', eguraldia... Eguneroko elkarrizketetan gai asko jorratu dituzte: egunkarietako notiziak, festak, aste bukaerako irteerak, asko aberastu dira eta horren adierazle dira ondoren azalduko ditugun adibideak. Euskararen ezagupena eta erabilera ere nabarmentzekoak dira.

Patioan: asko askatu dira eta nabarmena izan da jolas sinbolikoaren presentzia beraien jolasetan: kotxearekin paseatzerakoan, panpina zaintzerakoan... Patioko tresna guztietan erraz moldatu dira: rokodromora igo eta jaitsi, potroa, txirrista igo eta jaitsi, patio buelta osoko koska eta eskaileak ere ondo 'salbatu' dituzte eta elkarrekintza momentuak ere maiz eman dira: korrika, soka-saltoan, biko trizikloetan, panpina paseatzerakoan...

9.1.2.1.2 Banakako eta taldeko hainbat jardueren adibideak

1 - Jostailu baten deskribapena - Haizea

Gaur jostailu eguna denez, erakutsi ekarri dituzuen jostailuak. Bat aukeratu. Haizea hasten da, euskaraz. Argazki kamera deskribatzen du galderei erantzunez:

- . Koloreak
- . Zerez egina: plastikoa, burdina, ...
- . Kontzeptuak: gogorra, biguna, ...

2 - Jostailu eguna: Deskribapena - Imanol E., Xabier, Gaizka

- Imanol E.
 - . koloreak
 - . zenbakiak
 - . zerez egina
- Pistola**
 - . pilarik duen
 - . ea nola disparatzen duen
 - . ea zer soinu egiten duen
 - . puskatuta dagoen
 - . koloreak
- Xabier
 - . zerez egina
 - . nolakoa: gogorra
- Lehoia**
 - . jostailuzkoa edo benetakoa
 - . non bizi diren: zooan, etxean, Cabarzenon
 - . tamainak: handiak
 - . benetakoak = arriskutsuak. D-ek: gaiztoak. A-k: arriskutsuak
 - . nola mugitzen diren


Oharra: Errealitatera hurbiltzen laguntzen die

- Gaizka
 - . zerez egina: plastikozkoa
 - . benetakoa ala jostailuzkoa
- Marrazoa**
 - . non bizi diren: ur azpian
 - . nolakoa: gogorra
 - . koloreak


3 - Margotegian botoiak jartzen - Ylenia - Haizea - Sonia

Ondoko jarduera honek lan egiteko modu desberdinak adierazten dizkigu, haur bakoitzaren estilo propioa.


Ylenia: Izkinetatik hasi da osatzen eta barru aldera betetzen ari da (botoiak jarritz).



Haizea: Panel guztia hartu eta dena betetzen doa pixkanaka.



Sonia: Ezkerretik eskuinera osatu du goiko lerroa, goitik behera eskuineko lerroa eta eskuinetik ezkerrera doa beheko lerroa betetzen.



9.1.2.1.3 Ondorio partzialak

Zirkulazio librearen dinamikara ohitzea kostatzen da 3 urteko umeei, aldaketa nahiko handia baita: dena gela bakarrean edukitzetik bi gelatan zehar mugitzen ikastea, espazio bakoitzaren funtzionamendua eta material berriak ezagutzea, 4 urteko umeei kontaktuan jartzea (aurreko ikasturtean 7 haur izatetik, aurten 9 izatera eta 4 urtekoekin nahastuta dabiltzanean 24 haur izatera), bi andereñoekin ohitzea, bi astetik behin andereñoen gela aldaketara ohitzea. Baina, martxa hori hartu dutenetik, oso dinamika bizia eta aberatsa izan da, aukera asko gehitzen baitira funtzionamendu honekin: lau urteko umeei egiten dutena behatzea, beraien laguntza jasotzea, euskararen erabilera handiagoa eta aberatsagoa...

Plastika gelako jardueretan eboluzio handia izan da: zirriborroak egitetik, marrazkietan errealitatearekin lotuagoak dauden elementuak jartzera; tenpera lanetan, bai koloreen erabileran eta produkzioen bukaeran aurrerapauso handiak egin dituzte; puntzoiaren erabileran aurreko ikasturteko hastapenetik, 'kontrol' eta indar diferentzia nabarmenak ikusten dira eta hondakin-materialen erabilera handia izan da, elaborazio interesgarriak eginez; plastilinen erabilera ere, marrazkiaren eboluzioarekin batera joan da aberasten eta aurreko ikasturteko 'txorixo' lanekin alderatuz gero, oraingo objektu eta irudiak esanguratsuki aldatu dira. Ipuinen espazioan, batak besteari ipuinak kontatzeko momentuak eta txotxongilo saioak nabarmendu nahi ditugu.

Eraiketa gelako elaborazioak oso interesgarriak izan dira eta hemen, nahiz eta 4 urtekoen produkzioak nabarmen aberatsagoak izan, 3 urteko umeenak ere aipamena merezi dute: errepide, etxe, dorre, hesi, itxitura, eta abarretan partizipazio handia izan dute eta espazio honetan elkarrekintzaren egoerak maiz eman dira: erabakiak hartu behar dituzte, batek egitura txikia egin nahi du eta besteak pieza asko erabili nahi ditu, batek aldapa jartzen du eta kotxea bidetik ateratzen da eta soluzioa bilatu behar dute...

Mahai-jolasetan parte hartze handia izan da. Azpimarratu behar dugu, espazio honetan, andereñoen presentzia eta parte hartzea beharrezkoa dela: jokoen arauak eta

funtzionamendua azaltzeko, txandak errespetatzeko, jokoaren pauso edo pautak jarraitzeko...

Elkarrizketa-saioen eboluzioa oso esanguratsua izan da, horrexegatik iruditu zaigu, merezi duela batzuen adibidea azaltzea.

Ikasturte honetako gelako espazioek jolas sinbolikoa lantzeko txoko espezifikorik ez daukatenez, psikomotrizitate gela eta patioa hainbat jarduera egokiak eta 'beharrezkoak' izan direla iruditzen zaigu. Behar bada, 3 urteko umeek, eta batez ere ikasturte hasieran, beharko lukete espazio eta material espezifiko bat, egoera horiek eman daitezten.

Jarduera bakoitzari dedikatu dioten denbora, azpimarratzeko faktorea da. Eskulan, marrazki, eraikuntza, mahai-jolas eta abarretan, 9:15etik - 10:30etara aritu dira saio dezentetan. Gure ustez, umeen heldutasun garapena alde batera utzi gabe, materialek eta espazioen antolaketa espezifiko hauek esanahi handia izan dute dedikazio honetan. Azpimarratu nahi genuke ere, material berriak, ondo zainduak, espazio bakoitzean erraz hartu eta jasotzeko moduan antolatuta egoteak, asko laguntzen duela.

9.1.2.2 Autonomia-Ohiturak

2001/2002 ikasturtea

3. hiruhilabetea: Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak (jangelan bazkaltzen dutenak)

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	G	I	Y
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe	B	B	B
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin	B	B	B
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	B	B	B
Mahai ingurua txukun uzten ikasi	I	B	B
Lurra txukun uzten ikasi	B	B	B
Mastekatzen eta irensten ikasi	B	B	B
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi	B	B	B
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi	B	B	B
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi	B	B	B
Jana banatu bitartean itxoen ikasi	B (1)	B (1)	B (1)
Denetatik jaten ikasi	B (3)	B	B
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi	b	b	b

ITEMAK/IKASLEAK	G	I	Y
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi	B	B	B
Elikagaiak eskuekin moztzen ikasi, koska egin gabe	m	m	m
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi	B (2)	B (2)	B (2)
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi	B	B	B
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitzen ikasi	B	B	B
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi	E	E	E

(B) Egiten du; (E) ez diete eskatzen; (m): moztuta ematen diete; (b) Begoñak ematen die, gehiago edo gutxiago eskatzen du; (1): kopurua txikia denez; (2): mandarina eta platanoa; (3) patata ez

OHARRAK

1.- Bazkaldu ondoren hortzak garbitzen zituzten, baina Osakidetzak aholkatu zieten ez zela komeni, zepiloak aldatu/trukatu egiten zituztelako.

2.- Bazkaria bukatu ondoren, 5 bat minutu egon arazten diete eserita, aulkitik altxa aurretik.

3.- Mantalak janzten dituzte.

4.- Yleniak siesta egiten du (2 ordu). Gaizka eta Ivanek ez dute siestarik egiten, jolasean ibiltzen dira.

Informazio hauek jangelako arduraduna den Begoña Olaizek emandakoak dira.

3. hiruhilabetea: Higienearekin zerikusia duten ohituren heziketa

2-4 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	D	G	H	I	ID.	I.E.	S	X	Y
Orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Eskuak garbitzen ikasi	B I	B I	B I	B I	B I	B I	B I	B I	B I
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu	B	B	B	B		T	B	B	B
Eskuak lehortzen ikasi	B I	B I	B I	B I	B I	B I	B I	B I	B I
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B		B
Esfinterrak kontrolatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu	B	T	B	B	B	B	B	B	B
Zikina edo garbia dagoela jakin	T	T	B	T	B	T	B	B	B
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi	I	T	T	T	T	T	T	T	T

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da; (T) Tarteka egiten du

3. hiruhilabetea: Deskantsuarekin zerikusia duten ohituren heziketa

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I.D.	I.E.	I	H	G	D
Zapatak kentzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Galtzerdiak kentzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Berokia eta txaketa kentzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Janzten ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Berokia, txaketa, poltsa, mantala... zintzilikatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak eransten lagundu	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Janzteko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi	B					*		*	
Bakarrik lo egiten ikasi	B								
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi	B								
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi									
Norberaren arropak tolestatzen lagundu	S								

Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (T) Tarteka egiten du

* Ivanek eta Gaizkak ez dute siestarik egiten nahiz eta jangelan gelditu

3. hiruhilabetea: Norberaren autonomiarekin lotutako ohiturak

3-6 urte bitartean hasi eta kontsolidatzen joatekoak

ITEMAK/ IKASLEAK	Y	X	S	I.D.	I.E.	I	H	G	D
Norbere trebetasunak deskubritzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Lanaren urrean ardurak hartzen ikasi	S	B	S	B	1	2	B	S	3
Elkarbizitzarako arauak errespetatzen ikasi	S	B	B	S(4)	S	2	B	S	1
Tonu egokian hitz egiten ikasi	S	B	B	B	S	S	B	B	2
Zerbait lortzeko kasketak ez harrapatzen ikasi	S	B	2	S	S	2	B(eskolan) Etxean asko harrapatzen omen ditu	B	B
Autokontrolatzen ikasten joan	S	B	S	S	S	S	B	S	S
Txanda itxoitzen ikasi	S	B	B	B	B	S	B	B	2
Txandak errespetatzen ikasi	S	S	B	S	S	S	B	S	2
Gauzak azkar egiten ikasi itxoitzen ari direnekin pentsatuz	S	S	S	S	E	E	S	S	E

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da;

(1) asko kostatzen zaio; (2): kostatzen zaio; (3): kostata baina saiatzen da; (4) batzuetan ez

3. hiruhilabetea: Pertsonen arteko erlazioak errazten dituzten ohiturak

3-6 urteko hurrekin landu eta kontsolidatzen joatekoak

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I.D.	I.E.	I	H	G	D
Agurtzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Galdetzen digutenean erantzuten ikasi	B	S(5)	B	S(1)	B	B	B	B	B
Besteek zerbait behar dutenean atentzioa ematen ikasi	S	B	B	S	S	2	B	S	2
Besteen alderdi positiboak estimatzen eta baloratzen ikasi	E?	E?	S?	E?	E?	E?	E?	E?	E?
Besteen lana eta jolasa errespetatzen ikasi	S	B	B	S	S(3)	S	B	S	S
Besteek lanean ari direnean edo deskantsatzen daudenean, isilik egoten ikasi	S	B	B	S	S	B	B	S	S
Beste umeekin jolasten eta lanean ikasi	B	B	B	B	B	S	B	B	B
Gatazken aurrean zintzotasunez jokatzeko ikasi	E	S	S	S	2	S	S	S	E(2)
Besteekiko harremanetan 'delikatua' / samurra izaten ikasi	E	E	B	S	S	S(4)	S	E	E

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (E?) 4. itema zaila dela dio andereñoak

(1) ez du beti egiten; (2) kostatzen zaio; (3) asko kostatzen zaio; (4) batzuekin; (5) lotsatia da

3. hiruhilabetea: Taldeko esperiantziak errazteko ohiturak

3-6 urte bitartean hasi eta kontsolidatzen joatekoak

ITEM/IKASLEAK	Y	X	S	I.D.	I.E.	I	H	G	D
Elkarrekin zerbait egiten ikasi: dantza, antzerkia, muralak, collage-ak,...	B	B	B	B(1)	B(2)	S(3)	B	B	S(4)
Elkarrekin ipuin bat, olerki bat kontatu	B	B	B	B	B	S	B	B	S
Elkarrekin abesten ikasi	B	B	B	B	B	S	B	B	S
Festak denen artean egiten ikasi	B	B	B	B	B	S	B	B	S

(B) Egiten du (S) Saiatzen da

(1) parte hartzen du lagunduta, ez da oso aktiboa

(2) oso gustukoa badu aktiboki hartzen du parte, bestela deskonektatzen da

(3) askotan kontzentrazio falta du

(4) batzuetan zentratzea kosta egiten zaio

3. hiruhilabetea: Ordenarekin zerikusia duten ohiturak

3-6 urte bitartean hasi eta kontsolidatzen joatekoak

ITEM/IKASLEAK	Y	X	S	I.D.	I.E.	I	H	G	D
Gauza bakoitzaren lekua errespetatzen ikasi: jostailuak, poltsa	S(1)	S	S	S	3	S	S	G	G(2)
Gauza bakoitzaren lekua aurkitzen ikasi	B	S	S	S	3	S	S	G	G(2)
Gauza bakoitza erabili ondoren bere lekuan uzten ikasi	S(1)	S	S	S	3	S	S	G	G(2)
Gauzak sailkatzen eta ordenatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Lanak txukun egiten ikasi	B	B	B	B	S	S	B	S(7)	S
Gauza edo instrumentu bakoitza egoki erabiltzen ikasi	B	B	B	B	S	B	B	S	S
Zakarrontziak erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Liburu/ipuina zikindu gabe eta hautsi gabe erabiltzen ikasi	S	B	B	B(4)	E	S	S	G	E
Marrakiaz eta lanak bere apal edo kaxetan gordetzen ikasi	B	B	B	B	S	B	B	B	B
Kolperik eman gabe ireki eta ixten ikasi: ate, leiho, armairu	E	B	B	S(6)	E	E	S	E	E
Soinurik egin gabe ibiltzen ikasi	S(5)	S(5)	S	S(5)	S	B(5)	S	B(5)	B(5)
Pasatzen eta besteei pasatzen uzten ikasi	E	E	E	E	E	E	E	E	E

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (G) Gutxi egiten du

(1): asko saiaterik da ; (2): bere kabuz; (3): bere atzetik ibili behar da; (4) bakarrik dagoenean; (5): esaten zaionean; (6): batzuetan; (7): ez gehiegi

Gurasoengandik jasotako informazioa

3. hiruhilabetea: Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak

1 urterekin hasi eta bereganatzen joatekoak:

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I.D.	I.E.	H	G
Garbia dagoenean disfrutatzen ikasi	B	B	B	B	E	B	B
Garbitzen edo orrazten eskatzen ikasi	B	E	B	G	E	B	1
Gorputzaren usain ona baloratzen ikasi	B	B	B	B	E	B	B
Beste haurren presentzia txukuna baloratzen ikasi	B	B	E	B	E	B	E
Azkazalak mozten utzi	B	E	B	B (e)	B	B	B
Ilea mozten eta txukuntzen utzi	B	B	B	B	B	B	B
Zapatak garbiak eramaten eta ondo jartzen ikasi	S	S	E	S	E	B	S
Aurpegia, sudurra, eskuak garbitzen ikasi (bere gisa, zikinak daudenean)	B	B	B	B	B	B	S

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I.D.	I.E.	H	G
Arropak txukun ordenatzen ikasi	B	E	E	E	S	E	E
Zikina sentitzen denean azpiko arropak aldatzen ikasi	B	S	B	B	B	B	B
Ilea txukun eramaten ikasi	B	E	B	E	E	S	E
Azkazalak garbiak eta ondo moztuta eramaten ikasi	B	S	S	E	S	B	S
Zapatak garbitzen ikasi	E	E	E	E	E	E	E
Gaineko arropak orbanik gabe mantentzen ikasi	B	S	S	E	E	B	E
Orban errazak garbitzen ikasi	E	E	E	E	E	B	1
Arropa politak, kolore konbinaketa eta irudiak baloratzen ikasi	B	B	B	S	B	B	B
Produktuak erabiltzen ikasi: hidratatzaileak, eguzki-babesleak...	B	B	S	B	S	B	B

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (G) Gutxitan egiten du
(e) eskutakoak; (1): batzuetan

9.1.2.2.1 Bilakaera

Lerro hauek idazteko aurreko tauletan jaso dugun informazioa erabili dugu.

. Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak

Bazkaltzen gelditzen diren 3 haurren taula behatuz, ikus dezakegu, jangelan egitea eskatzen dieten item guztiak egitea lortu dutela hirurek. Yleniak, 4 urte urrian betetzen dituzenez, eta Gaizkak, ekainean, lorpen esanguratsuak direla pentsatzen dugu.

. Higienearekin zerikusia duten ohiturak

Joan den ikasturteko taulekin alderatuz, ikusten dugu, eskuak garbitzen eta lehortzen ikasi "B" eta "I" bat jartzen duela ume guztien zutabetan eta andereñoari komentatuz esaten dit, badakitela neurri batean, baina ondo-ondo garbitzen eta ondo-ondo lehortzen ikasten ari direla. Beste item guztiak lortuta dauzkate joan den urteko ikasleek eta azkeneko itema "bainugelako espazioak txukun uzten ikasi" beti lantzen joateko itema dela eta tarteka egiten dutela baina oso gainean egon behar dela.

. Deskantsuarekin zerikusia duten ohiturak

Haur guztiek lortu dituzte lehenengo 6 itemak egitea eta 6. eta 7. ikasten ari dira, hau da, janzteko arropen alde ona edo txarra bereiztea eta oinetakoak eta eskularruak zein oin edo eskuetakoak diren jakitea. Gainontzeko itemen kasuan, Ylenia bakarrik denez siesta ikastolan egiten duen haurra, ikus dezakegu lortu dituela: lo hartzeko sinboloak bilatu, bakarrik lo egiten ikasi, negarrik egin gabe esnatzen ikasi eta saiatzen dela arropak tolestaten laguntzen.

. Norberaren autonomiarekin zerikusia duten ohiturak

Taulan jasotako datuen arabera ikusten dugu, orokorrean "S" = saiatzen direla ohitura gehienak egiten. Nahiko zailak dira 3 urteko haurrentzat ondoren azaltzen ditugun ohiturak, besteak beste: trebetasunak deskubritzen ikasi, elkarbizitzarako arauak errespetatzen ikasi, tonu egokian hitz egiten ikasi, autokontrolatzen ikasten joan eta gauzak azkar egiten ikasi besteek itxoiten daudela kontuan hartuz. Dena den azpimarratzekoa da Xabierrek (adinez gazteena) ia denak egiten ikasi duela eta Haizeak eta Soniak ere gehienak egiten ikasi dutela.

. Pertsonen arteko erlazioak errazten dituzten ohiturak

Xabier, Sonia eta Haizeak ia ohitura guztiak ikasi eta betetzen dituzte, laugarrena (besteen alderdi positiboak estimatzen eta baloratzen ikasi), zortzigarrena (gatazken aurrean zintzotasunez jokatzeko ikasi), eta bederatzigarrena (besteekiko harremanetan 'delikatua' / samurra izaten ikasi) izan ezik. Gainontzekoen kasuan esan, taula honetan azaltzen diren ohiturak 3 urterekin lantzen hastekoak direnez eta "S" = saiatzen da gehienetan azaltzen denez, espero zitekeen eboluzioaren barruan daudela.

. Taldeko esperientziak errazteko ohiturak

Elkarrekin gauzak egiten ikastea da hemen helburua: dantza, antzerkia, horma-irudiak, ipuin bat kontatu, festak denen artean egin. Taulan ikusten dugu 2 ume izan ezik, Ivan eta Danel ("saiatzen" dira) besteek "egiten" dutela.

. Ordenarekin zerikusia duten ohiturak

Ylenia, Xabier, Sonia, Imanol D., Ivan eta Haizeak egiten dute edo saiatzen dira, hau da, lortzeko bidean daude. Hiru haur haueri, Imanol E., Gaizka eta Daneli, gehiago kostatzen ari zaizkie ordenarekin lotutako ohiturak hartzea. Denen kasuan, azkeneko ohitura (pasatzen eta besteek pasatzen uzten ikasi) ez dute egiten baina, 3-4 urteko umeekin lortzeko zaila dela iruditzen zaigu.

. Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak

Aurrerapen esanguratsuak egin dituzte, hala ere, badaude zailak diren ohiturak adin honetan: arropak txukun ordenatzen ikastea, zapatak garbitzen ikastea, orbanak garbitzen ikastea. Oro har, ia denek egiten dituzte beste item guztiak, etxetik aurrera etorri den Ivan izan ezik.

9.1.2.2.2 Arauak eta autonomia

Ikasturtean zehar egindako behaketa saioetan jasotako hainbat arauen - ohituren zerrenda:

Gelan

- Isipu bakarrarekin lan egitea, ez gehiagorekin
- Mahaia garbitu, tenperak erabili ondoren
- Mantala jantzi
- Aulkiak ez arrastaka erabili
- Ipuinak ipintzeko lekua horretarako erabili (eskailera moduan)
- Ez ibili gainean saltoka, puskatu egiten da eta
- Kanika ez horrela bota, miña egiten du
- Hitz egin gauzak eskatzeko, gauzak elkarren artean egiteko
- Ezin dira besteek egiten dituzten gauzak puskatu

Psikomotrizitate gelan

- Ezin da jo
- Ezin da pixa eta kaka egin
- Ezin dira gauzak kendu, eskatu egin behar dira
- Norbait aurrean dagoenean, "kendu mesedez", esan behar da
- Ezin dira besteek egiten dituzten gauzak puskatu

9.1.2.2.3 Ondorio partzialak

Ohiturak ikasi eta errespetatzeko prozesu honetan esan dezakegu, oro har, diferentzia nabarmenak egin dituztela. Hiru eta lau urteko haurrak zirkulazio librean elkartuta aritzeak, lagundu egiten die 3 urtekoei arauak ikasten, 4 urtekoek jokoan arauak ezagutu eta gehiago errespetatzen dituztelako.

Dena den, aurreko ikasturtean esaten genuen bezalaxe, etengabe lantzekoak dira eta arreta handia eskatzen dute uneoro; guraso eta familiaren kolaborazioa ezinbestekotzat jotzen dugu eginkizun honetan.

9.1.2.3 Elkarrekintzarekin zerikusia duten egoerak eta bilakaera

Ikasturtean zehar jasotzen joandako hainbat egoera eta momentu deskribatuko ditugu ondoren adibide moduan.

Urriaren 17an

Ylenia, Haizea eta Sonia, 3 neskak, asko ibiltzen dira elkarrekin jolasean, hitz eginez.

Hirurak “kotxe kapotarekin” dabilta, Ylenia erdian eta beste biak alboetan.

Danel eta Gaizka beste gelan dabilta, Ivan ere bai. Gaizka Ivanekin leihoaren ondoan hitz egiten, Danel eta Haizea mahai jolasetan, begira.

Azaroaren 14ean

Xabierri muxuak ematen dizkiote Gaizka, Ivan eta Imanol D-k.

Haizeak: “Espera Ylenia, que te tapo bien”

Danelek: “¿Queréis venir a esta casa?” etxera gonbidatuz

Urtarrilaren 30ean

Gaizka, Danel, Ivan, Imanol D. eta Xabier beraien artean jarraitzen dute zer egin behar duten erabaki ezinik.

Martxoaren 21ean

Mahaian, 3 urteko bi ume eta 4 urteko 3 ume lanean ari dira eta hizketan. Txotxongiloarekin ere 3 urteko S. eta 4 urteko 2 ume elkarrekin ari dira.

Maiatzaren 8an

Imanol D., Imanol E., Xabier eta Gaizka dabilta eraikuntzak egiten, denen artean eta pozik ikusten dira komentarioak eginez.

Pixkanaka asko gehitu dira elkarrekintza egoerak bai denboran nahiz ume desberdinen arteko komunikazioan, elkarrekintza egoerak: gosariko elkarrizketa saioetan, elkarrekin abesterakoan, ipuinak kontatzerakoan, dantza egiterakoan, patioko momentuetan (ikus argazkiak). Horien adierazle, ondoren azaltzen ditugun elkarriketen adibideak. Bestalde, adin desberdinetako umeak elkarrekin jarduteko aukerak (zirkulazio libreko saioetan) momentu aberatsak eskaini dizkigu: eraikuntzak egiterakoan, mahai-jolasetan, txotxongiloa egiterakoan, hondakin-materialekin lan egiterakoan...



Ikasturtean zehar jasotako hainbat elkarrizketen adibideak

Interesgarria iruditu zaigu bigarren ikasturte honetan jaso ditugun hainbat elkarrizketen adibideak azaltzea, joan den urtetik hona egin dituzten aurrerapausoak ikusteko helburuarekin:

2001/X/03:

Arantxak: Gaur ekarri ditut diapositiba batzuk, buru handienak. Noiz ateratzen dira? Falta dira oso egun gutxi Martuteneko festetarako.

Imanol D.-k: "Tengo un libro de las fiestas, me lo han regalado".

Arantxak: Ekarriko duzu guk denok ikusteko?

Imanol D.-k: Sí, pone cuándo salen los cabezudos.

Arantxak: Oso ondo, hori da 'festetako programa'.

Arantxak Yleniari: Txiklea ahoan edo zakarrontzira! Yleniak: Ahoan.

Danelek zirkoaren gaia aipatzen du. "Yo tenía miedo" Arantxak: Zergatik?

Danelek zerbait esaten du baina ez zaio ulertzen.

Arantxak: Polikiago hitz egin. Bukatu duzu? Danelek: Ez.

Soniak: "Me he metido en la piscina grande la burua, nado con manguitos, porque luego me canso.

Arantxak: Imanol D., norekin etorri zara gaur goizean ikastolara?.

Imanol D.-k: Con mamá. Arantxak: Nola esaten dugu guk?

Yleniak: Amatxorekin.

Arantxak: Zeinek dauka miña hankan? Ivanek: Amonak.

Haizeak: Mi ama estaba en casa y estaba pachucha.

Arantxak: Eta, norekin etorri zara? Haizeak: Amatxorekin.

2001/X/31

10:40 Borobilean errepassoa. Bakoitzari zer egin duten galdetzen die Arantxak eta arauak gogorarazi. Adibidez: "Xabierrek egiten badu etxe bat, ezin da puskatu". Danelek: voy a romper. Arantxak: Ez, ezin dira puskatu besteen gauzak. Danelek: yo he rompido lo de Xabier. Arantxak: zuri gustatzen zaizu zurea puskatzea? Danelek: yo si pongo el nombre no se puede romper. Arantxak: Ba, Xabierrek ere jarri dio bereari izena eta oso triste gelditu da. Xabierrek: luego no ha roto. Arantxak: Danel, saiatuko zara ez puskatzen?

2002/III/21

Aquarium-a eta izurdeei buruz.

Egunkariak ekartzen duen albistea irakurtzen du Arantxak eta Yleniak, entzun ondoren dio: Ama, Ylenia eta Yulema (bere ahizparengatik) eta jarraitzen du: Hau zer da? Gizona. Ez, hau? Ez det bukatu! (builaka) Arantxa, noiz karpeta etxera?

Arantxak: Egunkaria bere lekuan utzi (kaxa batean). Ylenia, kontatu zer ekarri duzun. Yleniak: Begira, etxe bat, ez, jostailu bat: txerria txerriarekin, oiloa oiloarekin. Arantxak: Joko bat da, joko honek izena du domino. Nolakoak dira fitxa hauek? Yleniak: handiak, gogorak, horia, txuria, "de colorines".

Arantxak Imanol E-ri.: Zer ekarri duzu zuk? "Pirata malapata" . Eta, nolakoa da? Gogorra. Zenbat beso ditu? Bat, bi. Eta, zenbat hanka? Bi. Bai, seguru? Zenbat zapata ditu? Egurra. Orduan, zenbat hanka ditu? Bat. Haizeak: Eta bestea non dago? Danelek: Que se le ha roto. Imanol D-k: Que se cayó al mar y se le rompió la pata.

Soniak: Arbela ekarri du, margotzeko eta margotzen hasten da. Haizeak: "Pero no dices nada". Soniak: Marraztu eta ezabatu egin du marrazkia.

Haizeari Arantxak: Zer da hau? Pizarra. Zer egin daiteke? Margotu. Soniak: Nerea bezala, Haizea? Bai. Arantxak: Biak dira arbelak baina desberdinak dira eta diferentziak azaltzen ditu Arantxak.

Imanol D.: Itxoin egiten du Haizeak bere jostailua jaso arte. Arantxak: Zer ekarri duzu? Pues, kotxea. Zer egiten du kotxe horrek? Zenbat gurpil ditu? Kontatzen ditu: Bat, bi, hiru, lau. Norbaitek egin nahi dio galderarik? Bai! Erantzuten dute denek. Yleniak: A ver si tiene pilas? Xabierrek: Ia dituen gurpilak? Imanol D-k: Begira hemen. Haizeak: Ibiltzen da bakarrik. Ivanek: A ver si tiene luces? Gaizkak: Ea daukan animaliak barruan. Imanol D-k: Ez dago ezer. Gaizkari: Zer ekarri duzu? Grua eta dauka hartzeko. Danelek: Jaso el barro y tira donde está el otro barro.

2002/VI/05

Inurri, sugea, eta abarren gaia atera dute eta hori aprobetxatuz:

Arantxak: Nolakoak dira sugeak? Soniak: Luzeak. Danelek: Pozoia daukate.

Arantxak: Mingain luze horrekin, zer harrapatzen dute?

Danelek: Comida, bichos. Gaizkak: Sugeak belarrean escondidos.

Danelek: Aitonak atea itxi eta ezin da sartu. Soniak: Arrastaka.

Arantxak: Bai, eta nola ibiltzen dira? Gaizkak: Gorputzarekin.

Arantxak: Eta jateko, zer? Gaizkak: Xomorroak. Mingainarekin hartu behar dituztelako xomorroak. Ivanek: Spiderman.

Arantxak: Baina, benetakoa da? Non ikusten dugu? Ivanek: Telebistan, pelikulan.

Xabierrek: Spiderman dauka una araña (armiarma).

Yleniak: Yo no he hablado. Mi aita una patada le ha dado a la serpiente.

Arantxak: Baina, zer esaten dugu guk? Animaliak bakean utzi behar ditugula.

Yleniak: Yo al pueblo con mi abuela. Arantxak: Nola? Yleniak: Autobusean urruti urruti. Voy a estar mucho rato.

Danelek: Nola harrapatzen da granoak? Arantxak: Barizela da, gaixotasun bat.

Imanol E-k: Egun batean nire anaiari egin zion koska eltxo batek.

Xabierrek: Erleak ere koska. Arantxak: Erleak eztena du (marrastu egiten du arbelean). Danelek: Orain ez du kontagiatzen (kutsatzen).

Yleniak muxu bat ematen dio Xabierri. Imanol E.-k: Nolakoak dira erleak? Nik oso gaizki marrastan dut, esaten du Arantxak.

Yleniak: Así no es. Soniak: Bai. Gaizkak: Erleak dauka ´alak´ horiak (hegoak).

Danelek: Erleak ezta. Arantxak Imanol D-ri: Zerbait kontatu nahi diguzu? Bai esaten du baina ez zaio ezer ateratzen.

9.1.2.4 Euskararen erabilera

Joan den ikasturtetik hona egin duten bilakaera nabarmentzekoa denez, interesgarria iruditu zaigu hainbat adibide azaltzea:

Haizeak: Eta ni beste egun batean. Haizea asko askatzen ari da euskaraz, ahal duen guztia esaten du. (160 orr.)

Soniak: Begiratu ze luzea, Arantxa. (169 orr.)

Danelek: Nik ipini dut hori. (172 orr.)

Xabierrek: Arantxa, begira ze etxea. Arantxak: Zeinen etxea? Otsoaren etxea. (173 orr.)

Haizeak: "Laranja eta urdina (Arantxak: nahastu) eta atera zait berdea". "Begira orain nola dagon, hemen arrosa eta orain marroia"

Soniak: "Begira Arantxa, begira"

Yleniak: "Bukatu det" eta marraskia bere lekura darama.

Soniak: "Dago lehortuta"

Haizeak: "Sonia, garbitu dezu eskuak? Ez, ba garbitu" Biak komunera doaz eskuak garbitzera.

Imanol D.-k: "Kanpoan ipiñi, gaur jostailu eguna?" (180 orr.)

Soniak: Haizea, gu biok daukagu leotardoak.

Haizeak: Baina, ez dira berdinak. (181 orr.)

Danelek: Bazkaldu ondoren ekarriko dut jostailua. (184 orr.)

Danelek: gaiztoak, koska eta miña egiten du, miñ haundia eta oso-oso zorrotzak ditu hortzak. Zuk ikusi duzu Gaizka?

Xabierrek: "Egur txikiekin hobeto, bestela eroriko da, seguru-seguru" (192 orr.)

Soniak: Soka, saltoak egiteko kanpoan ekarri det.

Gaizkak: Ni jolastuko naiz nire jostailuarekin. (193 orr.)

Borobilean egindako saio baten laburpena

1. Izenak identifikatu eta bere lekuan jarri
2. Etorri direnak eta ez direnak zenbatu eta zenbakiak jarri
3. Egunkari zaharra zakarrontzira bota
4. Lamina batean, zenbat izurde dauden kontatu
5. Gaurko egunkarian izurdeak behatu. Arantxak albistea irakurtzen du: bi izurde, bat ama eta bestea kumea
6. Izurdeei buruzko elkarrizketa
7. Gaur jostailuen eguna: Bakoitzak ekarri duen objektua deskribatu. Kontzeptuak: koloreak; hainbat ezaugarri: tamainak, materialak, zenbakiak, erabilgarritasuna, ...
8. Gosaria: Frutak eta bizkotxo

Tartean, arauak gogorarazi dizkie: eserita nola egon behar duten

Esaldi xebreak

Arantxak Daneli: Zein da zure andregai? Danelek: Es muy fea.

Xabierrek: Las ferias andan por una carretera. Danelek: ¿Por qué? Xabierrek: Porque andan. Ivanek: Ay que cojunudo! Arantxak: Nork esaten du hori? Mi hermano.

Danelek: Mi padre también dice. Y luego nos vamos a reír y luego nos vamos a asustar (ipuinari buruz). Imanol E. galtzak jaitsita dator komunetik. Danelek: Estás enseñando el pitilín, ¡ para macho! (ipurdian ukituz pasatzerakoan).

9.1.2.5 Konfliktuen soluzioan laguntzen duten hainbat estrategia

Psikomotrizitate gelako saioan, Imanol D. eta Danelen arteko tirabiran, andereñoak, Imanoli insistitzen dio bere makila lor dezan; batetik, behin eta berriro esaten dio Daneli eskatzeko bere makila, eta, bestetik, “neurtu” eta “kontrolatzen” du noraino eskatu diezaioken Ivani momentu horretan.

“B” gelan, Imanol D. negarrez ari da materiala jasotzerakoan konpontzen ez direlako; orain Xabier ere negarrez, biak negarrez. Arantxa eta beste 5 haur begira daude. Arantxak: Hitz egin ezazu Imanolekin, negarrez ez zarete konponduko. Batek, jarri dituen piezak modu horretan mantendu nahi ditu eta besteak berriz, ez. Arantxak: Esaiozu zer nahi duzun! Ez dute irtenbiderik aurkitzen. Gogorra da egoera. Begira dagoen ume batek esaten die: Egin “Dona Dona”. Axunek parte hartzen du. Gaur Xabierri tokatu zaio esaten die. Arantxak: Arratsaldean berriz egingo duzue eraikuntza eta pieza gutxi jarriko dituzue. Xabierrek asko jarri nahi eta Imanolek gutxi. Azkenean, eraikuntza egin dutenek bere izena jartzen dute eta Imanol D. niregana hurbildu da berak izena jarri ondoren nik ere jar dezadan.

Borobilean gertatutakoaren inguruko elkarrizketa.

Xabierrek: “Egur asko jarri nahi nituen”. Imanolek: “Nik gutxi”

Arantxak: Gauzak konpontzeko, zer egin behar da? Soniak: Eskatu

Haizeak: Utziko didazu mesedez I. ?

Gertatu dena errepatzen dute.

Arantxak: Iurgik esan du: Dona Dona eta Imanol triste gelditu da. Arantxak: Beste egun batean zozketa egingo dugu eta agian Imanoli tokatuko zaio eta Xabier jarriko da triste. Xabierrek: Ez.

Hitz egin eta adostu egin behar duzue. Pausoz pauso joan dira gertatutakoa aztertzen.

Garrantzizkoa

Arantxak mantentzen duen jarrera eta portaera finkoa, umeak berak lor dezan gatazken soluzioa.

Gertatutako zerbait pasa berritan hitz egitea.

Hurbiletik jarraitzea ume bakoitzaren prozesua; zailtasunak, aurrerapenak, familiekin kontaktoa.

Arazoak azkar detektatu eta diagnostikoa lehenbailehen izatea (Imanolen entzumen arazoarekin gertatu den bezala)

Gauzak nola egin eta umeen zalantzen aurrean, pentsa arazten laguntzea, Vygotsky-ren “Garapen Hurbileko Eremuan” lagunduz.

Material interesgarria

• “Gure Istorioak” = Argazkiak eta argazkiaren deskribapena jasotzen dituen liburua da. Umeen familiako norbaitek idatzia (ahizpa edo anaiak gehienetan), euskaraz edo erdaraz, baina dexente daude euskaraz idatzita.

Konstruktibismoaren oinarriak aplikatuz

Egiten dituzten jardueretan beti daude nobedadeak, gero eta aberatsagoak, zailtasun eta konplexutasun handiagokoak, eta bakoitzak behar duen laguntza ematerakoan, argi adierazten dute andereñoek ikaskuntza esanguratsua lortzeko ematen dituzten pausoak, prozesuaren gidatze horretan.

9.1.2.6 Antzuolako egonaldiaz

Metodologia printzipioetan azaldu dugun bezala, Arantzazuko Ama Ikastola Antzuolako Eskolako sisteman oinarritzen da; horrexegatik iruditu zaigu interesgarria, Arantxa andereñoak Antzuolan aste bat pasa ondoren, egonaldian berak behatu eta azpimarratzen dituen hainbat elementu aipatzea:

- GIROA (lasaia, herrikoa –ez dira bizi gu bezala, presaka–)
- KONTENTZIOA
- ORDENA
- TXUKUNTASUNA
- LASAITASUNA, PATXADA
- BOROBILEKO UNE ABERATSAK, NATURALAK (etekin handia ateratzen diote)
- PLASTIKA GELAN, BEHAR BADA, GAUZA SINPLEAGOAK: marrazkia, margoketa, tenpera eta ez gauza konplikatuak
- INPLIKAZIO HANDIA (ordu asko sartzen dituzte irakasleek)
- OSO UMEEN GAINEAN ARAUAK GOGORARAZTEN (presiorik gabe)
- BOROBILEAN, UMEAK EZ DIRA MUGITZEN
- BENETAKO TALDE LANA: IRAKASLE TALDE BERDINA URTEETAN ETA ESPERIENTZI HANDIKOA. ASKO AZTERTZEN DUTE DENA

- AGRESIBITATERIK EZ
- PSIKOMOTRIZITATE-SAIO OSO ABERATSAK (beti 2 irakasleen artean)
- MATERIAL ASKO
- JANGELARIK EZ DUTE (umeak etxera joaten dira bazkaltzera eta lasaiago etortzen dira arratsaldean)

9.1.2.7 Ikuspegi orokorrak, andereñoaren hitzetan

Garrantzitsua iruditu zaigu, ikasturte bukaeran andereñoari egindako elkarrizketan tratatu ditugun gai hauei buruzko bere iritziak azaltzea: espazio bakoitza, egokitzapen-aldiko prozesua eta ikasturtearen bilakaera.

Elkarrizketa

1.- ESPAZIOEN AZTERKETA

1.1.- Deskribatu iezadazu nola ikusten duzun espazio bakoitza elementu hauek edota beste batzuk kontuan hartuz

- . Azalera
- . Argitasuna
- . Soinu-isiltasuna
- . Berotasun-hotza
- . Funtzionaltasuna
- . Seguritate-Arriskua
- . Goxotasuna
- . Ekipamendua

1.1.1.- Gela-gelak

Ume kopurua ikusita, ondo, datorren ikasturterako materiala sailkatzeko mobiliarioa behar dugu (kubetak jarri ahal izateko). Gela girotzea kostatzen zait. Espazio aldetik, argitasuna, ondo ikusten dut. Eskailerak ere ondo, ume gutxi dira eta horrek gauza asko errazten ditu.

1.1.2.- Psikomotrizitate-gela:

Espazio aldetik, beste eraikinean dagoen gela hobea da, nahiz eta joan eta etorri egin behar den. Hemengoa, 2-3 urtekoentzat ondo dago, baina kristalera asko duenez, handiekin arriskutsua izan daiteke. Aldaketa egin dugu eta hemengo gela hutsa dago

orain eta beste gelara eraman genuen materiala. Argitasun gutxiago dauka, itxiagoa da, baina "kontentzio" gehiagoko espazioa da.

1.1.3.- Komunak

Txikiak eta ondo daude.

1.1.4.- Jangela

Oso ondo dago, 2 pertsona egon dira 12-15 umeentzako eta benetan oso ondo antolatua dago eta benetan pertsonalizatua.

1.1.5.- Logela

Oso ondo dago.

1.1.6.- Sarrerako "pizina"

Erabilgarritasun handia ematen diogu, talde handian egiten diren hainbat jarduera egiteko, etxera joan aurretik umeak despeditzeko (abestuz, etab.) eta eguraldi txarra egiten duenean jolas ordurako. Dena dela, ume asko elkartzen direnean, ez da toki aproposena jolas orduko aktibitateetarako, soinu, buila, txokeak, etab. erraz gertatzen dira.

1.1.7.- Patioa

Aterpea konpondu eta ateraino ekarriko balute, ondo. Bi urteko umeak patioan galdu xamarrek ibiltzen dira.

2.- NOLA IZAN DA HAURRAK BI GELETARA OHITZEKO PROZESUA

Hiru urteko umei kostatzen zaie "zirkulazio" dinamikan ohitzea; behar bada, 2 urteko haurrekin egin beharko genuke zerbait, Antzuolan ere komentatu genuen, 2. eta 3. hiruhilabetean gela beste modu batean antolatzea, autonomia lortu ahal izateko. Lehenengo hiruhilabetean material batzuk sartu behar ditugu (urtean zehar izango ez dituztenak baino haustura izan ez dezaten).

2.1.- Zu zeu gela batean edo bestean egoteak zenbaterainoko eragina duela ikusi duzu umeengan?

Nire ustez ez gehiegi, ume batzuk guri lotuagoak gelditzen dira; mutilen kasuan orokorrean, garbi ikusten da beste gelara joateko joera, "eraikuntzek" beraientzat duten erakartasunagatik dela. Sonia adibidez, 3 urtekoen gelan (plastika gelan) zentratuta egon da; Ylenia bietan. Hasieran, erreferentziak behar dituzte eta bere gela, 3 urtekoena da, eta beren andereñoa ni naiz.

2.2.- Bi gelak kontuan hartuz, zein espazio eta material erabiltzen dute gehiago?

Ipuinak kenduta, 4-5 urtekoentzat espazio honek (plastikako gelak) hartzen du indarra, idazketarekin. Orokorrean, lau urtekoen gelan, mahai-jolas eta eraikuntzak hobeto joaten dira 3 urtekoen gelako espazioak baino.

2.3.- Zure gustura antolatuta al daude bi gelak? Aldaketarik egingo al zenuke?

Zergatik izan duen arrakasta handiagoa beste espazioak? Oso garbi eta txukun eduki behar dira beti gauza guztiak. Guk umeei eskatzeko eta exijitzeko guk geuk ere egin behar dugu.

2.4.- Dauden material, baliabide eta ekipamenduak egokiak ikusten al dituzu?

Inportantea iruditzen zait material gehiago eskatu baino lehen, gauzak ondo, txukun, garbi, ondo antolatuak edukitzea. Marrazkien tresna adibidez oso ondo etorri zaigu.

2.5.- Zer eskatuko zenioke administrazioari?

Diru gehiago materiala erosi ahal izateko. Diru gutxi maneiatu dugu adibidez aurren, guri materiala puskatu egiten zaigu txikiekin eta berria erosi beharko genuke momentuan...

3.- IKASTURTEAREN BILAKAERA

3.1.- Deskribatu ezazu ikasturtea elementu hauek kontuan hartuz

. Ikasleak

Lehenengo hiruhilabeteen asko kostatu zaie "zirkulaziora" egokitzea; hori ezabatuko nuke eta orain, behar bada, jarraituko nuke deskantsu pixka bat hartu ondoren, gustura sentitzen naiz eman dituzten aurrerapausoekin.

. Irakasleak

Denbora guztian koordinatzen ari gara, hain jende gutxi egonda, esplizituki bilerak egiteko momentuak hartu beharrean, momentu guztietan ari gara informazioa bata besteari trukatzeko.

. Gurasoak

Exijentzi maila delikatua iruditzen zait, ahaztu egiten zaigu bere aldean jartzea; nahiz eta beraiekin ados ez egon, errespetua zor diegu. Harremana oso estua izan dut beraiekin.

. Aholkularia

Umeekiko jarraibide edo pauten beharra botatzen dut faltan, agian ez da bere lana izango, baina nik hori sumatzen dut.

3.2.- Zer izan da gauzarik zailena eta errazena?

Lehenengo hiruhilabeteen zirkulazioan ohitzea.

3.3.- Nola baloratzen duzu ikasturtean eman den prozesua autonomia eta elkarrekintza alorretan?

Borobilean gaudenean elkarrekin entzutea, parte hartzea, gai baten haria hartu eta horri buruz hitz egitea lortu dugu.

3.4.- Laguntzaren bat eskatuko al zenuke?

Giza baliabiderik ez, haur-kopuru txikia delako, laguntza fisikoa ez; bai ordea, lehen aipatutako materialak berritzeko dirua, aterpea konpondu eta osatzea, belar gehiago duen espazioa egokitzea, ...

9.2 Harri Berri Ikastexea

Ikasle-Taldearen Jaiotze datak

IKASLEAK	JAIOTZE DATA
ADRIAN G.	1998-XI-07
ADRIAN R.	1998-XII-10
ANDER	1998-IV-19
ANGEL	1998-V-24
DANIEL	1998-XI-09
ERIC	1998-VIII-30
IBON	1998-VI-03
IÑIGO	1998-I-26
IRATI	1998-VIII-06
MAIDER	1998-X-10
MIGUEL A.	1998-V-24
NAIARA	1998-II-11
PABLO	1998-VI-22
SARA	1998-VIII-13

9.2.1 Lehenengo ikasturtea

9.2.1.1 Banakako eta talde txikitako jarduerak

Ondoren azalduko ditugun taulak, behaketa saio bakoitzean sintesi moduan jaso ditugunaren adibide dira. Ikasturte hasiera aldera, erdi aldera eta bukaera aldera hartutakoak dira, bilakaera behatu eta aztertzeke helburuarekin.

2000/IX/20

GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3)	1		-	-			-	2		3				
Piszinan(1); Txirr. (2); Ispilua (3)		2			1 2	1 2			1		1 2	1 2 3	1 2	1 2
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)											1			
Ipuina; Abestiak														
Eraikuntzak	+													
Arbela						+		+	+	+				
Margoketa						+			+					
Jaso														

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak		+	-	-	+	+	-		+		+		+	
Zaldiak														
Koltxoneta	+	+			+	+			+	+	+	+	+	+
Uztaiak											+	+	+	+
Pilotak														+
Jaso											+		+	+

2000/XII/14

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3); Telefonoa (4)	-			-		2	2		2			-		-
Piszinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)		1	1	1			1							
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)		1 2				1 2	1 2	1 2	1 2		1 2			
Ipuina (1); Abestiak (2); Pianoa (3)									1	1	1		1	
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3); Enkastratuak (4)		2 4				4	4	4		2	2 4		4	
Arbela			+	+										
Margoketa (1); Plastilina (2); Gometxak (3)		3	2 3		2 3	3	2 3	2 3		2 3	2		3	
Jaso			+											

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	-	1 2	-	-	1 2	1 2	1 2	1 2	1 2	1 2	1 2	-	1 2	-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)														
Koltxonetak (saltoak, txiribuelak)						+								
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)						1								
Uztaia (1); Baloi Handia (2)														
Oih. (1); Ispilua (2)								1						
Horma-barrak														
Itxituran						+		+					+	
Jaso							+	+		+			+	

2001/III/09

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3); Telefonoa (4)	1	1	-	-	-	+	1	-	1		1			-
Piszinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)	1 2	1 3					2 3				2		1 3	
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)	1 2										1			
Ipuina (1); Abestiak (2); Pianoa (3)	1					1			1	1	1	1	1	
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3); Enkastratuak (4); Albuma (5)		4				4			4	4	4	4	4 5	4
Arbela											+			
Margoketa (1); Plastilina (2); Gometzak (3)	1 *								1*			1*	3	
Jaso		+					+							

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	2	2	1	1	-	1	1	-	1	1	2	1	2	-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)	2		1											
Koltxonetak (saltoak, txiribueletak)			+							+		+	+	
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)									2	2		2		
Uztaia (1); Balo Handia (2)			1 2			1 2	1		1	1	1 2	1		
Oih. (1); Ispilua (2)														
Horma-barrak														
Itxituran			+	+		+					+			
Jaso														

Triziklo, kotxeak, uztaia, baloi handian eta itxiturak arrakasta daukate.

2001/V/22

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3); Telefonoa (4)					1 2			1 2		1 3			1	
Piszinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)	2 3	2	2 3	2		2	2	2		2	2		1	
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)				1 2	1						1 2	1 2		
Ipuina (1); Abestiak (2); Pianoa (3)						1			1	1		1		1
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3); Enkas. (4); Albuma (5)						4			2	4	4			
Arbela		+		+										
Margoketa (1); Plastilina (2); Gometxak (3)	1 2	2	2 3	2		3	1 2 3			1				1 3
Jaso											+	+	*	

* Naiarak: "Den dena jaso"

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	2	2	-	-	2	2	2	2		1			2	-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)														
Koltxonetak (saltoak, txiribuelak)						+	+				+			
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)						1								
Uztaia (1); Baloi Handia (2)	2						2							
Oih. (1); Ispilua (2); Hartza (3)					1 3	1	1		1			1		
Horma-barrak							+				+		+	
Itxituran						+								
Jaso														

9.2.1.1.1 Txokoka/espazioka eman den bilakaera

Aurreko tauletako jardueren deskribapena.

GELA

Etxea

Irailaren hasierako egunetan etxean oso gutxi ibili dira, objektuak hartu eta etxetik ateratzeko ez bada. Hirugarren-laugarren astetik aurrera hasi dira koltxoneta/koltxoian etzan, kotxeak atera, telefonoz deitu... Oso momentu motzak izan dira hasieran. Pixkanaka, panpina zaintzen, koltxoa hartu eta atean jartzen besteek sartzea galaraziz. Ikasturtea aurrera joan ahala momentu horiek luzatzen joan dira eta jarduera-mota desberdinak gehiagotzen: panpina zaintzeko lanetan maiz ibili dira Mainer eta Sara; koltxoa, etzanda egoteko eta elkarrekin hitz egiteko erabili dute (ikus argazkia 178. orrialdean).

Piszina -txirrista

Hasierako egunetik umeak erraz hurbiltzen dira txirristara eta hortik piszinara sartzen dira. Argazkian ikus daitekeen bezala, espazio hau pilota koloretsuz beteta dago. Ikasturte osoan erabilgarritasun handia izan du eta motrizitatea, koloreak lantzeko, pilotak kontatzeko, bota eta jasotzeko, elkarrekin egoteko eta hitz egiteko espazioa izan da.

Margotegia

Irailko lehenengo egunetatik marrazkia, margoketa eta gometxak itsasteko jarduerak egin dituzte; hasieran, une motzak izan dira eta denek hartu dute parte jarduera horietan eta esan daiteke denek dutela gustuko. Espazio honetan plastilina lantzen urriaren hasieran hasi ziren. Jarduera guzti hauek oso laburrak izatetik, ikasturte bukaera alderako esanguratsuki luzatu dira, adibidez, Mainerren kasua, maiatzaren 22an, 40 minutu aritu da margotzen, lasai, kontzentratuta.

Alfonbra

Argazki-albumak hasierako egunetatik maiz erabili dituzte ume guztiek. Oso egokia den materiala da ikastolan hasi berritan, hor ikusten baitituzte etxeoak. Ipuinak ere erabilera dezentea izan dute eta ikasturte bukaerarako, Mainer, Irati eta Naiarak ipuinak kontatzen ikasi dute. Martxora alderako, oro har, ipuinak entzuterakoan atentzioa jarri dute, dakitena esaten dute, keinuez jarraitzen dute. Naiara, Ibon, Eric eta Danielek ondo jarraitzen dute; Adrian G.-ek ere diferentzia

handia egin du. Anderrek ez dauka martxa hartua oso gutxi etorri delako, baina, ume lasaia da eta begiratu/behatu egiten du besteek egiten dutena.

Puzzleak, eraikuntzak eta piezak ahokatzeko joko eta jolasek erabilera handia izan dute. Ikasturte hasieran andereñoa aritu da beraiekin eta gerora, eurek bakarka, binaka eta hirunaka aritu dira.

Gelako txoko guztietan

Bigarren hiruhilabeterako –Eguberritako oporren ondoren– txoko guztietan konfiantza handiagoarekin mugitzen dira eta material guztia probatzen dute. Alfonbrako espazioan ere hobeto daude, diferentzi nabarmena egin dute talde handiko jardueretan: trenaren jarduera –umeen asistentzia kontatzeko–, ipuina entzuten, abesten...

Psikomotrizitate gela

Egunero egiten duten saioa da eta garrantzi handia du; goizeko saio zentrala dela esan dezakegu. Oso gustura joaten dira hasiera hasieratik.

Saio honetan, jarduera libre eta zuzenduak egiten dituzte. Oinetakoak kendu ondoren, andereñoak arauak gogorarazten dizkie, gelara sartu, kotxeak eta trizikloak hartu eta gelatik kanpora ateratzen dira –solairuaren bueltan ibiltzeko.

Koltxoneta handian saltoak eta txiribueltak denek egiten dituzte.

Baloi handien gainean ibiltzea asko gustatzen zaie eta “etxetxoa-itxitura” asko erabili dute eta maiz aurkitu dute “babesa” besteengandik korrika aldeginenez eta elkarrekintza momentu polittak eman dira: parrak, garraxiak, elkarrizketak, zaintzak...

Espaldera edo horma-barretara igotzea gustukoa izan dute ume batzuk, batik bat Miguel A.-k; hasieratik probatu zuen eta segituan lortu zuen goraino igotzea.

Oihalek ere erabilera handia izan dute eta batzuk kapa bezala erabili dituzte, besteek tapatzeko, ezkutatzeko...

Jarduera zuzenduen artean, abestiak: “Land Roverra”, “Uztaiak gora gora”, “Begira begira...” dantzak, uztaiekin jokoak, entseguak (Danborrada...) gustura egin dituzte. Ibon eta Mainer asko saiatu dira “Land Roverra”-ren mugimenduak ondo egiten.

Maiderekin, psikomotrizitate gelan, helduen ondoan eseri eta egoteko joera adierazi du jarduera libreetako momentuetan eta maiz eseri da nire ondoan, bankuan.

Gustuko musika entzuten zuenean, “gurekin” nahi izaten zuen dantza egin (behin baino gehiagotan galdetu dit ¿bailamos?).

Iskanbila txikiak ere maiz izan dira eta andereñoak oso erne egon behar izan du eta momentu askotan parte hartu du konponketan lagunduz.

Materiala jasotzen laguntzen dute gehienek.

9.2.1.1.2 Jardueren bi adibide

Jarduerak ondo ikusteko eta aztertzeko aukera emateko asmoarekin bi adibide aukeratu ditugu. Adibide hauek jarduera pertsonalizatuak agertzen dituzte eta Naiara eta Miguel Angel ditu protagonista.

1. Jarduera - Naiara

Argazki-albuma ikusten ari da, eta argazkien deskribapena egiten du: “Éste está casi dormido” eta barre egiten du. Horrela jarraitzen du, beste haurren argazkiak deskribatzen.

2. Jarduera - Miguel A.

Egunero egin du, txirrista igo, goitik gelako mugimendua behatu eta pixka batera piszinara sartu eta pilotekin jolastu.



9.2.1.1.3 Ondorio partzialak

Gelako txokoak

Etxeak eta piszinak duten egituragatik “babes-espazio” bezala paper esanguratsua jokatu dutela esango genuke, nahiz eta egindako jarduerekin beste hainbat helburu lortu dituzten ere: elkarren artean ezagutzen joatea, hitz egitea, jolas sinbolikoa lantzea, koloreak eta zenbakiak lantzea...

Margotegiak oso funtzio garrantzitsua bete du ikasturtearen hasiera-hasieratik haur guztiek izan baitute gustuko marraztea, margotzea, gometxak itsastea, festetako jantziak prestatzea, plastilina lantzea...

Alfonbrako jardueren artean, lehenengo egunetik bereziki azpimarratzekoak iruditzen zaizkigu: argazki-albumak, ipuinak, abestiak, trena eta eguraldia lantzea.

Eraikuntza, ahokatzekoak eta puzzleen txokoa ere aipatzekoa da, oro har erabilgarritasun handia izan baitu, bai banaka nahiz talde txikian egin dituzten jarduerengatik.

Haurrak aldatzeko espazioak ere haur batzuentzat erakargarritasuna izan du, Danielen adibidea erabiliko dugu: “Adrian R. ha hecho caca” eta jarraian beste batzuen izenak esaten ditu, Naiara se ha hecho caca, Nonbait Danieli andereñoak umeak nola aldatzen dituen ikustea gustatzen zaio eta horregatik esaten du kaka egin dutela.

Urtarrilerako ondo xamar ezagutzen zituzten espazioak eta konfiantza gehiagorekin mugitzen hasi dira eta material guztiak probatzeko gogoia erakutsi dute. Denborari dagokionez, esan, lehenengo hiruhilabetean minutu gutxi batzuk pasatzen zituztela jardueretan eta horrek andereñoa batetik bestera etengabe ibiltzea suposatzen du umeen demandei aurre egiteko. Bigarren hiruhilabetetik aurrera hasi dira gustukoen dituzten jarduerak gehixeago selekzionatzen eta denbora luzexeagoa dedikatzen: margotzen, ipuinak kontatzen, puzzleak egiten.

Ume batzuen kasuan, A. eta A., bigarren lauhilabete arte ez dira apenas etorri eta martxotik aurrera ordubete ekarri dituzte. Ume hauen kasuan egokitzapen-aldia asko luzatu da eta besteengan ere eragina izan du, andereñoak bereziki “zaindu” behar izan baititu ia ikasturte guztian.

Espazio bakoitzeko materialak jasotzea kosta egiten da, baina laguntzarekin, egiten bukatu dute ikasturte bukaerarako, oro har.

Psikomotrizitate gela

Psikomotrizitate gelako saioak oso biziak izan dira eta material guztiak probatu dituzte, oro har, eta jokoetan denek hartu dute parte. Arauak gogoraraztea espazio honetan ezinbestekoa da, arrisku gehiago baitago egiten dituzten jarduerengatik eta hainbat materialengatik: korrika, saltoak, garrasiak, uztaiak. Oso erne ibili behar izaten du andereñoak, egoera asko “kontrolatu” behar baititu: iskanbilak, txanden errespetua, materiala.

Bukatzeko esan, ikasle kopurua, 2 urteko 14 haur, gehiegi iruditzen zaigula andereño bakar batentzat.

9.2.1.2 Autonomia-ohiturak

Ondoren azaltzen ditugun tauletan Autonomiarekin zerikusia duten ohituren heziketa jaso dugu, bilakaera aztertzeko helburuarekin.

2000/2001 Ikasturtea

1. hiruhilabetea: Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak (jangelan bazkaltzen dutenen datuak)

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe		I								I				E
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin		I								I				E
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	I	E					I	I	I	I	E	E	E	E
Mahai ingurua txukun uzten ikasi														I
Lurra txukun uzten ikasi														
Mastekatzen eta irensten ikasi		I												E
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi										I				E
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi														
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi		I												
Jana banatu bitartean itxoiten ikasi														

ITEMAK/IKASLEAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Denetatik jaten ikasi														E
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi														
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi		I								I				E
Elikagaiak eskuekin moztzen ikasi, koska egin gabe														
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi														
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi														
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitu														
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi														

(E) Egiten du; (I) Ikasten ari da

1. hiruhilabetea: Deskantsuarekin (autonomia) zerikusia duten ohituren heziketa
1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Zapatak kentzen ikasi	S	S			S	S	S	I	E	I	E	E	E	E
Galtzerdiak kentzen ikasi	S	S			S	S	S	I	E	I	E	E	E	E
Berokia eta txaketa kentzen ikasi					I	S	S	I	E	I	E	E	E	E
Arropak kentzen lagundu (besoak, hankak, etab. altxatuz)		B			I	I	I	I	B	I	E	E	E	E
Berokia, txaketa, poltsa, mantala... zintzilikatzen ikasi					S	I	I		B	E	B	E	B	B
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak erantzten lagundu							I		E	I	B	E	S	B
Jantzeko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi														
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin										B		B		

ITEMAK/IKASLEAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi		E								E				E
Bakarrik lo egiten ikasi		I												S
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi		E								E				S
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi		E								E				
Norberaren arropak tolestatzen lagundu														

(E) Egiten du; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (B) Batzuetan egiten du

1. hiruhilabetea: Higienearekin (autonomia) zerikusia duten ohituren heziketa

2-4 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi							E	E	E	S	E	E	E	E
Eskuak garbitzen ikasi														
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu					E	E	E	E	E	E	E	E	E	E
Eskuak lehortzen ikasi									S					
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	B	I			E	E	B	B	E	E	B	S	S	S
Esfinterrak kontrolatzen ikasi							E	E	E	B	E	E	E	S
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu		B			E	E	E	S	E	E	B	E	S	B
Zikina edo garbia dagoela jakin														S
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi						I	S	I	I	I	I	S	S	I

(E) Egiten du; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (B) Batzuetan egiten du

2.-3. hiruhilabeteak: Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak (jangelan bazkaltzen duten haurrak)

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	A.R.	M	S
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe	I	B	B
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin	I	I	B
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	B	B	B
Mahai ingurua txukun uzten ikasi	I	I	
Lurra txukun uzten ikasi		I	I
Mastekatzen eta irensten ikasi	I	B	B
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi	B	B	B
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi	I	I	I
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi			
Jana banatu bitartean itxoiten ikasi	I	B	I
Denetatik jaten ikasi	I	I	B
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi			
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi	I	I	B
Elikagaiak eskuekin mozten ikasi, koska egin gabe		I	
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi			
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi		I	I
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitzen ikasi		I	I
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi	I		

(B) Egiten du; (I) Ikasten ari da; (S) Saiatzen da

2.-3. hiruhilabeteak: Deskantsuarekin (autonomia) zerikusia duten ohituren heziketa

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Zapatak kentzen ikasi							S		S	S	S	S	S	S
Galtzerdiak kentzen ikasi									S	S		S	S	S
Berokia eta txaketa kentzen ikasi							S		S	S	S	S	S	S
Janzten ikasi									I			S		S
Berokia, txaketa, poltsa, mantala... zintzilikatzen ikasi					S		S		T	S	S	S	S	S

ITEMAK/IKASLEAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak eranzten lagundu										T		E	S	
Jantzeko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi					T							E		T
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin					I				T			E	T	
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi	E	S			E	E	E		E	E	S	E	E	E
Bakarrik lo egiten ikasi	E	E			E	T	S	E	E	E	T	S	T	E
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi	E	E			E	E	E	E	E	E	I	E	E	E
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi	E	E			E	E	E	E	E	E	T	E	E	E
Norberaren arropak tolestatzen lagundu														

(E) Egiten du; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (T) Tarteka egiten du

2.-3. hiruhilabetea: Higienearekin (autonomia) zerikusia duten ohituren heziketa

2-4 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi							E	E	E	E	E	E	E	E
Eskuak garbitzen ikasi									E	E	S	E	E	E
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu					E		E	E	E	E	E	E	E	E
Eskuak lehortzen ikasi						S	S		E	S	S	E	S	S
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	E	E			E	E	E	T	T	E	T	E	E	T
Esfinterrak kontrolatzen ikasi							E	E	E	E	E	E	E	E
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu	E	E			E	E		E	E	E	E	E	E	E

ITEMAK/IKASLEAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Zikina edo garbia dagoela jakin														
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi										S		S	S	T

(E) Egiten du; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (T) Tarteka egiten du

9.2.1.2.1 Bilakaera

. Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak

Kontrol handi xamarra eskatzen duten item dezente daude: elikagaia ahora eramán bidean erori gabe, koilara erabiltzen ikasi, mahai ingurua txukun uzten ikasi... Zailtasun dexentea duten ohiturak dira bi urteko umeak direla kontuan hartuz. Jangelan bazkaltzen gelditu diren hiru haurren datuak ikusita esan dezakegu, Adrian R.-k 2 item egitea lortu duela eta gainontzekoak, ikasteko prozesuan dagoela (txikiena da, abendukoa). Mainerren kasuan, ikasteko prozesuan dago; Sarak, 7 item lortu eta besteak ikasteko prozesuan dago.

. Deskantsuarekin zerikusia duten ohiturak

Hainbat ohitura zailak dira 2 urteko umeentzat. Ikusten dugu, egunero landuz joan behar dela eta oso pixkanaka lortzen direla, horien artean aipatuko genituzke: janzteko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi, zapatak eta eskularruak zein oin edo eskuetakoak diren jakin, norberaren arropak tolestaten lagundu. Beste hainbat, berriz, oro har, saiatzen dira: janzten ikasi, galtzak, gonak, ... eranzten lagundu (Naiararen kasuan, egiten du). Bakarrik lo egiten ikasi, negarrik egin gabe esnatzen ikasi, lo hartu aurretik eta ondoren agurtzen ikasi, ia denek lortu dute egitea.

Higienearekin zerikusia duten ohiturak

Atal honetako ohiturak oso pixkanaka lortzen joatekoak direla esango genuke eta ondorengoak lortu dituzte gehien etorri direnak eta txikienean kasua izan ezik, hala nola: orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi, sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu, zakarrontzia erabiltzen ikasi, esfinterrak kontrolatu (egunez), zikina sentitzen denean laguntza eskatu. Aldiz, eskuak garbitzen ikasi 5ek egiten dute eta eskuak lehortzen ikasi, 6 saiatzen dira eta 2k ikasi dute. Bainugelako espazioak txukun uzten ikastea, nahiko zaila dela esan dezakegu adin honetan eta 3 saiatzen dira eta batek tarteka egiten du.

. Norberaren autonomiarekin lotutako ohiturak

Irailaren 20an

- Zapatilak eta galtzerdiak laguntzarekin jantzi eta erantzi
- Eskailerak igo eta jaitsi
- Ura, bakoitzak bere edalontzitik edaten du.
- Eraikuntzak jasotzen laguntzen dute

Urriaren 3an

- Zapatilak kanpoan kendu behar dituztela badakite eta saiatzen dira kentzen.
- Ganbaratik jaitsi eta esertzen dira.

Urriaren 5ean

- Denak esertzen dira ganbarako ate ondoan zapatilak kentzeko.
- Eric zapatilak janzten saiatzen da eta Margariri “tori tori” esaten dio. Daniel ere saiatzen da, Pablo ere, Mainerrek lortzen du zapatak oinetan sartzea.

Urriaren 10ean

- Zakarrontzira botatzen dituzte paperak, tiritak, etab.: Iñigok, Naiarak, Iratik.
- Arauak eta autonomia

9.2.1.2.2 Arauak eta egoerak

Ikasturtean zehar egindako behaketa saioetan jasotako hainbat arauen-ohituren zerrenda azalduko dugu jarraian.

Irailaren 15ean

- Zapatilak eta galtzerdiak kendu
- Basoa hartu eta ura edan
- Eraikuntzak jasotzen lagundu
- Zapatilak jarri eta kendu
- Papera hartu eta plastiko bat garbitu
- Margoak jaso

Irailaren 20an

- Ez jo, ez bultza, suabe suabe egin
- Pilotak jaso
- Uztaiak jaso
- Paperak zakarrontzira bota

Urriaren 3an

- Kotxeak koltxoneta gainean ez ibili

Urriaren 5ean

- Trizikloak ezin dira koltxoneta gainean ibili.
- Ezin dira bolak bota.
- Plastilina mahai gainean ibiliko dugu, ez ahoan.

Urriaren 16an

- Orain lau ari dira gometxak jartzen eta zu gero
- Ez bultza, suabe, suabe, lasai

Otsailaren 16an

- Garrasirik ez
- Kotxeak koltxoneta gainean ezin dira ibili

Martxoaren 30ean

- Mahai gainean ez margotu
- Bolatxoak pizina barruan ibili, ez kanpora bota
- Garrasirik ez egin gelan

Maiatzaren 4an

- Gehienek marrazteko orriak hartu dituzte, izena jartzeko Margariri eman eta margotu dutenean, marrazkia bere lekuan utzi dute (Adrian R.-k ez du jasotzen).
- Orriak ekartzen dizkirate Irati eta Eric-ek beraien izena jartzeko esanez (keinu bat egiten diet andereñoari emateko esanez).

9.2.1.2.3 Autonomia-ohituren ondorio partzialak

Tauletan eta zerrendan ikusten ditugun ohiturak etengabe lantzen joatekoak direla esan dezakegu. Bai kontrola eskatzen dutelako, bai egiteko jarrera baikorra behar dutelako, eguneroko egoera guztietan eginez lortzen joatekoak dira eta ezinbestekoa, etxean ere lantzea; batzuk, hain zuzen, etxean egiteko proposagoak dira: zapatak garbitu, arropak tolestatzen lagundu, denetatik jaten ikasi (gehienek etxean jaten dute).

Ohituren heziketak, ikastolako irakasle eta ez irakasleen (atezain, jangelako arduradun, garbitzaile) eta etxeko guraso, aitona-amonen eta familiaren parte hartzea eta kolaborazioa eskatzen du.

9.2.1.3 Elkarrekintza-egoerak, bilakaera eta ondorio partzialak

Ikasturtean zehar jasotzen joandako hainbat momentu eta egoerak deskribatzen ditugu ondoren:

Irailaren 20an

- Irati eta Naiara koltxonetan, elkarrekin saltoka.

Irailaren 28an

- Eric-ek Sara kotxean jarri eta paseatzen du

Urriaren 3an

- Iñigok oihal batekin Daniel estaltzen du.
- Naiarak muxu ematen dio Danieli esanez: xuabe, xuabe.
- Iñigok iletatik tiratzen dio Daniel R.-ri kotxetik kentzeko.
- Naiarak, Adrian R. kotxean paseatzen du.
- Naiarak, Miguel Angel etxeko ohean dagoela, tapatu egiten du.

Urriaren 5ean

- Naiara Pablorekin besarkatzen
- Naiara Iratirekin besarkatzen
- Naiarak Iratiri: "Escucha, no llores más Irati" (berak egin dio min)
- Mainerrek Adrian R. kotxean paseatzen du
- Adrian R.-ek Pablo paseatzen du
- Naiarak: "Ha sido sin querer" (Irati negarrez). Jarraian begiak eta sudurra lehortzen dizkio.

Urriaren 10ean

- Margari tirta baten bila joan da eta itzuli denean, Eric pozik agertzen da, keinuka eta irribarrez.
- Adrian R.-ek Daniel paseatzen du kotxean, kontentu.
- Naiarak Miguel A-i mina egin dio.

Otsailaren 16an

- Sarak Pablo tapatzen du ohialekin, ondoren Iratirengana doa eta berdin egiten dio.

Martxoaren 3an

- Naiarak: "Beida ze polita" esaten du eta Mainerri: ¿por qué lloras?, luego vendrá la ama y te traerá un globo".
- Miguel A-ek Eric-i bere bisera jartzen dio.
- Eric-ek Ibon ukituz: "maite, maite, maite" (Ibon negarrez zegoen).
- Mainer negarrez dago eta Adrian R-ek muxu ematen dio; bitartean, Miguel A-ek garrasika: "basta, bata".
- Batak besteari izenez deitu eta momentu batzuetan objektuak partekatzen dituzte eta elkarrekin jolasean ibili dira Mainer eta Pablo elkarrekin ipuinak "kontaktzen" aritu dira.
- Naiara eta Irati elkarrekin bueltak ematen zebiltzala Pablo inguratu zaie eta hirurak ibili dira.

Martxoaren 30ean

- Jarduera zuzenduetatik aparte, momentu batzuetan elkarrekin mahaian egoteko gai dira, margotuz, hitz egiten duten bitartean eta ondoren ipuin bat hartu eta "kontaktzen".

Maiatzaren 4an

- Irati eta Adrian G., besteak eserita dauden bitartean, kotxeekin paseatzen dabilta.
- Naiarak: Ya no soy tu amiga (Iratiri), estoy enfadada contigo.

Maiatzaren 22an

- Pablok Daniel estaltzen du oihal batekin eta hau, geldi-geldi dago.

Elkarrekin egiten dituzten jardueren adibide bat

Urriaren 16an

Saltoka dabilta marra batetik bestera:



Abenduaren 14an

Bi geletako bi urteko haurrak elkartuta egin dituzten jarduerak:

- . Gosaria
- . Abestu
- . Patioa
- . Ludoteka

Hasiera-hasieran andereñoaren laguntza, presentzia eta babes ematea ezinbestekoak dira uneoro, bera baita atxekimendu figura eta konfiantza ematen dien pertsona. Lehenengo hilabetean egiten dituzten jardueretan berak hartzen du parte: argazki-albumak eta ipuinak ikusten, eraikuntzetan, puzzleetan... Ume batzuegan oraindik nabarmenagoa egiten da andereñoaren presentziaren beharra, adibidez, Margari andereñoa gelatik tirta baten bila atera eta itzultzen denean, Eric pozik agertzen da, keinuka eta irribarrez, urriaren 10ean.

Pixkanaka, beraien arteko lehenengo agurrak, kukuak eta pixka bat geroxeago ipuinak beren gisa ikusten, elkarrekin jolasean, ume bat negarrez hasten bada beste bat hura kontsolatzen, besarkatzen, piezak trukatzeko, kotxean sartu eta paseatzen...

Asko laguntzen du elkarrekintza garatzen talde txikian eta handian gelan egiten diren jarduerak: elkarrekin margotu, etxeko koltxoiaren gainean elkarrekin etzanda egon, asistentziaren trenaren jokoak, eguraldia lantzerakoan, ipuinak kontatzea, abesteak, dantza egiteak. Aipatu nahi ditugu ere psikomotrizitate gelako jarduerak, asko ahalbidetzen baitituzte elkarrekintza egoerak: itxituretan elkarrekin egotea, uztaien jokoak, bata bestearen atzetik korrika ibiltzeak, koltxoneta handiko salto eta txiribueltak, oihalekin egiten dituzten jarduerak (bata bestea tapatu, itxitura estali), abestiak.

Noski, elkarrekintza ematen den heinean, momentu batzuetan gatazka txikiak ere sortzen dira eta horietan, paper garrantzitsua jokatzen du andereñoak, lasaitzen, zer pasa den deskribatzen laguntzen. Iskanbilen ondorioak uler ditzaten, maiz ematen ditu azalpenak, bakea egiten laguntzen du, umeak kontenitzen ditu (hainbat egoeratan, fisikoki hartu eta borroka espaziotik aldenduz). Kasu batzuetan, jo egiten duten umeari gatazketatik ikasi eta indarra atera dezan laguntzen dio.

Aurreikusten du gertatu daitekeena (Adibidez: batak besteari mina eman aurretik ikusten du gertatu behar duena) eta neurriak hartzen ditu: ahotsa aldatu, keinuak egin, ...

Nabarmentzekoa, momentu askotan andereñoak hurrei eskainitako maitasuna, umore ona, pazientzia eta bere parte hartzea koltxonetako salto eta umeen jokoetan.

Oharrak

.Milaka detaile dira uneoro zaintzen dituztenak, mundu konplexu eta aberatsa da. Adibidez, Danielen interesa Margarik umeak alda ditzan, Miguel A-ek egin duen atzerapausoa, Adrian R-ren "ipuinen errepresentazioa egiteko daukan poza"...

.Ziurtasuna ematen dien pertsonaren beharra (andereñoa). Miguel A.-k, berari bakarrik begiratzen dio eta lasaitzen du ama joan eta gaizki sentitzen denean.

.Egokitzapen-aldiko prozesuan gertatzen diren atzerapausoak: saioen ordu aldaketak, asistentziaren erregularitasun ezak, etxeko gertakizunak, eta abarren eragina.

.Eguneroko erritmotik ateratzeak (aldaketa txikienak ere) aztoratu egiten ditu haurrak: egun batean jangelan gelditu beharra, aitona kalean ikustea, patiotik bueltakoan ama bat etorri denez, jarraian alfonbran ez esertzeak... Garrantzizkoa egiten da haur txiki hauekin jarraibide edo pautak berdina mantentzea, eguneroko errutina ez aldatzea. Badirudi, haur hauek hobeto daudela psikomotrizitate gelan, oraindik (egunero joaten direlako?). Gelan, aldiz, kosta egiten zaie zentratzea.

.Pixkanaka lortzen dira aurrerapausoak. Beraien artean sortzen diren gatazkak, adibidez, batak bestea jo egiten duenean, beste batzuk beldurtu egiten dira eta negarrez hasten direnean, erabat aldatzen da giroa eta egoera horri buelta ematea kosta egiten da.

.Danborrada eguneko eta beste ume batzuen argazkiekin egindako albumak izugarri gustatzen zaizkie.

.Gelara ekartzen dituzten hainbat jostailuak direla eta, arazo asko sortzen dira beraien artean, konpartitu nahi ez dituztelako.

.Haur batzuen asistentzia faltak luzatu egiten du "egokitzapen-aldiko" prozesua. Beste aldetik, haur gutxiago etortzeak, bakoitzari denbora gehiago eskaintzea ahalbideratzen du, prozesua pertsonalizatzea.

Garrantzitsua

.Haur bakoitza pixka bat hartu eta kontsolatu eta entretenitzea.

.Bakoitzaren egokitzapen prozesua errespetatzea: batzuen ordutegi laburra, hurbilketa moduan gelan sartu eta berehala eramatea, guraso edo etxekoen presentzia momentuak onartzea.

.Haurrei, beti abisatu beharko litzaieke aldez aurretik, ama edo aita eskolatik joan aurretik, bestela, ez daudela konturatzen direnean, oso gaizki jartzen dira.

.Ume batzuk behar dute eskolara etortzeko: almoada azala, txupetea, zinta puxketa bat, etiketa bat...

.Gurasoekin harreman estua izatearen beharra, ikastetxean lantzen dituzten hainbat ohitura, arau, muga eta umeen garapen globala lortzeko prozesuan egunero egiten dituzten jardueren ezagutza ezinbestekoa da. Gurasoek andereñoen lana ulertu eta ahal den neurrian, etxean ere kontuan hartu ditzaten, besteak beste, atentzioa jartzea, umeari eskaintzen dioten dedikazioa nola landu-hezi, muga batzuk nola ezarri, detaile minimoek duten garrantzia komentatu eta gurasoekin planifikatzea komenigarria-beharrezkoa iruditzen zaigu.

9.2.1.4 Estrategiak - Jolasak

Ondorengo taulan, Margari andereñoak talde ekintzetako saioretan erabiltzen dituen hainbat estrategia-jolas azaltzen ditugu duten garrantziagatik:

<p>Taldearen atentzioa galdu eta berriro erakarri nahi denean erabili daitezkeenak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Arnasketa ezberdinak - Belarriak, begiak... estali - Ekarritako gauzak - Txiribiton-Txiribiton - Batak bestea molestatzen duenean andereñoak umea bere ondoan jartzea - Keinuak eginez abestu: eskuez, hankaz, buruaz... - Abestiak erabili - Andereñoak, ondo dauden umeen izenak esatea - Andereñoa 1etik 10arte kontaktzen hastea - Andereñoa keinuak egiten hasten da eta pixkanaka pixkanaka ahots tonu oso baxuaz hitz egiten du - "Txokolatero molinero" jokoa egitea - "Hotsen imitazioak": soportea erakutsiz - Haurra bera balore bezala erabili - Ahotsa aldatu, abestuz hitz egin - Aldez aurretik beraiek baliabidea aukeratzea - "Eskuak gora, eskuak behera" abestea - Pailazokeriak egitera animatu - Beraiei interesatzen zaien ipuinez galdetu eta kontatu - Elkarrizketa nahastu bada, txandaketa egin - Txalo egitea - Talde osoari parte hartu araztea - Ahots intentsitate eta abiadura aldaketa - Antzerkian bi haur ez dira ados jartzen eta haserretu egiten dira paper berdina egin nahi dutelako. Irakasleak moztu egiten du aktibitate hori eta soluzioa aurkitzen laguntzen die - Gelan saltoka, edo mahai gainera igotzen hasten direnean irakasleak esaten die: Hau zer da? Ganbara da. Hona igo daiteke? - Txokoak jaso eta gero "korro-korroan" abesten du irakasleak, taldeek jasotzen duten neurrian dantza honetara engantxatuz joan daitezen - Mugitzeko esaldi eginak erabili. Adib.: bat, bi, hiru txokoetara (entonazioaz baliatuz gehiago indartu mezua) - Haurra korroan dabilenean eta molestatzen ari denean, lekuz aldatu hobeto ikusiko duela edo hobeto egongo dela esanez - Lan bat bukatutakoan "dun-dun-dun... (izena) txapeldun" - Txokoak banatzeko era: egunero arduradunak hiru lagun edo izendatzen ditu taldeetako txartel ezberdinetara joateko; ondoren, arduradunak nondik nora joango diren esaten die. Taldeak banatutakoan txokoetara joaten dira - Ipuina bukatu eta eguraldia esateko tokiz edo eszenatokiz aldatu. Adib. buelta eman - Eguraldia adierazteko irrati batetik arituko balira bezala egingo dute mikrofono bat emanez: "1, 2, 3 klik irratia piztu" - Umeei banan banan patxadaz begiratzea - Irakasleak, komunikazioa sortarazteko erabiltzen duen jarrera begiratzuz gero, estrategia zabalduena eta askotan bakarra: <ol style="list-style-type: none"> 1.- Galdera-erantzuna 2.- Hitz erdiak 3.- Keinuak 4.- Begiradak 5.- Itxoite aktiboa - Umea erakarri (galde iezaiozu...) Adib.: Mikel jolasetik kanpo eta Anek behatza altxatu. Mikel, galde iezaiozu Aneri ea zer esan nahi dugun
--	---

<p>Talde ekintzan arlo ezberdinak lantzeko erabili daitezkeenak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Etxearen garbiketa - Buruaz ariketa batzuk - Lepoaren erlaxazioa - Esku jolasak - Beso eta sorbalden erlaxazioa - Eulia - Hegazkina - Lurrean etzanda - Konpletiba lantzen - Kontsekutiba - Baldintza - Alfonbran eseriz joatea - Soporte batzuk erabiltzea: gelako materiala, beste batzuk: marrazkiak, egunkariak, ... - Errekreatik sartutakoan jolastokian gertatutako gauzak kontatzea - Gailetak banatzerakoan, txokoen kritika egitea - Atzo zer egin zenuten? Honetaz hitz egiteko irakasleak irudi batzuk ateratzen ditu poltsikotik -Irakasleak galdetzen dio haur bati ea gaur txintxo egon diren (kritika beraien artean) -Irakasleak garbi eduki behar du: atentzio-zentroa erne dagoen taldea dela eta ez atzean dauden bi ume - Hizpide bidezko kokapena: "Ni Xabierren ondoan nago, ni Mikelen eta Saioaren artean nago" (umea berkokapenaren jabe egiteko)
<p>Beste batzuk talde ekintzak hasteko</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Antzeppen ezberdinak - Ipuin kontaketa (irudimenezkoak) - Ekintza ezberdinak imitatu - Egun batean egiten duguna - Zer gertatuko litzateke? - Trena - Pilota pasatzea - Andereñoa jarraitzea - Animaliena - Erraldoiak - ipotxak - Din-don, gometxak erabiltzea - Ekarrirako gauza erabili, elkarrizketa sortu - Haurrak zenbatzea - Etorri ez direnak aipatu, gaia luzatuz - Ekarki dutena zer den asmatu - Egun on esanez, umeak banan banan begiratu - Txandaren zozketa egitea - Ipurdia lurrean, kokapenaz jabetu (noren...?) - Abestiak, leloak, olerkiak, ... - Prest gaude? Galdetu - Taldeek txokoak jasotzen bukatzen duten neurrian irakasleak oso ondo egin dutela esaten die - Ez da inposizio era erabiltzen baizik eta elkarrekin egingo den lanera gonbidatu. Adib. Jasoko dugu....? - Txokoetako saioa bukatu ondoren, arduradunak kritika egingo du - Irakasleak denak atzetik dituela "kilometro bat oinez" abestuz, txango bat egitera goaz. Zer sartuko dugu motxilan? (irudimenez beteko dugu) - Hitz egiteko behatza altxarazi - Haur bat haserre sartzen da gelara. Irakasleak bereganatzen du, zer gertatu zaion galdetzen dio eta kilimak egiten dizkio "erremedio" moduan.Ondoren, haserraldia pasatu zaion galdetzen dio - Errepikaketa sistematikoki. Esaldiak osorik esateko joera landu, lagunduz bada ere

9.2.1.5 Ikuspegi orokorrak, andereñoaren hitzetan

Garrantzitsua iruditu zaigu ikasturte bukaeran andereñoari egindako elkarrizketa ondoren azaltzea, espazio bakoitzari buruzko iritziak, egokitzapen-aldiko prozesua eta ikasturtearen bilakaera nola baloratzen duen ikusi ahal izateko.

Ikasturte Bukaerako Elkarrizketa:

2001/VI/27

1.-ESPAZIOEI BURUZKO IRITZIAK

Gela, psikomotrizitate gela eta pizgina/halla

Argitasun aldetik, 3 espazioak, argitsuak ikusten ditut eta alaiak.

Ziurtasun aldetik, psikomotrizitate gelatik kanpoko "pasilloa" kontu pixka batekin ibiltzekoa da arriskua badagoelako (barrote berde baxu xamarrak dauzka). Gela, ziurra ikusten dut.

Pizgina, berriz, ondo legoke 2 urteko umeentzat soilik izango balitz, baina, 3 urtekoek ere erabili behar dutenez, isiltasun aldetik arazoak izaten dira batzuetan.

Gela, 2 urteko 14 haur direla kontuan hartuz txikia ikusten dut. Funtzionaltasun aldetik ez diot arazo handirik ikusten baina ez da hain goxoa.

Eraikin honetan 2 urteko haurren 2 gela eta 3 urtekoen bat egoteak bere abantailak baditu, adb., elkarrekintzarako (bestela oraindik isolatuago egongo lirateke).

Komunak

Ez dira erosoak txikientzako, dena irekia egingo nuke, gelatik irekia, bertatik dena ikusteko moduan. Gela barruan umeak aldatzeak badu beraiantzat "magia" bat, asko gustatzen baitzaie "zer egin duten ikustea". Komunak ondoan eta umeak bakarrik joateko moduan beharko lirateke. Dena den, estruktura osoa aldatu beharko litzateke. Haurtzaindegietako modua ikusiko nuke eroso eta egokiagoa.

Jangela

Txikiak dira, 2. solairura igo behar dute eta nire iritziak, azkarregi jan behar dute, ondoren, 3-4-5 urteko haurrak korrika etortzen direlako. Beste mundu bat da gelako heziketarekin konparatuz eta dinamika hori aldatzen joan behar dugu.

Logela

Psikomotrizitate gela da, koltxoi batzuk botatzen dituzte eta erabilgarritasun anitz hori umeak bereganatzea ez da erraza. Goizero psikomotrizitate gela bezala erabiltzen dugu eta bertan, korrika, saltoka, garrasika ibiltzen dira eta gero, bazkaldu

ondoren "lotarako" erabiltzea, zaila da beraientzat. Zarata izugarria entzuten da bertatik, handiak ludotekan egoten baitira eta soinu handia ateratzen dute. Zaila iruditzen zait baldintza horiekin ondo lo egitea.

Patioa

Ikasturte hasierarako ez da izan egokia. Plan bat dago Udaletxetik eta egin zuten beharren balorazio bat. Ekipamendu aldetik itsusia, arriskutsua eta aterpearen falta handia sumatzen dugu.

2.- ESPAZIO DESBERDINETAKO EGOKITZAPEN PROZESUA

.Gela eta beste espazioetako egokitzapen prozesua poliki-poliki egin da eta ez zaie gehiegi kostatu.

.Gela barruko espazioetan, haur bakoitzaren izateko moduaren arabera, batean edo bestean hobeto mugitzen dira. Haur lasaien kasuan, alfonbran, adibidez, oso ondo egoten dira ipuinekin, argazki-albumekin: Maider, Irati eta Naiarak (ipuinak kontatzen ikasi dute); etxe barruan, koltxonetarekin ere.

.Garrantzi handia dauka niretzat espazio bakoitzak. Eurek adierazten didate zer nahi duten, nola nahi duten. Adibidez, atea irekia edo itxia edukitzeak ere aldatzen du giroa.

.Gela barruan, ikasturte hasieran, pertsona helduaren bila ibiltzen ziren, ikasturte amaierako aldiz, espazioak ondo ezagutzen dituzte eta eroso ikusten ditut. Oraindik ere helduen beharra dute eta 'begiradarekin' bilatzen zaituzte, baina, esparru itxietan ondo mugitzen dira.

.Psikomotrizitate gelan eta gelako piszinaan gustura ikusten ditut. Toki zabalaten gutxiago (Oletara joaten garenean sokarekin).

Espazioen antolaketarekin nola sentitzen zara

Orokorrean, espazioen antolaketarekin gustura nago. Alfonbraren txokoa itxi egin nahi nuen baina, ez dut izan babesik. Ipuin txokoa, atea kontrolatzeko, aurrez aurre izateko aldatu egingo nuke. Umeak aldatzeko, mahaia nahiago nuke bestaldera jarri, –orain pareta aldera dago– gainontzeko umeak kontrolatzeko arazoa baitaukat eta harraska eta iturria bertarago edukitzeko ere.

Administrazioari aterpea eta kanpoko "tramankuluak" bi urteko umeentzako egokituak izatea eskatuko nioke.

3.- EGOKITZAPEN-ALDIA

Lehen hiruhilabetea gogorra egin zaigu denoi, niri (ametsak egiten nituen erori egiten zitzaizkidala umeak) eta baita umeei ere.

Haurrak ulertzea eta nireganatzea kostatzen egin zitzaidan hasieran; errazena, berriz, umeak onartzea izan da.

Gurasoak, batere problemarik gabe edukiko nituzke gelan “umearen onerako bada”.

Beraien parte hartze handiagoa izateko prestatu egin behar ditugu. Oro har, parte hartzeko prest daudela sentitu dut.

Hizkuntza eta psikomotrizitate aldetik izugarri hobetu dute. Atzera pausoak ere izan dira ume batzuen kasuan, etxeko gorabeherengatik.

Laguntza eskatuko nuke gela barrurako, lehenengo hiruhilabeterako. Badirudi, klaustroan erabaki zela bigarren astetik aurrera laguntza puntuala ematea (pertsonala murriztuko dutelako, behar bada). Baina, bi urteko haurrak dira, oso txikiak dira, eta prozesua egoki bat eraman ahal izateko, laguntza gehiago beharko genuke.

IASOTAKO INPRESIOAK-ONDORIOAK

.Bi urteko haurrak dira, txikiak dira eta denbora eman behar zaie.

.Babesteko sen nabarmena azaltzen du. Oso presente dauka detaile eta elementu guztiak haurrei egokitzeko beharra (“eskolatzeko giro” tipikoan ez erortzea).

.Umeak diren bezala onartzeko joera (zein naiz ni ume bat aldatzeko?)

.Guraso, laguntzaile eta behatzaileak ez dute molestatzen gela barruan, alderantziz.

.Nahiz eta ondoko gela bezain “egituratua” ez egon berea, lehentasuna ematen dio umeak zaindu, babesa eta maitasuna emateari.

Liburu baten erreferentzia ematen dit: “MAESTROS ¿FORMAR O TRANSFORMAR?”

Egilea: Henri Bassis

9.2.2 Bigarren ikasturtea

Ikasle-taldearen Jaiotze datak

IKASLEAK	JAIOTZE DATA
ADRIAN R.	1998-XII-10
ANDER N.	1998-X-25
ANDONI	1998-XI-12
ANDREA	1998-III-07
DANIEL	1998-XI-09
IÑIGO	1998-I-26
ION ANDER	1998-II-23
IRATI	1998-VIII-06
MAIDER	1998-X-10
MAIKOL	1998-VI-25
MIGUEL A.	1998-V-24
NAHIA LI	1998-VIII-22

9.2.2.1 Banakako eta talde txikitako jarduerak

Ondoren azalduko ditugun taulak, behaketa saio bakoitzean sintesi moduan jaso ditugunaren adibide dira. Ikasturte hasiera aldera, erdi aldera eta bukaera aldera hartutakoak dira, bilakaera behatu eta aztertzeke helburuarekin.

2001/IX/13

GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	<u>Etxeko txokoan:</u> Kojina (1) Panpina (2) Etzanda (3) Telefonoa(4) Ohea (5) Txakurra (6) Maindirea (7)	<u>Ipuin Txokoan:</u> Ipuinak (1) Abestiak(2) Dantza (3) Argazki-albumak(4)	<u>Jolas Txokoan:</u> Enkajableak(1) Puzzleak (2)	<u>Margotegi Txokoan:</u> Marrazkia/ Margoketa(1) Plastilina (2) Gometxak (3)	<u>Arbela:</u> Idazketa (1) Marrazkia(2)	Jaso
Adrian R.	-					
Ander N.	1 - 7		1 - 2	3	2	
Andoni	1		1 - 2	1 - 3	2	
Andrea	2 - 5*		2	1 - 2	1	
Daniel	+		2	1 - 2 - 3		

IKASLEAK/ JARDUERAK	<u>Etxeko txokoan:</u> Kojina (1) Panpina (2) Etzanda (3) Telefonoa(4) Ohea (5) Txakurra (6) Maindirea (7)	<u>Ipuin Txokoan:</u> Ipuinak (1) Abestiak(2) Dantza (3) Argazki-albumak(4)	<u>Jolas Txokoan:</u> Enkajableak(1) Puzzleak (2)	<u>Margotegi Txokoan:</u> Marrazkia/ Margoketa(1) Plastilina (2) Gometxak (3)	<u>Arbela:</u> Idazketa (1) Marrazkia(2)	Jaso
Iñigo	+			3		
Ion Ander	+			1 - 3		
Irati			1 - 2	1 - 3		
Maidier		2 - 3		1 - 2 - 3		
Maikol	-					
Miguel A.	+		1 - 2		2	
Nahia Li	+		2	1 - 3	2	

5* = Ohea egiten

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	Dantzan (1) Abesten (2) Korrika-saltoak (3)	Zaldiak	Koltxoneta (1) Txiribueltak Horma-barrak(2)	Pilota handiak	Oihalak Ispilua	Jaso
Adrian R.	-					
Ander N.				+	1	
Andoni		+			2	
Andrea	1	+			1 - 2	+
Daniel		+			2	
Iñigo						
Ion Ander				+	2	
Irati			2		2	
Maidier				+	2	
Maikol	-					
Miguel A.			2			
Nahia Li			2		1	

2001/IX/20

GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	<u>Etxeko txokoan:</u> Kojina (1) Panpina (2) Etzanda (3) Telefonoa(4) Ohea (5) Txakurra (6) Mairidirea(7)	<u>Ipuin Txokoan:</u> Ipuinak (1) Abestiak(2) Dantza(3) Argazki- album.(4)	<u>Jolas Txokoan:</u> Enkajableak(1) Puzzleak (2)	<u>Margotegi Txokoan:</u> Marraskia/ Margoketa(1) Plastilina (2) Gometxak(3)	<u>Arbela:</u> Idazketa(1) Marraskia(2)	Jaso
Andrea	+	2 - 3	2	2	1	
Adrian R.	-					
Ander N.	-					
Andoni	+	2 - 4				
Daniel	+	2	2			
Iñigo	+	2 - 4	2			
Ion Ander	-					
Irati	+	1 - 2	2			
Maidier	+	2 - 3	2	3		
Maikol	+		2			
Miguel A.	+	4	2*		2	
Nahia Li	+	1 - 2 - 3	2			

* = Miguel A. 45' puzzleak egiten

2001/X/24

GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	<u>Etxeko txokoan:</u> Kojina (1) Panpina (2) Etzanda(3) Telefonia(4) Ohea (5) Txakurra(6) Maindirea(7) Argazki- albumak (8)	<u>Antzerki txokoan:</u> Ipuinak (1) Abestiak(2) Dantza(3) <u>Mahai-lanak:</u> Margoketa(4) Gometxak(5) Oihalak (6) Burukoa (7)	<u>Jolas Txokoan:</u> Enkajableak(1) Puzzleak (2) Plastilina(3) Labana(4) Arkitektura (5)	<u>Margotegi Txokoan:</u> Marrakia/ Margoketa(1) Gometxak(2) Guraizeak(3) Puntzoia(4)	<u>Arbela:</u> Idazketa(1) Margoketa(2)	Jaso
Adrian R.	-					
Ander N.			3			
Andoni			2 - 3			
Andrea		4 - 5				+
Daniel	-	4 - 5				
Iñigo		4 - 5				
Ion Ander		4				
Irati			2-3-4-5			+
Maidar		4 - 5 - 7				
Maikol		4 - 5				
Miguel A.			2 - 3			
Nahia Li			5			+

2001/XI/21

GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	<u>Etxeko txokoan:</u> Kojina(1) Panpina (2) Etzanda(3) Gora-behera(4) Telefonoa(5) Ohea (6) Txakurra (7) Maindirea(8) Argazki-albumak (9) Ipuina (10) Koltxoneta(11)	<u>Antzerki txokoan:</u> Ipuinak (1) Abestiak (2) Dantza (3) <u>Mahai-lanak:</u> Margoketa(4) Gometxak(5) Puntzoia (6) Oihalak (7) Burukoa(8) Antzerkia (9)	<u>Jolas Txokoan:</u> Enkajableak(1) Puzzleak(2) Plastilina (3) Labana(4) Arkitektura (5)	<u>Margotegi Txokoan:</u> Marrazkia/ Margoketa(1) Gometxak (2) Guraizeak(3) Puntzoia (4) Tenpera (5) Collage (6)	<u>Arbela:</u> Idazketa(1) Marrazketa(2)	Jaso
Adrian			5	2 - 6		
Ander N.		5 - 9		5 *- 6		
Andoni		1 - 4 - 9		3 - 5*		
Andrea	2 - 4 - 5		3	1		+
Daniel	4 - 11		2 - 5			+
Iñigo	4 - 8 - 11		5			+
Ion Ander	4 - 7 - 11		2 - 5			+
Irati		1 - 5 - 9		3 - 5 *-6		+
Maidier	2- 5 - 8 - 9		2 - 5			+
Maikol	4 - 5 - 11		1 - 2 - 5			+
Miguel A.				1 - 3 - 4 -5*		+
Nahia Li		1 - 5 - 9		1 - 4 - 5* -6		

* karpetak tenperaz margotzen aritu dira

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	Dantzan(1) Abesten(2) Korrika- saltoak(3) Tunela (4)	Koltxoneta(1) Txiribueltak Horma- barrak (2) Objektuak garraitzen (3)	Jolas sinbo- likoa: .medikua .gaixoa .panpina zaintzen (Rol desberdinak)	Etxea, itxituren eraikuntza(1) Barruan Sartu(2)	Oihalak(1) Ispilua (2) Mozorroto(3)	Jaso
Adrian R.	2 - 3	1 - 2 - 3		1 - 2		
Ander N.	2	1 - 2 - 3				
Andoni	2			1 - 2	1 - 3	
Andrea	2	3		1 - 2	1 - 3	+
Daniel	2 - 3	2 - 3			1	
Iñigo	2 - 3	3				
Ion Ander	2 - 3	3				+
Irati	2 - 3				1	
Maidar	2	3			1 - 3	+
Maikol	2 - 3	3	+	1 - 2	1	
Miguel A.	2 - 3	3				
Nahia Li	2 - 3		+	1 - 2	3	

2 = Ihauterietako entsegua, abestia eta erritmoa landuz.

+ = Maikolek Nahia Li-ri: "mamá". Nahia Li-k Maikoli: "te tapo"

2002/III/22

GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	<u>Etxeko txokoan:</u> Kojina(1) Panpina(2) Etzanda(3) Gora-behera(4) Telefonoa(5) Ohea (6) Txakurra (7) Maindirea(8) Argazki-albumak (9) Ipuinak (10) Koltxoneta(11) Etxe garbiketa(12)	<u>Antzerki txokoan:</u> Ipuinak (1) Abestiak(2) Dantza (3) <u>Mahai-lanak:</u> Marraskia/ Margoketa (4) Gometxak(5) Puntzoia (6) Kola (7) Oihalak (8) Burukoa (9) Antzerkia(10)	<u>Jolas Txokoan:</u> Enkajableak(1) Puzzleak (2) Plastilina (3) Labana (4) Arkitektura (5) Legoa (6)	<u>Margotegi Txokoan:</u> Marraskia/ Margoketa(1)/ Gometxak (2) Guraizeak (3) Puntzoia (4) Tenpera (5) Collage (6) Bolatxoak (7) Kola (8)	<u>Arbela:</u> Idazketa(1) Marraskia(2)	Materiala jaso
Adrian	gaixorik					
Ander N.			2 - 3			
Andoni	oporretan					
Andrea	7 - 9 - 11					
Daniel	4 - 11					
Iñigo			2 - 3 - 6			+
Ion Ander	oporretan					
Irati			3 - 6			+
Maidar	4-7-9-11					
Maikol	4 - 12					
Miguel A.			1 - 3			
Nahia Li			2 - 3 - 6			+

2002/IV/22

GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	<u>Talde ekintzan:</u> Abestiak(1) Dantza (2) Ipuina(3) Elkarrizketa(4) Olerkiak (5) Gosaria (6)	<u>Etxeko txokoan:</u> Kojina (1) Panpina (2) Etzanda(3) Gora- behera(4) Telefonoa (5) Ohea (6) Txakurra (7) Maindirea 8) Argazki- albumak(9) Ipuinak(10) Koltxoneta(11) Etxea garbitzen(12)	<u>Antzerki txokoan:</u> Ipuinak (1) Abestiak(2) Dantza(3) <u>Mahai-lanak:</u> Marraskia/ Margoketa(4) Gometxak(5) Puntzoia (6) Kola (7) Oihalak (8) Burukoa (9) Antzerkia(10)	<u>Jolas Txokoan:</u> Enkajableak(1) Puzzleak (2) Plastilina(3) Labana(4) Arkitektura (5) Legoa (6)	<u>Margotegi Txokoan:</u> Marraskia/ Margoketa(1) Gometxak(2) Guraizeak(3) Puntzoia (4) Tenpera (5) Collage (6) Bolatxoak (7) Kola (8)	<u>Arbela:</u> Idazketa(1) Marraskia(2)	Jaso
Adrian	-						
Ander N.	Ez du jarraitu		4 - 6		5		
Andoni	Ez oso ondo		4 - 6 - 7				
Andrea	Jarraitu ditu			3			+
Daniel	Jarraitu ditu			2			+
Iñigo	Jarraitu ditu		4 - 6				+
Ion Ander	Jarraitu ditu			3			+
Irati	Jarraitu ditu		4 - 6				
Maidar	Ez oso ondo			3			
Maikol	Jarraitu ditu			3			+
Miguel A.	Ez du jarraitu		4 - 6				
Nahia Li	Jarraitu ditu		4 - 6 - 7		5		

Jarraitu ditu = Talde ekintzan egindako jarduerak: abestiak, ipuina,...

2002/VI/07

GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	<u>Talde ekintzan:</u> Abestiak (1) Dantzak (2) Ipuina (3) Elkarrizketa(4) Gosaria (5) Eguraldia (6)	<u>Etxeko txokoan:</u> Kojina (1) Panpina (2) Etzanda (3) Gora- behera(4) Telefonoa(5) Ohea (6) Txakurra(7) Oihalak (8) Argazki- albumak (9) Ipuinak (10) Koltxoneta (11) Etxe- garbiketa (12)	<u>Antzerki txokoan:</u> Ipuinak(1) Abestiak(2) Dantza (3) <u>Mahai-lanak:</u> Marraskia/ Margoketa(4) Gometxak(5) Puntzoia (6) Kola (7) Oihalak (8) Burukoa (9) Antzerkia(10)	<u>Jolas Txokoan:</u> Enkaj.ableak(1) Puzzleak (2) Plastilina (3) Labana (4) Arkitektura (5) Legoa (6)	<u>Margotegi Txokoan:</u> Marraskia/ Margoketa(1) Gometxak(2) Guraizeak(3) Puntzoia (4) Tenpera (5) Collage (6) Bolatxoak (7) Kola (8)	<u>Arbela:</u> Idazketa(1) Marraskia(2)	Jaso
Adrian	1 - 3	4 - 6 - 7					
Ander N.	3			6			
Andoni	1 - 3			3 - 6			
Andrea	1 - 3	4 - 8					
Daniel	1 - 3	4 - 6					
Iñigo	1 - 3			3 - 6			
Ion Ander	1 - 3	4					
Irati	3 - 6			2 - 3			
Maidar	2 - 3	4 - 8					+
Maikol	1 - 3	4 - 6		2 - 3 - 6			+
Miguel A.	1 - 3						
Nahia Li	1 - 3			2 - 3			

3 = Ipuina entzuten

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	Oinetakoak: Kendu(1) Jarri (2)	Trizikloak (1) Zaldiak (2)	Dantzan (1) Abesten (2)	<u>Koltxonetan:</u> Txiribueltak (1) Horma-barrak (2) Objektuak garraitzen (3) Korrika-saltoak (4) Txiribueltak(5) Tunela (6)	<u>Jolas sinbolikoa:</u> .medikua .gaixoa .panpina zaintzen (Rol desberdinak)	Etxea, itxituren eraikuntza (1) Barruan Sartu (2)	Oihalak(1) Ispilua (2) Mozorroto (3)	J a s o
Adrian	1			1 - 3 - 4				
Ander N.	1			4				
Andoni	1	1		4				
Andrea	1			4	+			+
Daniel	1	1						
Iñigo	1			2 - 3 - 4				+
Ion Ander	1			3-4 -5*				
Irati	1			4 - 5			2	
Maider	1		1		+		2	+
Maikol	1	1						
Miguel A.	1			3				
Nahia Li	1			2 - 4 - 5				+

4 = Salto egiteko piezak: hirukiak, laukiak, borobilak, arkuak. Horietatik salto egin eta koltxoneta handian txiribuelta. 5* = Laguntzarekin

9.2.2.1.1 Txokoka eman den bilakaera

Aurreko tauletako jardueren deskribapena egingo dugu ondoren.

GELA

Txokoak:

- ETXEA
- JOLAS TOKIA
- MARGOTEGIA
- IPUIN TXOKOA - ANTZERKIA

Joan den urteko 7 hurrek eta 5 berrik osatzen dute 12 ikasleko "D" eredu taldea. Irailaren 28an egin ditu 2 talde andereñoak eta hemendik aurrera, talde bat "Elefanteak" izango dira eta bestea "Txakurrak". "Elefanteen" taldea osatzen duten haurrak: Nahia Li, Andoni, Irati, Andrea, Miguel A., Ander N. "Txakurren" taldea osatzen duten haurrak: Maidar, Iñigo, Andrea, Maikol, Ion A., Daniel.

. Etxea

Gelako espazio garrantzitsua hartzen du etxeak. Bi solairukoa da (argazkietan ikus daitekeen bezala) eta ikasturte hasieran gora eta behera ibili dira haurrak, gustura, sartu eta irten eta telefonoa etxekoei deitzeko hasieran maiz samar erabili dute. Irailaren bukaeran ezarri ditu andereñoak bi talde finko (txokoetan errotazio sistema erabiliz funtzionatzen hasteko) eta momentu horretatik aurrera, taldetxoan elkarrekin gehien egin dituzten jardueratako batzuk hauek izan dira: panpinak zaindu, elkarrekin hitz egin, argazki-albumak ikusi, etzanda egon, ipuinak kontatu, abestu, leihoetatik maindireak astindu, txakurraren txabolan sartu eta egon. Rolen banaketa, bigarren hiruhilabetetik aurrera maiz egin dute (aita, ama, ume txikia, medikua, gaixoa, ...) eta horiei lotutako eginkizunak, hala nola, panpina jantzi, tapakiak jarri, ohea egin, etxea garbitu, txakurra zaindu, jaten eman, saioa bukatzerakoan gauzak jaso....

Adibide moduan aipatzen ditugu haur batzuen jarduerak jolas sinbolikoaren adierazle: Maiderrekin, trebetasun handiarekin biltzen ditu oihalak, panpinak zaindu, beste umeak zaindu, txakurrari jaten eman eta Andreak, oihalak tolestatzeko egin beharreko pausoak ondo behatu ondoren, trebetasun handiz doblatzen ditu. Bi haur hauek, askotan erabiltzen dute jolas sinbolikoa. Maikolekin, martxoaren 22an trapu batekin goitik behera garbitzen du etxea, estilo handiarekin. Andonik: “yo soy la mamá” eta panpina zaintzen du. Nahia-Lik Andreak: “Mamá, voy a saltar”; Andoniri: “Papá, hola!”

. Jolas tokia

Ikasturte hasieratik material batzuk erabilgarritasun handia izan dute, adibidez, arkitekturak eta Lego piezak; dorreak egitea izan da gehien ikusi dugun jardueretako bat. Maikol, Iñigo eta Daniel maiz aritu dira elkarrekin jarduera honetan. Animalien puzzleak ere erakargarriak izan dira. Miguel A-ek denbora asko dedikatu die (irailaren 20an 45 minutu). Plastilina lantzeko labana jarri du aurten txoko honetako materialen artean andereñoak eta, plastilina lantzeko oso ondo etorri da. Aurrena, plastilina pusketak egiten dituzte labanarekin eta ondoren egin behar duten elementua lantzen hasten dira. Andreak, pusketa txiki-txikiak egiten ditu labanarekin moztuz eta joan den urteko plastilinarekin egiten zituzten “txorizo” haietatik, aurten, trebetasun handiarekin egitera pasa dira: gurpilak, animalia batzuk...:

. Margotegia

Ikasturte honetan, margotu ondoren, puntzoia eta guraizeen erabilera izan dira gehitu diren jardueretako batzuk eta trebetasunez atera eta moztu dituzte elementuak. Andreak, trebetasun handia dauka eta borobiltxo guztiak zulatzen ditu, lasai-lasai. Erakargarria izan da haur guztientzat tenperaren erabilera, etxera eramaten dituzten lanak gordetzen dituen karpeta apaindu baitute tenperaz. Urriaren 24an hasi dira jarduera honekin; aurrena kolore bakarra erabili dute, gorria, eta hauxe izan da prozesua: eskuak tenperan sartu, kontuz atera, eta karpeta gainean eskuen aztarnak jarri. Ume batzuk karpeta guztia bete dute, besteek tartetxoak utzi dituzte... Ikasturte guztian zehar egin dituzten collage lanek ere eboluzio polita izan dute. Pixkanaka, jarduera batekin aritzeko denbora luzatzen doa (15-20 minutu plastilina egiten).

. Ipuin txokoa - Antzerkia

Garrantzi handiko txokoa izan da eta bi zonalde bereizten ditugu txoko honetan; bat, antzerkiko prestaketarako egin dituzten jarduerak: ipuina ikasi, kontatu, abestiak ikasi, dantza egin, ipuinaren errepresentaziorako paperak banatu, jantziak prestatu, paperezko bolatxoak egin, kola eman eta eszenatokiko horma-irudietan itsatsi (azken jarduera hau deskribatzen dugu aurreraxeago) eta, bigarren zonaldean: entseguak egin, antzeztu eta kritika landu.

. Psikomotrizitate gela

Oinetakoak kendu ondoren andereñoak arauak gogorarazten dizkie eta abesti batekin ematen dio saioari hasiera: "hanka punttan, hanka punttan joango gara: bat, bi hiru".

Denak hasten dira saltoka, pilotekin, etxeak egiten, espalderetan/horma-barretan gora eta salto...Maidar izan da joan den urteko ikasturteko joerarekin jarraitu duen bakarra; hau da, jarduera lasaietan parte hartu du: oihalak bildu eta jaso, musika entzun, guri dantza eskatu... "¿Dónde está Takolo?, ahora le oigo"; musikarekin oso adi egoten da.

Objektuak garraiatze lanetan denak ibili dira eta etxea-itxituraren barruan egotea gustuko dute.

Aurtengo ikasturtean gela honetan egin dituzte festa egunetako entseguak: Danborrada, Inauteriak... eta festa bakoitzarekin erlazionatuta dauden abesti, dantza eta erritmoek garrantzia izan dute.

Jolas sinbolikoa ere nabarmentzekoa da eta rol banaketa maiz egin dute: medikua, gaixoa, batak bestea zaintzea, aita eta amaren papera. Saioetarako denbora luze samarra hartu dute batzuetan, 10-15 minutu. Adibide moduan Iratik Andoniri momentu batean esaten diona: “Yo soy la madre y quiero que me hagas caso. Yo soy la mamá y tú el papá. Aita, aita” (Iratik builaka).

Iskanbila txikiak ere maiz izan dira eta andereñoak, joan den urtean bezalaxe, negoziazio eta adostasuna lortzeko prozesuan asko lagundu die.








Materiala jasotzen laguntzen dute gehienek. Iñigo eta Irati asko saiatzen dira materiala ondo jasotzen.

9.2.2.1.2 Jardueren bi adibide

Jarduerak ondo ikusteko eta aztertzeko aukera emateko asmoarekin bi adibide aukeratu ditugu. Jarduera hauek, nahiz eta taldetxoan osatzen diren, pertsonalizatuak dira, bakoitzaren lana jasotzen baitute.

1.- Jarduera

Jolas txokoan, lamina plastifikatu batean joaten da eransten ume bakoitza egin dituen puzzleen sinboloak, eta horrela, andereñoak, eguna bukatu ondoren edo astea bukatzean, jasotzen eta ebaluatzen joaten da bakoitzak egin duena.

Argazkia	Izena							
	Adrian							
	Ander							
	Andoni							
	Andrea							

2 - Jarduera

Antzeztokiko horma-irudia osatzen ari dira: zuhaitzen enborrak margotu dituzte: Maider, Andrea, Miguel A.-k...Ondoren, haur bakoitzak paperezko bolatxoak prestatzen ditu, kola eman eta hormirudiko izarretan, etxetxoaren tximinian, leihoetan eta ate gainetan eransten ditu.



9.2.2.1.3 Ondorio partzialak

Gelako txokoak

.Etxea

Etxeak aurten protagonismo handia izan du daukan egituragatik. Deskantsatu, babestu, lagunekin hitz egin eta jolastu, rol desberdinak aukeratu (aita, ama, umea, txakurra), etxeko lanak egiten hasi dira: bazkaria prestatu, bazkaltzera gonbidatu, etxea garbitu eta alderdi motorikoa lantzeko espazio aproposa izan da (eskailerak gora eta behera etengabe ibili baitira). Bestalde, etxeak bere alde ez hain baikorra ere izan du, momentu askotan buila eta iskanbila espazio ere bilakatu denean, beste txokoetan ari direnei interferentziak sortu dizkielako lan egiteko garaian. Etxeko espazio hori jarduera “libreetako” erabiltzen dute eta oso pixkanaka joaten dira jarduerak egituratzen. Gure ustez, egituratze horretan, helduen interbentzioa saioko hainbat momentutan beharrezkoa da. Bestela, erraza da etxea istilu espazio bihurtzea eta 3 urteko umei egoera horietatik zaila egiten zaie ateratzea. Andereñoak berak azkeneko elkarriketan dion bezala, oso argi eduki behar da etxearen filosofia eta bete behar dituen funtzioak.

.Jolas tokia

Nabarmen ikusten da “indarra” eta “kontrol-trebetasuna” –motrizitate fina– behar duten jardueretan eboluzio handia egin dutela hurrek bigarren ikasturte honetan.

Eraikuntzak nabarmen aberastu dira, baina, andereñoak esaten duen bezala, material gehiagoren beharra ikusten dugu: tamaina handiagoko piezak, forma desberdinetakoak, anitzagoak; garrantzizkoa litzateke ikasturtean zehar material berria sartzen joatea.

.Margotegia

Collage eta tenperaz egindako lanek, paperezko bolatxo egindakoek, guraize eta puntzoiaren erabilera behar dutenek, oro har, eboluzio handia izan dute. “Kontrol” handia lortu dute haur batzuk: Andrea, Maider, Iñigo, Miguel A... Karpetak tenperaz margotzeak erakargarritasun handia izan du. Hemen, ñabardura bat azpimarratuko genuke, karpetak etxera eramateko direnez, motibazioa areagotu egiten da.

Estilo eta erritmo desberdinak nabarmentzen joan dira ikasturtean zehar. Maiderrek gauzak patxaran egiten ditu; Andreak heldutasun handia adierazten du (ondo egitea gustatzen zaio eta zorrotz jarraitzen ditu ematen zaizkion pautak).

Txoko honek, sormena eta trebetasuna lantzeaz gain, funtzio garrantzitsua bete du elkarrekintza egoerak sortzen; gustura ikusten dira, erlaxatuta eta maiz ikusi ditugu hitz egiten eta parrez. Txoko honetan andereñoaren presentzia eta interbentzioa momentu askotan beharrezkoak direnez, “giro lasaiaren” klabe bat andereñoak ezartzen laguntzen duela esango genuke.

.Ipuin txokoa - Antzerkia

Oso bilakaera interesgarria izan du. Ikasturtean zehar 5 ipuin lantzen dituzte, ipuina da beraien metodologiaren ardatz-antolatzailea, beraz, txoko honetan egiten dituzten jardueretan islatzen da ipuinaren garapena: rolak banatu: kontalaria, pertsonaia bakoitza, beraien arteko entseguak eta errepresentazio eta ondorengo kritika. Lehenengo errepresentazioetan andereñoaren interbentzioa beharrezkoa izan dute: haria mantentzeko, esaldiak bukatzeko, roletan laguntzeko...baina ikasturte bukaerarako, solteago ikusi dira haurrak beraien paperetan eta bereziki azpimarratzekoa da kritikak egin duen bilakaera. Hasierako kritika saioak haur batek esaten zuena errepikatzea izan baldin bada batik bat, ikasturte bukaerarako kritika pertsonalizatuagoak izan dira eta batez ere, gustatu bazaie eta ez bazaie zergatia azaldu dute. Ondoren agertzen dugun antzerkiaren zatitxo hau horren adierazle da:

Andreak: Gu txakurrak gara eta Jon Baserritarraren ipuina kontatuko dugu.

Maiderek: Ni txoria izango naiz.

Margarik kontalariari laguntzen dio, Ion A-i. Honek kontatu ahala besteek errepresentatzen joan behar dute. Figura osatzen joan behar dute: burua eta aurpegian: udareak begiak dira, azenarioa sudurra, marrubia ahoa, gereziak belarriak, bi porru hankak dira...

Batzuk ondo entzuten dute. Miguel A. eta Irati mugitzen hasten dira.

Abesti batekin bukatzen dute: "Txori txiki polita..."

Kritika: Ion A-ek Iñigori: Gustatu al zaizu antzerkia?

Andonik: Gaizki egin du txorimaloak, la pierna... hanka, gaizki jarri duelako.

Irati, gustatu zaizu antzerkia? Ez du ezer esaten.

Nahia Lik: "Bai, ondo, pero txoriak mal, a mí no me gusta".

M-k: Zer moduz portatu dira ikusleak?

Ion A-ek: "Mal"

Egia esan, Irati, Iñigo eta Maider, besteetan ez bezala portatu dira.

M-k: Gaur eguraldia beroa egiten du eta horregatik izango da.

Beno, txalo jo eta gailetak banatuko ditugu.

Psikomotrizitate gela

Oso pozik joaten dira psikomotrizitate gelara, ondo pasatzen dute. Bertan korri, salto, igo-jaitsi, txiribuelta, gorde-ezkutatu, deskantsatu, abestu, garrasi egin, objektuak garraiatu, mozorrotu, entseguak egin... jarduera multzo honek erakargarritasun handia du beraiantzat; "libre" eta alde berean "babestuta" sentitzen direla esango genuke espazio honetan.

Oharra

Ander N. izan da ikasturtean zehar material guztiak probatu bai baina, jarduera bakoitzean oso denbora gutxian mantendu dena – txikienetakoa da, azarokoa –.

9.2.2.2 Autonomia-ohiturak

Ondoren azaltzen ditugun tauletan autonomiarekin zerikusia duten ohituren heziketa jaso dugu, bilakaera aztertzeko helburuarekin.

2. hiruhilabetea: Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak (jangelan bazkaltzen dutenen datuak)

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	A	AndN.	And	Andr	Iñ	Ma	Maik	N.Li
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe	B	I	B	B	B	B	B	B
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin	B	B	B	B	B	B	I	B
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B
Mahai ingurua txukun uzten ikasi	I	I	B	B	B	B	I	B
Lurra txukun uzten ikasi	I	I	B	B	B	B	I	B
Mastekatzen eta irensten ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi	B	I	B	B	B	B	B	B
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B
Jana banatu bitartean itxoiten ikasi	B	I	B	B	B	B	B	B
Denetatik jaten ikasi	B	B	B	B	B	I	B	B
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B
Elikagaiak eskuekin mozten ikasi, koska egin gabe	I	I	B	B	B	B	B	B
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi	I	I	B	B	B	B	I	B
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitu	B	B	B	B	B	B	B	B
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi	?	?	?	?	?	?	?	?

(B) Egiten du; (I) Ikasten ari da

2. hiruhilabetea: Deskantsuarekin (autonomia) zerikusia duten ohituren heziketa

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	A	AndN.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Zapatak kentzen ikasi	I	I	S	S	S	S	I	S	I	B	S	B
Galtzerdiak kentzen ikasi	I	I	S	S	S	S	I	S	I	B	S	B
Berokia eta txaketa kentzen ikasi	I	I	B	B	S	B	I	S	B	B	S	B
Arropak kentzen lagundu (besoak, hankak, etab. altxatuz)	I	I	S	I	S	S	I	S	S	B	T	B
Berokia, txaketa, poltsa, mantala... zintzilikatzen ikasi	I	I	S	S	S	S	T	S	S	S	T	T
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak erazten lagundu	I	I	S	B	S	S	T	B	S	I	T	B
Jantzeko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi	I	I	T	I	T	I	I	B	B	I	B	T
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin	I	I	T	S	T	I	S	B	B	I	B	B
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi	T	B	B	T	B	B	I	B	T	B	I	B
Bakarrik lo egiten ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	S	B	I	B
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	T	B
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi	B	B	B	B	S	S	S	B	B	B	T	B
Norberaren arropak tolestatzen lagundu	I	I	T	S	S	S	T	T	S	T	T	T

(B) Egiten du; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (T) Tarteka egiten du

2. hiruhilabetea: Higienearekin (autonomia) zerikusia duten ohituren heziketa

2-4 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	A	AndN.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Eskuak garbitzen ikasi	T	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu	T	B	B	B	B	B	B	B	B	T	B	B
Eskuak lehortzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	T	B
Esfinterrak kontrolatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B

ITEMAK/IKASLEAK	A	AndN.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu	B	B	B	B	B	B	B	B	B	T	B	B
Zikina edo garbia dagoela jakin	B	B	B	B	B	B	B	B	B	T	T	B
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi	I	I	B	B	B	B	B	B	B	I	I	B

(B) Egiten du; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (T) Tarteka egiten du

3. hiruhilabetea: Norberaren autonomiarekin lotutako ohiturak

0-3 urte bitartean hasi eta kontsolidatzen joatekoak

ITEMAK/IKASLEAK	A	AndN.	And	Andr	Dan	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Gauza txikiak bakarrik egiten ikasi: jostailuak hartu, gorputzeko atalak mugitu, bere burua entzun eta besteei entzun, entretenu...	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Trebetasun txikiak ikasi: txiribueletak eman, pinuarena egin, orekan mantendu, hanka baten gainean salto egin, narrasi, papera urratu, behatzekin pusketak egin, txalo jo, txistu egin,	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)	B (hanka batekin salto egitea zaila da)
Hitzak esaten ikasi, erritmo bat jarraitu, objektuei soinua aterarazi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Tresna batzuen erabilera dominatu: koilara, edalontzia, platera, ...	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Behar diren gauzak erabiltzen ikasi: baberoa, orrazia, etab.	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Garbitzen ikasi, jantzi eta erantzi laguntza pixka batekin edo bakarrik	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B

(B) Egiten du

Prozesu guzti hau gaindituta daukatela esaten dit andereñoak

3. hiruhilabetea: Pertsonen arteko erlazioak errazten dituzten ohiturak

3-6 urteko haurrekin landu eta kontsolidatzen joatekoak

ITEMAK/IKASLEAK	A	AndN.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Agurtzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Galdetzen digutenean erantzuten ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Besteek zerbait behar dutenean atentzioa ematen ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Besteen alderdi positiboak estimatzen eta baloratzen ikasi	E?	E?	E?	E?	E?	E?	E?	E?	E?	E?	E?	E?
Besteen lana eta jolasa errespetatzen ikasi	G	G	G	G	G	G	G	G	G	G	G	G
Besteek lanean ari direnean edo deskantsatzen daudenean, isilik egoten ikasi	G	G	G	G	G	G	G	G	G	G	G	G
Beste umeekin jolasten eta lanean ikasi	B	G	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Gatazken aurrean zintzotasunez jokatzeko ikasi	G	G	G	G	G	G	G	G	G	G	G	G
Besteekiko harremanetan 'delikatua'/samurra izaten ikasi	Z	Z	Z	Z	Z	Z	Z	Z	Z	Z	Z	Z

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (G) Gainditzeko prozesuan daude. (Z) Zaila da.

4. eta 9. itemak zailak direla dio andereñoak

3. hiruhilabetea: Taldeko esperiantziak errazteko ohiturak

3-6 urte bitartean hasi eta kontsolidatzen joatekoak

ITEM/IKASLEAK	A	And N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Elkarrekin zerbait egiten ikasi: dantza, antzerkia, muralak, collage-ak,...	B	I	B	B	B	B	B	B	B	B	I	B
Elkarrekin ipuin bat, olerki bat kontatu	B	I	B	B	B	B	I	B	B	B	B	B
Elkarrekin abesten ikasi	B	I	B	B	B	B	I	B	B	I	I	B
Festak denon artean egiten ikasi	L	L	L	L	L	L	L	L	L	L	L	L

ITEM/ IKASLEAK	A	And N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Bisitei ongi- etorria ematen ikasi	L (zaila)	L (zaila)	L (zaila)	L (zaila)	L (zaila)	L (zaila)	L (zaila)	L (zaila)	L (zaila)	L (zaila)	L (zaila)	L (zaila)

(B) Egiten du; (I) Ikasten ari da; (L) Laguntzarekin (item. hau zaila egiten zaiela dio
andereñoak)

3. hiruhilabetea: Ordenarekin zerikusia duten ohiturak

3-6 urte bitartean hasi eta kontsolidatzen joatekoak

ITEM/IKASLEAK	A	AndN.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Gauza bakoitzaren lekua errespetatzen ikasi: jostailuak, poltsa	S	I	S	S	S	S	I	S	S	I	S	S
Gauza bakoitzaren lekua aurkitzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Gauza bakoitza erabili ondoren bere lekuan uzten ikasi	S	I	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Gauzak sailkatzen eta ordenatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Lanak txukun egiten ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Gauza edo instrumentu bakoitza egoki erabiltzen ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Zakarrontziak erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Liburu/ipuina zikindu gabe eta hautsi gabe erabiltzen ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Marrazkiak eta lanak bere apal edo kaxetan gordetzen ikasi	B	I	B	B	B	B	I	B	B	B	B	B
Kolperik eman gabe ireki eta ixten ikasi: ate, leiho, armairu	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Soinurik egin gabe ibiltzen ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Pasatzen eta besteei pasatzen uzten ikasi	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da

Gurasoengandik jasotako informazioa

3. hiruhilabetea: Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak

1 urterekin hasi eta bereganatzen joatekoak:

IIEMAK/ IKASLEAK	Adrian	Ander N	Andoni	Andrea	Daniel	Iñigo	Ion A	Irat	Maidor	Maitol	Miguel A	Nahia I
Garbia dagoenean disfrutatzen ikasi	B	B	T	Ez dute erantzun	B	B	B	B	B	B	T	B
Garbitzen edo orrazten eskatzen ikasi	T	E	T		B	B	T	B	B	B	E	B
Gorputzaren usain ona baloratzen ikasi	B	B	T		B	T	B	B	T	B	T	B
Beste haurren presentzia txukuna baloratzen ikasi	E	E	E		B	T	T	B	T	B	E	B
Azkazalak mozten utzi	B	B	T		B	B	B	B	B	B	B	T
Ilea mozten eta txukuntzen utzi	B	B	B		B	B	B	B	B	T	E	B
Zapatak garbiak eramaten eta ondo jartzen ikasi	S	E	T		B	B	B	B	B	I	E	T
Aurpegia, sudurra, eskuak garbitzen ikasi (bere gisa, zikinak daudenean)	B	E	I		B	T	B	B	B	B	B	T
Arropak txukun ordenatzen ikasi	E	E	I		E	E	E	B	I	I	E	T
Zikina sentitzen denean azpiko arropak aldatzen ikasi	B	E	I		B	B	B	B	B	I	I	B
Ilea txukun eramaten ikasi	T	E	T		E	T	E	B	B	E	E	T
Azkazalak garbiak eta ondo moztuta eramaten ikasi	T	E	I		B	I	B	B	B	B	E	E
Zapatak garbitzen ikasi	B	E	E		E	T	E	B	T	I	E	E
Gaineko arropak orbanik gabe mantentzen ikasi	E	E	I		I	I	B	B	I	I	I	I
Orban errazak garbitzen ikasi	T	E	E		I	E	B	B	T	E	B	E
Arropa politak, kolore konbinaketa eta irudiak baloratzen ikasi	T	T	T		B	T	B	B	T	B	T	B
Produktuak erabiltzen ikasi: hidratatzaileak, eguzki-babesleak...	E	E	B		B	T	T	B	B	E	E	B

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (T) Tarteka egiten du

Oharra:

Gurasoei gazteleraz egin genien galdeketa.

9.2.2.2.1 Bilakaera

.Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak

Ikastetxean bazkaltzen gelditzen diren haur gehienek lortu dute ia item guztiak ikastea. Ander, Angel eta Miguel A. daude item batzuk ikasteko prozesuan, adibidez “mahai ingurua txukun uzten ikasi”, “lurra txukun uzten ikasi”, “elikagaiak eskuekin mozten ikasi”, “frutak zuritzen ikasi” eta “ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi”. Azken itema, “mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi”, ez dute lantzen, haurrak bazkaltzera joaterako mahaia jarrita egoten baita.

.Deskantsuarekin zerikusia duten ohiturak

Taula honetan jasotzen diren hainbat eta hainbat item zailak dira lortzen eta eguneroko jardunean pixkanaka garatzen joatekoak dira. Hiru haur daude: Irati, Maikol, Nahia Li, ia item guztiak egiten dituztenak eta, besteen kasuan, ikasten, saiatzzen dira edo tarteka egiten dituzte.

.Higienearekin zerikusia duten ohiturak

Aurrera pauso handiak eman dituzte ikasturte honetan higiearekin erlazioa duten itemetan. Taulan ikusten dugun bezala, ia haur guztiak lortu dute item guztiak egitea.

.Norberaren autonomiarekin lotutako ohiturak

Hemen ere, bigarren itema izan ezik, ume guztiak gaindituta dauzkate agertzen ditugun ohitura guztiak.

.Pertsonen arteko erlazioak errazten dituzten ohiturak

Lehenengo bi itemak: “agurtzen ikasi” eta “galdetzen digutenean erantzuten ikasi” haur guztiak egiten dute; baita ere “beste umeekin jolasten eta lanean ikasi”, Ander N-ek izan ezik. Gainontzekoetan ikasten edo gainditzeko prozesuan daude. “Besteen alderdi positiboak estimatzen eta baloratzen ikasi” eta “besteekiko harremanetan “delikatua/samurra izaten ikasi”, zailak direla dio andereñoak.

.Taldeko esperientziak errazteko ohiturak

Oro har, lortu dituzte 3 lehenengoak: “elkarrekin zerbait egiten ikasi”, “elkarrekin ipuin bat, olerki bat kontatu” eta “elkarrekin abesten ikasi”. Beste biak: “festak denen artean egiten ikasi” eta “bisitei ongi-etorria ematen ikasi”, laguntzarekin egiten dute. Haur bakar bat dago, Ander N., oraindik kostatzen zaiona eta lortu ez duena.

.Ordenarekin zerikusia duten ohiturak

Hiru item egiten ikasi dute ia denek: "gauzak sailkatzen eta ordenatzen ikasi", "zakarrontziak erabiltzen ikasi", "marrazkiak eta lanak bere apal edo kaxetan gordetzen ikasi"; gainontzeko itemak: "saiatzen dira", "ikasten ari dira" prozesuan daude.

.Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak

Gurasoengandik jasotako informazioaren arabera, Iratik item guztiak egiten ditu eta Daniel, Iñigo, Ion A., Maider eta Nahia Lik 8-10 lortu dituzte. Badaude item batzuk 3-4 urteko haurrentzat zailak direnak: "zapatak garbitzen ikasi", gaineko arropak orbanik gabe mantentzen ikasi", "orban errazak garbitzen ikasi" eta horietan, ikasten ari dira edo tarteka egiten dute. Ander N. izango litzateke denetatik, prozesuan mantsoago doana.

9.2.2.2 Arauak eta egoerak

Ikasturtean zehar egindako behaketa saioetan jasotako hainbat arau, ohituren eta egoeren adibideak azalduko ditugu ondoren.

Irailaren 20an

- Etxean garrasirik ez
- Ez da jo behar

Irailaren 28an

- Plastilina mahai honetan

Urriaren 10ean

- Garrasi kanpoan egin behar da, hemen ez!

Urriaren 24an

- Badakizue eskolan ez dagoela tontorik.
- Maider berak hartzen du papera mukiak kentzeko eta ondoren zakarrontzira botatzen du papera.

Abenduaren 14an

- Maider, jaso egurrak, zerorrek atera dituzu denak eta.
- Ezin da mina egin
- Ezin da jo

Otsailaren 1ean

- Ez bultza
- Ez jo

- Ez koska egin
- Ez harramazkatu
- Mainerrek: Korrika ez egin
- Margarik: Denok lagunak gara

Martxoaren 1ean

Borobilean arauak gogorarazten:

- Ez jo
- Iletatik ez tira
- Ez harramazkatu
- Ez koska egin
- Denok lagunak gara

Ekainaren 7an

Arauak gogorarazten:

- Ez jo
- Ez bultza
- Ez harramazkatu
- Denok lagunak gara; denok e, ez batzuk bakarrik.

Autonomiaren lorpenaren adierazle batzuk

Irailaren 28an

Iratik bakarrik egin du komuneko buelta.

Azaroaren 21ean

- Txartela kentzen dute eta bere tokian uzten.
- Batzuk komuneko joan etorria bakarrik egiten dute.

Martxoaren 22an

- Nahia Lik ere berak kentzen ditu mukiak eta papera zakarrontzira botatzen.
- Iratik eta Andreak papera hartu eta mukiak kentzen dituzte.

Ekainaren 7an

- Mainerrek primeran tolestaten ditu oihalak, izugarrizko detailearekin, gero zakarrontziaren tapa jartzen du. Maikolek imitatzen du (oihalak nola tolestatu dituen begiratzen du).

Espazio eta ohiturekin lotutako oharrak:

.Ikasturte berri honen hasieran, Adrian oporretatik itzuli ondoren, ez zuen eraikin hau ezagutzen eta ez zuen komunean pixa egin nahi; aldiz, beste eraikinera joan zirenean, ludotekara (eguraldi txarra zegoelako) sartu eta berehala berak eskatu zuen han pixa egitea.

.Jarduera bat hasi ondoren norbait gelan sartzeak erabat aztoratzen ditu (ekainaren 7an).

.Andereño aldaketa asko sumatzen dute (ekainaren 7an).

9.2.2.2.3 Ondorio partzialak

Tauletan eta zerrendan ikusten ditugun ohiturak, etengabe lantzen joatekoak dira nahiz eta lortuak egon. Aurreko ikasturtearen ondorioetan azaldu dugun bezala, ohitura hauek, etxean ere egitea eskatzen dute; batzuk, hain zuzen, etxean egiteko aproposagoak direlako: zapatak garbitu, arropak tolestatzen lagundu, mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi, kolperik eman gabe ateak, leihoak, armairuak ireki eta ixten ikasi... eta besteak, ikasten laguntzeko eta errefortzu bezala mantentzeko beharrezkoa delako.

Berriro azpimarratzen dugu, ohituren heziketak, ikastolako irakasle eta ez irakasleen (atezain, jangelako arduradun, garbitzaile) eta etxeko guraso, aitona-amonen eta familiaren parte hartzea eta kolaborazioa eskatzen duela.

Lan egiteko sistemak, materialak ondo antolatuta eta txoko bakoitzean bereiztuta egoteak, hurbil eta eskura egoteak, lagundu egiten die haurrei autonomia prozesuan.

9.2.2.3 Elkarrekintzarekin zerikusia duten egoerak eta bilakaera

Ikasturtean zehar jasotzen joandako hainbat momentu eta egoera deskribatzen ditugu ondoren:

Irailaren 11an

Irati ipuina kontatzen ari da eta Nahia Li eta Andrea entzuten. Bat-batean Nahia Lik: "Siéntate" (ipuina kontatu nahi dio).

Irailaren 13an

Musika jarrita dago eta Maider eta Jon Ander dantzan dabilta, elkarri begiraturuz.

Maiderrek: ¿Qué estás haciendo? galdetzen dit. Idazten. Berak: Idazten ¿qué? "Maider dantzan dabil" esaten diot. Berak: "Sí estoy contenta porque mi hermana ha venido a casa y está en la cuna". Oso pozik agertzen da.

Maiderek: Irati tapatzen du, oso ongi zaintzen du, orain Margariri heldu eta berak tapatzea nahi du. Ispiluaren aurrean barrez hasi da orain Maiderek “pirata” moduan jarri baitio zapi bat.

Irailaren 28an

Maikol, Andoni, Iñigo, Ion A. plastilinarekin ari diren bitartean, hizketan.

Etxeko eskaileretan gora eta behera beren artean.

Andrea eta Nahia Li txakurraren “txabolan” daude oihalekin tapatuta.

Ipuinarekin ari dira; 8 ikasle daude: Iñigo, Nahia Li, Irati, Ion Ander, Maikol, Andoni, Andrea, Maider. Andereñoak kontatzen du eta Iratik ipuina eusten du; horrela, Margarik eskuekin ere mugimenduak egin ditzake; isil-isilik daude, oso lasai.

Iñigok niri begiratzuz: “Las sillas no están bien, le dejamos una silla” ni eser nadin.

Urriaren 10ean

Andonik neska bati heldu eta muxu eman nahi dio: “le quiero dar un beso”. Neska negarrez, oso fuerte heltzen diolako?. Nik: Andoni, orain ez du nahi, galdetu iezaiozu nahi duen. ¿Quieres que te dé un beso? Neskak: “No”. Andonik: “Quiero ser tu amigo”.

Miguel A. eta Nahia Li elkarrekin, balkoitik begira.

Arkitekturekin dorreak egiten dabilta: Maikol, Iñigo eta Daniel, elkarrekin.

Urriaren 24ean

Etxean: Gora eta behera. Etxearen goiko solairuan logela daukate. Behean elkartzen dira eta denak eserita daude, parrez.

Azaroaren 7an

Maiderek: ¿Ya se le ha pasado lo de la ama? Adrianengatik.

Azaroaren 21ean

Elkarrekin dabilta: Maikol, Iñigo, Andrea eta Daniel. Andrea eta Maikol haserretu dira eta joka hasi, baina, ez da gehiagora joan.

Ion A., Daniel eta Iñigo puzzle bat elkarren artean egiten.

Maiderek eta Adrian elkarrekin arkitekturekin dorre bat egiten.

Otsailaren 1ean

Maiderek Andrea darama kaxan sartuta eta gero alderantziz.

Martxoaren 1ean

Iñigok: “Me pica el pie, me rascas?” (bota soinean dauka eta Mainer hazka egiten hasi zaio.

Adrianek Mainerri: “No llores más”, vamos”.

Bere abokatu defendatzailea da. Negarrez ikusten duenean beti galdetzen dio: ¿quién te ha pegau?

Iratik Miguel A. besarkatzen du eta Miguel A. oso gustura ikusten dut momentu horretan.

Mainer ohean balego bezala; Adrianek oihala jartzen dio tapaki moduan.

Martxoaren 22an

Andrea eta Mainer elkarrekin jolasten, txakurrari jaten ematen, etzanda...

Iñigo, Irati eta Miguel A. plastilinarekin eta hizketan beraien artean, lasai.

Apirilaren 22an

Andonik Mainerri muxuak ematen dizkio aurpegian eta eskuan eta galdetzen ¿por qué no hablas?

Ikasturte bukaerarako hasi dira “lagunaren bila” etortzen, lagunaren figura pixkanaka pixkanaka “deskubritzen” ari dira.

Ikasturtearen lehenengo egunetatik izan dira elkarrekin egoteko momentuak eta etxearen egiturak paper esanguratsua jokatu duela pentsatzen dugu. Oso erakargarria egin zaie gora eta behera ibiltzea, 2. solairuko logelan etzanda egotea, txakurraren txabolan elkarrekin egotea, ipuinak kontatzen hastea...

Otsailerako asko gehitu dira elkarrekintza momentuak eta txokoetako espazioetan taldeka lan egiteko jarduerak nabarmen erraztu dute elkarrekintza: antzerkia prestatzea, entseguak egitea, etxeko jarduerak egitea, antzeztokia dekoratzea, kritika egitea, eguraldia aztertzea, asistentzia lantzea, elkarrekin abestea eta dantza egitea...

Jolas sinbolikoak ikasturte honetan garrantzia hartu duenez, elkarrekintza momentuak ere aberatsagoak izan dira: rolak banatu eta errespetatzea (aita, ama, umea, medikua, gaixoa) eta horiekin lotutako jarduerak.

Psikomotrizitate gelako saioetako jarduerak ere lagundu dute elkarrekintza garatzen; bertan egin dituzten festen entseguak bereziki azpimarratu nahi ditugu.

Elkarrekintza egoerekin lotu-lotuak doazen iskanbila eta konponezinetan andereñoaren papera nabarmentzekoa da, beraiek soluzioa bila dezaten eman dituen pautak ezinbestekoak izan dira: egoera lasaitzen lagundu, galdetu, pentsatu arazi, zergatiak aurkitzen lagundu, barkamena eskatzen lagundu.

Egunero egunero egin dituzten hainbat oroimen jarduerak (zein falta den, gaixorik ote dagoen, haur bat oporretara joaten denean besarkatu) asko lagundu dute elkarrekintzan aurrerapausoak ematen eta horren adierazle da egun batzuetan etorri gabe dagoen haurrari zein ongietorri beroa egiten dioten.

9.2.2.4 Ikasturtean zehar jasotako oharrak

.Gela aldaketa dela eta nahastuta ikusi dira lehenengo egunetan. Mainerrek dio lehengo gelara joan nahi duela eta beste batzuk ere galdetzen dute ea zergatik dauden gela berrian.

.Nabarmena da Margarik ematen dien konfiantza. Pixa egitera eraman ditu batzuk eta Iñigok ate aurrean jarrita dio: “Yo te espero aquí; le espero a Margari aquí”.

.Ume batzuk nahiago dute gelan egon patioan baino, babestuagoak sentitzen dira barruan. Iñigok: “ a mí me gusta estar en la escuela” (gela barruan).

.Anderrek kasketa handia harrapatu du “eskopeta” ekarri duelako eta gelan utzi behar izan duelako; ia jolastokiko denbora guztia negarrez pasa du. Miguel A-ek “ezpata” ekarri du baina, honek badaki utzi egin behar duela.

.Iñigori kaka atera zaio eta aldatzera joan da Margari. Mainerrek galdetzen dit ea zer pasa zaion Iñigori, eta: “A mí la caca me sale en el water”.

30 minutu egon dira borobilean.

Txokoetan elkarrekin egoteak eta jarduerak konpartitzeak elkarrekintza sustatzen du.

Gauza gutxi behar da daukaten giro lasaia aldatzeko: norbait sartzen dela, hitz egiten dutela, ...

Taldea “normalizatzea” zaila da eta lan handia ematen diote andereñoari; batzuk gutxi etortzen direlako, besteak ohituretara egitea asko kostatzen zaielako...

Euskaraz dakien pertsonala (irakasleetatik aparte) beharko litzateke Haur Hezkuntzako ikastetxeetan.

Zaila egiten zait erabat “behatzaile” bezala funtzionatzea, umeekin hitz egin gabe, inguratu eta hitz egiten didatenean eta nik ere beraiekin parte har dezadan gonbidatzen nautenean.

Patioko orduan, iruditzen zait, adin honetan eta lehenengo hiruhilabetean behintzat, bakoitzak bere andereñoa bistan edukitzea komenigarria dela, gatazka asko sortzen dira eta, nahiz eta gehienetan haurrak helduengana inguratu, mimo batzuk egin eta azkar pasatzen zaien, beraien andereñoarekiko lotura handia daukate oraindik.

Maiderek: “Yo me llamo Mainer y ésta se llama Nainer” (ez du nahi berea bezalako izena bestek edukitzea). Niri: “Loreita, Loreita, ven conmigo”.

Iñigo hasi da euskaraz hitzak esaten eta errepikatzen. Margarik: erdaraz hain hiztegi aberatsa duenez, kosta egiten zaio euskaraz egitea, oso mugatua ikusten delako.

Nahia Li gaur, adopzioak “kontrolatzen” edo jarraitzen dituztenekin egon da.

Hasi dira konturatzen “txokoetako” funtzionamenduaz (nork non egon behar duen).

Irati oso serio dago eszenatokian eserita, borobilean ipuina kontatzerik izan ez duelako (gainontzekoek, ez zioten kasurik egiten).

Gauza txikien garrantzia: Gaur Andoni urduri dago “arduraduna” delako.

Beharrezkoa da arauak gogoraraztea.

Egoera gogorren aurrean erantzun egokiak ematearen zailtasuna; adibidez, Andoniren aita hil ondoren bizitu duen prozesua.

Estrategien beharra: Jokoak, musika, erlaxazio ariketak...

Batzuen prozesua oso mantso doa, adibidez, Ander N-ena.

Ohar horietatik atera ditzakegun hainbat ondorio

Patorako andereño gehiagoren beharra ikusten dugu ikasturte hasieran, aldaketa dezente daudelako bai espazio eta bai andereño aldetik. Zaila da “kontrolatzea”, gauza asko gertatzen baitira momentu berean: batzuk erori, beste batzuei jo egin dietela, komunera joatea behartzen direla...

Egokia da arazoak gehiagora joan aurretik umeen jarraipena egitea eta eskolan bertan “aholkularia” egotea.

Zaila da ume batzuentzat beste anaia edo ahizpa baten amaren haurdunaldia. Aldaketak ulertu eta onartzearen prozesuan lagundu egin behar zaie: entzun, “aholkuak” eman...

Eskolan ikusten diren jarrera-aldaketen aurrean, beharrezkoa da etxeko egoerak ezagutzea (haurdunaldiak, ebakuntzak, bereizketak...); horregatik iruditzen zaigu ezinbestekoa, gurasoekin komunikazio etengabea izatea.

Margarik umeei ematen dien maitasunak eta hartzen dien pazientziak, ondorio baikorrak ditu umeen bilakaeran: konfiantza, lasaitasuna, ondo sentitzea... islatzen dira gelako giroan.

Umeen pasadizo xelebreak

Margari, Ander N-ekin nonbait ezinean zebilen eta esan omen zuen: “Kokoteraino nago, ez duzulako kasurik egiten” eta Iratik erantzun omen zion: “Margari, los niños son así”.

IKASTURTE AMAIERAKO FESTAREN EGITARUA

11:00 Jaiaren hasiera

Handi eta txikientzat puzgarriak

Zezen mekanikoa eta Santa Fe Trena

Harri Berri eta Oletako ikasleek egindako lanen erakusketa

Eskularen tailerrak: Makilajea (adin guztietarako)

Karetak (txikientzat) eta Apaingarriak (handientzat)

Euri simulagailua eta Simpson mobila (handi eta ertaintzat)

Tortila eta Gozo lehiaketa gurasoentzat*

13:30 Marrazki eta sukaldaritzako sari banaketa

14:00 Bazkaria

16:00-16:30 Haurrentzat jolasak

16:30-17:00 Trialsin erakustaldia Iker Leceta (4 aldiz munduko txapelduna)

17:00-17:30 Haurrentzako jolasen jarraipena

17:30-18:00 Pailazoak

Jaiaren amaiera (eskertuko genuke gauzak jasotzen laguntzea)

- etxetik eginak ekarri behar dira

9.2.2.5 Ikuspegi orokorrak andereñoaren hitzetan

Garrantzitsua iruditu zaigu ikasturte bukaeran andereñoari egindako elkarrizketa hemen azaltzea. Hau da, espazio bakoitzari buruzko iritziak, egokitzapen-aldiko prozesua eta ikasturtearen bilakaera nola baloratzen duen ikusi ahal izateko.

Ikasturte Bukaerako Elkarrizketa

2002/VI/13

GALDEKETA-ELKARRIZKETA ERDI EGITURATUA

ESPAZIOEN AZTERKETA

1.- Deskriba iezaidazu nola ikusten duzun espazio bakoitza elementu hauek edota beste batzuk kontuan hartuz

- . Azalera
- . Argitasuna
- . Soinua/isiltasun
- . Berotasuna/hotza
- . Funtzionaltasuna
- . Seguritatea/Arriskuak
- . Goxotasuna
- . Ekipamendua

1.1.- Gela

Handia, ederra, talde txikia delako. Argitasun aldetik ondo. Goxotasuna?, erakargarria da.

1.2.- Psikomotrizitate gela

Goiko solairuan dagoenez, (2. solairua) haur elbarriren bat balego ez litzateke igotzerik izango. Funtzionala eta eroso da; ekipamendu aldetik ere egokia ikusten dut.

Ordutegia aldatuko nuke ikasturte honetan 11etan izan dudalako. Dena dela, orain, ordutegia hobeto menderatzen dute eta ondo asunituta daukate.

Klaustroan onartu didate txikiegiak direla, 2. solairutik 1. solairura jaitsi behar dutelako komunera.

1.3.- Jangela

Beste eraikinera joan behar dute bazkaltzera, baina gustura, arazorik gabe.

1.4.- Patioa

Txiki hauentzako beste eraikinekoa egokiagoa da, ezagutzen dutelako 2 urte zituztenetik. Hemen, “galduta” sentitzen dira batzuk, hura berriz, “berea” sentitzen dute eta babestuagoak ikusten dira.

2.- Gelako txokoen erabilera nola ikusi duzu? Txokoz txoko

. Etxea

. Margotegia

. Jolas tokia

. Antzerkia

. Etxea ikusi dut zailena, behar bada, neronek ez dut bere funtzioa ondo ikusi. Zarata behar dute beraien beldurrak eta nahiak adierazteko baino salto handiak egiten dituztenean eta builak, besteei molestatu egiten diete eta ez nekien nola egin, agian neronen problema da. Interferentziak sortzen dituela iruditzen zait eta ihes egiten dit.

. Margotegian eta jolasetan ondo ikusi ditut, behar bada, helduaren erreferentzia gehiago dutelako, gidatuagoa delako, adb. plastikan.

2.1.- Txoko bakoitzean dagoen materialak zertarainoko zerikusia du zure ustez?

. Jolas txokoan eraikuntza material gehiago beharko genuke, pieza handiagoak, “berriaren” sentsazioa ere behar dute umeeek, nahiz eta berri-berria ez izan (gordeta eduki eta pixkanaka atara).

2.2.- Zure gustura antolatuta al dago gela? Aldaketarik egingo al zenuke?

Tamainaz handixeagoa izango balitz, etxea beste aldean jarriko nuke baina, orokorrean ondo dago.

2.3.- Dauden material, baliabide eta ekipamendua, egokiak ikusten al dituzu?

Bai, nahiko egokiak iruditzen zaizkit. Sistema ona da, agian gu geu gara...

3.- Zer eskatuko zenioke Administrazioari?

Eskola honetan ezindu edo elbarriek ez daukate lekurik, barrera arkitektonikoak direla eta. Beste gauza garrantzitsua aterpea da; aterpe faltarena arazo handia da. Hirugarren arazoa, zarata da; asko afektatzen die umeei eta hori eraikina beraren egitura eta materialengatik da, ez dago isolatua eta dena entzuten da. Eraikin hauek ez daude prestatuak ez bero eta ez hotz egiten duenerako. Izugarri berotzen dira uda aldera eta siesta egiten duten ume txikiek, zailtasunak dituzte lo egiteko ere. Hotzarekin hobeto konpontzen gara, berogailua dagoelako.

IKASTURTEAREN BILAKAERA NOLAKOA IZAN DA?

Ikasleak

Nahiko poliki ikusi ditut; ez dut arazo berezirik behatu. Miguel A-en egonezina pazientziaz eraman dut. Lasaitasuna lortu behar du baina prozesua horrelakoa da. Heldutasuna poliki-poliki ematen da eta ez da gure gauza bakarrik.

Irakasleak

Astero, 3 urteko haurren hiru andereñoak koordinatuta egon gara eta zikloka ere astero-astero bildu gara. Ondo, ez dut izan inongo problemarik eta ondo konpondu gara.

Gurasoak

Harreman oso onak, zuzenak. Sekulan ez dut "pretenditu" lagunak izatea, gurasoak dira, haurretaz hitz egiten dugu eta ondo erantzuten didate, oso ondo. Egunero etortzen dira umearen bila, batenak izan ezik.

Aholkularia

Premia gehiegirik ez dugu izan baina "figura" hori ondo ikusten dut; oso ondo etorri zaigu zenbait egoeratan galderak izan ditugunean, ondo erantzun du.

. Nola baloratzen duzu ikasturtean eman den prozesua autonomia eta elkarrekintza alorretan?

Sistema, materialak, hurbil egoteak, eskura egoteak laguntzen die autonomia prozesuan. Elkarrekintzari buruz, elkarrekin jolastu, hitz egin, "lagunaren bila" etortzen hasi dira, lagunaren figura pixkanaka-pixkanaka, "deskubritzen" ari dira.

Nik: Nabaritzen da adibidez, bat gaixo egon ondoren zein ongietorri ona egiten dioten besteek.

Margarik: Bai, asko lantzen dugulako, egunero egunero, zein etorri den, zein falta den, gaixorik ote dagoen, oportetara norbait joaterakoan besarkatuz...

. Laguntzaren bat eskatuko al zenuke?

Aholkulariaren laguntza espero dut izatea, agian beharko dugu, baten kasuan hizkuntza pobrea dauka, ez nuke itxoin nahi ziklo bukaera arte; logopeda bat ondo etorriko litzaiguke.

. Datorren ikasturterako bai al dakizu ze talde izango duzun?

Aurtengo 12 haurretatik 10 gelditzen dira eta 2 urteko nireak izandakoetatik, 5 nire taldera pasako dira; beraz, printzipioz 15 haur horiek osatuko dute nire taldea.

10

**LABURPENA ETA KONPARAZIOAK:
2000-02 IKASTURTEAK**

10 LABURPENA ETA KONPARAZIOAK: 2000-02 IKASTURTEAK

10.1 Arantzazuko Ama Ikastola

10.1.1 Eraikin eta geletako funtzionamendua

Eraikin berean daude 2, 3 eta 4 urtekoen gelak, beraz, gure lana osatzen duten lagineko haurrek Haur Hezkuntzako eraikina izan dute erreferentzia espazioa 2 ikasturteetan zehar; salbuespen bakarra, hiru urtetik aurrerako haurren psikomotrizitate saioak izan dira, Lehen Hezkuntzako eraikinean egiten baitituzte. Bertara joan dira astean bi egunetan, Haur Hezkuntzako eraikineko gelako baldintzak egokiegia ez direlako.

Eraikinean sartu eta solairuaren erdian pizsina-halla deitzen dioten espazioa dago.

Patioa, eraikinaren bueltan dagoen eta zabalgunerdi-estalia duen 600 m²-ko espazioa da.

Bi urteko haurren gela bakoitza espazio edo txokoka antolatuta dago, horrela, 2000-01 ikasturtean, ikerketa gelako haurrek, gela berean egin dituzte jarduerak; 2001-02 ikasturtean, aldiz, haur horiek 3 urte zituztenez, 2 geletan funtzionatzeko aukera izan dute, "A" gelan (Plastika gela) eta "B" gelan (Eraiketa gela), "zirkulazio libre"-ko saioetan. Bi gela hauetan 3 eta 4 urteko haurrak nahasten dira.

10.1.2 Asistentzia

Bi ikasturteen zehar jaso ditugun datuen arabera, taldearen asistentzia oso erregularra izan da.

10.1.3 Materialak espazioka

Materialak espazioka daude antolatuta eta "etxea" da 2 urteko haurrek soilik daukaten gelako espazioa. Honako material hauek ditu besteak beste: seaska, telefonoa, panpinak, bainua... Espazio hori desagertu egiten da 3 urteko geletan, beraz, jolas sinbolikorako erabiltzen duten materiala: ume-kotxea, panpinak, erosketako karroak, etab., jolas orduan, pizsinan edota patioan erabiltzen dute. Psikomotrizitate gelan bertako materialarekin ibiltzen dira.

Bi urterekin izan duten "plastika" espazioko materiala gehitzen-aberasten joan dira eta aipagarria iruditzen zaigu 3 urtekoek erabili duten hondakin-materiala.

Ipuinak, argazki-albumak, abestiak, puzzleak, Legoak, animaliak, kotxeak, ... izan zituzten "alfonbra eta mahai jolasen" espazioan 2 urterekin. Hiru urterekin,

“eraiketa gelan”, esanguratsuki aldatu da materiala, forma eta tamaina desberdinetako egurrezko piezekin batik bat eta material honek ahalbidetu du “eraikuntza” interesgarriak eta konplexuak egitea eta egitura arazoei soluzioa aurkitzea. Azpimarratu nahi genuke era berean, gela honetan 3 urteko hurrek, mahai jolasen espazioan izan duten materiala: oka, domino, partxisa, damak eta horrelako jokoak.

10.1.4 Denboraren antolaketa

Ordutegi bera izan dute bi ikasturteetan zehar, hau da, goizetan 9:00 - 12:00 eta arratsaldetan 14:30 - 16:30. Saioen banaketan, espazio edo txokoetako 9:10 - 10:30 goizeko saioa, lehenengo ikasturtean malguagoa izan da eta 3 urterekin, saio hori, zirkulazio librekoa izan denez, 2 geletan ibili dira hurrak eta, oro har, saioaren ordua mantendu dute, nahiz eta batzuetan pixka bat laburtu edo luzatu duten hurrek daramaten dinamikaren arabera.

10.1.5 Jarduerak espazioka edo txokoka

Talde ekintza-borobileko jardueren bilakaera esanguratsuki aldatu da bi ikasturteetan zehar. Lehenengo ikasturtean, elkarrekin egon eta besteei entzuten ikasten hastetik, oso prozesu aberatsa joan da garatzen, bai txandak errespetatzen, beraien deskribapenetan, elkarrizketetan, besteek esaten dutenaren harira elementuak gehitzen/osatzen... Nabarmentzekoa izan da gosariak bi ikasturteetan zehar izan duen garrantzia, giro erlaxatua lortuz, fruta anitz eta beste hainbat elikagai jaten ikasi dutelako eta bakoitzak ekarri duena besteekin konpartitu dutelako.

2000-01 Ikasturtearen hasieran etxeko espazioan maiz egin dituzten jardueren artean daude, objektuak, jostailuak hartu eta etxean sartzea, eta telefonoz etxekoei deitzea. Pixkanaka joan dira agertzen elkarrekintza momentuak eta familiakoen paper edo rola hartzen. Etxeak, goian aipatu dugun bezala, ez du izan jarraipenik 2001-02 ikasturtean.

Margotegia eta plastika gelako jardueren eboluzioa interesgarria izan da. Hasieran, marraztu, gometxak itsatsi, plastilina landu izan ziren gehienbat egin zituzten jarduerak; 2000ko azaroan tenperarekin margotzen hasi ziren, paperezko bolatxo txikiak egiten, kola eman eta collage lanak egiten eta, ikasturte bukaera aldera hasi ziren guraizeak erabiltzen. Jarduera guzti hauek denbora aldetik oso laburrak izan ziren orokorrean. 2001-02 ikasturtean, plastika gelako espazioen banaketa haxe izan da: marrazkigintza, modelaketa, tenpera/akuarela eta kolaketa-hondakin txokoa. Bertan egin dituzten produkzio edo elaborazioak esanguratsuki aberastu dira bai

kontrol, sormen, nahiz indarra eskatzen duten lanetan (plastilina eta beste materialen modelaketan) eta batez ere, gelako 3 neskek, denbora luzea dedikatu diete jarduera horiei, batzuetan saio osoak pasa baitituzte eskulan edo margolanetan (ordu eta laurden).

Liburutegia/ipuinen txokoa. Lehenengo ikasturtean maiz erabili dituzte argazki-albumak familiakoak ikusi ahal izateko, batez ere, egokitzapen-aldian eta oro har, bakarka egiten duten jarduera izan da. Bigarren ikasturtean, aldiz, jarduera hori gehiago konpartitu dute eta beraien artean egin dituzte argazkien hainbat deskribapen. Ipuinekin gauza berdintsua gertatu da; erabilgarritasun handia izan dute eta lehenengo ikasturtearekin alderatuz, bigarreanean, ipuina, batek kontatu eta besteak entzuteko gai izan dira momentu batzuetan. Bigarren ikasturtean, txoko honetan egin duten beste jarduera bat "beraien izenak aurkitu eta itsastea" izan da.

Mahai eta alfonbrako jolasak eta eraiketa gelako jarduerak. Puzzleak egin, piezak ahokatu, animaliekin jolasean ibili izan dira lehenengo ikasturteko jardueretako batzuk. Bigarren ikasturtean, 3 urteko haurrak, "eraiketa gela" bi espaziotan antolatuta izan dute: mahai jolasen espazioa eta eraikuntzen espazioa. Mahai jolasetan, Oka jokoa, partxisa, domino, kartak eta beste hainbat joko izan dituzte eta erabilera handia izan du; espazio honetako jarduerak, andereñoaren presentzia eskatu dute gehienetan, joko bakoitzaren arauak ezagutu eta errespetatzen ikasten joan ahal izateko. Eraikuntza espazioan, egurrezko piezekin jarduera interesgarriak egin dituzte espazioa antolatzen eta egituratzen, besteak beste: etxeak, gazteluak, harresiak, zubiak, errepideak, aldapak eraiki, kotxeak aldapa behera bota eta igo eta eraikuntza horietan, hainbat pertsonaia, animalia, zuhaitz kokatuz. Jarduerak duten garrantzia azpimarratzeaz gain, esan behar dugu, elkarrekin lan egin dutela, eta plastikako gelan bezalaxe, hemen, batez ere mutilek, saio osoak pasa dituztela eraikuntzak egiten eta sortzen zitzaizkien arazoei soluzioa aurkitzen. Andereñoen zeregina haurren pentsatze-gogoeta unetan oso adierazgarria izan da.

Piszina-hallak erabilgarritasun handia dauka batez ere eguraldi txarra dagoenean, bere bueltan ibiltzen baitira haurrak triziklo, kotxe, pilota eta abarrekin. Gela desberdinetako hurrekin jarduera puntualak egiteko ere erabiltzen dute espazio hau.

Patioko jarduerak. Lehenengo ikasturteko hasieran, nahiko galduta sentitu dira haur batzuk, oro har, handia egiten baitzaie espazioa eta koska eta eskailera asko

daudenez, arriskua ekidite lanetan ibili dira andereñoak eta momentu askotan besoetan hartu eta babesten. Bigarren ikasturtean, berriz, asko askatu dira, patio buelta osoan arazorik gabe ibili dira eta nabarmentzekoa da jolas sinbolikoarekin lotutako jarduerak: kotxea paseatu, panpinak zaindu... Patioko eremu estalian dauden tresnak ere erabilera handia izan dute: rokodromoa, kolunpioa, txirrista... Biko triziklotan ere maiz ibili dira; lehenengo ikasturtean ez bezala, orduan, ez zuten nahi izaten inor atzeko eserlekuan jartzerik.

Psikomotrizitate saioetako jarduerak. Lehenengo ikasturtearen hasieratik oso gustura joan dira, haur bat izan ezik (luzeak egin zaizkio saioak eta nahiago izan ditu gelako jarduerak). Psikomotrizitate gelako hainbat jarduera: andereñoak pareta egin eta beraiek korrika joan, gora igo, eta handik saltoak, txiribueltak eman... Uztaiekin jokoak, txotxekin erritmo eta abestiak, arkitekturarekin eraikuntzak egin. Itxiturak egin eta bertan sartu eta egotea asko gustatzen zaie. Jarduera zuzenduen artean arrakasta izan dute: "autobusarena" -oihal handi baten gainean binaka hartuta tiraka eramaten ditu andereñoak erortzen diren arte eta "koltxonetarena" (lau haur jartzen dira gainean eta andereñoak gelari buelta ematen dio).

Gela hau, lehen aipatu dugun bezala, ez da egokia, leihoak beheraino dauzka eta arriskutsua izan daiteke. Ikasturte honetan ikasle kopurua 7koa izan denez, andereñoak arazo hori "kontrolatzea" lortu du neurri batean. Gela honetan sortzen diren egoera askok "kontentzio" handia eskatzen dute eta andereñoak paper esanguratsua jokatu du haurren arteko iskanbilen soluzioan, materialen erabileran, jokoen arauen errespetuan, jokabideen "gidan".

Andereñoak faltan botatzen duen material bat, "espalderak/horma-barrak" izan dira.

Bigarren ikasturtean, Lehen Hezkuntzako eraikinera joan dira astean bitan eta nahiz eta argitasun aldetik gela "itxia" den (pasilloari kendutako espaziotik ateratakoa), andereñoak dio "kontentzio" gehiagoko espazioa dela. Guk ez ditugu gela honetan izandako psikomotrizitate saioak behatu (ez zaigu tokatu behatzera joandako egunetan) baina, andereñoak esandakoaren arabera, ondo egokitu dira haurrak espazio berrira eta jardueretan denek hartu dute parte arazorik gabe. Galdetzen diot, ea aurreko ikasturtean "kontenitu" beharreko egoera asko gertatu diren eta erantzuten dit, baietz, baina hurrek trebetasun eta kontrol handiagoa daukatenez, materialen erabileran gutxiago parte hartu behar izan duela; iskanbila eta haserre momentuetan, konponbideak aurkitzen laguntza behar izan dutela eta hor nahiko presente egon dela.

10.1.6 Autonomia-ohituren heziketaren garapena

Bi ikasturteetako tauletan azaltzen ditugun datuei erreparatuz esan dezakegu, elikadura, higieena, deskantsua, norberaren autonomia, pertsonen arteko erlazioak, taldeko esperientziak errazteko ohiturak, ordenarekin zerikusia dutenak eta norberaren txukuntasunarekin lotutakoetan, aldaketa nabarmenak egin dituztela, besteak beste:

. Elikadura

Jangelan gelditzen diren haurrak, bigarren ikasturtearen amaierarako lortu dute lantzen dituzten ohitura guztiak egitea.

. Higieena

Esfinterrak egunez kontrolatzen, zakarrontzia erabiltzen, zikina sentitzen denean laguntza eskatzen, denek ikasi dute. “Eskuak ondo-ondo garbitzen eta lehortzen” eta “bainugelako espazioak txukun uzten ikasi”, ikasten ari dira eta oso gainean egonda egiten dute.

. Deskantsua

Honako ohitura hauek lortu dituzte: oinetakoak eta galtzerdiak kendu eta jarri; berokia jantzi eta erantzi; berokia, poltsa, motxilak, etab. zintzilikatzen ikasi; arropa desberdinak erantzten lagundu. Aldiz, ikasten ari dira: “janzteko arropen alde ona edo txarra bereiztu” eta “oinetakoak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin”.

. Norberaren autonomia

Ardurak hartu, elkarbizitzarako arauak errespetatu, tonu egokian hitz egin, autokontrolatzen ikasten joan, txanda itxopen ikasi ohituretan, gehienak “S” = saiatzen dira fasean daude, baina, badaude 3 haur, Xabier, Haizea eta Sonia ia denak egitea lortu dituztenak.

. Pertsonen arteko erlazioak errazten dituzten ohiturak

Aurrekoan bezalaxe, aipatutako 3 haurrek ia ohitura guztiak ikasi dituzte: agurtu, galderei erantzun, besteek zerbait behar dutenean atentzioa eman, besteen lana eta jolasa errespetatu, beste umeeekin jolasten eta lanean ikasi, eta, orokorra da, beste ohitura batzuetan “S” = saiatzen dira azaltzen, hala nola, besteen alderdi positiboak estimatu eta baloratu, gatazken aurrean zintzotasunez jokatzeko ikasi, besteekiko harremanetan “delikatua/samurra” izaten ikasi.

. Taldeko esperientziak errazten dituzten ohiturak

Bi haur izan ezik, beste denek lortu dituzte: elkarrekin gauzak egiten ikasi – dantza, antzerkia, muralak, ipuinak kontatu –.

. Ordenarekin zerikusia duten ohiturak

Aurrerapauso nabarmenak egin dituzte bigarren ikasturtearen amaieran eta ikusten dugunez, denek lortu dute: gauzak sailkatu eta ordenatzea, marrazkiak eta lanak beren apal edo kaxetan gordetzea. Lau haur daude beste item gehienak egiten dituztenak: Ylenia, Xabier, Sonia eta Imanol D.: lanak txukun egiten ikasi, instrumentuak egoki erabili, ipuinak zikindu eta hautsi gabe erabiltzen ikasi. Bi item daude oraindik inork lortu ez dituenak: soinurik egin gabe ibiltzen ikasi eta besteei pasatzen utzi.

. Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak

Ylenia eta Haizeak ia guztiak egitea lortu dute eta beste haurren kasuan, “saiatzen dira” fasean daude. Badaude, oro har, ikasi ez dituzten ohiturak: zapatak garbiak eramaten ikasi, arropak txukun ordenatzen ikasi, gaineko arropak orbanik gabe eramaten ikasi, orban errazak garbitzen ikasi. Etxetik aurten etorri den I. da denetik gehiena kostatzen ari zaiona autonomiarekin lotutako ohituretan aurrera egitea.

. Arauak

Bi ikasturteetan zehar egindako behaketa saioetan jaso ditugun arauak buruzko zerrenda alderatuz esan dezakegu, lehenengo ikasturtean zehar, arau dezente agertzen direla, andereñoa behin eta berriro aritu baita hauek gogorarazten; bigarren ikasturtean, aldiz, askoz ere zerrenda txikiagoa azaltzen dugu, nahiz eta oraindik ere maiz gogorarazi behar izan dituen, argi ikusi dugu aurreko ikasturtearekin konparatuz, aurrerapauso nabarmenak egin dituztela arauak betetzeko ahaleginean.

Bukatzeko esan, ohituren heziketan andereño, jangelako arduradun, eskolako pertsonal guztia ez ezik, etxekoan parte hartzea ezinbestekoa dela.

10.1.7 Elkarrekintzarekin lotutako egoeren garapena

Alde handia dago bi ikasturteak alderatzerakoan. Elkarrekintza egoera eta momentuak jasotzen joan gara eta adibide horiek argi adierazten dute, oso esanguratsuki aldatu dela elkarrekintzaren presentzia eta kalitatea; horretan lagundu duten faktore batzuk hauek dira: gelak txokoka-espazioka antolatuta egotea, talde txikitan lan egitea, talde ekintza saioetan borobilean denak egotea, haurren hizkuntzaren garapena, andereño bera izatea bi ikasturteetan zehar, gurasoekin hartu-eman estuak izatea...

10.2 Harri Berri Ikastetxea

10.2.1 Eraikin eta geletako funtzionamendua

Bi urteko haurren gelak eraikin hexagonalean daude, beraz, 2000-01 ikasturtean, gure lagina osatzen duen haur taldeak eraikin horretan eduki ditu jarduera guztiak, psikomotrizitatea eta jangela barne.

Eraikinean sartu eta solairuaren erdian pizina-halla deitzen dioten espazioa dago.

2000-01 ikasturteko patioa, eraikinaren bueltan eta zabalgunek bat egiten duen 600 m²-ko espazioa da. Ez dauka estalitako zonalderik.

2001-02 ikasturtean ondoko eraikin "handira" pasa dira, hor baitaude 3, 4 eta 5 urtekoen gelak.

Lehenengo ikasturteko gela txokoetan antolatuta egon da eta talde txikietako jardueretan, beraiek aukeratu dute zein txokoetara joan. Bigarren ikasturtean, 2 talde finko egin ditu andereñoak eta "errotazio sistema" erabiliz funtzionatu dute txokoz txoko.

Eraikin handira ohitzea kosta egin zaie pixka bat, beraien aurreko urteko gelara eta patiora itzuli nahi zuten lehenengo hilabetean; handia egiten zitzaien espazioa eta jolas orduan, haur handiagoekin "beldurtuta" edo babes faltan ikusten zuten bere burua.

10.2.2 Asistentzia

2000-01 ikasturtean, 14 haurretatik 12k asistentzia erregularra izan dute. Bi haur izan dira ikasturte osoan oso gutxi etorri direnak eta hori dela eta, hauen egokitzapen prozesua ia urte guztira luzatu da.

2000-02 ikasturtean, 12 haurrek osatzen duten taldearen asistentzia oso erregularra izan da.

10.2.3 Materialak espazioka

Materialak txokoka daude antolatuta eta "etxea" da 2 eta 3 urteko haurrek daukaten gelako txokoetako bat eta materialen artean: koltxoia, manta, panpina, kotxe-kapota, telefonoa, maindireak, oihalak...

Bi urtekoen etxea, egitura aldetik sinpleagoa da, solairu batekoa; 3 urtekoena, aldiz, 2 solairukoa, eskailera sendoekin eta etxe ondoan, txakurraren "txabola" daukate.

Bi urtekoen gelan “haurrak aldatzeko txokoa” dago eta materialen artean: mahai bat, toailatxoak, fardelak, aldatzeko arropak, apalategi bat.

Ipuinak, argazki-albumak, abestiak, puzzleak, Lego piezak, animaliak, kotxeak, ... izan zituzten “alfonbra eta jolas txokoan” 2 urterekin. Hiru urterekin, konplexutasun handiagoko materiala izan dute txoko honetan, bai puzzle nahiz eraikuntzak egiteko materialetan.

“Margotegi txokoan” 2000-01 ikasturtean, plastilina, margoak, gometxak, ... eta 2001-02 ikasturtean tenpera, puntzoia eta guraizeak izan dira andereñoak jarri dituen material berriak.

“Jolas motorikoaren txokoa”. Piszina handi bat kolorezko pilotekin eta ondoan txirrista izan dute 2 urteko umeek gelan. Erabilgarritasun handia izan du eta babes eta elkarrekin egiteko gune aproposa bihurtu da.

“Ipuin txokoa - Antzerkia” espazio esanguratsua izan da 3 urteko umeentzako eta material aldetik: eszenatoki handi bat, gortinak, ipuinak, jantziak, kareta, ispilua, horma-irudiak egiteko paper mota desberdinak, margoak, ...

Patioan: txirrista, trena, pasabidea...

10.2.4 Denboraren antolaketa

Ordutegi bera izan dute bi ikasturteetan zehar, hau da, goizetan 9:00 - 12:30 eta arratsaldetan 15:00 - 16:30. Saioen banaketan, espazio edo txokoetako 9:40 - 10:15 eta 11:40 - 12:10 goizeko saioak, lehenengo ikasturtean malguagoak izan dira eta 3 urterekin, saio horietan, “errotazio sistema” erabili dutenez, oro har, saioaren ordua mantendu egin da, nahiz eta batzuetan pixka bat laburtu edo luzatu egin den haurrek eramane duten erritmoaren edo jolas orduaren arabera.

10.2.5 Jarduerak espazioka eta txokoka

Talde ekintza-borobileko jardueren bilakaera esanguratsuki aldatu da bi ikasturteetan zehar. Lehenengo ikasturtean, zaila izan da 14 umeak elkarrekin eserita egotea bera, batak besteari zerbait entzun eta kasu egitea, baina, bigarren ikasturtean zehar, oso prozesu polita joan da garatzen, txandak errespetatzen, beraien deskribapenetan elementu eta zehaztasun gehiago erabiltzen, elkarriketetan, besteek esaten dutenaren harira elementuak gehitzen-osatzen...

Etxeko espazioko jarduerak –2000-01 ikasturtearen hasieran – objektuak, jostailuak hartu eta etxean sartzea izan da eta telefonoz etxekoei deitzea. Pixkanaka

joan dira agertzen elkarrekintza momentuak eta familiakoen paper edo rola. Bigarren ikasturtean, etxeak protagonismo handia hartu du eta ikasturte hasieran eskailleratan gora eta behera ibiltzea izan dute gustuko. Bigarren hiruhilabetetik aurrera “jolas sinbolikoak” paper garrantzitsua izan du eta rolen banaketa eta aukeratutako edo besteek esleitutako “paperetan” dezente mantendu dira.

Piszina-txirristaren txokoak 2 urteko umeentzat erakargarritasun handia izan du eta erraztu egin du beraien arteko komunikazioa hasiera-hasieratik, babes espazio bezala ere paper handia jokatu du; jardueren artean: pilotak hartu eta bota, koloreak landu, pilotatxoak kontatu, elkarrekin hitz egin...

Margotegia txokoaren jardueren eboluzioa interesgarria izan da. Hasierako marrazki, gometxak itsatsi, plastilina erabiltzetik, 2001-02 ikasturtean, tenperaz egindako lanen prozesua esanguratsuki aldatu da; hasieran, karpeta handiak dekoratu dituzte eta gerora tenpera erabiliz, beste margolan batzuk egin dituzte eta horma-irudiak egiteko prozesuan ere erabili dute teknika hau; collage produkzio politak egin dituzte. Kontrol, sormen, nahiz indarra eskatzen duten lanetan –plastilinarekin manipulazioan, guraizeen erabileran– aurrerapauso handia egin dute.

Mahai eta alfonbra txokoko jarduerak. Puzzleak egin, piezak ahokatu, animaliekin jolasean ibili, argazki-albumak eta ipuinak ikusi izan dira lehenengo ikasturteko jardueretako batzuk. Bigarren ikasturtean, 3 urteko haurrak, arkitektura eta Lego piezekin egindako eraikuntzetan eboluzio polita erakutsi dute. Plastilina lantzeko, labana jarri du aurten txoko honetan andereñoak eta ondo etorri den materiala izan da tamaina desberdinak mozteko jardueretan.

Ipuin txokoa - Antzerkia. 2001-02 ikasturtean, 3 urteko haurren gelan, ipuina da gelako metodologiaren ardatz nagusia eta txoko honek garrantzi berezia du. Bi zonaldeetan banatuta egon da: mahai-lana eta eszenatokia. Lehenengoan, antzerkia egiteko prestatu behar dituzten jarduerak: jantziak prestatu, horma-irudiak egin; bigarreanean, emanaldia berarekin lotutakoak: ipuina ikasi, kontatu, abestiak ikasi entseguak egin, antzeztu eta kritika egin. Kritika saioetan, nabarmen aberastu dira eta beraien balorazioen zergatia azaltzen dute.

Piszina-hallak erabilgarritasun handia dauka lehenengo ikasturtean. Psikomotrizitate gelatik jaitsi eta bertan jaten dute ogia, etxera joan aurretik hor biltzen dira abestu eta azken agurra egiteko; eguraldi txarretan edo hotz handia egiten duenean, bere bueltan ibiltzen dira haurrak triziklo, kotxe, pilota eta abarrekin. Bi

urteko beste gelako hurrekin jarduera puntualak egiteko ere erabiltzen dute espazio hau.

Psikomotrizitate gela. 2000-01 ikasturtean egunero izan dute saioa gela honetan eta honi garrantzi handia eman dio andereñoak. Jarduera libre eta zuzenduak egiten dituzte eta lehenengo ikasturteko jardueren artean salto, txiribuelta, horma-barretara igo-jaitzi, etxea-itxituran sartu, trizikloak gelatik atera eta kanpoko solairuari bueltak ematen ibili dira maiz. Zuzenduen artean: abestiak, dantzak, uztaiekin jokoak eta festa egunetako entseguak (Danborrada, Inauteriak...)

2001-02 ikasturtean zehar, aurreko urteko jarduerak kontrol eta trebetasun handiagoz egiteaz gain, maiztasun handiarekin ikusi ditugu jolas sinbolikoarekin lotutako jarduerak: medikua-gaixoa, ama-umetxoa, ... eta denbora luze samarrean mantendu dira beren roletan.

Bi ikasturteetan zehar maiz izan dituzten gatazketan andereñoaren papera nabarmendu behar dugu soluzioak bilatze lanetan.

10.2.6 Autonomia-ohituren heziketaren garapena

Elikadura, higiena, deskantsua, norberaren autonomia, pertsonen arteko erlazioak, taldeko esperientziak errazteko ohiturak, ordenarekin zerikusia duten ohitura eta norberaren txukuntasunarekin lotutako ohiturei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu aldaketa handiak egin dituztela bi ikasturteak konparatuz, besteak beste:

. Elikadura

Jangelan gelditzen diren haur gehienak, bigarren ikasturtearen amaierarako lantzen dituzten ohitura gehienak egitea lortu dute.

. Deskantsua

Denek ikasi dute oinetakoak eta galtzerdiak kendu eta jartzen; berokia jantzi eta erantzten; berokia, poltsa, motxilak, etab. zintzilikatzen; arropa desberdinak erantzten laguntzen. "Janzteko arropen alde ona edo txarra bereiztu" eta "oinetakoak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin", ikasten ari dira.

. Higiena

Esfinterrak egunez kontrolatu, zakarrontzia erabili, zikina sentitzen denean laguntza eskatu, denek ikasi dute eta, "eskuak ondo garbitzen eta ondo lehortzen", ikasten ari dira, baita ere "bainugelako espazioak txukun uzten ikasi", oso gainean

egonda egiten dute, baina, kontuan hartu behar dugu, adin horretan beraien gisa hori egitea zaila dela.

. Norberaren autonomia

“Hanka baten gainean salto egitea” izan ezik, beste denak egiten dituzte.

. Pertsonen arteko erlazioak errazten dituzten ohiturak

Haur guztiek ikasi dute: agurtu eta galdetzen digutenean galderei erantzuten; “beste umeekin jolasten eta lanean ikasi”, ume bat izan ezik beste denek egiten dute. Besteen lana eta jolasa errespetatu, lanean edo deskantsatzen daudenean isilik egon, gatazken aurrean zintzotasunez jokatu “gutxitan egiten dute”; besteen alderdi positiboak estimatu eta baloratu eta harremanetan delikatuak izaten ikasi, zailak direla dio andereñoak eta ez dute oraindik egiten.

. Taldeko esperientziak errazten dituzten ohiturak

Hiru haur izan ezik, beste denek lortu dituzte: elkarrekin gauzak egiten ikasi (dantza, antzerkia, muralak, ipuinak kontatu), bisitei ongi-etorria ematen ikasi, laguntzarekin denek egiten dute baina, hau ere, zaila dela dio andereñoak.

. Ordenarekin zerikusia duten ohiturak

Aurrerapauso nabarmenak egin dituztela esan dezakegu, bigarren ikasturtearen amaieran ikusten baitugu, ia denek lortu dutela: gauzak sailkatu eta ordenatzea, marrazkiak eta lanak beren apal edo kaxetan gordetzea eta zakarrontzia erabiltzea. Gainontzeko itemetan: gauzen lekua errespetatu, gauzen lekua aurkitzen ikasi, gauzak erabili ondoren bere lekuan uzten ikasi, lanak txukun egin, instrumentuak egoki erabili, liburu/ipuinak zikindu gabe eta hautsi gabe erabili, kolperik eman gabe ireki eta ixten ikasi, soinurik gabe pasatzen ikasi, ikasten edo saiatze prozesuan daude. Azkenekoa, besteei pasatzen utzi, ez dute egiten.

. Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak

Datu hauek gurasoengandik jasotakoak dira eta beraien esanetan, Iratik, item guztiak egiten ditu eta beste 5 umeek 8-10 egiten dituzte. Badaude item batzuk zailak direnak eta, oro har, egiten ez dituztenak: zapatak garbiak eramaten ikasi, arropak txukun ordenatzen ikasi, gaineko arropak orbanik gabe eramaten ikasi, orban errazak garbitzen ikasi. Ander N. da prozesuan mantsoago doan haurra.

. Arauak

Bi ikasturteetan egindako behaketa saioetan jaso ditugun arauak buruzko zerrenda alderatuz, esan dezakegu, espazioen arabera batzuk errepikatu egiten direla, adibidez, psikomotrizitate gelakoak: ez bultza, ez jo... Bigarren ikasturtean, "etxeke jarduerak" iskanbila batzuk sortzen zituzten eta garrasi ez egitearena izan da nahiko maiz gogorarazi behar izan diena andereñoak. Orokorrean, aurrerapen handiak egin dituzte autonomiaren eremuan, horren adibide batzuk: komuneko buelta bakarrik egitea; eskailerak igo eta jaitea; zapatilak kentzea, psikomotrizitate gelako ate ondoan esan gabe esertzea; ura, bakoitzak bere edalontzitik edatea.

10.2.7 Elkarrekintzarekin lotutako egoeren garapena

Alde handia dago bi ikasturteak alderatzerakoan. Elkarrekintza egoera eta momentuak jasotzen joan gara eta adibide horiek argi adierazten dute, oso esanguratsuki aldatu dela elkarrekintzaren presentzia eta kalitatea; horretan lagundu duten faktore batzuk honako hauek dira: gelak txokoka-espazioka antolatuta egotea, talde txikitik lan egitea, talde ekintza saioetan borobilean denak batera egotea, haurren hizkuntzaren garapena, bi ikasturteetan andereño bera izatea, gurasoekin hartu-eman estuak izatea...

10.3 Bi Ikastetxeen arteko Konparazioa

10.3.1 Eraikina, gelak eta funtzionamendua

2000-01 ikasturtea

Haur Hezkuntzako eraikin hexagonalak bi ikastetxeetan: egitura, materialen kalitatea, gela disposizioa, bainugela kopurua eta egoeran, diferentziarik ez dago.

Arantzazuko Ama Ikastolan beheko solairuko gela batean dago kokatua jangela. Erosoa da haur txikientzako behean egotea. Harri Berri Ikastetxean, 2. solairuan dago jangela.

Psikomotrizitate gela, bietan, 2. solairuan. Harri Berri Ikastetxekoa "ziurragoa" dela esan dezakegu leihoen altuera mailarengatik.

Bi ikastetxeetako pizina-halla espazioa berdina da neurri eta erabilgarritasun aldetik.

Patioa. Arantzazuko Amak, zonalde estalia dauka nahiz eta berri beharra egon; Harri Berri ez dauka estalitako zonalderik.

2001-02 ikasturtea

Arantzazuko Ama Ikastolako haur taldeak eraikin eta espazio berak izan ditu, psikomotrizitate gela izan ezik.

Harri Berri Ikastetxeko haurrak eraikin "handira" pasa dira eta han izan dituzte gela eta espazio guztiak, jangela izan ezik (joan den urteko eraikinean daukate).

10.3.2 Ikasle kopuruak

. Arantzazuko Ama Ikastola

- 2000-01 ikasturtean: 7 ikasle
- 2001-01 ikasturtean: 9 ikasle

. Harri Berri Ikastetxea

- 2000-01 ikasturtean: 14 ikasle
- 2001-01 ikasturtean: 12 ikasle

10.3.3 Asistentzia

2000-01ean Harri Berriko 2 haurren asistentzia izan ezik, gainontzeko haurren asistentzia erregularra izan da. 2001-02 ikasturtean, bietako haurren asistentzia erregularra izan da; beraz, ez da diferentziarik egon.

10.3.4 Txokoen - espazioen funtzionamendua

2000-01 ikasturtean bi ikastetxeetako antolaketa "txokoka - espazioka" izan da eta materialak espazio bakoitzean antolatuta egon dira.

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Etxea
- Margotegia
- Alfonbra - jolasak
- Haurrak aldatzeko espazioa
- Arbela

. Harri Berri Ikastetxea

- Etxea
- Alfonbra
- Jolas motorikoaren txokoa
- Margotegia
- Jolas txokoa
- Haurrak aldatzeko espazioa

Txokoen arteko desberdintasuna, Harri Berriko "jolas motorikoaren txokoa" izan da, pizina eta txirrista baitauzkate gela barruan.

2001-02 ikasturtean horrelakoa izan da bi ikastetxeen antolaketa:

. Arantzazuko Ama Ikastola

Bi gela: Plastika gela eta Eraiketa gela "zirkulazio libreko" saiotarako. Ikerketa gelako haurren erreferentzia gela Plastika gela izan da eta bertan egin dituzte harrera eta talde handiko jarduerak.

. Harri Berri Ikastetxea

Gela berean txoko guztiak: etxea, margotegia, jolastokia, antzerkia.

Harri Berri Ikastetxeak etxea mantendu egin du eta antzerki txokoa gehitu.

Arantzazuko Amak plastika gela espazio desberdinetan antolatu du: marrazkigintza, modelaketa, tenpera/akuarela eta kolaketa-hondakin materialak eta liburutegia/ipuindegia, txotxongiloaren espazioa; eraiketa gela, berriz, mahai jolasak eta eraikuntzak egiteko espazioetan.

10.3.5 Txoko eta antolamenduari buruzko elementuak

. Arantzazuko Ama

- Plastika gelan edo Eraiketa gelan ibiltzen dira 3 eta 4 urteko haurrak “zirkulazio libreko” saioetan.
- Gela bakoitzeko espazioen antolaketak oso argi delimitatzen du diziplinako atal desberdinetako jarduera.
- Hurrek aukeratzen dute zein gelatan aritu nahi duten eta horren arabera jarduera mota.

. Harri Berri

- Bi solairuko “etxeko” txokoa espazio garrantzitsua izan da “jolas sinbolikorako” eta alderdi motorikoa lantzeko.
- “Ipuin - antzerki” txokoak espazio esanguratsua hartu du.
- Hurrek andereñoak ezarritako bi talde finkotan funtzionatu dute “errotazio sistema” erabiliz.

10.3.6 Materialak / baliabideak

2000-01 ikasturtean, Harri Berriko gela barruko “piztina + txirrista” nabarmenduko genituzke baliabideen artean.

2001-02 ikasturtean azpimarratuko genituzkeen baliabideen artean:

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Eraiketa gelako material anitza: egurrezko piezak, mahai jolasak.
- Plastika gelako material anitza: akuarela, tenpera, paper mota anitzak, hondakin-materiala.

. Harri Berri Ikastetxea

- “Antzerki” txokoko eszenatokia bera (ikus argazkietan) eta antzezpenetako, ipuinen arabera erabiltzen duten materiala: disfrazak, benetako fruta eta barazkiak, eszenatokia dekoratzeko horma-irudiak.

10.3.7 Espazio-txoko berdinetako jarduerak

Talde ekintza/borobileko jarduerak, oro har, berdintsuak izan dira eta hauen barruan aipatuko genuke Arantzazuko Ama Ikastolan gosariko momentuari Arantxa andereñoak eman dion garrantzia 2 ikasturteetan zehar eta elkarrizketen eboluzioa.

Azpimarratzekoa iruditzen zaigu ere, Harri Berri ikastetxeko Margari andereñoak talde ekintza saioetan erabiltzen dituen hainbat estrategia/baliabide. Estrategia horien zerrenda, taula batean azaltzen dugu (280 orr.).

Margotegian Arantzazuko Ama Ikastolan lehenengo urtean hasi ziren “tenpera” eta guraizeen erabilerarekin. 2001-02 ikasturtean jarduera asko berdina izan dira bi ikastetxeetan eta nabarmentzekoen artean:

. Arantzazu Ama Ikastolan

- Hondakin materialekin egindako collage lanak

. Harri Berri Ikastolan

- Plastilina lantzeko labanaren erabilera
- Eszenatokia dekoratzeko egin dituzten horma-irudiak

Jolas txokoa - Eraiketa gela. Azpimarratzekoa da Arantzazuko Ama Ikastolako haurrek eraiketa gelako espazioan egiten dituzten eraikuntzak eta mahai-jolasen espazioko hainbat jardura: karta jokoak, dominoa, damak, partxisa...

Ipuin-txokoa, liburutegia. Bi ikastetxeetan egiten dituzten jardueren artean azpimarratuko genituzke:

. Arantzazu Ama Ikastolan

- Ipuinak 3 eta 4 urteko haurren artean kontatu eta komentatzea

. Harri Berri Ikastolan

- Ipuinak metodologiaren ardatz direnez, margotegiko eta antzerkiko jardura askorekin lotuta daude: ipuina ikasi, paperak banatu, entseguak egin, eszenatokia eta jantziak prestatu eta antzeztu.

Pisizina-halla. Bi ikastetxeetan erabilgarritasun handia dauka eta jardura gehienak berdintsuak dira eguraldi txarra egiten duenean eta patiora ateratzen ez direnetan: triziklo, kotxe, pilotekin ibili, korrika ibili, itxituran sartu-irtenean ibili... Harri Berri Ikastetxean, egunero, psikomotrizitate gelatik jaitsi eta bertan edaten dute ura eta ogia jan; bi urtekoen gelako hainbat jardura elkarrekin egiteko ere erabiltzen dute eta, etxera joan aurretik, abestu eta bakoitza agurtzeko erabiltzen dute.

Patia. Jardura aldetik berdintsuak izan dira bi ikastetxeetan eta haurren eboluzioa ere. Lehenengo ikasturtean ziurtasun gutxiarekin hasi ziren eta beraien andereñoa behar zuten etengabe; pixkanaka patio osoari buelta ematen hasi ziren eta bigarren ikasturtean elkarrekin egin dituzten joko eta komunikazioa asko gehitu da.

Arantzazuko Ama Ikastolako patioan dauden koska eta eskailerek asko oztopatu dute umeak lasai ibiltzea.

Bi Ikastetxeetan falta dira:

- espazio berdea
- putzuak ekiditeko konponketak egitea
- espazio estali egokia
- eskailerak eta koskak kentzea

Psikomotrizitate gela. Arantzazuko Ama Ikastolan astean bi saio egiten dituzte eta Harri Berri Ikastetxean, berriz, egunero. Bietan jarduera libre eta zuzenduak egiten dituzte eta dezente berdinak izan dira. Zuzendutakoen artean nabarmenduko genituzke:

. Arantzazuko Ama Ikastolan

- “Autobusarena” eta “koltxonetarena”
- Borobileko elkarrizketak: gauzak adierazteko, egin dutena erreparatzeko, gatazkak konpontzeko

. Harri Berri Ikastetxean

- Abesti, dantza, jolas eta jokoak
- Festetako entseguak

10.3.8 Autonomia-ohituren heziketaren garapena

Bi ikastetxeetako tauletan jasotako haur bakoitzaren ohituren garapena aztertu ondoren ikusten dugu, oro har, ez dagoela diferentzia esanguratsurik ikastetxeen artean eta daudenetan, behar bada, hainbat faktore indibidualekin lotu genitzazke: heldutasuna, trebetasuna, asistentzia, jarrera, etxetik edo haurtzaindegitik etorri den eskolara, etxean lantzen dituen...

Bestalde, andereñoekin hitz eginez, Harri Berri ikastetxeko taldea “normalizatzea” gehiago kostatu dela ikusten dugu. Baldintzatu duten faktoreen artean honako hauek egon daitezke: haur batzuen asistentzia falta, –batez ere lehenengo ikasturtean–, ikasle kopurua esanguratsuki handiagoa izatea... Arantzazuko Ama Ikastolan, gure ustez, lagundu duen faktoreetako bat, 3 urteko haurrak 4 urtekoekin nahastuta ibiltzea da, “handiek” bereganatuagoak bai dauzkate ohitura batzuk –jokoen arauak, txanden errespetua... – eta “txikiek”, imitazioz, ikasi egiten dute.

10.3.9 Elkarrekintza-egoerak

Bi ikastetxeetan jasotako elkarrekintza egoerak aztertzen baditugu, bietako eboluzioa oso aberatsa izan da. Espazio edo txoko batzuk desberdinak direnez ezin ditugu denak bata bestearekin konparatu, baina bakoitzean, bai borobila-talde ekintzetako uneetan, margotegi eta plastika gelan, patioko eta psikomotrizitate gelako saioetan, Harri Berriko etxean eta antzerki txokoan, nahiz Arantzazuko Ama Ikastolako eraikuntza eta mahai-jolasetako saioetan, aurrerapauso handiak egin dituzte.

Bigarren ikasturtearen bukaeran, Arantxa eta Margari andereñoek egindako elkarriketetan aipatzen dizkiguten elkarrekintzaren hainbat adibide azaltzen ditugu ondoren:

. Arantzazuko Ama Ikastola

- elkar entzun
- elkarrekin parte hartu
- gai baten haria hartu eta horri buruz hitz egin

. Harri Berri Ikastetxea

- elkarrekin jolastu
- hitz egin
- lagunaren "bila" etortzen hasi dira
- lagunaren figura pixkanaka pixkanaka "deskubritzen" ari dira

10.3.10 Andereñoek azpimarratutako premiak

- Egokitzapen-aldian beste pertsona baten laguntza
- Aholkulariaren laguntza
- Material gehiago erosteko edo berritzeko dirua
- Patioa estaltzea edo estalitakoa konpondu eta ateraino luzatzea, belar edo eremu berdea duen espazioa jarritz

11

**DESKRIBAPENA ETA ALDERAKETA:
2007-08 IKASTURTEA**

11 DESKRIBAPENA ETA ALDERAKETA: 2007-08 IKASTURTEA

Aurreko lana aurtengoarekin kontrastatu asmoz, 2007-08 ikasturtean berriro jarri ginen kontaktuan bi ikastetxeetako zuzendari eta andereñoekin eta prest agertu ziren behar genituen datuak eskaintzeko, behaketa saioak errazteko eta elkarrizketetan parte hartzeko.

Ikastetxe bakoitzaren nortasun ezaugarriak, zerbitzuak eta antolaketaren azterketarekin hasi nahi genuen alderaketa, eta horretarako, bi ikastetxeek daukaten web gunera jo eta ondoren azaltzen dugun informazioa jaso genuen.


11.1 Ikastetxeen Kokapena, Nortasun Ezaugarriak, Zerbitzuak eta Antolaketa

11.1.1 Arantzazuko Ama Ikastola



Kokapena: Martutene





CEP ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA LHI

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

NTRA. SRA. DEL PILAR

NÚMERO 022

COD. POSTAL 20014



Arantzazuko Ama Ikastola, euskal irakaskuntzan esperientzia duen ikastetxe publikoa da. Guraso eta irakasleok elkarlanean, eta kalitatearen bermea aurrean dugula, **derrigorrezko hezkuntza osoa**, 2tik 16 urte bitartekoa eskaintzen du Astigarragan, Loiolan eta Martutenen.

HEZKUNTZA ESTILO PROPIOA

Konstruktibismoaren bidetik ...
Ikasleekiko atenzio indibidualizatua.
Gurasoen partaidetza aktiboa.
Guraso eskola.
Irakaslegoa etengabeko prestakuntzan.
Aniztasunaren trataera.
Euskal Kulturaren integratua.
Ingurunearekin konprometituak.
Elkar errespetoan hezituz.

HAUR HEZKUNTZA 2-5 urte

- Eskolaratze prozesu zaindua.
- Haur erdaldunen **euskalduntzea**.
- Gela irekien bidez funtzionatuz: aniztasunaren trataera, autonomia, interakzioa.
- **Ingelesa** 4 urtetik aurrera.
- **Musika** 4 urtetik aurrera.
- **Psikomotrizitatea**.



ZERBITZU ESKOLARRAK

- Zerbitzu psiko-pedagogikoa.
- "Euskaraz Bizi" plangintza.
- **Ingelesa** 4 urtetik aurrera.
- **Frantsesa** 12 urtetik aurrera.
- Jangela.
- **Dohakako garraioa**.
- Irteerak: gaiarekin lotutakoak eta harremanak sendotzekoak.
- Informatika.
- Guraso eskola.



ESKOLATIK KANPOKOAK

- Kirolak: soin erritmikoa, igeriketa, esku pilota, saski baloia.....
- Haurrak Beti Jolasean.
- Kitarra.
- **Bertsolaritza.**
- Mendiko irteerak.
- **Danborrada.**
- Antzerkia.



KUADRO PEDAGOGIKOA

HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

[Tutoreak](#)

[Zuzendaritza](#)

[Especialistak](#)

[Zerbitzuak](#)

TUTOREAK

2 urte	Hiru gela
3 urte	Hiru gela
4 urte	Hiru gela
5 urte	Hiru gela

ZUZENDARITZA TALDEA

- Zuzendaria
- Ikasketa Burua
- Idazkaria
- Administrazio Kudeaketaren Arduradunak (A.K.A.)

BESTEAK

- Jangelako Arduraduna

ESPEZIALISTAK

- Ingelesa, Soinketa, Musika, Laguntza

ZERBITZUAK

- Astigarrago jangelaren arduradunak
- Martuteneko jangelako arduradunak
- Autobusa

11.1.2 Harri Berri - Oleta Ikastetxea

Kokapena: Altza



2004-05 ikasturtean Harri-Berri eta Oleta ikastetxeen elkarketaren ondorioz sortzen da gaur egun den Harri Berri - Oleta Ikastetxea eta bertan, Haur Hezkuntzako (2-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako (6-12 urte) etapak eskaintzen dira.

Amara Berri sistemaren inguruan mantendutako koordinazio lanaren emaitza izan da elkarketa hori, 1991-1992 ikasturtean hasitako lan prozesu baten ondorioa.

Donostiako Altza auzoan dago kokaturik ikastetxea eta hiru eraikinetan dago banatuta: bi eraikin Haur Hezkuntzarako eta eraikin bat Lehen Hezkuntzarako. Hiru eraikinak oso gertu daude bata bestearengandik.

Oro har, auzoko ikasleak dira ikastetxera etortzen diren haurrak.

Amara Berri Sistemaren hainbat ezaugarri

SISTEMA GLOBALIZATU batek zera esan nahi du, sistema horretan etengabea dela tratamendu isolatuak, partzelatuak edota alde bakarrekoak gainditzeko irrika. Haur bakoitzak garatzen dituen bizi-prozesuak bultzatu nahi dira, beti-beti integralak, zatiezinak eta transferiezinak baitira.

Bizi-prozesua

Bizitza da gure Sistema eraikitzeko dugun abiapuntua eta oinarrizko lehengai. Gure geletan ari diren hurren bizitza, hain justu ere.

Ikasleen interesetatik abiatzen gara, beti ere duten adinaren arabera jokatzuz eta, horregatik, jolasa eta helduen munduaren imitazioa dira gelen egituraren oinarria. Hauxe da, era berean, ikasle bakoitzaren berezko erritmoa errespetatzeko dugun arrazoi. Gainera, elkarren arteko alde eta ezberdintasunak nolakotasunak dira guretzat, ez bazterketarako arrazoiak.

Eta arrazoi berberetatik ez dugu arloka edo gaikako programaziorik egiten, baizik eta bizitzako jarduera nagusien arabera, horrelakoetan gai guztiak elkarri loturik ageri baitira, ikasleentzat aldi berean erakargarri, hurbileko eta jolasgarria den jarduera-multzo baten inguruan.

Sistema irekia

SISTEMA IREKIA esaten dugu, eta ez soilik metodoa, hain zuzen gure ustez "metodo" eta "sistema" hitzen artean dagoen aldea azpimarratzeko. Izan ere, lehenak kontzeptu-errealitate amaitu bat deskribatzera jotzen du, errealitate itxi bat alegia: "metodoa" jarraitu behar da "metodoak" berak dagoeneko aurreikusi dituen emaitzak lortzeko. "Sistema" hitzak, aitzitik, ideia irekiagoa eskaintzen digu, ez bestea bezain definitu eta itxia aurrez, eta askeagoa eta aberasgarriagoa ere bai. Bizitza bera ere, azken batean, horrelakoa da, eta gure lanaren oinarrizko materiala ere horixe dugu: gure hurren bizitza.

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

Ikastetxe Publiko bat izanik, Euskal Eskola Publikoaren Legeak definitzen dituen ezaugarriak onartzen ditu.

Gure ikasleriaren familien eta auzoaren baldintza gaztelaniaduna kontuan harturik, eskolak euskararen ikasketa eta erabilera bultzatu nahi ditu, baita gure herriaren ohitura eta kultura hedatu ere.

Halaber, aniztasunaren trataera konpentsatzailea eta integratzailea defendatzen du, ezberdintasunaren arrazoia edozein delarik: fisikoa, psikikoa, sozio kulturala (ekonomikoa, linguistikoa, arraza, sexua, pentsamendua, ...). Eskola pluralista defendatzen dugu, baldintza politiko edo erlijiozkoetatik libre.

HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK

14 Andereñok osatzen dute Haur Hezkuntzako irakasle taldea.

ZERBITZUAK

Jangela

Eskolako jantokia . Jantokiko zerbitzuak egunero 197 mahaikideri ematen die jaten, bi jangelatan banatuta: Harri Berri (Haur Hezkuntza) eta Oleta (Lehen Hezkuntza).

Eguneroko funtzionamenduaren jarraipena egiteko bi arduradun daude: Meli (Harri Berri) eta Maribel (Oleta). Bazkalkideen zainketa egiteko, egunero 6 zaintzaile egoten dira Haur Hezkuntzako jangelan eta 3 Lehen Hezkuntzakoan. Gainera, sukaldariak 2 dira.

Bazkaria ekartzen duen enpresa: Auzo Lagun da. Zaintzaileen kontratazioaz ere enpresa bera arduratzen da. Menuaren aurreikuspena hiruhilero bidaltzen zaie familia guztiei, haiei gainerako otorduen prestaketan laguntzeko.

Menu ezberdinak behar dituzten ikasleek, medikuaren ziurtagiria ekarri behar dute.

Ikasturte hasieran banatzen den zirkularrean, prezioak, funtzionamendua, ordainketak nola egin etab. adierazten ditugu.

Ondoren azaltzen dugu ikasturte honetako menu baten eredua:

Osasun Zerbitzua

Udalak Eskola Osasuneko zerbitzu bat du, ikasturtean zehar aldizka ikastetxera joaten dena. Pediatria da zerbitzu honen arduraduna.

Ikastetxea Egunez Egun

Hemen, ikastetxean egunez egun gertatzen ari den guztia aurkitzen da. Pasatako eta berriki gertatutako berriak, festak, kirol eta kulturazko gertaerak, artikuluak eta intereseko web guneak. Ondoren adibide bat:

Kontzertu Didaktikoa

Datozen astelehen eta asteartean, hilak 21 eta 22, 2. eta 3. zikloko ikasleak Printzipal antzokira joango dira kontzertu didaktiko batean parte hartzera. Itzulia 13:00ean izango da.

Guraso Elkartearen Junta

Lehendakaria, Lehendakariordea, Idazkaria, Diruzainak, Bokalak, kudeatzen dute Ikastetxeko Guraso Elkarte.

Argazki-galeria



Atal honetan, festen inguruko argazki-galeria azaltzen da: Santo Tomas Eguna, Danborrada, Inauteriak...

Eskolaz kanpoko jarduerak

HAUR HEZKUNTZA: HARRI- BERRI				
Baleta	Asteazkena Ostirala	16:30 - 17:30	Harri-Berri	4 urtetik gorakoak
	Astelehena Asteazkena	14:00 -15:00		
Judoa	Asteartea Osteguna	16:30 - 17:30	Harri Berri	4 urtetik gorakoak

11.1.3 Aldaketak**. Arantzazuko Ama Ikastola (A)**

Orokorrean, ez da izan aldaketa nabarmenik organigraman, ikastolari nortasuna ematen dioten ezaugarrietan eta eskaintzen dituzten zerbitzuetan. Antzuolako eskolarekin jarraitzen dute koordinatuta, “konstruktibismoaren” printzipioetan oinarrituta.

. Harri Berri - Oleta Ikastatxea (B)

Harri - Berri eta Oleta ikastetxeen bategitea 2004-2005 ikasturtean.

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua bi ikastetxeetako premietara egokituz garatzen ari dira talde desberdinetako koordinazio lanaren bidez.

Zerbitzuen atalean, zehaztasun handiagoz azaltzen da antolamendua.

Eskolaz kanpoko jardueren eskaintza murriztu egin da Haur Hezkuntzan. Orain, judoa eta baleta ematen dira (lehen, bi horiez gain, musika eta euskal dantzak zeuzkaten).

11.2 Ingurune-Auzoaren Zerbitzu eta Ezaugarriak

	A	B
Bilakaera . Biztanle kopurua	2700 biztanle azken erroldaren arabera.	19810 biztanle azken erroldaren arabera.
Auzo mota	Langile-auzoa	Langile-auzoa
Zerbitzu eta instalazioak:		
- Garraio zerbitzuak	Autobusak: 26 Amara - Martutene A-1 - Hernani - Donostia 41 - Martutene - Egia - Gros Trena - RENFE-ren Geltokia	Autobusak: 13 Altza-Donostia 24 Alta-Gros-Antiguo 38 Trintxerpe-Altza-Molinao H6 Errenteria-Hospitaleak
-Anbulategia	Ez. Loiolan dago erreferentziazkoa	Bai
- Botika/k	Bai	Bai
- Bankuak	Bai	Bai
-Komertzio txikiak:		
. janari dendak	Bai	Bai
. jantzi dendak	Mertzeria	Bai
- Azoka	Ez	Ez
- Komertzio handiak	Ez	Garbera, kilometro batera
- Gazteentzako espazioak:		
. lokalak	Haur Txokoa	Tomasena Kultur Etxea (ikastetxetik gertu)
. beste espazio batzuk	Gazte Lekua	Casares Kultur Etxea Larratxo Hiritar Zentroa
- Helduentzako espazioak:		Bai
. lokalak		Bai
. beste espazio batzuk	Ireki berria den ETXARRIENE Giza eta Kultur gunea: Areto balioanitza, Haur Txokoa, ludoteka, ordenadore gela eta tailerretako gelak. 2008ko urtarrilean ireki da	
- Polikiroldegia	Ez	Bai
- Frontoia	Ez	Bai
- Liburutegia		Bai
(Mediateka)	Bai, Ikastolak eta auzoak partekatua	Bai (ikastetxe ondoan)

	A	B
- Musika-eskola - Eliza - Jatetxe eta tabernak - Plaza eta parkeak - Instalazio berriak	Ez Bai Bai Bai Bai . Lehendik zegoen parke txiki bat berritu dute, Haur Hezkuntzako eraikinarekin muga eginez . Beste espazio-parke txiki bat (ekainean bukatu berria) ibaiaren ondoan . Eraikin handiaren parean, parke bat duela bi urte eraberritua. . Ikastola handiko jolaslekua estali eta ekipatu egin zen 2006an eta auzotarren erabilerarako zabaltzen da eskola orduz kanpo, asteburu eta opor garaietan.	Bai Bai Bai 200 metrotara "Harria Parkea" Aparkalekua ikastetxearen ondoan Biribilgune bat
Inguruko Hezkuntza Erakundeak: . Publikoak . Kontzertatuak . Pribatuak - Haurtzaindegiak - Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza - D.B.H. - Batxilergoa	Amara Berriko 2 urtekoen gelak Loiolan Ez La Salle-Loiola . Astigarragan udal haurtzaindegia . Loiolan (pribatua) La Salle-Loiola La Salle-Loiola La Salle-Loiola	Harri Berri - Oleta / Altza Eskola Auzoan ez, baina auzotik haur asko eramaten dituzte Lehen Hezkuntza edo D.B.H. egitera Donostiako ikastetxe kontzertatu eta pribatuetara Ez Roteta . Harri Berri - Oleta . Altza Ikastetxea . Harri Berri - Oleta . Altza Ikastetxea . Altza Ikastetxea . Altza Institutua

11.2.1 Martutene auzoko azken urteotako aldaketak

Demografia aldetik, Martuteneko auzoak, 2001eko erroldaren arabera, 2100 biztanle zituen eta 2007ko azken erroldaren arabera, berriz, 2700 biztanle agertzen dira, beraz, 600 biztanle gehiago daude momentu honetan.

Autobus linea berri bat dago, 41a, Martuteneko auzoa Egia eta Gros auzoekin lotzen duena.

Arantzazuko Ama Ikastolaren ondoan "Haur Txokoa" eta "Gazte Txokoa" ireki berria dute eta Lehen Hezkuntzako eta D.B.H.-ko eraikinean, "Mediateka" bat.

Auzoan, 2008ko urtarrilean ireki berria da ETXARRIENE Giza eta Kultur gunea: Areto balioanitz, Haur Txokoa, ludoteka, ordenadore gela eta tailerrak.

Haur Hezkuntzako ondoko parkea eta kaleak berritu egin dituzte eta ikastolako sarreraren bestaldean dagoen ibaiaren ondoan, parketxo bat egin dute. Ikastolatik bertara doan kalea eta "El Pilar" etxe-multzoa inguratzen dituztenak oinezkoentzat/peatonalak dira orain. Horretarako, lehen ikastola ondoko kaleetako espaloia kendu egin dute, baina, bertako biztanleak etxe ondoan aparkatzen dutenez, kotxe dezenteren joan-etorri mugimendu handia ikusten da eta batzuek, "abiadura" handiz ibiltzen direnez, andereñoek diote, ez dutela abantaila handirik sumatzen, alderantziz, espaloirik ez dagoenez arriskutsua dela diote.

Arantzazuko Ama Ikastolako eraikin handiko jolaslekua estali eta ekipatu egin dute 2006an eta auzotarren erabilerarako zabaltzen da eskola orduz kanpo, asteburu eta opor garaietan.

Azpimarratzekoa da 2004. urtean Donostiako Udalak, bere Auzo eta Bizilagunen Partaidetza departamentuaren bidez, Euskal Herriko Unibertsitateko "Parte Hartuz" ikerketa taldearekin hitzarmen bat sinatu zuela, non Partaidetzako graduondoko ikasleek praktikak egiteko aukera izango duten. Horrela, lau pertsonen osatutako ikerlari talde batek 2004ko udan Martutene auzoren diagnosi ikerketa bat burutu zuen. Bertan, Martutenen bizi den egoera orokorrari buruz auzoko bizilagun, elkarte, eta abarren iritzia jasotzen zen eta honen helburua, auzoan egingo diren proiektu-plan guztietan bizilagunen partaidetza sustatzea da.

Hilean behin edo bitan biltzen dira talde sustatzailea edo gai bereziak lantzeko sortutako eragile talde desberdinak. Bileretan, auzoko bizilagunek, profesionalak, auzoko elkarteek, udal politikoeak, Auzoak eta Herritarren Partaidetza saileko zinegotziak, teknikariek eta abarrek parte hartzen dute.

11.2.2 Altza auzoko azken urteotako aldaketak

Demografia aldetik Altza auzoak, 2004ko erroldaren arabera 19.819 biztanle ditu. Altza auzoa osatzen duten gune desberdinak: Arriberri, Arrizar, Buenabista, Casco, Eskalantegi, Roteta, Garbera, Jolastokieta, Larratxo, Los Boscós, Molinao, Santa Bárbara, Oleta, ...

Harri-Berri - Oleta Ikastetxeko Haur Hezkuntzaren eraikinetik gertu ireki dute "Tomasena" Kultur Etxea.

Aparkaleku berri bat egin dute ondoan eta biribilgune bat ikastetxe aurrean.

Altza auzoan ere, Altza berritzeko Plan Integral baten proiektua dago martxan, auzoaren premiei aurre egiteko asmoz, auzoko eragile desberdinen parte hartzearekin kontatzen duelarik. Proiektu horren barruan planteatu den eskaeretako bat, "topo-trena" Altza auzora iristea da.

11.3 Ikastetxeen Identifikazio-Datuak

Identifikazio-datuak:	A	B
Izena	ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA	HARRI BERRI - OLETA IKASTETXEA
Kokagunea	Martutene	Altza
Ingurunea	Urbanoa	Urbanoa
Ikastetxe mota	Publikoa	Publikoa
Eraikinak:	. Haur Hezkuntza . Lehen Hezkuntza - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	. Haur Hezkuntza (2) 1: Bi urteko haurrak 1: Hiru, lau eta bost urteko haurrak . Lehen Hezkuntza
Unitateak:	Lehen Hezkuntzan: 6 - 12 urte = 5 unitate (55 ikasle) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 12 - 16 urte = 8 unitate (120 ikasle) Haur Hezkuntzan: 5 unitate (67 ikasle) . 4 Haur Hezkuntzako eraikinean: 2 urtekoen 2 gela (lerro) 3 urtekoen gela bat 4 urtekoen gela bat . 1 Lehen Hezkuntzako eraikinean 5 urtekoen gela bat	Lehen Hezkuntzan: 6-12 urte = 9 unitate (172 ikasle) Haur Hezkuntzan: Bederatzi: . 2 urtekoen 3 gela . 3 urtekoen 2 gela . 4 urtekoen 2 gela . 5 urtekoen 2 gela

Identifikazio-datuak:	A	B
Ordutegia	9:00 - 12:00 14:30 - 16:30	2 urteko gelak: 9:00 - 12:00 15:00 - 16:30
Jangelako janaria : "Auzo Lagun" Arduradunak: Begoña Olaiz (A Ikast.) Erika (B Ikastet.)	. Ikerketa gelako 2 urteko 3 haur, egunero . 2, tarteka (amaren lanaren arabera) 2-3-4 urtekoen kopurua: 28	Ikerketa gelako 2 urteko 7 haur, egunero
Hizkuntza-Ereduak	D	Haur Hezkuntzan: D Lehen Hezkuntzan: D eredia 6 mailako gela batean izan ezik (B). Datorren ikasturtean desagertuko da "B" eredia
Bi eta hiru urteko haurren Gelako Eredua	D	D
Haur Hezkuntzako ikasle kopurua	2 urtekoak: 28 3 urtekoak: 16 4 urtekoak: 11 5 urtekoak: 12 Ikerketa geletako ikasle kopuruak: . 2 urteko 14 haur . 3 urteko 16 haur	2 urtekoak: 38 3 urtekoak: 24 4 urtekoak: 30 5 urtekoak: 33 Ikerketa gelako ikasle kopurua: 12
Gurasoen hizkuntza	Ikerketa gelako 2 urtekoen gurasoen hizkuntza: Gaztelera aita bat izan ezik 2 Urteko bigarren gelako gurasoena: euskara gehiengoak Ikerketa gelako 3 urteko gelako gurasoena: euskaldun peto-petoak 4 umeen ama eta aita; nahiko ongi dakitenak beste 3 haurrenak; gainontzeko umeenak, erdaldunak	Ikerketa gelako 2 urtekoen gurasoen hizkuntza: Gaztelera oro har (4 kasutan aita edo amarena, euskara)
Ikerketa geletako gurasoen ikasketa motak	. Oinarrizko ikasketak (gehienek) . Lanbide Heziketa . Idazkari-ikasketak . Diplomatura	. Oinarrizko ikasketak (gehienek) . 4 Unibertsitateko tituludunak

Identifikazio-datuak:	A	B
Ikerketa geletako gurasoen lanbideak	<ul style="list-style-type: none"> . Zerbitzuak: ostalaritza, dendaria... . Ofizioak: tapizatzaile, . Enplegatuak: Telefonia, bulego, Etxeko lanak . Injineru Teknikoa 	<ul style="list-style-type: none"> . Eraikuntza . Ama batzuk etxeetako lanetan . Ama pare bat dendetako enplegatu . Baten aita eta ama kazetariak . Bat kimikoa

Aldaketa

Arantzazuko Ama Ikastolako ikasle kopurua nabarmen igo da.

11.4 Eraikinak eta Ingurunea

. Arantzazuko Ama Ikastola eta ingurunea



. Harri Berri Ikastetxea eta ingurunea



11.5 Irakasleak

IKASTURTEAK	Arantzazuko Ama	Harri Berri
2007-2008	2 Urtekoen gela: ITZIAR MONSALBO 3 Urtekoen gela: ARANTXA GERENDAIN	2 Urtekoen gela: YOLANDA GONZALEZ
Espezialitatea	Haur Hezkuntza	Haur Hezkuntza
Ikasturteak ikastetxean	ITZIAR MONSALBO 7 URTE ARANTXA GERENDAIN 20 URTE	YOLANDA GONZALEZ 25 URTE

11.6 Haur Hezkuntza Etapako Helburu Orokorrak

	A	B
Helburu Orokorrak	Egokituak	Egokituak
Esperientzi Eremuka: . Nortasuna eta Autonomia Pertsonala . Ingurune Fisiko eta Soziala . Komunikazioa eta Errepresentazioa	+	+
LOE Hezkuntza Lege Berriaren ezarpena 2008-09 ikasturtean?	Haur Hezkuntzan ez Datorren ikasturtean aztertzen, egokitzen eta diseinatze lanetan hasiko dira Lehen Hezkuntzan	Haur Hezkuntzan ez Datorren ikasturtean aztertzen, egokitzen eta diseinatze lanetan hasiko dira Lehen Hezkuntzan
Helburuetan aldaketarik	Konpetentzia/Gaitasunak	Konpetentzia/Gaitasunak

Curriculum Berria

. Arantzazuko Ama Ikastola

Zuzendariak komentatu digu, 2007ko azaroan argitaratu dela dekretu berria (ikasturtea hasi ondoren) eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloan ezarri beharrekoa zela legez, baina, errealitatea bestelakoa dela, izan ere, klaustroan, ezinezkoa izan omen da horrekin benetan lanean hastea eta, datorren ikasturtetik aurrera hasiko direla aztertzen, egokitzen eta curriculum berria diseinatzen.

Haur Hezkuntzarako, ez dute oraindik Hezkuntza Saisetik ezer berririk jaso.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea

Oraindik ez dakite datorren ikasturtean ezer berririk martxan jarriko duten (bilerak egiten ari dira momentu honetan Berritzeguneko taldearekin).

11.7 Metodologia Printzipioak

	A	B
Metodologia printzipioak:	Ekintza Globalizazioa Gaien eta ekintzen aukera Aniztasuna Egituren eraikuntza Autonomia Elkarrekintza	Indibidualtasuna Sozializazioa Aktibitatea Sormena Askatasuna Normalizazioa

Lehen zeuzkaten printzipio metodologiko berberak dira.

11.8 Gurasoekiko Harremanak

	A	B
Egunerokoa	+	+
Elkarrizketak	+	+
Bisitak	+	+
Bilera orokorrak	+	+
Gelan presentziarik Zenbat egunetan - Gelako ondoko espazioan	Egokitzapen-aldian - 3 egun gela barruan - Haurraren arabera, 2 edo 3 aste gehienez	Egokitzapen-aldian
Inplikazioan aldaketarik	Etengabeko harremana guraso guztiekin	Harreman oso estuak guraso guztiekin eta ondo erantzuten diote

Bi ikastetxeetako andereñoek garrantzi handia ematen diote gurasoekin daukaten etengabeko harreman estu eta komunikazioei.

11.9 Egokitzapen-Aldirako Proposamena

11.9.1 Arantzazuko Ama Ikastola

Haur taldeak	2 Taldetan
Ordutegia	9:30 - 10:30 11:00 - 12:00
Apego-atxekimendu pertsonarekin (ama, aita, amona...)	Ordubete osoan beraiekin
Espazioa	Gela
Materiala	Ugaria, erakargarria

Ikasturte honetako prozesua aurreko ikasturteekin alderatuz

- 1.- Taldeak egiterakoan
- 2.- Ordutegian
- 3.- Gurasoen presentzian edota inplikazioan
- 4.- Luzatu – moztu egin da ikasturte honetan prozesua
- 5.- Laguntzailearen presentzian
- 6.- Haurren asistentzian
- 7.- Beste zerbaitetan?

Itziar andereñoak

- 1.- Taldeak egiterakoan berdin funtzionatu dugu, 2 taldetan banatu ditugu haurrak.
- 2.- Ordutegian ere berdin, talde bakoitzak ordu beteko saioa izan du.
- 3.- Aurreko urteetan bezalaxe: lehenengo 3 egunetan gela barruan egon dira eta laugarren egunetik aurrera horretarako prestatutako gela ondoko espazioan jarraitu dute. Oro har, aurten, 2 asteko presentzia behar izan dute umeek, batzuk aste batekin nahikoa izan dute eta ume batek, 3 aste behar izan ditu bereizketa onartzeko.

Prozesu honetan ematen den gurasoen presentziari buruz dio, bere seme-alaben jarrera ikusterakoan batzuk ez dutela batere ondo eramaten: “no le pegues”, “no le toques”, ... “ya puedes tener cuidado con éste, porque...” (nahiago dutela ez ikusi). Tirabira batzuk ere izan direla gurasoen artean. Ez omen dute ondo bizitu gela barruan egotea eta nahiz eta beraien artean komunikatu, “kotileatzen” zutenean, batzuk, esaten omen zuten: “es una pérdida de tiempo”.

Galdetzen diot ea orokorra izan den inpresio hori. Erantzuten dit ezetz, hiru bat izan direla; gehienek ondo ikusi dutela: “si siguen como al principio menuda la que tienes” esaten omen zioten batzuk eta ondorio bezala dio, errealitatea ikusi nahi duenak edo ahal duenak “prozesuari garrantzia eman diola”.

- 4.- Gutxi gorabehera hilabete bat iraun du prozesuak.
- 5.- Bai, Axun andereñoa izan dute beraiekin; andereño batzuentzat metodologia berria denez eta berak esperientzia handia duenez, lehenengo momentutik eduki dute bere laguntza. Momentu askotan izan da beharrezkoa Axunen presentzia:

- Hasierako egunetan
- Psikomotrizitate saioetan
- Andereñoak gelatik atera behar duenean
- Patioko momentuetan

...

6.- Nahiko erregularra izan da, haur batena izan ezik. Nahiago izan dut sarrera orduan malgutasuna eman, hau da, 9:00etatik - 9:30etara arteko marjina izan dute (nahiago nuen beranduxeago ekartzea, baina umea ondo etortzea).

11.9.2 Harri Berri - Oleta Ikastetxea

. Irailaren 12an hasi: 12, 13, 14ean ordu bateko saioa.

. Irailaren 17tik aurrera: 9:00etatik - 12:00etara, bakoitzak nahi duenean eta kasu batzuetan andereñoak esaten duenean.

. Familiakoak eskolan: irailaren 12an, maiatzeko bisita egunean bezala; hurrengo egunetik, beharrezkoa ikusten denean (andereñoaren esku). Bertan egotea behar ez den kasuetan, etxera edo erosketak egitera joango dira familiakoak.

. Irailaren 13tik aurrera, haurrak beraien andereñoarekin egongo dira gelan. Familiakoak haurrak agurtu ondoren joan egingo dira.

. Andereñoak emango dizkie mezuak gurasoei lasaitasuna adieraziz: ordutegiak, agurrak nola egin, jantziak, ...

. Eskolak jartzen du laguntza gela guztietan: negar momentuetan, fardel aldaketk, komunera lagundu, ... eta pertsona hori, beraz, kanpoan egongo da etortzen direnei harrera egiteko eta behar duenari laguntza eskaintzeko.

. Irailean gurasoekin egiten den bileran azalduko zaizkie xehetasunak.

Aldaketarik aurreko ikasturteekin alderatuz

- 1.- Taldeak egiterakoan
- 2.- Ordutegian
- 3.- Gurasoen presentzian edota inplikazioan
- 4.- Laguntzaileen presentzian
- 5.- Haurren asistentzian
- 6.- Beste zerbaitetan?

Yolanda andereñoak

- 1.- Taldeak berdin egin ditugu eta hasierako egunetako ordutegia ere ez dugu aldatu.
- 2.- Goizeko saioetako ordutegian eta ikasturte honetan 2 urteko hiru gela direnez, psikomotrizitate gelara joateko ordutegia hiruhilabeteka egitea pentsatu genuen, hau da, saioen ordua aldatuz, baina ikusi dugu, aldaketarekin haurrak asko

aztoratzen zirela, nahastu egiten zirela, eta azken hiruhilabete honetan, aurrekoaren ordutegi berbera mantentzea erabaki dugu.

- 3.- Gurasoen presentzia gelan 3 egunekoa izan da, ez dute gehiago behar izan.
- 5.- Haurren asistentzia oso erregularra da, egunero etortzen dira.
- 7.- Ikasturte hasieratik jangelan inoiz baino haur gehiago gelditzen dira. Bi urteko geletatik, 12-14 hasi ziren eta ikasturteak aurrera egin ahala 22 haur gelditzen dira.

11.10 Gela eta Espazioak

Gelak eta ekipamenduaren hainbat datu eta argazki azaltzen ditugu ondoren.

11.10.1 Alderdi fisikoak eta analisisia



	A	B
Argitasuna: Argi naturala	Argitsua	Argitsua
Berogailua	+	+
Azalera	60 m ²	60 m ²
Solairua	Behekoan: 2 urtekoak 1. solairuan:3 eta 4 urtekoak	Behekoa
Materialak:		
Lurra	Losetak (sintasol) Alfonbra berriak	Sintasol
Paretak	Margotuak: hori eta berde kolorekoa	Adreilua (zuriz margotua)
Altzariak	2 urtekoen geletako ekipamendu berria (mahai, aulki, altzari, egurrezkoak, koloretakoak, baxuak)	Egurrezkoak (berriak)

Bi ikastetxeetako hainbat ekipamendu berriak dituzte: alfonbrak, mahaiak, aulkiak, altzariak.

Arantzazuko Ama Ikastolako 2 urteko haurren gela



Harri Berri Ikastetxeko 2 urtekoen gela





Arantzazuko Ama Ikastolako hiru eta lau urtekoen gelak
. PLASTIKA GELA



. ERAIKETA GELA



Espazioak/txokoak

	A (2 urtekoak)	A (3 urtekoak)	B (2 urtekoak)
Espazioak/txokoak:	+	+	+
Gela berean espazio/ txoko guztiak	+	Bi geletan	+
Txokoak/Espazioak	Etxea Plastika Alfonbra Ipuindegia -Eraikuntzak -Puzzleak Haurrak aldatzeko espazioa	. Plastika gela - Ipuindegia Irakurketa Idazketa . Eraikuntza gela - Mahai-jolasak	. Alfonbra: jolastokia ipuinak . Margotegia . Etxea . Plastilina . Motrizitate espazioa . Hamaiketakoa banatzeko zirkulua . Haurrak aldatzeko espazioa (arropa, fardelak)
Taldekatze- irizpideak	Haurren aukera	Haurren aukera	Haurren aukera
Espazio/Txokoen irekitze-prozesua	Pixkanaka	Pixkanaka	Pixkanaka
Txokoak/espazioak zedarrizteko modua	Altxari, banku, materialak eta jarduera espezifikoak	Gela bakoitzeko espazio-zonaldetan egiten diren jarduerak	Espazio bakoitzeko jarduerak berak zedarrizten du espazioa *

* = Espazio bakoitza modu egokian erabiltzeko ohiturak bereganatzea da muga bakarra

Analisia

Bi ikastetxeetako espazioen antolaketak ez du aldaketa nabarmenik izan. Behar bada, egin diren aldaketek hobeto “kontrolatzen” uzten dute haurren sartu-irteerak eta gelako mugimendua, adibidez, Harri Berri ikastetxeko 2 urteko haurren gelako umeak aldatzeko espazioaren aldaketak.

11.10.2 Alderdi funtzionala eta analisia

	A (2 urtekoak)	A (3-4 urtekoak)	B (2 urtekoak)
Txokoetako funtzionamendua	Haurren aukera	Zirkulazio librea	Haurren aukera


Aurreko urteetako funtzionamendua mantentzen da.

11.10.3 Gelaz kanpoko espazioak eta azken urteotako berrikuntzak . Arantzazuko Ama Ikastola

Halla - pizina eta bi solairuetako egitura



Erakusketa



Solairuaren egitura



Logela



Komunak



Bainugela



Patioa



. Harri Berri Ikastetxea

Eraikina barrutik: Piszina, 2. solairua, erdiko sabaileihoa



Psikomotrizitate gela



Bainugelak



Jangela



Patioa



	A	B
Eraikinerako sarrera	Ranpa bat egiten ari dira kaletik ikastolarako eskailerak ekiditeko; hala ere, 3 eskailera geldituko dira sarrera printzipaletik eskolara sartu ahal izateko	7 Eskailera-maila Askotan eskatu dute eskailerak ekiditea baina teknikoki ez omen da posible
Bainugelak:		
Kokapena	Gelatik atera eta parean (2 urtekoak) Alboan (3 urtekoak)	Gelatik atera eta alboan
Kopurua	4 komun eta harraskak beheko solairuan 4 komun eta harraska 1. solairuan	Beheko solairuan: 5 1. solairuan: 3 (4. bat, mutilena, ez dute erabiltzen)
Egokitasuna	Egokiak / berriak	Egokiak, aurten berrituak
Sarrera-halla	Estalia	Estalia
Gelatik patiorako irteera	Eskailerarik gabe, zuzenean	Eskailerak
Patioaren ezaugarriak:		
Tamaina	600 m ² . Eraikinaren bueltan eta zabalgune bat 300 m ² -koa. Zati batean estalia.	600 m ² . Eraikinaren bueltan 2-3 m-ko zabalera eta zabalgune bat 300 m ² -koa.

	A	B
Estalitako eremuaren azalera	80-100 m ²	Ez dago estalitako zonalderik
Materiala-tresnak:	Porlanezkoa . Kolunpioa . Balantzina . Rokodromoa	Porlanezkoa . Txirrista . Trena . Pasabidea
Belar, landare, zuhaitz azalera	2-3 m-ko zabaleran, alde batean	3 zuhaitz
Aldaketarik	Ranpa bat Kolunpio berri bat	Haur Hezkuntzako bi eraikinen arteko atea
Psikomotrizitate gela:	Lehen Hezkuntzako eraikinean (irten eta 100-150 m-tara Beheko solairuan	1. solairuan (pisu bat igota)
- Azalera	60 m ²	60 m ²
- Argitasun naturala	Ez	Oso argitsua
- Argitasun artifiziala	Bai	
- Materialak:		
. lurra	Sintasol	Sintasol
. paretak	Adreilu margotua	Adreilu margotua

Azken urteotako berrikuntzak

Bi ikastetxeetako komunak berritu egin dituzte.

. Arantzazuko Ama Ikastola

. Arantzazuko Ama Ikastolan arrapala bat egin dute kanpotik sarrera errazteko baina sarrerako 3 eskailera-maila mantentzen dira.

. Haur Hezkuntzako ume guztiak Lehen Hezkuntzako eraikinera joaten dira psikomotrizitate saioak egitera. Bi urteko umeek astean saio bakarra egiten dute. Egun horretan, gurasoak zuzenean eramaten dituzte umeak eraikin handira.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea

Ate bat jarri dute 2 Haur Hezkuntzako eraikinen artean.

11.11 Material Esanguratsuenak Txokoka/Espazioka eta Analisia

A. Ikastetxea - Bi urteko haurrak	A. Ikastetxea - Hiru urteko haurrak
<p>Etxean: Seaska, telefonoak, bainu txiki bat panpinentzat, erosketak egiteko karroa, panpinak</p> <p>Ipuindegian: Alde banatara ipuinak jartzeko altzari bat, alfonbra borobil bat, argazki-albumak, ipuinak, abestiak, kojina, haurren asistentzia lantzeko zenbakiak, haurren izenak eta argazkiak, eguraldia lantzeko laminak, ...</p> <p>Plastikan: Mahaia eta aulki kolorezkoak, plastilina, margoak, errotulagailuak, puzzleak, bolak-kordoak, ...</p> <p>Eraikuntzetan: Alfonbra karratua Altzari baxu-baxuak, bankua, ... Ahokatzeko piezak Duplo piezak Kotxeak, kamioak, garajeak, dorreak Animaliak Musika tresnak</p> <p>Umeak aldatzeko txokoa: Mahai altua, apaletan fardelak, guanteak, ...</p> <p>Arbela</p> <p>Beste material batzuk: Pertxeroak gela barruan (mantalak utzi eta hartzeko) Pertxeroak gelatik kanpo, ate ondoan (ume bakoitzaren izena eta argazkiarekin)</p>	<p>Plastika gelan: Paper desberdinak, guraizeak, kotoia, arkatzak, rotuladoreak, animalien liburuak, tenperak eta akuarelak, Acua-lux (lanei bukaera emateko), pintzelak, argizariak, hondakin-materialak, kartoiak, arbela, enkajeak, mahaia eta aulkiak, apalak, kortxoak, plastilina, ipuinak eta abestiak.</p> <p>Ipuindegia espazioan: * Irakurketa-Idazketa Ipuin eta liburuak Alfonbra eta kojina Txotxongiloa Arbel magnetikoak bere hizkiekin Memory, izenekin Idazteko paperak: albisteak, asmakizunak Tanpoiak Ordenagailua</p> <p>Eraiketa gelan: Eraikuntza handiak egiteko: tamaina eta forma desberdinetako egurrak Eraikuntza txikiak egiteko: Duplo, Lego, pintxoak, botoiak, lepokoak... Animalia desberdinak, kubetak, K[^]nex materiala eta bere gida-liburua, arbela, kortxoak, mahaia eta aulkiak, apalak</p> <p>Mahai jolasen espazioan: Ipuin eta liburuak, kojina, alfonbra, oka, xakea, domino, partxisa, damak, puzzleak, Memory (animalien jokoa), mahaia eta aulkiak, apalak, kortxoak</p>

Materialetan, ez dago aldaketa esanguratsurik.

B. Ikastetxea - Bi urteko haurrak
<p>Etxean: Koltxoia, manta, 2 kojina, Panpina, kotxe-kapota</p> <p>Alfonbran: Ipuin txokoa Jolas txokoa</p> <p>Ipuin txokoa: Argazki-albumak, Ipuinak, Abestien irudiak, Esketxak</p> <p>Jolas txokoa: Enkajeak, Puzzleak, Eraikuntzak, Kotxe txikiak,</p>

<p>B. Ikastetxea – Bi urteko haurrak</p> <p>Animaliatxoak</p> <p>Margotegian: Mahai bat eta 4 aulki, Arbela</p> <p>Apalategi txiki batean: . margoak . gometxak . 2 kubeta: orri zuriak eta lanak jasotzeko</p> <p>Plastilina txokoa: Mahai bat eta 4 aulki</p> <p>Apalategi txiki batean: plastilina bandejetan modelatzeko makiltxoak</p> <p>Jolas motorikoaren espazioan: - Koltxoneta + txirrista txikia (orain hiruhilabetero aldatzen dituzte material hauek)</p> <p>Hamaiketakoa banatzeko zirkulua: - Lurrean, kolore gorriko zintaz egindako zirkulua</p>
--

Materialetan, orokorrean ez dago aldaketa handirik; lehen piszina pilotekin zegoen tokian, orain, txirrista txiki bat dago motrizitate espazioan.

11.12 Denboraren Antolaketa eta Analisia

	A Bi urteko haurrak	A Hiru urteko haurrak	B Bi urteko haurrak
Sarrera	9:00	9:00	9:00
Talde ekintza/Elkarrizketa	9:00-9:10	9:00-9:10	9:00-9:20
Espazio/Txokoetako saioa	9:10-10:30	9:10-10:30	9:20-10:00
Psikomotrizitatea			10:00 – 10:50
Gosaria/hamaiketakoa	10:30-10:45	10:30-11:00	10:50-11:00
Komunera	10:45	11:00	11:00
Patiora	10:50 – 11:30	11:00-11:15 (2 egunetan) 11:00-11:45 (3 egunetan)	11:00 – 11:20
Jolas gidatuak		11:15-11:45 (2 egunetan)	
Talde ekintza-txokoetako saioa	11:30 – 11:50	11:45-12:00 (3 urtekoak; ez da saio fijoak)	11:20 – 12:00
Agurrak	11:50 – 12:00	12:00	12:00
Jangelara	12:00 – 12:30	12:00	12:00 – 12:30
Siesta	12:30 – 14:30	Gehienak 15:00ak arte	12:30 – 14:30
Merienda (fruta, ogia)			15:00 – 15:10
Jolas librea			15:10 – 15:30

Talde ekintza		14:30-15:00	15:30 - 16:00
Espazio/txokoetako saioa		15:00-16:00 (luzatu daiteke)	
Patioa		16:00-16:20 (eguraldia eta umeen arabera)	16:00 - 16:30 (eguraldi onarekin)
Etixerako prestatu eta agurrak		16:30	16:30

Saioak zehaztasun gehiagorekin azaltzen dira aurreko urtekoekin alderatuz.

Oharra

Harri Berri - Oleta ikastetxean, goizeko 7:30etatik - 9:00etara "Goizeko Zaintza" zerbitzua eskaintzen dute; zerbitzu honetaz, Roteta Haurtzaindegiko pertsonala arduratzen da.

11.13 Talde Jarduera Esanguratsuak Espazio-Txokoka eta Aldaketak

	A - B Aktibitate zuzendua Talde Handian
Elkarrizketa/talde ekintza/ borobilean:	<ul style="list-style-type: none"> . Harrera . Sentimendu, gertaeren adierazpena . Haur bakoitzaren argazki-albuma ikusi, deskribatu, aztertu . Euskara landu . Ipuinak kontatu, "irakurri", buruz ikasi, errepikatu, galderei erantzun . Abestiak ikasi eta abestu . Olerkiak ikasi, asmakizunak ulertu eta asmatu, "gure istorioak" argazki bidez deskribatu . Jokoak . Asistentzia: haur bakoitza etorri den edo ez den behatu eta kontaketa egin . Eguraldia landu . Egutegia: asteko egunak landu . Gosaria . Hitzen ahoskera landu . Lanaren antolaketa, jarraibideak eman . Gatazken konponketan lagundu . Ohituren, arauen zergatiak adierazi

Ez dago nabarmentzeko aldaketarik aurreko urteekiko.

A Ikastetxea Margotegia Plastika Gela	Aktibitate libre/zuzendua Talde txikian Bi urteko haurrak Margotegi txokoan	Aktibitate libre/zuzendua Talde txikian Hiru urteko haurrak Plastika gelan
Espazioetan	<ul style="list-style-type: none"> . Marrazkia . Margoketa: tenpera, argizariak, Acualux . Paperak erabiliz, eskuekin tirak egin . Gometxak itsatsi . Bolatxoak egin . Collage-ak egin . Plastilina . Puzzleak egin . Enkajeak . Guraizeen erabileraren hastapena 	<ul style="list-style-type: none"> . Marrazkia . Margoketa: tenpera, argizariak, Acualux . Puntzoia . Itsatsi: gometxak, bolatxoak . Bolatxoak egin . Collage-ak . Plastilina . Puzzleak . Enkajeak . Guraizeen erabilera . Izena jarri . Materialak jaso

Ez dago aldaketa esanguratsurik.

A Ikastetxea Ipuindegia: Irakurketa- Idazketa	Aktibitate librea-zuzendua Talde txikian Bi urteko haurrak	Aktibitate librea-zuzendua Talde txikian Hiru urteko haurrak
	<ul style="list-style-type: none"> . Ipuinak "irakurri" eta kontatu . Norbere izenak aurkitu eta itsatsi 	<ul style="list-style-type: none"> . Ipuin eta liburuak irakurri eta kontatu . Arbel magnetikoetan izena jarri . Albisteak: "Olatuen" inguruan adibidez . Asmakizunei erantzuna eman . Tanpoiekin izena idatzi . Ordenagailua: Jarduerak, galderei erantzun, ondo dauden egiaztatu... . Materialak jaso

Ez dago aldaketa esanguratsurik.

A Ikastetxea:	Aktibitate librea Talde txikian Bi urteko haurrak	Aktibitate librea Talde txikian Hiru urteko haurrak
<p>Eraiketa txokoa (2 urte)</p> <p>Eraikuntzen gela (3-4 urte)</p>	<p>- Tamaina eta forma desberdinetako eraikuntzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> . errepideak . etxetxoak . Duploak . Animaliak etxetxoetan sartu . Musika jarri . Traktoreekin ibili 	<p>- Tamaina eta forma desberdinetako egurrezko eraikuntzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> . errepideak . garajeak . ranpak <p>- Egitura desberdinak: etxeak, gazteluak, dorreak, hesiak...</p> <p>. Herriak: kaleak, etxeak, zuhaitzak, pertsonak, animaliak... ipiniz</p> <p>- Eraikuntza txikiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> . Duplo, Lego, pintxoak, botoiak, bolatxoak...erabiliz . kotxeak . animaliak . loreak . etxeak . pultserak, lepokoak Materialak jaso

Ez dago nabarmentzeko aldaketarik.

Mahai-jolasak:	A Aktibitate libre/zuzendua Talde txikia/ertaina
Espazioan	<p>Jokoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> . Oka . Domino . "Memory" animaliak . Karta joko desberdinak . Bi berdinen jokoa . Partxisa . Zuhaitzen jokoa . Puzzleak . Materialak jaso

Aipatzeko aldaketarik ez.

Etxean	B Aktibitate librea Talde txikian - Hiru urteko haurrak
Txokoetan (Jolas sinbolikoa)	<ul style="list-style-type: none"> . Telefonoz hitz egin . Mozorrotu . Familiako rola imitatu: amaren, aitaren, medikuaren, ... papera egin= mahaia jarri, bazkaltzera gonbidatu, bazkaldu, plantxan egin, erratza pasa, hautsak kendu... . Gelako etxearen eskaileratan gora eta behera ibili . Etxeko goiko solairutik jostailu eta objektuak bota . Hitz egin . Ohe barruan sartu . Panpinak zaindu, bota . Batak bestea ohean tapatu eta zaindu . Haserreak . Koltxoian etzanda egon . Kotxearekin atzera eta aurrera ibili . Materialak jaso

Egoera eta jarduera berdintsuak ematen dira.

B. Ikastetxea Plastika	Aktibitate libre/ zuzendua Talde txikian Bi urteko haurrak
Txokoak	<ul style="list-style-type: none"> . Marrazkia . Margoketa . Gometxak itsatsi . Plastilina

Ez dago aldaketa nabarmenik.

Liburutegian/ Ipuindegian:	B Aktibitate librea Talde txikian
Txokoetan/ Espazioetan	<ul style="list-style-type: none"> . Ipuinak "irakurri" eta kontatu . Norbere izenak aurkitu eta itsatsi

Ez dago aldaketarik.

Jolastokia:	B Aktibitate librea Talde txikia
Txokoetan	<ul style="list-style-type: none"> . Eraikuntzak egin . Puzzleak egin . Lepokoak egin . Piezak ahokatu

Aldaketa esanguratsurik ez.

Gosaria	A Talde handian 2 urtekoak	A Talde handian 3 urtekoak	B Talde handian 2 urtekoak
	. Gaileta desberdinak banatu eta kontzeptuak landu: borobila, karratua...	<ul style="list-style-type: none"> . Fruta eta elikagai desberdinak jaten ikasi: kiwia, sagarra, meloia, intxaurrak, Actimel . Gaileta, bizkotxo, ... desberdinak jaten ikasi: txokolatedunak, gabekoak, Elkarrizketak: gai bati buruz (izurdeak, udarako oporrak...), zirkulazio libreko saioretan egindakoari buruz . Kontzeptuak landu frutak eta gailetak erabiliz: Txikia/handia, luzea/motza, gogorra/biguna, fruten koloreak... 	<ul style="list-style-type: none"> . Fruta eta elikagai desberdinak jaten ikasi: sagarra, kiwia, Actimel, Gaileta, bizkotxo, ... desberdinak jaten ikasi: txokolatedunak, gabekoak, Elkarrizketak: gai bati buruz, txoko desberdinetan egindakoari buruz, Kontzeptuak landu frutak eta gailetak erabiliz: Txikia/handia, luzea/motza, borobila, karratua, gogorra/biguna, fruten koloreak...

Aldaketak

Bi ikastetxeetako gosaria/hamaiketako saioak garrantzi handia daukate une honetan eta hainbat eta hainbat konpetentzia lantzeko erabiltzen dituzte:

- elikagai desberdinak jaten ikastea
- egoki eta txukun jaten ikastea
- bakoitzak ekarritako elikagaiak besteekin konpartitzea
- sentimendu, egoera, istorioak adieraztea
- besteek kontaktzen dutena entzuten ikastea
- erlaxatuta egoten ikastea
- matematikako kontzeptuak lantzea
- ...

	A - B Talde txiki eta ertaintan
Patioan:	<ul style="list-style-type: none"> . Korrika ibili . Panpinak paseatu . Trizikloan, kotxean ibili . Sokasaltoan ibili . Txirristan gora eta behera ibili . Tuneletan zehar ibili . Hitz egin . Txirrista/ranpan gora eta behera ibili . Buruhandiekin ibili . Gatazka txikiak konpondu . Trena, iglua eta eraikuntza desberdinetan sartu-irtenean ibili . Materiala jaso

Nabarmentzeko aldaketarik ez dago.

Asteroko saioak: <u>A Ikastolan:</u> 2 urtekoak saio bat 3 urtekoak: Bi saio <u>B Ikastetxean:</u> 2 urtekoak: egunero	A - B Talde handian
Psikomotrizitatea:	<ul style="list-style-type: none"> . Lehen Hezkuntzako eraikinera joan-etorriak (A Ikastetxekoak) . Bigarren solairura igo eta jaitsi (B Ikastetxekoak) . Zapatilak eta galtzerdiak erantzi eta jantzi . Koltxonetan: saltoka, txilinueltak eman, etzanda egon . Espalderetara: igo eta jaitsi . Uztaiekin jokoak egin eta abestu . Txirristatik gora eta behera ibili . Pilotekin jolasean ibili . Egurrezko piezekin, arkitekturarekin, eraikuntzak egin . Denda-etxean sartu irtenean ibili, gorde . Kuboak bota, paretak egin . Mozorrotu . Jolas sinbolikoa: amaren-aitaren, andereñoaren paperak hartu . Korrika ibili . Garrasi egin . Abestu eta dantzan egin . Joko desberdinak: autobusera igo eta jaitsi, boloetara ibili, gorde-gordeka ibili... . Gatazka eta iskanbilak konpondu . Materiala jaso

Jarduera eta egoera berdintsuak egiten eta azaltzen dira.

11.14 Arantzazuko Ama Ikastola : Bi urteko Haurrak

2008ko otsailaren 15ean, Itziar Monsalbo 2 urtekoen gela bateko andereñoarekin eta Arantxa Gerendain 3 urteko gelako andereñoarekin jarri nintzen kontaktuan. Aurreko urteetatik ezagutzen nituen biak eta, Arantxaren kasuan, nire aurreko 2 ikasturteetako behaketa-lana bere gelan egin nuen. Otsailaren 29rako adostu genuen elkarrizketa, nire proposamena azaltzeko asmoz.

11.14.1 Elkarrizketa eta behaketa saioaren deskribapena

2008/II/29

Elkarrizketa

12:45 Bere bi urteko umeen gelan geldituta gaude eta komentatzen dit gelako ekipamendua berritu egin dutela: mahaiak, aulkiak, altzari baxuak, alfonbrak... Kolore biziak eta erakargarriak dituzte eta gela alaia ikusten da.

Bi urtekoekin, komunak gelatik kanpora egotearen alde negatiboa agertzen dit. Ume batekin komunera joan behar duenean, besteak bere atzetik ateratzen omen dira. Komunak berritu dituztela eta oso ondo daudela dio, baina, gelatik beharko luketela sarrera. Dena dela komentatzen dugu, estrukturaliki, ezinezkoa dela aldaketa hori.

Ikastolara kaletik sartzeko dauden eskailerak ekiditeko, arrapala bat egiten ari dira eta honek barrera arkitektoniko bat ekiditen du, ez ordea erabat. Patiotik eraikin barrura sartzeko 3 eskailera daude eta horiek ezin omen dira kendu arrapala bat jarriz (ez omen dago nahiko distantzia edo gradu).

Azaltzen diot, lehen telefonoz aurreratu niona, hau da, Arantxaren kasuan bezalaxe, ikastolako espazio eta instalazioetako antolamendua eta erabilera, bi urteko umeen egokitzapen-aldiko eta ikasturteko prozesuaren garapena jaso nahiko nituzkeela.

Berak auzoa ondo ezagutzen duenez, ikastolaren inguruneko hainbat datu eta azken urteotan izan diren aldaketen berri ematea ere ondo etorriko litzaidakeela aipatzen diot.

Uzten dizkiodan ohiturei buruzko taulak eta galderak aztertzeotan gelditzen da eta apirilaren 15erako jartzen dugu hurrengo hitzordua.

2008/IV/15

Saioaren Deskribapena

10:00 Itziar agurtzen dut eta berak umei nere aurkezpena egiten die, handien irakaslea naizela esanez. Gaur, 14tik 13 ume daudela esaten dit, eta etorri ez dena oporretan dagoela.

Batzuk plastilina egiten, bi neska argazki-albumekin, beste bat etxean, hiru, Duplo-rekin dabilta. Bat haserre dago eta Itziarrek galdetzen dio ea norekin dagoen haserre eta erantzuten dio “conmigo”.

Martxa handia dago, oso erne dabil andereñoa batzuekin eta besteekin.

10:20 Batzuk inork ezer esan gabe alfonbran esertzen dira, denbora “kontrolatzen” dute jada. Badakite txokoetako saioaren amaiera dela (hori konfirmatzen dit Itziarrek).

Gelaren argazki batzuk hartzen ditut eta nahi gabe, kameran jartzen dute atentzioa.

Gela espazio desberdinetan banatuta dago: etxea, plastika, eraikuntzak, ipuindegia, alfonbra eta material eta ekipamendu berria: mahaiak, aulkiak, bankuak, apalak, altzari baxuak, alfonbra; koloretakoak eta egokiak.

10:25 Jasotzera! eta abesti bat: “Bat eta bi, ondo eseri...”

Apalean daukaten kojina hartu ondoren alfonbran esertzen dira.

Mutil batek beste bat jotzen du. Itziarrek: Haserre zaude, jangelan gelditu behar duzulako? Baietz erantzuten du buruarekin. Baina ez jo, ez dizu ezer egin.

Fisikoki, momentu askotan hartu behar ditu eskutik eta lagundu, bai esertzen, bai bere tokian egoten, bat jo ondoren lekuz aldatzen...

Itziarrek: Lasaitu gara? Arnasa hartu, bota, oso ondo! Egiten dute eta lasai samar daude momentu honetan.

Asistentzia: Nor falta da gaur? Aaron, erantzuten dute.

Poltsa batean dauzkate zenbakiak eta gaurko “laguntzaileak” ateratzen ditu zenbakiak. Hau 1 da? Ez... eta horrela 1 ateratzen duen arte. Arbelean eransten dute.

Lamina handi bat dago arbelean umeen argazki eta izenekin eta handik kentzen dute falta denarena eta zenbakiaren ondoan jartzen.

Eguraldia: Leihora hurbiltzen dira zein eguraldi dagoen ikustera eta laminak erakusten dizkie: Euria ari du? Ez. Ostarteak daude? Ez. Lainotuta? Ez. Eguzkia dago? Bai!!!

Ipuina:

Zer egin behar dugu?

. Kremlera itxi

. Entzuteko ...

. Ikusteko...

Lehenengo, "Txerrikumeak"

Jarraitzen dute: "1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9 egun.... pasa zituen..."

Kontentu ikusten dira ipuinarekin.

Abestia ipuina bukatzeko.

Beste ipuin bat nahi dute eta "Ratapon urtxintxa" kontatzen die. Non bizi zen Ratapon?

10:40 Hasi dira mugitzen, batak bestea molestatzen. Ez du bigarren ipuina bukatzerik izan. Gaur ipuin bat, ez zaudete bi ipuin entzuteko prest eta.

Abestiak:

"Xapito bat daukat zuretzat"

"Sorgina Pirulina"

"Jan, jan ...ahoa, edan, edan, edan..."

"Xanti Xanti ..."

"Beste bat" eskatzen du mutil batek. "Klin klan"

"Plisti-plasta"

"Lotan nago" (denak etzaten dira). Ring eta ring (denak altxa). Oso gustura daude berriro etzanda, begiak itxita.

Gosaria:

Bi motatako gailetak dauzkagu gaur. Bat "Maria" eta bestea txokolatzkoa, biak borobilak. Aukeratu egiten dute zein nahi duten.

10:55 Orain komunera pixa egitera, ura edan eta patiora. Kojina armairuan jaso!

Gehienek hartzen dute triziklo, kotxe edo zaldia eta patiora ateratzen dira.

Itziarrek: Euskara gutxi, hitz bakar batzuk esaten dituzte, gurasoak ia denak gazteleraz hitz egiten dute eta. Askok kostatzen da, hizkuntza ez ondo ulertzeak eta hitz egin ezin horrek, asko zailtzen du martxa hartzea.
--

Neska bat txinatarra da, udaran ekarri omen dute, beste bat aurtengo bakarrik omen dago, datorren urtean aitaren lanarengatik Errumaniara doazelako 3 urtetarako.

Esan diot ume kopurua asko gehitu dela orain dela 5 urtetik ona eta erantzuten dit baietz, eta arrazoiengatik galdetzen diodanean esaten dit, bikote dezente etorri dela Martutene-Astigarraga inguruko etxe berrietara bizitzera, andereño batzuk ere ikastola honetan ibilitakoak direla eta horrek ere eragiten duela, beste batzuk, aitona-amonak Martutenen bizi dituztela eta gurasoek lan egiten dutelako ere bertan matrikulatu dituztela...

11:15 Ume bat aldatzera sartu behar du gelara eta beste batekin komunera.

Gela guztietakoak dabilta patioan, 50 umetik gora eta andereño guztiak daude, gelditu gabe, kasu egiten.

Ez daukate patio buelta guztia irekita, eskaileretan eror ez daitezten. Pixka bat arriskutsua dela esaten dit Itziarrek eta obra ere oraindik erabat bukatu gabe dagoela.

11:40 Bi urtekoak, piszina harrera sartzen dira; tresnak jaso, eseri eta abesten hasten dira.

11:55 Batzuk etxera eta besteak jangelara. Jangelan, Begoña da arduraduna, urteak daramatza. Bi urteko 11 haur gelditzen dira gaur jangelan.

Patia

Eskailera horiek egotea ekidin beharko litzateke arriskuak gutxitzeko, bestela oso erne egon behar da beti txiki horiekin eta ez da erraza.

Belarra, zuhaitzak, faltan botatzen dira.

Estaliagoa egon beharko luke, bai azalerari dagokionez eta bai itxituraren egitura aldetik ere.

11.14.2 Ikasleak eta Autonomia-ohiturak

BI URTEKO IKASLEAK	JAIOTZE DATA
Aketza	2005/IV/10
Danel	2005/X/28
Ana L.	2005/IX/09
June	2005/XII/21
Unax	2005/IX/25
Aaron	2005/I/19
Asier	2005/V/28
Mikel	2005/XI/02

BI URTEKO IKASLEAK	JAIOTZE DATA
Aisha	2005/VI/10
Diego A.	2005/XI/07
Naroa	2005/V/21
Rocio	2005/III/31
Alexis	2005/V/20
Alex	2005/V/19

2007/2008 ikasturtea

1. - 2. hiruhilabetea: Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak - 2 urteko haurrak (jangelan bazkaltzen dutenak)

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

JARDUERAK/IKASLEAK	Ana	Aaron	Mikel	Alex	Unai	Alexis
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe	B	I	E	B	I	E
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin	B	B	I	B	B	B
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	B	B	I	B	B	I
Mahai ingurua txukun uzten ikasi	B	B	I	B	B	I
Lurra txukun uzten ikasi	B	B	B	B	B	B
Mastekatzen eta irensten ikasi	B	B	B	B	B	B
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi	B	B	B	B	B	B
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi	*	*	*	*	*	*
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi	I	I	I	I	I	I
Jana banatu bitartean itxoiten ikasi	B	B	B	B	B	B
Denetatik jaten ikasi	B	B	I	B	B	I
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi	*	*	*	*	*	*
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi	B	B	I	B	B	B
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi	*	*	*	*	*	*
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi	B	B	I	B	B	I
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitu	B	B	I	B	B	B
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi	*	*	*	*	*	*

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da

* = Jangelako arduradunek egiten dute

1. - 2. hiruhilabetea: Deskantsuarekin zerikusia duten ohituren heziketa - 2 urteko haurrak

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

JARDUERAK/ IKASLEAK	Aketza	Danel	Ana L.	June	Unax	Aaron	Asier	Mikel	Aisha	Diego A.	Narora	Rocio	Alexis	Alex
Zapatak kentzen ikasi	I	I	B	I	B	B	B	I	E	B	B	B	B	B
Galtzerdiak kentzen ikasi	B	I	B	I	B	B	B	I	I	B	B	B	B	B
Berokia eta txaketa kentzen ikasi	B	I	B	E	I	I	I	E	E	I	B	B	I	I
Arropak kentzen lagundu (besoak, hankak, etab. altxatuz)	E	E	B	I	B	B	B	I	I	I	B	B	I	B
Berokia, txaketa, poltsa, mantala...zintzilikatzen ikasi	I	I	B	I	B	B	B	I	I	B	B	B	I	B
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak erantzten lagundu	I	E	B	B	B	B	B	I	I	I	B	B	B	B
Jantzeko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi	I	E	I	I	I	B	I	I	I	I	B	B	I	B
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin	E	E	I	I	I	I	E	E	I	E	I	I	E	I
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi			B			E		E						E
Bakarrik lo egiten ikasi			B			B		I						B
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi			B			B		E						B
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi			B			B		B						B
Norberaren arropak tolestatzen lagundu														

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da

1 - 2. hiruhilabetea: Higienearekin zerikusia duten ohituren heziketa - 2 urteko haurrak

2-4 urteko haurrekin lantzen hastekoak

JARDUERAK/ IKASLEAK	Aketza	Danel	Ana L.	June	Unax	Aaron	Asier	Mikel	Aisha	Diego A.	Narora	Rocio	Alexis	Alex
Orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi	S	E	B	B	B	B	B	E	B	E	B	B	S	B
Eskuak garbitzen ikasi	S	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu	S	B	B	B	B	B	B	S	S	B	B	B	I	B

JARDUERAK/ IKASLEAK	Aketza	Danel	Ana L.	June	Unax	Aaron	Asier	Mikel	Aisha	Diego A.	Narora	Rocio	Alexis	Alex
Eskuak lehortzen ikasi	S	S	S	S	S	B	B	S	S	S	B	B	S	B
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	S	B	S	B	B	S	B
Esfinterrak kontrolatzen ikasi	S	E	B	B	B	B	B	E	B	E	B	B	B	B
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu	S	B	B	B	B	B	B	S	B	B	B	B	B	B
Zikina edo garbia dagoela jakin	S	B	B	B	B	B	B	S	B	S	B	B	S	B
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi	I	S	B	S	B	B	B	S	S	S	S	B	S	B

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da

3. hiruhilabetea: Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak(jangelan bazkaltzen duten 2 urteko haurrak)

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	Ana	Aaron	Mikel	Alex	Unai	Alexis
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe	B	I	E	B	I	E
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin	B	B	I	B	B	B
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	B	B	I	B	B	I
Mahai ingurua txukun uzten ikasi	B	B	I	B	B	I
Lurra txukun uzten ikasi	B	B	B	B	B	B
Mastekatzen eta irensten ikasi	B	B	B	B	B	B
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi	B	B	B	B	B	B
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi*						
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi	I	I	I	I	I	I
Jana banatu bitartean itxoiten ikasi	B	B	B	B	B	B
Denetatik jaten ikasi	B	B	I	B	B	I
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi *						
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi	B	B	I	B	B	B
Elikagaiak eskuekin mozten ikasi, koska egin gabe *						
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi*						
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi	B	B	I	B	B	I

ITEMAK/IKASLEAK	Ana	Aaron	Mikel	Alex	Unai	Alexis
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitzen ikasi	B	B	I	B	B	B
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi *						

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da

* = erantzun gabe daudenetan, jangelako arduradunak egiten diete

Gurasoengandik jasotako informazioa

3. hiruhilabetea: Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak-2 urteko haurrak

1 urterekin hasi eta bereganatzen joatekoak

ITEMAK/ IKASLEAK	Aketza	Danel	Ana L.	June	Unax	Aaron	Asier	Mikel	Aisha	Diego A.	Narora	Rocio	Alexis	Alex
Garbia dagoenean disfrutatzen ikasi														
Garbitzen edo orrazten eskatzen ikasi														
Gorputzaren usain ona baloratzen ikasi	S	B	B	B	B	B	B	S	B	B	B	B	B	B
Beste haurren presentzia txukuna baloratzen ikasi														
Azkazalak mozten utzi	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	B	S	S
Ilea mozten eta txukuntzen utzi	S	S	B	B	B	B	S	S	B	B	B	B	S	B
Zapatak garbiak eramaten eta ondo jartzen ikasi	I	I	B	I	B	B	I	I	I	I	B	B	I	B
Aurpegia, sudurra, eskuak garbitzen ikasi (bere gisa, zikinak daudenean) *	S	B	B	B	B	B	B	S	B	S	B	B	B	B
Arropak txukun ordenatzen ikasi														
Zikina sentitzen denean azpiko arropak aldatzen ikasi														
Ilea txukun eramaten ikasi														
Azkazalak garbiak eta ondo** moztuta eramaten ikasi	S	B	S	S	B	S	S	S	S	S	B	B	S	S
Zapatak garbitzen ikasi														
Gaineko arropak orbanik gabe mantentzen ikasi														
Orban errazak garbitzen ikasi														
Arropa politak, kolore konbinaketa eta irudiak baloratzen ikasi	I	I	I	I	B	B	I	I	I	I	B	B	B	B
Produktuak erabiltzen ikasi: hidratatzaileak, eguzki-babesleak...	I	I	B	B	B	I	I	B	B	I	B	B	B	B

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da

* = Urarekin pasa ** = Puskatuta daukatenean

3. hiruhilabetea: Norberaren autonomiarekin lotutako ohiturak - 2 urteko haurrak

0-3 urte bitartean hasi eta kontsolidatzen joatekoak

ITEMAK/ IKASLEAK	Aketza	Danel	Ana L.	June	Unax	Aaron	Asier	Mikel	Aisha	Diego A.	Naroa	Rocio	Alexis	Alex
Gauza txikiak bakarrik egiten ikasi: jostailuak hartu, gorputzeko atalak mugitu, bere burua entzun eta besteei entzun, entretenitu...	K	S	B	S	K	S	S	K	S	K	S	B	K	S
Trebetasun txikiak ikasi: txiribueltak eman, pinuarena egin, orekan mantendu, hanka baten gainean salto egin, narrasi, papera urratu, behatzekin pusketak egin, txalo jo, txistu egin,	S	S	S	K	S	S	K	K	K	S	S	S	B	S
Hitzak esaten ikasi, erritmo bat jarraitu, objektuei soinua aterarazi	K	S	S	K	S	S	K	K	K	S	S	S	S	S
Tresna batzuen erabilera dominatu: koilara, edalontzia, platera, ...	B	S	B	S	B	B	B	S	S	S	B	B	B	B
Behar diren gauzak erabiltzen ikasi: baberoa, orrazia, etab.	S	B	B	S	B	B	B	S	B	B	B	B	B	B
Garbitzen ikasi, jantzi eta erantzi laguntza pixka batekin edo bakarrik	K	S	B	S	S	S	S	K	S	S	B	B	S	B
Kolaboratzen ikasi: mahaia kendu eta jarri														

(B) Egiten du; (S) Saiatzen da (K) Kosta egiten zaio

11.14.3 Autonomiaren bilakaera eta ondorio partzialak**. Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak**

Ikastolako jangelan gelditzen diren 6 haurren datuak ditugu taula honetan aztergai eta ikusten dugu, Ana eta Alexek, “jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi” izan ezik, beste item guztiak egitea lortu dutela. Beste bi haur, Aaron eta Unai, “elikagaia ahora eraman bidean erori gabe” eta aurrekoek bezala, “jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi” izan ezik, beste denak lortu dituztela. Alexisek 7 egitea lortu du, 4 item ikasteko prozesuan dago eta lehenengoa ez du egiten. Mikelen kasuan, 4 item lortu ditu eta gainontzeko itemak, ikasten ari da –azarokoa da–.

. Deskantsuarekin zerikusia duten ohiturak

Hainbat ohitura zailak dira 2 urteko umeentzat; horien artean aipatuko genituzke: “janzteko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi”, “zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin”, “norberaren arropak tolestatzen lagundu”. Beste hainbat, berriz, oro har, lortu dituzte: “oinetakoak kentzen

ikasi”, “eranzten lagundu”, “berokia, txaketa, motxila... zintzilikatzen ikasi”, “bakarrik lo egiten ikasi”. Ana, Unax, Aaron, Asier, Naroa, Rocio eta Alexek, ia item guztiak egitea lortu dute.

. Higienearekin zerikusia duten ohiturak

Atal honetako ohiturak oso pixkanaka lortzen joatekoak direla esango genuke eta ondorengoak lortu dituzte oro har, hala nola: “eskuak garbitzen ikasi”, “zakarrontzia erabiltzen ikasi”, “sudurra zikina daukala konturatzen ikasi eta laguntza eskatu”, “zikina edo garbia dagoela jakin”, esfinterrak kontrolatu (egunez). Aldiz, “eskuak lehortzen ikasi” eta “bainugelako espazioak txukun uzten ikasi” 14 umetik, 5-6 umek lortu dute egitea eta besteak, ikasteko prozesuan daude.

. Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak

Informazio hau gurasoengandik jasotakoa da eta denek erantzun dute. “Gorputzaren usain ona baloratzen ikasi”, 2 haur izan ezik besteek egiten dute; “azkazalak mozten utzi”, Rocio da uzten duen bakarra eta beste guztien kasuan, saiatzen dira; “ilea mozten eta txukuntzen utzi”, 9k uzten dute eta besteak saiatzen dira; “aurpegia, sudurra, eskuak garbitzen ikasi” (urarekin pasa) 11 haurrek egiten dute eta besteak saiatzen dira; “produktuak erabiltzen ikasi” 9k egiten dute eta besteak ikasteko prozesuan daude. Gainontzeko itemak konplexuagoak dira: “zapatak garbitu”, “arropak txukun eramaten ikasi”, “ilea txukun eramaten ikasi”, “arropak orbanik gabe mantentzen ikasi”, “orban errazak garbitzen ikasi”, ez dute erantzun eta pentsatzekoa da ez dituztela egiten.

. Norberaren autonomiarekin lotutako ohiturak

Ana eta Rocioren kasuan, 7 itemetik 4 lortu dituzte, horien artean: “gauza txikiak bakarrik egiten ikasi”, “tresna batzuen erabilera dominatu”, “behar diren gauzak erabiltzen ikasi: baberoa, orrazia..”, “garbitzen ikasi,...”; gainontzeko haurrak, saiatzen dira edo kostata egiten dituzte. Beste item batzuk: “trebetasun txikiak ikasi: txiribueltak eman,...”, “hitzak esaten ikasi, erritmo bat jarraituz...”, saiatzen dira edo kostata egiten dituzte oraingoz.

Tauletan ikusten ditugun ohiturak etengabe lantzen joatekoak direla esan dezakegu; bai kontrola eskatzen dutelako, bai egiteko jarrera baikorra behar dutelako, eguneroko egoera guztietan eginez lortzen joatekoak dira, eta ezinbestekoa, etxean ere lantzea; batzuk, hain zuzen, etxean egiteko aproposagoak dira: zapatak garbitu, arropak tolestatzen lagundu, denetatik jaten ikasi.

Ohituren heziketak, ikastolako irakasle eta ez irakasleen (atezain, jangelako arduradun, garbitzaile) eta etxeko guraso, aitona-amonen eta familiaren parte hartzea eta kolaborazioa eskatzen du.

11.14.4 Elkarrekintza-egoerak

Etxetxoan

Hasieran objektuak sartzen zituzten, orain berriz:

- Beraien artean hitz egiten dute
- Gauzak batak besteari eskatzen hasi dira
- Lekua kentzen dio batak besteari
- Egun on esaten dute
- Telefonoz deitu: “ama estoy bien, ya no me duele”

Alfonbran

- Beren argazki-albuma hartu eta ikusi
- Besteen argazkiak ikusi
- Elkarrekin ipuinak ikusi eta “zirkoa” maiz antolatzen dute: pailazoak, jirafak, aulkitxo txikiak hartu eta batek esplikatzeko, abesten dute, ...

Musika

Pirritx eta Porrotx asko gustatzen zaie eta abestiaren arabera:

- Salto egiten dute
- Gelari buelta ematen diote
- Gehienek dantza egiten dute
- Erratza hartu eta berarekin dantzan ibiltzen dira

Elkarrizketa saioetan

Orain, eserita egon daitezke eta batzuetan, batak besteari: “no quiero, estoy en el cuento”, arauak bete nahi dituzte. Adibidez, “lekua” errespetatzen dute. Txandarena, kosta egiten zaie; bat hasten bada esaten: “ayer vimos..”, besteek: “yo también”, “y yo”,... Oraindik ez daukate bestearekiko interesik (2 urteko umeen ezaugarri bat da).

Eraiketa txokoan

Bi edo hiru ume joaten direnean, hasten dira zerbait elkarrekin egiten baina, gehienez 5 minutu pasatzen dituzte, handik aurrera gatazkak sortzen hasten dira.

Piszinan/hallean

Trizikloekin liskarrak sortzen dira. Geuk parte hartu behar dugu: “Bi buelta eman eta gero zu”. “Lo he cogido yo y lo quiero” eta horrelakoak erantzuten omen dituzte.

Biko trizikloekin ere ez dute oraindik ondo funtzionatzen; ez dute nahi beste inor atzean esertzerik.

Gosarian

Hemen gehiago onartzen dute gauzak banatzea, ikasten ari dira, adibidez gailera biren artean banatzea.

Zuzenduak diren jardueretan gehiago onartzen dute, libreetan, aldiz, bakoitzak berea nahi izaten du.

Patioan

Hemen ere egoera berdintsua da, adibidez, balantzinean 20 arte kontatzen dugu, hau da, zuzenduta, bestela, bultzaka hasten dira tokia utzi dezaten...

Psikomotrizitatean

Bi andereño egoten gara, eta “kontenitu” egin behar dira, asko kontenitu-eutsi behar da.

Salto egiten dute besteak behean daudela ere; mugimendua behar dute eta Superman, ezpatetara, arrantzan... ibiltzen dira. Binaka jolasten hasi dira. Materiala gorde ere egiten dute, baina andereñoekin.

Oraindik ez dira ematen beren arteko “zaintze”, “laztantze”, “babes” emateko jolasak; andereñoa bilatzen dute. Txoko batean jarri eta “lotan” egoteko jokoak gustatzen zaie, mutilei, batez ere: “Itziar, lotan gaude...”

11.14.5 Ikuspegi orokorrak andereñoaren hitzetan

2008/VI/27

Ikasturtearen Prozesua

. Gelako espazioetako eta materialekiko eboluzioa

Lehenengo egunetan gauzak hartu, atera, bota, nahastu eta jaso gabe uzten zituzten. Orain, ikasturte bukaeran, jasotzera! esaten dugunean, badakite gauzak bere lekuetan uzten eta jasotzen, gutxi gorabehera.

. Komunean/bainugelan

Ikasturte hasieran, 6 hurrek erabiltzen zuten fardela eta abendutik aurrera joan dira pixkanaka kentzen: bat abenduaren hasieran, beste bat Aste Santu inguruan, eta beste bat maiatzaren hasieran; ekainean, 3 hurrek jarraitzen dute fardelarekin.

. Psikomotrizitate gelan

Gela hau beste eraikinean dagoenez beste irakasle baten laguntza behar da eta soka bat erabiliz egiten dugu joan-etorria. Hasieran, arropak kentzeko eta zintzilikatzeko laguntza behar zuten eta gelan mugitzeko ere. Gero, poliki-poliki ohitura hartzen joan dira eta gai dira zapatak, arropak... kendu eta beraien lekuan jartzeko.

. Patioan

Hasieran nire inguruan ibiltzen ziren "pega-pega" eginda eta patioko tresna altuetara eta kosketara ez ziren gai igotzeko. Orain, bat edo bi izan ezik beste guztiak bakarrik dabilta eta gai dira leku askotara igotzeko eta jolasteko. Ziurtasuna hartu dute eta mugimendu aldetik ere arinago mugitzen dira.

. Jangelan

Lehenengo egunetan andereñoa beraiekin joaten da jangelara eta bertan gelditzen da espazioa arrotza sentitu ez dezaten, gero, pixkanaka, haurrak gustura ikusten ditugunetik, murrizten joaten da gure presentzia. Denbora hau, haur bakoitzaren arabera, luzeagoa edo motzagoa izaten da.

. Logelan

Siestako orduaz jangelako arduradunak arduratzen dira; haurren ondoan egoten dira lo hartu arte eta besoetan lokartu behar badute ere, egiten dute. Haur batzuk txupetea eta pelutxeak behar izaten dituztenez, ematen zaizkie, ziurtasuna eta gustura egon daitezen.

Ohiturak - Autonomia

Zer lorpen txiki nabarmenduko zenituzke?

. Gelako materialari dagokionez

Hasieran txoko bakoitzeko material guztia hartu eta bota egiten zuten, nahastu egiten zituzten, baina orain, ezagutzen dute material bakoitza zein txokotakoa den eta jasotzerako orduan ondo kokatzen dute.

. Espazioei/txokoei dagokionez

Plastikan

Lehenengo 2 hiruhilabetetan, margoak erabili eta bertan jaso gabe uzten zituzten, errotulagailuak taparik gabe uzten zituzten eta ahoan eramaten zituzten gelan zehar; orain, erabili ondoren, tapa jarri eta dagokien kutxetan gordetzen dute.

Tenpera, azkeneko hiruhilabetean atera dut, lan ohiturak bereganatu dituztelako eta txandak errespetatzen dituztelako.

Etxean

Hasierako joera etxea jostailuz betetzea izan da, batez ere panpinez, eta gero, 4-5 haur sartu eta dena zapaltzea. Orain, gai dira, batera hizketan egoteko edota jolasean gauzak pilatu gabe ibiltzeko.

Ipuindegian

Hasieran, ipuinei ez zieten jaramonik egiten, hartu eta alfonbra gainean zabaltzen zituzten. Etxetik ekarritako argazki-albuma askotan ikusten zuten. Orain, alfonbran eseri, ipuina hartu eta irakurtzen ari diren itxura ematen du, hau da, gai dira bata besteari ipuina kontatzeko eta ikusteko, lasai, eta bukatu ondoren, bere lekuan uzteko.

Eraikuntzetan

Hasieran irakaslearen laguntza behar dute Duplo-ekin ibiltzeko eta beraiekin eseri behar duzu; maneja hartzen doazen heinean, irakaslearen presentzia gutxiagotzen joaten da.

Alfonbran

Gosaria eta "eraikuntzen" atalean jarritakoa egiten dugu.

. Gosariko momentuei dagokionez

Hasieran ezin izaten zuten alfonbra gainean 2 minutu baino gehiago eserita egon ez eta niri entzun ere; orain, ipuinak edota kantak abestu eta abesterakoan eserita egoteko gai dira eta baita gosaltzeko ere.

. Komuneko joan etorriari dagokionez

Gure komuna gelatik kanpo dago, pasilloaren bestaldean, eta ez da batere eroso, zeren, gelako atea ireki orduko haur guztiak nire atzetik ateratzen dira eta jolasten hasten dira. Hasieran, fardelik gabeko haur gutxi nituen, eta fardela dutenak gela barruan aldatzen ditud, baina, komunera eraman behar nituenekin, beste denak kanpora ateratzen zitzaizkidan. Orain, aldiz, ia denak dira gai komuneko buelta bakarrik egiteko eta eskatu ere egiten didate eta askotan, ez dute nire laguntza behar ere.

. Psikomotrizitateko gelari dagokionez

Zapatilla-galtzerdiak

Gai dira zapatilak kentzeko eta galtzerdiak barruan sartu eta bankuaren azpian uzteko. Badakite non salto egin, non jolastu eta nori eskatu materiala. Jasotzerako orduan, kosta egiten zaie saltoak egiteari uztea, baina saiatzen dira. Ipuina kontatzerakoan gosaria banatzen dugu eta beste andereñoak kojinekin pareta egiten du.

. Jangelari dagokionez

Mantala janzen saiatzen dira eta koilara eta sardexka erabiltzen ikasi dute. Gai dira janaria mantalaren gainera ez botatzeko eta ez zikintzeko.

. Patioko jarduerari dagokionez

Joko sinbolikorako erabiltzen dituzten jostailuak dituzte eskura eta horrela beraien beharrak asetzen dituzte: panpinak, kotxetxoak, pelutxeak, txirrinak, motorrak...

. Logelan

Hasieran ni joaten nintzen beraiengana altxatzera, orain, bakarrik altxatzen dira eta arropak eskuetan hartu eta gelara etortzen dira janztera.

Zertan eskatuko zenuke aldaketa, laguntza gehiago?

- Udaletxeari, eraikinaren mantenimendua, hau da, leiho berriak, sarrerako atea, patioa koskak kentzea, umeek arriskurik izan ez dezaten.
- Gurasoei, inplikazio gehiago eta kritika gutxiago.
- Administrazioari, Haur Hezkuntzako eta batez ere 2 urteko gelak gehiago zaintzea, hau da, laguntzaileak eskaini, altzairu egokituak jarri eta irakasleok, lurrean eserita lan egin behar dugunez, gehienetan makurtuta, belaunetan jartzeko kojina edota aulki txikiak gerriak ez mintzeko...

11.15 Arantzazuko Ama Ikastola : Hiru urteko Haurrak

2008ko otsailaren 15ean, Arantxa Gerendain 3 urteko gelako andereñoarekin jarri ginen harremanetan. Otsailaren 29rako adostu genuen elkarrizketa, gure proposamena azaltzeko asmoz.

11.15.1 Elkarrizketak eta behaketa saioaren deskribapena

2008/II/29

Elkarrizketa

12:15 Umeak agurtzen dabil iritsi naizenean. Ikastola barrutik pixka bat ikusi ondoren, gela-bulego batean jartzen gara.

Jasotzea interesatzen zaizkidan datuak, besteak beste, azken bost urteotan izandako aldaketa-berritze, egokitzapen, eta abarren berri aipatzen dizkiot, atal hauetan banatuz:

. Ikastolako eraikin eta espazioetan instalazio eta ekipamenduetan

- Egokitzapen-aldian
 - Taldeak egiterakoan
 - Prozesuaren denboran
 - Laguntzako pertsonalarengan
 - Gurasoen presentzia eta inplikazioan
 - Irakasleen arteko koordinazioan
 - Jangelako antolamenduan
 - Bazkaldu ondorengo jardueran: siesta, zaintza, jolasa...

- Ikasturteko prozesuan:
 - Metodologian
 - Haurren asistentzian
 - Autonomiaren garapenean
 - Elkarrekintza egoeretan
 - Gurasoen eguneroko harremanetan, bileretan
 - Jarduera espezifikoetan: gela/geletan, irteeretan, festa zehatzetan, azoka eguneko festan, ...
- Auzoko-inguruneko espazio eta instalazioetan
 - Lokal edo espazio berriak
 - Instalazio berriak edo egokituak
 - Komunitate eta eskolaren arteko harremanetan

Datu hauek jaso ahal izateko, horretarako prestatu ditudan taulak uzten dizkiot beha ditzan eta hurrengo bilera eguna martxoaren 31rako adosten dugu.

Elkarrizketa bukatu aurretik, gurasoen harremanei buruz galdetzen diot eta komentatzen dit, ez dela aurrera pausorik eman inplikazio mailan eta adibide bezala esaten dit, beraiek, urtero, 2 egunetako irteera egiten jarraitzen dutela Haur Hezkuntzako umeekin, baina, gero eta zailagoa dela, gurasoen beldur eta exijentzia maila handiagatik. Ikastola dezentetan utzi egin omen diote 2 egunetako irteera egiteari (denuntzia batzuk ere izan omen dira eta). Irteera egiten jarraitzearen arrazoia, umee oso ondo pasatzen dutela dela esaten dit.

2008/III/31

12:00 Haurrak eta gurasoak agurtzen dabil.

Aurreko bileran utzi nizkion materialak aztertuta dauzka eta tauletan azaltzen diren hainbat elementuen erantzunak eginda; elementu horietako hainbat aipatzearren:

- Goiz eta arratsaldeko saioen inguruko zehaztapen batzuk
- Bi gelei buruzko (3 eta 4 urteko haurren) espazioen antolaketari buruzkoak
- Geletako materialei buruzkoak
- Auzoko instalazio eta espazioei buruzkoak

Elikadura, higieena, deskantsua, ordena, autonomia eta elkarrekintzarekin lotutako ohituren garapenari buruzko aurreko bileran pasa nizekion taulak, osatzen joango dela komentatzen dit.

Bere ikasleak eta espazioen antolaketa eta funtzionamendua behatu ahal izateko, datorren apirilaren 22rako gelditzen gara.

2008/IV/22

Saioaren Deskribapena

Plastika gela - Eraikuntzen gela

9:30 Patio eta eraikinaren argazki batzuk egiten ditut.

Zirkulazio libreko saioan daude eta Arantxa andereñoa Eraikuntzen gelan dago; bertan, 3 eta 4 urteko haurrak dabilta. Momentu honetan, mahai-jolasen espazioan ari da ume batekin "Bi berdinen" jokoarekin galderak egiten: Mutila da?, ile horia du?, bizarra dauka?, burusoila da?. Erantzunen arabera, eliminatzen joaten dira pertsonaiak, zuzena dena esan arte.

Bi neska egurrezko piezekin dabilta, eraikuntza bat egiten, bi mutil beste eraikuntza batekin, 2 neska eta 2 mutil Lego piezekin dorreak eta eraikin altu bat egiten. "Orain txiki bat falta zaigu" esaten dio neska batek besteari. Neska eta mutil bat puzzle bat osatzen ari dira (denetara 11 haur daude momentu honetan gelan).

Euskaraz hitz egiten sumatzen dira gehienak.

Plastika gelan sartzen naiz eta bertan Nagore andereñoa dago: bi neska ordenagailuan daude, beste bi ipuinen txokoan, 5 neska-mutil kola ematen eta orrietan eransten, bat tenpera egiten, beste bat margotzen.

Zirkulazio libreko saioan umeak gela batetik bestera joan daitezke eta jarduera desberdinak egin. Berez, 3 urtekoen erreferentzia gela, Plastika gela da eta 4 urtekoena berriz, Eraikuntzena. Aste honetan, andereñoak, zirkulazio libre saioan ez daude "beren erreferentzia" gelan, trukaketa baizik. Saioa bukatu ondoren, 10:30-10:45 gutxi gorabehera, beren geletara pasatzen dira beraien taldearekin.

10:05 Eraikuntzen gelan:

IKASLEAK	JARDUERAK
2 neska	Egurrekin garaje bat egiten
2 neska	Egurrezko piezekin hesi luze bat egiten
Mutil bat	Lego piezekin dorre eta eraikin altu bat egiten
2 neska eta 2 mutil	Puzzleak egiten
2 mutil	Andereñoarekin kartetan
Neska bat	Arbelean marrazki bat egiten

10:10 Plastika gelan:

IKASLEAK	JARDUERAK
3 neska	Tenpera egiten
2 mutil eta neska bat	Kola ematen
2 mutil	Margotzen
2 neska	Ordenagailuan

10:25 Eraikuntza gelan: 3 haur, forma geometriko desberdinak dituzten piezak kaxatik hartu eta ereduaren arabera ahokatzen-enkajatzen dabilta. Forma horiek “pintxo” batzuk dauzkate. Kontatu egiten dituzte, ea toki egokian ahokatzen diren ikusi ahal izateko. Galderak egiten dizkie andereñoak: Hau borobila al da? Bai. Baina ez da hemen, bilatu egin behar duzu hemengo borobila. Hau zein forma da? Hirukia. Joko honekin: koloreak, formak, zenbakiak, psikomotrizitate fina, lantzen dute.

Neska batek, ni iritsi naizenetik, garajea egiten jarraitzen du. Mutil batek Lego piezekin dorrea egiten jarraitzen du ere. Denbora luzea daramate.

Arauak-aholkuak

- Soinu hori ez, hemen ez
- Hau Anderrek egin du eta zuk beste zerbait aukeratu behar duzu. Nahi duzu puzzle bat egin?
- Ez hain fuerte hitz egin

Hiru urteko haurrak maiz etortzen dira bere andereñoarengana plastika gelan egiten dutena erakustera.

10:30 Jaso egin behar dugu; jasotzeko ordua da. Jasotzera! erantzuten dute bi neskek.

Bukatu duzue? Nahi baduzue arratsaldean jarraituko duzue.

“Izen polita” esaten du Anderrek bere buruarengatik eta niregana hurbiltzen da ea nirea zein den galdetuz.

Eskuetan, linternak erabiltzen duten pila bat eta bonbilla txiki bat dauka Udaneke eta erakustera dator. Kontaktua egiten du eta piztu egiten da. Eserita, probak egiten ari dira Arantxarekin; denak inguruan dauzka. Argia! Esaten dute.

Patioko garaian Arantxari galdetzen diot ea nola lantzen ari diren “Argiaren” gaia eta esaten dit, batez ere, 4 urteko hurrekin sortu zela interesa. “Agenda 21”-eko programak sustatzen dituen helburuak kontuan hartuz, adibidez, “gelatik ateratzean argiak itzaltzea” martxan jarri zuten gaietako bat da. Dena den, nahiz eta berez 4 urtekoekin landu gaia, bere 3 urteko haur bat ere oso interesatua omen dago. Gauza asko galdetu eta erantzuten omen ditu argindarra eta beste energia iturriei buruz, adibidez, energia eolikoa, etab.

Paretan, orri handi batean, “ARGIA” gaiarekin lotutako esaldi hauek daude:

ZER DAKIGU ?	ZER JAKIN NAHI DUGU ?
Argia gastatu egiten da	Bonbilak pilarekin piztu daitezke?
Puskatu egiten da	Zer dago kableen barruan?
Argia egoteko entxufea behar dugu	Zer da elektrizitatea?
Kable barruan argia doa azkar-azkar	
Argia ez badago ezin dugu sukaldean janaria egin	
Entxufeak behar dira, bestela ezin dira piztu tresnak	

10:40 Gaur Hodei da arduraduna. Andereñoak: gogoratzen atzo zer esan nizun? Egingo dugu borobil itxi bat?

Abestia

“Bat eta bi, ondo eseri...” Denak gaude? Zein falta da? Amets. Ume batek, zergatik? eta, Itsaso ere falta da. Galdetuko dugu ea zergatik ez diren etorri.

Gaur 14 haur daude.

Asistentzia

Hodeik banatuko ditu izenak. Ezagutzen dituzun izenak banatu. Kaxa batean daude denen izenak eta arduradunak bat hartzen du, Ekaitzena da eta berari ematen dio. Iriarena hartzen du baina ez du izen hau ezagutzen. Norena da hau? galdetzen du eta andereñoaren laguntzarekin ematen dio. Beste bat hartzen du eta Arantxak galdetzen dio: Badakizu norena den? “A” hizkiarekin dela esateko, “a”-rekin hasten diren izen batzuk esaten ditu. Aitorrek altxatzen du eskua berea dela esanez eta ematen dio. Haur bakoitzak, altxa eta panelean, etorri direnen aldean itsasten du bere izena.

Etorri direnak			
Ekaitz	Hodei	Onintza	Iria
Aitor	June	Nahia	Imanol
Beñat	Alex	Narora	
Ander	Naiara	Nicole	
14			

Etorri ez direnak
Itsaso
Amets
2

Aitorrek: “oso gaizki, borobila oso gaizki dago”

Elkarrizketa:

A-k: Eskaiola nola kendu zizuten atzo? Mina egin zizuten? Pixka bat. Norekin joan zinen? Amonarekin. Zerbait gehiago kontatu nahi duzu? Bai, mediku bat, andrea. Zer esan zuen? Beste neska batek: ez egiteko plakarik.

Ni joango naiz animaliak ikustera dio beste batek. Nola, abioian? “Ez, abioian Paris”

Mutil batek. Abioia puskatu egiten da...

A-k: Orain Nahiaren txanda da. Nahiak: Joan nintzen egun batean Cabarcenora eta animalia asko. Beñatek: Ez dago zaldia, bakarrik lehoia.

Naiarak: tximu txiki bat eta handi bat.

A-k: Gaur June oso triste etorri da eta nahi dut jakin zergatik. Junek: Ez dut nahi biberioia. A-k: Orain nola edango duzu, edalontzitik? Junek: Bai. A-k: Horrek merezi du txalo bat; amatxori esan ez duzula biberioian nahi eta edalontzian nahi duzula. Hasi behar duzue biberioia uzten, hemen ez dago txikirik eta.

11:05 Denek nahi dute hitz egin eta aztoratu samarrak daude. A-k: Ekaitz, zerbait daukazu kontatzeko? Ez dakit besteek prest dauden entzuteko. Prest zaude Beñat? Ez du erantzuten. Beregana ekartzen du andereñoak lasaitu dadin.

Horrela utzi beharko dugu elkarrizketa.


Gaur ezingo gara patiora joan, orain eguzkia dago baina putzuak daude, euri asko egin du eta.

11:10 Gosaria: Gaur bi gaileta mota dauzkagu: borobilak eta karratuak eta aukeratu ditzakezue. Hodeik galdetuko dizue zer nahi duzuen. Hodei banan-banan hasten da galdetzen: zer nahi duzu, borobila edo karratua?


11:15 Komunera, pixa egin, batzuk ura edan eta beheko “pizina-hall”-ean gelditzen dira.

Triziklo, kotxe, etab. ateratzen dituzte eta pizinari buelta emanaz dabilta.

Beheko solairuko espazioak



2. solairuko espazioak



Oharra

"Agenda 21" ikastetxearen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza programa bat da. Ingurumen hezkuntzako programa denez, komunitatearen partaidetzan oinarritzen da. Proiektuaren ardatz nagusiak hauexek dira: Eskola-ingurunearen kudeaketa iraunkorra; gure hiriko eta auzoko kudeaketa eta geure

konpromisoa. Programaren helburuetako bat, kontsumoa murriztuz hondakinak gutxitzea da.

Eskolako Agenda 21 proiektuan, Donostiako 15 ikastetxek hartzen dute parte momentu honetan.

11.15.2 Ikasleak eta Autonomia-ohiturak

HIRU URTEKO IKASLEAK	JAIOTZE DATA
Naroa	2004/X/06
June	2004/VIII/17
Aitor	2004/IV/07
Amets	2004/V/08
Itxaso	2004/IX/11
Iria	2004/X/21
Naiara	2004/I/04
Alan	2004/II/24
Beñat	2004/IX/11
Onintza	2004/VI/09
Nicole	2004/XII/06
Imanol	2004/VII/26
Ander	2004/I/13
Odei	2004/V/09
Nahia	2004/I/13
Ekaitz	2004/XI/06

2007/08 Ikasturtea

2 - 3. hiruhilabetea: Higienearekin zerikusia duten ohituren heziketa - 3 urteko haurrak

2-4 urteko haurrekin lantzen hastekoak

JARDUERAK/ IKASLEAK	Amets	Beñat	Ander	Alan	Odei	Ekaitz	Imanol	Aitor	June	Naiara	Nahia	Nicole	Naroa	Isaso	Iria	Onintza
Orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Eskuak garbitzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B

JARDUERAK/ IKASLEAK	Ametz	Beñat	Ander	Alan	Odei	Ekaitz	Imanol	Aitor	June	Naiara	Nahia	Nicole	Naroa	Itaso	Iria	Onintza
eskatu																
Eskuak lehortzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Esfinterrak kontrolatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Zikina edo garbia dagoela jakin	B*	B*	B*	B*	B*	B*	B*	B*	B*	B*	B*	B*	B*	B*	B*	B*
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi	**															

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da; (T) Tarteka egiten du

* = Eskuak bai, orokorrean ez ; ** = Orokorrean ez dute jasotzen

2007/08 ikasturtea

3. hiruhilabetea: Deskantsuarekin zerikusia duten ohituren heziketa - 3 urteko haurrak

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

JARDUERAK/ IKASLEAK	Ametz	Beñat	Ander	Alan	Odei	Ekaitz	Imanol	Aitor	June	Naiara	Nahia	Nicole	Naroa	Itaso	Iria	Onintza
Zapatak kentzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Galtzerdiak kentzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Berokia eta txaketa kentzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Janzten ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Berokia, txaketa, poltsa, mantala... zintzilikatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak erantzi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Janzteko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I

JARDUERAK/ IKASLEAK	Ametz	Benat	Ander	Alan	Odei	Ekaitz	Imanol	Aitor	June	Naiara	Nahia	Nicole	Naroa	Itsaso	Iria	Onintza
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi		B			E		E		E			E	E			
Bakarrik lo egiten ikasi		B			B		B		B			B	B			
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi		B			B		B		B			B	B			
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi		E			E		E		E			E	E			
Norberaren arropak tolestatzeko lagundu		E			E		E		E			E	E			

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (T) Tarteka egiten du
Oharra: Betetzeko dauden laukitxoak jangelan gelditzen ez diren haurrak dira

2007/08 ikasturtea

3. hiruhilabetea: Norberaren autonomiarekin lotutako ohiturak - 3 urteko haurrak

3-6 urte bitartean hasi eta kontsolidatzen joatekoak

ITEMAK/ IKASLEAK	Ametz	Benat	Ander	Alan	Odei	Ekaitz	Imanol	Aitor	June	Naiara	Nahia	Nicole	Naroa	Itsaso	Iria	Onintza
Norbere trebetasunak deskubritzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Lanaren aurrean ardurak hartzen ikasi	B	S	B	S	S	E	S	E	E	B	B	B	B	S	E	B
Elkarbizitzarako arauak errespetatzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Tonu egokian hitz egiten ikasi	B	B	B	B	B	E	S	B	B	B	B	S	B	S	S	S
Zerbait lortzeko haserreak ez harrapatzen ikasi	B	E	B	S	B	E	E	E	S	S	B	S	B	B	B	E
Autokontrolatzen ikasten joan	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Txanda itxoitzen ikasi	S	S	S	S	S	E	E	E	S	S	S	S	S	S	S	S
Txandak errespetatzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Gauzak azkar egiten ikasi itxoitzen ari direnekin pentsatuz	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da

* = "Jokoan, heldua beraiekin dagoenean gauzak azkar egiten badituzte, ez da besteengan pentsatuz"

2007/08 ikasturtea

3. hiruhilabetea: Norberaren autonomiarekin lotutako ohiturak - 3 urteko haurrak

3-6 urte bitartean hasi eta kontsolidatzen joatekoak

ITEMAK/ IKASLEAK	Ametz	Beñat	Ander	Alan	Odei	Ekaitz	Imanol	Aitor	June	Natara	Nahia	Nicole	Narara	Itsaso	Iria	Orintza
Norbere trebetasunak deskubritzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Lanaren aurrean ardurak hartzen ikasi	B	S	B	S	S	E	S	E	E	B	B	B	B	S	E	B
Elkarbizitzarako arauak errespetatzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Tonu egokian hitz egiten ikasi	B	B	B	B	B	E	S	B	B	B	B	S	B	S	S	S
Zerbait lortzeko haserreak ez harrapatzen ikasi	B	E	B	S	B	E	E	E	S	S	B	S	B	B	B	E
Autokontrolatzen ikasten joan	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Txanda itxoiten ikasi	S	S	S	S	S	E	E	E	S	S	S	S	S	S	S	S
Txandak errespetatzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Gauzak azkar egiten ikasi itxoiten ari direnekin pentsatuz	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*	E*

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da

* = "Jokoan, heldua beraiekin dagoenean gauzak azkar egiten badituzte, ez da besteengan pentsatuz"

2007/08 ikasturtea

3. hiruhilabetea: Taldeko esperiantziak errazteko ohiturak - 3 urteko haurrak

3-6 urte bitartean hasi eta kontsolidatzen joatekoak

JARDUERAK/ IKASLEAK	Ametz	Beñat	Ander	Alan	Odei	Ekaitz	Imanol	Aitor	June	Natara	Nahia	Nicole	Narara	Itsaso	Iria	Orintza
Elkarrekin zerbait egiten ikasi: dantza, antzerkia, muralak, collage-ak,...	B	S	B	B	B	S	B	S	B	B	B	B	B	B	B	B
Elkarrekin ipuin bat, olerki bat kontatu	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Elkarrekin abesten ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Festak denen artean egiten ikasi	B	S	B	B	B	S	B	S	B	B	B	B	B	B	B	B

(B) Egiten du; (S) Saiatzen da

2007/08 ikasturtea

3. hiruhilabetea: Ordenarekin zerikusia duten ohiturak - 3 urteko haurrak

3-6 urte bitartean hasi eta kontsolidatzen joatekoak

JARDUERAK/ IKASLEAK	Amets	Beñat	Ander	Alan	Odei	Ekaitz	Inanol	Aitor	June	Naiara	Nahia	Nicole	Naroa	Isaso	Iria	Onintza
Gauza bakoitzaren lekua errespetatzen ikasi: jostailuak, poltsa	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Gauza bakoitzaren lekua aurkitzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Gauza bakoitza erabili ondoren bere lekuan uzten ikasi	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Gauzak sailkatzen eta ordenatzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Lanak txukun egiten ikasi	G	G	S	S	S	G	S	G	S	S	S	S	S	S	S	G
Gauza edo instrumentu bakoitza egoki erabiltzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Zakarrontziak erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Liburu/ipuina zikindu gabe eta hautsi gabe erabiltzen ikasi	B	S	B	S	S	G	S	B	B	B	B	S	B	B	B	B
Marrazkiak eta lanak bere apal edo kaxetan gordetzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Kolperik eman gabe ireki eta ixten ikasi: ate, leiho, armairu	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Soinurik egin gabe ibiltzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Pasatzen eta besteei pasatzen uzten ikasi	E *	E *	E *	E *	E *	E *	E *	E *	E *	E *	E *	E *	E *	E *	E *	E *

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (G) Gutxi egiten du

* = Gutxi landu dugu

Oharra: Ikasturtean zehar irakasten dizkiegun ekintzak dira, baina lortu, orokorrean, oraindik ez.

2007/08 ikasturtea

Gurasoengandik jasotako informazioa

3. hiruhilabetea: Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak - 3 urteko haurrak

1 urterekin hasi eta bereganatzen joatekoak:

ITEMAK/ IKASLEAK	Amets	Beñat	Ander	Alan	Odei	Ekaiz	Imanol	Aitor	June	Naiara	Nahia	Nicole	Narora	Itsaso	Iria	Onintza
Garbia dagoenean disfrutatzen ikasi		B	B	E		B	E	E		S	E	B	E	B	B	S
Garbitzen edo orrazten eskatzen ikasi		B	B	B		B	B	B		S	E	B	E	E	E	S
Gorputzaren usain ona baloratzen ikasi		B	B	B		B	B	B		S	B	B	B	B	B	B
Beste haurren presentzia txukuna baloratzen ikasi		E	E	E		E	E	E		E	E	E	E	E	E	E
Azkazalak moztu utzi		E	B	B		B	B	B		E	B	B	B	B	B	B
Ilea moztu eta txukuntzen utzi		B	B	B		B	E	B		S	B	B	B	B	S	B
Zapatak garbiak eramaten eta ondo jartzen ikasi		S	E	B		S	E	E		E	B	E	E	B	E	B
Aurpegia, sudurra, eskuak garbitzen ikasi (bere gisa, zikinak daudenean)		B	B	B		B	B	B		B	B	B	B	B	B	B
Arropak txukun ordenatzen ikasi		E	E	E		B	S	S		E	B	S	S	E	S	B
Zikina sentitzen denean azpiko arropak aldatzen ikasi		S	B	B		B	B	B		B	B	B	B	B	B	B
Ilea txukun eramaten ikasi							B	B		B	E	B	E	E	S	B
Azkazalak garbiak eta ondo moztuta eramaten ikasi		S	B	B		B	B	B		B	B	B	B	S	B	S
Zapatak garbitzen ikasi		E	E	E		E	B	E		E	E	E	E	E	E	E
Gaineko arropak orbanik gabe mantentzen ikasi		B	E	E		S	E	E		E	E	E	S	B	S	B
Orban errazak garbitzen ikasi		B	E	E		E	E	E		E	E					
Arropa politak, kolore konbinaketa eta irudiak baloratzen ikasi		B	B	B		B	S	S		B	B	B	B	B	E	B
Produktuak erabiltzen ikasi: hidratatzaileak, eguzki-babesleak...		B	B	B		B	B	B		S	B	B	B	S	B	B

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (G) Gutxitan egiten du

11.15.3 Autonomiaren bilakaera eta ondorio partzialak

. Higienarekin zerikusia duten ohiturak

Lehenengo 7 itemak haur guztiek egiten dituzte eta 8.a “zikina edo garbia dagoela jakin”, andereñoak esaten dit, eskuen kasuan baietz, denak konturatzen direla baina, bestela, orokorrean ezetz. 9. itema, “bainugelako espazioak txukun uzten ikasi”, orokorrean ez dutela jasotzen dio; zaila dela, oso gainean egon behar dela lortu ahal izateko.

. Deskantsuarekin zerikusia duten ohiturak

Haur guztiek lortu dute lehenengo 6 itemak egitea eta 7.a eta 8.a ikasten ari dira, hau da, “janzteko arropen alde ona edo txarra bereiztea” eta “oinetakoak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakitea”. Gainontzeko itemen kasuan, jangelan gelditzen diren haurren datuak dauzkagu, siestako momentuarekin lotuta baitaude; “lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi”, Beñatek egiten du eta gainontzeko haurrek ez. “Bakarrik lo egiten ikasi” eta “negarrik egin gabe esnatzen ikasi”, denek egiten dute. “Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi” eta “norberaren arropak tolestatzen lagundu”, ez dituzte oraindik lortu.

. Norberaren autonomiarekin zerikusia duten ohiturak

Taulan jasotako datuen arabera ikusten dugu, “S” agertzen zaigula oro har, hau da, saiatzen direla ohitura gehienak egiten, baina oraindik ez dutela lortu. Iruditzen zaigu ohitura batzuk lortzea nahiko zaila dela 3 urteko haurrak direla kontuan hartuz, besteak beste: trebetasunak deskubritzen ikasi, elkarbizitzarako arauak errespetatzen ikasi, autokontrolatzen ikasten joan eta gauzak azkar egiten ikasi besteek itxuiten daudela kontuan hartuz. Azken honi buruz, andereñoak esaten dit, jokoetan, andereñoa beraiekin dagoela gauzak azkar egiten badituzte ere, ez dela besteengan pentsatzen ari direlako. “Tonu egokian hitz egiten ikasi” itema, azpimarratzekoa da, 10 haurrek egiten dutela.

. Pertsonen arteko erlazioak errazten dituzten ohiturak

Lehenengo bi itemak: “Agurtzen ikasi” eta “galdetzen digutenean erantzuten ikasi”, haur guztien kasuan ikusten dugu, saiatzen direla. 3. eta 4., “besteek zerbait behar dutenean atentzioa ematen ikasi”, eta “besteen alderdi positiboak estimatzen eta baloratzen ikasi”, andereñoak komentatzen dit lantzen dutela eta saiatzen direla, baina oraindik ez dagoela inor egiten duenik. 5. eta 6. ohiturak: “besteen lana eta jolasa errespetatzen ikasi” eta “besteak lanean ari direnean eta deskantsatzen daudenean

isilik egoten ikasi”, gehienak saiatzen dira. Denek lortu duten ohitura da “beste hurrekin jolasten eta lanean ikasi” eta 8.a “gatazken aurrean zintzotasunez jokatzeko ikasi”, Amets eta Anderrek egiten dute eta beste gainontzekoek ez dute oraindik egiten. Azkenekoa, “besteekiko harremanetan lagunkoia izaten ikasi” 7 hurrek egiten dute eta beste haur gehienak, saiatzen dira.

. Taldeko esperientziak errazteko ohiturak

Lehenengo itema, “elkarrekin gauzak egiten ikasi: dantza, antzerkia, horma-irudiak, collage lanak...” Taulan ikusten dugu, 3 ume daudela ‘saiatze’ prozesuan, eta besteek egiten dutela. 2. eta 3. itemak: “elkarrekin ipuin bat kontatu” eta “elkarrekin abesten ikasi”, denek egiten dute. “Festak denon artean egiten ikasi”, lehenengo itemean agertzen diren haurrak izan ezik (Beñat, Ekaitz eta Aitor) beste denek egiten dute.

. Ordenarekin zerikusia duten ohiturak

Lehenengo bi itemak haur guztiek lortu dituzte, hau da, “gauza bakoitzaren lekua errespetatzen ikasi” eta “gauza bakoitzaren lekua aurkitzen ikasi”; aldiz, 3. eta 4.: “gauzak erabili ondoren bere lekuan uzten ikasi” eta “gauzak sailkatzen eta ordenatzen ikasi” saiatze prozesuan daude. “Lanak txukun egiten ikasi” eta “gauza edo instrumentu bakoitza egoki erabiltzen ikasi”, gehienak “saiatzen” dira eta 5 hurrek “gutxitan” egiten dute. “Zakarrontzia erabiltzen ikasi” eta “marrazkiak eta lanak apal edo kaxetan gordetzen ikasi”, denek egiten dute. “Liburu/ipuina zikindu gabe eta hautsi gabe erabiltzen ikasi” 10 hurrek lortu dute eta gainontzekoak “saiatzen” dira edo “gutxitan” egiten dute. “Kolperik eman gabe ireki eta ixten ikasi” eta “soinurik egin gabe ibiltzen ikasi” denak saiatzen dira baina, oraindik, ez dute lortu. Azkeneko itema, berriz, “pasatzen eta besteek pasatzen uzten ikasi”, andereñoak, gutxi landu dutela esan dit.

. Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak

Taula honetan agertzen diren datuak gurasoengandik jasoak dira eta bi haurren gurasoak izan ezik beste denek erantzun dute. 13 hurretik 10ek, 17 itemetik 9-11 egitea lortu dute. Ia denek lortu dituzten itemak hauek dira: “azkazalak mozten utzi”, “ilea mozten eta txukuntzen utzi”, “aurpegia, sudurra, eskuak garbitzen ikasi” (denek lortu dute) eta “produktuak erabiltzen ikasi”, “arropa politak, konbinaketa eta irudiak baloratzen ikasi”, ia denek egiten dute. Aurrerapen esanguratsuak egin dituzte, hala

ere, badaude zailak diren ohiturak adin honetan: arropak txukun ordenatzen ikasi, zapatak garbitzen ikasi, orbanak garbitzen ikasi.

Aurreko taulek jasotzen duten informazioa hiru urterekin lantzen hasteko ohituen heziketari lotua dagoenez, gure ustez, espero zitekeen eboluzioaren barruan dagoela esan dezakegu.

Ohitura guzti hauek etengabe lantzen joatekoak dira eta denen arteko ahalegin handia eskatzen dute; bai "kontrola" eta heldutasuna eskatzen dutelako, nahiz jarrera baikorra behar dutelako, eguneroko egoera guztietan eginez lortzen joatekoak dira eta ezinbestekoa, etxean ere lantzen joatea; batzuk, hain zuzen, etxean egiteko aproposagoak dira: zapatak garbitu, arropak tolestatzen lagundu, denetatik jaten ikasi.

Ohituen heziketak, ikastolako irakasle eta ez irakasleen (atezain, jangelako arduradun, garbitzaile) eta etxeko guraso, aitona-amonen eta familiaren parte hartzea eta kolaborazioa eskatzen du.

11.15.4 Ikuspegi orokorrak andereñoaren hitzetan 2008/VI/19

Ikasturtearen Prozesua

. Geletan

Plastika gelan

- Hondakin materialekin itsatsi
- Marrazkiaren prozesua, zirriborro kontrolatua eta izena jarri
- Irudiak bete, sortu
- Tenpera oso gustukoa: oso margolan koloretsuak egiten dituzte
- Plastilina: guk egon behar dugu beraiekin, oso lotuta daude alde batetik haurraren marrazki maila eta bestetik plastilinarekin egin dezakeena

Eraikuntzen gelan

- Egurrak garraiatu
- Egurrak pilatu
- Andereñoen laguntzarekin, gorakako eraikuntzak, geroago elementu gehiagorekin osatzen joan dira

Andereñoak: Lau urtekoek zer egiten duten "ikustea" ez da nahikoa beraiek "sortu" ahal izateko, ahalmena behar da.

Haur batengatik: Buruan "dena dauka" eta adierazpenean, marrazkian agian ez, baina, egurrezko produktiotan bai, buruan daukan hori adierazteko gai dela erakusten du.

. Komun/bainugelan

Inork ez dauka fardelik jada eta ondo moldatzen dira; kaka egiten dutenean andereñoak berak garbitzen die ipurdia.

. Psikomotrizitate gelan

Bi urterekin mugimendua eta babesa bilatzen dute, orain 3rekin eta ikasturte amaiera aldera jolas sinbolikoari denbora eskaintzen diote. Haur bat dago oreka arazoak dauzkana eta berarekin egiten ditu ariketa espezifikoak.

. Patioan

Beraien arteko harremanak hasi dira. Batzuk oraindik jostailuekin babesa bilatzen dute. Helduagoak direnak hasi dira bakarkako jardueretatik taldeko jolasetan parte hartzen.

. Jangelan

Aparteko arazorik gabe, oro har, jale onak direla esaten dit. Haur batek egin omen zuen atzera pauso handia, orokorra: triste ikusten zen, ikastolara ez zuen etorri nahi, negar egiten zuen, eta gurasoekin hitz egin ondoren, erabaki zuten umea bazkaltzera etxera eramatea. Gai hau, aholkulariak darama momentu honetan, hauraren gurasoekin hainbat bilera egin ditu eta jarraipena izango du datorren ikasturtean ere. Arantxak dio, kostata, baina haurra nahiko ondo dagoela.

Taldearen bilakaera

Talde orekatua da, 8 neska eta 8 mutil.

Ikasturte hasieran 2 haur berri etorri dira, baina ondo egokitu dira taldera. Bat haurtzaindegitik zetorren eta bestea kanpotik etorri berria zen. Honentzat dena berria zen: hizkuntza, auzoa..., hala ere, oso alaia da eta ondo egokitu da.

Bi urteko gelatik hiru urteko gelara dagoen aldaketa handiena zirkulazio librea da, bi gelatan lan egitea alegia. Hasiera batean kosta egiten zaie: lana aukeratzea, gela, lagunak..., horregatik, martxa hartu arte oso gainean egon behar izaten dutela komentatzen dit.

Lehenengo hiruhilabetean, 3 urteko gelan, bi urteko gelako jostailu/material batzuk sartu zituzten: garajea, kotxeak... martxa pixka bat hartu arte.

Talde honetan badago ume bat "jolas sinbolikoaren" beharra duena eta edozein materialekin jolasten dena, baina orokorrean, koltxoneta gela (psikomotrizitate gela) eta patioko jarduerak ematen dien aukerekin, andereñoak uste du, nahikoa dela.

Aholkularia

Hirugarren hiruhilabetean jo du andereñoak Arantxa Gisasola aholkulariarengana bi haurren zailtasunak direla eta:

- Batek, ez du besteekin harremanetan jartzeko beharrik eta, egiten duenean, kosta egiten zaio; kontzentratzea asko kostatzen zaio.
- Bestea, goian aipatutako haurra da, jangelan atzera pausoa egin zuena, gaur egun, oraindik purea bakarrik jaten omen du.

Laguntza izan da; gurasoekin azken bileran aholkularia bera ere egon omen zen eta informazioa jaso eta hurrengo ikasturtean ere ume horien jarraipena egingo omen du.

Iraileko harrera

Bi haur berrien egokitzapena errazteko, PT baten lanak betetzen dituen irakasle baten laguntza izan dute.

Ikasturtean zehar jaso duten laguntza

Astean behin, goiz batean jaso dute Axun andereñoaren laguntza eta ongi etorri omen zaie ekintza bereziak momentu puntualetan aurrera eramateko. Horrez gain, denbora eskaini omen diete materiala prestatzeko eta andereñoaren ordu libreak betetzeko.

Arazoak

Egon dira koskak..., baina denak, normaltasun baten barruan. Borroka egiterakoan, bakoitza dakien edo ahal duen moduan defenditzen dela dio.

Beraien lana egoera horien aurrean, hitza erabiltzen irakastea izan da.

Borobilean

Gehien kostatzen zaiena, denek arreta mantentzea da. Batek hitz egiten duenean besteak entzutea, elkarrizketa bat mantentzea.

Ikasturte bukaeran hasi dira bata besteari galderak egiten, baina gutxi.

Zaila da ere denen intereseko gai bat aurkitzea, oraindik nahiko egozentrizistak baitira eta gehienetan bakoitzak bere esperientziak kontatzen ditu.

Sentimenduen adierazpena

Batzuk errazago egiten dute besteak baino, hala ere, haserrea eta poza nahiko erraz antzematen zaie. Haserreak bideratzea zaila da, bakoitzak bere erantzuna behar duelako.

Dantza eta kontaktu fisikoak

Zenbait haur berehala sentitzen dira erasotuak, edozein kontakturekin, eta horrelako momentuetan, konfliktu ugari sortzen direla esaten dit.

Ikasle kopurua aurreko urteekiko

2001/02 ikasturtean 3 urteko 9 ikasle zeuzkan Arantxa andereñoak eta oraingoan, aldiz, 16. Denek hitz egiterako orduan eragina du ikasle kopuruak, askotan, luze jotzen du bakoitzak berea kontatzea eta besteek itxoin behar izate hori arazoa da.

Irakasleen arteko koordinazioa

Astean behin elkartzten dira formalki, espazioen antolaketaz eta umeei buruz hitz egiteko. Bi edo hiru haur aukeratzen dituzte eta astebetez horien behaketa egiten dute. Aldez aurretik komentatzen dute, zerbait zehatza jakin nahi badute. Beraien kasuan, bilera hauek 3 eta 4 urtekoen andereñoen artean egiten dituzte.

Andereño hauen artean, zirkulazio librearen saioretako umeen informazio trukaketa etengabekoa da.

Astean behin egiten dute informazio bilera orokorra Martuteneko 2 eraikinetako irakasleek, Haur Hezkuntzakoek eta Lehen Hezkuntzakoek.

Antzuolako eskolarekiko harremanak

Momentu honetan beraien ziklokoek ez daukate harreman zuzenik.

Berrikuntza obrak eraikinean

Uda honetan aldatuko omen dituzte leihoak. Auzoko konponketak izan direla eta sarrerako atea aldatuko omen diete eta horrekin batera, patioak dituen koxka eta eskailerak kenduko omen dituzte.

11.15.5 Aldaketa eta ondorioak

Elementu fisikoak

.Komunak

Berritu egin dituzte eta egokiak dira. Bi urteko umeekin, egokiagoa izango litzateke, sarrera gelatik edukitzea. Dena den, ikusten dugu, estrukturalki edo teknikoki ezinezkoa dela.

. Barrera arkitektonikoak

Ikastolara kaletik sartzeko dauden eskailerak ekiditeko, arrapala bat egiten ari dira eta honek "barrera" bat ekiditen du, ez ordea dauden guztiak. Patiotik eraikin barrura sartzeko 3 eskailera daude eta horiek ezin omen dira kendu arrapala bat jarriz (ez omen dago nahikoa distantzia edo gradu).

. Patioa

Buelta guztia ezin dute aprobetxatu arriskutsua delako (eskailera maila bat baino gehiago dago eta oso erne ibili behar dute andereñoek ume txiki horiek erori ez daitezen).

Putzuak ekiditeko sistemaren bat jarri beharko litzateke.

Estaliagoa egon beharko luke eguraldi txarretarako, ez bakarrik euriarengatik baizik eta hotz egiten duenerako ere.

. Gelak

Bi urteko geletako alfonbra, mahai, aulki, banku, eta altzariak berritu dituzte eta egokiak dira.

Harremanak

Geletan eta espazio desberdinetan sortzen diren elkarrizketak: etxeko txokoan, talde ekintza/borobiletan, gosariko momentuetan, psikomotrizitate saioetan, etab., umeen interes, egoera eta zailtasunak azalazteko une egokiak dira eta bide ematen digute egoera horiek landuz, haurrari aurre egiten laguntzeko.

Gurasoen inplikazioan ez dute nabarmentzen aurrerapauso handirik.

Bi egunetako irteera jartzen du adibide bezala Arantxa andereñoak. Gero eta zailagoa egiten omen da gurasoen beldur eta exigentzia maila handiarengatik.

Espazioen antolaketa eta funtzionaltasuna

Hiru eta lau urteko haurrak zirkulazio libreko saioetan elkarrekin aritzeak, interes desberdinak sortzeko eta jarduera konplexuagoak garatzeko aukera ematen du. Hiru urtekoek, lau urtekoen jarduerak, elkarrizketak eta egoera desberdinak zuzenean ikusteko eta behatzeko aukera daukate eta "handiek", trebetasunak gehiago garatzeko eta kooperazio, elkarrekintza eta hainbat balore landuz, beraien autoestimua garatzeko aukera izan dezakete, besteak beste.

11.16 Harri Berri Oleta - Ikastetxea

11.16.1 Elkarrizketak eta behaketa saioen deskribapenak

2008/II/27

Nire asmoak eta helburuak azaltzen dizkiot 2 urteko haurren Yolanda andereñoari eta erabat prest azaltzen da nirekin kolaboratzeko.

Ikasturtean zehar taulen bidez eta behaketa saio eta elkarrizketen bidez jaso nahi dudan informazioaren inguruko hainbat puntu ere azaltzen dizkiot, besteak beste:

. Ikastolako eraikin eta espazioetan instalazio eta ekipamenduetan

. Auzoko-inguruneko espazio eta instalazioetan:

- Lokal edo espazio berriak
- Instalazio berriak edo egokituak
- Komunitate eta eskolaren arteko harremanetan

. Egokitzapen-aldian

- Taldeak egiterakoan
- Prozesuaren denboran
- Laguntzako pertsonalarengan
- Gurasoen presentzian eta inplikazioan
- Irakasleen arteko koordinazioan
- Jangelako antolamenduan
- Bazkaldu ondorengo jardueran: siesta, zaintza, jolasa...

. Ikasturteko prozesuan:

- Metodologian
- Haurren asistentzian
- Autonomiaren garapenean

- Elkarrekintza egoeretan
- Gurasoen eguneroko harremanetan, bileretan
- Jarduera espezifikoen: gela/geletan, irteeretan, festa zehatzetan, azoka eguneko festan, ...

Hurrengo bileraren eguna finkatzen dugu, martxoaren 4a, eguerdiko 12etarako.

2008/III/04

Eraikinean sartu naizenean kazkabarra ari zuen eta hall-piszinara ura sartzen da. Balde bat jarri du Mikel atezainak.

12:00 Yolanda andereñoa umeak agurtzen dabil. Bere gelan egin dugu elkarrizketa.

Prestatutako taulak eta jaso beharreko datuak azaltzen dizkiot eta dena aztertuko duela eta Aste Santua pasa ondoren berriro egotekotan gelditzen gara.

Elkarrizketan atera diren hainbat gai:

- Gelako hainbat elementuren disposizioaren aldaketa eta zergatiak: umeak aldatzeko mahaia, umeak sartu eta ateratzen badira gelatik hobeto kontrolatu ahal izateko; lehen zegoen piszinaren ordean orain txirrista bat...
- Umeak, ikasturte honetan, erregulariki etortzen direla (oso gutxi falta izan direla ikasturte hasieratik).
- Prozesua (egokitzapena) ondo doala dio eta hurrek aurrerapen handiak egin dituztela.
- Oso pozik eta gustura dagoela bera, bai haur eta gurasoekin ere; harreman onak dauzkala azaltzen dit.

Nire bigarren bisita honetan, haurren prozesua aztertu ahal izateko, autonomiarekin lotura daukaten hainbat ohitura jasotzen dituzten taulak uzten dizkiot, bai berak geletan, bai jangelako arduradunarekin eta gurasoengandik jasotzeko informazioa, hain zuzen ere.

Saioaren deskribapena

2008/IV/17

9:30 Eskolako sarrera, patioa eta inguruko parkeko argazkiak egiten ditut. Ez da aldaketarik egon.

Eskolara sartu ahal izateko 7 eskailera daude. Ate ondoan umeen 4 kotxetxo daude.

Sartu naizenean, Yolanda agurtu eta umeak egiten ari zirena egiten jarraitu dute, alteratu gabe. Ohituta daude amak eta familiakoak gelan sartzen ikusten eta gauza normaltzat hartu dute. Gaur 10 haur daude, bi falta dira.

Bi haur plastilina egiten ari dira, 4 neska margotzen, 2 etxe barruan daude panpina eta kotxeekin eta 2 ipuinak ikusten ari dira. Musika suabe-suabe daukate.

10:00 Atzo nor izan zen makinista? Ane, dio neska batek. Trenaren jokoarekin hasten dira. Trena, plastifikatutako bagoiez osatuta dago eta beraien bi argazki daude bakoitzean. Trenaren jarduera lantzeko ume baten argazkia hartzen du Yolandak eskuetan eta galderak egiten joaten da: “Tik-tak, tik-tak, Ane naiz, sartu nahi dut, hemen ez dago lekurik (bagoia beteta dago). “Tik-tak, tik-tak. Nor da? Ane naiz. Zer nahi duzu? Sartu nahi dut eta umeek: ez, ez dago lekurik. Beno banoa. Txuku-txuku, txuku-txuk. Nor zara? Sartu nirekin, tokia baduzu (argazki bakarra dagoen bagoian)”

Orain ganbarara joango gara. Makinista izango dena, marraren atzean jartzen da, ate aurrean eta, gainontzekoak, pixkanaka pixkanaka bere atzean.

Oso suabe hitz egiten die eta ondo erantzuten dute beraiek: Gero arte, panpina loto dago (etxe barruan). Gero arte Matilde! (suge luze-luze bat da Matilde, etxeko teilatu gainean dago) eta horrela ateratzen dira gelatik.

Solairu bat igo eta psikomotrizitate gela okupatuta dagoenez, ate ondoan gelditzen dira zain.

Beste taldea ateratzen denean, sartu, bakoitzak triziklo, moto, kotxea hartzen du eta gelatik atera egiten dira, jangela, komuna eta gela dauden bueltan ibiltzeko.



Yolandak dio ariketa ona dela hau gelako jardueraren ondoren egiteko, pixka bat “desfogatzeko”.

Oihal bat jartzen die andereñoak lepotik lotuta, kapa balitz bezala, eta kontentu doaz berriro.

Neska bat panpina zaintzen ari da.

Imintzio asko erabiltzen ditu umeekin eta beraiek errepikatzen saiatzen dira.

Indibidualki oso ume zailak direla esaten dit, taldean berriz, ondo moldatzen direla.

Orain dela 5 urte, Margari andereñoaren gelan zegoen “pizsina” (pilotekin) orain, psikomotrizitate gela honetan dago. Yolandak dio, pena izan dela gelatik

kentzea, zeren eta, lan asko ematen zuen arren, umeek asko ikasten zutela eta harrera egiteko ere aukera ona eskaintzen zuela.

Bi nesken artean goma-espumazko 3 pieza hurbiltzen dituzte piszinaren ondora, gora igo eta handik salto egiten dute.

Momentu batean neska bat aldatzen du, koltxoneta gainean jarrita. Hemen ere, gelan bezalaxe, fardela erabiltzen duten umeek, beraien apalean, izenarekin, Dodotiak dauzkate. Garbitzeko, Dodot painoloak erabiltzen ditu. Beste batek pixa eskatzen du.

10:30 Gelan sartu dira umeak (psikomotrizitate gelan), atea ixten du eta batzuk trizikloekin jarraitzen duten bitartean, beste batzuk piszinara salto egiten dabilta; hiru etxe barruan, bi neska horma-barran gorantz doaz eta handik berriro jaisten eta behera xamarrera iristen direnean salto txiki bat egiten dute koltxonetara.

Araua

- Eskuak ez dira zapaltzeko, kontuz!
- Ez duzu koskarik egin behar, ez zait gustatu. Ez da sagarra, ez da gaileta.
- Honek mina ematen du eta ez jo, koltxonetari fuerte eman, baina Maitaneri ez!

Eguzki argitasun handia dago gelan eta kanpora begiratzuz gero, parez pare biribilgune berri bat ikus dezakegu, zuhaitz handi bat (izeia) erdian duela eta pinutxoak aldamenean.

Hitz solte batzuk esaten dituzte euskaraz: lurrean, lepoan, ezer ez, hutsik...

10:45 Jasotzen lagundu. "Don, don, don, don, Yolanda txapeldun, Iraitz txapeldun, Xabier, Iker txapeldun..." Askok hartzen dute parte eta badirudi estrategia bezala funtzionatzen duela.

Arrastaka, bultzaka eramaten dituzte goma espumazko piezak bere tokira, trizikloak bere espaziora. Pilotak piszinara bota ditzaten, galdetzen die: Zenbat pilota jaso dituzu Esperanza? Bat, bi, hiru. Txapelduna izan nahi baduzu, pilotak jaso behar dituzu. Orain bai Maitane.

Yolandak: Orain, polita al dago gela? Bai, erantzuten dute. Panpinak falta dira.

Erritmo onean jaso dute dena.

Abestia: "Bat, bi hiru, lau..., hamaika, hamabi..." eta abestiarekin lurrean esertzen hasten dira. Yolanda bankuan esertzen da.

Jokoa: Kromo bat emango dizuet, baina Victorrentzat ez daukat, etorri, etorri (eseri daitezten) eta segituan etortzen dira. Kromoa ez da benetakoa. Imintzioa egiten

du eta bakoitzari emango balio bezala egiten du. Bat ez da hurbildu eta esaten dio: berandu etorri zara eta gaur ez dago kromorik, bihar bai.

Galderak egiten hasten da: Zure kromoan zer dago?

Azul, urdina, erantzuten du mutil batek. Zein animalia da? Otsoa. Eta, zurean zer dago Esperanza? Mio. Baina, zer da? Animalia. Miau, miau... Zer da? Katua. Lehoia tokatu zaizu?...

Jokoarekin jarraituz: Tipi-tapa, tipi-tapa, goazen mendira. Kontuz, lehoia dator. Uuuuuuu!. Tipi-tapa, tipi-tapa, goazen korrika, kontuz! Otsoa dator. Tipi-tapa, tipi-tapa eskuak hanketan joaz. Zer da? Krokodiloa.

Hartu motxila!. Zer dago barruan? Bokadiloa. Hartu bokadiloa, kendu papera, bola bat egin paperarekin, baina, ez bota lurrera! Sartu motxilan. Koska bokadiloari, ondo murtxikatu eta, irentsi, baina ez pusketa handiegia hartu, e? Bokadiloa bukatu dut eta, orain, ura edango dut: Hartu boteila eta, glu-glu, glu-glu. Pixka bat gelditzen zait, boteila ondo itxi, motxilan sartu eta motxila bizkarrean jarri.

Den dena imintzio mota asko eginez adierazten du eta ikaragarri gustatzen zaie umeei eta denek hartu dute parte.

11:00 Gure makinista gaur, Esperanza. Horrela jartzen dira ilaran, ate ondoan, jaisteko. Bat erortzen da eta "Altxa Felipe trulalai..." abesten dute.

Gelan sartu, borobilean eseri eta gosaria. Gauza asko ekarri dituzue banatzeko.

Ea zer dagoen Marenen motxilan, abestuz: "Motxila ekarri dut, zer sartu du: pilota bat? Eta, hartza txiki bat? Hori ekarri du? Ea asmatu dugun (eta horrela ikusten dute motxilan zer ekarri duten). Sagarra, Actimel, gailetak, bizkotxoa, ...

Sagarra: Sagar hau ez da oso handia, e? Ea luze-luzea ateratzen zaigun azala, ui, ui, ez da puskatu, ze luzea. Zer atera da? O erantzuten dute eta Yolandak: Olentzero, olatua, olagarroa.

Zuk banatu Maren, ea nahi duten (pusketak egin eta neskak banatzen du).

Bakoitzari galdetzen dio: Nahi duzu? Bi mutil izan ezik beste zortziak jan dute sagarra. Mutil horietako batek: "Yo no como sagarra porque tengo catarro" eta eztula baleuka bezala hasten da: tuju-tujuka.

Orain bizkotxoa jango dugu. Nahi duzu?

Bukatzeko, Actimela botatzen du edalontzietara.

Oso gustura jan dute eta txukun.

11:20 Jolastera joateko prest gaude? Bai. Orain txamarrak jantziko ditugu.

Patioan, beste bi urteko geletako umeak jadanik kanpoan zebiltzan eta elkarrekin ibili dira.

11:50 Gelara sartu eta borobilean eseri dira. Yolandak, mutil batek ekarritako sokak ateratzen ditu:

Jokoa:

Goazen zenbatzera: 1, 2, 3, 4. Lau soka hauek lotzen baditugu, luzu-luzea egingo dugu, oso luzea. Ibilbide bat egiten du eta ume batek dio: Hasiko da Yolanda. Musikarekin, sokaren gainetik ibiltzen hasten da, esanez: Kontuz, erori gabe. Ondoren, umeak banan banan: "Tik-tak, tik-tak, soka gainetik noa,... gela barrutik tik, tik..."

12:00 Jangelakoen bila dator Auzo Laguneko langile bat. "Vamo a comer" esaten dit Marenek. Sei ume doaz jangelara eta beste 4ak soka gainetik ibiltzen jarraitzen dute, oso ondo. Abestiak ere laguntzen du. Yolandak: Orain sokak askatu eta poltsara.

Denak agurtzen ditu: Jangelakoak arratsaldean eskolan gelditzen dira eta etxera joaten direnak ez dira arratsaldean itzultzen.

Ohitura -arauak:

- Txanda itxoiten dute
- Ilaran jarri eta joaten dira
- Eserita egoten dira
- Soka gainean ibiltzen dira
- Jokoak jarraitzen dituzte, imintzioak eginez
- Jasotzen laguntzen dute

12:15 Elkarrizketa

. Laguntzaile bat daukate bi urtekoen 3 geletarako baina, batez ere, gela batean omen dabil laguntza ematen, hauek gehiago behar dutelako. Gela horretan hirukiak daude, 2 mutil eta neska bat, orain dela hilabete ama hil egin zaie (ikastetxe honetako jangelan lan egiten zuen) eta beste ume bat, adoptatu berriak, lan handia ematen omen du, dena berria da beretzat: hizkuntza, gela, ikaskideak, andereñoak...

Yolanda (ikerketa gelako gelan) eta Estherren gelan, momentu puntaletan laguntzen omen du.

. Fardelak: Bost ume dauzka fardelarekin eta komentatzen dit, gero eta gehiago atzeratzen dutela gurasoek aldaketa.

. Gosaria: Bakoitzak zerbait ekarri eta konpartitzea-partekatzea da helburu nagusietako bat, fruta eta elikagai desberdinak jaten ikastea eta egoki jaten ikastearekin batera. Esaten dit, garrantzi handia hartzen duela beretzat gosariko momentuak; jarduera esanguratsuenetakoa dela dio.

. Jaiotze-datak. Momentu honetan 3 umek bete dituzte 3 urte. Bi haur daude urte bukaeran beteko dituztenak. Horietako batek, justu-justu jaisten ditu psikomotrizitateko gelatik beherako eskailerak.

. Arratsaldearen antolaketa. Hiru geletatik, 17-19 haur gelditzen dira eta bi irakasle egoten dira beraiekin. Siesta egiten dute bazkaldu ondoren, 14:30ak arte gutxi gorabehera.

Ikasturte hasieran gela batera eramanda probatu zuten, baina, talde desberdinen nahasketak giro guztia aldatzen zuela konturatu ziren. Oso jokabide-portaera desberdinak ematen ziren goizeko saioekiko. Hori zela eta, psikomotrizitate gelan egiten dute arratsaldeko saioa ondoko jarduerekin:

- 15:00 Zerbait jaten dute: ogia, sagarra
- 15:10 Jolas librea: gela barruan, kanpoan
- 15:30 Borobilean eseri: ipuinak, txotxongiloa, gimnasia
- 16:00 Eguraldi onarekin jolastokira (ikasturtearen momentu honetan egin dezakete, 2. hiruhilabetea, hoztu egiten ziren gutxiago mugitzen zirelako).

Elkarrizketa bukatzeko esaten dit ikasturte hasiera gogorra izan dela, oso gogorra, baina orain, "gozada" bat dela.

Eta egia esan, hori transmititzen du umeekin dagoenean eta umeez hitz egiten duenean.

08/VI/19

11:30 Psikomotrizitate gelako saioa bukatu eta piszinaan/hallean ibili dira minutu batzuetan eta gelara sartu dira.

11:40 Antzerkia: "Tximeletaren ipuina". Paperak banatu dituzte eta "tximeleta" bere paperean: aurpegi triste eta alaia jarriz –gidoiaren arabera–, gelatik zehar dabil hegan, joan-etorrian. Besteek, bitartean, hiru "loretxo" eserita, tximeleta beraiena

etorriko zain egingo dizkien galderei erantzuteko prest eta “publikoa”, berriz, ikusten. Oso ondo dakite testua.

Jarraian boribilean/korroan ibili dira eta dantza eginez bukatu dute.



11:50 Musika klasikoa jarri du Yolandak eta etzanda jarri dira, begiak itxita, erlaxatzeko helburuarekin; andereñoa bera ere etzanda dago. Bi ume zeletan daude Yolanda nola dagoen behatzen.

11:50 Lau ume margotzen hasi dira, beste 4 ahokatzeko piezekin dabilta eta 2 neska, berriz, etxean dabilta kotxea eta panpinarekin eta poltsa bizkarrean dutela, “kalera ateratzeko prestatzen”.



12:00 Agurtu ondoren, batzuk jangelara eta besteak etxera doaz.

Oharrak

Oso interesgarria izan da antzerki saioa, oso ondo bete dituzte paperak bai protagonistek eta bai “publikoak”.

Oso tonu baxua erabili du Yolandak eta umeek ere imitatzen dute, neurri batean.

12:15 Berak aurreko bileran emandako datuen errebisioa egin dugu elkarrekin eta falta diren datu batzuk eskatu dizkiot hemendik egun batzuetarako.

11.16.2 Ikasleak eta autonomia-ohiturak

BI URTEKO IKASLEAK	JAIOTZE DATA
Lucia	2005/03/20
Maitane	2005/04/19
Esperanza	2005/09/13
Iker	2005/08/18
Iraitz	2005/03/01
Xabier	2005/05/29
Imanol G.	2005/01/10
Imanol F.	2005/09/19
Maren	2005/12/26
Egoitz	2005/11/07
Ane	2005/12/15
Victor	2005/06/17

2007/2008 ikasturtea

1. - 2. hiruhilabetea: Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak - 2 urteko haurrak (jangelakoak)

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

JARDUERAK /IKASLEAK	Lucia	Maitane	Esperanza	Iker	Iraitz	Xabier	Imanol G.	Imanol F.	Maren	Egoitz	Ane	Victor
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe		B	I	E	I			B	B		I	I
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin		B	I	E	I			B	I		I	I
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Mahai ingurua txukun uzten ikasi												
Lurra txukun uzten ikasi	I	I	I		I	I	I	I	I	I	I	I
Mastekatzen eta irensten ikasi	B	B	I	E	I	B	B	B	I	B	I	I
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi	B	B	I	E	I	B	B	B	I	B	I	I
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi		B	B	B	B			B	B		B	B
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi												
Jana banatu bitartean itxoiten ikasi												
Denetatik jaten ikasi		B	B					B	B		B	

JARDUERAK /IKASLEAK	Lucia	Maitane	Esperanza	Iker	Iraitz	Xabier	Imanol G.	Imanol F.	Maren	Egoitz	Ane	Victor
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi												
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi												
Elikagaiak eskuekin mozten ikasi, koska egin gabe												
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi												
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi		I	I	I				I	I		I	I
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitu		I	I	I				I	I		I	I
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi												

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da

2007/2008 ikasturtea

1 - 2. hiruhilabetea: Deskantsuarekin zerikusia duten ohituren heziketa - 2 urteko haurrak

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

JARDUERAK/ IKASLEAK	Lucia	Maitane	Esperanza	Iker	Iraitz	Xabier	Imanol G.	Imanol F.	Maren	Egoitz	Ane	Victor
Zapatak kentzen ikasi	B	B	B									
Galtzerdiak kentzen ikasi	*											
Berokia eta txaketa kentzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Arropak kentzen lagundu (besoak, hankak, etab. altxatuz)	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Berokia, txaketa, poltsa, mantala... zintzilikatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak eranzten lagundu	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Janzteko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi												
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin												
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi	**											
Bakarrik lo egiten ikasi	**											

JARDUERAK/ IKASLEAK	Lucia	Maitane	Esperanza	Iker	Iraitz	Xabier	Imanol G.	Imanol F.	Maren	Egoitz	Ane	Victor
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi	**											
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi	**											
Norberaren arropak tolestaten lagundu	**											

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da

* = Ez dute egiten ** = Andereñoak ez dauka informazio hau

2007/08 ikasturtea

1 - 2. hiruhilabetea: Higienearekin zerikusia duten ohituren heziketa - 2 urteko haurrak

2-4 urteko haurrekin lantzen hastekoak

JARDUERAK/IKASLEAK	Lucia	Maitane	Esperanza	Iker	Iraitz	Xabier	Imanol G.	Imanol F.	Maren	Egoitz	Ane	Victor
Orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi	B	B	E	E	B	B	B	B	E	E	E	B
Eskuak garbitzen ikasi	*											
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu	B	B	I	E	I	B	B	B	I	I	I	B
Eskuak lehortzen ikasi												
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Esfinterrak kontrolatzen ikasi	B	B	E	E	B	B	B	B	E	E	E	B
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu												
Zikina edo garbia dagoela jakin												
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi												

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da

* = Jangelakoak ari dira ikasten

2007/08 ikasturtea

3. hiruhilabetea: Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak (jangelan bazkaltzen duten 2 urteko haurrak)

1-3 urteko haurrekin lantzen hastekoak

ITEMAK/IKASLEAK	Lucia	Maitane	Esperanza	Iker	Iraitz	Xabier	Imanol G.	Imanol F.	Maren	Egoitz	Ane	Victor
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe		B	B		B			B	B		I	B
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin		B	B		B			B	B		I	B
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi		B	B		B			B	B		B	B
Mahai ingurua txukun uzten ikasi		B	I		B			B	I		I	B
Lurra txukun uzten ikasi		B	I		I			B	I		I	B
Mastekatzen eta irensten ikasi		B	B		I			B	B		B	B
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi		B	I		B			B	B		B	B
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi		B	B		B			B	B		I	B
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi		B	B		B			B	B		B	B
Jana banatu bitartean itxoiten ikasi		B	I		B			B	B		B	B
Denetatik jaten ikasi		B	B		B			B	B		B	I
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi		B	B		B			B	B		B	B
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi		B	B		B			B	B		B	B
Elikagaiak eskuekin mozten ikasi, koska egin gabe		B	B		B			B	B		I	B
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi		B	E		E			E	E		E	E
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi		B	I		B			B	I		I	B
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitzen ikasi		B	B		B			B	B		B	B
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi		B	B		B			B	B		B	B

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da

Gurasoengandik jasotako informazioa

2007/08 ikasturtea

3. hiruhilabetea: Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak - 2 urteko haurrak

1 urterekin hasi eta bereganatzen joatekoak

ITEMAK/IKASLEAK	Lucia	Maitane	Esperanza	Iker	Iraitz	Xabier	Imanol G.	Imanol F.	Maren	Egoitz	Ane	Victor
Garbia dagoenean disfrutatzen ikasi												
Garbitzen edo orrazten eskatzen ikasi	B	B	B	E	S	B	B	B	B	B	I	B
Gorputzaren usain ona baloratzen ikasi												
Beste haurren presentzia txukuna baloratzen ikasi	B	I	I	E	E	E	I	B	E	E	E	I
Azkazalak mozten utzi												
Ilea mozten eta txukuntzen utzi	B	B	B				B	B	B / K *		B / K *	
Zapatak garbiak eramaten eta ondo jartzen ikasi												
Aurpegia, sudurra, eskuak garbitzen ikasi (bere gisa, zikinak daudenean)	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Arropak txukun ordenatzen ikasi	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E
Zikina sentitzen denean azpiko arropak aldatzen ikasi												
Ilea txukun eramaten ikasi												
Azkazalak garbiak eta ondo moztuta eramaten ikasi												
Zapatak garbitzen ikasi												
Kolpeentzako pomada eskatzen dute	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Termometroa jartzen uzten dute	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Arropa politak, kolore konbinaketa eta irudiak baloratzen ikasi												
Produktuak erabiltzen ikasi: krema, kolonia, hidratatzaileak, eguzki-babesleak ...	B **	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da

* = Eskolan bai, etxean kostata

** = krema, kolonia ematearekin disfrutatzen dute

2007/08 ikasturtea

3. hiruhilabetea: Norberaren autonomiarekin lotutako ohiturak - 2 urteko haurrak

0-3 urte bitartean hasi eta kontsolidatzen joatekoak

ITEMAK/IKASLEAK	Lucia	Maitane	Esperanza	Iker	Iraitz	Xabier	Imanol G.	Imanol F.	Maren	Egoitz	Ane	Victor
Gauza txikiak bakarrik egiten ikasi: jostailuak hartu, gorputzeko atalak mugitu, bere burua entzun eta besteei entzun, entretenitu...	B	B	S	K	S	S	B	B	S	K	K	S
Trebetasun txikiak ikasi: txiribueltak eman, pinuarena egin, orekan mantendu, hanka baten gainean salto egin, narrasi, papera urratu, behatzekin pusketak egin, txalo jo, txistu egin,												
Hitzak esaten ikasi, erritmo bat jarraitu, objektuei soinua aterarazi	B	B	S	K	B	K	B	B	B	K	K	K
Tresna batzuen erabilera dominatu: koilara, edalontzia, platera, ...	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Behar diren gauzak erabiltzen ikasi: baberoa, orrazia, etab.												
Garbitzen ikasi, jantzi eta erantzi laguntza pixka batekin edo bakarrik	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Kolaboratzen ikasi: mahaia kendu eta jarri, ...												

(B) Egiten du; (S) Saiatzen da (K) Kosta egiten zaio

11.16.3 Autonomiaren bilakaera eta ondorio partzialak**. Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak**

Ikastolako jangelan gelditzen diren haurren datuak ditugu batik bat taula honetan aztergai eta ikusten dugu, "edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi", denek lortu dutela. Jangelan gelditzen diren haur guztiek ikasi dute "plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen " eta 5 hurrek, denetatik jaten ikasi dute."Mastekatzen eta irensten ikasi" eta "ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi", 6 hurrek lortu dute. Esperanza, Iraitz, Maren, Ane eta Victor, item gehienetan ikasteko prozesuan daude. Aneren kasuan, gelako txikiena da eta abenduaren bukaera arte ez ditu 3 urte betetzen.

. Deskantsuarekin zerikusia duten ohiturak

"Berokia eta txaketa kentzen ikasi", "arropak kentzen lagundu", "berokia, txaketa, motxila... zintzilikatzen ikasi", "galtzak, gonak, jertseak, alkandorak erantzen

lagundu”, haur guztiek lortu dute egitea. “Oinetakoak eta galtzerdiak kentzen ikasi” itema, ez dute lantzen orokorrean, psikomotrizitate gelan ez dituztelako oinetakoak kentzen. Hainbat ohitura zailak dira 2 urteko umeentzat, horien artean aipatuko genituzke: “janzteko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi”, “zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin”, “norberaren arropak tolestatzen lagundu”. Siestako momentuarekin lotutako itemen daturik ez dauka andereñoak.

. Higienearekin zerikusia duten ohiturak

“Zakarrontzia erabiltzen ikasi” itema denek lortu dute egitea; “orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi” erdiek ikasi dute eta besteek ez dute oraindik ikasi; “sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu” 6 haurrek egiten dute eta besteek ikasten ari dira edo oraindik ez dute egiten. “Esfinterren kontrola”, egunez, 7 haurrek lortu dute eta gainontzekoak oraindik ez. “Eskuak garbitzen ikasi”, jangelan gelditzen diren haurrak ari omen dira ikasten eta, azken hirurak: “zikina sentitzen denean laguntza eskatu”, “zikina edo garbia dagoela jakin” eta “bainugelako espazioak txukun uzten ikasi”, zailak direla dio andereñoak haur hauentzat eta oraindik ez dago inor lortu duenik.

. Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak

Informazio hau gurasoengandik jasotakoa da eta denek erantzun dute. Lehenengo bi itemak: “garbia dagoenean disfrutatzen ikasi” eta “gorputzaren usain ona baloratzen ikasi”, ez du inork erantzun. “Garbitzen edo orrazten eskatzen ikasi” 9 haurrek egiten dute, bat saiatzen da, beste bat ikasten ari da eta beste batek ez du egiten. “Beste haurren presentzia txukuna baloratzen ikasi”, oraingoz, bi haurrek egiten dute eta beste guztiak edo ikasten ari dira edo ez dute egiten. “Azkazalak moztu utzi” ez dute erantzun. “Ilea moztu eta txukuntzen utzi” 5ek egiten dute eta bik, eskolan bai baina etxean “kostata”. “Aurpegia, sudurra, eskuak garbitzen ikasi”, ikasteko prozesuan daude denak; “arropak txukun ordenatzen ikasi”, ez dute egiten. “Kolpeentzako pomada eskatu”, denek egiten dute, baita “termometroa jartzen utzi” eta “produktuak erabiltzen ikasi: krema, kolonia...” itemaren kasuan, krema edo kolonia ematearekin denek disfrutatzen dute. Tartean erantzunik gabe gelditzen zaizkigun itemak: “zapatak garbiak eramaten... ikasi”, “azpiko arropak aldatzen ikasi”, “ilea txukun eramaten ikasi”, “azkazalak garbiak eta ondo moztuta eramaten

ikasi”, “zapatak garbitzen ikasi” eta “arropa politak, kolore konbinaketa eta irudiak baloratzen ikasi”, pentsatzekoa da oraindik ez dutela egiten.

. Norberaren autonomiarekin lotutako ohiturak

Lau haur daude 5etik 4 item egiten dituztenak: Lucia, Maitane, Imanol G. eta Imanol F. Denek egiten dituzten bi item daude: “tresna batzuen erabilera dominatu: koilara, edalontzia, platera...” eta “garbitzen ikasi, jantzi eta erantzi laguntza pixka batekin edo bakarrik”.

“Gauza txikiak bakarrik egiten ikasi” 4 hurrek egiten dute, 5 saiatzen dira eta besteak kostata egiten dute. “Hitzak esaten ikasi, erritmo bat jarraitu...” 5 hurrek egiten dute, Esperanza saiatzen da eta besteak, kostata egiten dute. Azkenekoa, “kolaboratzen ikasi: mahaia kendu eta jarri...” ez zaie eskatzen.

Tauletan agertzen diren datuak aztertuz eta andereñoarekin izandako elkarriketak kontuan hartuz, esan dezakegu, bilakaera esanguratsua egin dutela hurrek lehenengo ikasturte honetan. Ohituren heziketa honek trebetasun, kontrol, heldutasun eta jarrera handia eskatzen duenez, aurrerapausoak pixkanaka ikusten dira eta etengabeko arreta, gogoraraztea, egiten laguntzea eskatzen die irakasle, ikastetxeko pertsonalari eta familiari.

11.16.4 Ikuspegi orokorrak andereñoaren hitzetan

Ikasturtearen prozesua

. Gelan

Aurrerapen handia egin dute. Orokorrean aktiboak dira eta pixkanaka pixkanaka, jolasa lasaitzen joan da.

. Komun/bainugelan

Ikasturte hasieran 12 haurretatik 8 etortzen ziren fardelarekin; momentu honetan 5 daude fardelarekin. Esfinterren kontrola dutenek oso ongi moldatzen dira, bakarrik joaten dira komunera ia-ia hasieratik.

. Psikomotrizitate gelan

Lehenengo momentutik oso gustura baina, jolasa askoz ere agresiboagoa zen orain baino, dena zen: jo, bultza, kendu, egiten dute oraindik.... Hala eta guztiz ere, poliki-poliki badoaz...

. Patioan

Aurten oso gutxi irten izan gara. Patiora joan beharrean, kalera irteten gara. Haurrak patioan larritu egiten direla konturatu gara, eta gainera, ez dira gehiegi mugitzen eta hoztu egiten dira. Kalean berriz, paseatzen joaten dira eta gehiago entretenitzen dira. "Matilde" sugearekin ateratzen gara. Suge hau, gelako etxeko teilatuaren gainean edukitzen dute (luze-luzea da ukitzeko xuabea) eta gelatik patiora edo psikomotrizitate gelara joaterakoan, agurtu egiten dute.

. Jangelan

Gelako 7 haur gelditzen dira bazkaltzera eta denak mahai berean esertzen dira, begirale batekin.

Hasieran dena kostatzen zitzaien: eserita egotea, kubiertoak erabiltzea, jana probatzea, baina momentu honetan, aurrerapauso handiak eman dituzte eta andereñoak dio: "orain, ikusteko moduan daude".

Jangelan eman diren aldaketez galdetzen diodanean esaten dit, hauek, lan handia eginda lortu direla. Lehen, ume bakoitzaren informazioa kanpoan jartzen omen zuten, hau da, ikasleak zer jaten zuen: 1. platera, 2. platera, postrea. Andereñoari informazio hori "konfidentziala" izan behar zuela iruditzen zitzaionez, orain, jangela barruan jartzen omen dute. Azpimarratzen du, inportanteena ez dela umeak zer jaten duen edo ez duen, baizik eta janaren aurrean daukan jarrera eta hori lantzen saiatzen direla.

Asko hitz egin omen du jangelaz arduratzen den pertsonarekin, eta hauek dira, besteak beste, lantzen ari diren helburuak:

- Ikasleak jan duenaren informazioa gela barruan edukitzea
- Txandak egokitzea (3)
- Haur bakoitzaren erritmoa kontuan hartzea
- Ume bakoitzaren ohiturak ezagutzea
- Ume bakoitzak janarekiko duen jarrera aztertzea

Erabil ditzaketen hainbat pauta:

- Jana eskaini, jaten badu oso ondo, bestela janaria jaso
 1. platera
 2. platera
 3. postrea

Esaten dit, oso ondo moldatzen dela arduradunarekin.

. Logelan

Lehen egunetik siestatxoa egiten dute eta horrela ohitu direnez, oso gustura joaten omen dira. Hasierako negarrik gabe!!!

Ohiturak - Autonomia

Ze lorpen txiki nabarmenduko zenituzke?

. Gelako materialari dagokionez: hartu, erabili, jaso

Espazio eta saio guztietan denek egiten dute: materiala hartu, erabili eta jaso.

. Espazioei/txokoei dagokionez

Plastikan

Espazioa errespetatu, papera hartu eta margotu, ondoren materiala jaso.

Etxean

Materiala erabili eta jasotzen dute.

Ipuindegian

Batzuk, hasi dira antzeztan, adibidez, Txanogorritxoren ipuina.

Eraikuntzetan

3. hiruhilabetean, material guztiak bere erreferentzia-ikurra daukanez, ondo jasotzen dute bere lekuan.

Alfonbran

Oso jarrera egokia hartu dute: parte hartzeko prest daude.

. Gosariko momentuei dagokionez

“Momento estrella” deitzen dio andereñoak saio honi. Izugarri gustatzen zaiela dio.

. Komuneko joan etorriari dagokionez

Bakarrik moldatzen dira, fardela ez daukatenak.

. Psikomotrizitateko gelari dagokionez

Zapatilla-galtzerdiak

Ez dituzte kentzen.

Materialak hartu, erabili eta jaso

Bai.

. Jangelari dagokionez

Ohiturak hartu dituzte:

- Eskuak garbitu
- Norbere lekuan eseri
- Platera bukatzean karrora eraman, berdin 2. platerarekin
- Komuniket pasatu
- Ohera joan siestarako

. Patioko jarduerari dagokionez

Kalera paseatzera ateratzean sokari helduta joaten ikasi dute.

. Beste hainbat ohitura:

- Gela batetik bestera joaterakoan trenea egiten dute (makinista txandaka), eta txandarena, onartuta daukate.
- Eraikin batetik bestera patioetik joateko, eskutik helduta joaten ikasten ari dira.
- Jantzi eta erantzi:
 - Berokiak: 'magia'eginez janzten dituzte
 - Zintzilik jarri eta hartzen dituzte

2008/V/05

1.- Irakasleen arteko koordinazioa

.Mailako hiru andereñoak koordinatzailearekin eta laguntza ematen dien pertsonarekin astero elkartzen dira.

. Ziklokoak zenbait momentutan, astero (gai "potoloren" bat dutenean), bestela, hamabostetik behin.

2.- Amara Berriko Ikastetxearekin dituzten harremanak

.Zuzendaritza-taldea ikasturtean zehar 5-6 aldiz biltzen da, sareko beste zuzendaritzekin batera (Amara Berriko sistema jarraitzen duten ikastetxeak).

.Koordinatzaileak, erreferenteak, espezialistak, tutoreak... ikasturtean 2 topaketa-saio egiten dituzte.

3.- Udaletxeak egindako hobekuntzak

- . Patioko 2 tramankulu aldatu dituzte: 3-4-5 urtekoen eraikinean
- . Komunak berritu: 2 urtekoenak eta irakasleenak
- . Sabaileiho berria: 2 urtekoen eraikinekoa
- . Leihoak berritu: 3 urtekoen gela batekoak

4.- Gehiago ateratzen zarete umeekin inguruko espazio, instalazio, jarduerak egitera

2 urteko haurrak gehiago irten gara auzora eta Lehen Hezkuntzako eraikinera 1. eta 2. hiruhilabetean, eta umeak asko entretenitzen dira, auzokideek begiratu eta hitz egiten baitigute.

Galdetzen diot, aldamenean dagoen Harria Parkea ez al luketen aprobetxatu beharko gehiago jarduerak egiteko

Bera gustura irtengo omen litzateke kanpora maizago eta bai, iruditzen zaio, aukera ona litzatekeela, baina horretarako, 3 geletako andereñoek egon behar omen dute prest batera irteteko eta nonbait ez da hain erraza izaten.

11.16.5 Aldaketa eta ondorioak

. Ikastetxea-Ingurunea (auzoa)

Harri Berri - Oleta Ikastetxeko 2 urteko umeak, beti patiora atera beharrean, kalera irten dira gehiago. Umeak hobeto pasatzeaz gain, oso interesgarria da auzokideekin, komunitatearekin eskolak harremanak izaten laguntzeko. Horrela, gehiago ikusi eta ulertuko dute gure lana. Inplikazioan ere eragina izan dezake, umeek ingurune hurbileko errealitatea ezagutzea eta kontaktuan egotea helburuetako bat baita.

. Jangelako aldaketak

- Ikasle bakoitzak jan duenaren informazioa kanpotik barrura pasatzea
- Ume bakoitzak janarekiko duen jarrera aztertzea eta lantzea
- Txandak egokitzea (3)
- Haur bakoitzaren erritmoa kontuan hartzea
- Ume bakoitzaren ohiturak ezagutzea

Oro har, esan dezakegu jangelako dinamika honek argi uzten duela, "jatea" baina askoz gehiago dela jangelako denbora. Andereñoak dioten informazioaren "konfidentzialtasuna" gordetzetik abiatuz, egokia iruditzen zaigu, umeak janarekiko duen jarrera aztertzea, bakoitzaren erritmoak kontuan hartzea (jangelak askotan, "karrerak" egiten baitituzte eta txapeldunak izendatu, lehenbailehen bukatu dezaten), haurraren ohiturak ezagutzea; guzti honek lagunduko baitigu haurrak ondo jaten ikasten, eta jangelako denbora hezkuntzako elementu oso garrantzitsu bezala tratatzen. Horretarako, noski, behar adina giza baliabide kualifikatua behar da.

Gosaria/hamaiketakoaren saioak azpimarratzekoak dira bere aberastasuna eta eskaintzen zaien denboragatik. Une erabat aproposa dela esango genuke hainbat eta hainbat konpetentzia lortzeko: elikagai desberdinak jaten ikastea, ondo eta txukun jaten ikastea, bakoitzak ekarritako elikagaiak besteekin konpartitzea, sentimenduen egoera adieraztea, istorioak adieraztea, besteenak entzuten ikastea, erlaxatuta egoten ikastea, matematikako kontzeptuak lantzea...Bi urteko umeekin hasita, saio hauetan lortzen dutena, oso esanguratsua da.

11.17 Bi Ikastetxeetako Elkarrekintza-Egoeren Sintesia

3. hiruhilabetea: 2 - 3 Urteko Haurrak

Ikaskideekin Andereñoarekin Beste andereñoekin	ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA	HARRI BERRI IKASTETXEA
Harrera eta lehenengo kontaktoak	Egun on, esaten dute	Gaixorik egon badira eta itzultzerakoan, beranduago etortzen denari agurtu, muxuak eman
Borobilean/talde ekintzan: musuak, iskanbila txikiak	Besteen argazkiak ikusi Elkarrekin ipuinak ikusi eta elkarrekin "zirkoa" antolatzen dute, maiz: pailazoak, jirafak, aulkitxo txikiak hartu eta batek esplikatzen du, abesten dute, ...	
Sentimenduen adierazpena: minak, ametsak, beldurrak	Bai	Bai
Dantza: kontakto fisikoak, parra, andereñoaren keinuak	Salto egiten dute Gelari buelta ematen diote Gehienek dantza egiten dute Erratza hartu eta berarekin dantzan ibiltzen dira	Bai
Etxeko txokoan rola banatzerakoan	Beraien artean hitz egiten dute Gauzak bata besteari eskatzen Lekua kentzen	Hasi dira pixka bat
Margotegian elkarrekin hitz eginez	Hasi dira, pixkanaka pixkanaka	Hasi dira "tertulian"
Hormirudia margotzen, eraikuntzak egiten, ...	Bi edo hiru ume joaten direnean, hasten dira zerbait elkarrekin egiten baina, gehienez 5 minutu pasatzen dituzte, handik aurrera gatazkak sortzen hasten dira	Bai, elkarrekin egin dituzte

<p>Ikaskideekin Andereñoarekin Beste andereñoekin</p>	<p>ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA</p>	<p>HARRI BERRI IKASTETXEA</p>
<p>Kritika momentuetan, zer egin duten gogorazterakoan</p>	<p>--</p>	<p>--</p>
<p>Gatazken konponbidetan</p>	<p>Hasi dira</p>	<p>Bai, andereñoak erabiltzen dituen esaldiekin: nik hartu dut, zuk beste bat hartu, ez jo, ez zait gustatzen</p>
<p>Ipuin kontaketa (jarduera libre bezala)</p>	<p>Bai, momentu motz batzuetan</p>	<p>Bai, beraien artean batak besteari kontatzen</p>
<p>Ipuina talde handian kontatzerakoan</p>	<p>Orain eserita egon daitezke eta batzuetan, batak besteari: "no quiero, estoy en el cuento". Adibidez, 'lekua' errespetatzen dute. Txandarena, kosta egiten zaie</p>	<p>Ipuina antzezterakoan</p>
<p>Gosaria banatzerakoan</p>	<p>Hemen gehiago onartzen dute gauzak banatzea, ikasten ari dira, adibidez gailera 2n artean banatzea</p>	<p>Bai, asko eta fundamentuarekin, bere fruitua eman du</p>
<p>Komuneko momentuetan</p>	<p>Bai, komunean besteenganako 'kuriostatea' azaltzen dute</p>	<p>Bai, komunean 'giroa' sortu da</p>
<p>Patioan: sokasaltoan, korrika, panpin eta kotxeekin, trizikloan</p>	<p>Trizikloekin liskarrak sortzen dira. Geuk parte hartu behar dugu: "Bi buelta eman eta gero zu". "Lo he cogido yo y lo quiero" Biko trizikloekin ere ez dute oraindik ondo funtzionatzen; ez dute nahi beste inor atzean esertzerik. Balantzinean 20 arte kontatzen dugu, hau da, zuzenduta, bestela, bultzaka hasten dira tokia utzi diezaieten...</p>	<p>Gutxiago, espazio handiegia da</p>
<p>Psikomotrizitate gelan</p>	<p>Bi andereño egoten gara, eta 'kontenitu' egin behar dira, asko kontenitu-etsi behar da. Salto egiten dute besteak behean daudela ere; mugimendua behar dute eta Superman, ezpatetara, arrantzan... ibiltzen dira. Binaka jolasten hasi dira. Materiala jaso ere egiten dute andereñoekin.</p>	<p>Batzuetan, etxetxoan sartzen direnean, ikasturte bukaera aldera hasi dira</p>

Oharrak:

Zuzenduak diren jardueretan gehiago onartzen dute, libreetan, aldiz, bakoitzak berea nahi izaten du.

Oraindik ez dira ematen beren arteko “zaintze”, “laztantze”, “babes” emateko jolasak; andereñoa bilatzen dute. Txoko batean jarri eta “lotan” egoteko jokia gustatzen zaie mutilei, batez ere: “Itziar, lotan gaude...”

12

ALDERAKETAREN SINTESIA
2000-02 IKASTURTEEKIKO

12 ALDERAKETAREN SINTEZIA 2000-02 IKASTURTEEKIKO

Laburpen hau egiteko, 2007-08 ikasturtean azaldu ditugun atal eta elementuen azterketa jarraitu dugu:

12.1 Ikastetxearen Nortasun Ezaugarriak, Zerbitzuak eta Antolaketa

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Ez dago nabarmentzeko aldaketarik.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea

- Harri Berri Ikastetxea eta Oleta Ikastetxearen bategitea 2004-05 ikasturtean.
- Bi ikastetxeen premietara egokitzuz ari dira Hezkuntza Proiektua garatzen.

Bi ikastetxeetako zerbitzu eta antolamendua zehaztasun gehiagorekin azaltzen dira beraien webgunean.

12.2 Ikastetxearen Identifikazio-Datuak

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Ikasle kopuruak nabarmen egin du gora.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea

- Nabarmentzeko aldaketarik ez.

12.3 Auzoko Zerbitzuak

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Haur Txokoa, Gazte Txokoa, eta L.H.-ko eta D.B.H.-ko eraikinean Mediateka bat.
- Eraikin handiko jolaslekua estali eta ekipatu dute 2006an eta eskolaz kanpoko orduetan irekia dago auzokoentzat.
- 2008ko urtarrilean ireki da Etxarriene Giza eta Kultur gunea.
- Parkea eta inguruko kaleak berritu eta oinezkoentzat/peatonalak dira orain.
- Ibai ondoan parke txiki bat egin dute.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea

- Tomasena Kultur Etxea ireki dute.
- Aparkaleku berri bat eta biribilgune bat ikastetxe aurrean.

Azpimarratu nahi dugu bere garrantziagatik, auzoen premia eta beharrei hobeto erantzuteko asmoarekin, 2004. urteaz geroztik, Martuteneko nahiz Altza auzoko

eragile desberdinek (bizilagun, elkarte, profesional) Donostiako Udaleko, "Auzo eta Bizilagunen Partaidetza" departamentuarekin lan egiten dutela, auzoko plan eta programa lanetan. Hilean behin edo bitan biltzen dira batzorde desberdinak.

12.4 Helburu Orokorrak - Konpetentziak

Momentuz lehengo planarekin jarraitzen dute. Bi ikastetxeetako zuzendaritza eta irakasleak curriculum plan berria aztertzen ari dira, baina, ez dute ikusten datorren 2008-09 ikasturterako ezartzea posible izango denik.

12.5 Metodologia Printzipioak

2000-02 ikasturteetan zeuzkaten berberak dira (ikus 8.7. atala).

12.6 Gurasoekiko Harremana

Bi ikastetxeetako andereñoek harreman estua eta etengabekoa daukate gurasoekin (azpimarratzekoa da egokitzapen-aldiko gurasoen presentzia) eta ondo erantzuten dietela agertzen dute, nahiz eta, inplikazio mailan, nabarmentzeko aldaketarik ez den egon aurreko urteekiko.

12.7 Gela/Gelak

12.7.1 Alderdi fisikoak

Bi ikastetxeetako hainbat ekipamendu berritu dituzte: alfonbrak, mahaiak, aulkiak, altzariak.

Gelak margotu berriak daude.

12.7.2 Espazioen antolaketa

Aurreko ikasturteetan bezala dauzkate antolatuta, espazio eta txokoetan. Aldaketaren bat azpimarratzekotan honako hau: Harri Berri - Oleta Ikastetxeko haurrak aldatzeko espazioaren oraingo disposizioak, erraztu egiten du haurren sartu irteerak "kontrolatzea".

12.7.3 Alderdi funtzionalak

Ez da aldaketarik egon. Bi ikastetxeetako 2 urteko haurrek, beraiek aukeratzen dute zein txoko edo espaziotan ibili talde txikiko saioetan eta, Arantzazuko Ama Ikastolako 3 urteko haurrek, "zirkulazio librean" funtzionatzen dute; saio horietan, beraiek erabakitzen dute plastika gelan edo eraiketa gelan jardun.

12.8 Gelaz Kanpoko Espazioak: halla/piszina, logela, bainugelak, psikomotrizitate gela, jangela, patioa

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Arrapala bat egiten ari dira eskailera multzo bat ekiditeko.
- Bi solairuetako bainugelak erabat berritu dituzte: paretak, lurra, komunak eta harraskak.
- Kolunpio berri bat jarri dute patioan.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea

- Bi solairuetako bainugelak erabat berritu dituzte aurten: paretak, lurra, komunak, harraskak.
- Patioko tresnak berritu dituzte: txirrista, trena, pasabidea.
- Bi eraikinen artean ate bat jarri dute.

12.9 Material Esanguratsuenak Espazioka/Txokoka

. Arantzazuko Ama Ikastola

Ez dago aldaketa nabarmenik, lehen aipatutako ekipamendua izan ezik.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea

Aipatutako ekipamendutik aparte, ez dago aldaketa nabarmenik materialetan. 2000-01 ikasturtekoarekin konparatuz, motrizitate espazioan, pilotadun piszina zegoen tokian, ikasturte honen azkeneko hiruhilabetean, koltxoneta eta txirrista bat daude (hiruhilabetetik behin aldatzen dute espazio honen ekipamendua).

12.10 Denboraren Antolaketa

Bi ikastetxeetako denboraren antolaketa zehaztasun gehiagorekin azaltzen dute orain.

12.11 Jarduera Esanguratsuenak Espazioka/Txokoka

Azpimarratzekoa da "gosaria" saioak bi ikastetxeetan momentu honetan daukan protagonismoa.

Gainontzeko espazio edo txokoetan egiten diren jardueretan, ez dago nabarmentzeko aldaketarik, oro har.

12.12 Egokitzapen-Aldirako Proposamena

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Taldeak eta ordutegia berdin mantendu dituzte.
- Gurasoak 3 egun egon dira gela barruan eta laugarrenetik aurrera gela ondoko espaziora pasa dira. Haur batzuk, gurasoak aste bat egotearekin nahikoa izan dute, gehienek 2 aste egotea behar izan dute eta haur batek 3 aste.
- Egokitzapen-aldiko prozesuak hilabete iraun du.
- Momentu askotan behar izan dute Axun andereñoaren laguntza.
- Sarrerako momentua malgutu egin da: 9:00 – 9:30.
- Haurren asistentzia nahiko erregularra izan da.

. Harri Berri – Oleta Ikastetxea

- Taldeak eta ordutegia berdin mantendu dituzte.
- Gurasoen presentzia gelan 3 egunetakoa izan da, ez dute gehiago behar izan.
- Psikomotrizitate saioen ordutegia mantendu egin dute, aldaketak nahastu egiten dituztelako haurrak.
- Haurren asistentzia oso erregularra izan da.
- Jangelan, ikasturte hasieratik 12-14 bi urteko haur hasi ziren gelditzen eta ikasturtea aurrera joan ahala 22 gelditzen dira.

Bi ikastetxeetako datu hauen arabera, esan dezakegu, ez dela egon diferentzia nabarmenik aurreko ikasturteekiko proposamen eta prozesuko emaitzekin.

12.13 Ikasturtearen Prozesu edo Bilakaera

. Arantzazuko Ama Ikastola – Bi urteko haurrak

- Hasieran gauzak hartu, bota, nahastu eta jaso gabe uztetik, ikasturte bukaeran gauzak gutxi gorabehera lekuan uzten eta jasotzen jakitera pasa dira.
- Ikasturte hasieran 6 umek erabiltzen zuten fardela eta ekainean 3k jarraitzen dute fardelarekin.
- Psikomotrizitatea beste eraikinean. Joan-etorriak egiteko soka bat erabiliz egiten dute eta ikasi dute sokari helduta joaten. Poliki-poliki gai dira zapatak zein arropak kendu eta bere lekuan jartzen.

- Patioko saioetan, ikasturte hasieran, andereñoari helduta, “pega-pega” eginda ibiltzen ziren eta patioko tresna altuetara eta kosketara ez ziren igotzeko gai; orain, haur pare bat izan ezik, beste guztiak bakarrik ibiltzen dira eta leku askotara igotzeko eta jolasteko gai dira. Ziurtasuna hartu dute eta mugimendu aldetik arinago dabilta.
- Jangelan, hasieran andereñoak gelditzen dira beraiekin, haurren beharren arabera beraien presentzia gutxitzen joaten da.
- Logelako siesta orduan arduradunak egoten dira lo hartzen duten arte beraien ondoan. Haur batzuk txupetea eta pelutxeak behar izaten dituzte.

Andereñoak nabarmentzen du, talde honetako haurrak euskara ez ulertzeak, asko zaildu duela komunikazioa eta taldearen martxa –gurasoen hizkuntza gaztelera da aita batena izan ezik–.

Egindako behaketa saioetatik azpimarratzeko hainbat faktore

- Aktibitate handia dago gelan eta andereñoa oso erne ikusten da.
- Apirilerako ume batzuk eguneroko denbora sekuentziak “kontrolatzen” dituzte –badakite txokoetako saioa amaitzear dagoela eta borobilean esertzen dira inork esan aurretik–.
- Momentu askotan andereñoak fisikoki hartu behar ditu umeak eskutik, bai esertzeko, bai bere tokian egoteko, bat jo ondoren lekuz aldatzeko...
- Abestiak erabiltzen ditu estrategia bezala materialak jasotzeko, lurrean eser arazteko...
- Erlaxazio ariketek –arnasa hartu, bota– lasaitu egiten ditu.
- Ipuinaren kontaketa erabiltzen dituen ahots aldaketek ipuina ondo jarraitzen laguntzen die eta kontentu ikusten dira.
- Ahalegin handiak egiten ditu hizkuntza ulertarazten, esaldiak ondo ahoskatu eta errepikatuz.
- ...

. Arantzazuko Ama Ikastola - Hiru urteko haurrak

Taldearen hainbat ezaugarri

- Talde orekatua, 8 neska eta 8 mutil.
- Egokitzapen ona izan dute ikasturte honetan hasitako 2 haur berriek.
- Aldaketa handiena zirkulazio librea bi geletara ohitzea izan da; oso gainean egon behar izan dute bi geletako andereñoek.
- Ume batek "jolas sinbolikoaren" behar handia dauka; orokorrean, psikomotrizitate gela eta patioko jarduerak behar hau asetzen dutela uste dute.

Plastika gelako aktibitatea

- Hondakin materialekin itsatsi.
- Marrazkiaren prozesua, zirriborro kontrolatua eta izena jarri.
- Irudiak bete, sortu.
- Tenperarekin oso margolan koloretsuak.
- Plastilina lantzerakoan beraiekin egon beharra.

Eraikuntzen gelako aktibitatea

- Egurrak garraiatu, pilatu. Andereñoaren laguntzarekin, gorakako eraikuntzak; geroago elementu gehiagorekin osatzen joan dira.

Geletako jarduerari buruz, azpimarratzeko hainbat ohar-idea garrantzitsu

Plastilina lantzerakoan beraiekin egon beharraren arrazoia. "Oso lotuta daude alde batetik haurraren marrazki maila eta bestetik haur horrek plastilinarekin egin dezakeena".

"Hiru urtekoentzat ez da nahikoa lau urtekoek zer egiten duten "ikustea", beraiek sortu ahal izateko, ahalmena behar da".

Haur konkretu bati buruz: Buruan "dena dauka" eta adierazpenean, marrazkian agian ez, baina egurrezko produkzioan bai, buruan daukan hori adierazteko gai dela erakusten du.

Gainontzeko espazioetan

- Komunean ondo moldatzen dira; inork ez dauka fardelik .
- Psikomotrizitatean, bi urterekin mugimendua eta babesa bilatzen dute, 3 urterekin eta ikasturte amaieran, jolas sinbolikoari denbora eskaintzen diote.
- Patioan, beraien arteko harremanak hasi dira; batzuk oraindik jostailuekin babesa bilatzen dute. Helduagoak direnak hasi dira taldeko jolasetan parte hartzen.
- Jangelan, arazorik gabe, haur bat izan ezik.

Aurreko ikasturteekiko egin duten aldaketa bat 3 urtekoen gelan eta lehenengo hiruhilabeteen, bi urtekoen jostailu/material batzuk sartzea izan da: garajeak, kotxeak...

Ikasturtean zehar jasotako laguntzak

- PT-ren funtzioak betetzen dituen irakasle baten laguntza bi haur berrien egokitzapena egiteko.
- Aholkulariaren interbentzioa bi haurren zailtasunak bideratzeko.
- Astean behin, goiz batean Axun andereñoaren laguntza, ekintza bereziak aurrera eramateko...

Arazoak-zailtasunak

- Borroka egiterakoan bakoitza ahal duen moduan defenditzen da: koska, jo, ... Irakaslearen lana hitza erabiltzen irakastea.
- Borobilean, arreta mantentzea, elkarrizketa bat mantentzea, 16 haur izanik.
- Denen intereseko gai bat aurkitzea.
- Sentimenduen adierazpenetan haserreak bideratzeko zailtasunak.
- Haur batzuk berehala sentitzen dira erasotutako eta konflikto ugari sortzen dira.

Aurreko ikasturteekiko, ikasle kopurua asko igo da, lehen 3 urteko 9 haur zituen Arantxak eta orain 16. Talde handian daudenean, eragina du, askotan, luze jotzen duelako bakoitzak kontatu nahi duenak.

Andereñoaren zereginari buruz behaketa saioetan jasotako hainbat elementu esanguratsu

- Galderak egiten, erantzunak eta zergatiak pentsatu arazten maiz ikusten da.
- Arauak gogorarazten, haurrei beste aukerak proposatzen.
- Elkarrizketan azaltzen diren gaiak bideratzen laguntzen: umeen deskribapenetan, sentimenduen adierazpenetan – tristurak, kezka –.
- Mahai jolasetan joko bakoitzaren arauak eta pautak irakasten.
- Haur bakoitzak egindako lana behatzen eta egindakoa onartu, baloratu eta gehiago egin dezaketen neurtzen.
- Egindako lanaren errepasoa, balorazioa egiten laguntzen.
- Fisikoki hartu eta beregana ekartzen lasaitu arte.

- "Agenda 21" programaren barruko helburuak lantzen: Argiaren inguruko jarduerak aurrera eramaten laguntzen.
- ...

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea : Bi urteko haurrak

- Indibidualki oso ume zailak dira, taldean berriz, ondo moldatzen direla dio Yolandak.
- Hasiera oso gogorra izan da, orain "gozada" bat dela dio.
- Gelan, pixkanaka, jolasa lasaitzen joan da.
- Komun/bainugelan, esfinterren kontrola dutenak oso ongi moldatzen dira eta bakarrik egiten dute komuneko buelta ia-ia hasieratik.
- Psikomotrizitate gelan, jolasa askoz ere bortitzagoa zen hasieran, orain, poliki-poliki aldatzen ari da.
- Patiora, oso gutxi atera dira, kalera irteten dira.
- Jangelan, taldeko 7 haur gelditzen dira eta aurrerapauso handiak egin dituzte: eserita ondo egon, elikagai desberdinak probatu, kubiertoak erabili...

Andereñoak dio, lan handia egin ondoren lortu dela jangelako prozesu egokia bideratzea; arduradunarekin asko hitz eginez, gaiak behin eta berriro tratatuz: ume bakoitzak jaten duenaren informazioa gela barrura sartuz konfidentziasuna gorde ahal izateko; txandak egokituz; haur bakoitzaren erritmoa errespetatuz; ume bakoitzaren ohiturak ezagutuz; janarekiko duen jarrera aztertuz.

Azvimarratzekoa da baita ere, patioko saioen orde, kalera irten eta auzokideekin daukaten kontaktu/komunikazioa, harremanak garatzen joan daitezen; ingurunea ezagutzeko modu egokia iruditzen baitzaigu.

Andereñoaren zereginari buruz behaketa saioetan jasotako hainbat elementu esanguratsu:

- Harreman onak gurasoekin.
- Jardueretan ari direnean musika baxu-baxu.
- Norbait sartzen bada gelan, haurrek bere lanarekin jarraitzen dute.
- Oso suabe hitz egiten du eta umeek ere horrela erantzuten diote momentuan.
- Imintzio-mota asko egiten ditu andereñoak eta haurrak saiatzen dira errepikatzen eta oso gustura ikusten dira, ondo pasatzen dute.

- Bai gelan nahiz psikomotrizitate gelako erlaxazio jardueretan, andereñoa haurrekin batera etzaten da eta hurrei egitea eskatzen diena egiten du berak ere.
- Abestiak erabiltzen ditu estrategia bezala materialak jasotzeko, lurrean eser arazteko, marra gainetik ibiltzeko...
- Gosariko momentuek elikagaiak konpartitzea-partekatzea dute helburu nagusia.
- Dinamismoa eta gustura dagoela transmititzen du.
- ...

12.14 Autonomia-Ohituren Heziketa eta Bilakaera

. Arantzazuko Ama Ikastola - 2 urteko haurrak

- **Ikasle bakoitzaren datuen azterketa**

Elikadura, deskantsua, higiena, norberaren txukuntasuna, norberaren autonomiarekin zerikusia duten ohituren tauletan azaltzen diren datuak aztertuz, bi urteko talde honek lorpen handiak egin dituela ikusten dugu.

2001-02 ikasturteko datuekin alderatuz gero, ez genuke esango emaitzetan diferentzia esanguratsurik dagoenik.

- **Taldean eman den bilakaera**

Taldean eman den prozesua aztertuz, ikusten dugu eboluzio esanguratsua izan dutela autonomia mailan. Ondoren azaltzen ditugu horren adibide batzuk:

- Espazio bakoitzeko materiala ondo kokatzen dute.
- Errotulagailuak erabili ondoren, tapa jarri eta dagokien kutxetan gordetzen dituzte.
- Etxean, orain gai dira batera hizketan egoteko edota jolasean gauzak pilatu gabe ibiltzeko –hasieran gauzak etxera sartu, jostailuz bete eta dena zapaldu egiten zuten—.
- Ipuinak hartu eta alfonbran zabaltzetik, orain irakurtzen ari diren itxura hartu dute, gai dira bata besteari ipuina kontatzeko eta ikusteko, lasai, eta bukatu ondoren, bere lekuan uzteko.
- Gosariko momentua, hasieran oso motza izaten zen, 2 minutu baino gehiago ez ziren eserita egoten. Orain, gosalduta, ipuinak entzun eta eserita abesteko gai dira.

- Komuneko buelta ia denak dira bakarrik egiteko gai eta esan egiten diote joan behar dutenean, ez dute ia andereñoaren laguntzarik behar.
- Zapatilak kendu, galtzerdiak barruan sartu eta bankuaren azpian uzten dituzte. Badakite non salto egin, non jolastu eta nori eskatu materiala.
- Siestatik bakarrik altxatzen ikasi dute, arropak eskuetan hartu eta gelara etortzen dira janztera.

. Arantzazuko Ama Ikastola - 3 urteko haurrak

- **Ikasle bakoitzaren datuen azterketa**

Elikadura, deskantsua, higiena, norberaren txukuntasuna, norberaren autonomiarekin zerikusia duten ohituren tauletan azaltzen diren datuak aztertuz, ikusten dugu, bilakaera garrantzitsua egin duela hiru urteko talde honek.

Aurreko ikasturteekin konparatuz, ez genuke esango emaitzetan aldaketa esanguratsurik dagoenik.

. Harri Berri Ikastetxea

- **Ikasle bakoitzaren datuen azterketa**

Elikadura, deskantsua, higiena, norberaren txukuntasuna, norberaren autonomiarekin zerikusia duten ohituren tauletan azaltzen diren datuak aztertuz, ikusten dugu, lorpen handiak egin dituztela bi urteko haur hauek. Aurreko ikasturteekin konparatuz, emaitzetan ez dugu nabarmentzeko aldaketarik ikusten.

- **Taldean eman den bilakaera**

Taldean eman den prozesua aztertuz, ikusten dugu eboluzio esanguratsua izan dutela autonomia mailan. Aurreko ikasturteekin alderatuz gero, hauek izan dira nabarmentzeko hainbat elementu:

- Gelako materialak: materiala hartu, erabili eta jaso denek egiten dute.
- Ipuindegian: Batzuk Txanogorritxoren ipuina "antzezten" hasi dira.
- Alfonbran: oso jarrera egokia hartu dute eta parte hartzeko prest daude.
- Gosariko saioa: "momento estrella" deitzen dio Yolanda andereñoak eta baieztatu dezakegu, oso gustukoa dutela.
- Psikomotrizitate gelan: ez dituzte oinetako eta galtzerdiak kentzen.
- Kalera irteten direnean: sokari helduta joaten ikasi dute eta eskutik helduta joaten ikasten ari dira.

12.15 Elkarrekintza-Egoeren Eboluzioa

11.17 Atalean azaltzen dugun taulan laburtzen dugu, hainbat egoeratan 2 urteko haurrak elkarrekintzarekin lotutako momentuetan esaten edo egiten dutena. Arantzazuko Ama Ikastolako 2 urtekoen andereñoak, zehaztasun gehiagorekin adierazi ditu hainbat adibide. Hala ere, Harri Berri - Oletako andereñoarekin hitz eginez, ikusi dugu, funtsean ez dagoela nabarmentzeko diferentziarik. Orokorra da, patioan gutxiago ematen dela elkarrekintza, espazioa handiegia egiten zaielako haur askori; zuzenduak diren jardueretan gehiago agertzen direla elkarrekintza momentuak jarduera libreetan baino.

Aurreko ikasturteekin alderatuz gero, nahiz eta elkarrekintza giro eta egoera desberdinak ematen diren, ezin dugu esan kategoria edo maila diferentziarik aurkitzen dugunik.

12.16 Irakasleen arteko Koordinazioa

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Astean behin elkartzen dira formalki 3 eta 4 urteko haurren bi andereñoak.
- Etengabeko informazio trukaketa daukate zirkulazio libreetako saioei buruz.
- Astean behin biltzen dira bilera orokorrean Martuteneko Haur Hezkuntzako bi eraikinetako eta Lehen Hezkuntzako irakasleak.

Antzuolako eskolarekin dituzten harremanak:

- Momentu honetan beraien ziklokoek ez daukate harreman zuzenik.

2001-02 ikasturtean harreman gehiago zeukaten; andereñoak ikasturte haietan Antzuolan egiten zuten astebeteko egonaldia.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea

- Astero biltzen dira mailako 3 andereñoak koordinatzaile eta laguntza ematen dien pertsonarekin.
- Astean behin edo hamabostetik behin biltzen dira zikloko andereño guztiak.

Amara Berriko ikastetxearekin dituzten harremanak:

- Zuzendaritza-taldea ikasturtean 5-6 aldiz biltzen da Amara-Berri sareko beste zuzendaritzekin batera.
- Koordinatzaile, erreferente, espezialista, tutore, eta abarrek, 2 topaketa-saio egiten dituzte ikasturtean zehar.

12.17 Udaletxeak Eraikinean eginda/egitear dauzkan Hobekuntzak

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Komun guztiak berritu dituzte 2 urtekoen geletako eraikin hexagonalean: haurrenak eta irakasleenak.
- Arrapala bat egitea bukatzen ari dira eskailera-multzo bat ekiditeko.
- Aurtengo udaran aldatuko dituzte leihoak.
- Sarrerako atea aldatuko dute.
- Patioan dauden koska eta eskailerak kenduko omen dituzte.

. Harri Berri- Oleta Ikastetxea

- Patioko tresnak aldatu dituzte 3-4-5 urteko haurren eraikin handian.
- Komun guztiak berritu dituzte 2 urtekoen geletako eraikin hexagonalean: haurrenak eta irakasleenak.
- Eraikin txikiaren erdiko sabaileiho berria jarri dute.
- Eraikin handiko gela bateko leihoak berritu dituzte eta pixkanaka denak aldatzen joango dira

12.18 Bi Ikastetxeetan egin beharko liratekeen Hobekuntza-Lanak

- Bi urteko haurren gela eta bainugelen artean ate bat, zuzenean komunikatuak egon daitezten.
- Sarrerako eskailerak kendu beharko lirateke barrera arkitektonikoak ekiditeko.
- Patioko putzuak ekiditeko sistemaren bat jarri.
- Patioa egoki estali, atetik hasita, itxitura onarekin, hotz-beroaren sistema kontuan hartuz; eguraldi txarra egiten duenean umeei oso espazio txikian ibili behar dutelako, sarrerako pizina-hallean.
- Patioan zonalde berdeak jarri.

IV. ONDORIOAK

13

ALDERDI OROKORRAK

IV ONDORIOAK

Lehenengo hiru ataletan Marko Teorikoa, Marko Enpirikoa eta aztertutako Ikastetxeen Errealitatearen Deskribapena eta Ondorio Partzialak azaldu ditugu. Orain, 4. atal honetan, Ondorioak adieraziko ditugu eta horretarako, bi ikastetxeetan eraikin eta inguruko espazioetan arautegian azaltzen diren gutxiengo elementuak betetzen diren ala ez diren esaten joango gara; ikastetxeetako egokitzapen-aldia, materialak, denborak eta jardueren bilakaera zein beste hainbat alderen ondorioak aipatu ondoren, atal bakoitzaren bukaeran, aholku edo gomendio batzuk proposatuko ditugu.

13 ALDERDI OROKORRAK

13.1 Eraikinak eta Mantentze-Zerbitzua

Gaur egun indarrean dagoen eraikuntzei buruzko Arautegi Ofiziala eta, konkretuki, Haur Hezkuntzako eskolek bete behar dituzten gutxiengo baldintzak, 2.2.3. atalean deskribatu ditugu.

Arautegi horren arabera, aztertutako bi ikastetxeetako egoera hauxe da:

. Unitate kopuruak, m² eta bainugelen kokalekua

Gutxiengo neurriak ongi betetzen dituzte.

Bainugelen kasuan, Arantzazuko Ama Ikastolako 2 urteko haurren bainugela ez dago gela alboan, bestaldean baizik; andereñoak dioenez, ume bat komunera doanean, beraren atzetik ateratzen dira beste ume guztiak.

. Soluzio arkitektonikoa, ingurunea eta barrera arkitektonikoak

Haur Hezkuntzako bi eraikinak hexagonalak dira: egitura, materialen kalitatea, gelen disposizioa, bainugelen kopurua eta egoeran, diferentziarik ez dago. Egitura xumeak dira. Harri Berri - Oleta ikastetxeko 3, 4 eta 5 urtekoen eraikina "sendoagoa" da.

Inguruneari buruz, bi ikastetxeen inguruan dagoen trafikoa handia da. Urbanizazio aldetik, pixkanaka ari dira hobetzen bi auzoetako inguruko parke eta kaleak (Arantzazuko Amaren ondoko kaleak peatonalizatu egin dituzte eta espaloiak kendu). Hala eta guztiz ere, aldaketa horiek ez dituzte arriskuak ekidin, bertako bizilagunen kotxeak, maiz, abiadura handian ibiltzen baitira eta espaloiak desagertzearekin oinezkoek kontu handiz ibili behar baitute.

Bi ikastetxeetarako sarrerek eskailerak dituzte. Igogailurik ez daukate, beraz, “ume-kotxearekin” eskolako ate nagusira iristeko oztopoak dituzte eta arazo fisiko/motoreak dituzten haurrak ezin dira ikastetxe hauetan matrikulatu.

. Kanpoaldeko espazioak

Gure bi ikastetxeetako patioek ez dituzte gutxiengo neurriak betetzen:

- Patio bueltan koskak eta eskailera-mailak daude.
- Ez daukate ondo estalitako zonarik (Harri Berriren kasuan ez dauka estalitako zonarik).
- Euria egin berria bada putzuak eratzen dira, beraz, umeak ezin dira patiora irten ateri egon arren.
- Zonalde berdea –belarra, zuhaixkak, landareak, loreak, zuhaitzak– oso eskasa da.

. Barruko espazioak

Oro har, bi ikastetxeek nahiko ongi betetzen dituzte gutxiengo hauek:

- Argitasun eta aireztatze naturala.
- Eraikinen ikus-komunikazioa ona da.
- Psikomotrizitate gelaren ondoan bainugela dago.
- Jangela, Arantzazuko Ama Ikastolan beheko solairuan dago.
- Altueretan eta gelen sakontasunean ez dago arazorik.
- Barrualdeko elementu gehienak umeen adinari egokituak daude.
- Lurzoruak leunak, beroak, ez-irristakorrek dira.
- Bi ikastetxeetako eraikinak margotu berriak daude eta txukunak eta koloretsuak ikusten dira.

Betetzen ez diren baldintzak eta arriskua sortzen dutenak edota sor ditzaketenak:

- Harri Berri – Oletako jangela 2. solairuan dago.
- Sabaiak eta orokorrean gelatako paretak ez daude ondo isolatuak eta soinu eta zarata erraz sortzen da.
- Arantzazuko Ama Ikastolaren kasuan, psikomotrizitate gela ez da ziurra, leihoak beheraino dauzkalako eta, horregatik, Lehen Hezkuntzako eraikinera joan behar izaten dute umeekin psikomotrizitate saioak egitera eta horrek ere baldintzatzen du astean saio gehiago ez egitea.

. Zurgintzari buruzko elementuak

- Bi ikastetxeetako ate eta leihoak xumeak dira.
- Leihoak: orokorrean babestuak daude; ez daukate kristal bikoitzik; denek ez dute pertsianarik.
- Ateak: ateen zabalerak gutxiengoa betetzen du; helduleku sinpleak dituzte; ez daude kautxu edo beste materialez babestuta. Kanpoko aldera irekitzen dira.

. Instalazioei buruzko elementuak

- Bi ikastetxeetako bainugelak oso zaharkituak zeuden baina, 2007an erabat berritu dituzte eta egokiak eta alaiak dira orain.
- Berogailuak bai. Gutxiengoko 18°C-ko tenperatura bermatzen dute.
- Instalazio elektrikoa. Geletako gutxiengoko argitasuna egokia da. Argi mota fluoreszentea da. Fluoreszenteak ez dira erregulatzen.
- Eskolako mekanismo elektriko guztiak babestuta daude.
- Segurtasun aldetik, suteen aurkako arautegia betetzen da eta bi ikastetxeetan ondo seinalizatutako kartelak eta argibide argiak daude.

Betetzen ez diren neurriak:

- Erradiadoreak ez daude babestuta eta ume txikiekin arriskutsua izan daiteke.
- Ez dago tximistorratzik bi eraikinen kasuan. Harri Berriko ikastetxearen kasuan, Kultur Etxeak dauka tximistorratza eta eraikina ikastetxetik 100 m eskasetara dagoenez, erradio horretan dauden ikastetxea eta etxeak babestuak daudela esan digute.
- Harri Berri - Oletako patioa ilun samarra gelditzen da egun euritsuetan eta ilunabarretan.
- Bi ikastetxeetako inguruko zonaldeak ez daude ongi seinalizatuta eta argizatuta.

Gomendioak**. Barruko espazioak**

- Arantzazuko Ama Ikastolako Haur Hezkuntzako eraikinean bertan egokitu beharko litzateke psikomotrizitaterako baldintza egokiak betetzen dituen gela.

. Zurgintza

- Leihoetan kristal bikoitza jartzea komenigarria izango litzateke akustika eta temperatura arazoak ekiditeko.
- Ateak kautxuarekin babestea egokia jotzen dugu, momentu askotan hallean jarduera asko egiten dituztelako hurrekin (eguraldi txarra dagoenean bertan egiten baitute jolas ordua) eta arriskutsua da, korrika ibiltzen direlako eta hain txikiak direnez, kontrol falta dutelako.
- Ateak eta leihoak ez ezik, beheko solairuko pareten materialak ere biguna izan behar lukeela edo babestuta egon behar lukeela pentsatzen dugu.

. Kanpoaldeko espazioak

- Patioan, ondo estalitako zonaldeak oso premiazkoak dira, eguraldi euritsua maiz egiten duelako eta umeak hoztu egiten direlako.
- Patioko koska eta eskailerak kendu egin beharko lirateke, oso arriskutsua egiten dutelako ume txikien jolas garaia.
- Putzuak ekiditeko drainatze sistema on bat beharrezkoa da.
- Baratze, hondarra, iturria, "eremu berde" baten premia ikusten dugu, hurrekin gelatik kanpoko jarduerak egin ahal izateko.

. Instalazioei buruzko elementuak

- Berogailuak babestuak egon beharko lukete.
- Bi ikastetxeetako patioak hobeto argiztatu beharko lirateke.
- Inguruko zonaldeak hobeto seinalizatu eta argiztatu beharko lirateke.

Atal honekin bukatzeko esan, Heras, L.-rekin bat gatzela eraikinen barruko nahiz kanpoko alderdiak garatzea beharrezkoa litzatekeela, eskolako irudia proiektatzerakoan gizarte-kontzientzia duen erakunde modura islatuz. Eskoletako eraikinek ikaskuntza eta bizitzarako alor estetiko oinarrizkoen adibide bihurtu beharko genituzke. Salmerón-en hitzak aipatuz, eraikin eta espazio arkitektonikoek ahozkoa ez den informazio kultural eta soziala transmititzen die ikasleei. Irizpide pedagogiko, psikologiko, sozial, arkitektoniko eta ekonomikoen elkarrekintzak eskaintzen digu zentro hezigarri baten ideia bat eta egindako planteamendua eta diseinuaren orientazioa zenbateraino egokia den edo ez denaren informazioa.

13.2 Administrazioa eta Udaletxearen Eginkizuna

. Giza baliabide eta material didaktikoak

- Ikerketa lan honek iraun duen bitartean, Haur Hezkuntzako gela hauetan irakasleen egonkortasunean ez da aldaketa handirik egon, irakasle-taldea orokorrean mantendu egin baita.
- Bi ikastetxeetako 2 urtekoen geletako altzari, alfonbrak, etab. aldatu egin dituzte 2007an eta egokiagoak dira bai diseinu, materialen goxotasun eta kolore aldetik.
- Harri Berri Ikastetxeko atezainak ez du euskaraz egiten.

Gomendioak

- Material eta baliabide aldetik, oro har, gelak nahiko ondo hornituak dauden arren, ikasturtean zehar andereñoek beharrezkotzat jotzen dute material berria gehitzen joatea. Pentsatzen dugu, kontzeptu horretarako diru-iturria administrazioak aurreikusi beharko lukeela.
- Bi urteko haurren geletako kopurua zaindu egin beharko litzateke, adin honetako umeek behar duten atentzioa, zaintza eta jarduera posible egiteko; ume bakoitzak hasieran behar dituen "momentuak" eskaintzeko, uste baitugu, egoerak pertsonalizatuz aurrerapauso egokiagoak eskaini daitezkeela. Bi nahiz hiru urteko haurren geletan, beste andereño edo laguntzaile baten presentzia beharrezkoa ikusten dugu.
- Haur Hezkuntzan lan egiten duten pertsonala kontratatzerakoan hainbat baldintza kontuan hartzea ezinbestekoa iruditzen zaigu; atezainen kasuan: euskaraz jakitea; guraso, haur eta irakasleei harrera ona egitea (berak baitira eskolara iristerakoan ikusten ditugun lehenengo pertsonak); andereñoei laguntza emateko prest egotea, haur txikiekin edozein momentutan sortzen diren egoeretan parte hartuz.

13.3 Eraikuntzen Diseinua

Eskoletako arkitekturaren alorrean pedagogia eta psikologiarekin zerikusia daukaten lanen artetik egin dugun errebisiotik, egileek azpimarratzen dituzten alderdi esanguratsuenen ezaugarriak aztertu ditugu.

Bi ikastetxeek betetzen dituzten baldintzak hauek dira:

- Tamaina desberdinetako ikasle taldeak sortzeko aukera.
- Taldearen tamainan aldaketak ahalbidetzeko aukera.
- Irakasleen lanerako espazioak eskaintzea.
- Eskola "etxeko irudiarekin" lotuagoa egotea.
- Behar fisiologikoak asetzera: orientazioa, espazioen zabaltasuna, argitasuna, tenperatura, ...
- Ikasle bakoitzaren nortasun globalaren garapena ahalbidetzea: seguritate afektibo-emozionala, norberegana konfiantza eta erantzukizuna. Garrantzitsua ume bakoitzak bere gauzak gordetzeko espazio bat izatea.
- Motrizitatearen garapena, hizkuntzarena, espazio-denborazko antolaketan, sinbolizazioan, prozesu logikoetan laguntza ematea: Altzaririk gabeko barruko espazioa, musika, dantza, ... jarduerak egiteko.
- Ezagutzen lorpen bibentziatua ahalbidetzea: alderatuz, erlazionatuz, ikertuz.
- Gela txokoetan edo espazio desberdinetan antolatuta egotea.
- Haur eta helduei espresioa, ekimena, sormena eta fantasia erraztea: umeen parte hartzea gela apaintzerakoan eta altzarien banaketan.
- Elkarbizitza eta komunikazioa erraztea: Espazioa eta objektuak konpartitzeko aukera.

Osatu edo hobetu beharko liratekeen hainbat baldintza:

- Motrizitatearen garapena, hizkuntzarena, sinbolizazioarena: musika, dantza, jarduerak kanpoan egiteko espazioa, eguraldiak mugatzen du.
- Ikasteko eta antolatzeko ohiturak barneratzen erraztea. Espazioak soinuengandik eta besteengandik ez daude behar adina babestuak.
- Heziketa estetiko eta sentiberatasunean laguntzea: elementu natural, landare eta animaliak gelan eta kanpoan edukitzea mugatuta dago, kanpoko espazioen egitura eta eremu eskasengatik eta estali gabeak daudelako.
- Moldagarritasuna: egituretan aldaketak egiteko ahalmena ez da bermatzen.
- Malgutasuna: espazio bihurtgarri eta moldeagarriak. Neurri batean bai, baina ez erabat.

Gomendioak

- Elementu osagarrien erabilpenerako, moldagarritasun eta malgutasun gehiagoko espazioak sortzeko aukera bermatu beharko litzateke.
- Naturarekin harreman zuzena izateko, kanpoaldeko espazio bariatuak sortzeko aukera oso beharrezkoa ikusten dugu.
- Garrantzizkoa iruditzen zaigu eskola "etxeko irudiarekin" lotua egotea, ahalik eta familiarrena izatea, erabiltzaileari ongizate eta erosotasuna eskaintzea beharrezkoa bai litzateke.
- Eskolako giroak "manipulatzeko" aukera eskaini behar du, birproiektatu egin behar da etengabe, umeen eta irakasleen esperimendazioa oinarritzat hartuz. Eskola bateko proiektuak epe luzerako nahiz epe laburrerako aldaketak egitea erraztu behar du.

. Diseinuaren eragina jokabidean

Gure lanean aipatu ditugun egile batzuen ikerketa-lanen emaitzek baieztatzen dutenez, honako eraginak sortzen dituzte eskoletako eraikuntzen diseinuak jokabidean:

Ondorio onuragarriak:

- Itxura estetikoa modu erakargarrian dekoratuta zegoen geletan, emaitza akademiko hobeak izan ziren. Irakasleen aldetik ere, gela hauetan klasea emandakoen artean, aldeko balorazioa eta gelarenganako jarrera positiboak azaldu zituzten.
- Gelako diseinuak (moketa, altzariak, argiak...) ikasleen parte hartzean eragina du.

Ondorio kaltegarriak:

- Ondorio fisikoak: zefaleak, progresiboki entzumen maila galtzea, kolesterolaren gehitze progresiboa, bihotz-erritmoaren gehitzea eta liseri-aparatuan aldaketak.
- Ondorio psikikoak: neke goiztiarra, haserrea, agresibitatearen areagotzea.
- Ondorioak eskolako errendimenduan: atentzio eza, interes falta, estresa, irakaslearen ahozko azalpenetarako ulermen mailako zailtasunak...

. Altzari eta ekipamenduak

Aztertu ditugun egileen lanetatik ondorioztatu dezakegu:

- Ekipamendu ideal bat ez dela existitzen eta, beraz, bere garrantzia erlatibizatu egin behar dugula, erlazio, jarrera, giro afektibo eta proiektu pedagogikoaren garrantziaren arabera. Elementuen erabilpena izango litzateke gauza bera baino garrantzi handiagoa daukana.
- Altzarien baldintza fisiko, estetiko eta pedagogikoak kontuan hartu behar dira, maila indibidualean erabiltzeko altzarien ezaugarri ergonomiko eta estrukturalak (mahaiak, aulkiak) eta maila kolektiboan erabiltzekoak (armairuak, apalak, ...) bereiztuz.

OCDEk kaleratutako lan batean, altzariak bete behar dituzten ezaugarri hauek kontuan hartzekoak direla esango genuke:

- Helburu garrantzitsuena erabilpenaren barietatea eta malgutasuna da: mugitze gradu desberdinak, tiratze-bultzatze zein garraiatze errazak, altzari pieza bakoitzaren arteko bateragarritasuna.
- Eraikina eta altzarien arteko bateragarritasuna bermatu behar da. Beharrezkoa da, arkitektoa lanean hasi aurretik marko dimentsionala ezagutzea eta ulertzea. Materialen kalitatea, koloreak (beroak eta neutroak, ez argiegiak eta ez ilunegiak) eta neurriak (harmonia eta koherentzia) kontuan hartzea.
- Iragarki taulen presentzia garrantzitsua da komunikazio tresna moduan.

. Eskolako ergonomia

Aztertu ditugun lanen emaitzetatik, honako ezaugarriak eduki beharko lituzkete eskoletako aulki eta mahaiak hainbat kalte ekiditeko helburuarekin:

- Tamaina desberdinetako aulkiak proposatzen dituzte, doigarriak eta biratzaileak, pertsonaren pisu handiena atzealdean hartuko dituztenak, barrubigunak pixka bat eta ehundura porotsua duen oihal batez estaliak.
- Mahaiaren diseinuari buruz: irakurtzeko eta idazteko azalera horizontala dutenek, gehiegi okertu arazten ditu ikasleak eta eragin kaltegarria izan dezake: bizkar hezurra gehiegi tentsionatzea eta ikusmenean ahalegin berezia egin behar izatea; liseriketa arazoak; arnasketa arazoak; ikusmen arazoak eta posturalak.

Ikuspegi ekopsikologikotik ergonomia eskolarra ikertu duten egileen ustez, gaizki diseinatutako altzarien erabilpenak, ondorio kaltegarri hauek izan ditzakete:

- Epe motzean, oreka txarrean eserita egoteko postura da haurren ezegonkortasuna eta aztoratze portaeren zein atentzio arazoek kausetako bat.
- Epe luzera, atentzio arazo hauek, ezegonkortasunaren portaerekin asoziatuz, izaerarekin loturiko arazoa ekar dezakete.

.Gure ikastetxeetako egoera

Ikusten dugu, pixkanaka pixkanaka altzari eta ekipamenduan aurrerapausoak ematen ari garela: mahai eta aulkien altueran, materialen kalitatean, koloretan, baina oraindik, gauza asko dago egiteko ergonomia mailan hauek eragindako osasun eta portaera arazoak ekidin nahi baditugu.

Gomendioak

- Hainbat eta hainbat kalte fisiko, psikiko eta hauen eraginez, eskolako errendimenduarekin lotuta dauden atentzio eza, interes falta, estresa, irakaslearen ahozko azalpenetarako ulermen mailako zailtasunak... kontuan hartzen baditugu, beharrezkoa ikusten dugu eskolako eraikin eta elementuen diseinuari behar duen garrantzia ematea eta Administrazioak, eraikin berriak diseinatu, eraiki eta ekipatzerakoan adituen azterketatik jasotako aholkuak eta neurriak kontsideratzea.

. Ingurune-baldintzak

Atal honetan, argitasunak, koloreak, akustikak, zentzumen bakoitzak duen garrantzia kontuan hartzen dituzten ikerlanen emaitzetan azaltzen diren argibideak kontuan hartuz egingo dugu bi ikastetxeetako balorazioa:

Betetzen diren elementuak:

- Argiztapena: Gutxiengo luxak mantentzen dira barruko espazioetan.
- Koloreak: Parte hartze aktiboa eskatzen duten jardueretako kolore beroa duten materialak eta lasaiagoetarako kolore hotzak; paretetako kolore biziak ekiditea; arbeletarako kolore berde, gris edo beixa; ausartagoak (urdina eta gorria) lan artistikoetarako. Nahiz eta ñabardura batzuk kontuan hartu beharko genituzkeen, oro har, nahiko ondo betetzen dira aholkuak.

- Faktore termikoak:

Tenperatura 20-23 gradu artean. Berogailuarekin kontrola daitekeenean bai.

Hezetasuna 30 - 60 artean geletan. Oro har, bai.

Erabat betetzen ez diren neurriak:

- Kanpoko espazioetako argiztapena. Argitasun gehiago beharko litzateke eguraldi ilunetan eta neguko arratsaldeetan.
- Baldintza akustikoak: Soinuaren kontrola espazio espezifiko baten barruan eta kanpoko soinuen prebentzioa. Ez dago ongi soluzionatua.

Reggio Emilia-ko eskoletan egindako ikerketek zabal eta esanguratsuki jasotzen dute ingurune baldintzekin lotutako hainbat eta hainbat elementuren eragina: espazioaren formak, antolaketa funtzionalak, hautemate sentsorialen multzoa (argi, kolore, giro akustiko eta mikroklimatikoa, etab.).

Lehentasun kromatikoa, ukimenarena, usaimenarena eta argiena gizabanakotik gizabanakora aldatzen da. Horrexegatik Reggioko-ek espazio polisentsorial gisa planteatzen digute ingurugiroa, ez estimulatzaile gisa aberatsa izanez, baizik eta balore sentsorial desberdinak eskainiko dituen, norberak bere ezaugarriekin sintonizatzeko moduan.

Zentzumen guztien ezaugarriak deskribatzen dizkigute eta eskolen diseinu eta proiektuetarako aholkuak ematen dizkigute. Bere aberastasunagatik, luze azaldu dugu lan hau 3.1.4. atalean.

Gomendioak

- Argi, kolore, faktore termiko, akustiko, zentzumen bakoitzaren ezaugarriek daukaten garrantzia kontuan hartuta proiektatu beharko lirateke ikastetxeak, deskribatu ditugun elementuen arabera. Pauso ugari eman behar dugu oraindik gure ikastetxeak maila honetara iritsi daitezen; faktore guzti horien garrantzia ezagutuz, kontzientzia hartuz eta planifikazioan islatuz. Lan honek, batez ere, hezkuntza eta eskolen eraikuntzetan parte hartzen duten eragile guztien arteko elkarlana eskatzen du eta Administrazioak paper handia jokatu beharko luke.

Materialen kasuan, gogorrek (porlana, adreilua, beira, metala) sabai, pareta eta lurrean jarrita soinua islatzen dute. Alderantziz, azalera biguneko materialek

(kortxoa, egurra, gortinak, alfonbrak) soinua absorbatzen dute. Guzti hau kontuan hartu beharko litzateke eraikinen eraikuntzan.

- Reggio Emilia-ko udal eskolak bisitatu ondoren eta bertako alkatesak, Antonella Spaggiari-k, eskolei buruz duen ezagutza, sentikortasuna eta arazoan aurrean hartzen dituen konpromisoak ikusi ondoren, oraindik argiago ikusten dugu, udaletako alkateek eta arduradunek eskolarekiko eduki behar duten parte hartzea eta ardura gehitu egin behar dela; gure kasuan, bi ikastetxeak Donostian kokatuta daudenez, Odon Elorza jaunari eta bere taldeari transmititu nahiko genioke, haur txikien eskolen premiak hurbiletik ezagutu, tratatu eta hainbat neurri hartzea premiazkoa dela gaur egungo hezkuntzaren eskakizunei baldintza onetan erantzun nahi badiogu.

13.4 Eskoletako Espazio Arkitektonikoen Ebaluazioa

H. Salmerón-en, CAES (Calidad Arquitectónica Escolar) izenarekin ezagutzen den tresna hartu dugu gure eskoletako espazio arkitektonikoen kalitatea neurtu eta ebaluatzeko helburuarekin; 7 alorretan sailkatzen ditu aldagaiak:

Estetika orokorra, Funtzionalitatea, Globaltasuna, Etxekotasuna, Egokitasuna, Irizpide tekniko-eraikuntzakoak, Ingurune fisikoaren erosotasuna.

Alor bakoitzaren itemak kontuan hartuz egin dugu gure bi ikastetxeen balorazioa:

Nahiko ongi edo ongi betetzen diren baldintzak:

- Estetika orokorra: Proporzionatuak dira bi eraikinak; tamaina aldetik integratzen dira inguruko egiturekin eta kokapenaren egokitasunaren aldetik auzo erdi-erdian daude.
- Funtzionaltasuna: Barruko espazioek nahiko ondo betetzen dute baldintza hau.
- Globaltasuna: Betetzen dute espazioei buruzko komunikazioa eta ezagutza, erabiltzaileei eskolaren irudi globalaren bereganatze prozesua erraztuz.
- Etxekotasuna: (gizabanakoak espazioa ezaguna eta berea bezala bizi eta identifikatzen du).
- Eraikuntzen tamaina egokia da. Neurri batean espazioak eralda daitezke. Espazioen dekorazioa bariatua da, alai. Alzarien tamaina eta formak ahalbidetzen dute konbinatzea talde txikitako nahiz handietako jardueretarako.

- Irizpide tekniko-eraikuntzakoak: Konforta: Neurri batean bai, barruko espazioak margotu berriak daudelako, bainugelak berriak dituztelako eta leihoak aldatzen ari direlako. Segurtasuna: Gelak orokorrean ziurrak direla esango genuke. Iraunkortasuna: Barruko espazioak neurri batean bai, egonkortasuna bermatzen dute erabilpen arrunterako.
- Ingurune fisikoaren erosotasuna: Akustika, faktore termikoak, argitasun eta aireztatze baldintzak. Maila batean betetzen dituzte gutxiengo baldintzak.

Betetzen ez diren baldintzak eta ondorioz aldaketak eskatuko lituzketenak:

- Estetika orokorra: Duintasuna: Eraikinen materialak ez dira sendoak ez eta kalitate eta bukaera onekoak. Dotoretasuna: Ez dira eraikin dotoreak eta erosoak, batez ere kanpoko espazioengatik. Landaredia: Zona berdeak falta dira patioetan.
- Funtzionaltasuna: Kanpoko espazioek ez dute ahalbidetzen hainbat jarduera egitea, adibidez, baratzeko lanak, hondarrarekin eginiko eraikuntzak, animalien zaintza, landareen eta loreen zaintza.
- Globaltasuna: Kanpoko espazioek ez dute betetzen baldintza hau; ez dute ahalbidetzen barruko eta kanpoko jardueren arteko lotura.
- Egokitasuna: Eraikinak dauden partzelak txikiak dira eta ez dute alboan beste eraikin bat proiektatzeko tokirik. Barrera arkitektonikoak dauzkate.
- Irizpide tekniko-eraikuntzakoak: Konforta: Neurri batean bai, baina eraikinak berak ematen duen aukera baino, andereñoek ekipamendua eta hainbat material antolatzeke eta dekoratzeko daukaten gaitasuna eta sormenari esker iristen dira konfort maila batera.
- Segurtasuna: Kanpoko espazioak ez dira ziurrak: eskailera, koska, ...
- Iraunkortasuna: Patioko espazioen konponketa eta hobetzea zaila egiten da, adibidez, putzuak eta arrapalak ekiditeko, drainatze sistemagatik eta arrapalen kasuan daukaten makurdura mailagatik.
- Ingurune fisikoaren erosotasuna: Akustika aldetik ez daude ondo isolatuta eta zarata handi samarra sortzen da haur taldeak elkartzen direnean.

Gomendioak

- Estetika orokorrean, materialen kalitatea hobetu beharreko elementua da. Dotoretasun eta erosotasun aldetik ere hobekuntzak eskatzen dituzte.
- Funtzionaltasuna eta globaltasuna: kanpoko espazioak barrukoekin lotura izan dezaten neurri garrantzitsuak hartu beharko lirateke, oso mugatuta gelditzen baita gaur egungo kanpoko aktibitatea.
- Egokitasuna eta segurtasuna: Barrera arkitektonikoak, eskailerak, koskak, putzuak ekiditeko sistemak bilatu beharko lirateke.
- Ingurune fisikoaren erosotasuna: Akustika arazoei soluzioa bilatu beharko litzaieke, barruko nahiz kanpotik datozen soinuen eragina murrizteko.

13.5 Espazioaren Antolaketa: Proposamen Didaktikoak

Atal honetan, Haur Hezkuntzako espazioaren antolaketa didaktikoei buruz egindako lanak hiru multzo handitan sailkatuta agertu ditugu Marko Teorikoaren 4. kapituluan. Ondoren, gure bi ikastetxeak sailkapen horren arabera baloratuko ditugu:

. Gela/gelaz kanpoko Espazioetako Antolaketa Ereduak

Proposamen honetan, batzuetan, gela bakarrik sartzan da eta besteetan, kanpoko espazioak ere bai. Egile desberdinek izendapen anitzak ematen dituzte: irakaskuntzako edo jardueretako zonaldeak; jarduera-aldeak; txokoak; tailerrak; jarduera-guneak, ...

Nahiz eta terminologia desberdina erabili, gela barruan zonalde edo irakaskuntza eremu desberdinetan egoten da antolatuta gela.

. High Scope Eredua

Umearen protagonismoa eta ekimenak du garrantzia. Umeei giro estimulatzaile baina, aldi berean, ordenatua hobeto ikasten dute.

Gure bi ikastetxeetatik, Altzako Harri Berri - Oleta izango litzateke proposamen honen barruan sartzan dena.

Ereduarekiko aplikazio maila

Harri Berri - Oleta ikastetxeko gelek betetzen dituzte eredu honek eskatzen dituen printzipioak, helduaren papera —jardueren bultzatzaile— eta gela barruko jarduera-eremuak; ura eta hondarraren eremua faltako litzateke aipatu dugun patioko egiturarengatik eta, kanpoko jarduera bera ere, zona estalirik eta itxirik ez dagoenez baldintzatua dago.

Azpimarratu nahiko genuke, nahiz eta ikastetxe hau lehenengo sailkapen honetan sartu dugun, gela bakoitza txoko espezifikoetan antolatuta dagoelako, proposamenaren ezaugarri guztiak betetzeaz gain (gela eta kanpoko espazioak, eremuak zedarrituta, curriculum osoa hartzen du barne, espazio guztia txoko espezifikoetan antolatuta egotea), bigarren sailkapeneko proposamenean azaltzen den ezaugarri esanguratsu bat ere betetzen duela, hau da, ikastetxe osoa inplikatzeko duela proposamenak.

. Ikastetxean oinarritutako Antolaketa Ereduak

Proposamen anitzak daude multzo honen barruan ere, baina, "tailer integralak" izendapena hartzen duena da ezaugarrietako bat, ikastetxeko gela bakoitza "plastika", "matematika", "ipuinak", eta abarretako tailerrean bihurtzen da eta talde edo ume desberdinak gela horietatik pasatzen joaten dira, irizpide batzuen arabera.

. Frabboni-ren Eredua

Gure bi ikastetxeetatik, Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastola izango litzateke proposamen honen barruan sar dezakeguna.

Eskola, ingurunean erabat sustraituta ikusten du egile honek. Bere espazioa antolatzeko ideia ez da zona bakoitzak funtzio zehatz bat izatearena, baizik eta, zona desberdinak proiektu kurrikular integratu batean biltzea. Zortzi jarduera-gune proposatzen ditu eta, horietatik sei, gela desberdinetako umei irekiak egongo lirateke eta beste biak, norberaren gelan garatzekoak.

Ereduarekiko aplikazio maila

Arantzazuko Ama Ikastolak "tailer integralen" izendapenean ulertzen den definizioa betetzen du, hau da, ikastetxeko gela bakoitza (3 urteko haurrekin hasita) "plastika", "eraikuntzak", "ipuinak", tailerretan bihurtzen dira eta talde edo ume desberdinak gela horietatik pasatzen joaten dira, zirkulazio libreko sistema erabiliz. Azpimarratu nahi genuke ezaugarrien artean, curriculum osoa barne dagoela eta ikastetxe osoa inplikatzeko duela proposamenak.

. Komunitate osoa barne hartzen duen Eredua

Sailkapen honen barruan Reggio Emilia-ko Udal Eskolak sartzen ditugu eta bere garrantziatik luze hitz egin dugu gure lanean. Eskola hauen metodologia lege orokor batean oinarrituta dago: "gauza errealak egiten badira, ondorioak ere errealak izango dira", hau da, ideiak gertaera eta esperientzia errealetatik sortzen dira, erantzun eta ondorio errealei bide emanez.

Reggioko eredu hau kontuan hartuta egingo genituzkeen gomendioak:

- Erlazioaren Pedagogia. Eskolan umeekin egiten dena gehiago dokumentatzea, eragile guztiei zabaltzea komenigarria ikusten dugu.
- Espazioa hirira eta lurraldera hedatzea. Eskolak auzoarekin eta hiriarekin pixkanaka kontaktu gehiago izatea beharrezkoa iruditzen zaigu.
- Ikastetxe barruko antolaketa:
- Erdiko espazio edo gunehandiago bat, eskolari bizitza handiago bat emango liokeena, elkartzeko gunehandiago bat, jarduerak proposatzeko gunehandiago bat.
- Ume bakoitzak bere espazio pribatu bat –gauzak sartzeko–, armairu edo buzoimoduko bat.
- Haurrak bakarrik egon nahi duenerako, espazio bat.
- Sekzio edo gela bakoitzak kanpora ateratzeko irteerak asko erraztuko luke bi espazioen arteko lotura. Honekin lotuta, neguko lorategi bat (itxia) eta kanpoko lorategi bat.
- Harri Berri - Oleta Ikastetxean tailer edo eremu handiagoa hartzen duen espazioa: eraikuntza material anitzagoarekin.
- Sukaldea. Harri Berri - Oleta Ikastetxean beheko solairuan egon beharko luke, eskura edukitzean umeen presentzia eta parte hartzea ahalbidetuko lukeelako.
- Bainugelak egokituak eta oso atseginak dira orain baina, behar bada, gehixeago dekoratu daitezke (ispiluak, landareak, ...)
- Patioa: Barruko giroaren jarraipena lortu beharko litzateke gorago aipatu dugun moduan jarduera gehiago ahalbidetu beharko luke eremu desberdinak eraikiz: itzalak, eguzkitsuak, lur eremu irregularrak, uniformeak, iturria. Eremu berdearen premia bereziki azpimarratzen dugu beharretan.

14

ETAPAREN GARRANTZIA

14 ETAPAREN GARRANTZIA

0-6 urte barne hartzen duen etapa hau oso garrantzitsua da haurren garapen integralerako, bertan lantzen baitira txiki-txikitik hasita pertsonaren garapeneko eremu guztiak: afektiboa, motorea, soziala, ezagutza-trebetasun-jarrerak, elkarrekintza, gizarteratzea... Urte hauetako hurrekin lan egiten duten irakasleen, maisu-anderenen prestakuntzan lan egiten dugun irakasleon, familien eta gizartearen papera, funtsezkoa bezain konplexua da. Gauzak ondo egiteko hainbat eta hainbat faktore zaindu behar dira, eskakizunen aurrean arreta berezia jarritz, umea “entzunez”, ulertuz eta “detaile” txikiez osatuta dagoen ibilbide luze honetan haurrari lagunduz.

14.1 Haur Hezkuntza Etapako Helburu Orokorrak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egokitutako Helburu Orokorrak dituzte abiapuntu ikastetxeek beren helburuak ezartzeko, hauen premia eta ezaugarriei erantzun ahal izateko, beraien Hezkuntza Proiektua eta Proiektu Kurrikularra elaboratuz. Helburu Orokor horiek, Haur Hezkuntzan, hiru esperientzia eremutan sailkatuta azaltzen dira: Nortasuna eta Autonomia Pertsonala, Ingurune Fisiko eta Soziala eta Komunikazio eta Errepresentazioa.

14.2 Metodologia Printzipioak

Arantzazuko Ama Ikastola, Antzuolako Eskolaren ikuspegi konstruktibistan oinarritzen da eta honako printzipioak jarraitzen dituzte:

Ekintza - Globalizazioa - Gaien eta ekintzen aukera - Aniztasuna -
Egituren eraikuntza - Autonomia - Elkarrekintza

Metodologia printzipio hauen zehaztasunak Marko Teorikoaren 6.1. atalean azaltzen dira.

Proiektuetan oinarritzen dute beraien globalizazio metodoa.

Harri Berri Ikastetxeak, Amara Berriko sistema du erreferentzia gisa eta honako printzipio hauetan oinarritzen dira:

Indibidualtasuna - Sozializazioa - Aktibitatea - Sormena - Askatasuna -
Normalizazioa

Bere metodologia printzipioen garapena Marko Teorikoaren 6.2. atalean azaltzen dugu. Beraien globalizazio metodoaren ardatza Ipuinak dira.

Bi ikastetxeek, aipatutako printzipioak kontuan hartuz diseinatzen dituzte geletako espazio/txokokoak eta denboraren antolaketa.

14.3 Gurasoekiko Harremanen Planteamendua

Etengabeko harremana daukate, eguneroko elkarrizketa eta informazio trukaketa presentziala dute gurasoekin, telefonoz edozein ohar edo galderei erantzunez eta, komunikazio "informal" horietatik at, ikasturte guztian zehar egiten dituzte bilera eta elkarrizketa indibidual eta taldekoak. Erlazio honek umearen ezagutza erraztu egiten du, hobeto uler daitezke hainbat egoeren aurrean umeei dituzten erreakzioak eta, hasieran ezinbestekoa da gurasoekiko informazio trukatzeko hori.

14.4 Egokitzapen-Aldirako Proposamena

Arantzazuko Ama Ikastola eta Harri Berri - Oleta Ikastetxeen lehen egunetako antolaketa:

- Umea eskolan hasi aurretik, maiatzean, gelara etortzen da, andereñoa, espazioak, materialak eta umeei lehenengo kontaktua egitera.
- Irailean:
- Bi taldetxo egiten dituzte eta bakoitzarekin ordubeteko saioa: 9:30 - 10:30; 11 - 12:00.
- Atxikimendu pertsona berarekin egoten da (ama, aita, amona, aitona, ...).
- Ordutegia luzatzen joaten dira umeen arabera (bakoitzaren erritmoa kontuan hartuz).
- Espazioa: egokitzapen prozesu honetan gela bera.
- Materiala: ahalik eta ugarien eta erakargarriena.

Gurasoen papera:

- Umeari prozesua nolakoa izango den alde aurretik azaltzea.
- Lasai egotea.
- Aurreneko egunetan gela barruan egotea, leku finko batean eserita; ondorengo egunetan gela ondoko espazio egokitutako batean egotea.
- Umea jolasean hasi eta helduarengana jotzen duenean, onartu, umeen arteko agresio aurrean lasaitasuna erakustea.
- Banaketa prozesua pixkanaka egitea: umeari abisatuz (egia esanez), lehenengo egunean 10 minutukoa eta progresiboki luzatzen joango delarik. Banatzerakoan agurrak ez luzatzea.

Eskolatzea horrela egitearen hainbat ondorio onuragarri:

. - Umeari dagokionez:

- Ikastola, gela eta andereñoak ezagutzea.
- Familiako norbaiten presentzia bermatua izatea.
- Andereño eta gurasoen arteko harremanaz jabetzen hastea.
- Sentimendu, behar, beldur eta kezken aurrean andereñoa “berarekin” dagoela ziurtatzen joatea.
- Bereizketa/banaketaren prozesua ezagutzea.

. - Gurasoei dagokienez:

- Ikastola, gela, andereñoak ezagutzea.
- Haurrari eskolako lehenengo egunetan laguntzea.
- Bereizketa pixkanaka egitea.
- Beldur eta kezken aurrean andereñoaren laguntza jasotzea.
- Ohitura, muga, jarduera eta harremanak nola lantzen dituzten behatu eta ikastea.
- Irakasleekin eguneroko harremanen garrantziaz jabetzen joatea.

. - Andereñoi dagokienez:

- Haurra eta gurasoen arteko erlazioa behatzea eta umea hobeto ezagutzen joatea.
- Gurasoekin konfiantzazko harremanak egiten joatea eta bakoitzaren egoera, zailtasun eta interesak hurbilagotik ezagutzea.

Prozesua horrela egiteak inplikatzeko du:

. - Gurasoei dagokienez:

- Egokitzapen-aldiaren garrantziaz jabetzea
- Ikastetxean egon ahal izateko modua aurkitzea: amak, aitak, amonak, edo etxeko norbaitek.
- Irakasleen aholku eta iradokizunak kontuan hartzea.

. - Andereñoi dagokienez:

- Elementu guztiak prest edukitzea: gelako espazioak, materialak, umeak aldatzeko elementuak, gurasoentzako espazioa eta materialak...
- Gurasoen presentzia eta inplikazioak suposatzen duen konplexutasuna onartzea.

- Aholkuak ematea: umearen eskaeren aurrean, egiten duenaren aurrean...
- Ume bakoitzaren egokitzapen erritmoa errespetatzea.

Atera ditzakegun hainbat ondorio:

Reggio Emilia-ko Gianni Rodari eskolako egokitzapen-aldiko prozesuan azaltzen diren hainbat elementu garrantzitsu kontuan hartuz honako aholku edo gomendioak egingo genituzke:

Gomendioak

- Haurtzaindegitik haur eskolara pasa behar duten umeen eta familien arteko etengabeko komunikazioa ikasturtean zehar, irakasleekin nahiz beste gurasoekin (elkarrizketak, bilerak, geletara bisitak, mezuak).
- Haurtzaindegiak haur eskolari umeek egindako hainbat objektu pasatzea egokia ikusten dugu, irailean eskola berrira joatean, ingurune ez hain ezagunean zerbait ezaguna izan dezaten.
- Umearen txostena: ohar eta arreta merezi duen datuez osatua.
- Haurtzaindegiko eta haur eskolako irakasleen arteko koordinazioa eta antolaketa bateratu bat.

Atal honekin bukatzeko esango genuke egunerokotasunean ematen den konstantzia horrek, – erreferentzien egonkortasunak – haur bakoitzaren erritmoaren tratamenduak, mezuak publiko egiteak, dokumentatzeak, bi erakundeen arteko elkarlanak, ... ezinbestekoak direla egokitzapen-aldiko prozesua haurraren “neurrira” egiteko eta parte hartzen duten eragile guztiek prozesua hobeto ulertu ahal izateko.

14.5 Espazioak, Materialak, Denbora eta Talde Jarduerak

14.5.1 Gelen eta espazioen egitura

Haur Hezkuntzako eraikin hauek estrukturalki oso xumeak dira eta isolamendu aldetik ez dute gaur egungo arautegia betetzen, aurrean aipatu dugun bezala.

Bestalde, gelak, oso argitsuak dira leiho asko dituztelarik. Eraikin guztia argitsua da, erdi-erdian duten sabaileihoari esker.

14.5.2 Espazio/txokoen antolaketa eta funtzionamendua

Bi ikastetxeetako 2 urteko haurren gelak txoko/espazioen bidez antolatuta daude.

Hauek dira txokoak: Etxea, Margotegia, Alfonbra - jolasak, Haurrak aldatzeko espazioa eta Harri Berri Ikastetxean, Jolas motorikoaren espazioa. Bi urtekoekin ez dute talde finkorik ezartzen eta txokoetako saioetan, haurrak berak aukeratzen du non ibiliko den eta zer jarduera egingo duen. Espazioak zedarrituta daude.

Arantzazuko Ama Ikastolan, 3 urtetik aurrerako haurrak bi gelatan lan egiten dute: "Plastika" gelan eta "Eraikuntza" gelan (3 eta 4 urteko umeak nahasten dira jarduera eta espazio desberdinetan saio batzuetan). Gela bakoitzeko espazioen antolaketak oso argi zedarritzen du diziplinako atal desberdinetako jarduera. Funtzionamendu honi "zirkulazio librea" deitzen diote. Ordu bete pasatxoko saioa egiten dute gutxi gorabehera goizero modu honetan eta saio horren ondoren, beren erreferentzia gelara itzultzen da ume bakoitza bere andereñoarekin.

Harri Berri ikastetxean, 3 urteko haurrak "errotazio sistema" erabiltzen hasten dira eta horretarako, andereñoak talde txikiak egiten ditu irizpide batzuen arabera; talde txiki horiek finkoak izango dira eta gelako 4 txokoetan zehar funtzionatuko dute: etxean, antzerkian, margotegian, jolastokian.

Bi solairuko "etxeko" txokoa espazio garrantzitsua da "jolas sinbolikorako" eta alderdi motorikoa lantzeko. "Ipuin - antzerki" txokoak espazio esanguratsua hartzen du.

Antolaketa hauen aplikaziotik atera ditzakegun hainbat ondorio:

. Zirkulazio libreko saioetan adin desberdineko umeak elkarrekin aritzea, hainbat helburu lortzeko estrategia-modu aberatsa dela esango genuke, besteak beste:

- Zein espaziotan lan egingo duten aukeratzea.
- Elkarrekintza sustatzea.
- Handiagoek zer egiten duten behatzea.
- Adin desberdinetakoekin lan egiten, jolasten, komunikatzen eta partekatzen ikastea.
- Beren irakaslearekiko autonomia lortzea.
- Jarduera aberatsagoak sortzea.
- Espazio eta irakasle desberdinak ezagutzea.
- Jokoen arauak errespetatzen ikastea.
- Txikiagoei "irakatsiz", handiek, beren ekintzez hausnarketa egitea eta gaitasun metakognitiboak garatzea.
- Bi irakasleen artean etengabeko koordinazioan lan egitea.

- . Errotazio-sistema erabiltzeak ondoko helburu hauek lortzen laguntzen du:
 - Heterogeneotasunaren printzipioa mantentzea.
 - Elkarrekintza sustatzea.
 - Elkarrekin lan egiten, jolasten, komunikatzen eta partekatzen ikastea.
 - Jokoen arauak errespetatzen ikastea.
 - Txoko bakoitzeko espazio eta materialak gertutik ezagutzea eta denak erabiltzea.
 - Ikaskideen jarduerak behatu eta ikasten joatea.
 - Andereñoak bere "ikasle taldearen" lana zuzenean behatzea.

14.5.3 Material esanguratsuenak adinaren arabera

Materialak, txoko edo espazio desberdinak ireki ahala ateratzen joaten dira. Abesti, ipuin, argazki-album eta horrelako materiala, eurek gogortua eta plastifikatua daukate, umeek erraz erabil dezaten eta berria kontserbatu dadin. Txoko edo espazio bakoitzak bere materiala dauka eta apaletan erreferentziak dauzkate, erabili ondoren, umeak berak jaso ditzan.

Bi urtekoen materialen kasuan, erakargarritasun handia dauka, adibidez, temperarekin margotzeak. Binaka jartzen dituzte, hobeto moldatu daitezten eta andereñoek ere jarduera hori kontrola dezaten. Harri Berri - Oleta ikastetxeko "motrizitate" espazioko pilotez betetako piszina oso atsegina egiten zaie eta momentu askotan erabiltzen dute: babes moduko espazio gisa erabiltzen dute, eta lehenengo elkarrekintza momentuak errazten ditu. Beste elementu garrantzitsua, argazki-albumak dira eta erabilgarritasun handia dauka 'bakarrik' sentitzen diren momentuetarako. Paper ona betetzen duen beste material bat, telefonoa da, edozein momentutan 'deitu' bai diezaioke amari, aitari...

Hiru urtekoen materialetan eta beste batzuk gutxietsi gabe, Arantzazuko Ama Ikastolako "Eraikuntzen" gelako materiala oso esanguratsua da; egurrezko pieza desberdinez osatuta dago eta eraikuntza interesgarriak egiten dituzte; arrakasta daukan espazioa da. Ikastetxe horretan bertan, mahai-jolasek ere erakargarritasuna daukate: dominoa, oka, xakea, ... Harri Berriko ikastetxeko "Antzerki" txokoak garrantzi handia du, bertan prestatzen baitute eszenatokiko dekorazioa, entseguak egin, antzeztu eta ondoren, kritika lantzen dute. Bi ikastetxeetako "plastika" gela edota txokoan, aktibitate handia egoten da eta oso gustukoa dute hurrek. Materialen

atalarekin bukatzeko, Arantzazuko Ama ikastolako hondakin materialekin egiten dituzten lanen garrantzia azpimarratu nahiko genuke.

Material hauen antolaketa eta erabileratik ateratzen ditugun hainbat ondorio:

Materialak txokoka egoteak, anitza eta erakargarria izateak, aldatzen eta berritzen joateak, umeei espazioak ezagutzen, besteekin konpartitzen, ahozko komunikazioan aurrera egiten, afektu eta emozioen mundua espresatzen eta autonomian pausoak ematen laguntzen die. Bestalde, esperientzia eremu guztiak garatzen dituzte: nortasuna eta autonomia, ingurune fisiko eta soziala, eta komunikazioa eta irudikapen desberdinak (plastikoa, matematikoa, antzezpena, motorea, ...)

14.5.4 Denboraren antolaketa ikerketa geletan

Bi ikastetxeetako denboraren antolaketatik eta behaketa saioetatik atera ditzakegun hainbat ondorio:

Erritmo eta denboraren antolaketari esker haurrak ezagutzaren ibilbidea egiten ikasiko du, eguneroko saioen sekuentziari esker denboraren kontzeptua pixkanaka bereganatuz.

Aldez aurretik zer datorren jakiteak beren burua antolatzen, denborak neurtzen eta konfiantza maila gehitzen laguntzen die.

Bi ikastetxeetan, prestatze lanetarako denbora ematen zaie hurrei eta kontzentrazio handiko momentuak gutxiago behar dutenekin tartekatzen dituzte, etenaldi eta geldialdiak errespetatuz.

Denbora ematen zaio umeari atentzioa jarri eta ezagutza antola dezan.

Azpimarratu nahi dugu saio hauek luzatu edo moztu egiten dituztela, egoeraren arabera, malgutasunaren printzipioa erabiliz.

Harri Berri ikastetxean goizeko 7:30etatik - 9:00etara eskaintzen duten "Goizeko Zaintza" zerbitzua interesgarria iruditzen zaigu familien ordutegiarekin bateragarri egin ahal izateko.

14.5.5 Jarduera esanguratsuak espazioka

8.13. atalean azaldu ditugu saio bakoitzeko jarduerak espazio edo txokotan banatuta, aktibitate zuzendu nahiz libretan. Jardueraren arabera, talde handian edo txikitan antolatzen dira umeak. Hona hemen tauletan espazioka jasotako jardueretatik atera ditzakegun hainbat ondorio:

Elkarrizketa, borobila:

- . Ume bakoitzaren behar eta premiei erantzuten dion irakaskuntza-ikaskuntza, prozesua pertsonalizatuz.
- . Haurraren sozializazioan laguntzen duten jarduerak, komunikazioa eta elkarrekintza sustatuz.
- . Jarrerak, balioak, arauak, kontzeptuak eta trebetasunak lehenengo momentutik lantzea.

Etxea:

- . Sentimenduen adierazpena ahalbidetzen duen espazioa.
- . Autonomia eta elkarrekintza garatzen laguntzen du.
- . Rol en imitazioaren bidez umea eta bere etxeko giroa ezagutzea ahalbidetzen digu.
- . Espazio eta denboran kokatzen laguntzen dio umeari.

Margotegia eta Plastika gela:

- . Material desberdinak manipulatu objektuen ezaugarriak ikasten doaz.
- . Sormen eta estetika mundura hurbiltzen hasi dira.
- . Trebetasunak lantzen dituzte.
- . Umeen marrazkiek informazioa eskaintzen digute haurra ezagutzen joateko.

Ipuinen espazioa:

- . Argazki-albumak eskura edukitzeak lasaitu egiten ditu.
- . Ipuinak kontatu eta irakurtzearekin disfrutatu egiten dute.
- . Elkarrekintzarako eta bakarrik egon nahi dutenerako baliabidea da.

Mahai jolasen espazioa:

- . Jokoen arauen mundua ezagutu eta onartzen doaz.
- . Espazio eta denboran kokatzen joateko aukera ematen du.
- . Besteen ikuspuntuak, gatazkak bideratzeko balio du.
- . Forma, kolore, tamaina desberdineko objektuak manipulatu eta ezagutzen doaz.

Eraiketa gelako espazioa:

- . Espazioa antolatzen eta egituratzen doaz pixkanaka.
- . Elementu eta objektu desberdinen esperimentazioekin kontzeptu eta trebetasunak garatzen doaz.

- . Elementuen erregela fisikoez ohartzen hasi dira.
- . Elkarrekin gauzak adosten ikasten ari dira.
- . Egiten dutenaren eta errealitateko objektuen arteko behaketak egiten ikasten ari dira.

Arantzazuko Ama Ikastolan “Eraiketa” gelan egin dituzten eraikuntzak eta bi urtean zehar eman den bilakaera oso esanguratsua izan da.

Antzerkia:

- . Prozesuaren elementu guztiak landuz: antzezpena, dekoratuak eta kritika.

Harri Berri Ikastetxeko antzerkiaren eboluzioa oso esanguratsua izan da: ipuinak ikasi, paperak banatu, entseguak egin, eszenatokia eta jantziak prestatu, antzeztu, kritikak egin.

Gosaria:

- . Elikagai desberdinak jaten aurrerapauso handiak egin dituzte.. Konpartitzeko, elkarrekin egoteko, gauzak kontatzeko, matematikako kontzeptuak lantzeko une egokia da.

Bereziki azpimarratzekoa Arantzazuko Ama Ikastolan gosariko momentuari bi ikasturteetan andereñoak eman dion garrantzia eta elkarrizketen eboluzioa.

Pisizina-halla:

- . Erabilgarritasun handia dauka bi ikastetxeetan: eguraldi txarretan bertan egiten dute jolas ordua. Psikomotrizitate gelatik jaisterakoan Harri Berriko haurrak bertan edaten dute ura eta jaten dute ogia, bi urtekoen geletako hainbat jarduera bertan elkarrekin egiteko erabiltzen dute eta, etxera joan aurretik, abesteko eta bakoitza agurtzeko erabiltzen dute.

Patia:

- . Arrisku dezente dagoenez: koska, eskailerak, tresnak, ziurtasun eta konfiantza ematen ez duen espazioa bilakatzen da, ondorioz, andereñoen “zaintzak” etengabekoa izan behar du.

Psikomotrizitate gela

- . Mugimenduaren beharrari ongi erantzuten dion espazioa da: korrika, saltoka, gora eta behera, trizikloetan, ...

- . Jolas sinbolikoaren presentzia asko gehitu da: bata bestearen zaintza, antzezpenak, mozorrotzeak...
- . Elkarrekintzarako eta komunikaziorako espazioa da: abestiak, dantzak, jokoak...
- . Gatazken sorleku bihurtzen den espazioa da uneoro eta soluzioan aurrerapausoak eman ditzaten, etengabeko lana egiten dute andereñoek.

14.5.6 Asistentzia eta ikasle kopuruak

Tauletan jasota daukagu 8.14 atalean gure behaketa saio egunetako umeen asistentzia.

Bi ikastetxeen kasuan erregularra edo oso erregularra izan da asistentzia (lehenengo ikasturtean) 2 edo 3 haur konkretuena izan ezik.

Ikasle kopuruak:

Arantzazuko Ama Ikastola:

- 2000-01 ikasturtean: 7 ikasle (2 urte)
- 2001-02 ikasturtean: 9 ikasle (3 urte)

Harri Berri Ikastetxea:

- 2000-01 ikasturtean: 14 ikasle (2 urte)
- 2001-02 ikasturtean: 12 ikasle (3 urte)

Atera dezakegun hainbat ondorio:

Asistentziaren erregularitasunak lagundu egiten du egokitzapen-aldiko prozesuan eta ikasturteko martxa osoan ere. Nahiz eta ume bakoitzak bere erritmoa izan eta hori errespetatu, kasu gehienetan behintzat, aurrerapausoak nabariagoak direla esango genuke egunero etortzen diren umeekin.

Alderantziz, erregulariki eta goizeko taldeko lehenengo saiora garaiz etortzen ez diren umeei, askoz gehiago kostatzen zaie gelako dinamika hartzea: zer egin nahi duten aukeratzea, kontzentratzea... Denboraren antolaketaren atalean esan dugun bezala, egunero errepikatzen diren saioen sekuentziak lagundu egiten die umei ziurtasuna eta konfiantza hartzen.

Ikasle kopurua, batez ere 2 urteko umeekin, faktore nagusienetako bat da. Bakoitzari eskaini behar zaion denbora hartu, egokitzapen-aldiko prozesua pertsonalizatu, zailtasun eta arazoaren soluzioan erantzun egokiak eman...

14.5.7 Haur bakoitzaren parte hartzea taldeko jardueretan

Bi ikasturteetan behaketa saioetan espazio edo txokoka jasotako haurren jarduerak 9. kapituluko 9.1. eta 9.2. ataletan azaldu ditugu.

. Arantzazuko Ama Ikastola

Hona hemen eman den bilakaera eta ondorio batzuk:

Lehenengo ikasturtea

Lehenengo bi hilabeteetan, material gehienak probatu dituzte, nahiz eta oso denbora motzean (minutu gutxi batzuk). Batez ere, bigarren hiruhilabetetik aurrera hasi dira gustukoen dituzten jarduerak gehiago selekzionatzen eta denbora luzeagoa dedikatzen.

Espazio bakoitzeko materialak jasotzea kostatu egiten da, baina laguntzarekin, egiten bukatu dute ikasturte bukaerarako, oro har.

Psikomotrizitateko gelako saioak oso biziak izan dira eta material guztiak probatu dituzte, oro har, eta jokoetan denek hartu dute parte. Arauak gogoraraztea espazio honetan ezinbestekoa da, arrisku gehiago baitago egiten dituzten jarduerengatik eta hainbat materialengatik. Oso erne egon behar du andereñoak, egoera asko "kontrolatu" behar baititu: iskanbilak, txanden errespetua, materialak botatzea eta gela berak ez du gehiegi laguntzen, alde batetik, tamainaz nahiko txikia delako eta bestetik, leihoak behar baino dituelako. Alde honetatik, ikasle kopurua txikia izateak "konpentsatzen" du arazoa neurri batean.

Bigarren ikasturtea

Zirkulazio librearen dinamikara ohitzea kostatu egin zaie 3 urteko umeei, aldaketa nahiko handia baita: gela batean dena edukitzetik bi gelatan mugitzen ikastea, espazio bakoitzaren funtzionamendua eta material berriak ezagutzea, 4 urteko umeekin kontaktuan jartzea (aurreko ikasturtean 7 haur izatetik, aurten 9 izatera eta 4 urtekoekin nahastuta dabiltzanean 24 haur izatera), bi andereñoekin ohitzea, bi astetik behin andereñoen gela aldaketara ohitzea. Baina, martxa hori hartu dutenetik, oso dinamika bizia eta aberatsa izan da, aukera asko gehitzen baitira funtzionamendu honekin: lau urteko umeek egiten dutena behatzea, beraien laguntza jasotzea, euskararen erabilera handiagoa eta aberatsagoa...

Plastika gelako jardueretan eboluzio handia izan da: zirriborroak egitetik, marrazkietan errealitatearekin lotuagoak dauden elementuak gehitzera pasa dira; tenpera lanetan, bai koloreen erabileran eta produkzioen bukaeran aurrerapauso

handiak egin dituzte; puntzoiaren erabileran aurreko ikasturteko hastapenetik, 'kontrol' eta indar diferentzia nabarmenak ikusten dira; hondakin-materialen erabilera handia izan da eta elaborazio interesgarriak egin dituzte. Plastilinen erabileran ere aurrerapausoak eman dituzte, marrazkiaren eboluzioarekin batera aberasten joan delarik. Ipuinen espazioan nabarmentzekoak dira batak besteari ipuinak kontatzeko momentuak eta txotxongilo saioak.

Eraiketa gelako elaborazioak oso interesgarriak izan dira eta hemen, nahiz eta 4 urtekoen produkzioak nabarmen aberatsagoak izan, 3 urteko umeenak ere aipamena merezi dute: errepide, etxe, dorre, hesi, itxitura, eta abarretan partizipazio handia izan dute eta espazio honetan elkarrekintzaren egoerak maiz eman dira: erabakiak hartu behar izateak, soluzioa bilatu behar izateak asko gehitu ditu elkarrizketa eta eztabaida momentuak.

Mahai-jolasetan parte hartze handia izan da. Azpimarratu behar dugu, espazio honetan, andereñoen presentzia eta parte hartzea beharrezkoa dela: jokoaren arauak eta funtzionamendua azaltzeko, txandak errespetatzeko, jokoaren pauso edo pautak jarraitzeko...

Elkarrizketa-saioen eboluzioa oso esanguratsua izan da.

Ikasturte honetan gelako espazioek jolas sinbolikoa lantzeko txoko espezifikorik eduki ez dutenez, psikomotrizitate gela eta patioko hainbat jarduera egokiak eta 'beharrezkoak' izan direla iruditzen zaigu.

Jarduera bakoitzari dedikatu dioten denbora azpimarratzeko faktorea da. Eskulan, marrazki, eraikuntza, mahai-jolas eta abarretan 9:15etik - 10:30etara aritu dira saio dezentetan. Umeen heldutasun garapena alde batera utzi gabe, materialek eta espazioen antolaketa espezifiko hauek dedikazio honetan esanahi handia dutela iruditzen zaigu. Era berean azpimarratu nahiko genuke, material berriak, ondo zainduak, espazio bakoitzean erraz hartu eta jasotzeko moduan antolatuta egoteak, asko laguntzen duela.

Gomendioa

Behar bada, jolas sinbolikoa lantzeko, 3 urteko umeek, eta batez ere ikasturte hasieran, espazio eta material espezifikoak beharko lukete, egoera horiek eman daitezen.

. Harri Berri – Oleta Ikastetxea

Hona hemen eman den bilakaera eta ondorio batzuk:

Lehenengo ikasturtea

Etxeak eta piszinak duten egituragatik “babes-espazio” gisa paper esanguratsua jokatu dutela esango genuke, nahiz eta egindako jarduerekin beste hainbat helburu lortu dituzten ere: elkarren artean ezagutzen joatea, hitz egitea, jolas sinbolikoa lantzea, koloreak eta zenbakiak lantzea...

Margotegiak oso funtzio garrantzitsua bete du ikasturtearen hasiera-hasieratik haur guztiek izan baitute gustuko, marraztea, margotzea, gometxak itsastea, festetako jantziak prestatzea, plastilina lantzea...

Alfonbrako jardueren artean, lehenengo egunetik bereziki azpimarratzekoak iruditzen zaizkigu: argazki-albumak, ipuinak, abestiak, trena eta eguraldia lantzea.

Eraikuntza, ahokagarriak eta puzzleen txokoa ere aipatzekoa da, oro har erabilgarritasun handia izan baitu, bai banaka nahiz talde txikian egin dituzten jarduerengatik.

Haurrak aldatzeko espazioak ere haur batzuentzat erakargarritasuna izan du, andereñoak umeak nola aldatzen dituen ikusteak interes handia piztu die.

Urtarrilerako ondo xamar ezagutzen zituzten espazioak eta konfiantza gehiagorekin mugitzen hasi dira eta material guztiak probatzeko gogoia erakutsi dute. Denborari dagokionez, esan, lehenengo hiruhilabetean minutu gutxi batzuk pasatzen zituztela jardueretan eta horrek andereñoa batetik bestera etengabe ibiltzea suposatzen duela umeen eskaerei aurre egiteko. Bigarren hiruhilabetetik aurrera hasi dira gustukoen dituzten jarduerak gehixeago hautatzen eta denbora luzexeagoa dedikatzen: margotzen, ipuinak kontatzen, puzzleak egiten.

Bi haur, bigarren hiruhilabete arte ez dira apenas etorri eta martxotik aurrera ordubete ekarri dituzte. Beraien kasuan, egokitzapen-aldia asko luzatu da eta besteengan ere eragina izan du, andereñoak bereziki “zaindu” behar izan baititu ia ikasturte guztian.

Espazio bakoitzeko materiala jasotzea kosta egiten da, baina laguntzarekin, egiten bukatu dute ikasturte bukaerarako, oro har.

Psikomotrizitateko gelako saioak oso biziak izan dira eta material guztiak probatu dituzte, oro har, eta jokoetan denek hartu dute parte. Arauak gogoraraztea

espazio honetan ezinbestekoa da, arrisku gehiago baitago egiten dituzten jarduerengatik eta hainbat materialengatik: korrika, saltoak, garrasiak, uztaiak. Oso erne ibili behar izaten du andereñoak, egoera asko “kontrolatu” behar baititu: iskanbilak, txanden errespetua, materiala.

Bukatzeke esan, ikasle kopurua, 2 urteko 14 haur, gehiegi iruditzen zaigula andereño bakar batentzat.

Bigarren ikasturtea

. Etxea

Aurten protogonismo handia izan du daukan egituragatik. Deskantsatu, babestu, lagunekin hitz egin eta jolastu, rol desberdinak aukeratu (aita, ama, umea, txakurra) etxeko lanak egiten hasi dira: bazkaria prestatu, bazkaltzera gonbidatu, etxea garbitu eta alderdi motorikoa lantzeko espazio aproposa izan da (eskailerak gora eta behera etengabe ibili baitira) . Bere alde ez hain onuragarria ere izan du, momentu askotan buila eta iskanbila espazio ere bilakatu delako eta beste txokoetan ari direnei interferentziak sortu dizkietelako lan egiteko garaian. Etxeko espazio hori jarduera libreetako erabiltzen dute eta oso pixkanaka joaten dira jarduerak egituratzen eta, gure ustez, egituratze horretan, helduen interbentzioa saioko hainbat momentutan beharrezkoa da, bestela, erraza da istilu espazio bihurtzea eta egoera horietatik zaila egiten zaie ateratzea 3 urteko umeei. Andereñoak berak azkeneko elkarrizketan dion bezala, oso argi eduki behar da etxearen filosofia eta bete behar dituen funtzioak.

. Jolas tokia

Nabarmen ikusten da “indarra” eta “kontrol-trebetasuna” (motrizitate fina) behar duten jardueretan eboluzio handia egin dutela hurrek bigarren ikasturte honetan.

Eraikuntzak nabarmen aberastu dira, baina, andereñoak esaten duen bezala, material gehiagoren beharra ikusten dugu: tamaina handiagoko piezak, forma desberdinetakoak, anitzagoak; garrantzizkoa litzateke ikasturtean zehar material berria sartzen joatea.

. Margotegia

Collage eta tenperaz egindako lanek, paperezko bolatxo egindakoek, guraize eta puntzoiaren erabilera behar dutenek, oro har, eboluzio handia izan dute. “Kontrol” handia lortu dute haur batzuk. Karpetak tenperaz margotzeak erakargarritasun handia

izan du, hemen, ñabardura bat azpimarratuko genuke: karpetak etxera eramateko direnez, motibazioa areagotu egiten da.

Estilo eta erritmo desberdinak nabarmentzen joan dira ikasturtean zehar. Batzuei gauzak patxaran egitea gustatzen zaie; beste batzuk heldutasun handia adierazten dute – ondo egitea gustatzen zaie eta zorrotz jarraitzen dituzte ematen zaizkien pautak –.

Txoko honek, sormena eta trebetasuna lantzeaz gain, funtzio garrantzitsua bete du elkarrekintza egoerak sortzen; gustura ikusten dira, erlaxatuta eta maiz ikusi ditugu hitz egiten eta parrez. Txoko honetan andereñoaren presentzia eta interbentzioa momentu askotan beharrezkoak direnez, “giro lasaia” sortzearen giltza andereñoa bera dela esango genuke.

. Ipuin txokoa - Antzerkia

Bost ipuin landu dituzte ikasturte honetan; ipuina da beraien metodologiaren ardatz-antolatzailea, beraz, txoko honetan egiten dituzten jardueretan islatzen da ipuinaren garapena: rolak banatu, entseguak eta antzezpenak egin... Ondoren kritika lantzen dute. Lehenengo errepresentaziotan andereñoaren parte hartzea beharrezkoa izan dute: haria mantentzeko, esaldiak bukatzeko, bakoitza bere paperean mantentzeko. Ikasturte bukaerarako benetan azpimarratzekoa da kritikak egin duen bilakaera, hasierako kritika haiekin alderatuz: haur batek esandakoa errepikatuz, bukaerarako, kritikak pertsonalizatuagoak izan dira eta beraien iritziei buruzko zergatiak ere azaldu dituzte.

Eguneroko antzerkiko jardueretan izan den konstantziak antzezpen eta kritika maila esanguratsuki aberastu duela ondoriozta daiteke.

. Psikomotrizitatea

Bertan korri, salto, igo/jaitsi, txiribuelta, gorde/ezkutatu, deskantsatu, abestu, garrasi egin, objektuak garraiatu, mozorrotu, entseguak egin ditzakete... jarduera multzo honek erakargarritasun handia du beraiantzat eta ondo pasatzen dute: “libre” eta, aldi berean, “babestuta” sentitzen direla esango genuke espazio honetan.

Gomendioak

- Asistentziaren erregulartasunaren garrantzia guraso batzuekin, gehiago landu beharko litzateke.
- Ikasle kopurua zaindu egin behar da 2 eta 3 urteko umeekin eta laguntzaile bat beharrezkoa da.

- Etxeko txokoa andereñoaren interbentzioa saioko hainbat momentutan beharrezkoa ikusten dugu, erraza baita istilu espazio bihurtzea.
- Eraikuntza txokoa material gehiago eta anitzagoa lortu beharko litzateke: egurrezko pieza handiagoak, forma eta tamaina desberdinetakoak, elementu eta objektu gehiago, adibidez: zuhaitzak, animaliak, pertsonak, trafikoko seinaleak, kotxeak...

14.5.8 Autonomia eta elkarrekintza

14.5.8.1 Arantzazuko Ama Ikastola

Autonomia-ohituren heziketarekin zerikusia duten elementuak ondoren datorren sailkapena erabiliz tauletan jasotzen joan gara eta 9. kapituluko 9.1. eta 9.2. ataletan azaldu ditugu.

Ondoren aipatzen ditugun elementuak erabili ditugu bilakaeraren azterketa egiteko:

- . Elikadurarekin zerikusia duten ohiturak.
- . Deskantsuarekin zerikusia duten ohiturak.
- . Higienearekin zerikusia duten ohiturak.
- . Norberaren txukuntasunarekin zerikusia duten ohiturak.
- . Norberaren autonomiarekin lotutako ohiturak.

Ondorio hauetara iritsi gara:

Lehenego ikasturtea

Ohitura guzti hauek etengabe lantzen joatekoak direla esan dezakegu. Bai kontrola eskatzen dutelako, bai egiteko jarrera baikorra behar dutelako, eguneroko egoera guztietan eginez lortzen joatekoak dira eta ezinbestekoa, etxean ere lantzea; batzuk, hain zuzen, etxean egiteko aproposagoak dira: zapatak garbitu, arropak tolestatzen lagundu, denetatik jaten ikasi (gehienek etxean jaten dute).

Bigarren ikasturtea

Ohiturak ikasi eta errespetatzeko prozesu honetan esan dezakegu, oro har, diferentzia nabarmenak egin dituztela. Hiru eta lau urteko haurrak zirkulazio librea elkartuta aritzeak, lagundu egiten die 3 urtekoei arauak ikasten, 4 urtekoek jokoaren arauak ezagutu eta gehiago errespetatzen dituztelako.

Aurreko ikasturtean esaten genuen bezalaxe, etengabe lantzekoak dira eta arreta handia eskatzen dute uneoro; guraso, familiaren, ikastolako irakasle eta ez irakasleen (atezain, jangelako arduradun, garbitzaile) kolaborazioa ezinbestekotzat jotzen dugu eginkizun honetan.

Lan egiteko sistemak, materialak ondo antolatuta eta txoko bakoitzean bereiztuta egoteak, hurbil eta eskura egoteak, lagundu egiten die haurrei autonomia prozesuan.

Elkarrekintzarekin zerikusia daukaten egoeren deskribapena 9. kapituluko 9.1. eta 9.2. ataletan azaldu ditugu. Orain hemen ikasturteetako balorazioa eta ondorio batzuk agertzen ditugu:

Lehenengo ikasturtea

Asko laguntzen dute elkarrekintza garatzen, talde txikian eta handian gelan egiten diren jarduerak: elkarrekin margotu, etxeko koltxoiaren gainean elkarrekin etzanda egon, jokoan ibili, gosariko momentuak: fruta eta gailetak konpartitzean, asistentziaren ´trenaren´ jokoak egiterakoan, elkarriketan gai bat ateratzen denean, eguraldia lantzerakoan, abesterakoan, dantza egiterakoan. Aipatzekoak dira baita ere psikomotrizitate gelako jarduerak; asko ahalbidetzen baitituzte elkarrekintza egoerak: itxituretan elkarrekin egotea, binaka egiten duten ´autobusaren´ jokoak, uztaiena, bata bestearen atzetik korrika ibiltzeak, koltxoneta handiko saltoak, abestiak...

Elkarrekintza ematen den heinean, momentu batzuetan gatazka txikiak ere sortzen dira eta horietan, paper garrantzitsua jokatzen dute andereñoek, umeak lasaitzen, zer pasa den deskribatzen laguntzen, pentsa arazten, bakea egiten laguntzen, umeak kontenitzen (hainbat egoeratan, fisikoki hartu eta borroka espaziotik aldenuz). Kasu batzuetan, jo egiten duten umeari gatazketatik ikasi eta indarra atera dezan lagunduz; momentu horietan argi ikusten da andereñoak zenbateraino ezagutzen duen ume bakoitzak noraino egin dezakeen arazoen aurrean.

Bigarren ikasturtea

Pixkanaka baina asko gehitu dira elkarrekintza egoerak, denboran nahiz ume desberdinen arteko komunikazioan: gosariko elkarriketa saioetan, elkarrekin abesterakoan, ipuinak kontatzerakoan, dantza egiterakoan, patioko momentuetan. Bestalde, adin desberdinetako umeak elkarrekin jarduteko aukerak – zirkulazio libreko saioetan – momentu aberatsak eskaini dizkigu beraien artean: eraikuntzak egiterakoan, mahai-jolasetan, txotxongiloa egiterakoan, hondakin-materialekin lan egiterakoan...

Konfliktoen soluzioan andereñoak erabili dituen hainbat estrategia:

- Egoerak “neurtu” eta haurrari noraino eska dakioken “kontrolatzen” jakitea.
- Haurrek irtenbiderik ez badute beren artean aurkitzen, borobilean gertatutakoaren inguruko elkarrizketa egitea, protagonistek pausoz pauso kontatuz eta aztertzen lagunduz.
- Andereñoak mantentzen duen jarrera eta portaera finkoa, umeak berak lor dezan gatazken soluzioa.
- Gertatutako zerbait pasa berritan hitz egitea, hurrengo egunerako utzi gabe.
- Hurbiletik jarraitzea ume bakoitzaren prozesua; zailtasunak, aurrerapenak, familiekin kontaktuan egotea.
- Arazoak azkar detektatu eta diagnostikoa lehenbailehen izatea.
- Gauzak nola egin eta umeen zalantzen aurrean, pentsa arazten laguntzea.

14.5.8.2 Harri Berri Ikastetxea

Autonomiaren ohituren atalean esan behar dugu Arantzazuko Ama Ikastolako bilakaeraren oso antzekoa izan dela eta ez dagoela diferentzia esanguratsurik. Behar bada, daudenetan, hauek diferentzia indibidualekin lotu genitzake: heldutasuna, trebetasuna, asistentzia, jarrera, haurra etxetik etorri den edo haurtzaindegian egondakoa den, ohiturak etxean zenbateraino lantzen dituzten...

Azpimarratuko genukeen faktore bat ikasle kopurua esanguratsuki handiagoa izatea da.

Elkarrekintza egoeren eboluzioa eta hainbat ondorio:

Lehenengo ikasturtea

Hasiera-hasieran andereñoaren laguntza, presentzia eta babes ematea ezinbestekoak dira uneoro, bera baita atxikimendu figura eta konfiantza ematen dien pertsona. Lehenengo hilabetean egiten dituzten jardueretan berak hartzen du parte: argazki-albumak eta ipuinak ikusten, eraikuntzetan, puzzleetan... Ume batzuegan oraindik nabarmenagoa egiten da andereñoaren presentziaren beharra, adibidez, Margari andereñoa gelatik tiritan baten bila atera eta itzultzen denean, Eric pozik agertzen da, keinuka eta irribarrez, urriaren 10ean.

Pixkanaka, beraien arteko lehenengo agurrak, kukuak hasten dira. Pixka bat geroxeago, ipuinak beren gisa ikusten, jolasen bat elkarrekin, ume bat negarrez hasten

bada beste bat hura kontsolatzen, besarkatzen, piezak trukutzen, kotxean sartu eta paseatzen...hasen dira.

Asko laguntzen dute elkarrekintza garatzen talde txikian eta handian gelan egiten diren jarduerak: elkarrekin margotzea, etxeko koltxoiaren gainean elkarrekin etzanda egotea, asistentziaren trenaren jokoak erabiltzea (eguraldia lantzerakoan), ipuinak kontatzea, abestea, dantza egitea. Aipatzekoak dira baita ere psikomotrizitate gelako jarduerak, asko ahalbidetzen baitituzte elkarrekintza egoerak: itxituretan elkarrekin egotea, uztaien jokoak, bata bestearen atzetik korrika ibiltzeak, koltxoneta handiko salto eta txiribueltak, oihalekin egiten dituzten jarduerak (bata bestea estali, itxitura estali), abestiak...

Gatazka txikiak sortzen direnean –Arantzazuko Ama Ikastola deskribatu dugunean bezalaxe– garrantzitsua da andereñoaren papera, eta berriro azpimarratuko genuke umeen kontentzioan andereñoek erabiltzen dituzten estrategiak. Aurreikusten du gertatu daitekeena (adibidez, batak besteari mina eman aurretik ikusten du gertatu behar duena) eta neurriak hartzen ditu: ahotsa aldatu, keinuak egin, ...

Nabarmentzekoa, momentu askotan andereñoak haurrei eskainitako maitasuna, umore ona, pazientzia eta bere parte hartzea koltxonetako salto eta umeen jokoetan.

Andereñoak erabiltzen dituen estrategia-jolasen taula, 9. kapituluko 9.2. atalean azaltzen dugu bere garrantziagatik.

Bigarren ikasturtea

Ikasturtearen lehenengo egunetatik izan dira elkarrekin egoteko momentuak eta etxearen egiturak paper esanguratsua jokatu duela pentsatzen dugu. Oso erakargarria egin zaie gora eta behera ibiltzea, 2. solairuko logelan etzanda egotea, txakurraren txabolan elkarrekin egotea, ipuinak kontatzen hastea...

Otsailerako asko gehitu dira elkarrekintza momentuak eta txokoetako espazioetan taldeka lan egiteko jarduerak nabarmen erraztu dute elkarrekintza: antzerkia prestatzea, entseguak egitea, etxeko jarduerak egitea, antzeztokia dekoratzea, kritika egitea, eguraldia aztertzea, asistentzia lantzea, elkarrekin abestea eta dantza egitea...

Jolas sinbolikoak ikasturte honetan garrantzia hartu duenez, elkarrekintza momentuak ere aberatsagoak izan dira: rola banatu eta errespetatzea (aita, ama, umea, medikua, gaixoa) eta horiekin lotutako jarduerak.

Psikomotrizitate gelako saioetako jarduerak ere lagundu dute elkarrekintza garatzen; bertan egin dituzten festen entseguak bereziki azpimarratu nahi ditugu.

Elkarrekintza egoerekin lotu-lotuak doazen iskanbila eta konponezinetan andereñoaren papera nabarmentzekoa da umeek soluzioa bila dezaten. Honek eman dituen jarraibideak ezinbestekoak izan dira: egoera lasaitzen lagundu, galdetu, pentsatu arazi, zergatiak aurkitzen lagundu, barkamena eskatzen lagundu...

Egunerokotasunean egiten dituzten hainbat oroimen jarduerak: zein falta den, gaixorik ote dagoen (abestiak), haur bat oporretara joaten denean besarkadarekin agurtuz..., asko lagundu dute elkarrekintzan aurrerapausoak ematen. Horren adierazle da esaterako egun batzuetan etorri gabe egon den haurrari zein ongietorri beroa egiten dioten.

15

KONTRASTAKETA: 2007-08 IKASTURTEA

15 KONTRASTAKETA: 2007-08 IKASTURTEA

2007-08 ikasturteko zehaztapen eta ondorioak egiterakoan, ikasturtean egin dugun lanaren antolaketa jarraitu dugu atalez atal:

15.1 Ikastetxearen Nortasun Ezaugarriak, Zerbitzuak eta Antolaketa

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Ez dago nabarmentzeko aldaketarik.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea

- Harri Berri Ikastetxea eta Oleta Ikastetxearen bategitea 2004-05 ikasturtean egin da.
- Bi ikastetxeen premietara egokituz ari dira Hezkuntza Proiektua garatzen.

Bi ikastetxeetako zerbitzu eta antolamendua zehaztasun gehiagorekin azaltzen dira beraien webgunean.

15.2 Ikastetxearen Identifikazio-Datuak

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Ikasle kopuruak nabarmen egin du gora.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea

- Nabarmentzeko aldaketarik ez dago.

15.3 Auzoko Zerbitzuak

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Haur Txokoa, Gazte Txokoa, eta L.H.-ko eta D.B.H.-ko eraikinean Mediateka bat.
- Eraikin handiko jolaslekua estali eta ekipatu dute 2006an eta eskolaz kanpoko orduetan irekia dago auzokoentzat.
- 2008ko urtarrilean ireki da Etxarriene Giza eta Kultur gunea.
- Parkea eta inguruko kaleak berritu eta oinezkoentzat/peatonalak dira orain.
- Ibai ondoan parke txiki bat egin dute.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea

- Tomasena Kultur Etxea ireki dute.
- Aparkaleku berri bat eta biribilgune bat egin dute ikastetxe aurrean.

Azpimarratu nahi dugu bere garrantziagatik, auzoen premi eta beharrei hobeto erantzuteko asmoarekin, 2004. urteaz geroztik, Martuteneko nahiz Altza auzoko

eragile desberdinek (bizilagun, elkarte, profesional) Donostiako Udaleko, "Auzo eta Bizilagunen Partaidetza" departamentuarekin lan egiten dutela, auzoko plan eta programa lanetan. Hilean behin edo bitan biltzen dira batzorde desberdinak.

15.4 Helburu Orokorrak - Konpetentziak, Metodologia Printzipioak, Gurasoekiko Harremana

Momentuz, lehengo curriculum antolaketarekin jarraitzen dute. Bi ikastetxeetako zuzendaritza eta irakasleak curriculum plan berria aztertzen ari dira, baina, ez dute ikusten datorren 2008-09 ikasturterako ezartzea posible izango denik.

Metodologia printzipioak, 2000-02 ikasturteetan zeuzkaten berberak dira.

Bi ikastetxeetako andereñoek harreman estua eta etengabekoa daukate gurasoekin (azpimarratzekoa da egokitzapen-aldiko gurasoen presentzia) eta ondo erantzuten dietela agertzen dute, nahiz eta, inplikazio mailan, nabarmentzeko aldaketarik ez den egon aurreko urteekiko.

15.5 Gela/Gelak, Espazioen Antolaketa, Alderdi Funtzionalak

. Alderdi fisikoak

- Bi ikastetxeetako hainbat ekipamendu berri dituzte: alfonbrak, mahaiak, aulkiak, altzariak.
- Gelak margotu berriak daude.

. Espazioen antolaketa

Aurreko ikasturteetan bezala dauzkate antolatuta, espazio eta txokoetan. Aldaketaren bat azpimarratzekotan esan, Harri Berri - Oleta Ikastetxeko haurrak aldatzeko espazioaren oraingo disposizioak, erraztu egiten duela haurren sartu irteerak "kontrolatzea".

. Alderdi funtzionalak

Ez da aldaketarik egon. Bi ikastetxeetako 2 urteko haurrek, beraiek aukeratzen dute zein txoko edo espaziotan ibili talde txikiko saioetan eta, Arantzazuko Ama Ikastolako 3 urteko haurrek, zirkulazio librea funtzionatzen dute; saio horietan, beraiek erabakitzen dute plastika gelan edo eraiketa gelan jardun.

15.6 Gelaz Kanpoko Espazioak: halla/piszina, logela, bainugelak, psikomotrizitate gela, jangela, patioa

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Arrapala bat egiten ari dira eskailera multzo bat ekiditeko.
- Bi solairuetako bainugelak erabat berritu dituzte: paretak, lurra, komunak eta harraskak.
- Kolunpio berri bat jarri dute patioan.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea

- Bi solairuetako bainugelak erabat berritu dituzte aurten: paretak, lurra, komunak, harraskak.
- Patioko tresnak berritu dituzte: txirrista, trena, pasabidea.
- Bi eraikinen artean ate bat jarri dute.

15.7 Material Esanguratsuenak Espazioka/Txokoka

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Ez dago aldaketa nabarmenik, lehen aipatutako ekipamendua izan ezik.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea

- Aipatutako ekipamendutik at, ez dago aldaketa nabarmenik materialetan. 2000-01 ikasturtekoarekin alderatuz, motrizitate espazioan, pilotadun piszina zegoen tokian, ikasturte honetako azkeneko hiruhilabetean, koltxoneta eta txirrista bat daude (hiruhilabetetik behin aldatzen dute espazio honen ekipamendua).

15.8 Ikertutako Geletako Ikasle Kopuruak, Asistentzia eta Denboraren Antolaketa

Ikasle kopuruak:

. Arantzazuko Ama Ikastola

- 2 urtekoen gela = 14
- 3 urtekoen gela = 16

. Harri Berri Ikastetxea

- 2 urtekoen gela = 12

Asistentzia

. Arantzazuko Ama Ikastola - 2 urtekoen gela

Haurren asistentzia erregularra izan da, egokitzen-aldian haur batena izan ezik.

. Arantzazuko Ama Ikastola - 3 urtekoen gela

Ikasturte osoan zehar oso erregularra izan da asistentzia.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea - 2 urtekoen gela

Ikasturte osoko asistentzia oso erregularra izan da.

Denboraren antolaketa

2007/08 ikasturtean

11. kapituluko 11.12 atalean jaso dugu bi ikastetxeen goiz eta arratsaldeko denboraren antolaketa.

Bi ikastetxeetako denboraren antolaketa zehaztasun gehiagorekin azaltzen dute orain aurreko ikasturtean baino. Azpimarratu nahi dugu egoeraren arabera saioak luzatu edo moztu egiten dituztela malgutasunaren printzipioa erabiliz.

15.9 Jarduera Esanguratsuenak Espazioka/Txokoka

Azpimarratzekoa da "gosaria" saioak bi ikastetxeetan momentu honetan daukan protagonismoa eta aberastasuna. Une erabat aproposa dela esango genuke hainbat eta hainbat konpetentzia lortzeko: elikagai desberdinak jaten ikastea, ondo eta txukun jaten ikastea, bakoitzak ekarritako elikagaiak besteekin konpartitzea, sentimenduen egoera adieraztea, istorioak adieraztea, besteenak entzuten ikastea, erlaxatuta egoten ikastea, matematikako kontzeptuak lantzea... Bi urteko umeekin hasita, saio hauetan lortzen dutena, oso esanguratsua da.

Harri Berri - Oleta Ikastetxeko 2 urteko umeek, beti patiora atera beharrean, kalera irten dira gehiago. Umeak hobeto pasatzeaz gain, oso interesgarria da auzokideekin, komunitatearekin eskolak harremanak gehitzen joateko prozesua. Helburuen artean aipatu ditzakegu: irakasleen eguneroko lana ulertzea, inplikazio maila areagotzea, umeek ingurune-azoko errealitatea ezagutzea eta kontaktuan egotea...

Gainontzeko espazio edo txokoetan egiten diren jardueretan, ez dago nabarmentzeko aldaketarik, oro har.

15.10 Egokitzapen-Aldirako Proposamena

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Taldeak eta ordutegia berdin mantendu dituzte.
- Gurasoak 3 egun egon dira gela barruan eta laugarrenetik aurrera gela ondoko espaziora pasa dira. Haur batzuk, gurasoak aste bat egotearekin nahikoa izan dute, gehienek 2 aste egotea behar izan dute eta haur batek 3 aste.
- Egokitzapen-aldiko prozesuak hilabete iraun du.
- Momentu askotan behar izan dute Axun andereñoaren laguntza.
- Sarrerako momentua malgutu egin da: 9:00 – 9:30.
- Haurren asistentzia nahiko erregularra izan da.

. Harri Berri – Oleta Ikastetxea

- Taldeak eta ordutegia berdin mantendu dituzte.
- Gurasoen presentzia gelan 3 egunetakoa izan da, ez dute gehiago behar izan.
- Psikomotrizitate saioen ordutegia mantendu egin dute, aldaketak nahastu egiten dituztelako haurrak.
- Haurren asistentzia oso erregularra izan da.
- Jangelan, ikasturte hasieratik 12-14 bi urteko haur hasi ziren gelditzen eta ikasturtea aurrera joan ahala 22 gelditzen dira.

Bi ikastetxeetako datu hauen arabera, esan dezakegu, ez dela egon diferentzia nabarmenik aurreko ikasturteekiko proposamen eta prozesuko emaitzetan.

15.11 Ikasturtearen Prozesu edo Bilakaera

Ikasturteari buruzko prozesuaren zehaztapenak 11. kapituluko 11.14.5, 11.15.4 eta 11.16.4 ataletan azaldu ditugu.

. Arantzazuko Ama Ikastola – Bi urteko haurrak

Andereñoak nabarmentzen du, talde honetako haurrak euskara ez ulertzeak, asko zaildu duela komunikazioa eta taldearen martxa – gurasoen hizkuntza gaztelera da aita batena izan ezik –

. Arantzazuko Ama Ikastola - Hiru urteko haurrak

Taldearen hainbat ezaugarri

- Talde orekatua, 8 neska eta 8 mutil.
- Egokitzapen ona izan dute ikasturte honetan hasitako 2 haur berriek.
- Aldaketa handiena zirkulazio librea bi geletara ohitzea izan da; oso gainean egon behar izan dute bi geletako andereñoek.
- Ume batek "jolas sinbolikoaren" behar handia dauka; baina orokorrean, psikomotrizitate gela eta patioko jarduerak behar hau asetzen dutela uste dute.

Geletako jarduerari buruz, azpimarratzeko hainbat ohar-ideia garrantzitsu:

.Plastilina lantzerakoan beraiekin egon beharraren arrazoia. "Oso lotuta daude alde batetik haurraren marrazki maila eta bestetik haur horrek plastilinarekin egin dezakeena".

."Hiru urtekoentzat ez da nahikoa lau urtekoek zer egiten duten "ikustea", beraiek sortu ahal izateko, ahalmena behar da".

.Haur konkretu bati buruz: Buruan "dena dauka" eta adierazpenean, marrazkian agian ez, baina egurrezko produkziotan bai, buruan daukan hori adierazteko gai dela erakusten du.

Gainontzeko espazioetan

- Komunean ondo moldatzen dira; inork ez dauka fardelik.
- Psikomotrizitatean, bi urterekin mugimendua eta babesa bilatzen dute, 3 urterekin eta ikasturte amaieran, jolas sinbolikoari denbora eskaintzen diote.
- Patioan, beraien arteko harremanak hasi dira; batzuk oraindik jostailuekin babesa bilatzen dute. Helduagoak direnak hasi dira taldeko jolasetan parte hartzen.
- Jangelako prozesua ondo joan da, haur batena izan ezik.

Aurreko ikasturteekiko egin duten aldaketa bat, bi urtekoen jostailu/material batzuk 3 urtekoen gelan jartzea izan da: garajeak, kotxeak... Honen arrazoia ikasturte hasieran haurrei aldaketan laguntzea izan da, objektu ezagunak izan ditzaten.
--

Ikasturtean zehar jasotako laguntzak

- PT-ren funtzioak betetzen dituen irakasle baten laguntza bi haur berrien egokitzapena egiteko.
- Aholkulariaren interbentzioa bi haurren zailtasunak bideratzeko.
- Astean behin, goiz batean Axun andereñoaren laguntza, ekintza bereziak aurrera eramateko...

Arazoak-zailtasunak

- Borroka egiterakoan bakoitza ahal duen moduan defenditzen da: koska, jo, ... Irakaslearen lana umeei hitza erabiltzen irakastea da.
- Borobilean arreta mantentzea, elkarrizketa bat mantentzea, 16 haur izanik.
- Denen intereseko gai bat aurkitzea.
- Sentimenduen adierazpenetan haserreak bideratzeko zailtasunak.
- Haur batzuk berehala sentitzen dira erasotuak eta konflikto ugari sortzen dira.

Aurreko ikasturteekiko, ikasle kopurua asko igo da, lehen 3 urteko 9 haur zituen Arantxak eta orain 16. Talde handian egoteak, eragina du, askotan, luze jotzen duelako bakoitzak kontatu nahi duena kontatzeak.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea : Bi urteko haurrak

Yolanda andereñoak dio lan handia egin ondoren lortu dela jangelako prozesu egoki bideratzea; arduradunarekin asko hitz eginez, gaiak behin eta berriro tratatuz: ume bakoitzak jaten duenaren informazioa gela barrura sartu konfidentzialtasunagatik; txandak egokitu; haur bakoitzaren erritmoa errespetatu; ume bakoitzaren ohiturak ezagutu; janarekiko duen jarrera aztertu.

15.12 Autonomiaren Heziketa eta Bilakaera

. Arantzazuko Ama Ikastola - 2 urteko haurrak

- Ikasle bakoitzaren datuen azterketa
 - . Elikadura, deskantsua, higiena, norberaren txukuntasuna, norberaren autonomiarekin zerikusia duten ohituren tauletan azaltzen diren datuak aztertuz, ikusten dugu, lorpen handiak egin dituela bi urteko talde honek.

2001-02 ikasturteko datuekin alderatuz gero, ez genuke esango emaitzetan diferentzia esanguratsurik dagoenik.

- Taldean eman den bilakaera

Taldean eman den prozesua aztertuz, ikusten dugu eboluzio esanguratsua izan dutela autonomia mailan.

. Arantzazuko Ama Ikastola - 3 urteko haurrak

- Ikasle bakoitzaren datuen azterketa
 - . Elikadura, deskantsua, higiena, norberaren txukuntasuna, norberaren autonomiarekin zerikusia duten ohituren tauletan azaltzen diren datuak aztertuz, ikusten dugu, bilakaera garrantzitsua egin duela hiru urteko talde honek.

Aurreko ikasturteekin konparatuz, ez genuke esango emaitzetan aldaketa esanguratsurik dagoenik.

. Harri Berri Ikastetxea

- Ikasle bakoitzaren datuen azterketa
 - . Elikadura, deskantsua, higiena, norberaren txukuntasuna, norberaren autonomiarekin zerikusia duten ohituren tauletan azaltzen diren datuak aztertuz, ikusten dugu, lorpen handiak egin dituztela bi urteko haur hauek.

Elikadurarekin lotuta nabarmendu nahi genituzke jangelan egin dituzten aldaketak:

- Ikasle bakoitzak jan duenaren informazioa jantokiko kanpoaldetik barrura pasatzea.
- Ume bakoitzak janarekiko duen jarrera aztertzea eta lantzea.
- Txandak egokitzea (momentu honetan 3 txanda).
- Haur bakoitzaren erritmoa kontuan hartzea.
- Ume bakoitzaren ohiturak ezagutzea.

Ikusten dugu, jangelako dinamika honek argi uzten duela, "jatea" baina askoz gehiago dela jangelako denbora. Andereñoak dioen informazioaren "konfidentziasuna" gordetzetik abiatuz, egokia iruditzen zaigu, umeak janarekiko duen jarrera aztertzea, bakoitzaren erritmoak kontuan hartzea (jangela askotan, "karrerak" egiten baitituzte eta txapeldunak izendatu, lehenbailehen bukatu dezaten), haurraren ohiturak ezagutzea; guzti honek lagunduko baitigu haurrak ondo jaten ikasten, eta jangelako denbora hezkuntzako elementu oso garrantzitsu gisa tratatzen. Prozesu hau ongi bideratzeko pertsonal nahikoa eta kualifikatua behar dugu.

Taldean eman den bilakaera:

Taldean eman den prozesua aztertuz, ikusten dugu eboluzio esanguratsua izan dutela autonomia mailan, honen adierazle dira 11.16.4 atalean azaltzen ditugun elementuak.

15.13 Elkarrekintza-Egoeren Eboluzioa bi Ikastetxeetan

Andereñoek esaten digutenaren arabera, zuzenduak diren jardueretan gehiago agertzen dira –2 urteko hurrekin– elkarrekintza egoerak, jarduera libreetan, aldiz, bakoitzak berea egiteko joera handiagoa azaltzen du. Beraien arteko “zaintze”, “laztante”, “babeste” ekintzak ez dira oraindik beraien gisara hasi. Diotenaren arabera, orokorrean patioan gutxiago ematen da elkarrekintza, haur askori espazioa handiegia egiten baitaio eta aurretik aipatu ditugun oztopoak ere hor baitaude.

Aurreko ikasturteekin alderatuz gero, nahiz eta elkarrekintza giro eta egoera desberdinak eman diren, ezin dugu esan kategoría edo maila diferentziarik aurkitzen dugunik (ikus 11.17 atala).

15.14 Andereñoen Zeregina Prozesuan zehar

Gure behaketa saio egunetatik jasotzen joan garen hainbat eta hainbat andereñoen zeregin, 8. kapituluko 8.9.3.2. atalean deskribatu ditugu. Hiru ataletan banatu ditugu gelako dinamikan behatzen joan garen zereginak: Espazio eta baliabideen antolaketa, haurra, eta gurasoak.

2007-08 ikasturtean jarraitutako lan honetan berriro ere egiaztatu izan dugu interesgarria bezain konplexua den eguneroko zeregin horretan gure andereñoek erabiltzen duten metodologia, gelen eta baliabideen antolaketa, haurrei ematen dioten atentzioa, babesa, ezagutza eraikitzeke bitartekaritza eta gelako giroa eta dinamika sortzeko erabiltzen dituzten estrategien egokitasuna.

15.15 Irakasleen arteko Koordinazioa

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Astean behin elkartzen dira formalki 3 eta 4 urteko haurren bi andereñoak.
- Etengabeko informazio trukaketa daukate zirkulazio libreetako saioei buruz.
- Astean behin biltzen dira bilera orokorrean Martuteneko Haur Hezkuntzako bi eraikinetako eta Lehen Hezkuntzako irakasleak.

Antzuolako eskolarekin dituzten harremanak

Momentu honetan beraien ziklokoek ez daukate harreman zuzenik.

2001-02an harreman gehiago zeukaten; andereñoak ikasturte haietan Antzuolan egiten zuten astebeteko egonaldia.

. Harri Berri - Oleta Ikastetxea

- Astero biltzen dira mailako 3 andereñoak koordinatzaile eta laguntza ematen dien pertsonarekin.
- Astean behin edo hamabostetik behin biltzen dira zikloko andereño guztiak.

Amara Berriko ikastetxearekin dituzten harremanak

- Zuzendaritza-taldea ikasturtean 5-6 aldiz biltzen da Amara-Berri sareko beste zuzendaritzekin batera.
- Koordinatzaile, erreferente, espezialista, tutore, eta abarrek, 2 topaketa-saio egiten dituzte ikasturtean zehar.

15.16 Udaletxeak eginda/egitear dauzkan Hobekuntzak

. Arantzazuko Ama Ikastola

- Komun guztiak berritu dituzte 2 urtekoen geletako eraikin hexagonalean: haurrenak eta irakasleenak.
- Arrapala baten eraiketa bukatzen ari dira eskailera-multzo bat ekiditeko.
- Aurtengo udaran aldatuko dituzte leihoak.
- Sarrerako atea aldatuko dute.
- Patioan dauden koska eta eskailerak kenduko omen dituzte.

. Harri Berri- Oleta Ikastetxea

- Patioko tresnak aldatu dituzte 3-4-5 urteko haurren eraikin handian.
- Komun guztiak berritu dituzte 2 urtekoen geletako eraikin hexagonalean: haurrenak eta irakasleenak.
- Eraikin txikiaren erdiko sabaileiho berria jarri dute.
- Eraikin handiko gela bateko leihoak berritu dituzte eta pixkanaka denak aldatzen joango dira.

15.17 Bi Ikastetxeetan egin beharko liratekeen Hobekuntzak

- Bi urteko haurren gela eta bainugelen artean ate bat, zuzenean komunikatuak egon daitezten.
- Patiora ateratzeko irteera zuzen bat, bi espazioetako lotura egon dadin.
- Negutegi edo lorategi itxi bat.
- Sarrerako eskailerak kendu beharko lirateke barrera arkitektonikoak ekiditeko.
- Igogailu bat.
- Patioko putzuak ekidingo dituen sistema bat.
- Patioa egoki estali, atetik hasita, itxitura onarekin, hotz-beroaren sistema kontuan hartuz.
- Patioan zonalde berdeak jarri: zuhaixkak, landareak, loreak..., eremu anitzekin: ura, hondarra...

15.18 Etorkizunerako Iradokizunak

.Eskola auzora, komunitatera gehiago irekitzea: guraso, bizilagun, erakundeen partaidetza lortzeko bideak lantzen joatea.

.Kanpoko espazioetan jarduerak ahalbidetuko dituzten baldintzak aldarrikatu eta lantzen joatea.

.Ikastola, ikastetxeetako ordutegia zabaltzea: astegun, zubi eta udako, gabonetako nahiz aste santuko oporrak kontuan hartuz.

.Gai psikopedagogikoei, diseinu eta dekorazioei buruzko jardunaldi, hitzaldi eta topaguneak guraso eta auzokideei ahalbidetzea.

Bukatzeke, aipatutako guztia lortzen joan ahal izateko beharrezkoa ikusten dugu Administrazioaren aldetik giza baliabide gehiago eskaintzea (andereño-maisuak, laguntzaileak, espezialistak...); etengabeko irakasleen prestakuntzarako baldintzak hobetzea; material didaktiko gehiago eskaintzea; eraikinen egitura eta diseinurako baldintza egokien beharra kontuan hartzea; irakasleek egiten duten lanaren erantzukizuna eta garrantzia gizarteari transmititzea. Udaletxearen kasuan, aurreikusitako planak epe laburragoetan gauzatzea; mantentze-zerbitzu on bat eskaintzea; Haur Hezkuntzaren problematika hurbilagotik jarraitzeko pausoak ematea eta pertsonal kualifikatua kontratatzea.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Abril, T., Bosch, M., Campos, X. eta beste (2006). *Escuela y territorio. Experiencias desde los centros y desde la comunidad*. Bartzelona: Graó.
- Ader, J. (1977). *La escuela de opciones múltiples. Sus incidencias sobre las construcciones escolares*. Madril: MEC.
- Aebli, A. (1991). *Factores de la enseñanza que favorecen el aprendizaje autónomo*. Madril: Narcea.
- Agirre, E.J. eta Mosquera. S.E. (2002). Familia-escuela: la interacción un camino a recorrer. *Infancia*, 73, 19-24.
- Aguado, M.T. (1998). *Evaluación de la participación de padres, profesores y alumnos en los centros docentes*. Zaragoza: Secretariado de publicaciones de la Universidad de Zaragoza.
- Aguilar, C. eta beste. (1986). Racons: un model organizatiu. *Guix*, 104, 15-19.
- Alcalde, A.I., Buitago M. eta beste (2006). *Transformando la escuela: comunidades de aprendizaje*. Bartzelona: Graó.
- Alfonso, C., D'Angelo, E. eta beste (2003). *La participación de los padres y madres en la escuela*. Bartzelona: Graó.
- Almenzar, L. (1989). El aula en la Escuela Infantil. In Gervilla, A. (Zuz.), *Organización escolar aplicada a la Escuela Infantil* (215-240 orr.). Málaga: Edinford.
- Alonso, M.T. (1985). *La afectividad en el niño: Manual de actividades preescolares*. México: Trillas
- Alpi, L. eta beste (2003). *Adaptación a la escuela infantil: niños, familias y educadores al comenzar la escuela*. Madril: Narcea.
- Álvarez, A. eta Del Río, P. (1987). Aproximación a un enfoque integrador para el análisis de la actividad escolar. *Investigación en la escuela*, 1, 13-17.
- Alzola, N. eta Otaño, J. (1995). Haurtzaroa eta eguneroko bizitza. *Jakingarriak*, 30-31.
- Anaut, L. eta taldea (1989). *Eskola Publiko batean*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- Anaut, L. (2004). *Amara Berri Sistemaren Inguruan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Andújar, J. eta beste. (1990). L'espai i el temps a l'Escola Bressol Pau. *Guix*, 148, 13-21.
- Anguera, M.T. (1999). *Observación en la escuela: aplicaciones*. Bartzelona: Edic. U.B.

- Angulo, F. (1990). Investigación-acción y currículo: una nueva perspectiva en la investigación educativa. *Investigación en la escuela*, 11, 39-48.
- Antón, M. (Koord.) (2007). *Planificar la etapa 0-6. Compromiso de sus agentes y práctica cotidiana*. Bartzelona: Graó.
- Antúnez, S. eta beste (1992). *Del proyecto educativo a la programación del aula. El qué, el cuándo y el cómo de los instrumentos de planificación didáctica*. Bartzelona: Graó.
- Antúnez, S. (1993). *Claves para la organización de centros escolares*. Bartzelona: ICE-Horsori.
- Antúnez, S. eta Gairín, J. (1996). *La organización escolar. Práctica y fundamentos*. Bartzelona: Graó.
- Aragonés, I. (1983). Marcos de referencia en el estudio de los mapas cognitivos de ambientes urbanos. *Estudios de psicología*, 14, 36-46.
- Armengol, C. (2003). El entorno físico de los centros. *Organización y gestión educativa: Revista del Fórum Europeo de Administradores de la Educación*, 11 (4), 2-3.
- Atarés, P., Ferrer, A. eta Hernández F. (1985). *La clase per racons com a organització de la interacció educativa al cicle inicial*. Bartzelona: ICE.
- Augustowsky, G. (2005). *Las paredes del aula*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Austin, R. (2009). *Deja que el mundo exterior entre en el aula*. Madril: Morata
- Ayerbe, P. eta Etxague, X. (1994): *Irakatsi, berrituz*. Donostia: Pax.
- Ayerbe, P. eta Garagorri, X. (2000). *Hezkuntzaren Berrikuntza eta Erreforma. Curriculum eta antolamenduko alderdiak*. Leioa: UPV/EHU. ICE/HEZI.
- Badía, A. (Koord.), Castelló, M. eta beste (2005). *Aprender autónomamente: estrategias didácticas*. Bartzelona: Graó.
- Balaban, N. (2000). *Niños apegados, niños independientes*. Orientaciones para la escuela y la familia. Madril: Narcea.
- Balaguer, I., Mestres, J. eta Penn, H. (1992). *Quality services for young children*. 2009ko martxoaren 3an honako orri elektronikoan kontsultatua: <http://childcarecanada.org/pubs/other/Qualitypapertwo.pdf>
- Balaguer, I. (2003). Europako kalitate parametroak lehen haurtzaroan. *Jakingarriak*, 48, 26-33.
- Barandiaran, A., Larrea, I. eta beste. (2007). Familia - eskola interkomunikazioa. *Jakingarriak*, 60-61, 48-55.
- Barker, R.G. (1968). *Ecological Psychology*. Stanford: University Press.

- Bartau, I., Maganto, J.M. eta Etxeberria, J. (2002). La implicación en el trabajo familiar: fuentes de influencia e implicaciones educativas. *Revista de Educación*, 329, 349-372.
- Bartau, I. eta Etxeberria, J. (2005). El programa Corresponsabilidad Familiar (COFAMI): Organización e intervención en el País Vasco. *Revista electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio Educativo (REICE)*, Vol. 3, No. 1 (http://www.ice.deusto.es/rinace/reice/vol3n1_BartauyEtxeberria.pdf).
- Bassedas, M. (1983). Els racons: una experiència a Parvulari. *Infanzia*, 14, 17-19.
- Bassedas, M. (Coord.) (1993a). *Interaccions en les primeres edats*. Barcelona: Ajuntament de Barcelona.
- Bassedas, M. eta Vila, I. (1993b). ¿Qué escuela para los niños de 3 años?. *Aula de Innovación*, 11, 9-13.
- Bassis, H. (2000). *Maestros ¿Formar o Transformar?*. Barcelona: Gedisa.
- Batllo, J. (2006). *150 Juegos para la estimulación adecuada*. Barcelona: Parramón.
- Baumgartner, E. (2003). *Il gioco dei bambini*. Roma: Carocci.
- Bazarrá, L. eta beste (2008). *Profesores, alumnos, familias: 7 pasos para un nuevo modelo de escuela*. Madrid: Narcea.
- Benedito, J. (1981). L'entorn escolar i la legislació vigent. Perspectives d'evolució. In Pol, E. eta Morales, M. (Edit.), *II Jornades sobre l'entorn escolar. Imatge de l'escola-interacció ambiental vers una nova normativa* (213-228 orr.). Barcelona: ICE-Univ. de Barcelona.
- Bertolini, P. eta Frabboni, F. (1990). *Nuevas orientaciones para el currículum de la Educación Infantil (3-6 años)*. Barcelona: Paidós.
- Beynon, J. (1991). Instalaciones: planificación para su uso en educación. In *Enciclopedia Internacional de la educación*, 6 (3216-3222 orr.) Barcelona: Vicens Vives.
- Bilbao, B. (2003). *Curriculum eta Kultura Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Bolívar, A. (2002). "¿De nobis ipsis silemus?": Epistemología de la investigación biográfico-narrativa en educación. *Revista Electrónica de Investigación Educativa*, 4 (1).
- Bolívar, A., Coll, C. eta beste (2007). *El constructivismo en la práctica*. Barcelona: Graó.
- Botia, F., Catalán, E. eta beste (2007). *Sexualidad, identidad y afectividad: cómo tratarlas desde la escuela*. Barcelona: Graó.
- Brazelton, T. eta Greenspan, S. (2006). *Las necesidades básicas de la infancia*. Barcelona: Graó.
- Bronfenbrenner, U. (1985). Contextos de crianza del niño. Problemas y perspectiva. *Infancia y Aprendizaje*, 29, 45-55.

- Bronfenbrenner, U. (1987). *Ecología del desarrollo humano*. Barcelona: Paidós.
- Bronfenbrenner, U. eta Morris, P. (1998). The Ecology of Developmental Processes. In W. Damon (ed.), *Handbook of Child Psychology, Theoretical Models of Human Development* (993-1028 orr.) N.Y.: Wiley.
- Cabanellas, I. eta Eslava, C. (Koord.) (2005). *Territorios de la infancia. Diálogos entre arquitectura y pedagogía*. Barcelona: Graó.
- Calvo, M.T. (1992). Análisis dimensional del conocimiento espacial. *Anuario de Psicología*, 54, 61-75. Barcelona: Universitat de Barcelona.
- Camps, A. (2007). Fem un jardí. *Perspectiva Escolar*, 315, 23-28.
- Cano, M.I. eta Lledo, A.I. (1988). Utilización del espacio de la clase. *Cuadernos de Pedagogía*, 159, 12-15.
- Cano, M.I. eta Lledó, A.I. (1990). *Espacio, comunicación y aprendizaje*. Sevilla: Diada.
- Cantón, I. (1996). *Manual de organización de centros educativos*. Barcelona: Oikos-Tau.
- Carbonell, L. eta Del Moral, M. (1993). Los proyectos de trabajo y el aprender a aprender en Educación Infantil. *Aula de Innovación*, 11, 38-44.
- Cárdaba, A., eta Cavia, S. (2008). Rutinas en el aula de dos años. *Cuadernos de Pedagogía*, 382, 28-30.
- Carli, L. eta Longo, G. (1985). Un esempio di metodologia osservativa, in Varin, D. (Dir.) *Ecologia psicologica e organizzazione dell'ambiente nella scuola materna* (31-40 orr.). Milan: Franco Angeli Libri.
- Castro, M.M., Ferrer, G. eta beste (2007). *La escuela en la comunidad. La comunidad en la escuela*. Barcelona: Graó.
- Celeste, B. (1990). *El primer año de escolarización*. Madrid: Narcea.
- Ceppi, G. eta Zini, M. (Koord.) (1998). *Bambini, spazi, relazioni: metaprogetto di ambiente per l'infanzia*. Reggio Children e Comune di Reggio Emilia - Nidi e Scuole dell'Infanzia, Italia.
- Chavarría, M. (2008). *El reto de la educación de los hijos: Compendio de pedagogía familiar*. México: Trillas.
- Checkoway, B. (2009). *Teoría y práctica de la participación juvenil y el cambio comunitario*. Barcelona: Graó.
- Cipolla, S., Cristofori, R. eta Tedeschi, M. (1995). Una historia de niños y familias que van a pasar a la escuela infantil. In *Escuelas Infantiles de Reggio Children, La inteligencia se construye usándola* (54-60 orr.) Madrid. MEC - Morata.

- Civarolo, M. eta Barbero, M.V. (2009). El ambiente: una cuestión educativa. *Infancia: educar de 0 a 6 años*, 113, 9-15.
- Claxton, G. eta Carr, M. (2004). A framework for teaching learning: The dynamics of disposition. *Early Years*, 24 (1), 87-97.
- Cohen, B. (1992). La infancia y el espacio de los servicios. *Infancia y Sociedad*, 18, 115-118.
- Colás, M.P. eta Buendía, L. (1995). *Investigación Educativa*. Sevilla: Alfar. (Euskarara itzulia: Hezkuntzaren Ikerkuntza. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua 1996).
- Comellas, M.J. (2006). Nuevas alternativas y modelos en la relación familia-escuela y profesionales de la comunidad. *C & E: Cultura y Educación*, 3, 295-310.
- Comellas, M.J. (2007). *Escuela para padres*. Bartzelona: Ariel.
- Comellas, M.J. (2009). *Familia y escuela: compartir la educación*. Bartzelona: Graó.
- Cooper, I. (1980). La conducta de nens i professors i el disseny dels edificis escolars: l'experiència britànica en educació primària. In Pol eta Morales (Edit.). *L'entorn escolar: problemàtica psicològica, educativa i de disseny*. Bartzelona: ICE Universitat de Barcelona.
- Corraliza, J.A. (1987). *La experiencia del ambiente. Percepción y significado del medio construido*. Madril: Tecnos.
- Cotterell, J. (1984). Effects of School Architectural Design on Student and Teacher Anxiety. *Environment and Behavior*, 16 (4), 455-479.
- C.P. Antzuola (2001). Infants investigadors: de què parlem?. *Guix d'infantil*, 1, 7-16.
- Cuadernos de Pedagogía (1994). Monográfico: Las claves de la organización. *Cuadernos de Pedagogía*, 222.
- Cuito, A. (Koord.) (2001). *Guarderías. Diseño de jardines de infancia*. Bartzelona: Gustavo Gili.
- Dahlberg, G., Moss, P. eta Pence, A. (2000). *Beyond Quality in Early Childhood Education and Care. Postmodern Perspectives*. London: Falmer Press.
- Dahlberg, G., Moss, P. eta Pence, A. (2005). *Más allá de la calidad en educación infantil*. Bartzelona: Graó.
- Dalaunay, A. (1986). *La educación preescolar: teoría y práctica*. Madril: Cincel-Kapelusz.
- Darder, P. eta Mestres, J. (Koord.) (1994). *Evaluación de centros de Educación Infantil*. Bartzelona: Onda.
- Davoli, M. eta Ferri, G. (Koord.) (2000). *Reggio tutta: una guida dei bambini alla città*. Reggio Children e Comune de Reggio Emilia - Nidi e Scuole dell'Infanzia, Italia.

- De Ben Oliver, M.A. (1994). La asamblea en Educación Infantil. *Aula de Innovación*, 28-29, 32-35.
- De Pablo, P. eta Trueba, B. (1994). *Espacios y recursos. Para ti, para mí, para todos. Diseñar ambientes en Educación Infantil*. Madril: Escuela Española.
- Defis, O. (Koord.) (1984). *Els hàbits al parvulari i cicle inicial d'Educació General Bàsica, a partir d'un plantejament de treball per racons*. Bartzelona: ICE-Ajuntament de Barcelona.
- Del Campo, V.J. eta Mendibil, A. (2009). Jendeak ez daki zein garrantzitsua den eraikinen barneko airearen kalitatea. *Basque Research, EHU/UPVko Prentsa Bulegoa*, otsailaren 26^a.
- Denzin, N.K. eta Lincoln, Y.S. (Edit.). (2005). *The Sage Handbook of Qualitative Research* (third ed.). London: Sage Publications Ltd.
- Díaz, M.C. (1986). Esta tarde toca talleres. *Cuadernos de Pedagogía*, 140, 35-37.
- Didonet, V. (2000). Calidad en Educación Infantil. In M.V.Peralta eta R. Salazar. *Calidad y Modalidades Alternativas en Educación Inicial*. La Paz: Cerid/Maizal.
- Diego Martín, J.L. (1996). La organización del tiempo en la educación infantil. *Aula de Innovación*, 47, 53-59.
- Díez Navarro, M.C. (2002). *El piso de abajo de la escuela: los afectos y las emociones en el día a día de la escuela infantil*. Bartzelona: Graó.
- Díez Navarro, M.C. (2007). *Mi escuela sabe a naranja: Estar y ser en la escuela infantil*. Bartzelona: Graó.
- Doboin, J. (1991). *Comment bien vivre l'école maternelle*. Paris: Nathan.
- Doménech, J. eta Viñas, J. (1997). *La organización del espacio y del tiempo en el centro educativo*. Bartzelona: Graó.
- Durán, A. eta Roma, J. (2008). El proyecto Poble educador. *Guix: Elements d'acció educativa*, 344, 59-65.
- Edwards, C., Gandini, L. eta Forman, G. (1995). *The hundred languages of children: the Reggio Emilia approach to early childhood education*. New York: Ablex Publishing Corporation.
- E.I. Haurtzaro de Pamplona (2007). Documentar un proyecto de toda la escuela. Las bandejas de experimentación. *Aula de Infantil*, 39, 10-15.
- Elizalde, L.M. (2000). Formación inicial en el primer ciclo : una visión personal desde Euskal Herriko Unibertsitatea. *Infancia: educar de 0 a 6 años*, 61, 7-11.

- Enesco, I. (1985). Una revisión del concepto de egocentrismo espacial en tareas de adopción de perspectivas. *Infancia y Aprendizaje*, 30, 81-99.
- Enesco, I., Oliva, M. eta Rodríguez, P. (2003). El legado de Piaget. *El desarrollo del bebé: cognición, emoción y afectividad* (21-52 orr.). Madril: Alianza Editorial.
- Enríquez, F., Fernández, R. eta beste. (2008). *Educación ambiental: Propuestas para trabajar en la escuela*. Bartzelona: Graó.
- Escamilla, A. (1993). *Unidades Didácticas: Una propuesta de trabajo de aula*. Zaragoza: Edelvives.
- Escola Itaca (1984). Experimentació per racons. *Guix*, 84, 31-38.
- Escolano, A, (1994). La arquitectura como programa. Espacio-Escuela y currículo. *Historia de la Educación*, XII-XIII, 97-120.
- Escolano, S. (2000). *Tiempos y espacios*. Ensayos históricos. Madril: Biblioteca Nueva.
- Escuelas infantiles de Reggio Emilia. (1999). *La inteligencia se construye usándola*. Madril: M.E.C., Morata.
- Escutía, M. (2007). L'hort ecològic, una aula sostenible per a l'escola del futur. *Guix: Elements d'acció educativa*, 338, 6-17.
- Esparza, A. (1980). *La psicomotricidad en el jardín de infancia: una propuesta integradora del movimiento, la representación gráfica y el lenguaje*. Bartzelona: Paidós.
- Espinosa, S. (2006). *Ecología acústica y educación. Bases para el diseño de un nuevo paisaje sonoro*. Monografías de educación ambiental, 11. Bartzelona: Graó.
- Etxague, X. (Koord.) (2004). *Didaktika Orokorra*. Donostia: Erein.
- Etxague, X. eta beste (2009). Kalitatea hezkuntza: ikerketa baten ondorioak. *Tantak*, 21, 75-94.
- Etxeberria, F. (Koord.) (2003). *Calidad, equidad y educación*. Donostia: Erein.
- Euskal Hiztegi Entziklopedikoa (1995, 3. lib.) Donostia: Klaudio Harluxet Fundazioa.
- Eusko Jaurlaritz. (1992). *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Haur Hezkuntza. Etaparako Sarrera*. Gasteiz: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Eusko Jaurlaritz. (1996) *0-3 zikloa: 2 Urtekoen Gelak. Haur Hezkuntza*. Gasteiz: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Evans, G.W. (1983). Cognición ambiental. *Estudios de Psicología*, 14-15, 47-84.
- Fernández, L. (1979). El comportament social del nen al parvulari. *Perspectiva Escolar*, 17, 14-17.

- Fernández Gutiérrez, M.A. (1990). *La Educación Infantil 0-6 años*. Bartzelona: Paidotribo.
- Fernández, M. eta Menéndez, R. (1993). El ruido en los centros españoles. *Escuela Española*, 3147, 2-3.
- Fernández-Ballesteros, R. (1987). *El ambiente. Análisis psicológico*. Madril: Pirámide.
- Fernández Montesinos, C. (1992). El espacio en los servicios infantiles. *Infancia y Sociedad*, 18, 109-114.
- Figueras, C. eta Pujol, M.A. (1989). Els racons de treball. Una nova forma d'organitzar el treball personalitzat. Bartzelona: Eumo Editorial.
- Folch, L. (1980). El diàleg de l'infant amb l'entorn físic. In Pol. E. eta Morales, M. (Ed.), *L'entorn escolar: problemàtica psicològica, educativa i de disseny* (5-42 orr.) Bartzelona: ICE-Univ. de Barcelona.
- Forest, C. eta García, F.J. (2006). *Comunicación cooperativa entre la familia y la escuela*. Madril: Narcea.
- Frabboni, F. (1986a). *La programmazione nella scuola materna*. Firenze: La Nuova Italia.
- Frabboni, F. (1986b). *La educación del niño de 0 a 6 años*. Madril: Cincel.
- Frabboni, F. (1990). La integración escuela-territorio. Hacia una ciudad educadora. In Actas del I Congreso Internacional de Ciudades Educadoras (153-162 orr.) Bartzelona: Ajuntament de Barcelona.
- Fraser, J.B. eta Fisher, D. (1983). Effects of classroom openness on science students' achievement and attitudes. *Research in Science & Technological Education*, 1, 41-50.
- Freire, H. (2007). Un espacio para crear. *Cuadernos de Pedagogía*, 373, 18-23.
- Frías, C. (2005). *Guía para estimular el desarrollo infantil: del primero a los tres años de edad*. Sevilla: Editorial Mad.
- Frías, C. (2006). *Guía para estimular el desarrollo infantil: de los tres a los seis años de edad*. México: Trillas.
- Fuéguel, C. (2000). *Interacción en el aula. Estudio de caso*. Bartzelona: Praxis.
- Gairín, J. (1987). Arquitectura y mobiliario. In Enciclopedia de la Educación Preescolar (302-324 orr.). Madril: Santillana.
- Gairín, J. (1995). El reto de la organización de los espacios. *Aula de innovación*, 39, 45-50.
- Gairín, J. (1996). La innovación en organizaciones educativas. *Escuela crítica*, 107-149.
- Garagorri, X. eta beste. (1997). *Participación, autonomía y dirección*. Madril: Escuela Española.

- Garagorri, X. eta beste (2004). Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz.
- Garaigordobil, M. (1990). *Juego y desarrollo infantil*. Madril: Seco Olea.
- García Bacete, F.J. (2007). Elkarrizketak gurasoekin: aurrez aurreko komunikazio kooperatiboa errazteko tresna. *Jakingarriak*, 60-61, 24-31.
- García García, M. (1995). La evaluación de la educación infantil. *Revista Complutense de Educación*, 6 lib., 1. Madril: Universidad Complutense.
- García González, E. (2007). *La psicología de Vigotski en la enseñanza preescolar*. México: Trillas.
- García Moriyón, F. (2004). *Familia y escuela*. Cuadernos de educación para la acción social. 20. Madril: CCS.
- Garling, T. eta Evans G. (1992). *Environment, Cognition and Action. An integrative multidisciplinary approach*. London: Oxford University Press.
- Garzón, M. eta Martínez, S. (1988). *La práctica de los rincones con niños de 2 a 6 años*. Madril: M.E.C.
- Gerbeau, C. (1981). *Cómo hacer la organización material del parvulario*. Bartzelona: Médica y Técnica.
- Gervilla, A. (Zuz.) (1989). *Organización escolar aplicada a la Escuela Infantil*. Málaga: Edinford.
- Gimeno Sacristán, J. (1981). *Teoría de la enseñanza y desarrollo del currículo*. Madril: Akal.
- Gimeno Sacristán, J. eta Pérez Gómez, A. (1992): *Comprender y transformar la enseñanza*. Madril: Morata.
- Giovannini, D. (Koord.) (2003). *Crescere al nido*. Roma: Carocci.
- Gipuzkoako Haur Eskolen Koordinakundea eta beste (2001, ekaina). Jardunaldiak, 0-3 Haurraren Hezkuntza Eskubideen Aldeko Mahaia. Donostiako Irakasle Eskola.
- Giró, S. eta Maña, J. (1980). Equipament escolar, el mobiliari. In Pol, E. eta Morales M. (Edit.), *L'entorn escolar: problemática psicològica, educativa i de disseny* 125-130 orr.). Bartzelona: ICE Univ. de Barcelona.
- Goldschmied, E. (1984). *El niño en la guardería*. Bartzelona: Fontanella.
- Golledge, R.G. (1987). Environmental cognition, In Stokols D. eta Altman I. (Edit.), *Handbook of Environmental Psychology (I)*. New York: Wiley-Interscience.
- Gómez Senande, J.J. (Koord.) (2000, otsaila). VII. Jardunaldi Pedagogikoak. Haur Hezkuntza 0 - 6 urte. Gasteiz: Ikastolen Elkartea, Partaide Ikastolak.

- González, J.C. (2005). *Cómo educar la inteligencia del preescolar: Manual de actividades cognoscitivas*. México: Trillas.
- González González, E., Lorente, P. eta beste (1991). *La granja en la escuela*. Bartzelona: ICE Universitat de Barcelona.
- González, M.T. (Koord.) (2003). *Organización y gestión de centros escolares. Dimensiones y procesos*. Madril: Pearson/PrenticeHall.
- Grupo Editorial Océano (2007). *Manual de la maestra de preescolar (liburua + CD)*.
- Guerrero, J.F. (1987). La investigación etnográfica en el ámbito educativo. *Investigación en la escuela*, 3, 13-18.
- Guzmán, M. (Koord.) (2005). *L'educació de 0 a 6 anys avui*. Temes d'In-fàn-ci-a, 51. Bartzelona: AM Rosa Sensat.
- Hargreaves, A. (1992). El tiempo y el espacio en el trabajo del profesor. *Revista de Educación*, 298, 31-53.
- Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa. (1998). Donostia: Klaudio Harluxet Fundazioa.
- Harms, T. eta Clifford, R. (1993). Studying Educational Settings. In Spodek, B. (Ed.). *Handbook of Research on the Education of Young Children* (477-492 orr.). New York: Mc. Millan.
- Harms, T., Clifford, R. eta Cryer, D. (2005). *Early Childhood Environment Rating Scale (ECERS-R) Revised Edition*. New York and London: Teachers College Press, Columbia University.
- Hedges, L.V. eta Stock, W. (1983). The Effects of Class Size: An Examination of Rival Hypotheses. *American Educational Research Journal*, 20 (1), 63-85.
- Heinemann, P. (1980). *Pedagogía de la comunicación no verbal*. Bartzelona: Herder.
- Heras Montoya, L. (1997). *Comprender el espacio educativo. Investigación etnográfica sobre un centro escolar*. Málaga: Aljibe.
- Heredia, B. (2006). *Relación madre-hijo: El apego y su impacto en el desarrollo emocional infantil*. México: Trillas.
- Herrera, M.O., Mathiesen, M.E. (2006). Prácticas Pedagógicas y desempeño de las niñas y niños menores de 6 años: ¿Da lo mismo cualquier jardín infantil?. *Revista Enfoques Educativos*, 8 (1), 27-44.
- Hik Hasi. (2003). *Antzuolako herri ikastetxearen proiektua*, 10. monografikoa. Donostia: Xangorin.
- Hohmann, M., Banet, B. eta Weikart, D. (1990). *Niños pequeños en acción*. México: Trillas.

- Holloway, G.E.T. (1969). *Concepción del espacio en el niño según Piaget*. Bartzelona: Paidós.
- Horowitz, R. (1979). Effects of the "open classroom". In Walberg, H.J. (Edit.) *Educational Environments and Effects*. Berkeley, California: McCutchan Publishing Corporation.
- Hoyuelos, A. (2007). Documentación como narración y argumentación. *Aula de Infantil*, 39, 5-9.
- Ibáñez Sandín, C. (1993). *El proyecto de Educación Infantil y su práctica en el aula*. Madril: La Muralla.
- Ibáñez, T. eta Iñiguez, L. (1984). El entorno construído como forma de control social: relaciones de poder en un nuevo modelo escolar. In Pol, E.; Morales, M. eta Muntañola, J. (Edit.): *Hacia un mejor entorno escolar. III Jornadas sobre l'entorn escolar* (56-65 orr.) Bartzelona: ICE-Universitat de Barcelona.
- Iglesias Forneiro, M.L. (1996a). *Deseño e Manexo de Espacios na Aula de Educacion Infantil: Analise do pensamento e actuacion dos profesores/as*. Doktore-tesia. Universidade de Santiago de Compostela.
- Iglesias Forneiro, M.L. (1996b). La organización de los espacios en la Educación Infantil. In Zabalza, M.A. *Calidad en la Educación Infantil*. Madril: Narcea.
- Imbernón, F. (Koord.) (2005). *Vivencias de maestros y maestras: Compartir desde la práctica educativa*. Bartzelona: Graó.
- Iori, V. (1996). *Lo spazio vissuto. Luoghi educativi e sogettività*. Firenze: La Nuova Italia.
- Jausi, M.L. (2002). *Comunidades de Aprendizaje en Euskadi*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Jensen, J.J. (2006). Concepciones del trabajo en los servicios para los más pequeños en Dinamarca, Inglaterra y Hungría. *Infancia*, 100, 34-37.
- Jiménez, N. eta Molina L. (1989). *La escuela infantil. Lugar de acción y coparticipación*. Bartzelona: Laia.
- Jimenez, O. eta beste (2008). Hiri Hezitzailea, kontzeptua eta ideia-gakoak. *Tantak*, 40, 109-127.
- Jimenez, O. eta beste (2009). Hiri Hezitzaileen esperientzien azterketatik ildo nagusietara. *Tantak*, 21 (1), 95-125.
- Kagan, S.L., (Edit.). (1991). The care and education of America's young children: Obstacles and opportunities. *90th Yearbook of the National Society for the Study of Education*. Chicago: University of Chicago Press.
- Kamii, C. eta De Vries, R. (1989). *El conocimiento físico en la Educación Preescolar. Implicaciones de la teoría de Piaget*. Madril: Siglo XXI.

- Lacasa, P. eta Herranz, P. (1989). Contexto y aprendizaje: el papel de la interacción en diferentes tipos de tareas. *Infancia y Aprendizaje*, 45, 49-70.
- Laguía, M.J. eta Vidal, C. (1987). *Racons d'activitat a l'Escola Bressol i Parvulari*. Bartzelona: Graó.
- Laguía, M.J. eta Vidal, C. (2004). *Rincones de actividad en la escuela infantil (0 a 6 años)*. Bartzelona: Graó.
- Lahoz Abad, P. (1994). "El modelo Fröbeliano de espacio-escuela. Su introducción en España". *Revista de Historia de Educación*, XII-XIII lib., 108-133.
- Lange, U. (2000). El paraíso no está amueblado. *Turrishabel, noticiario de arquitectura*. Bolzano, 24.
- Larraz, B.A. (1988). El condicionament de zones de joc per a infants. *Apunts Educació Física*, 13, 10-18.
- Larrea, I. eta Garaigordobil, M. (2005). Evaluación de la calidad de las escuelas infantiles. *Infancia*, 89, 4-8.
- Lázaro Flores, E. (1974). Los problemas de la construcción escolar en el marco de la OCDE. *Revista de Educación*, 233-234, 72-84.
- Lázaro Ruiz, V. (2000). *La representación mental del espacio a lo largo de la vida*. Zaragoza: Egido Editorial.
- Leavitt, C., Tonniges, T. eta Rogers, M. (2003). Good nutrition-The imperative for positive development. In Marc H. Bornstein eta beste (Eds.), *Well-being: Positive development across the life course* (39-51 orr.), London: Erlbaum. [ED 481 045](#).
- Liben, L.S. (1981). Spatial representation and behavior: Multiple perspective, In Liben, L.S., Patterson, A.H. eta Newcombe, N. (Edit.): *Spatial Representation and Behavior across the Life-Span*. New York: Academic Press.
- Licht, T. (2006). Cuando un centro de educación ambiental entra en la escuela. *Aula de Infantil*, 33, 16-22.
- Lobo, E. (2007). La calidad de las relaciones. Un paseo por el amor y la escucha. *Aula de Infantil*, 38, 10-13.
- López Puig, A. eta Acereda, A. (Koord.). (2007). *Entre la familia y el trabajo. Realidades y soluciones para la sociedad actual*. Madrid: Narcea.
- López Sánchez, F. (Koord.) (2007). *La escuela infantil observatorio privilegiado de las desigualdades*. Bartzelona: Graó.
- Lorenzo, M. (1993). La organización de la escuela como ecosistema social. In Lorenzo, M. y Sáenz, O. (Zuz..) *Organización Escolar. Una perspectiva ecológica*. Alcoy: Marfil.

- Lorenzo, M. eta Saenz, O. (Zuz.). (1993). *Organización escolar. Una perspectiva ecológica*. Alcoy: Marfil.
- Loughlin, C.E. eta Suina, J.H. (1987). *El ambiente de aprendizaje: diseño y organización*. Madril: Morata.
- Lur Hiztegi Entziklopedikoa (1991) 4 lib., 169-70 orr. Bilbo: Lur.
- Lurçat, L. (1990). *El niño y sus compañeros*. Madril: Narcea.
- Lleixa, T. (Koord.) (1996). *Educación Infantil de 0 a 6 años. Vol. I, II, III*. Bartzelona: Paidotribo. (Euskarara itzulia: Haur Hezkuntza 0-tik 6 urtera. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua 2000).
- MacKay, D. (1980). Problemes de l'edifici escolar a Catalunya avui. In Pol, E. eta Morales, M. (Edit.), *L'entorn escolar: problemàtica psicològica, educativa i de disseny* (131-139 orr.). Bartzelona: ICE, Universitat de Barcelona.
- Macvey, G.F. (1989). Ambientes de aprendizaje. In *Enciclopedia Internacional de la Educación, 1* (359-367 orr.) Bartzelona: Vicens Vives.
- Madariaga, A. (2005). El rincón de las construcciones. *Infancia, 91*, 18-22.
- Maganto, J.M., Bartau, I. eta Etxeberria, J. (2003). La participación de los hijos en el trabajo familiar. *Revista de Investigación Educativa, 21*, 249-269.
- Majem, M.T. (1994). Familia eta Eskola. *Jakingarriak, 28*.
- Malaguzzi, L. (1989). La cocina en el centro de la Escuela Infantil. *Itaka, 5*, 48-53.
- Malaguzzi, L. (1992). La escuela ha de potenciar la comunicación con la familia. *Comunidad Escolar*.
- Malaguzzi, L. (2001). *La educación infantil en Reggio Emilia*. Bartzelona: Octaedro.
- Marchesi, A. (1983). Conceptos espaciales, mapas cognitivos y orientación en el espacio. *Estudios de Psicología, 14-15*, 85-92.
- Marchioni, M. (2004). *La acción social en y con la comunidad*. Zaragoza: Libros Certeza.
- Martín, E. (1985). La representación espacial de los niños: los mapas cognitivos. *Cuadernos de Pedagogía, 125*, 45-50.
- Martínez, M. (2007). Convivir aprendiendo, aprender conviviendo. *Aula de Infantil, 38*, 5-9.
- Martínez González, R.A. eta García Bacete, F.J. (2006). La relación entre los centros escolares, las familias y los entornos comunitarios como factor de calidad de la educación de menores y adultos: Presentación del monográfico. *C & E: Cultura y Educación, 3*, 213-218.

- Martínez Pampliega, A. eta Galindez, E. (2007). Familia-eskola erlazioa: nondik hasiko?. *Jakingarriak*, 60-61, 16-19.
- Martínez Rodríguez, J.B. (1998). *Evaluar la participación en los centros educativos*. Madril: Escuela Española.
- McMahan, I.D. Public preschool from the age of two: The école maternelle in France. *Young Children*, 47, 22-28.
- Medd, D. (1989). Mobiliario escolar: características y peculiaridades. In Martín-Moreno Cerrillo, Q. eta beste. *Cuestiones sobre la organización del entorno del aprendizaje* (91-110 orr.) Madril: UNED.
- Medina, A. (2007). Diseñar un ambiente para la infancia: espacios, niños y relaciones. *Aula de infantil*, 40, 5-10.
- Melgarejo, J. (2008a). La clave del éxito en Finlandia. *Cuadernos de Pedagogía*, 381, 30-33.
- Melgarejo, J. (2008b). Pisa, niveles de aprendizaje y calidad de la educación. *Revista de Renovación Pedagógica*, 226, 207-232.
- Merino, A. eta Plana, J. (Koord.). (2007). *La ciudad educa. Aportaciones para una política educativa local*. Bartzelona: Ediciones del Serbal.
- Merino, C., Fernández de Haro, E. eta beste (1995). *El niño de 0 a 3 años. Guía para padres y educadores*. Madril: Editorial Escuela Española.
- Mínguez, R. eta Ortega, P. (2003). Educar para una cultura medioambiental. *Revista de Educación*, 1 (zenbaki berezia), 271-294.
- Ministerio de Asuntos Sociales de Dinamarca. (2001). El ruido en las guarderías-soluciones prácticas/técnicas para reducir el ruido en estos centros. <http://spanish.political.hear-it.org/page.dsp?page=1639>.
- Ministerio de Educación y Cultura (1999). *Escuelas infantiles de Reggio Emilia. La inteligencia se construye usándola*. Madril: Morata.
- Molina Simó, L. (1982). Algunas reflexiones psicopedagógicas sobre el espacio escolar. *Cuadernos de Pedagogía*, 86, 16-20.
- Mondragon Unibertsitatea. (2004). Haur hezkuntza (0-3 urte) jakintza zientifikoaren argitan: haurra, eskolaren eta familiaren artean (III). *Jakingarriak*, 52/53.
- Mondragon Unibertsitatea. (2007). Familia eta eskola. *Jakingarriak*, 60/61.
- Monjó Carrió, J. (1987). La escuela por la ventana. *Tabanque*, 3. Palentzia: Escuela U. del P. de EGB.
- Montagner, H. (1988). *L'Attachement, les débuts de la tendresse*. Paris: Odile Jacob.

- Montero, A. (2003). *Sistema educativo y leyes básicas. Del derecho a la educación a la calidad de la educación*. Madrid: Santillana.
- Moore, G.T. (1983). El desarrollo del conocimiento del ambiente: revisión de la teoría constructivista-interaccional y algunos datos sobre las variaciones evolutivas intraindividuales. In Canter, D., eta Leet, T. (Edit.): *Psychology and the built environment*, 184-194. Tombridge: The Architectural Press. Ltd.
- Morales, M. (1982). Utilización y práctica pedagógica. *Cuadernos de Pedagogía*, 86, 13-15.
- Morales, M., Pol, E., Presmanes, S. eta Ros, J. (1985). La escuela deseada por los niños. Estudio previo para la proyección de la nueva escuela de Medinya. In Actas del Congreso Nacional de Psicología Social. Universidad de Granada.
- Morales, M. (2007). *Ciutat i educació*. Unitat didàctica en el marc del Projecte Educatiu "El libro de nuestra escuela". Barcelona: Planeta.
- Moss, P. (1996). Defining objectives in early childhood services. *European Early Childhood Research Journal*, 4 (1), 17-31.
- Moss, P. (Zuz.) (2006). Educar para hacer boca: comida y alimentación. *Infancia en Europa*, 06.10.
- Moss, R.H. (1976). *The human context. Environmental Determinants of Behavior*. New York: John Wiley & Sons.
- Muntañola, J. (1975). *La arquitectura como lugar*. Barcelona: Gustavo Gili.
- Muntañola, J. (1988). Espacio y cultura, una revolución educativa pendiente. *Cuadernos de Pedagogía*, 159, 8-10.
- Muñoz, A. eta Roman, M. (1989). *Modelos de Organización Escolar*. Madrid: Cincel.
- Muñoz Rodríguez, J.M. (2007). La pedagogía de los espacios como discurso de la educación ambiental. *Revista de Orientación Pedagógica*, 59, 641-657.
- Murillo, F.J. eta Muñoz-Repiso, M. (Koord.) (2002) *La mejora de la escuela. Un cambio de mirada*. Barcelona: Octaedro.
- Musatti, T. (2001) I servizi integrativi al nido. In L. Cipollone (a cura di), *Il monitoraggio della qualità dei servizi per l'infanzia e l'adolescenza* (63-156 orr.) Bergamo: Edizioni Junior.
- Natanson, M. (2007). *Aujourd'hui les grands-parents. Sur le chemin de la transmission*. Bruxelles: De Boeck Université.
- O' Keefe, J. eta Nadel, L. (1978). *The hippocampus as a cognitive map*. Clarendon: Oxford University Press.
- OCDE (1985). *Programme sur la construction scolaire*. Paris: OCDE.

- OCDE (2009). *Les environnements pédagogiques sont importants*. www.oecd.org/edu/equipements.
- Ochaíta, E. (1983). La teoría de Piaget sobre el desarrollo del conocimiento espacial. *Estudios de Psicología*, 14-15, 93-108.
- Ortega, M.J. (1990). *La escuela infantil (3-6 años)*. Madrid: Escuela Española.
- Ortega, P. (2007). La familia como espacio educativo. *Carthaginensia: Revista de estudios e investigación*, 23. lib., 44, 309-329.
- Ortega, R. (1989). Algunas teorías para la comprensión de los fenómenos interactivos en el aula. *Investigación en la escuela*, 8, 27-34.
- Ortega Murcia, J. (2007). Los tiempos escolares en el marco de una ciudad educadora: un proyecto educativo de ámbito municipal. *Aula de Innovación Educativa*, 162, 83-86.
- Pablo, P. eta Trueba, B. (1994). *Espacios y recursos para mí, para ti, para todos*. Madrid: Escuela Española.
- Palacios, J. eta Hidalgo, V. (1991). El desarrollo de la personalidad en los años preescolares. In Palacios, J., Marchesi, A. eta Coll, C. *Desarrollo psicológico y educación* (205-217). Madrid: Alianza.
- Palacios, J., Lera, M.J. eta Moreno, M.C. (1994). Evaluación de los contextos familiares y extrafamiliares en los años preescolares: HOME eta ECERS eskalak. *Infancia y Aprendizaje*, 66, 71-88.
- Palacios, J., Marchesi, A. eta Coll, C.-en bilduma. (1999). *Garapen Psikologikoa eta Hezkuntza-I*. Euskal Herriko Unibertsitatea (Itzulia).
- Pérez Cabaní M.L. eta Carretero, J.J. (2001). *Afectos, emociones y relaciones en la escuela*. Bartzelona: Graó.
- Pérez Collera, A. (2003). La arquitectura en los espacios escolares. Organización y gestión educativa: Revista del Fórum Europeo de Administradores de la Educación, 11, 3-4.
- Pérez Gómez, A. (1992). Enseñanza para la comprensión. In Gimeno Sacristán, J. eta Pérez Gómez, A. *Comprender y transformar la enseñanza* (78-114 orr.) Madrid: Morata.
- Pérez Herrero, M.H. eta Martínez González, R.A. (2006). Propuestas metodológicas para una educación de calidad a través de las relaciones entre centros, familias y entidades comunitarias. *C & E: Cultura y Educación*, 3, 231-246.
- Piaget, J. eta Inhelder, B. (1947). *La representation de l'espace chez l'enfant*. Paris: P.V.F.
- Piaget, J. eta beste (1948). *La géometrie spontanée chez l'enfant*. Paris: P.V.F.

- Piaget, J. (1971). *La epistemología del espacio*. Buenos Aires: El Ateneo.
- Pitluk, L. (2007). *La Planificación Didáctica en Educación Infantil: Las unidades didácticas, los proyectos y las secuencias didácticas*. Sevilla: Editorial Mad.
- Poch, C. (2003). *La muerte y el duelo en el contexto educativo*. Bartzelona: Paidós.
- Pol, E. eta Morales, M. (1980). *Entorn escolar: Problemática psicològica, educativa i de disseny*. Bartzelona: ICE de la Universidad de Barcelona.
- Pol, E. (2003). L'appropriation de l'Espace. In P.Serfaty eta J. Morval (Eds.), *Textes de base de Psychologie Environnementale*. Paris: Armand Colin.
- Prada, J.I. (1979). La investigación del espacio en la escuela. In AAVV, *Temas de Investigación Educativa* (125-139 orr.). Madril: Servicio de Publicaciones del Ministerio de Educación.
- Prada, J.I. eta beste (1980). La investigación del espacio en la escuela. *Temas de Investigación Educativa* (125-129 orr.). Madril: MEC.
- Prats, J. eta beste (2009). La ciudad y el patrimonio histórico como recursos educativos. *Íber*, 59, Monografikoa. Bartzelona: Graó.
- Puigvert, L. eta Santacruz, I. (2006). La transformación de centros educativos en comunidades de aprendizaje. Calidad para todas y todos. *Revista de Educación*, 339, 169-176.
- Pujol, M.A. (1993). Organización de la Escuela Infantil. In García Fernández, M.D. (Koord.) *Investigaciones y experiencias en la Educación Infantil* (231-234 orr.). Córdoba: Universidad de Córdoba.
- Pujol, M.A. eta Figueras, C. (1988). Los rincones de trabajo. *Cuadernos de Pedagogía*, 156, 38-40.
- Pujol, M.A. eta Roca, N. (1991). *Treballar per projects a parvulari*. Bartzelona: Eumo.
- Quintana, J.M. (2007). *Eduquemos mejor*. Madril: CCS.
- Quintanal, J. eta Miraflores, E. (Koord.) (2007). *Educación Infantil: Orientaciones y Recursos Metodológicos para una Enseñanza de Calidad*. Bartzelona: Graó.
- Quinto Borghi, B. (2005). *Los talleres en la escuela infantil: espacios de crecimiento*. Bartzelona: Graó.
- Rabitti, G. (1994). *Alla scoperta de la dimensione perduta: l'etnografia dell'educazione in una scuola dell'infanzia di Reggio Emilia*. Bologna: Cooperativa Libreria Universitaria.
- Ramsey, M.E. eta Bayless, K. (1989). *El jardín de infants. Programas y Prácticas*. Bartzelona: Paidós.

- Rapoport, A. (1974). Estado actual de los estudios sobre la relación hombre-entorno. *Aspectos de la calidad del entorno. Cuestiones de arquitectura* (23-32 orr.). Bartzelona: Publicación del Colegio Oficial de Arquitectos de Cataluña y Baleares.
- Redding, S. (2006). Qué piensan padres y profesores de la escuela y unos de otros. *C & E: Cultura y Educación*, 3, 267-282.
- Reggio Children. (2001). *Atelier³: arredi per l'infanzia*. Reggio Emilia: Isaff.
- Revilla, F. (2007). La ciudad y los más pequeños. *Aula de Infantil*, 37, 39-43.
- Richardson, E. (1978). *El entorno de aprendizaje*. Salamanca: Anaya
- Rico Vercher, M. (1978). Estudio de agrupamientos flexibles y nuevos espacios de instalaciones escolares. *Revista de Educación*, 258-259, 105-125.
- Riera, M.A. (1990). Marco ambiental y distribución de espacios. In Hainbat: *La Educación Infantil*, 3. Bartzelona: Paidotribo.
- Riera, M.A. (1992). *El Disseny espacial a les aules d'educació infantil: un estudi de casos*. Lizenziatura Tesia. Balearetako Unibertsitatea.
- Rinaldi, C. (1998). Bambini, spazi, relazioni: metaprogetto di ambiente per l'infanzia. In Ceppi, G. eta Zini, M. (Koord.) *L'ambiente dell'infanzia* (114-120 orr.) Reggio Children e Comune di Reggio Emilia - Nidi e Scuole dell'Infanzia, Italia.
- Rio del, P. eta Álvarez, A. (1985). La influencia del entorno en la educación: la aportación de los modelos ecológicos. *Infancia y Aprendizaje*, 29, 3-32.
- Rodríguez, M. (1993). El ambiente externo: la apertura a la comunidad. In Lorenzo M. eta Sáenz, O., *Organización Escolar. Una perspectiva ecológica* (385-400). Alcoy: Marfil.
- Rodríguez Lestegás, F. (1995). *Didactica das Ciencias Sociais Na Educacion Infantil*. Vigo: Ir Indo.
- Rodríguez Rodríguez, M. (2009). Ludoteca: recurso educativo y comunitario. *Aula de Innovación Educativa*, 179, 74-77.
- Roffey, S. eta O'Reirdan, T. (2004). *El comportamiento de los más pequeños. Necesidades, perspectivas y estrategias en Educación Infantil*. Madril: Narcea.
- Romero, R. (1992). Espacios destinados a la primera infancia en el contexto urbano. *Infancia y Sociedad*, 18, 25-36.
- Royo, M. (2003). ¿Qué comunican las escuelas? Imagen y autoimagen de los centros educativos. *Organización y gestión educativa: Revista del Fórum Europeo de Administradores de la Educación*, 11 (4), 4-9.
- Rozenblum, S. (2007). *Mediación, Convivencia y Resolución de Conflictos en la Comunidad*. Bartzelona: Graó.

- Rue, J. (1987). Talleres ¿Actividad o proyecto?. *Cuadernos de pedagogía*, 145, 8-12.
- Sainz de Vicuña, P. (2009). Una metodología para el aula de 2 años. *Aula de Infantil*, 47, 6-10.
- Salmerón Pérez, H. (1992). *Evaluación de los espacios arquitectónicos escolares*. Granada:Universidad de Granada.
- Sancho, J.M. eta Hernández, F. (1985). *Interacción ambiental en el parvulario*. Bartzelona: ICE.
- Sancho, J.M. (2009). Los desafíos de la educación desde la óptica de la OCDE. Viaje a las escuelas de Finlandia. *Cuadernos de Pedagogía*: 386, 88-91.
- Sancho Gil, J.M. (1987). *Entre pasillos y clases*. Bartzelona: Sendai.
- Santos Guerra, M.A. (1989). ¿Qué Organización Escolar?. *Cuadernos de Pedagogía*, 172, 24-27.
- Santos Guerra, M.A. (1990). *Hacer visible lo cotidiano. Teoría y práctica de la evaluación cualitativa en los centros escolares*. Madril: Akal.
- Santos Guerra, M.A. (1993). Espacios escolares. *Cuadernos de Pedagogía*, 217, 55-58.
- Santos Guerra, M.A. (2002). *La escuela que aprende*. Madril: Morata.
- Santos Guerra, M.A. (2007). *Enseñar o el oficio de aprender*. Sevilla: Editorial Mad.
- Saussois, N. (1989). *Actividades en talleres para guarderías y preescolar*. Madril: Cincel-Kapelusz.
- Saussois, N. (1991). *Les activités en ateliers*. Paris: Armand Colin.
- Schaffer, H.R. (1983). *El desarrollo de la sociabilidad*. Madril: Aprendizaje-Visor.
- Schaffer, H.R. (1990). *El context socio-familiar en l'educació de l'infant*. Bartzelona: Rosa Sensat.
- Sebastián, E. (2003). El espacio escolar. Hacia una aproximación en forma de modelos para su comprensión. *Organización y gestión educativa: Revista del Fórum Europeo de Administradores de la Educación*, 11 (4), 15-19.
- Seco, E. (1990). *Educación Infantil: Diseño curricular de aula*. Madril: Cincel.
- Segarra i Balasch, J. (1988). Una experiencia de arquitectura escolar: Escola Espiga. *Cuadernos de Pedagogía*, 159, 16-18.
- Seijas, A. (2002). *Evaluación de la calidad en centros educativos*. A Coruña: Netbiblo.
- Selmi, L. eta Turrini, A. (1988). *La escuela infantil a los 3 años*. Madril: MEC-Morata.

- Serrano, R.M. (1989). Dirección y gestión del Centro. In Gervilla, A. (Zuz.). *Organización escolar aplicada a la Escuela Infantil* (113-139 orr.) Málaga: Edinford.
- Sevilla, A. (2007). La manera d'ensenyar a ensenyar en un hort ecològic. *Guix: Elements d'acció educativa*, 338, 55-60.
- Sevillano, M.L. (2005). *Didáctica en el Siglo XXI*. Madril: McGraw-Hill.
- Slavin, R.E., Karweit, N.L. eta Wasik, B.A. (Eds.). (1994). *Preventing early school failure: Research, policy and practice*. Boston: Allyn and Bacon.
- Smith, P. eta Connolly, K. (1985). Estudios experimentales del entorno escolar: El proyecto Sheffield. *Infancia y Aprendizaje*, 29, 33-43.
- Solé, I. (1993). Algunos retos para la Educación Infantil. *Aula de Innovación*, 11, 5-8.
- Sommer, R. (1974). *El espacio y comportamiento individual*. Madril: IEAL.
- Staccioli, G. (1984). Una puntualizzazione teorica sullo sviluppo delle abilità spaziali. In Girardet, H., Grazzini Hoffman, C. eta Pontecorvo, C. (Koord.), *Proposta per un curriculo elementare* (59-88 orr.) Firenze: La Nuova Italia.
- Stebbins, R.A. (1973). Physical Context Influences on Behavior: the Case of Classroom Disorderliness. *Environment and Behavior*, 5.
- Suárez, M. eta Garrido M. (1989). Diseño espacial del aula de preescolar. Un estudio de caso. *Investigación en la Escuela*, 8, 53-57.
- Suárez Pazos, M. (1987). Organización espacial del aula. *Revista de Educación*, 282, 301-312.
- Sylva, K., Siraj-Blatchford, I. eta Taggart, B. (2003). *Assessing quality in the early years. Early Childhood Environment Rating Scale Extension (ECERS-E). Four curricular subscales*. Trent, UK: Trentham Books.
- Tarrason, M.J. (1990). Aspectes metodològics de l'agrupació flexible. *Guix*, 148, 31-36.
- Tavernier, R. (1991). *La enseñanza entre los 2 y los 4 años*. Bartzelona: Martínez Roca.
- Tedeschi, M., Piccinini, S. eta Hoyuelos, A. (2005, martxoa). Reggio Emilia: 0-6 udal haur eskolak. Hik Hasi: elkarrekin jardunaldiak. Donostia.
- Thio, C. (1991). El Projecte Educatiu a l'Escola Infantil. *Guix*, 160, 13-16.
- Thio, C. (1993). Bases educatives dels 0 als 6 anys. In AA.VV., *La innovació en l'etapa d'educació infantil*. Bartzelonan, ekainaren 4tik 6ra izandako Jaardunaldietako komunikazioak. Bartzelona: ICE.
- Tonucci, F. (1988). *A los 3 años se investiga*. Bartzelona: Hogar del Libro.

- Torres, E. eta beste (1989). La concepción del ruido como agente perturbador en niños y jóvenes: una experiencia inicial. In *II Jornades de Psicologia Ambiental*. Universidad Islas Baleares.
- Traveset, M. (2007). *La pedagogía sistémica*. Bartzelona: Graó.
- Trueba Marcano, B. (1989). *Talleres integrales en Educación Infantil. Una propuesta de organización del escenario escolar*. Madril: Ediciones de la Torre.
- Tyo, J.H. (1992). Tablones de anuncios y su utilización en la enseñanza. In *Enciclopedia Internacional de la Educación*, 9 (5357-5360). Bartzelona: Vicens Vives.
- Unzurrunzaga, M.T. (1974). Consecuencias arquitectónicas de las nuevas tendencias pedagógicas. *Revista de Educación*, 233-34, 34-53.
- Valls, R. (1990). El medio físico y los niños. In *Actas del Congreso Internacional de Educación Infantil*, I. lib., Madril, 1989ko azaroaren 7-11ra, 77-80 orr.
- Vayer, P., Duval, A. eta Roncin, Ch. (1991). *Une écologie de l'école. La dynamique des structures materielles*. Paris: Presses Universitaires de France.
- Vayer, P., Duval, A. eta Roncin, Ch. (1993). *Una ecología de la escuela. La dinámica de las estructuras materiales*. Bartzelona: Paidós.
- Vega, S. (2006). *Ciencia 0-3. Laboratorios de ciencias en la escuela infantil*. Bartzelona: Graó.
- Ventalló, E. (1980). Transformació pedagògica i modificacions del medi escolar. In Pol, E. eta Morales, M. (Edit.): *L'entorn escolar: problemàtica psicològica, educativa i de disseny* (109-123 orr.) Bartzelona: ICE Universitat de Barcelona.
- Vigotsky, L.S. (1978). *Mind in society. The development of higher psychological processes*. Cambridge, MA: Harvard University Press.
- Vigy, J. (1988). *Organización cooperativa de la clase. Talleres permanentes con niños de 2 a 7 años*. Madril: Cincel.
- Walsh, G. eta Gardner, J. (2005). Evaluaciones de la calidad de ambientes para los primeros años de aprendizaje. *ECRP (Early Childhood Research & Practice)*, 7 liburukia, 1.
- Wallon, H. (1956). Importance du mouvement dans le développement psychologique de l'Enfant. *Enfance*, 1-4.
- Werner, H. (1948). *Comparative psychology of mental development*. New York: International University Press. (Gaztel. Itzul.: *Psicología comparada del desarrollo mental*. Buenos Aires: Paidós, 1965).
- Willis, A. eta Ricciuti, H. (1990). *Orientaciones para la escuela infantil de cero a dos años*. Madril: MEC-Morata.

- Wipfler, P. (1991). *Escuchando a L@s Niñ@s: Para Vencer los Temores de L@s Niñ@s*. California: Parents Leadership Institute (Itzulia).
- Yzaguirre de, A., Garmendia, D., Huella, E. eta beste (2007) . *Entramados: la experiencia de una comunidad de aprendizaje*. Bartzelona: Graó.
- Zabalza, A. eta beste (1992). Espazioen antolaketa: Hezitzaileen genesisia. *Jakingarriak*, 23, 21-29.
- Zabalza, M.A. (1987). *Didáctica de la Educación Infantil*. Madril: Narcea.
- Zabalza, M.A. (1993a). *Diseño y Desarrollo Curricular*. Madril: Narcea. (Euskarara itzulia: Kurrikuluaren Diseinu eta Garapena. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua 1996).
- Zabalza, M.A. (1993b). La continuidad en la Educación Infantil. In García Fernández, M.D. (koord.), *Investigaciones y experiencias en Educación Infantil* (251-269). Córdoba: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Córdoba.
- Zabalza, M.A. (1996). *Calidad en la Educación Infantil*. Madril: Narcea.



Universidad Euskal Herriko
Dpto. Didáctica y Organización Escolar | Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila

DOKTORE TESIA

HAUR HEZKUNTZAKO GELEN ANTOLAKETA
ESPAZIALAREN ETA ERABILERAREN DESKRIBAPENA ETA
AZTERKETA

II. LIBURUKIA

Margarita Lorea Jauregi Elizondo

Donostia, 2009



Universidad Euskal Herriko
Dpto. Didáctica y Organización Escolar | Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila

DOKTORE TESIA

HAUR HEZKUNTZAKO GELEN ANTOLAKETA
ESPAZIALAREN ETA ERABILERAREN DESKRIBAPENA ETA
AZTERKETA

II. LIBURUKIA

Margarita Lorea Jauregi Elizondo

Zuzendaria: Pedro Ayerbe Echeberria

Donostia, 2009

AURKIBIDEA

II. LIBURUKIA

ERANSKINAK

1. ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA: “A” IKASTETXEA

Auzoaren Ezaugarriak.....	1
Ikastolaren Ezaugarriak.....	1
Etapako Helburu Orokorrak.....	2
Edukiak.....	2
Metodologia.....	6
Printzipio Metodologikoak.....	6
Bi Urteko Haurra.....	9
Egokitzapen-Aldirako Proposamen zehatza.....	11
Espazio eta Denboraren Antolaketa.....	15
Irakaslearen Papera.....	18
Gurasoekiko Harremanak.....	18
Gela eta Gainontzeko Espazioak.....	21
Behaketa Saioa.....	22
Geletako Espazioaren Alderdi Fisikoen Behaketa.....	22
Espazioen Alderdi Funtzionalen Behaketa.....	25
Deskribapena.....	28
Elkarrizketak.....	30

2000/01 Ikasturtea

Ikerketa Gelaren Ezaugarri-Datuak.....	33
Eskolako Lehenengo Egunak – Egokitzapen-Aldia.....	34
Behaketa Saioen Deskribapenak eta Haur Bakoitzaren Jardueren Sintesiak.....	36
Ikuspegi Orokorrak Andereñoaren Hitzetan.....	88
1.-Espazioei Buruzko Iritziak.....	88
2.-Espazio Desberdinetako Egokitzapen Prozesua.....	88
3.-Ikasturtearen Bilakaera.....	89
Autonomia-Ohituren Taulak (Hiruhilabeteka).....	91

2001-2002 Ikasturtea

Eskolako Lehenengo Egunak.....	101
Behaketa Saioen Deskribapena eta Haur Bakoitzaren Jardueren Sintesiak.....	106
Ikuspegi Orokorrak Andereñoaren Hitzetan.....	173
1.-Espazioen Azterketa.....	173
2.-Umeak Bi Geletara Ohitzea.....	174
3.-Ikasturtearen Prozesuaren Bilakaera.....	175
Autonomia-Ohituren Taulak (Hiruhilabeteka).....	176

2. HARRI BERRI IKASTETXEA: “B” IKASTETXEA

Auzoaren Ezaugarriak.....	188
Ikastetxearen Ezaugarriak	189
Etapako Helburu Orokorrak	190
Ikastetxeko Helburu Orokorrak.....	191
Metodologia	192
Printzipio Metodologikoak.....	192
Gurasoekiko Harremanak.....	192
Gela eta Gainontzeko Espazioak.....	192
Behaketa Saioa	193
Gelako Espazioaren Alderdi Fisikoen Behaketa.....	195
Espazioaren Alderdi Funtzionalen Behaketa	197
Elkarrizketa	200
Irakaslearen Papera	201

2000/2001 Ikasturtea

Ikerketa Gelaren Ezaugarri-Datuak	202
Bi Urteko Haurren Ikasturte Hasiera	204
Eskolako Lehenengo Egunak – Egokitzapen-Aldia.....	205
Behaketa Saioen Deskribapenak eta Haur Bakoitzaren Jardueren Sintesiak.....	206
Ikuspegi Orokorrak Andereñoaren Hitzetan	244
1.-Espazioei Buruzko Iritziak	244
2.-Espazio Desberdinetako Egokitzapen Prozesua	245
3.-Egokitzapen-Aldia	245
Autonomia-Ohituren Taulak (Hiruhilabeteka).....	251

2001-02 Ikasturtea

Ikastetxeko Gela Kopurua eta Ereduak.....	259
Behaketa Saioen Deskribapenak eta Haur Bakoitzaren Jardueren Sintesiak.....	260
Ikasturte Amaierako Festaren Egitaraua	318
Ikuspegi Orokorrak Andereñoaren Hitzetan	319
1.-Espazioen Azterketa	319
2.-Ikasturtearen Bilakaera	320
Autonomia-Ohituren Taulak (Hiruhilabeteka).....	323

ERANSKINAK

ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA

A IKASTETXEA**AUZOAREN EZAUGARRIAK**

Arantzazuko Ama Ikastola (A ikastetxea) Martuteneko auzoan kokatuta dago. Auzoak 2100 biztanle ditu 2001eko erroldaren arabera. Ikastetxe publikoetako Haur Hezkuntzako ohiko eraikina da. Diseinu eta egitura aldetik xumea da. Etxez inguraturik dago eta aurrean, Donostiara datorren GI-131 errepidea pasatzen da auzoaren erdialdetik. Gasolinera txiki bat dago ikastolatik atera eta zebrabidearen bestaldean. Eraikinaren sarreratik 200-250 metrotara pasatzen da Urumea ibaia. Bi autobus linea gelditzen dira alboan: Hernanitik Pasaiara doana eta Donostia-Martutene-Donostia ibilbidea egiten duena (26). RENFEko tren geltokia 400 m-tara dago. Langile auzoa da.

- Zerbitzu eta instalazioak

Gaztelekua 2000. urtean irekia; zaharkitutako parke txiki bat; botika eta komertzio txikiak, elkarte gastronomikoak eta eliza.

- Inguruko Hezkuntza Erakundeak

Loiola auzoan: **La Salle** Ikastetxea: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta **Amara Berri** Ikastetxeko 2 urtekoen gelak.

IKASTOLAREN EZAUGARRIAK¹

IZENA ETA KOKAGUNEA	ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA - MARTUTENE
INGURUNEA	Urbanoa
IKASTETXE MOTA	Publikoa
TIPOLOGIA	Haur Hezkuntzako eraikina
UNITATE KOPURUA	Lau: Hiru (Haur Hezkuntzako eraikinean): 2 urteko haurren gela bat 3 urteko haurren gela bat 4 urteko haurren gela bat Bat (Lehen Hezkuntzako eraikinean) 5 urteko haurren gela bat
IKASLE KOPURUA	45
ORDUTEGIA	9.00 - 12:00 14:30 - 16:30
JANGELA - Arduraduna	Bai Begoña Olaiz
HIZKUNTZA-EREDUAK	D
GURASOEN HIZKUNTZA	Gaztelera guraso pare bat izan ezik
ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK:	5 urteko haurrentzat judoa eta soin erritmikoa

¹ Ikastolako irakasleek eskainitako dokumentuetatik jasotako datuak.

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomi Erkidegorako egokituta ikastetxe guztietara bidaltzen dituen Helburu Orokorrak lantzen dituzte. Helburu Orokor horiek Haur Hezkuntzako 3 Esperientzi Eremutan sailkatuta dauzkate: Nortasuna eta Autonomia Pertsonala, Ingurune Fisiko eta Soziala eta Komunikazioa eta Errepresentazioa. Ondoko hauek dira Helburu Orokorrak:

1.- Norbere gorputza gero eta gehiago ezagutu eta kontrolatu, bere buruaren irudi positiboa eta identitate sexuala garatzeko, bere gaitasuna eta ekintza edo adierazpen mugapenak baloratzuz eta osasun eta ongitasunen oinarritzko ohiturak lortuz.

2.- Ohizko jardueretan gero eta autonomia gehiagoz aritu, segurtasun afektiboa lortuz joanez eta bere buruarekiko ekimen eta konfiantza ahalmenak garatuz.

3.- Giza harremanak gero eta esparru zabalagoan ezarri, norbere interesak, ikuspuntuak eta ekarpenak gainerakoenekin progresiboki erlazionatuz.

4.- Nagusiekin eta bere adinekoekiko harremanetan aritu, sentiberatasuna erakutsiz, ezberdintasunak errespetatuz eta lankidetzaz jarrerak garatuz.

5.- Hurbilen dagoen ingurunea jakin nahiaz eta arretaz behatu eta aztertu.

6.- Inguruneko kultura ezagutu eta berarenganako begirunea, interesa eta parte-hartzea garatu.

7.- Bizi, ezagutu edo asmatutako zenbait alde erreal gogoratu eta antzeztu eta jokoaren bidez adierazi.

8.- Ahozko lengoaia erabili eguneroko komunikazio egoera ezberdinetan, ulertzeko eta besteek uler gaitzaten, norbere ideiak, sentimenduak, esperientziak et nahiak adierazi, esanahiak egin, norbere portaera arautu eta besteengan eragin.

9.- Guztion eskuetan dauden baliabideen bidez adierazpena aberastu, arlo ezberdinen bitartez: Plastika, musika, gorputz-espresioa...

10.- Errealitatearen zenbait aspektu, joko edo beste arloen bidez adierazteko gai izan: Hizkuntza, matematika...

EDUKIAK

Aipatutako Helburu Orokor, Gaitasunak eta Eduki motak - kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak-, beraiek egokitu eta sailkatuta agertzen dituzte taula batzuen bidez. Hona hemen adibideak:

BOROBILA		
HELBURUAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK
<p>*Haur Hezkuntzan landu beharreko arloak eta eremuak kontutan hartuz, ELKARRIZKETATIK eta borobil-garaiko beste edozein ekintzetatik abiatuz, funtzionaltasunean oinarrituz lantzea: borobileko garaiko egoera errealak kontutan hartuz, haurrentzako benetako esanahia izango duten ekintzak lortu.</p> <p>*Elkarrizketak aprobetxatu, haurren emozioen adierazpenerako gune izan daitezen eta horretaz gain eguneroko bizimoduan sor daitezken konfliktuetaz hitz egin eta denon artean konponbideak aurkitzen joateko ere.</p> <p>*Gelako eta inguruko ohizko egoera eta ihardueretan haurrak jokabide autonomoan ohitzen joan.</p>	<p>*Autonomia pertsonalari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jokabide autonomoaren estrategiak erabiltzea gelako eta inguruko ohizko egoera eta iharduerari dagokienez. - Gorputzaren ezaugarri eta kalitateen azterketa eta identifikazioa. -Norberaren aldaketa fisikoen eta hauen denborarekiko erlazioen pertzepzioa. <p>*Ingurune sozial eta fisikoari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Auzo edo herriko kultur adierazpen batzutan aktiboki parte hartzea. - Inguru natural garbi, osasuntsu eta kutsatu gabeko bat mantentzen parte hartzea. - Borobileko garaian ingurune fisikoari buruzko behaketen ondorioz, hauei buruzko azterketak egitea eta kontatzeko gai izatea: Animalia, landare eta inguru naturaleko elementu desberdinen antzekotasun-desberdintasunak, harremanak, ezaugarriak, motak... <p>*Komunikazio-errepresentazioari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zenbakien seriea errealitatearen elementuak zenbatzeko erabiltzea. - Zifrak ezagutzen hasi eta erabiltzea. - Eguneroko bizitzako zenbait lanen iraupena denborazko unitateak erabiliz neurtzea eta zenbait jarduera denboran kokatzea (eguna-gaua, goiz-arratsalde, jaiegun...) - Objektu desberdinen konparazioa, beren ezaugarrien arabera. - Objektuak ezaugarri jakin baten maila desberdinen arabera sailkatzea edo seriatzea eta sailkatzeko irizpideak erabiltzen jakitea. - Objektuen bildumak konparatzea: Adina, baino, gehiago, gutxiago... - Eragiketa errazak erabiltzea eskatzen duten arazoak konpontzea. - Objektuen bildumak eta berauen artean sortutako eragiketa errazak kode ez konbentzionalen bidez grafikoki errepresentatzea. 	<p>*Autonomia pertsonalari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Giza gorputza. - Zentzumena. - Elkarbizitzarako arauak eta emozioen adierazpena. - Norberaren osasuna eta inguruko zaintza. <p>*Ingurune sozial eta fisikoari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Familia eta eskola: Kideen arteko ahaidetasuna eta adiskidetasuna. - Segurtasun neurriak, osasuna eta higiena familia eta eskolan. - Auzo edo herriko ohitura, folklorea, eta beste kultur adierazpenak. - Denboraren forma sozial batzuk: astearen egunak, jaiegunak, eta lanegunak... - Auzo edo herriaren ezaugarriak. - Garraioak eta zirkulazioaren oinarritzko arauak. - Izaki bizidunak: Animalia eta landareak:: funtzioak, ezaugarriak (klasifikazioak, seriazioak) eta elkarren arteko erlazioak. <p>*Komunikazio eta errepresentazioari dagokionez:</p>

BOROBILA (jarraipena)		
HELBURUAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK
<p>*Ingurune fisikoari dagokionez, ipuinak edo elkarrizketak puntualki erreferentziatzen hartuz, behaketa suspertu eta behatutako inguruko elementuen ezaugarriak lantzea; horretaz gain interesgarri gerta daitezkeen inguruarekiko arau eta jarreretatik ohartaraztea.</p> <p>*Inguruko festa, tradizio eta ohiturak ezagutarazteko eta bertan parte hartzeko, hauek ospakizun-garaietan elkarrizketen barne sartzea.</p>	<p><u>Ahozko mintzaira</u> Ulermena: .- Esperientzia eta ipuinei buruzko deskribapen eta kontaketa ulertzea. .- Hizkuntzaz kanpoko seinaleak erabiltzea (entonazioa, keinuak...) jasotzen eta ematen diren mezuak interpretatu eta indartzeko. .- Kultur tradiziozko testu batzuk erabiltzea eta ulertzea (aho korapiloak, zozketa egiteko abestiak...) .- 2hko hitzen esanahi eta espresioak ulertzea.</p> <p>Mintzamina: .- Informazio, behar, emozio eta nahiei dagozkien ahozko mezuak besteentzat ulergarriak izateko moduan adieraztea. .- Mezua ematen den hizkuntzaren (1H edo 2H) hiztegia eta egitura morfosintaktikoan erabilpen egokia.</p> <p>Idazketa-irakurketa: .- Testu idatziekin batera doazen irudi, argazki, eta abarren manipulazio eta interpretazioa. .- Haurren eguneroko inguruari dagozkion testu idatzi oso esanguratsu batzuk antzematea. .- Forma idatziak, eta beste adierazpen grafikoak (marrazkiak) bereiztea.</p>	<p><u>Hizkuntza idatzia:</u> .- Modu konbentzional eta ez konbentzionalen ezagupena. .- Norberaren eta besteen izenen arteko bereizketa. .- Silaba batzuen ezagupena.</p> <p><u>Ahozko mintzaira:</u> .- Kultur tradizioaren ahozko testuak: abestiak, ipuinak, bertsoak... .- Testuinguru desberdinei dagozkien egoera komunikatibo desberdinak: deskripzioak, narrazioak, elkarrizketak...</p> <p><u>Matematikazko mintzaira:</u> .- Oinarriko kuantifikatzaileak: asko-gutxi, gehiago-gutxiago... .- Kopuruen kontaketa. .- Zifren ezagupen ordinala eta kardinala (gutxienez 9 arte) .- Zifra eta kopuruen arteko erlazioa. .- Buruzko kalkulua: aritmetikako lehen urratsak: . Buruketa sinpleak; buruketen papereratzea modu ez konbentzionalen. . Batuketa eta kenketak (10 arte) .- Denboraren antolaketa: goiz-arratsalde, atzo-gaur-bihar... .- Objektu eta bildumen propietate eta erlazioak: kolore, forma, tamaina, egitura...; Klasifikazio eta seriazioak.</p>

Prozeduren ikaskuntza

Eta honetan garrantzitsuagoa ikusten dute prozeduren ikaskuntza edukien ikaskuntza kontzeptuala hutsa baino; prozedura horien aplikaziotik ezaguera berriak sortuko direlarik.

Prozedura ikaskuntzek **era autonomoan** ikasteko gaitasuna eskuratzen laguntzen diete ikasleei.

Ikaskuntza jarduerak, etapa honetan honako sekuentzia hau jarraitu behar dute: *manipulazioa, berbalizazioa, irudikapena, bai sinbolikoa eta bai abstraktoa.*

Ikastolako lan antolakuntza (*espazio eta denbora*) honako hauek erraztuko dizkion moduan pentsatuta dago: Trebetasunak, behaketa, behaketa teknikak, identifikazioak, komunikazioa, zenbaketa, kalkulua, sinbolizazioa... prozesu eta metodoak landuko dira, eskaintzen zaion errealitatea aurkitu eta maneiatzeko tresna baliagarriak eskuratuko dizkietenak.

Jarrerren taula

AUTONOMIA	ERANTZUKIZUNA	JARRERA KRITIKOA
-----------	---------------	------------------

A

NORBERAREN ZAINITZA	OSASUNA	BEHAKETA ANALISIA
*Lehen beharrak: .- Jana eta maitasuna	*Ohiturak: .- Jana eta txukuntasuna	* Hartzailea * Komunikatzailea
* Babesa: .- Segurtasuna		
* Nongotasuna: .- Euskaldunak... ohiturak		

B

AUTOESTIMA	LANA	DUDA: OREKA/DESOREKA
* Afektibitatea	* Iniziatiba	* Zalantzan jarri
* Osasuna eta higieena: .- Norberarekiko errespetua	* Interesa/jakinmina	* Sortzailea
* Identitatea-Norberaren ezagutza	* Arreta	* Baikorra
* Norberarekiko onarpena	* Ordena	
* Konfiantza	* Aurkikuntza	
	* Hobekuntza	
	* Konstantzia	
	* Talde-lana	

C

AUTONOMIA	ERRESPETUA	ELKARRIZKETA
* Jardule	* Besteekiko tolerantzia	* Jarrera irekia
* Parte-hartzaile	* Naturarekiko: .- Ekologia	* Elkar ulermena
	* Solidarioa: .- Ulerkorra	
	* Aniztasuna: .- Arraza, sexu, sinismen...	

METODOLOGIA

PRINTZIO METODOLOGIKOAK

Konstruktibismoan oinarritzen dute euren metodologia eta **proiektuen** metodoa erabiltzen dute. Hauek izango liriteke irizpide nagusiak:

Ekintzaren garrantzia, garapena eta apendizaiaren prozesua aurrera eramateko.

Globalizazioa, umeak globaltasun batean jasotzen eta bizitzen baitu dena; honek ikaskuntza esanguratsua erraztu egingo duelarik.

Gaien eta ekintzen aukeraketa, ahal den neurrian umeak aukeratuak. Aldez aurretiko ezagutzak hartuko dituzte kontuan.

Aniztasunaren tratamendua. Ume bakoitzaren erritmoa eta garapena berdinak ez direnez, ez intelektualki eta ez afektiboki, bakoitzaren trataera eta jarraipen indibiduala ahalbidetu nahi dute.

Egiturak eraikitzen joanez lortuko du haurrak ikaskuntza eta adimenaren garapena, umea 'konfliktoan' jarriz, bere erritmo eta interesak errespetatuz, **dakienetik** abiatuz, zalantzak eta elkarrekintza egoerak sortuz, **bere erantzunak** lor ditzan.

Adimenaren lorpenak zerikusi handia du **autonomiaren** lorpenekin. Irakaslearen papera funtsezkoa izango da adimen garapenari dagokion garrantzia emanez, ume bakoitzari trataera egoki bat eskainiz.

Sozializazioaren garapena. Prozesu honetan garrantzi berezia duten hainbat gai:

. Haurraren etapa bakoitzeko berezitasunak: **atxikimendu irudi/ak**

. Eskolatzeko prozesua bera: **egokitzapen-aldia**

Elkarrekintza. Apendizaia eraikitzeko, behar beharrezkotzat jotzen dute pertsonen arteko eta pertsona-objektuen arteko erlazioa.

Printzipio hauek kontuan hartuz, **denbora eta espazioaren** antolaketa egoki bat sortuko dute, eta antolaketa zehatz hori behar den bezala aurrera eramateko, irakaslearen lan indibidualetik **elkarlan koordinatu** batera iritsi dira.

Metodologiari buruzko hainbat gogoeta (beraien hitzetan)

. **Ekintza** ikusten dugu dela **apendizaiaren prozesuaren iturri**. **Ekintza** ezin da **manipulazio hutsarekin nahastu**. Manipulazioak, ikaskuntza-prozesuaren abiapuntu izan behar du, ondoren etorriko da barneratzea (barne-errepresentazioa eginez) eta azkenik gauzen errepresentazio mentalera iritsiko da haurra.

Hala eta guztiz ere apendizaiaren prozesua ez da beti "lineala" izaten, hau da, ez da nahitaez manipulaziotik hasi eta pixkanaka errepresentazio mentalera iristen. Manipulaziotik pasa

gabe haurrak errealitatea ahoz edo grafikoki aztertzen dute, hau da, egoera barneratzeko ekintzatik pasatu beharrik izan gabe.

Hala ere, garbi dagoena da, dagokigun etapan kokatuz eta bertako haurren ezaugarriak ezagutuz, EKINTZAK berak hartzen duela pisu gehien apendizaiaren prozesuan eta, **gure lana errealitatea ekintza bidez ezagutu dezaten bidean jartzea dela**. Nola? Haurrak bere ekintza-egoeretan behatuz eta ondoren, prozesu horretan aurrera egin dezan bideak ugarituz, ekintza edo manipulazioa ahoz adieraz dezan ahalbideratuz behar den kasutan edota grafikoki adieraz dezan beste batzuetan.

. **Globalizazioa: Gatazka kognositiboa**

Globalizazioak esan nahi du, ezagupen sozialez jabetzeko egitura intelektualak martxan jartzea. Hau da, egoera berri baten aurrean, aurretik ikasitakoaz baliatzea, egoera horretatik atera ahal izateko edo egoera hori gainditu ahal izateko.

Globaltasuna apendizaiaren esanguratsuekin zeharo lotuta dago. Haurrak aurretik barneratuak dituen ezagupenak eta ezagupen berrien artean konexio/lotura esanguratsuak ezartzen ditu. Konexio horiek benetan esanguratsuak gerta daitezten, irakasleok haurra konfliktu edo gatazka kognitiboan jartzen saiatuko gara. Hau da, material, ekintza edo aipamen espezifikoaren bidez, haurraren estruktura mentala zalantzan jartzea.

Gatazka kognitiboa eman dadin irakaslearen paperak honako hau izan behar du: ikuspegi desberdinak entzuteko desioa, haurrak hartzen dituzten erabakiak onartzeko prest egotea, nahiz eta jakin erabaki hori desegokia dela, iritzirik desberdinak jasotzerakoan eta sailkapenak egiterakoan oker daudenak gaitzetsi gabe, haurraren momentuko gaitasunak ezagutzea, haurren aurkikuntza intelektualetan gogoz parte-hartzea, serio eta sailkapen desberdinen aurrean ez ohiko irizpideekiko interesa azaltzea, haurraren iradokizunak aurrera eramateko borondatea.

Globaltasuna Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikaslearen ezaugarri bat denez, hau da, haurrak errealitatea modu global batean jasotzen duenez, **eskolako denbora eta espazioaren antolaketa** egiterakoan kontutan hartu dugu. Irakasleak sortzen diren esperientzia guztiak modu globalizatu batean eskainiko dizkio haurrari. Bertan, ezagutze edo garapenerako arlo edo diziplina desberdinei dagozkien ezaguera eta teknika diferenteak elkartzen direlarik.

Honek suposatzen du haurrak bere errekurtsu pertsonal guztiak praktikan jartzeko aukera izango duela.

Globaltasun egoki bat lortzeko apendizaiaren egoerari eman behar zaio garrantzia. Apendizaiaren egoera hauek haurraren ingurunearekiko interesetik sortzen dira. Egoera hauek irakasleak proposatuak edo probokatuak edo ikasleek aurkeztutakoak izan daitezke.

Irakaskuntzaren globalizazioak **taldean** lana egitera bultzatzen gaitu eta beharrezkoa da, talde osoak proposatzen dituen helburuak, landuko diren edukiak, emango diren pausoak eta

kontuan hartuko diren irizpideak ezagutzea, lortutako aprendizaiak nahikoa den ala ez kontsideratzeko.

. **Aniztasunaren tratamendua.** Heterogeneotasunaren tratamendu integratzaile batek suposatzen du:

- Alde batetik, aniztasuna onartzea eta bultzatzea, aberastasun kolektiboa suposatzen duen heinean.
- Bestalde, ikasleen egoera pertsonal, erreferentzia sozio-kultural, prozesuen aniztasun eta aprendizaiaren erritmo aniztasunetik abiatuz, garapenerako aldea onartu, emaitzen desberdintasunak asimituz eta behar denean konpentsatuz.
- Ikastolan, haurrak espaziotan ibiltzen direnean, material desberdina erabiltzeko aukera dute eta material berdina izanda ere, modu desberdin batean erabiltzen dute garapeneraren arabera.

Espaziotan aniztasuna ematen denez, haurren arteko elkarrekintza bultzatzen da.

Lehen Hezkuntzako lehen zikloan, teknika instrumentaletan, garapeneraren arabera talde homogeenak egiten dira, haur bakoitzaren erritmoa errespetatuz.

Hau horrela izan arren, eguneroko bizitzan ematen diren beste momentu guztietan, talde heterogeneotan lan egiten da, aniztasuna errespetatuz eta elkarrekintza bultzatuz. Honela, haurren garapen orokorra orekatuagoa delarik.

Curriculumaren planteamendu orokorraren aukerak agortu direnean, eta haur baten hezkuntzak behar bereziak eskatzen duenean, egokitzapen kurrikular indibidualizatuak gomendagarriak dira.

Hezkuntza behar berezi guzti hauek, beti ere, erlatibo, tenporalak eta testuinguru jakin bati lotuak ulertu beharko dira, eta ez, haurren berezko ezaugarri tinko bat bezala.

. **Sozializazioaren garapena**

Haurra, sozializazio prozesuaren bidean jartzen dugu ikastolan hasterakoan. Bi urterekin ikastolatzen ditugu haurrak. Momentu hau gatazkatsua edo zaila izaten da eta honen zergatia jakin nahi badugu, haurra adin honetan zein garapen unetan aurkitzen den jakin beharko dugu, hau da, haien berezitasunak zeintzuk diren.

Berezitasunak ezagutu ondoren, profesional bezala, bide hori erraztea izango dugu helburu.

BI URTEKO HAURRA

Orain arte izan dituen harreman motak haustura izango dute: Atxikimendu irudia/k hor ditu baina jadanik oinez ikasi du, hitz egiten hasten da, zenbait kasutan anai-arreba txikiren bat bidean du, eskolatze garaia iritsi zaio... Haurra hazi egin da.

Hitz egiteak eta oinez jakiteak askatasun handia ematen dio, helduaren exijentzia ere handitzen doa berarekiko eta ezinegon asko sortzen dizkio egoera honek. Ezinegon hauek hiru motatan bereiz ditzakegu:

a) Atxikimendu irudia lortu nahiak sortzen dion lehia afektiboa

Lehia hau gurasoekiko edota anaia arrebekikoa izan daiteke. Normalki lehentasun afektiboa atxikimendu-irudi indartsuarengan agertuko du, ama edo aitarengan.

Bigarren kasuan apego-irudia konpartitzearen arazoa dugu aurrean. Gatazka honek lehia afektiboak atxikimendu irudia kenduko ez diola jabetzen denean galtzen du pixkanaka bere indarra.

b) Adiskideen arteko lehia

Haurra oraindik egozentrismo garaian aurkitzen da eta oraindik ez ditu "arau-sozialak" barneratuta, ez du bere buruarekiko kontrolik, ez du jolasteko araurik...

Honek guztiak bere kideekiko etengabeko lehian jartzen du haurra.

c) Haurra-helduaren arteko lehia

Adin honetan heldua, haurrari mugak jartzen dizkion irudia da haurrarentzat eta honek berak sorraraziko dizkio gatazkak.

1.- Atxikimendu-Irudia/k

Apegoa edo atxikimendua deitzen diogu haurrak zenbait pertsonetikiko sortzen duen lotura afektiboari.

Lotura honek bultzatzen du haurra apegoa duen pertsonarengan gertutasuna eta kontaktua aurkitzera, lortzera edo mantentzera, segurtasuna ematen baitio honek.

Gertutasun hau ez lortzeak edo mantendu nahiak, erantzun batzuk sortzen ditu haurraren; erantzun hauei **apego portaerak** deitzen diegu.

Apego portaera hauek ez dira berdinak izaten haur guztietan, bakoitzaren egoerak edo "historiak" ere ez baitira berdinak izaten baina, normalki agertzen direnak.: IRRIPARRAK, NEGARRAK, ZENBAIT HOTS EDO KEINU, UKITUAK, ATXIKIMENDU IRUDIAREN JARRAIPEN BISUALA EDOA ENTZUNEZKOA...

Badira ere haurrarentzat mehatxagarri diren egoeratan agertzen diren beste hainbat portaera: GAIXOTASUNAK, ERORKETAK, BOTAKALARRIAK, etab., etab.

Zeintzuk dira apegoaren funtzioak?

a) Atxikimenduaren oinarritzko funtzioa haurrari **segurtasuna** eskaintzea da.

Segurtasun hau behar beharrezkoa du haurrak ingurua behatzen, aztertzen eta arakatzeko hasteko eta hura lortu arte ez da hau lortzeko estimulatua sentituko.

Behar beharrezkoa du beraz haurrak segurtasun hau sentitu, giro lasaian ingurua ezagutzen hasteko, beste pertsonekin harreman lasai eta egokia lortzeko eta bere beldurrak gainditzeko.

Haurra leku ezezagun batean aurkitzen denean eta apego irudiekin kontaktua galtzen duenean, ingurua aztertzeari uko egiten dio eta apego portaerak martxan jartzen ditu: antsietatez apego irudia aurkitu nahia, garrasiak, negarrak...

b) Apegoaren oinarritzko funtzioa aurrekoa izanik ere, bada beste zenbait funtzio:

.- Haurrak bere garapen orekatua lortzeko behar duen estimulazioa eskaini.

.- Osasun fisiko eta psikikoa erraztu.

.- Sozializazio-garapenaren bidea erraztu.

- Apegoaren bilakaera

Lehenik esan behar da apegoa prozesu baten ondorioa dela, ondorio baikorra, noski.

Haurrak apego irudia/k sortzeko lotura afektibo egoki bat eman behar izan du, jaioz geroztik edo lehenagotik ere. Beraz, haurrarentzat nolabaiteko "pribilegio" bat dela esan dezakegu eta zenbat eta apego irudi gehiago izan, orduan eta hobeto.

Honako hau litzateke ematen den bilakaera:

3 hilabete: Espezie bereko kideenganako preferentzia, bereizketarik egin gabe.

4-5 hilabete: Apegoko pertsonenganako interakzio pribilegiatua, ezezagunak atzera bota gabe.

8-12 hilabete, 18 hilabete baino lehen: Apegoko pertsonenganako interakzio pribilegiatua, ezezagunak onartu gabe.

Urte 1etik aurrera: Lotura afektiboa lortu eta gero, apegoko pertsonengandik independentzia lortzen joango da.

2.- Ikastolatze-prozesua bera: egokitzapen-aldia

Nola egin nahi dugu adaptazio-separazio garaia?

Bi urtetako haurren berezitasunak eta apego irudiaren garrantzia ikusi ondoren, **ikastolatze aldiak** berak duen garrantziaz ohartuta, ezinbestekoa ikusten dugu bi urtekoen umeen sarrerako egokitzapen-aldi egoki bat eskaintzea. Horretarako, esperientziak haurrarentzat atsegina izan behar duen ustetik abiatzen gara.

Gure adaptazioari buruzko helburuak:

- Haur bakoitzaren erritmo eta berezitasunak kontuan hartzea.
- Haurraren interes eta beharretatik abiatzea, lehenengo momentutik entzunda sentitu dadin. Hasiera hasieratik ez badugu hau lantzen, aurrerago zaila izango baita haurra entzunda sentitzea.
- Sozializazio egoki bat lortzeko apego irudiak duen garrantzia ikusirik, apego irudi horiei duten garrantzia eskaintzea, beraz, ikastolatze garaian leku eta paper berezia eskaintzea.
- Adaptazio egoki bat eskainiz, 2 urtekoen gelan normalki ematen diren konfliktoak denon onerako (haur-guraso-irakasle) leuntzea.

Haur Hezkuntza osorako lortu nahi ditugun helburuak:

- Haurrak helduarekiko autonomoak izatea, autonomia bere osotasunean ulertuz.
- Haurrak beraien artean harreman egokia lortzea eta konfliktoak bideratzeko gai izatea.
- Iniziatiba hartzeko gaitasuna suspertzea.
- Haurrak bere buruarekiko konfiantza lortzea.
- Bere iritziak konfiantzaz emateko gai izatea.
- Beldur eta antsietateari aurre egiteko gai izatea.

Apego-pertsonen ikastolatze garaian duten garrantzia

Apegoko pertsonak babesa eta ziurtasuna ematen dio haurrari.

Pertsona munduari zabaltzeko oinarria izango da.

Zein da apego-pertsonen jokatzeko duten papera?

Apegoko pertsona egonda	Apegoko pertsona ez egonda
Aldentzeko gogoa azalduko du. Iniziatiba hartuko du.	Atxikimendu portaerak piztuko dira: .- Momentu zaila eta atsekabea. .- Leku eta pertsona ezezagunak. .- Gaixotasunak...
Errealitatearen esplorazioari ekingo dio, atxikimendu pertsonaz baliatuz.	Errealitatea esploratzeko portaerak gutxitu egingo dira.
Ezezagunekin interakzio positiboa.	Ezezaguna, kalte egingo dion pertsona bat

EGOKITZAPEN-ALDIRAKO PROPOSAMEN ZEHATZA

1. Haurrak taldekatu egingo ditugu: 2 talde- 4 umetakoak (gutxi gorabehera)
2. Ordu-tegiak: ordubeteko 2 txanda. Adibidez:
9:30 - 10:30
11:00 - 12:00
3. Haurrak ordubete osoa apego-pertsona berarekin egongo dira (ama, aita, amona, zaintzailea...)

4. Haurrak prest dauden heinean ordutegia luzatzen joango gara (haur bakoitzak bere erritmoa).
5. Espazioa: Egokitzapen-aldian gela bera.
6. Materiala: Ahalik eta ugarien eta erakargarrien.

Gurasoen papera:

- 1.- Umeari prozesua nolakoa izango den aldeaz aurretik azaldu.
- 2.- Lasai egotea.
- 3.- Aurreneko hiru egunetan gela barruan egotea, leku finko batean eserita. Ondorengo egunetan, gurasoentzako egokitu dugun espazio zehatzean, gelatik kanpo (hallean, gelatik gertu).
- 4.- Umea ez behartu espaziora joatea, bere inizatiba izan dadila.
- 5.- Umea jolasean hasi ondoren, helduarengana jotzen badu, ONARTU (umea entzun, kontsolatu... baina, berarekin jolasean hasi gabe).
- 6.- Umeen arteko AGRESIOen aurrean, LASAITASUNA erakutsi, adin honetan normala da eta.
- 7.- Banaketa prozesua pixkanaka egingo da: Haurra prest dagoela ikusten dugunean, gurasoei egun bat lehenago jakinaraziko dizuegu, eta zuek umeari esango diozue: Banaketa, hasierako egunetan laburra izango da, 10 minutukoa, ondorengo egunetan progresiboki luzatzen joango delarik.
- 8.- Banatzerakoan AGURRAK ez luzatu.

Prozesu honetan zuen zalantzak argitzeko AHOLKULARI bat zuekin egongo da.

BI URTE DITUT ETA HORRELAKOA NAIZ

ONDOKOAK EGIN DITZAKET:

- . Nire buruarengan pentsatu
- . Nire premiak adierazi
- . Imitatu
- . Bakarrik jolastu
- . Laguntzarik gabe jan
- . Korrika egin, salto egin
- . Eskailerak igo eta jaitsi
- . Jostailu bategatik borrokatu
- . Komunikatu
- . Azturak hartu
- . Objektuak aztertu

ONDOKOAK EZIN DITUT EGIN:

- . Afekturik gabe hazi
- . Besteengan pentsatu
- . Egoera berrietara berehala moldatu
- . Denbora luzean arreta eutsi
- . Denbora luzean geldirik egon

ONDOKOA EZIN DUT EGIN BAINA IKAS DEZAKET

- . Nire gurasoengandik banandu eta beste pertsona helduekiko lotura afektiboak sortu
- . Beste batzuekin eta beste batzuen ondoan jolastu
- . Jostailuak besteekin konpartitu
- . Nire erritmo biologikoak egokitu
- . Autonomia bereganatu
- . Denbora batez eserita egon
- . Arreta eutsi
- . Aukeratu
- . Modu askotan komunikatu
- . Pixkanaka hitz egiten ikasi
- . Esfinterrak kontrolatu

- . **Autonomia.** Helburu garrantzitsuenetako bat ikusten dute haurrak autonomian hezte.

Nola ulertzen dugu guk autonomia?

Etapa honetako haurren ezaugarri bat heteronomia da, hau da, helduaren beharra segurtasuna sentitzeko, atxikimendu irudia baita oraindik heldua beretzat. Guk, haurrak ziurtasun giro batean hezi nahi ditugu, bere gisa pentsatu eta bere buruarekiko konfiantza eta ziurtasuna lor dezaten.

Ulertzen dugu haurrak ezagutzak, behaketa eta ekintzen bidez egiten dituen erlazioak sortuz eta koordinatuz lortzen dituela eta horrela egiturak eraikiz bere adimena garatzen doala. Gai da beraz, guk egoera aproposa eskaintzen badiogu (materialekin eta elkarrekintzak bultzatuz) bere gisa adimena egituratzen joateko. Adimena deitzen diogun hau, haurraren NORTASUNA da azken finean autonomoki garatzen doana. Honekin esan nahi dugu, haurrak bere gisa ezagutzak

lortzen doan bezalaxe, bere jokaera ere elkarrizketa bidez eta egoerak ulertuz erregulatzen joango dela, besteen menpekotasunik gabe, norberaren inizatibaz, norbere buruaren jabe izanez jokatzeko ikasiz.

Nola lortuko dugu aipatu dugun autonomia hori bultzatzeko egoera aproposa?

- Alde batetik, haurra bere ezagutzak lortzen joan dadin behaketa eta ekintza desberdinak egiteko aukera eskainiz, espazio desberdinak antolatuz.
- Bestalde, bere erlazioak modu aberatsean egin ditzan haurren arteko INTERAKZIOA bultzatuz, horretarako adin desberdinetako haurrak elkarlanean jardun dezaten aukera eskainiz.
- Azkenik, irakaslearen papera ondo bideratuz:
 - Erantzun zuzenak eman beharrez, haurrak bere erantzunak lor ditzan bultzatuz.
 - Erabakiak euren gisa har ditzaten suspertuz.

. **Aprendizaia eta talde elkarrekintza.** Jakina da, taldearen garrantzia eta interakzio sozialak apendizaiari jokatzeko duen garrantzia.

Taldeak berezko nortasuna behar du izan eta parte hartzeko, konpartitzeko eta apendizaiari eraikitzeko erreferentzia puntua izan behar du.

Pertsonen bakarriz ikasten ez dutenez, baizik eta beste pertsonekin interakzioan, garrantzi berezia dute gela ematen diren komunikaziozko erlazioak, taldekideen artean, taldekide eta irakaslearen artean eta taldekide eta objektuaren artean.

Elkarrekintza eman dadin, irakasleak, **borobila** oinarritzat hartuz, bertan taldekide bakoitzak bere lekua izan dezan saiatu behar dugu.

Horretarako orientatzaile, gida, taldeak berak ezarritako arauen defendatzaile, apendizaiari proposamenen antolatzaile... papera asumitu beharko du irakasleak.

Honetan oinarrituz, gure eguneroko lanean garrantzi handia ematen diogu borobilari.

Borobilean eta gelako talde lanetan ematen den elkarrekintza adin berekoen artekoa da; zirkulazio librea berriz, adin desberdinen arteko elkarrekintza bultzatzen da.

ESPAZIO ETA DENBORAREN ANTOLAKETA

ESPAZIOAK

Gure espazioaren antolaketa aipatutako printzipio metodologikoei erantzuna emanez egiten saiatu gara, ohizko umeen nahi eta beharrei erantzunez eta globaltasuna eskainiz, ekintza oinarritzat hartuz apendizaiaren eraikuntza lor dezaten.

Oinarrizko lau espazio antolatuko ditugu, gela bakoitza 4 espazio desberdinetan bihurtuko delarik:

- PLASTIKA GELA
- ERAIKETA GELA
- MAHAI JOLASEN GELA
- IPUITEGIA

Gaien trataerarako geletan espazio berezi bat izango dugu. Hemen, aukeratutako gaiaren prestakuntzak egingo ditugu, zenbaitetan espaziotara zabalduz.

Adin desberdinetako haurrak elkartzen dira espazio horietan, ekintzetan haur bakoitzaren erritmoa eta garapena errespetatuz, hau da, aniztasuna errespetatuz, horrela, lortu nahi dugun interakzioa bultzatuz.

Alde batetik, 3 eta 4 urtekoak nahasten dira eta bestetik 5, 6 eta 7 urtekoak.

Plastika gela

Helburuak: Plastika adierazpena eta sormena garatzea

Material ezberdinak ezagutzea eta manipulatzeko

Gela hau lan-ekintza desberdinetan banatuko dugu: marrazkigintza, modelaketa, tenperatura-kuarela txokoa, eta kolaketa edo "hondakin" txokoa.

Lanean hasi aurretik, **zer egin nahi duten pentsatuta izan behar dute** (hondakinekin proiektua egin).

Proiektuan aipatzen duten materiala lortzen, irakasleak lagunduko die.

Guk lagunduko diegu proiektua hobetzen eta osatzen.

Teknika berriak irakatsiko dira.

Marrazkia, handia denean, perfilatzea eskatuko zaie.

Marrazkiaren gaiaren arabera, papera horizontalki edo bertikalki jartzearen komenigarritasunez hitz egin haurrekin. Egindakoan, berriro ere hausnar arazi.

Eraiketa gela

Helburua: Ezagupen fisikoaren bidez, espazioaren egituraketa eta antolaketa garatzea.

Egurren txokoa, eraiketa txikien txokoa, neurri eta irudi geometrikoen txokoa.

Prozesua: Manipulatu, berbalizatu eta errepresentatu.

Prozesu hau adinaren arabera egingo da. Errepresentaziora 4-5 urterekin iritsiko dira.

Eraiketa bat egiten hasi aurretik, irakasleari proiektua ahoz edota marrazkiaren bidez (adinaren arabera) azaldu beharko diote (egurrekin, Legoarekin eta kaplarekin). Bost urteko haurrek ahoz adieraziko dituzte eraiketa guztiak egin aurretik.

Lehen Hezkuntzako, lehen zikloko, 1. eta 2. ikasturteko haurrak, egurrak eta kapla marraztuz eta Lego ahoz adieraziko dute.

Eraiketa egin ondoren, egindakoa paperera pasa beharko dute eta irakasleak eskatu beharko die bertan egindakoa ahoz adieraztea, errealtatearen eta marrazkiaren arteko alderaketak egingo dira (egur kopurua, forma eta proportzioak) baita aurretik egindako proiektua kontuan zenbateraino hartu den.

Eraiketa taldean egin denean, marrazkien perspektibak kontuan hartuko ditugu, eta konparazioak eginez aztertuko dira.

Denbora gutxi dutenean gorde daitezken eraiketak egitera bultzatuko ditugu, hurrengo egunean jarraitu ahal izan dezaten.

Ez ukitu, ez txartelik puskatu (eraiketa gorde nahi denean), norberak idatzi egin beharko du, ez da onartuko besteek egindakoa erabiltzea.

Eraiketa bukatu eta berbalizatu ondoren, egindakoaren arabera material osagarria eskuratuko zaie (animaliak, kotxeak, kanikak...)

Eraiketak errepikakorrek egiten direnean, irakaslea konplikatzen saiatuko da (zubia luzatu, dorre altuagoa jarri...)

Errealitateak hartutako irudiak emango zaizkie eredu bezala izan ditzaten, honek bultzatuko baitie eraiketa ezberdinak egitera.

Haur edo talde baten eraiketak atentzia deitzen digunean, argazkia aterako diogu ahal bada, edota irudikatutakoa gorde egingo dugu. Handik denbora batera (hilabete gutxi gorabehera) argazkia edo papera emango diegu, ea berriro berdina egiten duen edo hobetzen duen ikusteko.

Mahai-jolasak

Helburua: Aritmetika eta logika matematikaren garapena estimulatzea.

Puzzleen txokoa, mahai-jolasen txokoa eta joko matematikoen txokoa.

Irakasleak, jolasean parte hartzen du, haurrek, jolasteko modu konbentzionala ikus dezaten.

Jolasean hasi aurretik, partaideen artean arauak adostu.

Jolasean dabiltean bitartean eztabaidak sortzen badira, irakasleak, adostutako arauak gogoratu araziko dizkie.

Irakasleak kontuan eduki beharko du haurren heldutasuna, materiala banatzerakoan nahiz materialaren erabileran.

Ipuindegia

Helburua: Irakurketa-idazketarako estimulazioa eta motibazioa garatzea.

Ipuinen txokoa, hizkuntz jolasen txokoa.

Idazketa eta irakurketa ez konbentzionala onartuko da, baina exijentzi maila haurren garapenera egokituko dugu.

Ipuinak egiterakoan, testuak eta marrazkiaren arteko erlazioa bultzatuko dugu.

Haurrak bere testua ekoiztuko du eta gero galdetuko diogu, ea gure moduan idazten uzten digun ala ez. Ulergarria baldin bada, nahiz eta ez egon erabat idazkera konbentzionaletan, ez dugu transkribatuko, horrela haurra motibatuz joango da.

Bai testuan, bai marrazkietan, lana txukun egotea, kalitatez bukatua egotea exijituko dugu, beti ere, haurren garapenera egokitzuz: marginak, errenkak hasi eta bukatu, letraren tamaina, borragoma erabiltzea...

Guk lagunduko diogu haurrari ekoizpena osatzen eta hobetzen, ariketa hau taldean ere egin daiteke.

Gela guztietan ipuin bat kontatu, eta gero ipuina binetetan eman eta beraiek idatzi beharko dute. Deskribapenik ez da onartuko, ipuina kontatu egin beharko dute. Gogora araziko diegu nahiz eta lau biñeta besterik ez egon, ipuin osoa kontatu behar dutela, honetarako bertsio desberdinak erakusten saiatuko gara.

Ipuin bat eman, bukatu gabekoa, eta beraiek bukaera asmatuko dute. Gauza bera ipuinen hasierekin.

Testua eman eta beraiek biñetak marraztuko dituzte (era konbentzionaletan irakurtzeko gai direnak, ez dakitenei lagunduko diete testua irakurtzen).

Lehen Hezkuntzako lehen zikloko haurrei (1. eta 2. ikasturtekoak) aipatutako espazio huez gain, adinari dagokion berezitasunei erantzunez, bi espazio berezi eskainiko dizkiegu, matematika eta irakurketa-idazketa modu instrumentaletan lantzeko espazioak.

DENBORA

Denbora honela antolatzen dugu:

Talde bakoitza bere irakaslearekin elkartuko da gelan eta borobila egingo dute elkarrizketa bat bultzatuz, hemen haur bakoitzaren nahiak, proposamenak... kontatzeko aukera ematen zaie.

Une hauek irakasleak aprobetxatzen ditu zenbait eduki lantzeko.

Saioa bukatu ondoren, **haur bakoitzak berak erabakitako espazioan lan egiteko aukera izango du**. Irakaslearen lana haurrari erabakitzen laguntzea eta haurren garapen integrala ziurtatzea izango da.

Zirkulazio librea bukatu ondoren elkartze saioa egiten dugu eta horren ondoren jolas garaia.

Atsedendia bukatu ondoren beste elkartze saio bat dago.

Arratsaldean, goizean bezalako espazio antolaketa mantentzen da.

Lehen aipatu dugun bezala, Lehen Hezkuntzako haurren berezitasunei erantzuteko, denboraren antolaketa ere ezberdina da: Jolas espontaneoak gutxitzen eta lan instrumentalera denbora gehiago eskainiz.

Espazioetatik kanpo gelditzen diren arloak:

Musika (5 urterekin hasi eta astean ordubetez), ingelesa (4 urterekin hasi eta astean 2 ordu eta erdi), psikomotritzitatea (2 urterekin hasi eta 2 orduko saioak astero)

IRAKASLEAREN PAPERA

Irakaslearen helburu nagusia, haurraren pentsamenduaren eraikitze prozesua suspertzea eta bultzatzea izango da.

Horretarako:

. Autonomia eta Pentsamendua estimulatuko duen giro eta material egokia lortzen saiatuko da.
. Haurrak, beraien erabakiak har ditzaten animatuko ditu. Konflikto egoeretan ematen diren negoziazioak oso aproposak gertatzen dira pentsamenduaren koherentzia garatzeko.

. Irakasleak, haurrek aurretik duten ezagupena kontuan izango du. Ideia berriak errealitatearekin elkar jokatzuz eraikitzen baitituzte eta jasotako informazioa aurretiko ezagupenekin harremanetan jarriz.

. Irakaslea, haurra ulertzen saiatu (nola pentsatzen duen, bere interesak zeintzuk diren, ze estrategiak erabiltzen dituen...e.a.) bere prozesua ezagutu eta errespetatuko du eta aurrera pausoak emateko bidean jarriko du.

. Ulertze prozesu honetan, gure dedukzioa egokia izateko, behaketa landuak egingo ditugu (ateratako dedukzioak behin eta berriro ziurtatuko ditugu). Dedukzio honen ondorioz, haurra zein une ebolutiboan aurkitzen den jakingo dugu.

. Irakasleok, obserbaziotik jasotzen ditugun datuak, taldean eztabaidatu eta hipotesiak botatzea aberasgarri eta oso garrantzitsutzat jotzen dugu dedukzio errealerara iristeko.

GURASOEKIKO HARREMANAK

Garrantzi handia ematen diote gurasoekiko harremanei eta egokitzapen-aldiaren prozesuaren aurretik hasten dira bilerak egiten eta gurasoen presentziaren beharra ezinbestekotzat hartzen dutenez, prozesuaren pausoak eta zergatiak gurasoei adierazten.

Ekainean hasten dituzte bilerak gurasoekin haurraren eskolatze prozesua ahalik eta hoberen egiteko helburuarekin. Gurasoak prestatzen dituzte gero beraiek umea ikastolara etorri aurretik eman behar dituzten pausoak eman ditzaten, garrantzizkoa baita umeari azaltzea gauzak nola egingo diren.

Benetan kontuan hartzen dute 'separazioa' denentzako dela gogorra, bai umearentzat bai gurasoentzat, horrexegatik, apego edo atxikimendu irudiak zer diren, nola ematen diren, nola joaten den pixkanaka umea beste atxikimendu irudiekin konfiantza eta ziurtasuna hartzen, guraso edo umearekin eskolara etorriko den pertsonaren presentzia eta eginkizuna aztertzen dute eta seme-alaben eskolatze positibo baterako aipatutako elementu guztiek duten garrantzia lantzen dute.

Ikastolarako hurbiltze prozesua **ekainean** hasten da, irailean ikastolan hasiko den haurra gonbidatzen baitute gelara. Elkarrizketa eta bilerak irailean jarraitzen dituzte, zalantzei eta beldurrei erantzunez, 'detale' bakoitza zehaztuz.

Haur Hezkuntzako umeen gurasoekin etengabeko harremana daukate, eguneroko elkarrizketa eta informazio trukaketa presentziala, telefonoz edozein ohar edo galderei erantzunez eta, komunikazio "informal" horietatik aparte, ikasturte guztian zehar egiten dituzte bilera eta elkarrizketa indibidualak eta taldekoak.

Ondoren azaltzen dugu ekainean haurren gurasoei egiten zaien inkesta baten adibidea:

Martutenen, 2000ko ekaina

2 URTEKO GURASOENTZAKO INKESTA

Haurraren izen abizenak.....

Zehaztu zein hilabetetan ikastolatu nahiko zenuketuen seme edo alaba.....

45 minutuko bi txanda egingo dira lehenengo egunetan. Aukera ezazue gurutze baten bidez egokien datorkizuen:

1. Txanda
2. Txanda

Jangela zerbitzua erabiltzeko asmorik baduzue.....

Umea arratsaldean ikastolatzeko asmorik baduzue.....

Zuen seme/alabarekin beste lagunen batek ikastolaratu behar badu, bere izena jar ezazue:

.....
.....
.....

Besterik gabe, har ezazue gure agurra eta Iraila arte!

Bi urteko haurren gurasoekin egiten duten bilera baten laburpena azaltzen dugu ondoren:

Bilera honetan 2 urteko haurren ezaugarriei buruz hitz egingo dugu

Jolasa

- . Materiala esploratzeko beharra
- . “**Denbora bereziaren**” garrantzia (jolasean dabilen bitartean **berarekin egotea**, ez bakarrik bere ondoan egotea)
- . Umea bata bestearen ondoan ibiltzen da jolasean

Atzerapausoak

- . Defentsa mekanismoa, batez ere jateko eta lo egiteko garaian agertzen dira (ziurtasun falta, zeloak, abandonatua sentitzeak... izan daitezke arrazoia)
- . **Hitzak jarri** egoera guzti hauen aurrean

Kasketak

- . Ez berarekin tira-biran hasi, lasaitu arte itxaron eta berarekin hitz egin
- . Garrantzizkoa ama-aitaren arteko adostasuna

Zigorak eta debekuak:

- . Ez dira onak ume ziur bat eduki nahi badugu baina **muga argiak** jartzea beharrezkoa da

Errespetua

- . Elkarrenganako errespetua. Guk umeari ere adierazi behar diogu errespetua. Medikuairengana eraman behar badugu adibidez, **aldez aurretik esan**, zer egin behar dion ere, **aldaketak** denboraz jakinarazi. Abisatu gabe **desagertzen** bagara, mesfidantza sortzen diogu.

Plazerra- Errealitatearen printzipioa

- . Lagundu egin behar diogu plazerraren printzipiotik errealitatearen printzipiora egin behar duen bide horretan. Berehalako “beharrak” asetsetik (jostailu bat, arreta...) itxaroten ikastea (entzuten ikastea,...)
- . Berehalako sari bat geroagorako ordezkatzeko gaitasuna

Hitzak-Sentimenduak

- . Ahoz adierazi
 - . Sentimenduei **hitzak jartzen lagundu**, beraiek ez dakite hori egiten
 - . Ez erabili benetakoak ez diren ereduak: “Ume handiak ez dute negarrik egiten”, “zein indartsua zaren”.
- Helduok ere beldurrak ditugu...

Aitaren papera

- . Pixkanaka bere tokia hartzen joan behar du eta amak onartzen jakin behar du

Agresibitatea

- . Ez da erreprimitu behar, kanalizatu baizik (koska egiten badu, koska egin ahal izateko tresnak eskaini)

Sexualitatea

- . Bere gorputza ezagutzea gustatzen zaio, baita besteena ere, jolasen bidez (“medikuen” jokoak hasiko dira)

Esfinterren kontrola eta txupetea

- . Heldutasun afektiboari lotua dago eta lasaitasun handiz hartu behar da
- . Txupetea, pixkanaka, lotarako edo kontsolatzeko beharko du (gaizki ikusten dugunean eskaini eta behar ez duenean eskatu)

Hizkuntza

- . Aurrerapen handiak adin honetan. Komunikatzeko beharra sentitu behar dute
- . Ez hitz egin 3. pertsonan eta txikigarriak erabiliz
- . Asko hitz egin eta ipuinak kontatu

Oharrak

- . Egunaren antolaketa eta ordutegia.
- . Gelako espazio desberdinetan egiten ditugun ekintzak: puzzleak, gometxak, ipuinak...
- . Beste espazioetan egiten ditugun ekintzak: diapositibak, bideo saioak
- . Astearen banaketa. Astearte eta ostegunetan "koltxoneta" gela (oinetako eta arropa erosoak)
- . Karpetak. Garrantzia eman eta denbora eskaini
- . Inauteriak eta beste festen antolaketa
- . Irteerak: egun pasa, txiki -parkera...
- . Hurrengo bilera

GELA ETA GAINONTZEKO ESPAZIOAK

Gela eta gainontzeko **espazioen diseinua, erabilpena, materialen eta denboraren antolaketa, egokitzapen-aldia, autonomia eta elkarrekintzaren** garapenarekin zerikusia daukaten jarduera eta egoerak, saio bakoitzean zehar jasotzen joan gara.

Lehenengo hartu-emanak ikastetxearekin 2000ko urtarrilean egin genituen: **Felizi Etxeberria** zuzendariarekin, **Malen Alvarez-Elizegi eta Miren Santamaria** koordinatzaileekin eta, 3 urtekoen gelako **Belen Otaño** andereñoarekin.

Ondoren azalduko ditugu Arantzazuko Ama Ikastolan 1999/2000 ikasturtean egindako lehenengo bi egunetako behaketa-saioetako helburu eta deskribapenak eta lehenengo elkarriketa, hauek izan baitziren doktore-tesi honetako abiapuntu edo aurrekariak eta, beraz, lanari jarraibidea eman diotenak.

BEHAKETA SAIOA

2000-II-24

GELETAKO ESPAZIOAREN ALDERDI FISIKOEN BEHAKETA: ESPAZIOAK, TALDEKATZEAK, IREKITZE PROZESUA

Helburuak:

- 1.- Hiru, lau, bost urteko haurrak erabiltzen dituzten espazioen alderdi fisikoak aztertzea.
- 2.- Geletako espazio garrantzitsuenak deskribatzea.
- 3.- Hiru urteko umeen gelako plano bat egitea.
- 4.- Espazio bakoitzaren irekitze prozesua ezagutzea.

DESKRIBAPENA


8:40 Miren koordinatzaileak ematen dit ongi etorria eta gelak erakusten dizkit.

Argitasun aldetik eraikina oso argitsua da, gela bakoitzeko 2 alderdietan leiho handi xamarrak ditu, **berogailu-erradiadoreak** daude eta eraikuntza aldetik egitura xumea, sinplea da (Eskola Publikoetako Haur Hezkuntzako ohiko eraikina da). Bi solairu ditu, aurten, behekoan 2 urteko haurrak daude, komunak, bulego bat, jangela eta jostailuak gordetzeko gela bat eta bigarren solairuan daude 3, 4, 5, 6 eta 7 urtekoen gelak, komunak, materiala gordetzeko gela txiki bat, eta fotokopiagailua dagoen gela. Dena argitsua eta alaia ikusten da.

9:00 Umeak iristen hasi dira. Anak ematen die ongi etorria (gaur Belen andereñoa Antzuolako eskolan dagoelako) eta borobilean esertzen dira.

Arduraduna zein den gogorarazten die eta horman, bakoitzaren izenaren eta argazkiaren aldamenean jartzen dute eguneko arduradunaren seinalea.

Asistentzia kontrolatuz, hitz egiteko aprobetxatzen dute. "...etorri da, bai etorri da, ez da etorri" eta **etxearen** irudia daukan lamina plastifikatu batean jartzen dute itsatsita zenbat etorri diren eta etorri ez direnak, zenbatu ondoren..



Atzo zer ekarri zenuten? Atzo jostailuen eguna zen. Arbelean astearen egunez osatutako lamina plastifikatu handi bat daukate eta han seinalatuta dauzkate egun bakoitzaren erreferentziak.

Astelehena



Asteartea



Asteazkena



Osteguna



Ostirala



Eguraldia: “Lainotuta dago” esaten du arduradunak eta txarteltxoak ipintzen du.

Elkarrizketan jarraitzen dute **euskara** lantzen. Nola etorri zara, bizikletan, kotxean, ...?

Norekin etorri zara, amaxorekin, amonarekin,?

9:30 Geletako ateak irekitzen dituzte

Une honetatik aurrera ume bakoitzak aukeratzen duen espaziora joango da “**zirkulazio librea**” deitzen dioten sistema erabiliz.

ESPAZIOAK, TALDEKATZEAK, IREKITZE PROZESUA

Gela bakoitza **espazio** desberdin bat da. Aurtengo ikasturtean: 3, 4 eta 5 urteko umeen espazioak hauek dira:

Plastika

Ipuindegia - Mahai Jolasak

Eraikuntzak

Hiru urtekoen erreferentzia gela **plastikakoa** da eta bertan elkartzeko dira goizeko harrera eta elkarrizketarekin hasi eta talde handian egiten dituzten jarduerak egiteko.

Sistema honetan ez dago ume-talde finkorik eta **haurrak berak** aukeratzen du “zirkulazio libreko” saioetan nora joan.

Hasiera batean, nahiz eta aipatutako espazioak martxan egon, gela bakoitzeko zona desberdinetan egiten diren jarduerak, pixkanaka joaten dira irekitzen, esaterako, plastikako gelan ezin dira hasieratik modelaketa, tenperak, hondakin-materialak eta margoak une berean erabili (haur guztien ‘kontrola’ ezin delako ondo eraman) eta tartekatuta egiten zituzten jarduerak, baina berez, espazio bakoitzera joateko aukera nahiko hasieratik daukate haurrek.

Hiru urtekoen geletako planoak eta argazkiak erantzen dituzten espazio desberdinak ikusi ahal izateko.

9:35 Hiru urteko ume guztiak beste geletara joan dira eta plastikakora bi neska etorri dira, geroxeago beste bat. Anak komentatzen dit, behar bada, nola bera ordezkoa den eta ez duten asko ezagutzen, horregatik joan direla denak. Bi neskek mahai luzean ipuin batetik “ardia” egin nahi dutela esaten dute -lau urteko 4 haur daude momentu honetan- eta ardia egiteko papera, kotoia, guraizeak erabiltzen dituzte. Ardia Anak murrizten du eta eurek mozten dute. Bosgarren haur bat dator gelara eta segituan seigarren bat; lau lanean ari dira eta bi ikusmiran. Kotoia itsasten diote ardiari.

Bukatutako lana “erakusketan” uzten dute ostiral arte. Txartel batean **EZ UKITU** jarrita dago.

Trebetasunez erabiltzen dituzte guraizeak.

Inauterietako kapelak egiten ari dira eta andereñoak haur bat gonbidatzen du kapela egitera (margotzera). “Gorritz margotu behar da”

10:05 Lau urtetik aurrerako haurrek ingelesa daukate orain eta bukatu gabe uzten dituzte lanak; arratsaldean jarraituko dute.

Momentu batean koordinatzailea sartzan da arauak gogoratu: "Hemen margotzeko zer behar da?" Mantela.

10:15 Sei ume ari dira margotzen: errotulagailu, argizari... Anak: Denak dakite izena jartzen; zuk data jarri, arkatzarekin, hobeto jartzen da eta (5-6 urtekoak dira).

10:25 Bukatu dituzten marrazkiak gelan bertan uzten dituzte.

10:30 Ipuindegiko gelatik 3 haur ipuina margotzera datoz; azala egin behar dute.

10:45 Saioak jarraitzen du, pentsatzen dut eguraldi txarra dagoelako?

Sei urteko neska batek ipuinaren lamina bakoitzean testua idatzita dauka. Mirenek komentatzen dit etxetik idatzita ekarri duela ipuina. Eskolan, zuzendu, antolatu, marrazkiak egin, goiko aldean esaldiak idatzi eta margotu egin duela. "Pepe eta Pepak nieto bat izan du; aitona siestan dago eta Ines parkera guannai du..." Azken zuzenketak egin eta bukatzen du.

11:00 Jasotzen hasi! Esaten die Anak eta bakoitza bere gelara itzuli aurretik aulkiak beren lekutan uzten dituzte eta gainontzeko materialak bi edo hiruren artean gorde.

11:05 Fruta banatzen dute denen artean. Jan ondoren komunera joan dira.

11:30 Ipuina kontatzen dute, "Jon zikinaren anaia" ipuina.

Zu al zara nire anaia? esaten du ume batek.

Galderak: Zuek nola ibiltzen zarete, txerriak bezala? Denek: EZ.

Egunero bainatzen zarete? Ni gauean. Ni katua bezala.

Horrela jarraitzen dute, bakoitzak zerbait erantzunez.

Gaur ez dira patiora jaitsi, nik goiz guztiko martxa ikus nezan.

11:50 Berokiak jantzi eta etxera joateko prestatzen dira. Abesti batekin bukatzen dute.

Goiz eta arratsaldeko saioen antolaketa

9:00 - 9:30	Sarrera. Borobila: elkarrizketa, ipuina, ...
9:30 - 10:30	Irekia (gela desberdinetan, euren aukera)
10:30	Bakoitza bere erreferentzia gelara
10:30 -11:30	Patiora
11:30 - 12:00	Bakoitza bere gelara eta elkarrizketa, ...
14:30 - 15:00	Borobila
15:00 - 16:00	Irekia (gela desberdinetan, euren aukera)
16:00 - 16:30	Borobila edo patiora

Oharra

Egunean bi saio egiten dituzte “zirkulazio librean” eta gainontzeko jarduerak talde handian eta bakoitzak bere gelan.

2000-III-21

ESPAZIOEN ALDERDI FUNTZIONALEN BEHAKETA: MATERIALAREN ANTOLAKETA; GELAZ KANPOKO BESTE ESPAZIO ETA MATERIALAK; DENBORAREN ANTOLAKETA

Helburuak

- 1.- Espazio bakoitzean haurrak nola mugitzen diren adieraztea.
- 2.- Espazio bakoitzean dauden material esanguratsuenak deskribatzea.
- 3.- Espazioetan egiten diren jarduera esanguratsuenak adieraztea.
- 4.- Geletatik kanpoko beste espazioak aztertzea: sarrera, pasilloak, komunak, patioa.
- 5.- Denboraren antolaketa aztertzea.

Aurretik aipatu dugun bezala, Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urtekoen espazioak aurtun: **PLASTIKA, ERAIKETA, IPUINDEGIA ETA MAHAI JOLASAK** dira, nahiz eta solairu berean Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloko 6 eta 7 urteko ikasleen gela bat dagoen ere eta aurreko saioaren deskribapenean adierazi dugun Haur Hezkuntzako haurren espazioetan ere lan egiten duten.

Goizeko 9:30etan gelak “irekitzen” direnetik, adin desberdinetako haurrak elkartzen dira gela bakoitzean; haur bakoitzaren erritmoa, garapena eta aniztasuna errespetatzen da jardueretan, elkarrekintza sustatzearekin batera.

Plastika

Helburuak: Espresioa eta sormena garatzea; material desberdinak manipulatu eta ezagutzea.

Espazio hau lan-ekintza desberdinetan banatzen da: marrazkigintza, modelaketa, margoketa eta itsasketa, hondakin txokoa.

Eraiketa

Helburuak: Ezagupen fisikoaren bidez, pentsamendu logiko-matematikoaren garapena estimulatzea; pertzepzioaren bidez, espazioaren egituraketa eta antolaketa garatzea.

Ipuindegia

Helburua: Irakurketa-idazketarako estimulazioa eta motibazioa garatzea.

Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloko haurrak, aipatutako espazio hauez gain, adinari dagokion berezitasunei erantzunez bi espazio berezi dituzte, matematika eta irakurketa-idazketa modu instrumentalean landuz.

Mahai-Jolasak

Helburua: Aritmetika eta logika matematikaren garapena garatzea.

ESPAZIO BAKOITZEKO MATERIAL ESANGURATSUENAK

Plastika

Paper desberdinak: pinotxo, kartulina, orriak, guraizeak, kotoia, arkatzak, errotulagailuak, animalien liburuak

Tenperak eta akuarelak

Pintzelak

Argizariak

Hondakin-materialak

Kartoiak

Mahai luze bat

Mahaiak eta aulkiak

Arbela

Kortxoak

Plastilina

Eraiketa

Tamaina eta forma desberdinetako egur piezak

Lego

Pintxoak

Animalia desberdinak

Kubetak

K[^]nex materiala (piezetan) Aukera handiak ematen ditu eta gida liburua dauka (garabi, kamioi, karretilen, ... ereduekin)

Ipuindegia -- Mahai-Jolasak

Ipuin eta liburuak (ikus argazkia)

Oca

Xakea

Domino

Partxisa

Damak

“El lince”

Puzzleak

Mahai eta aulkiak

Kortxoak

Txoria, perikitoa, dordoka, hamsterra (animalien gaia lantzen ari direlako)

Gela honetan, 3 urteko haurrentzat material konkretua daukate, adibidez:

Memory (animaliak)

Los meses del año

Dominoa (figura geometrikoekin)

Puzzleak (zenbakiak eta irudiak konbinatuz, esaterako: animalia batek (8) zenbakia dauka pieza batean eta beste pieza batean 8 katilu daude eta enkajatu egiten dituzte).

Espazio guztietako altzari, apal eta gainontzeko materiala umeen eskura dago.

Gela guztietan ibiltzen dira umeak baina, bakoitzak bere gela eta tutora duenez, denetan daude ume bakoitzaren karpeta, arbelak, ipuin eta abestiak (bineta plastifikatuak), eserlekuak (bankuak), kortxoak, arkatzak, taldeko kideen argazki eta erreferentziak.

GELEZ KANPOKO BESTE ESPAZIO ETA MATERIALAK

Sarrera eta bi solairu ditu eraikinak. Sartu eta **hall-banatzaile** bat dago.

Lehen solairuan: 2 urtekoen gela, komunak, jangela, bulegoa, patioko materialak gordetzeko gela bat.

Horma guztiak **hormairudiz** apainduak eta **landareak** eta **loreak** daude.

Bigarren solairuan: 3, 4, 5, 6, eta 7 urteko haurren gelak, haurren komunak, irakasleen komuna, gela txiki bat (fotokopiagailua, armairu bat...), psikomotrizitate gela eta hondakin-materialen gela. Hexagonalak dira gelak. Gela bakoitzaren alboan pertxeroak ume bakoitzaren izenarekin.

Patioa: Eraikinaren buelta osoan. Aterpe zona bat.

Patioan edota hallean ibiltzeko materialak: Bi plazako trizikloak, kamioi, kotxe, patinete, sokak, panpinentzako kotxeak, pelutxeak, animaliak; txirrista eta egiturak, zakarrontzia.

Burdin hesi batez inguratuta dago eraikin osoa.

GELAZ KANPOKO BESTE ESPAZIO BATZUK	EZAUGARRIAK
Bainugelak	Egokituak baina zahar xamarrak ikusten dira
Halla/piszina	Estalia (eraikin barruan)
Patioa: Gelatik patiorako irteera Azalera Landare, zuhaitzak Zonalde estalirik Materiala	Eskailerarik gabe, zuzenean 600 m ² . Eraikinaren bueltan, 2 m.-ko zabaleran Zati batean Porlanezkoa
Psikomotrizitate gela: Azalera Argitasun maila	1. solairuan 60 m ² Oso argitsua

DESKRIBAPENA

8:45 Belenekin geldituta nengoen haurrak etorri aurretik eta agurtu ondoren, elkarriketatxo bat eduki dugu. Antzuolan pasatako asteari buruz komentatzen dit, oso interesgarria izan dela eta gustura egon direla.

9:00 Pixkanaka iristen doaz haurrak eta martxa hartuta daukatenez, motxilak eta arropak bakoitzak bere pertxeroan uzten ditu, fruta eta gailetak otarrean, etxetik ekarri dituzten jostailuak ere pixkanaka uzten dituzte, eseri eta **elkarrizketarako** prestatzen dira. Andereñoa erdian dago, "L" bat egiten duen banku batean eserita. Poliki-poliki elkarrizketan sartzen doaz. Tarteka arauak gogorarazi behar ditu: "gustatuko litzaidake gosaria bere lekuan uztea, maitea". Jarraitzen du: Zer kontatu nahi diguzu?

9:25 Ipuina. "Otso beltzarena". Kontatzen duen bitartean galderak egiten doa Belen: Hau zein da? Otso beltz. Zergatik? Begiak beltzak dauzkalako. Otso beltz basoan bizi da... Zergatik dago triste? Hortzik ez daukalako... Hor dator norbait eta pentsatu du garraxi bat botatzea eta egin du AUUUU!...

9:35 Belenek: Orain bakoitzak esango dit zein geletara joan nahi duen. Ni Josunerekin, ni Silviarekin, ni hemen. Beste geletatik etortzen hasten dira ere.

Andereñoak laguntzen die aukeratutako geletara joaten.

9:40 Silvia dago 4 urtekoen gelan eta bere gelara lasai joateko esan dit. Komeni zait beste espazioetan ere sartu eta bertan egotea, 3 urtekoen behaketa egin ahal izateko.

Eraikuntzen espaziora joaten dira 3 urteko ia ume guztiak eta ni ere (Josunen gelara).

9:45 Hamaika haur daude momentu honetan eraikuntzen gelan; horietatik, 6 batera dabilta **egurrezko piezekin** eta hitz egiten. Hiru urteko 4 haur elkarrekin ari dira Lego piezekin zer egin nahi duten erabakitzen.

K[^]nex materiala erabiltzeko laguntza eskatzen dute.

10:05 Ingeleseko andereñoa dator eta lau urteko haurrak berarekin doaz. Ordu erdiko saioa izaten dute.

Aholkularia etorri da eta umeekin hitz egiten hasten da.

10:20 Eraikuntzak egiten jarraitzen dute 3 urteko 5 haur.

10:35 Jasotzeko garaia. Egin dutena "erakusketan" uzten dute izena idatzi ondoren. Hiru urteko bi neskek nahiko ondo jarri dute izena.

10:45 Bakoitza bere gelara doa eta **borobilean** jartzen dira. Zein da gaurko arduraduna? Begiratu! Atzo Eneko izan zen eta gaur nor da? Javier, esaten dute. Horman jarritako plastifikatutako etxetxo batean bakoitzaren argazkiak daude eta beste aldetik izenak itsatsita. Horiek nahastuta daude eta bakoitzak **berea identifikatu** eta **argazkiaren ondoan jartzen du**. Izen batzuk sobratu zaizkigu, dio Belenek, etorri ez direnenak.

Asteko egunak lantzen dituzte. Gaur “koltxoneta” eguna da, asteartea eta borobila jarriko dugu asteartean.

Fruta eta gailetak banatzen dituzte (andereñoak fruta eta arduradunak gailetak). Eserita jango ditugu.

Orain **komunera** eta ondoren **jolastokira**.

11:00 Patioan, andereño guztiak egoten dira umeein eta soka eman, zer egiten duten behatu eta erne egoten dira. Triziklo, patinete, kamioi, panpin-kotxea, ... atera dituzte jolasteko.

11:35 Borobilean. Bakoitzak bere kanta papera aukeratu du. Enekok “Paristik datorren”, beste batek “Triki-traka...” “Traktore baten gainean”. Irudia eta testua daukate idatzita lamina bakoitzean. Bakoitzak, berak aukeratutako **abestia** kantatzen du.

11:45 Orain **berokiak janztera!** Aurrena Ilargi eta Kattalin. Biak ateratzen dira, mantalak erantzten dituzte, pertxeretik jantziak hartzen dituzte eta gelara itzultzen dira. Binaka egiten dute joan-etorria.

Batek garrasi egiten du eta haserretzen dira. Belenek bat, besoetan hartuta kontsolatzen du.

Bakoitzak bere izena kaxan sartzen du.

Belenek: Abestu egingo dugu “Lotan nago begiak itxita...” Denak isil-isilik eta oso lasai daude; xuabe-xuabe kantatzen dute “Pintto Pintto...”

12:00 Agurrak eta azken jarduerak. Berokia **horia** dutenak aterako dira lehenengo. Zeintzuk dira? Eneko. Gero arte Eneko esaten dio andereñoak. Orain, **arrosa** daukana; motxila hartzen du eta badoa. Agur Kattalin. Horrelaxe egiten du denekin, koloreak landuz eta pixkanaka: horia, gorria, arrosa, urdina...

SAIOAN JASOTAKO JARDUERA ESANGURATSUENEN LABURPENA

DENBORAREN ANTOLAKETA: MOMENTU ETA JARDUERA ESANGURATSUAK

Ikastolara sartzekoan, talde handian, haur bakoitza bere gelara eta tutorearengana etortzen da. Elkarrizketa garaia da eta saio hau, bai aurkezpena egiteko, bakoitzak bere nahiak azaltzeko, proposamenak egiteko, lana antolatzeko, edukiak lantzeko, etab. erabiltzen dute.

Ondoren, haur bakoitzak erabakitzen du zein espaziotan arituko den eta bertara joaten da. Espazioetan, jardueraren arabera, talde txikian nahiz bakarka aritzen dira.

Jolas orduaren aurretik, espazio bakoitzean dauden haurrek jasoko dute gela. Jasotzeari garrantzi handia ematen diotenez, behar den adina denbora hartzen dute.

Jolastokitik itzuli ondoren, berriro talde handian aho hizkuntza garatzeko ariketa desberdinak egiten dira.

Arratsaldean, talde handian egiten da sarrera labur bat. Ondoren, haur bakoitzak aukeratzen du zein espaziotara joan nahi duen.

Etxera joan aurretik, berriz ere talde handian, egunean zehar egindakoaren balorazioa egiten dute.

Zirkulazio librean dabilzan bitartean jarduera mota desberdinak egiten dira, horien artean, matematika, irakurketa eta idazketa garatzeko jarduerak, musika eta astean bitan psikomotrizitate saioa.

Beste hainbat saio, espazioetatik kanpo egiten direnak: Musika (5 urterekin hasita, astean ordubete), ingelesa (4 urterekin hasita astean bi ordu eta erdi) eta psikomotrizitatea (2 urterekin hasita, astean bi saio).

ELKARRIZKETAK

. Belen Otaño andereñoari (2000-VI-13)

G.- Noiz hasi zineten gelen antolaketa eta erabilpen honekin?

E.- Orain dela 7 urte. Gela guztietatik, 3 urteko umei gehien gustatzen zaizkien **plastika gela** eta **eraikuntza gela** dira; nahiz eta ipuinen gelara ez asko joan, ez ditugu behartzen joatera. Gurasoak ere badakite eta ez dago arazorik.

G.- Nola joan da ikasturtea?

E.- Nik 2 urterekin hartu nituen ume hauek eta autonomia mailan gauza dezente lortuta zituzten aurreko ikasturtetik: komuneko buelta, zapatilak sartu, arropak jantzi eta erantzi, 4 izan ezik (hauek ez dira 4 urteko gelatik etorri) eta hauekin asko kostatzen zait aurretik.

Hasieran denak nire atzetik joaten ziren ni beste espazioetan egoten nintzenean baina orain asko askatu dira.

G.- Aldaketarik egin al duzue antolaketan?

E.- Aldaketa nabarmenik ez, txikiak. Hasieran margoketa, tenperak, hondakin-materialak eta modelaketa ezin genituen kontrolatu batera eta tartekatu egiten genituen, orain berriz, eurek ondo moldatzen dira eta denak batera daude martxan.

Plastikako gelan (3 urtekoen erreferentzia gela) mahai handiago bat jarri dugu.

G.- Umeek bere izena jartzen dute, zer prozesu eramaten duzue irakurketa-idazketarekin?

E.- Nemirovsky-ren metodoarekin aritzen gara (izenetik hasita...) eta pertsonalki, asko gustatzen zait metodo hau.

G.- Zuen espaziotan "etxerik" ez dago, nola lantzen duzue jolas sinbolikoa?

E.- Psikomotrizitate gelan lantzen dugu eta jolastokian ere, dena den, faltan botatzen dugu 3 urtekoentzat beste espazioren bat.

G.- Gelako programazioa aurrera eramateko zer erabiltzen duzue: unitate didaktiko globalizatuak eta horiekin lotuta, Interes zentroen metodoa, proiektuak, ...?

E.- Programazioa buruan daukat, badakit lortu behar ditugun helburu eta gaitasunak eta ez dugu gaiekin funtzionatzen 3 urteko umeekin. Ikasturte bukaeran memoria bat elaboratzen dugu eta bertan jasotzen dugu egindakoa eta astean behin elkartzen gara espazio bakoitzean egindako lanak eta jarduerak komentatzeko. Koordinazio lan handia eskatzen du horrelako sistema batek eta datorren urtetik aurrera gehiago elkartzen hasiko gara.

G.- Egunero izaten dituzue bilerak 12:00etan, goizeko saioa bukatu ondoren, ezta?

E.- Bai, Astigarragan biltzen gara, departamentuka.

Oharra

Beste momentu batean eta Silvia andereñoarekin hitz eginez, esplikatzen dit, 4 urteko haurrekin ikasturte honetan landu dituzten gaiak honakoak izan direla: Udazkena, Gabonak (turroia elaboratu zuten), Animaliak, Lesakako irteera (Herriaren proiektua egin zuten irteerarekin erlazionatuz).

. Felizi Etxeberria zuzendariari (2000-VII-07)

G.- Kontatuko al didazu nola izan ziren Antzuolako Eskolarekin emandako lehenengo pausoak?

E.- Orain dela 9 urte eman genituen lehen hastapenak. Bilbora joan ginen ikastaro bat egitera; han, Antzuolako esperientziaren berri izan genuen eta beraiekin harremanetan jarri ginen. Hasieran, bi gelatan egin genituen aldaketak eta gero Haur Hezkuntzako guztietan.

G.- Zergatik ikusten zenuten aldaketa egin beharra?

E.- Lehen umeak aspertu egiten ziren puntzoia eta puntzoia lantzen. Batez ere, materialek daukate garrantzia. Hasieran eta Antzuolako aholkularitza lortu genuenetik joko eta material bakoitza aztertzen hasi ginen; behin ere ez ziguten esaten Antzuolakoek "hau ez, edo hau bai", gu geu joan ginen erabakitzen.

Esperientziarekin, materialak adinera hobeto egokitzeko ikusi dugu, "zirkulazio librean" aritzeko, bi urteko umeak alde batetik egotea, 3 eta 4 urtekoak elkarrekin nahastea eta 5 urtekoak berriz, Lehen Hezkuntzako lehen ziklokoekin nahastea dela komenigarriena.

Eta datorren ikasturterako horrela antolatzea da gure asmoa, beraz, Martuteneko Haur Hezkuntzako eraikinean, batetik, 2 urteko umeak euren andereñoarekin egongo dira eta 3 eta 4 urtekoak zirkulazio librean ibiltzeko aukera izango dute. Bost urteko haurrak Lehen Hezkuntzako eraikinerara pasako dira eta 6 eta 7 urtekoekin batera ibiliko dira zirkulazio librean. Espazio aldetik ere hobeto moldatuko gara horrela.

Datorren ikasturterako egingo dugun beste aldaketa bat koordinatzaileen funtzioei dagokiena da, hau da, pedagogiako gaietara egongo dela bideratua euren funtzioa eta ez orain arte bezala gestiokoetara ere.

G.- Zer nabarmenduko zenuke prozesu honetan?

E.- Eraikuntzekin oso prozesu polita eman da. Dorreak eta egiten hastetik, soluzioak bilatzen nola joaten diren oso interesgarria da, adibidez, batetik bestera ibiltzeko zubi bat egitea eta hainbeste gauza: "Oca"-ren jokoan "dadoak" betetzen duen funtzioa ulertzen joatea, etab.

Antzuolakoek gurekin egin zuten bezalaxe, horrelaxe jokatzen dugu geuk ere umeekin, soluzioak elkarrekin aurkitzera bultzatzen ditugu. Batzuetan, andereñoek ere esaten diegu "hau nik ere ez dakit nola egin" eta hasieran harrিতuta gelditzen ziren. Prozedurak dira garrantzizkoak kontzeptuen aurretik; informazioa bilatu, gauzak manipulatu, esperimintatu, etab. Helburu Orokorrak, espazioka betetzen ditugula egiaztatuta daukagu.

Gurasoen bileretan helburuak bete diren eta horrelakoak baino, "gai" konkretuak tratatzen ditugu: Apegoa edo atxikimendua, autonomia, ...

Alde handia nabaritzen dugu ikastolan giro aldetik. Orain dela urte batzuk nahiko giro marjinala zen eta orain berriz, aldatu egin da giroa eta umeen zenbait gurasok unibertsitate ikasketak ere badituzte.

G.- Garrantzi handia ematen diozue "egokitzapen-aldiari" eta 2 urteko haurren gurasoekin ekainaren 19an egin zenuten bileran, Begoñak, beste gauza batzuen artean, azpimarratu zuen "lehen umeak resignatuta etortzen zirela eskolara".

E.- Bai eta horrelaxe zen, orain berriz, eskolatze prozesuaren lehenengo egunetik eta haurrak berak erabakitzen duen arte, guraso edo familiako norbait egoten da eta presentzia horrek konfiantza izugarria ematen dio umeari eta kontentu etortzen da ikastolara eta oso ondo pasatzen dute.

IKERKETA GELAREN EZAUGARRI-DATUAK**2000/01 IKASTURTEA**

IZENA ETA KOKAGUNEA	ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA
AUZOA	Martutene
INGURUNEA	Urbanoa
IKASTETXE MOTA	Publikoa
TIPOLOGIA	Haur Hezkuntza
UNITATE KOPURUA	3 Bi urtekoen gela bat Hiru urtekoen gela bat Lau urtekoen gela bat
ORDUTEGIA	9.00 - 12:00 14:30 - 16:30
JANGELA - Arduraduna	Begoña Olaiz
HIZKUNTZA-EREDUAK	D
GELAKO EREDUA	D
GELAKO IKASLE KOPURUA	7 (2000-01 ikasturtean) 9 (2001-02 ikasturtean)

IKASLEAK	JAIOTZE-DATA
SONIA	1998//II/11
HAIZEA	1998/V/11
IMANOL	1998/IV/08
GAIZKA	1998/VI/03
YLENIA	1998/X/05
XABIER	1998/XI/24
DANEL	1998/V/28

IRAKASLEA

- . Izena : ARANTXA GERENDAIN
- . Espezialitatea: Haur Hezkuntza
- . Esperientzia urteak Ikastolan: 14

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEA: IRAILA

IKASLEAK/EGUNAK	19	22	27	29
Danel	+	+	10:40 - 12:00	10:10 - 12:00
Gaizka	+	-	9:25 - 12:00	9:25 - 12:00
Haizea	+	+	9:45 - 12:00	9:30 - 12:00
Imanol	+	+	9:45 - 12:00	9:35 - 12:00
Sonia	+	+	10:00-12:00	9:25 - 12:00
Xabier	+	+	9:30-11:45	9:25 - 10:30
Ylenia	+	-	9:15-10:40	9:20 - 10:40

2000/IX/19

ESKOLAKO LEHENENGO EGUNAK - EGOKITZAPEN-ALDIA

Haurren eskolako bigarren eguna

9:10 Arantxa andereñoak egiten dit harrera eta umeak etorri aurretik antolaketaren berri ematen dit. Gaur nire lehen eguna da eta umeen bigarrena.

ORDUTEGIA	1. HAUR TALDEA	2. HAUR TALDEA	HAUR KOPURUA	HAURREN ADINA
9:30 - 12:00	9:30 - 10:30	11:00 - 12:00	7 lau mutil hiru neska	1 - 2 urte


GELA: 2 taldetxotan banatzen da lehenengo egunetarako : txikienak (3 haur) elkarrekin suertatu dira: ekainean, urrian eta azaroan egiten dituzte 2 urte.

GURASOAK: Gela barruan egongo dira hasierako 2 egunetan, printzipioz, taldearen eskaeren arabera.

LAGUNTZAILEA: Gurasoekin batera dago eta euren galderei eta zalantzei erantzuna ematen saiatzen da.

GURASOEN HIZKUNTZA

- Haur baten amak euskaraz egiten du (Xabierrenak)
- Haur baten aitak euskaraz egiten du (Gaizkarenak)



Arantzazuko Ama Ikastola. 2000/01 ikasturtea. 2 urteko gela.

TALDEA

9:30 Lehenengo haurra amonarekin etorri da, Xabier. Andereñoarekin komunera joan, pixa egin, txaketa kendu eta jolastera gonbidatzen du andereñoak.

Magalean hartzen du Xabier andereñoak eta ipuin handi bat ikusten hasten dira.

Arantxak esan dituen hainbat hitz errepikatzen ditu Xabierrek: **“hartza...”, “Pepo” ez.**

Bitartean, Xabierren amona, etxean egiten ari den manteleria ekarri duenez, lanean hasten da.

9:40 Gaizka sartzen da, amarekin (txupetea ahoan duela). Alfonbra gainean esertzen dira. Zer moduz egin duzu lo? **Ondo** erantzuten dio haurrak Arantxari.

9:45 Ylenia sartzen da, amarekin. Txamarra kendu eta alfonbran hasten da trena eta animaliekin jolasten. Musika jartzen du andereñoak.

9:50 Guraso edo familiako bakoitzari, umeen gaien inguruko liburuxkak banatzen zaizkie irakur ditzaten, besteak beste:

- Escuchando a las niñ@s (Para acercarte a tu niñ@ enojad@)
- Tiempo especial
- Juguemos a escuchar
- El llanto
- Para vencer los temores de los niños
- Berrinches e indignación

<p>The parents leadership Institute P.O. Box 50492 Palo Alto, California 94303 Patty Wipfler</p>
--

9:55 Ez dituzte mantalak jantzi nahi margotzeko.

Momentu batzuetan 2 mutilak amarengana inguratzen dira: eskuak zikindu dituztenean, gauzak erakustera, ...

10:05 Alfonbran jarraitzen dute jolasten.

10:10 Pixa eskatzen du Yleniak eta 3rak doaz komunera. Xabier aldatzen du andereñoak, komunera ‘beranduegi’ iritsi delako.

Yleniak koska egin nahi dio Xabierri eta Arantxak entretenitu arazten du. Etorri nirekin komunera Ylenia; ez du joan nahi eta laguntzailearekin gelditzen da mahian, margotzen duten bitartean.

10:15 Musika aldatzen du andereñoak. Mahaian ari dira hiru haurrak.

Marrazkiak kortxoan jartzen ditu Arantxak.

10:20 Ipuina ikusten eta irudiak deskribatzen ari dira.

10:30 Arantxak gurasoei: “Entzun pixka bat; mañana nos quedaremos fuera” y les decís a los niños que pueden salir de la gela, pero que vaís a estar fuera de la clase. Ahora tienes que irte con la ama, mañana, la ama se quedará en el pasillo.

Xabierrek: 10:30etan motxila hartzen du eta kanpora joan nahi duela adierazten du.

Arantxak: Txaketak jantzi eta umeak eta gurasoak agurtzen ditu. Emango didazu muxu bat? Bihar arte.

Laburtuz: Lehenengo ordu erdi alfonbran aritu dira. Bigarren ordu erdia mahaian.

B TALDEA

11:00 Imanol, Sonia eta Haizea iritsi dira, geroxeago Danel.

Arantxak bakoitzari esaten dio: “Mira, la ama se va a sentar hoy fuera eta zuk, nirekin marrazki bat egingo duzu”.

Amak eta zaintzailea, hallean eserita, egunkaria, liburuxkak irakurtzen ari dira.

11:07 Alfonbran argazki-albumak ikusten ari dira.

11:15 Hiru ume ateratzen dira momentu batean amarengana: Haizea, Imanol eta Sonia. Abesten hasten dira: Uztaiekin, Land Roberta...

Danel, hiru aldiz ateratzen da kanpora, Sonia behin.

11:25 Soniak puzzleekin jarraitzen du. Danelek kanpora joan nahi du, patiora, ez da bere amarengana hainbeste hurbiltzen.

11:45 Haizea eta Sonia ez dira patiora ateratzen.

11:50 Danel eta Imanol beste gela batera joan dira, bideoa ikustera. Danel berehala itzultzen da.

Soniak: “Voy a hacer una carretera yo”

Gurasoak: Euren artean hizketan ari dira.

Danelek: ¿Dónde está la ama? Hemen, kanpoan, begira, ikusi. Pixa egin duzu, aldatu egingo zaitut.

Imanol eta Haizeak: No, que no, tú calla.

12:00 Arantxak: Orain etxera joan behar duzue. Mantalak kendu, jertseak jantzi, denak agurtzen ditu.

Danelek: ¿Se puede salir con esto? Trizikloarengatik.

Laburtuz: Ordu beteko saioa alfonbran oro har. Sartu-irten labur batzuk amengana

Goiz bakoitzeko saioa deskribatu ondoren, **taula** batean azalduko ditugu haurrek bakarka nahiz talde txikian egindako jarduerak.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	I	D	S	H	X	G	Y
Etxeko telefonoa	+	+ (aitari)	+ (amari)	+			
Kamioak; Karroak	+	+	+	+	+	+	+
Ipuina			+		+	+	+
Eraikuntzak (1); Bolatxoak (2); Bola enkastratuak (3)		3	1 2	2 3	+	+	+
Marrazkiak				+	+	+	+
Arbela		+			+	+	
Puzzleak	+		+		+	+	
Uztaiak	+		+	+			
Albuma			+				
Trizikloa	+	+	+				
Zaldia	+	+	+	+			
Bolak/Kordoia			+				

2000/IX/22

9:00 Bi txandak mantentzen ditu aste honetan.

Atzo (4. eguna) egin zuen Arantxak lehenengo “separazioa”; gurasoak kalera atera ziren ordu laurden baterako eta berriro itzuli ziren ikastolara (bigarren txandakoak).

Bi haurren amek deitu dute (3tik) ez direla etorriko esanez, gaixorik daudelako eta orduan Arantxak 3. umearen amari esan dio 2. txandan ekartzeko, bestela, bakarrik egon beharko duela eta. Gauzak nola dauden ikusita, laster, “separazio” luzeagoa egiteko prest daudela umeak iruditzen zaio Arantxari, beraz, astelehen edo asteartetik aurrera txanda bakarra egingo dute, 10etan sartuta.

10:45 Sonia, Haizea, Xabier (1. taldekoa) eta Imanol. Beren arteko begiradak eta bakoitza jolasten hasten da.

A-k: Jertseak kendu, pertxeroan jarri.

Baloia ezin da hall-era atera Imanol!

Gurasoak kanpoko mahai inguruan eserita jartzen dira.

4 Haurrak mahian eserita eta musika entzuten jartzen dira bolatxoak enkastratzen dituzten bitartean.

10:50 Danel sartzen da eta Arantxak proposatzen dio eraikuntzak egiten hastea edo zer egin nahi duen. Segituan inguratzen da mahaira.

11:15 Errepidean kotxeak jartzen eta ibiltzen entretenitzen dira.

11:25 Margotzeko mantala jantzi behar dugu.

Soniak onartzen du.

Danelek: Así estoy guapísimo!

11:30 Arantxak Daneli argazkiak ikustea proposatzen dio eta esplikatzen hasten da argazki bakoitza.

11:40 "A mi no me gusta el cole" (Danelek) ¿Por qué? A-k: Lagunduko dizut errepedearekin.

11:45 Ipuin bat kontatuko dizuet, "Teorema". Imanol eta Danel inguratzen dira.

12:00 Soniaren amona etorri da eta bera lasai-lasai dago.

12:05 Abestia: Uztaiak gora...

Arauk - Autonomia

Jertseak kendu, pertxeroan jarri

Baloia ezin da hall-era atera

Errotuladorearekin margotzean, gero tapoia jarri

Kotxeak ezin dira gelatik atera

Lagundu hau jasotzen

Arbelean ez margotu rotuladorearekin, klariona erabili behar dugu

Margotzeko, mantala jantzi behar dugu

Pixa egin nahi duzue?

Elkarrekintza momentuak

Imanolek Haizeari: "hola", sartzen ikusten duenean

Arbelean, Danel, Imanol eta Sonia batera

Albuma ikusten Danel eta Imanol Arantxarekin

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	Imanol	Danel	Sonia	Haizea	Xabier
Etxeko telefonoa	+	+	+	+	+
Kamioak; karroak; kotxetxoak	3 1	1 3		1	2
Ipuina	+	+	+		
Eraikuntzak (1); Bolatxoak (2); bola enkas. (3)	3 1	3	1 3	3 1	3
Marrazkiak; Gometxak	+	+	+		
Arbela	+	+	+		
Puzzleak	+				
Uztaiak	+				
Albuma		+			
Trizikloa	+	+		+	
Zaldia	+	+	+		
Bolak/ Kordoia					
Ispilua			+		+

Xabier: Denbora luzean, karro, kamioi eta kotxeak garraiatzen dabil eta etxera sartzen eta ateratzen ibili da gauza guzti horiek.

Zenbatetan atera dira gurasoengana

IKASLEAK	AMARENGANA
DANEL	+ + + +
SONIA	
HAIZEA	
XABIER	
IMANOL	+ +

“Me voy a tomar un café Haizea y vengo”. Haizeak, buruarekin baietz esaten dio.

“Danel, me voy a tomar un café”. Negarrez gelditzen da: quiero con la ama. Laguntzailearekin uzten du Arantxak eta isiltzen da.

Sonia, me voy a tomar un café”. Konforme gelditzen da.

Imanolen amonak: ¿Voy un poquito? Si.

10 minutara sartzen da Danel gelara: “tengo hambre, gailetak”.

2000/IX/27

9:15 Ylenia sartzen da, bizilagun batekin dator, edadeko gizon bat; kanpoan gelditzen da.

Trizikloa hartu eta gelara sartzen da.

Koilare bat egiten dio andereñoak eta lepoan jartzen du baina, segituan itzultzen dio.

9:25 Arantxak musika jartzen du.

9:30 Xabier sartzen da, amonarekin; amonak: “Xabier, agur, e!. Arantxak: Ayer volviste a las 11, hoy, puedes venir a las 11:45; si veo que está mal te llamo. Le das un beso a la amoñi? Xabierrek muxu bat ematen dio amonari eta alfonbrara gonbidatzen du. Bolekin, sugea egiten du A.-k eta Gaizkak “puskatu” esaten du.

9:45 Imanol amonarekin sartzen da. A.-k.: Esaiozu agur amonari. Agurtu ondoren, joan egiten da.

Segundo batzuetara Haizea sartzen da amarekin; agurtu ondoren , ama badoa.

9:55 Ylenia ateratzen da gelatik eta berriro sartzen da. Gailetak gero!. Momentu batean Rosi sartzen da gelara laguntzera eta giroa lasai ikusten duenez, gelatik ateratzen da.

Alfonbran daude 5 hurrak, oso momentu motxa izan da.

10:00 Sonia dator amonarekin. “Pa” ematen dio eta amona badoa.

10:10 Sonia: Abesten hasten da: “Sorgina, sorgina, ipurdia zikina” .

Arantxak: Ipuina alfonbran ikusiko dugu; trikua hemen. Ez dute atentzioa mantentzen.

10:30 Gaizkak euskarazko hitzak errepikatzen ditu. “Gaileta borobila”

10:35 Gailetak jaten eta abesten ari dira borobilean jarrita; oso lasai. Abestiak. “Pailazoarena”; “Paristik natorren...”; “Sapitoarena”. Ylenia gelatik ateratzen da. Xabierrek: Ylenia, Ylenia?

10:40 A: Egun on Danel. Amarekin dator: “no te vayas” (negarrez). Yo soy malo. Arantxak: Tu no eres malo. Yo soy malo y tengo sueño. Arantxak: Ama joan egingo da. Rosik: Nirekin geldituko zara; tienes sueño, mira, éste es tu cojín. Tengo una cosa nueva, mira. Danel, nik erakutsiko dizut hau, “sapitoaren abestia”.

Danel baserrian bizi da eta hemengo espazioetara ohitzea kostatzen ari zaio.

10:45 Arantxak: Goazen ura edatera.

Danel ari da entretenitzen eta pasatzen ari zaio.

Xabierrek alfonbran jarraitzen du, bakarrik, lasai.

Hallean dabilta jolasean: baloia, kotxeak, korrika, etxetxoan sartu eta barruan denbora dexente pasatzen dute (estruktura txiki bat da).

Bat-batean, koska egiten dio Danelek Imanoli; “koska egitekoa” eskaintzen dio Arantxak eta Danelek erantzuten dio: *deja ya de tonterías*.

11:20 Patiora ateratzen dira: saskibaloia, txirristra, korrika, karetaekin (zezena). Soniak jartzen du kareta eta Xabier erabat beldurtu egiten da. Soniak baloia sartzen du saskian. Gaizka trizikloan dabil. Danel ondo dabil. Haizea eta Imanol ere.

11:55 Patioan jarraitzen dute.

12:00 Familiakoak etortzen dira eta gelan, bakoitzak bere gauzak hartu eta agurtzen dira. Imanolek ez du etxera joan nahi.

Arauekin zerikusia duten esaldiak

Gaizka, sartu hemen bolak, poltsan, eta Gaizka jasotzen hasten da.

“Moto bat”, Gaizkak. Ez, gelan ez, hori kanpoan ibiltzeko da.

Poliki!

Trizikloa ezin da atera, zu, nahi baduzu, bai.

Ylenia, ez dugu beste bat gelara ekarriko, Gaizkarena nahi du (bera 25´ ibili da) eta berriro kentzen dio Gaizkari.

Eseri hemen, Gaizka, beste honetan Ylenia dago. Bi-hiru aldiz esan dio, aulkiz aldatu den arte.

Yleniak iletatik tiratzen dio Xabierri. Horrela ez, eta Rosik apartatu egiten ditu.

Gatazka txikiak trizikloarekin Ylenia eta Gaizkaren artean.

Norbaitek nahi du pixa egin? Haizea eta Xabier doaz.

Gailetak gero, eseriko gara borobilean denak eta gero emango dizkizuet.

Hau da plastilina mozteko (labana), jotzeko ez, Ylenia.

Badago lekua denentzat -arbelean daudela bultza egiten dio Imanolek Xabierri-

Gaizka, klarionak sartuko ditugu hemen (bota egin ditu eta).

Poliki, mina eman diozu Haizeari.

Gauzak jasoko ditugu sagarra eta gailetak jateko.

Sagarrek jateko kojina hartuko ditugu. Hau Imanolena, hau zurea da Haizea, eseri sagarra jateko, etzanda ez, eserita, Imanol.

Txupeteak jaso egin behar ditugu jateko. Eseri, Xabier, nire ondoan, denak borobilean jartzen dira. Aurrena sagarra.

Kojina ez da etzanda egoteko, eserita egoteko da.

“Ze ederki gauden hemen gosaltzen, denak, lehenengo eguna da, ez da gutxi”.

“Agua” (Gaizkak). Gailetak jan ondoren joango gara ura edatera. Itxoin pixka bat.

Imanol, Imanol, eserita. Abestuko dugu astoaren abestia -abesti bakoitzak bere lamina plastifikatua dauka-.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	I	D	S	H	X	G	Y
Etxea; Panpina							1
Kotxeak(1); Kamioiak (2); Karroak (3)	1				1		
Ipuina	+			+	+	+	
Eraikuntzak (1); Enkaj. (2); Bola enkas. (3)	2				2		
Marrazkiak							
Arbela	+			+	+		
Puzzleak							
Uztaiak							
Albumak							

2000/IX/29

9:20 Ylenia bizilagunarekin dator. Gaur “separazioa” egiten hasiko dira.

9:25 Sonia, Gaizka eta Xabier datoz.

9:30 Imanol eta Haizea sartzen dira.

Arantxak Xabier besoetan hartzen du amona joan denean (txikiena da eta bueltatxo bat ematera darama).

Kojinak hartzen dituzte eta alfonbran esertzen dira.

Yleniak Gaizkari jo egiten dio.

Esan agur amatxori (Haizea negarrez hasten da). Jo egin dute eta berriro amarena doa.

Arantxak amari: Te llamo si está mal. Argazkiak ikusiko ditugu, lasai.

Alfonbran daude denak argazkiekin. Ylenia altxatzen da eta 5 minutu kanpoan pasa ondoren gelara itzultzen da.

Arantxak: Etorri Ylenia!. Sonia, ez atera!. Ylenia berriro dator barrura.

Haizea triste dago, negarrez, besoetan dauka puzzleak egiten ari diren bitartean.

Plastilina arroxak bakarrik hartu!.

9:55 Ylenia negarrez hasten da eta Xabier eta Haizea ere; besoetan dauzka Arantxak bai Haizea eta bai Ylenia.

Ipuina kontatzen hasten da andereñoa. Zer egiten du hartza handiak? Xabierrek: **hartza**. Gaizka inguratzen da eta Haizeak eta Soniak entzuten dute. Imanol, zurekin ari naiz, atzerago jarri, bestela, ez dugu ikusten. Xabier negarrez, Imanolek bultza egin diolako. Zortzi minutu egon dira ipuinarekin.

Arantxak.: Gaizka, Imanol, ez zapaldu ipuina!

Rosik Ylenia gelatik eramaten du.

Gaizka, Ylenia, Xabier eta Haizeak txupetea erabiltzen dute.

10:08 Danel negarrez sartzen da. Amak muxu ematen dio eta joaten da. Plastilinarekin ari da Xabier. Amonari: ¿comemos abueli?.

10:10 Haizea lasaitu da, Xabier ez. Lanean ari den arren triste ikusten da. Gaizkarekin batera ari da 'espagetiak' egiten, plastilinarekin.

A-k: "Hau ezin da ireki" (armarioa). "Hori ez kendu, trenaren kea da eta" (kaso egiten du Danelek).

Oharra

Xabier, asteazkenean karetarekin beldurtu zenetik negarrez eta gaizki omen dabil; atzo, 10:30etan deitu behar izan omen zion amonari bila etor zedin eta gaur ere. Aste nagusian, buruhandi batekin izututa gelditu omen zen.

10:20 Eseriko gara alfonbran eta jango ditugu gailetak. Kojinetan esertzen dira (bakoitzak berea identifikatu eta hartzen du); Yleniak Rosirekin jarraitzen du.

10:30 Xabierren aitona etorri da bila.

Soniak "gailetak" entzun duenean, segituan uzten du plastilina eta kojinean esertzen da.

10:35 Kojinetan, Ylenia izan ezik beren gisa dabilta.

Arantxak: Gaileta borobila da hau.

Abestia: Haizea, Sonia eta Gaizkak entzuten dute.

Imanol, eseri pixka bat. Alde egiten du jolastera eta segituan itzultzen da kamio bat duela. Jostailua utzi gosalduta bitartean Imanol.

10:40 Yleniaren bizilaguna itzultzen da; esanda baino denbora gehiago pasa du (ordu erdi bat). Ylenia berarengana joaten da eta negarrez hasten da.

10:45 Hallean gelditzen dira pixa egin ondoren. Trizikloak hartzen dituzte, etxetxoan sartu eta "sorginaren" jokoarekin dabilta.

Arantxak Xabierri espazio guztiak erakutsi dizkio kareak ez daudela ikus dezan eta gelatik kanpora eraman ditu (lehen, gelako etxe gainean zeuden).

Soniak: "Sorgina pirulina harrapatu, ipurdi zikina"

11:20 Abestiak: “Sapito bat daukat, txunpa txunpa txun...”

Arantxak: Asko gustatzen zaie kanta hau. “Haizea gaixo dago buruko minarekin...”

“Martuteneko tren” egingo dugu.

Arantxak: Zeinek lagunduko dit kojina jasotzen?.

11:30 Soniak “sorginarena” egiteko eskatzen du eta korroan jarrita egiten dute.

Danelek uztai hartuta: “son olímpicos” (olinpiadetan gaude orain).

Arantxak: Danel, horrela puskatu egiten da.

Abestia: “Uztaiak gora-gora lurretik zerura, bira alde batera eta gero bestera...”

Soniak abesti guztiak errepikatzen ditu.

11:45 Soniak gometxak nahi ditu.

Soniak niri: Danel, ¿ha ido a hacer un pis?

Mahaian Soniak Gaizkari: “ten un gomets, toma” (biak ari dira elkarrekin).

Haizeak: 10 minutu daramatza bolatxoekin.

11:55 Orain etorri hona (borobilean). Txamarrak jantziko ditugu eta prest egongo gara amak eta amonak etortzen direnerako.

Arauk

Errotuladoreak paperean margotzeko dira, ez ipuinean.

Gosaltzen ari garen bitartean jostailurik ez.

Erratza kanpoan, hemen ez.

Arriskutsua da mahai gainean eserita egotea.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Etxea (1); Panpina (2); Telefonoa (3)	1 3	1		1 3	2 3		
Kotxeak(1); Kamioiak (2); Karroak (3)							
Ipuina	+			+			
Eraikuntzak (1); Enkajableak (2); Bola enkastratuak (3)	1			1	1		
Marrazkiak (1); Plastilina (2)	2	2		2	2		
Arbela	+		+		+		
Puzzleak					+	+	+
Uztaiak							
Albuma	+	+	+	+	+	+	+
Trizikloa							
Zaldia		+		+	+		
Baloia		+			+		
Materialak jaso					+		

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEA: URRIA

IKASLEAK/EGUNAK	4	6	11	19
Danel	-	-	9:50 - 12:00	10:00 - 12:00
Gaizka	10:45 - 16:30	9:15 - 16:30	11:00-16:30	9:15-16:30
Haizea	-	9:15 - 12:00	9:30 - 12:00	9:15 - 12:00
Imanol	9:30 - 12:00	9:15 - 12:00	9:30 - 12:00	9:30 - 12:00
Sonia	9:35 - 12:00	9:15 - 12:00	9:20 -12:00	9:15 - 12:00
Xabier	9:35 - 11:30	9:15 - 11:45	9:35 - 12:00	9:15 - 12:00
Ylenia	9:20 - 10:40	9:15 - 11:25	9:00 - 12:00	9:00 - 12:15

2000/X/04

9:20 Ylenia Eduardorekin etorri da (bizilaguna); bera kanpoan gelditzen da eta Ylenia ondo sartzten da gelara. Gometxak jartzen hasten da eta A-k komentatzen dit asko lasaitzen ari dela. Atzo, psikomotrizitate gelan Xabierri iletatik tira omen zion baina, ez lehenengo egunetan bezala.


9:30 Imanol bere gisara jolasten hasten da eta amonak esaten dio: "Bueno, me voy, dame un besito y hasta las 12".

Arantxak: Ylenia, orain Eduardo hor dago baina, gero joan egingo da, e?. Esaldi bera 3 aldiz errepikatzen dio, abisatuz. Badoa, esaiozu agur eta irribarrea egiten dio.

9:35 Sonia gustura sartzten da eta Xabier ere ondo dator. "La amoñi se va a sentar aquí, vale?"

Soniak Xabierri: "Y luego saltaremos".

Xabier hobeto dagoela esaten dit Arantxak baina oraindik ere, kareten egunetik, atzera pausoa egin duela. Bere amona gela barruan egon omen zen astelehen eta asteartean.



Bagoi bakoitzeko leihuetan 2 haurren argazkia dago "tapatxo" batekin. Yleniak Arantxari eskatzen dio berea erakusteko: Begira, hemen dago Ylenia.

Rosi badoa eta agurtzen ditu: Agur Xabier, agur... Yleniak Rosiri, Imanol seinalatuz: a Imanol también.

Xabierrek: Ylenia, Ylenia? Ez zuen ikusten eta.

9:55 Arantxarekin alfonbran ipuinak ikusten: Sonia, Xabier eta Ylenia. Imanol bera bakarrik, ipuin batekin. Oso lasai eta entretenituak.

Ipuin bat kontatzen hasten da andereñoa. Xabier, nola egiten du ardiak? “beee, beee”.

Ylenia eta Imanol beren gisa beste ipuin batzuekin. A.-k: Ikusi nahi al duzue ipuina gurekin?

Yleniak: no.

Xabierrek beste ipuin bat kontatzeko eskatzen dio A-ri.

10:04 Bederatzi minutu egon dira Xabier eta Sonia ipuinekin. Egingo ditugu dorreak, Xabier?

Bai.

Arantxak: “Ylenia ostiralean gaizki egon zen, amarekin hitz egin nuen eta kojinari “etiketa” jarriko ziola esan zidan; horrek asko lasaitzen duela eta egia esan, atzo eta gaur askoz lasaiago dago”

“ Xabier ez dut ikusten alai (amona kanpoan eserita dago), justu-justu dago baina, hala ere, bere onera etortzen ari dela uste dut”

10:07 A.-k: Goazen denok pisa egitera!. Komunera doaz.

10:15 Abestiak: “Sapittoa”ren abestia alfonbran (4 haur daude). Abesti bakoitzak bere lamina dauka.

Soniak: “Astoa”. A.-k abesten jarraitzen du: “Xabier gaixo dago... Sonia joaten zaio txupatxuz batekin...”

“Trena”rena: Triki-traka, Martuteneko tren.

“Pintto,...”

“... gaixo dago buruko minakin, Sonia joaten zaio txupatxus batekin”.

A.-k: Xabier kanta honekin triste jartzen da eta trenarena egingo dugu edo “Sorgina pirulina”.

Soniak baloia ematen dio Xabierri.

10:25 Ylenia: Eduardo!, Eduardo! (bere bizilagunari deika) Orain etorriko da. Kojina hartzen du eta gainean etzaten da.

A.-k: Soniak martxa gehiago behar du, hemen ikusten dira diferentziak, aktibitate desberdinak eskatzen ditu.

10:30 Bolatxoak lokarrian sartzen hasten dira.

10:35 Yleniari luze egiten zaio, negarrez hasten da. A.-k: orain etorriko da Eduardo. Gailetak eta madalenak jango ditugu, etorri. Alfonbran esertzen dira eta, begira, etorri da Eduardo. Honek, besoetan hartzen du. A.-k: “Ha estado fenomenal pero está cansada”. Ylenia isiltzen da. Xabier hasten da negarrez orain eta amonarena joaten da baina, berehala itzultzen da.

Kojinetan esertzen dira.

Yleniak ez du gelara sartu nahi. ¿Quieres la mochila e irte a casa? Mañana vienes, eh? eta eramaten du. Kojina eramaten nahi du etxera eta beste haurrek ere berea hartzen dute.

10:45 Jolasa baloiarekin: “Orain nik botako diot...eta, Imanoli zeinek botako dio?” ...

Xabier: Ninia papo? A-k: bai, ez daude patioan, e? Oraindik gogoratzen da (niri) Nirekin aterako zara patiora. X-ek: Bai.

Xabier: Haizea?, Gaizka? A.k: Gaur ez dira etorri.

10:50 Gaizka dator amaren besoetan eta besteak pozten dira. Amak Arantxari: "Si tienes un problemita me llamas por teléfono y ya está"

A-k esaten dit jangelan hasi dela astelehenean eta bazkaldu ondoren 14:30 arte patioan ibiltzen direla, gero lotan jartzen dutela eta 16:30 arte gelditzen dela Gaizka.

Ez du nahi ama joaterik: "**amatxokin**".

Patiora aterako gara. Kotxe gehiago eramango ditugu. Gaizka amarekin ateratzen da patiora.

Xabierrek ez du patiora atera nahi eta besoetan nahi du (beldurtuta jarraitzen du).

Hallean hasten dira bueltak ematen triziklo, kotxe eta baloiarekin. Xabier besoetan dauka Arantxak.

11:25 Xabierren aitona etorri eta etxera eramaten duenean ateratzen dira patiora gainontzekoak.

11:55 Gelara sartu, gauzak jaso eta agurrak.

Ohiturak - autonomia

Yleniak gometsen paperak zakar ontzira botatzen ditu.

Ez bota paperak lurrera.

Zu Ylenia, hori denentzat da, e?.

Plastilina ere denona da. Yleniak: Es mia. Soniak: Que no!.

Bolak ez dira lurrera botatzeko.

Kojinak hartu eta eseri alfonbran.

Elkarrekintza momentuak

Rosi badoa eta agurtzen ditu: Agur Xabier, agur... Yleniak Rosiri, Imanol seinalatuz: a Imanol también.

Xabierrek: Ylenia, Ylenia? Ez zuen ikusten eta.

A.rekin alfonbran ipuinak ikusten: Sonia, Xabier, Ylenia

Ylenia eta Imanol beren gisa beste ipuin batzuekin.

Bederatzi minutu egon dira Xabier eta Sonia ipuinekin.

Haur bakoitzari denbora dedikatzeak duen garrantzia:

- Goxatzeko, konfiantza hartzeko, beraiekin zeudela erakusteko.

- Arauak eta ohiturak ezartzen joateko.

- Detaile bakoitzak duen garrantzia (etiketak, txupetea, kojinak, argazkiak) lasaitasuna emateko.

- Ume bakoitzari alde aurretik abisatzeak etxekoek joan behar dutenean, une batzuetan hori hiru aldiz errepikatuz.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Etxea (1); Panpina (2); Telefonoa (3)				1	2		1 2
Kotxeak(1); Kamioiak (2); Karroak (3)				1			1
Ipaina							
Eraikuntzak (1); Enkaj. (2); Bola enkas. (3)				3	2		3
Marrazkiak (1); Plastilina (2)				3 2	3 2	3	3 2
Arbela				1 2			1
Puzzleak							
Uztaiak							
Albuma							
Trizikloa							
Zaldia							
Baloia							
Materialak jaso							+

2000/X/06

9:15 Danel izan ezik, beste denak etorri dira.

Haizearen ama kanpoan gelditzen da (gaixorik egon da Haizea).

Yleniaren bizilaguna, Eduardo, joan egin da eta A-k esaten dit atzo oso ondo egon zela, baina gaur, 9:40etan negarrez hasi da, tarteka. Besteak ondo daude. Gela barruko etxean kortinak jarri ditu Arantxak eta "kukuka" dabilta. Xabier ondo dagoela dirudi; Gaizka ere bai.

10:10 "Triki-traka..."

Arantxak: Xabier atzo gelan ondo egon zen baina patiora ez du joan nahi eta psikomotrizitate gelan ere egon zen, baina, ondo ez.

Soniak: "Uztaiak gora-gora..."

Ylenia besoetan dauka andereñoak.

Joko batekin dabilta, bolatxo bat goitik behera botatzen; txandaka eta denak ari dira hori egiten. Denek nahi dute. 10´ pasatzen dituzte horretan.

Gelako atea, batzuetan irekia eta besteetan itxita daukate.

10:20 Ylenia etiketadun kojinarekin dago, baina negarrez: Eduardo!

Arantxak: Haizea, luego la ama se tiene que ir a hacer la comida. Haizeak: y yo.

10:30 Kojinak hartuko ditugu orain bainan aurretik jaso behar ditugu jostailuak.

Le has dicho agur a la ama, Haizea? No. Agur ama; badoa eta irribartsu itzultzen da gelara.

Yleniaren urtebetetzea da gaur. Kandelak piztuko ditugu, dio Arantxak. Xabierrek ez du nahi.

Ez, ez.

Abesten diote: "Zorionak zuri..., zorionak Ylenia, ..." "1000 kilo zorion dizugu eskaintzen..."

Kandelak piztu ditu eta Xabier izan ezik beste denek itzali nahi dituzte.

Abestiak: "Uuum sapito bat daukat..."

"Astoa ikusi nuen betaurrekoekin..."

"Pintto-Pintto..."

Gosaria: Gailetak jaten hasten dira borobilean eserita.

Animaliak ikusiko ditugu: Jirafa, hankak luze-luzeak...

Tigrea, eta, nola egiten du, kikiriki? Ez, uam, uam.

Behia, eta, nola egiten du? Muuuu.

Zikoina, txerria, oiloa...

Sonidoak errepikatzen dituzte.

15 minutu pasa dira eta kojinetan jarraitzen dute: abesten, animaliekin eta gailetak jaten.

Gaizkak: Eseri Haizea!. Haizeak diministiku egin du eta Gaizkak: mocos.

Ipuina: "Hartzaren" ipuina kontatzen du Arantxak. Ez dute atentzioa mantentzen.

10:45 Psikomotrizitate gelan

"Saltoka, saltoka" abestia. Ylenia oso gustura dabil.

11:20 Txirristan, uztaiak, autobusa, soka, gustura dabilta. Xabier eta Gaizkak ez dituzte zapatilak kendu nahi eta ez dira koltxonetara hurbiltzen. Xabier gustura dabil.

Arantxak: Xabier, nabaritzen da txikiagoa dela; gauzak sartu eta atera gehiago dabil. Zer egiten duzu Xabier? Xabierrek: barrura pilotak. A-k: Nahi duzu txirristan ibili Xabier? Bai. Zapatilak kentzen hasi da et animatzen da; Gaizkak ere nahi du.

Soniak: "Se acabó el viaje". Asko disfrutatzen du edozein aktibitatekin.

Gaizkak: Txirrista probatzen du eta hitz asko errepikatzen ditu.

Imanol: Asko kostatzen zaio deitzen zaionean kasu egitea.

11:35 Bixerak jantzi dituzte eta Xabierrek "amoñi", negarrez (beldurtu egiten da).

Zubi bat egin du andereñoak eta Gaizka eta Soniari puskatu egin zaie (biak barrez)

11:40 A-k: Bost minutu barru joango gara zapatilak janztera. Xabierrek gauzak jasotzen ari dela : "bost, sei, zazpi" esaten du.

Arauk - Ohiturak

Ikasi egin behar dugu txandaka egiten, banan-banan. Denak: "yo", "yo". Zuk bota duzu, emaiozu.

Soniari: Zapatilak kanpoan kendu eta barrura.

Elkarrekintza momentuak

Soniak Xabierri: "Kuku, kuku". Parra egin arazi nahi dio eta behin eta berriro errepikatzen du.

Oharra

Saio batetik bestera pasatzerakoan, andereñoak alde zuzenetik abisatzen die zer egingo duten, ondoren zer datorren.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Etxea (1); Panpina (2); Telefonoa (3)		1		1			
Kotxeak(1); Kamioiak (2); Karroak (3)				1	1	1	
Ipuina					1		
Eraikuntzak (1); Enkaj. (2); Bola enkastratuak (3)		1	3	1		3	
Marrazkiak (1); Plastilina (2)			1				
Arbela			2				
Puzzleak							
Uztaiak					1		
Albuma							
Trizikloa							
Zaldia		+					
Baloia							
Materialak jaso						+	

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Saltoka (1); Gora-behera (2)		1	1 2				1 2
Pilotak		+					
Txirrista/ Uztaiak		2 1	2		+		
Oihalak							+

2000/X/11

9:00 Ylenia autobusean etortzen hasi da, oraindik Eduardorekin, baina gaur eguerdian bakarrik itzuliko da.

9:20 Sonia pozik sartzen da eta Haizea iritsi denean: Egun on Haizea! Esaten dio.

9:30 Haizea amarekin dator eta kojina ekartzen du (gaixorik egon da bi egun) eta kosta egiten zaio sartzea.

Atzo Yleniak koska egin zion Xabierri baina gero, bi aldiz joan zitzaion muxu ematera eta nahiko ondo. Xabier lasaitzen doa

Gaizka jangelan ondo egoten da eta gero siesta egiten du eta bera bakarrik dagoenez, arratsaldean segun eta zer orduetan egiten duen siesta, psikomotrizitate gelara edo gelan egoten da.

Arantxak egun hauetako gorabeherak komentatzen dizkit

Haizeak amari bazkaria egitera joateko esaten dio baina, mezu kontrajarria erabiltzen du, kanpoan dagoen mahaian gelditzeko ere esaten baitio.

Arantxak: Haizearen argazkiak aterako ditugu.

Musika jarrita dago.

9:30 Imanol: “Egun on” eta konforme gelditzen da.

Arantxak: Danel hasi da berriro etortzen gaixo egon ondoren eta 10etan ekartzen dute.

Ipuinak eta argazki albumak ikusten ari dira alfonbra gainean eserita.

9:35 Xabier amonarekin dator. Konforme gelditzen da.

Arantxak: Haizea, esango diozu agur amatxori? No, ama que se quede aquí. Kanpoan dagoen ikustera ateratzen da.

Yleniak Xabierren motxilatik koka hartzen du -bai baitaki egunero ekartzen duela-.

Soniak argazki bakoitza ikusten denbora pasatzen du.

9:45 Haizearen ama badoa agur esanez eta Haizeak eskuarekin agurtzen du.

Soniak, bere albuma eta besteenak ikusten jarraitzen du (15’).

Yleniak “tete” esan eta anoraketik txupetea hartzen du.

Arantxak: Ylenia, gero autobusean joango zara (abisatzen).

9:50 Danel. Negar pixka bat egin du, segundo batzuk. A-k: Niri ez zait iruditzen ume honena “resignazioa” denik: déjame el camión.

Xabier Arantxarekin errepidea egin eta kotxeak gainean jartzen dabil.

10:00 Sonia zaldi gainean kantari. Geroxeago kotxearekin esperimentatzen.

Marrazkiak egiten: Imanol, Sonia, Danel, Haizea.

10:15 Orain bukatzen duzuenean pixa egitera joango gara.

Zein ederki jaisten den kamioa, e? Xabierrek: **Bai eta kotxea.**

Denak batera joango gara komunera, pixa egin, ura edan eta gero “Principe” jatera. Andereñoa ate aurrean jartzen da denen zain eta deituz.

10:30 Kojinak alfonbran jarri eta gailetak, abestiak. Haizea bolatxoekin dabil. Imanol kotxearekin eta Danel mahaiean.

10:40 Danelek. Cuándo vamos a ir a saltar? Arantxak: Gaur beste ume batzuk daude, gu beste egun batean.

Ipuina: Txerrikumearen ipuina. Danel, isilik egongo zara zaldi gainean? Behin batean...

Imanolek eta Danelek ez dute jarraitzen.

Ipuina kontaktzen 5’ egon dira.

10:45 Pizzinara -haller- aterako gara, euria ari du eta. Pizzinan: trizikloa, kotxeak, erratzaren abestia, baloia.

Gaizka 11etan ekarri du amak.

11:30 Bideo gelara “Hartza”-ren bideoa ikustera. Hiru minutu egon dira atentzio pixka bat mantenduz.

11:35 Gelara itzuli dira.

“Satorraren” ipuina kontatzen hasi da andereñoa.

Ylenia oso nekatuta dago.

Ipuinak ez dauka arrakasta handirik.

11:45 Musika jartzen dute, “Takolo, Pirritx eta Porrotx” eta alfonbra gainean daude.

Ohiturak

Errotulagailuei tapa jarriko diegu: urdinari urdina,

Haizea, mahai honetan gometxak jarri eta beste honetan marrazkiak.

Paperean margotu, ez mahaian.

Horiek nireak dira eta ez duzu hartu behar (errotuladore batzuegatik).

Sonia, gometxak ez dira aurpegian jartzeko, paperean jartzeko dira.

Orain pixa egitera joateko jostailuak gelan utzi behar ditugu. Danelek: No! Ba ezin gara joan. Luego lo coges (uzten du).

Gaileta jateko kojinean eseri behar duzu.

Me tienes que escuchar Danel. Danel, me escuchas?. Danelek: que se aguante. Arantxak: que se aguante no!

Elkarrekintza momentuak gelako giroaren adierazle

Haizeak Imanoli: “No, no tu rompes, solo, no, no”

Yleniak bizkarretik heltzen dio Arantxari eta A-k muxu ematen dio “preciosa” esanez.

Danel eta Imanol zaldi gainean: Siéntate Imanol, siéntate Ylenia, ponte Ylenia (bera atzean jartzen da baina ez dago hirurak esertzeko tokirik).

Oharra

Norekin joan behar duten, nola joan behar duten denboraz abisatzeak duen garrantzia, umeez zer egin behar duten, ideia egiten joan ahal izateko.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Etxea (1); Panpina (2); Telefonoa (3); Kotxea (4); Seaska (5)	5		1 4 3	5	3		1 5
Kotxeak (1); Kamioiak (2); Karroak (3)	1			1	1	2	
Ipuinak				+			+
Eraikuntzak (1); Enkajableak (2); Bola enkastrableak (3)		1	3	1	1	1	
Marrazkiak(1); Plastilina (2); Gometxak (3)	1		1 3	1	3 1		3 1
Arbela (1); Ispilua (2)			1				
Puzzleak	+						
Uztaiak	+				+	+	
Albuma			+		+	+	

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Trizikloa							
Zaldia	+				+		
Baloia							
Materiala jaso						+	

Sonia: amonari deika

Haizea: amari deika

Imanol: seaska barruan

2000/X/19

9:30 Danel izan ezik beste guztiak etorri dira.

Arantxak egun hauetako gorabeherak komentatzen dizkit:

Haizea: Bi egunetan ama kanpoko mahaian gelditzea nahi zuen eta joaten zenean, negarrez gelditzen zen baina buelta ematen zion. Hirugarren egunean, amak pentsatu zuen, bere orde, izeba etorriz gero behar bada hobeto geldituko zela. Nik kanpoko mahaia kendu egin nuen eta ez dakit horregatik izan ote den edo baina, egia da, hirugarren egun horretatik aurrera oso ondo sartzen dela gelara.

Ylenia: Luze xamar egiten zaio. Autobusean etortzen da. Xabier: Oraindik tarteka negarrez hasten da "ninia" gogoratu. Psikomotrizitate gelan ere, umeren batek kuboa buruan jartzen badu beldurtu egiten da

Denak plastilinarekin ari dira.

9:50 Denak komunera. "Denak batera joango gara". Itxoiten du denak ondora etorri arte.

Imanol kosta egiten zaio gauzak utzi eta besteekin batera jartzea.

10:00 Psikomotrizitate gelara doaz.



Lamina bat daukate non gainean animaliak, zuhaitzak eta pertsonaiak itsasten dituzte.

Xabier: Psikomotrizitate denbora guztian "ninia" esaten eta negarrez pasa du.

Arantxak: Nini itsusiak ez daude hemen. Xabier, begiratu iezadazu niri! (aurpegitik heltzen dio xuabe) "nini itsusiak ez daude, papo". Xabierrek errepikatu egiten du esaldia.

Gatazkak

Yleniak Xabierri harramaska egiten dio.

10:45 Jaso eta gailetak jatera joango gara.

11:00 Alfonbra gainean bolatxoaren jokoarekin dabilta.

Hartu kojina eta gailetak jango ditugu.

Begira, oso ederki eseri da Danel. Gero Gaizka, Ylenia, Xabier, Haizea. Sonia eta Imanol eraikuntzekin ari dira.

Gosaria: Sagarra zuritzen duen bitartean: gaur azala **motxa** atera da, gaur, ez da luzea atera.

Altxatzen dira: Imanol, Haizea, Gaizka.

Abestiak: "Sapito, uummm, sapito bat daukat..."

"Astoa"

Imanolek taldetik alde egin du.

11:15 Joango gara kalera pixka bat? Xabierrek: no, no, no (beldurtuta).

Patioan: baloia, txirristan. Xabierrek ez du nahi. Ylenia nekatuta dago eta baita Haizea ere.

11:45 Gelara sartu eta musika jartzen dute eta plastilinarekin hasten dira: Xabier, Imanol, Sonia, Haizea.

Gometxak itsasten dituzte. Yleniak aurpegian itsasten ditu gometxak.

Xabier ez da mahaitik mugitzen, plastilinarekin ari da (12 minutu).

11:55 Gometxak jartzen, marrazten ari dira.

12:00 Maxi, Soniaren bila dator; ez du gelatik atera nahi.

Arauk

Hori ez da arbela jotzeko (erratza) eta denak: "Imanol, Imanol" (soinuak molestatu egiten dituela dirudi edo Arantxak esan duenarengatik).

Ez badakizu jolasten kendu egin behar dizut (joka ari zelako).

Sonia, utzi gauzak eta kojina hartu, jateko.

Sonia, hau nik irekitzen dut (armarioa).

Tapak ipini egin behar dira bestela lehortu egiten dira margoak.

Elkarrekintza

Haizea - Gaizka - Ylenia elkarrekin jolasean konoak erabiliz.

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Saltoka (1); Txiribueltaka (2)	2*		1 2*				
Uztaiak (1); Pelotak (2)				1	1		1
Txirrista; Ranpa	+	+		+			+
Makilak		+					
Abestiak			+		+		

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Autobusa		+				+	+
Egurak		+		+	+		
Materiala jaso		+			+	+	

* = Lagunduta

Soniak eta Haizeak bere gisa abesten dute. Soniak asko disfrutatzen du.

Autobusa= Oihal luze bat da, lurrean jarri, gainean eseri eta andereñoak eramaten ditu tiraka eta abesten.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Etxea (1); Panpina (2); Telefonoa (3); Kotxea (4); Seaska (5)	5		3				
Kotxeak (1); Kamioiak (2); Karroak (3)							
Ipuinak	+	+	+	+	+	+	+
Eraikuntzak (1); Enkaj. (2); Bola enkas. (3)		1	1	1	1	1	
Marrazkiak(1); Plastilina (2); Gometxak (3)	1	1	1	1	1		1
	2	2	2	2	2	2	2
	3	3	3	3	3		3
Arbela (1); Ispilua (2)			1		1		1
Puzzleak							
Uztaiak							
Albuma							
Trizikloa							
Zaldia							
Baloia							
Materiala jaso		+			+		+

Haizea: Telefonoz deika: "azucarillos, ya está, vale?"

Gaizkak: Zakarrontzira botatzen ditu paperak inork ezer esan gabe.

Soniak: Zakarrontzira botatzen ditu paperak inork ezer esan gabe.

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEAK: AZAROA

ABENDUA

IKASLEAK/EGUNAK	3	17	30	15
Danel	-	10:05 - 12:00	10:00 - 12:00	Gaixorik
Gaizka	9:20 - 16:30	10:15 - 16:30	10:00 - 16:30	9:55 - 12:00
Haizea	9:10 - 12:00	9:00 - 12:00	9:25 - 12:00	9:00 - 12:00
Imanol	9:25 - 12:00	9:40 - 12:00	9:35 - 12:00	9:35 - 12:00
Sonia	9:40 - 12:00	-	9:25 - 12:00	9:30 - 12:00
Xabier	9:30 - 12:00	9:45 - 12:00	9:30 - 12:00	9:35 - 12:00
Ylenia	Gaixorik	9:00 - 12:00	9:00 - 16:30	9:00 - 12:00

2000/XI/03

9:30 Arantxak Haizeari ipuina kontatzen dio. Ondoren, argazki albumeko argazkiak ikusten dituzte elkarrekin.

Gaizkari pixka bat kosta egin zaio gelditzea -amarekin joan nahi zuen- baina, minutu batzuetara, ondo gelditu da.

9:40 Sonia "egun on" esanez sartzen da, pozik.

Musika jartzen du.

Gaizka etxean dabil eta beste laurak argazkiak ikusten.

"Gailetak" entzuterakoan, Xabier segituan joaten da kojina hartzera.

9:45 Mahaiko aktibitatea: paperekin bolatxoak egitea (bola txiki-txikiak egin eta kaxan sartzea).

Gaizkak egin du, Soniak ere. Haizea, txiki-txikiak egin esaten dio Arantxak.

Zortzi minutu pasa ondoren Soniak: No quiero bolas. Besteak ere alfonbrara joaten dira.

Andereñoak paperean itsastea proposatzen die eta Gaizkak interes handia jartzen du egiterakoan du (4 jartzen ditu).

10:05 Batek pixa eskatzen du eta besteek ere (Xabier eta Gaizkak nahi dute).

10:10 Sonia eta Haizea bolak itsasten jarraitzen dute (15 minutu).

Gaizka inguratzen da eta bera ere itsasten hasten da.

10:20 Arantxak: Itsatsi dituzten bolatxoak zintzilikatzen ditu sokan.

Zaldia ipini behar duzu zaldiaren gainean, objektu bakoitza erreferentziaren gainean.

10:25 Soniak ipuina kontatzea eskatzen dio Arantxari.

Arantxak: Entzun nahi duzu ipuina, Haizea? No.

Lamina solteak dituen ipuina da, esaldi motzekin.

Soniak zerbait badaki eta hitzak esaten ditu. Arantxak: Orain zuk kontatu, zer da hau? Trena; eta hau?: barco. Belauntzia non ibiltzen da?...

Koloreen errepassoa egiten du galderen bidez.

10:40 Ponpak bota Haizea!.

10:45 Jaso eta gosaria, gailetak kojina gainean eserita: gailetak, udarea, txokolatinak (bana).

Bitartean, abestu egiten dute.

11:00 Piznara edo patiora. Eguraldia erdipurdikoa dago.

Soniak "Satorraren" ipuina eskatzen dio Arantxari.

Aurrena kojina bere lekuan jasoko ditugu.

Pizinan-hallean: trizikloak, pilotak, kotxeak... Buelbaka dabilta.

11:45 Gelara itzuli eta plastilina erabiliko dugu. **Handia, txikia.** Zenbat pilota? Bat, bi, hiru eta lau (denen artean) Orain txikiak egingo ditugu. Soniak 10 arte kontatzen du. Oso gustura.

12:00 Plastilinarekin dabilta mahai gainean.

Iskanbila txiki batzuk sortzen dira momentu puntaletan. Imanolek ez du kasu gehiegirik egiten, kosta egiten zaio.

Ohiturak-Arauk

Imanol, jan gailera, bolak egiten hasi aurretik.

Ez hitz egin horrela, ez dugu ulertzen (garraxika).

Hau hemen erdian (kaxa).

Ez bota bolak zakarrontzira.

Ikasi egin behar duzu itxoiten pixka bat, orain Sonia ari da eta.

Eraiketak alfonbra gainean, hemen ez.

Imanol, jostailuak sartu barrura (seaska, kotxea).

Txokolatea, gailetak jan ondoren.

Oharra

Xabier hobeto ikusten da gelan, ziurrago.

Pausoak

Aktibitatean hasi aurretik esplikatu, animatu,...

Garrantzizkoa

Ondo bereiztea non zer egin dezaketen. Puzzleak mahai batean, beste batean marrazkiak, itsatsi, etab.; eraikuntzak alfonbran.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Etxea (1); Panpina (2); Telefonoa (3); Kotxea (4); Seaska (5)	-	1 3 4	2	4	4	4	-
Kotxeak (1); Kamioiak (2); Karroak (3)	-						-
Ipuinak	-	+					-
Eraikuntzak (1); Enkajableak (2); Bola enkastratuak (3)	-	1 2	1	1	1	1	-
Marrazkiak(1); Plastilina (2); Gometzak (3)	-	4 2	4 2	2	4 2	2	-
Arbela (1); Ispilua (2)	-		1		1	1	-
Puzzleak	-			1	2	1	-
Uztaiak	-						-
Albuma	-		+	+	+	+	-
Trizikloa	-	+	+	+	+	+	-
Zaldia	-						-
Baloia	-						-
Materialak jaso	-					+	-

- = ez dira etorri. Ylenia gaixorik

2000/XI/17

9:00 Ylenia eta Haizea datoz. Biak margotegian collage-ak egiten hasten dira.

Arantxak: Tenperarekin aritu ziren lehengoan eta nahiko ondo

9:35 Ipuina kontatzen ari dira mahaian eserita, "Satorrarena". Ylenia segituan mugitzen hasten da.

9:40 Imanol iristen da bere amonarekin.

9:45 Xabier amonarekin dator, triste xamar sartzen da; ez du mantala jantzi nahi eta Arantxak ipuina kontatzen dio. Yleniari txupetea utzi arazten dio eta krema ematen dio ezpainetan.

Haizea hitz egiten askatzen ari da eta "hitz toteltasuna" gehiago nabaritzen zaio: "Y lo y lo y lo y lo y lo y luego yo"

GELA BARRUKO EGITURA

ETXEA

ALFONBRA

PUZZLEAK

MARGOTEGIA

Eraikuntzak

Ipuinak

9:50 Tenpera. Mahaia forratzen du andereñoak zikindu ez dadin. Platertxo batzuetan jartzen ditu margoak. Mantel handi bat jartzen dute.

Urdina zuriarekin nahastuta landuko dute.

Gorria txuri pixka batekin nahastuta eta pintzelekin paper A3 batean (haur bakoitzak berea) margotzen hasten dira. Aurrena bi hurrekin eta gero hirugarrenarekin: Haizea, Imanol eta Ylenia; Xabierrek ez du nahi. Bukatu dutenean eskuak gora jaso eta komunera doaz eskuak garbitzera.

10:05 Danel dator, berak ere margotu nahi du; honek margotzen duen bitartean Xabier eta Imanol puzzleak egiten ari dira.

10:10 Gaizka dator. Atzo kendu omen zioten paketea lehenengo aldiz eta nahiz eta berak ez zuen eskatzen komunera joatea, tarteka komunera eramanez, ez omen zuen galtzetan pixarik egin (behin bakarrik, etorri berrian, behar bada, etxean jarri ez zutelako). Jangelaz arduratzen den emakumeak ere bitan jarri omen zuen komunean eta gero, siestarako paketea jarri omen zion.

10:25 Ipuinak: "Teo"-rena galderak eginez. "Arratoi"-arena. Haizeak eta Yleniak entzuten dute.

10:35 Goazen komunera denok pixa egin eta gero gailetak jango ditugu.

Zu jatorra zara baina Yleniari min egin diozu. Danelek: "Hemos pasado bien" pero yo soy "gaizki". Arantxak: Ez, zu oso jatorra zara baina mina eman gabe. Oso barneratuta daukala dirudi Danelek bera gaiztoa dela.

10:45 Komunean, lagunduz, pixa egiten dute, galtzak igo, ura edan eta gelara itzultzen dira.

Gosaria

Ipuina: "Askiguigui" ... Denak entzuten dute arretaz; orain dela 15 egun baino atentzio gehiagorekin (ezagutzen dute) "plas" esaten dute eta je, je, je.

Fruta zuritzen: sagarrari azala kentzen dion bitartean, **luzea, motza, gorria** lantzen dute. Luzea atera da, e?, Hau luzea da?, ez, motza.

Abestiak: Jan, jan, jan eta jan...

Traktore baten gainean...

Olentzerori buruzko galderak.

13 minutu egon dira eserita mugitu gabe.

11:00 Trizikloan ibiltzera joango gara. "Kojinak jaso". Pizinan ibili dira, Xabier berriz, gelan.

11:45 Gelara sartu eta eraikuntzekin, puzzleekin, zaldian....

11:55 Errepide zirkuitu bat egin dute eta kotxeak gainean jarriz dabilta Gaizka, Imanol, Xabier eta Danel.

Euskera

Esaldi motzak errepikatzen dituzte.

Aurrerapausoak

Denak eserita egon dira, mugitu gabe, gosari guztian.

Oso ondo jarraitu dute ipuina.

Ondo jarraitu dituzte abestiak, dakitena abestuz.

Imanol ere, hobeto mantendu da eserita.

Elkarrekintza

Gaizkak Daneli ematen dizkio piezak: "toma" esanez.

Arauak

Ez bota horrela, mina ematen duzu, bestela, beste zerbaitekin jolastu beharko duzu.

Oharrak

Oso argi adierazten du beti "ekintza" edo jokabide desegokia eta umea bera denaren arteko desberdintasuna. Ad.: Zu jatorra zara baina mina eman diozu.

Arauk bete ahal izateko, arazoak dauzkatenean, batzuetan, fisikoki eskutik heldu eta beraiekin joaten da lortu nahi duena egin dezaten. Ad.: Zerbait bota dutenean “..... hau ez da pilota bat eta utzi bere lekuan”

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Etxea (1); Panpina (2); Telefonoa (3); Kotxea (4); Seaska (5)		1	1 2 3 5*	4	-		1 2
Kotxeak(1); Kamioiak (2); Karroak (3)					-		
Bolatxoak					-		
Eraikuntzak (1); Enkaj. (2); Bola enkas (3)	1	1	2	1	-	1	
Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometxak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6)	6		5 6	6	-		5 6
Arbela (1); Ispilua (2)					-		
Puzzleak (1); Irudiak (2)		1		1	-	1	
Uztaiak			+		-		
Albuma					-		+
Xaboi ponpak			+	+	-		
Zaldia	+				-		
Baloia					-		
Materialak jaso					-	+	

* Etxean gaur gehiena dabilena Haizea da

- Sonia ez da etorri (atzo ekarri zuten bere ama etxera klinikatik)

2000/XI/30

9:00 Ylenia gaur amarekin etorri da eta jangelan geldituko da lehenengo aldiz. Aurreko bi arratsaldetan ekarri omen dute.

9:25 Sonia bere amarekin sartzan da. Ama, ospitaletik etorri berria da eta makuluekin dabil. Gelan egon da 15 minutu eta agur esan ondoren joan da.

Arantxak: Lehenengo eguna da konforme gelditzen dela; astearte arte amonarekin etorri da eta aste honetan amarekin. Atzo, joan zenean, negarrez gelditu zen, gaur ez zuen gelan sartu nahi baina ama mahaian eseri eta egon denean, lasai zegoen eta horrela dagoela dirudi.

9:50 Xabierrek pixa egin du, beti eskatzen du baina, gaur ez. Arantxak aldatu egin du.

9:55 Danel etortzen denean gora joango gara, psikomotrizitate gelara.

10:00 Musika jarrita, Danelen zain.

Yleniak Haizea heldu eta bota egin du, oraindik agresibitate dexente agertzen du.

Komunera joan, pixa egin eta ura edan dute.

Arauk Gogorazten

. Psikomotrizitatera sartzerakoan:

- 1.- Ondo pasatzera etorri gara.
- 2.- Ezin da minik eman.
- 3.- Ezin da koska egin.
- 4.- Ezin da jo.

Danel, denak pasa behar dugu ondo; berak: **“bai”**.

Ylenia, hona etorri gara ondo pasatzera (iletatik tira dio Haizeari).

Danelek: Va a venir el “sacamantecas”.

Arantxak: Zeinek esaten dizu hori? D.: Mi padre; eso me dice para asustarme.

Quiero darle una paliza. Arantxak: Honi emaiozu zure indar guztiarekin (blokeari) eta egiten du.

A-k: Sartu galtzerdiak botetan (kanpoan)

D-k: Sí, pero no me riñas

A-k: Jo, hauekin, “mangitoekin” Paliza handia eman.

D-k: ¿me dejas? Imanolek: No.

A-k: Orduan itxoin egin behar duzu.

Danelek ez du Imanol bakean uzten. Arantxak: Eskatu al diozu? Trena egingo dugu?

10:45 Xabier oso gustura dabil psikomotrizitate gelan.

Soniak hitz asko errepikatzen ditu euskaraz; ama ere saiatzen omen da, ulertzen omen du euskaraz eta Arantxak dio Soniari nabaritzen zaiola.

10:50 Abestia: “Uztaiak gora-gora lurretik...” (denak).

Danel: Esto es **txikia**? Nolakoa da hori? **Handia**.

Sonia: Yo quiero **bota uztaia**.

Arantxak Daneli: Nahi duzu koska egin? Sí. Emango dizut eta koska egitekoa ematen dio.

Soniak ere eskatzen du.

Arantxak: Danel ez dago lasai hemen eta gelara eskatzen du, egonezina dauka.

Imanolek ere erabiltzen du koska egitekoa.

11:10 Borobilean jarri eta elkarrizketa motz bat egiten dute. Zer moduz pasa duten, zer egin duten...

Zapatilak jantzi eta gelara joango gara.

11:20 Gosaria: Kojinen gainean eserita frutak eta gailetak banatzen ditu. Denak daude ondo borobilean. Orain kokak jango ditugu.

Ipuina: Doña Carmenen ipuina kontatzen du (andereñoak berak prestatutakoa). Oso adi daude ipuina entzuten eta keinuak eginez jarraitzen dute. Animalien soinuak egiten dituzte: beee, muuu, miaaaau, uauuuu. Azkeneko bi lamina arte oso ondo egon dira.

Abestiak: Olentzero...

Trakatan trakatan hiru errege...

Olentzero begi gorri...

Gailetekin: Nolako da gaileta hau? **Soniak:** **borobila.** Eta hau? **karratua.** Xabierrek ere.

20 minutu egon dira borobilean: jan, abestu, ipuina entzun...

11:40 Kojinak jaso eta kalera joango gara.

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Saltoka (1); Txiribuelbaka (2)	2		1 2	1	2	2	1
Uztaiak (1); Pelotak (2)	1	1 2	1 2	1	1 2	1	1
Txirista; Ranpa	+	+	+	+		+	+
Makilak							
Abestiak							
Autobusa							
Egurak				+			
Materiala jaso							

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Etxea (1); Panpina (2); Telefonoa (3); Kotxea (4); Seaska (5)				4			
Kotxeak(1); Kamioiak (2); Karroak (3)							
Bolatxoak							
Eraikuntzak (1); Enkaj. (2); Bola enkas (3)					2		
Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometzak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6)			1 *		3 *	3	1
Arbela (1); Ispilua (2)							
Puzzleak (1); Irudiak (2)							
Uztaiak							
Albuma							
Xaboi ponpak							
Zaldia							
Baloia							
Materialak jaso							

* 25 minutu

2000/XII/15

9:00 Ylenia autobusean dator.

9:20 Haizea eta Ylenia guraizeekin katalogoetatik jostailuen irudiak mozten ari dira.

9:35 Xaboi ponpak egiten.

Bihar larunbata, Santo Tomasen jaia ospatuko dute Astigarragako ikastetxean. Urte bakoitzeko umeez zerbait elaboratzen dute eta gero, egun horretan, saldu egiten dute. Adib.: 3 urtekoek mazapanak, 4koak turroia. Gurasoei eskatu zien errezeta Arantxak eta egiten aritu omen dira.

9:55 Denak etorri direnean **treneko leihoak** altxatzen dituzte: Ylenia etorri da? Baiiii. Imanol etorri da?

Zein ez da etorri gaur? Danel. Mina dauka eta horregatik ez da gaur etorri.

10:00 Ipuinak ateratzen ditu Arantxak eta borobilean esertzen dira Xabier izan ezik. Ipuin bat kontatzen hasten da eta lasai-lasai daude.

10:10 Gelan bueltaka: Haizea, Gaizka, Xabier kotxe eta telefonoarekin.

Arauk gogorarazten

. Gaizka, baloiarekin ezin da hemen jolastu. G.: En la calle?

. Ipuinak zapaltzen ari zara, ipuinak ez dira zapaltzen.

. Pilota horiek ez bota. Begiratu niri Imanol. Oso gogorrak dira eta mina ematen dute.

. Orain jaso egingo ditugu ipuinak bere tokian.

10:15 Gosaria: Palomitak egingo ditugu gaur. Denak hurbiltzen dira. Aparailu bat daukate eta artoarekin, martxan jartzen dira eta txalokatzen hasi dira. Egin eta jan egin dituzte. Orain alfonbran eseriko gara gosaltzen jarraitzeko.

10:40 Sagarraren azala, luze-luzea egin du eta errepikatzen dute: luzea, gero motza.

Abestiak: Trakatan-trakatan ...

Olentzero...

Danel gaixo dago buruko minakin.... Xabier joan zaio...(abesti hau erabiltzen dute etorri ez direnak gogoratuz)

Astoa ikusi nuen betaurrekoekin...

Traktore baten gainean....

10:45 Ipuina: Mari Dominguirena kontatzen die.

Soniak, ezagutzen dituen hitzak parrez errepikatzen ditu.

10:50 Ipuina entzun ondoren patatak banatzen dituzte (poltsakoak). Yleniak ekarri du poltsa, baina etorri aurretik, autobusean, ia denak jan ditu.

Gosariarekin lantzen dituzten hainbat helburu: Gauzak konpartitzea, hartzen duten pusketa dena jatea -bestela ez hartzea-, ondo jaten ikastea, kontzeptuak lantzea, sozializatzen joatea.

Soniak: "**Arlote zikina**" (ipuinetik)

11:00 Pixa egitera, denok komunera. Ura edatera ere.

Komuneko buelta egin ondoren hallean gelditzen dira jolasten.

11:55 Gelara sartzen dira; gauzak jasotzen dituzte, txamarrak jantzi eta etxera.

Oharrak:

. Eskolako sarrerako atean "**AINHOA ZORIONAK**" jartzen du gaur.

. Haizeari pasa zaio hitz moteltasuna.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Etxea (1); Panpina (2); Telefonoa (3); Kotxea (4); Seaska (5)	-	4	4 3	4 3	3	4 6 3	
Kotxeak(1); Kamioiak (2); Karroak (3)	-						
Bolatxoak	-	+	+	+	+		+
Eraikuntzak (1); Enkaj. (2); Bola enkastratuak (3)	-						
Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometxak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6); Moztu-Esk. (7)	-		7*		7*	7*	7*
Arbela (1); Ispilua (2)	-						
Puzzleak (1); Irudiak (2)	-						
Uztaiak	-						
Albuma	-						
Xaboi ponpak	-						
Zaldia	-						
Baloia	-						
Materiala jaso	-	+	+	+	+	+	+

- = Ez da etorri

* = Papera hartu eta eskuekin tirak egin

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEAK: URTARRILLA - OTSAILA

IKASLEAK/EGUNAK	12	2	20
Danel	9:55 - 12:00	10:00 - 12:00	10:00 - 12:00
Gaizka	9:55 - 12:00 14:45 - 16:30	10:10 - 16:30	11:20 - 16:30
Haizea	9:00 - 12:00 14:45 - 16:30	9:00 - 11:50	9:00 - 12:00
Imanol	9:00 - 12:00 14:45 - 16:30	9:00 - 12:00	9:15 - 12:00
Sonia	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:30 - 12:00
Xabier	9:40 - 12:00	9:40 - 12:00	9:15 - 12:00
Ylenia	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30

2001/I/12

9:15 Lau haur daude: Imanol, Sonia, Haizea, Ylenia.

Tenperekin margotzeko prest, txandaka: mantal handiak jantzi eta kolore **gorria, berdea eta horia** erabiliko dituzte. Aurrena binaka, Sonia eta Imanol, beste biiek itxoin egin behar dute eta begira daude. Yleniari kostatzen zaio zain egotea.

Oporrak izan ondoren, Gaizkari, kosta egin omen zaio ohitzea, bestela, arratsaldez ere 4 haur gelditzen direla esaten dit Arantxak.

Musika jartzen du Arantxak.

Soniak pintura berdea nahi du eta eskatzeko esaten dio, mesedez. S.: no me deja. Arantxak: ez du bukatu, itxoin.

Yleniak kubo batzuk hartzen ditu zain dagoen bitartean eta beste mahaian jartzen da esanez: ahí no, aquí sí.

Bukatu dutenean, eskuak gora altxatzen dituzte garbitzera joateko eta orain Ylenia eta Haizea hasten dira margotze-lanetan(12 minutu eman dituzte margotzen).

9:40 Xabier aitarekin dator eta danborra ekartzen du.

Arratsaldetan gelditzen direnak: Ylenia, Gaizka, Imanol eta Danel.

Bazkaltzen Ylenia eta Gaizka gelditzen dira.

9:50 Xabierrek tenperekin margotuko du.

Haizeak 10 minutu pasa ditu margotzen.

Yleniak 15 minutu margotzen.

Gaizka amarekin dator eta danborra ekartzen du ere. Amari esaten dio: no me quites esto, eh?

Gaizkak tenperekin margotzen 8 minutu pasa ditu.

10:00 Abestia: Sorginarena, denak korrika hasten dira bata bestearen atzetik. Danelek ere tenpera egin nahi du; 5 minutu pasatzen ditu margotzen.

10:05 Xabierrek pixa eskatzen du eta Soniak ere.

Haizeak "Sorgina pirulina" bere gixa abesten du.

Soniak asko disfrutatzen du musikarekin, oso alai jartzen da.

10:20 Arantxak Ylenia besoetan dauka berak enkajeak egiten dituen bitartean (oso mimosa omen dago) 8 ordu eta erdi pasatzen ditu ikastolan eta egun hauetan bere amak beste haur bat izango du.

Pixa egitera doaz komunera.

10:30 Gosaria, bakoitza bere kojinean eserita.

Sagarraren azalarekin: **luzea, luzea** esaten dute: **luzea, motza** kontzeptuak lantzen dituzte.

Sagarrak, flautak eta zerealak jan dituzte.

Ipuina: "Hiru hartzen ipuina" kontatuko dizuet jaten duzuen bitartean. Oso ondo daude borobilean eta kontentu. Atentzioarekin jarraitzen dute. **Handia, txikia, ertaina** kontzeptuak lantzen ditu ipuinak.

Hainbat hitz esaten dituzte: **lo, begi urdin, ...**

10:55 Jaso kojinak!

Trizikloekin jolastera atera nahi duzue? **Baiii.**

Arantxak: *Imanol ordu honetan negarrez hasten da, ez dakit patioak zer gogorarazten dion.*

Goizeko jarduerak

- Tenperak
- Abestiak
- Enkajeak
- Etxean: seaskarekin, kotxearekin, panpinekin,....
- Komunera

- Gosaria: Ipuinak / Abestiak / Galderak: familiakoen ingurukoak. Ad.: zure aitona badu astoa? Ez, tiene tractor, Ferrari y yo un Ford.
- Eguraldia: Gaur euria ari du? Ez, eguzkia dago
- Danborradako abestia: Donostia...

Gaur barruan geldituko dira kanpoan hotz egiten duelako. Trizikloak, baloia, kotxeak, pilotak.

Yleniak txupetea gutxiago erabiltzen du baina zerbait behar du koska egiteko.

Iskanbila batzuk: Imanolek negar egiten du nahi duena lortzen ez duenean. Ylenia magalean hartzen du; Daneli ere eskaintzen dio baina honek ez du nahi.

11:45 Danborradaren entsegua. Denek jotzen dute.

12:00 Orain hasiko gara prestatzen etxera joateko. Jasotzen hasiko gara.

Aulkiak beren lekuan utzi.

12:05 Etxekoak bila etorri bitartean ipuinekin daude alfonbra gainean eserita.

Arauk

- . Horrekin ezin da mahai honetan, zikindu egingo da eta.
- . Gaizka hori ez da baloi bat (panpinari ostikoka).
- . Komunera joateko telefonoa hemen utzi behar da.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
ETXEAN: * Panpina (1); Telefonoa (2); Kotxea (3); Seaska (4)	2		1 *	* 4 2	1 4 *	2	
MARGOTEGIAN: Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometxak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6); Moztu-Esk. (7); Puzzleak (8); Irudiak (9); Enkajeak (10)	6 8	6 8	6	6 10	6 10	6 10	6 10
ALFONBRAN: Ipuinak (1); Eraikuntzak (2); Kamioiak (3); Kotxeak (4); Argazki- albumak (5)							
ARBELEAN: Marraztu (1); Borratu (2)	1 2						
HALL-EAN: Trizikloak (1); Kotxeak (2); Kamioak (3)	1 2 3	1 2 3			1 2 3		
MATERIALA JASO	+	+	+		+	+	+

2001/II/02

9:00 Argizarizko margoekin hasten dira margotzen.

9:25 "Sorgina pirulina" borobilean egiten dute. Ikasi dutela esaten dit Arantzak.

9:40 Xabierrek, mantala janzten uzten dio orain Arantzari margotzen hasi aurretik

Musika jarrita ari dira: "Taka taka taka denok batera kanta".

Yleniak bere gisa: **Bat, bi, hiru...**

Inauterietako, "eskimalez" jantziko dira.

Arantxari Danelengatik galdetzen diot, zer moduz dabilen eta erantzuten dit: *Ez da lasai jartzen gauza bat egiteko; gauza asko ateratzen ditu baina batera eta bestera ibiltzen da, gelditu gabe. Behar bada, etxean ere ez dago ohituta patxaran norbaitekin eserita egoten eta amarekin hitz egin behar dut honetaz. Dena da tita-tita...*

10:00 Mahai batean ari dira bost haurrak aldizkarietako orriak mozten.

Gaizka dator, ama ondo agurtzen du eta gustura gelditzen da.

Danel ez da hain gustura gelditzen lehenengo momentuan baina segituan inguratzen da mahaira eta orri zatiak mozten hasten da.

Oharrak

Gaizka eta Danel 10:00etan etortzen direnez eta beste bostak 9:15etan, zaila da hauek 10:00ak arte margotzen mantentzea eta arrazoi horrexegatik, batzuetan, Gaizka eta Danel aktibitate hau egin gabe gelditzen dira.

Danelek, aurpegian oraindik marka asko dauka herpesarenak (ukendu bat eman behar diote beste 3 hilabetean).

10:10 Xabierrek pixa eskatzen du, besteak ere komunera doaz: "yo también quiero pixa". Komunikatzen, batera datoz.

10:20 Alfonbran jartzen dira "dorreak" eginez. Imanolek, berak pistola egin duela esan duenean, beste guztiek, gauza bera esaten dute: "para matar a la sorgina".

Soniak: Arantxa!, cantamos?

Yleniak Haizea jo egin du.

10:25 Jaso dena eta gosaldu egingo dugu.

Kojinak hartu eta esertzen dira.

Gosaria: Sagarrarekin: Luzea, luze-luzea,...

Elkarrizketa: Inauteriei buruzkoa. Bai al dakizue eskimalak non bizi diren? Begira nolakoak diren eskimalen etxeak (ipuin bat erabiltzen dute).

Abestiak: "Sapitoarena", "Klin klan", "Eskua nahi dut jolasteko, laguntzeko..."

Haizea ez da ondo sentitzen eta Arantxak amari deitzen dio. Tripan min duela esaten du.

11:00 Diapositibak: "Hiru txerrikumeen" ipuina. Lurrean etzanda jartzen dira bata bestearen ondoan: Imanol, Danel, Gaizka, Ylenia, Xabier.

11:10 Nahiko ondo egon dira 10 minututan.

Orain, trizikloak hartu eta pizina inguruan dabilta bueltaka.

11:30 Patiora atera dira.

Gaizkak, Soniak eta Yleniak mandarina bana oso ondo zuritu dute.

12:00 Haurren bila datoz: Xabierren aita, Imanolen ama, Soniaren amona, Danelen ama. Gaizka eta Ylenia jangelan geldituko dira.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
ETXEAN: * Panpina (1); Telefonoa (2); Kotxea (3); Seaska (4)			1 *	* 4 2	1 4 *	2	
MARGOTEGIAN: Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometzak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6); Moztu-Esk. (7); Puzzleak (8); Irudiak (9); Enkajeak (10)	7	7	6	6 10	6 10	6 10	6 10
ALFONBRAN: Ipuinak (1); Eraikuntzak (2); Kamioiak (3); Kotxeak (4); Argazki- albumak (5)	2	2					
ARBELEAN: Marraztu (1); Borratu (2)							
HALL-EAN: Trizikloak (1); Kotxeak (2); Kamioak (3)						1 2 3	1 2 3
MATERIALA JASO		+	+		+	+	

2001/II/20

9:00 Xabierrek: Mukiak!

Arantxak: Kendu mukiak, mesedez.

Inauteriak prestatzen ari dira "Eskimalez" mozorrotzeko eta jantziak prestatzen.

Arantxari galdetzen diot ea konturatzen diren Inauteriak zer diren eta erantzuten dit: *Bueno, abestia ikasten ari dira eta atzo izan genuen gurasoekin bilera eta etxean ere mozorrotuko omen dira*".

9:30 "Pingu" ikustera joango gara. Imanolek: Yo no quiero. Baina telebistatik ez da Pingu ateratzen (A-k) Haizeak: Pero Xabier, yo y Imanol sí.

Esertzen dira, Imanolek zergatik ez duen joan nahi komentatzeko eta beldurra ematen diola adierazten du.

I-ri buruz Arantxak esaten dit: *Bere amarekin atzo hitz egin nuen eta orain semearekin ama gehiago omen dago, hobeto ikusten dut baina, aiton-amonak beldurtuta daukate. 'Si no haces esto vendrá el coco', 'si no te vas a la cama te quito los juguetes'...*

9:45 Bideora doaz. Imanolek ezetxean jarraitzen du baina konformatzen da -dantzatu gabe-.

Arantxak: *"Atzoko gurasoen bileran 'gaueko gaia' atera zen eta, ume baten amak esaten zuen, berak, lehentasuna lo egiteari ematen diola eta ume batekin lo egiten duela eta senarrak bestearekin. Gaua oso delikatua da eta gauza berriak gauean sartzea ez da komeni"...*

Xabier, Ylenia, Sonia eta Haizea kantari eta dantzan dabilta, keinuak eta mugimenduak eginez.

Imanol, ez da erabat sartu.

9:55 Komunera joango gara. Aurrena pixa egin eta gero ura edango dugu.

Ondoren, **psikomotrizitate gelara** joango gara.

10:05 Zapatak eta jertseak kendu eta barrura sartu aurretik, lurrean eserita elkarrizketatxo bat egiten dute arauak gogoraraziz. Zertara etorri gara? ... Ondo pasatzera gatoz, denak. Orduan, ezin da:

. **Bultza**

. **Harramaska egin**

. **Jo**

Danelek: **Ezin da bultza.**

Arantxak: Jarri zutik eta orain esango dut: Bat, bi, hiru. Korrika sartzen dira eta 'pareta' botatzen dute.

Arantxak: Haizea, zer egin duzu? Haizeak: Txirrista. Zeinekin? Pues aquí. Zenekin?

"Aurrerapen handiak nabaritzen dira lehenengo egunetatik. Gurasoek galdetzen didate ea nola lortzen ditudan nik eurek lortzen ez dituzten gauzak eta, erantzuten diet: behin eta berriro eta berriro eginez, errepikatuz eta beraiekin egonez eta gurasoek esaten didate egia dela, beraiek askotan ezin direla horrenbeste dedikatu, ezin direla eurekin egon, mila gauza egin behar dituztelako".

Xabierrekin, Danel, Sonia. Zertan ibili zara? Martin, baina Martin...

Xabier, zenekin ibili zara? **Imanolekin, saltoa.** Banan-banan galdetzen die denei.

Arantxak.: Momentu batean Xabier besoetan hartzen du. Besteek kuboak buruan jartzen dituzte eta bera beldurtu egin da.

Danborrada jotzen dute.

Txabola/etxe bat egin du Arantxak eta umeak barrura sartzen dira; joko da: nor naiz ni? (ahotsa aldatuz, otsoarena eginez) eta denak ateratzen dira: " que miedo!". A-k: Orain zein izango da otsoa? Haizeak: yo no. A-k: Otsoa ezin da barrura sartu, otsoak atea jo behar du. Yleniak egiten du otsoarena.

Danelek: Pon, pon. A-k: Nola esaten da? Ipini. Berak: **ipini.** A-k: mesedez. D.: **mesedez.** D.: Aibala hostia!

11:00 Ipuina: "Pokima-rena" (eskimala)

Danelek: Tu has ido donde Pokima? Arantxak: Ez.

D-k: Un terremoto ha habido. A-k: Non? En El Salvador.

A.:k: Pokimak ditu 7 urte, eta zuk Haizea? Horrela, galdera bakoitzari egiten dio eta denek erantzuten dute.

Xabierrek: Pixa eskatzen du eta mukiak kentzeko ere.

Soniak: Tengo en casa un triciclo

Arantxak: Nolakoa? Pues rojo, amarillo y muchas cosas.

A.-k: *Arratsaldean 2 haur bakarrik gelditzen dira, Ylenia eta Gaizka eta, Gaizkak lo egiten duenez, Ylenia aspertu egiten da bera bakarrik.*

Momentu batean 3 neskak oihalekin jolasten zeuden bitartean 3 mutilak koltxonetan etzanda egon dira.

A-k: "Lotan nago, begiak itxita..." Soniak eta Haizeak begiak ixten dituzte.

Imanolek: Puta, la puta.

A.-k: Zeinek esaten ditu gauza horiek?

Danelek: Yo.

Abestia: "Uztaia, nahi duzu: handia, ..."

11:10 Orain jaso egingo dugu. Oinetakoak janzten dituzte; Soniak, galtzerdiak berak janzten ditu, laguntzarik gabe. Gelara doaz.

11:20 Gosaria: Gaur motxa egingo dugu. Denek hartzen dute kojina eta alfonbran esertzen dira. Aurrena kiwia, gero gailetak...

Gaizka orain dator, amak presaka eta korrika alde egiten du ezer esan gabe.

11:30 Jertseak jantzi eta pizsinara ateratzen dira.

Elkarrekin momentuak psikomotrizitate gelan

Soniak: Quieres jugar con una pelota Xabier?.

S-k Imanoli biberioia ematen dio eta esaten: está riquísimo.

S-k: Ylenia, quieres biberón? Esnea armariotik hartuko balu bezala egiten du, gero tapa jarri eta Yleniaren bila doa.

Oharrak

- . Orain dela 3 asterekin alderatuz, interes nabarmena adierazten dute ipuin honekin.
- . Haizeak, Soniak, ... denak deitzen diote bere izenez Arantxari.
- . Danel, momentu batean oso urduri dabil eta Arantxak magalean hartzen du. Pixka bat egotea lortzen du; hasieran, ez zuen nahi izaten.

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Saltoka (1); Txiribueltaka (2)	1 2	-	1 2	1 2	1 2	1 2	1 2
Uztaiak (1); Pelotak (2)	1	-	1	1	1 2	1 2	1
Txirrista; Ranpa	+	-	+	+		+	
Makilak	+	-		+	+	+	+
Abestiak		-	+		+		
Autobusa	+	-	+	+	+	+	+
Egurak	+	-	+	+	+	+	+
Materiala jaso	+	-	+		+	+	+

* = Binaka, ohial handi baten gainean jarri eta A-k tiratzen du haurrak erori arte

** = Koltxoneta gainean 4 haur jartzen dira eta A-k gelari buelta ematen dio. Gero, 5 haur jartzen dira.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
ETXEAN: * Panpina (1); Telefonoa (2); Kotxea (3); Seaska (4)							
MARGOTEGIAN: Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometxak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6); Moztu-Esk. (7); Puzzleak (8); Irudiak (9); Enkajeak (10)			3	3		3	3
ALFONBRAN: Ipuinak (1); Eraikuntzak (2); Kamioiak (3); Kotxeak (4); Argazki- albumak (5)							
ARBELEAN: Marraztu (1); Borratu (2)							
HALL-EAN: Trizikloak (1); Kotxeak (2); Kamioak (3)							
MATERIALA JASO							

Inauterietako jantziei gometxak jartzen

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEAK: MARTXOA APIRILA

IKASLEAK/EGUNAK	13	3	27
DANEL	10:05 - 12:00	10:10 - 12:10	10:10 - 12:00
GAIZKA	-	-	9:40 - 16:30
HAIZEA	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
IMANOL	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	- *
SONIA	9:00 - 12:00	9:00 - 12:10	9:00 - 12:00
XABIER	9:00 - 12:00	9:20 - 12:00	9:00 - 12:00
YLENIA	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30

2001/III/13

9:30 Sonia eta Ylenia Arantzarekin dabilta "Memory" jokoarekin

MEMORY JOKOA

Bi elementu berdin ateratzen dituzte. Ad.: kandela bat eta beste kandela bat eta hegazkina ez dago, dio Haizeak segituan. Gainontzeko haurrak inguratzen dira eta jolasten hasten dira. Oso gustura, denak parrez. Hiztegia ikasteko, elkarrekin ibiltzeko, txandak mantentzen ikasteko,

euskaraz hitz egiteko, arauak ikasteko (2 altxatu behar dira, ez gehiago), memoria lantzeko, helburu asko lor daitezke joko honen bidez.

Arantxak: *Imanolek egun txar xamarrak izan ditu. Bere amak espero du ebakuntza egin ondoren dena pasako zaiola (haragi faltuak edo begetazioak kentzean)*

12 minutu aritu dira baina Haizeak eta Soniak jarraitu nahi dute.

Xabier eta Imanol egur pusketekin soinua egiten (bata bestearekin joka); berehala, Haizea eta Soniak ere joko bera.

Abestuz egiten dute denek: "Hor dabil Martin tin tin..." (egurrekin).

10:00 Korroan jarrita: Sorgina pirulina...

Arantxak: Ikasi dugu korroan ibiltzen.

10:05 Orain komunera joan, ura edan eta psikomotrizitate gelara joango gara.

10:15 Zertara etorri gara? Xabierrek: **oso ondo pasatzera.**

Arauk gogorarazten

- . Ezin da harramaska egin.
- . Ezin da bultza.
- . Koska ere ez.
- . Ezin da jo.
- . Salto egitean, abisatu egin behar da.
- . Hitz itsusiak ere ezin dira esan.

Saltoak eta txiribueltak ematen hasi dira. Paretaren kontra jarri!. "¿Oye?, eta **lo** también vamos a hacer". Bat, bi eta hiru eta denak korrika hasten dira espumazko piezen kontra.

Saltoak: Xabier, Haizea, Sonia.

Txirrista: Imanol, Xabier, Sonia.

Soniak: Kendu Ylenia, ez, bai. Soniak: Ya le he dicho. Arantxak: Ba berriro esan. Zer esan dizu Soniak?. Y.: **Kendu.**

Arantxak: Lortu dugu Xabierrek kuboa buru gainean jartzea.

Danel komunera bakarrik joan da pixa egitera eta bueltakoan: "he bebido agua"

Hitz asko errepikatzen dituzte euskaraz.

Autobusean: Oihal baten gainean jartzen dira eta Arantxak, pixkanaka, tira egiten du erortzen joaten diren arte. **Berriz, berriz, berriz.** Xabierrek ez du gehiago nahi eta bultza egiten die eror daitezten.

Arantxak erritmo lasaia erabiltzen du gauzak egiteko.

10:30 Armarioa irekiko dugu eta zerbait nahi baduzue, niri eskatu. Soniak: Oye Arantxa quiero éste.

Egurrak, pistola moduan erabiltzen dituzte, batez ere Imanolek.

Danborrada eskatzen dute: “Tatiago”, “Sebastian”.

Danelek: **Astoa**. “Astoa ikusi nuen...”

Ylenia: Ahora Pinto.

Danel: La casa de “**otsoa**”.

Arantxak: Nik egiten dut etxe bat, gu sartzeko. Otsoa ez da etxetan sartzen, e?

Danelek maiz aipatzen ditu: otsoa, sacamantecas, ...

10:40 Etxe bat egiten du Arantxak. Tinbrea jotzen dute etxean sartzeko.

Danel: Va a venir “**otsoa**”.

Nor da? Sonia. Zer nahi duzu? Meter. A-k: Nik egin dut etxea denontzat.

Danel: Esta casa es mía? A-k: Denena, zurea, Haizearena,...

Danel: Yo quiero poner escaleras para “**puskatu**”.

A-k: Denon etxea da eta ez da puskatu behar.

Etxearen alboan eskailera jartzen dute eta umeak igo eta teilatu gainean kolpeak ematen dituzte.

Soniak etxe barrutik: no me rompes a mí la casa, ¿vale?

10:45 Kuboak buru gainean jarrita “... ez dago”.

Soniak: Biberón! A-k: Zertarako? Para preparar.

A-k: Danelek ezin du itxaron, antsietate puntu bat dauka, dena “ri-ra” egin behar du. Ez dakizu jolasten Danel (jo egiten zituen) eta kendu egiten dio boloa.

Uztaiekin jolasean: Zer nahi duzu, uzta handia edo txikia? Handia.

Danel: quiero naranja.

“Uztaia gora gora...” Imanol izan ezik beste denek parte hartzen dute.

Arantxak uztaiak botatzen ditu eta bueltan itzultzen dira.

Imanol: yo quiero. A-k: itxaron uztaia iritsi arte.

Arantxak: Gurasoekin bilera egin zuela esaten dit. Bileraren helburua: **2 urteko haurren ezaugarriez hitz egitea**. Fotokopia bat ematen dit bileran tratatutako puntuekin.

Soniak: Oye, **bukatu da**. Arantxak: Bai, minutu bat falta da eta jaso egingo dugu.

Iñaki sartzen da (atezaina) eta pilota bat ukitzen du eta Yleniak: no, zapatilei begiratz.

11:00 Zer moduz pasa duzue? Danelek: Bien. Xabierrek: txiribuelta no, saltoak. A-k: nolako saltoak? X: **handiak**. A-k: Norekin? X: Imanol, Danel,... y Soniarekin.

A-k: Banan-banan, bakarrik? no, con **Ylenearekin**.

Bakoitzak zer egin duen esaten du.

Ipuina: Orain nik “Txano Gorritxoren” ipuina kontatuko dizuet: “Behin batean...”

Imanolek: “malo lobo”.

Atentzio handiz jarraitzen dute.

Danelek: Y por qué **tirokatu**?

Galderak egiten dizkie ipuinari buruz. Nork hartzen du ezta?

Arantxak: Jaso egin behar dugu. Soniak: yo las pelotas. A-k: beste batzuk uztaiak. Xabier eta Haizeak egurrak jasotzen dituzte.

11:15 Oinetakoak jantzi eta gelara gosaltzera.

11:25 Kojinak hartu eta esertzen dira.

Gosaria

Arantxa, yo kiwi, Yleniak.

Danelek: Gaizka? A-k: Ez da etorri.

Danelek: Qué le ha pasado, ¿pupa?

Sagarrarekin: azal **luzea**.

Danel etzanda dago: no quiero comer sagarra, ya he comido en mi casa.

Ylenia: pupa, negarrez hasi da.

Danelek: Komunera. Arantxak: Ez, hiru aldiz joan zara. Galtzak eta galtzontziloak kentzen ditu eta Imanol parrez hasten da.

A-k: Ikusi ditugu zure ipurdia eta pitilina eta orain hobe duzu janzte, alfonbra zikina dago eta (garbitzaileak greban daude orain dela hilabete)

Imanolek: "con el culo al aire". D: me voy a sentar, baina, ez du kasurik egiten eta Imanolengana hurbiltzen da honek parra egiten diolako. Azkenean, janzen da eta Arantxak eskatzen dio minutu bat eserita egoteko. Niri ere begiratzen dit zer egiten ote dudan.

Abestia: Bere magalean hartzen du Danel ea lasaitzen ote den eta, abestia berak aukeratzeko esaten dio. D: "Klin, klan, ... euri tantak..."

D: Yo no quiero que me cantes. A-k: Ez dizut zuri kantatzen, denei kantatzen dizuet: "Gaizka mimoso... gure Gaizka oso kontentu..." (bakoitzaren izena aipatuz) . Momentu batean Danelek ere eskatzen du berari kantatzeko.

Kojinak jaso!.

11:38 Trizikloekin kanpora ateratzen dira.

12:00 Etxera doaz Ylenia izan ezik, bera jangelan geldituko baita.

12:10 Arantxak gurasoekin izandako bilera komentatzen dit. Lau **ama** etorri omen ziren. Etorri ez zirenetatik, batek deitu omen zion 16:25ean, ea interesgarria izan zen galdetzeko. Nonbait, bileran izandako batek esan zion, bilera oso interesgarria izan zela eta galdetu omen zion ea beste egun batean berari esplikatuko zizkion jorratutako puntuak. Baietz erantzun omen zion Arantxak eta hurrengo eguneko 16:30etarako gelditu omen ziren. Azaltzen ez zela ikustean, ia

17:00etan deitu omen zion Arantzak eta orduantxe zetorrela esan. Trataturako gaietako bat **agresibitate**arena izan zen.

Arauk-Ohiturak

- . Mesedez, utzi jostailu hori orain gosaltzeko.
- . Alfonbran gauden bitartean ez hartu telefonorik.
- . Eztula egitean eskua jarri.
- . Eskatu iezaiozu mesedez.

Oharra

Erritmo lasaia erabiltzen du andereñoak gauzak egiteko.

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Saltoka (1); Txiribuelbaka (2)	1	-	1	1	1	1	
Uztaiak (1); Pelotak (2)	1 2	-	1		1	1	1 2
Txirrista; Ranpa	+	-	+	+	+	+	+
Boloak (1); Kuboak (2)	1 2	-	2	2	2	2	2
Abestiak	+	-	+	+	+	+	+
Autobusa	+	-	+	+	+		
Egurak (1); Palilloak (2); Arkitektura (3)	2	-	1 3	1	1 3	3	3
Materiala jaso	+	-	+	+	+	+	

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
ETXEAN: * Panpina (1); Telefonoa (2); Kotxea (3); Seaska (4)							
MAHAI-JOLASAK: Bolatxoak (1); Puzzleak (2); Irudiak (3); Memory (4)			4	4	4	4	4
MARGOTEGIAN: Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometxak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6); Moztu-Esk. (7); Puzzleak (8); Irudiak (9); Enkajeak (10)							
ALFONBRAN: Ipuinak (1); Eraikuntzak (2); Kamioiak (3); Kotxeak (4); Argazki- albumak (5)							
ARBELEAN: Marraztu (1); Borratu (2)							
HALL-EAN: Trizikloak (1); Kotxeak (2); Kamioak (3)							
MATERIALA JASO							

2001/IV/03

9:20 Imanol, Sonia, eta Ylenia puzzleak egiten ari dira eta osatzen duten bakoitzean Arantxa, Arantxa, begira, esaten diote. Hartzaren puzzlea, jirafarena, tximuarena,...

Ylenia Xabierren bila: Egun on Xabier eta Imanolek ere muxu bat ematen dio.

Haizea beste mahai batean kartetan dabil, bakarrik ari da. Xabierri: y tú, ¿quieres jugar conmigo a cartas?

Arantxak: *Yleniak atzera pausoa egin du azken egunetan edo astetan; goizak politik pasatzen ditu baina arratsaldeak nire magalean jarri eta ez du mugitu ere egin nahi; lehen berriz, gora eta behera gelditu gabe ibiltzen zen. Orokorrean egin du atzeraka. Amak beste haur bat izan du eta desesperatuta omen dabil, aste bukaera ero igo behar omen du batengatik edo bestearengatik erresidentziara, ezinean dabil.*

Imanolek askotan deitzen dio Arantxari; lasaiago ikusten da, zentratuagoa.

Oso giro lasaia sumatzen da.

Lanean ari diren bitartean, galderak egiten dizkie Arantxak: Zeinek dauka hartza?, nolakoa da, beltza ala zuria? Lagundu iezaiozu pixka bat Haizeari Sonia. Soniak: puedes Haizea?

9:40 Beste gelako 4 urteko 2 haur datoz fitxa bat ekartzera.

Sonia, Ylenia eta Imanol 40´egon dira puzzleak egiten. Xabier eta Haizea kartetan 20´ ibili dira.

9:45 Zenekin etorri zara gaur, Sonia? ..., Haizea? Amatxorekin, amonarekin,...

Jokoa: Musika jartzen du Arantxak, animalia eta objektuen soinu desberdinak entzuteko; bitartean, mahai gainean, animalia eta objektu horiek dauzkate: txoriak, mailua, erlojua... Soinua entzun ondoren, identifikatu behar dute eta mahai gainetik animalia edo objektu hori hartu.

9:55 Pixa egitera eta psikomotrizitate gelara joango gara.

Danel eta Gaizka beranduago etortzen direnez, ez daukate martxa berdina hartuta.

Psikomotrizitate gelako arauak gogorarazten

Zertara etorri gara?

Ondo pasatzera.

Salto egiterakoan, kendu, kendu, mesedez, esan behar da.

Pixa bai, baina non?, komunean.

D: No hay que morder.

Atzamarka ere ez.

Hortik, armairutik zerbait behar duzuenean, niri eskatu behar didazue.

Aurrena egin behar ditugu saltoak eta txiribueltak. S: **eta lo**.

Denak paretaren kontra: bat, bi eta hiru.

Txandak errespetatu behar dira.

Arantxak Daneli: Zer pasa da? D: le tengo que decir "**kendu**".

10:20 Autobusa egiten. Bestetan bezalaxe, oihal baten gainean jartzen dira, andereñoak tira egiten du. Denek nahi dute gainean jarri baina, hirunaka eramaten ditu erortzen diren arte.

10:25 Bixerak eta egurrak hartzen dituzte eta "polizia" papera egiten hasten dira, egurrak pistola moduan erabiliz.

Zirkuitu bat egiten du Arantxak beraiek gainean ibil daitezen.

10:40 Palilloak jotzen: Danel, Haizea, Sonia, Xabier.

Abestia: “Lotan nago begiak itxita, ring eta ring ezin lorik egin...” Oihalak hartzen dituzte eta Xabier izan ezik denak etzaten dira, tapatzen ditu eta erlaxatzen dira.

Soniak Arantxa imitatuz: Haizea, “siéntate en el sillón **eta, orain bai**”

10:50 Bost minutu geratzen dira eta aprobetxatu!. Soniak bere aurpegia tapatuz: No estoy. Danelek: y, ¿dónde se ha ido? Besteak imitatzen hasten dira, Xabier izan ezik; dena dela, orain ez da lehen gaina beldurtzen.

Minutu bat bukatzeko!.

Yleniak kuleroak kentzen ditu eta jantzi nahi ditu, saiatzen da eta lortzen du, gero, jertsea kentzen du eta pertxerora eramaten du.

10:55 Eseriko gara, utzi jostailuak, borobilean jartzen dira.

Arantxak: Zer moduz pasa duzue? Ondo. Imanolek: Bien con ella. A-k: Norekin? Ylenia.

Xabierrek: **eta zu Haizea? Saltoak, Imanolekin.** Danelek: Yo con Xabier y Haizea, he bajado por ahí con Imanol y **Arantxarekin.**

Bakoitzak zer egin duen esaten du. X-k: Pues txirrista. A-k: Norekin? Imanolekin.

Yleniak: **Ondo**, Sonia eta Imanol, **saltoak** (bi hitzak euskaraz).

Soniak: **Xabierrekin, Imanolekin.**

Arantxa: Orain kontatuko dizuet “Doña Carmen”-en ipuina.

Danel: “Que el **txakurra** hace **zaunka**”

Ipuinarekin hasi aurretik “Animaliena” errepatatzen dute.

11:00 Ipuina: “Doña Carmen”. Ondo jarraitzen dute. Danelek: Kras, zaunka, kukurruku, miauuu, ...

Ulertzen dute eta disfrutatzen dute.

11:05 Jasoko ditugu jostailuak. Gero, zapatak jantzi eta gelara.

11:15 Gosaria: Kojinak hartu, eseri eta gosaltzera.

Zein ez da etorri gaur? Gaizka. Nor falta da? Bat. Eta, zenbat etorri gara? Danel: un montón, eta kontatzen dituzte: 1, 2, 3, 4, 5, 6 y contigo Arantxa? 7 eta Lorearekin? 8. Soniak: “Flor”.

Kiwiak dauzkate gaur, Danelen baratzakoak.

Danel: Tiene mocos Imanol. Imanolek: Si tengo mocos. D: en la nariz.

H: Me hace daño en la boca.

I: Mocos, **mesedez**, (eskaten dio Arantxari)..

Txanogorritxoren pertsonaiak, bakoitza makilatxo batean erantsita dauzkate. Lehenengo eguna da hau egingo duela Arantxak. Helburua da, ipuinaren pertsonaiak erabiltzea eta errepikatzea. Etxeko gortinaren aurretik azaltzen ditu pertsonaiak, ahotsak aldatuz. Gero, kaxa batean sartzen ditu eurek erabiltzeko.

Danelek pixa egin du galtzetan psikomotrizitate gelan.

12:10 Soniak alde egiterakoan Ylenia agurtzen du: **Agur Ylenia.**

Aurrerapasoak

- . Imanolek askotan deitzen dio Arantxari; lasaiago ikusten da, zentratuagoa.
- . Oso giro lasaia sumatzen da.
- . Lanean ari diren bitartean, galderak egiten dizkie A-k: Zeinek dauka hartza?, nolakoa da, beltza ala zuria? Lagundu iezaiozu pixka bat Haizeari Sonia. Soniak: puedes Haizea?.

Kopuru txikia izatearen abantailak

Haur gutxi izatearekin, giroa lasaia da, agresibitate momentuak ere gutxiagotan ematen dira. Abantaila handia da, bakoitzari kasu egiteko denbora hartzeko eta gehiago pertsonalizatzeko eskaintzen den zaintza, ardura, irakaskuntza...

Oharra

Danel eta Gaizka beranduago etortzen direnez, ez daukate besteen martxa hartuta.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
ETXEAN: * Panpina (1); Telefonoa (2); Kotxea (3); Seaska (4)			1	1			1
MAHAI-JOLASAK: Bolatxoak (1); Puzzleak (2); Irudiak (3); Memory (4); Kartak (5); Soinuen identifikazio jokoak (6)			5 2 6	2 6	2 6	2 6	2 6
MARGOTEGIAN: Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometxak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6); Moztu-Esk. (7); Puzzleak (8); Irudiak (9); Enkajeak (10)							
ALFONBRAN: Ipuinak (1); Eraikuntzak (2); Kamioiak (3); Kotxeak (4); Argazki- albumak (5)							
ARBELEAN: Marraztu (1); Borratu (2)							
HALL-EAN: Trizikloak (1); Kotxeak (2); Kamioak (3)							
MATERIALA JASO							

Oharra: Sartu aurretik zapatak eta galtzerdiak beraiek kendu dituzte: Xabier, Haizea,

Imanol eta Soniak


2001/IV/27

9:30 Arantxak: Margotu egingo dugu.

Iñaki, Iñaki! Atezainarengana ateratzen dira momentu batean eta "beldurtu" egingo balira bezala, korrika itzultzen dira eta gelako etxean sartzen dira.

Aholkuak

A-k: . Margo honekin kontu handia izan behar dugu, arropetan ez da kentzen. Acualux da eta tenpera baino hobeto gelditzen da 'makarroiak' margotzeko.



Bakoitzak kolore desberdinarekin egingo du bere koilarea (urdina, horia, gorria). Xabier margotzen ari den bitartean, besteek, itxoin egiten dute pixka bat, lasai. 10 bat minutu pasa ditu Xabierrek margotzen. Yleniak: **Hau ez!**

9:40 Gaizka dator amarekin. Begira dago Xabierrek nola margotzen duen baina, momentuz, ez du mantala jantzi nahi (denbora behar du, gelan sartu eta martxan jarri arte).

Haizea oso pozik omen dago berak bakarrik lo egiten duelako bere gelan.

9:55 Musika jartzen du Arantxak. Ylenia dantzan hasten da. Besteak argazkiak ikusten ari dira (albumak), gustura.

10:05 Tenpera egingo dute orain. Bakoitzak Din A-3 kartulina bat dauka.

Danel sartzen da eta Arantxak galdetzen dio: Margotu nahi duzu? D: Sí.

Txaloka, eta bueltaka hasten dira dantzan Xabier eta Sonia.

Soniak, patxada handiz margotzen du, rodiloa eta pintzela erabiliz. Yleniak ere oso gustura.

Gelako etxe barruan, normalean, gutxi egoten dira. Haizea dago momentu honetan etxean eta mailuarekin ari da: No puedo cortarlo porque está duro.

Gaizka, Danel, Xabier, animaliekin: jirafa, dinosaurioa, behiak...

Eskuak gora ezer ukitu gabe, margotu ondoren!

Yleniak segituan jartzen ditu eskuak goian eta Soniak ondoren.

Yleniak hitz asko esaten ditu euskaraz, adibidez, **"kaixo, kaixo" -etxe barrutik kanpora-**.

Arantxak: Ylenia, txupetea nahi duzu pixka bat, bai? **Bai.**

Xabier, pixa egin nahi duzu? **Bai.**

Gaizka, bukatu duzu?, jarri eskuak goian garbitzera joateko.

Sonia, zein ederki ipini dituzun, kontatu iezadazu zer diren: **ardia, txerria**, eta, nola egiten dute? eta horrela, banan-banan.

Gaizkak: **"Beida ze motorra"** (margotzen) eta **txerria**.

Haizeak: **“Beida ze moto he hecho yo”**.

Etengabe ari da andereñoa gauzak gogoratu arazten eta proposatzen.

10:40 Gosaria: Kojina hartu eta eseri, gaur, ipuin berri bat kontatuko dizuet. Danel, ekarri zakarrontzia.

Danelek oraindik ez dauka erabat sendatuta aurpegiko ´herpes´-a.

Danel, eseri zaitetz nire ondoan. D: No, yo con Gaizka.

Gaur, zein falta da? Imanol eta, zenbat falta dira? Bat. Eta, zenbat etorri gara ikastolara? Bat, bi, hiru, lau, bost, sei eta nirekin zazpi eta Lorea dagoela atzean eserita, zortzi.

Sagarra banatzen duen bitartean **eguraldia** lantzen: Gaur ze eguraldi dago? Hotza?, ez. Zer daude **zeruan? Hodeiak**. Eta, euria ari du? Ez. Gaizkak: **lainotuta**. Danelek: Por qué tapatuta? Eguzkia hodeiek tapatu dutelako. Y **hotza?** Zer ekarri duzu jantzita? Txaketa eta txamarra... por que... A-k: Hotz handia ez baino hotz pixka bat egiten duelako.

Zenekin etorri zarete? Amatxorekin, amonarekin, Soniak: **amonarekin ez, amarekin** eta jarraitzen du: el aita se ha ido a trabajar con el coche.

Haizea oportetara doa. Zenekin joango zara oportetara? **Amatxorekin eta aitatxorekin**.

Soniak: **Ni amatxorekin, aitatxorekin eta Martinekin**.

Ipuina: Gaur, Hansel eta Gretelen ipuina kontatuko dizuet. Soniak: yo tengo en casa.

Ondo egon dira eta jarraitu dute.

Abestiak: “Klin, klan...”, “Astoa”, “Sapitoa”, “Traktore baten gainean”

Gailetak (bizkotxoak) banatzen ditu eta denek jaten dituzte.

11:00 Jaso kojinak!

Jokoa: Lurrean eseriko gara, “Xagu txiki, xagu maite” borobilean. Soniak: “así no es **borobila, ez dago borobila**”.

“... jango zaitu, denak begiak itxi. Haizeari: harrapatu!. Horrela banan-banan: “xagu txiki, xagu maite, zulo txoan gorde zaitetz... Jango zaitu, ez nau jango”.

“Sorginarena”, korroan egin dute.

Gaizka eta Danel berandu etortzen direnez, ez dakizkitez jokoaren arauak ondo jarraitzen.

11:10 Komunera joango gara.

11:15 - 12:00: Pizsinaren bueltan ibili dira triziklo eta pilotekin.

Komentarioak

A-k: Aurten oso ondo sentitzen naiz. Giroak asko egiten du, bestela, talde handi batean, Gaizka eta Danel bezalako umeak okerrago egongo lirateke eta adib. Xabier bat galduta egon zitekeen. Ylenia eta Haizeari ere, asko izan balira, izan duten atentziorik ezin izango genien eman. Talde txikia izateak, 2 urteko umeentzat, abantaila handia du.

Ez dut bukatzen beste ikasturte batzuetan bezala neka-neka eginda.

Nik, egia esan, patxada handiarekin ikusten dut Arantxa

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
ETXEAN: * Panpina (1); Telefonoa (2); Kotxea (3); Seaska (4)	*		*	-			*2
MAHAI-JOLASAK: Bolatxoak (1); Puzzleak (2); Irudiak (3); Memory (4); Kartak (5); Soinuen identifikazio jokoak (6)				-			
MARGOTEGIAN: Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6); Moztu-Esk. (7); Puzzleak (8); Irudiak (9); Enkajeak (10)	7	7	6 7	-	6 7	6 7	6 7
ALFONBRAN: Ipuinak (1); Eraikuntzak (2); Kamioiak (3); Kotxeak (4); Argazki- albumak (5); Animaliak (6)	5	1 5 6	5	-	5 6	1 5 6	5
ARBELEAN: Marraztu (1); Borratu (2)				-			
HALL-EAN: Trizikloak (1); Kotxeak (2); Kamioak (3)	1	1		-			
MATERIALA JASO				-			

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEAK: MAIATZA EKAINA

IKASLEAK/EGUNAK	18	13
DANEL	9:30 - 12:00	9:45- 12:00
GAIZKA	9:55 - 12:00 14:45 - 16:30	-
HAIZEA	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
IMANOL	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
SONIA	9:00 - 12:00	9:00 - 12:10
XABIER	-	9:00 - 16:30
YLENIA	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30

2001/V/18

9:30 Haizea telefonoz deika ari da, Ylenia eta Sonia margotzen -tenpera eta argizarizko margoekin-, Imanol ere telefonoarekin. Gaur Danel goizago etorri da bere anai txikia UVI-n dagoelako eta galdu xamarra dabil Xabier eta Gaizkarengatik galdetuz.

9:40 Haizea ere margotzen hasi da. Danelek ere eskatzen du baina itxoin egin behar du. Yleniak "mukiak" esaten dio Arantxari.

Soniak 2 egunetan margotu omen du bere marrazkia eta bukatu ondoren, bere apalean jaso du "en mi apala" esanez.

Oso koadro politak egiten ari dira. Kartulina batean, erdian argazki bat eta ingurua etiketekin apaintzen dute; gero kordoi bat jartzen diote zintzilikatzeko.



Gaizkak, margotzerakoan, erdian bakarrik margotzen du, ez du orri guztia betetzen (kapa baten gainean bestea,...)

Gaizkaren ama badoa eta beste muxu bat ematen dio eta amak ere berriro ematen dionean “ya está” esaten du eta pozik gelditzen da.

Imanolek puzzlea bukatu duenean: “Arantxa, ya está, queremos otra vez” esaten dio.

Haizea ordu erdi bada margotzen ari dela. Danelek, berriz, berehala hasi eta utzi nahi du.

Arantxak: Ez dakizu zer egin zidan Yleniak egun batean! Xabier bazkaltzen gelditzen hasi da aitona hil egin zaiolako eta bere ama anai txikiarekin etorri zen, Xabierren bila. Xabierren txamarra hartzera joan nintzen momentuan Yleniak, kristoren koska egin zion ume txikiari (amak esaten zuen, baina, hemen nengoen ni eta ez dakit nola egin dion). Segundu batean!

10:15 Imanol tenperekin margotzen hasi da baina segituan utzi nahi du.

10:20 Haizea, Gaizka eta Imanol elkarrekin puzzlea egiten ari dira. “Esto no va aquí” dio Gaizkak.

Puzzleak ez dira zapaltzen!

Yleniak Arantxari: Antxa, Aantxa, mia, katua.

Soniak: **Hemen no, hemen.**

Elkarrekin gehiago dabilta. Momentu dezentetan batak besteari deituz, jolasean elkarrekin...

Gutxi izateak, mahai batean denak elkarrekin egoteko aukera eskaintzen die ere.

Haizeak 15 egun pasa ditu oporretan eta atzo itzuli omen zen, baina, oso kontentu dabil (amak esan omen zion Arantxari desiratzen zegoela ikastolara bueltatzeko).

10:30 Danelek “trenera” joan, Xabierren leihoa ireki eta hau etorri ez denez, itxi egiten du leihoa berriro eta Arantxak momentu hori aprobetxatzen du zeintzuk etorri diren erreparatzeko.

10:35 Jaso egingo dugu.

Kaseta ipiniko dugu pixka bat, joko bat egiteko; soinu desberdinak identifikatzeko jokoa. “miauuu, miauuu” eta eurek **katua** hartu behar dute multzotik (denak elkarrekin eserita daude). Gero txakurraren hotsa entzun dute eta txakurra seinalatzen dute, ondoren, komuneko bonba, danborra, txoria, suhiltzaileak, telefonoa,

10:50 Gosaria: kojina hartu eta eseri. Gaur, Haizeak ekarriko du zakarrontzia (paretan izenak jarrita daude eta pintza batekin seinalatzen dute nori tokatzen zaion

DANEL
GAIZKA
→ HAIZEA
IMANOL
SONIA
XABIER
YLENIA

Fruta eta bizkotxoa daukate gaur gosaltzeko.

Ipuina: Behin batean urtxintxa...

Elkarrizketa: Zer ikusi genuen lehengoan? Pony-a. Zenbat hanka, zer kolore, isatsa,...

Txartel batzuk. Badakizue zer den hau? “amona mantangorri” erantzuten dute. Txartelen bidez: **gorria, txikia**,... lantzen dituzte. Den dena gorria da? Ez.

11:10 Komunera pixa egitera, ura edatera eta patiora. Gaur eguraldi polita dago eta kanpora joango gara. Trizikloak, baloiak (saskibaloirako), txirrista, zaldiak...

Danelek koska egin dio Imanoli, ezpainetan. Arantxak berarekin hartu du Danel eta aitortzen du koska egin diola baina, zergatik? Porque sí, porque sí, porque sí, hortatik ez da atera. A-k esaten dit azkeneko hiru egunak oso txarrak pasatzen ari dela. Zerbait nahi du eta lortzen duenean beste zerbait nahi du, oso inpultsiboa da.

Zaldian oso ondo dabilta Haizea, Ylenia eta Imanol, elkarrekin.

Koska egite horren aurrean, oso zaila da egoera aurrera eramatea, batez ere, umeen gurasoekin. Arantxak komentatu dit Imanolen amona etortzen bada, ez dakiela nola erreakzionatuko duen.

12:00 Danelen amona etorri da bila gaur eta esaten dio Imanoli barkamena eskatzeko eta muxu emateko. Insistitzen dio -amonak oso ondo hitz egiten du euskaraz- eskatzeko barkamena eta esaten du: gaiztoa da ume hau. Arantxak erantzuten dio **ez dela gaiztoa baina, gaiztakeriak egiten dituela**. Minutu batzuk pasa ondoren Danel eta Imanol besarkatzen dira; Imanol parrez hasten da Danelek besarkatu ondoren.

Nahiko ondo joan da gauza. "Tanto se quieren que se muerden" esaten du aitonak.

Arantxak esaten dit "uuuuu", eta nik: ondo, ezta? eta berak: ondo? "te voy a colgar" esan dio momentu batean eta beste batean, "al cuarto de las ratas te vamos a meter". A-k: Aquí no hay cuarto de las ratas.

A-k dio horrelakoetan ikusten dela zenbat lan egin behar den guraso eta aitona-amonekin, hain barneratuta dauzkagun topikoak erabil ez ditzagun.

Imanol gelako etxean sartu da eta esaten du: "voy a comer mucho para ganarle a Danel". Izugarritzko harreman estua daukate, baina Imanolek, inpotentzia sentitzen du momentu askotan Danelen aurrean.

Arauk

Puzzleak ez dira zapaltzen

Elkarrekintzan aurrerapausoak

Elkarrekin gehiago dabilta. Momentu dezentetan bata besteari deituz, jolasean elkarrekin...

Gutxi izateak, mahai batean denak elkarrekin egoteko aukera eskaintzen die ere.

Egoera gatazkatsuen aurrean erantzuna emateko zailtasunak

Koska egite horren aurrean, oso zaila da egoera aurrera eramatea, batez ere, umeen gurasoekin. Horregatik dio lan handia egin behar dela guraso eta aitona-amonekin, hain barneratuta dauzkagun topikoak erabil ez ditzagun.

Oharra

Eskola margotzen ari dira.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
ETXEAN: * Panpina (1); Telefonoa (2); Kotxea (3); Seaska (4)			2 1	2		-	1
MAHAI-JOLASAK: Bolatxoak (1); Puzzleak (2); Irudiak (3); Memory (4); Kartak (5); Soinuen identifikazio jokoak (6)	2	2	2	2	2	-	2
MARGOTEGIAN: Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometxak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6); Moztu-Esk. (7); Puzzleak (8); Irudiak (9); Enkajeak (10)	1	1	1*	1	1	-	1
ALFONBRAN: puinak (1); Eraikuntzak (2); Kamioiak (3); Kotxeak (4); Argazki- albumak (5)						-	1
ARBELEAN: Marratzu (1); Borratu (2)						-	1 2
HALL-EAN: Trizikloak (1); Kotxeak (2); Kamioak (3)						-	
MATERIALA JASO			+			-	+

* Haizeak 40´darama margotzen

2001/VI/13

9:20 Mahaian eserita, gometxak jartzen ari dira.. Soniak bapatean: **“gaur Soniaren txanda”** (egualdiaren aktibitatea gogoratzuz).

Arantxak: *Asko gogoratu naiz zutaz, pazientzia galdu dut. Oso kurtso bukaera luzea egiten ari zaigu.*

Xabierrek: “mukiak, mukiak”. Xabier ere espabilatzen ari omen da eta Danelek ere lan handia ematen omen du.

9:35 Bakoitzak bere lanak apaletan sartzen ditu. Soniak bere izena identifikatzen du.

Yleniak: **“orain saltoak”** (psikomotrizitate gela gogoratzuz). Puzzleak egiten ari da, Sonia eta, Haizea berriz, panpinari jaten ematen, Imanol eta Xabier etxe barruan dabilta.

9:40 Mahaian jarraitzen dute, orain, guraizeekin papera mozten.

Yleniak trebetasun handia adierazten du guraizeekin, oso pusketa txikiak egiten ditu. Soniak ere bai, baina, 10 hilabeteko diferentzia dute eta adin honetan, asko da.

Xabier 5 minutu pasa ondoren guraizeekin altxa eta alfonbran hasi da enkajableekin.

Musika jarrita ari dira eta “Txalo, txalo, txaloka” entzun dutenean, Ylenia eta Sonia altxa eta dantzan hasi dira, oso ondo mugitzen dira.

9:45 Danel iristen da amarekin, txupetea ahoan duela eta besteek: “yo no tengo txupe”. Danelek: yo sí.... Patrikan sartzen du eta mahaian esertzen da.

Danelen ama kezkatuta bezala sartu da: “se nos ha olvidado la bolsa ... en la mesa de la cocina”. Arantxarekin minutu batzuk hitz egin ondoren, argazki batzuk ematen dizkio, lasaitu egiten da eta itxuraz, ondo joaten da.

9:50 Gaizka amarekin dator. Besteak inguratzen zaizkio eta urduri jartzen da. “Aupa” esaten du. Utzi Gaizka, denbora behar du, gero emango diozu muxu Xabier. Komunera doaz eta Arantxak komentatzen dit orain, egunero, Gaizka horrela etortzen dela.

Yleniak 9:50arte jarraitu du paper pusketak mozten.

Gaizkak ama agurtzen du kanpoko atean eta lasai itzultzen da gelara. Orain jokabide hori agertzen du egunero, bakarrik nahi duela dirudi, autopista egin eta kamioekin dabil, bere gisa hitz eginez.

Idea: Aktibitate batean denbora asko pasatzea vs. aktibitate asko probatzea. Batzuk asko probatzen dituzte baina ezin dira batean kontzentratu.

Danelek segituan utzi dio paperak mozteari.

9:55 Orain pintoreak ez daudenez komunera joango gara pixa egitera.


Margotzen jarraitzen dute eta gaur beheko solairuan dabilta.

Xabierrek komuneko buelta egin ondoren kojina hartu du eta esertzera zihoan gosaltzeko asmoarekin. Hemen ikusten da, eguneroko aktibitateen errepikapenak hartuta dauzkatela -

komunera joan ondoren, gosaria, besteetan horrela egiten dutelako - Gaur komunerako buelta aurreratu egin du Arantxak pintoreak direla eta.

10:05 Alfonbran jartzen dira, borobilean. Zer esan dugu, non egiten direla garrasi horiek? Klean. Esaten die, bestela, buruko mina izango dugu denok.

Egurrezko piezekin joko: Bakoitzari forma desberdinetako piezak ematen dizkio



formak eta koloreak lantzeko. Iguales esaten du Danelek. A-k: Batzuk bai, besteak ez. Ipiniko ditugu gorriak erdian, ia nork dituen gorriak, berdin da karratua, borobila, ... Hori gorria da? Ez, orduan ez. Hori gorria da eta Gaizkak baietz esaten du eta beste batek ez, hori urdina da. Orain borobilak direnak, eta horrela beste guztiekin, pixkanaka-pixkanaka.

Soniak **hiruki** bati: “**hori lauki zuzena**”.

10:20 Hamabost minutu egon dira jokoarekin eta orain **Ipuina**: “Askaiiui, Askauaua”

Ez dira gelditzen, asko mugitzen ari dira gaur eta Arantxari ere nabaritzen zaio ezin duela gehiago.

Makilatxoei jarritako animaliak aprobetxatzen ditu ipuina kontatzeko: sugea, untxia, amona mantangorri, ...

Bakoitzari bat ematen dio gero eta zer egiten duen galdetzen dio.

Material hau Arantxa berak prestatutakoa da: makilatxoari erantsi, margotu eta plastifikatuta dauzka.

10:35 Gosaria

Danelek: “Capullo” (dezentetan esaten du).

Arantxak: Esan genuen hori ez esateko, seguru zure aitak ez duela esaten (bere aitak esaten duela baitio).

Gaizka hasi omen zen “capullo” esaten eta bere amak esan omen zion Arantxari, aitak esaten duela eta berari ez zaiola gaizki iruditzen (amari).

10:45 Jaten eta elkarrizketan. Orain flautak jango ditugu. Yleniak: Garbera. Zeinekin joan zinen? **Amatxorekin.**

Patiora joango gara. Sagarra bukatzean, flautak patioan banatuko ditut.

Jaso kojina, bakoitzak berea apalean jartzen du.

Gaur patioan denbora gehiago egin dute eguraldi ona dagoelako eta baita pintoreek barruan dabilzalako ere. Ez dira gelan sartu 12:00etan eta patioan despeditu ditu banan-banan.

Urduriago sumatu ditut eta iskanbila gehiago sortu dira. Kurtso bukaera...

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
ETXEAN: * Pampina (1); Telefonoa (2); Kotxea (3); Seaska (4)			1	1	2	1	
MAHAI-JOLASAK: Bolatxoak (1); Puzzleak (2); Irudiak (3); Memory (4); Kartak (5); Soinuen identifikazio jokoak (6)							2
MARGOTEGIAN: Marrazkiak (1); Plastilina (2); Gometxak (3); Bolatxoak (4); Collage (5); Tenperak (6); Moztu-Esk. (7); Puzzleak (8); Irudiak (9); Enkajeak (10)	4		4	4	4	4	4
ALFONBRAN: Ipuinak (1); Eraikuntzak (2); Kamioak (3); Kotxeak (4); Argazki-albuma-k (5); Animaliak (6); Enkajableak (7)		3 7				3	
ARBELEAN: Marraztu (1); Borratu (2)							
HALL-EAN: Trizikloak (1); Kotxeak (2); Kamioak (3)						-	
MATERIALA JASO	+	+	+	+	+	+	+

IKUSPEGI OROKORRAK ANDEREÑOAREN HITZETAN

IKASTURTE BUKAERAKO ELKARRIZKETA (2001/VI/21)

1.-ESPAZIOEI BURUZKO IRITZIAK

Gela

Aldaketa gutxi egingo lituzkeela dio andereñoak, gustatzen zaio gelako egitura eta antolamendua. Material batzuk faltan bota ditu, adibidez, errotulagailuak plastikako espazioan; ez ditu denak eskura eduki, beldurratik. Ondo sentitzen da.

Egingo lukeen aldaketa bat irakasleen komuna anulatzea izango litzateke eta gelatik ate bat egitea; orain dagoen bezala, ume batek komunera joatea eskatzen duenean, besteak atzetik ateratzen direlako.

Psikomotrizitate gela

Pixka bat “en precario” ikusten du, 2 urteko umeentzat ez zaio egokiegia iruditzen. Batetik, leku gutxi ikusten du koltxonetak jarrita eta bestetik, babestuagoa egon beharko lukeela dio, adibidez, espalderarik ez dago momentu honetan.

Piszina-Hall-a

Neguan eta, 2 urteko umeak bakarrik erabiltzeko oso ondo ikusten du, ikasle gehiagorekin ez hain goxo.

Komunak

Ondo daude, txikiak dira –eurentzako tamainakoak-, iturria ere ondo dago.

Jangela

Oso ondo dagoela esaten du, “pribilegio” bat, bazkaltzera hain ume gutxi gelditzen direnez.

Logela

Oso ondo, hemen ere, gutxi direlako eta lasaitasun handia egoten delako eguerdian.

Patia

Aterpe falta handia, euria egiten duenerako konpondu behar dute. Belar gehiagoren beharra sumatzen du (eraikinaren bueltak horretarako tamaina badu). Beste arazo bat da patioan putzuak egiten direla.

2.- ESPAZIO DESBERDINETAKO EGOKITZAPEN PROZESUA

. **Gelara** egokitzea gurasoekin batera egin zuten eta ondo joan da. Gelan oso gustura ikusten ditu umeak orokorrean. Mutilak gehiago hartzen dituzte eraikuntzak neskek baino; behar bada, **neskentzat gustukoa den zerbait falta dela**.

Gela barruko **etxea** euren burua babesteko, gauzak pilatzeko, sartu-irtenean ibiltzeko, etxeko gauzetara jolasteko, etab. erabiltzen dute.

Garbi omen zeukan gelako **alfonbra** espazio lasai bezala erabiltzeko zela; **mahaia** lanerako eta etxea libre mugitzeko. Inportantea iruditzen zitzaion **hiru espazioak zedarritzea/mugatzea**. **Alfonbran**: elkarrizketak, ipuinak, abestiak, ... **Mahaian**: eskulanak, puzzleak, ... **Etxean**: alderdi motorea garatzeko, jolas sinbolikoa...

. **Psikomotrizitate gelara** ere oso gustura joaten dira hasiera-hasieratik.

Gaizkari oinetakoak kentzea kostatzen da, bereziki espazio honetan.

Orokorrean, Soniari, psikomotrizitate gelako saioak luzeak egin zaizkio baina ez daki ondo-ondo zergatik, psikomotrizitate gela asko gustatzen baitzaie. Soniari, mahaiko lanak asko gustatzen zaizkiola dio, nahiago dituela.

. **Komunetan** ere ondo moldatu dira; ez zaio gertatu pixka ez duela egin nahi umeren batek eta horrelakorik.

Urak asko erakartzen ditu.

. **Jangelan**, Gaizkak lehenengo 2 egunetan ez zuen nahi izan baina hirugarren egunetik hasi zen gelditzen eta ondo joan da.

. **Patioan**, Xabierri, bere beldurrengatik, kostatzen egin zitzaion, pixka bat galduta ibili zen ikasturte hasieran, batez ere handiak ateratzen zirenean (**kontentzio** falta bat sumatzen zion).

3.- IKASTURTEAREN BILAKAERA

EGOKITZAPENA

3.1.- Orokorrean ondo joan dela dio Arantxak, gurasoek ulertu dutela aldi honen garrantzia, baina beti ari behar duzula horren beharra eta prozesuko pausoak gogorarazten. Guztiz alde dago egokitzapen prozesuaren beharraz. Dio ere, ume guztiek egiten dutela momenturen batean atzera pausoren bat (nekatuta sentitzen direnean, egunero etorri behar dutela konturatzean, ...)

3.2.- Galdetzen diot ea zer izan den zailena, berari gehien kostatu zaiona ikasturtean zehar eta erantzuten dit gurasoekin hitz egitea, moztea. Bestela dio, ez duela zailtasun berezirik izan. Eta gauzarik errazena? Prozesua asko gustatzen omen zaio, esaten dit erraza egiten zaiola **sarrera** modu honetan egitea, **egokitzapen-aldia** antolatu honekin eta, horrela egiten ez zutenetik oraingora aldaketa handia dagoela; orduan, askoz ere gehiago nekatzen zela umeen negarrekin, leher eginda bukatzen zuela egunero. Aurten beraz, orokorrean, oso lasai ibili dela dio.

3.3.- Hiru hiruhilabeteak kontuan hartuz, bakoitza nola joan den deskribatzeko eskatzen diot.

Azkeneko hiruhilabetea izan omen da gehien kostatu zaiona, bi lehenengoak baino gehiago. Ez daki ondo zergatik, agian, Danelen dinamika datorren ikasturterako nola planteatuko duen ikusten ez duelako.

Gurasoen egoteko modua ere ondo ikusi du, positiboki baloratzen du, iraileko lehenengo bileratik hasita, euren kezkak, jarrerak, ondo ikusi ditu eta ematen omen du ulertzen dutela prozesua nola joan den. Noski, egon omen dira momentu delikatuak, adibidez, Yleniak Xabierri koska egin zionekoa. Momentu haietatik hona, asko aldatu omen dira gauzak eta pozik eta konfiantza adierazten dutela esaten dit. Joan **den urteko maiatzean** egin omen zituen gurasoen lehenengo bilerak eta pentsatzen du horrek ere lagundu duela.

Azpimarratzen du, Rosi (PT-a) beharrezkoa izan dela; bigarren pertsona bat egotea beharrezkoa dela dio, batzuetan zenbait egoera mozteko, "gaiztoaren" papera besteak egiteko, ezin zarelako egon kanpoan eta barruan. Baina bai eskatuko luke **PT-en zereginak** argiago egotea eta ez ibili behar izatea "etorriko al naiz" galdetzen dutenean, baietz esaten atrebitu ezinik. Prozesua ondo joateko behar dela dio 2 urtekoekin bigarren pertsona bat.

Ondo sentitzen da ikasturtean eman den prozesuarekin 3. hiruhilabetea izan ezik.

3.4.- Datorren ikasturterako dauzkan ideiak, kezkak, premiak kontatzeko eskatzen diot. Datorren ikasturterako kezketako bat "**zirkulazio librea**" umeak nola hasiko diren eta gauzak nola planteatu da. Danelek kezkatzen du gehien, beste ume batzuegan daukan eragina kontuan hartuz. Danelen bere mugitzeko behar hori, nola bideratu?

Haur berri bat hasiko omen da eta atzo izan omen zen gelan espazioak eta lagunak izango direnak ezagutzeko; azarokoa omen da, txikienetakoa. Zer moduz egon zen galdetzen diodanean, esaten dit, dena ukitu, denbora guztian gelditu gabe ibili omen zela, dena nahi omen zuen, baina guzti hori normala dela dio.

Egokitzapena egingo dute berriro (berriarentzat), desberdina. Bere amarekin etorriko omen da eta haurra ondo ikusten duten momentuan, ama joan egingo dela. Beste umeentzako ez dute planteatzen gurasoekin egoteko beharrik.

Goizeko 9:00etan **borobila** egitea ez omen du merezi, ez direlako denak batera etortzen, ez dute ordutegia betetzen; beraz, lehenengotik, 'zirkulazio librea' egingo dute. Honek esan nahi du, 2 gelak 'irekiko' dituztela eta ume bakoitzak aukeratuko duela zein gelatan ibili nahi duen. Hau, 3. egunetik aurrera egingo dute; lehenengo bi egunetan material bereziak ateratzen dituzte bakoitzak euren gelan eta 3. egunean beste gela eta materialak ezagutzen hasiko dira.

Irailaren 10ean izango da ikasturteko lehenengo eguna.

AUTONOMIA-OHITUREN TAULAK

2000/2001 IKASTURTEA

1. HIRUHILABETEA

ELIKADURAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITURAK

1-3 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I	H	G	D
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe	B	B	B	B	B	B (g)	B
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin	B					B	
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B
Mahai ingurua txukun uzten ikasi	I	I	I	I	I	I	I
Lurra txukun uzten ikasi	I	I	I	I	I	I	I
Mastekatzen eta irensten ikasi	B	B	B	I	B	B	B
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi		E (l)					
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi							
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi	B	B	B	B	B	B	B
Jana banatu bitartean itxoiten ikasi	B	B	B	B	B	B	B*
Denetatik jaten ikasi	I	I	I	I	I	I	I
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi							b
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi	B			E	E		E
Elikagaiak eskuekin mozten ikasi, koska egin gabe	E	E	E	E	E	E	
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi					E	E	E
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi							
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitu							E**
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi							

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da

(g) gosarian; (b) begiekin; (l) lerdea

* Denetatik, bera da gehien kostatzen zaiona

** Oro har, kosta egiten zaie

2000/2001 IKASTURTEA

1. HIRUHILABETEA

DESKANTSUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITUREN HEZIKETA

URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I	H	G	D
Zapatak kentzen ikasi	B	I(2)	B	B(1)	I	E(2)	B
Galtzerdiak kentzen ikasi	B	I(1)	B	B(1)	B(1)	B(1)	B
Berokia eta txaketa kentzen ikasi	e	e	e	e	e	e	e
Arropak kentzen lagundu (besoak, hankak, etab. altxatuz)	B	B	B	B	B	B	B
Berokia, txaketa, poltsa, mantala...zintzilikatzen ikasi	I	I	I	I	I	I	I
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak erantzten lagundu	B	B	B	B	B	B	B
Jantzeko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi	E	E	E	E	E	E	E
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin	E	E		E	E	E	E
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi	B*	4				B(3)	
Bakarrik lo egiten ikasi	E					B	
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi	E					B	
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi							
Norberaren arropak tolestatzen lagundu							

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da; (e) ez dute egiten

* Behar du (etiketa bat eta txupetea)

(1): kostata; (2) lokaridunak; (3) txupetea; (4) ez du siesta egiten

2000/2001 IKASTURTEA

1. HIRUHILABETEA

HIGIENEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITUREN HEZIKETA

2-4 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I	H	G	D
Orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi	B	1	B	B	B	E(5)	B
Eskuak garbitzen ikasi	S	S	B	S	S	S	S
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu	B(2)	6 3	3	e	***	E	E
Eskuak lehortzen ikasi	S	S	S	S	S	S	I
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	B		B	B	B	B	B
Esfinterrak kontrolatzen ikasi	B(orok.)	e(7)	B	B	B	B(**)	B
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu	B		*	B	B(4)	E	
Zikina edo garbia dagoela jakin	B	B(3)		B	B	E	
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi	E	E	E	E	E	E	E

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (e) eskatzen du

(1) laguntzarekin; (2) mukiak baditu; (3) txukuna da; (4) nahiko txukuna da; (5) zutik; (6) ez da kexatzen; (7) batzuetan egiten du

* bereziki baldin badago; ** baina atzo bi aldiz egin zuen; *** bereziki sudurra ez

2000/2001 IKASTURTEA

2. HIRUHILABETEA (JANGELAN BAZKALTZEN DUTEN HAURRAK)

ELIKADURAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITURAK

1-3 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	YLENIA	GAIZKA
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe	B	I
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin	B	B
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	B	B
Mahai ingurua txukun uzten ikasi	B	E
Lurra txukun uzten ikasi	B	E
Mastekatzen eta irensten ikasi	B	B
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi	B	B
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi	1	1
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi	I	I
Jana banatu bitartean itxoiten ikasi	2	B
Denetatik jaten ikasi	B	B
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi	b	b
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi	B	B
Elikagaiak eskuekin mozten ikasi, koska egin gabe	B	I
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi	E	E
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi	B	B
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitzen ikasi	I (3)	I (3)
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi	e	e

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da; (e) ez dute egiten; (b) Begoñak ematen die, gehiago eskatzen du

(1) Yogurrarena bakarrik bai; (2) Kosta egiten zaio geldirik egotea; (3) andereñoak esanda

2000/2001 IKASTURTEA

2. HIRUHILABETEA

DESKANTSUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITUREN HEZIKETA

1-3 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I	H	G	D
Zapatak kentzen ikasi	B	B(1)	B	B	B	S(2)	B
Galtzerdiak kentzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S
Berokia eta txaketa kentzen ikasi	B						
Janzten ikasi	B	B	B	B	B	B	B
Berokia, txaketa, poltsa, mantala... zintzilikatzen ikasi	B	I	B	I	I	I	I
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak eranzten lagundu	B	B	B	B	B	B	B
Janzteko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi	E	E	E	E	E	E	E
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin	E	E	E	E	E	E	E
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi	B*					B	
Bakarrik lo egiten ikasi	B					B	
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi	E					B	
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi						B	
Norberaren arropak tolestatzen lagundu	E	E	E	E	E	E	E

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; * Behar du (etiketa bat eta txupetea)

(1) lokarriak ekartzen dituenan ere saiater da; (2) lokarria dutenak ekartzen ditu; ez da gehiegi saiater

2000/2001 IKASTURTEA

2. HIRUHILABETEA

HIGIENEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITUREN HEZIKETA

2-4 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I	H	G	D
Orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi	B	B	B	B	B	B (2)	B
Eskuak garbitzen ikasi	B	I	B (1)	B	I	I	I
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu	B	B	B	B	B	3	4
Eskuak lehortzen ikasi	I	I	I	I	I	I	I
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B
Esfinterrak kontrolatzen ikasi	B (e)	B (e)	B (e)	B (e)	B (e)	B (e)	B
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu	B	B	B	I	B	E	5
Zikina edo garbia dagoela jakin	B	B				B	
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi	E *	E*	E*	E*	E*	E*	E (6)

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (T) Tarteka egiten du; (e) egunez

(1) ondo garbitu nahi izaten ditu; (2) beldurra dio kaka egiteari; (3) molestutzen dio baina besoarekin kendu; (4) Ez da mukitsua; (5) Ez gehiegi; (6) berdina zaio, ez du denborarik hartzen

* Edalontziak bai; papera denek botatzen dute komunera

2000/2001 IKASTURTEA

GURASOENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA

3. HIRUHILABETEA

NORBERAREN TXUKUNTASUNAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITURAK

1 URTEREKIN HASI ETA BEREGANATZEN JOATEKOAK:

ITEMAK/IKASLEAK	S	I	G	X	I	H	D
Garbia dagoenean disfrutatzen ikasi	B	S	B				
Garbitzen edo orrazten eskatzen ikasi	E	B	B (1)				
Gorputzaren usain ona baloratzen ikasi	E	B	B				
Beste haurren presentzia txukuna baloratzen ikasi	B		S				
Azkazalak mozten utzi	B	E	3				
Ilea mozten eta txukuntzen utzi	B	B	B				
Zapatak garbiak eramaten eta ondo jartzen ikasi	S	S (2)	E				
Aurpegia, sudurra, eskuak garbitzen ikasi (bere gisa, Zikinak daudenean)	S	B	S				
Arropak txukun ordenatzen ikasi	S						
Zikina sentitzen denean azpiko arropak aldatzen ikasi	4	B	4				
Ilea txukun eramaten ikasi	E		E				
Azkazalak garbiak eta ondo moztuta eramaten ikasi	S	E					
Zapatak garbitzen ikasi							
Gaineko arropak orbanik gabe mantentzen ikasi	S		E				
Orban errazak garbitzen ikasi							
Arropa politak, kolore konbinaketa eta irudiak Baloratzen ikasi	5		6				
Produktuak erabiltzen ikasi: hidratatzaileak, eguzki-babesleak...	B	B (7)	B (1)				

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da

(1) kolonia; (2) gutxi; (3) cuando le apetece; (4) Bustita dagoenean; (5) Eroso joatea gustatzen zaio;

(6) Valora el tipo de ropa y zapatos; (7) gustatzen zaio

2000/2001 IKASTURTEA

3. HIRUHILABETEA

NORBERAREN AUTONOMIAREKIN LOTUTAKO OHITURAK

0-3 URTE BITARTEAN HASI ETA KONTSOLIDATZEN JOATEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I	H	G	D
Gauza txikiak bakarrik egiten ikasi: jostailuak hartu, gorputzeko atalak mugitu, bere burua entzun eta besteei entzun, entretenitu...	B	B	B	B	B	B	B
Trebetasun txikiak ikasi: txiribueltak eman, pinuarena egin, orekan mantendu, hanka baten gainean salto egin, narrasi, papera urratu, behatzekin pusketak egin, txalo jo, txistu egin,	B (*)	B (*)	B (*)	B (*)	B (*)	B (*)	B (*)
Hitzak esaten ikasi, erritmo bat jarraitu, objektuei soinua aterarazi	B	B	B	B	B	B	B
Tresna batzuen erabilera dominatu: koilara, edalontzia, platera, ...	B	B	B	B	B	B	B
Behar diren gauzak erabiltzen ikasi: baberoa, orrazia, etab.	B	B	B	B	B	B	B
Garbitzen ikasi, jantzi eta erantzi laguntza pixka batekin edo bakarrik	B	B	B	B	B	B	B
Kolaboratzen ikasi: mahaia kendu eta jarri, ...	G	G	G	G	G	G	G

(B) Egiten du; (G) Gutxi;

* hanka batekin salto egitea zaila da

2001-2002 IKASTURTEA - HILABETEA: IRAILA

IKASLEAK/EGUNAK	10	12	19	26
DANEL	9:25 - 12:00	9:25 - 12:00	9:30 - 12:00	9:10 - 12:00
GAIZKA	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	-	9:30 - 12:00
HAIZEA	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
IMANOL D.	9:00 - 12:00	-	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
IMANOL E.	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
IVAN	9:00 - 12:00	9:00 - 13:00	9:00 - 13:00	9:00 - 13:00
SONIA	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
XABIER	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
YLENIA	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00

2001/09/10**ESKOLAKO LEHENENGO EGUNA**

9:00 Gurasoak: Xabierren aita eta Ivanen ama aulkietan eserita daude, gela barruan.

Ikasturte honetan, 3 urteko eta 4 urteko umeen gelak bigarren solairuan daude; 2 gelen artean komunak daude.

9:30 Xabierrek negar pixka bat egiten du eta gainontzeko haurrak "euren lanetan" ari dira.

Ivan, ikasturte honetan hasitako haurra, amarengana hurbiltzen da ipuin bat erakustera. Amak: "enseñale a la andereño".

Danel iritsi da, aitarekin. Arantxak: "Egun on", zenbat luzatu zaren!, muxu bat eman eta eskuekin "burua ukituz" sartzen da gelara. Besteek: "Hola Danel, hola Danel" esaten diote.

Ylenia txotxongilo eta ipuinekin dabil, baita Sonia ere.

Arantxak Xabierri: Geldituko zara nirekin? Nor etorriko da zure bila?, amona? Zer esango diogu Patxiri? Ale Patxi joan, Patxik lanera joan behar du eta. Patxik: Va a venir Loli a buscarte.

Haizea oso pozik dago, "pistola" bat egin du.

Gaizka ere ondo ikusten da "Lego" piezekin dabil.

Xabier negarrez hasten da. Aitak: el aita se tiene que ir a trabajar. Arantxak: no le digas de llevarle a casa. Emaiozu muxu Xabier; eman eta joaten da. A-k besoetan hartzen du Xabier eta berarekin esertzen da.

Haizea ipuinekin, oso entretenitua ikusten da.

Xabier: Quiero abajo, Iñakirekin. Arantxak: Gero joango gara behera.

Joan den ikasturtean hasitako pintaketak bukatu dituzte, baina, oraindik ere, pintura usain pixka bat dago.

Xabier besoetan dauka Arantxak eta berehala isiltzen da.

Imanol margotzen aritu da eta orain "Lego"-rekin dabil.

Xabier: mukiak!.

Ylenia: Arantxa! -tenperak egin nahian- Gaur ez dugu tenperarekin margotuko.

Soniak: Klariona nahi du arbelean margotzeko.

Ivanek: Amari erakusten dizkio egindakoak.

Yleniak: Hau zer da?. Arbelean margotzeko.

Gaizka eta Ivan izan ezik denek nahi dute arbelean aritu.

9:40 Ivanen amak: Yo voy a comprar el pan y vuelvo. Dame un beso. Patxada handiarekin esaten dio amak badoala eta konforme dagoela ematen du Ivanek; aulkian eserita gelditzen da. Arantxak esaten dio amari, ez badio deitzen, seinale ondo dagoela. Telefono zenbakia uzten dio. Ivanek: yo quiero ir contigo mamá. Arantxak: “no te preocupes, te llamaré si el niño está mal, no porque se porte mal”. Si yo no te llamo, irá en el autobús con los demás (amak hegoamerikarra dela ematen du).

Ama-Arantxa eta Ivanen arteko **elkarrizketa** esplikazioak emanez. Ama joaten da eta Ivan lurrean eserita gelditzen da Arantxarekin, “Lego”arekin jolasten.

Oharrak

- . Gelako sarreran (kanpoko aldetik) dauzkate, arropak zintzilikatzeko pertxak -mantalak, motxilak, txamarrak-, bakoitza bere izenarekin.
 - . Imanol E., beste haur berria, etxetik dator (ez da aurretik haurtzaindegian edo ikastolan ibili)
 - . Ivan, beste ikastola batetik dator.
 - . Xabierrek bakarrik egin du negar eta joan den urteko gelan egon nahi zuen.
 - . 6 mutil eta 3 neskek osatuko dute aurtengo ikasturteko 3 urteko umeen gela. Arantxak dio beste 3 neska izango balira, 12ko taldea, hobeto izango litzatekeela.
 - . Ivanen ama Marokokoa ote den esaten dit Arantxak eta aita hemengoa. Bananduta omen daude.
 - . 4 urteko gelako haurrekin Axun egongo da. Maite andereñoarekin egon dira haur hauek aurreko 2 ikasturtetan eta orain andereñoz aldatu dute.
 - . Lehenengo egunetan, ez dituzte gelak “irekiko”.
 - . Eraikin honetan dauden haurrak:
 - 2 urteko 5 haur, Itziar andereñoarekin (beheko solairuan).
 - 3 urteko 9 haur, Arantxa andereñoarekin (bigarren solairuan).
 - 4 urteko 13 haur, Axun andereñoarekin (bigarren solairuan).
 - . “Zirkulazio librea” hasten direnean, Arantxaren ikasleak Axunen gelara eta alderantziz ibiliko direnez, Axun andereñoarekin hitz egin dut eta baimena eman dit ni bere gelan ere egon nadin. Beraz, bi geletan ibiliko naiz ikasturte honetan 3 urteko ikasleen behaketak egiten.
- 9:40** Gaizka ipuin batekin ari da, Ylenia kanpoan, gainontzekoak, Arantxaren inguruan. Vamos a hacer pis? Ivanek: “ya he hecho”.
- 9:45** Komunera joango gara.

9:50 Sonia ipuinak irakurtzen ari da; Danel eta Haizea arbelean. Danel, lasaiago dagoela dirudi. Arantxak: Lagunduko didazue jasotzen? Bai. Ylenia, Imanol D., Xabier, Danel gauzak jasotzen hasten dira.

Arantxak Ivani: Ni naiz Arantxa, begietara begiratu araziz. Buruarekin baietz esaten dio Ivanek. Danelek: ¿Por qué estamos en esta gela? Orain handiagoak garelako. Y, quién está en la otra gela? Yleniak: **Txikiak**.

10:00 Elkarrizketa: Gaur ditugu bi lagun berri, Ivan eta Imanol. Ditugu bi Imanol. Ez dute ezer esaten.

Ipuina: “Ratapon”-en ipuina kontatuko dizuet. Danelek: y ¿qué come? Arantxak: Urtxintxak?, intxaurrak, urrak. Kontatzen jarraitzen du, ahotsak aldatuz eta oso gustura entzuten dute. Galderak egiten dituzte.

Pertsonaiez osatzen du ipuina: Ratapon, amona mantangorri, sugea,...

Albumetako argazkiak ikusten ari dira.

10:15 Plastilina egin nahi duzue? Bai.

10:17 Ivanek ama non dagoen galdetzen dio Arantxari.

Mantala jantziko duzue ez zikintzeko! Bai: Ylenia, Imanol D., Sonia, Imanol E.

Soniak: Ylenia, yo estaba ahí. Ylenia ez da mugitzen. Biak plastilina egiteko eserita daude; Haizea ere. Aurrena jaso egin behar da Imanol, aurrena, errotuladoreei tapa jarri behar zaie. Bakoitzari plastilina-bola bat emango dizuet eta aurrena, eskuekin egingo duzue indarra, labanarik gabe. Gaizka izan ezik, beste guztiak ari dira plastilinarekin.

Arantxak: Kaixo Gaizka, nahi duzu gurekin plastilina egin? Ez du erantzuten, txoko batean dago ipuin batekin.

Soniak: Yo soy Sonia Etxeberria. Arantxak: ez, zu ez zara Sonia Etxeberria, zu Sonia Gutierrez zara. Parra egiten du Soniak.

10:35 Imanol E. “Lego” -rekin dabil, oso lasai.

Gainontzekoak, plastilinarekin, bola txikiak, txorizoak, ... egiten.

Gaizkak, bakarrik jarraitzen du.

Bakoitzak bere abizena esaten du.

10:40 Musika jarri du Arantxak eta Imanol D. eta Haizea, elkarri helduta, dantzan dabilta.

Ivanek Arantxari jangelako zerbait galdetzen dio. “No, hoy no te vas a quedar en el comedor”.

10:45 Bakoitzak bere aulkia hartzen du eta arbelaren aurrean daukaten espazioan jartzen dira **gosaltzeko**. Gaizka, ven! esaten diote eta etortzen da besteengana.

Lagun berriak ditugunez, bakoitzak esango du bere izena. Ni Arantxa naiz eta zu? Xabier, Haizea,... Builaka hasten dira. Badakizue, garrasiak koltxoneta gelan egingo ditugula. D-ek: ¿por qué? Arantxak jarraitzen du: badakizue, egun pila-pila bat egon garela ikastolara etorri

gabe, ni ere etorri gabe egon naiz. Ni, Ibon eta Iratirekin mendian ibili naiz eta hondartzan. “Yo también”, Danelek.

Imanol D., zu hasiko zara kontatzen non egon zaren. Imanolek: yo no puedo nadar porque me duele el oido.

Ivanek: tengo piscina para bañarme y llevar los patinetes.

Arantxak Daneli: zer daukazu behatzean, mina?, zer egin duzu oporretan?, Madrilen egon zara?. Berak: **bai**.

Gailetak eskatzen dituzte. Haizea, zakarrontzia ekarri! Ekartzen du. Danelek: me he bañado porque yo no tengo la oreja mal.

I.E-k: **Eman!**

Itxoin Haizea, Danel. Haizea, kontatu Calahorran zer egin duzun.

H-ak: He nadado, me meto la cabeza.

Danel! Orain Haizearen txanda da eta zuk entzun egin behar duzu.

Ylenia! Yurema (bere ahizpa) eta zenekin gehiago egon zara Caceresen? Y-k: **Bai**.

Sonia! Zer egin duzu Berminzonen? Gu, mi aita con Martin, con mi ama. Me da miedo meterme debajo del agua. Ivanek: a mí no me da miedo si buceo.

Gaizka! Zu, non egon zara, baserrian? No, ez. Eta, hondartzara? Buruarekin baietz dio.

Imanol E. altxatzen da. Eseri mesedez, Imanol.

Xabierrek: En el agua grande ahogado el aita. Zu pizina handian? Berak: **txikian**.

Imanol E.! Zu, non bainatu zara? Buruarekin baietz.

11:00 Abestuko dugu? Zein abesti?

Abestiak: “Haizea mimosa bere mimoekin, ... Sonia gaixo dago buruko minarekin...”

Sagarra jaten dute, eserita.

Orain joango gara ura edatera. Bakoitzak ipiniko du aulkia bere tokian, txuriak hemen eta berdeak hemen, arrastaka ibili gabe.

Komuneko buelta egin ondoren, patiora atera dira.

Patioan: trizikloetan, zaldietan, rokodromoan,...

Ivan, oso ondo igotzen da.

Sonia triste xamar ikusten da. Gelara igo denean esan dio Haizeari: “me quiero ir a casa”.

Danelek patioan Sonia kontsolatu nahi zuen. Elkarrekin ibili dira zaldietan eta 2ko trizikloetan.

11:50 Gelara igo, eseri eta azken elkarriketa motx bat egin dute. Joan den urteko gelaz gogoratzen dira eta esaten dute: “Mañana, a la otra gela?” Arantxak: Ez, bihar ere hemen, gela honetan.

12:00 Jaitsi dira, piszinan eseri, agurtu eta etxera doaz.

Goizean egindako jarduera esanguratsuenak

- . AGURRAK
- . MARRAZKIA, IPUINAK, LEGOAK, ARBELA
- . KOMUNERA
- . IPUINA ETA ELKARRIZKETA
- . PLASTILINA
- . GOSARIA - ELKARRIZKETA - ABESTIAK
- . URA EDAN, PIXA EGIN ETA PATIORA
- . GELARA IGO ETA AGURRAK

Taldeko esperientziak errazteko hainbat ohitura

- Elkarrekin zerbait egiten ikastea: dantza, antzerkia, muralak, collage-ak, etab.
- Elkarrekin ipuin bat kontatzea, olerki bat,
- Elkarrekin abesten ikastea.
- Festen prestakuntza denen artean egiten ikastea.
- Gelara etortzen direnen pertsoneri ongi-etorria ematen ikastea (ikasle, guraso, irakasle,...)
- Taldeko elkarrizketetan, batak besteari galdera-erantzunak egiten ikastea.

GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	DANTZA	IPUINAK KONTATU	ABESTIAK	AGURRAK/ ONGIETORRIAK	GALDERA/ ERANTZUNAK
DANEL					+
GAIZKA					
HAIZEA	+			+	
IMANOLD.	+				
IMANOLE.					
IVAN					
SONIA				+	+
XABIER					
YLENIA				+	

Pertsonen arteko erlazioak errazten dituzten hainbat ohitura

- Agurtzen ikastea.
- Galdetzen digutenean erantzuten ikastea.
- Besteek zerbait behar dutenean atentzioa ematen ikastea.
- Besteen alderdi positiboak estimatzen eta baloratzen ikastea.
- Besteen lana eta jolasa errespetatzen ikastea.
- Besteek lanean ari direnean edo deskantsatzen daudenean isilik egoten ikastea.
- Beste umeekin jolasten eta lanean ikastea.
- Gatazken aurrean zintzotasunez jokatzeko ikastea.
- Besteekiko harremanetan delikatua (fina) izaten ikastea.

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
AGURRAK	+		+				+		+
GALDEREI ERANTZUN	+(1)	+	+	+	+	+	+	+	+
ATENTZIOA EMAN									
ALDERDI POSITIBOAK BALORATU									
LANA ETA JOLASA ERRESPETATU									
LANA EDO DESKANTSUAN ISILIK MANTENDU									
JOLASTEN ETA LANEAN IKASI									
GATAZKETAN ZINTZOTASUNEZ JOKATU									
HARREMANETAN DELIKATUA IZAN	+(2)						+		

(1) Arantxari (andereñoari) erantzun diote;

(2) Patioan Danel Sonia "kotsolatzen"

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
MAHAI-JOLASAK: Bolatxoak (1); Puzzleak (2); Irudiak (3); Memory (4)									
MARGOTEGIA: Marrazkia (1); Plastilina (2); Gometzak (3); Collage-ak (4);	2		2	1 2	2	2	2	2	1 2
ALFONBRA: Ipuinak (1); Eraikuntzak (2); Album-argazkiak (3)	3	1 3	1 3	1 3	3	1 3	1 3	1 3	1 3
ARBELA: Marraztu (1); Ezabatu (2)	1		1	1	1	1	1	1	1
HALLEAN: Trizikloak (1); Zaldiak (2); Rokodromoa (3)	1 2	1 2	1 2	1 2	1 2	1 2 3	1 2	1 2	1 2
MATERIALA JASO	1		1				1		1

2001/IX/12

‘A’ gela, “margotegia” izango da eta espazio desberdinak bereizten dira bertan: margotzekoa, eskulanak egitekoa, ipuinak irakurtzekoa, Legoen espazioa, ...

‘B’ gela, “eraikuntzen” espazioa izango da

9:15 “Eraikuntzen” gelan dabilta gaur Arantxa andereñoa eta 3 urteko umeak, hemendik aurrera “zirkulazio librea” hasteko prest daudenez. Haurrak goizean sartu eta agurrak eta harrera egin ondoren zein gelatan arituko diren erabakiko dute. “Hiru urteko” ikasleen gela (Margotegia) da eta “4 urteko” ikasleen gela (Eraikuntzak); biak **irekiak** egongo dira eta, esan dugun bezala, ume bakoitzak aukeratuko du nora joan nahi duen.

Imanol D. ez da etorri. Beste 5 mutilak eta Sonia eraikuntzetan dabilta, Ylenia eta Haizea “botoitxoak” panelean sartzen.

Eguraldi ederra dago eta eguzkia sartzen da leihoetatik barrena.


Material gustukoa dute gela honetan, besteak beste, egurrezko material egokia eta anitza daukate.

Ylenia 4 izkinak botoiez osatu ondoren, Arantxarengana joan da erakustera.


Xabier ere gustura dabil.

10:40 Sonia, Ylenia eta Haizea botoitxoekin dabilta eta mutil guztiak alfonbra gainean “Lego” materialarekin trenak egiten, karrilak jartzen, autopistak egiten, montatzen...


Ylenia: Izkinetatik hasi da osatzen eta barru aldera betetzen ari da (botoiak jarritz)



Haizea: Panel guztia hartu eta dena betetzen doa pixkanaka



Sonia: Ezkerretik eskuinera osatu du goiko lerroa, goitik behera eskuineko lerroa eta eskuinetik ezkerreko behera doa beheko lerroa betetzen



Tarteka, Arantxak Imanol E-ri gogorarazten dio ezin duela besteen eraikuntzarik puskatu. Denak oso gustura dabilta.

9:55 Imanol E. eta Ivan trenarekin dabilta. Haizea puzzleekin; Xabier, Danel, Ylenia eta Gaizka “botoiak” kolokatzen.

10:00 Botoiekin bukatu ondoren, beren izena jarri dute (bakoitzak bere lanean).


Bi urtekoen andereñoa laguntza ematera etorri da (bere umeak ez baitira oraindik hasi) eta 9:40ean joan da.

Material bakoitza bere lekuan errespetatzea eskatzen zaie: puzzleen espazioa mahaian, eraikuntzena lurrean.


Esan eta kasurik egiten ez dutenean, eskutik helduta eramaten ditu Arantxak, lasai.

Imanol E-ak euskaraz jakitea abantaila da gelako komunikazioan, besteak motibatzen lagundu dezakelako.

PLASTIKA GELA



ERAIKETA GELA (A.A.)



10:10 Alteratzen eta haserreak sortzen hasi dira, eraikuntzak bata besteari puskatu edo kendu egin nahi dizkietelako.

Imanol E-k lasaia ematen du, baina toki batetik bestera dabil eta kosta egiten zaio Arantxari kasu egitea.

Ivan hasi da A-ri bere izenez deitzen.

10:20 A-k: *“Animaliak”, gaur utzi egin dizkiet baina berez, bigarren pauso bat dira, hau da, eraikuntza egin ondoren jartzeko eta ez jolasteko bakarrik.*

Jaso egingo ditugu animaliak!, Haizea, Gaizka, Imanol E-ak kubo batzuetan sartzen dituzte.

10:25 Jaso eta gure gelara joango gara.

Sonia eta Ylenia esertzen dira, Ylenia negarrez ari da. Denak esertzen dira pixkanaka Arantxak eskatuta.

A-k: Imanol, zer gertatu zaizu Yleniarekin? I-k: **Ezer ez.** Zuri ez, baina Ylenia jo duzu eta...

Xabierrek: Cuando me pega Imanol que le pegue yo también. Arantxak: Nork esan dizu hori?

X-k: **Aitak.**

Gatazka konpontzen: Imanol, mina egin diozu eta orain muxu bat eman. Ematen dio. Zer egin duten eta bete beharreko arauen erreposoa egiten dute.

10:30 Goazen gure gelara.

Eseri eta ipuin bat kontatuko dizuet.

Imanol E-ri kostatzen zaio egiten ari dena uztea; ez dauka oraindik erritmoa hartuta.

Abestiak: Sapitoarena, Traktorea.

Danel garrasika hasten da. Garrasiekin ezin dugu abestu.

I.E. beregana hurbiltzen du eserita egon dadin.

Arantxaren atzetik ateratzen da gelatik. A-k esaten dit txikia eta lasaia dela baina, berea egin behar duen horietakoa.

Gosaria:

Gailetak eta kiwia jan eta gero, patiotik etortzen garenean, kontatuko dizuet ipuina.

“Kosta zaigu lasaitzea, e?”.

Danel harrotuta dabil gosarian.

11:00 Komunera joan dira eta handik patiora.

Patioan Arantxak: *Ivan oso irekia da eta jatorra. Sonia hobeto ikusten da patioan. Badirudi nahiago dituela gelako aktibitateak. Xabier gustura ikusten da, ez du negarrik egin (lehenengo egunean bakarrik egin zuen)*

11:55 Gelara igo dira eta ipuina kontatzen hasten da Arantxa. Ipuin berri bat, “Satorrarena”. Ixil-ixilik daude atentzioa jarritz. Animaliak eta intsektuak dira ipuineko protagonistak: zaldia,

txerria, eulia ... Kaka nork egin dion satorrari da argumentua. Euliak esaten dio satorrari txakurrak egin diola kaka...

Kontatzea bukatu duenean, galderak egiten hasten da andereñoa. Ipuinarekin jarraitu nahi dute.

12:00 Aulki berdeak hemen jarri, zuriak han

Goizean egin dituzten jarduera esanguratsuenak kronologikoki

“A” gelan²

. Harrera -agurrak

“B” gelan

. Eraikuntza - puzzle - botoiak jarri

. Borobilean gatazkak konpondu, arauak gogorarazi, lehenengo saioan egindako aktibitateen erreposoa egin

“A” gelan

. Abestiak

. Gosaria - elkarrizketa - galdera-erantzunak

. Imanol d. Gogoratuz, abestia

. Komunera

. Patiora

. Ipuina

. Agurrak

Estrategiak/errekurtsoak

. Esan eta kasurik egiten ez dutenean, **eskutik helduta** eramaten ditu Arantxak, lasai.

Inpresioak

Material erakargarriak, egokiak, anitzak eta espazioak ondo antolatuak, laguntzen die umeei **aktibitatean sartzen, lasai jarduten, konpartitzen, elkarrekintza egoerak sortzen, lehenengo egunetako tentsio egoerak gutxitzen, giro on bat sortzen...**

Imanol E-ak euskaraz jakitea abantaila da gelako komunikazioan, besteek motibatzen lagunduz.

Arauak

Ez dira egurrak botatzen , mina egiten dute eta (gehienetan adierazten du A-k ezetzaren arrazoia).

Ez da kentzen, eskatu gauzak mesedez.

Denok jaso behar ditugu erabilitako materialak.

² “A” GELA, 3 urtekoen erreferentzi gela da, (beraiena); “B” GELA, 4 urtekoen gela da

2001/IX/19

Beheko solairuan, 2 urtekoen gela martxan dago. Bertan, 5 haur, 5ak mutilak eta gurasoak gelan eserita daude. Mutiletako bat sukaldeko ontziekin jolasten dabil.

9:15 Haizea eta Ivan tenperekin margotzen ari dira ni gelan sartu naizenean (“A” gelan); Sonia eta Ylenia margotzen; Imanol D., Xabier eta Imanol E. Arantxarekin “argazkiak” ikusten.

Momentu honetan, “B” gelako neska bat dator (4 urtekoa) “Lego” piezak hartzen ditu eta lanean hasten da.

Haizeak: Arantxa, no tengo rosa.

Ateak **irekita** daude eta horrek esan nahi du, gela batean nahiz bestean ibili daitezkeela ikasleak.

Arantxak: Ylenia, erakutsi marrazkia jaso aurretik.

9:22: Ivanek bukatu du margotzea, bata kendu eta eskuak garbitzera doa komunera, bakarrik.

Orain Ylenia tenperetara. Orri handiak erabiltzen dituzte (A3 formatuan).

Soniak: “**Nahi dut pixa**” eta komunera doa.

Xabier: Ipuinekin, entretenituta ikusten da.

Imanol E.: Kantari: “Astoa ikusi nuen...”

9:30 Mutil bat dator “B” gelatik tenperekin margotzera, baina, tokia okupatuta dagoenez, mahian eseri eta zain gelditzen da.

Danel iritsi da bere amarekin. I.D. hurbiltzen zaio agurtzera. Motor bat dakar Danelek.

Arantxak: Amak eramango du edo, kaxan utzi nahi duzu motorra? D.: No! Orain lana egin behar duzu eta ezin duzu patrikan sartu. Kaxan uzten du, Danelek berak.

Beste 2 neska ere tenpera egitera datoz, bitartean, puntzoiekin hasten dira lanean.

Danelek ere tenperak nahi ditu. Arantxak: Jende asko dago zain Danel, zer egin nahi duzu? Bai.

Beste gelara doa baina segituan itzultzen da. Berrito tenpera nahi du; A-k beste proposamen bat egiten dio, plastilina. Danel, Sonia eta Haizea plastilinarekin hasten dira; Danel ez da zentratzen eta segituan altxatzen da.

Nik Arantxari: Hasera hau, oso zaila da, ezta?

Arantxak: Erakusten pasatzen duzu denbora, batzuei, itxoitea, asko kostatzen zaie

Materiala

Mota eta kolore askotako paperak daude.

I.D. eta Ander tenperekin ari dira. Xabier, Sonia eta Haizea plastilinarekin jarraitzen dute; batak besteari “txorizoak” trukutzen dabilta.

Soniak paper handia hartuta: “**Handia** puedo” Arantxak: Txikiarekin hobeto. Puntzoiarekin hasten da.

Daneli asko kostatzen zaio zain egotea, ez daki zer egin.

Arantxak: *Lehen goan esaten zenidan denbora dezente pasatzen dutela jarduera batean. Horren arrazoia edo diferentzia da, beraiek aukeratzen dutela zer egin nahi duten*

Irakaslearen zeregina

Denbora guztian proposamenak egiten, aukerak ematen, arauak gogorarazten ari da Arantxa.

Xabier beste gelara doa: "a jugar" esanez.

9:45 Ivan eta Xabier beste gelan dabilta.

Arantxak: Danel, Anderrek bukatu du, nahi al duzu orain margotu? Bai. Papera hartu eta hasten da.

B gelara noa zer egiten ari diren behatzera.

Ivanek trena egin du eta batetik bestera eramaten du, Xabier jolasten dabil, baita I.E. ere.

A gelako mahaian Axunen 3 ikasle daude: puntzoiekin hustu, paper transparenteak itsatsi, egunkarietako paperak moztu, ...Bukatu dutenean Arantxak esaten die: Joan Axuni erakustera.

Danelek 10 minutu pasa ditu margotzen eta eskuak garbitzera doa.

Xabier sartzen da eta berriro doa: me voy a la otra gela.

9:57 Izugarrizko aktibitatea dago 2 geletan.

Xabier: Yo quiero 'moztar'.

10:00 Xabier, Ivan, Ylenia eta Haizea guraizeekin moztzen ari dira, Sonia tenperekin, Danel eta Imanol D. leihotik begira, beste gelako neska bat tenperekin.

10:10 Danel, Ylenia, Imanol D. "Lego" jokoarekin dabilta.

Danelek niri: "Oye, me quiere cortar el pelo" (Ivanengatik).

Haizeak: A mi el "oto" día me "cotó" el pelo un nene.

Danel builaka eta kolpeka. Arantxak: Besteak lanean ari diren bitartean ez garrasirik egin.

D-ek A-ri: Ivan me quiere cortar el pelo.

Mikeli (4 urtekoa) Arantxak: Lehen goan egin zenuen hau baina ez zenuen bukatu, (kartulinar egindako lana) bukatu nahi duzu? Berak: bukatuta dago eta plastilinarekin hasten da.

D-ek: Me voy a la otra gela. A-k: Gero erakutsi zer egiten duzun..

Arantxa: *Imanol E.-k lehen goan denbora asko pasa zuen tenperaz margotzen. Nik: aurretik noizbait egin ote du? A-k: Ez dakit, amari komentatu nion eta esan zidan asko gustatzen zaiola margotzea. Nik: Baina tenperarekin, etxean bai? Ez dakit*

Ylenia: Telefonoz deika "Lego" pieza batekin.

10:20 Denak alde egin dute gelatik. Arantxak: Oraindik jolastu behar da hemen; Xabier etortzen da.

10:25 Arantxak eta Axunek materiala jasotzea erabakitzen dute. Niri: bestetan 10:30ak arte egoten dira, gaur lehentxeago.

Orain borobilean eseriko gara **bakoitza bere gelan!** Ivanek: Bien, bien. I.E.: **Zu, nire ondoan** (Arantxari).

“Eraikuntzen” gelak asko erakartzen ditu.

10:30 Kostatzen ari zaie borobilean jarri eta isiltzea.

Errepasoa: Ni gela honetan egon naiz eta zu Sonia? **Hemen.** Zer egin duzu gela honetan?

“**Tenpera eta moztu**”. Zer moztu duzu? ‘una estrella’, zer gehiago? ‘**margotu** con rotulador’.

Eta, beste gelan?: ‘con los botones’ A-k: Hori gaur ez. S-k: ‘muchas cosas’. Baina bat esan. S-k:

“una estatua”. Zer da estatua bat? S-k: ‘he hecho una estatua de estrella’.

Danelek: ‘Tenpera y después he jugado mucho, **moztu** y con rotulador’, ah! y en la piscina. A-k: baina orain piszinaan ez. Bukatu duzu? **Bai.**

Imanol E., zuk zer egin duzu? Ez du erantzuten.

Norbaitek nahi du zer egin duen kontatu?. Haizeak: yo. Zer egin duzu?: “**Pintatu**” Zerekin? “**moztu**”.

Danel txorakeriak egiten hasten da.

Ylenia, zer egin duzu zuk? “**Margotu** y en la otra gela una casa”.

Ipuina kontatuko dizuet, bere izena da “Jonas eta hozkailu beldurtia” . Aprobetxatzen du galderak eginez, gai honi buruz haurrek dauzkaten **aurretiazko ezagutzak** jakiteko. Etxean daukazu hozkailua? “Sí, mi madre mete las cazuelas, tenemos muchas cazuelas”

Eta, esnea non gordetzen da? “No tenemos esnea”. Xabier, zure amak non gordetzen du esnea?

“En la cazuela”. Danelek: “Mi madre guarda en la nevera” A-k: Hotza egiten du hozkailuan, zergatik? Janariak ondo egoteko. Danelek: “Debajo de mi casa pone ‘Balay’. Begira zer esaten duen Danelek...

Ipuina kontatzeko, nola eduki behar ditugu begiak? Beraiek: **Irekita.** Belarriak? **Erne.** Eta, ahoa? **Itxita,** entzuteko.

10:40 Ipuina kontatzen hasten da, tartean galderak eta komentarioak eginez: por qué tiene motorra? (Danel). Zer dago zure hozkailuan Xabier?: “**Otsoa ez**”. Ez, zer? “**bazkaria**”. Soniak: Detrás de mi frigorífico hay “**otsoa**”. Ez, motorra dago. No,

Danelek: Queremos ir abajo. Itxoin pixka bat. Galdetu amatxori non daukan hozkailuak motorra. Haizeak: ‘La mía mete natillas’. Imanol D.: ‘La mía mete petit-suisse’.

Izenen errepasoa panelean: Bakoitzak banan-banan. Arantxak: Gaur denak etorri gara!.

Haizeak: Gaizka no. A-k: Oso ondo. Gaizkaren izena hartu eta paneleko beste aldean ipintzen dute. Orduan, zenbat ez dira etorri? Gaizka. Orduan 1 falta da gaur.

ETORRI DIRENAK	ETORRI EZ DIRENAK
DANEL	
GAIZKA (ez)	GAIZKA
HAIZEA	
7	
IMANOL D.	
IMANOL E.	
IVAN	FALTA DIRA
SONIA	1
XABIER	
YLENIA	

Orduan, zenbat etorri gara? Denek batera: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8. Eta, nirekin? 9. Zenbat ez dira etorri? : Bat. Y tiene **mina**? Ez dakigu baina, kantatu egingo diogu: “Gaizka...”

10:50 Gosaria: Kiwia jango dugu, bitamina asko dauka. A-k: Zer da bitamina? “Mi tía Luisi si que tiene vitamina porque compra Zumi” Besteek: y yo y yo.

Sagarraren azalarekin: ‘**luzea**’ lantzen dute. Zer ditu barruan? Denek: **Haziak**. Sonia: Ah, eso es “**sagar gorria**”. Danelek: No es gorria. Zergatik? A-k: azala kendu diogulako.

Ivanek oso ondo hartzen du parte.

A-k: Hau sagar gorria da? Soniak: **Ez, horia**.

Gosaria aprobetxatuz lantzen dituzten hainbat helburu

- . Elikagai desberdinak jaten ikastea (gailetak, flautak, frutak).
- . Elkarrekin konpartitzea.
- . Itxoiten ikastea.
- . Matematikako kontzeptuak lantzea: luzea, motza, gorria, horia, handia, txikia, forma desberdinak: borobila (gailetak).
- . Euskara lantzea.
- . Fruta desberdinak ezagutzea: sagarra, udarea, kiwia.

11:00 Abestiak: “Pingu, pinguino txiki-txikia”; “Esku bat nahi det jolasteko”

Oso ondo jarraitzen dute. Bi Imanol isilik daude baina entzuten dute. I.E-ak besteek bezala mugitzen ditu eskuak.

Abesti bakoitzak bere irudia eta letrak jarrita dauzka eta material hau plastifikatuta.

11:05 Komunera, eta handik patiora.

Danel: umeen kotxearekin dabil, oso gustura.

Ylenia, Haizea, Imanol D., sokarekin dabilta.

11:50 Gelara igo eta zer egin duten errepasatzen dute eta arauak gogorarazi: Arantxak: Danel, zu gelara igo zara? D-k: Ez. A-k: Pixka-pixka bat ere ez? D-k: **Pixka bat**.

11:55 Izena errekonozitzen (bakoitzak berea)

Ia denek ezagutzen dute eta berea hartu eta kaxan sartzen dute, bihar berriro panelean jartzeko. Jaso! Aulki berdeak eta zuriak bereiztuz.

12:00 Etxera. Haizeak Soniaren amari: "Gaizka no ha venido".

Ivan eskolan gelditzen da Arantxarekin 13:00 arte.

Goiz bateko saioen antolaketa eta egindako hainbat jarduera

9:00	HARRERA-AGURRAK
9:15 - 10:30	ZIRKULAZIO LIBREAN: MARGOTEGIAREN GELA ETA ERAIKUNTZEN GELA IREKITA MATERIALAK JASO
10:30 - 10:40	ELKARRIZKETA (EGINDAKO JARDUEREN ERREPASOA)
10:40 - 10:50	IPUINA IKASLEEN ASISTENTZIA: ETORRI DIRENAK ETA EZ DIRENAK ZENBATZEN
10:50 - 11:00	GOSARIA KONTZEPTUAK LANTZEN ABESTIAK
11:00	KOMUNERA
11:10	PATIORA
11:50	PATIOAN EGIN DUTENAREN ERREPASOA
11:55	IZENAK ERREKONNOZITZEN
12:00	AGURRAK

Inpresioak

Sistema honek ziurtasun eta espierientzi handia izatea eskatzen die andereñoiei.

“A” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	ID.	IE.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marraskia (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Mozketa (5)	3 1 2 5	-	1 3 5	1	1	1 5	1 2 3 4 5	3 5	2 1 5
PUZZLEAK(1); LEGO-a (2)	2	-		2					2
ARGAZKI-ALBUMAK		-		+	+			+	
IPUINAK		-						+	
ABESTIAK	+	-	+	+	+	+	+	+	+
MATERIALAK JASO	+	-	+	+	+	+	+	+	+

* = Kantari, bere gisa

“B” GELAN = ERAIKUNTZAK

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
TRENAK						+			
ESTATUAK							+		
ETXEAK									+
MATERIALAK JASO						+	+		+

PATIOAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
UME KOTXEAREKIN PASEATZEN	+						+		+
SOKAREKIN SALTOKA			+	+					+
KORRIKA	+		+	+	+	+	+	+	+
MATERIALAK JASO	+		+	+	+	+	+	+	+

2001/IX/26

9:10 Ylenia margoekin dabil, Sonia, Haizea eta Ivan guraizeekin mozten, Imanol E., Imanol D eta Xabier plastilina egiten.

Danel sartzen da gelan amarekin, eskuetan panpina bat duela. Ez du panpina utzi nahi eta Arantxak gogorazten dio: “Utzi behar duzu zuk lana egin behar duzulako eta berak berriz ez”; gero hartuko duzu. Konbentzitzen da.

I.E.-k: **Begira Arantxa atzera aldera!**

Ivan: Gelatik ateratzen da baina berehala itzultzen da.

Ylenia: Argizarizko margoekin margotzen ari da.

9:30 Gaizka bere amarekin sartzen da. Ez du alkandora erantzi nahi eta negar pixka bat egiten du. Gelan sartu eta ipuin bat hartzen du.

I.E. eta X. tenperekin hasi dira eta D.-ek berehala: “yo también”. Xabierrek bukatzen duenean joaten da eta I.E. eta I.E.-k bata jantzi dute eta margotzen hasi dira. A-k: “Ixipua horrela, ez da danborra” Yleniak oso marrazki polita egin du eta besteei erakustera doa “mira” esanez. Inork ez dio kasurik egiten eta Arantxarengana jotzen du: “Den dena margotu behar duzu”; laguntzen dio pixka bat eta berak bukatzen du.

Yleniak berriro “mira”. Haizeak esaten dio: “ui qué bonito! Y, que es eso?. Y-k: “Una casa”.

Gaizka, jangela martxan hasi denetik etortzen dela esaten dit Arantxak. I.E. eta I.D.-k lan asko ematen diotela komentatzen dit.

Y.: “Mira Arantxa”

A-k: Dena, dena margotu, indar asko egin! Eta, kartoian ari denez, fuerte egiten du. Kolore bat aukeratu behar dute eta horrekin kartoi guztia margotu.

I.E. eta I.D.-k 10 minutu pasa dituzte tenpera egiten. Orain Ivanek eskatzen du tenperarekin hastea.

H-k: ¿Por qué pones un papel Arantxa? Ivanek tenpera egin nahi duelako.

I.E. eta I.D. biak komunera doaz bakarrik eta Arantxa laguntzera doa.

X.: Legorekin dabil jolasean.

A-k: Ez duzue beste gelara joan nahi? Xabier eta Danelek: Bai. Orduan, ia denak joaten dira atzetik.

Bi geletako ateak irekita daude

Y-k: “Ya”. A-k: Orain puntzoiarekin egin.

I-ek: “Ya está bukatu”. A-k: Bukatu dut. I-ek: Errepikatzen du.

9:50 Haizeak guraizeekin jarraitzen du.

Y-k: Puntzoiarekin gainera marrazkiak egiten ditu. Iñaki (atezaina) sartzen da gelara eta Y-ak egiten ari dena erakusten dio.

Gaizka ipuinekin ari da.

Danel “B” gelan dabil. X-ek: ¿Qué hace allí?

Eskulanaren prozesua

a.- Kolore beltzarekin kartoi guztia margotu.

b.- Puntzoiarekin marrazkiak gainean egin.

c.- Taladroarekin 2 zulo txiki egin.

d.- Zinta bat jarri eta zintzilikatu.

Y.: Beste gelara doa.

I.E-k: Margo guztiak atera ditu kaxatik eta A-k: “Orain, denak sartu behar ditugu”

Arauk gogorarazten

- . Borroka ez dira hemen egiten.
- . Korri ez da hemen egiten.
- . Ipuinak ez dira zapaltzen
- . I.E., baxuago hitz egin.
- . Ez eraman aulkiak arrastaka.
- . H-k oso polita egin du eta ez puskatu.
- . Aulkia hartu eta eseri, mesedez.
- . Patioan gaudenean ez da gelara etorri behar.

9:55 I.D., X. eta G. gometsekin ari dira

X-ek: “Te voy a ganar Gaizka”. A-k: Ez da lehiaketa bat.

I.E.: Txotxongiloekin.

H.: Margotzen.

S.: Ipuinak eta argazkiak begiratzen.


I. eta D. beste gelan.

A-k Soniari: Nahi duzu puzzleekin ibili beste gelan? S-k: **Bai**. A-k: Lagunduko dizut.

Oraingoz ez da beste gelako inor etorri.

H-k: Bi edo hiru kolore desberdinekin margotu du kartoi guztia. A-k: Orain kolore beltzarekin margotu behar duzu.

Y-ak: "Arantxa, mira, para llevar a casa" A-k: Ez, hau ez da etxera eramateko.



Eraikuntzen gelan dabilta Sonia eta Ylenia; harresi bat egin dute eta barruan zubiak ipini dituzte. Ivan, begira daukate.

Haizeak bukatu du beltzez margotzea eta gainetik marrazkiak egiten ari da. A-k: Egin ezazu borobil bat. H-k: ¿Ahora? A-k: Gehiago egin nahi duzu?

Danelek plantila bat hartu du. Plantiletan marrazki, hizki eta zenbakiak daude.

10:15 Mahai batean ari dira Danel, Haizea eta beste gelako bi neska.

Y-k: Tenpera egiten ari den haur bati: ¿qué haces? Besteak: pintar.

4 urteko gelako 2 neskak bukatu dutenean, euren gelara doaz egindakoa Axuni erakustera.

10:20 Mutil bat eta Y. tenpera egiteko prestatzen ari dira. D-ek: "Haizea, ¿pongo tu nombre?".

H-k: Sí.

B gelako 2 mutil plastilina egitera etorri dira A gelara. Y-k zertan ari diren begiratzen die.

Sonia: Beste gelan egindako puzzle batekin dator, Arantxari erakustera.

D-k: ¿Puedo quitar los nombres Arantxa? Bai, gero berriz jarriko ditugu.

Momentu berean eskaera asko egoten dira: batak bukatu duela, besteak erakutsi nahi duela, besteak eskuak garbitu beharra, beste bat builaka, beste bi bultzaka, etab.

10:30 Orain hasiko gara jasotzen. Imanol E., lagundu egin behar didazu!

H-k: "Arantxa, es tu vela" (plastilinaz egindakoa).

Haizea eta Sonia elkarrekin hitz egiten.

S-k niri: "El cumpleaños que estoy haciendo es para mi ama".

I.E.: Gauzak jaso behar dituztenean, bera, gauzak ateratzen hasten da.

Harrotuta dabilta eta korri, garrasi, gauzei kolpeak emanez....

A-k: Nahi duzun tokian, txurian, berdean, gorrian, baino eseri!. Haizea eta Ylenia, zain gaude!

Borobilean **errepassoa**. Gaur goizean garrasi asko egin dugu, hitz egingo dugu baxuago?

A-k: Danel, zein da zure andregaia? D-k: "Es muy fea".

Izenak banatzen. Erakusten dizkie eta bakoitzak berea identifikatu behar du. Hau norena da?

Asistentzia. Denak etorri diren ala ez errepasatzen dute. **Zenbat** etorri garen kontatu: bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi. Denak etorri zarete; **9** jartzen dute. Eta, zein falta da gaur? Inor ez; orduan, zer ipini behar dugu? **0**.

Ipuina kontatzeko:

- . Begiak irekita
- . Ipurdia, ondo eserita
- . Belarriak erne
- . Ahoa itxita

10:45 "Hiru txerrikumeen ipuina"

Oso ondo jarraitzen dute, galderei erantzunez.

Elkarrizketa: Gaia: FERIAK

Lehen X. etorri da galdetuz zer ipini behar duten Martutenen? Feriak. Eta, zer dira feriak? Arriba y abajo.

D-k: En Calahorra también y me voy en la moto con mi prima.

X: Anda por 2 lados, uno por la carretera. Las ferias andan por una carretera. Porque andan.

A-k: Joango gara ikustera Martuteneko feriak.

GOSARIA

Frutak: Udarea, sagarra.

Gailetak.

Gosaltzen duten bitartean **elkarrizketan** ari dira eta "Feriekin" jarraitzen dute.

Kontzeptuak lantzen: Luzea -motza.

Arantxak: Non egiten ditugu garrasiak? H-k: **Kalean eta koltxonetan**. Haizeak ikasi du. Beste gauza bat: H-k esan dit berak triziklo handian ibili nahi duela, orduan, txandaka ibili beharko duzue.

I.E.: altxatzen da "pixa, pixa" esanez.

11:05 Denak doaz komunera pixa egitera.

PATIOAN

Belarrean dabilta pala eta eskuarearekin hostoak jasotzen.

Korrika eta trizikloekin...

11:55 Borobilean jarri eta errepassoa. Txandaka ibili zarete trizikloan? Patioan gaudenean, ez da gelara etorri behar. D-k: "Yo no pinto sin papel". A-k: Eta, nola margotu duzu? D-k: Con papel. Orduan, igo zara gelara? Sí (ezetz esaten zuen hasieran).

Sonia ez dut kontentu ikusi patioan, denbora luzean egon da "igloo" barruan, ezer egin gabe. Bere ama gelaren kanpoaldean egon da, beste amekin hitz egiten (2 urtekoen gelara anaia ekartzen duelako).

12:00 Orain, batzuk jangelara eta besteak etxera doaz.

Arratsaldetako ordutegia

14:30etik - 16:30etara

14:30 - 15:00 Borobilean

15:00 - 16:00 Zirkulazio librean

16:00 - 16:30 Patioan

Arratsaldez gelditzen diren 2 urteko haurrak ere, Arantxarekin egoten dira.

Arantxak: *Danel, I.E. eta Iovan ere ez dira atzean gelditzen. Danelek lan asko ematen du. I.E. oso umea da. Sonia berriz, ez da gelatik atera besteekin batera eta triste ikusten dut; ez du kasurik egiten. Ama anai txikiarekin behean dagoelako, behar bada?*

Irakaslearen hainbat funtzio

- . Proposamenak egitea
- . Gonbidatzea
- . Laguntzea
- . Arauak gogoraraztea
- . Animatzea
- . Gauzen zergatia azaltzea
-

Oharra

Gelaz aldatuko dira andereñoak datorren astean (Arantxa "B" gelan egongo da eta Axun "A" gelan). Astean behin aldatuko dira.

"A" GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	ID.	IE..	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marrazkia (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Mozketa (5); Gometxak (6)	2 1	6	5 2 3	3 1 6	3 1 2	5 1	5	3 1 6	2 4 1
PUZZLEAK(1); LEGO-a (2)								2	
ARGAZKI-ALBUMAK							+		
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)		1			2		1		
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2)	1								
MATERIALAK JASO					+ (A)				

(A): Arantxarekin

“B” GELAN = ERAIKUNTZAK

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	ID.	IE.	I	S	X	Y
EGURRAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3*); PUZZLEAK (3b); KARTAK (4); BI BERDINEN JOKOA (5); EL LINCE (6); PARTXISA (7)						1	3b 1		1
IPUINAK									
MATERIALAK JASO						+	+		+

PATIOAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	D	G	H	ID.	IE.	I	S	X	Y
TRIZIKLOAK	+	+	+	+	+	+	+	+	+
HOSTOAK JASOTZEN	+	+	+	+	+	+		+	+
KORRIKA	+	+	+	+	+	+	+	+	+
MATERIALAK JASO	+	+	+	+	+	+	+	+	+

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEA: U R R I A

IKASLEAK/EGUNAK	3	17	31
DANEL	9:00 - 12:00	9:30 - 12:00	9:20 - 16:30
GAIZKA		9:30 - 16:30	9:10 - 16:30
HAIZEA	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
IMANOL D.	9:00 - 12:00	9:20 - 12:00	10:50-12:00
IMANOL E.	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
IVAN	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30
SONIA	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
XABIER	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
YLENIA	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30

2001/X/03

Eraikuntzen gelan (“B” gelan) Arantxa andereñoarekin

9:00 Harrera-agurrak.

9:05 “Zirkulazio librea”: eraikuntza, mahai jolasak, puzzleak,...

10:05 Ylenia eta Imanol D. partxisarekin dabilta; Xabier eta Ivan “pintxitoak” kolokatzen, hizketan ari diren bitartean.

10:15 Lau urteko Koldo, Ainhoa eta beste 2 neska sartzten dira eta puzzleak egiten hasten dira. Minutu gutxi barru joaten dira. Koldo eta beste 2 neskei -korrika sartu direnez- Arantxak: “ei, ei, ei, ez sartu korrika”.

Danel eta beste 3 urteko batzuk ‘beraien’ gelan daude (“A” Gelan). Danel dator eta “Zuhaitzen” jokoarekin jolasten hasten dira Arantxarekin: Ylenia, Imanol D., eta Danel.

Haizea, Imanol E. eta Sonia Axunekin daude.

10:30 Xabier eta Ivanek jarraitzen dute bere lanarekin eta elkarrizketa luzea daramate. Haizea hurbiltzen da eta berak ere “zuhaitzen” eta “sagarren” jokoarekin ibili nahi du.

Imanol E. itzultzen da eta Xabierrek: "mira coge otro"; I-k ez du nahi eurek egiten ari direnean I.E-k parte hartzea eta horrexegatik proposatzen dio Xabierrek beste zerbait egitea. X. oso gustura, pozik ikusten dut.

Arantxak: Oso polita ari zarete egiten!. X-ek: Sí, un tren de pasajeros.

Jarduera batekin hasi aurretik askotan galdetzen die andereñoak: zer egin behar duzu?

Tarteka, Iñakik (atezainak) bisitatxoren bat egiten du geletara eta umeak berarengana hurbiltzen zaizkio.

Iñakik: Ylenia, etorri. Ez. Besotik heltzen dio baina Yleniak ez du joan nahi. Nonbait, Ainhoa jo du eta horregatik etorri da Iñaki oraingoan.

10:35 Jasotzen hasiko gara.

Axunek: *Gaur egun nahastu xamarra daukagu, neska hau gaur etorri da lehenengo aldiz (2 urtekoa) eta bere andereñoa etorri ez denez gurekin egon da.*

Egurrezko piezak jasotzen: Haizea, Danel, Xabier, Ivan, Ylenia, Imanol D., Imanol E.

Arantxak: Sartu egin behar dira, ez bota!

Sonia falta da, ez da beste gelatik itzuli.

Gaizka ez da etorri.

10:40 Gela jasota dagoenez, gure gelara joango gara, dio Arantxak.

A-k: Sonia gaur ere ez dut pozik ikusten. Zer gertatzen zaizu Sonia egun hauetan?.

Ez du besteekin eseri nahi.

Izenak identifikatzen

X-ek: Gaizka ez da etorri.

Arantxak: Norena da izen hau? X-ek: Nirea.

A-k: Sonia, ipini nahi duzu zure izena? Soniak buruarekin ezetz dio.

Ylenia: Hau norena da? Y-k: Imanol E.rena. A-k: Oso ondo Ylenia. Eta, hau norena da? I.D.rena.

Oso ondo Ylenia.

Bakoitzak bere izena ezagutzen du eta batzuek beste batzuen ere.

Zenbatu: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7.

Sonia, zenbakiekin hasi direnean esertzen da.

Abestiak: "Gaizka gaixo dago buruño minarekin, Sonia joaten zaio..."

Elkarrizketa

Arantxak: Gaur ekarri ditut diapositiba batzuk, buru handienak. Noiz ateratzen dira? Falta dira oso egun gutxi Martuteneko festetarako.

I.D.-k: "Tengo un libro de las fiestas, me lo han regalado". Ekarriko duzu guk denok ikusteko? Sí, pone cuándo salen los cabezudos. A-k: Oso ondo, hori da 'festetako programa'.

A-k Yleniari: Txiklea ahoan edo zakarrontzira!. Y-k: **Ahoan.**

Danelek zirkoaren gaia aipatzen du. "Yo tenía miedo" A-k: Zergatik? Zerbait esaten du baina ez zaio ulertzen. A-k: Polikiago hitz egin. Bukatu duzu? D-k: **Ez.**

Soniak: "Me he metido en la piscina grande la **burua**, nado con manguitos, porque luego me canso.

A-k: Imanol D., norekin etorri zara gaur goizean ikastolara?. I-ek: Con mamá. Nola esaten dugu guk? Y-k: **Amatxorekin.**

Zeinek dauka mina hankan? I-ek: **Amonak.**

H-k: Mi ama estaba en casa y estaba pachucha. A-k: Eta, norekin etorri zara? H-k: **Amatxorekin.**

Sonia: Berriro altxatzen da eta zutabeari helduta dago, lehen bezala.

Ipuina: "Otso beltzaren ipuina"

Ipuina entzuteko: Begiak irekita

...

Zer gertatzen zaio otso beltzari? Y-k: **Negar ...**

A-k: Negar egiten du, hortzik ez dauka eta...

S-k: No puede comer. Berriro hurbiltzen da baina hori esan ondoren berriro zutabera doa.

Arantxa berak egindako materiala da: Lamina oso koloretsuak, plastifikatuta

Sonia entzuten ari da. Danelek: Otra vez, eskatzen du.

A-k: Zergatik dago pozik otso beltza? Ez dute ondo esaten. A-k jarraitzen du: Orain dago pozik dentistak hortzak jarri dizkiolako.

S-k: Quiero ir donde la ama. A-k: Orain badakizu ezin duzula.

11:00 Gosaria

Berriro itzultzen da Sonia jatera. Oso ondo jaten du, izugarrizko apetitua du eta esertzen da.

Gaur **intxaurrak** ekarri ditu Xabierrek eta horrekin elkarrizketa egiten dute: **gogorrak** direla, eskuekin ezin direla zuritu,... S-k: **Nik bai**, yo ya puedo. Laban batekin irekiko ditugu jarraitzen du A-k. Pozik daude.

Jarraian, **udarea** banatu eta jan dute. Gero **sagarra**. Honi bai, atera diezaioket azal **luzea**.

Gosaria bukatzeko **koka** edo flauta txikiak jan dituzte.

Buruari bueltak ematen Sonia horrela dabilela ikusita:

Amak anaia ekartzen hasi duenetik eta txikiarekin gelditzen denetik aldatu da bere jarrera. Joan zen urtean Sonia amonarekin etortzen zen eta amona gelditzen zen berarekin, ama ingresatuta bai zegoen...

11:08 Danel altxatzen da eta jolasten hasten da. A-k: Danel, mesedez, jaso hori eta etorri. Sagarra nahi duzu? Ez. Beno, ba orduan, eserita egon behar duzu.

D-ek: Voy a traer a mi perro. A-k: Ez, txakurrak ikastolara ez dira ekarri behar. D-ek: Pero es pequeño. A-k: Ikastolara haurrak bai baina txakurrik ez.

Joan den egunen batean egindako "koadroak" etxera eraman zituzten nonbait baina, Soniarena gelan dago. Sonia, eraman behar duzu zure koadroa etxera.

Eguraldia:

Nola dago gaur kalean? "Mojao".

Abestia: "Klin, klan, klin, klan, euri tantak euri tantak,..."

Arantxak: Gaur askoz egun lasaiagoa daukagu, atzo 'mortala' izan zen. Danel ez zen gelditzen bat hartu bestea hartu. Soniak ere egun txarrak dauzka azken egunetan

11:15 Komunera: pixa egin eta ura edan dute.

Y-k: Kuleroak eta galtzak berak jartzen ditu. Oso trebea da denetako: jangelan primeran jaten omen du, ez omen da zikintzen jaterakoan, euskaraz asko hitz egin nahi du, jarduera askotan parte hartzen du, oso erne egoten da eta pasatzen diren gauza guztiez konturatzen da, psikomotrizitate gelan ere parte-hartze handia dauka eta trebetasunez egiten omen ditu mugimenduak...

11:20 Gaur barruko piszinan ibiliko dira. Nahiko zarata izaten da nahiz eta 20-22 haur izan. Hemendik minutu batzuetara, 4 urtekoek, ingelesa dute eta lasaiago geldituko dira 3 urtekoak. Yleniak Ivani koska egin dio. Txupetea edo zerbait behar du oraindik, izugarritzko amorrazioa dauka ahoarekin, komentatzen dit Arantxak.

Arantxak. : Ivani txakurrak egin dizkio harramaska horiek aurpegian; gaur goizean etorri denean ez zuen bestEric esaten. Egia esan, nahiko markatua dago. Bere amak lehengoan esan zidan Ivanek 2 'txintxoi' zeuzkala eta Danelek palarekin jo zuela. Ni, egia esan, ez nintzen konturatu eta kezkatu egin nintzen. Gero, begiratu ondoren ikusi nuen, ez zela horrenbesterako.

Ylenia, Haizea eta Sonia, 3 neskak, asko ibiltzen dira elkarrekin jolasean, hitz eginez. Horrelaxe izan da gaurko jolas orduan ere, hirurak "kotxe kapotarekin" ibili dira, Ylenia erdian eta beste biak alboetan.

Pixkanaka, elkarrekintza momentuak luzeagoak eta aberatsagoak dira

11:45 Gelara igo dira eta borobilean piszinan egindakoaren **errepassoa** egin dute.

Ondoren, abestu dute eta agurtu ondoren, Ylenia eta Ivan jangelan gelditu dira eta beste denak etxera joan dira 12:00etan.

Patio estaliaren beharra

Nahiz eta zatitxo batean goitik estalita dagoen, ez da nahikoa, behar beharrezkoa da espazio gehiago ondo estalita egotea, bestela, egun askotan, ezin dira kanpora atera eguraldia dela-eta.

Bi geletako funtzionamendua

Oraindik ez daukate hartua 2 geletako martxa eta horregatik ere lan asko ematen dute hurrek. Arantxak komentatzen dit, atzo bertan, plastikan, ezin zituela denak ase.

Oharra

Arantxa eta Axun 12:00etan Astigarragako ikastolara doaz taldeko lana egitera, korrika bazkaldu eta 14:30etarako berriro gelara.

“A” GELA = “PLASTIKA GELA”

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
TRIZIKLOAK	+	-	+	+	+	+	+	+	+
KOTXE-KAPOTAREKIN		-	+				+		+
KORRIKA	+	-	+	+	+	+	+	+	+
MATERIALAK JASO	+	-	+	+	+	+	+	+	+

“B” GELA = “ERAIKUNTZEN GELA”

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
EGURREZKO PIEZAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3); PUZZLEAK (3b); PINTXOAK (4)		-			1	4		4	1
MAHAI-JOKOAK: PUZZLEAK (1); PUZZLEAK (1b); KARTAK (2); BI BERDINEN JOKOA (3); EL LINCE (4); PARTXISA (5); ZUHAITZEN JOKOA (6)	6	-	6	5 6					5 6
IPUINAK		-							
MATERIALAK JASO	+	-	+	+	+	+		+	+

BARRUKO PISZINAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marraskia (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Mozketa (5); Gometxak (6)			2		2		2		
PUZZLEAK(1); LEGO-a (2)									
ARGAZKI-ALBUMAK									
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)									
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2)									
MATERIALAK JASO									

2001/X/17

9:00 **Plastika gelan ("A" Gelan) Arantxarekin**

9:30 Gaizka amarekin dator eta kosta egin zaio gelara sartzea.

Danel ondo gelditu da ama agurtu ondoren eta segituan "eraikuntzen" gelara joan eta bueltatzen da; Ivan eramanarazi nahi du. Arantxak Danel hartzen du berarekin (asko kostatzen zaio entzutea) eta pixkanaka hitz eginez esaten du ipuina ikusi nahi duela eta badirudi lasai gelditzen dela gelan.

Beste gelako Andrea etorri da eta marrazki bat egin du. Haizea eta I.E. papertxoak moztu eta itsasten ari dira kola erabiliz.

Ivan, Imanol D., Ylenia, Danel eta Gaizka ipuinekin ari dira, hitz egiten duten bitartean.

9:35 Xabier beste gelatik itzultzen da.

Ylenia eta Ivan eskutik helduta doaz beste gelara; Gaizka eta Danel ere beraien atzetik doaz.

Arantxak: Agobiatuta nago; Danel ez da gelditzen, denei joka, 'kabitu ezinik'. Atzo Axunek atera zuen buruhandi bat eta psikomotrizitate gelako makilekin aukera ematen genion "jotzeko" eta ez, geldirik gelditzen zen, blokeatuta, eta neronekin ere borroketan jolasteko aukera ematen nion baina, nonbait, ikusten zuen nik indarra nuela eta neurtze horretan "blokeatuta" gelditzn zen.

Aste bukaeran, Martuteneko festak zirenez, gurasoekin bertan zenbiltzala, Imanol E-k Daneli bultza egin omen zion (I.E-k indarra dauka, maleziarik ez) eta nonbait Danel erori eta "kozkorra" atera bekokian (ostegun arratsaldean gertatu zen hori) eta astelehenean, jolas garaian, izugarrizko kolpea eman zion Danelek Imanoli. Ez zaizkio ahazten.

9:45 Eraikuntza gelako 2 ikasle datoz, Andrea eta Mikel. Mikel ipuinekin hasi da eta Andrea plastilinarekin.

Arantxak Imanol E-ri asko lagundu behar dio, segituan esaten duelako: "**bukatu dut**".

Imanol D. margotzen ari da, lasai, bera bakarrik.

Sonia, Xabier, Haizea, Imanol E. eta Andrea paperak mozten eta itsasten ari dira.

Arantxak Soniari: Sonia, Sonia, kontuz, (kola erortzera zihoalako) eta Sonia haserretuta beste gelara doa. Atzetik doa Arantxa berarekin hitz egitera. Bueltatzen da eta A-k galdetzen die: Zer falta zaio lan honi? Denen artean, azkenean, Sonia berak esaten du: "**Izena**".

Haizeak eta Xabierrek: "**bukatu dut**". Honi ere, zer ipini behar zaio? Izena, erantzuten dute.

Soniak: he puesto **izena**.

9:50 Ylenia itzultzen da. A-k: Kolarekin ibiltzeko mantala jantzi behar da. Korrika doa mantalaren bila eta berak jantzten du.

Bakoitzari, **egitea daukanaren arabera eskatzen dio**, adibidez, ume batek esaten dio: “pailazoa”, bukatutzat eman ondoren; A-k ikusten du osatu dezakeela, ez dagoela bukatuta eta jarraitzera animatzen du.

Axun dator beste gelatik neska bat eskutik hartuta, nonbait negarrez zegoen eta Arantxarekin komentatzen du gertatzen zaiona. A-k: Eta, Danel, zer moduz dabil? Nahiko desmadratuta dabilta, erantzuten dio Axunek.

9:55 Sonia eta Imanol E. tenperekin margotzen ari dira.

Ylenia koloreekin esperimentatzen dabil, bitartean, Danel Ivanen bila doa korrika. Gaizka erori egin da. A-k: Horrela ezin da ibili, ezin da korrika ibili. Itxoin, zer egin behar duzu beste gelan?


G-k: **etxe bat**. Bukatzean erakutsi, bale?

A-k Yleniari mukiak kentzen dizkio. Zenbat gauza egin behar dituzten batera!!!

Sonia plastilinarekin dabil. Haizea tenperekin.

Beste gelako Ander eta beste mutil eta neska bat datoz, plastilinarekin hasten dira.

Temperaz egindako marrazkiak gordetzeko oso tresna egokia jarri dute eta horrela, bakoitzak bere marrazkia jar dezake bukatu ondoren.



Danel eta Gaizka beste gelan dabilta, Ivan ere. Gaizka Ivanekin leihoaren ondoan hitz egiten, Danel eta Haizea mahai jolasetan, begira.

10:10 Xabier eta I.D. tenperekin; Ylenia, oso entretenitua pusketak itsasten, plastilina egiten 5 haur, Sonia, eta 4 urteko 4 haur.

10:15 Y-k: “Ya **bukatu dut**” eta mantala kendu eta plastilinarekin hastera doa.

Malen dator ipuinetara.

Beti galdetzen die Arantxak: Kaixo, zer egin behar duzu?

Ume bat hasi da “Arriba, arriba, abajo, abajo,...” kantatzen. Besteek ere badakite. Danel hurbiltzen da eurengana baina, badirudi, ez dakiela zer egin.

Mikelek: Arantxa, kolarekin? Besteek, plastilinarekin soinu handia ateratzen dute, kolpeka mahai gainean eta Milekek dio: me duele la cabeza.

A-k: Danel, pentsatu zer egin behar duzun! D-ek: Con Xabier. Erabakitzen laguntzen die. Asko kostatzen zaio Daneli patxadan gelditu eta esaten zaiona entzutea.

I.E.: B gelan egurrezko piezekin kolpeak ematen dabil.

D-ek: “**Nik kartulina bat**”. Kareta bat egin nahi duzu? **Bai**. A-k marrazkia egiten dio eta esaten: Orain zuk ipini begiak, sudurra, Segituan: ya está Arantxa. Eta buruan zer egin behar diozu? Quiero cortar, Arantxa.

Ainhoa (4 urtekoa) plastilina pusketa batekin dator aurpegian besteak ukitzera; Ivanek ez du nahi ukitzerik. Ainhoak bere gelako Anderri: irás a mi casa. A-ek: cuando pueda. Yleniak: yo también. A-k: tú no. Y-k: pues yo tengo muchos chicles.

10:25 Mikelek kareta bukatu du: marraztu, kartulina bat atzean jarri, puntzoiarekin zulatu eta Axuni erakustera doa.

3 Ikasle bakarrik daude gelan: Y. plastilinarekin, D. Arantxak lagunduta kareta bukatzen eta Mikel puntzoiarekin. Bat-batean 3 neska ipuinetara datoz. eta Ainhoak dio: **Jasotzera!** porque yo soy la **arduraduna**. Y-k plastilinarekin jarraitzen du.

X-ek: “Arantxa, se ha caído la casa”.

I.E. etorri eta atea ixten du.

Arantxak: “**Kontenitzen** duzu eta gero askatzean duzunean, bruuun. Lana da kontenitzea, atzo Julenek (aholkularia) kontenitu zuen eta gero, beno”.

10:35 Jaso egin behar dugu. Sonia aulkiak borobilean jartzen hasten da eta esertzen da. Berarekin batera Haizea eta gero Danel. Ylenia abestien laminekin esertzen da.

Xabier oso irribarretsu dabil, gustura, asko ireki da.

Arantxak: “Andrea tienes que terminar porque Axun te está esperando (neska hau hasi berria da)

A-k: Nik esango dizuet nola eseri. Gaur arduraduna Sonia izango da. H-k: “Es que no quiero con Ylenia”.

Errepasoa: Non eta zer egin duen bakoitzak:

Danel, non egon zara? Donde Axun y luego he venido aquí y he cortado. Nola esaten da euskaraz? **Moztu**. A-k: Kartulina moztu dut. D-ek: ¿eso qué es? A-k: zakarrontzia. D-ek He tirado a zakarrontzia los papeles.

I. D., non egon zara? Donde Axun. A-k: eta, gero? I-ek: pues, pues, pues, pues. A-k: Tenpera egin duzu? I-ek: **Bai**.

X-ek: **Tenpera, gero etxea**. A-k: norekin? X-ek: **Imanolekin**.

Y., zuk zer egin duzu? **Etxe bat**. A-k: Norekin? Y-k: **Ni bakarrik**.

H-ak: **Tenpera, margotu eta moztu**. Norekin? **Ni bakarrik**.

I-ek: **Kanika** jugar. Non? Axun.

I.E.-k: **Kanika**. Norekin? **Danelekin**.

Gaur Sonia da arduraduna eta berak banatuko ditu izenak. Izen bakoitza hartu eta galdetzen die: **norena da hau?** Bakoitzari ematen dio berea identifikatu ondoren eta gero norberak jartzen du. I.E.-k ez du ezagutzen eta Sonia berak ematen dio.

Orain Soniak kontatu egin behar ditu zenbat etorri diren. Oso ondo kontatzen du 1etik 9ra. **Nor falta da gaur?** 0. Alde batean 9 jartzen dute eta beste aldean 0.

I.D.-k: Yo tengo un coche viejo.

D-ek: El de mi aita está en el garaje.

S-k: El mío va a trabajar. A-k: Eta, ama? S-k: **Etxean**, hace los deberes conmigo. A-k: Eta lanak?; berak: no. Nork egiten du bazkaria? **Amak**. Orduan lan egiten du ere.

Ipuina: Txerrikumeena kontatuko dizuet gaur. Txerrikumeak gaur izango dira: Danel, Ylenia eta Haizea. Soniak ere nahi du izan. Txerrikume handia izango da Danel, ertaina Ylenia eta txikia Haizea.

Prest zaudete ipuina entzuteko?

Betiko prestaketa: Begiak irekita, ...

“Behin batean ... eta 3 txerrikumeak ziren: Danel, Ylenia eta Haizea...”

Y-k: **Eta nik, eta nik, eta nik.**

Bestearen izenak direnean bakoitzak galdetzen du bereaz. S-k: “**eta jan egingo zaitu**, a tí, Ylenia”. **Oso ondo**, jarraitzen du Soniak.

Alteratu dira izenen asunto horrekin. S-k: Y mañana, Ivan, Imanol E. y Gaizka. A-k: beno, ikusiko dugu.

11:05 Orain **gosaria**. Zer daukagu gosaltzeko? Kiwi bat aurrena.

Abestia: Jan, jan, jan eta jan... Ez dute abestu.

Orain udarea eta honekin ere beste abestia eta orain bai, abestu dute.

Orokorrean, ondo jaten dute fruta

Orain sagarra jango dugu. H-k: **Txikia**. A-k: Bai, txikia da.

H-k oraingoan: Policia!. A-k: zeinek esaten du hori? H-k: Pues en el coche de policías y te va a coger y te va a llevar a la cárcel. Ez, ez, ez.

Beste sagar bat eta bukatzeko, intxaurrak.

Abestia: Traktore baten gainean...

Meloi pusketa bat ere! Hau ez da zikinkeria; hau meloia da eta Xabierri asko gustatzen zaio.

I.D.-k: A mi ama le gusta mucho el melón. A-k: Eta, zuri? No.

Aholkua

Arantxak: Gauza bat esan behar dizuet, patioan kotxeekin “ran, ran, ran” ibiltzen zaretenean, hankak gora igo behar dituzue, bestela, zapatak eta zapatilak puskatu egiten dira.

11:15 Orain joan komunera pixa egitera, ura edan eta patiora.

Patioan: trizikloekin, kotxeekin, buru handiekin. Xabier hobeto dago baina, hala ere, Arantxaren besoetan egon da.

12:00 Non egiten dira garrasiak? **Koltxonetan, kalean.** Mantala kendu eta hartuko ditugu motxilak baino garrasirik egin gabe.

Agurrak..

Irakaslearen eskakizunak

Haur bakoitzari egitea daukanaren arabera eskatzen dio, noraino egin dezakeen neurtuz.

Arantxak: Daneli asko kostako zaio dinamika honetan martxa hartzea.

Sonia oso kasketosa dago, etxean ere bai bere amak esaten didanez.

Gaizkak, ez du gehiegi entzuten, bere gisa dabil.

Imanol D., bere aidera dabil.

3 neskak asko ibiltzen dira elkarrekin.

“A” GELAN: PLASTIKAKO GELA

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	IE	I	S	X	Y
MARGOTEGIA:			5				5		
Temperak (1); Marrazkia (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Mozketa (5); Gometxak (6)	5		1	2	5		1	5	5
			2	1	1		3	1	1
PUZZLEAK(1); LEGO-a (2)									
ARGAZKI-ALBUMAK									
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)	1	1		1		1			1
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2)									
MATERIALAK JASO			+	+			+		

“B” GELAN: ERAIKUNTZEN GELA

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	IE.	I	S	X	Y
TRIZIKLOAKK	+	+	+	+	+	+	+	+	+
KOTXEA									
KORRIKA	+	+	+	+	+	+	+	+	+
BURUHANDIAK	+	+		+	+	+	+		+
MATERIALAK JASO	+	+	+	+	+	+	+	+	+

PATIOAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	IE.	I	S	X	Y
EGURREZKO PIEZAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3); PUZZLEAK (3b); PINTXOAK (4)		1			1				1
MAHAL-JOKOAK: PUZZLEAK (1); PUZZLEAK (1b); KARTAK (2); BI BERDINEN JOKOA (3); EL LINCE (4); PARTXISA (5); ZUHAITZEN JOKOA (6)									
IPUINAK									
MATERIALAK JASO									

2001/X/31

9:10 Sonia, Haizea, eta Imanol E. gelan daude.

Soniak: **“Zaldia, bai da zaldia”** (Imanoli).

9:20 Arantxak Soniari: Kontatu iezaiezu zer marraztu duzun. S-k: Piszina. Eta, zer egoten da piszinan? Flotador. Beno, bai, egin dezakezu eta horrela jarraitzen du marrazten. S-k: Manguito. A-k: Zenbat manguito? **Bi**.

9:22 Danel bere amarekin dator: **Arratsalde on**. A-k: Ez duzu bazkaldu, ezta? **Egun on** eta korrika beste gelara doa. Ama urduri dator: “Se me ha cruzado un perro conduciendo y me ha entrado una **dardara**”.

Soniak marrazkiari bere izena jarri dio, **“SONIA”**, eta berea bukatu duenean, **“HAIZEA”** jarri dio. Lehenengo aldia da eta Arantxa ere harrিতuta gelditu da.

Haizea marrazten eta Imanol E. txotxongiloarekin eta marraztu nahian, bueltaka dabil.

A-k: Xabier eta Ivan **“egurrekin”** asko ibiltzen direla dio eta erakusten dizkit egun batean egindako eraikuntzen argazkiak eta benetan, oso eraikuntza ´interesgarriak´ egiten dituzte.

Aste honetan Arantxa “B” gelan egongo da

9:30 Haizea eta Sonia A-rengana hurbiltzen dira **“B”** gelara marrazkiak erakustera, A. Imanol E-rekin joan da beste gelara; momentu honetan 3 urtekoen gelan ez dago inor.

Axun sartzen da eta bere atzetik Koldo dator. Sonia eta Haizea itzultzen dira eta marrazten jarraitzen dute.

Axunek komentatzen dit arrakasta gehiago daukala **“eraikuntzen”** gelak eta zerbait pentsatu beharko dutela. Oso sartuak omen daude egurrezko piezak eta beste materialekin.

Koldo nola ari den begira dago Haizea eta ondoren bera imitatzen hasten da.

3 urteko haurrak 4 urtekoekin nahasteko aukera hau aberatsa da: txikientzat, handiagoek egiten dutena ´ikusi´ ondoren, ideiak sortzen zaizkielako eta ´handienak´ motibatuta sentitzen dira ere.

Soniak Axuni: **“Hemen ipiniko dut Haizea”**.

Axunek: Koldo, zer moduz zoaz?; zer falta zaio buru handiari? Koldok: **Ahoa eta hankak**.

Hanka bakarra egiten dio eta Axunek esaten dio hanka bakarrarekin errenka ibiliko dela eta asko kostatuko zaiola ibiltzea (hausnarketa egin araziz).

9:40 Bi mutil datoz marraztera. I.E. ere tenperetara hurbiltzen da eta gero besteengana.

I.E-k: **Axun, nahi dut tenpera, paper handia**.

Soniak ere nahi du. Orain 3 neska datoz: **“kaixo Axun”**. Ipuinetara doaz. Momentu honetan 8 ikasle daude.

Eraikuntzen gelan Danel Arantxaren magalean eserita dago eta beste 2 ikaslerekin “karteta” dabilta. Xabier, Ivan eta Imanol E. “egurrekin” oso itxitura luzeak egiten ari dira eta barruan, etxeak? edo granjak? egin dituzte eta animaliak ipini dituzte.

Beste 2 neska “Lego” piezekin ari dira, beste bi “partxisa”-rekin, animaliak gainean jarritz.

“A” gelan, Ainhoa I. eta Ainhoa L. margotzen ari dira; Ander eta beste bi neska ipuinak kontaktzen. Orain, beste bi neska tenpera egitera sartu dira.

Axunek **ipuin** bat kontaktzen die.

10:00 Haizeak, plastilinarekin jarraitzen du. Momentu batean hurbiltzen zait esanez: “**txorizoa**”; ondoren, Arantxari erakustera doa.

Axunek mutil bati: Emaidazu ideia bat, nola lortu dezakegu Ainhoak euskaraz hitz egitea? Erdaraz ari dira jota ke bi Ainhoak.

Momentu honetan 3 urteko haur guztiak beste gelan daude (euren andereñoarekin).

“A” Gelan

10:05 Axun ipuina kontaktzen ari da, 7 haur dauzka entzuten.

Bi Ainhoak margotzen ari dira; beste bi tenperek.

“B” Gelan

10:07: Xabier eta Gaizka egurrezko piezekin.

Ivan, Haizea, eta Sonia “Oka”-ren jokoarekin.

Danel eta Imanol E. “kartetara” Arantxarekin.

Arantxa jokoaren arauak gogorarazten: ‘Dadoa’erabil behar duzue.

Bi neska euskaraz beraien artean “Lego”-rekin dabilta bitartean.

10:10 Txotxongiloarekin dabil Mikel eta Axunek galderak egiten dizkio, gainontzekoak entzuten duten bitartean.

“B” Gelan lantzen ari diren hainbat alderdi eta arlo

Matematika

Sormena

Sozializazioa

Hizkuntza

...

10:20: Oso saio polita egiten ari dira txotxongiloekin. Orain Ainhoa I. ari da bi txotxongiloekin. Danelek ordu oso bat pasa du “B” gelan, orain “A” gelara etorri da eta entzuten dago, zutik, eta parte hartu nahi du: “luego yo”. Axunek: Zu eseri lasai, orain etorri zara eta. Esertzen da.

10:25 Hamar haur daude txotxongiloekin. Abesten ari dira. Oso giro lasaia dago.

10:30 Jasotzeko ordua da, amaitu egin behar dugu.

Sonia, tenperen espazioa garbitzen ari da.

Xabier, Ivan eta Gaizka, ordu bete pasea ibili dira egurrezko piezekin.

Sonia, askoz ere gusturago ikusten dut gaur, irribarretsu. A-k esaten dit kasketak harrapatzen dituela eta etxean ere baietz. Nire inpresioa hobeto dagoela izan da.

10:40 Borobilean **errepassoa**.

Bakoitzari zer egin duten galdetzen die Arantxak eta arauak gogorarazi. Ad.: “Xabierrek egiten badu etxe bat, ezin da puskatu”. Danelek: voy a romper. A-k: Ez, ezin dira puskatu besteen gauzak. D-ek: yo he rompido lo de Xabier. A-k: Zuri gustatzen zaizu zurea puskatzea? D-ek: Yo si pongo el nombre no se puede romper. A-k: Ba, Xabierrek ere jarri dio bereari izena eta oso triste gelditu da. X-ek: Luego no ha roto. A-k: Danel, saiatuko zara ez puskatzen?.

Jangelan nortzuk geldituko diren gogorarazten die eta D-ek: Yo no quiero quedarme. Zure amak baietz esan du. H-k: Yo si me quedo.

10:50 Imanol D. orain sartzen da gelara.

Arduraduna gaur Imanol E. da. A-k: Galdetu Imanol, norena da? Kosta egiten zaio, lurrera erortzen zaizkio izenak.

Bakoitzak berea ipintzen du.

Ipuina: “Kamila zebra”

Galdera-erantzunak: zenbat hanka dituzte?, ...

Ondoren **elkarrizketa** zebrei buruz. X-ek: zebra está un poquito lejos. S-k: Yo he visto un león, un tigre y un “**mozolo**” Non, Cabarcenon? No.

11:05 Gosaria: Platanoa. Begiratuko dugu ea platanoak haziak dituen. S-k: **Ez, eta hezurra ere ez.** Ondoren kiwia, mandarina, intxaurrak eta gailetak jaten dituzte.

11:15 Komunera eta patiora.

Trizikloetan, sokekin eta igloo-an sartu-irtenean dabilta.

11:50 A-k: Kaxa honetan gordetzen dira etxetik ekartzen dituzuen jostailuak baina horiek ezin dira gelan erabili.

Saiatu behar dugu mantala kentzen.

Gaizkak hartu behar du jarabea. A-k: Gaizka, zergatik hartzen duzu jarabea? Porque sí. D-ek: “de curar”. G-k: Para el catarro.

A-k: Zeinek esaten du jarabea hartzeko? D-ek: “El hombre del saco”. Mi tía Pepa me ha dado un beso porque estoy aprendiendo. A-k: Zuk asko maite duzu izeba Pepa, e? Buruarekin baietz dio.

Eskuak garbitzera jangelan gelditu behar duzuenak.

Gaizka komunera doa pixa egitera.

- . Arauak
- . Elkarrizketa
- . Ohiturak

12:00 Batzuk jangelara eta besteak etxera.

Jangelan **hileko menua** daukate jarrita eta hori bera dute gurasoek etxean egunero zer jaten duten jakin ahal izateko. Hona hemen hilabete bateko menua

	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala
1		1. Txixirook Petxugak otzar saltsan Jogurta	2. Marmitakoa Hamburgerak piper gorrien saltsan Fruta	3. Tallarinak urdeiazpikoarekin Legatz-xerra labean panadera patatakin Jogurta	4. Lakak patatekin San Jacoboak letxugarekin Fruta
7	7. Fideo zopa Solomo ragouta barazkiekin Jogurta	8. Dilistak Arin-xerra mehonesarekin Fruta	9. Kalabazin kroma Ollasko ilar errea letxugarekin Jogurta	10. Italian espiriak Errusiar-xerra txanpinoiekin Fruta	11. Babarrun gorriak Saltxitak lurrinetan ketchup-arekin Jogurta
14	14. Arruga borizoarekin mpanakalak york-ekin Fruta	15. Lakak patatekin Urdaiazpiko xerra piper saltsan Jogurta	16. Makarroiak berdinak erara Bakailaoa labean piper berdeen saltsan Fruta	17. Txixiroak Patata tortila letxugarekin Jogurta	18. Porruen krema Petxugak otzar saltsan Fruta
21	21. Dilistak baraziekin Haragi biolak saltsan Jogurta	22. Patata saltsa berdean Ollasko eskalopea letxugarekin Fruta	23. Hiru gutziako arroza Txahar kexkorra baraziekin Jogurta	24. Aznar o kroma Krokatak york-ekin Txokolatzeko bizkotxua	25. Babarrun zuria Legatz-xerra limoiarekin Fruta
28	28. Tallarinak gaztarekin Solomo ontzua Ixiroekin Fruta				

Adin nahasketaren garrantzia

Oso interesgarria da nire ustez gela hauetako adin nahasketa, batez ere txikientzat.

Zergatiak:

- Lau urteko haurrak euskaraz dezente hitz egiten dutelako.
- Denbora luzeagoan mantentzen direlako jardueretan.
- Jokoen arauak ezagutu eta errespetatzen dituztelako.
- Marrazki aberatsak egiten dituztelako.
- Eraikuntza konplexuak egiten dituztelako.
- ...

Guzti hori txikiek ikusten dute eta egokitzapen-aldiko prozesuan lagundu egiten duela esango nuke eta baita motibazioa pizteko eta ikasteko gogoaz kutsatzeko ere. Beste elementu garrantzizko bat da, beti helduak izan gabe erreferentzia, kideak bihurtzen direla euren erreferentzia iturri.

“A” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	LD.	IE.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marraskia (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Mozketa (5); Gomexak (6); Izena jarri (7)			2 3		1 2		2 1 7		
PUZZLEAK(1); LEGO-a (2)									
ARGAZKI-ALBUMAK					+				
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)	2				2				
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2)									
MATERIALAK JASO			+	+			+(e)		

(e) espazioa garbitzen

“B” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	LD.	IE.	I	S	X	Y
EGURREZKO PIEZAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3); PUZZLEAK (3b); PINTXOAK (4)		1			1	1		1	
MAHAI-JOKOAK: PUZZLEAK (1); PUZZLEAK (1b); KARTAK (2); BI BERDINEN JOKOA (3); EL LINCE (4); PARTXISA (5); ZUHAITZEN JOKOA (6); OKA JOKOA (7)	2		7		2	7	7		
IPUINAK									
MATERIALAK JASO	+	+	+		+	+	+	+	

PATIOAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	LD.	IE.	I	S	X	Y
TRIZIKLOAK	+	+	+	+	+	+	+	+	+
SOKAK			+			+	+		+
KORRIKA	+	+	+	+	+	+	+	+	+
IGLOO-an		+	+	+	+		+	+	+
MATERIALAK JASO	+	+	+	+	+	+	+	+	+

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEAK: A Z A R O A

ABENDUA

IKASLEAK/EGUNAK	14	30	12
DANEL	9:30 - 12:00 14:30- 16:30	9:25 - 12:00 14:30-16:30	9:20 - 12:00 14:30-16:30
GAIZKA	9:00 - 16:30	9:30 - 16:30	10-15-16:30
HAIZEA	9:00 - 12:00 14:30-16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30
IMANOLD.	9:00 - 12:00 14:30- 16:30	9:00 -12:00 14:30-16:30	9:00-12:00 14:30-16:30
IMANOLE.	9:00 - 12:00 14:30- 16:30	9:15 - 12:00 14:30-16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30
IVAN	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30	-
SONIA	9:00 - 12:00 14:30- 16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30	9:00 - 12:00 14:30 -16:30
XABIER	9:00 - 12:00 14:30- 16:30	-	9:00 - 12:00 14:30-16:30
YLENIA	-	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30

2001/XI /14

9:40 Xabier, Imanol E. eta Sonia guraizeekin paper mota desberdinak mozten eta kolarekin itsasten ari dira. Lau urteko bi mutil argizarizko margoekin margotzen ari dira.

9:45 "Eraikuntzen" gelan: Haizea, Ivan eta Imanol D. egurrezko piezekin "etxe haundi" bat egiten ari dira. Gaizka eta Danel "Lego"-rekin eraikuntza bat egiten.

4 urteko 5 ikasle "marakak" egiten ari dira.

Xabierrek lehenengo saio honetan egin duena pausoz-pauso : guraizeekin moztu, kolarekin itsatsi, argizariekin margotu. Ondoren, "Lego"-rekin eraikuntzak egiten (pistolak) ibili da.

10:05 "B" gelara joan da Xabier eta 'hartzekin'jolasten dabil.

Soniak: Pauso hauek eman ditu bere lanean.

- . guraizeekin moztu
- . kolarekin itsatsi
- . argizariekin margotu
- . orri bat paper pusketak itsatsiz bete
- . tenperekin margotu

Imanol E.:

- . guraizeekin moztu
- . kolarekin itsatsi
- . margotu

Ivan:

- . egurrezko piezekin eraikuntzak egin
- . Legorekin eraikuntzak egin (Haizearekin hitz egiten duen bitartean)
- . Hartzekin jolastu

Danel:

- . Legorekin eraikuntzak egin

10:15 Jarduera utzi du D-ek eta besteei begira dago, bat-batean Xabierri bultza egin dio.

Gaizka:

- . Legorekin eraikuntzak egiten
- . Hartzekin jolasten

Imanol D:

- . Egurrekin eraikuntzak egiten
- . Legorekin eraikuntzak egiten

10:20 Argizariekin margotzen hasten da I.D.

Haizea:

- . Egurrekin eraikuntzak egin
- . Legorekin eraikuntzak egin (Ivanekin hitz egiten duen bitartean)
- . Tenperekin margotu

Axunek: 3 urtekoek "jolas sinbolikoaren" duten beharrari buruz, zalantza da, noiz moztu


Arauk gogorarazten

- Isipu bakarrekin lan egitea, ez gehiagorekin.
- Mahaia garbitu, tenperak erabili ondoren.
- Mantala jantzi.
- Aulkiak ez arrastaka ibili.
- Ipuinak ipintzeko lekua horretarako erabili, eskailera moduan.

Soniak: "**Arantxa, arratsaldean bukatu dut**". Arantxak: Bukatuko dut, eta Soniak errepikatu egiten du.

10:15 Haizea, Ivan, Imanol D., Danel, Xabier eta Gaizkak 4 urtekoen gelan jarraitzen dute.

10:25 Haizea dator Soniaren bila: Sonia!



Lau urteko Mikelek errota bat egin du

10:30: Haizea eta Ivan itzultzen dira beren gelara.

Arantxak esaten dit, atzo Haizeak "**Nik jolastu Imanolekin**" esan omen zuela eta Arantxa oso pozik dago.

Hartzen jolasarekin 3 tamaina desberdin lantzen dituzte, sailkapenak eginez.

10:35 Jasotzera!.

10:40 Borobilean jartzen dira:

Abestia : "Klin klan..."

S-k: Eta nirea begira ze polita!

A-k: Oso polita, baina arratsaldean bukatuko duzu, besteak zain daude eta aspertu egingo dira-eta.

Gaurko **arduraduna** Sonia da eta etorri direnen eta ez direnen zerrenda pasa behar dute: Zein falta da gaur? Haizeak: Ylenia.

Abestia: "Ylenia gaixo dago, ..."

Izenak identifikatu eta ipini: Soniak banatzen ditu banan-banan eta bakoitzak berea identifikatu behar du; Soniak, denen izenak ezagutzen ditu.

Zenbatzen dituzte eta panelean jartzen ditu -ezkerreko aldean etorri direnak eta ez direnak eskuin aldean-. Gaur etorri dira = 8

Xabierri muxuak ematen dizkiote Gaizka, Ivan eta Imanol D-k.

Ipuina. Animaliak banatu (bakoitzari bana) eta denen artean ipuina kontatzen hasten dira: “Egun batean.... Ilargia...

Etorri, dortoka! eta hau behean ipintzen da; elefantea dortokaren gainean... ez da iristen, eta nori egiten dio dei? Jirafari!, hala ere ez da iristen ilargia gora doalako. Eta, nori egiten diote dei? Zebrari eta, non jartzen da zebra? Jirafaren gainean, eta orduan zebrak nori deitzen dio? Lehoiari ,....Tximuari gero eta hala ere ez dira iristen. Xaguari deitu eta honek koska egiten dio ilargiari, probatu, dastatu egin nahi du eta ilargi puska bat...”.

Ipuin hau lehendik dakite eta gaur, panel batean jartzen dituzte animaliak. Ilargiari



pusketa bat jan diotenez, ilargi berria jartzen du Arantxak.

A-k: Zenbat ilargi daude. BAT!!!. Eta, itsasoan ikusten dena? Soniak: **Islada.**

D-ek: “**Nik beste egun batean elefantea**”.

11:00 Gosaria: kiwia, udarea, sagarra, flauta.

Eguraldia behatzen: Begira hostoak. Se mueven. A-k: Haizea dabil. D-ek: **Haize zurrunbiloa.**

Danel kantari hasi da: “Y ya no puedo más, ...”

A-k: Hori abestuko duzue etxean, gu orain, beste abesti batzuk abesten ari gara: “Jan, jan, jan eta jan”. Danelek berearekin jarritzen du. A-k: Hori kantatu nahi baduzu, kantatu pasiloan. Ateratzen da eta berehala itzultzen da.

D-ek: **Arantxa, bukatu dut nik** (fruta).

“ **Arantxa nahi dut ikusi** (flautak).

11:10 Komunera joango gara pixa egitera!

11:55 Gelan. Katalogo bat erakutsi die, Legorena eta kaxoi batean uzten du ondoren.

Oporretarako, argazki-albuma txandaka etxera eramango dute; gaur Soniak eramango du.

12:00 Jangelakoak komunera doaz eskuak garbitzera –Ivan eta Gaizka-, besteak etxera..

“A” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	LD.	LE.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marrazkia (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Mozketa (5); Gometxak (6); Izena jarri (7)			1	2	5 6 2		5 2 6 1	5 2 6	-
PUZZLEAK(1); LEGO-a (2)	2	2						2	-
ARGAZKI-ALBUMAK					+				-
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)	2				2				-
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2)									-
MATERIALAK JASO			+	+			+		-

“B” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	LD.	LE.	I	S	X	Y
EGURREZKO PIEZAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3*); PUZZLEAK (3b); PINTXOAK (4)	2	2	1 2	1 2		1 2			
MAHAI-JOKOAK: PUZZLEAK (1); PUZZLEAK (1b); KARTAK (2); BI BERDINEN JOKOA (3); EL LINCE (4); PARTXISA (5); ZUHAITZEN JOKOA (6); OKA JOKOA (7); HARTZEN JOKOA (8)		8				8		8	
IPUINAK									
MATERIALAK JASO								+	

2001/XI/30

9:10 Borobilean eserita daude abesten; pixkanaka iristen ari dira umeak.

9:25 Danel amarekin dator: “Ni arduraduna”, ayer fue Ivan. H-k: **Eta ni beste egun batean.**

Haizea asko askatzen ari da euskaraz, ahal duen guztia esaten du.

Elkarrizketa: Yleniak mina hartu omen zuen eta deskribatzen du nola hartu zuen.

D-ek: **Ipini Danel** (arduradunaren tokian).

Abestia: “Xabier gaixo dago tripako minarekin...”

H-k: Yo tengo **mina** aquí.

9:30 Pixa egitera eta psikomotrizitate gelara joango gara. Gaizka amarekin sartzen da.

Zapatilak kendu!

Gaizkaren ama bazihoan eta “muxu bat” eskatzen dio. Nonbait, beti erabiltzen du joko hori, ama doanean deitu eta Gaizka jaisten da “pa” ematera; gero, ondo gelditzen omen da.

Psikomotrizitate gelan arauak gogorarazten

- . Ezin da jo.
- . Ezin da pixa eta kaka egin.
- . Ezin dira gauzak kendu, eskatu egin behar dira.
- . Norbait aurrean dagoenean, kendu mesedez, esan behar da.
- . Ezin dira besteek egiten dituzten gauzak puskatu.

Lehenengoz: garrasiak, saltoak, txiribueltak,...

Zutik jarri, prest zaudete? 1, 2, 3 eta irteera ematen du Arantxak.

Desberdintasun handia nabaritzen da joan den ikasturteko psikomotrizitateko saioekin konparatuz: jolas sinbolikoan, eraikuntzetan, arauen errespetuan...

S-k: “**Orain ni naiz otsoa**”, oihal batekin estalita.

D-ek: “**Arantxa, hemen ipini leihoa**”.

Sonia saiatzen da: Ton, ton, ate joka. **Nor da? Ni otsoa naiz, ez sartu.** Bat-batean haserretu egiten dira eta etxea puskatzen dute. Sonia negarrez oihala kentzen diotelako.

D-ek: “**Arantxa, beira (begira) zer hartu du Ivanek**”. Eman honelakoa **Arantxa** (makila eskatzen dio).

Arantxak: Sonia lasaitzen du.

Denek makilak eskatzen dituzte. A-k: Ezin da minik eman, e? bestela, jaso egingo ditut. Danborrada joka dabilta denak batera.

I.D-k: Erraz egiten du negar gauzak nahi dituen bezala ateratzen ez bazaizkio (A-k dio bere arma dela).

I-ek: “**Lanera, a trabajar chicos**”.

I.D-k Daneli utzi dio bere makila eta orain ezin du lortu Danelek itzultzea; inpotentzia sentitzen du eta negar ez egiteagatik garrasi bat egiten du; bueltaka dabil baina ez du lortzen bere makilarik. A-k insistitzen dio eskatzeko, berak berriz, beste makila bat ematea nahi du. “Yo no tengo”. Joan eta esan Daneli zurea emateko. D-ek: “yo no te voy a dar”; A-k: Zurea da makila esaten dio behin eta berriro. Danel, bakoitzari eman dizuet bat eta Imanolek berea eskatzen dizu.

I-ek: Ay que cojunudo! Nork esaten du hori? Mi hermano. D-ek: Mi padre también dice.

Azkenean, Danelek bueltatzen dio makila Imanoli, dirudienez, interesa galdu duelako.

10:30 Bost minutu jasotzeko!.

I-ek: “Vamos a picar al toro” eta zezena hilko balute bezala, makilarekin egiten dute.

Borobilean errepassoa: A-k: Ylenia, nik, Arantxa esaten didazunean, kasu egiten dizut. Y-k: **Bai**. Zer moduz pasa duzue? **ONDO!**

A-k: Soniak, norekin jolastu du? **Yleniarekin, Ivanekin, Gaizkarekin, ...**

A-k: Eta zer egin duzue?

H-k: Ni jolastu det...

S-k: **Saltoak eta txiribuelta eta lo.**

H-k: Ni jolastu det Ivanekin, ... eta txiribueltak.

D-ek: ...kri, ...kri eta txiribuelta asko.

G-k: ...krin, ...krin, etxe bat Imanol D.rekin.

Y-k: ...krin, ...krin, txiribuelta haundia.

I-ek: He jugado **eta Danelekin, ... Yleniarekin eta saltoa, txiribuelta eta casa bat** y se ha rompido, mira como está rompida.

I.D-k: He hecho una casa muy grande. A-k: Euskaraz, nola esaten da: I-ek: **Etxe handia** y Sonia le ha estropeado.

I.E-k: **Etxe oso luzea Imanolekin.** A-k: Eta, zer egin duzue? I-ek: **Sua.**

A-k: **Jokoa:** Haizea eta Ylenia lasaitzen ditu: “Lotan nago...” (kubo batean etzanda daude eta Arantxak eskuekin mugitu egiten ditu).

Arantxak: *Xabier ez dago gaur, pena da, ez dakizu zein langilea den, hemen ibili zen asteartean etxe bat egiten eta egiten, txindurri bat bezalaxe.*

6 Mutilak elkarrekin dabilta etxean, neskak beren aldetik korrika, saltoka, etzanda, oihalekin tapatuz. Yleniak, momentu batean, negarra ´egingo balu´ bezala, Soniak zain dezan.

Mutilak adreiluak jartzen ari dira.

Arantxak konfirmatzen dit mutilak elkarrekin dabiltzala azkeneko saioetan.

H-k: “Espera Ylenia, que te tapo bien”.

D-ek: Queréis venir a esta casa? etxera gonbidatuz.

I.E-k: **Arantxa, zu zara otsoa.** Bale, egingo dut.

Arantxak: *Imanol D-k lehengo batean errepikatu zuen zerbait euskaraz; gutxiene esaten duena da.*

Sonia haserre dabil oihal guztiak berak erabili nahi dituelako eta kuboak botatzen hasten da; gero Ylenia jotzen du (Arantxak dio lehendabiziko aldia dela) eta bat-batean bera oso kontentu ikusten da Ylenia negarrez ari den bitartean. Arantxak Ylenia kontsolatzen du. A-k: Komeni zaio ere, Yleniak dena lortzen duelako.

“**Otsoaren jokoa**”: Zu handia zara, ez, zu txikia zara! Teilatua mugitzen die Arantxak eta garrasiak entzuten dira. “Din, don: **nor zara?** A-k: Ni otsoa naiz eta sartu egin nahi dut! **Ez.** Tximiniatik sartuko naiz!”

10:50 Orain egurrekin egingo dugu etxea, binaka –arkitektura piezekin-

Yleniak berak bakarrik egin nahi du eta segituan jartzen da lanean. A-k: Bukatzen duzunean esan. Y-k: **Bai.** Voy a hacer una piscina grande.

Ivan eta Imanol D. zubiak eta tunelak egiten ari dira. Yo he hecho un túnel para que no entre ningún coche.

A-k: Gero lagunei erakutsi behar diezue.

Yleniak pieza berdinak hartzen ditu eta multzoa egin duenean eta bereak bukatu dituenan gehiago nahi ditu eta Soniari kentzen dio; Soniak ez dio uzten: “tenemos pocas” esanez.

11:05 Bukatu duzuenak joan kanpora eta hasi janzten.

Jantzi ondoren gelara sartzen dira berriro egin duten lana aurkeztera.

Arantxak: *Gaur da azken eguna gela honetara etortzen garela psikomotrizitatea egitera; hemendik aurrera beste eraikinera joango gara, han gela egokiagoa dagoelako.*

Arantxak: *Gaur da azken eguna gela honetara etortzen garela psikomotrizitatea egitera; hemendik aurrera beste eraikinera joango gara, han gela egokiagoa dagoelako.*

Egindakoaren errepaso:

Y-k: **Nik pizina haundi bat.**

G-k: **Otsoaren etxea.**

S-k: **Tunela, dorrea.**

D-ek: **Etxe handia eta pizina.**

11:17 **Gosaria:** Frutak, txokolatzeko gailetak, ...

Izenak identifikatu eta jartzea:

Norena da hau?

Danelek zenbatu ditu eta gaur falta direnak = 1

11:30 Berokiak jantzi dituzte eta patiora doaz.

Konfliktoen soluzioan laguntzen

Garrantzizkoa eta beharrezkoa iruditu zait, Arantxak mantentzen duen jarrera eta portaera finkoa, umeak berak lor dezan gatazken soluzioa. Adibidez, gaurko psikomotrizitate gelako saioan, Imanol eta Danelen arteko tirabiran, Imanoli insistituz bere makila lortu zezan; batetik, behin eta berriro esanez Daneli bere makila eskatzeko eta bestetik, "neurtuz" eta "kontrolatuz" noraino eskatu ziezaiokeen Imanoli momentu horretan.

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I	S	X	Y
Saltoka (1); Txiribueltaka (2)	1 2*		1 2	1	1**	1 2	1 2
Uztaiak (1); Pelotak (2)			1				
Txirrista; Ranpa	+	+				+	+
Boloak (1); Kuboak (2)							
Abestiak	+	+	+	+	+	+	+
Autobusa		+		+			+
Egurak (1); Palilloak (2); Arkitektura (3)	1 3	1 3	1 3	3	3	3	1 3
Materiala jaso						+	

* Ez du erabat lortzen baina behin eta berriro saiitzen da

** Laguntzarekin

2001/XII/12

9:20 Mahai handian margotzen ari dira: Xabier, Sonia, Ylenia, Haizea, Danel, Ivan D.

Imanol E. bere ama eta anai txikiarekin dator; amari muxu eman eta lasai sartu da gelara.

Lau urteko umeen erdiak Axunekin turroia egitera joan direnez, beste erdiak 3 urtekoen gelara etorri dira eta denak margotzen hasi dira; denetara 14 ikasle daude momentu honetan.

Ivan eta Gaizka ez dira etorri.

Turroia egingo dute larunbatean izango duten "AZOKAN" saltzeko.

Margotzen ari diren elementuak "Gabonekin" lotuta daude: bolak, izarrak, opari-galtzerdia, zuhaitza, jaiotza. Margotu ondoren, puntzoiez ateratzen dituzte eta koloretako eta brilodun paperetan itsasten dituzte.

9:45 Hizketan ari dira beren artean: batzuk etxean jaiotza jarri dutela, besteak Papa Nöel etorriko dela, ...

D-ek: **Gehio ez!**. A-k: Hori ez dago bukatuta.

I.E-k: **Neria bai dago bukatuta**. A-k: Jarri izena eta beste momentu batean bukatuko duzu; begira, txerria ere bukatzeko daukazu.

I.E.: Abesten hasten da eta besteak ere: "Gabonak, gabonak, hau zoriona...". Oso ondo kantatzen dute.

10:55 Margotzen eta hizketan jarraitzen dute.

Arantxak Soniarengatik: *Honek pasatzen ditu hemen orduak eta orduak eta hemendik ateratzea asko kostatzen zaio* (margotzen ari da jo eta ke).

"B" gelara doaz batzuk eta Arantxak esaten die gaur Plastika gelan egon behar dutela Axun behean dagoenez.

Tenpera egin, ipuinak irakurri edo txotxongiloa egin dezakezue.

Imanol D. eta Haizea tenpera egiteko prestatzen ari dira.


Imanol E. abestiak hartu eta begiratzen ari da.

Xabier eta Danel plastilina egiten.

10:00 Arantxak mozten dizkie bolak eta galtzerdiak, beraientzat zailegia delako.

10:10 A-k: Joango gara zuhaitzean itsastera!

Yleniak, berak moztu nahi ditu margotutakoak.



Bakoitzak bere karpeta etxera eramateko nahiko prestatua dauka..

Danel, Imanol D., Xabier, ipuinekin ari dira.


Soniak margotzen jarraitzen du.

Ylenia elementuak mozten ari da.

A-k: Danel, ipuin hau ez da hemengoa.

10:15 Gaizka dator amarekin: "como perdíamos el autobús le he dejado dormir". Muxu bat eman eta gelara sartzen da, ondo. Imanol D. eta Danelekin hizketan hasi da Gaizka.

10:25 Goazen itsastera; nahi duzuenak etorri. Eskaileretan jarri duten zuhaitzean jartzen dituzte margotu eta moztutako gabonetako apaingarriak



Sonia ez da gelatik atera, margotzen jarraitu du gelan.

10:35 Aulkiak hartu eta borobilean jarriko gara.

Danelek Haizeari mina eman dio, buruarekin baietz esaten du, mina eman diola.

Gaur argitasun handia dago geletan eta eraikin guztian, oso eguraldi argia dago.

Imanol D. haserretu egin da Soniak mantala kentzen ez duelako. A-k: Soniak mantala kenduko du nahi duenean. Imanol oso urduri zegoen eta bultzaka hasi zaio Soniari kentzen ez zuelako.

Sonia ere haserretu da eta zutabearen atzean jarri da, gordeta, baina segundo batzuetara, gaia interesatzen zaionez, aulkia hartu eta esertzen da.

10:40 Nork egin zituen mazapanak lehengoan? Gaur Ylenia, Haizea, Danel eta Xabier jaitsiko dira mazapanak egitera eta besteak Axunen gelara joango zarete.

Prozesua:

1. Eskuak garbitu

2. Eseri eta arrautza bota, almendra txikitua, azukrea, limoiaren azal txikitua (bakoitzak pixka bat egiten du) Yleniak: **“Orain ni”**

Guk ez dugu jango, e? Por qué? galdetzen du Danelek. Saldu egingo dugulako. Astigarragako azokan salduko ditugu mazapanak.

3. Orain nahastu egin behar da. Mucho? **Zergatik?** Tenedorearekin nahastu behar duzue.

Argazkiak ateratzen ditu Arantxak eta Danelek neri: **“A tí ninguna”**, parrez

4. Beste arrautza baten zuringoa gehitzen diote.

Yleniak: **Orain bolak?** Bai, bakoitzari emango dizkizuet. Arantxak berak nahasten du masa eskuekin.

Y-k: **Limoia**, donde está?

5. Albal papera mahai gainean jarri eta bola borobilak egiten dituzte.

6. Gainean arrautza gorringoa jarri, kolorea emateko.

7. Labean sartu eta 2 minutu barru egina dago

Yleniak izugarritzko trebetasuna adierazten du bolak egiterakoan - aurretik, harrapatu dituen almendrak jan ditu, 4 urtekoenak, beste inori eman gabe, berak jan ditu denak-. Arantxari komentatzen diot **“ez dela galduko”** eta ezetz esaten dit, ez dela galduko, ez.

Arantxak: Orain idatzi egin behar duzue nola egin ditugun mazapanak, ze osagai jarri dizkiegun, zerekin egiten diren. Ylenia, zer egin duzu? **Bola, bola, bola eta bola. Bola handia.** Zer erabili dugu mazapana egiteko? **Arrautzarekin eta azukrea eta limoia.**

Bakoitzak esaten dio A-ri zer egin duen eta A-k ondoan idazten du esaten dutena. Ondoren margotu egiten dute.

Prozesu honetan erabili dituzten faseak

- 1.- Manipulazioa
- 2.- Ahozko adierazpena
- 3.- Sinbolizazioa

11.30 Gelara igo dira, txamarrak jantzi dituzte eta patiora atera dira.

“A” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	ID.	IE.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marraskia (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Mozketa (5); Gometxak (6); Izena jarri (7)	2 4 6 3		2 4 6 1	2 4 6 1	2 4 6	-	2 4 6	2 4 6 3	2 4 6
PUZZLEAK(1); LEGO (2)						-			
ARGAZKI-ALBUMAK						-			
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)	1			1	3	-		1	
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2)						-			
MATERIALAK JASO	+		+	+	+	-	+	+	+

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEAK: URTARRILA OTSAILA

IKASLEAK/ EGUNAK	16	30	28
DANEL	9:25 - 12:00 14:30-16:30	9:30 - 12:00 14:30-16:30	9:30 - 12:00 14:30-16:30
GAIZKA	9:00 - 16:30	9:10 - 16:30	9:35 - 16:30
HAIZEA	9:00 - 16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30
IMANOL D.	-	9:00 -12:00 14:30-16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30
IMANOL ETX.	9:15 - 12:00 14:30-16:30	9:10 - 12:00 14:30-16:30	9:15 - 12:00 14:30-16:30
IVAN	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30	-
SONIA	9:00 - 12:00 14:30-16:30	9:30 - 12:00 14:30-16:30	-
XABIER	9:00 - 12:00 14:30-16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30	-
YLENIA	-	9:00 - 16:30	9:00 -16:30

2002/I/16

9:15 Arantxarekin daude 2 ume izan ezik; danborrada prestatzen ari dira plastikako gelan:

Buruko "txanoa" egiten:

- kartulina txuria
- koilara eta tenedorea itsatsi
- ume bakoitzari neurria hartu eta grapekin josi
- atzean "tira" urdin bat erantsi
- tolestatu

Xabier, Imanol E., Gaizka eta Ivan margotzen eta puntzoiez koilara eta tenedorea ateratzen ari dira.

Lau urteko ikasleak kukurutxoak prestatzen ari dira.

Lan zaila da ume guztiakin, nahiz eta 4 urtekoek badakiten gehixeago itxuiten.

Ivan, jo eta ke erdaraz ari da. Arantxak gogorarazten dio: Nor etorriko da nire etxera? Noiz esango duzu?. Ivanek errepikatzen du.

9:20 Danel amarekin dator eta besteek zer egiten duten ikusi ondoren, beste gelara doa.

9:30 Imanol E-k margotu du berea eta A-k tira eransten dio, grapatu eta prest utzi du bere burukoa. Segituan erabili nahi du eta A-k esaten dio ez dela orain ibiltzeko, danborrada egunerako dela.

Danel etorri da txanoa egitera, baina, margotuta eta erantsita dauka jadanik.

Ylenia eta Imanol D. **gaixorik** daude, gripearekin, egunak omen dira ez direla etorri.

A-k Xabier animatzen du puntzoiarekin bukatzera; Ivan ere. Gero joango zara etxea egitera (beste gelara).

Haizea ere margotzen ari da.

Nik Arantxari: Sonia etorri al da? *Bai, beste gelan dago, oso berezia dabil. Lehengo arratsalde batean sartu zen gelara, bat-batean hasi zen negarrez, korrika eta kaleraino joan zen etxera joan nahi zuelako.*

Danel margoak kolpeka erabiliz, Ivan puntzoiarekin, Haizea margotzen, Xabier puntzoiarekin.

Sonia sartu da eta parrez, botak erakusten dizkit.

I-ek: Haizeita, Haizeita esanez. A-k: Haizea da, bere izena Haizea da.

S-k: **Nerea non dago?** ¿Por qué lo doblas?

Y-k: ¿cuándo vamos a tocar la tamborrada nosotros, ahora? A-k: arratsaldean. **Nerea da hau** (bere txanoarengatik).

Alde handiak daude; Soniak oso ondo margotuta dauka; Haizeak marraz kanpo ere margotu du, I.E. oso umea da oraindik, marraz errespetatu gabe, "zirriborratze" fasean dago. Danelek ere marraz kanpo margotu du.

S-k: Arantxa, plastilina. Ze koloretakoa nahi duzu? **Urdina**. Ésta está muy seca. A-k: egin indarra, bigundu.

Hiru urtekoek koilara eta tenedorea ez dituzte puntzoiaz ateratzen, baizik eta inguruko paperarekin, borobil bat ateratzen dute.

Lau urtekoek, koilara eta tenedorea puntzoiaz ateratzen dituzte.

Soniak azpian jartzeko egur bat hartu du eta horren kontra plastilina biguntzen ari da.

Arantxak esaten diona, dena errepikatzen du euskaraz.

Parrez ari da eta kontentu ikusten dut momentu honetan.

Danel dabil bueltaka. A-k: Danel, har ezazu plastilina, zurekin eseriko naiz eta egin egurraren gainean zure indar guztiarekin. Kosta egiten zaio gauza batean kontzentratzea.

A-k: Daukan energiarekin, indarra erabili behar duenean ez du erabiltzen. Danborra ez du jotzen, besoak gurutzatuta gelditzen da eta joka berriz, indarra erabiltzen du.

Arantxak: Haizea hasi da bere izena jartzen, lehenengo hizkia ikasi du.

Danelek beste gelara alde egin du. Arantxa mahaitik altxa bezain pronto, joan da. Bila joan da Arantxa eta itzuli da. A-k: Danel, zuk egin behar duzu, oraindik ez zaitut ikusi indarra erabiltzen.

“B” GELAN

10:10 Haizea partxisarekin dabil 4 urteko beste bi umekin.

Gaizka, Ivan eta I.E. eraikuntzekin dabilta; Xabier ere beraiekin.

Oso giro lasaia dago gelan.

Hiru urtekoen gelan Soniak plastilinarekin jarraitzen du. Danel Arantxarekin irten da gelatik eta berriro datoz. A-k: Margotuko dugu arbelean? **Ez, beste gelara**. Beste gelara ez. S-k: **zergatik?** Berak badaki zergatik, berarekin hitz egin dut. D-ek: **Gero beste gelara?** Arratsaldean, bazkaldu ondoren nahi baduzu, joango zara. **Ez orain**. Ez, besteek egin dute eraikuntza bat eta utzi egin behar diezu.

S-k: **Begiratu ze luzea, Arantxa.**

10:30 Jaso egin behar dugu.

Haizea eta Sonia kantari: “Zorionak zuri...” **Txalo eta topa!**

Tinkotasun horretan mantentzea, zer zaila dirudien!

Andereño bat sartzen da, ez dut ezagutzen; umeak ezagutzen ditu, ez dit ezer esaten momentuan eta ez dakit. Aurkezten da. Nik zu ezagutzen zaitut, Lorea zara eta esaten dit nire aurtengo ikasle batzuen kidea dela. Euskal Filologia egin zuela, Seminarioan, eta orain Haur Hezkuntza ikasten ari dela gure Magisteritza Eskolan. Orain, hemen, Arantzazuko Ama Ikastolan ordezkapen bat egiten dabilela eta Praktikak egiten ari dela hemengo geletan.

10:45 Borobilean **errepassoa**. Orain kontatuko didazue zer lan egin duzuen:

Haizea: **Nik egun batean Danelekin joan ziñen piszinara.**

I.E.: **Egin det etxe bat.** Norekin? **Gaizkarekin.** Ea, nolako etxea da? **Animaliak hor, hor, muuuuuu!, barruan, kanpoan.**

X: **Teilatuan.**

Danel besoetan dauka, lasaitzeko.

Zein gehiago egon da Gaizka eta Imanol E-rekin etxea egiten? X-ek: **Ivan.**

I-ek: Para no pasar las canicas.

I.E.: **Eta handia da oso, nerea.**

G: **Etxe bat egin det, handia.** Zer zeukan? **Tximinia eta teilatua.** Ivan y yo he ponido unos trucos.

I: Para que pasen las motos también.

Gaur arduraduna Ivan da.

S-k: **Txorizo luzea** esaten du.

Errepassatzen dituzte: KONTZEPTUAK: handia, luzea, barruan, kanpoan

KOLOREAK: arrosa, urdina, ...

ZENBAKIAK, 1, 2, 3, 4

Gaizkak saio guztia pasa du eraikuntzetan.

A-k: Badakizue, gaur Haizea jangelan gelditzen da.

S-k: **Nik ere bai.** Ez, zu ez, zu etxera joango zara Martinekin eta amatxorekin.

Orain ea Danelek kontatu nahi digun. **Ipotxak egin ditut.** Zenbat? **Asko.**

S-k: **Haizearekin, I.E-rekin, ...joan da piszinara.** A-k: "Joango naiz" eta Soniak errepikatu egiten du.

Bakoitzak bere marrazkia erakusten du eta besteek begiratzen diote eta galderaren bat egiten dute. X-ek: **Suge gaiztoa?** H-k: **Bai suge gaiztoa.** A-k: Zer jaten du? H-k: **Urtxintxa.**

Arantxak ipuin ezagun bat gogorarazten die. Orain kontatuko dizuet **Ipuina.** Danel eseriko da hemen eta ez da mugituko. Ipuinaren izena "Kamila Zebra" da.

Galderak:

Nork kendu zizkion marrak? H-k: **Zurrunbiloak.**

Zenbat? **Asko.** S-k: **Zazpi.**

Ea zer esaten duen ipuinak? Soniak behatzekin 7rarte kontatzen du. Erne egon behar dugu. Marrak zenbatzen dituzte denen artean eta 7 direla esaten dute.

Nork zeukan arrazoia? **Nik** (denek esaten dute) Soniak zeukan arrazoia. D-ek: **Ba nik armiarma beldurra daukat.**

Oso ondo jarraitzen dute ipuina.

Izenen identifikazioa eta kontaketa:

Ivanek galdetzen die: **Norena da hau?** Eta izenak banatzen ditu. Ondoren etorri ez direnen izenak eskuin aldean jartzen ditu eta denen artean zenbatzen dituzte. Alde batean 7 (etorri direnak) eta ezkerreko aldean 2 (etorri ez direnak)

Gosaria: frutak: udarea, kiwiak

bizkotxoak

Oso ondo jaten dute, Ivanek eta Soniak bereziki.

11:10 Orain pixa egitera.

Eguraldi txarra dagoenez, barruan (behean) gelditu beharko dute.

“A” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
EGURREZKO PIEZAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3*); PUZZLEAK (3b); PINTXOAK (4)		1		-	1	1		1	-
MAHAI-JOKOAK: PUZZLEAK (1); PUZZLEAK (1b); KARTAK (2); BI BERDINEN JOKOA (3); EL LINCE (4); PARTXISA (5); ZUHAITZEN JOKOA (6); OKA JOKOA (7)			5	-					-
IPUINAK				-					-
MATERIALAK JASO		+	+	-	+	+	+	+	-

“B” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marrazketa/Margoketa (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Moztu (5); Izena jarri (6)	3	2 4	2 6	-	2 4	2 4	3	2 4	-
PUZZLEAK(1); LEGO-a (2)									
ARGAZKI-ALBUMAK									
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)			3				3		
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2)									
MATERIALAK JASO	+	+	+		+	+	+	+	+

2002/I/30

9:00 Gaur Arantxa “B” gelan dago.

Imanol E., Haizea eta Ylenia puzzleak egiten ari dira; Imanol D., Xabier, Ivan, Gaizka eta Danel eraikuntzak egiten eta euren artean egiten dutena komentatzen.

Lau urteko beste 3 ikasle ere eraikuntzetan dabilta, beste bat ipuina kontatzen.

Arantxak leihoetako gortinak behar dituzte baina Imanol E. eta beste bi haur leihoan jartzen dira kalera begira.

Arantxak: Zer egin behar duzu Imanol? Aterako dugu Lego? **Bai.**

A-k: Hemen lanean bakarrik dago Xabier. D-ek: **Eta ni ere bai.**

Gaizka, Danel, Ivan, Imanol D. eta Xabier euren artean jarraitzen dute zer egin behar duten erabaki ezinik.

9:45 Haizeak puzzleekin jarraitzen du.

Yleniak Arantxari: **Zu hor eta ni hemen**, karta jokoarekin hasi aurretik.

Sonia 3 urtekoen gelan dabil errotulagailuekin margotzen.

Arantxari galdetzen diot ea bera 4 urtekoen gelan dagoenean, bere ikasleak gehiago etortzen diren gela honetara eta esaten dit ezetz; batez ere mutilei egurrezko piezak asko gustatzen zaizkiela eta bera gela honetan ez dagoenean ere asko etortzen direla. Gaur, oso gustura aritu direla muralak egiten lehenengo orduan beren gelan, Sonia ere han dabilela eta Imanol E. Legorekin asko ibiltzen dela "B" gelan.

Kartetan dabilta Ylenia, Imanol E., 4 urteko mutil bat, Arantxarekin. Ylenia berdinak elkartzen ari da, hau da, 3ko kopa 3ko urrearekin, 6ko kopa 6ko urrearekin eta ongi moldatzen da.

Haizeak puzzleekin jarraitzen du.

Gaizka, Ivan, Imanol D., Xabier eta Danelek egurrekin segitzen dute.

Lau urteko 2 neska datoz beren marrazkia apalean gordetzera eta berriro plastika gelara itzultzen dira.

Bide luze bat egin dute (hasieran ranpa bat jarriz) eta gainetik kanika bat jartzen dute; kanika bidetik ez atera ahal izateko egur pusketak jartzen dituzte. D-ek: **Nik ipini dut hori.**

10:00 Haizea eraikuntzetan dago, mutilekin.

Arauk

. Ez ibili gainean saltoka, puskatu egiten da eta.

. Kanika ez horrela bota, mina egiten du.

Ylenia ipuinak begiratzeko, Imanol E. klarionarekin; minutu batzuk ipuinekin.

10:07 Sonia etorri da "B" gelara.

Mahaian: Sonia, Haizea, Ylenia, Gaizka, Imanol E., Arantxarekin dabilta. "Bi altxatu behar dituzu". Bi objektu desberdin ateratzen ditu; 2 berdin ateratzen direnean, adibidez erlojua eta erlojua, ume berak jarraitzen du.

Arantxak: *3 Urtekoekin mahai jolasetan beraiekin egon behar da bukatu arte, bestela, beraiek ez dute jarraitzen euren artean*

Ylenia fitxak kolokatzen ari da Soniarekin, 2 berdin jokoarekin jolasteko. S-k: "ahora me toca, **Yleniak egin du bi**". Arantxak: Esan behin bakarrik egin behar duela.

Imanol E. dena probatzen dabil baina denbora gutxi egiten du gauza bakoitzarekin.

Danel, 10:15ean etorri da mahaira, aurretik, 45 minutu egin ditu egurrekin, Xabier eta I.D-k jarraitzen dute. Gaizkak eta Ivanek 50 minutu.

X-ek: **Arantxa, begira ze etxea.** A-k: Zeinen etxea? **Otsoaren etxea.**

Haizeak ia denbora gehiena puzzleak egiten darama.

10:20 G., Y., I., D., I.E., elkarrekin jolasean “El Lince” erreflexu jokoarekin. Batek fitxak (objektuak) ateratzen ditu eta galdera egiten du: **non dago irratia?, non dago pintura txuria?, non dago arbela? Hemen!** erantzuten dute aurkitu ondoren.

Arantxak: *Xabierrek goiz guztia darama egurrekin eta lanean ari da beti, beste batzuk begira egon daitezke baina bera, txindurri bat bezala, lanean.*

10:30 Sonia eta Haizea izan ezik “El Lince”-rekin jolasten dabilta gainontzekoak.

Arantxak: Jasotzeko ordua da!, sartuko ditugu gauzak bere lekuan.

A-k: *Lehenengo hiruhilabeteen Danelekin egun batean jostatzen nabilela, ez zuen ezer aurkitzen, nahi zuen baina, urduri jarri zen eta ezer ez. Pentsatu nuen ondo ikusten ote zuen baina begira gaur, ia objektu guztiak berak aurkitu ditu.*

Imanol D. negarrez ari da, jasotzerakoan konpontzen ez direlako; orain Xabier ere negarrez, biak negarrez. Arantxa eta beste 5 haur begira. A-k: Hitz egin ezazu Imanolekin, negarrez ez zarete konponduko. Batek taulak hor jarri ditu eta modu horretan jarraitu nahi du eta besteak berriz, ez. A-k: Esaiozu zer nahi duzun! Ez dute irtenbiderik aurkitzen. **Gogorra** da egoera. Begira dagoen ume batek esaten die: **Egin “Dona Dona”**. Axunek parte hartzen du. Gaur Xabierri tokatu zaio. A-k: Arratsaldean berriz egingo duzue eta gutxi jarriko dituzue. Xabierrek asko jarri nahi eta Imanolek gutxi. Azkenean, eraikuntza egin dutenek bere izena jartzen dute eta Imanol D. niregana hurbiltzen da berak izena jarri ondoren nik ere jarri dezadan.

10:45 Borobilean gertatutakoaren inguruko **elkarrizketa**.

X-ek: **“Egur asko jarri nahi nituen”**. I-ek: **“Nik gutxi”**.

A-k: Gauzak konpontzeko, zer egin behar da? S-k: **Eskatu**.

H-k: **Utziko didazu mesedez Imanol?**

Gertatu dena errepasatzen dute.

A-k: Iurgik esan du: Dona Dona eta Imanol triste gelditu da.

A-k: Beste egun batean zozketa egingo dugu eta agian Imanoli tokatuko zaio eta Xabier jarriko da triste. X-ek: **Ez**.

Hitz egin eta adostu egin behar duzue. Pausoz pauso joan dira gertatutakoa aztertzen.

Gaia: Inauteriak. Joan den urteko argazkia erakusten die gogoratzeko.

D-ek: **Ni mosketeroz**. Y-k: Ni ez. Imanol D-k: Mi madre no me ha comprado. I-ek: Yo no porque soy pequeño. H-k: Yo de princesa. X-ek eta S-ak: **Ni behiaz**. Imanol E-k: pirata. Soniak galdetzen dio Arantxari: **Eta zu?, behiaz?** Eta jira eta neri: **Eta zu?**

Ipuina: Doña Carmenen ipuina.

Ondo ezagutzen dute eta gustura jarraitzen eta dakitena esan egiten dute.

D-ek: Y luego nos vamos a reir y luego nos vamos a asustar.

Arantxak: Zer gertatu da parkean, leihotik begira egoteko?.

H-k: **Ba ipini makilak lurrean.** Eta, zergatik? **Zuhaitzak moztutzen.** H-k: Handiak zeuden.

Arantxak: Kimatu egin dituzte, baina zergatik? H-k: **Etxeak bezain handiak zeudelako (lagunduz).**

Imanol D-k: Porque dan más hojas. Arantxak: Ba bai, eguzkia ateratzen denean, kimatu ondoren, hosto gehiago ateratzen zaizkie.

Arantxak: Atzo kanta paper berria prestatu nuen, "Kaldereroetako" abestiak ikasteko.

Abestia:

. "Zein ederra, zein xarmanta,..."

G-k: **Nik ikusi dut xarman.** Ez dakigu zer esan nahi duen.

. "Begi urdin bat begira dago algaraz leiho batetik..."

Gosaria: Frutak: sagarra, platanok

Txokolatzeko gailetak

Jaten duten bitartean:

- **ELKARRIZKETA:** Gatazkari konponbidea bilatuz

Inauteriak

Zuhaitzak kimatzen

Soniaren etxe berriaz

- **IPUINA:** Doña Carmen

- **ABESTIAK:** Kaldereroei buruzkoak

Denbora hartzen dute gosaltzeko, garrantzia eman ez saio honi eta oso ondo jaten ikasi dute, jaten duten bitartean hitz eginez, patxadan, arauak mantenduz.

Bat-batean txorakerietan hasi dira; Haizeak "pues el pitilín" esan duenetik. Ivanek: "gilipollas".

Zeinek esaten du hori? "Los chavales". Ba, hemen ez da esaten.

11:20 Komunera eta patiora. Gaur 20º daude.

11:55 Gelara itzuli dira, txamarrak jantzi eta batzuk jangelara eta besteak etxera.

Garrantzizkoa

Gertatutako zerbait pasa berritan hitz egitea beharrezkoa iruditzen zaigu, gaurko konponezina, Xabier eta Imanolentzako gogorra izan baita. Horrela eztabaidatu ondoren, lasaitu egin dira biak.

“A” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	ID.	IE.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marrazkia/Margoketa (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Moztu (5); Pegatu (6); Collage-ak (7); Izena jarri (8)							2		
PUZZLEAK(1); LEGOA (2)									
ARGAZKI-ALBUMAK									
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)									
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2); Ordenagailua (3)									
MATERIALAK JASO (1); MAHAIA GARBITU (2); IXIPUA GARBITU (3)							+		

“B” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	ID.	IE.	I	S	X	Y
EGURREZKO PIEZAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3); PUZZLEAK (3b); PINTXOAK (4)	1	1 3	3 1	1	3 2	1		1	3
MAHAI-JOKOAK: PUZZLEAK (1); PUZZLEAK (1b); KARTAK (2); BI BERDINEN JOKOA (3); EL LINCE (4); PARTXISA (5); ZUHAITZEN JOKOA (6); OKA JOKOA (7)	4	4 3	5 3	4	2 3 4	4	3 5	4	2 3 4
IPUINAK					+				+
MATERIALAK JASO	+						+		

2002/II/28

9:20 “B” Gelan dago Arantxa andereñoa eta Axun, berriz, “A” gelan.

Ylenia eta Haizea mahai jokoeekin dabilta, euskaraz hitz eginez. A-k komentatzen dit ‘aluzinatuta’ dagoela euskararekin. Biak jo eta ke horrela ari dira: **“ez, horia da, hartu urdina”**.

Bost mutil egurrezko piezekin etxe bat egiten ari dira. Imanol E. beraiena inguratzen da.

9:30 Danel amarekin etorri da. Crema ematen dio amak aurpegian.

H-k: “Ha salido **gaizki neri**”.

“A” gelan dabil Imanol D. ipuinak ikusten, bakarrik, beste 7 haur mahaian eserita ari diren bitartean.

9:35 Imanol D. dator eraikuntzen gelara eta Danelekin batera hasten da egurrekin lanean. D-ek agintzen dio Imanoli zer egin behar duen: “Dame éste, trae otro”. Imanolek alde egiten dio eta mahaira inguratzen da. Arantxak: Kartetara jolastuko dugu? I-ek: **Bai**.

Gaizka, “B” gelan sartu gabe (bere andereñoa dagoena) ‘bere’ gelara doa eta margotzen hasten da beste 4 urteko 4 ikaslekin batera. Ylenia ere Axunekin jarri da marrazki bat egiten norbaiti oparitzeko.

Beste 5 haur beste mahai batean ari dira argizarizko margoekin margotzen.

9:50 Imanol D. eta Danel elkarrekin daude; itxitura bat egin dute eta barruan objektuak sartzen dabilta. Arantxak: Orain zer egin behar duzue? **Izena jarri** erantzuten du D-ek eta segidan papera hartzen du eta bere ‘izena’ jartzen du. A-k eguna jartzen dio.

Imanol E-ri deitzen dio Arantxak baina ez du berehala kasu egiten; 5-6 aldiz bere izena esan ondoren hurbiltzen da mahaira. Ez da mantentzen egiten ari den zerbait bukatu arte, utzi eta erraz alde egiten du.

Imanol D. Lego piezekin dabil, bakarrik.

9:55 Momentu honetan 3 ikasle bakarrik dabilta 4 urtekoen gelan, beste denak “plastika” gelan daude. Hemen, Gaizkak margotzen jarraitzen du eta baita Yleniak ere.

Imanol E-rengatik galdetzen diot Arantxari eta esaten dit: *Kontzentratu kontzentratzen da adibidez ipuinekin; egun batean, ordu bat egon zen ipuinak lasai-lasai ikusten baina, beste espazioetan, erraz uzten ditu gauzak eta mugitzen da. Amak ere gauza bera esan dit, lan handia ematen diola, ezin duela, eta komentatu nion, gutxi baldin bada ere eskatzeko, exijitzeko gauzak egin ditzan.*

10:00 Imanol E. puzzlea egiten ari da Arantxarekin eta saiatzea, egiten jarraitzea eskatzen dio eta, kostata, baina ari da. **“Ezin det”**, oso maiz esaten du.

Ivan, atzo buruko minez omen zegoen jantokian eta handik deitu omen zioten amari bila etor zedin eta gaur ez da etorri. Arantxak: “Gero amari deituko diot”.

Oso hurbiletik jarraitzen du ume bakoitzaren prozesua; zailtasunak, aurrerapenak, familiekin kontaktoa, ... kopuru txikia izateak asko laguntzen du.

10:10: H-k Arantxari: **Bukatu det** (puzzleak). Denbora askoan egoten da gauza bakoitza egiten.

10:15 Danel 3 urtekoen gelara doa. A-k galdetzen dio ea zer egin duen, ez baitio erakutsi. Danelek esplikatzen dio.

Imanol D-k. Legoeekin jarraitzen du, beste 4 urteko mutil bat ere ondoan dabil eta zerbait galdetzen dio Imanoli.

4 Urteko 4 neska etorri dira eta bi, Legorekin hasten dira, bat kartetara hasten da, bere gisa, eta laugarrena, makila batean bolak sartzen ari da.

Ylenia sartzen da gelara **“begira”** esanez; plastilinarekin egindako zerbait erakusten du (urdaizpikoa).

Arantxak Imanol E-ri: ikusten zein ederki egin duzun? Buruarekin baietz erantzuten dio Imanolek.

10:30 Gaizka etorri da. Entzun duenean Arantxak “jasotzera” esan duela, Imanol D-rena hurbiltzen da eta hau egiten ari zena hartzen hasten zaio. Imanol haserretu egiten da. A-k: Gaizka, utzi iezaiozu, goiz guztia darama hori egiten eta. Imanolek inpotentzia adierazten du garrasi eginez. Gaizkak materiala jaso nahi zuen eta ulertezin bat gertatu da bien artean.

Arantxak: Jasotzeko garaia da; bakoitzak jaso behar du berea, ez bestearena, ez puskatu bestearena!.

Gelara joango gara, gure gelara.

Hiru urtekoen gelan, 15 ume kantari ari dira: “xuabe-xuabe”, olatuarena egiten, beren gisa.

10:40 Aulkiak jarri eta esertzen dira. Gaur osteguna da, jostailu eguna, eta jostailuarekin zerikusia duen abesti bat kantatzen hasi dira.

Arduraduna: Imanol E. izango da gaur, arduraduna egun osoan. D-ek galdetzen du: **eta gero?**
Arantxak: Imanol.

Izenak: norena da hori? Imanolek berea jartzen du etorri ez direnen aldean. A-k: zu ez zara etorri? Ezer esan gabe aldatzen du.

Orain zenbatu. Eta horrela joaten dira kontatzen.

Jostailuen deskribapena

Gaur jostailu eguna denez, erakutsi ekarri dituzuen jostailuak. Bat aukeratu. Haizea hasten da, euskaraz. Argazki kamera deskribatzen du galderei erantzunez:

- . Koloreak
- . Zerez egina: plastiko, burdin, ...
- . Kontzeptuak: gogorra, biguna, ...

11:05 Galderak egiten jarraitzen dute ekarritako jostailuei buruz.

11:10 Gosaria: Azenarioa (pusketetan banatzen du A-k)

Sagarra

Madalenak

11:20 Komunera doaz: pixa egin, ura edan eta behera.

Gaur, eguraldi kaxkarra dagoenez, beheko piszina ibili dira. Momentu horretan, 4 urtekoek ingelesa zutenez, 3 urteko 6 ume bakarrik zeuden eta arazorik gabe, lasai ibili dira.

Arantxak: Atzo bilera izan nuen gurasoekin eta komentatu nien oso gustura nagoela euskaraz egiten ari diren eboluzioarekin.

Imanol D. bera ere gauzatxoak esaten hasi da, errepikatzen ditu esaldiak. Badirudi entzumen arazo bat zeukala eta homeopatiarekin ari omen zaizkio tratatzen; neri iruditzen zait hobeto entzuten duela eta kasu gehiago egiten du orain.

12:00 Agurrak eta batzuk jangelara eta besteak etxera.

Elkarrekintza momentuak

- . Askok gehitu dira, bai denboran eta bai ume desberdinen arteko kontaktuetan.

Arazoak azkar detektatzearen garrantzia

- . Arazoak azkar detektatu eta diagnostikoa lehenbailehen izateak garrantzi handia du (Imanolentzuten arazoarekin gertatu den bezala) .

“A” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	ID.	IE.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marrazkia/Margoketa (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Moztu (5); Pegatu (6); Collage-ak (7); Izena jarri (8)		2							2 3
PUZZLEAK(1); LEGOA (2)									
ARGAZKI-ALBUMAK									
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)				1					
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2); Ordenagailua (3)									
MATERIALAK JASO (1); MAHAIA GARBITU (2); IXIPUA GARBITU (3)									

“B” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	ID.	IE.	I	S	X	Y
EGURREZKO PIEZAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3); PUZZLEAK (3b); PINTXOAK (4)	1 2 5			1 2			-	-	-
MAHAI-JOKOAK: PUZZLEAK (1); PUZZLEAK (1b); KARTAK (2); BI BERDINEN JOKOA (3); EL LINCE (4); PARTXISA (5); ZUHAITZEN JOKOA (6); OKA JOKOA (7)			1 1b 2	2	1 1b 2				1
IPUINAK									
MATERIALAK JASO									

1b = Puzzleak eta dadoa. Dadoak koloreak ditu: beltza, gorria, berdea eta puzzleak ere; txandaka botatzen dute eta osatzen joaten dira

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEA : MARTXOA APIRILA

IKASLEAK/EGUNAK	21	18
DANEL	9:15 - 12:00 14:30-16:30	9:30 - 12:00 14:30-16:30
GAIZKA	10:45 - 16:30	9:00 - 16:30
HAIZEA	9:00 - 12:00 14:30- 16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30
IMANOL D.	9:00 - 12:00 14:30- 16:30	9:00 -12:00 14:30-16:30
IMANOL ETX.	9:00 - 12:00 14:30-16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30
IVAN	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30
SONIA	9:00 - 12:00 14:30-16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30
XABIER	9:00 - 12:00 14:30-16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30
YLENIA	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30

2002/III/21

9:30 Hiru urtekoen gelan dago Arantxa. Eguraldi ederra dago eta aktibitate handia ikusten da gelan. Euskaraz sumatzen dira:

Haizeak: **“Laranja eta urdina (Arantxak: nahastu) eta atera zait berdea”.** **“Begira orain nola dagon, hemen arrosa eta orain marroia”**

Soniak: **“Begira Arantxa, begira”**

Yleniak: **“Bukatu det”** eta marraskia bere lekura darama.

Xabier: Plastilinarekin ari da.

Imanol D.: Plastilinarekin ere.

Soniak: **“Dago lehortuta”.**

Haizeak: **“Sonia, garbitu dezu eskuak? Ez, ba garbitu”** Biak komunera doaz eskuak garbitzera.

Imanol D. ere hasi omen da gauzak euskaraz esaten eta ulertzen (belarriko arazoa aipatzen dit).

Arantxak Sonia eta Haizeari: Zer egin behar duzue orain? **Plastilina.** S-k: **“Nik bola bat txikia”.**

H-k: **“Nik bola bat haundia”.**

10:00 X-ek: Plastilinarekin jarraitzen du.

Imanol D-k: **“Kanpoan ipini, gaur jostailu eguna?”**

Imanol E-rengatik galdetzen diot Arantxari eta esaten dit, amarekin hitz egin zuela eta esan ziola, etxean ere arauak jarri behar dizkiotela. Atzo galdetu omen zion amak Arantxari ea zer moduz ikusten zuen umea eta Arantxak erantzun ziola *“pittin bat hobeto”* ikusten duela. Etxean ere saiatzen ari direla esan omen zion amak.

10:10 Ylenia dator 4 urtekoen gelatik eta Imanol E. ere.

S-k: **Kaixo, behia naiz** (txotxongiloarekin).

A-k: Kaixo, amona zaharra naiz, gaixo nago, jarabea hartu eta sartuko naiz ohera.

S-k: **Non bizi zara?**

10:25 Ivanek egurrezko piezekin jarraitzen du eraikuntzak egiten.

Xabier, Imanol E. eta Imanol D. “Lego”-rekin, euren gelan dabilta.

Denbora luzeak ematen dituzte jarduera batean. Batzuk, ordubete eraikuntzekin, beste batzuk tenpera eta plastilinarekin

Soniak: **Haizea, kaixo, txerrikumea naiz, erakutsiko dizut nire ...?.** 4 urte dituen Mikelek erantzuten dio.

Elkarrekintzan

Mahaian, 3 urteko bi ume eta 4 urteko 3 ume lanean ari dira eta hizketan. Txotxongiloarekin ere 3 urteko Sonia eta 4 urteko 2 ume elkarrekin ari dira.

10:40 Jaso eta borobilean jarriko gara.

Sonia eta Haizea biak kantari "Sorgina Piruliña..."

Arantxak: Gaur Haizea da arduraduna.

S-k: **Haizea, gu biok daukagu leotardoak.**

H-k: **Baina, ez dira berdinak.**

Asistentzia: Nor etorri den eta ez den zenbatzen. Gaur 8 etorri dira eta kaxatik 8 zenbakia atera eta jartzen du. Bat falta denez, 1 zenbakia hartu du Haizeak eta eskuin aldean jartzen du. Haizeak, Soniak eta Imanol D-k ezagutzen dituzte denen izenak eta zenbakiak.

10:45 Gaizka bere amarekin sartzen da karpeta handia eskuetan duela.

Elkarrizketa: Aquarium-a eta izurdeei buruz.

Egunkariak ekartzen duen albistea irakurtzen du Arantxak eta Y-k, entzun ondoren dio: **Ama, Ylenia eta Yulema** (bere ahizparengatik) eta jarraitzen du: **Hau zer da? Gizona. Ez, hau? Ez det bukatu!** (builaka) **Arantxa, noiz karpeta etxera?**

Arantxak: Egunkaria bere lekuan utzi (kaxa batean).

Ylenia, kontatu zer ekarri duzun. Y-k: **Begira, etxe bat, ez, jostailu bat: txerria txerriarekin, oiloa oiloarekin.** A-k: Joko bat da, joko honek izena du domino. Nolakoak dira fitxa hauek? Y-k: **handiak, gogorak, horia, txuria**, "de colorines".

Arantxak Imanol E-ri.: Zer ekarri duzu zuk? "Pirata malapata" . Eta, nolakoa da? Gogorra. Zenbat beso ditu? **Bat, bi.** Eta, zenbat hanka? **Bi.** Bai, seguru? Zenbat zapata ditu? **Egurra.** Orduan, zenbat hanka ditu? **Bat.** Haizeak: **Eta bestea non dago?** Danelek: Que se le ha roto. I.D-k: Que se cayó al mar y se le rompió la pata.

Soniak: Arbela ekarri du, margotzeko eta margotzen hasten da. H-k: "Pero no dices nada". S-k: Marraztu eta ezabatu egin du marrazkia.

Haizeari A-k: Zer da hau? **Pizarra.** Zer egin daiteke? **Margotu.** S-k: **Nerea bezala, Haizea? Bai.**

A-k: Biak dira arbelak baina desberdinak dira eta diferentziak azaltzen ditu Arantxak.

Imanol D.: Itxoin egiten du Haizeak bere jostailua jaso arte. Arantxak: Zer ekarri duzu? **Pues, kotxea.** Zer egiten du kotxe horrek? Zenbat gurpil ditu? Kontatzen ditu: **Bat, bi, hiru, lau.**

Norbaitek egin nahi dio galderarik? **Bai!** Erantzuten dute denek. Y-k: A ver si tiene pilas? X-ek: **Ea dituen gurpilak?** I.D-k: **Begira hemen.** H-k: **Ibiltzen da bakarrik.** I-ek: A ver si tiene luces?

G-k: **Ea daukan animaliak barruan.** I.D-k: **Ez dago ezer.**

Gaizkari: Zer ekarri duzu? **Grua eta dauka hartzeko.** D-ek: **Jaso** el barro y tira donde está el otro barro.

11:15 Ordu erdi daramate borobilean. Ivani mina eman dio Danelek bere aulkia Ivanenaren kontra jarri duenean.

Gosaria: Orain gosaldu egingo dugu. Kiwiarekin hasi dira, gero sagarra eta bukatzeko, bizkotxoak.

BOROBILEAN EGINDAKOAREN LABURPENA

- 1.-Izenak identifikatu eta bere lekuan jarri
- 2.-Etorri direnak eta ez direnak zenbatu eta zenbakiak jarri
- 3.-Egunkari zaharra zakarrontzira bota
- 4.-Lamina batean, zenbat izurde dauden kontatu
- 5.-Gaurko egunkarian izurdeak behatu. Arantxak albistea irakurtzen du: bi izurde, bat ama eta bestea kumea
- 6.-Izurdeei buruzko elkarrizketa
- 7.-Gaur jostailuen eguna: Bakoitzak ekarri duen objektua deskribatu. Kontzeptuak: koloreak; hainbat ezaugarri: tamainak, materialak, zenbakiak, erabilgarritasuna, ...
- 8.-Gosaria: Frutak eta bizkotxoak
Tartean, arauak gogorarazi dizkie: eserita nola egon behar duten

Borobilean hobeto ikusten ditut. Behar bada, bakoitza bere aulkian eserita dagoelako?

11:25 Pixa egin, eskuak garbitu, ura edan eta patiora doaz.

11:55 Gelara igotzen dira; jertseak hartu eta batzuk etxera eta besteak jangelara doaz.

“A” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	LD.	LE.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA:									2
Tenperak (1); Marrazkia/Margoketa (2);			1	3			1		3
Plastilina (3); Puntzoia (4); Moztu (5); Pegatu (6);			3	3			3	3	6
Collage-ak (7); Izena jarri (8)									7
PUZZLEAK(1); LEGOA (2)									
ARGAZKI-ALBUMAK									
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)							2		
ARBELA:									
Idatzi (1); Ezabatu (2); Ordenagailua (3)									
MATERIALAK JASO (1);			1						
MAHAIA GARBITU (2); IXIPUA GARBITU (3)			2				2		3

“B” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	LD.	LE.	I	S	X	Y
EGURREZKO PIEZAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3);	1			2	1	1		2	
PUZZLEAK (3b); PINTXOAK (4)	2				2				
MAHAIA-JOKOAK: PUZZLEAK (1); PUZZLEAK (1b);									
KARTAK (2); BI BERDINEN JOKOA (3); EL LINCE (4);									
PARTXISA (5); ZUHAITZEN JOKOA (6); OKA JOKOA (7)									
IPUINAK									
MATERIALAK JASO	+			+	+	+		+	

2002/IV/18

9:30 Axun agurtu dut 4 urtekoen gelan eta esaten dit, Arantxaren ikasleak, Aste Santuko oporren ondoren oso ondo etorri direla orokorrean, Ylenia izan ezik.

Sonia eta Haizea tenpera egiten ari ziren sartu naizenean. Ylenia eta Gaizka elementu desberdinak itsasten ari dira: tela pusketak, egurrezko pusketak, forma desberdina duten material pusketak, adibidez, makarroiak.

Ordenagailua jarri dute gelan eta Imanol D. eta Imanol E. dabilta tekleatzen eta azaltzen diren irudietan gezia mugitu eta situatzen (begi-eskua lantzeko jarduera). Ad.: belarria hartu eta figura osatzen joan behar dute, atal bakoitza ondo kolokatuz.

Galdetu diot Arantxari ea asko erakartzen dituen ordenagailuak eta esan dit, aritzen direla baina ez hainbeste.

Haizea ere elementuak itsasten hasi da.

10:00 Sonia eta Haizea itsasten ari dira, Imanol D. margotzen, gainontzekoak, 4 urtekoen gelan dabilta. Danel, Xabier eta Ivan eraikuntzak egiten, Ylenia puzzlea osatzen.

H-k: **Nik etxean Takoloren ipuina daukat euskeraz (laguntzarekin).**

S-k: **Eta nik daukat ipuin bat euskeraz.**

H-k: **Begiratu nola dago hau Sonia.**

S-k: Kollagea egiterakoan jarraitutako pausoak:

- 1.- Materialak itsatsi
- 2.- Egurrezkoak, gainetik margotu ditu

10:15 Ivan dator beste gelatik tenpera egitera eta Imanol D-k ere nahi du. I-ek segituan esaten du: Ya está, **itsasontzia.**

Ordenagailuan dabilta umeetako bat, Ander, bat-batean negarrez hasi da, gainean zeuzkan 3 lagun eta badirudi 'agobiatuta' sentitu dela eta ez zitzaion nonbait egin nahi zuena ondo ateratzen. Arantxak besteei esan die zerbait desberdina aukeratzeko eta Ander bakarrik gelditu denean, lasaitu eta hobeto ari da. Laguntza eskatzen dio Arantxari.

Oso giro lasaia dago momentu hauetan.

Sonia eta Haizea euskaraz ari dira jo eta ke.

10:25 Txotxongiloa egiten hasi da 4 urteko neska bat, beste bi, publiko bezala lurrean eserita jarri dira.

Ivan, berriz ere beste gelara doa tenpera pixka bat egin ondoren (denbora gutxi pasa du margotzen).

. **Oso ondo ikusten dut Imanol D., patxadan, tenperekin margotu ondoren Arantxari erakusten dio: "begira trenbidea". oso ondo egin duela adierazten dio Arantxak.**

. Egiten dituzten jardueretan beti daude nobedadeak, gero eta gero aberatsagoak dira, zailtasun eta konplexutasun handiagokoak, eta bakoitzak behar duen laguntza ematerakoan, argi adierazten dute andereñoek ikaskuntza esanguratsua lortzeko ematen dituzten pausoak, prozesuaren gidatze horretan.

Ander larritu egin da berriro: "Ya no sé más". Arantxak: Lasai, nik lagunduko dizut.

Xabier eta Imanol E. Axunekin dabilta mahai jokoeekin (domino antzekoa). Gaizka, Ivan eta Danelek eraikuntzekin jarraitzen dute.

10:35 Gaizka negarrez dator Arantxarengana, Xabier berarekin duela. Zapaldu egin dizu? Bai. Kontsolatzen du.

Orain, ume asko kontzentratu da ordenagailu inguruan.

Arantxak: Jaso egin behar dugu. Danel plastilinarekin hasten da. Ez hasi orain plastilinarekin. Xabier, Gaizka, Imanol E. txotxongiloarekin dabilta, jolasean; Ylenia, Sonia eta Haizea, margotzen ari dira.

10:45 Borobila osatzen ari dira bakoitzak bere aulkia eraman eta jarriz. Ylenia eta Sonia falta dira taldean, kostatzen zaie margotze-lana uztea.

Gaizka negarrez dago, Danelek jo egin du. A-k: Orain kontatuko didazue zer gertatu den Danel eta Gaizkaren artean.

G-k: **Jo egin dit eta mina eman dit.**

D-ek: **Barkatu!**

A-k: Bai, baina horrekin ez da dena konpontzen. Zergatik jo duzu?

D-ek: **Ipuina.**

A-k: Zerbait nahi dugunean, zer egin behar dugu? D-ek: **Eskatu.**

Gaur jostailu eguna da eta Imanol E. da **arduraduna.**

D-ek: **Bazkaldu ondoren ekarriko dut jostailua.**

Arantxak: Jostailuekin hasi aurretik, irakurri egingo dizuet "Kamila zebraren" **ipua.**

Arauk gogorarazten

. Belarriak erne, begiak irekita, ahoa itxita, ...

Ipuinaren irudiak ikusi nahi dituzte eta altxa egiten dira. Noiz esan dizuet erakutsiko dizuedala? Gero. Ba, itxoiten ikasi behar duzue. Zati bat irakurtzen die.

Jostailuak banatzen hasten dira eta lagunei deskribatzen:

Imanol E-k: **Soinua egiten du.** Arantxak: Zerezkoa da? **Plastikoa.** Eta, zein koloretakoa?: **grisa, beltza.**

Besteek ere galderak egiten dituzte: **Ea dituen pilak.** I-ek: **Ez dauka.**

Ylenia ez da geldirik egoten eta Arantxak berarengana eramaten du.

Xabierrek **kamioa** ekarri du. **Soinua egiten du eta argiak piztu egiten zaizkio**

S-k: Nola ibiltzen da, bakarrik? Eta, pilak ditu?

G-k: Ez daukan barruan gizona? Ez.

A-k: Zerezkoa da?. G-k: **Plastiko gogorra.**

Arantxak Imanol E-ri: Jaitsi Iñakirena eta egunkaria eskatu, mesedez.

Abestia: “Egunkaria...”

Gosaria: Platanoa, bollicao, gaileta “Artinata”. Elikagai bakoitzaren ezaugarriak gogoratu:

- **Hazia duen ala ez; zaporeak, koloreak, tamainak, formak, ...**

Etxeko gauzak komentatuz ari dira jaten. D-ek: **Nire aita joango da**, no se queda en casa porque tiene que trabajar.

11:10 Komunera doaz. Imanol E-ri atea ondo irekitzen erakusten dio Arantxak -izugarritzko kolpeak ematen ditu eta-.

Eguraldi euritsua dagoenez, beheko piszinan gelditzen dira. Hiru eta lau urteko haurrak daude gaur eta nahiko zarata ateratzen dute.

12:00 Denak agurtu ondoren, jangelakoak bazkaltzera eta besteak etxera joan dira.

Piszinan, Ylenia eta gainontzeko neskak gehiago ibili dira kotxearekin, paseatzen eta lasai; mutilak aldiz, triziklo eta baloiekin, nahiko gogor eta gelditu gabe ibili dira.

“A” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	ID.	IE.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marrazkia/Margoketa (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Moztu (5); Pegatu (6); Collage-ak (7); Izena jarri (8)		6 7	1 6 7 2	1 2		6 1	1 6 7 2		2 6 7
PUZZLEAK(1); LEGOA (2)									
ARGAZKI-ALBUMAK									
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)							2		
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2); Ordenagailua (3)				3	3				
MATERIALAK JASO (1); MAHAIA GARBITU (2); IXIPUA GARBITU (3)			2 3				2 3		2 3

“B” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	ID.	IE.	I	S	X	Y
EGURREZKO PIEZAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3); PUZZLEAK (3b); PINTXOAK (4)	1	1			1	1		1	3
MAHAL-JOKOAK: PUZZLEAK (1); PUZZLEAK (1b); KARTAK (2); BI BERDINEN JOKOA (3); EL LINCE (4); PARTXISA (5); ZUHAITZEN JOKOA (6); OKA JOKOA (7)					3			3	
IPUINAK									
MATERIALAK JASO	+	+		+	+	+		+	+

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEAK : MAIATZA EKAINA

IKASLEAK/EGUNAK	08	05
DANEL	9:30 - 12:00 14:30-16:30	9:30 - 12:00 14:30-16:30
GAIZKA	9:55 - 16:30	9:55 - 16:30
HAIZEA	GAIXORIK	OPORRETAN
IMANOL D.	9:00 - 12:00 14:30-16:30	9:00 -12:00 14:30-16:30
IMANOL ETX.	9:00 - 12:00 14:30-16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30
IVAN	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30
SONIA	9:00 - 12:00 14:30-16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30
XABIER	9:00 - 12:00 14:30-16:30	9:00 - 12:00 14:30-16:30
YLENIA	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30

2002/V/08

9:30 Arantxa andereñoa B gelan dago. Egurrezko piezekin dabilta Xabier eta Ivan. Sonia eta Ylenia beste gelatik datoz. Hiru mahaietan daude ume batzuk puzzleekin, Lego-arekin, "Gure istorioak" liburuarekin (*) eta "Asmakizunak" liburuarekin (**).

9:40 Danel etxetik dator amarekin eta Arantxak esaten dio, amari erakusteko atzo egindako lana.

9:45 Imanol E. dator beste gelatik.

9:50 Gaizka amarekin iristen da. Ez omen dabil oso ondo ere; 12etan ekartzen omen du azken egun hauetan. Amarengatik dio, beti bezala dabilela, gorabeherekin.

Egurrezko piezen espazioan momentu honetan 8 mutil eta neska bat daude; 2 neska Lego piezekin, Sonia eta Ylenia argazki eta historiekin. Hiru urteko ikasle guztiak gela honetan daude.

10:00 Gaizka negarrez Ivanek jo egin duelako. Arantxak laguntzen die konpontzen. Orain Ivanek, eskatu gabe kentzen dizkio piezak Imanol D-ri, eta hau ere negarrez hasten da.

10:02 Imanol D., Imanol E., Xabier eta Gaizka dabilta eraikuntzak egiten denen artean eta pozik ikusten dira euren artean komentarioak eginez.

Momentu hauetan asko errepikatzen dute "eskatu" hitza (piezak bata besteari kentzen dizkionean).

Xabier eta Imanol E. aldapak egin ondoren, kotxea goitik behera bota eta ranpa behean egin duten zubitik nola pasatzen den behatzen ari dira.

Bi neska, elkarrekin Legorekin egindako eraikuntzak bukatu eta izena jarri ondoren, beste gelara doaz euren artean hitz eginez.

10:10 Hiru urteko 6 ume gelditu dira egurrekin eta besteak alde egin dute. Sonia eta Ylenia plastilina egiten hasi dira. Beste batzuk marrazkia eta tenpera egiten; Ainhoa Itxaso, puzzleekin ari da (15 ume daude 3 urtekoen gelan, 4 urtekoenean 7).

* "Gure Istorioak" = Argazkiak eta argazkiaren deskribapena jasotzen dituen liburua da. Umeen familiako norbaitek idatzia -ahizpa edo anaiak gehienetan-, euskaraz edo erdaraz, baina dexente daude euskaraz.


** "Asmakizunak" = Bi gupil ditu, leku batetik bestera joateko balio du, pedalak ditu. Zer da?



Tapa altxatzen dute eta...

Arantxak: Orain, zergatik ez duzue egiten aldapa handiagoa; beste pisu bat egin dezakezue eta kotxeek abiadura handiagoa hartuko dute. Zenbat pisu daude orain? **Bat eta bi**. Ba beste bat egin.

Nondik bota behar duzue kotxea? Konpondu aldapa hori! Zer gertatuko zaio kotxeari?



10:15 Lau urteko 2 mutil etorri dira. Gaizkak garajea eta hezia egin ditu. Danel beste gelara joan da, Axunekin dago, berari begiratzen, tenperak prestatzen dituen bitartean. Xabier lan eta lan ari da, ez da gelditzen, baina besteen ideiak onartzea kosta egiten zaio Arantzak dioenez.

10:25 Hiru urtekoen gelan 13 ume daude momentu honetan: 2 tenpera egiten, 5 plastilinarekin, 5 marrazkia egiten, Danel begira dago. Sonia eta Ylenia plastilinarekin.

Xabier saiatzen da kotxea ibil dadin baina aldapa ez dutenez ondo egin, ez du hain ondo funtzionatzen, dena den, beraiek kontentu daude.

10:30 Jasotzera!.

Danel, orain ez baduzu jasotzen, arratsaldean ez daukazu jolasterik. Jasoko duela dio baina ez da jasotzen hasten. Imanol D-ren atzetik doa eta jo egiten dio. Arantxa korrika ateratzen da beraien atzetik.

D-ek: **Ez, ezetz**. Ba hemen eserita egon. **Ez, ezetz**. Ba hemen egon. Jaso gauzak. **Ez**. Bi aukera eman dizkizut eta ez duzu jaso. Zutik gelditzen da.

Oso zaila egiten da batzuetan, kontrolatzea

Arantxak: Erori diren izen horiek jarri, mesedez. **Ez.** Bueno, hor egon beharko duzu. Imanol E., zergatik ez duzu jasotzen?

D-ek: **Jarri ditut izenak.** Bale, orain goazen gelara eta eseri.

10:40 Eserita. Atzo norbaitek jan zituen txokolatzeko gailetak. Horri buruz hitz egin dute. Bakoitzak berea kontatzen du. Ivanek esaten du berak jan zituela. Non jan zenituen? **Etxean eta nire amari.** Arantxak: Zuk eraman dituzu etxera eta orain ez daukagu ezer. Kotxeak sartzen baldin badituzue motxilan ezin dugu jolastu; guraizeak eramaten badituzue etxera ezin ditugu gauzak moztu. Danelek egiten du beste gauzen errepassoa: **Ordenagailua eramaten badugu, zeloaren eramaten badugu, etab.**

Eta flautak, nork jan ditu? Ivanek, ezetz esaten du.

D-ek: A que nos hemos quedado sin nada Xabi? X-ek Ivani: no se come, sino nos quedamos sin nada. Y-k: ahora sin galletas de chocolate.

Asistentzia: Gaur zein falta da? Haizea

Jostailu eguna: Deskribapena

- . koloreak
- Imanol E. . zenbakiak
- . zerez egina
- Pistola** . pilarik duen
- . ea nola disparatzen duen
- . ea zer soinu egiten duen
- . puskatuta dagoen
- . koloreak
- Xabier . zerez egina
- . nolakoa: gogorra
- Lehoia** . jostailuzkoa edo benetakoa
- . non bizi diren: **zooan, etxean, Cabarzenon**
- . tamainak: **handiak**
- . benetakoak = arriskutsuak. D-ek: **gaiztoak.** A-k: arriskutsuak
- . nola mugitzen diren
- Errealitatera hurbiltzen laguntzen die**
- . zerez egina: plastikozkoa
- Gaizka . benetakoa ala jostailuzkoa
- Marrazoa** . non bizi diren: **ur azpian**
- . nolakoa: **gogorra**
- . koloreak

D-ek: **gaiztoak, koska eta mina egiten du, min handia eta oso-oso zorrotzak ditu hortzak.**

Zuk ikusi duzu Gaizka?

Arantxak: Ditugu 3 jostailu, ea nolakoak diren: **Hau, gogorra, gogorra**, eta hau? Plastikoa gogorra da? **Ez**. Gaizkak jarraitzen du gogorra dela esanez. D-ek: **Gaizkak esaten du gogorra dela eta ez da gogorra.**

Alde batean ipini plastikoa dutenak eta beste aldean plastikoa biguna dutenak. Danelek gogorrak gogorrekin eta biguna aparte jartzen du. Orain koloreen arabera. Soniak: **urdinak direnak eta horiak direnak.**

Arantxak: *Danelek asko aurreratu du lanean eta oso deskribapen onak egiten ditu baina, oso urduridabil; lehengoan, bat-batean ordenagailua dena margotu zuen eta hondatu egin zuen. Amarekin hitz egin nuen eta berak ere gauza bera dio, egonezin handia daukala*

Olerkiak:

- . Behatzena
- . Sorgina: Bat eta bi sorgin etorri...
- . Pirata: Piratak maltzurak gara...

11:15 Gosaria:

Arduraduna: Ylenia. Zakarrontzia erdian jartzen du.

Kiwiak jaten eta deskribatzen: Sonia, Gaizka, Ivan, Xabier.

. **Berdea da eta zuria eta beltza.** Zer dira beltz hauek? **Haziak.**

Imanol E. galtzak jaitzita dator komunitate. D-ek: Estás enseñando el pitilín, para macho (ipurdian ukituz pasatzerakoan).

Sagarra: Denak jaten dute.

Gailetak: Imanol E-k dio: **Ivanek jan ditu denak.**

11:25 Eguraldi euritsu eta haizetsua dago, beraz, beheko piszina ibili beharko dute.

Arantzarekin hitz eginez:

Imanol D: Galdetzen diot ea ez al dagoen pixka bat agresiboagoa eta baieztatzen dit, baina esaten dit, pixka bat behar zuela ere, espabilatzeko.

Xabier. Oso langilea izateaz gain, ondo betetzen dituela arauak eta erraz egiten dituela gauzak.

Sonia: Hobeto ikusten duela dio Arantxak, berriro, adorea gehiago duela eta pozik agertzen dela; psikomotrizitate gelan ere gustura dabilela (lehen ez zuela joan nahi izaten)

Danel: Goian aipatutakoa dio, asko aurreratu duela baina, urduri dabilela.

Orokorrean taldearekin ondo dagoela dio Arantxak baina iruditzen zaiola "kate motzean" hartzeko taldea dela, beti erne egon behar dela eurekin.

Datorren astean Antzuolara doaz andereñoak; ea zer kontatzen didaten hurrengo bisitan.

Ikasturte bukaerako elkarrizketarako hainbat galdera

- 2 gelen erabileran, bereiztu al daitezke neskek eta mutilek egiten dituzten jarduerak, ad., mutilak gehiago ibiltzen al dira eraikuntzetan?
- 3 urteko eta 4 urteko umeak, zenbateraino nahasten dira jarduera bat elkarrekin burutzeko?
- Ikasle bakoitzak, bere andereñoarengana joateko edo bere erreferentzia gelara joateko joera al dauka?

“A” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
EGURREZKO PIEZAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3); PUZZLEAK (3b); PINTXOAK (4)	1	1	g	1	1	1	2	1	2
MAHAI-JOKOAK: PUZZLEAK (1); PUZZLEAK (1b); KARTAK (2); BI BERDINEN JOKOA (3); EL LINCE (4); PARTXISA (5); ZUHAITZEN JOKOA (6); OKA JOKOA (7)									3
IPUINAK									
MATERIALAK JASO	+	+		+	+	+	+	+	+

(g): gaixorik

“B” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marrazkia/Margoketa (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Moztu (5); Pegatu (6); Collage-ak (7); Izena jarri (8)			g				3		3
PUZZLEAK(1); LEGOA (2)							1 2		1 2
ARGAZKI-ALBUMAK									
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)									
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2); Ordenagailua (3)									
MATERIALAK JASO (1); MAHAIA GARBITU (2); IXIPUA GARBITU (3)							1		1

2002/VI/05

9:10 Hiru urtekoen gelan Silvia dago (nire ikasle izandakoa); Axunen ordezkapena egitera etorri da.

Xabier, Ivan eta Imanol D. egurrezko piezekin ranpa bat egiten ari dira.

Arantxa, Antzuolan izan da orain dela 2 aste eta komentatzen dit, oso interesgarria izan dela eta joan beharko nukeela nik hango funtzionamendua ikustera

Arauk gogorarazten

. Hitz egin gauzak eskatzeko, gauzak elkarren artean egiteko.

Gauzak nola egin eta umeen zalantzen aurrean, pentsa arazten laguntzen dabil Arantxa

Sonia et Ylenia 4 urtekoen gelatik datoz eta puzzleak egiten hasi dira.

9:30 Danel amarekin dator eta jostailu handi bat dakar. Arantxak esaten dio gaur ez dela jostailu eguna eta biharko gordeko dutela.

Sonia eta Ylenia beste gelara doaz; Ylenia, materiala jaso gabe zihoan eta A-k ekarrarazten du puzzlea jaso dezan.

Danelek, berak bakarrik egin nahi du eraikuntza, Xabier eta Ivan elkarrekin dabilta. Imanol E. inguratzen zaio Daneli eta bien artean hasi dira eraikitzen.

Ylenia A-rekin "Oca" jokoarekin; dadoa bota, zenbakiak kontatuz: "**Okatik-Okara**" esaten du Yleniak eta Xabierrek, berriz: "**Ahatatik-ahatara**".

9:40 Beste gelan, mahai luzean, 8 ume ari dira margotzen, 3 plastilina egiten, 1 ipuina irakurtzen, 1 ordenagailuarekin.

Haizea eta Gaizka ez dira etorri. Haizea oporretara joan omen da.

X-ek: "**Egur txikiekin hobeto, bestela ereriko da, seguru-seguru**"



Haserretu dira Imanol E. eta Danel. Andereñoak zer gertatzen den galdetzen die. Ezin zarete konpondu? Orduan bakoitzak berea egin beharko du.

Imanol E. piezekin "danborra" jotzen hasi denez, A-k aulkian eser arazten du zer egin behar duen pentsa dezan. Besoak gurutzatuta jartzen da, aurpegi haserrea balu bezala eta segituan hasten da joko batekin.

Lau urteko bi neska: Arantxa, lortu dugu!; 3 solairuko eraikuntza bat egin dute.

9:55 Gaizka dator bere amarekin eta A-k agurtu ondoren, eraikuntzen gelara doa.

Arantxak: *Motza egin zait kurtsoa; orain iruditzen zait martxa polita hartu dutela eta bukatzen ari gara.*

Datorren urtean 2 urtekoen gela hartuko al duzu? Bai, uste dut baietz

Hiru urtekoen gelan Ylenia eta Sonia ordenagailuarekin dabilta, Mikelekin (4 urtekoa) Beste 8 ume plastikako lan bat egiten ari dira.

Danel denbora luzean aritu da ahokatzeko piezekin eta Legorekin (ikasturte hasierarekin alderatuz diferentzia handia egin du).

Arantxak: *Danelek diferentzia egin du eta Xabierrek zer esanik ez; beldur asko zituen, lotsatia da, segurtasun falta zuen eta orain berriz, oso ondo lan egiten du, gustura dabil, atzo esan nien gurasoei primeran dabilela eta globalki zenbat aurreratu duen. Gurasoek esan zidaten etxean kasketak harrapatzen*

10:45 Jaso dituzte erabilitako materialak eta bakoitza bere gelara doa.

Kartulina handi batean ipini dituzte beraien marrazkiak "Margoketa lehiaketarako".

10:50 Gaur asteazkena, “kanta paperen eguna” da.

Momentu honetan sartzen da Gaizka bere amarekin.

Arantxak Daneli: Danel, jakinda gaur ez dela jostailu eguna, zergatik ekarri duzu robota? D-el:

Asko gustatzen zaidalako.

S-k: **Soka, saltoak egiteko kanpoan ekarri det.**

G-k: **Ni jolastuko naiz nire jostailuarekin.**

Eguraldi euritsua dagoenez, nola eta zertan ibili daitezkeen gogorarazten die Arantxak.

Elkarrizketa: Txindurri, sugea, eta abarren gaia atera dute eta hori aprobetxatuz:

-Nolakoak dira sugeak?

S-k: **Luzeak.**

D-ek: **Pozoia daukate.**

A-k: Mingain luze horrekin, zer harrapatzen dute?

D-ek: Comida, bichos.

G-k: **Sugeak belarrean** escondidos.

D-ek: **Aitonak atea itxi eta ezin da sartu.**

S-k: **Arrastaka .**

A-k: Bai, eta nola ibiltzen dira?

G-k: **Gorputzarekin.**

A-k: Eta jateko, zer? xomorroak. Mingainarekin hartu behar dituztelako xomorroak.

I-ek: Spiderman..

A-k: Baina, benetakoa da? Non ikusten dugu?

I-ek: **Telebistan, pelikulan.**

X-ek: **Spiderman dauka** una araña (**armiarma**).

Y-k: Yo no he hablado. Mi aita una patada le ha dado a la serpiente.

A-k: Baina, zer esaten dugu guk? Animaliak bakean utzi behar ditugula.

Y-k: Yo al pueblo con mi abuela. A-k: Nola? **Autobusean urruti urruti**. Voy a estar mucho rato.

D-ek: **Nola harrapatzen da granoak?**

A-k: Barizela da, gaixotasun bat.

I.E-k: Egun **batean nire anaiari egin zion koska eltxo batek.**

X-ek: **Erleak ere koska.**

A-k: Erleak eztena du (marraztu egiten du arbelean).

D-ek: **Orain ez du kontagiatzen** (kutsatzen).

Yleniak muxu bat ematen dio Xabierri.

I.E.-k: **Nolakoak dira erleak?** Nik oso gaizki marrazten dut esaten du A-k.

Y-k: Así no es.

S-k: **Bai.**

G-k: **Erleak dauka ´alak´ horiak** (hegoak).

D-ek: **Erleak ezta.**

A-k Imanol D-ri: Zerbait kontatu nahi diguzu? **Bai** esaten du baina ez zaio ezer ateratzen.

11:10 Gosaria: Sagarra, kiwia eta gailetak.

G-k: **Erleak belarra hartzen du ezta egiteko.**

Arantxak: Begira zer gauza polita esan digun Gaizkak.

Ivanek “natilla” ekarri du eta berari ematen dio. Kiwia ez dute denek nahi. Soniak bai, denetatik jaten du, Ivanek ere, Xabier, Imanol D. eta Imanol E-k ere.

Gaur abestia eta izenena arratsaldean egingo dugu –esaten die Arantxak- berandutu egin zaigu-eta.

11:20 Komunera eta behera.

Antzuolako bisitari buruz

Bost egun pasa ditu Arantxak Antzuolako eskolan eta azpimarratu dizkidan hainbat elementu aipatuko ditugu:

- Giroa (lasaia, herrikoa –ez dira bizi gu bezala, presaka-)
- Kontentzioa
- Ordena
- Txukuntasuna
- Lasaitasuna, patxada
- Borobileko une aberatsak, naturalak (etekin handia ateratzen diote)
- Plastika gelan, behar bada, gauza sinpleagoak: marrazkia, margoketa, tenpera eta ez gauza konplikatua
- Inplikazio handia (ordu asko sartzen dituzte irakasleek)
- Oso umeen gainean arauak gogorarazten (presiorik gabe)
- Borobilean, umeak ez dira mugitzen
- Benetako talde lana: irakasle talde berdina urteetan eta eskarmentu handikoa. Askok aztertzen dute dena
- Agresibitate ez
- Psikomotrizitate-saio oso aberatsak (beti 2 irakasleen artean)
- Material pilla bat
- Jangelarik ez dute (umeak etxera joaten dira bazkaltzera eta lasaiago etortzen dira arratsaldean).

“A” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
MARGOTEGIA: Tenperak (1); Marrazkia/ Margoketa (2); Plastilina (3); Puntzoia (4); Moztu (5); Pegatu (6); Collage-ak (7); Izena jarri (8)			O				3		
PUZZLEAK(1); LEGOA (2)							1		1
ARGAZKI-ALBUMAK									
IPUINAK (1); TXOTXONGILOAK (2); ABESTIAK (3)									
ARBELA: Idatzi (1); Ezabatu (2); Ordenagailua (3)							3		3
MATERIALAK JASO (1); MAHAIA GARBITU (2); IXIPUA GARBITU (3)							1		1

(O): oporretan

“B” GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	D	G	H	I.D.	I.E.	I	S	X	Y
EGURREZKO PIEZAK (1); LEGO (2); PUZZLEAK (3); PUZZLEAK (3b); PINTXOAK (4)	1	1 2	O	1 2	1	1 2	3b	1	3b
MAHAI-JOKOAK: PUZZLEAK (1); PUZZLEAK (1b); KARTAK (2); BI BERDINEN JOKOA (3); EL LINCE (4); PARTXISA (5); ZUHAITZEN JOKOA (6); OKA JOKOA (7)	7				7	7			7
IPUINAK									
MATERIALAK JASO	+	+		+	+	+	+	+	+

(O): oporretan

IKUSPEGI OROKORRAK ANDEREÑOAREN HITZETAN

IKASTURTE BUKAERAKO ELKARRIZKETA ERDI EGITURATUA (2002/06)

1.- ESPAZIOEN AZTERKETA

1.1.- Deskribatu iezadazu nola ikusten duzun espazio bakoitza elementu hauek edota beste batzuk kontuan hartuz

- . Azalera
- . Argitasuna
- . Soinu-isiltasuna
- . Berotasun-hotza
- . Funtzionaltasuna
- . Seguritate-Arriskua
- . Goxotasuna
- . Ekipamendua

1.1.1.- Gela-gelak

Ume kopurua ikusita, ondo, datorren ikasturterako materiala sailkatzeko mobiliarioa behar dugu -kubetak jarri ahal izateko-. Gela girotzea kostatzen zait. Espazio aldetik, argitasuna, ondo ikusten dut. Eskailerak ere ondo, ume gutxi dira eta horrek gauza asko errazten ditu.

1.1.2.- Psikomotrizitate gela

Espazio aldetik, beste eraikinean dagoen gela hobe da, nahiz eta joan eta etorri egin behar den. Hemengoa, 2-3 urtekoentzat ondo dago, baina kristalera asko duenez, handiekin arriskutsua izan daiteke. Aldaketa egin dugu eta hemengo gela hutsa dago orain eta beste gelara eraman genuen materiala. Argitasun gutxiago dauka, itxiagoa da, baina "kontentzio" gehiagoko espazioa da.

1.1.3.- Komunak

Txikiak eta ondo daude.

1.1.4.- Jangela

Oso ondo dago, 2 pertsona egon dira 12-15 umeentzako eta benetan oso ondo antolatua dago eta benetan pertsonalizatua.

1.1.5.- Logela

Oso ondo dago.

1.1.6.- Sarrerako "pizina"

Erabilgarritasun handia ematen diogu, talde handian egiten diren hainbat jarduera egiteko, etxera joan aurretik umeak despeditzeko (abestuz, etab.) eta eguraldi txarra egiten duenean jolas ordurako. Hala ere, ume asko elkartzen direnean, ez da toki aproposena jolas orduko aktibitateetarako, soinua, buila, txokeak, etab. erraz gertatzen dira.

1.1.7.- Patioa

Aterpea konpondu eta ateraino ekarriko balute, ondo. Bi urteko umeak patioan galdu xamarrak ibiltzen dira.

2.- NOLA IZAN DA UMEAK BI GELETARA OHITZE-PROZESUA

Hiru urteko umei kostatzen zaie “zirkulazio” dinamikara ohitzea; behar bada, 2 urteko hurrekin egin beharko genuke zerbait, Antzuolan ere komentatu genuen, 2. eta 3. hiruhilabetean gela beste modu batean antolatzea, autonomia lortu ahal izateko. Lehenengo hiruhilabetean material batzuk sartu behar ditugu (urtean zehar izango ez dituztenak baino haustura izan ez dezaten).

2.1.- Zu zeu gela batean edo bestean egoteak zenbaterainoko eragina duela ikusi duzu umeengan?

Nire ustez ez gehiegi, ume batzuk guri lotuagoak gelditzen dira; mutilen kasuan orokorrean, garbi ikusten da beste gelara joateko joera, “eraikuntzek” eurentzat duten erakargarritasunagatik dela. Sonia adibidez, 3 urtekoen gelan (plastika gelan) zentratuta egon da; Ylenia bietan. Hasieran, erreferentziak behar dituzte, eta bere gela, 3 urtekoena da, eta bere andereñoa ni naiz.

2.2.- Bi gelak kontuan hartuz, zein espazio eta material erabiltzen dute gehiago?

Ipuinak kenduta, 4-5 urtekoentzat espazio honek (plastikako gelak) hartzen du indarra, idazketarekin. Orokorrean, lau urtekoen gelan, mahai-jolas eta eraikuntzak hobeto joaten dira 3 urtekoen gelako espazioak baino.

2.3.- Zure gustura antolatuta al daude bi gelak? Aldaketarik egingo al zenuke?

Zergatik izan duen arrakasta handiagoa beste espazioak? Oso garbi eta txukun eduki behar dira beti gauza guztiak. Guk umei eskatzeko eta exijitzeko guk geuk ere egin behar dugu.

2.4.- Dauden material, baliabide eta ekipamenduak egokiak ikusten al dituzu?

Inportantea iruditzen zait material gehiago eskatu baino lehen, gauzak ondo, txukun, garbi, ondo antolatuak edukitzea. Marrazkiak gordetzeko tresna adibidez oso ondo etorri zaigu.

2.5.- Zer eskatuko zenioke administrazioari?

Diru gehiago materiala erosi ahal izateko. Diru gutxi maneiatu dugu adibidez aurren, guri materiala puskatu egiten zaigu txikiekin eta, berria erosi beharko genuke, momentuan...

3.- IKASTURTEAREN PROZESUA NOLA JOAN DA

3.1.- Deskribatu ezazu ikasturtea elementu hauek kontuan hartuz

. Ikasleak

Lehenengo hiruhilabetean asko kostatu zaie “zirkulaziora” egokitzea; hori ezabatuko nuke eta orain, behar bada, jarraituko nuke deskantsu pixka bat hartu ondoren, gustura sentitzen naiz eman dituzten aurrerapausoekin.

. Irakasleak

Denbora guztian koordinatzen ari gara, hain jende gutxi egonda, esplizituki bilerak egiteko momentuak hartu beharrean, momentu guztietan ari gara informazioa bata besteari trukatzeko.

. Gurasoak

Exijentzi maila delikatua iruditzen zait, ahaztu egiten zaigu bere aldean jartzea; nahiz eta beraiekin ados ez egon, errespetua zor diegu. Harremana oso estua izan dut beraiekin.

. Aholkularia

Umeeikiko jarraibide edo pauten beharra botatzen dut faltan, agian ez da bere lana izango, baina nik hori sumatzen dut.

3.2.- Zer izan da gauzarik zailena eta errazena?

Lehenengo hiruhilabetean zirkulaziora ohitzea.

3.3.- Nola baloratzen duzu ikasturtean eman den prozesua autonomia eta elkarrekintza alorretan?

Borobilean gaudenean elkarrekin entzutea, parte hartzea, gai baten haria hartu eta horri buruz hitz egitea, lortu dugu.

3.4.- Laguntzaren bat eskatuko al zenuke?

Pertsonala ez, haur-kopuru txikia delako, laguntza fisikoa ez; bai ordea, lehen aipatutako materialak berritzeko dirua, aterpea konpondu eta osatzea, belar gehiago duen espazioa egokitzea, ...

AUTONOMIA-OHITUREN TAULAK

2001/2002 IKASTURTEA**3. HIRUHILABETEA****ELIKADURAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITURAK****(JANGELAN BAZKALTZEN DUTEN HAURRAK)****2-4 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK**

ITEMAK/IKASLEAK	Y	G	I
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe	B	B	B
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin	B	B	B
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	B	B	B
Mahai ingurua txukun uzten ikasi	B	I	B
Lurra txukun uzten ikasi	B	B	B
Mastekatzen eta irensten ikasi	B	B	B
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi	B	B	B
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi	B	B	B
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi	B	B	B
Jana banatu bitartean itxoiten ikasi	B (1)	B (1)	B (1)
Denetatik jaten ikasi	B	B (2)	B
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi	b	b	b
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi	B	B	B
Elikagaiak eskuekin mozten ikasi, koska egin gabe	m	m	m
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi	B (3)	B (3)	B (3)
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi	B	B	B
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitzen ikasi	B	B	B
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi	e	e	e

(B) Egiten du; (b) Begoñak ematen die, gehiago edo gutxiago eskatzen du;

(m) Moztuta ematen diete; (e) Ez diete eskatzen

(1) kopuru txikia denez; (2) patata izan ezik; (3) mandarina eta platanoa

OHARRAK:

1.- Bazkaldu ondoren hortzak garbitzen zituzten, baina Osakidetzak aholkatu diete ez dela komeni, zepiloak aldatu/trukatu egiten dituztelako.

2.- Bazkaria bukatu ondoren, 5 bat minutu egon arazten diete eserita, aulkitik altxa aurretik.

3.- Mantalak janzten dituzte.

4.- Yleniak siesta egiten du (2 ordu). Gaizka eta Ivanek ez dute siestarik egiten, jolasean ibiltzen dira.

Informazio hauek jangelako arduraduna den Begoña Olaizek emandakoak dira

2001/2002 IKASTURTEA

3. HIRUHILABETEA

HIGIENEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITUREN HEZIKETA

2-4 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I.D.	I.E.	I	H	G	D
Orinaletik/komunetik esertzen eta albatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Eskuak garbitzen ikasi	B I	B I	B I	B I	B I	B I	B I	B I	B I
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu	B	B	B		T	B	B	B	B
Eskuak lehortzen ikasi	B I	B I	B I	B I	B I	B I	B I	B I	B I
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	B		B	B	B	B	B	B	B
Esfinterrak kontrolatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu	B	B	B	B	B	B	B	T	B
Zikina edo garbia dagoela jakin	B	B	B	B	T	T	B	T	T
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi	T	T	T	T	T	T	T	T	I

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (I) Ikasten ari da; (T) Tarteka egiten du

2001/2002 IKASTURTEA**3. HIRUHILABETEA****DESKANTSUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITUREN HEZIKETA****1-3 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK**

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I.D.	I.E.	I	H	G	D
Zapatak kentzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Galtzerdiak kentzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Berokia eta txaketa kentzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Janzten ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Berokia, txaketa, poltsa, mantala... zintzilikatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak eransten lagundu	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Janzteko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi	B					*		*	
Bakarrik lo egiten ikasi	B								
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi	B								
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi									
Norberaren arropak tolestatzen lagundu	S								

Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (T) Tarteka egiten du

* Ivanek eta Gaizkak ez dute siestarik egiten nahiz eta jangelan gelditu

2001/2002 IKASTURTEA

3. HIRUHILABETEA

NORBERAREN AUTONOMIAREKIN LOTUTAKO OHITURAK

3-6 URTE BITARTEAN HASI ETA KONTSOLIDATZEN JOATEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	LD.	LE.	I	H	G	D
Norbere trebetasunak deskubritzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Lanaren aurrean ardurak hartzen ikasi	S	B	S	B	2	1	B	S	3
Elkarbizitzarako arauak errespetatzen ikasi	S	B	B	S(4)	S	1	B	S	2
Tonu egokian hitz egiten ikasi	S	B	B	B	S	S	B	B	1
Zerbait lortzeko kasketak ez harrapatzen ikasi	S	B	1	S	S	1	B(e) Etxean asko harrapatzen omen ditu	B	B
Autokontrolatzen ikasten joan	S	B	S	S	S	S	B	S	S
Txanda itxoiten ikasi	S	B	B	B	B	S	B	B	1
Txandak errespetatzen ikasi	S	S	B	S	S	S	B	S	1
Gauzak azkar egiten ikasi itxoiten ari direnekin pentsatuz	S	S	S	S	E	E	S	S	E

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (e) eskolan

(1) kostatzen zaio; (2) asko kostatzen zaio; (3) kostata baina saiatzen da; (4) batzuetan ez ditu errespetatzen

2001/2002 IKASTURTEA

3. HIRUHILABETEA

PERTSONEN ARTEKO ERLAZIOAK ERRAZTEN DITUZTEN OHITURAK

3-6 URTEKO HAURREKIN LANDU ETA KONTOLIDATZEN JOATEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I.D.	I.E.	I	H	G	D
Agurtzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Galdetzen digutenean erantzuten ikasi	B	S(5)	B	S(4)	B	B	B	B	B
Besteek zerbeit behar dutenean atentzioa ematen ikasi	S	B	B	S	S	1	B	S	1
Besteen alderdi positiboak estimatzen eta baloratzen ikasi	E?	E?	S?	E?	E?	E?	E?	E?	E?
Besteen lana eta jolasa errespetatzen ikasi	S	B	B	S	S(2)	S	B	S	S
Besteek lanean ari direnean edo deskantsatzen daudenean, isilik egoten ikasi	S	B	B	S	S	B	B	S	S
Beste umeekin jolasten eta lanean ikasi	B	B	B	B	B	S	B	B	B
Gatazken aurrean zintzotasunez jokatzeko ikasi	E	S	S	S	1	S	S	S	E(1)
Besteekiko harremanetan 'delikatua'/samurra izaten ikasi	E	E	B	S	S	S(3)	S	E	E

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (E?) 4. item-a zaila dela dio andereñoak

(1) kostatzen zaio; (2) asko kostatzen zaio; (3) batzuetan; (4) ez du beti egiten; (5) lotsatia da

2001/2002 IKASTURTEA

3. HIRUHILABETEA

TALDEKO ESPERIANZIAK ERRAZTEKO OHITURAK

3-6 URTE BITARTEAN HASI ETA KONTSOLIDATZEN JOATEKOAK

ITEM/IKASLEAK	Y	X	S	ID.	IE.	I	H	G	D
Elkarrekin zerbait egiten ikasi: dantza, antzerkia, muralak, collage-ak,...	B	B	B	B (1)	B (2)	S (3)	B	B	S (4)
Elkarrekin ipuin bat, olerki bat kontatu	B	B	B	B	B	S	B	B	S
Elkarrekin abesten ikasi	B	B	B	B	B	S	B	B	S
Festak denen artean egiten ikasi	B	B	B	B	B	S	B	B	S

(B) Egiten du;

(S) Saiatzen da

(1) parte hartzen du lagunduta, ez da oso aktiboa;

(2) oso gustukoa badu aktiboki hartzen du parte, bestela deskonektatzen da;

(3) askotan kontzentrazio falta du;

(4) batzuetan zentratzea kosta egiten zaio

2001/2002 IKASTURTEA**3. HIRUHILABETEA****ORDENAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITURAK****3-6 URTE BITARTEAN HASI ETA KONTOLIDATZEN JOATEKOAK**

ITEM/IKASLEAK	Y	X	S	I.D.	I.E.	I	H	G	D
Gauza bakoitzaren lekua errespetatzen ikasi: jostailuak, poltsa	S(1)	S	S	S	2	S	S	G	G(5)
Gauza bakoitzaren lekua aurkitzen ikasi	B	S	S	S	2	S	S	G	G(5)
Gauza bakoitza erabili ondoren bere lekuan uzten ikasi	S(1)	S	S	S	2	S	S	G	G(5)
Gauzak sailkatzen eta ordenatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Lanak txukun egiten ikasi	B	B	B	B	S	S	B	S(6)	S
Gauza edo instrumentu bakoitza egoki erabiltzen ikasi	B	B	B	B	S	B	B	S	S
Zakarrontziak erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Liburu/ipuak zikindu gabe eta hautsi gabe erabiltzen ikasi	S	B	B	B(3)	E	S	S	G	E
Marrazkiak eta lanak bere apal edo kaxetan gordetzen ikasi	B	B	B	B	S	B	B	B	B
Kolperik eman gabe ireki eta ixten ikasi: ate, leiho, armairu	E	B	B	S(7)	E	E	S	E	E
Soinurik egin gabe ibiltzen ikasi	S(4)	S(4)	S	S(4)	S	B(4)	S	B(4)	B(4)
Pasatzen eta besteei pasatzen uzten ikasi	E	E	E	E	E	E	E	E	E

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (G) Gutxi egiten du

(1) asko saiater da;

(2) Bere atzetik ibili behar da egiteko;

(3) bakarrik dagoenean;

(4) esaten zaionean;

(5) bere kabuz;

(6) ez gehiegi;

(7) batzuetan

2001/2002 IKASTURTEA

GURASOENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA

3. HIRUHILABETEA

NORBERAREN TXUKUNTASUNAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITURAK

1 URTEREKIN HASI ETA BEREGANATZEN JOATEKOAK:

ITEMAK/IKASLEAK	Y	X	S	I.D.	I.E.	H	G
Garbia dagoenean disfrutatzen ikasi	B	B	B	B	E	B	B
Garbitzen edo orrazten eskatzen ikasi	B	E	B	G	E	B	1
Gorputzaren usain ona baloratzen ikasi	B	B	B	B	E	B	B
Beste haurren presentzia txukuna baloratzen ikasi	B	B	E	B	E	B	E
Azkazalak mozten utzi	B	E	B	B(2)	B	B	B
Ilea mozten eta txukuntzen utzi	B	B	B	B	B	B	B
Zapatak garbiak eramaten eta ondo jartzen ikasi	S	S	E	S	E	B	S
Aurpegia, sudurra, eskuak garbitzen ikasi (bere gisa, zikinak daudenean)	B	B	B	B	B	B	S
Arropak txukun ordenatzen ikasi	B	E	E	E	S	E	E
Zikina sentitzen denean azpiko arropak aldatzen ikasi	B	S	B	B	B	B	B
Ilea txukun eramaten ikasi	B	E	B	E	E	S	E
Azkazalak garbiak eta ondo moztuta eramaten ikasi	B	S	S	E	S	B	S
Zapatak garbitzen ikasi	E	E	E	E	E	E	E
Gaineko arropak orbanik gabe mantentzen ikasi	B	S	S	E	E	B	E
Orban errazak garbitzen ikasi	E	E	E	E	E	B	1
Arropa politak, kolore konbinaketa eta irudiak baloratzen ikasi	B	B	B	S	B	B	B
Produktuak erabiltzen ikasi: hidratatzaileak, eguzki-babesleak...	B	B	S	B	S	B	B

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (G) Gutxitan egiten du

(1) batzuetan; (2) eskutakoak

HARRI BERRI IKASTETXEA

B. IKASTETXEA**AUZOAREN EZAUGARRIAK****- Bilakaera**

Aldaketa handia jasan du; lehen baserri giroa zen nagusi, baina, 60-70. hamarkadan izandako hazkunde demografiko handiak eta kontrolik gabeko hirigintza-garapenak, auzo honen itxuran eta ezaugarri soziologikoetan eragin handia izan du eta, gaur egun, Donostiako auzo handienetakoa izatera iritsi da. Gune desberdinez osatuta dago: Ariberry, Arrizar, Buenabista, Casco, Eskalantegi, Roteta, Garbera, Jolastokieta, Larratxo, Los Boscos, Molinao, Santa Bárbara, Oleta, etab. Auzoko biztanleen jatorriari buruz esan, penintsulatik etorritako jende asko bizi dela bertan. Langile auzoa da.

- Giza-zerbitzuak

Polikiroldegia, Casares Kultur Etxea, Larratxoko Hiritar-zentroa, Anbulategia, Eliza, Postetxea, Auzo Elkartek.

- Garraioa

3 Autobus linea daude: 13 = Donostiako erdigunera doana; 24 = Altza-Gros-Antiguoko ibilbidea egiten duena eta, H6 = Erreterria - Hospitaleak lotzen dituen.

- Hezkuntz Erakundeak

2 Haurtzaindegi; 3 Eskola Publiko: Altza Eskola (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza); Harri Berri (Haur Hezkuntza) eta Oleta (Lehen Hezkuntza).

- Eskolaz Kanpoko Jarduerak

Musika. Euskal dantzak eguerditan (3-4 eta 5 urtekoentzat) astean bi egunetan. Arratsaldetan: ballet-a (3, 4 eta 5 urtekoentzat) eta judoa (4 eta 5 urtekoentzat)

IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK

IZENA ETA KOKAGUNEA	HARRI BERRI - ALTZA
INGURUNEA	URBANOA
IKASTETXE MOTA	PUBLIKOA
TIPOLOGIA	HAUR HEZKUNTZAKO ERAIKINA
UNITATE KOPURUA	HAMAR 2 urtekoen 3 gela 3 urtekoen 3 gela 4 urtekoen 2 gela 5 urtekoen 2 gela
ORDUTEGIA	7:30 - 9:00 (Goizeko Zaintza-Gela) 9.00 - 12:30 15:00 - 16:30
JANGELA	BAI

HIZKUNTZA-EREDUAK	B ETAD B EREDUAN: 2 urtekoen gela bat 3 urtekoen gela bat 4 urtekoen gela bat 5 urtekoen gela bat D EREDUAN: 2 urtekoen 2 gela 3 urtekoen 2 gela 4 urtekoen gela bat 5 urtekoen gela bat
IKASLE KOPURUA	160
GURASOEN HIZKUNTZA	GEHIENAK GAZTELERA EUSKARAZ DAKITEN AMA EDO AITA: 10 BAT EUSKARAZ DAKITEN AITA ETA AMA: BAKARREN BAT
GURASOEN LANBIDEAK	Eraikuntzan, Pasaiako portuan, Zerbitzuetan

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomi Erkidegorako egokituta ikastetxe guztietara bidaltzen dituen Helburu Orokorrak hartzen dituzte abiapuntu. Helburu Orokor horiek Haur Hezkuntzako 3 Esperientzi Eremutan sailkatuta dauzkate: Nortasuna eta Autonomia Pertsonala, Ingurune fisiko eta soziala eta Komunikazioa eta Errepresentazioa. Ondoko hauek dira Helburu Orokorrak:

1.- Norbere gorputza gero eta gehiago ezagutu eta kontrolatu, bere buruaren irudi positiboa eta identitate sexuala garatzeko, bere gaitasuna eta ekintza edo adierazpen mugapenak baloratuz eta osasun eta ongitasunen oinarritzko ohiturak lortuz.

2.- Ohizko jardueretan gero eta autonomia gehiagoz aritu, segurtasun afektiboa lortzen joanez eta bere buruarekiko ekimen eta konfiantza ahalmenak garatuz.

3.- Giza harremanak gero eta esparru zabalagoan ezarri, norbere interesak, ikuspuntuak eta ekarpenak gainerakoenekin progresiboki erlazionatuz.

4.- Nagusiekin eta bere adinekoekin harremanetan aritu, sentiberatasuna erakutsiz, ezberdintasunak errespetatuz eta lankidetzaz jarrerak garatuz.

5.- Hurbilen dagoen ingurunea jakin nahiaz eta arretaz behatu eta aztertu.

6.- Inguruneko kultura ezagutu eta berarenganako begirunea, interesa eta parte-hartzea garatu.

7.- Bizi, ezagutu edo asmatutako zenbait alde erreal gogoratu eta antzeztu eta jokoaren bidez adierazi.

8.- Ahozko lengoia erabili eguneroko komunikazio egoera ezberdinetan, ulertzeko eta besteek uler gaitzaten, norbere ideiak, sentimenduak, esperientziak et nahiak adierazi, esanahiak egin, norbere portaera arautu eta besteengan eragin.

9.- Guztion eskuetan dauden baliabideen bidez adierazpena aberastu, arlo ezberdinen bitartez: plastika, musika, gorputz-espresioa...

10.- Errealitatearen zenbait aspektu, joko edo beste arloen bidez adierazteko gai izan: Hizkuntza, matematika...

IKASTETXEKO HELBURU OROKORRAK

- Nortasunari, Garapen Sozialari eta Ikasketei dagozkien Ikastetxeko Helburu Globalak

Nortasunaren Eskakizunak

- . Gorputzak eskaintzen dizkion sentimendu eta beharrak aurkitu eta ezagutu.
- . Hizkuntzaren bidez bere mundu afektiboa adieraz dezala: plastikoa, korporala, ahozkoa, joko sinbolikoa.
- . Bere ekintzak burutzerakoan hasieratik amaierararte kontzentratzeko gai izan dadila.
- . Giro lasaia aurkitu eta gozatu: -ahots tonu moderatu batez kooperatuz; -desplazamenduetan bere gorputza kontrolatuz bai gelan eta bai pasiloetan.
- . Jokaera eta pentsamenduzko autonomia lor dezala.
- . Baloratua izan dadila bere burua autobaloratu ahal izateko eta besteak baloratzeko, ezberdintasun indibidualetaz kontziente izanik.

Eskakizun Sozialak

- . Bestearen presentzia aurki dezala eta errespetu eta laguntzazko ohiturak gara ditzala: -elkarrizketan parte hartzerakoan, hitz txanda; -besteen interbentzioak entzuterakoan; -denon materialaren erabileran; -funtzioen banaketan; -agurtzeko erabiltzen diren giza formulen erabileran.
- . Beharrezkoa denean laguntza eskaini, eskatu eta jasotzen jakinaz.
- . Euskal kultura, ohitura eta erabileretan ezagutu eta parte har dezala: -betiko jaiak; -folklore: abestiak, dantzak...

Ikasketazkoak

- . Euskara eta gaztelania harremanetarako (komunikaziorako) eta ikasketetarako tresna bezala ezagutu eta erabil ditzala.
- . Lan teknika eta trebetasunak gara ditzala: -posturazkoak; -arkatz, ixipu, margo, prentsioa; -mozketa, zulaketa, tolestaketa, ...

HAUR HEZKUNTZAKO ESPERIENTZI EREMUA

Helburu Orokorrak Haur Hezkuntzako hiru Esperientzi Eremutan sailkatuta dauzkate, esaterako, **Nortasuna** bere eduki-multzoekin: Autonomia eguneroko bizitzan, Mugimendua eta Jolasa...; **Ingurune Fisiko eta Soziala** eta eduki-multzoak: Ingurune Fisikoaren Ezagupena, Lanarekiko jarrera, Lagunekiko Jarrera, Andereñoarekiko jarrera eta **Komunikazioa eta Errepresentazioan**: Aho Hizkuntza, Hizkuntz Idatziaren Hurbilketa, Plastika Adierazpena, Musika Adierazpena, Gorputz Adierazpena, Matematika.

METODOLOGIA

PRINTZIPIO METODOLOGIKOAK

"Umea bere kontzepzio osoan, hau da: berezko interesekin, bere abiapuntuko eskema kontzeptual jakin batekin eta oraindik garatzeke dituen zenbait ahalmen eta gaitasunekin osatutako gizakitzat hartuz gero, honela berdefinituko genituzke eskola eraginkorraren berezko printzipio metodologiko batzuk: eskola, besteak beste, ikaslegoaren garapen osorako eta gure heziketa pertsonalerako "jokaera gunea da".

Printzipio hauek nabarmentzen dituzte:

- Indibidualtasun printzipioa
- Sozializazioaren printzipioa
- Aktibitate printzipioa
- Sormen printzipioa
- Askatasun printzipioa
- Globalizazio printzipioa
- Normalizazio printzipioa

GURASOEKIKO HARREMANAK

Eskolara lehenengo aldiz etorriko diren umeen gurasoekin, maiatzean egiten dute bilera. Bilera horren lehenengo helburua umea "eskolatzeak" zer suposatzen duen azaltzea da eta hortik aurrera ematen dituzten pausoak adieraztea. Garrantzi handia dauka "egokitzapen-aldiak" eta horretarako gurasoen presentzia negoziatzen dute eta ikasturtea bukatu aurretik umeak ekainean eskolara ekartzeko gonbidapena egiten diete (familiako norbaitekin). Hurrengo bilera irailean egiten dute maiatzeko bileraren ondoren, kezkak eta zalantzak argituz eta ikasturterako plan zehatzagoa azalduz.

Matrikulazio garaian familia bakoitzarekin egiten dute elkarrizketa, ikastetxeko eta gelaren funtzionamendua hurbiletik azalduz: ordutegia, ikasturte hasiera, eredu linguistikoak, metodologia, eskolak eskaintzen dituen zerbitzuak eta geletako bisita eginez.

Familiekin harreman zuzena eta etengabekoa dute eguneroko sarrera eta klase irteeretan eta ikasturtean zehar elkarrizketa kontzertatuak eta bilera orokorrak egiten dituzte.

GELA ETA GAINONTZEKO ESPAZIOAK

Gela eta gainontzeko **espazioen diseinua, erabilpena, materialen eta denboraren antolaketa, egokitzapen-aldia, autonomia eta elkarrekintzaren** garapenarekin zerikusia daukaten jarduera eta egoerak, saio bakoitzean zehar jasotzen joan gara.

Ikastetxearekin lehenengo kontaktua eta harremanetan jartzea 2000ko urtarrilaren 27an izan nuen **Lurdes Dorronsoro** zuzendariarekin eta lehenengo elkarrizketa **Yolanda Gonzalez** andereñoarekin, otsailaren 16an.

Ondoren azalduko ditugu, Harri Berri Ikastetxean egindako lehenengo bi egunetako behaketa-saioretako helburu eta deskribapenak eta lehenengo elkarrizketa, hauek izan baitziren doktore- tesi honetako abiapuntu edo aurretiazko pauso edo aurrekariak, lanari jarraibidea eman diotenak

BEHAKETA SAIOA

Otsailaren 16a

Gelako espazioaren alderdi fisikoen behaketa: txokoak, taldekatzeko irizpideak, txokoetako irekitze prozesua, zedarritzea, ...

Helburuak

- 1.- Behaketak egingo nituen gelako alderdi fisikoak aztertzea.
- 2.- Gelako txoko/espazio garrantzitsuenak deskribatzea.
- 3.- Gelako plano bat egitea.
- 4.- Umeak taldekatzeko erabiltzen dituzten irizpideak galdetzea.
- 5.- Txokoen irekitze prozesua jakitea.
- 6.- Txoko bakoitza bereizteko jartzen diren elementuak (altzari, seinale, etab.) adieraztea.

DESKRIBAPENA

8:45 Andereñoak, gela erakusten dit eta lehenengo inpresioak jasotzen hasten naiz.

Argitasun aldetik gela argitsua da, leihoak bi paretetan zehar tartekatuta daude (12 denetara), **berogailu-radiadoreak** daude eta eraikuntza aldetik material nahiko sinpleekin egina dago (Eskola Publikoetako Haur Hezkuntzako ohizko eraikina da).

8:55 Umeak iristen hasi dira. Yolanda ongi etorria ematen dio bakoitzari, sarreran.

9.00 Gelan sartu eta alfonbran esertzen dira. Hasieran 4 ume daude eta elkarrizketan hasten dira. Gainontzekoak pixkanaka sartzen joaten dira eta esertzen. Edozein elementu aprobeztatzen du: ume batek esan duena, zeintzuk etorri diren, ohiturak (txandak errespetatzea), esaldiak ondo ahoskatzea, arduraduna izendatu, eguraldiari buruzko informazioa, abestia. Elkarrizketa bukatzeko 3 taldeak aurkezten dizkit: **tximeletak, txoriak eta txakurrak** (bakoitza bere abestiarekin), txartelak aldatu eta talde bakoitza txokoetara joaten da arduradunaren arauak entzun ondoren.

9:35 Martxan jartzen diren txokoak: **ETXEA, MARGOTEGIA, JOLASTOKIA**. 17 haur etorri dira gaur, 9 mutil eta 8 neska. 6ko taldeak daude momentu honetan. Hasieran 4 talde egin zituen baina batek ez zuenez ondo funtzionatzen haur horiek beste hiru taldetan banatzea erabaki zuen. Orain hobeto, gusturago dabilta.

10:05 Jasotzen hasteko esaten die.

10:08 Abesten hasten dira eta alfonbrara datoz pixkanaka.

10:10 Talde ekintza. Zer egin duzue txokoetan? Christian, etxean egon al zara? Ez, ... egon naiz. Gertatutako gauzei buruz. ... jo egin nau.

Jolas bat: "Segi etxera eta jo atea, nor da? Imanol, sartu sartu!. Oso ondo egin duzue, sorginak atea jotzen badu, ez ireki!.

Plastilina egindako lana ekartzen du batek. Panpin bat beste batek. Zer jarri diozu? ahoa, sudurra, bi begi. Nola dago? pozik, oso pozik dago gurekin dagoelako. Banan-banan lanak erakusten dituzte (zubi bat puskatuta, "bonba batek")

Eskerrik asko, mesedez, askotan erabili du.

10:15 Gaileta eta frutak jateko ordua. Sagar bat erakusten die esanez: sagarra horia da, ez da berdea, kanpotik horia, barrutik txuria. Zuritzerakoan "luze-luzea egingo dut azala", puskatzen zaionean parrez hasten dira haurrak. Arduradunak banatzen ditu pusketak, nahi duzu? galdetuz.

10:30 Eguraldia berriro ikusi ondoren jolastokira doaz.

11:15 Alfonbran elkarrizketa. Lanerako prestatzen, behatz bakoitza prestatzen. Txaloka, atzera, aurrera, gora, behera. Prest daude eskuak.

Egutegia: astelehena pasatu da, asteartea pasatu da, asteazkena **txakurraren** eguna, **antzerkia** tokatzen zaigu. Orain **ipuina** kontatu eta gero antzeztu. "Mamu urdinaren" ipuina. Txoriak, antzezteko prestatzen dira.

11:30 Kontalaria: Ni ... naiz eta txoria izango naiz (bakoitzak bere papera azaltzen du; publikoa nahiko ixilik dago, kontaktzen hasten dira...

Ondoren **kritika** egiteko eskuak altxatzen dituzte eta pixkanaka iruditu zaiena esaten hasten dira: oso ondo egin duzu Imanol. Zer gustatu zaizu?

Andereñoak bakoitzaren papera/rola apuntatzen du.

11:45 Txartelak aldatu eta "isil-isilik eta poliki-poliki txokoetara goaz".

Margotegian tenperak erabiltzen dituzte, erortzen diren tantoak garbituz.

Antzerkian: mahaiko lan zuzendua: kontzeptuak (ipuinarekin lotuta). Gero jantzi eta antzezpena (andereñoaren laguntza pixka batekin.). Ipuina erreparatzen dute.

Batzuk antzerkian musika lantzen dute: din, don, don...

12:15 Jaso eta borobilean zutik dantzan hasten dira: "Dantza ezazu. Enekorekin egingo dut dantzan..." Denek parte hartzen dute.

12:30 Jangelan gelditzen direnen bila (gaur 9) arduradun bat dator eta agurtu ondoren, eramaten ditu. Eguerdian bazkaldu ondoren, ludoteka eta siestarako gelak dauzkate. Lau pertsona arduratzen dira.

Gainontzekoen bila etxeakoak etortzen dira eta bakoitza agurtu ondoren bukatzen da goizeko saioa.

Arratsaldean:

15:00 Talde ekintza, borobilean. Ipuina (Txano Gorritxo)

Jolas bat.

15:30 Musika (musikako gelan).

16.10 Eguraldi ona egiten badu patiora.

16:30 Borobilean (eurek ekarritako ipuina...)

Astearte eta ostegunetan psikomotrizitate saioak goien, ganbara deitzen dioten gelan egiten dituzte.


TXOKOAK, TALDEKATZEKO IRIZPIDEAK, IREKITZE PROZESUA, ZEDARRITZEA

Planoan ikus daitekeen bezala 4 txoko nagusi daude: **ETXEA, ANTZERKIA, MARGOTEGIA, JOLASTOKIA**. Eszenatoki aurrean **alfonbra** bat. Etxeak bi solairu ditu.

Aurkezpeneko argazkietan ikus daitekeen bezala, ez da zedarritze erabat itxia, gelan finko mantentzen diren hainbat elementurekin egiten da txoko batetik besteko bereizketa (banku pare bat, etxearen alderdi bat, ...) Txokoak horrela delimitatzeak, gela bisualki ondo "kontrolatzeko" modua eskaintzen du edozein txokoetatik.

Talde txikietan funtzionatu ahal izateko, andereñoak berak osatzen ditu taldeak; kasu honetan: **tximeletak, txoriak eta txakurrak** eta kontuan hartzen dituen hainbat irizpide hauek dira: neska/mutila, lanerako erritmoa, izakera, interesa. Hasieran, lehenengo egunetan, haurrak pixka bat ezagutu arte ez dira taldeak egiten eta libreki mugitzen dira. Taldeak osatu arte 4 txokoetatik 3 irekitzen dira, oso material gutxirekin, hau pixkanaka eta beharren eta interesen arabera gehitzen joaten delarik. Antzerkia da azken irekitzen den txokoa, haurrak taldetan banatu ondoren.

3URTEKOEN GELA



Martxoaren 15a

ESPAZIOAREN ALDERDI FUNTZIONALEN BEHAKETA; GELATIK KANPOKO ESPAZIOEN BEHAKETA; MATERIALEN ANTOLAKETA; DENBORAREN ANTOLAKETA


Helburuak

- 1.- Txokoetan egiten diren jarduera garrantzitsuenak deskribatzea.
- 2.- Espazio bakoitzean nola mugitzen diren adieraztea.
- 3.- Gelatik kanpoko beste espazioak aztertzea: sarrera, pasiloak, komunak, patioa
- 4.- Gelan dauden material esanguratsuenak deskribatzea.
- 5.- Denboraren antolaketa aztertzea.

TXOKOETAKO FUNTZIONAMENDUA

Errotazio sistema

Lau txoko dira eta 3 talde direnez, txokoetako saio bakoitzean txoko bat libre geratzen da. Taldeak errotazio sistema erabiliz mugitzen dira:



Txoko bakoitzean dauden material esanguratsuenak

Etxean: Panpina, telefonoa, koltxoia, maindirea, txakurra, oihalak, hiru landare.

Etxean ere, plastifikatutako egunkarietako-azal izan diren albisteak dauzkate. Yolandari galdetzen diot eta esaten dit talde ekintzan agertzen diren gaiak aprobetxatuz sartu zuela material hori etxean eta asko gustatzen zaiela. Gurasoak ere komentatu diotela eta etxean periodikoetara begira egoten direla. Gaiak: "Balea Donostian", "Reala", "Elurra"...

Margotegian: Tenperak, margoak, pintzelak, 2 kabailete, folioak, orri handiak, paperak, guraizeak, gometxak, kola...

Jolastokian: Plastilina, eraikuntzak, puzzleak, enkajeak ...

Antzerkian: Batetik mahai-lana egitekoak (zuzendua): hormirudia, kontrol fitxak... eta, bestetik, antzezpena, ipuin kontaketa, abestiak etab. egiteko: ipuinak, jantziak, kareta, paperezko larrosak, ispilua, kordinak, hormirudi handi bat.

Karpetak: Bakoitzaren lanak karpeta handitan (zintzilikatuta).

Txoko bakoitzean jasotzen dituzte aipatutako materialak.

Beste material batzuk: arbela, kortxoak, eguraldiari buruzko elementuak, asistentzia orria.

Komuneko papera eskura daukate.

Esan behar da material guztia zaindua dagoela: ipuinak eta beste hainbat materialak plastifikatuta, puzzleak osoak eta dena haurraren eskura.

GELATIK KANPOKO BESTE ESPAZIOAK

Hiru urteko gela hau lehenengo solairuan dago eta sarreratik hurbil. Komunak ondoan dauzka eta umeentzako egokituak. Sarrera orokorra estalia dauka eta hall handi samar batetik banatzen dira 3 urteko haurren gela eta komunak.

Kanpoko patioa ikastetxearen bueltan dago eta aurkezpeneko argazkietan ikus daiteke.

BEHAKETA SAIOAREN DESKRIBAPENA

9:00 Pixkanaka gelan sartzen dira (batzuk autobusetik, besteak gurasoekin...)

Eseri eta elkarriketan hasten dira.

Andereñoak baxu-baxu hitz eginez, gauza asko kontaktzen dituzte. **Euskarako** egiturak sartzen ditu: "nork ikusi du, noren ondoan zaude?, nondik sartu zara?. Atea, atetik, atetik, errepikatzen dute besteek".

Keinu asko egiten ditu gauzak adierazteko eta atentzioa erakartzeko.

Etxean jaiki direnetik egin dutenaren errepassoa egiten dute: jaiki, pixa egin, gosalduta, hortzak garbitu... "nik amonaren etxean lo egin dut"

"Burua, sudurra, ahoa... etor dadila etor dadila jertse berdea daukana". Nik jertse berdea jantzi dut, nork gehiago dauka berdea?.

"Mesedez, banan-banan". Zer du jertseak? Kremlera bat, motz-motza, ez luzea, eta zer gehiago dauka?... Hiru, lau, lau botoi dituela uste duzu. Asmatu duzue!.

Arduraduna izendatzen da, egunero desberdina, txandaka.

Eguraldia. Eurria ari du? Ez, eguzkia dago, ez dago eguzkirik. Ni etorri naizenean ez zuen euririk ari baina zu etorri zarenean...

9:20 "Etorri daitezela txoriak". **Abesti** baten bidez zenbatzen ditu: bat, bi, hiru, lau eta bost. "Txori guztiak etorri zarete? Ez, nor falta da? Itziar. Agian gaixorik dago". Eskerrak ematen dizkie.

Asteko **egunak** errepassatzen dituzte. Gaur asteazkena da eta txakurrei tokatzen zaie antzerkia egitea.

Orain korroan **dantza** egingo dugu musika jarrita. "Ni erregea naiz egin mototxa..." **9:30**

Txokoetara joaten dira.

Margotegian mutil bat pintzelak eta tenperak erabiliz antzerkiko hormirudia osatzen ari da.

Taldetxo bat **ipuina irakurtzen** hasten da antzerkiko eszenatokian eserita. Etxeko taldea mugitu samarra dabil: panpina bota, telefonoa bota eta Yolanda hurbiltzen da momentu batean.

Jolastokian **plastilina** eta **puzzleak** egiten ari dira.

10:00 Etxeko taldea gora eta behera **oihalekin** jostatzen dabil.

10:05 Abesti batekin "Bat, bi, hiru, lau ..." aldatzen dute jarduera talde bakoitzak gauzak jaso ondoren.

Berriro **borobilean** pilota bat batak besteari pasaz **1etik 10era** zenbakiak lantzen dituzte.

Etxeko txokoan gertatukoari buruz hitz egiten du. "Arazo batzuk izan dira gaur etxean", nola konponduko ditugu? Panpina bota eta ikaratuta dago, ekarri panpina! Ui, aurpegia zikina dauka; "eso es de los golpes que le dan". Maritxuk (panpina) txokolatea jan du eta zikindu egin da. Nik uste dut zuen etxera joan nahi duela, nork eramango du eta garbituko du? Jonek eramango du eta garbituko du. "Y si se le ven las tetas?".

Tximeletek ere beste arazo bat izan dute...

Jolas bat hankak erabiliz "Kaixo, aurrera, atzera..."

10:15 Fruta eta gailetak banatzea. Korro hau oso txikia da, ez da borobila, esaten die Yolanda.

10:30 Patiora.

11:20 Itzuli eta berriro borobilean talde ekintza egiten dute.

Joko bat mingaina erabiliz. Gora, behera, sapaira, kanpora, barrura... garbituko dugu; zarata aterata, zarata gabe, gure ahoa hitz egiteko prest dago.

Arazo bat izan dugu kanpoan, zer gertatu da? Bai, en el suelo de la puerta. Nahi gabe H-k. berokia bota du kanpora eta nola konponduko dugu? Ideiak ematen dituzte; "goazen hartzera, bidean denbora galdu gabe lan asko daukagu eta, arin-arin, tipi-tapa"

11:35 Ipuina "Jon Baserritarra". Behin batean...

Abestia "Txori txiki polit bat" denek abesten dute.

Orain sorpresa bat. Nola egiten du Jonek txorimaloa?. Ipuina aprobetxatuz, andereñoak etxetik ekarritako elementuekin **txorimaloa** egiten dute "Bi begien orde bi piku, sudurra azenario bat zen, ze koloretakoa? laranja, ahoan marrubi gorri gorri bat..."

11:50 Txartelak aldatu eta berriro txokoetara. Txokoetara joateko ere baliabide desberdinak erabiltzen dituzte: abestia, esaldi jakinak, etab. ("Tok-tok, nor da?, txoria naiz, sartu sartu ni banao").

Etxean: telefonoa erabiltzen dute, kablea tira, zintzilikatu, gora eta behera eta iskanbila txikiren bat ere sortzen da baina andereñoaren laguntzarekin konpontzen dituzte.

Margotegian: pintzelak, margoak, paperak eta guraizeak erabiliz antzerkiko hormirudia apaintzen (margotzen) ari da taldetxo bat.

12:10 "Jasotzen hasi".

Abestia: "Bat, bi, hiru, lau..."

Borobilean: Joko bat "Non dago otsoa? Tipi-tapa eskuekin joaz, korrika... Zer gertatu da? Otsoa, krokodiloa eta beste animaliekin".

"Txorikumeen ipuina antzeztera". Kortina itxi eta prestatzen hasten dira, bitartean besteek zain daude, lasai..

Antzerkia egiten dute: "Txakurrak gara eta antzerkia egingo dugu. Ni Imanol naiz eta kontalaria naiz..." Bakoitzak bere lamina antzezten du. Andereñoak laguntzen die historia jarraitzen.

Kritika. "Pentsatu ondo zer esan behar dugun". Zer egin du ondo?. Txalo bat merezi du?...

12:30 Bazkaltzera.

DENBORA ANTOLAKETAREN SINTESIA

2 Egunetako deskribapenean ikusten dugun bezala:

9:00 Sartu eta talde ekintza egiten dute (30-40 minutukoa).

9:40 Txokoetako saio bat (gutxi gora-behera 30-40 minutotakoa).

10:15 Jaso ondoren fruta eta gailetak jatea.

10:30ak aldera, jolastokira.

11:15 Berriro borobila eta txokoetako bigarren saioa (ordu erdikoa)..

12:10 Bukatzeko, talde handian eta borobilean abesti, ipuin, jokoren batekin etxera joateko ordura arte.

12:30 Agurrak

ELKARRIZKETA

Aldez aurretik Yolandari esplikatu nion zer jakin nahi nuen gutxi gora-behera, esaterako, espazioen diseinuaren aldaketa noiztik eta aldaketaren arrazoiak; Unitate Didaktikoak erabiltzen al dituen gelako programazioa egiteko; haurrak txoko bakoitzean behatzeko eta ebaluatzeko erabiltzen dituen tresnak eta nola sentitzen den bere lanean.

G.- Nola hasi zineten **Amara Berriko** esperientzia honekin eta zergatik?

E.- Orain dela 10 urte. Zuzendaritzan nengoela eta gure kezka nagusia zen bakoitzak bere gelan bere gisa funtzionatzen zuela. "Ikastetxe barruan eskola asko zeuden" eta ordezkioak edo berriak etortzen zirenean, ez genuen lotura edo zer egin behar zuten esateko modurik (bakoitzak berea esplikatzetik aparte).

Pixka bat kasualitatez, egun batean greba zela eta ni eta zuzendaritzako beste andereño bat Amara Berrira joan ginen, deitu gabe eta zitarik gabe. Hiru urteko umeen gela bat ikusi genuen eta hortik aurrera joan ginen beraiekin gelditzen eta gauzak martxan jartzen.

Gogorra izan zen lehenengo 3 urtetan, denak, gela guztiak sistema honetan sartu eta martxa hartu arte. Amara Berriko koordinatzaile bat etorri zitzaigun espazioak diseinatzeke eta orain ere lotura mantentzen dugu nahiz eta bilera eta kontaktoak bakanagoak izan.

Asko kosta zitzaigun, adibidez, geletatik "irakaslearen mahaia" kentzea eta hainbeste gauzen zergatia ulertzea, esaterako, "plastilina hemen bai eta hor ez". Orain oso gustura gaude.

G.- Unitate didaktikoekin lan egiten duzu?

E.- Ez, 5 ipuin daude ikasturte guztian lantzeko eta hor azaltzen diren helburuak eta kontzeptuak lantzen ditugu. "Amara Berriko" metodoa eramatean dugu eta beraiek argitaratutako "Eskola Publiko batean globalizazioa" liburuan dauden oinarriak dira gure erreferente, nahiz eta guk gure testuingurura gauzak egokitu.

Berriro itzultzen da historiara eta aipatzen dit "gauzak egin bai, baina sistematizazio falta sumatzen nuen eta gela 'tradizional' batean eta ume gehiago genituen ere, une batean ume guztiak jarduera berdina egiten aritzeak sortzen zituen zailtasunak. Umeen autonomia falta ere azpimarratuko nuke, noski, egituraketak eta sistemak ahalbidetzen ez zuelako".

G.- Txoko bakoitzean umeak egin duena behatu eta prozesua jarraitzeko zer tresna erabiltzen duzu?

E.- Amara Berriko obserbazio-pistak erabiltzen ditugu.

Obserbazio pista hauek txoko bakoitzean egiten diren jarduerak jasotzen dituzte eta galdera zehatzekin datoz: 3, 4 eta 5 urteko umeak bereiztuz. Adibidez, Etxea: 1.- Aise sartzen da etxean; 2.- Aise igotzen edo jaisten al ditu eskailerak; 3.- Gauzekin harremanik ba al du; 4.- Telefonoz hitz egiten al du?; Panpinak erabiltzen al ditu eta horrela 50 galdera-sorta osatuz "(Eskola Publiko Batean Globalizazioa").

IRAKASLEAREN PAPERA

Harreran. Zain dago, pozik hartzen ditu, fisikoki umeengandik oso hurbil jartzen da eta batez ere **sentimendu eta bizipenak** adierazten laguntzen die. **Eguneroko jarduerak** (ohitura, arau, etab.) gogorarazten ditu eta **afektibitate-maila** handia adierazten du. **Ziurtasuna eta konfiantza** azaltzen ditu umeen zalantza, kezka eta tristuren aurrean, **enpatia** adieraziz.

Txokoetan. Ikasturteko une honetan lanaren dinamikan sartuta daude umeak eta bere papera teknika konkretuetan **laguntza** ematea da eta **erne** egoten da batean edo bestean pasatzen denarekin. Etxean sumatzen dira (jarduera librea da) gatazka txiki batzuk eta **arazo horien soluzioan** laguntzen du. Gauzen **zergatia** azaltzen die eta umeen galderei erantzuteko prest dago.

Argi ikusten da umeek egin dezaketen guztian bera ez dela sartzen, **adorea** emateko ez bada.

Errespetuzko jarrera dauka umeen komentario guztien aurrean.

Taldetako lan ohiturak oso hartuta dauzkate eta komentatzen dit bere papera orain **erraza** dela. Ohiturak eta funtzionamendua hartuta dituztenez, orain, eduki berri eta jardueretako **martxa jarraitzea** izango dela dio datorren ikasturteari begira bere lana.

Gatazka txikien soluzioan errespetuz jokatzeko du eta laguntza behar dutenean prest dago eta parte hartzen du.

Patioan umeen jolasak eta hartu-emanak jarraitzen ditu.

Agurtzerakoan banan-banan despeditzen ditu goxotasuna adieraziz.

IKERKETA GELAREN EZAUGARRI-DATUAK

2000/2001 IKASTURTEA

IZENA ETA KOKAGUNEA	HARRI BERRI IKASTETXEA
AUZOA	ALTZA
INGURUNEA	URBANOA
IKASTETXE MOTA	PUBLIKOA
TIPOLOGIA	HAUR HEZKUNTZA
GELAKO HIZKUNTZA-EREDUA	D
GELAKO IKASLE KOPURUA	14 (2000-01 ikasturtean) 12 (2001-02 ikasturtean)
ORDUTEGIA	9.00 - 12:30 15:00 - 16:30
JANGELA	BAI


IKASLEAK	JAIOTZE DATA
ADRIAN G.	1998-XI-07
ADRIAN R.	1998-XII-10
ANDER	1998-IV-19
ANGEL	1998-V-24
DANIEL	1998-XI-09
ERIC	1998-VIII-30
IBON	1998-VI-03
IÑIGO	1998-I-26
IRATI	1998-VIII-06
MAIDER	1998-X-10
MIGUEL A.	1998-V-24
NAIARA	1998-II-11
PABLO	1998-VI-22
SARA	1998-VIII-13

IKERKETA GELAKO IRAKASLEA:

. Izena : MARGARI ARANBERRI

. Espezialitatea: Haur Hezkuntza

GELAREN PLANOA



Maiatzean hitz egin nuen bi ikasturtetan zehar behaketak egingo nituen bi urteko gelako Margari andereñoarekin eta iraileko ikasturte hasieraren antolaketaren berri eman zidan, besteak beste.

BI URTEKO HAURREN IKASTURTE HASIERA

. Irailaren 12an hasi: 12, 13, 14ean ordu bateko saioa.

. Irailaren 17tik aurrera: 9:00etatik - 12:00etara, gurasoen arabera eta, kasu batzuetan, andereñoak ikusten duenaren arabera.

. Familiakoak eskolan: irailaren 12an, maiatzeko bisita egunean bezala; hurrengo egunetik, beharrezkoa ikusten denean (andereñoaren esku). Bertan egotea behar ez den kasuetan, etxera edo erosketak egitera joango dira familiakoak.

. Irailaren 13tik aurrera, haurrak euren andereñoarekin egongo dira gelan. Familiakoak haurrak agurtu ondoren joan egingo dira.

. Andereñoak emango dizkie mezuak gurasoei lasaitasuna adieraziz: ordutegiak, agurrak nola egin, jantziak, ...

. Eskolak jartzen du laguntzaile bat premia guztietarako (negarrak baretu, fardelak aldatu, komunera lagundu, ...) eta pertsona hori, gelatik kanpo egongo da etortzen direnei harrera egiteko eta behar duenari laguntza eskaintzeko.

. Irailean gurasoekin egiten den bileran azalduko zaizkie aipatutako gai guzti hauek.

2000/IX/13

ASISTENTZIA-ORRIA - HILABETEA: IRAILA

IKASLEAK/EGUNAK	13	15	20	26	28
Adrian G.	9:30 - 10:30	9:30 - 10:30	9:30 - 10:30	11:00 - 12:00	11:10 - 12:00
Ander	9:30 - 10:30	-	-	-	11:00 - 12:00
Adrian R.	-	-	9:00-12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Angel	-	-	-	-	11:00 - 12:00
Daniel	9:30 - 10:30	9:30 - 10:30	9:30-11:00	9:00 - 11:00	9:00 - 11:00
Eric	-	-	-	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Ibon	11:00 - 12:00	11:00 - 12:00	11:00-12:00	-	-
Iñigo	11:00 - 12:00	11:00 - 12:00	10:00-12:00	9:15 - 12:00	9:00 - 12:00
Irati	9:30 - 10:30	9:30 - 10:30	9:00-12:00	9:40 - 12:00	9:00 - 12:00
Maidier	9:30 - 10:30	9:30 - 10:30	9:00-12:00	9:40 - 12:00	10:30 - 12:00
Miguel A.	11:00 - 12:00	11:00 - 12:00	10:30-12:00	9:20 - 12:00	9:20 - 12:00
Naiara	11:00-12:00	11:00-12:00	9:15-12:00	9:05 - 12:00	9:00 - 12:00
Pablo	11:00-12:00	11:00-12:00	10:00-12:00	9:00 - 12:00	9:07 - 12:00
Sara	9:30 - 10:30	9:30 - 10:30	-	9:50 - 12:00	9:40 - 12:00

ESKOLAKO LEHENENGO EGUNAK - EGOKITZAPEN-ALDIA

Haurren eskolako bigarren eguna

9:10 Margari andereñoak egiten dit harrera eta umeak etorri aurretik antolaketaren berri ematen dit. Gaur nire lehen eguna da eta umeen bigarrena.

ORDUTEGIA	1. HAUR TALDEA	2. HAUR TALDEA	HAUR KOPURUA	HAURREN ADINA
9:30 - 12:00	9:30 - 10:30	11:00 - 12:00	14 10 mutil 4 neska	1 - 2 urte

GELA: 2 taldetxotan banatzen da lehenengo hiru egunetarako. Datorren astelehenetik aurrera 9:00etatik 12:00etara, aukeran.

Bi urteko haurren gela bakoitzean andereño bat eta laguntzaile bat egongo da lehenengo 1-2 hilabetetan.

Lehenengo egunean, haur bakoitzak, kamixetan, bere izena jarrita ekarri du.

GURASOAK: Gela barruan egongo dira hasierako 2 egunetan, printzipioz, taldearen eskaeren arabera.

GURASOEN HIZKUNTZA:

Haur baten amak euskaraz egiten du.

Haur baten aitak euskaraz egiten du.

A TALDEA

9:30 Sei haur sartzen dira gelara: 3 neska eta 3 mutil.

Amak etorri dira eta gela barruan daude. Neska batek bere amari esaten dio: "Mia (mira) ama, eto pa pintar".

Iratik: "Me tiro de cabeza".

9:45 Txirrista bat dago gelan eta gora eta behera dabilta; gero zubitik pasatzen dira denak.

Piszinan ere gustura dabilta: arrastaka, etzanda, saltoka. Piszina, kolorezko pilotaz beteta dago eta erakartasuna dauka beraiantzat.

Bi neska eta mutil **etxean** sartu dira eta etzanda daude momentu honetan. Etxean dagoen **telefonoz** deika hasi da mutil bat, bere aitari deitzen dio.

10:00 Eraikuntzen txokoa dabilta 3 haur, entretenituta.

10:10 Kotxeak hartu dituzte eta hiru mutil jolasean dabilta. Bitartean, 2 neska panpinak hartu eta besarkatu egiten dituzte.

Ispilura hurbiltzen dira momentu batzuetan eta begiratzen dira.

10:15 Margoak hartu eta hiru neska eta bi mutil margotzen ari dira. Hirugarren neska, telefonoz deika ari da.

B TALDEA

11:00 Bost ume: neska bat eta lau mutil.

Neska, denei kasu eginez sartzen da, Sara da: “Hola, ¿quién eres?” eta besarkatu egiten du mutil bat.

Kotxeak hartzen dituzte eta jolasten hasten dira. Sarak panpin bat hartzen du eta paseatzen dabil.

11:15 Amak etorri dira eta gela barruan daude. Haur bat bere amarekin aulkian eserita dago eta ez da mugitzen. Amak esaten dio:” vete a la casita” eta hurbiltzen da.

11:20 **Zubiaren** azpitik pasatzen da Ibon eta **txirrista** gora igo, jaitsi eta saltoka dabil. Bere atzetik, beste bi mutil ere; bat Angel da.

11:25 Amak gelatik ateratzen hasten dira pixka bat eta hall-eko bankuan esertzen dira.

11:30 **Arbelera** hurbiltzen dira eta marraztu ondoren, egindakoa ezabatu egiten dute.

11:35 Bi ama daude gela barruan eserita. Andereño Margarik gailetak banatzen ditu.

Etxe barruan sartu eta etzanda daude momentu honetan bi mutil. Bitartean, Sara eta Miguel A. andereñoarekin dabilta **eraikuntzekin**.

11:40 Lau haur daude gela barruan; batek pixa eskatzen du eta amak, korrika eramaten du komunera.

11:45 Ama guztiak gela barruan daude.

Margoak hartu eta denak margotzen ari dira.

11:55 Txostenak banatzen dizkie andereñoak, ama bakoitzari.

12:00 Agurrak eta bihar arte esanez joaten dira.

Andereñoaren zeregina haurren bigarren saio honetan: Agurtu, lagundu, besarkatu, erne egon, jolasean ibili, abestu
--

2000/IX/15

9:30 Lehenengo taldea

Lau mutil sartzen dira, gustura. Lehenengo momentuan piszinara sartu dira; pixka batera, txirristara doaz.

Neska bat, Sara, minutu batzuetara dator eta kotxea hartzen du.

Ura edaten dute eta txirristan gora doaz.

9:45 Familiakoak: Amak gelatik kanpo daude, baten aitona, berriz, barruan.

Andereñoak ume bat besoetan hartu du eta txirristara eramaten du. Momentuka, bi ama sartu-irtenean dabilta.

Bi mutil eskutik helduta dabilta. Andereñoak, amengana joaten diren haurrak, besoetan hartu eta jarduera desberdinetara gonbidatzen ditu. Neska eta mutil bat kotxearekin paseatzen dabilta.

Txirrista eta **piszinan** dabilta, gelditu gabe. **Ispilura** ere hurbiltzen dira. Ume batek zapatilak eta galtzerdiak kentzen ditu piszinan sartu aurretik.

10:00 Gurasoak gela barruan edo ate ondoan daude. Bat negarrez ari da amaren ondoan.

10:05 Amak gela barrutik ateratzen dira, aitonari gehiago kostatzen zaio irtetea.

10:07 Abestia: "Pintto Pintto..." **ipuina** erabiliz.

10:10 Miguel A. telefonoz deika ari da: "ama".

Eraikuntzekin dabilta eta Margarik jasotzeko esaten duenean, laguntzen diote jasotzen.

10:20 Bi ama daude gela barruan.

10:25 Ama bat gela barruan.

10:30 Bihar arte esan ondoren, badoaz. Sara da gelatik atera nahi ez duen bakarra.

Autonomia

- Zapatilak eta galtzerdiak kendu.
- Basoa hartu eta ura edan.
- Eraikuntzak jasotzen lagundu.

11:00 Bigarren taldea

Naiara eta bi mutil sartzen dira, segituan beste mutil bat. Denak agurtzen ditu andereñoak eta segituan Naiarak: "Hola".

Ama bat gela barruan dago, bere umearen lehenengo eskola eguna da.

Ibonek ipuina ematen dio Margariri konta dezan. "Pintto Pintto..."

Txirristan eta **piszinan** dabilta.

Naiara **ispiluaren** aurrean jarri eta bere buruari begiratzen dio. Gero, zapatilak jartzen dizkio ume bati eta ondoren kendu egin dizkio. Paper bat hartzen du eta plastikozko objektu bat garbitzen du.

Ibonek, Iratik botatako margoak jasotzen ditu.

11:20 Ama 'berriak' bakarrik jarraitzen du gela barruan. Adrianek ura eskatzen du: "agua".

11:25 Ama guztiak kanpoan daude.

11:40 Ura edan dute denek.

11:55 Agurtu ondoren, etxera doaz.

Autonomia

- Zapatilak jarri eta kendu.
- Papera hartu eta plastiko bat garbitu.
- Margoak jaso.

2000/IX/20

9:00 Astelehenetik aurrera amak ez daude gela barruan; momentu batean gelditzen dira (gela barruan edo hallean) eta umea lasai xamar dagoela ikusten dutenean joan egiten dira.

9:00etatik – 12:00etara. Gehienek ordu bete pasa dute gelan egun hauetan.

Gaur asteazkena: 9:00etan 3 ume etorri dira, beste bat minutu batzuetara.

Adrian negarrez egon da; bere hirugarren eguna da eta andereñoak besoetan eduki du hasieran eta orain ondo dago.

Hallean momentu honetan: aitona bere bilobarekin eta, Pabloren ama –hau, astelehenean, umeari ezer esan gabe joan omen zen eta negarrez aritu omen zen-

9:15 Naiara dator “Hola” esanez. Txamarra kendu, bere pertxeroan jarri eta ama agurtzen du.

9:20 Txirristan gora eta behera dabil Naiara eta bitartean, Pablok bere amarekin jarraitzen du; Iñigoren aitona ere bertan segitzen du.

Ura eskatzen dute.

9:30 Irati dator; aita agurtzen du eta gela barrura sartzen da. Mainer ere orain dator.

9:35 Psikomotrizitate gelara igotzen gara.

Miguel Angel sartzen da gelan.

Hiru guraso egon dira goian, barrura sartu-irtenean.

Pabloren ama joan egin da eta hau negarrez ari da, isildu gabe.

10:10 Gelara etorri gara; 7 haur daude.

10:30 Ibon dator. Adrian R negarrez hasi da baina berehala entretenitu da.

Miguel Angel izan ezik beste denak nahiko ondo dabilta gurasorik gabe.

11:00 Adrian G. dator.

Musika jarri du andereñoak eta **dantzan** dabilta.

11:15 “Lotan nago” **abesten** ari dira, alfonbra gainean etzanda.

Ipuina

Abestia: Pintto Pintto....

11:50 Txamarrak janzten dituzte, gelatik atera eta hall-ean denak borobilean eseri –baita beste geletako umeak ere- eta elkarrekin “Pintto Pintto” abesten dute etxera joan aurretik.

Andereñoak: Lagundu, animatu, txalokatu, goxatu, beraiekin jolastu, negarrez hasten direnean besoetan hartu, entretenitu, lasaitu, kontsolatu, abestu, ...
--

2000/IX/26

9:00 Hiru haur datoz: Daniel, Adrian R. eta Pablo.

Margarik komentatzen dit azkeneko bi egunetan Adrian G-en amak gela barruan egon behar izan duela eta Pablorenak ere. Gaur ere barruan gelditzen da.

9:20 Etxeko jostailuekin dabilta Daniel, Adrian, ... Pablo ia ez da aulkitik altxatzen, amaren ondoan dago.

Iñigoren aiton-amonak barruan daude.

Pablo piszinaan sartu da.

9:30 Danielek ez du utzi nahi jertsea kanpoko pertxeroan eta negarrez joan da, korrika, eta berarekin hartzen du.

9:50 Psikomotrizitate gelara, ganbarara igo, zapatilak eta galtzerdiak kendu eta **joko** bat jartzen du martxan andereñoak, **abesten** duten bitartean:

. Uztaiarekin: "Land Roverra"

. Laren lero (koltxoneta gainean): orain belarrian, orain sudurrean, orain ipurdian

. Txibirin bonbo Naiara

Txibirin bonbo Eric

Txibirin bonbo Irati

Naiara eta Iratik besteen izenak errepikatzen dituzte.

Koltxonetan dabilta Irati eta Naiara elkarrekin saltoka; gainontzekoak begira eta euri txalokatzen.

Iratik andereñoa imitatuz jokoa errepikatzen du.

Momentu batean, denek, mugitzen diren kotxeak nahi dituzte eta haserre batzuk egon dira.

10:30 "Jasotzera" esaten die Margarik eta pilotak eta uztaiak jasotzen hasten dira batzuk: Pablo, Miguel A. eta Sara.

Galtzerdiak eta zapatilak janzerakoan, batzuk ezagutzen dituzte bereak: Miguel A.-ek, Pablok, Naiarak, Eric-ek. Naiarak Eric-i laguntzen dio zapatilak janzten.

Komunera joan dira, denek egin dute pixa eta ura edan dute.

Oraindik batzuk laguntza pixka bat behar dute eskailerak jaisterakoan: Adrian R-ek, Mainerrek eta Sarak.

10:50 Gailetak banatu ditu Margarik eta ura edan ondoren patiora atera dira.

11:30 Gelara itzultzen dira eta borobilean eserita, musika jartzen dute eta **dantzan** dabilta.

Iñigo aitonarekin sartzen da gelara.

Autonomia

Zapatilak eta galtzerdiak laguntzarekin jantzi eta erantzi

Pilotak jaso

Uztaiak jaso

Eskailerak igo eta jaitsi

Elkarrekintza momentuak

Irati eta Naiara koltxonetan, elkarrekin saltoka.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3)	1		-	-			-	2		3				
Piszinan(1); Txirr. (2); Ispilua (3)		2			1 2	1 2			1		1 2	1 2 3	1 2	1 2
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)											1			
Ipuina; Abestiak														
Eraikuntzak	+													
Arbela						+		+	+	+				
Margoketa						+			+					
Jaso														

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak		+	-	-	+	+	-		+		+		+	
Zaldiak														
Koltxoneta	+	+			+	+			+	+	+	+	+	+
Uztaiak											+	+	+	+
Pilotak														+
Jaso											+		+	+

2000/IX/28

9:00 Ipuinarekin dabilta Eric, Irati eta Naiara alfonbra gainean.

9:07 Pablo sartzen da amarekin eta barruan gelditzen da ama.

9:10 Daniel etorri da.

Irati arbelean: "Tin, tan, tin, tan, euri tantak..." abestuz eta klarionarekin tantak eginez.

9:15 Margarik: Goazen ganbarara: "Triki traka..." abestuz, ilaran jartzen dira.

Pablaren ama badoa.

Gora igotzen dira, zapatilak eta galtzerdiak kendu eta barrura sartzen dira.

9:30 Ganbaran kankak, kotxeak, karririkotxeak, jokoak egiten dituzte. Irati eta Naiara gustura dabilta, Iñigo berriz, sartzen da gelara baina negarrez ateratzen da aitonaaren bila. M-k: "El abuelo ya sabes que está..."

Gatazka batzuk: Batak besteari gauzak kendu nahian, harramaskak, jo, negarrak...

M-k: Iñigo kontsolatzen ahalegin guztiak egiten ditu, berarekin hizketan eta gauzak arazoitzen.

Ongi bukatzen da saioa, gauzak jasotzen eta lasai.

10:15 "Komunera goaz pixa egitera". Gehienek kuleroak eta galtzontziloak igotzen dituzte. Pixa egin, ura edan eta jaitsi dira hall-era.

Ura, bakoitzak bere edalontzitik edaten du.

Hallean, borobilean jartzen dira denak eta kokak eta txokolatea banatzen ditu Marisa andereñoak -momentu batzuetan laguntzera etortzen da Marisa-.

10:30 Patiora atera dira: korrika, txirristan gora eta behera, ...

11:00 Gelara itzultzen dira.

Iñigo oso ondo dago gelan.

11:15 Ander amarekin sartzen da eta margotzen hasten da.

11:25 Hiru ama daude gelako ate aurrean eta badirudi, urduri xamar ikusten direla batzuk.

Iñigo tarteka ateratzen da gelatik baina itzultzen da.

Marisaren inguruan daude 5 haur hizketan.

Besteak piszina eta kotxeekin dabilta.

Adrian G. amarengana ateratzen da (ama atean dago).

Ander negarrez bere ama ez dagoelako.

Eric-ek Sara kotxean jarri eta paseatzen du.

11:40 "Jasotzera": Popopo, popopo....

11:45 Hallera ateratzen dira eta abestu ondoren, bertan agurtzen ditu Margarik.

Elkarrekintza momentuak

Eric-ek Sara kotxean jarri eta paseatzen du

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3)	1	1					-		1				1	1
Piszinan(1); Txirr. (2); Ispilua (3)		1	1	1	1	1		1	1		1	1	1	
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)			1	1							1			
Ipuina; Abestiak														
Eraikuntzak														
Arbela		+		+		+				+				
Margoketa		+				+		+	+				+	
Jaso	+			+				+			+			

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	I	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak(1); Trizikloak (2)	-	1	-	-		2	-			-	2			
Zaldiak					+									
Koltxoneta		+				+			+		+	+		
Uztaiak													+	
Horma-Barrak					+							+		
Pilotak														
Jaso								+	+			+	+	

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEA: U R R I A

IKASLEAK/EGUNAK	3	5	10	20
Adrian G.	11:00 - 12:00	-	11:20-12:00	11:00 - 12:00
Adrian R.	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30	9:00 -16:30	9:00 -16:30
Ander	-	-	-	-
Angel	-	-	-	10:50 - 12:00
Daniel	9:00 - 11:00	9:00 - 10:45 (gaixorik)	9:00-11:10	9:10 - 11:25
Eric	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Ibon	11:25 - 11:35	-	10:45 - 11:15	9:20 - 12:00
Iñigo	9:00 - 12:00	-	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Irati	-	9:40 - 12:00	9:30 - 12:00	9:10 - 12:00
Maidar	9:30 - 15:00	9:20 - 15:00	10:30 - 15:00*	10:10 - 15:00
Miguel A.	9:20 -12:00	-	9:20 - 12:00	9:25 - 12:00
Naiara	9:00-12:00	9:15 - 12:00	9:10-12:00	9:10 - 12:00
Pablo	9:10 -12:00	9:05 - 12:00	-	9:00 - 12:00
Sara	10:30 -16:30	11:00 - 16:30	10:45 - 16:30	11:25 - 16:30

* Maiderrekin gaur bete ditu 2 urte

2000/X/03

9:00 Adrian R., Daniel, Eric eta Naiara alfonbran daude puzzle, kotxetxoak eta gitarrarekin. Pablo sartzen da bere amarekin.

9:15 Iñigo sartu eta atera dabil.

Pabloren ama gela barruan dago.

9:20 Alfonbran jarraitzen dute.

9:22 Gora doaz, psikomotrizitate gelara. Zapatilak kendu eta barrura.

Pabloren eta Miguel Angelen ama barruan daude.

Abesten hasten dira.

9:30 "Dame un pa que me tengo que ir" (Pabloren amak). Negar pixka bat egin du Pablok; muxu bat eman eta isiltzen da. Besoetan hartuta dauka Margarik.

Iñigo ez da sartzen gelara, aitonarekin, kanpoan dago. Aitona ere barrura sartzen da. Mainerrek ere ez du nahi bere ama joaterik.

Iñigo negarrez ari da baina aitona ateratzen da. Nahiko azkar pasa zaio. Mukiak kendu eta berak botatzen du papera zakarrontzira.

Maidere ere nahiko ondo gelditu da.

10:15 Margarik: Pixkanaka jasotzera! "Jasotzera popopo...."

10:25 Zapatilak jantzi, pixa egin eta hall-era doaz gailetak jatera.

10:30 Hallean daude, borobilean, ogia jaten.

Sara dator eta gustura gelditzen da.

10:35 Txamarrak jantzi eta patiora.

Patioan: txirristan, tuneletan, korrika dabilta.

Txirristan: Naiara, Pablo, Miguel Angel, Iñigo eta Adrian G.

11:15 Alfonbra gainean eserita **abestia**: "Lotan nago, begiak itxita..."

Puzzleak egiten, **ipuina** kontatzen.

11:30 Ibon bere amarekin dator gelara. Segituan berriro eramaten du. Hurbilketa moduan egin dute -gaixorik egon baita, eta oraindik ere ez dago ondo-.

11:40 Pizina barruan daude ume gehienak.

11:45 M-rik: Jasotzera!

11:50 Hall-ean abesten dute eta agurtzen dituzte.

12:00 Adrian R., Maidere eta Sara jangelara doaz. Bazkal ostean lotan jartzen dituzte eta arratsaldean, 16:30arte gelditzen dira Adrian eta Sara.

Ohiturak-Arauk

- . Zapatilak kanpoan kendu behar dituztela badakite eta saiatzen dira kentzen.
- . Kotxeak koltxoneta gainean ez.
- . Ganbaratik jaitsi eta esertzen dira.
- . Eric zapatilak janzten saiatzen da eta Margariri “tori tori” esaten dio. Daniel ere saiatzen da, Pablo ere, Mainerrek lortzen du zapatak oinetan sartzea.

Elkarrekintza momentuak

- . Iñigok oihal batekin Daniel R. estaltzen du.
- . Naiarak muxu ematen dio Danieli esanez: xuabe, xuabe.
- . Iñigok iletatik tiratzen dio Daniel R.-ri kotxetik kentzeko.
- . Naiarak, Adrian R. kotxean paseatzen du.
- . Naiarak, Miguel Angel etxeko ohean dagoela, tapatu egiten du.

Garrantzitsua

- . Haur bakoitza pixka bat hartu eta kontsolatu eta entretenitzea.
- . Bakoitzaren egokitzapen prozesua errespetatzea: batzuen ordutegi laburra, hurbilketa moduan gelan sartu eta berehala eramatea, guraso edo etxeko presentzia momentuak onartzea.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3)	1	2	-	-		1			-	2 3	1 2	3		
Piszinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)	1 2	1			3					1	1	1	1	1
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)						1								
Ipuina (1); Abestiak (2)		2										2		
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3)						2		1				2	2	
Arbela								+		+	+			
Margotegian	+					+		+		+			+	
Jaso		+						+		+				

* = 10 minutu bakarrik egon da gelan

Naiarari pelutxeak beldurra ematen zion baina pixkanaka ukitu eta orain laztantzen du; pelutxea kotxean jarri eta paseatzen du

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	-	1 2	-	-	1	1	-	1	-					-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)					2			1		1 2		1 2		
Koltxonetak		+			+			+		+	+	+	+	
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)								1 3		1 3		1 2	1 3	
Uztaia (1); Pilotak (2)								1		1	1	1	1	
Oihalak. (1); Ispilua (2)					2			1 2				1 2		
Horma/Barrak														
Itxitura						+								
Jaso								+			+	+	+	

. Asistentzia aldetik, gaur, 6 ume falta izan dira

2000/X/05

9:00 Daniel negarrez ari da, garrasika, ama joan ondoren. Besoetan dauka andereñoak, entretenitu ezinik.

9:15 Pablo ere, momentu batzuetan triste xamar ama joan denetik, baina, segituan hasi da jolasean.

Naiara sartzen da gelara, oso kontentu.

9:20 “Maider!, la ama se sienta sólo un poquito” (aulkian). Maider amarengana hurbiltzen da eta bere ondoan esertzen da; minutu batzuetara: “me voy y ya sabes que luego vengo”.

9:22 Ganbarara goaz!

Ganbaran sartu ahal izateko denak esertzen dira ate ondoan zapatilak kentzeko.

Danielek negarrez jarraitzen du eta Maidere bai ama joan zaionetik.

M-ik **pazientzi** handiz hartzen ditu gauza bat eta beste eskainiz.

Maidere lasaitzen joan da eta isilik dago.

10:10 Andereñoak Danielen amari deitu dio bila etor dadin; ez dago ondo (medikuarengana eramango du)..

10:15 Abestiak:

“Land Roverra”, denek hartzen dute parte.

“Begira-begira uztai borobila”. Irati eta Naiarak oso ondo egiten dute barruan sartu, buelta eman eta kanpora atera eta jira. Pablo, saiatzen da.

“Agongo Maria agongo”.

“Sorgina-sorgina, ipurdia zikiña”.

10:25 “Jasotzera, popopopo...”

Zapatak jantzi eta hall-era jaitsi dira.

10:35 Hallean ogia jan dute, borobilean eserita.

11:00 Gelara sartzen dira, eguraldi txarra dago eta.

Abestiak, margotzen, panpinekin, ...

11:10 Sara sartu denean, Naiarak muxu bat eman dio eta negarrez hasten dela ikusi duenean: "Hala, vete a la piscina" . Ama joaten da eta lasai gelditzen da.

11:15 Mainerrek, Adrian R. paseatzen du kotxean.

11:25 Gailetak banatzen ditu andereñoak.

11:30 Plastilina. Lehenengo eguna da eta 4 haur jartzen ditu andereñoak plastilina lantzen.

Ericek, aulki bat gehiago eraman du eseri ahal izateko baina araua, 4 baino gehiago ez egotea da.

10 minutu pasa dituzte plastilinarekin.

Sara, denbora guzti honetan, panpinak zaintzen eta kotxeetan jartzen dabil (15 minutu).

11:50 Jaso eta **ipuina** kontatzen die.

12:00 Agurrak eta batzuk etxera eta besteak jangelara doaz.

Autonomia

. Denak esertzen dira ganbarako ate ondoan zapatilak kentzeko.

Arauk

. Trizikloak ezin dira koltxoneta gainean ibili.

. Ezin dira bolak bota.

. Plastilina mahai gainean ibiliko dugu, ez ahoan.

Elkarrekintza momentuak

. Naiara Pablorekin besarkatzen

. Naiara Iratirekin besarkatzen

. Naiarak Iratiri: "Escucha, no llores más Irati" (berak eman dio min)

. Mainerrek Adrian R. kotxean paseatzen du

. Adrian R-ek Pablo paseatzen du

. Naiarak: "Ha sido sin querer" (Irati negarrez). Jarraian, begiak lehortzen dizkio, eta sudurra

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3)	-	1 3	-	-	-		-	-	1 3	2 3	-	3		2 3
Piszinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)		1				1			1			1	1	1
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)										1 2				1 2
Ipuina (1); Abestiak (2)														
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3)						2 3				2		3		2 3
Arbela									+				+	+
Margoketa (1); Plastilina (2)		2				2			1 2	2		1 2	1 2	
Jaso		+								+				

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	-	2	-	-	-		-	-		1 2	-			-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)									2			1 2	2	
Koltxonetak		+							+	+		+	+	
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)						2 3			2 3	1 3		1 2	1 3	
Uztaia (1); Pilotak (2)		1				1			1	1		1	1 2	
Oih. (1); Ispilua (2)												1 2		
Horma/Barrak														
Itxituran						+			+	+		+	+	
Jaso						+			+			+	+	

. Asistentzia aldetik, gaur 6 ume falta izan dira

2000/X/10

9:00 Lau haur daude gelan; Danielen ama barruan dago. Iñigo gustura ikusten da.

9:10 Naiara dator, kontentu.

“La ama se va” esaten dio amak Danieli, eta jarraian: “Éste es más cabezón”. Alde egiten du.

Margarik entretenitzen du besoetan hartuta eta lasaitzen da.

9:20 Miguel A. amarekin; zuzenean puzzleetara doa eta osatzen hasten da.

9:30 Irati, zuzenean sartzen da gelara.

Ganbarara!

9:55 Abestiak, korroan, trizikloekin,

Miguel A.-ek txupetea ematen dio Margariri.

Iñigo, Irati eta Naiarak animalien keinuak imitatzen dituzte: astoa, txakurra, oilarra, katua, ...

Leihotik kanpora begiratzeko “kataleju” batzuk dauzkate, leiho ondoan jartzen dituzte.

10:10 Naiara eta Irati “lotan jartzen dira” oihalarekin tapatuta (jokoa).

Baloi handien inguruan dabilta Naiara, Miguel A., Ibon eta Daniel.

10:30 Materialak jasotzen hasten dira eta zapatilak jantzi ondoren gelara jaisten dira.

10:40 Gaur Mainerren urtebetetzea da eta gelan, tarta hartu, kandelak piztu eta abestu egiten diote (alfonbran). Hallera ateratzen dira tarta jatera eta ondoren, ura edan eta abesten jarraitzen dute.

11:10 Gelara itzultzen dira.

Miguel A. margotzen hasten da eta bere izena “idazten” du.

Ibonen amak gelan jarraitzen du; gaixorik egon da Ibon eta atzera pausoa egin omen du prozesuan.

11:30 Bakoitza gauza desberdinetan ari da: arbelean, piszinan, puzzleak egiten, kotxeekin...

11:40 Abestia: “Sapito bat daukat...”

Ohiturak

. Zakarrontzira botatzen dituzte paperak, tiritak, etab.: Iñigok, Naiarak, Iratik.

Elkarrekintza momentuak

- . Margari tiritak baten bila joan da eta itzuli denean, Eric pozik agertzen da, keinuka eta irribarrez.
- . Adrian R.-ek Daniel paseatzen du kotxean, kontentua.
- . Naiarak Miguel A.-i mina egin dio.

Oharra

Alfonbran bildu eta abestu ahal izateko, garrantzizkoa litzateke besteak zarata handiak ez sortzea; momentu batean, haur bat pianoarekin, bestea puzzlearekin kolpeka, beste bat kotxearen gainean soinua ateraz, arbelean kolpeak ematen... Zaila egiten zaio andereñoari bere inguruan daudenekin lasaitasuna lortzea eta atentzioa erakar araztea.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	An	An	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3); Telefonoa (4)	-	2	-	-	3	4	2	2				1	-	2
Piszinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)					1	1		1	1	1	1	1		1
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)										1				
Ipuina (1); Abestiak (2)														1
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3)		1				2	3					3		
Arbela						+		+		+	+			+
Margoketa (1); Plastilina (2)		2			2	2		1	1	1	1	1		
Jaso						+	+	+		+				

Sara asko ibiltzen da kotxea eta panpinekin

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	-	1	-	-	1	2	-			-	1		-	-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)					2									
Koltxonetak		+							+		+	+		
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)		3						3	1			1		
Uztaia (1); Baloi Handia (2)		2			1	2		1	1		1	1		
Oihalak (1); Ispilua (2)								2	2			2		
Horma/Barrak														
Ibituran					+	+			+		+			
Jaso								+						

2000/X/20

9:10 Haurrak eskolara iristen.

Daniel negarrez gelditzen da eta Marisak ateratzen du gelatik eta handikan 10 minutura itzultzen da gelara.

9:20 Ibon aitarekin, ez du nahi bakarrik gelditu, oraindik barruan gelditzen da aita edo ama (lehenengo hasiera ondo egin zuen baina, gaixorik egon denetik okerrera egin du)..

Daniel leiho ondoan dago "ama" deitzen.

9:25 Ganbarara! Ibonen eta Miguel A.-en aita eta ama barrura sartzen dira.

9:40 Miguel A.-en ama joan da eta bat-batean negarrez hasi da.

9:55 Ibonen aitak barruan jarraitzen du.

Ibon izan ezik, beste denak elkarrekin jolasten ari dira.

10:00 Ibon koltxonetara doa Marisarekin; bitartean, Iñigo eta Miguel A. borrokan dabilta.

10:10 Mainer amarekin sartzen da psikomotrizitate gelara. “Dale un besito fuerte-fuerte” esaten dio Marisak eta, nahiko konforme gelditzen da.

10:15 Ibonen aita joan da (uste dut abisatu gabe) eta negarrez gelditzen da.

Jasotzera!. Komunera joan, hallean ogia jan eta patiora ateratzen dira.

11:10 Ibon, denbora guztian negarrez dago.

Naiarak zakarrontzira botatzen ditu paperak.

11:25 Alfonbran eserita gailetak jaten dituzte.

Margotzen ari dira batzuk eta istilu dezente sumatzen da.

11:35 Sarak Naiarari deitzen dio eta honek erantzuten dio: “Hola cariño”.

Adrian G. etorri gabe egon da egunetan eta denbora guztian amarengana ateratzen da. Gelako ateak irekita daude eta behin eta berriro ateratzen da.

11:45 Jasotzera!

11:55 Hall-era ateratzen dira eta agurtu aurretik, bi geletako 2 urteko haurrak elkarrekin abesten dute.

Oharrak

. Haurrei, beti abisatu beharko litzaieke alde aurretik, ama edo aita joan aurretik, bestela, ez daudela konturatzen direnean, oso gaizki pasatzen dute.

. Segun eta zer jostailu ekartzen duten gelara, arazo asko sortzen dira euren artean, konpartitu nahi ez dutelako (Ibonek bere telefono mugikorra ez dio inori utzi nahi...)

. Eguneroko errutinen garrantzia. Badirudi, haur hauek hobeto daudela psikomotrizitate gelan, oraingoz (egunero joaten direlako?). Gelan, aldiz, kosta egiten zaie zentratzea.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3); Telefonoa (4)	-		-			1	4	3	3					1 3
Piszinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)		1		1				1			1		1	
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)														
Ipuina (1); Abestiak (2); Pianoa (3)		3						1						
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3)					2	1					2	1 2		2
Arbela				+										
Margoketa (1); Plastilina (2)		1		2				1 2	1 2	1 2		1 2	1	
Jaso														

Ibon, telefonoz deika, oso gaizki pasatzen ari da

Sarak Eric paseatzen du kotxean jarrita

Sara, askotan, ‘zinta’ pusketa batekin ibiltzen da

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	-	1	-	-	1	1	1			-				-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)									1			1		
Koltxonetak (saltoak, txiribueltak)							+	+	+			+		
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)						1		1	1					
Uztaia (1); Baloi Handia (2)														
Oih. (1); Ispilua (2)														
Horma/Barrak							+				+		+	
Itxituran		1			1	1		1	1			1	1	
Jaso								+				+		

Oharrak

Oraindik ez da egokitzapen-aldia normalizatu, haur dezenteren asistentzia ez da erregularra, ziurrenik, horrek ere luzatzen du prozesua.

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEAK: AZAROA

ABENDUA

IKASLEAK/EGUNAK	2	16	14
Adrian G.	11:00 - 12:00		10:40 - 12:00
Adrian R.	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30
Ander	-	-	11:10 - 12:00
Angel	-	-	11:00 - 12:00
Daniel	9:10 - 11:00	9:00 - 11:30	9:00 - 11:30
Eric	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Ibon	10:45 - 12:00	10:20 - 12:00	10:00 - 12:00
Iñigo	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Irati	9:20 - 12:00	9:50 - 12:00	9:15 - 12:00
Maidier	9:40 - 16:30	9:50 - 16:30	9:35 - 16:30
Miguel A.	9:20 - 12:00	9:10 - 12:00	9:20 - 12:00
Naiara	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	-
Pablo	9:10 - 12:00	9:00 - 12:00	9:15 - 12:00
Sara	11:00 - 16:30	10:45 - 16:30	-

2000/XI/02

9:00 Pixkanaka sartzen dira, banan-banan Margarik agurtu ondoren.

9:20 Miguel A. bere amarekin sartzen da gelara eta aulkian esertzeko eskatzen dio amari. Irati ere, bere amarekin, baina, amak agurtzen du eta bakarrik gelditzen da. Miguel A.-en ama ere 3 minutu pasa ondoren, badoa.

9:25 Iñigo eta Ericek abestiak eskatzen dituzte. **Abestiak.** Denak gonbidatzen ditu andereñoak baina Miguel A. ez da elkartzen, Daniel eta Iñigo ere ez. Eric ere taldetxotik berehala joaten da eta baita Pablo ere. Bi minutura denak mugitzen hasten dira.

9:30 Gora joango gara, ganbarara: "Triki traki..."

9:40 Maidier aitarekin dator; aita ez da gelara sartzen eta ondo gelditzen da.

Pablo Maiderrekin jolasten hasten da. Naiarak muxu bat ematen dio Maiderri.

Komunera joan nahi dutela eskatzen dute Iñigok eta Miguel A.-ek. Dena den, Miguel A.-ek pixa egin ondoren eskatu du.

9:50 "Itxitura" oihal batekin estali dute eta barrura sartzen dira (etxera).

10:00 Pixa egitera.

10:10 Gauzak jaso ondoren, Maider galtzerdiak janzten saiatzen da. "Paristik natorren..." eskatzen dio Margariri.

Oinetakoak sartzen dituzte gelara, bakoitzak bereak

10:20 Ura edan eta gailetak jatera jaitsi dira hall-era.

10:30 Patiora atera dira eta korrika, saltoka, txirristan gora eta behera, tunelean... ibili dira.

11:00 Gelara etorri dira. Gelan, tren jarri dute bakoitzaren argazkiarekin.

Adrian G.-ren ama kanpoan dago (gelako atea itxita daukate) eta barruan, nahiko ondo dago. Ibon ere hobeto dabil.

11:40 Batzuk arbelean, besteak margotzen, kotxeak paseatzen, piszina barruan...

11:50 Jasotzen hasi dira.

Oharra

Psikomotrizitate gela irekita uzten dute eta kotxe, triziklo, eta abarrekin ateratzen dira bueltara ibiltzera.

Barruko "talde-aktibitatea" aldatu egiten da orduan (bakoitza bere aldetik ikusten da).

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3); Telefonoa (4)			-	-		2	1	2	1				2	2 3
Piszinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)		1				1			1		1	1	1	1
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)								1 2						
Ipuina (1); Abestiak (2); Pianoa (3)	2											1		2
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3); Enkastratuak. (4)	3	4			3		1							
Arbela						+	+	+				+		+
Margoketa (1); Plastilina (2)	1 2	1				1	2		2			1 2	1	
Jaso	+							+	+			+		+

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	-	1 2	-	-	1 2	1 2	-	1 2	1 2		1 2			-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)												1		
Koltxonetak (saltoak, txiribueltak)								+	+		+	+		
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)						1			2	1		2		
Uztaia (1); Baloi Handia (2)														
Oih. (1); Ispilua (2)									2			2		
Horma/Barrak													+	
Itxituran						+		+	+		+	+	+	
Jaso								+				+		

2000/XI/16

9:00 Umeak sartzen. Miguel A. bere amarekin sartzen da gelan (minutu batzuk) eta lasai gelditzen da. Zazpi haur daude, horietatik lau gometak jartzen (Adrian R., Iñigo, Naiara eta Pablo).

Naiarak: "Nik txikia" (gomets txikia)

Margarik esaten dit diferentzia handia egin dutela

Naiara lasai ari da gometak jartzen, badaramatza 15 minutu. Iñigok ere nahi du baina ez du lortzen gometak ateratzea.

9:35 Ganbarara!. Maider, orokorrean, oso ondo gelditzen omen da baina gaur negar pixka bat egin du.

9:50 Ura edan eta pixa egin nahi dutela eskatzen dute batzuk.

10:00 Itxituran sartzen dira Maider izan ezik; ezkutatu eta garrasika ari dira.

Musika jarrita dago.

M-k: Espaziora moldatzen ari dira; patioari ere buelta guztia ematen hasi dira

Iñigok: No puedo, no puedo (askotan errepikatzen du). Etxean dena bestek egiten ohituta omen dago; aitonak dena egiten omen dio eta.

Saltoka dabilta marra batetik bestera:



Margarik dio Iñigo eta Pablo oso lagunak egin direla (bat ausartagoa, bestea indartsuagoa).

10:10 Maider bere gisa dabil, lasai-lasai.

10:20 Ibonek amari: "Ven pronto" eta gelan sartzen da. Urduria da Ibon, oso mugitua eta leihotik begira jarri da (ama ikusten ote duen edo) baina, trizikloa hartu eta hasi da martxan.

Pablok Maiderrri bultza egin dio (negarrez zegoelako?). Iratik jo du Maider. Andereñoak: eman muxu bat Irati (honek ezetz buruarekin). Naiarak ematen dio muxu.

10:25 Orain, dena jasoko dugu, "jasotzera" eta zapatilak jantzi eta behera joango gara.

10:35 Ogia, hallean, denak eserita jarri ondoren; aurrena ogia jan dute eta gero ura edan. Gero, txamarrak jantzi dituzte kanpora atera aurretik.

10:45 Patiora.

11:15 Txamarrak erantzi eta gelara doaz.

11:35 Sarak kaka egin duela esaten du eta mahaira igotzen da Margarik alda dezan (etzanda dago)

Batzuk ura nahi dute, beste batzuk pixa; aldatu xamarrak dabilta.

11:45 Jasotzera! Gailetak eskatzen dituzte. M-ik: Eserita, bestela ez dago gailetarik (denak esertzen dira). Sarak: "Gaileta bat nahi dut" . Sara eta Naiara gaileta jateko alfonbrara joan dira.

11:50 Jantzi eta "pizinarra".

Arauk

- . Orain lau ari dira gometxak jartzen eta zuk gero jarriko dituzu.
- . Ez bultza, suabe, suabe, lasai

Oharrak

- . Naiarak eta Iratik: **Mina, ura nahi dut, nik txikia** eta horrelako esaldiak, **beti euskaraz** esaten dituzte.
- Bi neska hauek helduagoak dira eta gazteleraz ere ondo hitz egiten dute.
- Beste jarduera batzuetan ere elementu gehiago erabiltzen dituzte eta joko berriak asmatzen dituzte.
- . Gelako etxe barruan sartuta gutxi egoten dira.
- . Arauk eta ohiturak gehiagotan gogorarazten dizkie orain andereñoak hasieran baino.
- .Gaur, 15:30etan **gurasoekin bilera** egingo du andereñoak.

G E L A N

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3); Telefonoa (4)	-	1 2 3	-	-			2		2				4	
Piszinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)						1	1	1	1		1	1	1	1
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)														
Ipuina (1); Abestiak (2); Pianoa (3)		1				2				1		2		
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3); Enkas. (4)		3			2						2 3			
Arbela					+	+		+				+		+
Margoketa (1); Plastilina (2); Gometxak (3)		3					3	2 3	2	3		2 3	3	3
Jaso								+				+		

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	-	1 2	-	-	1 2	1 2	1 2	1 2		1 2	1 2		1 2	-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)									1 2					
Koltxonetak (saltoak, txiribueltak)						+			+	+	+	+		
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)						1					1	1		
Uztaia (1); Baloi Handia (2)					2							2	2	
Oih. (1); Ispilua (2)									1		1			
Horma/Barrak														
Itxituran														
Jaso														

2000/XII/14

9:00 Eric, Iñigo, Daniel, Adrian R. iristen dira.

Iñigo oso kontentu, Eric ere, Adrian oso bizi eta gustura; momentu batean Daniel negarrez hasten da (harramazka txiki bat egin dio Adrianek) eta 20 minutu daramatza negarrez.

Pablok, kanpotik, gelako leiho bateko kristalean jotzen duenean 'kaixo' esateko, Iñigok: Pablo, Pablo esanez, ongi-etorria ematen dio. Iñigok izugarritzko aldaketa egin du hasieratik; asko askatu da.

9:20 Eric-ek plastilinarekin paliloak egin nahi ditu eta andereñoak esaten dio: "Orain ez, hori geroago" (irribarretsu baina irmo).

Pisзина inguruan (gelakoan) dabilta ume gehienak txirristatik piszinara salto eginez.

Margarik Adrian aldatzen du, kaka egin baitu. Irati begira dago.

9:35 Mainer aitarekin dator eta ondo gelditzen da gelan.

M-rik: Bukatu, jaso, eta "Triki traka.... Ganbarara"

Zortzi-bederatzi haur iristen direnean igotzen dira ganbarara.

Psikomotrizitate gelan:

Iskanbila txikiak sortzen dira, batek trizikloa nahi duela eta besteak ere (Miguel A. dabil orain Danieli kendu nahian).

10:00 Ibon dator bere amarekin eta: "Ama, vete, agur, ven pronto" eta gustura gelditzen da.

Daniel ez dago pozik, berriz ere negarrez ari da.

Itxituran dabilta; oihalekin tapatzen dute eta etxea egitea gustuko dute.

Psikomotrizitate gelako atea irekita dago eta trizikloan bueltaka ibiltzen dira.

Negar dexente: Daniel eta Maider ez daude pozik; Danielek katarroa dauka.

10:15 Jasotzera!

Piszinan: Ura edan, gailetak jan et abestu egin dute. Ondo parte hartu dute.

10:55 Ludotekan: Ipuina kontatzen die Begoñak eta atenzioa jarriz entzun dute. Ondoren telebistatik ikusten dute ipuina (2 urteko 2 geletako haurrak elkartuta).

11:00 Angel etorri da amarekin. Orain ari da "egokitzapena" egiten, oso gutxi etorri delako.

Minutu batzuetan ondo egon dira (7 bat minutun) baina mugitzen hasi dira batzuk eta zutik jartzen.

Andereñoek, ipuina jarrai arazten laguntzen dute, hitzak errepikatuz, mugitzen direnak bere lekura eramanez, txikiena besoetan hartuz, abestuz, txalo eginez.

Bi geletako bi urteko haurrak elkartuta egin dituzten jarduerak

. Gosaria

. Abestu

. Patioan ibili

. Ludotekan

11:10 Ander dator aitarekin; haur hau ere oso gutxi etorri da oraindano arte.

Momentu honetan Anderren aita eta Angelen ama gela barruan daude, eserita.

11:20 Aitak, "vamos a comprar algo y nos vemos, eh!" Anderrek telefonoa hartzen du.

Espazio guztietan, txoko guztietan dabilta: mahaian gometxak jartzen, plastilina lantzen, enkaje eta eraikuntzak egiten, piszinan.

Angel eta Ander lasai daude, plastilinarekin dabilta. Bitartean, Irati eskailera garbitzen ari da (paper batekin).

11:25 Aipatutako aita eta ama joaten dira.

11:40 Lasaiago dabilta momentu honetan.

Gaur Maiderrek ez du gauza handirik behar negarrez hasteko, norbaitek ukitzea nahikoa du.

Pablo inguratu zaio "mimoak" egitera eta negarrez erantzuten du (ez du nahi).

11:50 Angelen ama eta Anderren aita itzultzen dira (ondo egon dira bi umeak).

Jaso eta kanpoko piszinara (hallera) ateratzen dira agurtu eta, batzuk etxera eta besteak jangelara joateko.

Naiara eta Ibon etxera joaten dira bazkaltzera baina, arratsaldean berriro etortzen dira.

Jangelan gelditzen dira: Maider, Sara eta Adrian R.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3); Telefonoa (4)	-			-		2	2		2			-		-
Piszinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)		1	1	1			1							
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)		1 2				1 2	1 2	1 2	1 2		1 2			
Ipuina (1); Abestiak (2); Pianoa (3)									1	1	1		1	
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3); Enkastratuak (4)		2 4				4	4	4		2	2 4		4	
Arbela			+	+										
Margoketa (1); Plastilina (2); Gometzak (3)		3	2 3		2 3	3	2 3	2 3		2 3	2		3	
Jaso			+											

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	-	1 2	-	-	1 2	1 2	1 2	1 2	1 2	1 2	1 2	-	1 2	-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)														
Koltxonetak (saltoak, txiribueltak)						+								
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)						1								
Uztaia (1); Baloi Handia (2)														
Oih. (1); Ispilua (2)								1						
Horma/Barrak														
Itxituran						+		+					+	
Jaso							+	+		+			+	

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEAK: U R T A R R I L A O T S A I L A

IKASLEAK/EGUNAK	11	16
Adrian G.	-	9:35 - 12:00
Adrian R.	-	9:00 - 16:30
Ander	-	-
Angel	-	-
Daniel	9:15 - 11:25	9:00 - 12:00
Eric	-	9:00 - 12:00
Ibon	10:15 - 12:00	10:30 - 12:00
Iñigo	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Irati	9:30 - 12:00	9:20 - 12:00
Maidier	-	10:05 - 16:30
Miguel A.	9:25 - 12:00	9:30 - 12:00
Naiara	9:20 - 12:00	-
Pablo	9:15 - 12:00	9:10 - 12:00
Sara	-	11:00 - 16:30

2001/I/11

9:00 Iñigo ari da andereñoarekin puzzleak egiten. Barizela pasatzen ari omen dira eta haur gutxiago etorri dira egun hauetan.

9:20 Naiara bere ahizparekin etorri da; gaur geldituko da jangelan ama etxean egongo ez delako. Ahizpak "almoada azala" eta "txupetea" ekarri ditu, almoada azala behar-beharrezkoa izaten duela esanez.

9:25 Miguel A. amarekin etorri da eta honela despeditzen du: "Vete a buscar un patín".

Trenarekin: Margarik Naiararekin egiten du "nor etorri den eta ez den"-aren errepassoa.

9:30 Ganbarara joateko prestatzen dira.

Naiarak marrazkia erakutsiz: ¡mira que he hecho!

9:35 Komunera eramaten ditu pixa egitera.

10:05 Irati eta Naiara haserretu egin dira eta Margarik laguntzen die bata besteari muxu eman arte.

Danborradarako prestaketak hasi dituzte.

10:15 Ibon amarekin: "ama vete, agur".

10:25 Zapatilak jantzi eta behera joaten dira.

10:30 Pizinan hartzen dituzte ogia eta ura eta patiora ateratzen dira gaur, eguraldi on xamarra dagoenez.

Patio bueltan txirristan, eskailerak gora eta behera, korrika dabilta.

11:20 Gelan sartu eta Daniel, Pablo, Ibon, Irati eta Naiara ipuinak hartu eta ikusten hasi dira. "Txano Gorritxorena" nahi dute. Denak jartzen dira eserita **abestia** eta **ipuina** entzuteko (Iñigori kostatzen zaio eserita egotea).

Danborradako kantak.

Uztaiarena ondo jarraitzen dute.

11:25 Danielen ama etorri da umearen bila eta marrazkiak erakutsi nahi dizkio. Amak galdetzen dio: ¿qué tal te lo has pasado?. D-ek: Bien. Gustura zegoen eta negarrez doa.

11:30 Miguel A-ek abestia eskatzen dio Margariri eta Pablok ere. Besteak plastilinarekin ari diren bitartean Pablo eta Miguel A.-i kantari ari da andereñoa.

Ibon segituan jartzen da urduri zerbait nahi badu eta lortzen ez badu, kosta egiten zaio konpartitzea.

Pablok danborradaren mugimenduak eskuekin jarraitzen ditu.

11:55 Jaso eta kanpoko piztinara atera dira.

Naiarak: “**jasotzera**” eta maindirea eramaten du etxera.

Oharrak

- . Espazioetan konfiantza handiagoarekin mugitzen dira, dena probatuz.
- . Alfonbran eserita lehengo hilean baino hobeto daude.
- . Miguel A.-i diferentzia nabaritzen diot, Margarirengana gehiago hurbiltzen da eta atentzio gehiago jartzen du.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3); Telefonoa (4)	-	-	-	-		-		4	1 3	-				-
Piztinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)														
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)														
Ipuina (1); Abestiak (2); Pianoa (3)					1 2		1 2	1 2	1 2		1 2*	1 2	1 2	
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3); Enkastratuak (4)								2						
Arbela							+	+						
Margoketa (1); Plastilina (2); Gometxak (3)					1		2	1 2	2			1 2	1 2	
Jaso												+		

* = Ez du ezer esaten baina atentzioa jartzen du

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	-	-	-	-	1 2	-	2	1 2		-	2	2	1	-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)									2			2		
Koltxonetak (saltoak, txiribueltak)									+		+	+	+	
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)														
Uztaia (1); Baloi Handia (2)					2			2			2			
Oih. (1); Ispilua (2)														
Horma/Barrak														
Itxituran														
Jaso							+							

2001/I/19

San Sebastian bezperan Danborrada ospatzen

10:30 Prestatzen ari dira, janzten eta urduri daude; pixkanaka ia denek nahi dute jantzi eta danborra jotzen hasten dira.

11:30 Kanpoko piszinara ateratzen dira eta han hasten dira kontzentratzen gela guztietako haurrak. Gurasoak ere iristen ari dira.

Batzuk izugarrizko ahalegina egiten dute jotzen, ad. Ibonek; Eric, aldiz, beldurtu egin da eta negarrez hasi.

2001/II/16

9:20 Irati etorri da bere amarekin eta segundo batzuetan sartu ez sartu ibili ondoren, arazorik gabe gelditzen da gelan.

Margarik komentatzen dit aldatu egin dutela Psikomotrizitate gelara joateko ordua; orain arte 9:30 igotzen ziren eta orain, ordu horretan beste gela bateko umeak joaten direla lehenengo orduan eta hauek geroago. M-ik dio aldaketa nabaritzen dutela eta luze egiten zaiela gora joan arte. Orain, gehienak etortzen direnean kolektiba (talde ekintza) egiten dute (10ak aldera).

Atzo, psikomotrizitateko gelan Irati eta Maider oihalekin tapatuta omen zeuden goxo-goxo. I., trizikloarekin omen zebilen eta bat-batean, nesken buru gainetik pasa nahi omen zuen. Harrituta dago andereñoa, horrelakorik ez baitzaio inoiz gertatu eta dio, I. izanda oraindik harrituago, esaten baitu, ume hau nahiko heldua dela.

9:00etatik 10:00etarako Saioa

Aktibitate desberdinetan eta gelako txoko guztiak daude martxan. Batzuk etxean, besteak alfonbran, beste batzuk plastikan, ...

10:00 Jaso gauzak eta ipuina kontatuko dugu.

Irati eta Pablo berehala eseri dira eta zain daude, entzuteko prest. Denak biltzen ditu eta "Elena eta Tommy mendira" **ipuina** kontatzen hasten da Margari.

Iñigok ez du kasu handirik egiten.

Momentu batean Maider sartzen da eta eten egin behar izan du.

Daniel, Irati, Pablok entzuten dute; gainontzekoek, ez hainbeste. Eric-ek errepikatzen du eeeeeeeee.... Adrian G-ek alde egiten du, gainontzekoak alfonbran mantentzen dira (5 minutu).

Abestia

Iñigok M-ren ondoan egon nahi du denbora guztian (5 minutu).

10:10 Gailetak banatzen ditu.

Iñigok errepikatzen du: "**gaileta nahi dut**", "**ura nahi dut**".

10:15 Txamarrak jantzi dituzte eta piszinaan ogia eta patatak jan, pixa egin eta patiora atera dira.

Patioan korrika, txirristan, iskanbilaren bat izan dute Ibon eta Iñigok; Ibonek dio Iñigok jo egin duela.

11:15 Ganbarara igo gara, psikomotrizitate gelara. Oinetakoak kendu, trizikloak, kotxeak, oihalak etab. hartu dituzte.

Eric: **“Txano gorritxo dut izena”**

Maider: Nire ondoan eserita dago.

Pablok: Denbora dezente darama etzanda: lurrean, koltxonetan... Orain hartu du trizikloa.

Adrian G.: Nahiko ondo ikusten dut, asko nabaritzen zaio azken egunetik, kontrol handiagoa dauka.

Maider: Abesten ari da: **“Uztaiak gora gora...”** Kanta osoa daki.

Miguel A.: Negarrez.

11:40 Jasotzera!. **“Tori Mari”** errepikatzen du Iñigok.

“Land Roverra” abestu dute uztaiak erabiliz.

Iratik abesten du.

Iñigo eta Adrian R-ek ez dute parte hartzen, gainontzekoak bai.

11:45 Oinetakoak jantzi eta behera. Gelan sartu gabe, piztzean abestu eta etxera. Doaz batzuk; Sara, Adrian R. eta Maider jangelara joango dira.

Arauk

- . Garrasirik ez
- . Kotxeak koltxoneta gainean ezin dira ibili

Autonomia

Gehienek marrazteko orriak hartu dituzte, izena jartzeko Margariri eman eta margotu dutenean, marrazkia bere lekuan utzi dute (Adrian R-k ez du jasotzen).

Orriak ekartzen dizkidate Irati eta Eric-ek euren izena jartzeko esanez (keinu bat egiten diet andereñoari emateko esanez).

Elkarrekintza momentuak

- . Sarak Pablo tapatzen du oihalekin, ondoren Iratirengana doa eta berdin egiten dio.

Oharrak

- . Iñigok margo beltza bakarrik hartzen du; beste bat zergatik ez duen hartzen esanda ere, margo beltzaren bila ibiltzen da. M-ik beste bat hartzera gonbidatzen du.
- . Eric-ek mukiak dituela segituan esaten du eta kentzeko eskatzen dio Margariri.

Ideiak

Gurasoekin harreman estua izatearen beharra, ikastetxean lantzen dituzten hainbat ohitura, arau, muga eta umeen garapen globala lortzeko prozesuan egunero egiten dituzten jardueren

ezagutza ezinbestekoa da. Gurasoek andereñoen lana ulertu eta ahal den neurrian, etxean ere kontuan hartu ditzaten, besteak beste, atentzioa jartzea, hizkuntza, umeari eskaintzen dioten dedikazioa nola landu-hezi, muga batzuk nola ezarri, detaile minimoek duten garrantzia komentatu eta gurasoekin planifikatzea komenigarria-beharrezkoa iruditzen zait.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3); Telefonoa (4)			-	-	2 3 4					-		-		-
Piszinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)		1 2			1 2	1		1	1		1 2		1	
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)						1 2		1 2			1 2			
Ipuina (1); Abestiak (2); Pianoa (3)					1 2			2	2					
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3); Enkastratuak (4)		2 3			2	2		2					3	
Arbela														
Margoketa (1); Plastilina (2); Gometxak (3)	1 2	1			1 2	1		1 2	1 2		1		1 2	
Jaso					+	+					+			

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	1 2	2	-	-	2	2	2	2	2		2	-	2	1 2
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)													1	
Koltxonetak (saltoak, txiribueltak)					+	+		+			+			+
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)									2	2				
Uztaia (1); Baloi Handia (2)													2	
Oihalak (1); Ispilua (2)									1	1	1 2		1	1
Horma/Barrak														
Itxituran														
Jaso								+	+				+	

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEA: MARTXOA

IKASLEAK/ EGUNAK	9	30
Adrian G.	9:25 - 12:00	9:00 - 12:00
Adrian R.	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30
Ander	11:00 - 12:00	10:45 - 12:00
Angel	11:10 - 12:00	
Daniel	-	9:00 - 12:00
Eric	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
Ibon	10:15 - 12:00	10:15 - 12:00
Iñigo	-	9:00 - 12:00
Irati	9:30 - 12:00	-
Maidier	9:40 - 16:30	9:45 - 16:30
Miguel A.	9:10 -12:00	9:35 -12:00
Naiara	9:10 - 12:00 14:30 - 16:30	9:40 - 12:00 14:30 - 16:30
Pablo	9:10 - 12:00	-
Sara	-	-

2001/III/09

9:00 Eric eta Adrian R. sartzen dira.

Naiara argazkiak ikusten ari da (danborradakoak), denbora luzean.

9:25 Adrian G. amarekin dator, amak agurtzen du eta gustura gelditzen da.

9:30 Naiarak argazkiak ikusten jarraitzen du eta esplikazioak ematen (“Éste está casi dormido” eta parra egiten du). Disfrutatu egiten du.

Adrian G. orria eta margoa hartu eta niregana hurbiltzen da “**agur**” esanez, gero, Margariren bila doa korrika: “Mai”, “Mai” deituz.

9:40 Maidier amarekin dator eta negarrez hasi da amak aldegiterrakoan eta Margarik besoetan hartzen du, leihotik ama ikusten duenean, berriro negarrez hasi da. Andereñoak esaten dit, normalean, ez duela negarrik egiten. Margarik musika jarri du, asko gustatzen baitzaio Maiderri.

Naiarak: “**Beida ze polita**” esaten du eta Maiderri: ¿por qué lloras?, luego vendrá la ama y te traerá un globo”.

Eric, oso pozik agertzen da beti.

9:50 **Gaietak** jaten dituzte alfonbran eserita.

10:00 Momentu honetan 8 haur daude alfonbran eserita. Miguel A.saiatzen da kotxeari telak ondo jartzen eta Eric-i bere bisera jartzen dio.

10:10 Nork nahi du ura? Bat-batean Maidier izan ezik denak piszinara eta zubira datoz.

Ipuina kontatuko dugu, esaten die andereñoak. Aurrena Adrian R. aldatzen du, Pablo eta Irati aulkian gainean jarri eta begira gelditzen dira.

10:15 Ibon etorri da eta lasai gelditzen da. Naiarak “**Amonaren etxera noa...**” abesten du.

10:20 Alfonbran daude denak, kostata. Miguel A. mahaiaren azpiko apalean gordetzen da maiz. Haur batzuk besoetan hartu eta berak jarri behar ditu eserita.

Abestia: “Arantxan, arantxan txa, guli guli...”

Ipuina. “Elena eta Tabi mendian”.

Irati, Naiara, Pablo, Ibon, Eric, Maider eta Adrian R-ek ipuina entzuten dute; bitartean, Miguel A. eta Adrian G. bere gisa dabilta.

Margarik: Orain egingo dugu **“lotan”** pixka bat: “Bat eta bi Naiara alolo”; “Bat eta bi Eric alolo”; horrela egiten du bakoitzarekin.

Etzanda 6 haur daude, musika klasikoa jartzen du andereñoak eta banan-banan ukitzen ditu: Eric, Maider, Naiara, Irati, Pablo eta Ibon. Entzun musika!, orain eseri. Oso momentu lasaia izan da.

“Trenarena” . Non dago Margari? Hemen dago eta horrela bakoitzarekin; etorri diren umeekin. Ander? **Ez da etorri;** laster etorriko da...

Momentu esanguratsuak

- Sarrera
- Alfonbra
- Marrazkia
- Ipuina, abestiak, “lotan” musika klasikoa entzunez, tren
- Gailetak jaten

10:30 Ura edan dute eta patiora joan aurretik, ogia banatzen die piszinan.

Patioan, korrika, jolasean, txirristan... ibili dira.

11:10 Psikomotrizitate gelara igo dira.

Abestiak: “Land Roverra”, “Uztaiak gora gora”, “Begira begira...”

Ibon eta Maider asko saiatzen dira “Land Roverra”-ren mugimenduak ondo egiten.

11:45 Gauzak jaso, galtzerdiak eta oinetakoak jantzi eta behera jaitsi dira.

12:00 Txamarrak jantzi, agurtu eta etxera. Maider, Adrian R. eta Sara jangelan gelditzen dira. Arratsaldetan jangelako haur horiez gain: Naiara ia beti etortzen omen da, Adrian G. ia egunero eta Naiara ere gehienetan.

Elkarrekintza momentuak

. Eric-ek Ibon ukituz: **“maite, maite, maite”** (Ibon negarrez zegoen).

. Maider negarrez dago eta Adrian R-ek **muxu ematen dio**; bitartean, Miguel A-ek garrasika: “basta, bata”.

. Batak besteari **izenez deitu** eta momentu batzuetan objektuak partekatzen dituzte eta elkarrekin jolasean ibili dira. Maider eta Pablo elkarrekin **ipuinak “kontatzen”** aritu dira.

Naiara eta Irati elkarrekin **bueltak ematen** zebiltzala Pablo inguratu zaie eta hirurak ibili dira.

Oharrak

Andereñoak:

. **Aurreikusten du** gertatu daitekeena (Adb.: Batak besteari mina eman aurretik ikusten du gertatu behar duena) eta neurriak hartzen ditu: ahotsa aldatu, keinuak egin, ...

. **Iskanbilen ondorioak ulertu ditzaten**, maiz ematen ditu esplikazioak.

Haurrak:

. **Ohitzen ari dira** psikomotrizitate gelara bigarren orduan joaten. Eguneroko errutinen aldaketak (hasieran, 9:30etan joaten ziren) "alteratu" egiten ditu haurrak.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3); Telefonoa (4)	1	1	-	-	-	+	1	-	1		1			-
Piszinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)	1 2	1 3				2 3					2		1 3	
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)	1 2										1			
Ipuina (1); Abestiak (2); Pianoa (3)	1					1			1	1	1	1	1	
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3); Enkastratuak (4); Albuma (5)		4				4			4	4	4	4	4 5	4
Arbela											+			
Margoketa (1); Plastilina (2); Gometzak (3)	1*								1*			1*	3	
Jaso		+					+							

1* = Argizariak

. Ipuinen erabilera gehitzen ari da = Elkarrekintza areagotzen ari den seinale ere?

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	2	2	1	1	-	1	1	-	1	1	2	1	2	-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)	2		1											
Koltxonetak (saltoak, txiribueltak)			+							+		+	+	
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)									2	2		2		
Uztaia (1); Baloi Handia (2)			1 2			1 2	1		1	1	1 2	1		
Oih. (1); Ispilua (2)														
Horma/Barrak														
Itxituran			+	+		+					+			
Jaso														

Triziklo, kotxeak, uztaiak, baloi handian eta itxiturak arrakasta daukate

2001/III/30

9:00 Bost ikasle momentu honetan batera, marrazki bat egiten.

Iñigok, gaur erabili du lehenengo aldiz beltza ez den margo bat; **arrosa** aukeratu du eta dio: “**el rosa**”.

Eric-ek euskaraz: **Hemen!**

Margarik: Miguel A-ek okerrera egin du, ez du nahi amak aldegitia: “no te vayas ama”. Bere aita operatu behar zutela esan omen zioten eta jangelan bazkaltzen geldituko zela eta pentsatzen dut horregatik izan dela (behar bada, azkarregi esan diote?; apirilaren bukaeran egin behar omen diote ebakuntza)

9:20 **Eguraldia** lantzen hasi dira: euria, eguzkia, ostartea...

9:25 D-ek esaten du: “Adrian R. ha hecho caca” eta jarraian beste batzuegatik ere. Margarik komentatzen dit, Danielek, nola aldatzen dituen ikusi nahi izaten duela eta horregatik esaten duela “éste se ha hecho caca”.

9:35 Miguel A. bere amari erantsita, hanketatik heltzen dio joan ez dadin.

Adrian R. ipuinarekin, irudian agertzen dena imitatzen “ttapa ttipi aulkian esertzen da” eta saltoak, eseri eta errepresentatzen dabil. Margari! deitzen dio. Oso gustura ikusten da ipuinarekin.

Miguel A. amaren magalean eserita: “la mama se va pero viene enseguida”. “No”.

Psikomotrizitate gelara goaz. Adrian-ek “agur” esaten dit.

M.A-ek: “Quiero irme a mi casa”. Besteak nola dabiltzan begiratzen duen bitartean.

Ama joan denean M-ik hartzen du besoetan, negarrez gelditzen da; lurrean etzaten da. Bost minutu pasa ditu horrela.

Margariri galdetzen diot ea berriro aldatu duten psikomotrizitate gelara joateko ordua eta esaten dit baietz, Miguel Angelengatik; goian, errazago entretenitzen omen da eta gelan baino hobeto pasatzen omen du.

Paperezko abioiak egin ditu andereñoak eta botatzen dituenean, Miguel A. “entretenua” ikusten da; negar egiteari utzi dio.

Maidere nire ondoan eseri da eta esaten dit: “se ha roto sólo el avión”.

M-k esaten dit, Maiderre, joera duela helduen ondoan eseri eta egoteko eta helduarekin dantza egiteko (behar bada, etxean horrela egiten du?).

10:20 “**Ura, ura**” eskatzen hasten dira. Oinetakoak jantzi eta behera goaz.

10:30 Pixa egin, ura edan, ogia jan eta patiora doaz.

11:05 Alfonbran eseri eta **abestiak**:

“Krokodriarena”. Parte hartzen dute.

Anderrek ez du abestia ezagutzen berandu etortzen delako.

“Astoa ikusi nuen”. Oso gustura daude abesten.

Ipuinak: "Naroarena" eta "Txori txikia"

11:15 Eguraldia lantzen. Gaur eguzkia ala dago? Kuku egiten du eguzkiak? Eric-ek jartzen du ikurra, oso gustura.

M-k: Orain, "alolo" eta entzun **musika!**. Etzanda jartzen dira eta andereñoak, bizkarretik pasatzen dizkie eskuak.

Naiarak **gailetak** ekarri ditu eta banatzen hasten da andereñoa imitatuz. "**Nahi duzu?**".

Trena: Bakoitza etorri den edo ez den jakiteko. Non dago Iñigo? "**Hemen nago**".

Argizarizko margoekin marrazkia egiten hasi dira: Naiara, Mainer, Adrian R.; margotzen ari diren bitartean elkarrekin hitz egiten dute. Margotu ondoren ipuin bat hartu dute.

11:40 Ura edaten dute eta andereñoak gauzak jasotzen hasteko esaten die.

Azken minutu hauetan asko mugitzen hasi dira eta aldatzen.

11:45 Kanpoko piztina: abestu, berokiak jantzi, agurrak eta batzuek etxera eta besteak jangelara doaz.

Irakaslearen papera

- . Bakoitza agurtu eta harrera beroa egin
- . Beraiekin egon.
- . Iskanbilak aurreikusi eta hainbat momentutan ekidin.
- . Iskanbilak ematen direnean, soluzioan lagundu.
- . Proposamenak egin: begira, hemen daukazu kotxea, trizikloa, musika, ...

Arauk

- . Mahai gainean ez margotu.
- . Bolatxoak piztina barruan ibili, ez kanpora bota.
- . Garrasirik ez egin gelan.

Elkarrekintza momentuak

. Jarduera zuzenduetatik aparte, momentu batzuetan elkarrekin mahaian egoteko gai dira, margotuz, hitz egiten duten bitartean eta ondoren ipuin bat hartu eta "kontaketa" hasten dira.

Oharrak

- . Danborrada eguneko eta beste ume batzuen argazkiekin egindako **albumak** izugarri gustatzen zaizkie.
- . **Etxeko txokoan** oso gutxi ibiltzen dira, objektuak hartzeko ez bada.
- . Askoz hobeto daude **alfonbrako** jardueretan: atentzioa jartzen dute, dakitena esaten dute, keinuz jarraitzen dute. Naiara, Ibon, Eric eta Danielek ondo jarraitzen dute; Adrian G-ek ere diferentzia handia egin du azkeneko ikusi nuenetik. Anderrek ez dauka martxa hartua baina, ume lasaia da eta begiratu/behatu egiten du besteek egiten dutena.

Ideiak-inpresioak: Ondorio partzialak

. Milaka **detaile** dira uneoro zaintzen dituztenak, mundu konplexu eta aberats bat da. Adibidez, Danielen interesa Margarik umeak alda ditzan, Miguel A-ek egin duen atzera pausoa, Adrian R-en “ipuinaren errepresentazioa eta poza”...

. **Ziurtasuna** ematen dien pertsonaren beharra (andereñoa). Miguel A-ek, berari bakarrik begiratzen dio eta lasaitzen du ama joan eta gaizki sentitzen denean.

. **Bolatxo/pilotaz** betetako **pizina** oso ondo datorkie gelan.

. Egokitzapen-aldiko prozesuan gertatzen diren **atzerapausoak**: saioen ordu aldaketa, asistentziaren erregularitasun ezak, etxeko gertakizunak, eta abarren eragina.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3); Telefonoa (4)				-	1	1	1		-				-	-
Pizinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)	2	2	2		2	2	2	2		2	2	2		
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)	1 2	1 2					1 2				1 2			
Ipuina (1); Abestiak (2); Pianoa (3)	1	1												
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3); Erkas. (4); Albuma (5)						2		1* 2						
Arbela														
Margoketa (1); Plastilina (2); Gometxak (3)	1 2	1	1		1 2	1	1 2*	1		1	1	1		
Jaso							+							

* = Iñigok “katalejua” egin du eta handik begira dabil. Ibonek “txorizoak” oso ondo egiten ditu

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	1	1	-	-	2	1	1	2	-	1	-	1	-	-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)														
Koltxonetak (saltoak, txiribuelak)						+		+		+		+		
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)					1					1		1		
Uztaia (1); Baloi Handia (2)														
Oih. (1); Ispilua (2)														
Horma/Barrak														
Itxituran						+				+		+		
Jaso								+						

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEA: MAIATZA

IKASLEAK/EGUNAK	4	22
ADRIAN G.	9:00- 12:00	9:00 - 12:00
ADRIAN R.	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30
ANDER	-	10:45 - 12:00
ANGEL	11:00 - 12:00	11:00 - 12:00
DANIEL	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
ERIC	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
IBON	10:05 - 12:00	9:20 - 12:00
IÑIGO	9:00 - 12:45 (bazkalduta)	9:00 - 12:00
IRATI	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
MAIDER	9:00 - 16:30	9:00 - 16:30
MIGUEL A.	9:00 -12:00	9:00 -12:00
NAIARA	9:00 - 16:30	9:00 - 12:00
PABLO	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00
SARA	10:15 - 16:30	10:00 - 16:30

2001/V/04

9:30 Gelan sartu naizenean kasu egiten didate: Naiarak, Mainerrek, Iratik.

Naiarak: "No quiero comer en el comedor, me quiero quedar a comer en casa".

Iratik: "Yo me voy a quedar a comer aquí".

N-k: No, tú vas a comer en tu casa.

Psikomotrizitate gelara, berriro lehen orduan joaten hasi direnetik andereñoak dio hobeto doakiela.

*Margarik: Sei mutil oraindik fardelarekin: Eric, Daniel, Angel, Ander, Adrian G. eta Adrian R.
Jangelan gelditzen direnak: Naiara, Iñigo, Maider, Adrian R. eta Sara.
Miguel A. Orain berriro arazorik gabe gelditzen da baina....
Iratik: La otra Margari no viene (esan omen zuen niregatik)*

Iskanbila txikiak sortzen dira Miguel A., Adrian R. eta Eric-en artean.

Maidere nire inguruan dabil, zer egiten dudan galdetuz eta ondoko aulkian eserita.

10:10 Naiarak: "**Benga, jaso**", zapatilak hartu eta gelara sartzen ditu.

10:15 Andereñoak: Jaso gauzak, mesedez!

Oinetakoak jantzi, pixa egin eta behera jaitsi dira; han, ura edan, ogia banatu eta patiora.

Patioan nahiko beren gisa ibili dira, momentu batzuetan iskanbilaren bat, batez ere, Miguel A. eta Eric-en artean.

Maidere etorri da guregana momentu batean.

Iñigok aitona ikusi du kalean eta negarrez hasi da.

11:10 Hiru haur daude etxean: Eric, Sara eta Daniel.

Miguel A. plastilinarekin; Irati eta Naiara ipuinarekin; Pablo, Ibon, Adrian G., Naiara eta Irati gometxak itsasten eta margotzen; Adrian R. eta Maider enkajableekin.

Egoera nahastu egin da momentu batetik bestera: Miguel A. eta Ibon joka hasi dira, Maider, Sara eta Naiara negarrez.

Sarak oso ondo zaintzen du panpina.

Irati argazkiak begiratzen dago.

Miguel A. ipuinarekin.

Margarik: *Dena batean gertatzen da* (iskanbilarengatik).

Angel: Bere amarekin egon da gelan pixka bat eta orain ondo dabil.

Maider eta Sara elkarrekin, panpinak zaintzen.

Momentu bat izan da **ezinezkoa** zena zein zer egiten ari zen kontrolatzea (tentsio handikoa).

Miguel A-ek Margariri erakusten dio egin duen eraikuntza.

Iratik izenak zenbatu ditu (**1, 2, 3, 4, ... 9, euskaraz**)

11:40 Alfonbran biltzen dira **ipuina** kontatzeko.

Abestiak: "Kote, kote, kote..."

Irati eta Adrian G., besteak eserita dauden bitartean, kotxeekin paseatzen dabilta.

Naiarak: Ya no soy tu amiga (Iratiri), estoy enfadada contigo.

Ipuina. Kostatzen da denak eserita edukitzea; andereñoa altxa eta hiru eraman behar izan ditu eskutik hartuta. Ezin du lortu haurrak lasai egotea. Ezin du ipuina kontatu

Eguraldia (laminak): Gaur "eguzkia kukuka" ari da.

Miguel A. piszinaan sartu da, mugitzen hasten dira gainontzekoak ere.

Oso zaila egiten da eta andereñoak ez du ipuina kontatu. Piszinako bolatxoak botatzen hasten dira. Oso **momentu zailak** dira kontrolatu ahal izateko.

Iñigo, jangelan gelditu behar zuen horrekin, oso arraroa egon da goiz guztian.

Oharrak - Ondorio partzialak

. Eguneroko erritmotik ateratzeak (aldaketa txikienak ere) **aztoratu** egiten ditu haurrak: egun batean jangelan gelditu beharra, aitona kalean ikustea, patiotik bueltakoan ama bat etorri denez, jarraian alfonbran ez esertzeak... **Garrantzizkoa egiten da haur txiki hauekin jarraibide edo pauta berdinak mantentzea.**

. Pixkanaka lortzen dira aurrerapausoak. Euren artean sortzen diren gatazkak, ad., batak bestea jo egiten duenean, beste batzuk beldurtu egiten dira eta negarrez hasten direnean, **erabat aldatzen da giroa** eta egoera horri buelta ematea kosta egiten da.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3); Telefonoa (4)	1		-		(B)	(B)	(B)		1 4	1 2				2 (B)
Piszinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)				1	1		1		1			1 2	1 2	
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)									1 2					
Ipuina (1); Abestiak (2); Pianoa (3)	1			1					1		1	1		1
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3); Enkastratuak (4); Albuma (5)		4				4			5	4	1* 4		1 4	
Arbela														
Margoketa (1); Plastilina (2); Gometxak (3)	1	2		2 3			2 3	1 2	3	2 3				
Jaso													+	

1* = Katalejoak/betaurrekoak egin ditu ahokatzeko piezekin; (B): barruan

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	2	-	-	-	-	2	2	2	2	2	2	2	2	-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)														
Koltxonetak (saltoak, txiribuelak)														
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)						1								
Uztaia (1); Balo Handia (2)						2								
Oihalak (1); Ispilua (2)										1 2*				
Horma/Barrak											+			
Itxituran						+	+				+			
Jaso										+				

2* = "Así estoy más guapa"

2001/V/22

9:40 Psikomotrizitate gelan daude eta trizikloetan, koltxonetan, oihalekin paseatzen, etzan eta "lo"...

Margarik komentatzen dizkit egun hauetako gorabeherak eta bilakaera eta nola, orain dela egun gutxi, irteera egin zutela "Gladys Enea" parkera. Bi urteko bi geletako haurrekin joan omen ziren.

Arratsaldetan 11 haur etortzen omen dira jada.

10:10 Pablok Daniel estaltzen du oihal batekin eta hau, geldi-geldi dago. Bitartean Ibon, baloi handi baten gainean eserita saltoka dabil.

Iskanbila batzuk Miguel A. tartean delarik. Miguel A-ek denak uxatzen ditu bere ingurutik.

Ura edatera, mukiak kendu, ...

10:15 Pixa egin eta jasotzen hasiko gara. Eskaileretan dabilta gora eta behera: Eric, Daniel, Miguel A., Ibon.

10:20 Ibonek Iñigori koska egin dio eta Iratiri harramaska, bat-batean, nahiko iskanbila sortu da. Jaitsi eta patiora joango gara oso eguraldi ederra dago-eta.

11:10 Gelara. Alfonbran eseri eta **“trena”**-ren jarduera egiten dute zein etorri den eta ez den esanez. M-ik: Naiara! Eta berak: **Hemen!**

Abestia eta **ipuina**: “Txano gorritxo”. Denek jarraitzen dute ipuina (Miguel A. belauniko eta gainontzekoak eserita). Nire azken eguneko behaketan baino askoz ere hobeto daude gaur. Ipuinaren erdialdera Miguel A. mugitzen hasten da baina berriro integratzen da.

10-12 minutu pasa dituzte abestia eta ipuinarekin. Eric eta Adrian G. pizina barruan dabilta erabat bukatu aurretik.

11:25 Haur bakoitza , berak aukeratzen duen txokora doa.

Iñigo eta Danielek etxeko atean jartzen dute koltxoia besteei pasatzen ez uzteko.

11:30 Sara bere amarekin dator betiko “zinta” pusketa aurpegian jarriz.

Maidar oso ume baketsua da eta bere gisa aritzen da edo egoten da askotan, orain, margotzen ari da patxada handiz.

Iñigo, Pablo eta Daniel etxe barruan dabilta. Haserre txikiak.

11:50 “Hall-era”.

Iritziak

Positiboki baloratzen ditu haurren hainbat jokabide, adibidez, berak, jasotzera! esaten duenean eta ia denak “gelako pizinan” sartzen direnean. Bere interpretazioa da, ‘emozionatu’ egiten direla hori entzuten dutenean eta ez, ez dutela jaso nahi.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Etxean: Kotxeak (1); Koltxonetak (2); Panpinak (3); Telefonoa (4)					1 2			1 2		1 3			1	
Pizinan (1); Txirr. (2); Ispilua (3)	2 3	2	2 3	2		2	2	2		2	2		1	
Zubia: Igo (1); Azpitik pasa (2)				1 2	1						1 2	1 2		
Ipuina (1); Abestiak (2); Pianoa (3)						1			1	1		1		1
Alfonbran: Eraikuntzak (1); Puzzleak (2); Kotxeak (3); Enkas. (4); Albuma (5)						4			2	4	4			
Arbela		+		+										
Margoketa (1); Plastilina (2); Gometxak (3)	1 2	2	2 3	2		3	1 2 3			1				1 3
Jaso											+	+	*	

* Naiarak: “Dena dena jaso”

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Kotxeak (1); Trizikloak (2)	2	2	-	-	2	2	2	2		1			2	-
Krokodiloak (1); Zaldiak (2)														
Koltxonetak (saltoak, txiribueltak)						+	+				+			
Dantza (1); Abestiak (2); Korroa (3)						1								
Uztaia (1); Baloi Handia (2)	2						2							
Oih. (1); Ispilua (2); Hartza (3)					1 3	1	1		1			1		
Horma/Barrak							+				+		+	
Itxituran						+								
Jaso														

2001/VI/22

IKASTURTE BUKAERAKO FESTA

9:00 Hamar ume daude gelan. Margotzen ari dira: Naiara, Irati, Adrian R. eta Adrian G.; besteak, plastilinarekin, piszinaan eta etxean dabilta.

9:30 Psikomotrizitate gela. Gaur ez dituzte oinetakoak kendu, 10etan hasten baita festa.

Ibon 10etan etorri da eta gaurko festarako **trena** eta **gaztelu** bat muntatzen ari direla ikusi duenean, oso urduri jarri da eta negarrez hasi da. Ez zaizkio aldaketak gustatzen, oso urduri jartzen da. Margarik lasaitzen du, hitz eginez eta ukituz.

Angel eta Ander ere 10etan etorri dira.

10:10 Sara etorri da eta Maider musukatzen du.

10:00 - 12:00 Festarako prestatu dira. **Trena, tobogana, gaztelua** daude patioan eta denek ibili nahi dute trenean baina, beste geletako umeekin elkartu direnean, galduta sentitu dira batzuk.

12:00 Karpetak banatu dizkie andereñoak eta bakoitza despeditu du, besarkatuz.

DATORREN IKASTURTERA BEGIRA

Margarik: Gela honetan ikasturte honetan, "B" ereduko 6 haur izan dira eta "D" ereduko 7. Datorren ikasturterako bereiztu egingo ditugu eta nik "D" ereduko gela hartuko dut. Ez dakigunez ziur haur kopurua eta zein ereduetakoak izango diren, ezin dugu jakin, oraingoz, irailetik aurrera gela osatuko duten haurrak nola banatuko ditugun.

Honek esan nahi du, Margarik, D ereduko bere 7 haurrak hartuko dituela baina, oraindik, ez dakite, Marta andereñoaren D ereduko 11 hurrekin edo matrikulatu diren 7 haur berriekin osatuko duten taldea.

IKUSPEGI OROKORRAK ANDEREÑOAREN HITZETAN

Ekainaren 27rako gelditzen gara elkarrizketa hau egiteko eta, horretarako, aztertu nahi ditudan puntuen berri ematen diot.

1.-ESPAZIOEI BURUZKO IRITZIAK

Gela, psikomotrizitate gela eta pizina/hall-a

Argitasun aldetik, 3 espazioak, argitsuak eta alaiak ikusten dira.

Ziurtasun aldetik, psikomotrizitate gelatik kanpoko "pasiloa" kontu pixka batekin ibiltzekoa da arriskua badagoelako -barrote berde baxu xamarrak dauzka-. **Gela**, ziurra ikusten dut.

Pizina, berriz, ondo dago 2 urteko umeentzat bakarrik izango balitz, baina, 3 urtekoek ere erabili behar dutenez, **isiltasun** aldetik-eta, arazoak izaten dira batzuetan.

Gela, 2 urteko 14 haur direla kontuan hartuz **txikia** ikusten dut. **Funtzionaltasun** aldetik ez diot arazo handirik ikusten baina ez da **hain goxoa**.

Eraikin honetan 2 urteko haurren 2 gela eta 3 urtekoen bat egoteak bere abantailak baditu, adb., **elkarrekintzarako** (bestela oraindik isolatuago egongo lirateke).

Komunak

Ez dira erosoak, txikienez, dena irekia egingo nuke. Gela barruan umeak aldatzeak badu beraiantzat "magia", asko gustatzen baitzaie "zer egin duten ikustea". Komunak ondoan eta umeak bakarrik joateko moduan beharko genituzke, hau da, gelatik irekia, bertatik dena ikusteko moduan. Dena den, estruktura osoa aldatu beharko litzateke horretarako. Haurtzaindegiko modua ikusiko nuke eroso eta egokiagoa.

Jangela

Txikiak dira, 2. solairura igo behar dute eta nire iritiz, azkarregi jan behar dute, ondoren, 3-4-5 urteko haurrak korrika etortzen direlako (azeleratu arazi egiten dituzte). Beste mundu bat da gelako heziketarekin konparatuz. Presio handia sortzen du jangelako dinamika ikusteak. Zergatik presionatu behar ditut nik haurrak jangelan?

Logela

Psikomotrizitate gela da, koltxoi batzuk botatzen dituzte eta erabilgarritasun desberdinak umeak bereganatzea ez da erraza. Goizero psikomotrizitate gela bezala erabiltzen dugu eta bertan, korrika, saltoka, garrasika ibiltzen dira eta gero, bazkaldu ondoren "lotarako" erabiltzea, zaila da eurentzat. Zarata izugarria entzuten da bertatik, handiek ludotekan egoten baitira eta soinu handia ateratzen dute. Zaila iruditzen zait baldintza horiekin ondo lo egitea.

Patia

Ikasturte hasierarako ez da izan egokia. Plan bat dago Udaletxetik eta egin zuten beharren balorazio bat. Ekipamendu aldetik itsusia, arriskutsua eta aterpearen falta handia sumatzen dugu.

2.- ESPAZIO DESBERDINETAKO EGOKITZAPEN PROZESUA

. **Gela** eta beste espazioetako egokitzapen prozesua **poliki-poliki** egin da eta ez zaie gehiegi kostatu.

. **Gela** barruko espazioetan, haur bakoitzaren izateko moduaren arabera, batean edo bestean hobeto mugitzen dira. Haur lasaien kasuan, **alfonbran**, adibidez, oso ondo egoten dira ipuinekin, argazki albumekin: Maider, Irati eta Naiarak ipuinak kontatzen ikasi dute; **etxe** barruan, koltxonetarekin ere lasai egoten dira.

Garrantzi handia dauka niretzat espazio bakoitzak. Euren adierazten didate zer nahi duten, nola nahi duten. Adibidez, **atea irekia edo itxia** edukitzeak ere aldatzen du giroa.

Gela barruan, ikasturte hasieran, pertsona helduaren bila ibiltzen ziren, ikasturte amaierako aldiz, espazioak ondo ezagutzen dituzte eta eroso ikusten ditut. Oraindik ere helduen beharra dute eta **'begiradarekin'** bilatzen zaituzte, baina, esparru itxietan ondo mugitzen dira.

. **Psikomotrizitate gelan** eta gelako **piszina** gustura ikusten ditut. Toki zabalaten gutxiago.

Espazioen antolaketarekin nola sentitzen zara

Orokorrean, espazioen antolaketarekin gustura nago. **Alfonbraren** txokoa itxi egin nahi nuen baina, ez dut izan babesik. **Ipuin** txokoa, atea kontrolatzeko, aurrez aurre izateko aldatu egingo nuke. **Umeak aldatzeko**, mahaia nahiago nuke bestaldera jarri, -orain pareta aldera dago- gainontzeko umeak kontrolatzeko arazoa bai daukat eta harraska eta iturria bertarago edukitzeko ere.

Administrazioari **aterpea** eta **kanpoko "tramankuluak"** bi urteko umeentzako **egokituak** izatea eskatuko nioke.

3.- EGOKITZAPEN-ALDIA

Lehen hiruhilabetea **gogorra** egin zaigu denoi, niri (ametsak egiten nituen erori egiten zitzaizkidala umeak) eta baita umei ere.

Haurrak **ulertzea** eta **nireganatzea** kostatu egin zitzaidan hasieran; **errazena**, berriz, **umeak onartzea** izan da.

Gurasoak, batere problemarik gabe edukiko nituzke gelan "umearen onerako bada".

Euren parte-hartze handiagoa izateko **prestatu** egin behar ditugu. Oro har, parte hartzeko prest daudela sentitu dut.

Hizkuntza eta **psikomotrizitate** aldetik izugarri hobetu dute. Atzera pausoak ere izan dira ume batzuen kasuan, etxeko gorabeherengatik.

Laguntza eskatuko nuke gela barrurako, lehenengo hiruhilabeterako. Badirudi, klaustroan erabaki zela bigarren astetik aurrera **laguntza puntuala** ematea (pertsonala murriztuko dutelako, behar bada); baina, bi urteko haurrak dira, oso txikiak dira, eta prozesua egoki bat eraman ahal izateko, laguntza gehiago beharko genuke.

JASOTAKO INPRESIOAK-ONDORIOAK

- . Bi urteko haurrak dira, txikiak dira eta **denbora eman behar zaie**.
- . **Babesteko sen** nabarmena azaltzen du. Oso presente dauka **detaile eta elementu guztiak haurrei egokitzeko beharra** (“eskolatzeko giro” tipikoan ez erortzea).
- . Umeak diren bezala **onartzeko** joera (zein naiz ni ume bat aldatzeko?)
- . **Guraso, laguntzaile eta behatzaileak** ez dute molestatzen gela barruan, alderantziz.
- . Nahiz eta ondoko gela bezain “egituratua” ez egon berea, **lehentasuna** ematen dio **umeak zaindu, babesa eta maitasuna emateari**.

Liburu baten erreferentzia egiten dit: “MAESTROS ¿FORMAR O TRANSFORMAR?” Egilea: Henri Bassis

Margari andereñoak **talde ekintzako saioetan** erabiltzen dituen hainbat **estrategia** azaltzen ditugu ondoren **taula** moduan daukaten garrantziagatik:

ESTRATEGIAK - JOLASAK

<p>Taldearen atentzioa galdu eta berriro erakarri nahi denean erabili daitezkenak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Amasketa ezberdinak - Belarriak, begiak... estali - Ekarritako gauzak - Txiribiton-Txiribiton - Batak bestea molestatzen duenean andereñoak umea bere ondoan jartzea - Keinuak eginez abestu: eskuez, hankaz, buruaz... - Abestiak erabili - Andereñoak, ondo dauden umeen izenak esatea - Andereñoa 1etik 10arte kontaktzen hastea - Andereñoa keinuak egiten hasten da eta pixkanaka- pixkanaka ahots tonu oso baxuaz hitz egiten du - "Txokolatero molinero" jokoa egitea - "Hotsen imitazioak": soportea erakutsiz - Haurra bera balore bezala erabili - Ahotsa aldatu, abestuz hitz egin - Aldez aurretik beraiek baliabidea aukeratzea - "Eskuak gora, eskuak behera" abestia - Pailazokeriak egitera animatu - Beraiei interesatzen zaien ipuinez galdetu eta kontatu - Elkarrizketa nahastu bada, txandaketa egin - Txalo egitea - Talde osoari parte hartu araztea - Ahots intentsitate eta abiadura aldaketa - Antzerkian bi haur ez dira ados jartzen eta haserretu egiten dira paper berdina egin nahi dutelako. Irakasleak moztu egiten du aktibitate hori eta soluzioa aurkitzen laguntzen die
---	--

<p>Taldearen atentzioa galdu eta berriro erakarri nahi denean erabili daitezkeenak (jarraipena)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gelan saltoka, edo mahai gainera igotzen hasten direnean irakasleak esaten die: Hau zer da? Ganbara da. Hona igo daiteke? - Txokoak jaso eta gero “korro-korroan” abesten du irakasleak, taldeek jasotzen duten neurrian dantza honetara engantxatuz joan daitezzen - Mugitzeko esaldi eginak erabili. Adib.: bat, bi, hiru txokoetara (entonazioaz baliatuz gehiago indartu mezua) - Haurra korroan dabilenean eta molestatzen ari denean, lekuz aldatu hobeto ikusiko duela edo hobeto egongo dela esanez - Lan bat bukatutakoan “dun-dun-dun... (izena) txapeldun” - Txokoak banatzeko era: egunero arduradunak hiru lagun edo izendatzen ditu taldeetako txartel ezberdinetara joateko; ondoren, arduradunak nondik nora joango diren esaten die. Taldeak banatutakoan txokoetara joaten dira - Ipuina bukatu eta eguraldia esateko tokiz edo eszenatokiz aldatu. Adib. buelta eman - Eguraldia adierazteko irratia batetik arituko balira bezala egingo dute mikrofono bat emanez: “1, 2, 3 klik irratia piztu” - Umei banan-banan patxadaz begiratzea - Irakasleak, komunikazioa sortarazteko erabiltzen duen jarrera begiratzuz, gero, estrategia zabalduena eta askotan bakarra: <ol style="list-style-type: none"> 1.- Galdera-erantzuna 2.- Hitz erdiak 3.- Keinuak 4.- Begiradak 5.- Itxoite aktiboa - Umea erakarri (galde iezaiozu...) Adib.: Mikel jolasetik kanpo eta Anek behatza altxatu. Mikel, galde iezaiozu Aneri ea zer esan nahi dugun
<p>Talde ekintzan arlo ezberdinak lantzeko erabili daitezkeenak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Etxearen garbiketa - Buruaz ariketa batzuk - Lepoaren erlaxazioa - Esku jolasak - Beso eta sorbaldeen erlaxazioa - Eulia - Hegazkina - Lurrean etzanda - Konpletiba lantzen - Kontsektiba - Baldintza - Alfonbran eseriz joatea - Soporte batzuk erabiltzea: gelako materiala, beste batzuk: marrazkiak, egunkariak, ... - Errekreatik sartutakoan jolastokian gertatutako gauzak kontatzea - Gaietak banatzerakoan, txokoen kritika egitea - Atzo zer egin zenuten? Honetaz hitz egiteko irakasleak irudi batzuk ateratzen ditu poltsikotik - Irakasleak galdetzen dio haur bati ea gaur txintxo egon diren (kritika beraien artean) - Irakasleak garbi eduki behar du: atentzio-zentroa erne dagoen taldea dela eta ez atzean dauden bi ume - Hizpide bidezko kokapena: “Ni Xabierren ondoan nago, ni Mikelen eta Saioaren artean nago” (umea berkokapenaren jabe egiteko)

<p>Beste batzuk talde ekintzak hasteko</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Antzezpen ezberdinak - Ipuin kontaketa (irudimenezkoak) - Ekintza ezberdinak imitatu -Egun batean egiten duguna - Zer gertatuko litzateke? - Trena - Pilota pasatzea - Andereñoa jarraitzea - Animaliena - Erraldoiak - ipotxak - Din-don, gometxak erabiltzea - Ekarritako gauza erabili, elkarriketa sortu - Haurrak zenbatzea - Etorri ez direnak aipatu, gaia luzatuz - Ekarki dutena zer den asmatu - Egun on esanez, umeak banan-banan begiratu - Txandaren zozketa egitea - Ipurdia lurrean, kokapenez jabetu (noren...?) - Abestiak, leloak, olerkiak, ... - Prest gaude? Galdetu - Taldeek txokoak jasotzen bukatzen duten neurrian irakasleak oso ondo egin dutela esaten die - Ez da inposizio era erabiltzen baizik eta elkarrekin egingo den lanera gonbidatu. Adib. Jasoko dugu...? - Txokoetako saioa bukatu ondoren, arduradunak kritika egingo du - Irakasleak denak atzetik dituela "kilometro bat oinez" abestuz, txango bat egitera goaz. Zer sartuko dugu motxilan? (irudimenez beteko dugu) - Hitz egiteko behatza altxarazi - Haur bat haserre sartzen da gelara. Irakasleak bereganatzen du, zer gertatu zaion galdetzen dio eta kilimak egiten dizkio "erremedio" moduan. Ondoren, haserrealdia pasatu zaion galdetzen dio - Errepikaketa sistematikoki. Esaldiak osorik esateko joera landu, lagunduz bada ere
--	--

AUTONOMIA-OHITUREN TAULAK

2000/2001 Ikasturtea

1. HIRUHILABETEA

ELIKADURAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITURAK (JANGELAN BAZKALTZEN DUTENEN DATUAK)

1-3 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe		I								I				E
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin		I								I				E
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	I	E					I	I	I	I	E	E	E	E
Mahai ingurua txukun uzten ikasi														I
Lurra txukun uzten ikasi														
Mastekatzen eta irensten ikasi		I												E
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi										I				E
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi														
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi		I												
Jana banatu bitartean itxoiten ikasi														
Denetatik jaten ikasi														E
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi														
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi		I								I				E
Elikagaiak eskuekin mozten ikasi, koska egin gabe														
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi														
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi														
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitu														
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi														

(E) Egiten du; (I) Ikasten ari da

1. HIRUHILABETEA

DESKANTSUAREKIN (AUTONOMIA) ZERIKUSIA DUTEN OHITUREN HEZIKETA

1-3 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Zapatak kentzen ikasi	S	S			S	S	S	I	E	I	E	E	E	E
Galtzerdiak kentzen ikasi	S	S			S	S	S	I	E	I	E	E	E	E
Berokia eta txaketa kentzen ikasi					I	S	S	I	E	I	E	E	E	E
Arropak kentzen lagundu (besoak, hankak, etab. altxatuz)		B			I	I	I	I	B	I	E	E	E	E
Berokia, txaketa, poltsa, mantala... zintzilikatzen ikasi					S	I	I		B	E	B	E	B	B
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak erantzten lagundu							I		E	I	B	E	S	B
Janzteko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi														
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin										B		B		
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi		E								E				E
Bakarrik lo egiten ikasi		I												S
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi		E								E				S
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi		E								E				
Norberaren arropak tolestatzen lagundu														

(E) Egiten du; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (B) Batzuetan egiten du

1. HIRUHILABETEA

HIGIENEAREKIN (AUTONOMIA) ZERIKUSIA DUTEN OHITUREN HEZIKETA

2-4 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi							E	E	E	S	E	E	E	E
Eskuak garbitzen ikasi														
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu					E	E	E	E	E	E	E	E	E	E
Eskuak lehortzen ikasi									S					
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	B	I			E	E	B	B	E	E	B	S	S	S
Esfinterrak kontrolatzen ikasi							E	E	E	B	E	E	E	S
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu		B			E	E	E	S	E	E	B	E	S	B
Zikina edo garbia dagoela jakin														S
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi						I	S	I	I	I	I	S	S	I

(E) Egiten du; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (B) Batzuetan egiten du

2. – 3. HIRUHILABETEA

(JANGELAN BAZKALTZEN DUTEN HAURRAK)

ELIKADURAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITURAK

1-3 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	Adrian R.	Maidier	Sara
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe	I	B	B
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin	I	I	B
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	B	B	B
Mahai ingurua txukun uzten ikasi	I	I	
Lurra txukun uzten ikasi		I	I
Mastekatzen eta irensten ikasi	I	B	B
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi	B	B	B
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi	I	I	I
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi			
Jana banatu bitartean itxoiten ikasi	I	B	I
Denetatik jaten ikasi	I	I	B
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi			
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi	I	I	B
Elikagaiak eskuekin mozten ikasi, koska egin gabe		I	
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi			
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi		I	I
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitzen ikasi		I	I
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi	I		

(B) Egiten du; (I) Ikasten ari da; (S) Saiatzen da

2. – 3. HIRUHILABETEA

DESKANTSUAREKIN (AUTONOMIA) ZERIKUSIA DUTEN OHITUREN HEZIKETA

1-3 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Zapatak kentzen ikasi							S		S	S	S	S	S	S
Galtzerdiak kentzen ikasi									S	S		S	S	S
Berokia eta txaketa kentzen ikasi							S		S	S	S	S	S	S
Janzten ikasi									I			S		S
Berokia, txaketa, poltsa, mantala... zintzilikatzen ikasi					S		S		T	S	S	S	S	S
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak eranzten lagundu										T		E	S	
Janzteko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi					T							E		T
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin					I				T			E	T	
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi	E	S			E	E	E		E	E	S	E	E	E
Bakarrik lo egiten ikasi	E	E			E	T	S	E	E	E	T	S T	E	E
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi	E	E			E	E	E	E	E	E	I	E	E	E
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi	E	E			E	E	E	E	E	E	T	E	E	E
Norberaren arropak tolestatzen lagundu														

(E) Egiten du; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (T) Tarteka egiten du

2. – 3. HIRUHILABETEA

HIGIENEAREKIN (AUTONOMIA) ZERIKUSIA DUTEN OHITUREN HEZIKETA

2-4 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	A.G.	A.R.	And	Ang	D	E	Ib	Iñ	Ir	Ma	M.A.	N	P	S
Orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi							E	E	E	E	E	E	E	E
Eskuak garbitzen ikasi									E	E	S	E	E	E
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu					E		E	E	E	E	E	E	E	E
Eskuak lehortzen ikasi						S	S		E	S	S	E	S	S
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	E	E			E	E	E	T	T	E	T	E	E	T
Esfinterrak kontrolatzen ikasi							E	E	E	E	E	E	E	E
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu	E	E			E	E		E	E	E	E	E	E	E
Zikina edo garbia dagoela jakin														
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi										S		S	S	T

(E) Egiten du; (S) Saiatzen da; (I) Ikasten ari da; (T) Tarteka egiten du

2001-02 IKASTURTEA**ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEA: IRAILA**

IKASLEAK/EGUNAK	11	13	20	28
ADRIAN R.	oporretan	oporretan	oporretan	oporretan
ANDER N.	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	oporretan	oporretan
ANDONI	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00-12:00	9:00 - 12:00
ANDREA	-	9:00 - 12:00	9:00-12:00	9:00 - 12:00
DANIEL	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00-12:00	9:00 - 12:00
IÑIGO	9:00 - 12:00	9:15 - 12:00	9:00-12:00	9:00 - 12:00
ION ANDER	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	gaixorik	9:00 - 12:00
IRATI	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00-12:00	9:00 - 12:00
MAIDER	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00-12:00	9:00 - 12:00
MAIKOL	-	-	9:00-12:00	9:00 - 11:15
MIGUEL A.	9:00 -12:00	9:00 -12:00	9:00-12:00	9:45 - 12:00
NAHIA LI	9:00 - 12:00	9:00 - 12:00	9:00-12:00	9:00 - 12:00

IKASTETXEKO GELA KOPURUA ETA EREDUAK

HAURREN URTEAK	GELAK - LERROAK	EREDUAK
BI	3	2 "D" - 1 "B"
HIRU	3	2 "D" - 1 "B"
LAU	3	2 "D" - 1 "B"
BOST	3	2 "D" - 1 "B"

IKASLEAK	JAIOTZE DATA
ADRIAN R.	1998-XII-10
ANDER N.	1998-X-25
ANDONI	1998-XI-12
ANDREA	1998-III-07
DANIEL	1998-XI-09
IÑIGO	1998-I-26
ION ANDER	1998-II-23
IRATI	1998-VIII-06
MAIDER	1998-X-10
MAIKOL	1998-VI-25
MIGUEL A.	1998-V-24
NAHIA LI	1998-VIII-22

2001/IX/11

9:00 Hamar haur daude momentu honetan, 5 aurreko ikasturtekoak eta 5 berriak. Gela hau "D" ereduari matrikulatu diren haurrek osatzen dute. Joan den urteko 8 ikasle "B" ereduari gelara pasa dira.

Marisa dago denei harrera egiten ate aurrean.

Aurten beste eraikinean gaude; hemen, 3 - 4 eta 5 urteko haurren gelak daude eta joan den urtekoaren ondoan dago. Eraikina bera sendoagoa dirudi.

Miguel A. ezpata batekin, ate ondoan dago, ez du gelara sartu nahi. Margarik besoetan hartzen du eta sartu du baina, oso bere gisa dabil.

Irati plastilina egiten ari da.

Berriak galdu samarrak dabilta eta Margari andereñoak eszenatokian eseri eta globoak banatzen dizkie.

Oso harrera ona egin didate: Lurdes zuzendariak, Marisa andereñoak eta Margari gelako andereñoak.

Iñigo (atzo izan zen umeen lehenengo eguna) aitonarekin egon omen zen gelan goiz osoan eta gaur negar pixka bat egin du baina, momentu honetan, margotzen ari da eta ondo ikusten da.

Maidar Iñigorekin batera, mahaian ari da margotzen.

Gela txokoetan antolatuta dago.

9:20 Margari, Irati eta beste haur batekin puzzleak egiten ari dira.

Txinatar bat matrikulatu da eta gela honetan egongo da, adoptatua da.

Iñigok marrazkia bere lekuan jaso nahi du.

Adrian R. oporretan dago, beraz, joan den urteko 6 haur daude gaur.

Miguel A. puzzle batekin ari da.

Etxean, goiko solairura igo eta jaitsi dabilta.

Margarik komentatzen dit 12 haur baldin badira denetara, 2 talde egingo dituela txokoetako eta, 13 badira, hiru egin beharko dituela.

Momentuz, talde bateko haurrak "txakurrak" izango dira eta beste taldekoak "elefanteak".

M-k: Ez garrasirik egin, "no se chilla" (txinatarrari).

Miguel A. Iratirekin hizketan ari da puzzleak egiten dituen bitartean.

Maidar ipuinarekin, patxadan.

9:30 Pixa egitera! eta batzuk komunera joaten dira.

Jon Ander da etxetik etorri den ume berria, ez daki zer egin; andereñoak, pixa egin nahi duen galdetzen dio eta ezetz erantzuten du.

Miguel A-ek: ¿Cómo se hace esto?. Puzzle batekin asmatu ezinean dabil; Margarik laguntzen dio eta pozik agertzen da lortu duenean.



Jon Anderrek triste begiratzen nau.

Marisa sartzen da momenturen batean laguntza eskainiz.

Nabarmena da Margarik ematen dien konfiantza. Pixa egitera eraman ditu batzuk eta Iñigok ate aurrean jarrita dio: "Yo te espero aquí; le espero a Margari aquí".

Ondoren, leihotik sartzen da gelako etxera.

9:35 Alfonbran: Zenbat urte dituzu Irati? **Hiru** erantzuten du eta horrela jarraitzen du guztiekin. Oraindik batzuk 2 urte dituzte

II	III	IIII	IZENAK:	Adrian	2
				Ander	3
					
2	3	4			

Miguel A-ek puzzleekin jarraitzen du.

Haur bat telefonoz deika ari da, amatxori eta aitatxori. Niri ematen dit telefonoa eskura: "mira aita", gero, amari "deitzen" dio eta: mira mi ama -nik telefonoa belarrian jartzea nahi du.

M-ik: Zure amatxok izena du? Horrela denekin.

9:45 Ipuina. "Basoan...."

Miguel A. ez da hurbiltzen, puzzleekin jarraitzen du.

Ander telefonoarekin ateratzen da etxetik. Berriri amari deika eta telefono eta guzti doa taldera.

Nahia Li taldean dago bere ipuinarekin. Iñigo globoarekin.

"Txano gorritxo":

Zaila egiten da ipuinarekin denak arreta jartzea.

Ander ez da hurbiltzen, bere gisa dabil.

Miguel A. izan ezik joan den urteko haur guztiak Margarirekin daude, ipuina entzuten, Nahia Li, Andrea eta Jon Ander ere.

Abestiak: Ipuinari lotuak, eta denak txaloka hasten dira.

"Lara, lara, lara"; "Agur amona".

Daniel ere, plastilina egiten ari den tokitik mugitzen da.

9:55 Irati ipuina kontatzen ari da eta Nahia Li eta Andrea entzuten. Segituan alde egiten du Andreak eta Nahia Lik eserita jarraitzen du. Bat-batean Nahia Lik: "Siéntate" (ipuina kontatu nahi dio).

10:00 Gaietak jango ditugu.

Ander ekar arazi nahi du gaietak jan ditzan baina ez du nahi.

Sugusak ere banatzen dizkie.

Etxe barruan apal bat dago eta han etzanda jarri da Ander.

10:03 Pixa egitera eta ondoren patioa ateratzen dira.

Hasieran, eraikin 'berriko' patioan ibili dira baina haur "handiak" atera direnean lehengo urteko patioa joan gara. Gela aldaketa dela-eta nahastuta ikusten dira. Mainerrek dio lehengo gelara joan nahi duela eta beste batzuk ere galdetzen dute ea zergatik dauden gela berrian.

İnigori kaka atera zaio eta aldatzera joan da Margari. Mainerrek galdetzen dit ea zer pasa zaion İnigori eta: "A mí la caca me sale en el water". Margarik esaten dit Mainerrek arazoak dauzkala kaka egiterakoan, ez zaiola erraz ateratzen eta negarrez egoten dela egin behar duen bakoitzean; denetatik probatu omen dute etxean.

Anderrek kasketa handia harrapatu du "eskopeta" ekarri duelako eta gelan utzi behar izan duelako; ia jolastokiko denbora osoa negarrez pasa du.

Miguel A-ek "ezpata" ekarri du baina, honek badaki utzi egin behar duela.

Margarirena datoz lehengo urteko bereak izandako haurrak: Eric, Naiara...

11:30 Gelara sartu eta **hiztegia** lantzen hasi dira: arraia, txoria...

Arbelean: Andoni, Ander, Nahia Li.

Irati, Miguel A., Andrea puzzleekin, besteak Margarirekin "motorra" egiten.

Gaur, Maikol (kubatarra), Adrian R. eta beste berri bat falta dira.

11:45 Musika jarri du andereñoak (Pirritx eta Porrotx) eta dantzan dabilta eszenatokian. Andoni ere inguratu da eta dantzan dabil. Miguel A. eta Ander izan ezik beste guztiek parte hartzen dute.

11:55 Pailazok esaten dutena entzuten jarraitzen dute 8ak.

Txaketak jantzi eta etxera doaz, agurtu ondoren.

Marisa andereñoa bukaeran sartzen da.

İnigok gelatik ateratzerakoan dio: "Me he hecho cacas pero ya no huele".

Inpresioak

. Patiorako andereño gehiagoren beharra ikusten dut hasera honetan, aldaketa dezente daudelako bai espazio eta bai andereño aldetik. Joan den urteko Martaren haur batzuk negarrez aritu dira denbora dezentean.

. Zaila izan zait behaketa lana egitea, elementu berri asko baitaude.

. Zaila da "kontrolatzea", gauza asko gertatzen baitira momentu berean: batzuk erori, beste batzuei jo egin dietela, komunera behartzen direla, "kaotiko" xamarra iruditu zait patioko saioa..

Nire ustez, Marisak gehiago egon beharko luke patioko saioetan edo 2 urtekoen geletako norbait, ezin baita erantzun egoera guztiei eta behar bada, denbora gehiegi da patioan ordubete pasatxoko saioa?.

2001/IX/13

9:00 Agurrak bakoitzari.

Irati zuzenean puzzleetara doa, Daniel ere, Andrea plastilinara, Maider eserita, Andoni, Jon Ander, Nahia Li eta Miguel A. etxean sartu dira eta etzanda daude mahian azpian.

9:15 Iñigo bere amarekin sartzen da gelara, amari helduta.

Musika jarrita dago eta Maider eta Jon Ander dantzan dabilta, elkarri begiratu.

Iñigok ez du ama joaterik nahi.

Mimoak egiten dizkie Margarik.

Arbelera joan da Miguel A.

Iñigo, ama joan denean negarrez gelditu da. Nahia Lik musikaren bolumena igotzen du eta barrez dago, gustura.

TXOKOAK

- **IPUIN TXOKOA (mahai handi bat eta eszenatokia)**
- **JOLASAK (puzzle, ahokatzekoak, ... beste materialak)**
- **ETXEA (bi solairukoa)**
- **MARGOTEGIA (mahai bat plastilina egiteko, bigarren bat margotzeko)**

Maiderek: ¿Qué estás haciendo? galdetzen dit. Idazten. Berak: Idazten ¿qué? “Maider dantzan dabil” esaten diot. Berak: “Sí estoy contenta porque mi hermana ha venido a casa y está en la cuna”. Oso pozik agertzen da.

Anderri harramaska egin dio norbaitek eta niregana etorri da eta ondoan eseri.

9:30 Andrea eta Daniel margotzen ari dira, Maider ere, Jon Ander gometsekin. Miguel A., Nahia Li, Ander N. eta Andoni puzzle eta ahokatzekoekin dabilta. Iñigo isildu da baina bazter batean dago, atzo ez omen zen etorri beherakoa zeukalako eta gaur ere badirudi “azetona” usaina daukala, komentatzen dit Margarik.

9:45 Iñigo hasi da hizketan eta etxean dabil, Miguel A. eta Andrearekin. Andrea panpina zaintzen eta ohea egiten ari da.

Iñigok: ¿Me das pegatinas? galdetzen dio andereñoari (gometxak). Esertzen da gometxak eransteke asmoarekin.

Haur berri guztiak badirudi haurtzaindegitik datozela, badirudi etxetik ez datorrela inor

9:55 Maiderek Takoloren musika eskatzen du eta niri: “Baila conmigo”.

10:00 Psikomotrizitate gelara joan aurretik bere aurrean biltzen ditu denak “Triki traka...” eginez.

2. Solairuan

Zapatak kendu eta abesti batekin ematen dio saioari hasiera Margarik: “hanka punttan, hanka punttan joango gara: bat, bi hiru”.

Materiala: espalderak, koltxoi handia, kuboak, tarima, baloiak, koltxonetak, aulkiak, musika...

Maiderekin izan ezik denak saltoka, pilotekin, etxeak egiten, espalderetan gora eta salto...

Maiderekin: ¿Dónde está Takolo? Ahora le oigo, musikarekin erne dago, orain zaldia hartzen du baina berriro nire ondora dator.

Psikomotrizitateko saioa, librea izaten da.

Andreak: ¿En euskara hablas? Y Margari? y Maider?

10:20 Denak dabilta gustura, aktibitate handia dago gelan.

Giza gorputzaren irudi handia dago eta bertan sartzen dira.

M-rierekin dabilta saltoak egiten, “**orain ni**” esanez. Maiderekin eserita jarraitzen du.

<p>Margarik: <i>Jon Anderrek ulermen ona du euskaraz, izeba batek euskaraz hitz egiten dio eta harreman handia dauka berarekin.</i></p>

10:30 Mozorrotu dira eta oihalekin tapatu lo egiteko.

Andonik: Yo no quiero tapar. Iñigok: A dormir. Joan A-ek: Yo no quiero, baina, Margari imitatuz oihala hartu eta tapatzen da.

Maiderekin: Irati tapatzen du, oso ongi zaintzen du, orain Margariri heldu eta berak tapatzea nahi du. Ispiluaren aurrean barrez hasi da orain; M-ik “pirata” moduan jarri baitio painolo bat.

Andreak: Quiero un vestido.

Ia denak ispilu aurrean jarri dira.

Miguel A. eta Iñigo izan ezik beste denak nahi dute mozorrotu. Iñigo oihalak jasotzen hasi da: “Porque así no se duerme”. Miguel A. bere gisa dabil.

Berriak izateko ondo ikusten dira

M-k: Miguel A. oso bere gisa ibiltzen da edo besteak “molestatzen”.

10:40 Iñigo eta Jon A. hasi dira jan nahi dutela adieraziz eta zapatak jantzi nahian.

10:45 Jasoko dugu dena eta patiora joango gara. Maiderekin: **Bai**. Ekarri orain oihalak, tolestatu egin behar ditugu eta.

Zapatak jantzi eta “Lotan nago” abestu dute, lasaitzeko. Behera doaz. Andreak laguntzen du gauzak jasotzen.

11:10 Patiora iritsi direnerako denbora joan da: jaso, oinetakoak jantzi, kantatu, pixa egin, ura edan eta gailetak jan.

Iñigo denbora guztian: Quiero irme con mi mamá.

11:45 Gelara itzultzen dira. **Borobilean** jarri eta **Abestia**: "Ikusi ikusian..." Ander M. izan ezik beste denek hartzen dute parte. Ander, etxeko leiho batetik maindirea astintzen dabil.

Miguel A. besteei bultzaka eta "handiak" jo egin dutela esanez, negarrez eta oso bere gisa.

Orain, abestiekin badirudi besteengana hurbildu nahian dabilela. Ander M. ere, eskutik helduta dakar Margarik, baina kostata, ez da gelditzen.

Goizeko saioen laburpena

9:00 Agurrak

Bakoitzak nahi duen txokora

10:00 Gauzak jaso eta psikomotrizitate gelara.

11:10 Komunera, gailetak jan eta patiora

11:45 Abestiak eta agurra

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Etxeko txokoan: Kojina (1); Panpinak (2); Etzanda (3); Telefonia (4); Ohea (5); Txakurra (6); Maindirea (7)	-	1 7	1	2 5**	+	+	+			-	+	+
Ipuin Txokoan: Ipuinak (1); Abestiak (2); Dantza (3); Argazki albuma (4)									2 3			
Jolas Txokoan: Enkajableak (1); Puzzleak (2);		1 2	1 2	2	2			1 2			1 2	2
Margotegi Txokoan: Marrazketa/Margoketa (1); Plastilina (2); Gometak (3)		3	1 3	1 2	1 2 3	3	1-3	1 3	1 2 3			1 3
Arbela: Idazketa (1); Margoketa (2)		2	2	1							2	2
Jaso												

* = Gora eta behera, etxean sartu-irtenean 5 ** = Ohea egiten

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Dantzan(1); Abesten (2); Korrika-saltoka (3)	-			1						-		
Zaldiak			+	+	+							
Koltxonetak (1); Txiribueltak Horma/ Barrak (2)								2			2	2
Pelotak		+					+		+			
Oihalak (1); Ispilua (2)		1	2	1 2	2		2	2	2			1
Jaso				+								

2001/IX/20

9:15 Maider eta Nahia Li izan ezik, beste guztiak etxean sartu irteeran dabilta.

Nahia Li puzzleak egiten ari da.

Maikol gaur irribarretsu sartu da, Cubatik etorria da eta amak dionez, han ere negar asko egiten omen zuen eskolan gelditzerakoan. Bere hirugarren eguna du eskolan ebakuntza bat egin diotelako. Margarik esaten dit "moztuta" bezala dagoela, non dagoen ondo jakingo ez balu bezala.

9:25 M-i Maikolekin puzzle bat osatzen (buruan ukituz, animoak emanaz).

Momentu honetan Irati, Miguel A., Nahia Li, Daniel eta Iñigo musika entzuten, belarria irratiaren ondoan jarrita; Andrea, berriz, eszenatokian dantzan dabil.

"Egun on lagunak zatozte gurekin" kantatzen ari dira.

"**Musika entzuten ikasten**" Margarirekin.

Maider: "Quita la música y es malo".

M-k: "Hemen 'malo'-rik ez dago"

Abestia ikasten: Maider, Daniel, Andoni, Andrea, Iñigo, Nahia Li.

Maider eta Andreak interes handia jartzen dute mugimenduak eta keinuak eginez.

9:40 Batzuk komunera doaz.

Miguel A-ek puzzleekin jarraitzen du; denbora asko pasatzen omen du horretan (animalien puzzleekin).

Andereñoak Andreaki proposatzen dio puzzleak egitea.

9:50 Argazkiak ikusten: Iñigo, Andoni. Andonik Iñigori: "Mira tú, tú". I-k: "Si"

10:00 Abestiak: "Guli guli..." (hankak gurutzatuta).

"Bazen behin krokodilo bat..." (zutik).

Miguel A. izan ezik beste denek abesten dute; berak, puzzleekin jarraitzen du.

Ipuina: "Pailazo Klown".

Miguel A. ez da hurbiltzen.

Irati, ipuina kontatzen hasi da.

10:15 Pixa egitera!

Miguel A. eseri eta argazkiak ikusten: "Mira, es Margari" eta ondoren Iratiri: "Así no se cuenta".

Gailetak jan bitartean **zenbakiak** lantzen dituzte: **1 - 2**.

10:25 Patiora atera dira. Miguel A. izan ezik beste denak oso ondo ibili dira. Bera, txirristan goian jarri eta beste aldetik igotzen zirenei igoera oztopatzen ibili da.

11:00 Psikomotrizitate gelara.

Saltoak, igo-jaitsi, elementuak garraiatu, korri... eta bukaeran "lo" etzanda jarrita eta ondoren "esnatu" eta behera.

11:50 Etxerako prestatzen: abestia eta agurrak.

Goizeko saioen laburpena

9:00	Harrera-agurrak
9:00 - 10:00	Txokoetan jarduera librean
10:00 - 10:25	Abestiak, ipuina Komunera Gailetak Zenbakiak
10:25 - 11:00	Patia
11:00 - 11:50	Psikomotrizitate saioa
11:50 - 12:00	Abestia eta agurrak

Arauk

- . Etxean garrasirik ez.
- . Ez da jo behar.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	AndN.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Etxeko txokoan: Kojina (1); Panpinak (2); Etzanda (3); Telefonoa (4); Ohea (5); Txakurra (6); Maindirea (7)	+	-	-	+	+	+	-	+	+	+	+	+
Ipuin Txokoan: Ipuinak (1); Abestiak (2); Dantza (3); Argazki albuma (4)	2 3			2 4	2 2	2 4		1 2	2 3		4	1 2 3
Jolas Txokoan: Enkajableak (1); Puzzleak (2);	2				2	2		2	2	2	2**	2
Margotegi Txokoan: Marrazketa/Margoketa (1); Plastilina (2); Gometxak (3)	2								3			
Arbela: Idazketa (1); Margoketa (2)	1										2	
Jaso												

* = Eskaileretan gora eta behera

** = Miguel A. 45' puzzleak egiten

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Dantzan(1); Abesten (2); Korrika-saltoka (3)	-	-	3	1 2			-		3	3		3
Zaldiak			+	+	+	+						
Koltxonetak (1); Txiribueltak Horma/Barrak (2)								2			2	2
Pelotak									+			
Oihalak (1); Ispilua (2)			2	1 2	2			2	2	1 2		1
Jaso				+								

2001/IX/28

9:15 Ipuinarekin ari dira; 8 ikasle daude: Iñigo, Nahia Li, Irati, Ion Ander, Maikol, Andoni, Andrea, Maider. Andereñoak kontatzen du eta Iratik ipuina eusten du; horrela, Margarik eskuekin ere mugimenduak egin ditzake; isil-isilik daude, oso lasai.

Iñigok niri begiratuz: “Las sillas no están bien, le dejamos una silla” ni eser nadin.

Sketch bat egiten. Gaia: “Gauzak jasotzen”. “Yo también, yo también”.

Abestia: “Klin, klan, klin, klan...”

Taldeak egiten:

. Zu “elefantea”, zu elefantea,

. Zu “txakurra”, zu txakurra, ...

Etxeko txokoa eta Jolas txokoa irekita daude

Etxean: Nahia Li, Andoni, Irati

Jolasetan: Maider, Iñigo, Andrea, Maikol, Ion A.

Margarik: *Atzo hasi ginen “txokoekin”.*
 Miguel A. *ez da oraindik etorri eta nabaritzen dela esaten dit. Atzo 10etan etorri zen eta jokaera berdinarekin jarraitzen du*

Iratik,bakarrik egin du komuneko buelta.

Irati etxeko txokotik atera eta jolasen txokora etortzen da. M-ik gogorarazten dio orain “etxean” ibili behar duela.

“Yo soy la mamá” dio Andonik.

Nahia Lik panpina tapatzen du.

Eskaileratik gora eta behera dabilta.

Andrea eta Nahia Li txakurraren “txabolan” daude oihalekin tapatuta.

9:45 Miguel A. dator bere izebarekin. “Harrituta” gelditu naiz, Gaizkaren ama baita (Martuteneko ikasle bat). Berak ere: ¿también vienes aquí? galdetu dit. Nonbait, bi ume hauen amak ahizpak dira eta Miguel A-en aita operatuta eta ospitalean dagoenez, berak ekarri du Miguel A.

Komentatzen digu: “Ayer me dijeron que había desaparecido un niño de un patio de una escuela de Loyola”. Guk ez dugula ezer entzun esaten diogu.

9:50 Nahastuta dabilta umeak, ez baitute oraindik txokoen funtzionamendua ezagutzen eta, jolastokian egon behar dutenak etxean dabilta eta, alderantziz.

9:55 Maikol, Andoni, Iñigo, Ion A. plastilinarekin, bolak eta txurroak egiten Margarirekin. Mainerrek: “Mira, yo también **borobila**” esaten dit.

Miguel A. etxe barruan, ohean etzanda dago, Irati gora eta behera, Andrea eta Nahia Li panpinarekin txabolan sartuta jarraitzen dute.


Iñigo labanarekin plastilinazko pusketak mozten.

10:00 Laster jasoko ditugu gauzak eta kalera aterako gara.

10:05 Borobilean: Musika “Egun on lagunok zatozte gurekin” -hankak gurutzatuta, marraren barruan-. Jarduera hau musikarekin eta musikarik gabe egin dute. Andrea eta Mainerrek badakite.

Orain zutik! “Bazen elefante bat”, keinuak eginez.

Miguel A-ek alde egiten du eta Margarik heldu eta besteekin jartzen du.



Zinta urdin bat dago lurrean erantsita

Elkarrizketa: “Gurasoak gogoratuz”

Iñigoren gurasoak pasteleri bat daukate eta berak, ez omen du etxean ez pastelik eta ez gozorik jaten baina, hemen, besteak bezala egiteagatik, gaileta puska bat jaten omen du nahiz eta goraka eman.

10:25 Gauzak jaso eta komuneko buelta egin ondoren patiora atera dira.

Miguel A. oso aldatuta dabil eta oso maiz etorri da Margariren bila patioan, gehienetan negarrez (Margarik mimo asko egin dizkio). Besteak, bata besteari bultzaka eta batzuk, Miguel A-i ere bultzakada batzuk eman dizkiote.

Andrea etorri zaigu: “Estamos jugando a novios”; oso gustura dabil eta lasaitasuna dauka gauzak egiteko.

Luze egon gara patioan andereño bat falta zelako eta eguraldi ederra aprobetxatuz.

11:45 Gelara. Etxera eramateko notatxo bat banatzen die (jangelakoei), “MENU”-arekin.

Datorren astetik aurrera hasiko da jangela martxan eta 3 haur izan ezik beste denak geldituko omen dira bazkaltzen. Nahia Li “orduz kanpoko” ballet-a egiten geratuko da eguerdian eta arratsaldean, denak etorriko omen dira.

Denek eraman nahi dute nota etxera eta paper bana ematen die “konformatu” daitezen..

Gaur, joan den urteko 2 urtekoen beste gelako Marta andereñoa etorri da bisitan eta goiz osoa pasa du (Urnietako ikastetxe batean omen dabil eta San Migel eguna denez, jai eguna, aprobetxatu egin du).

12:00 Etxerako prest. Mainerrek joaterakoan: “**Agur**, cierre la puerta” (niri)..

Gela ondoan (kanpoan) eserita egoten dira minutu batzuetan despeditu arte.

Arauk

. Plastilina mahai honetan.

Autonomia

. Iratik, bakarrik egin du komuneko buelta..

Elkarrekintza

Maikol, Andoni, Iñigo, Ion A. plastilinarekin ari diren bitartean hizketan.

Etxeko eskaileretan gora eta behera beren artean.

Andrea eta Nahia Li txakurraren “txabolan” daude oihalekin tapatuta.

Oharrak

Bi txoko irekitzea ea nola joaten den. Behar bada, “txartelak” (bakoitzarentzat) eta txartel handia erreferentzia bezala ondo etorriko litzateke.

30 minutu egon dira borobilean.

Txokoetan elkarrekin egoteak eta jarduerak konpartitzeak elkarrekintza sustatuko du.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Etzeko txokoan: Kojina (1); Panpinak (2); Etzanda (3); Telefonoa (4); Ohea (5); Txakurra (6); Mairidrea (7)	-	-		+			-	+			+	+
Ipuin Txokoan: Ipuinak (1); Abestiak (2); Dantza (3); Argazki albuma (4)			1 2	1 2		1 2	1 2	1 2	1 2	1 2		1 2
Jolas Txokoan: Enkajableak (1); Puzzleak (2); Plastilina (3)				2 3		2 3	2 3		2 3	2 3		
Margotegi Txokoan: Marrazketa/Margoketa (1); Gometxak (2)												
Arbela: Idazketa (1); Margoketa (2)												
Jaso												

ASISTENTZIA ORRIA - H I L A B E T E A K : U R R I A A Z A R O A

IKASLEAK/EGUNAK	10	24	7	21
ADRIAN	oporretan	oporretan	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
ANDER N.	9:00 - 12:30	9:10 - 12:30	9:00 - 12:30	-
ANDONI	10:15 - 12:30	9:05 - 12:30	9:00-12:30	9:10 - 12:30
ANDREA	9:30 - 12:30	9:00 - 12:30	9:00-12:30	9:00 - 12:30
DANIEL	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30	9:00-12:30	9:15 - 12:30
IÑIGO	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30	9:00-12:30	9:00 - 12:30
ION ANDER	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30	9:00-12:30	9:00 - 12:30
IRATI	gaixorik	9:00 - 12:30	-	9:00 - 12:30
MAIDER	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30	9:00-12:30	9:00 - 12:30
MAIKOL	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30	9:00-12:30	9:00 - 12:30
MIGUEL A.	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30	9:00-12:30	9:00 - 12:30
NAHIA LI	9:00 - 12:30	9:05 - 12:30	11:00-12:30	9:00 - 12:30

2001/X/10

9:00 Talde ekintza, borobilean.

Margarik: Maider, norekin etorri zara eskolara? M-ek: **“Amatxorekin etorri naiz eskolara”** eta horrela joaten da egiten haur bakoitzarekin.

Miguel A: “No, la amona”.

Iñigo: **“Amonarekin etorri naiz eskolara”**

Zazpi ikasle daude momentu honetan eta gaur, Maiderrek, 3 urte betetzen ditu.

Musika jartzen dute: “Egun on lagunak zatozte gurekin...” Keinuak egiten dituzte.

Miguel A. eta Ander N-ek alde egin dute.

Ipuina: “Pailazo Klown”.

Daniel gelan sartu da baina negarrez hasi da eta Marisak eramaten du. Minutu batzuetara itzultzen da.

Ama bat sartzen da gelara eta jarraian Marisa eta kontzentrazioa galdu dute haurrek.. Margari urduri jarri da eta esaten dit: “kostatzen zaienekin!”; jarraitzen dute. Ander M. jolas tokira doa eta andereñoak hartu eskutik eta borobilerara ekartzen du.

Miguel A.: “Mira Margari”.

Ez dira oso ondo egon.

9:20 Abestiak. Mainer, ekarri nahi duzun abestia.

Abesti bakoitzak bere lamina du eta atzeko aldean letra. Zutik jarri eta imintzioak eginez kantatzen dute. “Bazen behin krokodilo eta tximu bat”. Ander M. eta Danelek ez dute parte hartzen.

Nahia Lik, hankak gurutzatuta abesten du “Eguzkiarena”.

Ander N-ek ez du jarraitzen eta berarengana eramaten du Margarik.

Zer dago goian? Mainerrek: **Txakurra**. Zer dago behean? Goian-behean, hankekin egiten dute.

9:30 Orain txokoetara. Zu zer zara galdetzen die andereñoak. Nahia Lik: **elefantea**. Miguel A-ek: “**Ni txakurra**”. Bakoitzak bere txartela zintzilikatzen du lepotik eta txoko bakoitzean erreferentziazko txartel handia daukate; horrela, badakite nora joan behar duten.

Atzo, elefanteak margotegian egon ziren, beraz, gaur etxera doaz eta txakurrak etxean egon zirenez, gaur jolastokira joango dira –errotazio sistema erabiliz-. Gaur 6 txakur eta 3 elefante daude.

Iñigo puzzleekin: “Mira, ya está”.

Maikol, Iñigo, Andrea, Daniel, Ion A. eta Mainer jolastokian; Nahia Li, Miguel A. eta Ander M. etxean.

Daniel plastilina mozten ari da.

Ander M. etxetik jolastokira dator eta puzzleekin hasten da. M-k: Zu ez zara hemengoa, zuk orain etxean egon behar duzu (lagunduz)

Miguel A. eta Nahia Li elkarrekin, balkoitik begira daude.

Danielek: A comer, a comer.

Nahia Lik balkoitik niri: Tonta.

Ander N. eta Maikol puzzleekin oso entretenituta, baita Iñigo ere.

9:35 Ion A., Maikol eta Daniel plastilinarekin “txorizoak” egiten; orain, “gurpilak”. Untxia egiten du Margarik.

M-k Andreari: Zer esan dizu medikuak, katarro handia daukazula? Ezetz dio buruarekin.

M-k: Gaur jendea falta dute: Irati, Andoni eta, sumatzen da, etxean gutxiegi daude.

Daniel: Le voy a llamar a la ama. Gero etorriko da zure bila erantzuten dio Margarik.

Margarik: *“Nork normalizatu talde hau? Adrian oporretan, Ander M. orain etorri da egun asko etorri gabe egon ondoren...”*

Arkitekturarekin dorreak egiten dabilta: Maikol, Iñigo eta Daniel.

9:50 Oso ondo dabilta. Mainer plastilinarekin eta gainontzekoak eraikuntzekin.

Margari etxekoena doa eta “lotan nago...” abesten sumatzen dut. Miguel A. eta Ander M. sartu- irtenean dabilta.

Ander N. txakurrarekin jolastokira doa, Nahia Li puzzleak egiten hasi da, baino berriro itzultzen dira etxera.

Marisak: “Oye, hazme un seguimiento a mí, porque cuando hay tarta aquí estoy yo, a ver si es de pastelería”.

Margarik: *Aste honetan irekiko dut ipuin txokoa, ipuinak prestatu ditugu eta. Etxean aritu behar izaten dut materiala prestatzen*

Ander M. maindirearekin, koltxoian etzanda. Miguel A. txakurrari hitz eginez.

9:55 “Hemen eseriko gara Mainerren urtebetetzea ospatzeko”.

Jolas txokoan “arkitektura” piezak jarri ditu.

Andrea katarro handia dauka eta besteetan baino tristeago ikusten da.

Lan handia ematen diote batzuk, Ander M-ek ez ditu ohiturak hartuta, denak eserita daudenean bera jolas tokira doa behin eta berriro.

Margarik: Marisari itxoingo diogu bizkotxo eta txokolatezko tarta jateko;berak kandelak ekarriko ditu. Iñigok: “Qué tarta más buena”.

10:00 Marisa dator tartarekin, kandelak gainean dituela. Pizten ditu eta abesten diote; Mainerrek kandelak gustura itzaltzen ditu: “Zori, zorionak, orain eta beti”. “Zorionak, zorionak, 3 urte”.

Panelean, 2 urtetik 3koetara pasatzen du Mainerren izena. Gaur, Mainerri ematen dio bizkotxo lehenengo. Iñigok: “A mí no me gusta esta tarta”. M-k: “Zure aitak egin du hau”.

Niri ere pusketa bat ematen dit Mainerrek. Jarraian txokolatea banatzen du.

Miguel A. neri emandako txokolatearen bila dator.

Ander M-ek ez du nahi izan ezer jan eta denek bukatu dutenean eskatzen du.

Iñigok: “E muy travieso” Ander M-engatik.

Ander N-ek Ion Ander lurrera bota du eta kopetakoa hartu du.

10:20 Komunera eta handik patiora. Mainerrek sobratutako bizkotxo gora eramaten du irakasleek jan dezaten.

Patioan

Maikolek atzo, psikomotrizitate gelan esan omen zion beste bati: “No seas maricón”. Gaur patioan “no seas plátano”?

Iñigo argiak itzaltzera etorri da gelara “voy a apagar las luces”, Itxoin, hemen nago, idazten ari naiz (nik). Berak: “te dejo éstas” (2 uzten ditu piztuta).

Maiderrekin Miguel A-i: “Vale ya, vale ya” joka ari zelako.

Miguel A. eserita eduki du Margarik eta altxa denean, lehenengo minutuetan nahiko ondo ibili da baina berriro ere joka hasi da. Ume handiagoek denek begiratzen diote, zer egingo ote duen edo. Margariri komentatu diot, gelan, suabeago ikusi dudala eta berak esaten dit lasaixeago dagoela baina, oraindik ere, kostata.

Andrea, handiagoei begira denbora luzean egon da (beste 6 ume eserita zeuden, hizketan, eta bera zutik).

Maikol, zakarretara botatzeko zegoen plastikozko pieza bati bultza eta arrastaka dabil, pozik.

Maiderr helduengana inguratzen da maiz: Josune atezainarengana, Margarirengana, Marisarengana, nirengana.

Nahia Lik: “Yo cuando era pequeña no iba al cole porque estaba en China”.

Andonik neska bati heldu eta muxu eman nahi dio: “le quiero dar un beso”. Neska negarrez, oso fuerte heltzen diolako?. Nik: Andoni, orain ez du nahi, galdetu iezaiozu nahi duen. ¿Quieres que te dé un beso? Neskak: “No”. Andonik: “Quiero ser tu amigo”.

11:15 Iñigok: “Nos vamos a la gela a hacer deberes”.

11:40 Gelara. Iñigok: “ a mí me gusta estar en la escuela” (gelan babestuagoa sentitzen da).

Maiderr: “Yo me llamo Mainer y ésta se llama Naiderr” (ez du berea bezalako izena bestek edukitzea nahi). Niri: “Loreita, Loreita, ven conmigo”.

11:45 Abestiak borobilean jarrita: “Isil isilik dago...”. “Antero...”

Txokoetara. Txakurrak margotegira eta elefanteak jolasetara.

Iñigo eta Daniel margotzen eta gometxak eransten ari dira.

Iñigok: “Yo soy Iñigo hijo” (aita ere Iñigo baita).

Maiderr, Andrea, Maikol eta Ion A. guraizeekin mozten; hizketan eta parrez ari dira.

Miguel A. orain dator patiotik. Bere txartela jartzen du eta puzzleekin hasi da.

Jolasetan: Ander M., Nahia Li, Miguel A. eta Andoni.

Iñigo hasi da euskaraz hitzak esaten eta errepikatzen. Margarik: erdaraz hain hiztegi aberatsa duenez, kosta egiten zaio euskaraz egitea, oso mugatua ikusten delako.

Daniel margotzen ari da, oso pozik.

11:55 Andrea eta Maikol margotzera, Daniel eta Iñigo moztera. Maiderr eta Ion A-ek mozten jarraitzen dute.

Miguel A. arkitekturarekin, Andoni, Nahia Li eta Ander M. puzzleekin jarraitzen dute.

Andrea eta Maikol, egin duten borobila puntzoiarekin zulatzen ari dira.

M-ik: Daniel, ez zaitetz harrotu! (guraizeekin ilea mozteko joera duela esaten dit Margarik) eta asko harrotzen dela.

Iñigok: "Oye, he aprendido a hacer esto" -puntzoiarekin-. Oso gustura adierazten du.

12:00 Mainerrek bakarrik jarraitzen du mozten.

Nahia Li plastilinarekin gustura; Andoni, Ander M. eta Miguel A. puzzleekin.

Nahia Li, altxa eta arkitekturaren piezak jasotzen hasi da, bere gisa.

Andreak trebetasun handia dauka eta borobiltxo guztiak zulatzen ari da, lasai-lasai.

12:10 Jasotzen hasiko gara.

Ion Anderri: Garrasi kanpoan egin behar da, hemen ez!

Eszenatokia prestatuta dago hormirudi bat egiteko

12:15 Bakoitzak bere txartela kendu du eta borobilerara dator.

Nahia Lik musika jartzen du martxan: "Egun on ..."

M-k: Orain hau ez; beste hau jarriko dugu. "Miau, miau..."

Ander N., Miguel A. eta Danielek jolas txokoan jarraitzen dute. Andereñoak hartu eta eraman behar ditu banan-banan borobilerara.

"Zirkoaren" abestiarekin bukatzen dute saioa.

12:25 Prestatu eta agurrak.

Arratsaldetan, Daniel izan ezik beste denak etortzen omen dira.

Orduetgia

9:00 - 12:30

14:30 - 16:30

Oharrak - Ideiak - Inpresioak

. Gauza gutxi behar da daukaten giro lasaia aldatzeko: norbait sartzen dela, hitz egiten dutela, ...

. Taldea "normalizatzea" zaila da eta lan handia ematen diote andereñoari; batzuk, gutxi etortzen direlako, besteei ohituretara egitea asko kostatzen zaielako...

. Euskaraz dakien pertsonala -irakasleetatik aparte- beharko litzateke Haur Hezkuntzako ikastetxeetan.

. Ume batzuk nahiago dute gelan egon patioan baino, babestuagoak sentitzen dira barruan.

. Zaila egiten zait "behatzaile" bezala erabat funtzionatzea, umeekin hitz egin gabe, eurak etortzen zaizkidanean, batez ere.

. Patioko orduan, iruditzen zait, adin honetan eta lehenengo hiruhilabetean behintzat, bakoitzak bere andereñoa bistan edukitzea komenigarria dela, gatazka asko sortzen dira eta, nahiz

eta gehienetan, helduengana inguratu, mimo batzuk egin eta azkar pasatzen zaien, euren atxekimendu figura garrantzizkoa da oraindik.

. Eszenatokia prestatuta dago hormirudi bat egiteko.

. Atezain berria zegoen gaur sarreran. Nik: Egun on. Berak: Buenos días. Margariri komentatzen diot ea ez duten zaintzen euskalduna izatea eta esaten dit ezetz (Udaletxeak).

Garrantzizkoa litzateke atezainak euskaraz jakitea, momentu askotan egon behar baita berarekin eta harrera egiten duen lehen pertsona baita bai haur, irakasle eta gurasoentzako.

Elkarrekintza momentuak

. Miguel A. eta Nahia Li elkarrekin, balkoitik begira.

. Arkitekturarekin dorreak egiten dabiltza: Maikol, Iñigo eta Daniel, elkarrekin.

. Andoni neska bati muxu eman nahian eta neskak ez du nahi. Berak, “quiero ser tu amigo”.

. Maider, Andrea, Maikol eta Ion A. guraizeekin moztan ari diren bitartean, hizketan eta parrez.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And. N.	And	Andr	D	Iñ	IA.	Ir	Ma	Maik	MA.	N.Li
Etxeko txokoan: Kojina (1); Panpinak (2); Etzanda (3); Telefonoa (4); Ohea (5); Txakurra (6); Mairidorea (7)	-	3 7						-			+	
Ipuin Txokoan: Ipuinak (1); Abestiak (2); Dantza (3); Argazki albuma (4)												2
Jolas Txokoan: Enkajableak (1); Puzzleak (2); Plastilina (3); Arkitektura (4)		2 4	2 4		3 4	2 4	3		3	2 3 4	2 4	2 3
Margotegi Txokoan: Marrazketa/Margoketa (1); Gometzak (2); Guraizeak (3); Puntzoia (4)				1 3 4	1 2 3	1 2 3 4	3		3	1 3 4		
Arbela: Idazketa (1); Margoketa (2)												
Jaso												+

2001/X/24

9:00 Borobilean **elkarrizketa**.

Andoni “behi” batekin sartu da. Nahia Li negarrez amonak errieta egin diolako (esaten dit azkeneko momentuan busti egin dela).

Ander M. bere amarekin dator gelara eta haserre aurpegia dauka. Amak muxu emateko eskatzen dio eta ezetz erantzuten dio, baina, ematen dio.

Abestiak: “Txapeldun”, “Arantxan, txan...”, “Sapito”.

Miguel A-ek begi ondoa belztuta dauka, handituta.

Arrainak jarri dituzte “pezeran”: Marta eta Pepe dira izenak.

9:10 Harrotzen hasi dira, “tonto”, “tonta” deituz. Margarik: “Badakizue eskolan ez dagoela tontorik”.

Ipuina:

Andreak: “**Borobil, borobila**”, keinuak eginez.

Ander M. txakurrarekin jolasten dabil, borobiletik kanpo.

Nahia Lik triste jarraitzen du.

Andrea, Iñigo eta Mainerrek oso ondo jarraitzen dute ipuina.

Ander M. puzzleak egiten hasi da borobiletik kanpo. Ez du jarraitzen. M-k: Orain ez, orain ez; hala ere, bankuan jarraitzen du, etzanda.

Temperak jarri ditu andereñoak (kolore bakarra, gorria)

Arduraduna izendatzen: Nori tokatzen zaio gaur? Batzuk izan direnez, Maikoli tokatzen zaio.

Argazkia ekar dezaten gogorarazten die Margarik.

Eszenatokia apaintzen ari dira: Izarrak eta ilargia jarri dituzte.

9:20 Txokoetara. Txartel handiak mugitzen dituzte batetik bestera. Maikolekin “elefanteak” antzerkera eta “txakurrak” etxera.

Elefanteak: Nahia Li, Miguel A., Andoni, Irati, Ander M.

Txakurrak: Mainer, Iñigo, Daniel, Maikol, Ion A., Andrea.

Margari antzerkian jartzen da.

Mainer etxetik kanpora atera eta eszenatokira dator, ipuinak ikustera. Margarik etxera joatera gonbidatzen du. Iñigok nahi gabe bultza egin dio eta negarrez hasi da. Margarik: Ume honi kosta egiten zaio beste umeekin ibiltzea, nahiago du bakarrik egon, lasai.

Eszenatokian: Hormirudian gometxak eransten; Miguel A. margotzen.

Etxean: Gora eta behera. Goian logela daukate. Behean elkartzen dira eta denak eserita daude, parrez.

Mainer berak hartzen du papera mukiak kentzeko eta erabili ondoren zakarrontzira botatzen du. Berrero, eszenatokian esertzen da.

Iratik gometxak jartzea bukatu du eta ipuinak ikusten dago. Andoni abestien laminekin eta kantari hasten da: “**Goian dago txakurra, behean dago...**”.

Nahia Li: Gometxak jarri ondoren ipuinekin dabil.

Miguel A.: Margotu ondoren bueltaka dabil.

Gortinak non dauden galdetzen du Andonik (itxi egin nahi du eszenatokia). Margarik erantzuten dio garbitzera eraman dituztela.

“Burukoari” begiak, ahoa, sudurra jartzen dizkio Miguel A-ek, gero Iratik eskatzen dio, “tul”-a eta izar bat daude ere. Andonik: “**Begi handiak dituzu amona**”.

Margarik: *Miguel A. atzo ez zen etorri eta oso egun lasaia izan zuten.*

9:50 Antzerkia. Zein izango da maitagarria?, eta, kontalaria?. Andrea eta Ion A. haserretzen dira, tul-a biek nahi dutelako. Andrea izango da “maitagarria”, izarrarekin, denak esertzen dira borobilean. Irati “kontalaria” eta Nahia Li, berriz, “Ibon” izango da. Ikusleak “txakurren” taldea izango da eta “elefanteak” egingo dute antzerkia.

Miguel A.: “A mí no me digas porque he subido y me ha pegau” (Ander M.-engatik).

Nahia Lik ez du “Ibon” izan nahi eta Andrea izango da; etzanda jartzen da.

Andreak: Ni Ibon naiz eta 3 urte ditut.

M-k Iratiri laguntzen dio kontatzen. Ipuina kontatzen duten bitartean, burokoari begiak, sudurra, ahoa eta ilea jartzen dizkiote.

10:00 Kritika. Iratik Nahia Li-ri: **gustatu zaizu antzerkia? Bai.** Iñigori: gustatu zaizu? Berak baietz buruarekin. Andreak: **gustatu zaizu antzerkia?**

Andreak: “Luego elefante allí y txakurra allí”, errotazioa gogoraturuz.

10:05 Gosaria: Gailetak.

Abestia: “Orain txapeldun guztiei gailetak”. Maikolek: **“Bi gaileta nahi ditut”**. Nahia Lik ere.

Ander M.: **“Bai, bi”**.

Musika: Soka gainean: “Ti, ti, ti, oinutsik nabil ni”

10:10 Borobilean: “Isil isilik”. Miguel A. ez da isiltzen. Maikol, zu zara arduraduna, zu zara lehenengoa. Orain joango gara pixa egitera eta ura edatera.

Patioko hainbat pasadizo

. Joan den ikasturteko Margariren gelako ume batek (Angel): “Mia, mia, un avión, va pa Galicia, a las ferias”. Egun argi-argia dago eta abioi baten arrastoa oso garbi ikusten da.

. Udaletxeko langile batzuk patioan tresna berriak jartzen ari dira eta horietako bat txinatarra da. Nahia Li txinatarra dela konturatu denean “txineraz” hitz egin dio: “Txu, txi...” Nahia Lik ez dio ezer erantzun, 3 hilabeterekin ekarri baitzuten adopzioan; orduan langileak guri: “No hablal chino mandalin”. Margarik esan dio hemen bizi dela orain dela 2 urte eta erdi eta berez Beejing-goia dela.

11:55 Gelara. Luze egon dira patioan, eguraldi ona aprobetxatuz.

Txokoetara: Elefanteak jolas tokira eta txakurrak antzerkira.

Andoni, Miguel A., Nahia Li eta Irati puzzleekin; Ander M. plastilinarekin.

Miguel A. Ondo ibili da azkeneko saio honetan. M-k eskatu dio beste batek bota duen puzzle bat egiteko eta kasu egin eta osatu du.

Ander M. oso bere gisa dabil eta ez du kasu handirik egiten.

Nahia Li oso ondo aritu da eta dena jaso du.

Iñigok: “Tengo ganas de hacer pis”.

12:15 Jasotzera!.

12:20 Agurtu ondoren, batzuk jangelara eta gainontzekoak etxera doaz.

Oharrak

. Andoniren aita hil da orain dela egun batzuk eta aste honetan hobeto omen dago; joan den astean askotan aipatu omen zuen aita. Psikologak esan omen zien bizitza “normala” egiteko eta eskolara bidaltzeko.

. Umeak asko joaten dira Mikel atezainarengana eta beste kontserje gizonezkoena. Badirudi “gizonezkoaren” figura ondo etortzen zaiela ere.

. Patioan tresna berriak jartzen ari dira udaletxeko langile batzuk.

Autonomia

Maider berak hartzen du papera mukiak kentzeko eta ondoren zakarrontzira botatzen du. Berriro, eszenatokian esertzen da.

Elkarrekintza momentuak

Etxean: Gora eta behera. Goian logela daukate. Behean elkartzen dira eta denak eserita daude, parrez.

Ideiak - Inpresioak - Galderak

Txoko guztiak batera martxan ez egoteak, ez ote du eraginik umeak batera eta bestera ibiltzeko garaian?

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Etxeko txokoan: Kojina (1); Panpinak (2); Etzanda (3); Telefonoa (4); Ohea (5); Txakurra (6); Maindirea (7); Argazki- albuma (8)	-				-							
Ipuin Txokoan: Ipuinak (1); Abestiak (2); Dantza (3) <u>Mahai Lanak:</u> Margoketa (4); Gometxak (5); Oihalak (6); Burukoa (7)				4 5	4 5	4 5	4		4 5 7	4 5		
Jolas Txokoan: Enkajableak (1); Puzzleak (2); Plastilina (3); Labana (4); Arkitektura (5)		3	2 5					2 3 4 5			2 3	5
Margotegi Txokoan: Marrazketa/Margoketa (1); Gometxak (2); Guraizeak (3); Puntzoia (4)												
Arbela: Idazketa (1); Margoketa (2)												
Jaso				+				+				+

2001/XI/07

9:10 Talde ekintza:

Adrian R. etorri da, lehenengo eguna du udaraz geroztik eta negarrez ari da; amarena joan nahi du.

M-k: *Ume hau oso ohituta zegoen joan den urtean, gainera, goizeko 7:30etan ekartzen zuten eta arratsaldea ere eskolan pasatzen zuen.*

Abestiak eta ipuina: "Pailazo Klown".

Oso ondo daude denak, abesten eta ipuina jarraitzen. Maider eta Adrian Margariren ondoan daude eserita. Irati eta Nahia Li falta dira.

9:20 Ander M. etzan egin da eta besteak ere hasi dira alteratzen.

Arduraduna izendatzen: Gaur Nahia Liri tokatzen zitzaion baina etorri ez denez, Maider izango da.

Argazkia	Izena	Asteleh.	Asteart.	Asteazk.	Osteg.	Ostir.	Larunb.	Igand.
	Adrian							
	Ander							
	Andoni							
	Andrea							

Eguraldia: Eguzkia al dago?; Hodeiak al daude?; Euria ari al du?.

Norekin etorri zara?.

Maiderrek: "Aitarekin etorri naiz eskolara".

Andreak: "Amonarekin etorri naiz eskolara".

Iñigok: "Abuelorekin etorri naiz eskolara". Yo también tengo mi madre en casa.

Ondo esaten dute, Ander M. izan ezik; bera etzanda dago.

Adrian isilik egon da pixka bat eta orain, berriro negarrez ari da.

Elkarrizketatxoa: Zergatik ez ote da etorri Irati?

Abestia: "Astotxoa... Begian mina daukat, buruan mina daukat".

9:30 Txokoetara: Gaur elefanteak **margotegira** eta txakurrak **etxera**.

Marisa sartzten da bizpahiru aldiz zer moduz dauden galdetzera.

Andoni: Tenpera egiten hasten da kabailtean.

Ander N. Berak ere nahi du eta laguntzarekin hasten da margotzen.

Etxekoak, denak batera daude goiko solairuan. Iñigok leihotik Adriani: "Ahora ya no lloras más".

Adrian, arbelean hasi da marrazten.

Miguel A. margotzen ari da, lasai.

Maikol, Andrea eta Maider etxetik antzeztokira etorri eta abesten ari dira.

Margarik Miguel A-i: Nahi duzu tenperarekin margotu?. **“Todavía no”**; marrazkiarekin jarraitzen du.

Ander N. arbelean.

Maikol: **“Goian dago mendia”**

M-k: Etxera bueltatzeko gonbidatzen ditu hirurak.

Adrian: Tenperarekin margotzen.

9:45 Miguel A-ek margotzen jarraitzen du, oso lasai eta zentratua ikusten dut gaur.

Maikol, Daniel eta Iñigo txakurraren txabolan daude.

Andrea eta Maider etxean, ipuinak kontatzen eta abesten.

Ander N. puntzoiarekin ari da. Jarduera guztietan oso denbora gutxi pasatzen du baina, hori bai, jarduera desberdinak probatzen.ditu.

Miguel A.: **“Eh chicos, no os peleéis”**

9:50 Miguel A. tenperarekin margotzera dator.

Miguel A. inoiz ez bezala ikusten dut, xuabe-xuabe Margariri esanez: **“Ahora éste”**, tenpera gorria erakutsiz.

Adrian etxean dago eta Iñigok esaten dio berak ez duela hor egon behar. Margariri eskua ematen dio eta pozik ikusten da; azkar integratuko dela dirudi.

Maiderrekin mina hartu du eta niregana dator.

10:00 Ura edan eta pixa egitera. Miguel A. puntzoiarekin ari da eta ez da komunera joan; Margari bila etorri zaio eta berarekin doa.

Gosaria: Gaietak banatzen ditu arduradunak.

Miguel A., inork esan gabe, gauzak jasotzen ari da.

Elkarrekin hizketan Iñigo Ion A.-ekin eta Andrea Maiderrekin.

Adrian batera eta bestera dabil.

Maiderrekin: ¿Ya se le ha pasado lo de la ama? Adrianengatik.

“ : **“Lotu mesedez”**

10:15 Txamarrak jantzi eta errekreora goaz.

Atera gara baina segituan euri pixka bat hasi duenez barrura itzuli gara, **“sarrera”**ko estalpera. Ume asko kontzentratu da bat-batean eta **“Ludotekara”** joan gara; bertan 3 gelatako 32 haur elkartu dira eta jostailu, ipuin, sukaldeko ontziak, eta abarrekin ibili dira.

Andoniri buruz, Margarik esaten dit lehenengan etorri zela psikologa eta zeuzkan zalantzak argitu zizkiola.

Etxean ere umeari egia esatea komeni dela esan omen zien familiakoei.

Margarik umeekin "Egun on ama, egun on aita..." abesten zuenean, Andonik arraro begiratzen omen zuen batera eta bestera, eta, duda omen zeukan nola tratatu, abestu edo ez abestu, eta psikologak esan omen zion baietz, normal kantatzeko, umeak berak joan beharko duela ohitzen eta.

Andoniren ama gaur hasi da lanean.

11:45 Gelara. Borobilean jarri dira eta andereñoak gogorarazi die nora joan behar duen bakoitzak: lehen margotegian egondakoak orain **etxera** eta etxeokak **antzerkira**.

Mahaiko lana egiten Margarirekin: Daniel, Iñigo, Andrea, Ion A., Maider eta Maikol. Puntzoiarekin ari dira begiak, belarriak, ... aurpegiko atalak zulatzen.

Etxean: Andoni, Miguel A., Adrian, Nahia Li.

Gaur Nahia Li beranduago etorri da, adopzioak "kontrolatzen" edo jarraitzen dituztenekin egon behar zuelako.

Andonik: "Margari, falta uno" (Ander N-engatik); hau ez da etxera joan eta badakite etxean egon beharko lukeela.

11:50 Ander N. etxean sartu da.

Maikol eta Iñigo antzerkia prestatzera sartzen dira antzeztokian, Maider ere, eta atzetik, Andrea, Daniel eta Ion A.

Etxean: "Socorro", gora eta behera, txakurra paseatzen dabil Andoni. Adrian negarrez buruan mina hartu duelako.

11:55 Eszenatokiko gortinak ireki dituzte eta "paperak" banatzen hasi dira. Maiderrek: Margari, yo soy "maitagarria". M-k: Gaur ez, Andreari tokatzen zaio gaur eta.

Antzerkia

- . Iñigo kontalaria
- . Maider burukoari elementuak jartzen eta etzanda
- . Andrea "maitagarria"
- . Maikol, Daniel eta Ion A., publikoa

Etxekoek galarazi egiten dute, garrasika ari baitira.

Andrea, bat-batean, bere papera egiten ari dela, konturatu da pixa egin duela eta gorri-gorri jarri da. Antzerkia utzi eta komunera eramán du aldatzera.

Gaur Ander N-ek egun txarra izan du. Adrianek nahiko ona eta Miguel A-ek oso ona.

Azken orduan "aholkularia" etorri da gelara, lehenengo aldiz, Miguel A. behatzera eta komentatu dit ondo ikusi duela. Gaur nik ere aldaketa handia nabaritu diodala esan diot.

12:15 Komunera eta txamarrak janztera.

Miguel A. Ion A-ekin hizketan, sekulan baino lasaiago.

Jangelara doaz: Nahia Li, Maider, Andoni, Andrea, Ander N., Maikol, Iñigo, Adrian.

Etxera: Miguel A., Ion A., Daniel eta, etortzen denean, Irati ere.

Etxeko txokoan egon direnak elkarrekin eginiko hainbat jarduera

- . Maikol, Daniel eta Iñigo txakurraren txabolan.
- . Elkarrekin eserita egon
- . Gora eta behera ibili
- . Panpina zaindu
- . Txakurra zaindu
- . Oihala, maindirea astindu
- . Ipuinak kontatu
- . Abestu
- . Koltxoia sarrerara eraman eta besteei sarrera oztopatzeko atean jarri
- . Lotan, etzanda egon
- . Kojinarekin jolasean ibili
- . Maikol, Andrea eta Maider etxetik antzeztokira etorri eta abestu
- . Maider negarrez dago eta Andreak muxu eman dio buruan

Oharrak

- . Nahia Li gaur, adopzioak “kontrolatzen” edo jarraitzen dituztenekin egon da.
- . Hasi dira konturatzen “txokoetako” funtzionamenduaz (nork non egon behar duen).
- . Aholkularia etorri da Miguel A. behatzera.

Inpresioak - Ondorioak

. Egokia da arazoak gehiagora joan aurretik umeen jarraipena egitea eta eskolan bertan “aholkularia” egotea.

. Margarik umei ematen dien maitasunak eta hartzen dien pazientziak, ondorio baikorrak ditu umeen bilakaeran eta gelako giroan: konfiantza, lasaitasuna, ondo sentitzea... islatzen dira.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And. N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Etxeko txokoan: Kojina (1); Panpina (2); Etzanda (3); Gora-behera (4); Telefonoa (5); Ohea (6); Txakurra (7); Mairidrea (8); Argazki albuma (9); Ipuina (10); Koltxoia (11)		10	7	2 4 10	4 7	4 6	4 8	-	2 4 10	2 4	4 11	4 10
Antzerki txokoan: Ipuinak (1); Abestiak (2); Dantza (3) Mahai-lanak: Margoketa (4); Gometxak (5); Puntzoia (6); Oihalak (7); Burukoa (8); Antzerkia (9)				1 5 7 9	1 6 9	1 6 9	1 6 9		1 6 9	1 6 9		
Jolas Txokoan: Enkajableak (1); Puzzleak (2); Plastilina (3); Labana (4); Arkitektura (5)												
Margotegi Txokoan: Marrazketa/ Margoketa (1); Gometxak (2); Guraizeak (3); Puntzoia (4); Tenperak (5)	5	3 4 5	3 5								1 4 5	
Arbela: Idazketa (1); Margoketa (2)	2	2										
Jaso										+	+	

2001/XI/21

9:00 Harrera egiten, borobilean.

Andreak: "Hoy vamos a llevar las carpetas".

9:10 Andoni sartzen da.

9:15 Ander N. haserre aurpegiarekin sartzen da eta ez du borobilean jarri nahi.

Abestia eskuak erabiliz.

Galderak: Norekin etorri zara eskolara? Ander N. eta Adrian izan ezik beste denek oso ondo erantzun dute.

Abestiak: "Egun on ..."

"Elurra dago mendian"

Daniel sartzen da. Miguel A-ek: "Hola, qué tal?"

Ipuina: Eguraldia lantzeko.

Abestia: Goian, behean kontzeptuak lantzeko.

9:25 Pixa egitera ateratzen dira bi haur eta horien atzetik ia denak.

9:30 Txokoetara. Txakurrak Jolas Txokora eta elefanteak Etxera. Gero, banan-banan karpeta margotzen joango dira Margotegian. Antzerkia itxita dago.

Karpetak: Iratik eskuak tenperetan sartu eta aztarnak karpetan jartzen ditu (kolore desberdinekin). Ondoren, eskuak garbitzera doa; orain Nahia Li etorri da bere karpeta apaintzera.

9:40 Etxean ez dago inor, denek alde egin dute. Adrianek oraindik ez dauka hartuta txokoen funtzionamendua. Elefante guztiak margotegian dabilta.

Iñigo eta Maikolek arkitekturarekin piezak bata bestearen atzean jarri eta: "Margari, mira qué bien"; jarraian desegin egiten dute.

Andrea plastilinarekin, labana erabiliz, pusketa txiki-txikiak egiten ari da.

Adrianek ere piezak bata bestearen ondoan jarri eta erakusten dizkit.

Elkarrekin dabilta: Maikol, Iñigo, Andrea eta Daniel. Andrea eta Maikol haserretu dira eta joka hasi, baina, ez da gehiagora joan.

Maider, bere gisa dabil puzzleekin.

Ander N., Miguel A. eta Andonik ere egin dituzte karpetak.

Ion A., Daniel eta Iñigo puzzle bat elkarren artean osatzen ari dira.

9:50 Maider eta Adrian elkarrekin arkitekturarekin dorre bat egiten.

Adrianek ez du karpeta egin nahi.

Miguel A. eta Irati papertxoak mozten.

Margotegia dago benetan martxan, etxea ez.

Margarik Adrian gonbidatzen du karpeta egitera baina kollage bat egiten hasi da.

Ander N-ek Adriani atximurkada egin dio.

Eromena da aparteko zerbait dagoenean, ziurrenik, gaur, karpetak direla-eta.. Margarik baieztatazen dit horrela dela.

10:00 Jasotzen hasiko gara!

Maider jasotzen hasten da, kantari: "**Jasotzera... orain jasotzera**".

Andoni triste ikusten dut.

Txartela kentzen dute eta bere tokian uzten.

10:05 Gosaria: Gailetak

Inguratzen dira eta abesten hasten dira. Ander N. eta Adrian puzzle eta enkajableekin jarraitzen dute eta Miguel A. puntzoiarekin.

Abestia: "... txiribibonbon. Agongo Maria agongo" (Bakoitzak salto egiten du bere izena entzuten duenean.

"Yo no soy Mikel, soy Maikol".

“Txokolatero bolinero... datorrela datorrela **jertse urdina daukan neska; petoa duen neska; marra horiak dituen mutila**. Nor izan da, nor izan da?”.

Ander N. elkartu da eta besteekin eserita dago; oso pozik hartu du parte jolas honetan.

Miguel A. eta Adrian ez dira elkartu.

10:20 Berokiak janztera!.

Beste denak komunera joan diren bitartean, Miguel A.. gelan lanean jarraitzen du. M-ik: Asko gustatzen zaio margotegia. Norbait etorri da komunetik bueltan patiora joan aurretik argia itzaltzera eta berak: “No apagues la luz”.

Patioan buruhandiak dabilta (Yolanda andereñoaren gelakoak) eta batzuk beldurtu egin dira, kosta egin zaie lasaitzea.

Gatazka batzuk ere izan dituzte Miguel A. eta Ion A-ek, biak joka eta negarrez.

11:40 Gelan, denen argazkia egin du Lurdes zuzendariak.

Abestia eta korroan: “Korru korru korruan... hanka puntaz ikutuaz...”

Ander N-ek ez du parterik hartu.

<i>Komentatzen diot Margariri ea ez ote den hobe 3 txoko martxan jartzea, batera, 3 talde eginez eta esaten dit, haur bat edo bi falta badira, gutxiegi direla ondo funtzionatu ahal izateko.</i>

11:45 Antzerkian mahaiko lana egiten: Nahia Li, Andoni, Miguel A., Ander N., Irati eta

Adrian. Margari beraiekin zer egin behar duten esplikatzen.

Etxeko taldea: Andrea, Daniel, Maikol, Ion A., Maider eta Iñigo.

Etxeko txokoan egindako hainbat jarduera

- . Panpina zaindu
- . Txakurra astindu, txakurra aldatu
- . Maindirea leihotik astindu
- . Eskaileratan gora eta behera ibili
- . Koltxoia lekuz mugitzen, parapetoa bezala jartzen
- . Parrez, berriketan
- . Argazki-albumak begiratzen
- . Telefonoz deika

Mahaiko lana bukatu ondoren, antzerkikoak, Irati, Andoni eta Nahia Li entseguarekin hasi dira.

Irati ipuina kontatzen, Andoni burkoari elementuak jartzen eta Nahia Li “maitagarriarena” egiten, disfrazatuta jantzi ondoren.

12:00 Jasotzen hasi, eskuak garbitu eta borobilean eseri dira.

Umeen pasadizo xelebreak

Lehenago batean Margari, Ander N.-ekin nonbait ezinean zebilen eta esan omen zuen: “Kokoteraino nago, ez duzulako kasurik egiten” eta Iratik erantzun omen zion: “Margari, los niños son así”.

Espazio eta ohiturekin lotutako oharrak

. Azken egunean, Adrian oporretatik itzuli ondoren, ez zuen eraikin hau ezagutzen eta ez zuen komunean pixa egin nahi; aldiz, beste eraikinera joan zirenean, ludotekara –eguraldi txarra zegoelako- sartu eta berehala berak eskatu zuen han pixa egitea.

Autonomia

- . Txartela kentzen dute eta bere tokian uzten.
- . Batzuk komuneko joan etorria bakarrik egiten dute.

Elkarrekintza

- . Ion A., Daniel eta Iñigo puzzle bat elkarren artean osatzen aritu dira.
- . Maider eta Adrian elkarrekin arkitekturekin dorre bat egin dute.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And. N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
<u>Etxeko txokoan:</u> Kojina (1); Panpina (2); Etzanda (3); Gora-behera (4); Telefonoa (5); Ohea (6); Txakurra (7); Maindiera (8); Argazki albuma (9); Ipuina (10); Koltxoia (11)				2 4 5	4 11	4 8 11	4 7 11		2 5 8 9	4 5 11		
<u>Antzerki txokoan:</u> Ipuinak (1); Abestiak (2); Dantza (3) <u>Mahai-lanak:</u> Margoketa (4); Gometxak (5); Puntzoia (6); Oihalak (7); Burukoa (8); Antzerkia (9)		5 9	1 4 9					1 5 9				1 5 9
<u>Jolas Txokoan:</u> Enkajableak (1); Puzzleak (2); Plastilina (3); Labana (4); Arkitektura (5)	5			3	2 5	5	2 5		2 5	1 2 5		
<u>Margotegi Txokoan: Marrazketa/</u> Margoketa (1); Gometxak (2); Guraizeak (3); Puntzoia (4); Tenperak (5); Collage (6)	2 6	5 6	3 5	1				3 5 6			1 3 4 5	1 4 5 6
<u>Arbela:</u> Idazketa (1); Margoketa (2)												
Jaso				+	+	+	+	+	+	+	+	

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEA:

ABENDUA

IKASLEAK/EGUNAK	14
Adrian	9:00 - 12:30
Ander N.	9:10 - 12:30
Andoni	10:15 -12:30
Andrea	9:30 - 12:30
Daniel	9:00 - 12:30
Iñigo	9:00 - 12:30
Ion Ander	-
Irati	9:00 - 12:30
Maidier	9:00 - 12:30
Maikol	9:00 - 12:30
Miguel A.	9:00 -12:30
Nahia Li	9:00 - 12:30

2001/XII/14

9:05 Iristen ari dira eta borobilean esertzen: Agurrak, eguraldia aprobetxatuz **kanpoan-barruan** kontzeptuak lantzen.

Ipuina: "Neguko jantziak". Nork dauka bufanda?

Olerkia: "Olentzero": Olentzero, Olentzero, etxean salda bero...

Irati ipuina kontatzen Margariren laguntzarekin.

Maiderrekin: "**Begira Lorea** -bueltak lurrean emanaz- ¿me has visto?" . Buruarekin baietz esaten diot.

Margarik jarraitzen du ipuinarekin, Iratiri ez baitzioten kasurik egiten.

Ander N. iritsi da, eskuetan bideo zinta bat duela; pixka bat eserita egon da eta segituan altxa da.

Abestiak: "Olentzero joan zaigu..." Andreak nahikoa daki; leloa ia denek kantatzen dute.

"Alakan..."

"Din, don, don, egu berri on...". Ander N-i ematen dio abestiaren lamina eta esertzen da.

Margarik ume pare bat tokiz aldatzen ditu , mugitzen direlako (Maidier eta Adrian).

"Bazen behin krokodilo bat..."


Arduraduna: Irati. Nondik nora joan behar dute txakurrek? **Jolas tokira** eta elefanteak **antzerkira**.

Irati oso seria dago eszenatokian eserita -ipuina kontatzerik izan ez duelako-.

Leihoetan beraiek egindako izarrak, bolak, kanpaiak, jarrita daude.

9:30 Antzerkikoek mahaiko lanarekin hasten dira: Iñigo, Ander N., Nahia Li, Irati, Miguel A. eta Andoni. Andoni eszenatokian entsegatzen ari da. Hormirudia osatzen ari dira: margotu, puntzoiez atera eta kola eman ondoren elementuak itsasten dituzte.

Egurrezko egitura bat daukate ipuina errepresentatzeko.



Txakurren taldea plastilina egiten ari da: Daniel, Adrian, Maider, Maikol, Andrea.

Andoni eszenatokian Iratikekin. Iratik builaka: "Yo soy la madre y quiero que me hagas caso"

Yo soy la mamá y tu el papá. "Aita, aita".

Maikolek Andreari bere eraikuntza puskatu dio eta honek jo egin du; Maikol negarrez.

Iñigok: "Yo quiero llevar la carpeta".

Adrian ederki defendatzen da norbaitek zerbait kentzen badio.

Margarik Maikoli laguntzen dio puzzlea ondo egiten.

Maider, jaso egurrak, zerorrek atera dituzu denak-eta.

Nahia Lik: "E, Ander N., conmigo!. Ipuina berarekin irakurri nahi du.

Daniel: "Esto no vale", ¿por qué no vale? Puzzlea ondo egin ezinik dabil eta konturatzen da ez dutela pieza guztiak enkajatzen.

10:00 Jaso dena eta antzerkia!

Gortinak itxi eta entsegua.

Irati kontalaria.

Nahia Lik: **Ni Nahia Li naiz eta Tutu izango naiz**

Andonik: **Ni Andoni naiz eta abeslaria izango naiz**

Miguel A-ek: **Ni Miguel A. naiz eta Tututxo izango naiz**

Iñigok: **Ni Iñigo naiz eta abeslaria izango naiz**

Ander N-ek: Ez du parte hartzen

"Bazen behin... handi-handi, txiki-txikia..."

Sartu eta atera dabilta Tutu eta Tututxo.

Margarik: Orain hitz egingo dugu.

Iratik: **Andrea, gustatu zaizu antzerkia? Bai**

Nahia Lik: **Maider, gustatu zaizu antzerkia? Bai**

Txalo handi bat!

Gosaria: Gailetak banatuko ditut.

Ander N. eta Miguel A. puzzleak egiten ari dira. Ander N. bankuan etzaten da.

10:15 Orain pixa egin, ura edan eta jolastokira.

11:00 Psikomotrizitate gelara etorri gara.

Arauk gogorarazten

. Ezin da mina egin.

. Ezin da jo.

....

Ondo dabilta. **Jolas sinbolikoa** gero eta gero gehiago agertzen da beren jolasetan: medikua, gaixoa, panpina jantzi, aita, ama...

11:30 Musika jartzen du eta batzuk jolas sinbolikoarekin jarraitzen dute eta besteek korrika, saltoka, kubo et zilindroak garraiatzen, horma/barretara igotzen, kaxa batean sartuta.

Iskanbilaren bat ere: Miguel A., Adrian eta Iñigo joka.

Margarik: Miguel A-ek inork baino negar gehiago egiten du; berak jotzen du baina beste norbaitek zerbait egiten badio, segituan hasten da negarrez. Hala ere, suabexego ikusten dut. Behar bada, mahaiko lanetan dezentetan tokatzen ari zaio eta hori, gustuko duenez, ondo egoten da. Psikomotrizitate gelan, bere gisa ibili da ia denbora guztian.

12:10 Jasotzen hasi dira.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Etxeko txokoan: Kojina (1); Panpina (2); Etzanda (3); Gora-behera (4); Telefonoa (5); Ohea (6); Txakurra (7); Maindirea (8); Argazki albuma (9); Ipuina (10); Koltxoia (11)							-					
Antzerki txokoan: Ipuinak (1); Abestiak (2); Dantza (3) Mahai-lanak: Margoketa (4); Gometxak (5); Puntzoia (6); Kola (7); Oihalak (8); Burukoa (9); Antzerkia (10)		4	4 10			4 6 7 10		4 6 7 10			4 6 7 10	1 4 6 7 10
Jolas Txokoan: Enkajableak (1); Puzzleak (2); Plastilina (3); Labana (4); Arkitektura (5)	3 5			2 3 5	2 3 5			2 3 5	2 3 3			
Margotegi Txokoan: Marrazketa/ Margoketa (1); Gometxak (2); Guraizeak (3); Puntzoia (4); Tenperak (5); Collage (6)												
Arbela: Idazketa (1); Margoketa (2)												
Jaso				+		+		+	+		+	

* = Jasotzeko eskatuta

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Dantzan(1); Abesten (2); Korrika-saltoka (3); Tunela (4)	3			2 3	4		-		4	4	3	
Zaldiak												
Koltxonetak (1); Txiribueltak Horma/Barrak (2); Objektuak garraiatu (3)	1 3	1 2 3		1	1 3	1 3				1 3	1 3	
Jolas sinbolikoa: medikua/ gaixoa/ rol desberdinak	+		+	+				+				+
Oihalak(1); Ispilua (2)	1	1	1	1		1		1	1	1		1
Jaso												

IKASLEAK/EGUNAK	18	1
Adrian	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Ander N.	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Andoni	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Andrea	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Daniel	gaixorik	9:00 - 12:30
Iñigo	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Ion Ander	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Irati	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Maidier	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Maikol	gaixorik	9:00 - 12:30
Miguel A.	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30
Nahia Li	14:30 - 16:30	9:00 - 12:30

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEAK : URTARRILA OTSAILA

2002/I/18

SAN SEBASTIAN FESTA - DANBORRADA

14:30 Iristen naizenean ikusten dut patioa apainduta dagoela; goizean prestatu dute. Banderatxoak, kutxara eta tenedore handiak, ...

Bi ikasle ohi ikusten ditut -ordezkapenak egiten- eta ni hemen ikustearekin pixka bat harrituta gelditzen dira.

Margari gelan dago, dena prest dauka eta 15:45 atera behar dutenez kalera (eguraldia ona dago) esaten dit patiora aterako dituela umeak 20 bat minutuetarako.

Aulkiak jartzen ditugu. Bost urteko haurrak (Yolanda andereñoarenak) danborrada aulki gainean jarrita joko dute.

15:30 Margari ume bakoitza janztera sartzen da gelara: bakoitzari, mantala, painoloa, gorroa, danborra gerrian lotu eta paliloak. Urduri xamar daude baina gustura.

Joan den urteko danborradarekin konparatu nahi nuen aurtengoa, gogoratzen bainaiz, adibidez., Daniel negarrez egon zela eta ez zuela batere disfrutatu, baina, gaur ez da etorri

gaixorik dagoelako. Maikol ere ez da etorri, hau ere gaixorik omen dago; gainontzekoak etorri dira.

Andoni serio-serio, eseri eta Donostiako martxa abesten ari da; primeran daki letra. Iratik ez du nahi nik txapela ondo jartzea nahiz eta denbora guztian erori egiten zaion. Nahia Li pozik. Ander N. bere gisa baina, beste egoeratan baino gehixeago dabil besteekin. Mainerrek eskusiban nahi du Margari. Miguel A. eta Ion A. pozik.

15:45 Patioan talde bakoitza bere andereño eta maisuarekin (tarteetan, Harkaitz eta Gaizka, lehen aipatutako ikasle ohiak).

Dena antolatzeko lan handia hartzen dute irakasleek. Guraso asko dago patiora atera garenean, beren argazki-kamera eta bideoekin.

Umeak gurasoak non ikusiko eta batzuk, nabarmen, denbora guztia gurasoei begira jotzen dute. Margari, Pepa, Elisabet beren umeen aurrean, zuzentzen eta zuzendari orokorraren lanetan, Yolanda andereñoa.

Momentu batean Oleta ikastetxeko umeak pasatzen dira kaletik eta Yolandak “txaloka” agurtzen ditu.

Joan den urtean Margariren ikasleak izandako batzuk ikusten ditut: Naiara, Adrian G., eta besteren bat. Adrian G. oso txikia ikusten da oraindik baina serio-serio jotzen ari da.

Abesti guztiak jo ondoren argazki gehiago atera eta 16:45etan bukatzen da festa.

Bakoitza bere gelara eta etxera eramaten dituzte danborra eta gainontzeko gauzak.

Inpresioak - Komentarioak

Gu, irakasle gelara joan gara gauzak jaso ondoren eta han “txanpain” pixka bat hartu dugu taldean. Komentarioak, guraso batzuk esan dutenari buruz, etab. Guraso batek esan omen dio andereñoari: “como estos últimos años os preparais sin tener en cuenta a los niños” Andereñoek ez zuten ulertzen guraso horrek zioena.. Gaurko danborrada bukatu ondoren, asteartean, Inauteriak nola prestatzen hasiko diren antolatzen dabilta eta...

Nik uste dut, askok eta askok ikusiko dutela egiten den lana; gainera ikastetxe honetan, oso nabarmena da “emakumeen detaileak”. Esan nahi dut, ikaragarri zaintzen dutela dena eta, guzti hori, eskolako giroan nabaritzen da.

Ikastetxe honetan failatzen duen elementu esanguratsu bat daukaten atezaina da; oso emakume desatsegina egiten da; batzuetan lo hartzen du, itxura ere ez da umeak egoki hartuko dituen pertsona batena, euskaraz ez daki eta festa bukatu ondoren, segituan itxi du atea esanez: “bueno, que se vayan, ya está”. Udalarekin zerbait egin beharko litzateke emakume hau ordezkatzeko eta pertsona egoki batek harrera egin ahal izateko, ume, guraso, irakasle eta gainontzekoei. Badakit, zuzendariak asko sufritzen duela asunto honekin eta gestioak egin dituela aldatu dezaten.

Gaur, 2 urteko haurren andereñoak beraiekin makurtuta jarrita egon dira ia denbora guztian, umeek danborrada jo zezaten; diferentzia handia sumatzen da 3 urtekoekin konparatuz, hauek ondo egon dira eta parte hartu nahi zuten.


2002/II/01

9:00 Denak etorri dira eta pozik dabilta; Margarik esaten dit "ganbarara" joan behar dutelako daudela hain pozik.

Borobilean esertzen dira **eguraldiaren** laminak aztertzeko: gaur eguzki dirdiratsua dago, urdin-urdin.

Teo-ren **ipuina**. Ekarki dituzten jostailuekin entretenitzen dira eta ez dute gehiegi entzuten. Miguel A. eta Adrian: "el coche es mío". Margarik, Miguel A. hartu eta bere ondora eraman du eta ondo jarraitzen du ipuina. Ander N. beste ipuin batzuekin ari da eta Iñigo eta Adriani hitz egiten die. Iñigok alde egiten du eta ipuinarekin kontzentratzen da berriro. Ander N-ek zutik eta entzun gabe jarraitzen du.

Antzeztokiko murala osatzen ari dira, oso polita da.



Tximiniak, leihoak eta ateen gainetik "paperezko bolatxoak" eransten dituzte.

9:20 Ipuina: "Pailazo Klowen", inauteriekin erlazionatua.

Ander N-ek ez du entzuten eta andereñoak beregana eramaten du. Adinean txikienetakoa da eta asko nabaritzen zaio.

Arduraduna: Andoni da gaur.

Nondik nora eraman behar duzu txakurra? galdetzen dio Margarik. Andonik: "**Txakurrak margotegira eta elefanteak jolastokira**".

Txokoetako saioa

. Jolas txokoan: Miguel A., Irati, Nahia Li, Iñigo, Ander N., Andoni

. Margotegian: Adrian, Maider, Maikol, Daniel, Andrea, Ion A.

Margotegikoak murala egiten ari dira, bolatxoak egin eta muraleko etxeetan eransten.

Banaka, tenpera egiten, aurrena Andrea, gero Maikol...

Margari gehiago dago margotegian egiten duten lanak horrela exijitzen duelako.

Andoni ipuinetara doa, antzerkira. Margarik jolastokira gonbidatzen du.

Miguel A. ondo dabil enkajableekin eta Nahia Li oso entretenitua puzzleekin. Iratik ematen du ez dakiela zer egin. Ander N-ek dena probatzen du baina ez da mantentzen gauza batekin denbora minimo batean. Irati puzzleak egiten hasi da. Andoni ere gehiegi zentratu gabe dabilela dirudi, orain arrainei begira dago.

Nahia Lik puzzle bat bere lekuan gorde nahian: ¿dónde va este puzzle?. Margarik Andoniri puzzle bat ematen dio, bukatzean berari abisatzeko esanez.

M-ik Andoniri: gaur egun txarra daukazu! Pixka bat konfirmatzen dit nik neukan inpresioa; orain, negarrez ari da.

10:00 Hasi dira aldatzen eta M-ik jasotzeko esaten die.

Margariri galdetzen diot ea zer moduz dabilen **Adrian** txokoetako sisteman eta, erantzuten dit kostatzen ari zaiola. Dena den, beste denak baino lan gehiago ematen omen dio Ander N-ek; azarokoa da, nahiz eta M-iker ere horrelaxe den, baina, izugarritzko diferentzia dagoela dio euren artean.

Andonirengatik ere galdetzen diot eta esaten dit gaur urduri dagoela, behar bada, “arduraduna” delako. Amak ere esan omen dio goizean: “hoy está inaguantable”.

Orain “elefanteek” egin behar duzue antzerkia. Nahia Lik: “**Ni** mama”. Nor izango da kontalaria?: “Dona dona katona...”

Irati kontalaria, Ander N. txoria, Andoni hasten da: “**Ni Andoni naiz**”...

Txakurren taldea publikoa da.

Miguel A-ek puzzleekin jarraitzen du, ez du parte hartzen.

“**Ni Ander N. naiz eta txoria izango naiz**” (laguntzarekin).

“**Ni Nahia Li naiz eta jendea izango naiz**”.

Iratik: **Bazen behin herri txikia... ilargia etorri da...** eta bitartean, paseatzen dabilta Andoni eta Iñigo. **Bat-batean mamua agertu zen** (Nahia Li; asko saiatzen da ondo egiten). **Ez zen mamua, neska bat zen...**

Abestiarekin bukatzen dute.

Kritika

. Iratik Maiderrri: **Gustatu zaizu ipuina?. Bai.**

. Iñigok Andreari: **Gustatu zaizu ipuina?** Duda egiten du “**bai**” esaterakoan; konturatu baita ez dutela hain ondo egin.

. Ander N. bere gisa dabil.

. Margarik: Txalo bat merezi dute? **Bai.**

10:25 Gosaria: Gailetak. Orain inguratzen da Miguel A.

Andonik banatu ditu gaur gailetak, arduraduna baita.

Ondoren, komunera joan, pixa egin eta ura edan dute.

Patiora. Gaur ordu erdi bat ibili dira kanpoan.

11:00 Psikomotrizitate gelara.

Arauk gogorarazten

. Ez bultza.

. Ez jo.

. Ez koska egin.

. Ez harramaskatu.

...

Maiderekin: Korrika ez egin.

Margarik: Denok lagunak gara.

Zenbat garen zenbatzen: 1, 2, 3, 4, 5....

Inauterietako entsegua

Plataforma gainean. Abestia: "Oilala li li..." Takolo, Pirritx eta Porrotxena.

Andrea, Irati, Nahia Lik oso ondo egin dituzte mugimenduak (abestiarekin). Andonik ere; Maikol eta Iñigo ere saiatu dira.

Datorren ostiral arratsaldean egingo dute festa. Gaur, nik ikus nezan egin dute entsegua.

11:20 Korri eta salto.

Maiderekin ez du nahi inork ukitzea, oihalekin, bere gisa ibili nahi du.

Margarik komentatzen dit Ander N-en aita txiletarra dela eta lehendik 2 seme dituela 24 eta 22 urtekoak eta hau, jostailu bat bezala ibiltzen dutela.

Nahuel izena Chileko indigena talde batetik omen dator eta beraien hizkuntzan "tigre-a" esan nahi omen du. Margarik esan omen zion aitari: ba, asmatu duzu eta aitak erantzun: bai, bete-betean.

Maiderekin Andrea dabilki kaxan sartuta eta gero, alderantziz.

M-ik batzuei: oso jolas gogorra dabilkizue, kontuz!.

Espumazko elementuak arrastaka dabilzkite; eskailera, zilindroa, kuboak.

11:55 Jasotzera!

Maiderekin oso ondo biltzen ditu oihalak, ikusgarria da. Margarik doblatzen dituenak, berak hartu eta kaxan gordetzen ditu eta gero besteei esaten die: **benga, jasotzera denak!..**

Andreak, niri ekarri dit oihal luze bat berarekin tolesteko eta nik egiten nituen mugimendu guztiak hartu ditu kontuan eta bigarrean, primeran tolestu du berak. Miguel A-ek: "Ya está, se acabó la fiesta".

12:10 Denak alfonbra gainean etzanda daude, musika klasikoa entzuten. Margarik eskua pasatzen die bizkar gainetik. Danielek: "Yo no quiero dormir". Miguel A. alfonbratik kanpo.

12:15 Oinetakoak jantzi, ura edan -izerdituta baitaude- eta gelara jaitsi dira.

12:20 Txamarrak jantzi eta sarreran jartzen dira denak batera ateratzeko.

Gailetak banatzen dizkie andereñoak energia errekuera dezaten.

Danielek, gosariko gailetak ez omen ditu jaten, baina, eskolatik ateratzerakoan, aldiz, beti behar omen ditu.

Elkarrekintza egoerak

Asko gehitu dira eta honetan, txokoetako espazioetan taldeka egoteak eta materialak, erraztu egiten dute elkarrekintza: antzerkia prestatzen, entseguak egiten, etxeko jarduerak egiten, antzertokia dekoratzen, kritika egiten, eguraldia aztertzen, etorri direnak zenbatzen, abesten...

Oharrak

. Gauza txikien garrantzia. Gaur Andoni urduri dago "arduraduna" delako.

.Gaur inauterien entsegua egin dute nik ikus dezadan eta horrela, festen prestaketan prozesua behatzeko aukera bat gehiago eman didate.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
<u>Etxeko txokoan:</u> Kojina (1); Panpina (2); Etzanda (3); Gora-behera (4); Telefonoa (5); Ohea (6); Txakurra (7); Maindirea (8); Argazki albuma (9); Ipuina (10); Koltxoia (11)												
<u>Antzerki txokoan:</u> Ipuinak (1); Abestiak (2); Dantza (3) <u>Mahai-lanak:</u> Margoketa (4); Gometxak (5); Puntzoia (6); Kola (7); Oihalak (8); Burukoa (9); Antzerkia (10)		10	10			10		10			10	10
<u>Jolas Txokoan:</u> Enkajableak (1); Puzzleak (2); Plastilina (3); Labana (4); Arkitektura (5)		2 3 5	2 5			3 5		2 3 5			1 3	2 3

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Margotegi Txokoan: Marrazketa/Margoketa (1); Gometxak (2); Guraizeak (3); Puntzoia (4); Tenperak (5); Collage (6); Bolatxoak (7)	2 5 7			2 5	2 7		2 3 7		2 7	2 3 5 7		
Arbela: Idazketa (1); Margoketa (2)												
Jaso				+					+			

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Dantzan(1); Abesten (2); Korrika-saltoka (3); Tunela (4)	2 3	2	2	2	2 3	2 3	2 3	2 3	2	2 3	2 3	2 3
Koltxonetak (1); Txiribueltak Horma/Barrak (2); Objektuak garraiatu (3)	1 2 3	1 2 3		3	2 3	3	3		3	3	3	
Jolas sinbolikoa: medikua/ gaixoa/ panpina zaindu (rol desberdinak)										+		+
Etxea, itxituren eraiketa (1); barruan sartu (2)	1 2		1 2	1 2						1 2		1 2
Oihalak(1); Ispilua (2); Mozorroa (3)			1 3	1 3	1			1	1 3	1		3
Jaso				+			+		+			

2 = Inauterietako entsegua, abestia eta erritmoa landuz.

+ = Maikolek Nahia Li-ri: "mamá". Nahia Li-k Maikoli: "te tapo"

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEAK:

MARTXOA

APIRILA

IKASLEAK/EGUNAK	1	22	22
Adrian	9:00 - 12:30	gaixorik	9:00 - 12:30
Ander N.	9:00 - 12:30	9:10 - 12:30	9:15 - 12:30
Andoni	9:00 - 12:30	oporretan	9:10 - 12:30
Andrea	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Daniel	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Iñigo	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Ion Ander	-	oporretan	9:00 - 12:30
Irati	10:15 - 12:30	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Maider	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Maikol	9:15 - 12:30	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Miguel A.	9:00 - 12:30	9:05 - 12:30	9:10 - 12:30
Nahia Li	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30

2002/III/01

9:10 Sartu eta borobilean zeuden; ikusi nautenean altxa eta denak niregana etorri dira. Mainerrek: “Ya te has curado Lorea?” Iñigok: “Mira mi jersey nuevo”.

Pena izan da nire etorreragatik horrela aldatzea.

Musika jarrita eta abesti baten laminarekin ari dira.

9:15 Maikol etorri da autobusean eta metralleta batekin sartzen da. Kaxan uzten du.

Andreak oso ondo daki abestia. Parrez hasten dira Margarik boligrafo batekin ezpain gainean “bigotea” jartzen duenean.

Mainerrek ere oso ondo daki abestia.

Ipuina : “Pailazoa” Antzerki txokoan pailazoa ia egina daukate.

Miguel A-ek Ander N. jotzen du. Daniel eta Ander N. distraitzen dira.

Ander N-ek galtzak jaisten ditu eta berriro igotzen.

Mainerrek **euskaraz** erantzuten ditu ipuinaren galderak.

Arduraduna: Maider.

Neguko jantziak lantzen. Zein izango da Txomin? Andreak: “**nik**”.

Jantziak: Dena laminekin eta musikarekin.

9:30 Txorakerietan dabilta batzuk, ez dira kontzentratzen.

Txokoetako saioa: Gaur “elefanteak” Jolas txokora eta “txakurrak” Margotegira.

Mainerrek: “**Elefanteak jolasetara doaz**”; “**Txakurrak margotegira doaz**”, eta erreferentziazko txartelak aldatzen ditu.

Haur bakoitzak dauka bere txarteltxoa lepotik zintzilikatuta.

Andreak: “**Tenpera egingo dut**”.

Maikol, Daniel, Maider, Adrian, margotzen hasten dira, pailazoa osatzen joan ahal izateko.

Iñigok oso dorre altua egin du arkitekturarekin. Andoni puzzlea egiten, Miguel A. enkajableekin, Ander N. eta Nahia Li ere arkitekturarekin dabilta.

Pailazoa osatzeko prozesuan: Margotu, kola eman, erantsi.

Gustura ikusten dira margotegikoak beraien artean, hitz eginez eta parrez.

Nahia Lik: “Estoy haciendo una pistola”.

Miguel A. negarrez Ander N-ekin haserretu ondoren.

Oe, oe, oe, oe, esaten hasten dira bat-batean.

Adri	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li

Lamina honetan, bakoitzak bere izenaren laukian jartzen ditu plastilinaz egindako gauzak.

Iñigok galdetzen dio Margariri ea berea non dagoen.

Ander N-ek Miguel A. jo du.

Pazientzi handia behar da, oso umea da, ez dauzka ohiturak hartuta, hala ere gaur, denbora gehiagoan dabil plastilinarekin.

Maiderekin mantala jartzen du tenpera egiteko.

Estilo eta erritmo desberdinak nabarmentzen dira. Maiderekin gauzak patxaran egiten ditu. Andreak heldutasun handia adierazten du; ondo egitea gustatzen zaio eta zorrotz jarraitzen ditu ematen zaizkion pautak

Izena jartzen dute Maikolek eta Andreak.

Iratik behatza ebaki omen zuen orain dela egun batzuk; zintzilika gelditu omen zitzaion. Gelako atearekin egin zuen eta ebakuntza egin omen diote

10:10 Jasotzera!

Gosaria: Gailetak banatzen ari da Maider, arduraduna. **Zenbat nahi dituzu 1 ala 2?**

Miguel A-ek: "Bi sólo es una"

Iñigok: "Me pica el pie, me rascas?" (bota soinean dauka eta Maider hazkura egiten hasten zaio. Hobeto ari dira gaur borobilean gosaltzen.

Hori esan eta Iñigok: "Me ha arañau Miguel A." Miguel A-ek: "Yo no he sido, yo no he sido". Maiderekin dio baietz, buruarekin.

10:15 Irati dator, leihotik ikusi du Margarik.

Gelara sartzen da eta harrera egiten diote. Bi behatz eskaiolatuta dauzka. Borobilean jarri da.

10:30 Abestia eskatzen dute. Maiderekin kasete bat ekarri du. "Agongo...."

10:35 "Triki traka triki..." Komunera doaz eta gaur eguraldi txarra dagoenez barruan gelditu beharko dute.

Maiderekin niri: "Ven yo no quiero con los mayores porque me van a pegar"

11:00 Psikomotrizitate saioa.

Borobilean **arauak gogorarazten:**

- . Ez jo.
- . Iletatik ez tira.
- . Ez harramaskatu.
- . Ez koska egin.
- . Denok lagunak gara.

Hamabi arte zenbatzen -etorri direnak-.

Adrianek Maideri: "No llores más", vamos".

M-k: Bere abokatu defendatzailea da. Negarrez ikusten duenean beti galdetzen omen dio: ¿quién te ha pegau?

Margarik: Nahia Li oso aztoratuta ikusten dut, amarekin hitz egin behar dut. Txinatar batek zainduko ote duen eta ez dakit horrekin lotuta dagoen edo; amak denbora gutxi dauka berarekin egoteko eta aldaketak, behar bada, aldatu dute; ez da gelditzen.

Gaur joka ere maiz ikusi dut, ostikadak ematen ditu "arte martzialak" egingo balitu bezala

Andonik: **"Hemen gaude"**

Galdetzen diot ea zer moduz dabilen Andoni eta esaten dit hobeto ikusten duela. Orain, etxean esaten omen diote aita zeruan dagoela, ez dela etorriko, baina, egun batean "lejos, lejos, lejos" bera joango dela berarengana.

Lehenengo 2 urtetan aita asko egoten omen zen berarekin: haurtzaindegira eraman eta jaso ere berak egiten omen zuen. Gero, gaixotu zenean, 8 hilabete pasa omen zituen oso gaizki eta umeak prozesu guzti hau bizitu izan du. Aitari esaten omen zion: "aita, come para que no te mueras".

Gaur alaiago ikusten dut.

Iratik Miguel A. besarkatzen du eta Miguel A. oso gustura ikusten dut momentu horretan.

Maidar ohean balego bezala; Adrianek oihala jartzen dio tapaki moduan.

12:10 Gauza guztiak jasotzera!

Oinetakoak jantzi, ura edan eta behera joateko prestatzen hasi dira.

12:25 Txamarrak jantzi eta gelatik kanpo jartzen dira batean ateratzeko.

Oharrak

. Beharrezkoa da arauak gogoraraztea.

. Egoera gogorren aurrean erantzun egokiak ematearen zailtasuna; Adibidez, Andoniren aita hil eta bizitzen ari den prozesua.

GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	A.R	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
<u>Etxeko txokoan:</u> Kojina (1); Panpina (2); Etzanda (3); Gora-behera (4); Telefonoa (5); Ohea (6); Txakurra (7); Maindirea (8); Argazki albuma (9); Ipuina (10); Koltxoia (11)							-	-				
<u>Antzerki txokoan:</u> Ipuinak (1); Abestiak (2); Dantza (3) <u>Mahai-lanak:</u> Margoketa (4); Gometxak (5); Puntzoia (6); Kola (7); Oihalak (8); Burukoa (9);				2					2			

IKASLEAK/ JARDUERAK	A.R	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Antzerkia (10)												
<u>Jolas Txokoan:</u> Enkajableak (1); Puzzleak (2); Plastilina (3); Labana (4); Arkitektura (5)		3 5	2 5			3 5					1 5	3 5
<u>Margotegi Txokoan:</u> Marrazketa/ Margoketa (1); Gometzak (2); Guraizeak (3); Puntzoia (4); Tenperak (5); Collage (6); Bolatxoak (7); Kola (8)	1 4 5 8			1 4 5 8	1 4 5				1 4 5	1 4 8		
<u>Arbela:</u> Idazketa (1); Margoketa (2)	2				2	2			2			
Jaso				+		+			+	+		

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Dantzan(1); Abesten (2); Korrika-saltoka (3); Tunela (4)		3	1 3	3	3	3	-	3		3	3	1
Koltxonetak (1); Txiribueletak Horma/ Barrak (2); Objektuak garraiatu (3)	3	1 3	3	3	3	3				3	1 2 3	
Jolas sinbolikoa: medikua / gaixoa / panpina z. (rol desberdinak)	+								+			+
Etxea, itxituren eraiketa (1); barruan sartu (2)						2						2
Oihalak(1); Ispilua (2); Mozorroa (3)		1	1						1			1
Jaso												

2002/III/22

9:00 Umeak iristen eta borobilean esertzen.

Galtzak eta galtzontziloak batak besteari erakusten. Miguel A. sartu da eta lehenengo gauza horixe egin du ere.

Margarik:Gaur aztoratuta daude karpetak eraman behar dituztelako (marrazkien karpeta handiak).

Abestiak: "Egun on lagunok..."

Ander N. ez da esertzen, gainontzekoak bai.

Abesten hasten dira: "Trikuarena"

Musika jarrita daukate.

"Teilatuan bi katu..." Keinu asko egiten dituzte letrei jarraituz. Margarik arkatx bat jartzen du bigote modura eta izugarrizko algarak egiten dituzte.

Iratik eta Andreak papera hartu eta mukiak kentzen dituzte.

Iñigok: "Hoy vamos a llevar la carpeta". Bai, baina arratsaldean.

Ipuina: "Teo mozorroturik"

Gero eta gehiago hurbiltzen dira ipuina ikusi ahal izateko, ia gainean dauzka ume guztiak.

Ander N-ek haserre balego bezalako aurpegia dauka, eserita, baina bere munduan.

Ipuina Andreak kontatzen du, gaur bera delako **arduraduna**. Ipuinak esaldi motxak ditu eta ongi ezagutzen ditu.

Ander N. etxeko txokora joan da eta handik begira dago.

9:25 Txartelak aldatu eta **txokoetako saioa**. Txakurrak **etxera** eta elefanteak **jolas txokora**.

Ander N-ek nahi zituen txartelak aldatu baina tokatzen ez zaionez, ezin izan du hori egin eta orain ez du ezer nahi. Etzanda jarri da, lotan balego bezala.

Maikol etxe guztia trapu batekin goitik behera garbitzen ari da, estilo handiarekin.

Andrea eta Maider elkarrekin jolasten, txakurrari jaten ematen, etzanda...

Ander N. jolas txokora inguratzen da eta enkajableak hartu, txartela jarri eta "pistola" balitz bezala apuntatzen ditu umeak, ez da txokora etortzen: "lo tiro todo".

Margarik: Miguel A. asko lasaitu da.

Iñigo, Irati eta Miguel A. plastilinarekin eta hizketan beraien artean, lasai.

Etxean Maiderrek: "La bruja, la bruja". Margarik: Eskolan nola deitzen diogu? M-ek: "**Sorgina**".

Iñigok: "Aquí no hay sorgina, a mí no me gusta la sorgina".

Iratik: "A mí tampoco, me da miedo".

M-ik Ander N-i: Irrikatzen zaude puzzleak egiteko eta etor zaitez!. Puzzle bat egiten hasten da.

Nahia Lik ere berak kentzen ditu mukiak eta papera zakarrontzira botatzen.

Etxeko taldea ere elkarrekin hizketan ari da.

Ander N-ek ez du puzzlea bukatu eta "Lego"-rekin hasten da. Orain berriro itzultzen da puzzleetara; oso bere gisa.








Danielek: "Margari, Andrea ha sangrau".

Margarik: Nola egin du?.

Maikolek: "Se ha quitado la postilla".

Maikol eta Danielek: "**Pixa egitera noa**".

Jolas txokoan, lamina plastifikatu batean joaten dira eransten ume bakoitzak egin dituen puzzleen sinboloak eta horrela, andereñoak, eguna bukatu ondoren edo astea bukatzean, jasotzen eta ebaluatzen joaten da bakoitzak egin duena

Argazkia	Izena							
	Adrian							
	Ander							
	Andoni							
	Andrea							

Iratik nahiko ondo dauka behatza; badirudi azkazala ere badatorkiola.

Iñigok: **Jasotzera!**

Iñigo, Miguel A. eta Iratik 15-20 minutu pasa dituzte plastilinarekin.

10:00 Den dena jasoko dugu.

Iñigo asko saiatzen da ondo jasotzen, Irati ere.

10:05 Jaso eta borobilerara. Eseri denak marra urdinaren gainean esaten die Margarik.

Abestiak: "Agongo Maria agongo..." Denen izena aipatzen da eta altxa eta saltoak eman behar dituzte.

Iñigok: "Ander N. ha dicho que Andrea es pequeña".

Maiderrekin: Maikoli mukiak ikusi eta papera ematen dio. M-ek: "Yo no tengo mocos". M-ek: "Sí tienes".

Ander N-ek parte hartzen du, saltoak eginez. Izugarritzko barregura ematen digu eta hemen gaude eutsi ezinik.

"Txokolatero boliñero... datorrela datorrela marra duen neska". Nork ukitu duen asmatu behar dute.

Batzuk oso suabe ukitzen dute ipurdian eta beste batzuk oso fuerte, jo egin nahi dute, orduan, Margarik kolpeak "amortiguatzen" ditu.

10:20 Gosaria. Gailetak banatu ditu, marran eserita (ez dira esertzen) eta patiora doaz "trena eginez".

11:10 Psikomotrizitate saioa.

Musika eskatzen du Maiderrekin.

Borobilean **arauak gogorarazten.**

. Plataforma gainean, gomazko zaldiaren gainean saltoka: Ander N., Nahia Li, Iñigo, Maikol, Maider.

- . Irati, Miguel A., Daniel ea Andrea eskailera eta beste espumazko objektuen gora eta behera dabilta.
- . Tunelak egin eta azpitik pasatzen dabil Irati.
- . Maider dantzan plataforma gainean.
- . Etxe bat egin eta barruan dabilta. Margarik galderak egiten dizkie.

Iñigok beste anai txiki bat edukiko omen du eta orain onartuagoa omen dauka, baina, lehen, esaten omen zion: "Iker le da patadas a la ama y yo me enfado". Amarekin hitz egin omen du eta orain beste modu batean hartzen omen du, pasa omen zaio onartu ezina. Dena den, amak ohean egon behar omen du

Autonomia

Iratik eta Andreak papera hartu eta mukiak kentzen dituzte. Nahia Lik ere.

Elkarrekintza egoerak

Andrea eta Maider elkarrekin jolasten, txakurrari jaten ematen, etzanda...

Iñigo, Irati eta Miguel A. plastilinarekin eta hizketan beraien artean, lasai.

11:55 Oso gustura dabilta.

Istilu txikiren bat kenduta, nahiko lasai ibili dira.

Maikolek ere aldaketa egin omen du; lehen baino agresibitate handixeagoa azaltzen omen du eta amarekin hitz egin nahi omen du ea etxean ere desberdintasunen bat sumatzen ote duten jakin ahal izateko. Margarik dio, Maikol oso haur goxoa dela harremanetarako.

12:00 Jaso, oinetakoak jantzi eta musikarekin, alfonbra gainean etzan eta **erlaxazio** ariketa egiten ari dira..

Miguel A. eta Ander N. ez dira etzaten. Mainerrek: "¿Vas a poner a Vivaldi?"

"Atzera, atzeraka, karramarroarekin batera", aurrera, aurrera...." Gelatik poliki atera daitezten erabili du M-k joko hau.

Oharrak

- . Batzuen prozesua oso mantso doa, adibidez, Ander N-ena.
- . Pixkanaka, jarduera batekin aritzeko denbora luzatzen doa -15-20 minutu plastilina egiten-.
- . Estrategien beharra: Jokoak, musika, erlaxazio ariketak...

Inpresioak - ondorioak

. Zaila ume batzuentzat beste anai edo ahizpa baten amaren haurdunaldia. Aldaketak ulertu eta onartzearen prozesuan lagundu egin behar zaie: entzun, "aholkuak" eman...

. Eskolan ikusten diren jarrera aldaketen aurrean, beharrezkoa da etxeko egoerak ezagutzea (haurdunaldiak, ebakuntzak, separazioak...); horregatik iruditzen zaigu ezinbestekoa, gurasoekin etengabeko komunikazio izatea.

GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	A.R	AndN	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
<u>Etzeko txokoan:</u> Kojina (1); Panpina (2); Etzanda (3); Gora-behera (4); Telefonoa (5); Ohea (6); Txakurra (7); Maindirea (8); Argazki albuma (9); Ipuina (10); Koltxoia (11); Etzea garbitu (12)	G		O	7 9 11	4 1 1		O		4 7 9 11	4 12		
<u>Antzerki txokoan:</u> Ipuinak (1); Abestiak (2); Dantza (3) <u>Mahai-lanak:</u> Margoketa (4); Gometxak (5); Puntzoia (6); Kola (7); Oihalak (8); Burukoa (9); Antzerkia (10)												
<u>Jolas Txokoan:</u> Enkajableak (1); Puzzleak (2); Plastilina (3); Labana (4); Arkitektura (5); Legoa (6)		2 3				2 3 6		3 6			1 3	2 3 6
<u>Margotegi Txokoan:</u> Marrazketa/ Margoketa (1); Gometxak (2); Guraizeak (3); Puntzoia (4); Tenperak (5); Collage (6); Bolatxoak (7); Kola (8)												
<u>Arbela: Idazketa (1); Margoketa (2)</u>												
Jaso						+		+				+

G: gaixorik; O: oporretan

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R	AndN	And	Andr	D	Iñ	LA	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Oinetakoak kendu (1); jarri (2)	-	1	-	1	1	1	-	1	1	1	1	1
Dantzan(1); Abesten (2); Korrika-saltoka (3); Tunela (4)		3			3	3		3 4	1 3	3	3	3
Koltxonetak (1); Txiribueltak Horma/Barrak (2); Objektuak garraiatu (3)					2	2		2		2	2	2
Jolas sinbolikoa: medikua/ gaixoa/ panpina zaindu (rol desberdinak)												
Etxea, itxituren eraiketa (1); barruan sartu (2)								1 2				
Oihalak(1); Ispilua (2); Mozorroa (3)				1		1			1	1		
Jaso				+		+			+			+

2002/IV/22

9:00 Pixkanaka sartzen; Margarik agurrak, besarkadak eta lurrean esertzen dira.

Andreak dilista haziak erakusten dizkit (bakoitzak bereak).

Kaxa batetik izen bat ateratzen du Danielek arduraduna zein izango den jakiteko eta “....

Daniel da” esaten duenean, bere izena atera duela konturatzen da.

. **Txaloka.** Ez dut entzuten esaten die Margarik eta orduan, fuerteago jotzen dute.

M-k: Ikusi dituzue dilistak, bota dituzte kimuak.

9:15 Ander N. bideo bat eskuetan duela sartzen da.

Gaur denak etorri dira.

. Aste bukaerari buruzko **galderak.**

Iñigok esplikatzen du, nola dagoen etzanda bere anai jaio berria.

Olerkia: “Don, don...” Honek arrautza bat ... (behatzekin, gestikulatuz eta bakoitza ukituz).

Ipuina: “Behin batean...”

Batzuk ez dira eserita egoten, altxatzen dira eta besteak aztoratzen dituzte.

Andonik Maiderrri muxuak ematen dizkio aurpegian eta eskuan eta galdetzen ¿por qué no hablas? -Maiderr oso seria dago-.

9:30 Ipuina kontatzen ari da andereñoa baina kosta egiten da. Ander N. eta Miguel A. zutik “arte martzialak” egiten dabilta. Pazientzi handia hartzen du, kariño handiarekin tratatzen ditu; momentu batean Andoni eta Maiderrri: esaten die, ez didazue begiratu ere egiten, eta pixka-pixka bat haserretzen ari naiz.


9:40 **Txokoetako saioa.** Txartel handiak aldatu, bakoitzaren txartela jarri eta txokoetara. Gaur “elefanteak” antzerkera eta “txakurrak” jolasetara joango dira.

9:45 Ondo ari dira lanean, margotzen, plastilinarekin eta puzzleekin.

Kantari hasten dira, "Katutxo bat, katutxo bi..."

Maikolek plastilinarekin marrubi bat egin du, oso ondo.

"Jon Baserritarraren" ipuinarekin ari dira eta hormirudia margotzen hasi da Ander N. pintzelarekin.



Nahia Lik enborra margotuko du, margo marroiarekin eta Iratik ere.

Andrea abesten: "A tu lado yo puedo volar".

Andonik: "Begira ze polita, gorri-gorria".

Prozesua:

- . margotu
- . puntzoiez atera
- . paper transparentea erantsi

Hamarretan musikako irakaslea etorriko da eta **9:55**ean jasotzen hasten dira.

Txartelak kendu eta borobilean jartzen dira.

Nahia Lik zer jartzen dudan jakin nahi du eta zeinen izenak dauden galdetzen dit: "**hemen, hemen**". Berera iritsi denean esaten diot Nahia Li eta berak pozik, **bai?** Eta esertzera doa.

10:05 Maje sartzen da, **musika** ematera. Egun on! Eskatzen die marra urdinaren gainean jartzea; bakoitza pixka bat hartzen du fisikoki, marran jarriz.

Gaurko **arduraduna** Daniel da: "Ekarriko dituzu abestiak?, abesti guztiak e?, den denak.

Orain abestuko dugu "Zulo baten barruan" Musika jartzen du. Orain musikarik gabe, keinuak eginez, esaldi bakoitza azpimarratuz. Adrian ez da geldi egoten.


Orain abesti sorpresa, atera bat Daniel: "Axuri beltza" (lamina txikiak, plastifikatuta; kartulinazko eta izarrez adornatutako sobre baten barruan daude).

Nahia Lik Maider jotzen du eta hau negarrez hasten da.


Beste abesti bat ateratzen du Danielek "Txirintxankaten mendira nora..."

"Txoritxoak goian daude..."

10:15 Orain beste gauza bat egingo dugu. Aurrena nik esan eta zuek errepikatu. Begira! (lamina handi bat ateratzen du karpeta handi batetik). E - txe - txo - a, ta, ta, ta, ta,. Txaloekin: ta, ta, ta, ta eta azkenik kremlera itxita, txaloak bakarrik: (erritmoa lantzen)



Beste bat "hodeitxoekin"



Ho
ta

dei
ta

txo
ta

ak
ta

txaloka:

ta

ta

ta

ta

kremailera itxita, txaloak bakarrik:

txalo

txalo

txalo

txalo

eta horrela jarraitzen du "loretxoekin" eta "zizareekin".

Orain margotu egingo dugu (bakoitzari bere marrazkia ematen dio, landu dituzten etxe, hodei, lore eta zizareekin)..

Majek: "Eskerrik asko, arduraduna".

Margotuta daukatenak puzzleak osatzen dituzte (elementu berdinekin) Aurrena, klasifikatzen dituzte puzzle bakoitzaren piezak zeintzuk izango diren.

Majek ere arauak mantentzeko ahalegin dezentea egin behar du.

Ordu erdiko saioak egiten ditu, 9 geletatik pasatzen da, astean bitan gela bakoitzetik.

10:30 "Hasiko gara jasotzen eta gailetak jaten"

"Ze tontoloa zeran; pelma" eta horrelakoak esaten dizkie, kasurik egiten ez dutenei.

10:40 Komunera. Oso mugituak daudela esaten dit.

10:50 Eguraldi ona dagoenez patiora atera dira.

Oharrak

. Musikako klasean ere kosta egiten da arauak mantentzea.

Elkarrekintza egoerak

. Andonik Maiderrri muxuak ematen dizkio aurpegian eta eskuan eta galdetzen ¿por qué no hablas?

Inpresioak - iritziak

Garrantzizkoa litzateke andereño guztien koordinazioa, espezialitate guztien artekoa, (tutorak kontuan hartzen dituen hainbat eta hainbat faktore beste andereñoek ere egunerokotasunean har ditzaten) eta umeen hainbat jarreraren aurrean egoki nola erantzun aztertzea, hau da, “gaizki” egin duen haurrari, ekintza edo jokabidea ez onartzea, baina, pertsona etiketatu gabe.” egitea.

GELAN

IKASLEAK/ JARDUERAK	A.R	And.N	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
<u>Talde ekintzan:</u> Abestu (1); Dantza (2); Ipuina (3); Elkarrizketa (4); Olerkia (5); Gosaria (6)	-	E	EO	J	J	J	J	J	J	EO	J	E
<u>Etxeko txokoan:</u> Kojina (1); Panpina (2); Etzanda (3); Gora-behera (4); Telefonoa (5); Ohea (6); Txakurra (7); Maindirea (8); Argazki albuma (9); Ipuina (10); Koltxoia (11); Etxea garbitu (12)												
<u>Antzerki txokoan:</u> Ipuinak (1); Abestiak (2); Dantza (3) <u>Mahai-lanak:</u> Margoketa (4); Gometxak (5); Puntzoia (6); Kola (7); Oihalak (8); Burukoa (9); Antzerkia (10)		1 6	4 6 7				4 6		4 6			4 6
<u>Jolas Txokoan:</u> Enkajableak (1); Puzzleak (2); Plastilina (3); Labana (4); Arkitektura (5); Legoa (6)				3	3	2		3		3	3	
<u>Margotegi Txokoan:</u> Marrazketa/Margoketa (1); Gometxak (2); Guraizeak (3); Puntzoia (4); Tenperak (5); Collage (6); Bolatxoak (7); Kola (8)		5										
<u>Arbela:</u> Idazketa (1); Margoketa (2)												
Jaso				+	+	+	+	+			+	

J: Talde ekintzan egindako jarduerak jarraitu ditu: abestiak, ipuina,...

E: Ez du jarraitu; E.O.: Ez oso ondo

ASISTENTZIA ORRIA - HILABETEAK: MAIATZA EKAINA

IKASLEAK/EGUNAK	16	7
Adrian	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Ander N.	9:00 - 12:30	9:15 - 12:30
Andoni	9:00 - 12:30	9:10 - 12:30
Andrea	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Daniel	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Iñigo	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Ion Ander	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Irati	10:15 - 12:30	9:00 - 12:30
Maidier	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30
Maikol	gaixorik	9:00 - 12:30
Miguel A.	9:00 - 12:30	9:10 - 12:30
Nahia Li	9:00 - 12:30	9:00 - 12:30

2002/V/16

9:05 Sartzen eta **borobilean** esertzen eta **etorri direnen izenak** kaxa batetik hartu eta panelean jartzen ari dira.

M-k: Begira Lorea, hasi dira izenak erlazionatzen! Ander N-ek "Hiru txerrixoen ipuina ekarri dit kontatzeko.

Andreak eta Maiderrekin: **Kaixo Lorea!**

Miguel A. niregana etorri eta zerbait esaten dit; atzetik, Daniel bestea imitatuz.

M-k: Zer pasatzen da? Lorea ez al da gure laguna?. Miguel A-ek buruarekin baietz dio.

Andonik: Mi ama me va a llevar a las 5 a ver los payasos. Euskaraz errepikatzeko esaten dio Margarik eta egiten du; baita Iratik ere.

Andreak behatza altxatuz: "Un día iba Torrevejara y había 2 camas para dormir"

Danielek: "He ido a ver los payasos".

Iñigok: "Mañana voy a ver tigres que están en la jaula".

Nahia Lik: "Cuando sea mi cumple voy a traer una tarta y chuches cuando venga a mi **gela**, a todos los niños 5 tartas".

Ion A-ek: "Cuando sea mayor voy a traer un guante".

Maiderrekin: **Gero nora joango dira txakurrak? Etxera, eta elefanteak?**

Iñigok: "Yo soy **arduraduna**".

Margarik: Ekarriko didazu telefonoa? Etxeko txokotik ekartzen du.

Ipuina eta telefonoarekin: Bai, nor da? Oraintxe jarriko da. Noren amatxo da Marta? Andreak: **Nerea. Kaixo, lanean zaude? Gero etorri nire bila.**

Grazia egiten die eta denak parrez hasten dira.

Ipuina: "Otsoa eta hiru txerrikumeak". Behatzarekin seinalatuz esaten du: O-tso-a eta hi-ru txerri-ku-me-ak (silabak azpimarratuz).

9:25 Miguel A-ek Ander N-i: "Calla la boca", entzun egin nahi baitu, baina, bera ere beste aldera begira dago: "cierra el pico cara de patata". Iñigok: "No le hagas caso".

Ezin du ipuina kontatzen jarraitu, txorakeriak egiten jarraitzen dutelako. Miguel A. ez da isiltzen eta Danielek jarraitzen dio; Ander N. bere atzetik. Iñigok: "Yo quiero el cuento". Maidere ere haserre dago ipuina entzun nahi duelako.

"Etxefuegoak" egingo ditugu: Xi, xiiiiiiiiiiii...

Abestia: "Ixil ixilik dago kaia barrenean..." (keinuak eginez)

Aurreko egoeratik ateratzeko erabiltzen du estrategia hau.

Maiderek haserre jarraitzen du, asko gustatzen baitzaizkio ipuina eta abestiak.

Orain borobilean, korroan, musikarekin.

Berriro esertzen dira. Ander N. Miguel A-i jostailuak botatzen hasten da eta M-ik borobilerara ekartzen du.

9:35 Txartelak jarri eta **txokoetako saioa hasten da**. Gaur "txakurrak" antzerkira: Ion A., Andrea, Daniel, Maider eta Adrian. "Elefanteak" etxera: Nahia Li, Andoni, Irati, Iñigo, Ander N. eta Miguel A.

Margarik esaten dit atzo ez zela Miguel A. etorri eta egun zoragarria izan zutela. Bere amari esan omen zion eta berak: baieztatu omen zion: "Me ha vuelto loca".

Oihalak lepotik lotuta eta etxeko eskaileretatik gora eta behera dabil Miguel A., beldurra eman nahian eta Ander N. garrasika.

Margarik: Nor joango da kanpora lasaitzera? Oso harrotuta zabilzate-eta.

Antzerkian mahaiko lana egiten ari dira, margotzen eta hizketan.

Andonik: "Iñigo, ¿me dejas entrar?"

Margari etxeko txokora joaten da ea lasaitzen diren eta Ander N-ek ezpainetan muxu ematen dio.

Andoni, Iñigo eta Nahia Li ipuin bat ikusten eta hizketan, entretenituta daude.

Ander N-ek leihotik oihal batekin beheko: "Aquí lo tenéis". Irati ere berdin. Miguel A. txistua botatzen. Margarik hartu eta eszenatokian eserita egoteko esaten dio. Berak: "no quiero". Altxa egiten da eta andereñoak berriro jartzen du eserita: pixka batean hemen egon.

Andonik: Spiderman, Spiderman!. Miguel A-ek: "Sabes que, que Spiderman no tiene capa".

Miguel A-ek Margariri: "Me dejas ir ahí?". Bai, baina ez berriro txisturik bota.

9:50 Orain Iñigok Andoni eta Ander N. jo ditu. M-k: Zergatik sartzen zarete berarekin? Badakizue jenioa daukala! Iñigo, eseri pixka bat zu ere, hemen.

Eszenatokia zuhaitzekin eta porru, azenario, zainzuri, marrubiz osatzen ari dira.

Iñigo isil-isilik dago eszenatokian eserita. Minutu batzuk pasa ondoren etxera itzultzen da.

“**Jon Baserritarraren**” ipuinaren **antzerkia** prestatzen ari dira. Andreak txapela jarri du eta eszenatokian dago; besteak ere. Bakoitzak bere papera dauka: kontalaria, txoriak, baserritarra... Irati “txakurrarena” egiten dabil.

Gortinak itxi dituzte eta entseguarekin hasi dira.

10:00 Etxekoek jaso egin behar dituzte gauzak eta antzerkia ikusteko prestatu.

Andreak: **Gu txakurrak gara eta Jon Baserritarraren ipuina kontatuko dugu.**

Maiderek: **Ni txoria izango naiz.**

Margarik kontalariari laguntzen dio, Ion A-i. Honek kontatu ahala besteek errepresentatzen joan behar dute. Figura osatzen joan behar dute: burua eta aurpegian: udareak begiak dira, azenarioa sudurra, marrubia ahoa, gereziak belarriak, bi porru hankak dira...

Batzuk ondo entzuten dute. Miguel A. eta Irati mugitzen hasten dira.

Abesti batekin bukatzen dute: “Txori txiki polita...”

Kritika: Ion A-ek Iñigori: **Gustatu al zaizu antzerkia?**

Andonik: **Gaizki egin du txorimaloak**, la pierna... **hanka, gaizki jarri duelako.**

Irati, **gustatu zaizu antzerkia?** Ez du ezer esaten.

Nahia Lik: “**Bai, ondo**, pero **txoriak** mal, a mí no me gusta”.

M-k: Zer moduz portatu dira ikusleak?

Ion A-ek: “Mal”.

Egia esan, Irati, Iñigo eta Maider, besteetan ez bezala portatu dira.

M-k: Gaur eguraldia beroa egiten du eta horregatik izango da.

Beno, txalo jo eta gailetak banatuko ditugu.

10:15 Eseri denok, gauza bat esan nahi dizuet-eta. Hemendik aurrera, etxetik ekartzen dituzuen gauzak, Margarik, poltsa batean sartuko ditu eta Lurdes (zuzendariaren) gelara eramango ditut, gelan ez ibiltzeko etxeko gauzekin.

Miguel A.: “Yo galleta Txikilin”. Bai, baina eseri marra gorriaren gainean.

Iñigok banatzen ditu **gailetak**.

10:20 Orain kalera joango gara. Oso eguraldi beroa dago. Pixa egin eta kalera.

Iñigok gailetengatik: “¿Os gusta?” Margarik: Gustatzen zaizue?

11:50 Eguraldi eder honekin oso gustura ibili dira eta gaur luzatu egin du Margarik patioko saioa.

Nahia Li oso geldo zegoela konturatu da Margari eta sukarra daukala ikusten du; amari deitu eta handik 30 minutura etorri da amona ambulategira eraman dezan..

Beste txokoetako saio bat egiteko denbora gehiegirik ez dagoenez, lurrean eseri eta **abesti eta jokoak** egingo dituzte. “Agongo Maria agongo... txiribiri bonbon, Iñigo, Iñigo txiribiri bonbon”.

Horrela denekin; bakoitzak altxa eta salto egiten du besteek kantatu eta txalo jotzen duten bitartean. Gorde behar duten **araua**: marra gainean eserita egotea da.

“Txokolatero boliñero asto gainean kaballero; etorri dadila etorri dadila niki arrosa daukan neska” (begiak itxita dagoenak identifikatu behar du nork jo duen ipurdian).

Iñigok: Los niños son “**mutillas**”.

Ander N-ek eskua altxatzen du bera dela esateko –oraindik ez dauzka jokoaren arauak hartuta- eta izugarrizko grazia egin digu.

Benetako porruak, sagarrak eta beste barazkiak daude gelako otar batean, antzerki txokoan, lantzen ari diren gaiarekin lotuta.

Ander N. porruak hartu eta jolasean hasten da. Margarik hartu eta borobilera ekartzen du.

“Sardina bat, bi sardina, topatu ziren izkina batean...; irten dadila ...”

Ondo ibili dira eta parte hartu dute.

12:10 Eskuak garbitu (xaboia gelatik eramaten dute) eta etxera edo jangelara joateko prestatzen ari dira.

Oharrak

- . Talde ekintzako saioa luzeagoa izan da gaur.
- . Egoera bat aldatu nahi duenean jarduera desberdina proposatzen du errekurtsio moduan.
- . Kritika egiterakoan ere ari dira elementu berriak azaltzen, zergatiak gehiago adierazten dituzte.
- . Fisikoki umeak hartu eta ekartzeak ondo funtzionatzen du, hitzez esanda baino hobeto.
- . Ondo pasatzearen garrantzia azpimarratzen du andereñoak. Abesti eta dantzak errekurtsio onak dira arauak betetzen ez dituztenean, bereganatu ahal izateko.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Talde ekintzan: Abestu (1); Dantza (2); Ipuina (3); Elkarrizketa (4); Gosaria (5)	2		1 2 4	1 2 4	2	1 2 4	1 2 4	1 2 4	1	-	1 2	1 2
Etxeko txokoan: Kojina (1); Panpina (2); Etzanda (3); Gora-behera (4); Telefonoa (5); Ohea (6); Txakurra (7); Maindiera (8); Argazki albuma (9); Ipuina (10); Koltxoia (11); Etxea garbitu (12)		4 8	4 8			4					4	4 8
Antzerki txokoan: Ipuinak (1); Abestiak (2); Dantza (3) Mahai-lanak: Margoketa (4); Gometxak (5); Puntzoia (6); Kola (7); Oihalak (8); Burukoa (9); Antzerkia (10)	4 10			4 10	4 10			4 10	4 10			
Jolas Txokoan: Enkajableak (1); Puzzleak (2); Plastilina (3); Labana (4); Arkitektura (5); Legoa (6)												
Margotegi Txokoan: Marrazketa/ Margoketa (1); Gometxak (2); Guraizeak (3); Puntzoia (4); Tenperak (5); Collage (6); Bolatxoak (7); Kola (8)												
Arbela: Idazketa (1); Margoketa (2)												
Jaso												

2002/VI/07

9:00 Pixkanaka sartzen eta borobilean esertzen doaz. Gaur Margarik dentistarengana joan behar zuen eta Maialen dago ordezkapena egiten.

Abesti batekin hasten dute talde ekintza saioa: "Margari gaixorik dago...."

Asistentzia: ... etorri da, ez da; denek hartu dute parte. Alde batean jarri dituzte etorri direnen izenak eta Ander N. etorri ez denez, bestaldean.

Arduraduna: Gaur Irati izango da.

Eguraldia: Iratik: **Lainotuta dago? Bai, ez.**

Euria ari du? Ez.

Haizea dabil? Ez.

Elurra ari du? Ez.

Eguzkia dago? Bai.

Eguzkia eta lainoak? Bai.

Ipuina: Momentu honetan dator Ander N. bere amarekin, denak ateratzen dira agurtzera, Irati izan ezik. Alteratu dira. Ander N-ek bideo zinta bat ekarri du eta Maialenek bere tokian uzteko esaten dio. Uzten du eta berriro esertzen dira marra gainean. **Abesti** bat erabiltzen du beren onera etorri daitezen “Bat eta bi eta hiru...”.

Begiak, irekita, belarriak erne, ahoa itxita, ipurdia?.

“Txano gorritxo”ren ipuina: Ahotsak aldatzen dituenean grazia egiten die (ahots fin-fina egiten du Txano gorritxorena egiteko). Momentu batean sustoa hartzen dute “otsoarena” egiterakoan eta parrez lehertzen dira ondoren Txano gorritxorekin. Izugarritzko sustoak hartzen dituzte (beldurra eta parra nahastuz)

Ander N. egon da pixka bat entzuten baina hasi da mugitzen. Lortzen du berriro esertzea baina mugitzen denez, bazterrera eramaten du besotik hartuta, lasaitu arte.

9:30 Abestia: “Otsoarena”

Txartelak aldatu eta **txokoetako saioa**. Elefanteak “jolasokira” eta txakurrak “etxera”.

Etxean oihalak hartu eta eskaileratan gora eta behera dabilta.

Miguel A-ek Ion A. jo du.

Jolas txokoan plastilina egiten ari dira; Nahia Li puzzleak egiten.

Andoni, Ander N. eta Iratik arraia ukitzeko eskua sartu dute pezeran eta hirurak hartzen ditu Maialenek. Adrianek: “Yo no he jugau con la **arraina**”. Harrotu egin dira eta erabat aztoratu.

Etxekoek koltxoia jaitsi dute eta etzanda daude beren artean hitz eginez.

Jolas tokikoak haserre dabilta eszenatokian bata bestearekin: Maikol, Daniel, Ion A., Maider eta Adrian. Andereñoak Maider kontsolatzen du, negarrez ari da eta. Besteetan baino iskanbila gehiago dago gaur. Maiderrek esan omen dio Maialeni “triste” dagoela.

10:05 Andereñoa etxean sartzen da jarduerak proposatuz.

Ander N., Iñigo eta Miguel A. elkarren artean “Lego” jokoarekin dabilta dorreak egiten.

Nahia Li nire inguruan dabil zer idazten dudak jakin nahian.

Andoni eta Irati korrika dabilta; ematen du ez dakitela zer egin.

Etxekoetatik, Andrea bakarrik dago txoko horretan, ohean etzanda dago. Besteak jolas txokoan daude.

Maialenek komentatzen dit gela honetako batzuk oraindik “umetxoak” direla, ez dutela kontrolatzen, adibidez, lerdea erortzen zaiela, hitz egin ere oraindik kostata egiten dutela, biolentzia dagoela, oso berekoiak direla. Esaten diot, momentuetan agresibitatea adierazten dutela eta berak azpimarratzen dit ez dela agresibitatea baizik eta biolentzia.

Maiderrekin primeran tolestaten ditu oihalak, izugarritzko detailearekin, gero zakarrontziaren tapa jartzen du. Maikolek imitatzen du (oihalak nola tolestatu dituen begiratzen du).

10:20 Jasotzen hasten dira. Oso alteratuak daude eta kolpe batzuk, gauzak botatzen hasi dira, ez da erraza denaren kontrola. Gainera utziz gero gehiagora doa gauza.

Borobilean. Iratik erabat asunituta dauka **arduradunaren** papera.

Abestia: "Orain eserita... agian gero-gero gaileta txiki bat jango dugu denok-denok".

Ipuina: "Jon Baserritarra..."

Abestiarekin bukatzen dute saioa.

10:30 Margari sartzen da eta poza adierazten dute; denei muxu ematen die.

Gosaria: Gailetak banatzen dituzte eta "Triki traka" abestuz ateratzen dira gelatik.

Gaur patioan ordu erdi ibili dira.

11:10 Psikomotrizitate saioa.

Arauk gogorarazten

- . Ez jo.
- . Ez bultza.
- . Ez harramaskatu.
- . Denok lagunak gara; denok, e?, ez batzuk bakarrik..

Etorri direnak zenbatzen: 1, 2, ... 12.

Trizikloak, zaldia, panpinak, goma-espumazko elementuak batetik bestera eramaten.

Horma-barretan goitik behera dabil Iñigo.

Nahia Lik Andreari: "Mamá, voy a saltar"; Andoniri: "Papá, hola".

Nahia Lik salto egin aurretik **1etik 12ra euskaraz** kontatzen du eta gero txiribuelta ematen du.

11:25 Musika jartzen du Margarik eta Maider dantzan dabil.

<p>Nik Margariri: <i>Diferentzia egin du Ander N-ek; jolas txokoan ondo aritu da eta besteekin aritzea ere onartu du. Esaten dit baietz, nahiz eta oraindik ere, momentu askotan, aurrerapen handirik ikusten ez zaion.</i></p>

Haserreak: Iñigori goxokiak bota egin dizkio Miguel A-ek eta honek, jo egin du.

Momentu honetan negarrak eta haserreak: Nahia Li, Andoni, Iñigo, Miguel A.

Iratik: **Aitatxo!**

Maiderrekin Adrian zaindu nahi du.

Margarik: Iñigok izugarritzko jenioa dauka, jarri behar diet gurasoei informean.

Maiderrekin maiz erabiltzen du jolas sinbolikoa: panpinak zaindu, beste umeak zaindu...

Andreak ere.

Andoni dabil orain panpinarekin.

Oharrak

- . Jarduera bat hasi ondoren norbait gelan sartzeak erabat aztoratzen ditu.
- . Andereño aldaketa asko sumatzen dute.

GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And.N.	And	Andr	D	Iñ	IA	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Talde ekintzan: Abestu (1); Dantza (2); Ipuina (3); Elkarriketa (4); Gosaria (5); Eguraldia (6)	1 3	3	1 3	1 3	1 3	1 3	1 3	3 6	2 3	1 3	1 3	1 3
Etxeko txokoan: Kojina (1); Panpina (2); Etzanda (3); Gora-behera (4); Telefonoa (5); Ohea (6); Txakurra (7); Maindirea (8); Argazki albuma (9); Ipuina (10); Koltxoia (11); Etxea garbitu (12)	4 6 7			4 8	4 6		4		4 8	4 6		
Antzerki txokoan: Ipuinak (1); Abestiak (2); Dantza (3) Mahai-lanak: Margoketa (4); Gometxak (5); Puntzoia (6); Kola (7); Oihalak (8); Burukoa (9); Antzerkia (10)												
Jolas Txokoan: Enkajableak (1); Puzzleak (2); Plastilina (3); Labana (4); Arkitektura (5); Legoa (6)		6	3 6			3 6		2 3		2 3 6		2 3
Margotegi Txokoan: Marrazketa/Margoketa (1); Gometxak (2); Guraizeak (3); Puntzoia (4); Tenperak (5); Collage (6); Bolatxoak (7); Kola (8)												
Arbela: Idazketa (1); Margoketa (2)												
Jaso									+	+		

3 = Ipuina entzuten

PSIKOMOTRIZITATE GELAN

IKASLEAK/JARDUERAK	A.R.	And. N.	And	Andr	D	Iñ	IA	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Oinetakoak kendu (1); jarri (2)	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
Trizikloa (1); Zaldia (2)			1		1					1		
Dantzan(1); Abesten (2);									1			
Koltxonetak (1); Txiribueltak Horma/Barrak (2); Objektuak garraiatu (3), Korrika-saltoka (4), Txiribueltak (5), Tunela (6)	1 3 4	4	4	4		2 3 4	3 4 5*	4 5			3	2 4 5
Jolas sinbolikoa: medikua/ gaixoa/ panpina zaindu (rol desberdinak)				+					+			
Etxea, itxituren eraiketa (1); barruan sartu (2)												
Oihalak(1); Ispilua (2); Mozorroa (3)								2	2			
Jaso				+		+			+			+

4 = Salto egiteko piezak: hirukiak, laukiak, borobilak, arkuak. Horietatik salto egin eta koltxoneta handian txiribuelta.

5* = Laguntzarekin

IKASTURTE AMAIERAKO FESTAREN EGITARUA

11:00 Jaiaren hasiera

Handi eta txikientzat puzgarriak

Zezen mekanikoa eta Santa Fe Trena

Harri Berri eta Oletako ikasleek egindako lanen erakusketa

Eskulanen tailerrak: Makilajea (adin guztietarako)

Karetak (txikientzat) eta Apaingarriak (handientzat)

Euri simulagailua eta Simpson mobila (Handi eta ertainentzat)

Tortila eta Gozo lehiaketa gurasoentzat*

13:30 Marrazki eta sukaldaritzako sari banaketa

14:00 Bazkaria

16:00-16:30 Haurrentzako jolasak

16:30-17:00 Trialsin erakustaldia. Iker Leceta (4 aldiz munduko txapelduna)

17:00-17:30 Haurrentzako jolasen jarraipena

17:30-18:00 Pailazoak

Jaiaren amaiera (eskertuko genuke gauzak jasotzen laguntzea)

* etxetik eginak ekarri behar dira

IKUSPEGI OROKORRAK ANDEREÑOAREN HITZETAN

(2002/VI/13)

GALDEKETA-ELKARRIZKETA ERDI EGITURATUA

ESPAZIOEN AZTERKETA

1.- Deskriba iezadazu nola ikusten duzun espazio bakoitza elementu hauek edota beste batzuk kontuan hartuz

- . Azalera
- . Argitasuna
- . Soinu-isiltasun
- . Berotasun-hotz
- . Funtzionaltasuna
- . Seguritate-Arriskuak
- . Goxotasuna
- . Ekipamendua

1.1.- Gela

Handia, ederra, talde txikia delako. Argitasun aldetik ondo. Goxotasuna?, erakargarria da.

1.2.- Psikomotrizitate gela

Goiko solairuan dagoenez, (2. solairua) haur elbarriren bat balego ez legoke igotzerik. Funtzionala eta eroso da; ekipamendu aldetik ere egokia ikusten dut.

Ordutegia aldatuko nuke ikasturte honetan 11etan izan dudalako. Dena den, orain, ordutegia hobeto menderatzen dute eta ondo asunituta daukate.

Klaustroan onartu didate txikiegiak direla, 2. solairutik 1. solairura jaitsi behar dutelako komunera.

1.3.- Jangela

Beste eraikinera joan behar dute bazkaltzera, baina gustura, arazorik gabe.

1.4.- Patioa

Txiki hauentzako beste eraikinekoa egokiagoa da, ezagutzen dutelako 2 urte zituztenetik. Hemen, "galduta" sentitzen dira batzuk, hura berriz, "berea" sentitzen dute eta babestuagoak ikusten dira.

2.- Gelako txokoen erabilera nola ikusi duzu? Txokoz-txoko

. Etxea

. Margotegia

. Jolas tokia

. Antzerkia

. **Etxea** ikusi dut zailena, behar bada, neronek ez dut bere funtzioa ondo ikusi. Zarata behar dute beraien beldurrak eta nahiak adierazteko baina, salto handiak egiten dituztenean eta builak, besteei molestatu egiten diete eta ez nekien nola egin, agian neronen problema da; interferentziak sortzen dituela iruditzen zait eta ihes egiten dit.

. **Margotegian** eta **jolasetan** ondo ikusi ditut, behar bada, helduaren erreferentzia gehiago dutelako, gidatuagoa delako, adb. plastikan.

2.1.- Txoko bakoitzean dagoen materialak zertarainoko zerikusia du zure ustez?

. **Jolas txokoan** eraikuntza material gehiago beharko genuke, pieza handiagoak, "berriaren" sentsazioa ere behar dute umeei, nahiz eta berri-berria ez izan (gordeta eduki eta pixkanaka ateratzea)

2.2.- Zure gustura antolatuta al dago gela? Aldaketarik egingo al zenuke?

Tamainaz handixeagoa izan bazen, etxea beste aldean jarriko nuke baina, orokorrean ondo dago.

2.3.- Dauden material, baliabide eta ekipamendua, egokiak ikusten al dituzu?

Bai, nahiko egokiak iruditzen zaizkit. Sistema ona da, agian gu geu gara...

3.- Zer eskatuko zenioke Administrazioari?

Eskola honetan ezindu edo elbarriak ez daukate lekurik, **barrera arkitektonikoak** direla-eta. Beste gauza garrantzitsua **aterpea** da; aterpe faltarena arazo handi bat da. Hirugarren arazoa, **zarata** da; asko afektatzen die umeei eta hori **eraikina** beraren egitura eta materialengatik da, ez dago isolatua eta dena entzuten da. Eraikin hauek **ez daude prestatuak ez bero eta ez hotz** egiten duenerako. Izugarri berotzen dira uda aldera eta siesta egiten duten ume txikiek, zailtasunak dituzte lo egiteko ere. Hotzarekin hobeto konpontzen gara, berogailua dagoelako.

Ikasturtearen bilakaera nolakoa izan da?

Ikasleak

Nahiko poliki ikusi ditut; ez dut arazo berezirik ikusi. Miguel A-en egonezinak pazientziarekin eraman ditut. Lasaitasuna lortu behar du baina prozesua horrelakoa da. Heldutasuna poliki-poliki ematen da eta ez da gure gauza bakarrik.

Irakasleak

Astero, 3 urteko haurren hiru andereñoak koordinatuta egon gara eta zikloka ere astero-astero bildu gara. Ondo, ez dut izan inongo problemarik eta ondo konpondu gara.

Gurasoak

Harreman oso onak, zuzenak. Sekulan ez dut "pretenditu" lagunak izatea, gurasoak dira, haurretaz hitz egiten dugu eta ondo erantzuten didate, oso ondo. Egunero etortzen dira umearen bila, bat izan ezik.

Aholkularia

Premia gehiegirik ez dugu izan baina "figura" hori ondo ikusten dut; oso ondo etorri zaigu zenbait egoeretan galderak izan ditugunean, ondo erantzun du.

. Nola baloratzen duzu ikasturtean eman den prozesua autonomia eta elkarrekintza alorretan?

Sistema, materialak, hurbil egoteak, eskura egoteak laguntzen die **autonomia prozesuan**. **Elkarrekintzari** buruz, elkarrekin jolastu, hitz egin, "lagunaren bila" etortzen hasi dira, lagunaren figura pixkanaka-pixkanaka, "**deskubritzen**" ari dira.

Nik: Nabaritzen da adibidez, bat gaixo egon ondoren zein ongietorri ona egiten dioten besteek

Margarik: Bai, asko lantzen dugulako, egunero-egunero, zein etorri den, zein falta den, gaixorik ote dagoen, oporretara joaterakoan besarkatuz...

. Laguntzaren bat eskatuko al zenuke?

Aholkulariaren laguntza espero dut izatea, agian beharko dugu, baten kasuan hizkuntza pobrea dauka, ez nuke itxoin nahi ziklo bukaera arte; logopeda bat ondo etorriko litzaiguke.

. Datorren ikasturterako bai al dakizu ze talde izango duzun?

Aurtengo 12 haurretatik 10 gelditzen dira eta 2 urteko nireak izandakoetatik, 5 nire taldera pasako dira; beraz, printzipioz 15 haur horiek osatuko dute nire taldea.

AUTONOMIA-OHITUREN TAULAK

2001-2002 Ikasturtea

2. HIRUHILABETEA

ELIKADURAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITURAK

(JANGELAN BAZKALTZEN DUTENEN DATUAK)

1-4 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	Adr	And.N.	And	Andr	Iñ	Ma	Maik	N.Li
Elikagaia ahora eraman bidean erori gabe	B	I	B	B	B	B	B	B
Koilara erabiltzen ikasi solido edo likido eta solidoekin	B	B	B	B	B	B	I	B
Edalontzia likidoak edateko erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B
Mahai ingurua txukun uzten ikasi	I	I	B	B	B	B	I	B
Lurra txukun uzten ikasi	I	I	B	B	B	B	I	B
Mastekatzen eta irensten ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B
Ahoa itxita ondo mastekatzen ikasi	B	I	B	B	B	B	B	B
Plater eta edalontzi hutsak edo erdi beteak ekartzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B
Jaten ari garen bitartean hitz egiten ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B
Jana banatu bitartean itxoiten ikasi	B	I	B	B	B	B	B	B
Denetatik jaten ikasi	B	B	B	B	B	I	B	B
Jango duen kantitatea eskatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B
Beste elikagaiekin batera ogia jaten ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B
Elikagaiak eskuekin mozten ikasi, koska egin gabe	I	I	B	B	B	B	B	B
Labana behar ez duen frutak zuritzen ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I
Ahoa garbitzeko ezpain-zapia erabiltzen ikasi	I	I	B	B	B	B	I	B
Elikagaiak hartu aurretik eskuak garbitu	B	B	B	B	B	B	B	B
Mahaia jartzen eta kentzen laguntzen ikasi	?	?	?	?	?	?	?	?

(B)Egiten du

(I) Ikasten ari da

2. HIRUHILABETEA

DESKANTSUAREKIN (AUTONOMIA) ZERIKUSIA DUTEN OHITUREN HEZIKETA

URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	A	And.N.	And	Andr	D	In	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Zapatak kentzen ikasi	I	I	S	S	S	S	I	S	I	B	S	B
Galtzerdiak kentzen ikasi	I	I	S	S	S	S	I	S	I	B	S	B
Berokia eta txaketa kentzen ikasi	I	I	B	B	S	B	I	S	B	B	S	B
Arropak kentzen lagundu (besoak, hankak, etab. altxatuz)	I	I	S	I	S	S	I	S	S	B	T	B
Berokia, txaketa, poltsa, mantala... zintzilikatzen ikasi	I	I	S	S	S	S	T	S	S	S	T	T
Galtzak, gonak, jertseak, alkandorak eranzten lagundu	I	I	S	B	S	S	T	B	S	I	T	B
Janzteko arropen alde ona edo alderantziz dagoena bereizten ikasi	I	I	T	I	T	I	I	B	B	I	B	T
Zapatak eta eskularruak zein oin edo eskutakoak diren jakin	I	I	T	S	T	I	S	B	B	I	B	B
Lo hartzeko laguntzen duten sinboloak bilatzen ikasi	T	B	B	T	B	B	I	B	T	B	I	B
Bakarrik lo egiten ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	S	B	I	B
Negarrik egin gabe esnatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	T	B
Lo hartu aurretik eta esnatu ondoren agurtzen ikasi	B	B	B	B	S	S	S	B	B	B	T	B
Norberaren arropak tolestatzen lagundu	I	I	T	S	S	S	T	T	S	T	T	T

(B) Egiten du;

(S) Saiatzen da;

(I) Ikasten ari da;

(T) Tarteka egiten du

2. HIRUHILABETEA**HIGIENEAREKIN (AUTONOMIA) ZERIKUSIA DUTEN OHITUREN HEZIKETA**

2-4 URTEKO HAURREKIN LANTZEN HASTEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	A	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Orinaletik/komunetik esertzen eta altxatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Eskuak garbitzen ikasi	T	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Sudurra zikina daukala konturatzen hasi eta laguntza eskatu	T	B	B	B	B	B	B	B	B	T	B	B
Eskuak lehortzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Zakarrontzia erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	T	B
Esfinterrak kontrolatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Zikina sentitzen denean laguntza eskatu	B	B	B	B	B	B	B	B	B	T	B	B
Zikina edo garbia dagoela jakin	B	B	B	B	B	B	B	B	B	T	T	B
Bainugelako espazioak txukun uzten ikasi	I	I	B	B	B	B	B	B	B	I	I	B

(B) Egiten du;

(S) Saiatzen da;

(I) Ikasten ari da;

(T) Tarteka egiten du

3. HIRUHILABETEA

NORBERAREN AUTONOMIAREKIN LOTUTAKO OHITURAK

0-3 URTE BITARTEAN HASI ETA KONTSOLIDATZEN JOATEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	Adr	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Gauza txikiak bakarrik egiten ikasi: jostailuak hartu, gorputzeko atalak mugitu, bere burua entzun eta besteei entzun, entretenitu...	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Trebetasun txikiak ikasi: txiribueltak eman, pinuarena egin, orekan mantendu, hanka baten gainean salto egin, narrasi, papera urratu, behatzekin pusketak egin, txalo jo, txistu egin,	B (*)	B (*)	B (*)	B (*)	B (*)	B (*)	B (*)	B (*)	B (*)	B (*)	B (*)	B (*)
Hitzak esaten ikasi, erritmo bat jarraitu, objektuei soinua terarazi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Tresna batzuen erabilera dominatu: koilara, edalontzia, platera, ...	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Behar diren gauzak erabiltzen ikasi: baberoa, orrazia, etab.	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Garbitzen ikasi, jantzi eta erantzi laguntza pixka batekin edo bakarrik	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B

(B) Egiten du;

* hanka batekin salto egitea zaila da

Prozesu guzti hau gaindituta daukatela esaten dit andereñoak

3. HIRUHILABETEA

PERTSONEN ARTEKO ERLAZIOAK ERRAZTEN DITUZTEN OHITURAK

3-6 URTEKO HAURREKIN LANDU ETA KONTOLIDATZEN JOATEKOAK

ITEMAK/IKASLEAK	A	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Agurtzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Galdetzen digutenean erantzuten ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Besteek zerbait behar dutenean atentzioa ematen ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Besteen alderdi positiboak estimatzen eta baloratzen ikasi	E?	E?	E?	E?	E?	E?	E?	E?	E?	E?	E?	E?
Besteen lana eta jolasa errespetatzen ikasi	P	P	P	P	P	P	P	P	P	P	P	P
Besteek lanean ari direnean edo deskantsatzen daudenean, isilik egoten ikasi	P	P	P	P	P	P	P	P	P	P	P	P
Beste umeekin jolasten eta lanean ikasi	B	P	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Gatazken aurrean zintzotasunez jokatzeko ikasi	P	P	P	P	P	P	P	P	P	P	P	P
Besteekiko harremanetan ´delikatua´/samurra izaten ikasi	Z	Z	Z	Z	Z	Z	Z	Z	Z	Z	Z	Z

(B) Egiten du;

(E) Ez du egiten;

(P) Gainditzeko prozesuan daude.

(Z) 4. eta 9. itemak **zailak** direla dio andereñoak

3. HIRUHILABETEA

TALDEKO ESPERIANZIAK ERRAZTEKO OHITURAK

3-6 URTE BITARTEAN HASI ETA KONSOLIDATZEN JOATEKOAK

ITEM/IKASLEAK	Adr	AndN.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Elkarrekin zerbait egiten ikasi: dantza, antzerkia, muralak, collage-ak,...	B	I	B	B	B	B	B	B	B	B	I	B
Elkarrekin ipuin bat, olerki bat kontatu	B	I	B	B	B	B	I	B	B	B	B	B
Elkarrekin abesten ikasi	B	I	B	B	B	B	I	B	B	I	I	B
Festak denen artean egiten ikasi	L	L	L	L	L	L	L	L	L	L	L	L
Bisitei ongi-etorria ematen ikasi	L (*)	L (*)	L (*)	L (*)	L (*)	L (*)	L (*)	L (*)	L (*)	L (*)	L (*)	L (*)

(B) Egiten du;

(I) Ikasten ari da;

(L) Laguntzarekin;

(*) item. hau zaila egiten zaiela dio andereñoak

3. HIRUHILABETEA

ORDENAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITURAK

3-6 URTE BITARTEAN HASI ETA KONTSOLIDATZEN JOATEKOAK

ITEM/IKASLEAK	A	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Gauza bakoitzaren lekua errespetatzen ikasi: jostailuak, poltsa	S	I	S	S	S	S	I	S	S	I	S	S
Gauza bakoitzaren lekua aurkitzen ikasi	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Gauza bakoitza erabili ondoren bere lekuan uzten ikasi	S	I	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
Gauzak sailkatzen eta ordenatzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Lanak txukun egiten ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Gauza edo instrumentu bakoitza egoki erabiltzen ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Zakarrontziak erabiltzen ikasi	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
Liburu/ipuinak zikindu gabe eta hautsi gabe erabiltzen ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Marrazkiak eta lanak bere apal edo kaxetan gordetzen ikasi	B	I	B	B	B	B	I	B	B	B	B	B
Kolperik eman gabe ireki eta ixten ikasi: ate, leiho, armairu	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Soinurik egin gabe ibiltzen ikasi	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
Pasatzen eta besteei pasatzen uzten ikasi	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E

(B) Egiten du;

(E) Ez du egiten;

(S) Saiatzen da;

(I) Ikasten ari da

GURASOENGANDIK JASOTAKO INFORMAZIOA

3. HIRUHILABETEA

NORBERAREN TXUKUNTASUNAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHITURAK

1 URTEREKIN HASI ETA BEREGANATZEN JOATEKOAK:

ITEMAK/IKASLEAK	A	And.N.	And	Andr	D	Iñ	I.A.	Ir	Ma	Maik	M.A.	N.Li
Garbia dagoenean disfrutatzen ikasi	B	B	T	e	B	B	B	B	B	B	T	B
Garbitzen edo orrazten eskatzen ikasi	T	E	T	e	B	B	T	B	B	B	E	B
Gorputzaren usain ona baloratzen ikasi	B	B	T	e	B	T	B	B	T	B	T	B
Beste haurren presentzia txukuna baloratzen ikasi	E	E	E	e	B	T	T	B	T	B	E	B
Azkazalak mozten utzi	B	B	T	e	B	B	B	B	B	B	B	T
Ilea mozten eta txukuntzen utzi	B	B	B	e	B	B	B	B	B	T	E	B
Zapatak garbiak eramaten eta ondo jartzen ikasi	S	E	T	e	B	B	B	B	B	I	E	T
Aurpegia, sudurra, eskuak garbitzen ikasi (bere gisa, zikinak daudenean)	B	E	I	e	B	T	B	B	B	B	B	T
Arropak txukun ordenatzen ikasi	E	E	I	e	E	E	E	B	I	I	E	T
Zikina sentitzen denean azpiko arropak aldatzen ikasi	B	E	I	e	B	B	B	B	B	I	I	B
Ilea txukun eramaten ikasi	T	E	T	e	E	T	E	B	B	E	E	T
Azkazalak garbiak eta ondo moztuta eramaten ikasi	T	E	I	e	B	I	B	B	B	B	E	E
Zapatak garbitzen ikasi	B	E	E	e	E	T	E	B	T	I	E	E
Gaineko arropak orbanik gabe mantentzen ikasi	E	E	I	e	I	I	B	B	I	I	I	I
Orban errazak garbitzen ikasi	T	E	E	e	I	E	B	B	T	E	B	E
Arropa politak, kolore konbinaketa eta irudiak baloratzen ikasi	T	T	T	e	B	T	B	B	T	B	T	B
Produktuak erabiltzen ikasi: hidratatzaileak, eguzki-babesleak...	E	E	B	e	B	T	T	B	B	E	E	B

(B) Egiten du; (E) Ez du egiten; (S) Saiatzen da; (T) Tarteka egiten du; (e) ez dute erantzun

Oharra: Gurasoei gazteleraz egin genien galdeketa.